

W. SHAKESPEARE

5

LUISKERAZ



KARDABERAZ

ODOL-ANTZERKIAK-A

LARRAKOETXEA' TAR B.



## EUSKERAZTZALLEA

Arratia'n Zeanuri'n, Undurraga Goiko "ALTXAGUTXI" etxean yaió zan LARRAKOETXEA AGIRREZABALA'tar Bedita Yon, 1.894'g. urtean; Laterandar Araudun Lekaide izateko asmoz, Napparroa'ko Alsasua'ra doa 1.907'g. urtean, an Latera-ta ikasteko; an urte bi eginda, Oñati'ra, aztertu ta iru ziñak egiteko; mezararako ikasketak Oñati'n eginda, Gasteiz' en abadetu zan 1.917'g. urtean. Arrazkero Oñati'ko lekaretxean irakasle; geroago (ta

orretarako Iruña'ko Irakasle-Irakastegian azterketak yasan eta Irakasle-Agiria lorturik) Oñati'ko Udal-Irakastegi'ko Zuzendari ta Rodrigo Mercado de Zuazola izeneko Iraskuntzako Gau-Irakastegiko Irakasle, 1.936'g. urterarte; urrengo urtean Ingelanda'ra eta an urtebete ta zerbait geiago eginda, Uruguay'ra ta Argentina'ra, an Salta'ko "Colegio Belgrano" dalako irakastegian 1.970'g. urterarte irakasle izateko. Amerikari agur egin eta 1.972'g. urtean atzera ona etorri zan eta emen dogu.

Bere idazlanak: "Granja Modelo Fraisoro"n irakasle izandako García Peña'ren "PATOLOGIA VEGETAL" liburu mandula euskeraztu 1.930 urtean edo orren baten, Azkue'tar Dunixi'k eskatuta; Eleiz-itzaldi-mordoa; Jauregi'tar Gabirel' en PISIA ta KIMIA'ko euskerea orraztu; EUSKALEKAN-DU-Lankiak biru-izenez 1.935'g. urtean Bilbao'ko egunkari baten lau idazlan labur agertu ziran eta euretatik batek yaso eban urte atako KIRIKIÑO saria; garai orretantsu bidali eban bere lan bat Iruña'ko nor-geiagoketa batera ta an be lenengo saria lortu ta yaso; orraitio be euskal idazle bikain onen idazlanik andien eta nekatsuen emen doatsuna da, irakurle, Shakespeare mundu osoan ezagun baño ezagunago danaren 37 antzerkiak euskeraratzea izan da. Lan au, egiteko au zelan burutu dauen gure idazle onak zeuk ebatzi. Antzerkiotatik iru EUZKO-GOGOIA'n argitaratu ziran ainbat urte dirala; beste bat euskeraztzalleen Paris'ko norgeiagoketa batera bidali eban eta an lenengo saria yaso eban; sari ori yaso ebana BINIXA'KO SALEROSLEA deretxona izan zan. Mirande Aipharsorho'tar Yon zana izan zan maiko beste batzuen artean, eta ak Ibinagabeitia'tar Andima zanari idatzi eutsanez, ain bikain eginda ei egoan euskeraratze-lana-ta, lenengo saria berari emon-bearrean aurkitu ei ziran maikoak. Gure euskerea betiko galtzeko zori larrian ikusirik, bizirik iramnazoteko asmoz egin ei dau lan goragarri au, ez beste asmoz. Lortuko al dau bere guraria gure idazleak.



KARDABERAZ BILDUMA - 14  
ODOL - ANTZERKIAK - A



KARDABERAZ BILDUMA - 14  
ODOL-«ANTZERKIAK»A



# W. SHAKESPEARE'REN ANTZERKI GUZTI-GUZTIAK EUSKERAZ

LARRAKOETXEA'tar BEDITA Y.'ek  
euskerazturik

*Es propiedad*

*Autor; IV. Shakespeare*

*Edita; Juan José Garmendia - Librería Técnica de Difusión - Tolosa*

*Imprime; Gráficas ESET - Senunario Vitoria*

*Depósito legal VI 382 - 197d*

*I.S.B N 84 -400-1225 -X*

# AGUR. YAUNAK! E S K E R R I K A S K O

KARDABERAZ-BAZKUNA ta TximiST-BAZKUNA'rere eragin eta laguntzaz, geien baten, eta IRIZAR-ELKORO'tar PELI ta GALLASTEGi'iar KAULDI yaunen laguntza apalagoz, baña ez otzagoz, oso osorik doaz euskeraz argitara W. Shakespeare'ren antzerki-lan mundu guztian ezagun baño ezagunago ta goratu goratuak, euskeraz irakurteko zaletasuna euskaldunen artean bizkortzeko, euliak eztitara lez, orretara aik ekarteko.

Yaietako soñeko lirain, dotore, txairo, orratzetik arako, arroz, ez astegunetako soñeko zirtzil, baldar, urratu, loi, adabau ta erdietenez, yazten dauz Shakespeare'k bere bulko, biotzaldi ta irudi zoragarri-arrigarriak ingelanderaz. Au onan dala, egoki ete zan ba, aren olango lanak euskera baldarr-trakelsez emotea? Sentzundunek eleuskidan olangorik parkatuko.

Egunkari ta aldizkarietarako idazten doguna idaztietarako idazten doguna baño ardura ta aperturi gitxiagoz idazten dogu, orretariko idaz-lanak, geien baten, bein irakarriazkero edo surtara, edo sastegira doazalako. Idazti edo liburuakazkoa ezta olan; betirako gordetan dira idaztiak, noizean bein barriro irakurteko.

Olan dala, euskera yatorrez, al izan dodanik lirainen, dotoreen, txai-roen eta txukunenez euskeraztu dot Shakespeare, irakurriago ta zoragarriago, atsegingarriago egiten yakun Shakespeare. Obeto ezin? Bai, arrano! Baña noiz amaitzeko? Gizonenik eztago obatu ezin leikenik.

EUSKERATZALLEAK









# III ATALA

ZAZPI ODOL - ANTZERKI



## N O N Z E R

Orrialde

AGUR, YAUNAK, ESKERRIK ASKO . . . . .	5
ERROMI TA YULETXU . . . . .	11
LEAR ERREGE . . . . .	65
OTEL, BINIXA'KO MAIRUA . . . . .	117
ATENAI'KO TIMON . . . . .	169
MACBETH . . . . .	209
HAMLET, DANEMARKA'KO ERREGESEME . . . . .	245
TORIL ETA KERSIDE . . . . .	303
IZTEGI-ERASKIN . . . . .	355



# ERROMI TA YULETXU

(ROMEO AND JULIET)





## S A R R E R A

Baña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
yakite-egoak igoa;  
soña zar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa.

Ez adi beldur, nere Maiteder:  
baserriz landa nai aunat ager-  
erazi, bazterrik-bazter,  
arroki; ezpaítun ezer  
lurbiran ederrik i bezain ederl

Gogamenaren ezkon ez-antzu,  
eztei-ondoko bide diñagu.  
Otoi, Yauna, ibilgo-buru,  
maitasun-edermen-zitu,  
aur begi-argirik antiz bekargu.  
(Lizardi'tar X.-Biotz-Begietan).

Lizardi'tar Xabier, gure olerkaririk andienaren otoi bero-larria Yaun-  
goiko errukiorrak abegí onez entzun eta onetsi dauela dirudi: bere ezkon  
ez-antzuak, maitasun-edermen-zitutzat, aur begi-argirik antiz ekarriko daus-  
ku, urrean, zori onez.

Unamuno, Baroja ta euren taldeko adu txarreko beste txoriak, bekai-  
tzez besterik uste edo' gura izanarren, larreko gure ízkuntzea, gure Maite-  
der, ez da antzu, ernari-ernari baño. Unamuno'k eta a baño andiagok  
buruan erabiliko bulkoak eta biotzaldiak argitara-ezinik ez dau gure euz-  
kera ezetsi-baztertuak. Ez orixe.

Diñodan au ez da arropuzkeririk, egi uts-uts baño. Shakespeare'n  
ERROMI TA YULE-TXU antzerki onetan ikusiko dozu aren bulkoak eta  
aren biotzaldiak oso-osorik dozuzala euzkerazko lan onetan, eta euzkerea  
gure amaren bularretik esneagaz batera edoski dogunoi beintzat, bulko ta  
biotzaldioak askozaz be gozoago egiten yakuz gure izkuntzan, beste edo-  
zeinetan baño; barrurago sartzen yakuz; gili-gili biziagorik egiten dauskue.

YAKIN'etik dala, EUZKO-GOGO'A'tik nai beste euzko aldízkaríetatik  
dala, barrí onak datorkuz: gaztedi urduri-artegea euzkerearen alde su-ta-  
gar lan egiteko gertu agiri da, ta zarroi ori pozkarri ta itxarogarri yaku,  
Aurrera, gazteok: zuona da etorkizuna; ez kikildu: yakite-egoz eragi da-  
gigun gorengo gallurretara, yakintza-gallurretara orain arte larreko izan

dan gure izkuntza apain-eder-ernaria. Iratzarri dagiguzan gure aberkide loak artuak. Yo arratza ta adarra. Ez dogu astirik galtzerik. Ekarri dagiguzan len-baño-len gure aldera gure anai-arrebak; batu dagiguzan gure indar guztiak eta goazen lerroka aurrera, beti aurrera, gogo-argi eta baikor. Ekín eta yarrai.

Shakespeare'k berak diñonez, "egundo ez da izan Yuletxu ta Erromi'n au baño yazokune negargarriagorik".

Antzerki osoa da biotz-eragikor, baña azken-aldera batez be, iñondiko aztin-aldiak emoten dautsaz giza-biotzari.

Ez noatzu, irakurle maite, antzerki onen laburgorik emoten; ez dozu bear be: oso-osorik irakurri ta gozatu egizu.

Edozein izkuntzatan be nekez aurkituko dozu, oso-osoa aituko dozun idaztirik; ez da ludi onetan iñor dana dakianik; gai batzui buruz gixi edo bape be ez dakigu batzuk, eta, irakurri-ala, olango gairik bidean aurkituazkero, ulertzeka irakurri ta atzean itxita, aurrera yoten dogu, ardi naiz auntzek, gogoko ez yakozan bedarrak atzean itxita, gozoagoren billa aurrera egiten dauen letxe. Esaterako, nire irakurleen artean geienak ez dabe ezagutuko ezpata-yokoa ta ezpata-burrukea zelan egiten dan eta, orrazkero, burruka orreri buruz lan onetan idazten dana orretarikoai ilun egingo yakie. Bardin yazoko yakie aztoreari buruz idazten dogunagaz, eize-era ori orain ez da oituten-da. Iluntasun orren errurik ez ezarri euzkerrari, zure ezyakinari baño. Erderaz irakurri dagienai be bardin yazoko yakie.

Toki batzuetan, Shakespeare'k zer esan gura dauen aituteko, astiro ibili bearko dozu, baña au be ez yako zor euzkerrari, esanari berari baño. Ingelanderaz ba'dakizu, ingelanderaz irakurri egizu, eta zeuk ikusiko dozu nik diñodana egi uts dala.

Kapulet zarraren bere alaba bakarragazko yokabidea gogor egingo yatzu, baña gogoan izan egizu orduko ekandu-oiturak eta oraingoak ez diriala bardiñak; Yuletxu'n ama bera be biotz-gogorrik asko agiri yaku. Aldien zerak!

Yuletxu'n añeari buruz Shakespeare'k dakazanak zer eder-ederrak dira. Aña ori maltzur eta txitxari agiri yaku: maltzur, itz-ontzi, erriko emakume, zek onura ekarriko aren aldeko. Gure baserrietan gari-ebaten, ida-ebaten, arta-zuriketetan, liño-yoten, arta-yorran, naiz beste zereginen baten emakume-mordorik batzen danean euren artean aurkitu ba'zadiz, olango emakumerik errez aurkituko dozu: gatz eta piperrik asko eralgiko dautzue euren txutxu-putxuetan. Ango barre-karkaxak eta zipladeari zipladeagaz erantzun-bearrak! Shakespeare'k bere aldian olango emakumerik bat baña geiago ezagutu eban, eta euretarik bat autu ta antzerki onetan sartu eban, Yuletxu'n añearena egiteko.

Erromi'n lagunak minduta, aña suminduaren agoan imini dodan esakerea belarrien batzuentzako gogortxo egingo da, baña erriarena dalako, ezer aldatzeka imini dot añearen agoan, bakotxari berari dagokionez itz eragitearren.

Shakespeare'k Mantoba'ko osakaidunari buruz dakarrena itzalez da eder. Lauko orí antzerki onetan aurkituko dozun atalík ederrenetaríkoa yatzu.

Margolari trebe yatzu Shakespeare, iñor izcrtekotan: zirti-zarta darabil bere margo-iñarratxoa; emen ukututxo, an plastada, ikara ta zalantza bari... eta sekulako lauko, ikuskizun eder-zoragarri iminten dautzu begien aurrean.

Bein-beinean geiagorik esateko asmorik ez dot-eta, agur, irakurle maitte. Pozik eta ezitan irakurriko al dozu ludi osoan ezagun eta entzutetsu dan antzerki eder au.

**Euzkeraratzalleak**



# ERROMI TA YULETXU (ROMEO AND JUUET)

## LAGUN ANTZEZTUAK:

ESKAL, Berona'ko Nagusi.  
PARIS, Gizazinda gazte, Nagusiaren senide,  
MONTAGU } Alkarren ererio diran etxagun bi.  
KAPULET }  
AGURE, KAPULET<sup>en</sup> osaba.  
ERROMI, MONTAGU'n seme,  
MERKUTI, Nagusiaren senide ta ERROMI'n adisklds,  
BENBOLLO, MONTAGU'n illoba ta EBROMI'n adisklda.  
TIBALDA, KAPULET ANDEREA'ren illoba.  
LAURENTZI LEKAIDE, Pantzeskatar.  
YON LEKAIDE, Gopatz edo anaigo bereko.  
BALTAZAR, ERROMI'n otsein.  
SANTSON } KAPULET<sup>en</sup> Otseln dlra.  
GERGORI }  
KEPA. YULETXU'n Añearen Otsein,  
ABARAN. MONTAGU'n Otseln,  
Osakaidun.  
Iru Ereslari.  
Abeslaritalde.  
PARIS'en Gezna- mutil; beste Gszna-mutU.  
Mallako Gudari.  
MONTAGU ANDERA, MONTAGU'n Emaztea.  
KAPULET ANDERA, KAPULET<sup>en</sup> Emazlea,  
YULETXU. KAPULET<sup>en</sup> alaba.  
Añea, YULETXU'na,

Berona'ko erritarcak; oinbat Gizon eta Emakume, etxaguntxa ble.  
takeon senide; Kokomarroak, Zainak, gauzainak, eta Begiraleak.

AGERLEKU.--Antzerkiaren arlorik andienean Berona'n; bein, bos-  
koiren Ekitaldian. Mantoba'n.

## SARRERA-ITZAK (1)

Gure agerlekua yerten dogun Berona (2) lirain onetan, bata bestea baño ez andiago ez legarriago ez diran etxaguntza bik, aspalditiko asarre-erresuminak eraginda, asalda ta burruka barria sortzen dabe ta errikideen arteko odolak errikideen eskuak loitzen 'iauz. Arerio bitzuan alan-bearreko kuntzurrun-aldeetatik zori bcarreko maitale bi datoz bizitza onetako ctr. gitara; eta onako bion azken errukarri ta zori txarrekoak lurrperatzen dau euren gurasoen arteko areria bizi-zarra,

Ordu biko antzetzaldi onen gei eta arloa gazteok ikara-larritan euki ta alkarganako xnaitasun-atza daroan bizitzea, ta euren seme-alabon eriotzeak ,ez beste ezek ezin amaitu Izan dauen gurasoen OTteko asaireaien iiaupena izango da. Eta. adi egon ba'zadize, zuok zeuok beteko *dozuez.* zuon aleginez, gure utsuneak.

## I EKITALDI

I AGHUESO.-ToH orokrs.

SANTSON «to GERGORI ouireia, izkiUotKil  
ezpata ta ikurditxo banagaz,

SANTSON.—Aiko, Gergori, guk ez yoagu ibili  
bear ikatz-lorretan.

GERGORI.—Ez ba. ostettn ikaztun deituko  
laieuskiguek-eta.

SANTSON.—Nik esan gura dodana zera dok,  
asarre ba'gintzozak ezpatak aterako geunke-  
^alct.

GERGORI.—Bai, bizi azan artean, atera egik  
ire iitunct ire idunekotik.

SANTSON.—Iñok eraginazkero. zartadea arin  
emoten yakiat nik.

GERGORI.—Baña iri nekez eragiten yak iñor  
yoteko.

SANTSON.—Montagu'nik izanazkero, txaku-  
rrek be eiagiten yaustak nihi.

GERGORI.—Eragitea zirlrin eginazotea dok;  
eta adoretzu izatea, zirkinik ez egitea: orraz-  
kera, iri eraginazkero, i atzea emonda ige-  
si oa.

SANTSON.—Etxe atako brakurrek be niri ego-  
nazoko yaustak; nik Montagu'neko gizon  
naiz emakumeri orma-aldea arluko yaust-  
tsat (3).

GERGORI.—Orregaz i yopu makal azala ira-  
garten dok, oTmarantza makalena yoaten  
dok-eta.

SANTSON.—Bai izan be; eta orrexegaitik,  
emakumeak, makalago dirialako, beti or-  
marantza egozten yoezak: orrazkero, Mon-  
tagu'neko gizonak orma-aldeetik egotzi ta  
emeskumeak ormarantza bultzauko yoadaz.

GERGORI.—Auzia gure ugazaba ta gu gure  
ugazaben gizonon artekoa dok.

SANTSON.—Dana dok bat, lege bako gizon  
cgertuko nok ni: gizonena egin dagida-

nean, emakumeentzako gordin izango nok,  
eta buruak moztuko yautsezat,

GERGORI.—Buruak moztu emakumeai?

SANTSON.—Bai, buruak naiz neskatasunok;  
euk zelan gura.

GERGORI.—Ik egitekoa min egiteko eraz egin  
bear dok.

SANTSON.—Ni zirkinga egon naitekean ar-  
tean min artuko yoeak; eta bakik ni me-  
rriorik ez nazana.

GERGORI.—Eskerrak i ez azala arrctinik; ba\*  
iniz izan, makallao igar intzateke-ta. -AteTa  
egik ire iskillu ori; or yatozak Montagu'lar  
bi.

(1) Sarrera-itxok emen elendarren antzer-  
kia'ako "Abeslari-taldesa"ren zeregin berbo  
ra dabe, zera, etorteko dana iragaxri. Ikusi  
elendarren aintzerkiok euzkeraz. Zaitegj idaz-  
le azkor-eragitin-zoliari esker, elendairen lom  
entzutetsuok or dozuz, euzkeldun irakmia, as-  
ti-aldi gozorik eurak irakurte.n emoteko. Sa-  
rrera-itzon bidez iragarteiri dorusku Shakes-  
peare'k antzerki onen mamia, baña racrmi iga-  
rra; mami barik, aria esan izan ba'neu oba.  
(2) Berona (italeraz Verona) au Itali iparral-  
deko Veneto derilxon eskualdeko uri yatu,  
ta berlatik Maniobct'ra, ojrtez^trtezean, 50 bat  
kilometroko bidea dago.

(3) Etxarte bidean lagun bi cíurrez-aurre  
ba'datoz, eta bakrk besteari Iotsa, begirune  
ta adei irogarri gura ba'dautsoz, berak etxai-  
tebide-erdiramtza eginda, bestecm orma-al-  
dea opatuko dautso. Gergori'k ez dautso egin  
gura okongo adefrik bere arerioari, berak  
ornalcjildea beretaat artu baño.

SANTSON.—Aterata yagok nire Iskillo gorrla; eraso, emen yagok nire bularra iri emoteko.

GERGORI.—Bizkarra ez ete gertuago?

SANTSON.—Ez egik izan orren bildurrik.

GERGORI.—Bai zera! ire bildur izan be r.i!

SA.NTSON.—Gure alde bego legen: euralc así daitezala.

GERGORI.—Nire aurrea zesr doazala ndk beztozkoa ilunduko yautset, eta ori deretxenez artu dagiela.

SANTSON.—Ez euraí deretxenez, al dabenez baño, Nik miña aterako yautset, eta ori orreintzako irdcn dok. eranzun ezik.

ABARAN etct BALTAZAR aurrera.

ABARAN.—Miña ateraten dauskuk ilc, yaun?

SANTSON.—Bai, miña ateraten yoat, yaun.

ABARAN.—Guri ateraten dauskuk ire miña?

SANTSON.—Gure alde ete yoagu legea nik baietz erantzunazkero?

GERGORI.—Ez.

SANTSON.—Ez, yaun, nik nire miña ez dauskat ateraten iri; baña miña atera egiten yoat, yaun.

GERGORI.—Burruka egin gura dok. ala, yaun?

ABARAN.—Burruka egin guia dodan! ez ba, yaun.

SANTSON.—Gura ba'dozue, emen nozue zuoi eranzuteko: nire ugazaba zuona añako bada.

ABARAN.—Ez ohea,

SANTSON.—Ezetz?

GERGORI.—Oba doáa esaiok: or yoiok nire ugazabaren senide,

ASNTSON.....Bai, oba dok, yaun.

ABARAN.—Guzurra diñolc ik.

SANTSON.—Atera zuon ezpatak gizon ba'zarrie.--Gergorí, ez aitzu ik ire zartada opi'korra. (Burrufca dcrragoioe).

BENBOLO aurrera.

BENBOLO'k.—Banandu, «gelok! zorroetaralu zuon ezpatak; zuok ez dakizue zeri daragoiozuen. (Yo ta lurcera egozten dautsez ezpatak).

TIBALDA ciunera.

TIBALDA.—Zer? Ezpatea aterata ago bloz-bako kírtenon artean? Btra egik, Benbolo, ta ilteko gertau adi.

BENBOLO.—Ni baksak egiton naiabilk.' so-

rroratu egik ire. ezpata ori, ostein gizonok bananduten erabilí egik níkn batera.

TIBALDA.—Zer? Ezpatea aterata, ta bake-ai-pakcr? Itz orreri gorroto yautscí nítz su-lezeari, Montagu'tar guztiai la iri daukzuedan lez; autso, ollo! (Burruk-i doragoir,<=).

Etxaguntza bietako batzuk aurrera, ía ía-kanbillan sarízen dira; geroago beste erífícxr batzuk adakiekaz.

I ERRITARRAK.—Adakiak, mckillak ota <u-tamakillak! yo ta eio! Bera Kapuletarrak! Bera Montagutarrak!

KAPULET yantziluznaz. eta KAPULET ANDERRA aurrera.

fCAPULET.—Ze zarata dogu au?., Ekazu nlrz ezpata luzangea, ekazu.

KAPULET ANDEREA.—Makulu. makulu! Zo? dala-ta zagoz ezpata-eske?

KAPULET.—Nire ezpatea, neuk diñot!.. Montagu zarra etorri da. ta niri irri egiteko or darabil bere ezpatea,

MONTAGU ta MONTAGU ANDERA aurrera.

MONTAGU.—Kapulet zital ori!.. Ez egidan eutsin, itxi egidan yoten.

MONTAGU ANDEREA.—Ez, ez dozu zirkinik egingo zitre arerioaren bilci yoateko,

NAGUSIA aurrera, bere begiraleakin,

NAGUSIAK.—Bendeko asaldariok, gentzearen areriook, auzo-odolez orbanduko gal-tzaidu oneri lotsa bakook, ez ete dozue entzun gura? Ara, zuok gizonok, zuolc abereok, zuon asarre lcaltegavriaren sua zuon zanaí darien iturri gorritz itxungiten dozuonok, ostein gorriak ikusteko zemaípean, lurrera agotzi egizuez zuon izkillo txarto beratuak, eta entzun zuon Nagusi suminduaren epaia... Ik, Kapulet zar orrek, eta Montagu'k sortuko errikideen arteko íru burrukak, utsetik sortuak, íru bider asaldatu yoek gure etxarteetako gentzea eta bizenak yaneko zuon gorrotoa azpiratzeko, Berona'ko erriar zarrái eder emoten daben yantziak erantziaz, eta bake-ugerrak yandalco aztomamillak beñola lez ostera be erabiliago dautsazuez. Bein geiago gure etxarterik asaldatu ba'dagistazue, zuon biziak ordainduko 'dabe bake-austearen zigorra. Oraingoz, doazala beste guztiak: -I, Kapulet, i ator níkn: -eta i, Montagu, i ator gaur

orrasian gure Erriko Etxera, gure epaitegi-  
ref, arazo onetaz geiagorik entzuteko.-Beste  
bein diñot, alde begie gizon guztialc emen-  
dik, ostein eriotzea dozue-ta.

(Nagusiak eta bere Yarraigokoak nlde dagie;  
KAPULET, KAPULET ANDERA, TIBALDA,  
eiritar eta Otseinak).

MONTAGU.—Nok imini dau aspaldiko ezta-  
baida au ostera be dariola? Esaik, illoba,  
urreean engoan i orrako ori asi zanean?

BENBOLO.—Ni ona-aurretik emen zirian zure  
arerioaren otseinak eta zureak, alkarri eu-  
tsela burruka: aik alkarregandik banandu-  
feko nik ezpatea atera dol; une orrstan  
Tibalda sutua eldu da, bere ezpatea ger-  
furik dauela; eupada-yaurtika ibili da a,  
ezpateari buru-ganean eragin eta eguratsa  
ebaten erago dautso; niri ez daust egiii mi-  
nik-eta, nik irri-ixistu egin dautsat; gu alka-  
rri zartadak enioten eta ezpatak sartzen  
gabiltzala, lagun geiago ta geiago erduten  
izan dira, ta batzuen eta besteen alde bu-  
rrukan eragon dautsoe, Nagusia etorri ta  
burrukariak alie banatara banandu arte.

MONTAGU ANDERA.—Ene! non da Erromi?  
Iltusi ete dok a gaur?-Pozik be pozik nago  
a gaurko burruka onetan sartu ez dalako.

BENBOLO.—Andera, eguzki begiragarriak  
eguzki-aldeko urrezko leioa zear kirika  
egin baño lenago nire gogo asaldatauak  
etxetik atera nau; eta, ara! uriaren eguzki-  
aldean dagoan pikadipean ibili ebilela iku-  
si dot nik zure semea; nik aganantza egin  
izan dot, baño a, ni oartuta, zugat artean  
ostondu da; eta aren biotz-igikuneak be,  
nireak lez, bizien bakarrik dagoanean izan-  
go diriala-ta, aren gogaldiari yarraitu eza-  
gaz neureari yarra natxako, eta pozik al-  
de egin dot nigandik alte egin dauenagan-  
dik.

MONTAGU.—Amaika goxaldetan ikusi izan  
dabe a an, bere negarrez goxaldeko iñon-  
tza geituten, eta bere intziriz lañoai lañoak  
erasten; baño zer guztiak poztu daroazan  
eguzkia an sorkaldean Argiabarraren oeko  
kurtxoin ilunak bazterreratzen asi-ordukoxe  
nire seme gogo-astunak etxerako bidea ar-  
lzen dau ta bere etzangoan bera bakarrik  
egoten da atea ifxita; leioak be itxi egi-  
ten dauz, egun-argiari sartzen galazo, ta  
beretzako beren-beregiko gau egiten dau:  
gogaldi ori zer baltzak eta iñondikoak ekar-  
teko da urreean, burubide onen batek orren  
zioa aldendu ez ba'dagio.

BENBOLO.—Ene osaba zindo, zuk ete dakizu  
orrako orren zegaitirik?

MONTAGU.—Nik neuk ez yakiat eta bera-  
gandik be ezin yakin yoat.

BENBOLO.—Erago ta ekin ete dautsazu yaki-  
ten?

MONTAGU.—Bai neuk eta bai ainbat adis-  
kiden bitartez be: bafia a bere biotz-Ieraen  
bumbidelari dok-eta, bere buruarentzako  
noragiño dan zintzo ez yoat esango, baño  
bai bere zerak iñok ez igarteraño ixilik eu-  
kitekoa dala, bere orritxo lirainak idigi ta  
bere edertasuna eguzkiari erakutsi-aurretik  
ar zitalak yotako pipila legetxe. Bere nai-  
bageak nondik datorkozanez besterik ez ba\*  
genki be, yakin ala, aleginak egingo geun-  
kakez eurak osatzeko.

BENBOLO.—Ara non datorren bera: baztarhi  
zaitez, arren; neuk yakingo dot orren nai-  
bagea nondik datorren, edo, ostein, uste  
oker-okerrean nagotzu.

MONTAGU.—Emen geldituta autorpen zintzo-  
rik entzungo al dok.-Tira, andera, goazen  
gu emendik.

(MONTAGU'k eta Emazteak alde dagie).

ERROMI aurrera.

BENBOLO.—Egun on, lengusu.

ERROMI.—Eguna orren asparri ete dok?

BENBOLO.—Bederatziak yo-barri dozak.

ERROMI.—Ai ene! ordu ilunak luze egiten  
yakuzak. Nire aita izan ete dok emendik  
ain arin alde egin idauena?

BENBOLO.—Bai, bera izan dok,.. Ze goibelta-  
sunez luzatzen ete yozak Erromi'n orduak?

ERROMI.—Eurak laburtuko leukezanik ez eu-  
kialc.

BENBOLO.—Maiteminduta ago, ala?

ERROMI.—Ixilik ago...

BENBOLO.—Maite-minik ez?

ERROMI.—Maite-minik bai, baño no ak nihi  
erantzun ez.

BENBOLO.—Andia da orraitino, maitasuna  
ustez unen bigun-bigun izan-ta, zelangoa  
dan ikusterakoan orren latz eta gordin  
agertzea!

ERROMI.—Ai ene! andia da, maitasunak, be-  
giak estalita dauzala, begi barik be be-  
rak gura dauenerako bide-zidorrak idoro-  
tea! Non bazkalduko yoagu? Ene! ze ba-  
rruka izan dok emen? Orraitino ez egidak  
esan, dana entzun yoat-ela; emen gorro-  
toagazko egiteko andia yagok, baño maita-  
sunagazko areago: -ba, orrezkero, i maita-  
sun burrukari ori! i gorroto mailale ori!



ezer-ezetik lenen eginiko edozer ori! arin-tasan astun ori! uskeri ben ori! eder diru-dian antzezko marrru itxusi ori! berunezko egaki, ke argi, su otz, osasun gexo ori! atzarrik agon lo ori, dana ez dan ori! -Nik onako maitasun au oartzen yoat nigan, eta nik ez yoat oartzen maitasunik onetan. Ba-re egiten daustak?

BENBOLO.—Ez, lengusu, negar bai, ostera, ERROMI.—Biotz-on orrek, zeri negar?

BENBOLO.—Lre biotz onaren estu-larriari.

ERROMI.—Ba, maitasunari oben egitea dok ori. Neure naibageak dozak asko nire bio-tza estutu ta sakatzeko; eta ik geitu egin gura dozak, ireakaz be estutuago ta saka-tuagotzeko; ik erakutsi daustakan maitasun orrek geitu egin yok neuk geiegi dodan naibagea. Iutzirizko lurrinak eragiten da-ben kea dok maitasuna eta garbitu daite-nean, maitaleen begietan argi ta diz-diz egi-ten yok; zer besterik dok? Zorakeri zur, ito eragiten dauen bsaztun, eta ustelzen era-gozten dauen gozo... Agur, lengusu (Yoan doala).

BENBOLO. -Astiro, mutil! ikin yoango nok ni be; ik olan alde egin ba'dagik nigandik, irain egingo daustak.

ERROMI.—Ixilik ago. nik neure burua galdu yoat; ni ez naiagck emen; au ez dok Erro-mi, beste nonbaiten dok a.

BENBOLO.—Ire goibeitasunean esaidak nor maite dokan.

ERROMI.—Ba! urrume eginda iri esango ete dauskat?

BENBOLO.—Urrume egin! Ba! ez olangorik; baña gogilun orrek esaidak nor dan.

tKROMI.—Gizon gexo goibelari berak zer-gu-ra egiteko agindu egiok... Ondoezik be on-doezik duçon gizon goibelari esanazoteko itz orren gogor! Nire goibelaldian, lengusu. emakume maite yoat nik.

bENBOLO.—Untzetik orren ur neuk be yo naioan i aiteminduta engoala uste izan nebanean.

ERROMI.—Marran yoten ez az txar-txar be orraitino! eta lirain dok nik maite dodan emakumea.

BENBOLO.—Lengusu 011, mavra ona erreten dok arñen.

ERROMI.—Ba, erre dokala usle dok ik, *kaña* uts egin dok: a ebok erreko Kupida'ren ge-zik; Dine'n zurtasuna vok ak; eta garbita-sun-zaingarriztat esuilgi zulagaitzez estali-rik dagonezkeru, maitasunaren ume-mako makalak ez yautsal egiten kalterik. A &? yoek esituko itz maitekorrak, ez makurtuko betebetean datorkozan begiak, ezta ak ez yautsal bere ultzorik zabulduko gurenak be austen dauzan urreri: enee! a bai aber-rats edertasunez; onetuntxe dok a lander, zera, il 'daitenean edertasun a bere ontzi ta guzti ilgo dala,

BENBOLO.—Orrazkeru, oraindik be garbi irau-teko zin egin yok?

ERROMI.—Bai, egin yok, eta aurreratze orre-tan ak eralte andia egiten yok; eta izan be, gogorkeriak goseak ilik eukita, ederta-sunak edertasunari ondorengorik izatsn eragotzi egiten yautsal. Lirainegi, zurrerik dok a; zurki lirainegi dok a, niri elsi eragin-da bere burua poztuteko; zin-bidez agur egin dautso maitasunari, ta zin ori dala-ta, au orain esateko ez, bestetarako ni ilik bi-bi nok.

BENBOLO.—I yaurriten itxi egidak, adiskide, uxatu egik ire burutik orrako emakume ori,

ERROMI.—Ene! a nire burutik zelan uxatu irakatsi egidak.

BENBOLO.—Yarei egizak ire begiak; beste edertasunak eztertu egizak.

ERROMI.—Ostera be aren begi ezin ederra-goez oldoztutea litzatekek ori; emakume lirainen bekokiai mun egiten dautsen zori oneko marroak, eurak baltzak izanik, liiai-na ostonduten dabela gogoratuazoten yaus-kuek; itsutu danak ezin aitzu ikusmena gal-duaz galdu dauen altxorra: erakutsi egi-dak alaso edev dan emakume, aiko ba, ze-tarako yatak a bera baño ederrago dana niri gogoratuazoteko baño? Agur: i ez az gauz niri aitzuazoten irakasteko.

BENBOLO.—Beteko yoat nik agindu au, edo, ostein, zorrean ilgo nok. Alde dagie).

## II AGERLEKU.-Etxarte-bide.

KAPULET, PARIS, sta Otsein aurrera.

KAPULET.—Orraitino Montagu'ri ta riiri zigor bardina ezarri dauskue; ta gu lez zar di-rian gizonentzako ez da zail bakez bizitea.

PARIS.—Zuok biok zarie etxagun begiraga-

ri; ta tamal da zuok orren luzaro alksrre-kin asarre bizi izana, Baña orain, one yaun, zuk zer erantzulen dautsazu nire es-kariari?

KAPULET.—Len esanda dodana barrero esa-ten dauskat nik; nire alabea oraindik ludi

onetan erbesleko dok, ak ez yok ikusi oraindik amalau urteak dakarren aldakuntzarik; beste uda bi zimeldu ta igartu daitezala euren guritasunean, guk a ezkongei izateko eldutzat etsi baño ien.

PAHÍS.—A baño gazteagorilí ba-da ama zoriotsu.

KAPULET.—Eta gazteegi rauslriiduak dozak orren goiz umatuak. turralc irunsi yausia zak axe ez, beste itx'ropen guztiak, -a dok niretzako lurreko andera itxaropentsu: baña orraitíño i aren biotza irabazten alegindu adi, aren baietzarenlako nire ederretsiak zati baño ez dok-eta: a ire alde yari ba' daitek, alde orretara yoko yok nire ederretsiak ela nire baietzak be, Gau onetan izango yoat nik aspeldi oi dogun oturuntzea, ta apari orretara nika maile dodazan aimbateri doi egingo yautset; eta ik, ainbesten artean bat geiagok, nire zenbakia geitu egingo dolc, eta ondo etorritzat artuko augu. Arrats onetenn nire etxe landerrean begiztau egizalc lur an ostikopean zapaldu ía orte iluna argitzen daben izarrak: gazte guriak uegu meikiaren yarrai orpozorpo datorren Yorrail ondo ormiduan oartzen dabena lango pcza oartuko dok gau onetan emakumezko pipil gazteen artean nireanr guztiaf entzun, guztiak ikusi, eta maitegarriena izan maiteen; nirea be, bakarra ízanerren, en i'fango al dok beste askoTen ttrtean, bat geiago egi'eko, izatez zer gitsi izanarren. Gaioazan, yarrai akit.--Oa i. txotxo, abil Berona liraina zear; billa egizak izen-erreskada onetan agiri dirian iagunak (ingitxo damotso Oiseinari), ela esai-ek nire etxea ki ondo etorria euren begira dagozala,

(KAPULET eta PARIS'ek alde dagie)

OTSEINAK.—Emsn idazita dagozanak billatzeko! idatzita dago oskiginak metroa eskuetan dauela ibili bear dauela, yoskinak bere lakariagaz, arrantzaleak bere idazkortzagaz, eta margolariak bere sareokaz; ni, ostera, emen bidaltzen nabe euren izenak emen idatzita dagozan lagunen billa, ta nik yakin ez au idatzi dauenak emsn zeintzuk izen iminl dauzanik. Yakitunen bats-gana yo beavko dot:-ordu onsan,

BENBOLO ta ERROMi aui-rera.

BENBOLO.—Bai zera! suak sua itzali egiten yok, gizon, min zorrotzagok mina gitxiu,

axindu egiten yok; biraka aorabioxi t« larritu ba'az, besteranta bira eginda galdu egizak larri-sorabioak: ofkize larri oñaze larriagoz osatzen dok: ire begia beste zerbaitegaz kutsatu &gik bai. eta kutsu *xatsa*-ren edena il egingo dok.

ERROMI.—Ire zangur orriak ezin-obeak dozak orretarako.

BENBOLO.—Zetarako, arren?

ERROMI.—Ire zangazur ausioerentzako.

BENBOLO.—Ara! Erromi, zoratu egin yak. ala?

ERROMI.—Ez, ez yatak zoratu, bafia zororik baño lotuago naiagok; espetxean itxita. ifiof yaten emoteka, bizkarra berotu ta gorriak ikusiazota, ta... Arrasti on, lagun on,

OTSEINAK.—Yaungoikoak arrasti on ernongo al dautzu.-Arren-bai-arren, yaun, zuk ete dakizu irakurten?

ERROMI.—Bai, nire zoria nire zori txarrean.

OTSEINAK.—Bear ba'da zuk ori idazti barik ikasi dozu: baña, arren-bai-arren, irakurri ete daikezu zuk ikusten dozun edozer?

ERROMI.—Bai, nik izkiak eta izkuntzea ezagun ba' dagidaz.

OTSEINAK.—Zuk zintzo itz egiten dozu: pezik zagoz.

ERROMI.—Etxoik, lagun,- ba-yakiat irakurten. (Irakurri dirakur),

"Martin yauna ta bere emaztea ta bere alabak; Antselma kondea ta bere arreba lirainak; Biturbi'n andera alarguna; Palkenti yauna ta bere illoba maitagarriak; Merkuti ta bere anaí Balendin; nire osaba Kapulet, bere emaztea ta alabak; nire illoba lirain Errosaline; Libe; Balendi yauna ta bere lengusu Tibalda; Luki ta Elene bizkorra". Batzar lirain (Atzera dametse ingia): norako ete dozak?

OTSEINAK.—Gorako.

ERROMI.—Norako esan dok?

OTSEINAK.—Apaiteko; gurerako,

ERROMI.—Norenera?

OTSEINAK.—Nire ugazabanera.

ERROMI.—Izan be, nik lenengotik itandu bear neunskan ori.

OTSEINAK.--Orain itamdu barik neuk esango dautzut: nire ugazaba Kapulet andi-abe-ratsa da; eta zu, Montagu'neko ezpa'zara, zatoz, arren, eta edan ontzibete ardao, On-do ibili! (Ald edagi).

BENBOLO.—Kapulet'en aspalditiko apari orretan apaltcir izango dok ik maite-maite dokan Errosaline liraina be, Berona'ko beste eder arrigarri guztiekin balera: oa i be ara; eta begi argi-garbiz erkatu egik, imi-

ni egik aren edertasuna nik an erakutsiko dauskadazan batzuenaren ondoan, eta nik ire zisna be'atzat etsiazoko dauskat.

EHROMI.—Nire begiko zer maitagcuTi-gurgarria olango guzur agertu daitenean, su egin-go al dozak nire negarrak; eta urpera sarritan yoan izanarren, egundo ezin ito ezin diranolc.... ziu-ausle gardenok, erreko al dozak guzurtizat! Nire maitea baño lirainagoririk oro dakusan eguzkiak ez yolc ikusi a langorak ludia ludi danaskero.

BENBOLO.—Bai, zera! ik a eder etsi enduan,

aren aldamean besterik ez egoalako, ire begi bietan a bera bakarrik kokatuta: baña leiarreko astakin (4) oneitan astatu daifela ire anderearen edertasuna nik yai onetan erakutsiko dauskadan diz-diz egiten dauen neskearenagaz, eta ireak neke eniongo yok ederr be, orain ederren emonarren.

ERROML.—Mi aurrera yoancio nok, olango ikuskizunik inok erakutsi ez iagistan, eta nirearen argitasunez poztuteko, (Alde dagie).

### III AGERLEKU.-KAPULET'eneko Etxoki.

KAPULET ANDERA ta Aña aurrera.

KAPULET A....Aña, non da nirs alabea? Nire aurrerako dei egiozu.

AÑEAK.—Ba, nire neskustasunarren, -amabi urteko nintzalarik-, nik esern dautsat aji etorteko.-Eee! kutun! Eee! txoriño biotzeko! Ene hada!., non da neskato ori?... Eee! Yulefux!

YULETXU aurrera.

YULETXU.—Zer da? Nor dago deiez?

AÑEAK.—Zure ama.

YULETXU.—Andera, emen nozu. Zer gura clozu?

KAP. AND.—Au da arazoa..., Aña, zuk crlde egizu bein-beinean, ixilpeaii itz egin bear dogu-ta: ...aña, atzera zatoz; oraintxe otu yat zuk gure erabagigeia entzun bear dozula. Zuk ba-dakizu gure alabea alosoko adinera eldu dana.

ANEAK.—Ene bada! nik orren crdina ordut'larano zeatz esan daikit.

KAP. AND.--Oraindik ez dauz egin ainalau urte.

AÑEAK.—Nik nire amalau agin egingo neunkez, -eta orraitino emalau osotutsko lau baño ez dodaz-, orrek ez dauzala egin amalau urte. Zenbat egun-barru da Dagonillaren lenengo eguna?

KAP. AND.—Amabost egunetik gora.

ANEAK.—Gora naiz bera, urteko egun guztietarik urrengo Dagonillaren lenengoaren aurreko gabaz egingo dauz orrek amalau urte. Ori ta Susane, -goian begoz kistarren gogo guzUak!-, adin bereko zirian: ara ba, Susane Yaungoikoakin dago; a nitzako ouegiz zan:... baña, esan dodanez, Dagonillaren lenengo egunaren aurreko gabaz egingo dauz orrek urteak, amaldu urte; bai, egin-

go dauz, bai orixs; gogo-gogotan dot ori. Lurr-ikareazkero orain arnaika urte dira; eta aldi atan ori bularra kenduta egoan, --ori ez yat aitzuko egundo--, urtelco egun guztietarik egun atantxe kend-u yakon bti larra; eta izan be, egun atantxe erantsi neuntsan nik zizare-bedarr-ura nire tlti-buruarí, ni usategian eguzkitan nengoala; aldi atan nire ugazab-a *tei* zu Mantoba'n zintzazen; bai, nik bnru ona dot: -baña, esan dautzudanez, orrek nire bularreko tifi-buruan zizare-bedarraren ura oartu tcc mingols zala ilcusi ebanekoxe, gaxccs!, ikusteko za" zelango iguin ortu ta bularra itxi eban! benetan usategia dardaraka yari zan: egia esan, nik ene atau ez neban izan inok agindu- bearrik andik arin alde egiteko. Eta arrazkero amaika urte dira; aldi atan, izar» be, ori berori bakarrik zutunik egotako gei zan; bai, kurutzearren, aldi atan arin egiteko ta zibuka ta baldar edonora yoateko gei zan; eta izan be, egin-eginean be aurreko ogunean yausita bekolcian anditua egin yokon, eta atan nire senan'ak, -goian bego! ci gizon txítxari zan~, umea besoetan artu ta esan eutsan: "Mosuz aurre yausi zetra gaxo ori? Sentzun geiagio daukakezunean aratinik yausiko zara; ez ete, Yuletxu?" eta, Andera Miren'arren, gaxo polítak negarra itxí-ta erantzun eutsan: "Bai", eta orain arako yostaketea egiztau egingo dala ikusteko ga-

(4) Begicii "leiarrezko astakinak", "kristo, lezko pixuctk" ereeten dcutse emen Shcikes-peare'k. Zegaiitik "leiarrezkoak"? Gure begiok aTgictgaz lei.ar-7.ati borobilak egiten dafcena berbera egiten dabelako: argi-izpiaik okertu ta alkargana batu. Zegaitik "astakinak" edo "pixuak"? Aslakinak zer bitik zein dan astunago iragarten daukuen lez, begiak zein dafi ©denago esaten dausknelako.

ra! Sinistu egidazu; milla urte biziko ba'nintz be, ez litzakit aitzuko arako a: "Ez ete, Yuletxu?", esan eban ak; eta ergeltoak autortu ta "bai" esan eban.

KAP. A.—Bego ori: ixilik zagoz, arren.

AÑEAK.—Bai, andera; baña ezin dautsat barreri eutsin, orrek negarra itxi ta "bai" erantzun izana oldoztuaz: eta orraitino, sinistu egidazu, crrek bere bekokian ollarra-trautzea besteko kozkor ba-eban; negar eragiteko kozkorrekoa, ta egon be ori negar-rarrantzaka egoan. Eta nire senarrak: "Ene! Mosuz-aurre yausi zara? Adinera eldu zaitezanean mosuz-gora yausiko zara; ez ete, Yuletxu?", eta orrek baietsi eta "bai" erantzun eban.

YULETXU.—Tira, aña. ixildu zaitez, arren.

AÑEAK.—Ixilik, nik esan dot esatekoa. Yaun. goikoak bere onespén-atza ezarriko al dautzu! zu izan zara nik egundo azi dodon umerik politena: eta beñ zu ezkontuta ikusi-azkero, nire guraria bete da.

KAP. A.—Ene bada! ezkontzea da izan be nire itzaldi onen geia.-Esaidazu, Yuletxu alaba, zu gertu ete zagoz ezkontzeko?

YULETXU.—Omen orretaz oraindik amesik be ez dot egin, ama.

AÑEAK.—Oinen! neu ezpa'nintz zure aña bakarra, zure zurtasuna zure tititik edoski dozula esan-bearrean aurkiñuko nintzateke»

KAP. A.—Tira *ba*. orain ezkontzeaz oldoztu; emen Berona'n, i baño gazteagorik, dago, neko don arua, ta itzal andiko izan be: nire kontutik, fre ama, ama zonan i oraindik neska azanan adin orretantsu. Orrazkero, ba, ta labor esateko; .-Paris adoretsua ire maitasun-eske yabilna.

AÑEAK.—A gizon don, neskato! neskato, ludi osoan ez yagon a lango gizonik; ara! a gizon egin-egina ta bete-betea don.

KAP. A.—Berona'ko udeak ez yon a lango lorarik.

AÑEAK.—Bai, a lora don; bai orixe, benetako lora,

KAP. A.—Zsr diñon ik? Maite ete daiken gizon zindo ori? Arrats onetan ikusiko don gure yaian; irakur egin Paris gaztearen argpegiko idatzia, ta idoro egin an atsegingarritasuna e-dertasunaren idazkoitzez an idatzita; aztertu an alkarregaz ezkontuta dagozan lerroetarik baktxa banan-banan, eta ikusi aik alkarri emoten dautsen poza; eta idazti orretan lausotuta ikusi daikenana, aren begien ertzetan idatzita idoro. Maitasun-idazti orrek, azal bako maitale orrek. bera edertuteko, azal-bearra bakarrik yon: Arraina itxasoan bizi don; eta barru-ederrei arrokizun andi yaken azal ederrer bat barruko ederra estaltzeko: askoren eretziz, idazti ak barruan urrezko ipuina yon, urrezko erskaiz itxita; orrazkero, i aren yabe egin ba'adi, ak dauen oroen yabe egingo az, ez bape gitxiago.

AÑEAK.—Etzara ezertxo be gitxiago izango! gitxiago! bai, zera! aieago: emakumeai gizonak eragiten dautse argi ía diz-diz.

KAP. A.—Labor esan, gogoko yan Paris'er maitasuna?

YULETXU.—Begiratu dot gogoko izan dakidan, begiratzeak gogoko izaterik ba'dakar; baña nik znre baimenak eskubidea emoten daustan baño barrurago eztot sartuko begirik.

#### OTSEIN aurreia.

OTSEINAK.—Andeia, apaldanak erdu dira. maian dago aparía, zuri deiez dagoz, nire andetañoaren eske dagoz, iñudeaz añenka daragoioe ontzitegian, eta oro dago laliri-lani, Alde egin bear dot nik emendik, otseintzea egiteko. Anen-bai-anen, berta. tik yanai zakidaze.

KAP. A.—Ire yanai goazak (Otseinak alde dagi).-Yuletxu, zuie begiia dago Kondea.

AÑEAK.—Zoaz, neska, egun zoiionsurik izateko gau zorionsuen billa zoaz. (Alde dagi).

#### IV AGERLEKU.-Etxartebide.

ERROMI, MERKUTI ta BENBOLLO auneia, bost naiz sei Kokomano, Zuzidun, eta beste batzukin.

ERROMI.—Zei? Guie buru-zuriganitzat itzaldi au egingo ete dogu, ala auneta yo buru-zuritze barik?

BENBOLLO.—Olango aiko.maikoetan ibilteko

beranduegi dok: ez galoazak Kupida'ii idun-beiogaitzilto buru-estalgirik iminten, ezta Tartaritarraren zimitzeko mako margoztu. rik be yarten, emakumek txuxoak lez ikaratzeko; eta gure sarrerarako, ez dogu erabiliko idaztian ez dagon sarrera-itzik be. erasaleari yarraí erdi-ixilik esanda be: eta eurak gu eurak gura dabentzat artu ta etsi

gagiezala, guk eurafo diriantzat artuko do-guz, eta orrazkero alde egin.

ERROMI.—Ekazue zuziren bat, ni yantzan egi-teko astunegi naiagok; nik argi egingo dau-tzuet.

MERKUTI.—Ez, Erromi, guk iri yantzan exa-gin bear dauskagu.

ERROMI.—Ez niri, ez orixe: zuok yantzarako oñetakoak dozuez, oski-azpi arinakaz: nirs oskien azpiak berunezkoak dozak-eta, zir-kinik egin ezin-alean iotuten naioek lurrari.

MERKUTI.—I maiteminduta ago; Kupida'ren egoak ar egizak iiorrean, eta gora-goraka egaz egik olango lokarri utsak ausita.

ERROMI.—Nik, aren geziz alderik-alde zula-tuta, min zorrotzegi yoal aren egaki arinez egaz egiteko; eta olan lotuta, nire lor goi-bela baño gorago ezin yoat egin yauzirik: maitasunaren zama ctstunpean ni bera ta bera naioak.

MERKUTI.—Ik euk sakcitu bear eunskio be-rantzu maitasunari; eta izan be, a samurr-bigun dok-eia, i arentzako astunik asko in-tzake.

ERROMI.—Maitasuna zer makaltzat dok ik? Gogorregi dok, traketsegi, airoegi; eta aran-tzeak lez min egiten yok.

MERKUTI.—Maitasunak latEegi ba'arabil, be-ra erabili egik laiz; min egiok, min egiten dauskalako ta, olan, ik maitasunari gei-go egingo doutsak.., Ekak kuixa bat nire begi-estalgia bertan sarizeko (Marro yarten dau buruan). Arpegi-estalgari arpegi-estalg-i! Zer yaustak ardura niri begi aztertza-lek nire itxusitasunak ikusiagaitik? Emen dodaz niresti orde z gorrituko dirian kakalar-do-bepuruak.

EENBOLLO.—Goazen, yo atea ta barrura; eta borrra sariu-akt bakoxtak gegoko yakon bidea artu dagiala.

ERROMI.—Ekazue zuzi bat; lotsa bakoak, biotz-arinak zapaldu dagiezia la iaak euren oñakaz, ni nire aitaitaren esanari intsigiko natxako-ta: "Ni argi-mutil izango naz eta begira egon". Egundo ez da izan yolas oberik, baño nireak egin dau.

MERKUTI.—Bai, zera! maitasun orren lupe-tzan belarrietaraño sartuta egonarren i, geuk aterako augu ortik... Tiruk, tiruk, egun-argi dok.

ERROMI.—Ez, ez dok olangorik.

MERKUTI.—Yaun, nik esan gura dodana emen egonaz argia alperrik galtzen dogala dok, argizai-argia egunez lez. Gure asmo ona aintzakotzat ar egik, onetan ire bost sen-tzunetan baño sentzun geiago yagok-eta.

ERROMI.—Guk be asmo ona *yoagu* kokoma-rru yantzita yantza orretara yoatean, baño burubide gitxi.

MERKUTI.—Zegaitik? Zillegi ta on ete dok itaun au?

ERROMI.—Bart ames egin yoat nik,

MERKUTI.—Neuk be egin yoat.

ERROMI.—Ondo yagok, ze ames izan dok irea?

MERKUTI.—Ameslariak sarriton izaten dirla-la guzurti (5).

ERROMI.—Bai, oean etzanda egoten dozak, egiazko zerak arnes egiten dabezan bi-tartean.

MERKUTI.—Ba, orrazkero, Mab (8) erregenoa izan dok irekin, A iralxcen emagin dok: eta soñez ez dok a alderman'ak (7) aurren-go atzean eroaten dauen elastuneko agata-arria baño andiago ta lotan dagozan gizo-nen sur-zuloak zear aurrera eroaten yoek zer bilder bik: bere burtxirrinkearen izpiak zeruko katuaren zango luzezkoak dozak; burdi-estalgia, larrapota-egozko; ugelak, armiarmarik txikerrenaren amaraunezkoak; idunetako uztaiak, ilargiaren argi-izpi ezoz-koak; erregenoaren txibitea, txirritxirri-azu-rrezkoa; txibita-ugelak, mintzezkoak; bur-tzaina, eltxo txilri nabar, andiz neska alperrenaren atzetik aterako bazpi borobila añako bez: burtzainaren yantzia, urdina: aren guda-burdia urr-koskol utsezko da, mi-xar zurginak naiz arrak egina, bata naiz bestea bsñolako iratxo-burdiginak dira-ta, eta onan erregeno ak gabero, bere zal-diak emoi alean, arin egiten dau mois-minduen garaunak zear. eta orduan aik mai-te-amescjlz egiten dabez; errege-yauregikoen

(5) Toki onefan Shakespecne -zimaidikaz datorku, "lie" itza daktrr. "Lie" itz baka-rrrok, ingelonderaz, "efzan" eta "guzur" bul-ko biak iragarten dauz etci, orregaitik, bul-kook ingelanderaz zimardikak yatzu-z. Ame-setan geien baten etzanda egien da, ta ame-sa geien baten guzur be izaten da.

(6) Mab. Itz oneri buruz Websier'en iace-giak auxe diño: "Mab erregeno. Iratxoan erregeno, gizonak euren amesettatik yaregiten dauzan emagina. Shakespear'e k itzelez eder-to emcn dauzkuz bere zertzeladok ROMEO AND JULIET antzerkian".

(7) "Alderman" a Ingelaina'n guk biga-rein endore edo endore-ordeko esango geun-skiona edo olangotsu yaizu. "Agata-arria", os« tera, pitxiizat be erabilten dcin arri gogorra yatzu.

belaunalc zear, eta aik bertatik belauhalt zelan makurtu ames egiten dabe; legegizonen atzak zear, eta aik bertatik ames egiten dabe euren ordainai buruz; emakumeen ezpanak fcear, eta aik mosuak emoteaz ames egiten dabe, ta sarritan Mab asarreak babazorroz kuñsututen dauz, euren arnciseak gozoki-sundea dauelako: batzuetan zaldia.k ernon-alean arin egiten dau errege-yauregikoren surr-tontorrera, ta ak eskakizunen baten sundiaz ames egiten dau; batzuetan amarren-txarriareu buztanagaz etorten da tr lo dagon eleiz-gizonari surrean gili-gili egiten dautso, ta, orrazkero, ak beste irabaz-iturritz araes egiten dau; batzuetan ak bere burdia gudariren idunera eroaten dau, ta, orrazkero, onako onek erbestetarren idunak ebalen daragoiola ames egiten dau, amesetan atalcak idigiten dauz, kukuka yarten da, españar ezpatak darabilz, edonizi sakon-sakonak dakus ardaoz bete-beterik; gero bertatik dator bere belarrietara arrat^ots, ta, orrazkero, ikaratu ta atzarri egiten da; eta onan ikaraturik zinez nastauta ofoi bat edo bi eginda, ostera be loalt ar^zen dau. Au, gabaz zaldien idunetako uleak alkarregaz eundulen dauzan Mab bera da; ule zikín-loietaii maiiagarri-kirimiluk gogortzen dauz, eta kirimilok manatuealc zori txarra iragarten dau; au da neskak aratririk eízánda dagozanean, eurak sakatu ta

aina i-alen iñolc baño lenago irakatsi 4a ama or.ak izateko bidean yarten dauzmi sorgina: bai, au da c...

ERROMI.—Ixilik, ixilik, Merkuti, ixilik, ik aUtzak esaten daragoiok.

MERKUTI.—Benetan, nik amesai buruz yara-goioat, eta amesak garcun alTíerren u^ie dozak, irudimen utsaren seine; eta in.itfñi0-na izaki eguratsa baxen me dok, etu txca bera baño be geldigorrage; etct uxea. ba-c » kik zelango dan: oraintxe iparralds bular-leituari maitekerietan yabiikok, eta asariatu daitenean, andik puzket alde egingo yok, bere mosua egoalde inontsua begira daularik.

BENBOLLO.—Ik aitalu dokan axeak guri gure buruak eroan yauskuzak puzka: aparia amaitu dok, eta gu beluegi eldiiko çozak.

ERROMI.—Ni goxegi elduko gareanaren bildiir nok: eta izan be, oraindik izarretan dagon ondorengo andiango-bíkiangoen batek gau oneiako yai zaratatsua gaz batera bere asiera zori txarrekoa izango ete dauenoren bildiir nok: nire biotzean; nire biotz ezetsi onetan .ezkutuan dodan bizitza au, apen zitelen baten bidez, aldiz aurretik ainaituko ete yatan bildur nok: baria nire bidaldia zuzentzen clauonak putz egin begio nire ontsi-oiakxn!... Aurrera, gazte zindo guriok.

BENBOILO.—Yo. arcitxok, (Alde dngie).

#### V AGENLEKU.-KAPULET' eneko areto.

Ereslaricik begira. OTSEINAK aui-rera.

I OTSEINAK.—Non dok Popan, maia kentzen guri ez laguntzeko? Otolá kendu ta irulcutzi dagiala!

II OTSEINAK.—Era on guztiak gizon buten r>aiz bion esluetcin balcarrik dagozanean, eta eskuok be loi, zerak ez dira garbi egoten,

I ÚTSEÍNAK.—Kendu emendík giltza-aulkialt, eroan arasatxoa, zuok maien eta maietako ontzien ardureci artu: i on az-ta, itxi egik niretzako artagozo-zati bat; eta ik maite nok-eta, ate-zainak itxi dagitsela ona etorten Susane ta Elene'ri.~Andoni! eta Popan!

II OTSEINAK.—Gstru gagozak, mutil.

I OTSEINAK.—Bebarru nagusian ire billa, iri deiez, itaz itcivmka ta ire begira yagozak.

II OTSEINAK.—Ezin egon geintekozak an eta emen batera.-Gogatsu, mutillak: bizkor ela zoli izan bein, eta oporr-alrii iuzeagoa izango dosue guztiok. (Atzerantza alde egiten dabe).

KAPULET efa abar aurrera, yaten deñtuak'in eta Kokomarroakin.

KAPULET.—Or.do etorriak, ycran zindook! euren bealzetan narru-lakatzik ez dciben cñderak ekingo tñabe zuokin,-fa, emakumeok! zuotarik nok ez dcui yantzan egin gurako? Milinkerietan dabilenak ofietcn narru-lakatzak dauzala zin egingo dot; oingoxecin marea erre ete dot? Ondo etorrialc, gizazindook! neuk be iñoz erabili izan dot begi-estalgirik; eta neu be anderari bearrira txutxu-putxuka ipuin atsegingarririk esateko gei izana nozue; a aldía yoana da, yoana, yoana: ondo etorriak zarie, gizazindook! Ia, ereslariok, yo.-Yantzara, yantzara! leku egin, ta zuon oñakaz neurtu, neskok. (Ereslariak yoten, eta enparauak yantzan). Argi geiagi ekarri egidazue, zuok alperrontziok; kendu emendik maiok, eta itzali sua, toki au beroegi da-ta. Aiko, yauntxo, otoz-otoko yostakefa au ondo be ondo yatok. Bai, yezarri ctdi, bai, yezarri adi, iengusu on Kapu-

leí; gure yantza-egunak yaanak dozak-eta: zenbat urte dosak gu biok kokomarro ibili gintzazala?

II KAPULET.—Andera Miren-arren, ogei ta amar urte.

KAPULET.—Zer diñok, gízon! ez dok orrenbestetik, ez dok orrenbestetik: Pentekcste-yaiak gura *aña* arin etorri, Lukenti'ren ezteguetan izan zoan. orain ogei ta bosten bai urte dala; eta uldi ctan gu kokomarro-tu egin gintzoazan.

II KAPULET.—Geiago dok, geiago dok: ori ba. flo zarrago dok aren semea, yaun; ogei ta arnar urteko dok aren sernea.

KAPULET.—Ori diraustak? Areu sernea orain uite bi iñoren zainpean zoan.

ERROMI.—Ze andera da an aragoko zaldunaren eskuaren edergarri dana?

OTSEÍNAK.—Nik ez dakit, yaun.

HKROMI.—fne: ak zuziai su urgi egiten irakasten yautsek! *a* Etiopicttraren bellaritik pitxi zoragarri legetxe gabaren mosutik dingilizka dagola dirudi; erabilteko edertasun ederregi, lurrerako ederregi! An aragoko anderea, bela-taldean bere lagunen artean uso edur-zuri gallenduten dan legetxe, gailentzsn dok. Yantzaldí au amaituazkero, bere tokiaren zai egongo naz, eta aren esku onetsia ukutuui, nire esku traketsa onetsi egingo dot. Nire biotzak orain arte iñor maite izan ete dau? Zinez ukatu egik, ikusmen! gau onetarte nik benetako edertasunik ez dot ikusi-ta.

TIBALDA.—Onen abotsez, Montagutarren bat dogu au, -I, mutil, oo nire ezpatatxoaren billa; yopu orrek, arpegia marro traketsez estalita, gure yaiari irri ta barre egiteko ona elorlen azarlu bear ete yok? Ara, nire senitartearren odol eta lotsearren ori yo ta lI-tea nik ez dot obentzat.

KAPULET.—Ostera! Zer dok ori .semide? Zegaitik ago orren sulurik?

TIBALDA.—Osaba, Montaguar dogu au, gure arerio; ona irri egiten etorriko zital, gcsu onetan gure yaiari irri egiten etorria.

KAPULET.—Eromi gazte, eztek?

TIBALDA.—Bai, axe da, Eromi zitala.

KAPULET.—Nasai ago, Iengusu zindo; geldí itxik ori. Orrek zintzo yokatzen yok; eta, egia esateko, Berona osoak arro yiñok ori gazte onbidetsu ta bere burua eziten dakiana dala; nik erriko aberastasan guztiagai-tik be ez naieunkek ori ezetsiko nirean: orrazkero arte artu egik, ez egioek egin yaramonik, -ori gura yoat nik; eta nire gurcirriari lotsarik bu'dautsak, ixte mesu ori ede-

rrcigotu ta ire betozko ilun ori ken o<jik, ire arpegi ori yairi dagokonik ez dok-eta.

TIBALDA.—Eai, ba-dagoko .etxean olango zitalík dagonean: niñ ez dot yasanga ori emen.

KAPULET.—Yasan bearko dok: Ara! gazte on! neuk yiñoat yasan bearko dokala; ge-roo! Nor dck emen ugazaba, i ala ni? Ge-roo! Ez dokala yasango! Ez al don baist! ik iskanbilla sortu gura dok nire apaldarren ortean! ik etxea asaldatu egin guru dok kukurruku arroz! ik gízon agertu gura dok!

TIBALDA.—Ba, osaba, au iotsagarri da.

KAPULET.—Gero! Gero! I fñutil iguingarri az. Lotsagarri dala! benetan? -Ire yokabide zantar orrek okarrík ekarri legisk-, ni ez naia-bilk txantxetan: ik niri arpegi emon! Arrano, ordua dok..., Ondo esauda, denganiño.,! I arropuz az; gero! geldí ago, ostean... Argí geiago, argi geiago!... Lotsarren! Orraitiño geidi egonazoko dt'iuskat... Ori ,ori, go-gatsu, maitso.

TIBALDA.—Nai-ta-naiezko epeak eta berenbereregizko asarreak aikarregaz trikitx egiten dabenean, nire soñai ikara eragiten dau-tsoe euren txera ezbardínez. Nik emendik alde egingo dot: baña einen sartu izana orain gozo dirudionarren, beaztun mingots egingo yako. (Alde dagi).

ERROMI.—Nire esku zantarrez kutxa guren oneri lotsa gaidu ba'dagíot (YLITLTXUR), nire apen maiagarri *auze* izango da: lotsa2 gorrituko txonbidezii (erromei-u) bi bai' liran, nire ezpsnak geríu dagoz ukuketa iatz-lolsaga au nsosu samurrez leuntzsko,

YULETXU.—Txonbidezti on, zuk zure eskuar irain andiegi egiten dautsazu, orrek zaietasu-aa. leun eta poitio irctgarri dau-ta: eta izan be, deunen eskuak Ixonbideztien eskuak ukututeko izaten dira, ta palmctáunen mousua palmaik palmcirakoa isaten da (8).

ERROMI.—Deunak eta pahnadun gurenak be ez ete dabe ezpanik?

YULETXU.—Bai, ixonbidezti, otoi egitsn erabili bear dabezitn ezpanak.

ERROMI.—Ba, orrazkero, deun maite, egpanak eçin dagiela eskuak egien dabena; ixi, arren, eurai otoi egiten, sinismsna etsita gelditu ez daíten.

(8) Lur deunak ikusten txangcctn yoainda, aiidik etxerantzci palmu adar naiz urrieai }a-legaz eíorten ziranai eresten yukien lenctgoko aldíetan palmudun izema. Bideztiok, alkaiu raciicísuna iñ'aga'rteko, batali beete-areii pal-ma-adan'ari muo ©giten euf.son,

YULETXU.—Deunak ez dabe izaten biotz eia soin-ikararik, eskatzen yakena eskariaren eskariz eurak emonarren.

ERROMI.—Orrazkero, ez izan zuk be ikararik nik nixe otoiarena artzen dodan artectn. Olan nire ezpanetako obena zureak qarbitu egiten dabe (Mun egiten dautso).

YULETXU.—Orrazkero, nire ezpanetan bego eurak artu daben obena.

ERROMI.—Nire ezpanetatik obenik artu? Obsn ori bai ba-dala gozoro eskatua! atzera eka-zu nire obena.

YULETXU.—Ikasita mun egiten dozu zuk.

AÑEAK.—Anderaño, zure amak zukin itz egin gogo dau.

ERROMI.—Nor da onen ama?

AÑEAK.—Ba, mutilzar, etxctnderea yatzu orren omo, andera on, zur eta onbidetsu: neuk emon neuntsan bularra zuk itz egin dautsazun aren alabeari; neuk dirautzut, baña ori lortu dagianak diruak lortuko dauz.

ERROMI.—Kapulet'eneko da ala? Au bai badala kontu karu! nire bizia nire areriori zor dautsat

BENBOLLO.—Oa. alde emendik; iñozkorik onenean yagok yolasa,

ERROMI.—Bai, izan be orrexen bildur nok; orrexegaitik andiágo dok nire kezkea.

KÁPULET.—Ez, yaunak, ez yoan oraindik; oturuntza-iski arin dogu gertaurik... Yoaii-bearra ete dozue, ba? Orrazkero, eskerrik asko guztioi,- ezkerrik asko gizazindo begiragarrioi; gau ori... Zuri gefugo ekarri ona... Goazen, orrazkero goazen oera. I, yauntxo, (II KAPULET'eri) nire ustez berandu dok, bai oríxe; ni lotara naioak.

YULETXU ta AÑEAK ez. besle guzliak alde dagie),

YULETXU.—Zatoz ona, aña. Nor da a an da-gizon zindoa?

AÑEAK.—Tiberi zarraren sems etxagungeia.

YULETXU.—Nor da orain atetara doana?

AÑEAK.—Ba! a nire ustez Peturki gaztea da,

YULETXU.—Nor da aren urren doana ta yan-

tzarik egín gura izan ez dauena?

AÑEAK.—Nik ez dakit.

YULETXU.—Zoaz, eta itandu egiozu izena: ez-kondua ba'da a, nire ilobia izango da, nirs eskon-oe, urrean.

AÑEAK.—Eromi da aren izena, ta Moníagu tar da; zure arerio andiaren seme bakarra.

YULETXU.—Nire maitasun bakurra nire gorroto bakarretik erne ta sortu da! Goize-gi ikusi dot ezagutzeka, ta beranduegi eza=ju-tu! iñondiko da nire maitasunaren yaiotzaa, iguin dautsadan arerioa maite bear dot-eta.

AÑEAK.—Zer don au? Zer don au?

YULETXU.—Oraintxe-oraintxe nikin yantzan egin dauenagandik ikasiko olerki.

(Norbait barrutik deiez, "YULETXU")

AÑEAK.—Bereala, bereala! Goazen, goctzen emendik; atatiko guztiak yoanik dira. (Alde dagis).

Abeslari-talde aurrera (9).

Orain leia zana bere eriotza-ocan datza, ta maitasun barria yaioparri da aren ondorsngo ta yabegi izateko; len maitaleak intziri egin eta beragaitik il be egingo zan ederra, orain eder be ez da Yuletxu'ren aldsan. Orain Eromi iñok maite dau, ta berak *he* maite dau ostera be. begirakunsz alkar ilu-raturik; baña bere areriotzat dauenari bere kezka iragurri bear dautsaz. eta orraitño be maitasunaren amuzkia amu bildurgarritik oratu bear dau; areriotzat dabenazkero. ezin izan daiteko to ori no'ren etxera sar-tzerik maitaleak alkarreri zin-bidez egin oi dautsezan agindurik egiteko; eta no'ak, be-*ra* be gitxiago maitemindurik egon ez-ta, ereti gitxiago dau bere rnaiteakin iñon tri-kitx egitekor baña lereak aurreratzen dau-tse almena, ta aldiak bideak, gogorkerhik andienak gozoi-asunik andienaz biguntzsko, (Alde dagi).

(9) ikusi lan&ngo detari erantzna,

## II EKITALDI

1 AGEHIEKU.-KAPULET'en Igoil-zugaztiaren aldameneko toki agiri.

ERROMI aurrera.

ígon eta yauzi egiten dau barrura).

ERROMI.—Yoan et© naiteke ni aurrera, nire biotz emen dala? Atzera egik, lur motel, eta ea ire erdi-unearen bilia. (Orma-ganera

BENBOLLO ta MERKUTI aurrera.

BENBOLLO.—Eromi, nire lengusu Eromli!



MERKUTI.—Zur dok a; ela nire bizia yokatu-ko noieunkelca baiaetz yoan dala etxera ixilka, lo egiteko.

BENBOLLO.—Emendik zear arin egin yok, e-ta igali-zugazti onetako orma-ganetik yauzi egin yok barru-aldera: dei egiok. Merkuti on.

MERKUTL- Bai, eta beste lufikoen izenez be zinkidetuko yoat... Erromi! gogalditsu! zoro! leiati! maitabera! intziri-antzez ager akigu: olerci batxo esoidak, ta niri asko yatak: gedar egik: Ai ene! bakarrik; Maitasun eta uso oguzi egidak; itz polit bat esaiok nire adiskide Benuts'eri, gaitzizen bat aren seme *ia* yabegai Kupida itsu gazte ule-gorriari, neska eskekoa maite eragin eutsanean Kopetua errege (10) bete-betean yo ebanari!... Ak ez yok entzuten, ez dok igitzen, ez yok zirkinik be egiten; matxangoa il dok eta nik zinkidetu egin bear yoat a... Nik zinkidetu egiten aut, Errosaline'n begi argiakarrer, aren bekoki goi ta ezpan goxriakarren, eta *aren* oin lirain, zango artetz, iztar dardarakor eta euren aldamenen dagozanakarren, ire antzez gure aurrera agertu aiten!

BENBOLLO.—Entzun ba'agi entzun, asarratu egingo yak.

## II AGERLEKU.--KAPI

ERROMI aurrera.

ERROMI.—Egundo zaurixik Izan eztauenak zauxiondoai irri egiten dautse...

(YUIETXU agerlzen da goiko leioan)

baFva, ixilik! ze argi agiri da cra aragoko leiotik? An dago eguzki-aldea ta Yuletxu da eguzkia!., Yagi, eguzki zoragarri, ta il ilaragi zitala; dagoneko *a* gexorik eta atsekabez zurbil dago egon be, zu aren neskame izanda bera baño lirainago zarealalco: ez izan aren otsein, *a* zital dalako; aren bestal-yantzia (11) gexo-antzeko ta muslcex da, ta olango yantzirik zorok, ez bestek ez dau eroaten; yaurtin egizu ortik zear... Nire anderea da: eneee! nire maitea da! enee! berak al leki ba-dana!.. Itzez daragoio, baña ez diño ezer: zer esan gura ete dau? Aren begia ibili dabil eta itzez daragoio, nik erantzun egingo dautsat. Ni lotsabakoegi naz, ez daragoio niri itzez: ortzeko izarrik ederren bik, zereginen batek beartuta, aren begiai euren betzuloetan dizdiz egiteko eskatzen dautse, eurak atzera ortzeratu arte,

MERKUTI.—Onegaz ezln asarratu daltekek: *a* asarratuko leukeana zera litzakelc, aren maitea dagoan lekuan iñondiko izakerazko mamuen bat eragi ta *an* zutunilc egonazo, aren maite orrek mamua lurrera egotzi ta zinkide-bidez lurperatuazo arte; orrako ori bai ba-litzatekelc arentzako irri: nire zinkidetzta au zuzen eta zindo dok. eta nik beste ludikoak zinkidetu egiten yoazat aren anderearen izenarren *a* biztu dagien.

BENBOLLO.—Tiruk, *a* zugatzon artean oslundu dok, gau gogalditsuaren lagun izateko: itsu dok aren maitasuna, eta ilunbeaii yagokok ondoen,

MERKUTI.—Maitasuna itsu ba'dok, ak ezin erre marrarik, *A* orain mizpirondoen baten azpian yagok yezarrita, ta ak bere anderea mizpira izatea gurako laieukek, neskak bakarrean barre egiten dabenetan mizpirai dei egiten yautsek-eta. Gau on, Erromi... Ni nire txirrinka-oetxora naioak; nik lo egiieko, izarpeko oe ori otzegi dok: tiruk, yoango ete gozak?

BENBOLLO.—Gaoiazan, orrazkero; ak guk idoroterik gura eztauenazkero alperrik dok gu emen aren billa ibiltea. (Alde dagie).

ET'en Igale-zugazti.

Zer yazoko ete litzaieke aren begiak ba'Ie-

(10) Kopetua'ri buruz Webster'en iztegiak au diño: "Kopetua, irudimenak asmauriko Apirkar errege, Zenelophon izeneko neska eskekoakin ezkondu zana. Ikusi Shakespeare'n LOVE'S LABOUR LOST, IV, I. Ipuiri au Peicy'n RELIQUES'en edestuten do. Tennyson'en THE BEGGAR MAID'en geia be neska eskeko ori da".

(11) Bestal (lateraz "Vestalis Virgo"). Bestalac Besta (Vesta) etxe-yainko aizunaren otseintzarako euren gurasoak, naiz yauparirik nagusie'nak izentauriko neskak zirain erromarren artean. Bestalok gutztz be 'sei izaten ziran, eta yainko orren otseintzan sei urtetik amarrera bitarfean sartzen zidcn; otsetntzeak, barriz, 30 urte irauten eban, bein otseintza orretan sartuazkero, gero yarei gelditzeko. Otseintzeak irauan artean neskoc ez eben izan bear gizonekin aragizko ar-emonik, eta izateka'on, erriak bizirik lurpean sartzeko zori lorrian yarten ziran. Euren egikizunik nagusfena Besta'ren su deuna bizirik eta itzaltzeka eukitea zen.

goz an arein otdez"? Aren «rpegiUko atgita-sunak lotsatu egingo leukez izar araik. egun-argiak kurtzulu-argia lotsatu daroan lez; aren begiak ortzean ixuriko leukien argiaren aigiz btoriak abesten elduko leuskioe, ta gau danik ez uste izan. Ara! bero mosua eskuari deustala iminten dau! Enee! ni aren eskuo eskuzorro al nintz! nik aren mosua ukuluteko!

YULETXU.—Ai ene!

ERROMI.—Itzez daragoio: Ene! ostera be itz egin angeru argitsu! Eta izan be, lurrean aratinik etzanda, ilkorren begi arrituak, zuria gora dabela. Iño nagien ganean iztartolaka eguratsa zear yoan doan zerutar gez-nari egodunc eder-zoiagarri begiratu ta ikusten daben baxen eder-zoragarri zara zu gau onentzat, nire buru-ganean.

YULETXU....Ene Erromi. Erromi! zegaitik az i Erromi? Uka egik ire aita ta baztar egik ire izena; naiz, ik olangorik gura ezik. moJte nokala zin egik, eta ni ez nok izango iñoz geiago Kapulet.

ERROMI.—(Bsre kitean). Areago entzungo ete dot, ala dagoneko itz egin?

YULETXU.—Irerik iro izena bakarrik yatak osrerioi Orraitiño, i »n az, ez Montagu. Zer da Montagu? Ez da ez esku, ez oin, ez beso, eiz mosu, ez gizonaren beste alalik. Ene! beste izenen bat bedi! Zer dau izenek? Guk larrosa deitxogunak usctin gozo leuke beste izenik ba'leu be; bardin litzatske Erromi' gazkoa, aren izena Erromi ez ba'litz be: izen ori barik be aldean leukake dauen osotasun edena: Erromi, yaurtik ortik zear izen ori; eia isen ori ire atalik ez dok-eta, oso-oririk ar nagik izen orren orde.

ERROMI.—Zeure itzetik oratzen dautzut; zure maite eretxi nagizu, ta ni barrienbarri ugu-tzauko nabe: oraindak aitzina ni enaz izango iñoz Erromi,

YULETXU.—Ze gizon az i olan gaua estcilgitzat artuta, nire esanera yarten azan ori?

ERROMI.—Nik ez dakit nik zelan esan zuri izenez ni nor nazan; nira izena, deun maite, neuri be gorrotagarri yat, zure arerio data; idatzila ba'neu, itz ori urratu egingo neunke.

YULETXU.—Nire belarriak ez dabez irunsi oraindak min orrelc ebagiko eun itz be, ta orraitino euren otsa ezagan yat: ez ete az i Erromi, ta Montagutar?

ERROMI.—Ez bata ez besterik, deun lirain, ez bata ez bestea, gogoko ez ba'yatzuz.

YULETXU.—Esaidak, zelan etorri az ona, ta zegaitik? Igali-zugaztiko ormak goiak eta

igongatxak dozak; eta i azana izanaz, erio-tza, nire senitartekok or idoro ba'agi.

ERROMI.—Maitastinaren ego arinez egaz egin dot ormon alde batetik bestera; arrizlra mugak maitasunik bests aldean ezin euki dairrie-ta; eta maftasuna al dauena egiten azartzen da; ta orregaiUK zur» semiariekorik ez da azartu nigana.

YULETXU.—Aik ikusi ba'agie ikusi, il egin-go aue-

ERROMI.—Ai ene! zure begian galbide gei-ago dago arein ogei ezpatatan baño; zuk bigun-gozo begiratu nagizu, bai, ta ni arein areriarentzako zulagaitz nozu.

YULETXU.—Ludi osoagaitik be ez al aue iku siko emen.

ERROMI.—Nik gaua dot estalgitzat aik ikusl ez nagien; eta, zuk ni maite izanazkero, aik ni emen idoro baño ez dabe. Oba litzakit nire bizia arein areriak amaitu, zure maitasunik ezaz astiro-asUro il baño.

YULETXU.—Nok erakutsi dausk cnako bidea?

ERROMI.—Maitasunak; lenen berak itanduten irakatsi eustan; ak burubidea emon eustan, nik ari begiak; ni ez nozu ontzi-zuzendari, baña orraiUño be ni itxasorik urrinekoenek ikuzten dauen izpasterrik uirinekoeneraño elduko nintzateke olango ondasunagaitik.

YULETXU.—Zuk ba-dakizu nire arpegia gaua. ren marroak estalizen dauena, ostein neska-lotseak gorrituko leuke nire masallea gau onetan esaten entzun daustazunagaitik. Pozik yagongo neunkez erak eta merak, pozik ukatu nik esana; baña, agur ern-merok! Maite nok? Ba-yakiat "Bai" erantzungo daustakana; eta nik ire itzari elduko yauntsat; orraitino, zin egin ba'dagik, i guzurti izan einteke. Diñoenez, Yobe'k barre egiten ei yautsek maitaleen zin-austeai. Erromi maitagarri, ik maite ba' nok maite, benetan esaidak: ostein, ik arinegi irabazi nokala uste ba'dok, nik betozko egingo dauskat, eta gaizto izan, eta iri ezetz esan, i nire bila ibili adin; baña ostein, ez ludi osoagaitik be. Egiz, Montagu lerdin, ni ire zaleegi nok; eta, orrazkero, ilt nire yokabidea arinegitzat ar engike: Baña antzin egidak, yaun zindo, ni otz agertzeko maltzurrago dirianak baño zintzoago izango natxak. Ni otzago agertuko nintzan zugazko, ori autortzen dot, zuk, nik oartzeka, nire benetako maitasunaren barririk izan ez ba'zendu: az-ketsi, ba, orrazkero; eta nire men egite onen errurik ez ezarri nire maitasunaren arinari, gau ilunak olan billustu dauen maitasunari.

ERROMI.—Andera, Igali-zugatzen buruak zidar-bitsez yanzen dauzan on goilto ilarqiarren zin egiten dot...

YULETXU.—Ene bada! ilargi aldakorraren ez egidak zinik egin ilero bere taloa azi-txi-karlu egiten dauen ilargi cldakorraren, ire maltasuna be olanxa aldakor izan ez dai-ten.

ERROMI.—Zerarren zín egingo orrazkero?

YULETXU.—Ez egin ezergailik be zinik; os-tean, zinik eçjitekotan, zeure buruarren egin, zeu zara nire gurtze-yainko-ta, ta nik uine-Isi egingo dautzut,

ERROMI.—Nire biotzeko laztan-Iaztanak.,,

YULETXU.—Tira, ez egin zinik: zuk ni poztua-rran, ez nau poztuten gau onetako egiune onekj otoz-otokoegi da, oldozkaegi, arinegi: inok argi dagi esan al izan baño lena-go ilunduten dan oñaztuaren anlzeokoagi. Gau on, laztan! maitasunezko pipil au uda-ko ats eltzallearen bitartez, urren alkarre-kin trikitx egin ordurako lora zoragarri egin-go al da, Gau 011, gau on! Nire biotzekoa langoxe atsedan eta poz gozoa etorriko al da zure biotzera!

ERROMI.—Ene! olango kezlcatan itxiko eto nozu?

YULETXU.—Ze poz izan daikezu gau onetan?

ERROMI.—Zure maitasunaren agindu zintzoa nirearen alderako.

YULETXU.—Nik nircn zuk eskalu baño len emon dautzut; eta orraitño guraçjo neun-ke emoteko ba'lego.

ERROMI.—Atzera artuko zenduke a!a? Zegai-tik, laztan?

YULETXU.—Esku-zaboi izan, eta ostera be zu-ri emoteko. Eta on-aitño dodana baño ez dot gura: nire e.çkuzabaltasuna itxasoa *aña* mugaga da, nire maitasuna a bestean sa-kan; nik zuri emonergo ni aberatsago, biak neurri bako dirialako. (Añeti deiez barrutik). Barrutik datorren etsa dantzut; agur, laztan-laztan orreri!--Bertatik, aña on!... Montagu maitagarri, zintao adi. Etloik apur baten, atzera etorriko nok. (Alde dagi).

ERPiOMI.—Gau onetsi-onetsi ori! Gau danaz-kerro, dan au ames uts ete dan bildur naz, egizko izateko poz zuritzalleegi da-ta.

Ostera be aurrera YULETXU goian.

YULETXU.—Iru-lau ztz, Erromi, ta orrazkero benetan gau on. Zure maitasunaren lerea zintzo ba'da, zure asmoa, ezkontza, biar iragarri egidazu nilt orretarako bidaliko dau-tzudanaren bitartez, non eta noz egingo do-

zun egitekoa oi dan arauz; ata nik nire eloikizuna zure oñetan yarten dot, etct ni zuri, nire yaun orri yarraiko natxatzu Vudia zear.

AÑEAK.—(Barrutit). Anáeraño!

YULETXU.—Ba-noa... Baña asmo onik ez ba' dozu. arraii-bai-cnren...

AÑEAK.—(Barrutik<sup>1</sup>). Anderaño!

YULETXU.—Oraintje, ba-noa;.. ez yarra! ni-re billa, ta bertan-bera itxi ni nire naiba-gearen eskuetcm; bier bidaliko dot norbait zurera.

ERROMI.—Olan zuzpertuko al da nire gogoa,, YULETXU.—*Gau an* milla bider! (Alde dagi).

ERROMI.—Milla bider okerrago zure argirik ez izcttea,, Maitasuna maitasunagorna irak-kelegi-mutikaak idaztjetatik yoaten dirian legetxe yoaten *da*; baña maitasuna maita. sunagandik alde, irakastegi-mutikoak euren idaztietara muker doazan legetxe. (Alde <i>agi asliro asliro).

Ostera be aurrera YULETXU, goitegian.

YULETXU.—Ix! Erromi, ix! nok lenkean orain aztore-zainaren abotsa kukutz-eder erreri atzera etorriazoteko! latz da bendekotasu-na ta zoliago ezin dau itz egin; ostean nik Oiartzunaren artzuloko ormak zulatu ta aren eguratsezko miifa nirea baño latzago egin-go neunke Erromi'ren izena esanazoaren esanazoz (12).

ERROMI.—Nire gogoa da nire izena deiez aitatzen daragoiona; maitaleen miñen otsak zidarr-ots atsegingarri dira gabaz, adi da-gozan be'arrientzat eresirik sarourrena lez!

(12) Oiartzuna edo otsoren erantzuna. E!o detarren siniskrlz, meindietako iratxo neska *zcm*. Beñola Ere Tzeu'ren einaztearen kutun izcin zan, baña gerora Ere'n adiskidefasuna qa!du ta crrei arerian yctusMa, Ere'k. itzif egiteko almencr kenderu tci ercintzuteka bctkarrik itxi eutsen. Orretcin Norkisa gizon gaztea?, mailemindu zan, baña Narkisa'k are-n maitersunari entzungor eginga, cr ibili Zon a!-darcti negar ta negar OITÍ egin arte, baarTuan erantzuteko almena daularik.

Oiarizunaren abotsa legetxe, Yuletxu'na be bendeko da, lotuta dago, bildurraik lotuta; eziu dou itz zolirik egin, bere senideak irat-zarrikoarem bildurrez, ortik Erromi'ri okerren bat etorri ez dakion, eta abots benderaiuak latz urtetan dautso; eta berak Erromi'ren izena kmj axeetara zoU-zoli, esan gurcúko leuke!

YULETXU.—Erromi!

ERROMI.—Ene moitea?

YULETXU.—Biar ze ordutan bidaliko yoat Irs. ra ire billa?

ERROMI —Bederatzietan.

YULETXU.—Ez dot utsik egingo; ogei urte da emendik ara. Aitzu egin yat zegaitik atzera dei egin dautzudan.

ERROMI.—Orrako ori zuri gogoratu arte emen egoten itxi egiazu,

YULETXU.—Aitzu egingo dot, zuri or egonazoteko, zure lagungoa gogoko-gogoko yatala oarturik.

ERROMI.—Eta ni emen yanaiko naz oraiv dik, zun aitzuazoagoteko, au es, beste etxe guztiak aitzuta,

YULETXU.—Larri-larri goxalde da: nik zu yoana gura neunlte; ez baña txoridunaren txorla baño urrinago: ak bere eskutik yauzitxo

### III AGERLEKU.-LAURENI

LAURENTZI LEKAIDEA aurrera, otzaragaz,  
LAURENTZI L— Goiz begi-urdiriak gau betzokotsuari irribarreka daragoio, sorkaldeko odeiak argi-zerrendaz nabartuta, ta ilunbe mosu-ilunak egunaren bidezidorretik eta Titan'en (13) suzko txirrinketatik, mozkorraren antzera, bilinbolaka olde dagi: orain, eguzkiak egunari txera egiteko ta gabeko inontz ezoa legortzeko, bere begi goriak aurreralu baño len, nik mimenezko otzara au bedar edentsuz eta izerdi ederr-gozodun loraz bete bear dot. Lurra, izamenaren ama Izanik, aren ilobi be ba-da, ots, aren eortzi-leku, eta eortzi-lekua bera da aren umetoki be; eta aren umetokitiko ume ezbardinak aurkitzen doguz bere berezko bularretik edoskiten; asko ddra itzalez bikain euren askotariko onbideakaitik, bat bez zerbaiterako on ez danik, eta orraitioño guztiak ez-bardinak. Ene! andi be andi da bedar, landara, arrietan aurkitzen dan eskar altsua, ta andiak dira euren benetako zelangotasunak; ez dago lurrean bizi dan zerik zirtilenik be, lurrari berarizko onen bat ez dakartsonik; ez dago ezer be on-onik, bide zuzenetik alde eraginazkero, berezko bide zuzenetik urtenda, gaxik egingo ez dauenik. Onbidea bera gaizbide egiten da txarto erabiliatzkero; eta batzuetan, gaizbidea bera egitez edertu egiten da. Lora txiki onen azal gaztearen barruan edena datza, ta bai osatzeko indarra be: eta izan be, onek, usain eginazkero, alderdi orregaz alde guztiari txeia orgi egiten dautse; zelangot dan ikus-

belzuk egiten izten dautsa txoriOri, atxilo gaxoak bere lokarri biurretan legetxe, eta seda-ariz atzera beraganantza ten egitsn dautsa, txoriaren azkatasuna gura ta gura ez dauelarik.

ERROMI.—Zure txori *ál* nintz!

YULETXU.—Laztan, neuk be orixe gura neunke: eta orraitioño nik il egingo zindukedaz kutunkeriarren kutunkeriz, Gau on, gau on! Alkarregandik alde egitea naibaga gozo data, biar arte egongo nintzatelte gau onka, (Alde dagi).

ERROMI.—Loa bizi bedi zure begietan, bakea zure biotzean!.. Ni loa ta bakea al nlnzt, olan atsedsn gczoz izateko! Ni emendik niie gogo-aitaren etzategira yoangoz naz, ori laguntza eskatzeko ta nire zori onaren barri emoteko.

### LEKAIDEA'ren Etzalekua

teko txastatuazkero. ostera, sentzun guztiak eta biotza il egiten dauz. Bedarretan ezeze gizonen biotzetan be olangoxs nagusi bl dagoz agindu-guraka: eskerra ta gurari *zox* karra; eta gurari zakarrak eskarrarii geiagie egiten dautsanean, eriotza-bizienak beingoan yaten Aau landara ori.

ERROMI aurrera,

ERROMI.—Egun on, aba!

LAURENTZI L— Benedicite!

Nongo miñ goiztar orren gozok agur egieudauts? Seme gazte. onen goiz oeari agui egiteak burua nastuta dabilela iragarten yok: zar ororen begia atzarrik eukiten yok kezkeak, eta kezkarik dan tokian lorik ez-tok etzango egundo; baña niinik artu eztauen gaztea, garaunetan kezkarik ezta, eztagen dan toltian, etzan-ala artzen yok loak: orrazkero, ire goiztartasunak artegatasunen batek asaldatau aukala iragarten yaustak; edo, ostein, emen marrea bete-be-tean erreten yoat: arrats onetan gure Erromi ez yaltu oeratu.

ERROMI.—Orrako atzenengo ori egia da: eta orrexegaitik nire atsedena gozoago izan da. LAURENTZI L.—Yaungoikoak azketsiko al

(13) Titenak, elendarren siniskeriz, Orte ta Lurraren seme-alaba eskergak zircm, baña emen Titon izenez Eguzkia ij'agarten dau Shakespecs'rek,

dausk íre ofoenaí Errosaline'kin agona ougu, cda?

ERROMI.—Errosaline'kin, ene çrogo-aba? Ei; izen ori çí?lu dot. *a'a* bai izen orregazko maite-minofc be.

LAURENTZI L.—Ori dok ori, ene seme on! baña, orrazkero, non egon *az*?

ERROMI.—Zuk osiera be itandu-aurretiç neuk esango dautzut, ni nire arerioakin yai egiten izan r.az; eta an, otoz-otoan, nik zaurituta dagonek zauritu nau: eia gu bion osakaia zure laguntzan eta zure kite deunean datza; nik ez dot gorrotorik, gizon onetsi; eta izan be, ara! nik eskatzen dodanaxe eskatzen dau nire arerioak be.

LAURENTZI •!.—Aratz eta maratz itz egik, seme on, eta kako-makoga izan adi, ire escn-gurean; igarkizunezko autorpenari igarkizunesko ozketsak erantzungo yautsak.

ERROMI.—Orrazkero artz-artzet yakin egizu nire biotzeko maitasuna Kctpulet aberatsaren alaba lirainagan yarri dodala: eta nirea an yarrita dagon letxs arenc nigan dago; eta zuk ezkontza gurenez eratu bear dozuna ez, beste oro dago dagoneko eratuta: bidean yoan goazala esango dautzut noz, non, eta zelan alkarrekin trikitx egin genduan, cilkarri zinak eta maitasuna iragarri ta emon dautsaguzan; baña onexen eske nagotzu, zera, zuk gaur ezkondu gaguzuaia,

LAURENTZI L.—Panlzeska Dennarren! *ze al*-dakuntza dok cra! orren arin itxi dck bertan-bera ik maits-maite izan dokan Errosaline? Orrazkero, gizon gazteen maitasuna etxagok euren biotzetcin, euren begietan bnño Jesn Maria, Errosaline'gaitik ire mg-sallak bera yoan dirian ur gaziena! amai-

*kahco* ur gazi Ixuri dok ilt alperrik, oraindik zelango danik bs ez dakikan racátasuna uraatuteko! eguzkiak orainfiit ez yosctk argitu eguratsean iro intzirinn luvionak, etrj ire urrunien oísa oicfindik or dok *he* km-go belarrieicxn; arci; oraindik or dok ire mct sallah orainciik garbitu bako ire negçr ?arraren orbana: í egunde eu izcin ba'az, eia maitaketok ireak, í ia iro maitaketnk frosaline'gaitik izan zarie: efa cldcitu egin &z? Orrazkero, epaia emon ecñlt... Emakumek yausi daitekez, gizonak sendotasunik ez dabenazkero.

ERROMI.—Zuk sarritan egin daustazu agirika nik Errosaljio mazte izanagçfiik.

LAURENTZI L.—Maitekerietan ibiliagaltik. ene íkasle, ez maite izcinagaitik.

ERROMI.—Eta nik rnajtasuna lurperatzeko agindu zsunstan.

LAURENTZI L.—Ez ilobin, bat an, eta beste bat emen eukitekotan.

ERROMI.—Arren-bai-arren, ez egidasu agirikasik egin: nik orain maite dodanak eskerordez esker cta rociitasun-orde; maftosuui emoten. daur bestoak ez eban egiten olemgorik.

LAURENTZ! L.—Exiel alc ondo yekian ire maitasuna etzala benetakoci. Baña, tiruk, gazte aldakor, ator nilrin, nik lagunduko aut zerboiten; eta izan be, ba-leitekek zuon alkar-tze ori eixaguntza bien areriko areria maitasun garblratzeko bide izatea.

ERROMI.—Ene! goazen emendik: nik iradu be iradu dot.

LAURENTZI L.—Zur eta astiro, mutil; arineke. tan dabiltzanak beaztopo egiten ysek. (Alds dagie).

#### IV AGERLEKU.-Ebcartebide.

BENBOLLO *ia* MERKUTI aurrero.

MERKUTI.—Non denganiño ete dok Erroml ori?... Ez ete dok etorri xtera bart?

BENBOLLO.—Ez bere aitanera; aren gizonakin itz eginak nok.

MERKUTI.—Ea! ak neska >urbil biotz-gogor-rak, Errosaline neskeak, ari gorriak ikusiazoten yautsazak eia burutik eragingo yautsak.

BENBOLLO.—Tibalda, Kapulet zarraren senideak, aren aitanera gutunen bat bidali yok.

MERKUTI.—Egingo naieunkek, ak baietz bidali izan eupadea.

BENBOLLO.—Erromi'k erantzungo yautsak.

MERKUTI.—Ickxzen dakian edozein gizon dok çei gutuni erantzuteko.

BENBOLLO.—Bai, ori be egia dok, baña ak gutunaren yabeari erantzungo yautsak, bera azarrtuko dala iñor berari cizartutekotan.

MERKUTI.—Ai ene! Erromi'ren gaxo; a dagoneko yagok ilik, neska zurbilaren begi baltez sastakaituta; maitasun-abestiz belarriak alderik alde zulaiuta; aren biotzaren bcatalik txikiena be mako-muliko itsuaren geziz birrintzaturik (14): olango gizonik Tibalda'ri erantzuteko ete dok?

(14) Mako-muti.ko itsua. Esakuns on^gaz Kupida, mcritasuii-yai.rikoa, iragarten da emen. Muliko itsu cmek bere makotiko geziz yoten ebou biotza maitemmdurik gelditzen ei zan.

BENBOLLO.—Ba! zer dok Tibalda?

MERKUTI.—Aiko, a katamotza ta leoia baño be geiago dok; ak arauz yoko yok, ori bai, baño oldartsu ta bete-betea yo. Ik eresi yoten dokan baxen errez ak burruka egiten yok; ak erca, aMía, bitartea ta neurria yagoten yozak; a ezta luzaro egoten geldi; bat. bi, ta irugarrenean ire bularrean dok; sedazko botoiak arakinak aragia baxea errez eta btukun ebaten yozak; bien arteko burmkaii, bien arteko burrukari yaio dok; a gorengo etxaguntzako gizazindo dok, -bat, bi, eup! or yoak irugarrenik bikainena! orain alzera! orain ostera be eup! (15).

BENBOLLO.—Zer esan dok?

MERKUTI.—Denganiñoen arropuzkeri, zorakeri, ollarkeriok; kutsuak eroango al dauz itz eta esakera barri asmatzalleok! "Yosu. au dok ezpata-agobizarraren bikaina! Au dok gizatoo!... Emagalduren emagaldul!". Ara! nire aitaitarren, ez ete dok negargarritan be negargarri txixilu zarretan eroso ezin yezanita, aulli barriren ganean zutunik yarrita gu onako iñondiko euligorriok, onako era barri-asmatzalleok, onango txiteanpitean "pardonnez-mof3"-ka daragoioenok gu burutik eragin-bearrean erahiltea? "Egun on, arrasti on"? Bai, zera, baserritar dok ori; "buenos días, buenas tardes" emeago dok, iine go. Utikan, ergelok!

BENBOLLO.—Emen yatok Erromi, emen yatok Erromi.

MERKUTI.—Sardinzar sakatu-sakatuaren antzera estealt aterata yatok ori... Ene! aragi, aragi, i bai arraindu azala!... Orain yagok ori arako Petrarca'ren olerkiak esateko ezin obeto; orren anierearen aldean aren Laura Bukalde-neska baño etzoan, ~auxe, ak onenak baño maitale trebeagorik ebalu olerkiak egiteko; onenaren aldean Dide yantzi-saskil zoan; Keiopatere, ijito uls; Elene ta Hero, alpsrrontzi-emagalduek: Tisbe, begibaltzeran, edo olangoren bat, baño ezetarra be ez aitagarri.

ERROMI aurrert.

Bon jour, Signior Erromi! Pantí;i,jzko agurra saletxetik arako ire yantziarentzako. Ziri ederra sartu daukuk bart.

ERROMI.—Egun on zuoi bioi. Ze ziri sartu dautzuet nik?

MERKUTI.—Utsa, zirristadea, zirristadea; ezin dok gogoratu, ala?

ERROMI.—Azketsi, Merkuli on, andia zoan nire egikizuna; eta nirea lango egitekoan gizonek adei-uts egitea ez dok andl.

MERKUTI.—Ori esatea ta Irea lango egiki. zunak gizonari ipur-mokorrak aurrerantza makurtuazoten dautsazala esatea zer bat dok.

ERROMI.—Adei egiteko, esan gurako dok.

MERKUTI.—Maitekiro ta bete-betea erre dok marrea.

ERROMI.—Oso adeitsu azaldu dok orraiUño.

MERKUTI.—Oba ez! adei uts nok ni.

ERROMI.—Adei bete, garbi esan gurako dok, ez, arro, mami bako.

MERKUTI.—Egin-eginean.

ERROMI.—Ba, orrazkero, i adei uts, adei loratu ba'az, ba-yoat nik nire oski aiinetaiko lorarik non artu (16)?

MERKUTI — Ondo esania.

ERROMI.—Ez ete yosk itzelezko eder emoten nire oski arinok lora ta galartsu politokaz? Axako adei loratua au zalakotan egon nok ni, baño ik ire buru-zorroztasunez lorok zimeldu ta oski ariñoek muskildu egin daustazak.

MERKUTI.—Ire lorak zimeldu ta oski arinak muskildu ba'dozak be ire buru-zorroztasuna iñozkorik gurien yagok.

ERROMI.—Baña nire buru-zorroztasuna dala. ta ez al yatzue yazoko arako "zitel zirola; Nok gudura aroa?",

(15) Ezpata-burrukeck bere lege ta arauak dcmz. Arouok zeotz emcm bear ba'genduz, orretarako berarizko idazti idcalzi becrrko genduke. Burruka orretan buiTukariak oña bein aurrera, bein atzera egiten dabe; aurreratu, areríoari zcrztadea emoteko asmoz; atzeratu, aren zatzadeari íges egiteko asmoz. Eup egitea, oña ourretzea da. Yoko ta burruka onetan zer bi euki bear dira gogo-gogoton: al dala arerioa yo, ta norbere burua yagon, zur eia ondo atzairrik ibilita, eta arerioari geigi ez urreratua. Ezpataricn esakune tentel eta eTbestekeriak diriala-ta, emen Shapeseare'k euren leptok irri ta barre gozorik egiten dau, euri ziplada ede'rrak orpegria egotzita. Gure orieko amoikatxori be ez letorkoz txarto zipladck e'a geiago be, euren erdelkeri ganora bakoak dakt-ta. Erderaz eginazkero, euren buruak yontziagotzat dabez ergel sentzun bakook. Amaikatxo tentel bizi dok ludi zoro onetcm, gizonarenik antzez besterik ez dabenok.

(16) Aldi CTtan yantzarako oñetako edo oski arimetan yantziarik oskien erskai edo loñan'ietan loraren bat iminiien eben edergorritzt.

MERKUTI.—Lagun nagik, Benbollo: nire buru-zorroztasuna ogortu yatak.

ERROMI.—Bein-beinean inogana laguntza-eske yo barik, kiñetu egik ire buru-zorroztasun ori; ezarri ta aztalak sorlu egiozak; ostean, norgeiagoketa irabazitaz zantzo ta irrintzerik zoliena entzun bearko dok nire eztañtik.

MERKUTI.—Ire buru-zorroztasuna dala-ta arropuztu ta ollartu ba'adi, belarrietalik usigiko dauskat

ERROMI.—Arrano arranoa! Olan izatekotan ixilik egon bearko yoat, ni usikari roakal nok-eta.

MERKUTI.—Ik iñoren buru-zorroztasuna egazkadea artu-ordukoxe hurrera egozten dok ire lenengo idaubadan.

ERROMI.—Egazkadea artu-ordukoxe diñok? Bai, zera! ire buruzorroztasuna oñez barik egaz egin-alean yoan dok nonbaitera ta i agoa bete aginegaz itxi au.

MERKUTI.—Ostera be! Erre la erre! mingorrak dozak ire zirikadak.

ERROMI.—Bai, eta a ta guzti be ezin eragin dauskat zirkinik.

MERKUTI.—Ori ondo, Erromi; ori dok gatza, Ez ete ago orain obeto, ez ete az orain gizonago, ire maiteagaitik intzirika ta asperenka abileneon baño? Orain ago i lagun arterako, orain az i beñolako Erromi; orain az i azana arteziz eta izatez; eta izan be. ume-antzeria itz eragiten dauen maitasuna ergeltzarr-antzeko dok, bere yostallua zuloan ostonduleko batera ta bestera miña aterata dabilen ergeitzar.

BENBOLLO.—Geldi or, geldi or.

MERKUTI.—Ik nire ipuina itzulietara, *eieaz* bestera yarri gura dok.

BENBOLLO.—Bai, ba, ik ostean ire ipuina luzeegi egingo enduan.

MERKUTI.—Ene! oker ago i; egin-eginean be nik labor esan gura naioan: eta izan be, ni nire ipuinaren ondarreraño elduta naiengoan; eta nire arloari geiago ez ekiteko nintzoan.

ERROMI.—Bego! emen yatok etortekoa!

AÑEA ta KEPA aurrera.

MERKUTI.—Ara! Ara! Oial-ontzi, oial-ontzi, oial-ontzi!

BENBOLLO.—Oial bigaz; bata gizon-atorra, ta bestea emakume-gonazkoa,

AÑEAK.—Kepa!

KEPA.—Emen nozu, andera.

AÑEAK.—Ekak nire aizegina, Kepa.

MERKUTI.—Emoiok, Kepa, mosua estali da.

gian, aizegina oiren rrtosua baño lirainago dok-ela.

AÑEAK.—Egun on, yaunak.

MERKUTI.—Arrasti on, emakume zindo-lirain.

AÑEAK.—Zer ba? Arrasti da ala?

MERKUTI.—Deusik bez goxago, sinistu egidazu, erloiu-arpegiko esku zantorra orain eguerdi-marrearen gan-ganean dago-ta (17). AÑEAK.—Eperdien mun egiok! Lotsa-galdu ori!

ERROMI.—Bai, andera zindo. barre egiteko ta eragiteko egin eban au Yaungoikoak.

AÑEAK.—Ondo esana benetan; Yaungoikoari, ori egin ebanean, bere burua beargin mordollotzat erakustea otu yakola!... Yaunak, zuatarik iñok esan ete dagisket non idoro dagikedan Erromi gaztea?

ERROMI.—Neuk esan daikeztut; baño zuk idoro dagizunean Erromi gaztea zu aren bi-Ha ibili zareanean baño arean zariago izango da: izen ori dabenetarik gazteena neu nozu. txarragorik ezagaitik.

AÑEAK.—Ondo diñozu esan be.

MERKUTI.—Bai, txarrena onik ete dago? Eder-to esanda, benetan; zur, zur.

AÑEAK.—Zu izatekotan a, yaun, nik ixilean esan gura neunskizu zerbait.

BENBOLLO.—Aparien baterako dei egingo dautso.

MERKUTI.—Emagaldubitarteko, emagaldubitarteko, ernagaldubitarteko! Orrazkero, ui!

ERROMI.—Zer idoro dok?

MERKUTI.—Ez erbirik, yaun; yan-orduko zartu, la zarren zarrez urdintzen dan garizuma-opileko erbi eza'dok, yaun. (Abesten daragoi).

Erbi zar urdin,

Erbiar zar,

Garizumarako okela on:

Baña erbi zar urdindua

Ogeirentzat be lar

(17) Emen Merku'tik erloiu-arpegitaz añearen arpegia alct aizegina artzen duern ez da argi ogiri. Arpegia izaiekoton, surcc litzateke amcriben edo eguerdioren marrea, erdi-erdian dagolako, eta, orrazkero, une atcm añecren esku bere surraren gmeon aurkitzein zan, adzeginari eusten, Merku'tiren irudimen lizuna beste zer borobilen batera ez bci'doa, esku zontarra aitotzen dauenzkero. Añea asaldatu donctzkeru, ba-leiteke onek zera orretarat aitu izana. Eztabaida au ebazteko une crtan añearen esku norago zan yaikin bectri, eta olangoirik ez dakigu ta yakingo be ez.

Yan-ausretik urdintzan danoan.

Exromi, 'bci-Gtor i irc: citanerc!? Gu ora goa-  
zak bazkaißen.

ERROMÍ.—Zuon ycirtai yocmgo «ok.

MERKUTI.—JVgur, amraia; cigui-

(abeskt) amcmdera, amandera, amcmdera.

(MERKUTI'k eta BENBOLLO'k alde dagie).

AÑEAK.—Yaungcikocirren! cgur, bcii •Arren,  
yaun, nondiko dogu tr nor dogu yauntxa  
lotsabako zital ori?

ERROMI.—Ori bere buiuari ontzutea gogoko  
yakon gizaándo yatztí, *aña*: eta ilebeteen  
entzungo dauenc baño geictgo minuto bci-  
ten esango dauena.

AÑEAK.—Nire nurka ezer escm .ba'dagi esan,  
ezpanak andituko dauisadaz. bai orixe, da-  
na lango ogei ba'itiz be; eia nik neufe ezin  
bc.'dot, idcroko dot ori egin daiksanik. Zital  
zorritsu! Ni enaz neskazale orrekin dabiitza-  
uetariko emakume; ni enaz orren lagun lo-  
tsabakostarikorik... Eta ik be begira egon  
bear ete dok, eta zlrkinik egitekn yosan ni  
edozein sitólek berak zelan-gura erabilte-  
ko?

KEPA.—Jjik er.tot ikusi iñor zu berak zelan-  
çoim erubilten; olar.gorik ikusi izan ba'neu  
ikusi nik Instar be laster atera izango ne-  
ban rtire iskilloa, bai orixe: beste edonok  
*aña* crrin aterateko bildurrik eztoz nik, ez-  
trabaida onean erotirik aurkitu ba'dagit, eta  
iegea nire alds dagoala ikusi.

AÑEAK.—Orcin, -Yaungoikoak dalri-, egin  
dausiien irair.aren iiainez soin osoa darda-  
sa baten dot. Zitai lotsagaldú! ...-Zu, yaun,  
*ilz* bcit 'iuri; efa @&'jn dautzudanez, nire  
andora gazteak ;;ure billa bidalí nau; efc zu-  
ri esatelco agindu ciaustana neutzako gords-  
ko dot; bcraa lenen itxi egidazu zuri esaten,  
zuk a, esaten danez, agoa bete aginegaz  
itxiko ha'sendu, ori benetan litzatekola yo-  
kabide zantar: eta izan be, a emaltume zin-  
do gazte da; eta, orrazkero, zuk arekin bi-  
tara yokatuko ba'zendu, ori emakume zin-  
dori egitea zer motz eta yokobide zcmtar li-  
fzateke.

ERROMI.—Aña, nire gorantziak eroon sure  
anderano ta ugazaba-and.ereari. Yaungoi-  
koaren aurcean dirautzut...

AÑEAK.—Nasai egon, eta, benetan, orixe  
esarjgo dautsat nik ari: ene Yaungoiko, ena  
Yaungoiko, ak arusko dauen poza.

ERROMI.—Zer esango dautsazu, aña? Zuk e^  
dcmstazu egin yaramanik,

AÑEAK.—Nik ari zera esango doutsct, faun,  
=uk baietz diñozula; eta, nire ustez, oii gi-  
xon zindori cktçokon eskeintzea da.

ERROMI.—Esafozu gaur afirastian autortzen  
etorteko bideren bnt edo beste asmau da=  
giala; eta an iaurentzi lekaidearen etzan-  
goan autortu ta ezkonduko dala, Autsi zur=  
nekeen alderako.

AÑEAK.—Ez orixe, yaun; bcakurtzikirik bez.  
ERROMI.—Gero! Bai ,artuko daustazu.

AÑEAK.—Gaur arrastian, yaun? Ondo dctgo,  
an, izango da a,

ERROMI.—Eta zu, *aña* on, su lekaretxe-orms-  
ostean egon; ordubete-barru nire gizona zu-  
rean izango da, ta sokazko zurubi eroan-  
go dau, gau ixil onetan an goiko nire mait-  
te-maftsaganako nire bide izango dan EUTO.  
bi. Agur; zintzo izan, ta zure nekeafe ondo  
ondainduko dautzudaz: agur; nire gorantzjok  
zure andera gazteari.

AÑEAK.—Yaungoikoak bere zorientegitik ono.  
tsiko al zauz... Entzun, yaun.

ERROMI.—Zer diñosu, ene aña maiagarri?

AÑEAK.—Zure gizona ixilekorik eukitskoa ete  
da? Ez ete dozu iñoz entzun bik ixilkizuna  
euki daikiela. baiçi kenduazkero?

ERROMI.—Orixo bai, nire gizona goltsaídu  
baxen benetako da,

AÑEAK.—Ori ondo, yaun; nire andera gaztets  
anderarik maitagarriena •raízu, -Yaungoiko,  
Yanngoiko; olar.goxe zan neskatotKO itz-on-  
tztitxo zanean--. Ene! Urian Paris izeneko  
gizazindo dozu, aitzori eltzeko be ozta-oz-  
ta gauz dana; baña nire anderañoak a iku-  
si baño guragoko Ieuke kunkuna bera iku-  
si be. Nik nire anderañoa batzuetan asa-  
rratu egiten dot Paris dala gizon esanda;  
baña, bai orixe, nik ori esaten dautsada-  
nean aren mosua izarea berño zuriago yar-  
ten da. Ez ete dira erromeru ta Erromi izki  
beragaz asten?

ERROMI.—Bai, ctña; eta orrec/az zer? Biak  
R'gaz ingelanderaz,

AÑEAK.—Ea! irikcc daragoiozu zuk. Txakur-  
izen yatzu ori. Txakunena *ó*a H (18); ez;

(18) *Añeak* diñcmetik cigiri dcrcz, emctku-  
me txitxari-maltzur cnek ez ekiani ez ira-  
kurten, ez idaa'en, "R" izkici ixakurrena dala  
diño. Ingelanderaz, tmkun'ari "-dog" eresten,  
dcrutsoe, fa itz orrek ez dau "R"rik. Zegaitik  
diño, onazkero, "R" txakurren ízki dala?  
"R"ren otsari buruz. Eta izon be, txakurrak,  
ascrrre danean, "R" izkioren olsci egite-n da-  
u ctgoan.



nik ba-dakit beato JzSiren balegaz asten dĤriantc: eta alc orretuz esakunerik politenak dauz, srenak, Eure fcs erroraerari buruzkoak, eĤa entzunalc, on eyingo leuskizu.

EHROMJ.—Nire gorantziak emon zure etzandĤra gajecrri.

V AGERLEKĤJ.—KAPULETeneĤco IgaU-zuga?.Ĥa.

YULETXU aiirreĤa,

YULETXU.—Bederatsiak yo dauz erlaiuak nik oĤecs bidcli dodanean; erdu erdibanu ernen tĤala atzera e-san dau; ba-leiteke a Erremi Idoro-ezinik ibiliae...: ei dĤi olangorik. Erief meiki da nire aĤea! oldcĤpanak izan becir iekie inaitasunareri gezcĤrĤ, itzafaiĤ citzera-ka berengo mendien besialdera buitotuten dabezan eguzkiaren izpiak baĤo araar bitĤsr bizkorrago dĤrian cldozpenak: orregaitik, maitcisuna uso ego-bizkĤrrak erocien dobe, \a orreta.rako dauz Kupicla'k ego antea baĤo bizkorricgoak. Orain eguzkia gaurko bere bide-arloko goiengo mendĤ-tontorrean dcĤga; ela bedercitaietatik amabietara iru ordu lu'ie doaz... eta orraitĤo a ezta etorri atzera oraindik. Ak odol gazteĤiren biotz-leiak cĤa berotcsunc izan ba'leuz, bolea baxsn ari:Ĥ ibili Izctngo zan; nire itzcd: a, bolea lanĤjoa ba'itĤo, nirs mcdĤs laziar.agana yauriingo ioukie, tĤo areuak nĤgana: baĤia zcĤr asks ikĤk bai'Jira dira: geldoiile, nustarrck emonak, beruna bĤxen aztuiniiofelak'., Ene Yamigoiko, badatorl

AĤĤEA ta KEPA cturrera,

Ene aĤa maitagaĤri, ze barri dakasu? EĤin doru irikitx arekin? Ortib zear bictaiĤ etĤiu zure gizancs,

Ĥ KEAK.—Xepct, ik cĤn atetan eiĤon egidaĤt, YULETXU.—Orain, aĤa ou maitagam... Ene! zegaitik zacjoz betilun? Barri txamik ba'dira be, goĤarcĤiz etan eĤnciazuz; onak ba'dira, barri pozkarrien eresi gozoa mingostu egiten daustazu olango arpeĤi saminez yoia, AJNĤAK.—UncĤtuta nugo, epe apur fcal eka-;... UĤ! azurrok minduta dorlaz; nik izan dodan ibĤltaldiarena!

'i ULETXU.—Nire ctzurrak cĤl zen-duz zuk eta nik zure barriak; gocizen, arren-bai-arren, itz egizu, cxĤa on-on.

AĤĤAK.—Yosu! norako orrenbesie iradu? Ezin ete dozu etxon apurtxo haten? Ez dozu ikusten arnasa barik nagola?

YULETXU.—Zelcsn diĤnozu cĤrnaua barĤc zago.

AĤĤAK.—Bai, miite bicfer. (ERROMĤ'k olds da-gi)... Kepct!

KEPA.—Emen nozu.

AĤĤAK.—Kepa, ar egik niro axeĤina ta ni-re aurretik oa. (Alda dĤcĤjie).

zaia, arnasa barik zagorala niri esateko cĤrmasarik 'ba-dozu-la? Escstekoa c'tzeratnĤen eĤaltzen dozun asiia cĤeiaĤo do, oscĤekoa esateko bear dozuua ūciĤo. Zure barriak onak ala txorrak dira? Erantzun orreri; e-cĤni bata naiz bestea, eĤa nik Kerizeicdak enizuteko etsongo dĤt: nasciitu uagizu, txarrak ala onak?

AĤĤAK.—Ba! zuk sentzun hako ctukera egin dozu; zuk ezĤakizu zelan auĤu cĤizonik: Erromi! ez, a ez; aren niosur ifĤongo cĤjisonena baĤo oba izanarren, on-aĤiĤio aren zunyott gizon Ĥruztiena baĤo ierdenago cia; ela aren esku, oin eta soin, aĤk ai buruz eragotekoak izanarren, iĤonak baĤc ederrago aĤra: a ezta a-aeien lora... baĤa, boi orixe, CĤ bildo-tsa basen bigun-sainur da... 'ure bidea zear soa2, neska; YauugoikoarcĤn cĤisein izan. 'Isr'! Bazkaidu dozue cĤxcĤin, alc?

YULETXU.—Ez, ez; baĤa suk eaanci ienĤik dot ezagun, 2er diĤo at gure ezkonĤzerci buruz? 'Loi. orreloz?

AĤĤAK.—Sne Yaungoiko; au da buruko iĤi-nci! ze buru doi nik! TcrupacĤaka dot, ogei zatitan yausiko bai'litz. Bostetik. nire bizkĤrra..., nire bizkarrarena, nire bizkarrona! ku tsua intsigiko al yako zura bĤtearĤ ni orlik zear bidali nozulako, gora-beraka ibilia-«ota ii eragiteko!

YULETXU.—Benetan, tamal na; zure onao-ezagaitik, AĤa maiĤe, maitcs, maite, esciida-zu, zer diĤo nire maĤeak?

AĤĤAK.—ZiĤ-s maiteak diĤo, gison ziiido, be-Ĥjirunetsu, maitagarri, luerden eta, boi orixe, ekandu onekari dagoldonez... SĤn da zure ama?

YULETXU.—Non dan nire ama! ba, a baiTuan dozu; an ez-ta, ncn egon bear leuks, ba? IĤondiko erantzuna emoian dauslctzu zeuk! "Zure maiteaic tiĤfĤo, gizon zindori dĤctgaksonez... Kon da zure ama'Ĥ".

AĤĤAK.—Enei YoungoikoarcĤn andora maite! Orren bero zctrc? Tira, ?er yazoten yatru? Ori ele da nire azur minduentzcko osakaia? Oratndik atxina zeuk egin zure gexnak.

YULETXU.—Au da matazec?!... Tira, zer diĤo Erromi'k?

AÑEAK.—Bai ete dozu baimenik gaur autor-tzen yoateko?

YULETXU.—Bai, ba-dot.

AÑEAK.—Orrazkero, zoaz arin emendik Lau-rentzi Lekaidearen etzangora; an dago zu-re senarra zu bere emazte egiteko: orain odol olgetaria zure masalletara dator, eta edozein barrik gorri-gorri egingo dauz zu-

"re masaliok. Yoan arin yauretsera; nik beste biderik artu bear dot, bein ilundu daitenean zure maiteak txori-abira igoteko zurubi-billa; ni naz zure pozaren neke ta lor; baña laster zuk eroango dozu zamea gabaz. Zoaz; bazkaiten noa ni; zoaz arin lekaide-etzangora.

YULETXU.—Arin yoan zori onera! Agur, aña zindo. (Alde dagie).

### VI AGERLEKU.—LAURENT

LAURENTZI LEKALDEA ta ERROMI aurrera.

LAURENTZI L.—Gerora lonez agirikaiik ez egitego lez irribarre ta txera egingo al dau-tso zeruak egite guren oneri.

ERROMI.—Olantxe, olantxe! bafia etoniko da-na etorriko, ni ezin egon naz *a* minuto la-burrez ikusiak emoten daustan poza iragar-teka; zuk batu egizuz guie eskuak itz deu-nez bai, ta orrazkero eriotza maite-fruns-leak berak zer-gura egin dagiala... Nitzako asko da ari niie deitu al izatea.

LAURENTZI L.—Atsegin biuniak azken biu-riak izan daroetz, eta eurena lortuazkero il egiten dira; sua la sulaulsa (polborea) legetxe, aikarri mun eginokoxe ezereztu egi-ten dira: eztirik gozoena be iguingairi egi-ten da bere gozoaren gozoz, eta yanaren yanez yan-galea nastu egiten dau: oiraz-keru, neurritz maile izan; luzaroko maítasu-nak orixe egiten dau; arinegi doana geldi-roegi doana lez beluegi eltzen da. Emen da-tor anderea,...: Ene! olango oin arinek ezta-yango egundo suari betiraunkorrik: maita-lerik yarri leiteke udako egurats yostarian nagi dagoan amaraun-ganean iztartolaka ta orraitioño yausi ez; orren arin da uskeri.

LEKAIDEA'ren Etzangoa.

YULETXU aurrera.

YULETXU.—Anasti on niie autor-entzuleari. LAURENTZI L.—Gu bion izenez, Erromi'k emon-go dautzuz eskerrak, alaba.

YULETXU.—Beste orrenbeste berari, ostein aren eskerrak geiegi litzakidaz-ta»

ERROMI.—Ai, Yuletxu, zure pozaren neurriak nirearenak lez metea egiten ba'dau, ta zure trebetasunak ederragotu ba'dagi, orrazkero zure arnaseagaz lurrungozotu egizu gure urreko egurats au, ta eresi gozoaren miñak iragarri dagiala guk bioc alkarrekin tiikitx egite onetan batak eta besteak artzen dogun zori on zoragarria.

YULETXU.—Bulkoa mamiz aberatsago da itzez baño, eta bere orrokizun mamia da, ez azal. edergarriak; zenbat daben zenbatu al da-benak eskeko baño ez yatzuz; baña nire maitasuna bene-benetako ta andi-andi ta neu-iri bako da-ta, nire aberastasuna zenbatu-ezina da.

LAURENTZI L.—Etorri, yarra niri, ta egitekoa arin egingo dogu eta izan be, zuok eztozue egon bear zuok zutara Eleiz deunak zuok biok bat eyin arte. (Alde dagie).

## III EKITALDI

### I AGERLEKU.—Leku orokar.

MERKUTI, BENBOLLO, Gezna-mutil, eta Otsei-nak.

BENBOLLO.—Arren-bai-arren, Merkuti on, gaioazan emendik; bere dok aguraldia Ka-puletarrak etxetik ianda dozak, eta eurekin trikitz egitekotan, burrukaren bat izango yoagu; eta izan be, eguraldi berookaz odol amorratua biztu egiten dok.

MERKUTI.—I arako ardan-etxean s-artu-ala

ezpatea atera, nire maia yo ta "Yaungoi-koarren nik ez al yoat ire bearrrik izango! "esaten dauen urliaren antzeko az; arako a. bigarren edontzikadeak eraginda. an yoa-koek ezpatsa atera dagianari ganera, orre-tarako ezetariko bear-izanik ez-ta.

BENBOLLO.—Olango urlia lango ete nok, ba, ni?

MERKUTI.—Tiruk, tiruk, I lre gogaldian Itali'ko edozein astakirten besteko az; eta ire go-

galdira iri errez eragiten yetk, gogoldiak eragiten dauskán bestean arin.

BENBOLLO.—Zer geiago?

MERKUTI.—Aiko, i lango bi ba'ktiegozak, lasier ez legokek bat be, batak bestea ilgo laieukek-eta. I! ba, ik eztabaidea sortuko áok urliak bere bizarrean ule bat geiago naiz gitxiago dauela-ta, Ik eztabaidea sorluko dok intxaurrek austen daragoion gizonagaz, ez beste ezegaitik, ik ur-begiak doza-kalako baño," olangok, ez zo besle begik sortu al izango laieukek olango eztabaidarik? Eztabaidaz belerik yagok ire burua, arrautzea maraiz beterik dagoan legetxe; eta orraitíño ire buruo: koskorrekoz arraulza ustela baño ustelago gelcitu dok eztabaidetan sartzearren. Ik gizonagaz burruka egin dok ak etoortean eztl eginagaitik, eguzkitan etzanáa lo egoan ire txakurra ak iratzarriagaitik, Ez ete enduan ik bein burruka egin yostunagaz ak bere barru-atorrea Igaratz-auri'etik eroialako? Eta orraitíño niri burrukatan ez sartzeko burubideak emoten atorkit!

BENBOLLO.—Ni i bestean burrukazale ba'nintzok, edozein gizonak erosi bear leuke nire bizia, yabego osoz, ordubete ta laurenerako.

MERKUTI.—Yabego osoz! tentelkeri osoz esatik.

BENBOLLO.—Nire burua egingo naieunkek, or datozala Kapuletarrak.

MERKUTI.—Nire orpoarren, niri ez yaustak ardura,

TIBALDA ta beste batzuk aurrera.

TIBALDA.—Niri ondoan yarraí ,neuk ítz egingo yautset orrei... Arrasti on, yaunak: ítz bat zuotarik bati.

MERKUTI.—Itz bat baño ez gutariko bategaz? Zerbait erantsi egiok bigarrengarritzat; bat ori ítz bat eta zartada bat egik.

TIBALDA.—Ni orretarako geirik asko aurkituko nozue, yaun, orretarako biderik emon ba' dagistazue.

MERKUTI.—Ez ete daikezu artu biderik jñok emoteka?

TIBALDA.—Merkuti, zu Erromi'ren kide zara...

MERKUTI.—Kide! Zer? Ortik zear erririk-erri dabillzan ereslarit2al arlzen gozak, ala? Olengotzat artu ba'gagizak, ez al dok entzungo ereskideezak ez besterik: aiko amen nire bibolín-bardea; onek eragingo dauk yantzan. Denganiño, kide!

BENBOLLO.— Emen guztien aurrean ítz egin;

naiz tokl ezkutuen batera goazen, ta argibidez eta otzean aztindu gure irainak, naiz ostein, alde alkarregandik; emen edonoren begitan gagoz.

MERKUTI.—Ikusteko eginak dozak gizonen begiak, eta dagozala begira; nik ez dot egingo zirkinik iñori eder egitearren, ez nik.

TIBALDA.—Ondo yagok, nasai ago, yaun.« Emen dator nire gizona.

ERROMÍ aurrera.

MERKUTI.—Baña eskegi nagielá a zure antzeko ba'da: arrano, oa i lenen burruka-tokira, a ire yarraí yoango dok: olan bai ik deitu al izango dautsok ari gizon.

TIBALDA.—Erromi, nik daukadán gorrotoak ez yaukak au baño ítz oberik ítzako: zital az i.

ERROMI.—Tibaldá, i maite izateko nik dodán zegaitiak ire agur orreri dagokion gorrotoa galazo egiten yaustak. Ni enok zitalik; orrazkero, agur; dakustanez, ik enok n' ezagun.

TIBALDA.—Mutil, ori ez dok ik niri eginiko irainen zurigarri; orrazkero, bira egik, ta atera ezpatea.

ERROMI.—Smen gedarrez autortzen yoat nik ez audala egundo iraindu; osterá, zegaitik maite audan ik yakin arte, ik iruditu daikekan baño maiteago aut eta orrazkero, Kapulet on, -eta izen au neurea bestean maite izanda emoten dauksat-, kitututzat ago.

McinKUTI.—Epearen lotsagarri, buru-makur-Izearen zistrin! Orrek ez dautso emoten lekuri "a la stoccatá"-ri. (Ezpatea ateraten dau) Tibaldá, sagulo-oratzalle ori, ibili gura dok?

TIBALDA.—Ik zer bear dok nikin?

MERKUTI.—Katuen errege on ori, nik ire bederatzí bizietatik bat, ez besterik ez yoal bear; oren yabe egiteko asmo yoat, eta, ik gero niri buruz zelan yokatuko, beste zortzirak beratzeka yoko yoadaz (19). Aterako

(19) Shakespeare'n aldian ezagun-ezagun zem "Romance del ZOITO" edo "Azeriaren Ipuina", eta ipuin orretan katuen erregeari Tibaldá erestein yenko. Esakunea danez, katuak bederalzi bizi dauz. Yakina, bederatzietatik bat kenduazkero, odolusturik geldítuko da kalua, eta beste zortzirak kendu gura izanazkero, ezotasun bako soña, beratu bako soña yo beor.

ete dok ire *ezpalea* ber» aoxdineik (20), *b&larrietatik* elduti? Bizkortu adi. nireo. ira belarrietara ik irea aterc bcjño len eldu ez daiten.

TIBALDA.—Emen nok iri eklteko. (Ezpatea atera egiten dcu).

ERROMI.—Merkuti maitagarri, Iekaratu egik ire espatea,

MERKUTI.—Ator, jaun, egotsi iro sascidec. (Burruka daragoioe).

ERRCMI.—Aterc *ei'ik* ezpcneet. Benbollo; lurrera egotziazio eçiezak euren iskillioak. Youn zindooSc, lotsarri, *ez* egizue egin olarigo ircinik!... 'fibalda... Merkuti... nagusiak argi ta gar?>i eragoiai dau Berona'ko etxarteetan burruka egiëa. GeltH, Tibalda! Merkuü ors...

(TIBALDA'k eta bers aldekoak aldí dagie).

MERKUTI.—Zauritu IKSU,,; kurriect zuon etxaguntza *b'GI'* Nireak sgin dau. Ycan da ci ia ez dau ezerV

BENBOLLO.—Zer? Zauituta ago, ala?

MERKUTI.—Bui, btsi, UITOIU bat, uurtxu bat; denganiño, osko c'a... Non da nire geznamuilki?... osaçille-billa oa, zitaí. (Geznamutilak alde dagi).

ERROMI.—Kz gcridu adorerik, gir.cn; zauri ori ezin izan leitskek zauri larririk.

MERKUTI.—Es, ez clok oaina lain sakon, estci eleij-atea lain zabtsí be; bcma asko dok, ae-reginik emonrjo yok; utor biar nire billo, ta an surkituko nok ilohirako gerhi. Bai orixe, ludi negazko pipermindu'a naiagok,, Izurriok eroango ai yozak zuoi eixagunim biak!.., Dengctniñoa! Txakurrek, sagutck, saguk, katuk gizoni urratu eraikoriik egin bear dautsalo! Arreputzek, zitalek, ziztrinek, burruka buruz ikasita egiten douenekí... Zegaiiif: denganiño sartin *az* i gure bitartáan? Ire besapea zear zauritu naiok.

ERROMI.—Egin dedana nik asmorik enenef egin yoat.

MERKUTI.—Laçun nagik etxeren baterct, Benbollo, oslean krrriiluko nok-eta. Izurrialc eroango al dcms zuon stxaguntza biak! Orreik ni eltxctren yanari egin naioek: bai, nik artu ycat, ota oudo artu bc... iúon etsaguntzak!

(MERKUTI ta BENBOLL'c'k alde dagiá).

ERROMI.—flagusictreri urrurreko senide ta nire odiskide-aáskide zindo onek nigaitik artu dau zauri il-eragile au; nire entzute ena be Tibulda'k arpegira egotzi daustan irainez orbanduta dago... Tibalda. ordubo-

tean rúre senitarteko ízctna... yuleíxu maítaçjari, zure edertasunak ni emakume-antze-go egin nau, ta nire gogaldian odorearen galtzcsidua bigundu.

Ostera be BENBOLLO auxrera.

BENBOLLO.—Erromi, Erromi. Merkuti kemen-tsua il dok! aren gogo bikainak, lurra goiz>sgi ezetsita, lañoetara ecjin yok.

ERROMI.—Egun onetako zori baliza, egun baltz geiagoren eske yagok; onek csi bafio ez yok egin beste batzulc omaitu beor dabn zori bçarra.

MENBOLLO.—Emen dator ostera bo Tibalda amorratua.

ERROMI.—Bizirik, irabeziek ciroruta! eta Merkuti iñok fílda! Alde zerura, begirune bigun, eta su-begidun amorrua bedi orain nire yardunbide.

TIBALDA esterct be aurrera,

Orain, Tibalda, auto so atzera ik orafntsu niri ernoneko arako "xital"; Merkuti'n gogoia oraindik gure buruen ganean ur dok-eta, *a* irearen begira yagok ari lagun egiteko; edo ik edo nik, edo guk biak yoon bear yoagu akin.

TIBALDA.—I, zori txarreko mutil ori, *afi* lagun egiten ona etorri azan ori, i yoango *cx* emendik,

ERROMI.—Onek ebatziko yok ori. (Burúka daragoioe; TIBALDA lurrera).

BENBOLLO.—Alde, Erromí, igesi egife! Cks-nean dozak erriarrak, etc Tibalda ilik yagok... Ez adi egon arriiurik. Oratu ba'agie, nagusiak zigortau egiugo yok eriotzea. Oa, alde emendik!

ERROMI.—Ene! zoriaren ergc-l nok Ene!

BENBOLLO.—Zeren begira ago geldi? (ERROMI'k alde dagi).

ERRITARAK etct abar aurrera.

1 ERRITARRAK.—Ze blde artu dau Merkuti eran daueuak? norantza egin ete dau Tibalda eraleak?

BENBOLLO.—Or datz Tibalda.

(20) Ezpaiearen zorro edo leketiri Merkuti'k beie gogaldi argi-txilçiricm "sardiña" de-retxo, sardinea lez zapal-]uzanqea dalako. Ezpotea]c bsre •kíten eta agoaren bi'farteon kikctz bi izaten douz, eskuak kirtenetik agv rantza egin ez dagicrn, eia lakatzoi Merkuti'k belarriak deretxe

I ERRITAHRAK.—Gora, yaun, fsrrai akít, Nagusiaren izenez, men egik.

Nagusia, yarraigoakin; MONTAGU, KAPULET, euren Emazteak, eta beste balzük aurrera,

NAGUSIAK.—Non dira burruka zirtzil orien esleak?

BENBOLLO.—Ncgusi zindo ori, rteuk azaldu tc eralgi daikedcz harruka onen gorabera guziak: or dcttza, Erromi'k eranda, iure senide Merkuti adoretua eran daitena,

KAPULET A.—Tibcilda, siire iioaba Nire nebearen seme ori!... 'fíagusi ori! Senar ori!... niro senide maitearen odola buci da!..., íia-gttsi, zu zindo zarc-ta, Montagutarren oo.ola ixuri, guretarren edoktren oídeazkotzat Ene llobct, ene lloba!

NAGUSIAK.—Benbollo, nok así yok burrolra sdolisu cui?

BENBOLLO.—Erromi'n esiraz 'ílda- emen ilik dagon Tibalda'k; Errorai'k bigun elu aeiz itz egin doutso, eztabaida zuzen daner.tz oldoz-tutsko eskcitu dautso, Sa aure asaneagaz zemaitu dau,, GUF.ÍÍ au cik itz bigunez, begimkune Lctrez, belaubiko apal yarrita esanarren, ezin egin izan dai; bakerik Tibalda' ren gogcsldi basatiagaz; onek, bakeari gor, Merkuti oldarlsuaren bularrari exasoten dautse; Merkuti'k, guziiz beroiurik, ozpaia-mcko eraletíi ezpata-mokott eskeintzen dautso ta, gudaiik lez bildurrci ezetsitci, esku baíagaz eriotza otza baztartu, ta besteaqaz Tibalda'ri bídalizen tlautso atzera, la onan trebeteaunak atzerct bidaltzen dau: orretan Erromi'k gedar dagi: "Gal'di, adiskiaéok! banandu, adiskideuk!" eia, txintisieak baño bizkorra-«je, aren beso bizkorrak ctrein ezpata-mokoak Uírrera erasten dauz, eta bieri bitartean sar-

tzen da; ectt aren besspeliko Tíbaldo'ren gaztada zitalak Merkuli sendoaren bizia yoten dau, ía orrazkero Tibalda'k igesi: andik laster burrien barri dator Erronú'gana, ta allcarrerí erasoteti dautsoo *hiak* txirmistcak baxen arin; eta izan be, ník aik banandutako nire ezpniea atera al izan baño len Tibalda sendoa ilik egon cta: eta *a* yausi-aia, Erromi'k afízea emon eta igesi egin dau. Au onctn da, osteau il daitela Benbollo,

KAPULET A.—Au Montagutarren senide da, arei dautsen maitcsunak au guzurti egíen dau, onek ez díño egirik: eísrsttiriko ogeien baíek ogin da.be burruka eztabaida orretan, *sia* ezin yazo eitekean ogeik bizi bat ez eratorik. Wi zuzeníza-eske nagotzu, eta zuk, nagusi, zuzentzea egíií bear dozu: Erromi'k eran dau Tibalda, Errotm ez da bíziteko.

NAGUSIAK.—Erromi'k eran dau a, ak Morcuti eran dau; nok zor dau orain odóí eder onen ordaina?

MONTAGU.—Ez Erromi'k, ncgusi, ct Merkuti'n adiskide da; aren utsak legeak bete bearrekoa bete dau, Tiba'da'n bizia.

NAGUSIAK.—Eta oxrako írain orragaitik, emendik bertatik arbesieratzen dogu a: zuon arteko gorrotoa aufTera yotitean neuk be badot zer-ikusirik, nire odolak ixurtzen daragoio zuon eztabaida zarataisu-goráíne. tan; baña ník ezarrtko dautzuedan galen az-tunagaz zigortauta ník nirea galduaren tamala izancjo dozue: ník zuon e&kari ta zurikeriaí entzungor egíngo dautset; ez negarrek ez eskarik ez daust ctzkeisiazoko irainik, eta orrazkero ez e/abíií olangorik: Erromi'k alde dagiala emendik len-baño-len, osteati, emen idoro ba'dagígu, ordu ori í'ango da aren azkenengoa. Kendu ernendik gorpu au, ta gure gurarla yarri look: erale dc errukia, eraleai azketsiazkero. (A!de dagie),

## U AGEHLEKTIJ.--KAPULET'eneko elxoki.

YULETXU aurrera,

YULETXU.—Zoaze arin egin-alean, oin sutsudun zaldiok, Eguzki'nera: Paiton (21) langg zaltzainak txibita-otsean eroango zmdukiez Barkaldero ta gau ilunbetsua bertatik ekarri... Zabaldu zure kurtxoin estua, maiteen egitekoen gau orrek! egin baldar-gordinak bere begía itxita, ta íñok ezer esateka ta ikusteka, Erromi'k nire besootara yauzi egin dagian.., Maitaleak ez dabe crgi-bearrik euren maitasun- egitekoafc burutzeko, maitasuna bera argi yakenazkero: edo-ta moi-

tasuna ítsu ba'da, gaua datorko sndoen.-- Ator, gau txeratsu, etzandera yantzi-urri,

(21) Paiton, Eladetarren sinisk&raz, Paiton au Eguzkiarsin semea zan. Bein Paitori au bere ad'taTen burdira igon eta ortzea zeax uífen zan, zaldiak txibiteaz bizkarrean yota, baña zaldiok zaltzaín bctrrí-gazte orrentzako bizi-giak ianda, bidea bizkorregi e-gin eta b-urdia Lurrarl gegiei urreratu yakon. On'egaitik ei do-zu @remus-kílduta Apirka íparraldea Sca-ra izeneko lur-arlo eskargea,

baltz utsez yantzi ori, ia irakatsi egidan ez-kongei biren osotasuna yokatzen dan ycko au zelan galdu; estali ire estalgi baltzagaz nire masalletara eurrez datorren odol bendera- ezina; iñondiko maitasunak, adoreturik, benetako maitasun-egitekoa eginik lotsortasun ustzat etsi arte, Ator, gau; ator, Erromi... Ator, i, gabaz egun azan ori; i gauaren ego-ganean edur barria belearen bizkarrean baño zuriago etzango az-ta. Ator, gau maitagarri..., ator, gau maitagarri ino-su-baltz, ekak nire Erromi; eta, a il daite-nean, ar egik a ta izartxo-tcataletan txatadu egik, eta ak ortzearen arpegia eder-zo-ragarri eginda, ludi osoak maite izango dau gaba, eguzki arroari gurtzerik egiteka. Ene! nik maitasunarentzako etxea erosi dot erosi, baña oraindik ez dot eskuratu; eta ni salduta egonarren, iñok enau gozatu: egun au gogaikarri egitsn yat, yantzi barriak izan eta oraindik ezin yantzi izan dauzan uma artegeari yai-egun aurreko gaba egiten yakon lez. Ene! emen dator nire aña, ta terak dakarz barriak; eta Erromi'ren izena, ez besterik aitatzen ez dauen miñak itzaldi bikaina egiten dau.

#### AÑEA aurrera lokarríekuz.

Ze barri dogu orain, aña? Zsr dakazu or? Erromi'k ekarriazo dautzuzan lokarriak?

AÑEAK.—Bai, bai, lokarriak. (Lurrera egozten dauz).

YULETXU.—Ai ene! ze barri? Zegaitik biur-tuten dozuz eskuak?

AÑEAK.—Ai ene! Egunarena! a ilik da, a ilik da, a ilik da! gureak egin dau, etzandera gazte, gureak egin dau! Egunaren zori txarreko! arenalc egin dau, a eran dabe, rr ilik da!

YULETXU.—Orren zitol eta bekaizti izan ete 'eitekez zeruak?

/ XEAK.—Erromi bai izan leiteke, zeruak izan ezarren... Ene! Erromi, Erromi!... Nok egundo uste izango eban olangorik? Erromi!

YULETXU.—Ze txerren zauguz zu, ni olan minduteko? Miii au orroaka iragarri bear litzatelre gaiztoki ilunean. Erromi'k bere burua eran ete dau? Nik eran dodala esan egizu bai, ta % bakar orrek eriotzea yaurtiten dauen erensugearen iegiak baño eden geiago ixuriko dau; eta ni enaz ni, olango nirik ba'dago; ostean itxi beitez zuri eran-tzunazoten dautzuenaren begiak. A iñok eran ba'dau, nik eran dodala esaizu; naiz ostean ezetz esaizu: Itz gitxik erabagiko da-

be nire zori ona, naiz txarra.

AÑEAK.—Nik zauria ikusi dot, neure begk-kaz ikusi dot... Yaungoikoak azketsi begist erakuste au! toki onetantxs aren giza-bularran: gorpurrak, gorpurrak odoldu; zurbil, errautsa baxen zurbil dana odol-lez loiturik, odol gogorrez estalirik; a ikusiz larriturik ni lurrera nintzan.

YULETXU.—Ene! ausi akit, ene biotz! porrot egin ori, ta birrindu akit bereala! Ilunbera, begiok, ez begiratu egundo azkatasunik! lur zirtzil, lurraz naikotu adi; ez geiago zirkirik; eta ik eta Erromi'k zerraldo astun bat sakatu dagizuela!

AÑEAK.—Ene Tibalda, Tibalda! nik izan dodan adiskiderik onena! Ene Tibalda adeitsu! gizazindoz zimdo! nik i ilik ikusteko bizi bear ete naioan egundo?

YULETXU.—Ze ekaitz dogu onan okerretara putz egiten dauen au? Erromi eranik eta Tibalda ilik eie dira? Nire lengusu maitea ta nire senar maiteagoa, biak? Orrazkero, adar bildurgarri, guztien epairako ots egik, eta izan be, nor biziko oik biak il ba' dira?

AÑEAK.—Tibalda yoana da, ta Erromi erbesteturik da.

YULETXU.—Ene Yaungoiko! Erromi'ren eskuxuri ete dau Tibalda'n odola?

AÑEAK.—Ixuri dau, ixuri dau, ixuri dau; egu naren zori txarreko! bai, ixuri dau!

YULETXU.—Arpegi txerakorrez estaliko sugebiotz ori! egundo iransugek izan ete dau olango artzulo ederrik? Legebako agintari eder! angeru-antzeko txerren! uso-egakidun bela! otso gosetizko bildots! mami zirtzildun azalik yaungoikozkoen! Egin-eginean be zuk dirudizuna ez, besterakoa, deun gaiztetsi, zital begiragarri!... Izamen ori! ze egitekorik zendun zuk su-lezan, olango aragi ederrezko parabisu ilkorrean txerren-gogoa yarri dozunazkero?... Izan ete da egundo olango gei zirtzildun idaztirik orren lirain azalezuririk? Ene! guzurak olango yauregi ederrean bizi bear dauenik!

AÑEAK.—Ezin entzin iñogan, ez dago zintzotasunik, ez itzeko izaterik gizonetan; guztiak dira zin-ausle, itz-yale, guztiak uts, guztiak azal-uts... Ba! non da nire gizona? Ekazu "agua vitae" (txitxiparra) apur bat... Atsekabeok, dordook, naibageok zartu egiten nabe. Lotsaria betorko Erromi'ri!

YULETXU.—Babazorroz betsko al yan miña ire gurari orregaitik! a etzan yaio lotsarirako: lotsaria aren arpegian kokatuten lotsa da; aren bekokia ludi osoko bakaldun baka-

rrari burunizea ezarteko bakaulki da-ta. Ene! ni bai izan nazala inondiko pizti ta abere ari agirika egiteko!

AÑEAK.—Zure lengusua eran dauenari buruz ondo esango ete dozu?

YULETXU.—Eta nire senarrari buruz txarto esango ete dot? Ene! ene yaun gaxo, non-go miñek leunduko ete dau zure izena, nik, iru ordu dala zure emazte nazan onek, olan lastu dodanazkero? Baña zegaitik, zital orrek eran dok nire lengusua? Ak, nire lengusu zitalak, nire senarra il izango eban; atzera, negar ergelok, atzera zuon zuonezko iturri-  
ra; zuotatik datozen tantanak dordoari dagokiozanak dira, eta zuok, oker aituta, nire pozari eskeintzen dautsazuez. Nire senarra bizirik da, Tibalda'k eran izango ebana; eta Tibalda, nire senarra eran izango ebana, ilik 'da; au dan au poz-nasaigarri da; orrazkero, zegaitik nago negarrez? Tibalda'n eriotzea baño txurrago dan itzek eran nau ni: ori pozik aiztuko neunke nik: baña, ene! gogoan dabilkit ekin eta ekin, obendiaren buruan egin gaizletsi errudunaren antzera: "Tibalda ilik da, eta Erromi erbestetuik". Orrako "erbestetu" orrek, "erbestetu" itz bakar orrek amar milla Tibalda eran dauz. Tibalda'ren eriotzea zan lorrik asko, ori or amaitu izan ba'itiz: edo, ezbear mingotsa lagunzale ba'da, eta nekez etorri be egingo da bakarrik, añeak Tibalda il dala esan daueneun, zegaitik ez dau esan nire aita naiz ama, naiz biak be il diriala, orrek negar barria eragingo eustan-da? Baña Tiial-

da'ren eriotzeari ezarri dautsan "Erromi erbesteturrik da" esatea urrerantzaga egitea barik atzeraka egitea da; itzok esatea ta zure aita, ama, Tibalda, Erromi, Yuletxu, danak eranak, danak ilak dira esatea bat da: "Erromi erbesteturrik da"... or ez dago atzenik, mugarik, neuririk, erizik, ez itz orren eriotzan ez; ez dago ezbear orren sakona neurtzeko itzik. Non dira nire gurasoak, aña?

AÑEAK.—Tibalda'ren gorpuaren aurrean negarrez eta aieneka: eurekana yoan gura dozu, ala? Neuk eroango zaudaz ara.

YULETXU.—Aik ikuzi dagiezala aren zauriak euren negarrez: areinak agortu daitezanean ixuriko dodaz nik nireak Erromi erbestetuagaitik. Eragi lokarriok. Lokarri gaxook, ziri ederra sartu dauizue, zuoi eta bai niri be, Erromi erbesteturrik da-ta: ak zuok nire oerako bidetzat egin zinduezan; baña ni, neska uts, neska-alargun ilten naz. Erdu, lokarriok; erdu, aña; ni nire ezkontza-oera noa; eta eriotza orrek, ez Erromi'k, ar egik nire neskaustasuiia.

AÑEAK.—Zoaz arin zure etzangora, neu yoan. go naz Erromi'ren billa zu nassitu zagizan: neuk dakit ondo a non dan. Entzun zuk, zure Erromi emen izango da arrats onetan: agana noa; a Laurentzi'ren etzangoan dago ostonduta.

YULETXU.—Ene! zoaz aren billa! emioizu elastun au nire zaldun zintzoari ta esaiozu nire atzenengo agurra artzen etorteko. (Alde dagie).

### III AGERLEKU.—LAURENTZI LEKAIDEA'ren Etzangoa.

LAURENTZI LEKAIDEA aurrera.

L. L.—Erromi, urten adi: urten adi, gizon bildurti ori: atsekabea ire zole egin dok eta l zori txarragoz ezkondu az.

ERROMI aurrera.

ERROMI.—Ze barri, aba? Zer erabagi dau nagusiak? Nik oraindik ezagun ez dodan ze lor dabil ni ezagutu-gurarik?

L. L.—Nire eeme matteak ezagunegi dau olango lagungo mingotsa: nagusiaren epaiaren barriak yakazat itzako.

ERROMI.—Zetan da nagusiaren epaia epai orokarra baño gitxiago?

L. L.—Epai bigunagorik urten da aren ezpantetik... Ez soñaren eriotzarik, soña erbesteratzea baño.

ERROMI.—Ene! Erbesteratzea! errukior izan zaitez, eriotza esaizu; eta izan be, erbesteratzeak arpegi bildurgarriagoa dau, askoz bildurgarriagoa eriotzeak bcño: ez egi zu esan erbesteratzerik.

L. L.—Emendik Berona onetatik arbesteraturik ago: epe ar egik, ludia luze-ezabal dok-eia.

ERROMI.—Ez dago ludirik Berona'ko arresietatik landa, garbitegi, min zorrotz, eta su-lezea bera baño. Emenik erbesteratua luditik erbesteratua da, ta luditik erbesteratzea eriotzea da... Orrazkero, erbesteratzea eriotza da okerreko itzez esanda: eriotzeari erbesteratze deituta, burua urrezko aizkoraz moztuten daustazu, ta ni eratan nauen aizkorakadeari irribarre egiten dautsazu.

L. L.—Oben erale ori! eskertzarrekokeri ori! Ire okerreriari, ire utsari legeak eriotza deitzen yautsak; baña nagusi biotz onekoak,

ire alde yarrita, baztarlu sgin, yok legeg, ía eriotza itz baltza erbesie itzeratu egin yok: au erruki andi dok izan, baña ik ez dok ikuslen.

ERROMI.—Ori min egiiea da, ez erruld; zera emen dago, 'fuletxu bizi dan toki onetan; eta edozein katu, ta txakur, eta sagutxo, gauz eztan zer oro, emen zem onetan bizi da, ta aren mosun begiratu daikie: baña Erromi'k ezingo dau. Geiago dira, caein bizitza goragoko da, adeigarriago dira gorpu usteleko euliak Erromi baño; areik ikusi ta oratu daikie Yu'.elxu'ren eskuko zuritasun crrigarria, ta aren ezpanetatik onespen iiezina osiu; eta ari arpegia gorritu egiten yako, bere lotsortasui garbi ta bestalenean (22) arein munak oben diriala uste izanez; baña Erromi'k ezin dau olangorik; a erbestaturik d«.,, Orrako ori egin daikie eu-Hak, nik, ostera, agandik igesi egin bear. Eta orraitño zuk erbestertzea eriotza ez dala diñozu! Ez ete dozu eden nasturik, aizto zorrotzik, eriozpide kfbuirik ni erateko, erbestertzea bcño begiragarriago danik? Erbesterturik? Lekaide ori! orrako itz ori gaiztetsiak era'bilten dabe su-lezan; damu-ausiak iagun egiten dautsoe: zu Yaungoikoaren otsein, autor-entzule gogctiar, obeuyareile ta nire aifskide ycitor ízanda, zelan dozu zuk biotzik ní erbeslorcttze iizagaz yo ts eioteko?

L. L.—Zoro maita orrek, apur baten itz egi-fen itxi egidak..

ERROMI.—Ene! zuk ostera be erbestertzeaz Itz egingo daustazu,

L. L.—Orruko itz ori uxatutek-o nik iskillo-yantzia emongct ctauskat; *mú* txarraren esne gozoa, yukintaieiasuna emongo dau;kat, erbesterturik egonarren, ire nasaigarritzal, ERROMI.—Ostero: be erbestertaiu? Txakurrei ©gotzi yakintzaletasun ori! Yckintzalefasun ori Yuletxu'rik egiteko, uririk loki bciterik bestera aldatzeko, nagusiaren epairik itzuiietara iminteko gauz ez ba'da, geiagorako ez ba'da, ez egidazu aiatatu bsin geiagotan.

L. L.—Ene! Orrazkero, uik dakustanez, zoroak ez dabe belarririk,

ERROMI.—Eta zelan izan be izango dabe aik, gizon zurrak begirik ez dabenezazkero?

L. L.—Íre egokereaz itz egiton itxi egidak.

ERROMI.—Eta Eelan itz egin daikezu zuk, muk oartzen ez dozunaz? Zu ba'zintzaz ni bestean gazto, Yuletxu ba'litz zure maife, ezkondu zarcila ordubete baífo ez, Tibalda ©Tonda, ni lez maitasarraz bete-beterik, eta ni \ez erbesterturik, orduan bai zuk itz egin

zengike. orduan bai zuk urratu ta afera zengikez zure uieak, eta lurreean etzan, ni orain lez, ciGñdik idigiteko dan nire ilobiaren neurriak artzeko.

L. L.—Yagi adi; norbaitek ate-yoka yaragoi-ok; ostondu *adí*, Erromi on.

(Norbaai ate-yoka).

ERROMI.—Ez ni; biotz larriaren intzirien isrrunak, lañoaren antzera. begien azterjjenetik ostondu ez ba'ncgi. (Ate-yoka osiera be).

L. L.—Entzun egik zelan yoten daben aiea! Kor da?... Yagi adi, Erromi; oratuko aue... Etxoik apur baten; Zuhndu adi; (ate-yoka) nire ikasgora oa. Certalik... Yaungoikoaren gurari! ze lentelkeri dok, gero, ori!... Ni ba-naioak, ísi ba-naioak, (Ate-yoka) Nor da orron gogor yoten dausna? Nondik zatoz? Zer gura dozu?

AÑEAK.—(Barutik) Barrura scrtzen ilxi egida. zu *eta* ircgarriko dcífutsut nire geznea; ni Yuletxu'gandik nator.

L. L.—Orrazkero, ondo etorria zauguz.

AÑEA aurrera.

AKEAK.—Eiie! lokuído deun, Ene! esaijáfu, lekaide deun, non da nire andera gaztearen yaunu? Nou aa Eiromi?

L. L.—Or lurreean datza, bere negcirrez moz-korturik.

AÑEAK.—Ene! nire cindera geiztctri yazoten yakona berberct yufoten yciko oni... tgin-eginean ari yuzoten yakona!

L. L.—Yasaukidegoaren mingani! egokerearen errukavri!

AÑEAK.—A be o).ant);e dago luzs etzcadt, intsirika ta negarrez, negarre?- eta infzirika,, Zutuntú adi; zulundu cidi; zuíundu adi, ta gizon izan ai'li; Yuletxu'n izenez, agaililt, yagi cidi ta zuumle ago; zejceisik yausi az olango uis sakonera?

ERROMI.—ASeal

AÑEAK.—Ai, yaun, ai, yaun!.., Tínak, zer guztien alzena dok erioizea.

ERROMI.—Yuletxu'ri buruz dcragoífozu, ala? Zelan dago a? Bereagandik apurtxo bat barkarrik urrintzei dan odoiez çure ctcriko *poz* yaioptcria orbandu dodan au ez ote nau ak eraie zartfcit? Non dcgo a? Eta zelon da go? Eta zer diño ixileko nire cmdereak gure arteko maitasun banatuari buruz?

(22) Ikusi amaikagaT'leri erontzuna.



AÑEAK.—Ene! ak ez diño ezer, yann, negr eia negar egin baifo: e< bein bere oecen etzaten da; eta andik laster, ikaratv.rik. Tsbalda'ri dei egiten dautso; eta gero firromi'ri gedar egin, eta, orrazkero. ostera b< etzan egitsn cía.

ERROMI.—Izen ak ÍEirroi'r.ak), su-orfitik bete-betenn 'datorren bola il•eragillecik lez, 70 izan ba'leu lez; izen aren esku griiztetsiak aren senidea eran izan ba'leu lez... Kne! esaidazu, Iekaide, eECñduu, nire soin onen zein tokitan etri dago nire izerva? "saidazu, toki gorrotagctri ori ostu dagidan. (Ezpa-tea ateraten dau).

L. L.—Geldi eutsiok ira esku etsi orri; Gizon ete az? Ire ant'rak bai a,alc yñok g«darez: emakumerenak dczak ire negarrak; iro egipen basatiak pistiren bidebako a&atiea iragarten yoek: antz bako emakume gizon dirudianai irudi íxarreko abere, bien antza izanda! ik a,rrit.s.nk itxi nok: nire anafgo deunarren, nik i gorputz-aldi obekot^at inducm. Tibalda eran dok? Eure burua eran gura dok? Eta igan bízi dan ire anderea be eran gura dok eure buruari gorroto gaizietsiaren egilekoa eginda? Zegaitik ezarlen dautsek i yaiioaren arru zeru-har-.cii? Efa izan be, yaiotzeak, eta zeruak eta turrak, írurak bat egiten ^cek igan; eta ik orí bertatik banatu gurako enchike. Uí, uf! ik lotsatu egiten dok iro antza, ire maiiea, ire adimena, ik, zekencrren cmtzer, edosetan aberats izanik, ez dok ezer erctbili gura, benetan erabili becr litzatekenez, ire antzaren, ire maitasunaren, ire adimenarsn edergarritzat: ire antz zindoa argiz.agi eratu baño ez dok, gizonaren adorotik bcztarrera eginci; ire niáitasm zin egina, zin-auste utsa. ik maitemoite izongo dokalcs ctginduko maitcer eranda; ire adiinena, irudí ta maitasunaren edergallu ori, beste biak t^carto erabiliaz irudigetua, trebetasun bako gudari-aren ontziko sutauisa !ez, ire ez-yaMnsz 3Uak artzen yok eta i eure burua yagoteko janak berak zatiturrik curkitzen az, Tsruk, atzarri tcj yagi adi, gizon! Oraintsu-orainfisu i aren maitasunagáftik ikia engoan Yulebra bizS-rik dok: ox crgo i gizagcrao eerinik: Tibalda l eran-guraka yebilon, baña ik, aurreak artu-

ta, Tibaldet eran enduan; or ba-dok pozbidetik; eriotzeagaz zemaitsen eban legea bera ire adiskide egin clok, ela erbeaterc bidal-tzen au, es eriotzara; or a? i zori ont&u: onespen-mordo dok ire bizkarrean; zori. onak bere yantzirik ederrenaz txerc argi egiten daur,k; bcño; neska txarto ezi ta txibixaren antzera, ík ire zori on eta maitasunari mo-suak ogiten dautsezak: arduraz abil, arduraz abíl, olangoen eriotze errukarri izaten dok-eta. Oa, eldu akio ire maiteari, earabagiici dcigonez, igon adi aren etzangoidi clde emendik eta a nasaita egik: baña, begira, ez adi cjelditu an zañak ire zai Yari arteño, orrazkero Mantoba'ra ezin yoango intzateke-ta,- on biziko az i guk ire ezkontzea adar-oisez iragarri, ire adiskideak ikin leneratu, ncjuasiaren azkespena eskatu ta arakoan ik eginiko negar-intzirien aldean ogei rriilla bider poz andigogcsz iri atzera eaorteko guk deitu a! izan arteño. Aña, 2OCK zu aurretik; emon nire gorantziak zure andera gazteari; eta etxeko guztiak lenbaño-len oera bidaltzeko agindu egiozu, orretarako naibage astunak gertu eukiko dauz-ta: Erromi ba-doa,

AÑEAK.—Ene Yaungoiko! ni egongo nántzan emen gau osoan be burabide onak enluzteko; Ene! yakituriarena! ene yaun, nik zura audera gazteari zu ba-zcstozala esango dautsat.

ERROMI.—Bai, orixe egin, eta esan niri akcrr (agirika) egiteko gertau daitelcs.

AÑEAK.—Rmen, yaun, ak zuri emoteko eíku. ratu daustan elastuna: azkar, iraduz ibili, bercsndu da-ta. (Alde dagi).

ERROMI.—Nire poza bai bizlu dala onegaz!

L. L.—Oa emendik; gau on; emen yagok ir< etorkizun osoa: edo oa urian zañak yari. aurretik, edo eguna urratzean, kokomarrofurik: Mantoba'n yari aidi biziten; neuk idoroko yoat ire gizona, ta ak iragurriko dauk nozik-bein emer, itzako on litzatekean edozein barri: ekak esku ori; belu dok: agur; gau on.

ERROMI.—Neurritz gorako pozek deituko ez ba'leust. atseka.be litzakit zugandik onen arin alde egitea: agur. (Alde dagi).

#### IV AGERIEKU.-KAPUIET'eneko Ebsoki.

KAPULET, KAPULET ANDERA ta PARIS au-rrerc,

KAPULET,—Zerak cker eta zori Becrrez be zo-

ri txarrez yazo dira-ta, ez dogu izan astirik gure alabeari eragiteko: ara! cik bersenite Tibalda maite-maite izan dau, ta balgeuk be; tira, ilteko yaiোক gara. Beran-

du da-ta, a ez da yatsiko arrats onetan: baidinotsu, zugazko egin-beairik izan ez ba'neu, onazkero ordu bat ba-neroañ nik oean.

PARIS.—Lorr-aldiok ez dabe emoten astirik maitasun-arazoetarako... gau on, andera: gorantziak zure alabeari.

KAPULET A.—Emongo dautsadaz, eta biar goxean goiz yakingo dot ak ze gogo dauen; arratseon bere astuntasunak barruan sarturik dau.

KAPULET.—Paris yaun, neuk egingo dodaz iñoniiko aleginak nire alabearen maitasuna zuri eskeintzeko: nire ustsz, a edozetan nire esanera yarriko da: bai, areago, onetan ez dot zalantzarik. Emazte, zoaz agana zu etzan-aurretik; eta esaiozu ari, -entzuan ondo-, datorren eguaztenean... Baña astiro goazen! ze egun dogu gaur?

PARIS.—Astelen yatzu gaur, ene yaun,

KAPULET.—Astelen! A! Ba, eguaztena urre-

gi da, egueanean bedi; esaiozu ari, datorren egueanean ezkunduko dala konde zindo onekin... Geitu egongo ete zara? Gogoko ete yatzu iradu au? Ez dogu izango zarata andirik... adiskide bat edo bi; eta izan be, Ti-balda il-barri idanazkero, guk zarata geiegi ba'darabilgu, ba-leiteke or yendeak esatea gure senide oii gitxitzat etsi dogula: orrezkero, amabiko-erdi adiskide edo izango doguz, eta ori izango da dana be. Baña zer daretxatzu egueña?

PARIS.—Ene yaun, nik gurago neunke egueña biar ba'litz.

KAPULET.—Zoaz, ba: egueanean bedi orrazke. ro... Zoaz zu Yuletxu'gana zu etzan-aurretik, gertau egizu a, emazte, eztegetarako... Aguf, ene yaun... Argi egidazu nire etzan-gorako, tira! Nire aurretik, belu be belu data, goiz dala esan geinke laster... Gau on. (Alde dagie).

## V AGERLEKU.-Igalizugaztia begira dagon I

ERROMI ta YULETXU aurrera.

YULETXU.—Yoan egin guia dozu, ala? Oraindik ez da eguna urr: urretxindorra izan da, ez larratxoria, zure belarriko sakosta bildurtia zulatu dauena; gabero abestuten dau sagargorri-ondo orren ganean: sinetsi egidazu, laztan, urretxindorra izan idala.

ERROMI.—Larratxoria izan da, egunaren aldarrikaria (iragarlea), ez urretxindorra: begira, ene laztan, an aragoko eguzki-aldean odei banatuak alkarri yosten dautsezan zerrrenda bekaiztiak: gabeko argizagiak guztiz erre dira, ta egun poz-darioa beatz-ertzen ganean zutunik dago mendi-gallur lañotsuetan. Yoan eta bizi egin bear dot, ostein, gelditu ta il.

YULETXU.—A ango argia ez da egun-argi, ba-dakit nik, nik bai: a eguzkiak egotziriko beingoko argiren bat yatzu, arrats onetan zure argi-mutil izateko, ta zuri Mantoba'ra bidean argi egiteko: orrazkero, etxon bein, ez dozn yoan-bearririk.

ERROMI.—Itxi egidazu oratu nagien, itxi egidazu eran nagien; ni pozik naz, zuk ori gura izanazkero. An aragoko nabarr-unea goizaren begia ez dala esango dot nik, Kintia' ren bekokiak (23) atzera egotzen dauen argi zurbil-motela baño: ez dot esango gure buruen ganean, an goi-goian, ortze makurra yoten daben txorrotxioak larratxoriarenak dirianik be: nik kezka geiago dot egoteko yoateko guraririk baño... Erdu. eriotza, eta

or idigia YULETXU'ren etzangoaren aurrean.

ondo etorria izan adi. Ori gura yok Yuletxu'k. Zer diñozu, ene bizi? Itz dagigun... ez da oraindik egun.

YULETXU.—Bai, *bmia*. bai, ba-da. Zoaz arin emendik, zoaz, alde egizu! larratxoria da kidetasun barik abestuten dauena, ereski-de-ez latzak, ots zorrotz mingorrek egotzen dauzana, larratxoriak banakuntzea gozatu egiten dauela esaten dabe batzuk; onek ez id'au egiten olangorik, onek gu bananduten gauz-ta; larratxoriak eta kunkun iguingarriak begiak bata besteari emoten dautsoezala diño batzuk; ene! nik orain gurago neunke otsak be alkarrieri emongo ba'leutsoez! ots orrek gure besoak alkarregandik bananduten dauanazkero, eguna eragiaz bat zu emendik uxaturik. Ene! zoaz orain; geroago argiago da.

ERROMI.—Geroago argiago..., geroago baltzago gure lorrak!

AÑEA aurrera.

AÑEAK.—Andera!

YULETXU.—Añea?

AKEAK.—Zure ama anderea zure etzategira dator: egunak urratu dau; zur zagoz, begira. (Alde dagi).

(23) Kmtia dalako au elendarren Artemis eta erromaTren Dine berbera yatzu; Apolon' en crreba eiziaria.

YULETXU.—Orrazkero, leio, sar begi argia ta urten bedi bizia.

ERROMI.—Agur, agur! roosu bat, eta ni bera noa. (Yatsi egiten da.)

YULETXU.—Olan yoan zara? Nire yaun, nire laztan, nire adiskide! nik zure barriak egunoro \a eguneko orduoro izan bear dodaz, minuto baten egun asko dagoz-ta; ene! zenbakuntzea onan eginazkero nik urts asko izango dodaz nire Erromi nik ostera be ikusi orduko!

ERROMI.—Agur! ez dot galduko, eretirik zuri, zuri nire maite orri, nire gorantziak bidaltzeko.

YULETXU.—Ene! egundo geiago alkar ikusiko dogunik uste ete dozu?

ERROMI.—Nik ez dot orren zalantzarik; eta oraingo lor guztiok gure geroko aldian itzaspertu gozoak egiteko bide izango dira.

YULETXU.—Ene Yaungoiko! nik gogo zoritxarigarle dot! zu orain or bean zagozan ori ilobiaren ondo-ondoan ilik dagona lez ikusten zaudazala otuten yat; edo nire begiak lausoturik dodaz, edo zu zurbil zagoz.

ERROMI.—Eta sinistu egidazu, maite, zeu be nire begiori olantxe iruditzen zatxakoz: atsekabe egarperreak gure odola edan egiten dauku. Agur, agur! (Beetik alde dagi.)

YULETXU.—Zori ori, zori ori! guztiak eresten dauskae iri aldakor; i aldakor ba'az, zer egiten dok ik zintzotasunez entzute andiko danagaz? Aldakor izan adi, zori; orraz, kero, nik ditxarodanez, ik a ez dok eukiko an luzaro, atzera bidali baño-ta.

KAPULET ANDEREA.—(Barrutik) Ene, alaba! yagita zauguz?

YULETXU.—Nor dago deiez? Ama anrierea. ala? Onen berandu ez ete dago lotan, ala, onen goiz, yagita ete dago? Ze oi-ezeko zioi ete dakar ona?

KAPULET ANDEREA aurrera.

KAPULET A.—Oster! emen zauguz. Yuleisu!

YULETXU.—Andera, ondoezik nago ni.

KAPULET A.—Beli negarrez zure lengusuaren eriotzeagaitik? Zer? Zure negarren negarrez ilobitik ur-ganean atera gura ete dozu a? Aterako ba'zendu be, ezin biztu izango zenduke; orrazkero, bego: atsekabe areanek maitasuna iragartsn dau; baño atsekabe andiak bururik eza iragarten dau.

YULETXU.—Orraitiño itxi egidazu olango gal-tze gili-eragileagaitik negar egiten.

KAPULET A.—Olan zuk galtzea oartuko do-

zu, baño ez zuk negar egiten dautsazun adiskidea.

YULETXU.—Galtzea onan oartuezkero, nik 62 dot beste biderik adiskideari beti negar egin baño.

KAPULET A.—Tira, neslato, zuk aren eriotzeari baño negar geiago egiten dautsazu, a eran eban erale zitala bizirik egonari,

YULETXU.—Nongo zita', andera?

KAPULET A.—Arako zitala bera, ErTomi.

YULETXU.—Zitala ta a alkarregandik millak (24) urrin egongo al dira, Yaungoikoak azketsiko al dautso ari! nilc neuk biotz-biotzez azkesten Jautsat; eta orraitiño ak beste edozein gizonek baño naibage andiago emoten daust.

KAPULET A.—Orrako ori erale azpiyalea bizirik dalako yatzu,

YULETXU.—Bai, andera, nire eskuok oratu al baño urrinago dagolako. Neuk, ez beste inok ez al dau artuko aren apenik nire lengusuaren eriotzeagaitik!

KAPULET A.—Orrako orren apena artuko dogu, ez izan orren bildurrik: *eia* orrazkero ez egin negarrik geiago. Neuk agindulco dautsat a bizi dan Mantoba uriko urliari, areri laster Tibalda'ri lagun egiten yoanazoko dautsin edari oiez-oieza emoteko, eta orrazkero zu nasai geldituko sareala nik uste.

YULETXU.—Egia esan, ni enaz egundo nasai geldituko Erromi'ri fcuruz, nik a, a ila, ikusi arteño. Orrenbesteraño dago naibageturik nire biotza senideagaitik: Andera, zuk billatu al ba'zendu gizonik eden eroateko, neuk nastuko neunskio cienari zertxobait, a artuezkero Erromi'ri bertatik bare lo eragingo leuskiona. Ene! nik bai min artzen dodala aren izena entzun, eta agana ezin yoanagaitik..., nire lengusu Tibalda'ri neuntsan maitasunaren apena a eran ebanaren soñean nik artzeko!

KAPULET A.—Zuk billatu egizuz fcideak, eta neuk billatuko dot olango gizona. Baña orain barri pozkarriak dodaz zutzako, neskato.

YULETXU.—Eta poza ondo dator onango bearizan gorrian. Zeintzuk dira barriok, arren-bai-arren, andera?

KAPULET A.—Tira, ba, tira, ba, zuk aita arduratsu dozu, neskato; zu zure motel-astu-

(24) Milla luzera neurri-izeina ya'zu. Guk kilornetroka neurtzen doguna IngelCTndarrak millaka neurtzen dabe. Milla bat kilometro bat eta erditsu yatzu.

ntasunetik aterateko, esk oíoz-otoaii poz\*ecru-  
na autu dau, zuk uste eteeniunci, tct nik  
aeuk be ítxaroen enebana,

YULETXU.—Andera, zori oneko aguatorik,  
zein egun da «uoko ovi?

KAPULET A.—Bct, ene rveskatcdatorren eguen  
goxean geiz, Kepa. Peuna'ren yaur-etxean,  
Paris konde lerden, gozte, ta gizazindoak  
On zori onez bero «maxtegei pozez betea  
ogingo *zau'i*.

YULETXU.—Orraitiuo, Kepa Deuna'ren yauro-  
txecrreB eíct ífepa berarren be, *ak* enau  
egingo an emaztegei pozez beterik. Andia  
da a orren iraduz íbiltea; ník ezkondu egin  
bear nire seuar izatekoa niri maitasuna  
eraknsten asi baño be lenago! Arren-bai-a-  
rren, esan egiozu nire yaun eta aitari, ari-  
dera, nik oraindik ez dodala ozkondu çu-  
ra; eta gura dagidanerctko, nik zin egiten  
dot, lenago ezkondu nazala zuk dakizu-  
nez ní gorroto dautsadan Erorm'km, Pa-  
ris'ekin baño: barri argiak izan be onei-  
kek!

KAPULET A.—Emen dator zure aita; orrako  
ori zeuk esan egiozu, ta ikusi orrek zelan  
ortsen dauen zuk esanda.

KAPULET ota AÑEA aurrera.

KAPULET.—Eguzkia sartzen danean, egura-  
tsak íñoniza egiten dau; baña nire anaiea-  
ren semearen eguzki-sarreran euriékina  
da,.. Zer dogu emen! ur-bide, neskato? Zer?  
Oraindik be negarrez? Eten bako euri-ekin?  
Sointxo baten zuk itxas-ontzi, itxaso <a ciKea-  
ren irudia, irurak batera dozuz; eta izan be,  
oraindik zure begiak, -eta ník orreik ílxa-  
sotzat artzen dodaz--, zure begiak negarraren  
negarrez izkorak eta ízperak dabez; ontzia,  
zure soña da, gesal onetan dabilena; axe-  
«k, zure asperenak dira; eta orreik negarra-  
kaz, eta negarrak orreikaz burruka gorrian  
eragota, ezetariko bare-aldi barik, ekatxak  
batera ta bestera egotziko zure soña itzuli  
egingo dabe... Zer dogu, emcizte? Iragarri  
ete dautsazu gure erabagia?

KAPULET A.—Bai, yaun; baña orrek ez dau  
gura, orrek eskerreik emoten dautzuz. Erge-  
lak orren ilobiagaz ezkonduko al dira!

KAPULET.—Etxon! Nikin batera yoizu zuk;  
nikin batera yoizu, emazte. Zer! ez dau  
gura? Ez ete dausku emoten eskarrik? Ez  
ete da arro? Ez ete dau onespentzat, bera  
uts izanda, guk orreri olangó senargei zer-  
garri-zergarria billatu izana?

YULETXU.—Ez ní arro zuk billalu dozulako:

b-añct bcii eskar oneko suk biltlu dozulaksi  
ní ezin izan nendike arro ník gorroto dodo-  
nagaitik; baña eskar oneko bai maitagarri-  
zai eskeintzen dan gorrotoagaitik be,

KAPULET.—Ara, circi! azeria Irako-mGkoka!  
zsr dogu tra? Arro..., ela, eakarrik rsko...,  
eta eskarrik askorik «z; eta orraitino Otro  
ez; emakume kutun, zuk ez amon ní;l es-  
tarrik, ez izan nire arrokizun, baña gertau  
zure ctzur-giltza lirainak datorren eguene-  
rako, Paris'ekin Kepa Dauna'ren yauretxe-  
ra yoateko, osteais neuk eroango *zaudaz*  
*axa* narrean. Alde emendik, muskerraren-  
dun gorpu ori! Alde, zorritsu, utsaren urren-  
go ori!

KAPULET A.— VI. uí! Zer? Zoratu egin yatáu.  
ala?

YULETXU.—Aita on, belaubiko eskatzeu  
dautsut epez entzun egidazu its bat bctfio  
ezpa'da be,

KAPULET.—Eskegi egingo aut, neskato zir-  
tzil ori! esanik egiten ez dokinan zori bñd-  
rreko ori! Au don ik egin bear donanci...  
oa eguenean yaurettxera, ela, ostan, ez  
egidan egundo geiago nire arpegia begi-  
ratu; ez egin itzik, ez emon erantzunik, ez  
esan atzera ezertxorik niri; suak arturik  
naiagon... Emazte, guk ozta-ozta genduan  
gure burua Yaungoikoak onetsitzat alaba  
au bakarrik emon dauskulako: baña orain  
dokuslansz berau be geiegi yaku, ta be-  
rau izatea gutzako añen da: olde emen-  
dik, zirtzil ori!

AÑEAK.—Zerulto Yaungoikoak onetsiko al  
dau! oker zagoz su, ene yaun, cri orren  
gitxitzat etsita.

KAPULET.—Eta zegaitik, ene andera yakl-  
tun? Oba zenduke íxilik egon, zurtasun en;  
zure ganora bako ipuinei cscigoiesu, zociz.

AÑEAK. Nik ez diñot etoikeririlc

KAPULET.--Ene! gau on!

AÑEAK.—Ezin ele dau íñok itzik egin?

KAPULET.—Íxilik, ergel totel ori! Or zu lan-  
goen artsan, txurrit eta txurrit bitartean  
txulxu-putxuka eralgi egizu zure bentcsun  
ori, emen ez dogu orren bearríketa.

KAPULET A.—Beroegi zagoz zu.

KAPULET,—Yaungoikoarren! (25). Orrsk bu-

(25) Nik "Yaungoikoarren" jmini dodan to-  
ki onetain Shafcespeore-k itz gogorrago edo  
zakerragoTik dakar, "Ogi deunairei". Yaun-  
goikoari eskerrak, gure euzkel-bairrutien ez  
dogu olaingo esakera igiingaTririk. Gizona-  
rein lotsabakokeriak ínoz be eleuke loitu

rutik eragiten daust: egunez, gabaz, orduz, aldiz, unez, lanean, oporrean, bakarririk, lagunakin, nire orain arteko ardurea neskato ori ezkontzea izan da, ta orain etxe oneko gizazindo, lurrez ondo orniuu, gazte, ta arduraz ezi, esan oi danez, goi onez egina, biotzek gurako leuken lez eratu gizon nik ekarri ta opatu dautsadanean... orra non dodan ergel negarti zori txaneko, yostallu negar-dindirri, bere zofifaren ontzian, eta eranzluten daustana: "Ni enaz ezkonduko... nik ezin dot maits izan... ni gctzteegi naz... airen-bai-arren azketsi egidazu"... Bañci, ezkondu gura ezpa'dczu, nik azkefisko dautzut: zeuk non-gura yan, nire etxean ez dozu lekuri: begira, oldoztu, ausnar egin orretaz, ni enaz txantxetan ibiltekorik. Eguena ur da; fciotzaren ganean imini zure eskua, eta erabagi; nire ba'zara, nik nire aiiislddeari emongo zautsodaz; ez ba'zara, zoaz ortik zear, eskean ibili, goseak ilik ibili, etxartean il; eta izan be, nire gogoarren, nik etzaudaz izango iñoz niretzat, eta nirek be eztautzu egingo iñoz onik; ez orixe, oldoztu ta ausnar egin, nik ez dot ausiko niie zñik. (Alde dagi).

YULETXU.—Ez ete dago zero urdinean nire naibagearen ondo sakona dakusan errukirik? Ens! ene amatxo laztan, enaçizu egotzi etxetik! Atzeratu egizu ezkontza ori ilebets, astebefe; naiz, ostein, Tibalda datzan ilobi ilunean egizu nire ezkontza-oea.

KAPULET A.—Ez egin niri itzik, nik itzik bai be ez dot egingo-ta; zeuk zer-gura egizu, nik zugazkoa egin dot-eta. (Alde dagi),

YULETXU.—Ene Yaungoiko!... Ene aña! Zelan eragotzi ete leitelce au? Nire senarra ludi onetan da, nif emon itza zeruan; zelan etorriko a itza zerutik atzera lurrera, nire senarrak, bera zerura yoanda, andik a niri ludi onetara bidali ezik? Nasaitu nagizu, emon egijazu burubideren bat Ene! Ens! zeruak asmauko al dau marrobideren bat ni lango lagun bigunarentzat!... Zer diñozu zuk? Ez ete dozu itz poztarriiik, ezetarikoko nasaigarririk, aña?

AIÑEAIC.—Egin-eginean bs emen dozu: Krromi erbesteraturik dozu, ta a ludi onetan izatea utsa da, a iñoz ez da azartuko atzera etoiten zu berea zareaala esateko; eta, etortekotan be, ixilka etorri bearko leuke. Orrazkero, zerak dagozan les dagozanas-kero, nire ustez onena zu kondeakin ezkontzea da. Ene! a gizon yator maitagarri da! aren aldean Erromi ontzi-sorid yatzu; arranok, andera, ez dau Pائي's'ek lango begi musker, bizi ta lirainik. Izurriak eroan begi nire biotza, bigarren ezkontza onetan zori ontsu zareaala uste dot nik, lenengoa baño bikainago da-ta: eta a baño bilcainago ez ba'da, Zure lenengoa ilik da; eio bardin da ilik izatea, ta emen bizi izatea, zu akin ezin egon zaitekezanazkero.

YULETXU.—Benetan eta biotzez ete diñozu ori?

AÑEAK.—Bai eta nire gogoz be bai, ostein, izurriak eroango al dauz biak.

YULETXU.—Amen, Yosul!

AÑEAK.—Zer?

YULETXU.—Ba, zuk itzalez nosaitu nozula. Barrura zoaz; eta esaiozu nire andereari nire aita naibagetu dodalako. ni Laurentzi' ren etzategira yoan nazala nire autorpena egiten, eta azkespenaren billa.

AKEAK.—Ostera! Esango daustat; eta au sentzunez eginda dago. (Alde dagi).

YULETXU.—Atso denganiñoa! Txerrenik gaiztoen ori! Zein da oben andiango, nik olan nire zina ausi gura izatea, ala nire yauna amar milla ta amar milla bidar iñor baño goragoko ta ederragotzat goratu dauen miñ beragaz orain gitxi estea? Zoaz, burubids-emolla; zu ta nire biotza emendik aitzina bi izango dira... Ni lekaideagana noa, aren osapHearen billa; beste edozek uts egin ba'dagist, neuk dot ilteko almen. (Alde dagi).

bear bere adur zikinez edonok eta edozek lotsa; izan bear dautsonik. Oraingo ingelاندarrak ez yake entzu'en olangcrik. Areik be guk artuko iturri beretik artu ete eben ekan-diu askarri ori-

## IV EKITALDI

## I AGERLEKU.—LAURENTZI LEKAIDEA'ren Etzategla.

LAURENTZI LEKAJDEA ta PARIS aurrera.

LAUR L.—Eguenean, yaun? Epe labur yatzu ori.

PARIS'ek.—Olan gura dau nire aita Kapulet'ek; eta ni enozu iñor aren iraduaii geldiroago ibiliazoteko.

LAUR. L.—Zuk andera-geiaren gogoaren barririk ez dozula diñozu; bide ori ez da zuzen, ez yat egiten begiko.

PARIS.—Ak negar geiegi egiten dau Tibalda'ren eriotzeagaitik, eta, orregaitik, maitasunari buruz itz egiteko ereti gitxi izan dot; Benuts'ek negarrarean irribarre gibti egilen dau-ta. Orain, yaun, aren aitak kaltegarritzat dau naibagea neska aren biotza- ren yabeegi egitea: eta, bere zurtasunez, iraduz gertau dau gure ezkontzea, aren negarren uriola geldituazoteko; eta ba-leiteks, besteien lagungoak aitzuazotea beiak bakarrean geiegi odoztuten dauen naibage ori: orain oriako iraduaien zegaitiaren yakitun zauguz.

LAUR. L.—ÍBeie kitean). Guiago neunke zegaitik atzeratu bear donik ez ba'henki... ^Jegira, yaun, emen dator zure andera-geia nire etzangorantza.

YULETXU aunera.

PARIS.—Zori oneko alkai auikitze. ene andera ta emazte!

YULETXU.—Ba-leiteke ori, yaun, ni emazte izan naitenean.

PARIS.—Orrako izcm naitenean ori ba-naz izango da. maite .datorren eguenean.

YULETXU.—Izan bear dauena izango da.

LAUR. L.—Ori arira ekarriko esakune egizko da.

PARIS.—Zuie autorpena aba oni egiten zatoz, ala?

YULETXU.—Orreri erantzutekotan, nire autorpena luri egin bearko neunskizu.

PARIS.—Ez egiozu ukatu orri ni maite nozunik.

YULETXU.—Nik a maite dod'ala autortuko dautzut zuri.

PARIS.—Nik ez dot ezpairik ni be maite nozula autortuko dautsazunarenik.

YULETXU.—Ori autor ba'dagiot, zure atzetik esanda, zure aurrean esanda baño geia-

go izango da.

PARIS.—Gaxo ori, zuie mosua negarrez oso ezainduta dago.

YULETXU.—Onegazko gurenda txikia izaa dabe negarrak; Iendik be ezainik asko zantata.

PARIS.—Zure irain barri orregaz negarrak baño be irain andiangoa egiten dautsazu,

YULETXU.—Egi danik ez da irain baltzik; eta nik esana nire mosuari esan dautsat.

PARIS.—Zure mosua nire da, la zuk irain baltza egotzi dautsazu.

YULETXU.—Ba-leiteke olan izatea, nire ez da-ta... Astirik ete dozu orain, aba deun? Ala, arrastiko mezatarra etorriko naz?

LAUR.— L.—Astirik asko dot orain, alaba larri... Ene yaun, guk oiain bakarrik egiteko arlo dogu.

PARIS.—Yaungoikoak ez al idaust itxiko Esragazko egikizunik eragozteik! Yuletxu, eguen goxean goiz iratzarriko zaudaz: agur orduiarte; eta artu mosu deun au. (Alde dagi).

YULETXU.—Ene! itxi egizu ate ori! eta zult oii eginazkeio, nikin negai egiten zatoz; itxaropenga, osapideka, laguntzaka!

LAUR. L.—Ene! Yuletxu, dagoneko dakit nik zure lorra; berak ni nire burubideen mugatik aterata nauka: nik entzun dodanez, datonen eguenean ezkondu beai dozu konde orrekin, eta ezek egi atzeratu daike ori.

YULETXU.—Ez egidazu esan, lekaide, olangorik entzun dozunik, ori zelan eragotzi daiteken be esan ez ba'dagistazu: zuk, zure yakituriz, ezin ba'nozu legundu, zuk nire eiabagia zurtzat dozu, ta aitzo onegaz bertatik beteko dot. Yaungoikoak batu ebazan nirea ta Erromi'ren biotza, zuk, guie eskuak; zuk ikuiratzez Enomi'ri lotuiko esku au beste egüñeien atz eta ezaugarri izan baño len, naiz, nire biotz zintzoa, etoi-asaldatzez, beste iñoganantza begira yarri baño len, zer onek (aiztoak) biak srango dauz: orrazkero, zure urteak irakatsitik emon egistazu orain burubideren bat; ostein, begira, nire estukura larrien eta ni neur» bitarteko epailearen egitekoa aitzo goráin onek egingo dau; EUie urteak zuri iraka-

Isiak eta zure trebetasunak benetako izen aigi-garbiari dagokion erabagirik ezetara be ezin emonean, bere epaia emonda. Ez egon orren luzaro ixilik; iltetari luze eretxito nagotzu ni, zuk esango dozunak osapiderik ez ekartekotan.

LAUR. L.—Etxon, alaba; Itxarozxoren bat badakust irristutik zear, eta orrek etsipenezko egitea eskatzen dau, guk eragotzi gura dogura bera be etsia dan legetxe. Paris kondeakin ezkondu baño len zeure burua erateko oldarrik ba'dozu, orrazkero ba-leiteke zu gertu egotea lotsari au baztertzeke eriotzearen anlzeke zerbail egiteko, eriotzatik alde egiteko eriotzea bera aña dan zerbait egiteko gertu egotea; eta, zu azartu ba'zadiz, nik osapidea emon egingo dautzut.

YULETXU.—Ene! Paris'ekin ezkondu baño lenago, an aragoko arresi-ganetik buruz bera yausi egiteko agindu egidazu; naiz, lapurren antzera ibilteko; naiz, agindu egidazu sugeak dagozan lekuan kukuka egoteko; burdin-estuntaz estu nagizu orroaka daragoioen artzakaz; naiz, gauoro giltzapean gorputegian sartu nagizu, talantalan egilen daben gizon ilen azurrez, andurra darien zangazurrez, eta masalla bako kasazur bellegiz ganaz dagoan gorputegian; naiz, ilobi egin-barrira yoan eta an gizon ilen gorpu-yantziaren barruan ostonduteko agindu egidazu, ni onango zerak entzuten egonak berak ikaratu egiten izan nau: baña, nik orrako ori egin egingo dot bildurrik naiz ezpaibarik, nire maite maitagarriarentzako emazte garbi-orbanga biziteko.

LAUR. L.—Zurean egon orrazkero; zoaz etxera, txitxari izan, emon zure baietza Paris'ekin ezkontzeko; eguazten da biar; bakarrik etzan zaitetz biar gabaz; zure aña ez daitela etzan zure etzategian: bein oean

zagozala bonbiltxo au artu, ta iruntsi oso-osorik edari lurrun-urtu au: orrazkero, bertbertatik, zure zanak zear zirin otz eta logalea emotekoak bere bidea egingo dau: eta izan be, bioz-taupadctk ez dautso *er-agotziko* berez aurrexa yoaten, taupadok atertuta baño: ez epeltasunek, ez arnasak ez idou iragarriko zu bizi zaneanik; zure ezpan-masalletako larrosak zurbildu egingo dira, errauts-moteldu arte; zure begietako leioak yausi egingo dira, eriotzeak bizi-Izearen eguna isten dauenean legetxe: soin-atal baktotxa, bizi-ur bagaturik, gogor, zurrun eta otz agertuko da eriotzan lez: eta eriotzeari zorrean artuko antz orrstan yarraiko dozu berrogei ta bi orduan, eta orrazkero, lo gozotik lez alzarriko zara. Zure senargeia goxean zu oetik eragiten etorri daitenean, zu an izango zara ilik; orrazkero, -gure errian oi danez-, zure yantziarik onenez yantzita, zerraldo idigian, Kapuletar guztiak datzaen ilobi goi-makurrera eroango zauz. Bitartean, zu noz atzarriko begira, nik nire gutun-bidez, gure asmoen yakitun egingo dot Erromileta a ona etorriko da: eta a ta ni, gu biok, zu noz atzarriko begira egongo gara, ta gau alanlxe zu Erromi'k emendik Mantoba'ra eroango zauz. Eta ak yareiko zauz zu oraingo lotsari onetatik zure burukerien batek, naiz emekume-bildurrek egikizun au egitetik zure adorea kikiHu ez ba'dagi.

YULETXU.—Ekazu, ekazu! Ene! ez egidazu ailalu bildurrik!

LAUR. L.—Autsi, ba; soaz, sendo izan ta zori oneko zure erabagian: iraduz bidaliko dot lekaideren bat Montoba'ra zure yau-narentzako gutunagaz.

YULETXU.—Mailasunak emongo al daust adore! eta adoreak lagunduko nau. Agur, aba maite!

## II AGERLEKU.—K LPULET'eneko Areto.

KAPULET, KAPULET ANDEREA, aña ta OTSEINAK aurrera.

KAPULET.—Emen idatzita dagozan guztiak dei gin gure yairako. Txotxo, oa i ogei sukaldaxi aitu alogerean artzen.

II OTSEINAK.—Ez dozu sukaldar' txarrik izango, yaun; euren atzak miasketan dakien ala ez yakiten alegalak egingo dodaz-ta.

KAPULET.—Zelan yakin daiketik ik olangorik?

II OTSEINAK.—Ba, yaun, sukaldari txar yatzu bere atzak miasketan ez dakiana; eta, orrazkero, nik ez dot ekarriko bere atzak miasketan ez dakianik.

KAPULET.—Oa oa. (II Otseinak alde dagi). Oraingoz txarto orniduta aurkituko gara... Zer? Nire alabea Laurentzi Lekaideagana yoanik da, ala?

ANEAK.—Bai, ara yoanik da.

KAPULET.—Tira ,ba, ba-leiteke ak gure nes. katoari onik egitea: arena ez da besterik, gogaldi setatsu baño.

AÑEAK.—Ara non datorren bera txeratsu, autorpena eginda.

YULETXU aurrera.

KAPULET.—Ara emen gure buru-gogor! Non ibili az aldarrai?

YULETXU.—Zuri ta zure aginduai aurka egin ezko obenen damu ta tamal izaten ikasi dodan lekuan; eta Laurentzi deunak ni emen lurrera yausi ta zuri azkespena eskatzeko agindu daust; azketsi egidazu, arren! Emendik aurrera beti zure esanera yarri ta ibiliko naz.

KAPULET.—Billatu egina kondea; emon egion onen barri; biar goxean lotu eragingo dot lokarri au.

YULETXU.—Laurentzi'ren etzangoan egin dot trikitx yaun gaztearekin; eta nik emon dautsat ari, nire lotsortasunari utsik egiteka, nik emon neinskeon maitasun-agiririk asko.

KAPULET.—Ba, ori pozkarri yat; ondo yagon... zutundu adi... au bear dan lez yagon... Kondea ikusi gura yonat; bai, tira, oa, neuk dirausnat, eta ekarri egin a ona.

Orain, Yaungoikoa bedi lekuko, lekaidis deun begiragarri au, oneri gure erri osoak zor andia yautscn.

YULETXU.—Aña, etorri gura dozu nire txokinora biar nitzako egoki izango diran yantzi ta edergarriak berezten niri laguntzeko?

KAPULET A.—Ez, ez eguenerarte; oraindik astirik asko da.

KAPULET.—Zoaz, aña, zoaz neskato orrekin. Biar yoango gara elelara. (Yuletxu ta Añeak alde dagie).

KAPULET A.—Gure gertakuntzetan labor eta motz geldituko gara; dagoneko larrilarri gau da.

KAPULET.—Ixilik, neuk eragingo dautset baztarrai eta edozer egongo da gertu, emazte, bai oiixe: zoaz zu Yuletxu'gana, lagun zakioz beie burua edertzen; rii enaz etzango gau onetan...; bakairik itxi nagizue; beingo neuk egingo dot etxanderearena. Aia, oii dok ori! guztiak diia etxetik uitsnak: ondo idago, neu yoango naz Paiis kondeanera, a bicrkorako gertatzen: nik nive biotza itzalez argi dot neskato gogalditsu au orren leiatsu eskatzen dabelako. (Alde dagie).

### III AGERLEKTJ.-YULETXU'n Etzango.

YULETXU ta AÑEA aurrera.

YULETXU.—Bai, yantziok dira onenak: baña, aña maitagarri, bakarrik itxi nagizu, arren, gau onetan; eta izan be, nik otoi askoien beana dot zeruari nire egokera onetan irribarre eragiteko, zuk dakizunez, nire egokera au kurutzez eta obenez betea da-ta.

KAPULET ANDEREA aurrera.

KAPULET A.—Zer? Ba-daragoiozu, ala? Ara! gura dozu nik lagun egiterik, ala?

YULETXU.—Ez, andera; berezi doguz biarko gure zererako bearko dirianak: bakarrik itxi nagizu orain, on ba'deretxatzu, ta gau onetan zukin dagola aña; eta izan be, ondo dakit nik zuon eskuak ba-dabela zersginik otoz-oto garbiko aro onetan.

KAPULET A.—Gau on: oa oera, ta atsedean artu; ba-don ik orren bearrik-eta. (Kapulet Andera'k eta Añeak alde fagic).

YULETXU.—Agur! Yaungoikoak daki noz alkar ikusiko dogun urren. Nire ustez, bildur otz iskitxok gili-gili egiten dau nire zanak zear, eta larri-aldi biziaren beroa leitu egiten daust: ni nasaitzeko ostera be etorri daitezcan dei egingo dautset, aña!... £ja-

ña zer egiteko ak emen? Nire egikizun baltz-iluna neuk bakarrik egin bear dot, bear-bearrez. Erdu, bonbiltxo... Eta naste onek uts emongo ba'leu, zer? Orrazkero, ez-kondu egingo ete biar?... Ez, ez; onek eragotziko dau olangorik: atza i or lurrसान...

(Lurrean iminten dau bere sastakaia)

Zer eden au lekaideak zurtasun zurrez ni il-eragiteko emona ba'litz, ni ezkontzaz Erromi'ri lenagotik lotuta, bere izen ona orfandurik gelditu ez daiten? Ni bildur naz olangoxeia ete tian: eta orraitio olangorik ez dala uste dot nik, a ondiño be gizon deun aztertu da-ta: Ni enoa olango uste ta ol-dozen txarrerri lekurik emoten... Zer, riire ilobian yarri nagienean, ni yaregiten Erromi eldu baño len atzarri ba' nadi? Ortxe dago, ba, untzsa! fñere atetara ezetarikogurats osasungarriren izperrik eltzen ez dan nire ilobian ez ete naz ni itoko ara nire Erromi eldu baf.o len? Edo, ni bizi alizatekotan, ez ete eriotzearen eta gabaren bulko ta irudi ikaragarriak, eta bai aurkituko nazan tokiaren itzalak berak be... eta izan be, obi goi-makurrean, ontzi zar-zar-rean, aurkituko naz; an dagoz pilaturik



igaroko gizaldiela il eta obiratu dirian nire aurreko guztien azurrak; an datza Tibalda odoltzalea orainik obiratu-barri, bere il-yantzian, andur iguingarria dariola; an, or diñoenez, gabeko ordu batzuetan ilen mamuak agertzen ei dira...; Ai ene, ai ene! Ni orren goiz atzarriazkero, ez ete... eta or dozuz iñondiko sunda nazkagarriak, eta orrioloak lurretik atera-aldian egiten dabezanen anizeko irrintzek (26), eta aik entzutekoan ilkor biziai burutik eragiten dautsenak; Edo-ta, atzarri ba'nadi, ez ete naz geldituko zer egin eztaqidala, ni bildur askarriok barruan estu arturik naukielarik?

#### IV AGERLEKU.-Ki! 'ULET'eneko Rebarru.

KAPULET ANDEREA ta Añea aurrera.

KAPULET A.—Eutsiz, artu giltzok, eta yaki-gozagarri areago ekarri, aña.

AÑEAK.—Datil (palma-igali) eta gexosagar getagoren eske dagoz gozageigileak.

KAPULET aurrera.

KAPULET.—Tiruk, yaun, igi, igi! Ollarrak bigarrenez egin yok kukurruku, argi-yoaleak yo yok, irurak dozak:.... Begira okela erreak, Gotzone on: ez izan diruaren errukirik.

AÑEAK.—Zoaz, ssintxo ori (27), zoaz, zoaz oera; zu biar gexorik egongo zara arrats onetako atzarriagaitik, bai orixe.

KAPULET.—Ez, ez bein; b;i! lenago be egon izan naz ni atzarrik gau csoan, eta egundo enaz gexotu.

KAPULET A.—Bai, zu zeure bizian sagu-oratzalle, gau-txori izan zara, baña orain orre-gaitik atzarrik egotetik neuk yaqotigo zaudaz (28). (Kapulet A.'k eta Añeak alde dagie).

KAPULET.—Ori be baJdok, ba, zitalkeri! Bai, zitalkeri!... I, mutil,

OTSEINAK aurrera, burrunzi, egur lodi ta olzarakaz.

zer dok or?

I OTSEINAK.^Sukaldariarentzako zerak, yaun; baña zertzuk dirianik ez dakit.

KAPULET.—Zoli zabilte, zoli zabilte. (Otseinak alde dagi). Txolxo, egur igarragoren billa oa i: dei egiok Kepa'ri, ak erakutsiko dausk non dagozan.

II OTSEINAK.—Neuk be bururik asko dot egur-rrak idoroteko, orre-gaitik Kepa'ri nekerik emolen ibilteka. (Alde dagi).

KAPULET.—Kirten orrek esateko ondo be on.

Eta niri burutik eraginia, ni ez ete naz asko nire aurretikoan azurrakaz olgetan? Ez ete dot aterako bere il-yantzitik Tibalda mandaituaren gorpua? Eta asarre bizi onetan, ez ete dodaz aterako nire garaun etsiak nire senide andiren baten azurragaz, adapoz bai'litzan, yota? Ene! Ara! Nik Tibalda'ren mamua ikusi dakustala uste dot, bere soña aren sastakai-mokoan, burrunztian bai'litzan, sartu etan Erromi'ren billa: geldi, Tibalda. geldi! Erromi. ba-noa ni! onako au zure alde edaten dot. (Oean etzaten da).

do esan dok; emagaldu-kume txítxari, ara! I kirten izaugo az! Egun da, bai orixe: gesu baten emen dogu kondea eresi ta guzti, berak olan esan eban-ta: ur dantzut bsra. (Eresi barruan).

Aña!., emazte!... ostera!... eee!... aña, den-ganiñoa!

Aña ostera be aurrera.

Zoaz eta iratzarri egizu Yuletxu; zoaz efa orratzetik arako yarri egizu a; neu yoango naz Paris'ekin itz-aspertu egiten; ekin, ekin bizkor eta zoli; ekin iraduz; dagoneko emen da senargeia; ekin bizkor, arren.

(26) Orrtlcari buiuz Webster'eii iztegiak au diiio: "Mandrake. Europa egoaldeko ta Apirka iparraldekkc] Lizten dan bedarra, arrautza-oa'iTzeko orn ta lora zunzka naiz ubelzka-ciuna, Zusfar luze kaktsu-erroisua dciu, gizakien zern batzuk ei dauz eta erriarein sinis-keiuc berarizko zer batzuk erani.'si dautsoz. Enmkuin-K- landara orren igali edo azirik yan ba'dagi, umea artuko ei dau". Iñok lurretik ciiera ba'dagi, bedar onek negar eta gedai egiten ei dau.

(27) Oñea samur dcgu emen, Kapulet zarrari "seintxo" esateko, Kapulet sein aspaldi izana da-ta.

(28) Sagu-oratzallea katua dogu. Katuak egunez sufñdo ta eguzki-zale izaten dira, baña gabaz zoli fbiltein dira bateiik bestera, a!,m be agi-aldietan, tellatuetan-etct iñcñdiko zciparrada, purrustada ta negar eginda. Emazteak Kapulet'eri ziplade langc zipladea yaurtiten dautso arpegira, gabetako urteera ta ibiltaldiak diriala-ta. Arin ulertu dau Kapulet'ek emazteak zeri egin dautsan zirri, bere erontzunik agiri danez.

## V AGEHLEKU.-YULETXU'n Etzatógia; YULETXU bere oe-ganean.

Añea aurrera.

AÑEAK.—Anderaño!... eee! anderaño!..., Yuletxu!..., lo zorroan, bai orixe; ee! ene kutun ori! ee! anderaño!..., uf! oeari intsigi ori!..., ee! laztan, tirun!... andera! kutun!..., ee! emaztegei!... ee! itzik bez? Orain artzen dozu zuk zure apena; egizu lo astebetean; eta izan be, bai orixe, Paris kondeak datorren gaberako asmotan dauenagaz lo egiteko asli gitxi izango dozu... Yaungoikoak azketsi begist, Ondera Miren, eta amen, orren loaren gogor! Nai-ta-nai-ez iratzarri bearko dot... Ondera, andera, andera!... Bai. kondeak beretzat zure oean bertan ar zagizala; berak ikaratuko zauz, bai orixe... Ez ete?... Ostera! yantzita dago! eta zeure yanziekaz, eta ostera be etzanik! Nai-ta-nai-ez iratzarri bear zaudaz; andera, andera, andera!... Ai ene, ai enetxo!... Lagun, lagun nagizue! nire andarea ilik dago!..., Ene! egunaren zori txarreko, egundo ez al nintzan yaio!... Ekarrri espiritu apur bat, ee!... ene yaun! ene andera!

KAPULET ANDEREA aurrera,

KAPULET A.—Ze zarata dogu or?

AÑEAK.—Egunaren zori txarrako ta negargarri!

KAPULET A.—Zer yazoten da?

AÑEAK.—Begira! Begira! egunaren askarri!

KAPULET A.—Ai ene, ai ene!... nire alabaxo, niie bizi bakar, biztu adi, begira egin, ostein ikin batera ilgo non-tu. Lagun, lagun nagizue! esaien ettorteko.

KAPULET aurrera.

KAPULET.—Lotsa-arren atera egidazue Yuletxu; orren yauna etorri da.

AÑEAK.—Ori ilik dago, ilda, ilik dago; egunaren zori txarreko!

KAPULET A.—Egunaren zori txarreko, au ilik dago, au ilik dago, au ilik dago!

KAPULET.—Ostera! ikus dagidan: yoana da, bai, ene! otzituta dago; onen odola geldidago, ta onen azur-giltzak gogorturik dagoz; bizia ta ezpanok aspaldi banandu dira alkarregandik; eriotzea onegan zelaiko lora guztietarik ederrenaren ganean tertzioz landako leiaren antzera datza. Aldiaren dongetsi! ugure onen zori txarreko!

AÑEAK.—Egunaren negargarri!

KAPULET A.—Aldi onen zori txarreko!

KAPULET.—Negar egiteko, niri nire alabea emendik eroan daustan eriotzeak lotu egiten daust miña, ta ez daust itxiko itzik egiten.

LAURENTZ) LEKAIDEA ta PARIS aurreja, Ereslariekien.

LAUR. L.—Tira, emaztegeia gertu ete dago elexarako?

KAPULET.—Yoateko gertu, baña iñoz geiago ez etorteko: Ene seme! zure eztegu-egunaren aurreko gabaz eriotzea etzan da zure emaztegeiak: or dozu luze bera, lora zana, ak lorrinduta. Eriotzea da nire seme-ordeko, nire suin, eriotzea nire yabegei; a ezkondu da nire alabeakin: nik il egin gura dot, eta ari itxi nire oro; bizi ta bizi-bide, oro eriotzearen.

PARIS.—Ak niri ikuskizun au emoteko egon ete naz ni orren luzaro goiz onen arpegia ikusteko amesetan?

KAPULET A.—Bere itbilaldiko neke iraunkorrean egundo aldik ikusi izan dauen ordurik dongetsu, baltz, zori txarreko, askarri ta errukarien au! Alabatxo bat bakarrik, alaba gaxo, maitagarri bat baño izan ez, zer bat baño ez gura pozkarri ta nasaigarrizat, eta biozbako eriotza gordinak kendu egin daust nire begien aurretik!

AÑEAK.—Dordoarena! egun onen zori txarreko, zori txarreko, zori txarreko! egundoririk egundo nik ikusi izan dodan egunik negargarrien, gorrotagarrien; egunarena, egunarena! egunaren gorrotagarri! egundo ez da ikusi izan onango egun baltzik: egunaren negargarri, egunaren negargarri!

PARIS.—Marro eginik, ezkon-banaturik, iraindurik, ezetsirik, eranik! Eriotza askarri-askarri ori. ik marro eginik, ik ziria sarturik, ik biozbako-biozbako orrek guztiz lurrera itzulirik!... Maite ori, bizieta ori... bizieta ori, maitea ilik baño!

KAPULET.—Ezetsia, naibagetua, gorriak ikusieragina, erana!... Aldi larrigarri ori, zegaitik etorri az orain eraten, gure yaia eraten? Ene alabatxo! ene alabatxo!... ene gogo, ta ez nire alabatxo! Ilik ago, ilik— ai ene! Nire alabutxou ilik da; eta nire ala-

beakin nire pozak be obiraturik díral  
 LAUR. L.—Ixilik, oster! lotsea-arren! Nas-  
 teon osapide ez dira nasteak, Zerua ta zeu  
 i/an zarie kide neskato lirain onegan; orain  
 osorik dau zeruak, eta askozak be oba da  
 neskatoarentzat; aregango zure atalak ezin  
 uldendu eikean a eriotzatik; baña zeruak  
 bere atala an dau betiko bizitzan. Zuk geien  
 billatu izan dozuna, a goroago gorago yar-  
 tea izan da; eta izan be, zure zerua, ak  
 aureia egitea izan da; eta orain, odeiak  
 baño goiago auireratu ta yagi dala, zerua  
 bera aña aurrera ta gora yagi dala iku-  
 sirik, negar egiten dozu? Ene! Maitasun  
 onetan, zuk zure alabea txarto be txarto  
 maite izanda, zu burutik egiteko *zara. a*  
 oiudo dagoala ikusirik; ezkondata luzaro  
 bizi danik ez dago ondo ezkondata; ondoen  
 ezkondata ezkon-barri ilten dana dago. Le-  
 gortu zure negarrak. eta erantsi zure erro-  
 merua (29) gorpu lirain oneri: eta, ekandu  
 danez, eroan elelara bere yantzirik ede-  
 rrenakaz: izamen maitakorrak gu guztioi  
 negarra eskatu ta aginduarren, orraitño,  
 izamenaren negarrak burubidearen barre-  
 garri baño ez dira-ta.

KAPULET.—Guk yairako zuzendu ta gertau  
 doguzan zer guztiak euren elburu ta egiki-  
 zunetik illsta baltzerako bidea artzen da-  
 be: gure ereskinak yoale goibelitunai leku  
 emoten dautse; gure eztegu-oturuntzea ille-  
 ta-bazkari itun egiten da; gure gorapen-  
 abesti arroak illeta-abesti betilunetara al-  
 datzen dira; gure emaztegei-lorak gorpu  
 eortziarentzako dira, ta zer guztiak itzulie-  
 tara yarten dira.

LAUR. L.—Yaun, barrura zoaz zu..., eta zu,  
 andera, zoaz orrekin; zoaz zu be, Paris  
 yaun; gertau daitela baktotxa gorpu lirain  
 oneri ilobira yarraitzeko: zeruak betozko  
 iluna erakusten dautzue gaiztakerien ba-  
 tegaitik: ez egiezue eraginago, euren gura-  
 ri goitarrari aurka eginda.

(KAPULET, KAPULET A., PARIS, eta Lekai-  
 deak alde dagie).

I ERESLARIAK.—Guk sartu geinkez gure txi-  
 libituok euren zorrotan eta alde emendik,  
 bai orixe.

AÑEAK.—Lagun on zindook, bai, zorrotaratu,  
 zorrotaratu; eta izan be, ondo dakizuenez,  
 yazokune au negargarri da. (Alde dagi).

I ERESLARITK.—Bai, benetan, yazokunea  
 adabau daiteke (30).

KEPA aurrera.

KEPA.—Ereslariok, ene! ereslariok, yo egida.  
 zue: "Biotz-nasaigarri, Biotz-nasaigarri":  
 ene! ni biziterik gura ba'dozue, yo egida-  
 zue "Biotz-nasaigarri".

I ERESLARIAK.—Zegaitik "Biotz-nasaigarri"?

KEPA.—Ene! ereslariok, nire biotzak berak.  
 "Nire biotza lorrez beteik dago" yoten  
 daustalako; ene! doñu argi-alaien bat yo  
 egidazue nire nasaigaiitizat.

I ERESLARIAK.—Ez guk doñu alai-aiigiik;  
 orain ez da yoteko aro,

KEPA.—Orrazkero, eztozue gura?

I ERESLARIAK.—Ez.

KEPA.—Neuk yoko dautzuet orrazkero, ela  
 ondo yo be.

I ERESLARIAK.—Zer emongo dauskuk ik?

KEPA.—Ez dirurik beintzat, ez orixe: nik irri  
 egingo dautzuet... nik abeslaria emongo  
 dautzuet

I ERESLARIAK.—Orrazkero, nik iri otseina  
 emongo dauskat.

KEPA.—Orrazkero nik otseinaren sastakaia  
 ezarriko yoat ire kasketaren ganean. Ni  
 "kortxeak" baño bizkoirago ibiliko nok, nik  
 "ene" "la" egingo yoat ikin, zirti-zarta yo-  
 ko aut; aitu daustak?

I ERESLARIAK.—Ik "erre" ta "fa" tulen ba'go-  
 zak. ik amaitu egiten gozak.

II ERESLARIAK.—Aiko, bere lekaratu egik ire  
 sastakai ori, ta ire zipladak atera egizak.

KEPA.—Orrazkero, autsiez nire zipladak!  
 Burdinezko zipladaz eio-eio egingo zaue-  
 daz, eta gero nire sastakaia zorraratu; gi-  
 zonai dagokienaz erantzun:

Erpadun lorrek biotza zauritzen dauenean,  
 Eta doñu ilunak gogoa estututen dauenean,  
 Orduan eresiak bere -zidar-otsez...

zegaitik "zidar-otsez"? Zegaitik "eresiak be-

(29) Ingelcnda'n erromerua oroipei-iragar.  
 garitzat erabilten da-ta, orrazkero, gorpuaren  
 gonean erromeru-adartxoak iminten dabez,  
 emen gelditzen dirianak yoanagaz ez diiia-  
 la aitzu ta aitzuko be ©2 di-riala iragarte-ko.  
 Gamera, erromerua usaingoza da.

(30) Emen Shakespeare "case" itzagaz ol-  
 getari datorku. Itz onek "yazokune" ta "ku-  
 txa", biak escm gura dauz; bulkook, beraz,  
 ingelanderoz zimardikak dira; bulko bi ta itz  
 bat. Añeak yazokuneari buruz daragoio,  
 ereslariak, oster, kuixa edo zerraldoaii bu-  
 ruz. Eta izan be, zerraldoa adabau daiteke,  
 baña yazoa ez.

- re zidar-otsez"? Zer diñok ik, Simon Kata-kume?
- I ERESLARIAK.—Ba, yaun, zidarrak ots gozo dauelako.
- KEPA.—Erreten! erreten!.. zer diñok ik. Anton Txistu?
- II ERESLARIAK.—Nirs ustez, orrako "zidar-otsez" ori, ersslariak otsa diruagaitik ateraten dabelako dok.
- KEPA.—Ori be edsrto esanda ta marratik ur-ur!... Zer diñok ik, Yagoba Txistu-zulo?
- III ERESLARIAK — Aiko, nik etxakiat zer esan.

- KEPA.—Ene! asketsi egidak; I augu abeslts-ria: neuk esango yoat ire ordez. Ereslariak ots egiteagaitik urrerik ez dabelako dok "Eresiak bere zidar-otsez"
- Orduan eresiak bere zidar-otssz  
Iraduz artzen dau apena. (Alda dagi).
- I ERESLARIAK.—A zelango zital atsitu dogun ori!
- II ERESLARIAK.—Eskegik ori, Yon!... Tiruk, gu emen geldituko gozak; etxon emen ille-takoai, eta bazkariaren begira egon. (Alda dagie) (31).

## V EKITALDI

### I AGERLEKU.-Manteba. Etxartebide.

ERROMI aurrera.

ERROMI.—Loaren begi labankeritsua sinisgarri izatekotan, nirs amesak ur dan barri pozkarrien bat iragarten dabe: nire biotza-zen yabeak, nire gogoak, bere bakaulkian yezarrita egonarren, ozta-ozta ukututen dau-tso bakaulkiari: eta egun oso onetan iñon-láiko gogaldik lurra baño gorago eragiten nau oldozpen argiz. Nirs anderea etorri ta ilik idoro nauela ames egin dot... iñondiko ames, gizon ilari oldoztuten izten dautsa-na!... eta nire ezpanetan ezarri daustazan mosuen bidez putz egin daustan biziagaz ni bizitu egin naz, eta, orrazkero, bakal-dun nazala oartu dot. Ai ene! maitasuna-ren gozo, maitasunaren itzal utsa orren poz-karri ta gozo danazkero!

BALTASAR aurrera.

BERONA'tiko barriak!... Ara! Baltasar! Ez ete dakak lekaideagandiko gutunik nitzako? Ze-lan yagok nire anderea? Nire alta onik ete dok? Zelan yabi'k nire Yuletxu? Au bar-ri-en-barri itanduten dauskat: a onik ego-nazkero ezer be etxagok txarto-ta.

BALTASAR.—Ba, a onik dago, ta, orrazkero, ezer ezin egon daiteke txarto; aren gor-pua lotan dago Kapuletarren ilobi-etxe-txoa, eta aren atal il-ezina gotzonakin bi-zi da. Neuk ikusi neban a lurpean bere sen-dikoen zulotxo goi-makurrean etzanazota, ta bertatik artu nsban zalpurdia zuri orra-ko orren barri emoteko: ene! asketsi nik zu-ri orren barri ilunak ekarri izana, onako

zer au nire egitakotzat itxi zeunstanazkero. yaun.

ERROMI.—Ori yoagu? Orrazkero, nik eupa-dea yaurtiten dautzuzt zuoi, izarroi!... Ik ba-dakik ni non bizi nazan: idazkura ta in-gia ekarri egidazak, ta bide-zaldiak ar egi-zak alogorean, gau onetantse alde egingo yoat emendik.

BALTASAR.—Arren-bai-arren, yaun. epe artu: zure arpegia zurbil eta basati agiri da, ta zori txarren bat iragarten dau.

ERROMI.—Ixil! oker ago i: itxi nagik, eta nik esana egik. Ez ete dok nitzako lekaide-a-gandiko gutunik?

BALTASAR.—Ez, ene yaun on.

ERROMI.—Etxok ardura: oa, eta ar egizak alogorean arako zaldiak; or nok gesu ba-ten ikin batera. (Aláe dagi Baltasar'ek)

Tira, ba, Yuletxu, zukin izango ta etzango naz gau onetan. Goazen orretarako eskuar-te-billa: ...Gaitakerj ori, i bai arin sartu gizon etsien oldozpenetan! Euruan dot osa-kaidun bat, eta a emen onen baten bizi da; oraintsu ikusia dot nik a, bedar txikartuen artean, bepurutzarrakaz, osakaiak fcerez-ten; arpegi igarr-igarra eban, zori txar go-rriak azurrak ez, bests ganetikoa yanik agiri zan: eta bere lantegi txi-roan turtube bat agiri zan ageetatik dingilizka, musker-tzar bat barruzkiak aterata, eta arrainik itxusienen beste narru batzuk be an ikusi zengikezan; eta aracan, urrengorik urrsn-go ontzi uts gitxi batzuk, buztinontzi mus-

(31) Ereslari ta Kepa'ren arteko autu au ondo iluna da ta ba'fek ba-daki idazlearen be-netako bulkoak zeintzuk izain zirian.

kerrak (berdeak), puxegak, azi ezo ta zarrrez urdinuak, lotura-lokarri-mutxikinak, eta larrosa-opil zarrak, meatz zabaldua agiri zirian, erakustearren. Aren goseakilarena oarturik, nire kolkorako esan nsban nik: "Gizonek orain edenik bear ba'leu, --eta olangorik saltzea bertatiko eriotza litzateke Mantoba'n--, emen bizi yatzu gizon zirtzil zori txarreko, olangorik salduko leuskiona". Ene! oldozpen orrek nire bearrari aureak artu eutsosan; eta gizon beartsugoseakil onexek saldu bear daust. Oroitzen dodanez, onexek izan bear dau aren etxeak: yaiegun danazkero, lamier onen lantegia atearak itxita dago. Eeup! eee! osakaidun!

OSAKAIDUNA aurrera

OSAKAIDUNAK.—Nor dago deiez zarataka?

ERROMI.—Erdi ona, gizon... Ba-dakust lander zareana; eutsi, or dozuz berrogei duket: ontza-zortziren eden; zanak zear arin zabaldu ta bizi azpurturik dagon edalea ilik yausteko, bere egitekoa beingoan egingo dauen zera; eta sutauts ixituak susodi b'f'durgarriaren sabeletik baxen arin nire soñetik arnaseak alde egin dagian.

OSAKAIDUNAK.—Olango osakai eralerik euki ba-dot euki; baña Mantoba'ko legez erio-

tzea da olangorik aitatu be egin dagfanarentzat.

ERROMI.—Orren billusik, orren goseakilik, eta orren zori txarrez beterik egonda, erio-tzearen bildur ete zara? Zure masalletan gosea agiri da, zure begiak bearrak eta ezak yanda dagoz, ezespene ta eskekotasuna dozuz zure bizkarrean, ludia ez da zure adiskide, ezta ludiko legerik be: ludiak eztautzu emoten zu aberats egiteko legerik; orrazkero, ez izan lander, ausi egizu ta artu au.

OSAKAIDUNAK.—Nire landertasunak baietz diño, nire gurariak. ostera, ezetz.

ERROMI.—Nik zure landertasuna ordaintzen dot. ez zure guraria.

OSAKAIDUNAK.—Imini au zeuk gurako dozun edozein lobeletan, eta zeatz edan; eta ogei gizonen indarrak izatekotan be, bertatik zeartauko zauz.

ERROMI.—Eutsi dirua; gizonen gogoentzako eden okerrago, ludi lotsagarri onetan zuk saltzea galazota dozun nastetxoon aldean eranketa askozaz geiago egiten dau-ta: nik saltzen dautzut edena. zuk utsa saldu daustazu, Agur; yanari erosi egik, ta yantzi egizak ire aragiak... Erdi, biotz-osakai, ez eden, oa nikin Yuletxu'n ilobira; nik an yoat ire bearra-ta. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--LAURENTZI LEKAIDEA'ren Etzangoa.

YON LEKAIDE aurrera.

YON LEK.—Pantzeskatar lekaide deun! anai, ee!

LAURENTZI LEKAIDEA aurrera.

LAUR. L.—Yon lekaidearen itz-ots da au, urrean. Mantoba'tik ondo etorria: zer yiñok Erromi'k?... Edo-ta, aren gogoa idatzita ba' yatak, ekak aren gutuna.

YON L.—Ara! ba-noa ni nire bide-laguntzat etxetik landa gejtoak ikusten zan gure anai-goko anai ortoz-billa, ta nik a idoro ala, ba-datoz uriko azterleak, eta aik, gu biok len gnitz intsigorra izaneko etxean bizi gareanaren susmoa arturik, etxeko atearak ataldetik giltzaz itxi, ateari ikurratza ezarri, ta ez dauskue itxi gura izan andik urtetan; orrazkero, Mantoba'rako nire iradua an gelditu izan da.

LAUR. L.—Orrazkero, nok eroan yok Erromi'ntzako nire gutuna?

YON L.—Ezin bidali izan neban, emen dozua bera; ezin lortu izan neban zuri utzera bidaltzeko geznaririk be; kutsuari aik orrenbesteko bildurra eutsoen.

LAUR. L.—Zoriaren gaizto! nire anaigoarren, gutuna etzoan gozoa be, garrantzi itzalekoa baño; eta ak ebanari yaramonik ez egite-lik oker andia etorri leitekek. Yon lekaide, oa emendik; zuzendu egidak nonbaiten burdin-agaen bat, ta ekarririk len-baño-len nire etzangora.

YON L.—Anai, yoan eta ekarririk dautzut. (AHe dagi).

LAUR. L.—Orain neuk bakarrik yoan bear dot ilobi-etxetxora; iru orduon barruan atzarriko da Yuletxu; ak niri baltzak eta gorriak egotziko daustaz arpegira Erromi'k yazokuneon barririk izan ez daelako; baña nik ostera be idatzi egingo dot Mantoba'ra, ta Erromi etorri arte Yuletxu neuxe etzangoan euki; gorpuz biziaren gaxo, gizon ilaren ilobian sartuta! (Alde dagi).

## III AGERLEKU.-Ilobilegi; bertan KAPULETARREN ilobi-etxetxo.

PARIS eta bere Gezna-mutila, lorak eta zuzia dakarrezala, aurrera.

PARIS.—Ekak ire zuzi ori, mutil: oa emendik, eta an argoan ago; orraitino, itzali egik, inok ikusi nagianik ez yoat gura-ta. Etzan adi luze an aragoko aginaren azpian, ire belarria lur arroari deutsola dokala; olan oinek ez yok zapalduko ilobitegi-ko lurrik, -ilobiak egiteko atxurtuta apitz, arro ta garanduta yagok-eta-, ik entzuteka: oin-otsik entzun ba'dagik, txistu egidak, zerbait urreratzen oartu dokanaren iragargarrizat. Ekazak lorok. Nik esanaren arauz egik, oa.

GEZNA-MUTILAK.—(Beretzako) Larri-larri ilobitegi onetan bakarrik egoten bildur naz; orraitino be ikusi egingo dot. (Alde dagi).

PARIS.—Lora gozo, nik lorok zure ezkon-oean zabaltzen dodaz- ene! ezbearrarena! zure buru-ganaren edergarri autsa ta arriak dira! eta nik gabero ezarriko dautzur ur gozoko inontza: edo, ori ezean, intzirika ixuriko dodazan negar-tantak: nik zutzako izango dodazan esku-erakutsiak, gabero zure ilobian zabaldu ta negar egiteko izango dira. (Gezna-mutilak txistu dagi).

Zerbait edo norbait ba-datorrela iragarten daust mutilak. Ze oin gaiztetsi ete dabil aldarrai emen gau onetan, nire esku-erakutsiai ta maitasun zintzoaren egikizunai bidea ebateko? Ostera! zuzigaz!... ostondu nagizu, gau, apur baten. (Alde dagi),

ERROMI ta BALTASAR aurrera, zuzi, landara-atxur, eta abarregaz.

ERROMI.—Ekazak landara-atxur ori ta burdin-nezko biurriki-giltzea. Auto, ar egik gutun au; goxean goiz nire yaun eta aitari emon egio. Ekak argia: eure biziarren, edozer ikusi naiz entzungo, ago i emendik alde, ta ez adi nire egitekotan sartu. Nire emaztearen mosua ikustearren be ba-noa ni orra bera, eriotzearen oe orretara, baña geien bere atz iletik elastun ederra, nire zeregin garrantzi andikoan erabili bear dodan elastun ederra kentzearren: oa, orrazkero, emendik:... baña i, zitolkeriak eraginda, nik ge-roago egiteko asmo dodana ikustearren, atzera etorri ba'adi, Yaungoikoarren, txatalka txiki-txiki egingo aut, eta ilobitegi gose au ire soin-txatalez estaliko yoal: aldia ta nire asmoak basati-gordinak dozak;

katamotz goseakilak naiz itxaso orroatio baño asarra-itzalagoak.

BALTASAR.—Ni ba-noa, yaun, eta enatxatzu izango eragozpiderik.

ERROMI.—Olon erakutsiko dok nire adiskide azana.-Autso cu: bizi adi ta zori ontsu izango al az: eta agur, lagun on.

BALTASAR.—Guzti au gora-bera, ni emen onen baten ostonduko naz: orren mosuari bildur dautsat eta ez dakit asmo onik dauenik. (Alde dagi).

ERROMI.—Lurreko agokadarik gozoena soloberaz iruntsi dokan urdail askarri ori, eriotzearen sabel ori, onan beartuten aut nik ire masail-azurrak idigiten (ilobi-etxetxoko atean indarrez idigiagiz). eta, yaki geiagogaz ik artu-alean beteten aut, iri irri egiteko!

PARIS.—Au da arako Montagutar arro erbesteratua, nire maitearen lengusua eran ebana, -eta, uste danez, ortiko naibageak eran eban a izaki liraina-, eta emen dator a arein gorpuai iitalkeri lotsagarriren bat egiten: nik eskuak ezarriko dautsadaz. !Aurrera doa)... Montagu zirtzil ori, ez egioekin ire egiteko zantar orri! Apena eriotzea baño arago eroatekoa ete dok? Zital donga ori, nik eskuak ezarten dauskadaz: men egik, amore egik, eta ator nikin: ik il egin bear dok-eta.

ERROMI.—Bai izan be: eta orrexegaitik eta orretarakoxe etorri nok ona... Gazte on maitegarri, ez egik zirikatu gizon etsirik; iges egik emendik tximisteak baño arinago ta itxi nagik: gogoratu egizak yoan dirianok; eurok sartuko al dauske bildurra... Arrenbai-arren, gazte, ni asarratu eraginez ez egio erantsi beste obenik nire buruari: ene! oa, oa! Yaungoikoarren, nik i neure burua baño maiteago aut; ni ona nire buruaren aurka etorri nok iskillo ta guzti-ta: ez egik yarra emen, oakit; bizi adi, ta aurrerantzean gizon zoruaren errukiak agindu euskala igesteko esan egik.

PARIS.—Nik ire zinkidetzai eupada egiten yauteset, eta emen nire eskuak ezarten dauskazat, etoitzat,

ERROMI.—Zirikatu egin gura nok, ala? Orrazkero, auto, mutil. (Burruka daragoioe).

GEZNA-MUTILAK.—Ene Yaungoiko! burruka daragoioe! zaintzakoi dei egiten noa.

PARIS.—Ene! ertan nau! (Yausi egiten da)... Errukioren ba'az, iidigi egik ilobia, ta Yuletxu'kin eratzan nagik. (II egiten da).

ERROMI.—Orixe eginge yoat egin b@... Arakatu dagidan ttrpegi EU:... Merkutu'n senide, Paris konde zindoa! Zer esan eustan nire gizonak, bidean zalpurdian gentoazala nire gogo artegeak yaramonik egin ez outsoanean? Nire ustez, Paris Yuletxu'kin ezkontzeko zala esan eustan ak: ez ete eban esan ak ori? Ala nik ames egin dot? Ala ni burutik eginda nago. ari Yuletxu'ri buruz itz egiten entzuteko, ta olan izan dala uste izateko?... ñe! ekak esku ori, i be nikin batera zori txarraren idazti mingotsean idutzita ago-ta! Nik i ilobi txairo-arroan eortziko aut... ilobin? Bai zera! argi-argitan, gazte eran ori; eta izan be, Yuletxu datza emen, eta aren edertasunak ilobi goi-makur au errege-bazkaltegi argiz betea egiten dau. Eriotza, atza or i, gizon bizik eortzita (PARIS ilobian iminiatz).

Sorri-sarritan egon izan dira gizonak alaitxitxari il-aginik dagozalarik! ta euren yagolak orreri eriotza-aurretiko argialdi eretxi dautsoe: ene! zelan deitu nik orreri argialdi?... Ene laztan, ene emazte! Zure arnasearen eztia edoski dautzun eriotzeak ez dau izan indarrik zure edertasunagazko: zu etzauz benderatu; edertasunaren ezaugarria (ikurrina) oraindik gorri dago zure epanetan eta zure masalletan, eta eriotzearen ikurrin zurbila ez da eldu eurretaraño... Tizalda. or atza i ire izara odótsuan? Ze esku-erakutsi oberik egin ete daíkeskat nik, ire gaztetasuna erdibitu eban esku berberagaz ire arerio zanarena erdibitu baño? Asketsi egidak, lengusu!... Enel Yuletxu laztan, zegaitik zara zu orren eder? Mami bako erlotza maitakor dala; eta mamu askarri-argal onek emen ilunbetan bere kutuntzat zaukazala sinetsiko ete dot? Orren bildurrez nik oraindik zukin yarrai gura dot, eta egundo geiago ez alde egin gau ilunaren yauregi onetatik: emen, emen geldituko naz zure etzango-neskame dirian eltxarrokaz; ene! emen yarriko dot nik nire betiko atsedena: eta izar zitelen buztarria astindu ta iñarrotsi aragi ludiz aspertu onetik... Ene begiok, begira ta so zuon azkenengoz! Besook, estutu zuon artean azkenengoz! eta, ezpanok, arnasearen atek, ezarri mosu zuzenez zuon ikurratza eriotzeak idazten daragoion egun bako eguineari! Erdu, bidari latz, erdu, bide-erakusla garratz-mingots! Ontzi-zuzendari etsi ori, itxas-larriz etsita dagon ire ontzi ori eroan egik orain arin birriraiuko daben etxetara! Nire laztanaren alde! (Edan egiten dau

edena)... Osakaidunaren zintzol bizkorrak dozuk ire osakaiak... Onan, mosu but emonaz, geiagoko barik. ilten naz (II egiten da).

Ilobitegiaren beste aldetik aurrera, LAUREN TZI LEKAIDEA, argi, biurrikigiltza ta atxurragaz.

LAUR. L.—Pantzeska Deunak zori on ekarriko al daust! gau onetan amaika bidar oztopo egin dabe nire oin zarrak ilobietan!.. Nor da or? Nor da onen belu ilei lagun egiten dautsena?

BALTASAR.—Emen bata au zure adiskide dozu, eta bestea zuk ondo ezagun dozuna.

LAUR. L.—Zori oneko al zarie! Esaidak, adiskide on, ze argi dok an aragoan eltxarrai eta kaeskazur begigeai alperrik argi egiten dautsena? Nik berezi idaikedanez, ak Kapuletarren ilobi-etxetxoan yaragoiok erretsn.

BALTASAR.—Bai, olantxe da, lekaide deun; eta an da zuk maite dozun nire ugazaba.

LAUR. L.—Nor dok bera?

BALTASAR.—Erromi.

LAUR. L.—Luzarotik ete dok or?

BALTASAR.—Ordu-erdiazkero.

LAUR. L.—Ator nikin ilobi goi-makurrera.

BALTASAR.—Ni enaz azartzen, yaun: nire ugazabak ni emendik alde egintzat nau; eta eriotzeaz zemaitu nau ni emen bere asmoak ikusteko geratzekotan.

LAUR. L.—Emen ago, orrazkero: bakarrik yoango nok:... bildurrak yoten nau; ene! bildur be bildur naz zori txarreko bear ez danen bat yazo ete dan.

BALTASAR.—Agin onen azpian emen lo nagoa, nik ames egin dot nire ugazabak besteren bategaz burruka eragoiola, ta nire ugazabak a eran egin ebal.

LAUR. L.—Erromi! (Aurrera 'doa). Ai ene, ai ene! ze odol dogu ilobi onetako arrizko sarrerea orbanduten dauen au?... Zer esan gura dabe gentzategi onetan euren margoa galduta, ugazaba barik eta odoloz gorriturik, dagozan ezpatok? (Ilobi-etxetxora sartzen da) Erromi! ene! zurbil dago!... Nor besterik? Ostera! Paris be bai? Eta odoletan ase-ase eginik?.. Yazokune negargarri onen arrudun dan orduaren arerio!.. andreak zirkin egiten dau. (YULETXU atzarri ta igi egiten da).

YULETXU.—Lekaide orren nasaigarri! Non da nire yauna? Ondo oroitzen dot non egon bear dodan, eta an nago egon be: non da nire Erromi? (Barruan ots).

LAUR. L.—Otsen bat dantzut or... Andera, urten zaitetz eriotza, kutsu, ta berezko ez, besterako lo orren abitik: guk ezin eragotzi ta gurea baño andiago dan almenek okerreko bidea arrazo dautse gure asmoai: erdu, urten, urten eta alde ortik: zure biotzeko senarra or datza luze ilik; eta Paris be bai: eriu, zu lekaime deunen lekaimegosn baten sartuko zaudaz; ez galdu astirik itaunka, gau-zaina badator-ta; tira, goazen, Yuletxu on (Ots barruan)... ni enaz ezartzen emen luzarogo egoten.

YULETXU.—Zoaz ,zoaz zu emendik, nik ez dot yoan gura-ta (LAUR. L.'k alde dagi). Zer dogu emen? Edontzitxo, nire maite zindoaren eskuak deutoela? Edena, bai, edena izan da aren bertatiko atzena: senar ori! zeatz edan, eta tantan adiskidetxo bal be ez daustazu HKÍ niri gero laguntzeko? zure ezpanai mun egingo dautset; zori onez, oraindik aden-iskiren bat or dago dingilizka, niri osapidez il eragiteko. (Mun egiten dautso).

Epel dagoz zure ezpanak.

I ZAINAK.—(Barruan). Zuzendari izan akigu, mutil: ze bide artuko?

YULETXU.—Izan be, ots?... Orrazkero, egitekoa laster egingo dot... Sastakai orren zoti ontsu! (ERROMI'n sastakaia oratzen dau). Au dok ire lekea (sastakaia sartzen dauts bere buruari); ago or, eta itxi egidak ilten. (ERROMI'n gorpu-ganera yausita, il egiten da).

Zaina aurrera, Paris'en Gezna-mutilakin.

GEZNA-MUTILAK.—Au da arako lekua; goazen ara. zuziak argi egiten dausn lekura.

I ZAINAK.—Odolduta yagok lurra, arakatu egik ilobitegia: zoaze, zuatoriko batzuk, eta oratu ifior idoro ba'dagizus. (Zaintzako batzuk alde dagie).

Ikuskizunaren negargarri! emen datza kondea eranda; eta Yuletxu odola dariola; epel eta il-barii, emsn egun biotan eortzita egon dana... Zoaze, esan nagusiari... yoan arin Kapuletarrenera... egaz egin Montagutarrenera..., beste batzuk, baztarrok arakatzen urten: (Zaintzako beste batzuk alde dagis).

Guk ba-dakusgu zori txarrekoak datzaen lurra; baña ezbearron benetakako lur, oñarri ta zegaitirik ezin ikusi daikegu zeaztasun eta garbitasun argiako barik.

Zaintzako beste batzuk aurrera, LAURENTZI LEKAIDEA dakarrelarik.

III ZAINAK.—Emen dakargu ikaraz, intzirika ta negarrez daragoion lekaide: i'obitegiko alderdi onetatik datorrela, landara-atxur au eta atxur au kendu dautsaguz.

I ZAINAK.—Susmo larria; lekaidea be emen gelditu idaitela.

NAGUSIA ta Yarraigokoak aurrera.

NAGUSIAK.—Ze zori Ixai yazo da onen goiz gu goxeko gure atsedenetik dsitzsko?

KAPULET, KAPULET ANDEREA, ta beste batzuk aurrera.

KAPULET.—Zer izan ete dateke, or landan orrenbeste garrazi danazkero?

KAPULET A.—Yenteak etxatteenan Erromi gedarrez daragoio, beste batzuk Yuletxu, ta beste batzuk Paris; eta guztiak doaz arinka, zarata baten gure ilobirantza.

NAGURIAK.—Ze bildur da gure belarriak ikarutzen dauzana?

I ZAINAK.—Agintari nagusien ori, emen datza Paris kondea eranda; eta Erromi ilik; eta Yuletxu, lendik ilik zana, epsl eta ilbarri.

NAGUSIAK.—Arakatu, billatu, ta argitaratu zelan yazo dan triskantza askarri au.

I ZAINAK.—Emen dogu lekaide bat, ta bai Erromi eranaren gizona be, gizon ilon ilobiak idigiteko langallu egokiak alJean dabezala.

KAPULET.—Zeru ori!... Ene! Emazte, begira zelan darion odola gure alabeari! sastakai onek okerreko bidea artu dau..., eta izan be, begira, orren lekea utsik dago Montagu'ren bizkarrean..., eta okerreko zorroan dago nire alabearen biotzsan!

KAPULET A.—Ai ene! Eriotza-irudi au nire zartzaroari ilobirako dei egiten dausn yoale da.

MONTAGU ta beste batzuk aurrea.

NAGUSIAK.—Ator, Montagu; i goiz yagi az, ire seme ta yabegeia goizago yausita ikustsko-ta.

MONTAGU.—Ai ene! ene yaun, gau onetan il da nire emaztea, nire smearen erbestsra-tzearen minak gelditu eragin dauiso arnasea: ze beste lor eta elorrio da asmakie nire urteen aurka?

NAGUSIAK.—Begira, ta euk ikusiko dok.

MONTAGU.—Ezi bako ori! Ze legek, ze ekan-duk eroan au orren arin ilobira, ire aitaren aurretik?

NAGUSIAK.—Itxi egik apur baten ire ago



irainez betea, arazo au guk argitu arte, eta bere iturri, bere iturburu ta bere benetako sortzea ikusi arte; eta orduan neu izango nok zuon zori txarrik andiena, ta. bear ba' da, eriotzea be ezarriko dautzus! bien bitartean epe artu, ta epearen bendeko bedi zori txarra... Ekarri aurrera aldea bietako susmodunak.

LAUR. L.—Nsu nozu andiena, ta gitxien daikena, baña orraitño be ausmorik gsiengarriena, erate ikaragarri oneitan bai *alñia* ts bai tokia nire aurka dodazanazkero; ta emen nozu ni nire burua salatu ta zurilzeko, nire burua gaitzetsi ta zuritzeko.

NAGUSIAK.—Orrazkero, bertatik esan egizu arazo onetaz dakizuna.

LAUR. L.—labur esango dot, itzaldi aspergarria bestean luze nire urteak be ez dira-ta. Or ilik dagon Erromi Yuletsu orren senar zan; eta or ilik dagon no ori, Erromi'ren emazte zintzo; neuk ezkondu nebazan; eta euren ixileko ezkontza-eguna izan zan Tibalda'ren ezkenengo eguna, ta aren aldiz-aurretiko eriotzeak erbesterratu eban uri onetatik senar egin-barria; eta agaitik, eta ez Tibalda'gaitik, eragoion negar eta negar Yu'etxu'k. Zuok, a naibagearen menpetik yareitearren, Paris kondeari agindu zeuntsoen, eta nai-ta-nai-ez arekin ezkondu gura izan zenduen... estualdi atan, a nigana dator, eta begirakune larri-basatiakaz, bera bigarren ezkontzatik yareiteko bideren bat asmatzeko eskatzen daust, ostein nire etzangoan bertan bere burua erango daue-la-ta. Oriuan nik, nire trebetasuna burubide dodala, lo arrazotsko edari emon dautsat; nire asmoa zar.ez, edendun edari orrek bere egitekoa egin eban; izan be, ari eriotza-antza emon eutson-ta: bitartean nik Erromi'ri idatzi reunfsan gau itzal onetan ona etorteko, Yuletxu zorroan artuko iloi onetatik ateraten laguntzeko, edariaren indarra amaitzeko tertzioa gau onetan zalata. Baña nire gutunna eroateko zana, Yon lekaidea, alan-bearrez emen geldituazo eban; eta bart (gau onetako gau-lendian) etorri da nire gutuna atzera. Orduan ni, bakar-bakarrik, aurrezdik izentauko orduz, no ori atzarriko zan aldi-aláian etorri naz No ori bere senidearen ilobi gan-makurretik aterateko asmoz; nire asmoa no ori, egoki denez, Erromi yakitun imini arte, nire etzangoan eukitea zalarik: baña ni eldu nazaneko, -a atzarri baño minutoen bal lenago-, emen izan dira aldiz-aurretik etzanik Paris zindoa ta Erromi zintzoa, biak ilik. R atzar-

ten da; ta nik ortik urteteko eskatu ta agindu dautsat, eta zeruaren egiteko au epez artzeko; baña orretan, landatiko otsak ikarratu ta ilobitrik atera nau; eta ak, etsiegi egon-ta, eztau etorri gura izan nikin, bai ostera, agiri denez, bere buruari oker egin. Au da nik dakidan guztia; eta aren ezkontzeari buruz, aren añea da lekuko ixil: *elci* onetan nik okerrik egin izan ba'dot, agure zar au, bere aldia baño orduren bat lenago, opatu egiozue legerik gogorrenaren gordintasunari.

NAGUSIAK.—Zu oraináik be gizon deuntzat zauguz guk... Non da Erromi'n gizona? Zer esan ete leiskigu ak arazo onetaz?

BALTASAR.—Neuk eroan neuntsozan nire ugazabari Yuletxu'n eriotzeagazko barriak; eta, orrazkero, a Mantoba'tik toki onetara-xe, ilobí onetaraxe etorri zan zalpurdiz. Gutun au bere aitari gaur goiz emoteko agindu daust; eta bera ilobi goi-makurrera doalarik, nik andik alde ez egitekotan eriotzeaz zemaite mau-ta, nik an itxi dot a.

NAGUSIAK.—Ekak gutun ori..., ikusi egin gura yoat... Non da ertzainak eragi dauzan kondearen gezna-mutila? txotxo, zer egin yok ire ugazabak toki onetan?

GEZNA-MUTILAK.—A bere anderearen ilobian zabaltzeko lorakaz etorri da; ta niri andik alde egiteko agindu daust, eta nik orixe egin dot; andik laster, norbait argi-agaz etorri da ilobia idigiten; eta nire ugazaba, ezpatea aterata, bertatik yoan yako ari ganera, eta orrazkero nik iges egin dot zainai dei egiteko.

NAGUSIAK.—Gutun onek, lekaidearen itzak, gazteon arteko maitasunaren gora-berak, eta anderearen eriotza-barria egiztau egiten dauz; eta emen idazten dauenez, osakaidun landerri edena erosi, ta agaz etorri zan ilobi onetara iltsn eta Yuletxu'kin etzaten... Non dira areriook?... Kapulet..., Montagu... ikusi zuon gorroto ta ariarik ekarri dautzuen zigorra; zeruak idoro dau biderik zuon pozak maitasunez erateko! eta nik neuk be, zuon arteko asarreagazko bigunegi izanagaitik seniáe bi galdu dodaz: guztiok artu dogu bakotxak bere zigorra. KAPULET.—Montagu anai ori! ekak ire eskua: au dok nire alabearen bizialdi-ondasuna (32), geiagorik ezin eskatu daiket-eta.

(32) Bizialdi-ondasun. Senarra ilten danean, emazte alargunak se'narrereri ondasunak dakarrana, naiz lurrena, naiz etxeana,

MONTAGU.—Nik, orraiUño, emon daikeskat ori baño geiagorik: eta izan be, nik ire alabeari urre utsezko irudi eragiko yautsat: Berona Berona dan artean Yuletxu zindo-zintoarena baño gaiago dan irudirik izan ea daiten.

KAPULET.—Oren aberats etzango dok Erromi bere anderearen aldamenen: gure ariaren opari gaxoak!

NAGUSIAK.—Goiz onek beragaz gentza betozkotsua dakarsku: eguzkiak, naibagearen

naibagez, ez dau erakutsiko bere bururik; alde egizue emendik, barri goibelo buruz luzarago eragoteko; batzui asketsi egingo yakie, ta beste batzuk zigortau egingo doguz: eta izan be, egundo ez da izan Yuletxu ta Erromi'n au baño yazokune negargarriagorik. (Alde dagie).

bera bizi don artean berea izaten dau, ondasunak eurak bereak izam ezarren. Olango ondasunai deretxegu bizialdi-ondasun.

Salta'n 1958'garren urteko Pagoniloren 20'garreneon.

## STZ ZAR GITXI EZAGUN ITA ITZ BARI BATZUK

- AIZEGIN.—Bero danean arpegiari *axea* emoteko erabilten dan esku-lanabasa, Orain orretarako ta soin osoari *axea* emoteko tximist-indaxrez eragiten yaken lanabesak be aizeginak dira izan,
- ALOSO.—Ez asko ez gitxi. Arratia'ko itza.
- APEN.—Irainaren orde; "bengatze".
- ARERIA.—Areriofasuna. Oñati'ko ilza.
- ATZ.—Zerbaitek izten dauen ezaugarri. *Oin-als*, azatz (azi-atz) eta abar.
- ASKETSI.—Euzkel-gaiztoz "parkatu".
- ASKETS.—Euzkel-gaiztoz "parkamen".
- ASTAKIN.—Zerbaiten aztuntasuna yakiteko erabilten dan lanabasa. Euzkel-gaiztoz "pixuak".
- ASTATU.—Zerbaiten aztuntasuna zenbat dan neurtu aztakin edo pixuakaz.
- BONBIL.—Ura, ardaoa, naiz beste lobelen bat eukiteko ta geien baten leiarreskoa izaten dan ontzia. Euzkal-geiztoz "botilla".
- BULKO.—"Buruko" itzetik sortua da. ta buruan dogun zerbaiten irudi da.
- BAKALDUN.—Errege.
- BAKAULKI.—Errege-aulki edo yarleku.
- BURUNTZA.—Bakaldunak-eta buruan erabilten daben ezaugarri borobila. "Koroe".
- DAMU-AUSI.—Txakuriaren negarra.
- EDEN.—Euzkel-gaiztoz "bereno", "pozoi", "silikilitu".
- ELTXAR.—(Eltxo-ar). Aragi usteleko arrak dira eltxarrak. Bai, andera, okela argia ekarri dauskuzu; au eltxarrak eginda dago. Ba, ez egoan oberik, eta auxe ekarri bear izan dot. Arratia'ko itza, gitxienez. Oñli aldeko be bai.
- ENTZIN.—Norbaiten zintzotasunagan uste osoa izan. Euzkel-gaiztoz, "konpiau".
- EMAGIN.—Sein egiteko aldi larrian aurkitzen dan emakurae laguntzen dauen emakumea.
- EORTZI.—Gorpuari lurra emon: gorpua lurperatu.
- ERAN.—II eragin.
- ERALE.—Ileragile.
- ERSKAI.—Zerbait ertsi, estu edo Isteko lanabasa.
- ESPETXE.—Gaizkinak (zori txarrez, sarriegi bai gizon zindoak be) barruan eukiteko etxe.
- ETOL.—Azpiyale; emoneko itza yaten dauena.
- ETOIKERI.—Etoiak, etoi danez, egina.
- EGURATS.—Gure inguruan edo baranoan dogun aide ikus-ezina. Eguratsa ibili dabilenean axe dala esaten dogu.
- GELTZO.—Ilaun.
- GAIZTETSI.—Gaiztotzat etsi. Euzkel-gaizloz, "kondenau".
- GEZI.—Makoz yaurtiteko, burdinezko naiz beste gaiezko moko zorrotza dauen makilatxo. Beñola gudateetan eurrez erabilten ziran geziak.
- GENTZA.—Bare egotea. Euskel-gaiztoz, "bake", naiz "pake".
- GEXOSAGAR.—Arratia'ko itza, beste toki askotan irasagar deretxona.
- GOTZON.—Angeru.
- GURENDA.—Burrueka naiz norgeiagoketea irabaztea.
- GURTU.—Yauretsi. Yaungoikoari gure bendekotasuna iragarri.
- GURTZE.—Yaungoikoari gure bendekotasuna iragartze.
- IKURRATZ.—Ikur edo "Silluak" izten dauen bere antz edo irudia. Baita antza izten dauen zera bera be.
- IDAZKUR.—Idazteko ura. Euzkel-gaiztoz, "tinta".
- IKURDI.—Beñola gudariak, soña yagoteko, ezkerreko eskuan erabilten eben zer birila.
- INGI.—Idazteko erabilten dan arizko naiz beate geiezko izaratxo. Euzkel-gaiztoz, "papel", naiz "paper".
- ÍRATXO.—Ludi onetako ez, besteko soin bako izaki, ez baña gotzonetariko be, almen arrigarriakaz. "Anboto'ko Andera", esaterako, orreitariko da.
- IZKILLO-YANTZL.—Gudan soña yagoteko erabilten eben kozkol edo yantzi zula-gaitza.
- IZKORA, IZPERA.—Itzok itxas-ertzeko lagunak ezagun dabsz. Itxasoko urak izpazterrerantza datozanean izkora da; barrurantz doazenean, izpera.
- KURTZOIN.—Zerbait iñok ikusi ez dagian, zerbait orren aurrean iminten dan estalgi.
- KUKUTZ.—Motots. Txori batzuk buruan kukutza izaten dabe. Lenago, eizerako aztorea erabilten ebenean, aztoreari buruan txoti-

- noa ezarten eutsoen, begiak estaltzeko, ta txotinoaren ganean egakizko kukutza.
- KIDETASUN.—Otsak alkanegaz ondo datozeanean kideasuna dogu; alkarren lagun ez ba'dira, kidegafasun.
- LANDER.—Txiro, ezeuki.
- LOBEL.—Lau-bera. Ura, ardaoa, esnea ta beste zer asko lobelak dira, dagozan ontzian euren ganeko azala lau yarten da-ta.
- LOTSORTASUN.—Arro ez dana; zerak neuririz esan eta egiten dauzana; erderazko "modestia" esan gura dau.
- MANDAITU.—Zeanuri'ko itza beintzat, eta zartadaka ezaíndu esan gura dau.
- MEIKI.—Arbizu'ko itza. Erren edo "koxo" esan gura dau.
- MUSKERRAREN.—Soña tellegi, ori edo laru iminten dauen gibelego gaxari "lafuen" esaten yakon lez, soñari musker-margoa emoten dautson gaxari deritxogu muskerraren edo muskerren.
- NARRU-LAKATZ.—Oñetako narruan batzuetan agertzen dirian narru-gogorrune mingonai deritxegu narru-lakatz. Narru-lakatzik gure eza'dozu, ez erabili oñetako estuegirik.
- OIARTZUN.—Mendiak, ormak eta basoak eurrak be batzuetan gute ots edo zarateari erantzun egiten dautsoe. Erantzun ori da oiartzuna.
- OSKI.—Euzkel-gaiztoz, "zapatak".
- OSKIGIN.—Euzkel-gaiztoz. "zapatari".
- OTURUNTZA.—Yataldi, alan be yataldi andi.
- OTOL.—Aren ganean ogia ebateko, maiganean ezarten dan ola. Gure baserrietan olango mizkeri barik, maiganean ebaten da ogia, eskuetan ez ba'da.
- SASTAKAI.—Ezpata labur eta ago bikoa.
- SUODI.—Euzkel-gaiztoz, "kañoi". Gure guda-riak suodiari egazkinari baño bildur geia-
- go izaten eutsoen, eurak bsin esan eustenez. Suodia ez dogu ikusten, egazkina bai.
- SUTAUTS.—Su-izkilluui sua emoteko erabilten dan autsa.
- TXONBIDEZTI.—Entzute andiko txadon edo elexa, naiz beste olango zeren bat ikusteko bidea artu dauena.
- YAREI, YAREGI.—OñaU'ko itza beíntzat. Askatu, lokarriak kendu esan gura dau.
- YAURRI.—Zerbait naiz normait bere elbururako bidean zuzendu. Euzkel-gaiztoz, "gobernau".
- TXOKINO.—Zeanuri'ko itza. Etxeko toki itxi txiki esan gura dau.
- ZERUKO KATU.—Katua lez astiro ibiltan dan ar edo mamarro baltz uletsua. Zeruko katu ori, aziko dana azitakoan, berak iruneko ariz egingo dauen zorro-barruan sarturik aldi laburrago-luzeagoan egonda, alango baten inguma, eskabi, mitxeleta egazkari agertuko da.
- ZINKIDETU.—Besle mundukoen, naiz emen goen izenez, norbaiteri zerbait egiteko naiz ez egiteko agindu; besteren izenik aitatu barik be, agintzen dauena almen andiko ba'da, esaterako Yaungoikoa, aren agindua be zinkidetza da. Olan zinkidetu ebazan Yosu Kisto'k txerrenak, txarrien soñetara sartzeko agindu eutsensan.
- ZINKIDETZA.— Zinkidetute. Euzksl-gaiztoz, "konjuroa".
- ITUN.—Goibel, gotilun, pozga, poz barik.
- DORDO.—Ezbear, zori txar.
- AZTORE.—Sapelai, arrai baltz. Egaztiok egazkada bizkorrekoak eta egazti txikiagoak bizirik oralu ta yanda bizi dirianak dira, Moko sendoa dabe ta moko makurtzen asten dan tokian agina dabe. Sepelaia bere ganean egaz dabilenean txitadun olla-lokea larri aurkitzen da.

# LEAR ERREGE

(KING LEAR)



# LEAR ERREGE

(KING LEAR)

## NOTIN ANTZE2TUAK

LEAR, Biritanderrl'ko Erregs.  
Pantze'ko Errege.  
Borgoña'ko DUKE,  
KORNUOL (Cornwall)'go DUKE.  
ALBANI (Albany)'ko DUKE.  
KENT'eko KONDE.  
GLOSTER'ko KONDE.  
EDEGAHTA. Gloster'en SEME.  
EDEMUNDA, Gloster'en Sasi-serae.  
KURAN (Curan), Yauregikoeiatiko bat  
AGURE, Gloster'en maizterretariko.  
OSAGILE.  
ERGEL.  
OSUALDA (Oswald). GONERILE'n Ondasun-beglrale,  
EDEMUNDA'ren esaneko Malla-gudari.  
KORDELE'ren esaneko Andiki.  
ALDARRIKARI.  
KORNUOL'en Otseñak.  
GONERILE            )  
ERREGANE            > LEAR'en Alabak.  
KORDELE            )

Zaldun errege-lagunak, Malla-gudarlak, Geznarlak, Gudariak, sla Begiraleak.

AGEHLEKU.-Biritanderrl.

## I EKITALDI

I AGERLEKU.—LEAR ERREGE'ren Yauregiko errege-arazologia.

KENT, GLOSTER eta EREMUNDA datoz aurrera.

KENT.—Albaniko Dukea Kornuol'goa baño maiteago ebalá Erregek uste neban nik.

GLOST.—Beti izan gara uste orretan, baño orain, bakalderria banakeran, ezta agiri zein dauen maiteago; eta izan be, zatien bardiñaren bardiñez, ezin dogu ebatsi zein zati dan oba.

KENT.—Zure seme dozu ori, ala, ene yaun?

BLOST.—Neugan *izan* dot au aztea; berau

niretzat autortuten lotsarren gorrltuaren gorrituz, galdu dot zer orregazko loloea.

KENT.—Ezin dautsut ulertu.

GLOST.—Gazte onen amak bai ulertu al Izan eban eta bai sortu be; arrazkero borobildu egin yakon sabela, eta bere oerako senarrrik baño lenago izan eban bere seaskarako semerik. Oben-sundaren bat artzen dozu, ala?

KENT.—Oben ori deuseztuterik ezin gura neike, orren ondorena orren egokia danazkero.

GL.OST.—Orraitiño ba-dot beste seme bat be,

yaun, lege-bidezkoa, au baño urteren bat zarragoa, au baño maiteagoa izan ezarren; saskil au ludi onetara inok deitu baño len lotsabakotxo etorri izanarren, lirain zan onen ama; ezta trakets eta baldarkiro egina-ta, nireizakotzat aurtortu-bearreko da sasikume au. Ezagun ete dok zaldun argi au, Edemunda?

EDEM.—Ez, ene yaun.

GLOST.—Kent'eko ene yauna dok; nire adiakide adeigarritzat gogoan euki egik aurreantzean.

EDEM.—Zure otsein nozu, yaun.

KENT.—Maile-bearreko aut, eta geroago biotzeanago euki bearko aut.

EDEM.—Aleginak egingo dodaz zure maitasungarri izateko.

GLOST.—Etxetik kanpora izan da bederatzi urtean, eta barriro be etxetik alde egiteko da. Badator Errege (Adar-ots-dei barruan).

LEAR, KORNUOL, ALBANI, GONERILE, ERREGANE, KORDELE ta Yauregikoak aurrera.

LEAR.—Lagun akie. Gloster, Pantze ta Borgoña'ko Yaunei.

GLOET.—Bai, izango natxake, ene Nagusi. (Alde GLOSTER eta EDEMENDA'k).

LEAR.—Gure asmo iluna azalduko dogu bitartean. Ekadazue an idagun lutirudia. Gure bakalderrira iru zati egin dogula yaikin egizue, eta gure adinaren ganetik ardura la arazo guztiak aztindu la uxatutea dala gure asmo ta erabagi sendoa; indar gazleagoen ganerci egotziko doguz zer guztiok, gu geu zamaga, arinduta latalarrez eriotzarantza goazan bitartean. Kornuol'go gure seme ta zu, gitxiago maite enozun Albani'ko ene S3me, une onetan gure alaben ezkontsariak iragarteko gogoia dogu gerorako asarrebideai atek orain isteko. Gure erregetxean maite-egotaldi luzea eginak dira gure alabarik gazteenaren maitasun-leiakide diran errege-semeak, bai Panlze'fcoa, bai Borgoña'koa, ta erantzunaren begira dagoz emen. Oraindik ara agintzea, lurak dakarrena ta bakalderriarthurak gure buaruari kenlsn dausaguzanazkero, esan egidazue, ene alabok, zeñek maiteago nozuen, berezkoa ta irabaziak alkarren leyaz norgeyagoka dabilkozanari esku-zabalago izan nakion. Gonerile, zarrena zu zareanazkero, zuk itz egin lenen,

GON.—Yaun, itzez esan dateken baño maiteago zaudaz nik; nire begiak, nire tokia ta nire azkatasuna baño be maiteago zaudaz nik, *ehiet* naiz bakan, aldin izan date-lcen edozer baño be maiteago; bitzita, eder-

gari, edertasun eta adei baño gitstiagorik ez; eguño seme-alabak maite izan, naiz aitek iritxi izan dauen aña; bera azalduko arnasa diran guztiak txiro ta itz guztiak meko utsa diran maitasuna dautsut; neuniz gorct maite zauddz.

KORD.—(Bere kitean). Zer egingo Kordele'k? Maite izan eta ixilik egon.

LEAR.—Muga guzliotalik, marra onetatik marra onetarañokoaren andera egiten augu; baso itzaltsu ta landa ederrakaz; íbai ugari ta bedartza ertz-zabalokaz; ire ta Aibani'ren seme-alabentzako bedi au betiko. Zer diño gure bigarren alabeak? Gure Erregane maite-maite, Kornuol'en emazteak? Itz egin.

ERREG.—Gei beragaz eginak gara ni ta nire aiztea-ta, ori baño gitxiagotzat enagizu etsi. Nire maitasuna berbera aitatu daulela orrek dakust nire biotz zintzoan; auxe bai, laburregi ibili dala ori; sentzumenaren txatalik ederrenak izan daikezan beste poz guztien arerio nazala agirian dautort, eta zu nagusi orreganako maitasuna dala ní zoriotsu egiten nauen zer bakarra.

KORD. (Bere kitean).—Orrazkero Kordele'ren errukarri! Ela orrailño ez, nire maitasuna mifez azaldu-ezina dala ba-dakit-eta.

LEAR.—Itzako ta ire ondorengoentzako ta betiko geldituten don gure bakalderrira eder onen iruren luze-zabal au; Gonerile'ri emona baño bape txikiago ezтана, ez arloz, ez ederrez. Azkenengo izanarren gitxien etzearan gure poz orrek orain; zure maitasun gazteenaren billa Pantze'ko maastiak eta Borgoña'ko esnea urdiru ta alkarren le-yaka dabilizan orrek; zer esan daikezu zuk zure aizteena baño iruren bikaña goa zeuganaluteko? Itz egin,

KORD.—Ezebez nik, ene yaun.

LEAR.—Ezebez!

KORD.—Peusik bez.

LEAR.—Ezebeza elorriko da ezebezetik; itz egin ostera be,

KORD.—Nire zoriaren txarra; ezin dot eragi nire biotza nire agora; bear *aña* maite dot nik zure nagusitasuna, ez geyagorik, ez gitxiagorik be.

LEAR.—Zer diñozu, ?er diñozu, Kordele! Adabau ta orraztu apur bat zure itzak, zure etorkizuna lorrindu ta muskildu etzagizun,

KORD.—Ene yaun on, zuk sortu nozu, zuk azi nozu, zuk maite izan nozu; egoki danez ordainduten dautsudaz zorrok: zure esanak egin, zu maite izan, eta zuri ino;i fcaño lotsa geyago izan. Zer dala-ia dabez nire



aistak euren senarrak euren maitasun gtu-Ua zutzako ba'da? Zori onez, ni ezkondu naitenean, nire ezkon-itza artzeko eskua luzatu daistan yaunak nire maitasunelik erclia, nire arduretatik erdia ta niro adeilik erdia be eroango dauz; bai orixe, inoz be enaz ezkonduko ni nire aistak lez oita bakarrik maite izateko.

LEAR.—Biotzez eta benetan ete diñozu ori? KORD.—Bai, ene yaun on.

LEAR.—Orren gazte ta orren biotz-gogor?

KORD.—Onen gazte, ene yaun, eta onen zindo.

LEAR.—Olan bedi; beraz, zure zintzotasuna ta zure zindotasuna bediz zure ezkontsari be; eguzkiaren argi txeragarriarren, Ekate'n }1) ixilkizunakarren eta gauaarren: izanazo ta manatuten gabezan ortze-zeruko zer borobilen egiteakarren, ementxe ta oraintxe erasten dot bere alabeaganako aitaren ardura osoa. senidetasuna, odolkidetasuna, eta oraindik ara erbestetartzat izango zaudaz nire biotzarentzako ta nitzako. Bein nire alaba izaneko ori bestean aukokotzat, errukarri ta lagungarritzat etsi ta eukiko dot nire biotzean Eskitiar (2) basatia, naiz yangalea asetuteko bere umeak zukutu ta urunbituten dauzana.

KENT.—Ene nagusi on...

LEAR.—Ixilik, Kent! Ez adi sartu iransugearen eta iransuge-suminaren bitartean. Ori neban nik maitean, eta nire atsedena orren begirapen maitagarripean yarteko asmo-tan nintzoan ni. (Kordele'ri) Alde emendik, eta ez akit nire begien aurreratu! Ilobia bedi nire gentza, nire bake, nik nire aita-biotza orregandik emen aldentuten dodanez! Pantze'ri dei egin: nor doa? Borgoña'ri be dei egin. Kornuol eta Albani, zuon artean banandu beste irurena be nire alaba bien ezkontsariagaz batera; berorrek xalotasuntzat dauen arrokeria ezkondu dadila orregaz. Bioi batera damotsuet nire aginpidea, gorentasuna ta nagusiagotasunari darralcion ondorengo-mordoa. Zuonetara yoango gara gu geu ta gutzako gelditu eragiten dautsegun eun zaldunak ileka, bein batarera, bein bestearenera, zuok guri bizigeyak emeteko ta gu zuonean biziteko. Errege-izena ta erregetzeari darraikioen beste zertzoak bakarrik izten doguz gutzako. Agintzea, zergak artzea ta ganetikoa egitea, seme maiteok, zuona bedi; eta onako onen sendagarritzat cutzie burestun au ta bion artean erdibitu egizue (Burestuina badomotse).

KENT.—Lear bakaldun, beti izan dautsuí nire erregeri dagokion lotsea, neure aita *aña* maite izan zaudaz. neure ugazabaii legetxe yarraixat, nire zain andi legetxe gogoratu izan zaudaz nire arrenetan.

LEAR.—Malcoa makurturik yagok, eta uge-la ten-ten, ken akio geziari aurretik.

KENT.—Ez, ganera betorkit, naiz ta bere karkoa nire biotz-aldean sartu; baldar bedi Kent Lear burutik eginda dagonean. Zer egiteko zara, agure? Ala uste dozu itz egiteko bildur izango dala egin-bearra, aginpidea zurikeriari buru-makur egiten yakonean? Xalo izan-bearreko da zintzotasuna nagusitasuna zoraturten danean. Zure eskuetan eutsiozu agintzeari; eta zure itsu-mustukerí itsusia ausmertu egizu; nire bi-ziak erantzun begio nire eretxiari, zure alabarik gazteenak etzauz maite gitxien, eta eztira biotz uts-arroak euren ots motelak arro-antzik eztauenak.

LEAR.—Kent, eure biziaarren, ez geyagorik.

KENT.—Nik nire bizia beti baitzat etsi izan dot zure arerioen aurka ebalteko; eta be-rra galtzeko bildurrik be eztoz, zu yagotea-rran izatekotan.

LEAR.—Alde nire aurretik!

KENT.—Obeto begiratu, Lear; eta nadin ni oraindik be zure begiko egiazko zuria.

LEAR.—Apolon'arren (3).

KENT.—Apolon'arren, errege, alperrik zin egiten dautsezu zure yainkoai.

LEAR.—Yopu ori! Zital ori! (Eskuagaz ezpa-teari deúsala).

(1) Sulezan al eta agintza fjndiak do.uzaj aindera yatsu Ekate au, Elade ta Erromarren siniskeraz; "Caelo Erebcque poteatem" (Eneis VI, 247) bai ortzean, bai sulezan altsu ereis-ten dicrutso Birgili'k.

(2) Yosn-Kisto-aurretik zazpi bat gizaldi it-sa-so Baltzaren iparraideko ertzean bizi zan erriari eresten ycjiko Eskiti *eáo* Eskiti-erri. Ekand'uz gordintsu i'zan edo-ta gordin eta biotz-gogortzat artzen dabez eski'tiarrak idazle za-rrak.

(3) Eladetarren yainko aizun ugarietafik bol yatsu Apolon oiú, irakurla maite. Delos izaroain yaió ei zan Tzeu ta Leto'ren seme OJU. Igarla auditzat eben Eladetarrak eta Del-poi'ko be<re yrruretxe'ra euretariako aeko eltzen ziran etorkizuna yakin-girrarik. Apolon one-ri Poiba be eresten yoko; Omer'ek alan be eurrez eTabiltan dau Phoibos Apollon izena yciinio aizun au aiatuteko.

ALBANI ta KORNUOL—Epe artu, yaun maite,

KENT.—Egin egitekoa; eran (il) zure osagilea, eta saritu gatz zakarra. Atzera eskuratu egizu zure emoya; ostantxean nire estarriak gedarrik egin daiken bitartean txarto egiten dozula esango dautsut.

LEAR.—Entzun egidak, dollor orrek! Ire bendekotasunaarren, entzun egidak! Nik eginiko agindua ausiazoten alegindu azanazkero (etu nik etxoat eguño ausi izan nire agindurik), eta arrokeriaren arrokeriz gure erabagiaren eta gure alaren bitartean yarri azanazkero (eta olangorik ezin yasan daike ez nire izateak, ez eta nire Ieku onek be), nire alari dagokionez ire saria artu egik. Bost egun emoten dauskadaz ire burua mundu onetako zori txarretatik yagoteko diran gertakuntzak egiteko; eta seigarrenean ire bizkar gorrotagarria emongo dautsak nire bakalderriari; ortik amargarren egunean ire soñ erbesterratu-bearrekoa nire bakalderrian aurkitu ba'dadi, bertatik izango dok eriotzea. Alde! Tzeu'arren (4), atzerarik etxoat egingo nire erabagitik.

KENT.—Onik eta ondo yarrai, errege; zeuk olan gura dozunazkero, azkatasunak alde dagi emendik, eta emen da erbesteratzea. (KORDELE'ri) Jainkoak euren estalpe gozoan artuko al zaeuz, neskato, zure eretxia zuzena ta zure esana egi-egia dira-ta; (Gonerile ta Erregane'ri) eta zuon egitez sendetsiko al dozuez zuon itzaldi luzeak, maitasun-itzetatik egite onak sortu daitezcan. Errege-alabok, onan agur egiten dautsue guztioi Kent'ek; lurralde barriari atonduko dau berak bere zartzaroa (Alde dagi).

Zaamiola (eresia). Barriro datoz aurrera

GLOSTER, PANTZE ta BORGONÑA ta onein yarroigokoak.

GLOST.—Emen dira Pantze ta Borgonña, ene yaun zindo.

LEAR.—Borgonña'ko ene yaun, errege onegaz batera, zeñek irabaziko, nire alabearen esku-billa ibili zarean orrentzat nire lenengo itzak; gitxienez zer eskatuko dozu aren ezkontsaritzat, eta otsan aren maitasunagazkoa bertan-bera itxi?

BORG.—Errege nagusi-nagusi ori, zure nagusitasunak eskeñia baño geyagorik eztot gura nik, eta zuk be eztozu ori baño gitxiagorik opatuko.

LEAR.—Borgonña zindo-zindo, maite geban guk neskato ori maitagarri yakunean, baño

beera yoan da orain orren aldina (balioa). Yaun, or dozu bera; sointxo orren barruan dagonetik zer bait, naiz dan-dana atsegin bayatsu, or dago bera gure asarreagaz batera, ta zure dozu.

BORG.—Eztakit zer erantzun.

LEAR.—Nire adiskidetasuna galdu dau, nire areriak bere alabatatzat artu-barri dau, nire añaena dau ezkontsaritzat, eta nire zifñez erbestetartua da; artu ala itxi egingo ete dozu gatz orreikaz?

BORG.—Azketsi, porkatu, errege yaun, ezin artu daiket baldintza orreikaz.

LEAR.—Orrazkero itxi egizu, yaun, ni egin nindun alarren, esan dautsut orren ondatsun guztia. (Pantze'ri) Zugazko, errege andi, 7ure maitasunetik eneunke orrenbestean aldendu gura, nik gorroto dodanagaz zu buztarturik; au dala-ta, arren-bai-arren, berezkoa bera be beretzat autortuten ia lotsa danagana-barik egokiago dan besteren battegana aldatu egizu zure maitasuna.

PANTZE.—Andi baño andiago da auxe, oraintsu-oraintsu arteño zure zerik onen, zure gorragarri, zure urteen gozagarri, onen maitteen izan danak une baten olango zer itzalik egin izatea, maitasunaren orrenbeste alos eta lokarri manalu izatea. Orren itsusi izateko, nai-ta-nai-ez orren utsak osoan berezkoaz besterakoen batek izan bear dau, edo orrentzako zure lengo niatetasuna ezta orbeange; eta alatzen batez ez izatekotan, nik ezin sinistu olangorik neskato orretaz.

KORD.—Zure nagusitasunari arrenka nago itz egiteko ta bein emoniko itza ez beteteko asmoa estalduteko trebetasun itz-dariotsu ta labanik eztodalako; asmo onez erabagl dagidana itz egin-aurretik egingo dodanazkero, iragarri dagizula niganako zure begi ona ta biotza galazo daustazana ezta-la izan berezkoaz besterako orbanik, iñor ilterik, lotsagarrikeririk, ez likiskeririk, naiz izen garbia kentzeko oinkadarik, egin-eginean be bera nik ez izatearren aberatsago nazan zertxoren bat nigan ez izatearren baño, zera, begi ixil-muxilka deikaririk, ta nik neutzako gurako eneunkena lango miñik, naiz-ta nik olangorik ez izanak galazo niri zure maitetasuna.

LEAR.—Oba yanari ez yayo, niri ori baño aalsegin geyago emon ez baño.

(4) Gorengo yainko aizun zan Eladetarrein artean Kronos eta Aldiaren serae dalako Tzeu au. Erromarrak Yobe, naiz Yupiter eresten eutsosen.

PANTZE.—Ez ete da au baño besterik, zera, berezko geldotasuna, esateko dana sarritan esateka izten dauena baño? Borgoña'ko ene yaun, zer dirautsazu zuk anderaño orreri? Maitetasuna ezta maitetasunik, bere arloko ez tiran zerak beragaz nastu ba'dadiz. Artu gura dozu no ori, ala? Ori berori da ezkontsaririk asko.

BORG.—Ago beteko bakaldun. emoizu zuk eskeñiriko zatia bai, la eman artzen dot Kordele eskutik Borgoña'ko dukenotzat.

LEAR.—Deusik bez: zin egina nozu; tinko nago ni.

BORG.—Min artzen dot, baño orrazkero, aita galdu dozulako senarra be galdu dozu.

KORD.—Ez bedi arlegatu Borgoña! ondasunakazkoa ba'da orren maitetasuna, orren emazte enaz izango ni.

PANTZE.—Zure ezeukitasunean aberats-aberats ori, ezin-oba bertan-bera itxi ori, eta maite-maite izana ezaintzakotzat etsia zarean Kordele lirain-lirain ori, niretzat artzen dodaz emen zu zeu ta zure ekandu onak. Legezko bedi, ondakin eta zaborratzat ortik zear egotzia artzen dot nik. Yainkook, yainkook! andi be andi da zuon yaramonik-ez otzenetik nire maitetasunak lotsa-garrak ateraterañoako sua artzea. Errege, nire erregeno 'da ezkontsaririk bagako zure alabea, nire bidera egotzia, nire ta gure erregeno, ta nire Pantze lirañarena: Borgoña urtsuko duke guztiak be ezin erosi daiste neurritz gorako neska eder au. Agur egiezu, Kordele, eurak begi oneko izan ezarren: leku obेरिक aurkituteko galtzen dozu au.

LEAR.—Zure dozu, Pantze: zure bedi, nik ez tot olango alabarik, ezta inoiz geiago bere arpegirik ikusiko be-ta. Orrazkero, nire eskar onik бага, nire maitasunik бага, nire onespenik бага yoan. Erdu, Borgoña zindoa.

(Eresi alai. Alde dagie LEAR, BORGOÑA, KORNUOL, ALBANI, GLOSTER eta BEGIRALEAK).

PANTZE'k.—Agur egin zure azitai.

KORD.—Gure aitaren pitxiok, bere begiak ezatirik izten zaeuz Kordele'k; ba-dakit zuok nortzuk eta zertzuk zarien; eta zuon aizta

nazanazkero lotsa be lotsa naz zuon akatsai euren benetako izena emoteko. Benetan maite egizue gure aita; agirian autortuko zuon biotzetan izten dot nik; baño, ai ene! begi onez ikusiko ba'nindu ak, toki obेरिक baño obetsiko neunke nik a. Agur ba bioi.

ERREG.—Ez ibili guri gure egitekorik aitatu ta aginduten.

GONER.—Zure yaunaren guraria gitea bedi zure ardurea, zoriaren errukiz artu zauz-eta. Bendekotasun-urri izan zara-ta, ondo zor yatsu nai zebanaren eza.

KORD.—Gerora agertuko da azerikeri kakovakotsuak estalia; azkenean lotsariak irri egiten dautse euren akatsak estali daroezanai. Onik izan!

PANTZE'k.—Goazen, ene Kordele lirain. {Alde Pani'xe'k etcr Kordele'k}.

GONER.—Aizta, ezta gitxi guk biok ur-ur dogunaz esateko dodana. Nire ustez gure aitak gau onetan alde egingo dau emendik.

ERREG.—Seguru-seguru da ori, ta zugaz alde egingo be ak; gugaz urrengo ilebetea.

GON.—Bere urteak dirala-ta ba-dakizu a aldakor utsa dana; orretaz oartu gatzakozana ezta gitxi be; beti izan dau ak maiteen gure aiztea; eta orain argi agiri da ze buru gitxigaz etxetik egotzi dauen ak.

ERREG.—Bere adinak dakarren makalkeria yatsu ori; orraitiño be ak beti be bere burua gitxi ezagutu izan dau.

GON.—Bere biziko egunik onen eta zindoene. tan be itsumustuka ibiltekoa izan da; au dala-ta gertu egon bear dogu agandiko akats zar-sustartuak artzeko ezeze, zartzaro makal-asarbereak beragaz batera ekarten dauzan burukeri ta txibizkeri eskuratu-ezinak eroateko be.

ERREG.—Kent erbesteratutea langoxe urteera aldakorrak izateko gara, urrean, agandik.

GON.—Orrez ganera, or dozu Pantze'ri agur egiteko zelango txerea erabili dauen. Arren, aizta, biok batera yo daigun; gure aitak berak dauen yokabidez agindu ba'dagi agindu, irain utsa da guretzat ak egin-barrri dauen atzen-gurari au.

ERREG.—Geroago ausmertuko dogu ori.

GON.—Zerbait egin bear dogu ta berotau egin be. (Alde dagie).

## II AGERLEKU.-GLOSTER'ko Kondearen Gazteluko Bebarra,

EDEMUNDA aurrera, idazki bategaz.

EDEM.—Zu. berezko, zu zara nire yainkono; zure legearentzako dira nire otseintsak. Ze-

gaitik menik egin nik ekandu denganiñoari, eta ni esku-utsik izten itxi errien inñondikotasunari, ni nire anaiea baño arnabi-

amalaun bat ilebete atzerago mundu one-  
taia etoni nintzalako? Zegaitik ni sasiku-  
me? Zegaitik beeko ta ziitzil? Niie neurriak  
andaia gaibiren semeienak anean egokiak  
eta beteak, nire gogoarena bestean zin-  
do, eta nire soña arena bestean lerdentxai-  
ro danazkero? Zer dala-ta erasten dauskue  
beeko-atza burdin goriz? Zer dala-ta eran-  
tsi guii beekotasunik? Zegaitik sasikumeta-  
sunik? Beekoak, beekoak? Beiezkoren ixil-  
muxileko egite aiagikoez sortuak ez ete di-  
la soituten lo ta atzairi-bitartean oe ilun,  
ustel eta nekatuan sortzen diran motel-mor-  
doak baño ederrago ta adoretuago? Beraz  
ederto, lege-bidezko Edegarta, nire izan  
bear yok ire lurra; Edemunda sasikumea  
maite yok gure aitak. Legebidezkoagazko,  
idazki au bizkor ibili ba'dadi ta nire as-  
moak ondo urten, legebidezkoaren ganean  
yarriko dok Edemunda beekoa. Aziaz noa;  
aurrera noa. Orain, yainkook, sasikumearen  
alde yarri zuok!

GLOSTER aurreia.

GLOST.—Kent onan eibesteratu bearraina!  
eta Pantze'k asane-sumindurik alde egin  
dau! eta eriegek anitseon alde egin!  
beie agintzea iztea izenpetu dau! bere buiua  
ikusganitzat baztaturik! dan au itsumus-  
tuan egindal emen augu, Edemunda! Ze  
bani dok?

EDEM.—Yaun oneii edei ba'deretxatsu, ba-  
rriik aiean bez. {Ostondu egiten dau idaz-  
kia}.

GLOST.—Zegaitik gordeten dok orren urduri  
idazki ori?

EDEM.—Eztaikit barririk, ene yaun.

GLOST.—Ze papel irakurten erago dok?

EDEM.—Ezebez, ene yaun.

GLOST.—Ezebez? Orrazkero, zegaitik sartu  
bear izan dok orren iaduz iie sakelean?  
Ezebezak ez yok olan ostondu-bear gorririk.  
Dakusgun; tita, ezebe ez ba'dok, ez yoat  
beaiko betaurrekorik.

EDEM.—Aien-bai-anen, azketsi, parkatu na-  
gizu; niie anaieagandiko idazkia da ta  
oiaindik ez dot guztiz iiaurri; eta ariñeke-  
tan irakurritik agiri danez, ezta zure begi-  
rik beragan yarteko egoki.

GLOST.—Ekadak idazki ori, yaun.

EDEM.—Zuri emon naiz emon ez, bietara  
irain egingo dautsut. Nik erdi-ulertu doda-  
netik ezta errugirik idazkiak dakarrena.

GLOST.—Dakusgun, dakusgun.

EDEM.—Nire anaiearen zurigarritzat, idazki  
au ak idazlantzat bakarrik edota nire zintzo-

tasuna noragiñokoa dan kiñatuteko idatzi  
izango dau.

GLOST.—(Ba-dirakur) "Egipide onek eta adi-  
nagazko lotsa onek mingoztu egiten daus-  
kuz Iudi onetan gure urterik onenak; gu-  
gandik urrin daukaz gure ondasunak, gu  
zartu ta euren gozotasuna e2in somatu al  
izan arte; bear danez barik yasaten danez  
aginduten dauen zarren agintzea yoputza  
ergel eta bidebagakotzat esten asia nok,  
Ator ona, zer orretzaz luzaroago erago da-  
gigin. Nik iratzarri arte lo egingo ba'leu  
gure aitak, aren etorrien erdia iretzako li-  
tzatekek betiko, ta ire anaiearen maite  
izango intzake. Edegarta. "Tz! Nagusi-aur-  
kako alkar-artzeal..." "Nik iratzarri arte lo  
egingo ba'leu"... "aren etorrien erdia ire-  
tzako litzakek"... Nire seme Edegarta! Ete  
eban ak eskurik onangorik idazteko? Bio-  
tzik eta bururik, onangorik euretan sortu-  
eragiteko? Noz eldu yak au? Nok ekarri  
yok?"

EDEM.—Ez dau iñok ekarri, ene yaun, eta  
ortxe dago egon be orren lukikeria; leiope-  
tik barrura egotzita aurkitu dot nire txokian.

GLOST.—Ete dakik idazkera ori ire anaiea-  
rena danik?

EDEM.—On ba'litz geia. ene yaun, zin egin-  
go neunke arena dala; baña aren ederraa-  
rren gurago neunke ezpalitz.

GLOST.—Arena dok.

EDEM.—Aren eshikutiko da, ene yaun; baña  
bere biotza ez al dago idazkiak dukarre-  
nean.

GLOST.—Lenago ez ete dausk aitatu olango-  
rik?

EDEM.—Sguño bez, ene yaun; baña sarritan  
entzun izan dautsat esaten bein semeak  
adin osora eldu ta gurasoak aguratuazkero  
egoki litzatekela gurasok semeen yagola  
edo olangoren bat izan eta gurasoen etorria  
semeak erabiltea.

GLOST.—Zital-zital! Bere eretxia berbera  
idazkian! Zital gorrotagarria! Berezioaz  
besterako, iguingarri, mandako zitala! Oa,  
txotxo, oa aren billa; baitu egingo yoat.  
Zital iguingarria! Non dok bera?

EDEM.—Ez dakit ondo, ene yaun. Agiri ar-  
giagorik izan arte nire anaiearen asmoak-  
azko zure asarrea geroagoratu ba'zengi, bi-  
de oberik artuko zeunke; aren asmoak oksr  
aituta, indarrez eta itsumustuka yokatu ba'  
dagizu, ba-leiteke zure entzute onari akats  
andren bat ezartea ta aren biotzeko ben-  
dekotasuna betiko birrindurik iztea. Nire  
bizia yokatuko neunke nik aren alde, ak egin

dauena zuganako nire zintzotasuna noraño-ko dan zirikatutearren egin dauela, ez zuri okerrik egitearren.

GLOST.—Ori uste dok ik?

EDEM.—Zure izen onari egoki ba'deretxa, ak eta nik, biok, gei onetaz esango doguna zuk entzuteko tokian yaniko zaudaz eta zeuk entzunik ebatziko dozu; eta onako ou geroagorako barik arrats onetan be-rean izango da.

GLOST.—A ezin izan ledikek olango mandakorik.

EDEM.—izan be ezta, urrean.

GLOST.—Samur eta biotz osoz maite dauen aitarentzako. Zeru-lurra-kanen! Edemunda, billatu egidak a; arren-bai-arren, agana kakomakoka eroan nagik; ire zurtasunez atondu egik arazoa. Nire erabagia okerreko izatea gurako neunke.

EDEM.—Bertatik billatuko dot, yaun; arazoa al dodanik ondoen burutu ta gerturik dago-la iragarriko dautsut.

GLOST.—Eguzki-iretargiak oraintsu izan dabezan ilunaldiak ez daukue iragarten zer onik; ilunaldiok onako onegaitik edo orra-ko orregaitik izan dirala izadi-yakitunak erakutsiarren, orraitioño be orrein ondorenak izadia bera zigortauten dabe; oztu egiten da maitetasuna, utsean gelditu adiskidetasuna, alkarregandik banandu egiten dira nebarrabak; uritarrak asaldatau egiten dira urietan; errien arteko alkar ikusi-ezina sortuten da; azpikeria errege-yauregietan; eta eten egiten dira aita-semeen arteko lokarriak. Nire zital au be iragarpenotan sartzen da; amen semea aitaren aurka. Gure egunik onenak ikusiak gara; azpikeriak, guzurtikeria, azpiyalekeria ta guztitariko okerrak yarra datorkuz gure ilobietaragiño. Billa egidak zital ori, Edemunda; eztok ezer galduko orretan; arduraz abil. Eta Kent zintzo ta biotz-zindoa erbesteraturik! Zintzotasuna aren akatsa! Andia da gero. (Alde dagi).

EDEM.—Au da ludi onetako zorakeriaren zorakeria. Gure arazoak txarto dabiltzanean (geure yokabidearen erruz sarri-sarritan), eguzkia, iretargia ta izarrek irudituten yakuz gure okeren errudun, gu geu zital ezinbestez ba'gintzaz lez; ortzekoak orretara bear-turik gu burubide bagak; izarrek gu benderaturik gu zital, lapur eta azpiyale; izarren egitekoari men egin-bear gorritz gu moskorti, guzurti ta ezkontza-orbanle; eta Yaungoikoa bitartean sartu yakulako gure gaiztakeri guztiak; igespide ederra gizon izortzalleak bere izorkeriaren errua izarrai

egozte, "Inransuge-buztan" aroan alkarganatu ziran aragiz nire gurasoak, eta ni yai-oi minlzanean "Otseme nagusi"-aroa zan; eta ortik dator ni aragikoi ta indarkeri-zale lzatea. Uxa! Nazana nintzatekean ni sasi-kumetu nindueanean ointzean izarrik garbiena-kiñu egin izan ba'leu be.

EDEGARTA aurrera.

Oin-otsak!... Beñolako antzerkiren atzenen bal (Katastrophe) ba'litz legetxe dator etorri be goibeltasun zitala iragarriko dabe nire atze nengo itzak, zoro-asperen eta guzti. Ara izar-ilunaldiok iragarri diragarrez banandu teok! fa, sol, la, mi.

EDEG.—Zelan ago, Edemunda anai? Ze burutapen sakoneri daragoiok?

EDEM.—Lengo egunean irakurririko iragarpen batez oldoztu ta oldoztu daragoiot anai, izar-iluntzeon ondorena zer izango ete dan.

EDEG.—Orrerri daragoiok ekin eta ekin?

EDEM.—Yakik ak idatziko ondorenak zori txarrez yazo egin dirala; esaterako, aita-semeak alkarregazko ar-emonetan berezkoaz besterako izatea; eriotzak, yan-edanikeza, ediskidetasun zarrak manatutea; alderdiak lege-errietan, zemaik eta añenak bakaldun eta andikien aurka; biderik bagako susmoak, adiskideak erbesteratutea, lagun kutunak alkarregandik urratutea, ezkonduak alkarregandik alde egitea, eta batek ba-yakik beste zer.

EDEG.—Noztik augu izarlarietariko?

EDEM.—Tiruk, tiruk; noz ikusi au oraintsuen-goz nire aitak?

EDEG.—Bart.

EDEM.—Itzik egin euan beragaz?

EDEG.—Bai ,ordu bien batera egon gintzoa-zan.

EDEM.—Adiskide banandu ete zinien?. Mukertasunik oartu ete euntsan itzez, naiz ax-pegiz?

EDEG.—Ezetarikorik bez.

EDEM.—Gogoratu egik zetan min emon izan dautsakan, eta zati baten ez akio eldu aurrera, nire onuz, aren asarrea apur bat otzitu arte; suak arturik yagok orain aren asarrea-ta, iri egingo leuskikan okerragaz nekez arinduko litzatezsk.

EDEG.—Zitalen batek kalte egin yaustak.

EDEM.—Orrexen bildur nok neu be. Anen-bai-arren, epe artu egik aren asarrea apur bat arindu arte; eta, neuk dirauskat, neugaz ator nire txokira, ta egoki danean neuk

eroango aut nire jaunari entzuteko; oa, arren; autoo nire giltzea. Andik alde egin ba'dagik, izkillo ta guzti oa.

EDEG.—Izkillo ta guzti ,anai?

EDEM.—Anai, ire onerako emoten dauskat onua; enok ni gizon zintzo-zindorik, itzako gogo onik ba-dagonik esan ba'dagiskat; nik or ikusi ta entzunaren iskitxo bat bakarrik esan dauskat, ez zeraren irudia ta itzaltasuna bera; alde egik, arren.

EDEG.—Laster izango ete yoal ire barririk?

### III AGERLEKU.-ALBANT<sup>ko</sup> DUK A'ren Yauiegiko txokietalik bat.

GONERILE ta OSUALDA aurrera.

GON.—Yo egin eban nire aitak nire andikia aren ergelari agiriku egin eutsalako ala?

OSUAL.—Bai, andeia.

GON.—Bai egueez eta bcti gabaz egiten daust ak okerrerien bat; ordu oro egiten dau itsumstuan oker andiren bat edo beste ta ez gauz izten baketan; olangorik yasateko enago. Geroago ta asaldariago dira aren zaldunak, ta berak edozein uskerigaitik agirika egiten dauku. Itzik eztautsat egingo eizatik datorkenean; ondo-ezik nagola" esan egiok. Geldo ta nagi ibili ba'akio ik len egiten euntsazan otsein-bearretan, ondo egingo dok; neuk erantzungo yautsal uts orreri.

OSUAL.—Ba-dator a, andera; ba-dantzut. (Adar-ots da barruan).

GON.—Ardurarik nagienagaz ibilf i eu ta ire

EDEM.—Ire otsein nok arazo enetan. (Alde Elegarta'k).

Aitare sinispera ta anaiaren zldo! Inõri okerrik egitetik urrin dago onen izake-rea-ta, inõk egin leionaren susmorik be ez-tau; orren zindotasun zoroaren ganean erraz doakez izertolaka nire asmakeriak! Ondo dakust nik nire lantegi-lana. Yaiotzaz ez-pa'da, asmakeriz betoz lurak nigana. Egoki datorkit egokitizat asmau daikedan oro. (Alde dagi).

A'ren Yauiegiko txokietalik bat.

lagunak; txarto artuko al dau ori; atsegin ezpa'yako. nire aitzearenera doala, ondo dakidanez aren asmao ta nirea bat dira-ta, zera, inõk guri ganera ez egitea. Aginpide inõri emonak berak erabili gurako leukezan agure alpsrarena! Nire biziaren diñot, barriro umstu egin dira ergel zarrak, eta zurikeritan ibilteka geldituazo egin bear yake okerrik dagienean. Ez egik aztu nik esana.

OSUAL.—Ondo dago, andera.

GON.—Eta begirakune otzagoak egin zuok aren zaldunei; ez izan ortik zer etorrikoaren bildurrik eta ardurarik; orretaz yakitun imni ire lagunak; itz egiteko bideak gura neunkez oraindik ara eta billatu egingo dodaz, itz dagidan. Bertatik idatziko dautsal nire aitzeari, ak be nire bidea bera artu dagian. Bazkaria gertau egik. (Alde dagie).

### IV AGERLEKU.-ALBANT<sup>i</sup> en Yauregiko bebarru.

KENT aurrera, kokomarroturik.

KENT.—Nire burua ezagun-gatx egiteko itz-egikerea inõri zorrean artu al ba'neio (orixe bakarrik), inõren antza arrazo daustan ondoren osoraño eldu ledike nire asmao. Kent erbesteratu ori, gaiztetsirik agon leku onetan lagundu al ba'dok lagundu, eta algo al dok, aperturiz beterik aurkituko au ik maite dokan ugazabak.

Adarrotsak barruan.

LEAR ERREGI, Zaldunak eta Yarraigokoak aurrera.

LEAR.—Unetxo baten be enagizue euki bazkariaren begira; oa ta gertau egik (Begi-raleciaitk batek alde dagi). Ara! zer augu?

KENT.—Gizon. yaun.

LEAR.—Zein ogibide dok irea? Zer gura dok emen gurean?

KENT.—Nire antzak diñona baño gitxiagorik enaz; lagun zintzo izango natxako bere uste ona nigan yarri dagianari; zindo-zintzoa maite izango dot; zur eta itz-urri daneri itz egingo daustat; bildur daustat epaiari; besterik ezinean burruka egitekoa natxatsu, eta arraianik ez yatekoa.

LEAR.—Zer augu?

KENT.—Biotz on-onego gizon ,eta errege lain ezeuki ta txiro.

LEAR.—A erregetza-arloan aña i bendekotasun-ailoan ezeuki ta txiro ba'az, ezeuki ta txirorik asko az. Zer gura dok?

KENT.—Otsaintzea.

LEAR.—Noren otsein izan gura dok?

KENT.—Zure otsein.

LEAR.—Ezagun ete nok, lagun?

KENT.—Ez, yaun; bafia zuk ba-dozu zerbai! zure arpegian zuri ugazaba deituazoko leuskidana.

LEAR.—Zer dok orrako ori?

KENT.—Aginpidea.

LEAR.—Ze arlotan egingo eunke otseintzea?

KENT.—Onu onari men egiteko gei nozu ni, baita zaldiz ibilteko, arin egiteko, edestuten daragoiodan inondiko ipuña lorrinduteko ta gezna laua kakomakorik бага plaus-tadaz emoteko, erriko semek egin daikena egiteko gei eta egoki nozu, eta zolitasuna yatsu nik dodanik onena.

LEAR.—Zenbat urte dozak?

KENT.—Zarregi abestuten ba-dakiala-ta emakumerik maite izateko; ezta edozein uskerigaitik emakumegaz maitakeritan ibilteko lain zar be: berrogei ta zortzi urte daro-daz bizkarrean.

LEAR.—Nire yarrari ator! nire otsein izango aut; bazkal-ostean gitxiagorik maite ezpa' aut, nigaz izango az bein-beinean. Bazkaria, eee! bazkaria! nondik da nire kirtena? Nondik nire ergela? Oa, ta ona datorrela esan egiok nire ergelari (Alde Begiralarieta-tik batek).

OSUALDA aurrera.

I, txotxo, non dok nire alabea?

OSUAL.—Atsegin izango ai yatzu... (Alde dagi).

LEAR.—Zer diño arako ak? Atzeia dei egiok asta-buru areri (Zaldu'netai'ik batek alde). I, non dok nire ergela? Mundua lotan dagola dirudit.

Atzera dator ZALDUNÁ.

Oindo! Non dok a txakur zistrina?

ZALD.—Zure alabea ondo-ezik dala diño ak, ene yaun.

LEAR.—Zegaitik eztok etorri yopu a nik deitu dautsadanean?

ZALD.—Ene yaun, ak argi ta garbi erantzun daust ezuala etorriko.

LEAR.—Eztala etorriko!

ZALD.—Ene yaun, eztakit nik zer yazoten dan, baña nire ustez eztago zutzako beñola egiten yatsun txera argi-yaramontsurik; bai zure bendekoen aldetik, bai dukea beraren eta zure alabearenetik zukanako maitetasuna asko gitxituaz doala agiri da.

LEAR.—Ostera! Ori uste dok?

ZALD.—Azketsi nagizu, arren, ene yaun, okerra ba'da nire eretxia; zure nagusitasuna-

ri okerrik egiten yakola uste dodanean ni ixilik ezin egon naiteke-ta.

LEAR.—Nire ustea bera gogoratu la sendotu baño ez daustak egiten ik; yaramonikez andiandiri oartu natxakok oraintsu; nigana maitetasunik ezizat eta bexen-beregiko asmozat bagarik nire burukeri usztat nigandik uxatu egin gura izan yoat ori! orretaz adiago ibiliko nok aurrerantzean. Baña, nondik dok nire ergela? Egun biotan ikusi be etxoat egin a.

ZALD.—Nire andera gaztea Pantze'ra yoan zanazkero asko yausi da ergela, yaun.

LEAR.—Olangorik ez egidak aitatu; neu be ondo oartu natxakok orrako orri.-Oa ta nire alabeari esan egiok beragaz iz egiteko gogotan nagola (Begirale bafek alde).-Oa i, nire ergelari ona dei egiok (Beste Begirale batek ctilde).

OSUALDA aurrera.

LEAR.—Ui! I, txotxo, ator ona: nor nok ni, txotxo?

OSUAL.—Nire anderearen aita.

LEAR.—Nire anderearen aita! nire yaunaren kirtena, i ematxar-seme txakur ori! i txakur zistrin ori!

OSUAL.—Ni enaz orretarikorik ezer be, ene yaun; azketsi nagizu.

LEAR.—Ni begiratuten azarten az, zitai ori? (Yo egiten dau).

OSUAL.—Ni enau inok yoko, ene yaun.

KENT.—Ezta inok zangoetatik elduta yausia-zoko be, ostiko-pelotari zantar ori? (Orpo-icrtik elduta zerraldo yausiazoten dautso).

LEAR.—Eskerrik asko iri ,lagun; otseintzea ederto egiten daustak-eta, maite izango aut.

KENT.—Tiruk, txotxo, yagi adi ta oa emendik! neuk irakatsiko dauskat nor nor dan; alde! alde! Baldartzar orrek ire soñagaz lurrea neurtu gura ba'dok, or ago; baña alde! oa emendik; senizunik ete dok? Olan-txe (Bultzoka ateraten dau Osualda).

LEAR.—Kirten adiskide ori, eskerrak emoten dauskadaz; autso ire otseintzearen sendagarri-agiritzat (Dirua damotso Kent'eri).

ERGELA aurrera.

ERG.—Neuk be emon bear dautsat emoi-en bat; autso nire ergel-txapela (Bere txape. kr damotso Kent'eri).

LEAR.—Yauntxo, ene kirtentxo! zelan abil?

ERG.—Txotxo, nire ergel-txapela artzea oba litxakik.

KENT.—Zegaitik, ergel?

ERG.—JSegaitik? Ondo ikusia eztanaren *ald* yarri azalako. Eguzkia nora zapiak ara erouten ezpa'dakik, laster ikusikok zer datorrikian; aiko, artu egik nire ergel-txapela; ara, bere alabak dirala-ta, onek onako onek bi erbestera yozak eta bere gogoaz bestera irugarren alobeari sekulako onespina emon yeutsan; onen yarrai ba'oa, naf-tanai-ez eroan bear dok nire ergel-txapela. Ara, osaba, ergel-txapel bi ta alaba bi al neuz!

LEAR.—Arduraz abil, txotxo, zigorra...

ERG.—Nire bizibide osoa emon ba'neioe, neuk neunkakez nire ergel-txapelak. Autsi nirea; zure alabai eskatu beste bat.

LEAR.—Arduraz abil, txotxo, zigorra...

ERG.—Txakurtegira yoan bear dauen txakur da egia, bizkarra berotu bear yako, txakurrema sutondoan atsa dariola dagon bitartean.

LEAR.—Beatzun atsituu nitzako!

ERG.—Esakune batzuk irakatsiko dautsudai, txotxo.

LEAR.—Ekiok.

ERG.—Adi-adi entzun, osaba:

Erakusten dozuna baño geiago izan.

Dakizun baño gitxiago esan,

Dozun baño gitxiago emon zorrean,

Sinisten dozuna baño geiago ikasi.

Oñez baño geiago ibili zaldiz,

Yokatuko dozuna baño dema gitxiago egin.

Itxi zure edana ta zure emagaldua,

Exe-barruan euki zure burua,

Eta ogeirako amarreko bi baño

Geiago izango dozuz.

KENT.—Utsa dok ori, ergel.

ERG.—Orrazkero, legegizon ordaindu bagearen arnasea langoxe ida..., ez daustazu ezer ordaindu nik esanagaitik. Ezin dozu ezer egin utsagaz, osabu?

LEAR.—Ez ba, mutil; ezebezetik ezebe ezin egin.

ERG.—Arren-bai-arren, orrexenbeste dala orreri berorren lurra emoten dautsoena esan egiok orri; ez dautso sinistu gura ergelari. (Kent'eri dirautso au).

LEAR.—Ergelaren mingots!

ERG.—Ezagun ete dozu, ene lagun, ze alde dagon ergel mingotsetik ergei gozora?

LEAR.—Ez, mutil, euk irakatsi egidak.

ERG.—Emon nire aldamenean imini egizu

Zure lurra iñori emoteko

Onua emon eutsun yauna,

Zeuk egizu aren ordeketza;

Bertatik agertuko dira

Ergel mingotsa ta gozora;

Bata ergel-yantziz emen.

Or agiri da bestea.

LEAR.—Ergel ereisten daustak, mutil?

ERG.—Iñori emonak dozuz beate izen guztiak; yaiotzatikoak esan gura dot.

KENT.—Ergel osorik ezta au, ene yaun, e2 guztiz ergelik.

ERG.—Ergelkeri osoa dadola nik? Ez orixe, ez al dot! Yaunak eta andikiak eleuskide itxiko olangorik egiten; ergelkeri osoa neurreturik ba'neu, aik be kide izan gurako leukie, bai mordoka be; aik eleuskide itxiko ergelkeria osorik neuretzako eukiten; arrapataka kenduko leuskide. Osaba, arrautza bat ekadazu ta nik burestun bi emongo dautsudaz.

LEAR.—Ze burestun bi ta burestun bagako?

ERG.—Ba! Arrautzea erdi erditik ebagi ta barruko mamia yan dagiodanean, arrautzearen koskolki biak burestun bi egingo dabez. Zure burestuna erditu ta erdi biak iñori emon zeuntsezanean zure bizkarrean zure astoa yarri zeban eta zeu lupetzan gelditu; zure buru-koskor ulduan sentzun gitxi izan zeban zure urrezko burestuna iñori emon zeuntsonean, Zorakeririk esan ba'dot, lenen igarri dagianari narrua berotu dagioela. (Abestuaz dño darraiana) Ergelik ezta egeño aurten baño gitxiago ategin izan,

Gizon zurrak ergelduaz doaz-eta,

Eta eztakie euren buru-argitasunaz zer egin, Matxango-antzeru yokatuten dabe-ta.

LEAR.—Noztik augu orren abesti-ontzi, txotxo?

ERG.—Zure alabak zure amatu zenduzanazkero, osaba; eta izan be, zuk ai agintza-makilea emon eta zure parkak erantzi zenduzanean, (Abeslka ostera be).

Aik otoz-otoko pozez negar egin eben

Eta nik naibagez abestu neban:

Andia dok onango errege oston-osteka ibil-tea

Etu bere burua zoro egitea.

Arren-bai-arren, osaba, niri guzurra esaten irakasten dakian irakasleren bat euki egizu; guzurra esaten yakin gura neunke.

LEAR.—Guzurrik esan ba' dagik. txotxo, zigortou eragingo aut.

ERG.—Eztaldt nik ze senide zarien ze ta zure alabak; nik egia esanagaitik zigortau egingo nabe aik; zuk, ostera, nik guzurra esanagaitik; eta batzuetan ixilik egonagaitik be zigortuten nozue. Gurago neunke ergel baño beste edozer izan; eta *a* ta guzti be ze izaterik eneunke gurako nik, osabu; zure buru-zoiroztasunari ertz biak moztu dautsa-



zuz zuk, eta bitartean ezar itxi ez; emen dator mozketetatik bata.

#### GONERILE aurrera.

LEAR.—Amen gure alaba! Nondik datortzu bekokiko zer ori? Betozkotsu zabilkuz oraintsu nire uestez.

ERG.—Bestelango gizon «intzazan zu iñoren betozkoren ardurarik etzendunean; aldamentean zenbakirik bagako O utsa zara orain; zu baño geiago naz ni; ergel naz ni. ezebeza bera zu.-Bai orixe, lotuko dot nire miña; (Gonerile'ri) orixe aginduten daust zure begirakuneak, zuk ezer esan ezarren. Ixilik! ixilik!

Ez kuzkurrik ez mamirik eztauenak, Edozez asperturik, zerbait bearko dau.

(LEAR erakutsi-ala) Idarrak yalgi yakozan idar-leka yatsu ori.

GON.—Yaun, zure ergel lotsagaldu onek ezeze zure yarraigo lotsabakotiko beste batzuk be txitean-pitean or daragoioe txarto esaka ta marmarka, ta burruka ta asarrerik ugari ta eroan-ezinak sortuten dabez. Yazoten dan au zuri iragarriazkero okerrok arteztuko zirala uste neban nik; baña zuk oraintsu esan eta egin dozunetik bildur naz zu zeu be egikera orrein alde ete zagozan eta zuk, ederretsiz, aurrera-bidea emoten ete dautesuen; eta ori egia ba'litz txarretsi bagarik elitzake geldituko zure utsa, ezta zuzentzea loak arturik be; erri-osasun zin-daren ardureak au eraginda, ba-ledike zuk min artzea, ta min egite au egipide zur litzateke or, ostean lotsagarri litzatekenarren.

ERG.—Ba-dakizu ba, osaba. otaxoriak kuku-kumei luzaroegei yaten emonda, aik ari buiua moztu eutsaena. Olanxe, arglzagia itxungi egin zan eta gu ilunetan gelditu gintzazan.

LEAR.—Gure alaba ete zauguz?

GON.—Dakidanez buruan ba-dozun zurtasun onari bear eragingo al zeuntso, eta gogaldiok zugiandik urrindu, oraintsutik zu zurez zareanetik aldendu eragiten dautsuetata.

ERG.—Ez ete daki astoak noz daroan burdiak zaldia?-Arre. Yone. maite aunat!

LEAR.—Iñok ezagun ete nau emen? Au ezta Lear; onan ibilten ete da Lear? Onan itz egiten ete dau? Non 'dira aren begiak? Edo aren ac'imena makaldu da, edo lozorroan dago aren buru.bidea.-A! atzarrlik? Ez. Nok esan leiskit ni nor nazan?

ERG.—Lear'en itzala.

LEAR.—Orixen yakin gura neunke; eta izan be, nagusiagotzearen ezaugarrietatik yakituriak eta argibideak guzuzre sinetsitzaoko leuski-de alabarik ba-dodala.

ERG.—Eta esaneko egingo dabe orreik euren aita.

LEAR.—Zure izena. andera lirain?

GON.—Ondo dator zure arritute ori, ene yaun, oraintsuko zure beste okerrieren aldamentean. Arren-bai-arren, ondo ulertu egizuz nire asmoak; zar eta lotsarigarri zareanazkero zur izan bear zeunke; eun zaldun eta ikurdidun daukazuz emen; saskil be saskil dira gizonak, ekanduz gaizto ta lotsagaldu dira-ta, gure errege-etxe onek, euren ekanidu zikinak dirala-ta, ostatu asaldaturen bat dirudi; atsegin-zalekeriak eta lizunkeriak gure etxea errege-etxe begikoren baño ardan-degi ta emagaldutegiren antzekoago egiten dabe. Lotsea bera dago gedarrez osapide-eske; beraz, apur bat gitxiagotu egizu zure yarraigoa, ostean lotsa orrek be-rak eskatuten dauena iritxi egingo dau-ta; eta euren buruak eta zeu aintzakotzat arturik zure urteai egoki datorkezanak bezidgituko yatsuzanak.

LEAR.—Ilunbe ta denganiñoak!-Zaldi-yarle. kuak imini nire zaldiai; batu daitezala nire yarraigoak. Sasikume lotsagaldu! Ez dausnat emongo kezkarik; baña oraindiño ba-dot beste alabarik.

GON.—Yoka darabiltzuz zuk nire etxeokak? eta zure lagun saskil-ganorabakoak euren otsein egiten dabez eurak baño oba diranak.

#### ALBANI aurrera.

LEAR.—Beluegi damututen yakonaren zori txarreko! (Albani'ri) Ara, yaun, etorri zara? Zure guraria ete da ori? Esan, yaun. Gertau nire zaldiak. Eskerbakokeri, i atur-din-bioztun txerren, seme-alabakan agertuten azanean itsas-mamuak baño be iguingarriago azan ori!

ALB.—Epe arlu, yaun, arren.

LEAR.—Miru gorrotagarri! guzuna 'diñon (Gr>nerile'ri), euren egitekoak ondo dakiezan gizon autu-autuak eta zein baño zein obeak dozan nire yarraigokoak, eta euren izan onari dagokon begirunea alik eta zeatzen beteten dabezanak. Kordele'gan ain itsusi agertu intzan akats txiki-txiki ori! ik nire izakerea bere toki tinkotik eraso egin enduan, tramankuluz lez; nire biotzefik maitetasun oro atera enduun eta beaztuna geitu. Ai ene, Lear, Lear, Lear! Ire zorakeria-

ri sortzen eta ire sentzunari urteten itxi eutsan ate au 70 egik. (Bere burua yoten). Goazen, goazen, nireok.

ALB.—Nik eztot errurik, ene yaun, zuri zek eragin dautsunik be ezakit-eta,

LEAR.—Ba-ledike ori, ene yaun. Entzun, be-rezko, entzun; entzun, yainkono maite; iza-ki au ernalduleko asmorik izan ba'dozu, bein-beinean utsean geldituko al da asmo ori! Antzutasuna ekarri bere sabelera! igartu egizuz bere barruko azikinak eta bere izenedergarrizat bere soin zimel-iristu-tik ez al da iñoz be umerik sortuko! Ume-rik izan ba'dagi, barearerdun izango al da bere umea, bizi dan artean amaren oñaze-garri itsusi-oket izan dailen! Bere bekoki gaztean izurrak ezarri begioz; matralletan negar-darioak arekak egin begioz; seme orrek amari neke ta egite onak barreka ta iñakaz ordaindu begioz; ama orrek bere buruan ikasi dagian esker txarreko ume izatea sugearen agina baño zorrotzago da-la! Goazen goazen! (Alde dagi),

ALB.—Onangorik! Gurtu daroaguzan yain-kook, nondik sortu da onako au?

GON.—Ez atsekabetu, orretaz geiago yakin-gurarik; beragoio bere txotxakeriak daka-son aldikricia azazkatuten.

Ostera be eurrera LEAR.

LEAR.—Zer, nire yarraileetatik berrogei ta amar zartada baten! amabost egunen ba-rruan!

ALB.—Zer yazoten yatsu, yaun?

LEAR.—Esango dautsut. Bizi ta eriotza! (Go-nerile'ri) Nire gizatasunari onan ikara era-gileko indarrrik ik izateaz lotsaturik nai-a-gon; besterik ezinez nire begiei darioezan negar-tantan goriok eurokarri egingo al in-due. Axe-boladak eta lañoak ire ganera! Aitaren gaiztespenaren zauri ezkutuak zula-tuko al dabe ire somen oro! Begi maitabe-ra zarrok, ostera be negar egizue onako zer onegaitik bai, eta atera egingo zaue-daz eta ortik zear yaurtin, zuok galtzen do-zuen uragaz buztina beratu dagizuen.—Bai! orixe egin be egingo dot; beste alaba bat ba-dot, eta a, seguru nago, maitakor eta txeratsu da; zuk egina ak yakin dagianean bere atzalez urratuko dautsu arpegi ori. Or ikusiko don barrio neugandu dodala ortik zear egotzi dodala ik uste donan nire antz eta izakerea.

(Alde LEAR, KENT eta BEGIRALEAK)

GON.—Oartu zatxakoz orrako orri?

ALB.—Dautsudan maitetasun andiak be ezin yairi naike orrenbesteraño zure alde, Go-nerile.

GON.—Nasai zagoz, arren. I, Osualda, Osual-da! (Ergelari) I, txotxo, ergel baño zitala-go ori, ire ugazabori yanai akio.

ERG.—Osaba Lear, osaba Lear etxon... IU-gaz artu ergela.

Azeri emerik goatu ba'ledi,

A ta onango alabea

Biak eskegi bearko litzatekez,

Nire txapelak lokarrik erosi al baleu;

Eta onan, ba-darraio ergela. (Alde dagi).

GON.—Burbide ona izan dau gizon onek...

Eun zaldun! Sentzunezko ta bildurrik ez izateko yatsu gizon oneri eun zaldun ger-tu-gertu eukiten iztea; bai, edozein amese-gaitik, ots bakotxeko, irudipen bakotxeko, naiz gogaldi txar bakotxeko, bere inda-rrakaz bere txotxakeria yagon eta gure bli-ziak bere eskuko izan dagizan. Osualda, non ago?

ALB.—Ba! ba-leiteke zu bildurregi izatea.

GON.—Ustetsuegi izatea baño oba da au; oraindik uxatu dagidazan bildur dautsedan galbideak, otoz-otoan goatu nagienaren bildurrik izan ez dagidan; ezagun dot nik aren biotza; nire aizteari idatzi dautsat ak esa-na: olangorik etxakola egoki nik ari iraga-rriazkero, bizibiderik emon guia ba'dautse ak ari ta aren eun zaldunai...

OSUALDA aurrera ostera be.

Kaxo, Osualda! idatzi dok nire aizteaientza-ko idazkia, ala?

OSUAL.—Bai, andera.

GON.—Lagunen batzuk artu eta arin orain zaldi-ganera; zelangot ta zeren bildurra do-dan iragarri egiok; eta nire argibideak sendotuteko eure batzuk be erantsi egizak. Oa, eta arin atorke. (Alde Osualda'k).

Ez, ez, ene yaun, zure yokabide bigun, leun eta epel ori nik gaiztetsi ezarren (eta azke-tsi egidazu au), zurtasunik ezagaiUk agira-kagarriago zara zu, biguntasun kaltega-rrigaitik txalogarri baño.

ALB.—Eztakit nik zure begiak norañoakoa iku-si daikienik; sarritan obaren bila ondo da-gona alperrik galdu baño eztogu egiten.

GON.—Ba, orrazkero..

ALB.—Ori ondo, ori ondo; geroak esango <dau. (Alde dagie).

## V AGERLEKU.-ñlbani'ko Dukearen Yauregi-aurreko arrazpela.

LEAR, KENT eta ERGELA aurrera.

LEAR.—Gloster'gana oo idazki onegaz; nire alabeari ez egiok emon bere idazkian eskatuten dauenaz beste barririk, ik dakikanik. Ire egitekoa arin ezpa'dagik egin, neuk an i baño len.

KENT.—Ez nau bidean loak artuko, ene yaun, zure idazkia emon arte. (Alde dtigi).

ERG.—ñren orpoetan ba'legoz gizonaren garaunak, ez ete legokez ospel-zauriak urte-teko bidean?

LEAR.—Bai, mulil,

ERG.—Orrazkero, arren, pozik zagoz; zure buru-zorrostasunak eztau egingo berantzarik.

LEAR.—Ja, ja, ja!

ERG.—Beste alabeak txera ona egingo dau-tsula ikusiko dozu; eta izan be. basasagarra sagarraren antzeko danez zure beste alabea onen antzeko izanarren, nik esan dai- ket esan daikedana.

LEAR.—Zer esan daikek, mulil?

ERG.—Ez yatsu izango a au baño gozoago, basasagarrik basasagarra baño gozoago ez danez. Ezetz igarri zuk zegaitik dogun surra gure arpegi-erdian.

LEAR.—Ezin yoat igarri.

ERG.—Ba, gure begiak surraren aldamen bantatan eukiteko ta. olan, usañez oartu ta somera ezin idauena gizonak begiz ikusteko.

LEAR.—Iraindu egin neban nik no a...

ERG.—Esan ete daikezu zelan egiten dauen ispelak bere kozkola?

LEAR.—Ez.

ERG.—Ez neuk bc, baña nik esan neiketzu

zegaitik dauen barakulloak bere etxea,

LEAR.—•Zegaitik?

ERG.—Ba, bere burua barruan eukiteko; bere alabai ez emoteko, ta bere adarrak ontz! bagarik ez izteko.

LEAR.—Nor nazan be aztu egingo yatak. Ni izan nazan aita maitakori-Gerturik ete yagozak nire zaldiak?

ERG.—Yoan dira zure astoak areitara. Argibide polita yatsu zazpi izarrak zazpi baño ez dirala erakusten dauena.

LEAR.—Zortzi ez diralako, ala?

ERG.—Bai, izan be; ederto egingo zeunke zuk ergelarena.

LEAR.—Barrio indanez artuko ete? Eskertxarraren mamu!

ERG.—Nire ergel ba'zintzaz zu, osaba, zigortauazo egingo zindukedaz zu aldiz ourretik zartuagaitik.

LEAR.—Zelan dok ori?

ERG.—Etzenduekan zartu bear zuk, zurtu arte.

LEAR.—Oi! zoriontegi maitagarri, ez al naz zoratuko, ez al naz zoratuko; ez rjl naz zoratuko; ez al naz asarratuko; eneunke bururik galdu gura!

ANDIKIETARIKO bat aurrera.

Eta? Gerturik ete dozak zaldiak?

ANDIK.—Gerturik, ene yaun.

LEAR.—Gaiozan, mutil.

ERG.—Orain neska izanarren, nik alde egite-rakoan barrerik dagiana luzaro ezta izan- go neska, lokarria laburtu ezik,

## II EKITALDI

## I AGERLEKU.-Gloster'ko Kondearen Gaztelu-barruko arrazpela.

EDEMUNDA ta KURAN aurrean, batzarrean.

EDEM.—Ondo ibili, Kuran.

KUR.—Bai, zeu be, yaun. Zure aitagaz egona nozu, eta arrats onetan Kornuol'go Dukea ta aren dukeno Erregane emen izango dirala iragarri dausat.

EDEM.—Zegaitik ete dok ori?

KUR.—Batek ba-daki!-Entzunik dozuz or zabal eta bala-bala dabilztan barriak; or

txutxu-putxuka, agoz-ago ta belarriz-belarri dabilztanak esan gura dot, bein-beinean zer garbirik eztakigu-ta.

EDEM.—Nik ez yoat entzun orretarikorik arean; arren, zetariko barriak dozak.

KUR.—Ez ete dozu entzun gudaren bat sortu ledikela Kornuol eta Albani'ko Dukeen artean?

EDEM.—Itzik bez.

KUR.—Beraz, ba-ledfike zuk geroago ctean entzutea, Onik eta ondo ibili, yaun. (Alde dagi).

EDEM.—Dukea órrats onetan emen? Oba! eguñokorik ondoen! nai-ta-nai-ez nire arazoaren alde 'dator, Zañak yarri dauz nire aitak nire anaiea goatuteko; ela zertxo bat dot nik, arduraz ebalteko zertxo bat, eta zirti-zarta egin bear dot; Azkartasun eta Zorion, nire bidea urratu zuok! Anai, berbatxo bat; yatsi adi; anai, non ago?

#### EDEGARTA aurrera.

Zai yagok nire aita; et-et, yaun, igesi egik toki onetatik; norbaitek salatu au non agon ezkutaurik; eraz datorkik orain gau izatea. Ez ete dok itzik egin Kornuol'go Dukearen aurka? Ona yatok a; orain, gabaz, iraduz, eta Erregane be agaz batera yatok; ez ete dok zerbait esan ak Albani'ko Dukeari dautsan areriaz? Gogoratu egik.

EDEG.—Seguru naiagok orretaz, itzik bez.

EDEM.—Nire aitaren otsa entzuten yoat; bayatok a; azketsi, parkatu nagik; gu alkarregaz asarre gareanena egiteko, ezpataz eraso bear dauskat; atera egik ezpatea; eure buruaren alde egiten doanarena egik; alde egik orain; amore egik; nire aitaren aurrera ator.--Argia! oster! ona! Igesi, anai. Zuziak, zuziak! Olantxe, agur, (Alde Edegarta'k). Odol-orbau batzuk ba'neuz aldean, obeto sinistuazoko neunke adoretu yokatu dodala (Besoa zaurituten dau); moskorrik ezautu dot olgetan au baño gefago eginekori. Aita, aita! Geldi, geldi or! Laguntzatik ez?

GLOSTER eta OTSEÑAK aurrera zuziakaz.

GLOST.—I, Edemunda, non dok a zitala?

EDEM.—Emen egon da ilunetan, ezpata zorrotza aterata, lilurapen gaiztoai marmarka, ilargiari zinka, andera adu oneko izan dation...

GLOST.—Baña non dok *al*

EDEM.—Begira, yaun, odola daríodala nago.

GLOST.—Non dok *a* zitala, Edemunda?

EDEM.—Ortik zear igesi dau, yaun. Ezetara be ezin ebanean...

GLOST.—Arraikio, ia! Atzetik ara zoakioez (Alde dagie otseñak). Ezin ebanean zer?

EDEM.—Zu yaun ori iltera ni imini; baña yainko aspertzalleak guraso-iltzalleen aurka ostots guztiak egozten dabezala nik esan dautsadala; semea aitari ifñondiko lokarriz loturik dagola esan dautsadala; atzanean, yaun, ak, ni aren asrho zital eta berezkoaz

besterakoaren aurka nagola ikusirik, zirkin zitatez, eta ni gerturik enagolarik, bere ezpata gertauagaz ganera etorri ta besoa zualatu dautsala; baña nire adore atzarriagoa nire auziaren zulentasunak sendoturik, nigan burruka egíteko erabagia ikusi dauelako, edo-ta nik aterako zaparradeak ikaraturik, beingo-beingoan igesi egin dauela.

GLOST.—Urrin igesiko al dau; lur onetan ez tok geldituko goatu bagarik; eta goatuazkero, arenak egin yok. Nire ugazaba, duke zindoa, nire buru ta zain aingarria, arratseon yatok; aren aginpidearen izenez aldarrikatuko yoat nire seme iltzalle koldarra aurkitu ta abera daroan gure eskar ona irabaziko dauela; eriotzea izango dauela a ostondu dagianak.

EDEM.—Areri bere asmotik atzera eragiten alegindu naz ni, kaña bere asmoa aurrera eroateko buru-gogor egoala ikusi dodanean, salatu egingo dodala zemaitu dot itz gogorre; au izan da aren erantzuna: "Ondasunik bagako sasikume ori! Ni ire aurka ezetzean yarriazkero, iñok igan leukaken uste onek, ire ekandu onek, ire geitasunek iñori sinistuazoko leuskiola uste dok, ala? Ez; onako au ukatuko neunkenez, nik ukaturik eleukie sinistuko; bai, ik ni nor ta nolango nazan esanarren be, nik ukatu egingo neunke ta iri iñok sinistu ez; nik egin na ik ni atarako zirikatirik, ik asmaurik, ire izakera oker-gaiztoak eraginda egin dodala esango neunke; eta mundua buru-moteltzat etsi bear dok ni orretaz salatutekotan munduari sinistu eragiteko nire eriotzatik iri letorkikazan ondasun eta irabaziak ez dirala izan ire zirikagarri ta akulu i nire eriotza-billa abilenean".

GLOST.—Zital gogor-setatsu! Ukatu egingo ete leuke bere idazkia be? Nik ez tot sortu aguño a, (Adar-ots barruon). Entzun, dukearen adar-otsak! Eztakit nik ori zetarako datorrenik. Itsas-ate guztiak itxiko dodaz; eztau igesiko zitalak; emon bear daust orraiko ori dukeak; orrez ganera, urrera ta urriner a bidaliko dot aren irudia, bakalderrl osoak ezagun dagian; eta neugan i nire lurren legezko ta berezko yabe egiteko bi-deak eta ardurea.

KORNUOL, ERREGANE ta Yarraigokoak aurrera.

KORN.—Nolan zagoz, ene adiskide zindo? Ni onaazkero, eta au oraintze dala esan daket, ifñondiko barriak entzun dodaz.

ERREG.—Egia izatekotan ori, iraintzalleari

ezarri lekikoin edozein rigor be gitxi da. Nolan zagoz, ene yaun?

GLOST.—Ai! andera, ler eginik dago nire biotz zarra, ler eginik'.

ERREG.—Zer? Nire aitaren besoetako semeak zu il gure izan zauzala? Izena nire aitak ezarri eutsanak? Zure Edegarta'k?

GLOST.—Ai! andera, andera, lotsearren ixilik eukl bear neunke!

ERREG.—Ez ete zan a nire aita yagoten daben zaldun asaldarien lagun?

GLOST.—Eztaikit nik, andera; andiegi da au, andiegi da.

EDEM.—Eai, andera, a be areitariko zan.

ERREG.—Orrazkero ezta andi erestekorik ari lera txarrak intsigi izana; aik okertu ta makurtu dabe a gizon zarra iltera, aren ondasunen etorriak eraldi ta alperrik galtzeko; gau onetantxe iragarri daustaz nire aizteak arein barri zeatzak; eta barriok dirala-ta, aik nirera ba'datoz biziten, an enaz izango ni.

KORNUOL.—Ez ni be, Erregane, benetan dirautsut. Edemunda, ire aitari seme-egitekoric egin dautsakala entzun yoat.

EDEM.—Nire bearra zan ori, yaun,

GLOST.—Aren asmo gaitzoa salatu egin dau orrek, eta a goatuteko alegineian ebilela or dakusazun mina artu dau.

KORN.—Inor ete da aren yarra?

GLOST.—Bai, ene yaun on.

KORM.—Goatu ba'dagie goatu, inoz eztozu izango ak okerrik egingoaren biHurrik; zure erabagia artu, gure indana zuk zer-guraren alde dago-ta. I. Edemunda, une onetan ire ekandu onak eta Ire esanekotasunak eurak euren burua goratuen yoek-eta, gure izango az i; eurekan gure uste osoa eukigarri berez diran gizonen bear onik izango dogu; I az guk lenen guretaz artzen doguna,

EDEM.—Beneian izango natxatsu otsein, yazo dana yazo.

GLOST.—Orren izenez, eskerrik asko zuri maitagarri orreri.

KORN.—Ik eztaikit gu zegaitik etorri garean i ikusten.

ERREG.—Onan giroz bestera, gau itsuan biga ara-onaka eginda; eztabaidako eretio-tan. Gloster zindo. zure onu-bearrean aurkituten gara; gure aitak idatzi dauskun, baita gure aizteak be. euren arteko alkarrartuezinaz, eta nire ustez zerik egokiena gure etxetik bagarik beste nonbaitetik erantzutea da; andiko geznariak, batzuek eta besteak, bitsuek, erantzunaren begira dagoz. Gure adiskiide zar on orrek poztu ta nasaitu egizu gure barrua; eta bear-beaneko onuen bat emon eiguzu gure arazoentzai, bertatik bear dogu-ta.

GLOST.—Zure ostean nozu, andera; ondo etorriak zauguez maitagarriok. (Alde dagi).

## II AGERLEKU.-GLOSTER'en Gaztelu-aurrea.

KENT eta OSUALDA aurrera, banazean,

OSUAL.—Egunabar on iri, adiskide; etxe onetako bat az ala?

KENT.—Bai.

OSUAL.—Non itxi ete geinkez gure zaHiak?

KENT.—Lupetzan.

OSUAL.—Arren ,maite ba'nok, esan egidak.

KENT.—Ez aut maite.

OSUAL.—Orrazkero, igaitik ez yaustak ardu-ra.

KENT.—Nire aidurarik izanazoko neunskikek Lipsbury'ko (5) baitegian ba'indut.

OSUAL.—Zegaitik narabilk olan? Ez aut *mza*gun nik.

KENT.—Nik ezagun aut, txotxo.

OSUAL.—Nortzat nok?

KENT.—Kirten, zital, aragi ustel-yale az i; zakar, zistrin, arroputz, azal, eskeko, iru soñekodun, bost-erralde, zikin, artille-galtzerdidun kirten; koldar, sasikume, arro uts, izpillu-begirale, bizkar-azur bigunegidun, lu ki-koipatsu; yopu-kume; otseintza on-arloan

emagaldu-buru Izan gura eunke ik, eta Izon be ez az i luki, eskeko, koldai, emagaldu-buru ta txakurreme zakarraren seme ta ondorengoaz besterik; nik esanekoaren alez-izik ukatu ba'dagik ukatu, yoka irrintze baten iminiko audana.

OSUAL.—Berezkoak okerretara eginiko lagun eskargaren bat izan bear dok ik, euk ez ezautu ta i ezaututen ez auenaren aurka olan txarto esaka ekiteko,

KENT.—Ze lotsabako zital azan i ni ezautu-

(5) London'go auzoen baten izena dogu, urrean, Lipsbury au. Gure errian (Zeanuri) korta edo itoi nasairen bat artzen eban zorrean Udalcrk, ©rri-bcrsoeta'n baitutexi ziran ardi, aumtz, zalcli-beor, nai basa-beiak ugazaba cgeru ta beai" zana ordaindu arte cm eukiteko. Orain erri-baso to genetiko basoak piñu ilunez yantzi dirantzkero, erriak ez dau izari go zer baiturik, mixerrak baitu ezik.

ten nokalo ukttuteko! Ez ete dozak egun bi nik erregeren aurrean iri orpoetatik elduta lurra yoazo ta belarronJoko ederrak emon neunskazala? Ezpatea atera, zital orrek; gau izanarren iretargiak argi egiten yok-eta; iretargi-sopatu egingo cut; ezpatea atera, sasikume bizargin-txakur txatxar, atera. (Bere ezpatea ateraten dau).

OSUAL.—Alde! ez yoat nik zer-ikusirik igaz,

KENT.—Atera, zital orrek; erregeren aurkako idazkiakaz ator i, eta uskerizat dok ik ire burua anderakillaren alde ta aren aita erregeren aurka erabiltea; atera egik, txatxu, txatxar orrek, ostantxean ire zangoakaz txi-txi-saltzaren bat egingo yoat; atera, zital orrek; tiruk.

OSUAL.—Lagun, arren! ilten nau! lagun!

KENT.—Yo egik, yopu orrek; ekiok, txatxar, ekiok; yo egik, yopu uts orrek. {Yo egiten dau}.

OSUAL.—Lagun, eee! il bear nau! il bear nau!

EDEMUNDA, KORNUOL, ERREGANE, GLOSTER, eta OTSEÑAK aurrera.

EDEM.—Ara! ze! yazoten da?

KENT.—Eugaz, gura ba'dok, gizon onaren seme; ator, neuk irakatsiko dauskat burrukan; ator, yauntxo gazte.

GLOST.—Izkillok! izkillok! Zer dogu emen?

KORN.—Geldi or, zeuon biziakarren; il egingo da lenen zartodarik emon dagiana. Zer yazoten da?

ERREG.—Nire aizteagandiko ta erregegandiko geznariak.

KORN.—Zetariko ta zegandiko da zuon ezta-baide? Esan.

OSUAL.—Ozta-ozta dot arnasarik, ene jaun.

KENT.—Andi erestekorik eztok ori, ik ire adoreari eragin dautsakanagaz. Zital dollor ori, bere semetzat ez au i berezkoak; yostunene batek egina az i.

KORN.—Inondiko gizon augu i; yostunek egin gizonik?

KENT.—Bai, yostunek ,jaun; ez arginek, ez margolarik ezin egin eikean ori onen txar-to ta orren ganorabako, euren erago ta ogibideetan ordu bian ibiliak izanda be.

KORN.—Ekin itz egiten, nondik sortu da zuon ezta-baide?

OSUAL.—Yaun, bere bizar urdinaren eskariz bizia itxi dautsadan zital zat orrek.

KENT.—Sasikume C (ze) ori! alperriko izki ori! Ene jaun, zuk zure ederretsia emoidazu bai, ta zital ori nik nire ostikopean espaloitu egingo dot eta berorregaz korozte-

giko oimak espaloitu... Ik ni niee blzai uidinakaitik bizirik itxi, ik buztanikara orrek?

KORN.—Ixilik, yauntxo! lotsea zer danik ez ete dakik basati zital orrek?

KENT.—Bai, jaun; baña bere eskubiderik badau asarreak.

KORN.—Zegaitik augu asarre?

KENT.—Ezetariko zindotasunik, ez zintzotasunik ez-eta, onango yopuak ezpatea daroe-lako. Aginka zeatuten dabez azkatuteko gatxegi diran lokarri bikotx gurenak onango gizon txatxar irribarretsuab, sagutzarren antzera; leundu egiten dabe euren ugazaben izakeretan asaldatuten dan lera-zirkin oro; orioa ezarten dautsoe suari, eduna arein gogaldi otzagoai; ukatu, baietz esan, altzion egaztiak euren mokoak ekatxa nora ara aldatuten dabezanez aldatuten dira onangoak euren ugazaben ekatxetara, Denganiñoarentzako aldiendunaren ire begirakune ori! irribarre egiten dautsek nire esanai, ni ergelen bat ba'nintzok lez? Ara, Sarum (6) zelaian ba'indut, kakaxaka eroango induket Kamelot'era.

KORN.—Zer? Burutik eginga ago ala, agure zar?

GLOST.—Zegaitik asarratu zarie? Ori esan egik.

KENT.—Alkarren aurka dagozanek ez dautse alkarrerri iguin andiagorik nik eta olango zitalak batak besteari dautsaguna baño.

KORN.—Zegaitik eresten dautsak zital? Ze okerrik egin yok?

KENT.—Ez yat begiko orren mosua.

KORN.—Ba-ledikek iii nieia bape begikoago ez izatea, ezta aiena ta oirena be,

KENT.—Yaun, lau ta xalo izatea da nire egitekoo; une onetan edozeñen sorbalda-ganean dakustan baño mosu ederragorik ikusia nozu nire aHian.

KORN.—Gordin itz eginagaitik ñok goraturiko gizonen bat dogu ori, eta orregaitik darabil lotsabakokeri gordina, beiezko bere txairotasuna beren-beregi osoan baztaitu-

(6) London bertaiko edo andik ur-urreko lekuen batzuk dirala uste dot SARUM eta CAMELOT izenakook. Eta izan *ha*, Shakespeare'k bere antzerki ou London'en aintzetzuteko idatzi ebanazkero Loudondarrai ezagun yakiezan toki-izenak erabiliko ebazala nik uste, *gcijo*-kozan gai ouetan bestelangorik yarlea bnfo egokiago da-ta. Leku orretan norbaitek atak aziko ebazala nik uste, saltzen London'go azokaroi eroateko.

rik; ori ezta iñor zuritutekorik, gizon zindo ta itz argi ta garbi egitekoa da-ta; egia esan-bearrekoa da ori! Izan ez ostera? Bai, iñok aintzakotzai artu ba'dagi; artu ezik be. zerak argi ta gnrbi ta tapa-tapa esatekoa yatsu ori. Ezagun yataz niri onango lotsagalduek; onangoak onango euren bakantasunean ogei tentelek baño lubikeri ta asmo txar geiago ostonduten dabe euren buruan, euren egitekoak txairo ta zeatz betearren onangoai buru-makurka eder esaten dautsen ogei tentelek baño geiago,

KENT.—Yaun, bene-benetan, egi-egiz, zure arpegi itzal orren baielzez, orren eraginak, Poiba'ren (7) bekoki ikarako gar dizdizkorrezko burestunaren antzera...

KORN.—Zer esan gurok orregaz?

KENT.—Zuk orren txarretsi dozun itz-egikeratik alde egitea, Ba-dakit, yaun, ez nazala ni zuritzallerik; zital uts izan da zuri itz lau-errugez ziri ederra sartu eutsuna; eta nik, nire aldetik, ez dot izan gura olangorik, zuk orretara eraginda, zure asarpepera yausi ba'nendi bs.

KORN.—Ze irain egin dauitsak ik?

OSUA.L.—Eguño eztautsat egin nik irainik; oraintsu orren ugazaba erregeri begikoegin yako ni yotea, ni oker aiturik; eta ara, gizon garratz-astun orrek, asarratuaren zuriketak eginda, orpoetatik elduta zerraldo itzuli nindun lurrera; lurrean nintzala, irain-laidotu, ta txarto esaka ekin eustan, eta erregeri gizon be gizon zala esanda, a bizkortu ta adoretu egin eban, eta berez biotz-yausirik egoan erregeandik gorape-nak artu ebazan orrek, ziri-zirika a adoretu ebalako; eta egitada itzal orrek beroturik, barrien-barri atera dau emen ezpatea ni zaurituteko.

KENT.—Yostalluen bat baño ezta Aiatz onango zital-koldarrentzako.

KORN.—Egolatxaren billa zoazie (8). Zital zar setati ori, arroputz aguxgarri ori, guk irakatsiko daukagu...

KENT.—Yaun, zarregi nozu ni ezer ikasfeko; ez ekarriazo zure egolatxik nitzako; errege-otsein nozu ni; aren zereginak bidali nau ni ona zugana; egolatxeratu ba'dagizu aren geznaririk, nire ugazabaganako lotsa gitxi la gaiztakeri agiriegia erakutsiko dozuz.

KORN.—Ekarri egolatxa! Nire bizi ta entzute onaarren, an egongo da eguerdirarte.

ERREG.—Eguerdirarte! gaberarte, ene yaun; eta gati osoan be egongo da,

KENT.—Ara, andeic, zure aitaren txakurra ba' nendi be enindukezu erabiliko onan.

ERREG.—Yaun, aren zital azanazkero erabiliko aut.

KORN.—Gure arrabeak aitatuten dauzanan margo-margoko la aniz-antzeko da au--ta, atera egolatxa. (Egolatxa raternten dabe).

GI.OST.—Olangorik eztagizuela egin eskatuten itxiko al daust zure maitagarritasunak; andi da orren okerreria, ta orren ugazaba errege onak berak estu artuko dau orregaitik; lapurreteagaitik eta okerreririk oituenakaitik gizakirik txatxarrenai ta gaiztoenai ezarten yakienetarikoa da zuk ezarteko asmoa dozun lotsarizko zigorra; txartzat artuko dau erregek bera zuok orren gitxitzat esatea bere geznariari zuok olango lotsarizko zigorrik ezarriazkero.

KORN.—Nire lepora betor orregazko erantzutea.

ERREG.—Askozaz txarrago artu lel nire aizteak bere egitekoak betetan dabilen gizon yatorra iñok zakar erabili ta iñor aren ganera yoatea. Barruratu orren zangoak. (Egolahxeari iminten dabe Kent). Goazen, ene yaun, goazen emendik. (Gloster eta Keut'ez bestetik alde).

GI.OST.—Ire tamalik asko yoat, adiskide; dukearen gogoko dok ori. eta orren gogaldia eustekorik edo bigundekorik etxagok, mundu guztiak ondo dakianez; ire alde eskatuko yoat.

KENT.—A.rren! ez eglu olangorik, yaun; lorik egiteka naz eta bide luzea egin dot; aldiz lo egingo dot, eta ganetiko aldian txistuka ekingo dauitsat. Orpoetan azi ledlke gizon onaren zori ona. Egun on damotsut!

GLOST.—Dukearen erru da au; txarto artuko dabe au. (Alde dagi).

KENT.—"Zoriontegiaren itzal onespentsutik eguzki-kaldatara zatoz" diñon arako erri-esakunea sendotuten dozun errege on ori! Erdu, mendi-zuzi; argiegin beeko zer borobil oni, zure izpi atsegingarriz idazki au irakurri daikedan.-Nekez dakus ifiok alatzik imiraririk, ezbearrak baño; -bo-dakit, zorl onez be zori onez nire bizikeia ostonduaeren

(7) Poiba. 3<sup>gn</sup>. oarra ikusi aurrerogoan.

(8) Zulodun ol lodi bik egiten dabe egolatxa. Iduna ba'da, 7ujo baten, eta oñak ba'dira, zulo banataar sartu, gero ol biok alkarrerideutsela imini ta aor gizona egolatxean sarturik, bape bere naierara ez dagola. Iñondiko zerak asmou dnuz gizonak aurrekoa minduteiko!

borrirls ba-dauen Kordele'gandlko dcma, eta ak aterako dau ostirik bere erri eskar-gafik galtzeak orniduteko. Ene begi astunok, atzarriaren atzarriz unaturik zagoze-ta,

zuoñ alde dator auxe, leku lotsagarri su begiratu ez dagizuen. Gau on, Zori, irribarre egistazu ostera be: eragin zure txirrinkeari! (Locik cirtzan dau).

#### IVL AGERLEKU,-turr-arlo zabal.

##### EDEGARTA aurrera.

EDEG.—Nire burua aldarrikaturik entzun dot; eta zugatz arroko arroari eskerrak, igesi dot eizatu izatetik. Itsas-aterik ez dogo idigita; ez dago lekuriñ ni goatzeko zañak eta atzartasunik atzarrienak zainduten ez dabenik. Igesi daikedan bitartean yagon egingo dot nire burua; eta eguño ezak, gizonari irriz, pizti-antzeko egiteko, iñori arrazo izan dautsan antzik zakarren eta ezeukitsuena artzeko asmoa dot: zikinez loituko dot nire mosua; artillekiz estuko dot nire garria; kirimildu ta moltsotu egingo dot nire ulea; eta nire billustasuna erakutsita eupada

egingo dautset axeai ta ortzetiko gogorke-riai. Munduak emoten daust orretarako erodurik eta yorraipiderik, eta izan be or ibilen dira eskeko zoroak zarata baten; onatzez, zotzez, atzazalez eta erromeru-orritzulatu egiten dabez minik artzen etaben euren beso billusak; eta yokabide iguingarri onen bidez baserri kazkarretatik, uri kozkorretatik, artzain-txaboletatik eta errotetatik soroskirik eta Iagunlzarik artzen dabe, batzuetan zoro-añenez, beste batzuetan arrenez.—Turlygod gaxo! Toma (9) errukarri! Zerbait da cñu oraindik; ni Edegarta, ni enaz ezer. (Alde dagi).

#### IV,AGEHI,EKir.-Glostsr'en Gaztelu-aurrea.

##### KENT egolatxean.

•LEAR, ERGELA, ta ANDIKI bat eurrera.  
 LEAR.—Andia da evtrak etxetik alde egin eta nire geznaria atzera ez bidaltea.  
 ANDIK.—Yakin dodanez, aurreko gabaz ez eben alde egiteko asmorik.  
 KENT.—Agur zuri, ugazaba zindo.  
 LEAR.—Ara! lotsakizun au asti-emongarri egin dok ctla?  
 KENT.—Ez, ene yaun.  
 ERG.—Ara! Ara! Galartzu mingorrek daroaa orrek. Burutik estuten dira zaldia, idunetik txakurrak eta artzak, kuntzurrunetatik tximinoak, eta zangoetatik gizonak; zango-sendoegi ba'da gizonik, zurezko galtzerdi motzak erabilten dauz.  
 LEAR.—Nor dok ire lekua orren oker etsi dauena, i or iminteko?  
 KENT.—Biak dira, no ta to, zure seme ta alaba.  
 LEAR.—Ez.  
 KENT.—Bai.  
 LEAR.—Ezetz diñot.  
 KENT.—Baietz diñot nik.  
 LEAR.—Ez; ez; ezina dok ori.  
 KENT.—Bai, ezina ba'da be egin dabe.  
 LEAR.—Tzeuanen, zin egiten yoat, ezetz.  
 KENT.—Yune'arren (10), zin dagit, baietz.  
 LEAR.—Ez al dozak azarri olangorik egiten.  
 Ezin azarri eitekezan, ez yoek egin olango-

rik; eriotzea baño be txarrago dok lotseari olango indarrezko irañik egitea: azaldu egistak iradu geiegi bagarik, ik ori nondik irabazi einkean edo aik i olan erabili. i nigandiko izanik.

KENT.—Ene yaun, eurenearn zure nagusiagotasanaren idazkia emon neuntsenean, nire egitekoak erakutsiriko lekuan balaunbiko nengon tokitik ni zutundu baño len eldu zan izerdi-bitsetan bidari bat, iraduaren iraduz koipetan, arnas-estuka itobear gorrian, eta arnas-oska emon eutsezan bere uga-zabandera Gonerile'gandiko agur-gorantziak; eskuetaratu eutsezan ak idazkiak, eta aik, astirik galtzeka, bertatik irakurri ebezan; idazkiak ekarrena irakurriaz bat deitu eutsen etxekoai eta bertatik zaldi-ganeratu ziran; yarraiteko agindu eustien, eta

(9) Bai Turlygod, bai Toma, bata ta bes-tea, Shtckespeare'n aldian London'en ezagun baffio ezagunago ziran eskeko sorkitsuen batzuk ziran nire ua'.ez. Nok ez dou ezautu onango eskeko errukarriñ urrinago yocrteka bere errían? Gure errian, ni ume nintzcrta, onangoxe eskeko gaxo-errukorriak ziran Mateo Pagape ta Karlos Mekoletako. Zon'. ti sonkiz beterik ibiltzen ziran.

(10) Yupiter edo Tzeu'rem cñraba ta emciz-te yofsun Yune ctu. 4'gri. oorra ikusi.



eurak astiz noz erantzungoaren begira egoteko; begirakune motzak eta zearretarakoak egin eustiezan; eta arako ari egindako txerra argi ta ondo etorriak nirea edendurik, arako geznariagaz batera ni emen aurkiturik (geznari ori oraintsutik ona zure nagusiagotasunaganako yardun zakarra erabili izan dauen urlia berbera izanik), nire burua zur baño gizonkiago erabilirik, ez-patea atera neban nik; etxea aidean yarri eban ak bere gedar eta karrazi koldarrez. Emen yasaten dauen lotsarigarri etsi eben zure seme-alabak nire okerra.

ERG.—Yoateko da oraindik negua, itsas-antzarrak bide ori artu ba'dabe egaz egiteko. Itsutu egiten dabez seme-alabak soñekotzat sorkiak darabildezan gurasoak; ziskuak aldean darabillezan gurasoak ostera seme-alaba txeratsuak izango dabez. Zori ernalgadutzarrak inoz be ez dautso idigiten aterik eskekori, ez txirori. Baña au gora-bera, zuk urte betean esan-ala burukomin emon-gu dautsue zure alabak.

LEAR.—Oi! onako ama au bai andituten idala nire biotzerantza! --Histerica passio--, beera ortik, gora atorren naibage ori. Bean dok ire lekua! Non da alaba au?

KENT.—Kondeagaz, yaun, emen barruan.

LEAR.—Ez etorri nire yarra; geldi or. (Ala dagi).

'ANDIK.—Ik esana baño oker andiagorik ez ete dok egin?

KENT.—Ez, bapez. Zer yazo da errege orren lagun gitxigaz etorteko?

ERG.—Arizo orregaitik imini ba'aue egolaxean, ondo irabazita dok.

KENT.—Zegaitik, ergel?

ERG.—Inñuriaren irakastegira hidaliko augu, negutean lanik ez dala egiten an iri irakatsi dagiskan. Begiak dozak euren surrak norantza eurak arantza doazanen zuzendari, itsuenak ezik; eta ogei suretik bat be ez yagok sunáa andurra somatuko ez daunik. Eskuetatik itxi egioak mendia-bera doan txirrinka andiari, berari yarTiaaz idun-azurra ausi ez dagiskan; mendiz-gora doan andiak bai eroan agiala bere atzetik. Gizon zurrek nirea baño onu oberik emon dagiskanoan atzera ekadak nirea; nire onuari lukia yarraiteaz besterik eneunke gura, erge-lak atzera emoten dauenzakero. Irabaziarren ire esaneko dan yaunak Eta iriadi utsez darraikikanak Zorroa egingo yok euria asi daitenean. Eta ekatxetan deslai itxi i. Baña etxon egingo dot nik; gelditu agingo da ergela,

Eta gizon zurra ariñekelan doala; Maltzurtu egiten da igesi dagian ergela Baña maltzurrik ez ergeldu, ez orixe.

KENT.—Non ikasi dok ori, ergel?

ERG.—Ez egolaxean, ergel.

Ostera be aurrera LEAR, Gloster'egaz,

LEAR.—Itzik ez egin gura niri? Gexorik dagoz ala? Gau osoa egin dabe bidean ala? Asmakizun utsak; asalda-irudiak igesi eragin dautse. Erantzun egi-antzekoagorik billatu egistazue.

GLOST.—Ene yaun maite, zeuk be ba-dazauzu dukearen izakera sutsua; zirkinik eraginezina ta loka-ezina dala aren yardunbidea.

LEAR.—Asperkunde! danganíño! eriotza! naste! sutsu? Ze izakera? Ara, Gloster, Gias-ter, Kornuol'go Dukeagaz eta aren emaz. teagaz itz egin gura neunke nik.

GLOST.—Ori ondo, ene yaun, orixe iragarri dautset nik.

LEAR.—Iragarri arei? Ba-dakik nik zer esan gura dodan, gizon?

GLOST.—Bai, ene yaun on.

LEAR.—Erregek itz egin gura leuskio Kornuol'eri; aita maiteak bere alabeari itz egin gura leuskio, agindu egiten dautse esanera yarteko; onako au iragarri ete dautsek? Nire arnasa ta nire odol! sutsu? Duke sutsua? Duke beroari esan egiok... Ez, oraindiño ez; ba-ledike a onik ez izatea; gexotasunak ba-daki gure osasunak egitera bear-tuten gauzan egitekorik bertan-bera izten» gu geu ezkareanean; esturik dagonean, go-goari berezkoak soñagaz batera min artzeko aginduten dautsanean; epe artuko dot; eta nire gurari oldartsu-itsua dala-ta, gexota ondoez-aldikadea gizon osasuntsutzat artzera itzuliagoa nozu. Ilgo al da ni onan izatea! (begiafc Keni'gon yarrita). Zegaiiilt egon bear ete dau onek e;nen? Dukeak eta no'k alde egite au atxaki utsa dala sinistuazoten daust egitada onek. Atera egistazue nire otseña. Oa ta esan egiek dukeari ta aren emazteari oraintxs bereon eurekaz itz egin gura dodala; urten eta entsun >ia-gistela agindu egiek, ostein euren gelaks atetan arratza (danborra) yoko dodala, "II arte lo egin" arratzari gedar eragin arte.

GLOST.—Dana ondo yazoko al da zuon artean. (Alde dagi).

LEAR.—Ai ene! ene biotz, asaldatuten *zatxata*zane ene biotz!... baña, geldi ago!

ERG.—Gedar egiotzu, osaba, aralco london-dar emakumeak bizirik oraz estali ebazan uingirai egin eutsenez; multilegaz buruao

yolen ebazan eta gedar egin: "beera, lotsa-bakook, beera!". Aren neba izan zan, urrean, bere zaldiekanako maitasun utsez, bere bedar igarra koipatuten eutsena.

KORNUOL, ERREGANE, GLOSTER, eta OTSE-  
NAK aurrera.

LEAR.—Egun on bioi.

KORN.—Agur, maitagarri orreri! (Azkrtu egiteri dau Kent).

ERREG.—Poztuten nau zure nagusiagotzea ikusteak.

LEAR.—Erregane, alan uste dot neuk be; badakit zegaitik dodan usie ou; poztko ez ba'intz, banandu egingo nintzatekenan ire amaren ilobitik, ezkontza-orbantzalleren ilobitik. Ara! azke augu? (Kent'eri). Beste bein orretaz, Erregane maite. ezebez utsa don ire aiztea; ene Erregane, saiak lez, maite-tasunik ezaren agin zorrotza sartu yaustan ak enien (Bere bioiza erokusten demtso); nekez itz egin daiskenat; ik ezton sinistuko zelango izakera gaiztoz, ene Erregane!

ERREG.—Arren, yaun ,epe artu egizu; nire ustez zuk gitxiago dakizu a aintzakotzat artzen, ak bere egin-bearretan urri izaten baño.

LEAR.—Zelan dateke ori? Esan.

ERREG.—Nik ezin uste daiket ak bere egin-bearrik txikienean uts egin leikenik; yaun, bear bada ak esku gogorra ezari dautse zure yarrafgokoen asaldatze ta likiskeriai, eta olangorik egin ba'dau zegaili onik izan izango dau, eta egin-eginean be orrexek zurituten dau a erru guztitik.

LEAR.—Nire ahenak arentzat!

ERREG.—Ara! yaun, zar zara zu; bere mugen ertz-ertzean dago berezkoa zagan; iñoak agindu bear leusitizu zuri, eta zuri dago-ldzuna zuk bcño obeto dakusanak bidea erakutsi bear leuskizu zurí, Orrazkero, arren-bai-arren, nire aiztearenera zoaz atzera; iraindu egin dozula esan egiozu.

LEAR.—Parkatu dagistala eskatu nik ari? Egoki ta ondo ete datorko sendiri onako ctu, "Alaba maite, autortuten dot zar nazana; (Belaunbiko yarten da) zarrík ezta bear; belaunbiko eske nagotsu soñekoak, oea ta yakiak emon dagistazuzala?".

ERREG.—Asko da, yaun on; maltzurkeri utsak dira orreik; nire aiztearenera zoaz atzera.

LEAR.—(Zutundu egiten da). Iño bez, Erregane; nire yarraigotik erdia kendu daust; arpegi motz-iluna erakutsi; biotz-biotzean yo nau bere oso sugaerenaren antzeko miñagaz; zorientegiak piloan dauzan asper-

kune ta azazkatze guztiak bere buru esker-txarrekoaren ganera yalgiko al dira! Yoten dozuen aideok, meikitasunez yo aren azur guztiak!

KORN.—Olangorik ez, yaun, olangorik ez!

LEAR.—Yusturi bizkorrok, zuon gar itsukorrek yaurtin aren begi gorrotagarrietara! itsusfuaren edertasuna, laño zingira-odoskitzalleok, eguzki indartsuak sortuok, aren ganera yausita aren arrokeria axe-puttez eruteko!

ERREG.—Yainko oneisiok! Orixe gurako dausi-azu zuk niri be zure gogaldi bizia aldean izango dozunetan.

LEAR.—Ez Erregane, zuk ez dozu izango bein be nire ahenik; zure izakera samurrak iño bez etzauz eroango lazkerira; gogorrek dira aren begiak, zureak, ostera, poza emoten dabe, ez erre; zu etzara nik nire pozaldirik izatea niri galazotekorik, nire yarraigokoak urritutekorik, otosz-otoko itzai beste ainbestez erantzutekorik, niri dagokidana urritutekorik eta, azkenez, ni barruratu enadin ateari giltzea emotekorik, obeto dakizuz zuk berezkoaren egitekoak, seme-alabatearen lokarria, adeitasunaren ondorengoak, esker onaren egikizunak; zuk ez dozu aztu ezkontsaritzat nik zuri emoniko nire bakalderri-erdikina.

ERREG.—Yaun on, arira goazen.

LEAR.—Nok imini dau nire gizona egolaxean? (Adar-ots barruan).

KORN.—Ze adar-ots da ori?

ERREG.—Ba-dazaut; nire aiztearena da; sendetsi egiten dau onako onek aren idazkiak dñona, zera, laster izango zala emen.

OSUALDA aurrera.

Ire anderea etorri dok ala?

LEAR.—Yopu da ori ta orrek zorrsan erraz arturiko arrokierian oñarri bakar-bakarra ori darraikion noren maitetasun aldakorra da. Alde nire begien aurretik, kakanarru orrek!

KORN.—Zer esan gura dozu, maitagarri orrek?

LEAR.—Nok yari dau nire otseña egolatxean? Erregane, zuk orretan zer-ikusirik ez dozula nik usle. Nor daior ona? Ene Urtzi!

GENERILE aurrera.

Agurerik maite ba'dozu, iñoak berari men egiterik guru ba'dau zure agintza gozoak, zu zeu zar ba'zara, zeure auzi egin nirea; yartzi ona ta nire alde yari! (Gonerile'ri) Ez zaru lotBatuten bizar au ikusiaz? Ene Erre-

gane, zure eskurik emongo ete dauksazu orreri?

GONER.—Zegaitik emon ez eskurik, yaun? Ze irain egin dot? Ez da irain bereiztasunik-ezak aintzakotzat dauen oro, ezta lelokeriok olan deritoxan oro be.

LEAR.—Ene saietsok, zalegi zarie zuok! Oin-diño be ez ete dozue izten egingo? Zelan eta nok eroan dau nire gizona egolatzera?

KORN.—Neuk iraini dot an, yaun; baña orren okerrak askozaz be begirapen gitxiagogarri izan dira.

LEAR.—Zuk! zuk egin dozu?

ERREG.—Arren, aita, makal zareanazkero, rnakal-antzik izan egizu. Ilebetea amaitu arteño yoan ba'zadiz nire aiztearenera ta an bizi, orduan erdu ona, zure yarraigotik erdia ortik zear bidalita. Etxetik at nago orain eta gertakuntzarik ez dot eginda zuok arzteko.

LEAR.—Atzera yoan agana ta berrogei ta amar gizon ortik zear bidali? Ez, lenago agur egingo dautset aterpe guztiai eta eguratsaren gogorkeri guztiai burruka egin; otso ta mosolloaren lagun izan. Bearraren mokoaren zorrotz! Atzera yoan agana? Ara! ezkontsarj bagarik artu eban Pantez odolberoak gure gazteena; ara ba, ni bardin yoan neinteke ara, belaunbiko yarri aren bakaulki-aurrean eta, mixerraren antzera, egunekoa eskatu bizitza zalarrari eusteko. Atzera yoan agana? Olangorik egin baño len buruan sarrazo egidazu (OSUALDA erakutsi-ala) zaltzain inguingarri onen yopu ta zaltzain izatea be.

GON.—Zeuk zer gura, yaun.

LEAR.—Arren, alaba, ez egidazu burutik eragin; ez dautsut emongo ezeiariko lorrik, ene alabatxo: agur; ez gara gaurtik ara bein geiagolan alkarregaz batuko, ez dogu geiagor alkar ikusiko; baña au ta guzti be nire aragi, nire odol, nire alaba zara zu; edo, obeto esateko, ezin-bestez nire dala esanbearreko nire aragiko gatxa; zaldar zara zu, zauri zakar. garmu anditu nire odol ustelean. Orraitiño nik ez dautsut egingo agirikarik. Lotsaria betor berak gura dauenean, baña nik ez dautsat deirik egingo; tximistarriari ez dautsat esango zu yotekorik, ez eta au ta besterik esango goipeaile Yupiter'eri (11); arteztu zure okerrak al dozuean; zeure erara obeto bizi; nik izan daiket eperik. Erregane'nean egon neindeke ni, ni ta nire eun zaldunak.

ERREG.—Ez, ezetara bez olangorik. Nik ez dautsut deirik «gin oraindik, ez nago gerturilt be zu egokiz atzteko. Nire uiztaari en-

tzun, yaun; eta izan be, alde batetik euren senlzuna ta bestetik zure asarre-urutuak dakusezanak zu zar zareaala dakuse eta aux da euren nasaigarri; eta orregaitik... Berak daki zer egiten dauen.

LEAR.—Ondo esanda ete dago orrako ori?

ERREG.—Atakotzat nago, yaun; zer? Berrogei ta amar yarraile? Ez ete dago ondo? Zetarako dozu geiagorik? Bai, edo olangoren bat, xauketa edo eralketak eta etorri ledikezan galbideak bitsuek batera geiagoren aurka gedarrez eta zarataka daragoiroenazkero? Zelan bizi ledikez etxe berean orrenbeste lagun batera alkarregaz adiskide. nagusi bik aginduta? Zail eta gatx da ori; ezina iarri-larri.

GON.—Zure otseintzea zegaitik ez dozu artzen orrek otsein deituten dauksenakandik, naiz nireakandik?

ERREG.—Zegaitik ez, ene yaun? Zure otseintzan geldo ba'lediz, geuk bideratuko gendukez. Nirera etorri ba'zadiz (orain galbide- sundefa artzen dot-eta), ogei ta bost baño geiagorik ez dagizula ekarri eskatuten dautsut; ortik gorakori ez dautsat nirean elkurik emongo, ezta yaramonik egingo be.

LEAR.—Neban guztia emon neuntsun nik...

ERREG.—Eta emon ba'zendun emon zendun.

LEAR.—Zuok nire yagola, nire zain egin zinduedazan nik; baña zertxo bat itxi neban neugan, zera, onenbeste yarraile izango ne. bazala nik. Zer? Ogei ta bostegaz etorri bear ete dot zugana, Erregane? Olan esan ete dozu?

ERREG.—Ela ostera be orixe diñot, ene yauni bat bez geiagorik nigana.

LEAR.—Zer gaiztoak be on dirudie eurak ba. ño txarragoak aldamentean dabezanean; izan ledikenik eta gaiztoen ez izatea zelanbait goragarri izatea da. (Gonerile'ri) Zugaz yoango naz; ogei ta bost eta beste ainbeste dira zure berrogei ta amarrak, eta zure maitetasuna be orrena lango bi.

GON.—Entzun egistazu .ene yaun; zetarako dozu zure yarrai ogei ta bost, amar naiz bost yoaterik, zuri naierak egiteko aginduta olango bi dagozan etxean?

ERREG.—Zetarako dozu bat bera be?

LEAR.—Bearrik ez da, zuzena baño; gure eskekorik berengo ta zirtzilenak be euren txirotasunean ba-dabe bearreko ez dabenik; ez emon berezkoari bear dauenaz besterik bai, eta gizonaren bizia aberena bestean

merke izango da; andera zara zu; berofik ibilteko bakarrik yantziko ba'zintzaz Ixairo, ba! berezkoak ez leuke zuk darabiltzuzan soñeko txairoen bearrik, orreik berotan ozta-ozta eukiten zauez-eta. Baña benetako bearrerako... Zuok zeruok, epea emon egistazue, epea bear dot nik! Emsn nakusazue, yainkook, agure zruukarri urtez aña lorrez beterik: bitsuetan zori txarreko! Zuok ba'zarie alabon biotzai euren aita onen aurka eragiten dautsezuenak, ez nagizue ergeldu au otzan-otzan eroateraño; asarre zindoz ukutu nagizue, eta ez itxi emakume-izkilloak, negar-tantanak, nire matrallarik bustiten! Ez. berezkoaz besterako sorginok! Zuo-kaz azazkatuko nazanagaz mundi guztia... Nik egiteko dodazan zerak zeintzuk eta e-langoak izango dirctnik neuk be ez dakit eraindiño, baña lurra ikaratutekoak izango dira. Negar egingo dodala uste dozue zuok; ez, ez dot egingo negarrik. Negar egiteko eskubide osoa dot izan, baña nik negarrik egin baño len nire biotz au eun milla bider urratuko *da*. Ai, ergel, burua galduko yoat! (Alde dagie LEAR, GLOSTER, KENT, eta ERGELAK. Ekatxa entzuteu da urrinean).

KORN.—Barrura goazen; ekatxa dator.

ERREG.—Txiki da etxe au; agurea ta bereak ondo etzateko lekuri ez dago.

GON.—Bere erru da; berak aldendu dau bere burua atsedenetik-ela, bere zorakeria txaslatu-bearreko da.

ERREG.—A bera pozik artuko neunke nik, baña aren yarraierik ez bat be.

GON.—Orixe da nire gogoia be. Non da Glostern nire yauna?

KORN.—Agurearen atzetik yoan da atetara; etorri da atzera.

Atzera dator GLOSTER.

GLOST.—Asarrez irikiten dago errege.

KORN.—Nora yoak?

GLOST.—Zaldi-ganeratu dailezala agindu dau, baña ez dakit nora doakenik.

KORN.—Berea egiten iztea da onenar ak ez dau gura iñok bidea erakusterik.

GON.—Ene yaun, ezetara be ez eskatu ari emen gelditu daitenik.

GLOST.—Ai ene! gaur dator ganera, eta seguru boñio seguruago axe indartsuuk latz ibiiteko dira; milla ta millen borruan ozta-ozta dago txaraka bat bera.

ERREG.—Ene yaun .eurak billatzen dabezan okerrak izan bear dabe gizon burukeritsuen irakasla. Itxi zure etxeko atepak; edozein okerri egitekoak yatzuz aren lagunak; eta aik aren belarrira iñondikoak esanda a zetara itzuli leikienik ez dakigu-ta, bildurra-aren aldeko da zurtasuna.

KORN.—Itxi zure atepak, ene yaun; asarre da gabaro au; on da nire Erregane'n onua; alde ekatsetik, (Alde dagie).

### III EKITALDI

#### I AGERLÍ CU.-Inarradí.

Ekatx, ostots eta yusturiak. KENT eta ANDLKI bat auirera, trikitx eginik.

KENT.—Nor da or, egualdi zakarrak besterik? ANDIK.—Egualdiaren gogaldi berekoa, artega-artega dagona.

KENT.—Ezagun aut. Non dok errege?

ANDIK.—Izaki asarreaz burruka; puzka lurra itsasoratuteko, edo-ta ur bizkar-sakostatsua legorra baño gorago eragi dagizala axearl aginduten yaragoiok, zerak aldatu edo ezersztu daitezcan; bere ule urdinak sustarretik ateraka yabilk eta axe-bolada Indartsuak asarre itsuz aurrean arturik, sakabanatu egiten dabez; irri egiten yautsek bere giza-mundutxoan atzera-aurreka alkarregaz burruka gorrian daragoioen axe ta

eurriari. Artz ume eglbarrla bere etzategian gelditu ta leoiak eta sabel-zorriduu otsoak narrua legor leukakien gau onetan arin doa a burutsik, eta dana aurrean eroatekoar' daiez daragoio.

KENT.—Baña nor yok laguntzat?

ANDIK.—Ergelaz besterik iñor fceez; eta erge. lak bere izkirimiriz irain bioiz-urakorra geiago egitsn aleginak alegin egiten yozak.

KENT.—Yaun, ezagun zaudaz nik, eta ezagun zaudazala-ta, biotzetiko zertxo bat zuil iragarten azarten naz. Ara, bataren eta besteren maltzurkeriz zer ori oiniño agirian egon ezarren, alkarregandik banandurik dagoz Albani ta Kornuol; otseñak dabez aik (eta zori onak bakaulki ta goietan

imini dauzanetatik nok eztazu?); otseñok otseinarena orregaitik bape txartoago egin ezarren aldi berean Pantze'ren aldeko barrandari ta gure erri-egokerearen usmatzalle zur dira; dukeen sur-tabakorri-ontzietan naiz zorroetan ikusia dala; edo-ta biak errege zar-onari ten ezarri dautsoezan agogalak dirala; edo-ta aurreko zerok osagarri baño elxakozan zer sakonagoen bat dala... Baña egia da indarra datorrela Pantze'tik bakalderrri zaitu ta sakabanatu onetara; gure zabarkeriaren yakiton diralarik, indar ori dagoneko. ixil-muxilka, gure itsas-kairik onenen baten oña yarririk da, oña yarririk eta euren ikurrina zabal-aginik. Auxe zuri orain; nire esana sinistu ta ganetikoa zeuie iudimenaii irudituzorik, Dovei' era arin egin ba'dagizu, esker oneko agertuko yatsun norbait aurkituko dozu ctn; bai eskai oneko agertuko yatsuna, erregek, zuzenez alakatuteko, zelango naibage berezkoaz besterako ta zorakona dauen aii ira-

garri ba'dagiozu. Andiki nozu ni bai yaiotzaz, bai azikeraz; eta neuk dakidanagaitik eta zugan dodan uste onagaitik ezarten dot zugan egikizun au.

ANDIK.—Geroago itz egingo dot zugaz.

KENT.—Ez egin olangorik. Ni nire narru la antzak diñoena baño geiagorik ba-naza!a sendoago yakin dagizun, sakel au idigi ta barruan dagona artu. Kordele ikusi ba'dagizu, ta ez dot ikusiko dozunaren ezpairik, erestun au erakutsi ari, ta berak esango dautsu nor dan zuk oindiño ezagun ez dozun lagun au,, Ekataxaren denganiño! erregeren billa noa ni.

ANDIK.—Zure eskua ekadazu: besterik ez ete dozu esateko?

KENT.—Itz gitxi, baña esanak baño mami-tsuagoak, egitekoaz. Errege idoro dagigunean (eta orretarako zure laguntzearen eske nagotsu, guk biok bide baña arturik) a lenen idoro dagianak besteari "Kaxo!" zarata egin dagiola. (Bide bona arlzen daba).

## II AGERLEKU.-Inñarradiko b. ste arlo bat. Ba-darrai ekatza.

LEAR eta ERGELA auriera.

LEAR.—Putz, axeok, eta íztenak eragin zuon matrallai! Asarratu! Putz egin! Uguxok eta axe-boladok, gure yoale-torreak urperatu ta axe-orraztak ito arterañoکو uriolak egotzi! Su andurtsu oldozpena bestean bizkorrok, aretxak brintzatuten dabezan oñaztarriak arro daroazuezanok, erretarindu nire buru zuia! Eta ik, zer guztiak ikaratuten dozakan ostots orrek, yo ta opildu egik ludiaren borobiltasun lodia! Zuzitu egizak berezkoaren eredu-ontziak, bertatik lurrera erionazo esker txarreko gizona egiten daben azi guztiak!

ERG.—Osaba, zurikeri-ur onetsia etxe legorrean oba da, euri-ur au atetan baño. Barrura, osaba on; zure alaben onespena eskatu; gau onek ez dau ez gizon zurren. ez eigelen enukirik.

LEAR.—Astiapalak ateia sabel bete onek! Su ori, burrunzi goriak sartu! Uriolak eta urutuak egotzi, euri orrek! Ez da ez euririk, ez axerik, ez ostotsik, ez surik! niie alabak dira; izadiko zerok, zuoi ez dautsuet ezarten esker txarreko izate-akatsik eta errurik; eguño ez dautsuet emon nik bakalde-iririk, ezta zuoi nire ume deitu be; niri ez daustazue zor nire esaneko izaterik; nire ganera yausi bedi, beraz, zuren aukera ta gogaHi ikaragarria: emen nozue ni, zuon yopu, agure ezeuki, makal, mengel eta eze-

tarako eztana; baña a ta guzti be bende-ko esanekoegi deitu bearko zindukiedaz niie alaba galganiekuz bat eginik goietan sorturiko zuon ekinak nu lango buru zar eta zuriaren aurka yoten dauelako. Ai! ai! Ckristakeri andia da au!

ERG.—Buru-estaldi ona dau buma barruan sartzeko etxerik dauenak.

Buruak areanik izan baño len  
Parka-atakeak etxerik gura ba'dai (12),

(12) Lenagoko gizonen parkak ez zircm oraingcenak laogoxe langoxeak. Oraingo gizonak prrkko aurre-aldean daben epaiu bo toiz islen dabe, ta. kitu; baña lenagoko parkak aurre-aldeko epaiu estaltzeko beste oial-zati laukotu bctt izafen eben, be-aldetik parkai yosia ta goaldean arako epaioren aldea banatatik botoiz estuten zana. Oñati'n olango parkaí "eusk-aldun-parka" eresten ei dautsoe eta cmgo seme batek esan edo idatzi eus'.anez, txapelokerrak oindño be yai andietin olangoxe parkak ercbilten ei dabez arrokizuntzat-edo. Dana dala, ni ume nñtzonean, bai gure aitak, bai beste gizonak, olangoxe parkak erabilten ebezan. Orraitiño be gu ume gintzazala il zan ekandu ori. Orretariko parka-atakeari Ingelc.ndarrak "cod-pie-ce" deretxe, eta ziur-ziur, Shakesp&are'n al-dian olcmgoxe atakadunak ziran parka guztiak.

Biak Izango dira zorritsu.  
 Olan ezkonduten dira eskeko asko.  
 Bere biotza egin bear leuena  
 Bere beatza dagian gizonak  
 Zañarragaitik ai ene gedar egingo dau,  
 Eta lo-ordez atzarrik egon.  
 eta izan be, eguño ezta izan ispillu-aurrean  
 aierurik egin ez dauen emakume lirainik.  
 LEAR.—Ez, epe-epearen eredu izango naz, ez  
 dot deusik be esango.

KENT aurrera.

KENT.—Nor da or?  
 ERG.—Aiko, eskarra ta parka-atakea dozak  
 emen: gizon zur eta ergel.  
 KENT.—Ai ene! yaun, emen zauguz? Gau-  
 zaleen artean be ez dctgo onango gaurik  
 maite dauenik; ortze asarreak bildurtu egi-  
 ten dabez ilunbe-ibiltariak eurak be, ta  
 ©uren artzuloetan geldituazoten dautse; gi-  
 ziondu uintzanazkero ez dot onango su-iza-  
 rarrik, onango odei-ots itzalik, onango euri  
 ta axe irrintzilarien negarrik egurio entzun  
 izan dodanaren gomutarik; gizonaren berez-  
 koak eroan ezin-aleko naibagea ta bildu-  
 ira dira oneik.  
 LEAR.—Gure buruen ganean astrapala ika-  
 ragarriok aterta ta aterta daragoioen yain-  
 ko andiak idoroko ul dabez orain euren  
 arerioak. Ire oksrrieriak ire barruan ixil-ez-  
 kutuan eta zuzentzeak iri narrua berotu ba-  
 garik dozakan zori txarreko ori, ikaratu adi  
 orain; ostondu egik ire burua, esku odol-  
 tzale orrek; zin-ausie, azalez ekandu one-  
 ko ta izatez senidekeritsu ori; zistrin ori,  
 alango ori, iñok ikusteka, orretarakorik ez  
 azala azalez erakutsirik giza-biziaren aur-  
 ka yokatu dokan ori, ikuraka zutitu adi; on-  
 tzi ondo-ondo itxiau zagozen erru-gaiztake-  
 riok, brintzatu, arrakaldu euren barruan  
 zaukiezan ontziok, eta iragarla ikaragarrioi  
 erruki ta esker eskatu gedarrez. Gizon oben-  
 ginik baño iñok niri oben eginago naz ni.  
 KENT.—Ai ene, buru utsik! Ene yaun maita-  
 garri, ba-dago estalperik emendik ur; adis-  
 kidetasuna opatu ta emongo dautsu ak  
 ekatxaren aurkarako; atsedean artu egizu  
 an, bere ormetako arriak baño be gogorra-  
 go dan etxe onetara oraintsu baño orain-  
 tsuago zure alde eske yoanda barrura sar-  
 tzen galazo dausten etxe onetara yoan eta  
 euren adei apurra indarrez nik lortuten do-  
 don bitartean,

LEAR.—Argituten asl da nire burua, Tirok,  
 mutil; zelan ago, mutil? Otz az ala? Ni  
 neu be otz nok. Non dok arako legorra, ene  
 lagun? Iñondikoa dok gure bear-izanen bu-  
 rubidea, zer zirtzilak eder egiten yakik-eta.  
 Oa, ire dok txabola ori. Ergel eta zital erru-  
 karri, ba-yoat oindiño biotzean txatal bat  
 ire erruki dana.

ERG.—(Abeska)

Buru-argitasun apurrik idaeua  
 Ai! axe ta euriekaz adiskidetu  
 Bedi, bere zoriari dagokozanak dira-ta.  
 Naiz-ta egunoro euri izan.

LEAR.—Egia dok, mutil. Tirok, arako estal-  
 pera eroan gazizak. (Alde Lear eta Kent'ek).  
 ERG.—Urdangarik be otzituko leuke gau asa-  
 rre onek.

Yoan-aurretik igarri au iragarriko doti  
 Abadeak itzez izatez baño abadeago izan  
 daitezaguean,  
 Garardoginak garardoari ura egin dagioe-  
 nean,  
 Andikiak euren yostun-yagofatu dadizanean,  
 Siniskai-ukatzallerik bagarik, neskazaleak  
 erre dadizanean,  
 BJozein auzi legezko izan daitenean,  
 Guda-gizonek zorrik ez. eta andiki uzeukl-  
 rik ez dadinean,  
 Miñetan irainik izan ez daitenean,  
 Sakel-lapurrik giza-mordoratu ez dadinean,  
 Lukurleruek euren diruak zelaian zenbatu  
 dagiezanean,  
 Neska-zale ta urdangak yauretxeak eragi  
 dagiezanean,  
 Nasketa andirik izango da orduan Albion'  
 go bakalderrian;  
 Orduan ikusiko dau bizi danak  
 Gizakiak oñez ibiliko dirala,  
 Aren aurretik bizi naz ni-ta,  
 Merlin'ek (13) egingo dau iragarkiuzn au.  
 (Alde dagi).

(13) Galetz (bertakoak euren izkuii'zcní  
 Cymry eresten dou-tse) dalac errian, Esko-  
 landa tct Irrgelanda'n entzuie andiko yatsun  
 Merlin dalako cm. Sorgin eta igarla, biak ba-  
 tera ei zan. Erri orreitako ipuin zarrak diño\*-  
 nez, 5'kn. eta 6gn. gizaldian bizi izon ei  
 zan Vortigern eta Arthur erregefn yauregie-  
 tctn. Txerrena iartekc izan ei zan Merlin onen  
 ^orkeran.

## III AGERLEKU.—GLOSI í'en Gazteluko txoki.

GLOSTER eta EDEMUNDA aurrera.

GLOST.—Ai ene, ai ene, Edemunda, berezkoaz besterako yarduketa au ez yatak begiko. Gizonaren erruki izateko euren ederretsia eskatu dautsedanean, neure etxea neuk erabiteko eskubidea ukatu egin dauste: betirako asarreagaz zemaitu nabe; ari itzik ez dagiodala egin, aren alds eskakizunik ez dagidala egin, ta ezetara be etxe onetan ez dagiodala eutsin.

EDEM.—Basatikeri itzal eta berezkoaz besterakoa.

GLOST.—Aiko; ik ez egik ezer esan. Alkarre-gaz aitu-ezinik ba-yagok dukeen artean; baita ori baño txarragorik be; arrats onetan arlu yoaf idazki bat; kaltegarri dok onako onetzaz itzik egitea; nire etzalekuan ostondu yoat idazkia; euren asperkunderik izango yoek srregek artzen dauzan irai-

nok; indarraren zati bat dagoneko yagok oña lur onetan yarririk; erregeren aldeko izan bear yoagu. Aren billa naioak, neure kitetik ari lagunduteko; oa i ta dukeakaz autuka ekiok, a nire errukiari oarlu ez dakion; nitaz itandu ba'dagi itandu, ni ondoezik nagola ta oera yoan nazala esan egiok. Orregaitik il ba'nadi, zemaia orixe baño txikiagorik ez danazkero, lagundu-bearreko dok nire ugazaba zar errege.. Iñondiko zerak dozak ur, Edemunda; arren, arduraz abil. (Alde dagi).

EDEM.—Iri galazotako begirapen-adei orren barri berpetatik yakingo yok dukeak; eta bai idazki orren barri be; agiri danez, otseintza bikain izango da au, ia niri ekarriko daust nire aitak galdu dagiana (dana baño ezer bez gitxiagorik); gazteagoa yagiten da zarra yausten danean. (Alde dctgi).

## IV AGERLEKU.-Iñarradiko arlo ta estalpe ber-berak. Ba-darrai ekatxa.

LEAR, KENT eta ERGELA aurrera.

KENT.—Au da arako tokia, ene yaun; sartu, ene yaun on; berezkoak yasan al izateko gordinegi da iegorrik bagako gau onen gogorkeria.

LEAR.—Yaramonik ez egidak egin.

KENT.—Ene yaun on, ona bsrrura zatoz.

LEAR.—Biotza ausi gura daustak ala?

KENT.—Gurago neunke neurea ausi; ene yaun on, ona barrura zatoz.

LEAR.—Askotaai dok ik ekatx setati au gure narrura eltzea; olan dok itzako, baña gatx txarragorik yosita dagon tokian txikiagoari ozta-ozta oartuten yakok; artzagandik alde egin einke ik, baña itsaso asarreari ige-sika ba'enbil, artzaren ago-agoan yoko eunke. Gogoia bere buru-yabe danean, makal dok soña; nire buruko ekatxak bezaz besteri ezin oartu al izateko, sogor egiten yozak soñeko somenak. Seme-alaben eskertxarrena! yana daroatson esku au urrututea langoxe ez ete dok orrako ori? Baña zigorra be zigor erabiliko dot nik; ez, negar geiagorik ez dot egingo. Onango gabaroz atek itxi niri! Erregae, Gonerile'ok! Bere biotz zabalak dana emon eutsuen zuon aita maítaberea... Oi! burua galtzera noa bide orretatik; alde dagidan ortik; gelagorik oz orreíaz.

KENT.—Ene yaun on, ona sartu.

LEAR.—Arren, eu sartu adi; eure naieres bllatu egik; ekatx onek ez daust eniongo geíago minduko ninduen zerik ausmertuteko baimenik. Bafia sartuko nok. Barrura, mutil; (Ergelari) t lenen. Etxerik bagako txirotasun ori, bai, sar adi. Arren egingo yoat nik bein, gero lo. (Barrura doa Ergela) Gizagaxo billuts errukarriok, nonbaiten zagozenok, errukirik bagako ekatx oneri orrika eragiten dautsazuenok, etxerik bagako zuon buruak eta saiets goseak ilak, zuon sorki zulotsu-leiotsuak zelan yagongo zauzez onango eguaroetatik? Ene! onako onen ardura gitxi izan dot nik! Ire osakaia artu, andikeri! ire burua yarri zori txarrekoak so egiten dabena euk so egiteko, bearreko ez dokana ire buruari kendu ta ai emoteko, ta zeruaren aurrean zuzenc'30 agertuteko, EDEGARTA (barrucrn).—Kana ta erdí, kana ta erdi! Toma gaxo!

(ERGELA ariñekstan dator aterpetik atetara)

ERG.—Ez etorri ona, osaba, beste mundukoren bat dago emen. Lagun zakidaze, lagun zakidaze.

KENT.—Eskua ekadak. Nor dogu or?

ERG.—Beste mundukoren bat, beste mundukoren bat: Toma gaxo deretxola diño.

KENT.—Nor augu or lasto artean zinkurinka abilen ori? Urten adi.

EDEGARTA aurtera, zoro-kokomarroturik.

EDEG.—Alde! txerren zikina dabil niie ya-trai! Elotti atantzatsua zeat putz dagi axeak.-Uf! ite oe otzera oa ta an berotu adi.

LEAR.—Enduan oro ite alabai emon euntsen ala? Eta oitetaiaño eldu az?

EDEG.—Nok emongo dautso zerbait txerren zikinek su ta ganak zeai, ubi ta zununbilloak zear, iztinga ta osinek zeai erubili dauen Toma gaxoari? Aiztoak imini dautsoz txettenak butupekoan, eta begitenak txizeluan; sagutzar-kototzak bete lapikoa-ten aldamenean; biotz-arro egin dau, zaldi uxo tapa-tapalarien ganean lau atzondoko zubiak igatoteko, eta au bete itzalati yartaiteko, azpi-yaleen bat ba'litz legetxe. Yaungoikoak onetsiko al yozak ite bost somenak! Otz da Toma. Ui! do, de, do, de. Yaungoikoak aldenduko al yozak igandik zurrunbilloak, izai-gatxepenak eta aitzak! Soroskiren bat emon Toma gaxoari, txenen zikinak estu dakat-ta; ot etu emen al neu oiain nik a. eta banien-batti ot!

Ba-darrcri ekatxa.

LEAR.—Zer? Bere alabak ekani ete dabe egokera orretara? Ezin gorde izan enduan ezer? Oro emon euntsen?

ERG.—Ez, artillezko izara bat gorde ebai beretzat, ostantxean guztiok gintzatekez loutsaritan.

LEAR.—Zoriak, gizakien okeiren ganera yausteko, eguratsetik dingilizka dauzan gatxatiak etorriko al dira otain ire alaben ganera.

KENT.—Alabarik ez dau orrek, yaun.

LEAR.—Eriotzea saltzalle ortei! Bere alaba maitetasunik bageaz bestek ezin eratsi eikean betezkoa otten beetaño. Ekaniuen bat ete da gutaso bazartuak euren aragiari onen yaramon gitxi egitea? Zigor zuzena! aragi onek sortu ebazan pelikan-alaba aik.

EDEG.—Pelikorotz-mendian yezanita egoan Peli Korotz (14); eupá, eupá, ia, ia!

ERG.—Gabaio otz onek guztiok ergeldu ta zotatuko gauz.

EDEG.—Kontuz txerten zikinaz; ite gutasoen esaneko izan; eutsin bein zuzenez emondako itzari; zirik ez egin; ez kutsatu zinez inoren emazte danagaz; yantzi anoten bendean ez yairi ite biotz maitea. Otz da Toma.

LEAR.—Zer izana augu?

EDEG.—Anderazkozale uts izana nozu. bio.

tzez eta butuz arro; nire maitearen biotzeko likiskeriaren otsein izaten nintzan, eta ilunbeko egitekoa egiten neban beragaz, iztatan aña zin egiten neuntsan, eta zeru maitagarriaren arpegi-arpegitan zinok ausi egiten nebazan; likiskeri-asmotan artzen nindun loak eta egiteko atzarten nintzan, ardaozale amurrutu nintzan, eta atzenik bagako yokalari; eta emakume ezkonduak maite izaten Turkarrik baño geiago nintzan; biotzez guzurti, belarriz arin, eskuz odolti; nagiketiz titarri, ixilka-muxilkaz azeti, saloketiz otso, asaitekiz zakur, lapurretaz leoi. Oskien kirrikeak eta sedearen zara-zareak ez al dautso emakumeganako azpi yanik egingo zure biotzari; alde zure oñak emakume galdutegietatik, zure eskua inoren sakeletik, zure idazkortza dirua zorrean aurreratuten dabenen idaztietatik, eta eupada egiozu txerren zikinari. Axe otzak puzka daragoio oindiño elorri artetik; juum diño; ortik zear doala txaka-txaka. (Ekatxa ba-darrai oindiño).

LEAR.—Orrazkero, ortzetiko gogorkeri itzal oneri billusik erantzun baño oba litzakik ire ilobira sartu. Gizona ez ete da au baño besterik? Ondo aztertu egik. Ik ez dautsok zor sedarik arrieri, narrurik abereri, ulerik ardiñi, sunda gozorik katurri. Aro! iru dira emen inoren antza arturik! I az i zera bera; bereaz besterik bagako gizona ez dok besterik i lango abeie oinbiko, txiro, billutsa baño. Oitik zeai, oitik zeai zuok. inok zotrean emonok! Ia, erantzi emen. (Soñe-kockr urratuten daragoio).

ERG.—Arren, osaba, asko da, bego; gabaro txarra da au uger egiteko. Zar likitsaren biotzaren antzeko litzateke orain su-apur bat zelai ulduan... txatartxo bat, ganetiko oro otz bere soñean. Begira, emen dator ibili dabilen sua.

EDEG.—Txerren zikin Parkagorri yatsu ori; iluntze-yoaleaz asten da, ta ollarrak lenengoz yo arte ibiltzen da; orrek emoten dauz begietako gatxak, orrek okertuten dauz begiak, eta ezpanak erdibitu; garí zuria eldekorritu ta galbakotu, ta Iurreko izaki gaxoai gatx egiten dautse.

(14) Pillcock diño gure Shake-speare'k. Uili au be eskeko ezogun-egagunen bat nire ua'e2. Pelikoroiz idaizi dot nfk, eskel-usain geiago izan detgictn, beste usainik be zabsl duarren izen onek.



Iru bira egin eutsazan munduarí Bital'ek;  
(15)  
Ameseragille'gaz eta aren bederziaziaz tri-  
kitx egin eban;  
Zaldi-ganetik yasteko ta  
Ezkontza-itza emoteko agindu euisan,  
Eta ctik, ortik zear oa, sorgin, ortik zear oa,  
erantzun.

KENT.—Zelan zagoz, mailagarri ori?

GLOSTER aurrera, zuziagaz,

LEAR.—Zer da a?

KENT.—Nor dago or? Zeren billa zatoz?

GLOST.—Nortzuk zarie zuok? Zuon izenak?

EDEG.—Toma gaxo; ugaraxo ugerlari, kun-  
kun, sapaburu la sugelindarak yaten dauz  
ta ura edan; txerren zikina asarre da-  
nean, biotzeko suminez, pekorotza yaten dau  
gatzozpinduntzat; sagutzar zar eta areka-  
txakurrak irunsten dauz; ur geldi-ganeko  
mintz muskerra edaten dau; amarrenetik  
amarrenera (1B) zigortau, egolatxean imini,  
narrua berotu ta ilunberatu egiten dabe;  
bere bizkarrerako irutsuk soñeko, bere so-  
ñerako sei atorra, ganean ibilteko zaldi, ta  
aldean erabilteko iskilloko izana da:  
Baña zazpi uilean Toma'ren yanari  
Sagu, sagutzar eta olango orein txikiak  
izan dira.

Kontuz nire yarraileaz. Ixilik, Txerrenko; ixi-  
lik, txerren ori!

GLOST.—Zer! ez ete dozu maitagarri orrek  
lagun obarik?

EDEG.—Andikietariko da ilunbeko nagusia;  
Txerren eresten dautsoe, bai Txerrenko ta  
Parkagorri be.

GLOST.—Gure aragia ta odola zistrin be zis-  
trin egin dira-ta, berak sortuari be gorro-  
to dautso.

EDEG.—Otz da Toma gaxoa.

GLOST.—Erdi barrura nigaz; nire egitekoak  
ezin yasan daike edozetan zure alaben  
agindu gogorrai men egiterik; nik nire  
ateak istea ta gau indarkeritsu onek zuri  
aginak ezartea izanarren arein agindua,  
zuie billa etortzen eta zu sua ta yana ger-  
turik dagozan lekura eroaten atomau naz.

LEAR.—Beinen pilosopizale onegaz itz egi-  
ten itxi egistazu. Zegaitik da ostots?

KENT.—Ene yaun on, artu orrek eskeñaia; etxe-  
barrura zoaz.

LEAR.—Itz banaka bat egin gura dot Tebai'  
tar (16 bis) yakintzu onegaz. Zeri dara-  
goiok?

EDEG.—Nire burua txerrenagandik zelan ya-  
gon eta gosea zelan ilgoari.

LEAR.—Gu biok biotara iri itaun bat sgiten  
itxi egidak.

KENT.—Beste bein eska-eska egiozu zugaz  
doala, ens yaun; lokatuten asia da orren  
burua.

GLOST.—Ete dok orrako orren errurik orri  
ezarteko biderik? Orren eriotza-billa yabil-  
tzak orren alabak; ai! Kent on arena! onan-  
txe yazoko zala esan eban ak... eta orain  
eibesteraturik a gizon gaxoa! Burua galdu-  
aginik dagola errege diñok ik; adiskide,  
neu be burua galdu-aginik nagola esango  
dauskat; ba-neban nik semerik, orain nire  
odoletikotzat ukatua; niri bizia kentzeko as-  
motan ebilen a oindiño oraintsu-oraintsu;  
maite neban nik a, adiskide... aitek ez ez  
maiteago semerik nik a baño; egia diraus-  
kat (Ba-Jarrai ekotxa), naibageak eraso  
yautsak nire buru-argitasunari.—Au dok ga-  
baroarena! Arren, bai, arren dagiot zure  
maitagarritasunari...

LEAR.—Ui! gedarrez errukia eskatu egik.  
yaun. Pilosopizale zindo, lagun akit.

EDEG.—Otz da Toma.

GLOST.—Orra bairura, lagun, aterpera; bero-  
tan ago.

LEAR.—Ator. guztiok goazen barrura.

KENT.—Emendik zear, ene yaun,

LEAR.—Orregaz batera; oindiño nire piloso.  
pizaleagaz yarra gura dot.

KENT.—Ene yaun on, berera yარი zadiz; da-  
roala laguna beragaz.

GLOST.—Euk artu ta ekarri egik.

KENT.—Goazen, txotxo; gugaz ator.

LEAR.—Ator, Azenai'tar (17) on.

(15) Mamu eme yalsu Ameseragile dalako  
au. Lotan dagonaren ganeai yezarrita itote-  
ko aleginak egiteri ei dauz.

(16) Auzo-epeitegi zan **amarren** Ingelan-  
da'n. Auzorik auzo zigortuten ebela esm qu-  
ra dou anem Edegarta'k.

(16 bis) Agito'ko antxitiiaiko uri da Te-  
bai. Kisto-aldiko lenengo gizaldietan ainbat  
kistar bizi ziran bakarka txozna banatan UT!  
orren ingurumarioian, eta euren soñari laz-  
tasun itzalak yasanazoten eutsoezan, eta bi-  
zi be erdi-billutzik biziten ziren, *au* dala-ta  
dakar arira Lear'ek uri au.

(17) Lenagoko Elade'ko uri entzutetsu ta  
oraingo Elade'ko uri-buru da Azenai (Athe-  
nai). Araaikatxo yakintzazale ibili zan beño-  
lako Azenai'ko etxarte-bideak zeorr eurak  
ekiena iñori irakatsi-bear gorrian, euren ar-  
teko bat Sokarte ospitsua zala,

GLOST.—Itzlk ez, Itzlk ez; htl!

EDEG.—Errolanda mutikoa gaztelu llunera el. du zan

Bere itza beti au zan; Alde, alde, alde Biritandar odol-sundea da amen (18). (Alde dagie).

#### V AGERLEKU.-GLOSTER'en Gazteluko tocokl bat.

KORNUOL eta EDEMUNDA aurrera.

KORN.—Azazkatuko naz arenetik alde egin-aurretik.

EDEM.—Ene yaun, berezko maitetasunari baz-tarrera eraginik zintzotasunaren alde yarri nazalako ez dakit inok zelan txarretsi naiken, baña orrako orren bildurrik arean bat-dot.

KORN.—Orain oartuten natxakok zerari, ire anaiearen asmo txarra bakarrik etzala izan a aren biziaren bi'la ibiltearen errudun, ari orrako ori eragiten eutsana goragoko asmoen bat baño, zera, gaiztakeri iguingarri ori itotea.

EDEM.—Ondo gaiztoa da nire zoria be, zu-zen izateaz garbaituazo egiten daust-eta! Au da ak aitatuturiko idazkia, ta onek darakusanez, Pantze'ren aldekoetariko da a

be, Zeruok! Ez al litz au azpikeririk eia, izatekotan, ez al nintz ni onako onen yakl-tun.

KORN.—Dukenoagana ator nigaz.

EDEM.—Papel onek dauena ziur izatekotan, arazo astuna dozu eskuetan.

KORN.—Egi naiz guzur, Gloster'ko konde egingo au i orrako orrek. Ire aitaren billa oa, guk eskuak ezarteko gertu izan dadin a.

EDEM.—(Beretzako) Errege zuzpirtuten aurkitu ba'dagit, geitu egingo da aganako susmo txarra. Nire zintzotasunaren bideari ekingo dautsat, naiz ta aren eta nire odolaren arteko burrukea mingor izan.

KORN.—Nire ustea igan yarten yoat; eta ik aita maitakorrakorik aurkituko dok nire maitatusanean. (Alde dagie).

#### VI AGERLEKU.-Gaztelu-altámeneko Baserri txoki bat.

GLOSTER, LEAR, KENT, ERGELA ta EDEGAR-TA aurrera.

GLOST.—Atetakoa baño toki ohea da au; eskar onez artu. Al dodan eraskinez osotuko dot zure naierea; laster naz atzera be zuokaz.

KENT.—Berorren eperik-eza dala-ta, men eta oben egin dabe orren buruko indar guztiak; yainkoak ordainduko al dautse zure biotzonekotasuna! (Alde Gloster'ek).

EDEG.—Anaitxo deituten nau, eta Neron ilunbe-aintzirako aingiralari dala diraust. Arren egin, erruga, eta zur egon txerren zikinaz.

ERG.—Arren-bai-arren, osaba, andiki ala erriko-seme dan gizon zoroa esan egidazu.

LEAR.—Errege dok, errege!

ERG.—Ez; erriko-seme da semetzat andikirik dauena; bere aurreko semea andikitat arfzen dauena erriko-seme zoro da-ta.

LEAR.—Euren ganera, sur-oska, burrunzi go-riakaz amar eunekori etorriazoteko...

EDEG.—Nire bizkarrari uska daragoio txerren zikinak.

ERG.—Zoro da otsoaren otzantasunari. zaldia-aren osasunari, mutilen maitetasunari naiz emagalduren zinari sinisten dautsana.

LEAR.—Bai, egingo da; bertatik salatuko do-

daz. Ator, emen yezarri adi i, epaile yakitun-yakitun ori (Edegarta'ri); i, dana dakikan yaun, emen yezarri adi i (Ergelari). Zuok, azeri emeok orain!

EDEG.—Ara! non dagon zutunik eta begietatik sua dariola! Epaileak erre bear ete dozuz, andera? Atorkit, Elixabete, errekatxuganetik...

ERGE.—Zuloa dau no orren ontziak

Eta ez dau esan bear

Zegaitik ez dan azarten zuganaututen.

EDEG.—Toma gaxoaren billa dabil txerren zikina, urretxindorraren abotsez. Sardin bari biren eske yantzan dabil Toma'ren sa. bela. Ez egin garrankadarik. gotuts baltz; itzako yatekorik ez yoat nik.

KENT.—Zelan zagoz, yaun? Ez egon zutunik olan arriturik. Ez dozu etzan gura ta burupekoen ganean atsedean aitu?

LEAR.—Euren epaibidea ikusi gura dot lena. go.-Argibideak ekarri. Ik epaile-soñekodun gizon orrek, ire yezarleku artu egik (Edegarta'ri); eta ik (Ergelari), orren zuzentza-

(18) Euskeldunak 8'gn. gizaldian Naparroa' ko Orreag'tn benderaturiko Pantzetar gi^a-gurena yatsu Errolanda dalako au.

lagun az-eta, orren aldameneko yezarlekua artu egik; eskubidedun zarie; i be yezarri adi (Kent'eri).

EDEG.—Zuzen yokatu daigun, Lo ala atzarrik ago, artzai txitxari? Garitzan yagozak irs ardiak; eta ik ire agoaz txistu eginanen, ardiak ez yoeck minik artuko. Puirr! urdin da katua.

LEAR.—No au salalu lenen; Gonerile da. Emen batzar adeigarri onen auirean zin egiten dot orrek bein enege gaxo beie aita ostikoka erabili ebala.

ERG.—Erdi ona. etzandera. Gonerile dere-txatsu?

LEAR.—Ezin ukatu daike ori.

ERG.—Errukl-eske nagotsu, giltzadun aulkltzat artu zaudaz-eta.

LEAR.—Eta emen dago bestea, beronen zear-begirakuneak onen biotza zetariko geigaz egina dan aldarrikatuten dauena. Gelditua-zo or no orreri! Izkilliak, izkilliak, ezpata, su!-Ustelkeria dogu leku onetan! Guzurrezko epaile, zegaitik itxi dautsak no orreri iges egiten?

EDEG.—Adimena yagongo al dautsu zeruak!

KENT.—Ai ene! yaun, non dozu zuk ain sarri-tan zure arrogarrizat aiatu izan dozun epea?

EDEG.—(Bere'zako) Onen aldeko niie nega nak samunegi egin diia-ta, alpenik galduko dabe aituiik dodan iñoien iuidia.

LEAR.—Txakuitxoak ezeze. Goni, Zuii ta Buztanmotxo'k be ikusi zelan ausi egiten daufen.

EDEG.—Beie buiua egotziko dautse Toma'k.-Erdue, txakui zistiinok!  
Ire mustuna zuii naiz baltz izan,  
Edena saitzekoa ire agina, usigitekotan;  
Mastin, xailango, etxetxakur uxo,  
Etxelxakur nai txakui uletsu, etxetxakur eme nai odol-txakui.  
Txakui buztanmotz nai txirrinka-buztan...  
Irrintze ta negar eragingo dautse Toma'k;  
Onan nire burua egotziazkeru,  
Beko ate-ganetik yausi eginda, guztiak ige-sí doaz-eta.  
Do, de, de, de. Axa! Ale! Ale! yaietara yoan,  
Perietara ta peri-urietara.-Toma gaxo. utsik yagok ire *adarta*.

LEAR.—Orrazkeru, Enegane azteitu dagiela; onen biotzean zeiz azten dan ikusi. Bai ete dago Izajian olango biotz gogonik egin leikenik ezer? (Edegarta'ri). Zu, yaun, niie eunetatikotzat artzen zaudaz zu; zuiie soñekoak bakairik dira begiko ez yatazanak:

Persitarrak dirala esango dozu zuk, baña aldatu eglzuz.

KENT.—Ene yaun, emen etzan orain, ata unetxo baten atsedean artu.

LEAR.—Ez egin zaratarik. ez eglñ saratarik; enezelak itxi; olantxe, olantxe. Goxsan artuko dogu apaia.

ERG.—Eta eguerdian etxungo naz ni,

Barrien-barri GLOSTER aurrera,

GLOST.—Ator ona. adiskide; non dok nire ugazaba errege?

KENT.—Emen, yaun ;baña geldi itxi egizu, burutik eginik dago-ta.

GLOST.—Adiskide on, arren-bai-arren, ire besartean artu egik; ezkutuan bera ilteko asmoaren barri entzuna nok; or dok zerraldoa gerturik; barruan sartu, ta Dover-aldera eroan egik, adiskide, an txera ona ta laguntzea, biak aurkituko dozak-eta. Artu ta eroan ire ugazaba! emen ordu-erdi bat gei-go egin ba'dagizue, aren bizia, irea ta aren aldeko diran guztiena galbide gorrian yagozak: artu egik, artu egik; eta nire yarra ator, bidea arin egiteko bear dana neuk emongo daukat-eta.

KENT.—Lotan dago berezko estutua: atsedean onek osatu eikezan meko eginik dagozan ire indarrak, orretarako erarik emon-ezik osapidea gatx da-ta. Tirok, lagun egidak ire ugazaba eroaten; ik ez dok gelditu bear atzean (Ergelari).

GLOST.--Tira, Ura, alde.

(Alde dagie KENT, GLOSTER, eta ERGELAK,

LEAR ba-daroela).

EDEG.—Nekez esten doguz gurs zori txar-rak guie aieriotzat gu baño andiagorik geure naibageak eroaten dakusgunean. Bakarrik yasaten dauenak yasaten dau geien gogoan, bere atzean naibagerik bagakoak eta euren naierara bizi diranak itxita; baña naibageak kidekorik eta eroateko lagunik dauenean, orduan gogoak naibage-zati on bat ortik zear yaurtiten dau. Nirs naibagea eroan-enaz be eioan-enaz egiten yat oiain, niie oben eragiten daustanak be-rak enege makuitu egiten dau-ta: alabak makuitu dabe a, ni bairiz aita! Alde emendik, Toma! adi oiko zaiaitai; eta i oiain laidotuten auen guzurrezko ustea, ire argibide zuzenak orretara bearturik, guzurrezkatat eta i erruga agertu adinean erakutsi egik eure burua. Erregek igesti egi-teaz zer besterik yazoko ete da gau onetan! Ezkutuan ago, ezkutuan ago.

## VII AGERLEKU.-GLOSTEH'en Gazteluko txcki bat.

KORNUOL, ERREGANE, GONERILE, EDEMIJN-  
DA |a OTSEÑAK aurrera.

KORN.—Arin bai arin bidali bidarien bat nire yaun zure senarragana; idazki au erakutsi ari; gure lurrean dago Pantze'iiko gudaritaldea. Billatu Glosler saltzallea, (Otsein bctlzuk alde dergie).

ERREG.—Bertatik eskegi a.

GON.—Begiak atera ari.

KORN.—Nire gogaldi zakarraren kontura itxi a. Edemunda, ik lagun egin gure arrabeali; ik ez dok ikusi bear guk ire aita saltzalleari egin bear dautsagun asperkundera. Dukeagana ba; len baño len gertatu daitela esan egiok; gu be beste ainbeste egiteko gozak, Bizkor, zoli ta alkarren barri dakienak izango dozak gure arteko bidariak. Agur, Gloster'ko ene yaun.

## OSUALDA aurrera.

Ostera! non dok errege?

OSIJAL.—Gloster'ko nire yaunak eroan dau emeniik; bere atzetik ibilten diran zaldun beroetatik ogei ta bost edo seien bat urten yakoz atetara; orreik eta yaunaren otseñetatiko batzule agaz yoanek dira Dover'aldera; eta an izkilloz orniduriko adiskideak dabezala arro esaten dabe.

KORN.—Zaldiak gertau egizak ire ugazabanderearentzako.

GON.—Agur, yaun eta aizta maiteok,

KORN.—Agur, Edemunda.

(GONERILE, EDDMIJNDA ta OSUALDA'k alde dagie),

Oa; billatu egik Gloster saltzallea, lapurra legetxe estu egik, gure aurrera ekarri egik (Bes'i'e otsein batzuk alde dagie). Bere biziagazkoa epaikuntza-erak eta bideak betetzeka egitea ondo egon ezarren, gure alak gure asarrearen aurrean burua makurtuko dau, eta bide ori gizonak ixartzat artuaren be, ezin daikie eskuratu. Nor da or? Saltzallea ala?

Ostera be OTSEKAK aurrera. Gloster'egaz.

ERREG.—Azeri eskertzarreko! Bera da.

KORN.—Ondo eslu txorkozko orren besoak.

GLOST.—Zer darabiltzue maitagarriok? Nire adiskide onok, nire ostatuko zariela gogoratu; yoko zikinik ez egidazue egin, adiskideok.

KORN.—Estu egizue, neuk dirautsuet. (Estu egiten dabe otseñak),

ERREG.—Gogor, gogor, Azpi-yale txarri or!

GLOST.—Errukirik bagako andera zara zu. baño ni enaz azpi-yalerik.

KORN.—Yezarleku oneri estu. Zital, ikusikok. (Bizarrak ateraten dautsoz Erregane'k).

GLOST.—Yainko maitagarriakarren, lotsagani da niri bizarrak ateratea.

ERREG.—Orren zuri, ta orrenbesteko azpi-yale!

GLOST.—Andera gaizto, barriro erneko dira nire okotetik ateraten daustazuzan bizarrak eta zu salatuko zauez; zure ostatari nozu ni; olan, lapur-eskuz, ez zenduquez latzitu bear nire ostatari txerak. Zer egiteko zara?

KORN.—Tira, yaun, ze idazki izan dok oraintsu Pantze'tik?

ERREG.—Argi ta garbi erantzun egizu, eglaba-dakigu-ta.

KORN.—Eta ze alkartasun dok ik bakalderrian oña yarri daben saltzalleakaz?

ERREG.—Noren eskuetara bidali dozu erregeburu-aldakotra?

GLOST.—Susmo-antzak balcarrik dakazana da nik dodan idazkia, eta bera bidali eustana ez da zuon aurkakorik, ez alds batera, ez bestera dagonarena baño.

KORN.—Azerikeri utsa.

ERREG.—Eta guzurra.

KORN.—Nora bidali dok errege?

GLOST.—Dover'era.

ERREG.—Zegaitik Dover'era? Ez engoan ze maiturik ala?

KORN.—Zegaitik Dover'era? Erantzun 'dagio-la oneri.

GLOST.—Abeari esturik nago-ta, bide oneri dagokona egin bearoko.

ERREG.—Zegaitik Dover'era?

GLOST.—Zu ikusi gura ez zindudazalako errukirik bagako zure atzazalazak aren begi zar errukarriak ateraten; ezta zure aizta amurratua be aren aragi igortzian bere apo-aginak sartzen. Ak gau ilun-baltzean burutsik yasan izan dauena lango ekatxagaz itsasoak berak be goro-goraka yagi ta izarren argiak itzali egingo eukezan; eta orraitño, biotz errukarri ak zerukoai euri geiago eskatuten eutsen, Gabaro itzal atan zure atetan otsoak irfimtzeke egon ba'lira zuk esango zeunkean: "Atezain on, atea idigik", eta beste biotz-gogor guztiak zure itzai eder eretxiko euskioen; baño egadun

asperkundera ikusiko dot zu lango seme-alaben ganera etorten.

KORN.—Olangorik ikusi ik ez dok iñoz be ikusiko. Eutsin yezarlekuari, mutillak, Nire ostikoagaz zapalduko dodaz ire begiok. (Gloster<sup>er</sup>i araiñnik eusten dcmtsce yezar-leku-ganean, bMortean Kornuol<sup>ek</sup> begi bata atera ta bere gcmcan ostikoa iminten dau).

GLOST.—Lagun begist zar izateko usterik dauenak! Anker-biotzbako ori! Yainkook!

ERREG.—Irri egingo dautso alde batak beste-ari; bestea be bai.

KORN.—Asperkunderik ikusi ba'dagik...

LENENGO OTSEÑAK.—Geldi zure esku ori ene yaun; ume nintzanetik ona beti izan naz zure otseintzan, baña orain zure eskua geldi eukiteko aginduten dautsudanean baño otseintza oberik ez dcusut egin egu-ño.

ERREG.—Oindo! txakur zatar ori!

LENENGO OTSEÑAK.—Zure okotzean bizarrik ba'zendu, eztabaida onetan ondo aztinduko neunskizu. Zer egiteko zara?

KORN.—Nire zital ori! (Ezpatea aterata gnera doako ariñketan).

LENENGO OTSEÑAK.—Zatoz, bo. ta asarrearena ikusi.

({Ezpatea ateraten dau. Burruka daracjoioe. Kornuol zcsuritirik).

ERREG.—Ire ezpatea ekadak (Beste otsein bo-teri). Zirtzil izan eta onan yagi?

(Ezpaleari eldu, atzetik ara yoan, eta 9zpa-lea santzen dautso).

LENENGO OTSEÑAK.—Ai! il nabe! Ene yaun, begi bata aldean dozu zuk oraindik, orrei ganera etorriko yaken ezbearra ikusteko. Ai ene. (II egiten da).

KORN.—Galazoa dagiogun geiagorik ikusi al izatea. Kanpora, zirin zatar ori! Non dok orain ire argia?

IGLOSTER'en besle begia urratuz aterata 'u rrrera egozten dau).

GLOST.—Ilun-ilunetan eia iñondik pozik ba-ga, Non ete da nire serae Edemunda? Edemunda, berezkoaren txatar guztiak jxitu egizak, egite itzal oneri ordea emoteko,

ERREG.—Alde, saltzalle zital! Gorroto auenari deiez ago; bera izan dok niri ire azpi-yalekeriaren barri emon daustana; eta a onegi dok itzazko errukirik izateko.

GLOST.—Nire zorakeriarena! Orrazkero, oker egin dautsat Edegarta'ri. Yainko maitagarriok, parkatu egidazue nik ari egina, ta ondo ibiliko al da a!

ERREG.—Yoan eta kanpora egotzi egizue, eta Dover<sup>er</sup>ako bidea usainka idoro dagiala. Zer yazoten yatsu, ene yaun? Zelan zagoz?

KORN.—Min artu dot; nire yarraizatoz, andera. Etxetik atera begirik bagako zital ori; sastegira egotzi yopu ori. Erregane. arin dario odola; tertzio txarrean etorri yat min au; zure besoa ekadazu.

(Akie dagi KORNUOL<sup>ek</sup>, ERREGANE<sup>k</sup> lagun-duta; otseñak GLOSTER azkalu ta kempora dciroe).

BIGARREN OTSEÑAK.—Gizon au ondo iblltekotan, egin daikedan gaiztakerik ez daust emongo bein be kezkarik.

IRUGARREN OTSEÑAK.—No ori luzaro bizi ba'daite, eta atzanean zarraren zarrezko eriotzea izan, emakume guztiak mamu itzal egingo dira.

BIGARREN OTSEÑAK.—Konde zarraren yarral goazen eta Zoroa billatu, ak nora-gura eroan dagian; edozetarako gei egiten dau bere zorakeri txitxariak.

IRUGARREN OTSEÑAK.—Eu oa; amuko !a arraulza-zuringo-billa yoango nok ni odola darion aren arpegiari ezarteko. Zerutarrok lagun izango al zatxakoez orain! (Bona<sup>1</sup>ba<sup>nan</sup> alde dagie).

## IV EKITALDI

### I AGERLEKIT-Íñarradia. Edegarta aurrera.

EDEG.—Orraitiño be oba da onan eta iñok alntzat enauela bizi, iñok aintzat enauela artzen yakin eta zuñiturik bizi baño. Txarren izateak, zoriaren zerik zakarren eta zirtzilena izateak ba-dau oraindik itxarorik;

ez da bizi bildurrez; onenetiko aldakuntzea da negargarri; barrerako izaten da, ostera, txarrenetiko aldakuntzea. Ondo etorria, ba, nik besartean estututen audan mamirik bagako egurats ori! Ik puzka txa-

rrenera egotzi dokan Izaki errukarriak ez dautse ezer zor tre putzai. Ene! nor dator emen?

GLOSTER aurrera, AGUREK dakarrela,

Nire aita, laguntza motzagaz? Ludi, ludi, ludi ori! Ire inñondiko aldakuntzak i gorrotazoko ez ba'leuskue, biziak urteai ez leuskie menik egingo.

AGUR.—Ai ene! ene yaun on, larogei urteokaz zure ta zure aitaren maizter izana nozu ni.

GLOST.—Alde, alde egik emendik; adiskide on, oakit; ire erruki-itzak ezin yaustek niri ezetariko onik egin; iri euri min emon bai,

AGUR.—Zuk ezin ikusi daikezu zure bidea.

GLOST.—Ez dot biderik nik, eta orrazkero ez dot bear begirik; ostopo egin neban ikusten nebanean: gure burua yagotekotzat izaten doguz sarri askotan guk arturiko bideak, eta gure utsak erurak yakuz lagungarri. Edegarta seme maite, ziri ederra sartu eutsoen ire aitaren asarrearen yaki izan azan orri! i nire ukumenaz baño ezpa'da be ikusteko bizi al ba'nintzok, ostera be begirik ba-dodala esango neunke!

AGUR.—Ara! nor da or?

EDEG. (Beretzcrko).—Ene yainkook! nok esan daike "Ni nago txar-toen?". Eguñokorik txar-toen nago ni.

AGUR.—Toma errukarri burutik egina da ori. EDEG.—(Beretzdko). Eta oraindik txar-toago egon neindeke: ez da txarrenik "txarrena da au" escin daikegun bitartean baño.

AGUR.—Lagun, nora oa?

GLOST.—Gizon eskekoen bat ete da?

AGUR.—Burutik egina ta eskeko be bai.

GLOST.—Zegaitiren bat ba-dau, ostean ez leuke eskatulko. Olangoxe lagun bat ikusi neban barko ekatx-aldian; axek uste egingin eustan gizona lurreko arra baño besterik ez dala: nire semea etorri yatan orduan gogora; eta orraitio orduan ozta-ozta nintzan aren adiskide; geiagorik entzuna nozu arrazkero. Mutiko lotsabakoen-tzako euliak langoxe gara gu yainkoen-tzako, yolaagarritzat ilten gaez.

EDEG.—(Beretzdko). Zelan izan ete eitekean onako au? Txar da naibagearen aurrean zo-roarenik egiteko ogibidea, norbere burua ta aurrekoa asarraturik. Onetsia zadiz, ugazaba.

GLOST.—Arako lagun billutsa ete da ori?

AGUR.—Bai, ene yaun.

GLOST.—Orrazkero, arren-bal-arren, zoaz; mi-lla bat edo bi aurrerago, Dover'erako bi-

dean, nire ederraarren. bldera urten gura ba'dauskuzu, gure arteko aspaldiko maite-tasunaarren egizu; eta soñekoen batzuk ekarri egizuz gizaki billuts onentzako, niro izar-rmitil izan dakidala eskatuko dautsat-eta,

AGUR.—Ai ene! yaun, burutik egina da.

GLOST.—Zori txarreko aldiak dira itsua burutik eginak daroenak. Nik esaneko erara egik, naiz, gurago ba'dok, eure gogoko yakana egik: edozer bttño beinego, oa.

AGUR.—Dodan soñekorik onena ekarriko dautsat, yazotekoa yazoko berari. (Alde dagí).

GLOST.—Txotxo, lagun billuts ori...

EDEG.—Otz da Toma errukarria. (Beretzctko) Zoroarenik geiago ezin dot egin.

GLOST.—Ator ona, lagun,

EDEG.—(Beretzako). Orraitio be oindokoa-rren egin bear doL Onetsiak bediz zure begiak; odola dariola dagoz.

GLOST.—Bai ete dakik Dover'erako bidea?

EDEG.—Biak, atetxoduna ta ateduna, zaldibidea ta oñezkoena. Bildurraren bildurrez Toma gaxoari burutik eragin dautsoe; gtzon onaren seme, zeruak yagongo al ou txerren zikinagandik! bost txerren batera izan dira Toma errukarriagan: lizunkeriarena, Txarrito izenekoa; itzik ezinarena, Motel izenekoa, lapurretearena, Alperto izenez; erailterena, Gordinko izenduna; sorkiz garbitu ta austearena, Ipizki izenekoa; eta onako au arrazkero gela-neskame ta mai-emakumeen yabe da. Au dala-ta yagon zure burua, ugazaba!

GLOST.—Autso, artu egik zizku au, zerutiko zori txarrak guztitariko zartadaz makurtu aben orrek: i zori ontsuago egiten au ni zori txarreko izanak; Zeruok, oindiño olantxe ekin! yanari guri ta naiera guztiak dauzan gizonak, zuon agindua oinperatuten dauenak, oartu-ezagaitik ikusiko ez dauenak arin somatu dagian zuon ala; olan ba; banaketa-bidez, geiegikeririk ezta izango; baktotxak bear aña Izango dau. Ezagun ete dok Dover?

EDEG.—Bai, ugazaba.

GLOST.—Amiltegirik ba-yagok an itsasbasta-rran eta aren buru yagi-makurrak bildurrez begiratuten yok bere azpiko urretza sakan mugatua; aren ertz-ertzerañoxe bakarrik eroan nagik, eta aldean daroakan eze-reztasuna nik aldean daroadan zer edertxoz ordainduko dauskat: bide-erakus!arik ez yoat bearko nik leku atatik aurrera. EDEG.—Ire besoa ekadak: Toma errukarriak erakutsiko dausk bidea. (Alde dactge).

## II AGERLEKU.-Albani'ko Dukearen Yaureglaurrea.

GONEBILE *ta* EDEMUNDA aurrera; OSUAL-DA'k trikix egiten dauise.

GON.—Ondo etorria, ene yaun; andia da gure senar otzana guri bidera urten ez izana, Non dok iro ugazaba?

OSUAL.—Barruan, andera; baña eguño gizonik ez da aldatu ori aldatu dan baño geiago. Legorreratu dan gudaroslearen barri emon neuntsan; irribarre egin eban; zu barentozala esan neuntsan: "Ainbat okerrago" izan zan aren erantzuna; Gloster'en azpiyanaren eta aren seme zintzoaren otsein-izearen barri emon neuntsanean. "moskorti" eretxi eustan, eta zerak itzulietara imini nebazala esan eustan; gogoz besterakoen izan bear litxakona gogokoen yakola dirudi; atsegingarria iguingarri.

GON.—Orrazkero aurrerago ez yoan zu (Edemunda'ri). Aren gogoko bildur kikilkorrak ez dautso izten erabagirik artzen; erantzutera beartuten daben irainik ez dau somatuten. Egiteetara eldu ledikez bideko gure gurariak. Atzera, Edemunda, nire koñatuarenera; arin batu ta aztertu aren gudariak eta aren indarrak eroan: izkilloak aldatu bear dodaz nik emen gurean, eta goma emon eskuetara nire senarrari. Otsein zintzo onek eroan-ekarriko dauz gure arleko barriak; baledike luzaro bagarik zuk entzutea, zu zure onerako orretara atomau ba'zadiz, zure emaztegeiaren agindua. Erabili au; itz gixi egin (Ermoien bat damotso). Ondorañu zure burua; mun onek itzik egin al ba'leu, eguratseraño nasaituko leuke zure gogoa. Lan eragin zure irudimenari, ta ondo ibili.

EDEM.—Zure, il arte.

GON.—Nire Gloster maite-maite. (Alde Edernunda'k). Uf! gizonetik gizonera dagon aldearena! iri zor yakaz emakumeren otseintzak; nire ergelak ez dau nire soñerako eskubiderik.

OSUAL.—Andera, emen dator nire yauna. (Alde dcrgi).

## ALBANI aurrera.

GON.—Arriko sorkia baño gefagotzat es nozu etsi ni.

ALB.—Gonerile! zu etzara gei axe zakarrak arpegira puzka egozten dauksun autsa aña be. Bildur dautsat zure izakereari; bere sortzeari Iguin dautsan izakirik seguru eñin esitu leike bere kitean; nai ta nai ez zimel-

du ta il bear dau bere burua soñeko odoletik urratu ta kendu dagian noak.

GON.—ñisko da; ergel-itzak dira itzok,

ALB.—Zistrinak zistrin eresten dautse yaklntzeari ta ontasanari; zistrinkeria bakarrik yako atsegin zistrinkeriarri. Zer egin dozue? Basakatuok ez alabak, zer egin dautsazue aita ta agure maitagarri danari? Artz buru-makurrak be miazkau egingo leukie aren adeigarritasuna, Basatiok, osoan berezkoaz besterakotuok! burutik eragin dautsazue. Nire koñatu onak zelan itxi eutsuen olangorik egiten? Alt, ainbeste arturiko gizonak, errege-semek? Zeruak arin be arin eta agirian bidali ezpa-dagiez euren espirituak ikuskizundurik irain zantarrok aspertzeko, glzatasunak berak eizatu bearko dauz, beko ilunbeko mamu gaiztoak legetxe.

GON.—Gizon geldo gibel-zuri! belarrondokoak artzeko baño ez dira zure matrallak, eta irainak artzeko zure burua; bepurupean ez dozu zuk begirik zure izen onetik kalte egiten dautsana bereizteko; ez dakizu zuk ergelak dirana okerrik egin baño len zigortuten diran zitlali errukirik dautsenak. Non da zure arratza, zure danborra? Pantxe'lc zabaldu dauz bere ikurrinak gure lur ixilean; zu ilgo zauzana asi da egaki-burukoskolagaz zemaika; eta zu, bitartean, erabagirik bagako ergel ori, yezarrita geldi zagoz eta gedar egiten dozu: "Ai ene! zegaitik egiten dau afc ori?".

ALB.—Zeuk erabagi, denganiño orrek! Txerrenagan ez da emakumegan aña iguinga\_rri berezko itsusitasuna.

GON.—Ergel uls ori!

ALB.—Zer aldatu ta zeure burua estalia zarean orrek, lotsearren, ez egizu mamu-itzaldu zure arpegia. Egoki ta bidezko al litxakit nire odolak eskatuten dauena egiten nire eskuari iztea. Geirik asko dira izan oneik zure aragi ta azurrak lokatu ta urratuteko; txerren izanarren zu, emakume-antzak ysgoten zauz.

GON.—Arranoen arrano, oralnxe bai agirt da zugan gizatasuna!

## GEZNARI bat aurrera.

ALB.—Ze barri dok?

GEZN.—Ai! ene yaun on, il da Kornuol'go Dukea; bere otseñak il dau, Glaster'eri bigarren begia ateraten yoakola.

ALB.—Glostsr'en bsgiak!

GEZN.—Berak ctzitako otseñetatik bat, naiba-ejeak eraginda, egite orren aurka yarri zan, eta eban asinoa aurrera eroatea bere ugazabari galazoteko, ezpatea atera eban; asarrez irakiten, ugazaba tximistea lez yoan yakon ganera, ta euren artean an zeartau eban lurrera; ez baña geroago berari be bizia kendu dautsan zauri kaltegarria artzeka (19).

ALB.—Onako onek darakusanez, or goien za-goze zuok epaileok, emen beko gure gaiztakerien asperketea orren arin egin dozue-nok! Baña, Gloster errukarriarena! Beste begia be galdu yoan?

GEZN.—Biak, biak ,ene yaun. Erantzun bizko-rraren begira dago idazki ou, andera; zure aiztearena da.

GON.—(Beretzako). Alde batetik atsegin yat onako ou; baña a alargun izan eta nire Gloster'egaz dagolarik, nik nire irudime-nean eragiriko etxea osoan lurrera etortea

yazo ledike, efa niro blzlta gorrotagarria-ren ganera etorri be; besle aldetik, orren garralz ez da barri au. Irakurril egingo dot eta gero erantzun. (Alde dagi).

ALB.—Non zoan aren semea ari beglak ate-ra eutsozeanean?

GEZN.—Nire etzandereagaz ona etorria zan.

ALB.—Ez yakog emen a.

GEZN.—Ez. ene yaun on, bidean aurkitu dot atzera doala.

ALB.—Bai ete yakik ak geiztakeriaren barri-rik?

GEZN.—Bai, ene yaun on; berak salatu eban aita, eta etxetik alde egin beren-beiegi arein asperketea begirapen gitxiagoko izan edin.

ALB.—Gloster, emen bizi nok ni ik erregeri erakutsi euntsan maitetasunagaitik jri es-ka on erakusteko, ta ire begien aspeika-tarik egiteko. Ator ona, adiskide; geiagorik ba'dakik, esan egistak. (Alde dagie).

### III AGEHLEKU.-Pantzetar

KENT eta ANDIKI bat aurrera.

KENT.—Ete dakizu zegaitik yoan dan orren arin Pantze'ko Eirege?

AND.—Bere bakalderrian zerbait erdi-eginean itxi ta oraintxe gomutauagaitik; eta zerbait orrek bakalderriarri bildur eta galbide an-dirik ba-lekarkio-ta, bera atzera ara yoatea egoki-egoki ta bearreko zan.

KENT.—Nor itxi dau bere atzean gudalburu-tzat?

AND.—Pantze'ko Mariskala, Monsieur la Far.

KENT.—Naibagerik iragarteraño eragin ete eutsan erregenoari zure idazkiak?

AND.—Bai, yaun; neure aurrean artu ta ira-kurri eban, eta nozik bein negar-tantan an-diak yalgiten yakozan bere matralla samu-rrak-bera; bere naibagearen erregeno za-la irudian, bendekotasun-auslerena egin eta a benderatu gura eban naibagearen erre-geno.

KENT.—A! eraso eutsan orrazkero.

AND.—Asarre gorriñañokorik ez; epea ta nai-bagea an ebilkozan alkarren leian zeñek irudituko a ondoen. Eguzkia ta euria biak batera ikusia zara zu; egunik onenak lan-goxe ziran aren irribarre ta malkoak; Bere ezpan elduetan olgetan ebilkozan irriba-reak bere begietatik ikatz-arritzko pitxiak eralten ebezan ostatarriak nortzuk ziran ez ekiela esan eikean. Labur esateko, iñondo-rik ederren litzateke naibagea eta mai-

udalgetia Dover- aurrean.

teen be, guzUak aintzakotzat etsiko *ba'* lebe.

KENT.—Itzez ez ete eban ezer itandu?

AND.—Bai orixe, bein edo birritan, arnas-es-luka, "aita" esan eban. bulana eiagirik, bere biotza izen orrek estuturik ba-legoan legetxe; gedar egin eban: "Aiztok! Aiztok!... Emakumeen lotsari! aiztok! Kent! aita! aiz-tok! zer? Ekatzetan? Gabaz? Errukirik da-gonik be ez al da sinistuko!". Eta bein orraazkero bere begi zerutarretatiko ur onetsia aztindu eban eta ezaturik, gero naibage-gedarrez alde egin eban, atseka-bea izateko bere lagun bakartzat.

KENT.—Izarrak dira, gure buru-ganeko izarrak gu garabiltzenak; ostean biko batek berak ezin sortu eikezan onango ume ezbardinak. Ez ete dozu arrazkero no agaz itzik egin?

AND.—Ez.

KENT.—Orrako ori errege atzera etorri baño len izan ete zan?

AND.—Ez, arrazkero.

KENT.—Ba, yaun, uri onetan da Lear nai-bagetu errukarria; eta batzuetan, gogaldi oberik dauenean, gogoratuten dau ona ze-

(19) Geznari omek diñono. ez da osoatn eg.a. Eta izan be, irugarren ekitaldiko zazpigi-rrren agerlektutik agiri donez, Err&'jone'k, *e'i* Kornuol'ek il eban otseña.



larako eiorri garean, ta ezetara be ezin egin da bere alabea ikustera.

AND.—Zegaitik, ene yaun orag?

KENT.—Eguñoko lotsariak eragiten dautso ori, bere maitetasunik ezak: bere onespena ukatu egin eutsan ak no orreri, yaurtin egin eban ak ortik zear erbesteko goraberetara, bere alaba txakur-bioztunai emon eutsezan ak no orren eskubideak. Zer guztiok itzalez minduten dabe aren gogo-a, ta, lotsari egorri-errekorrak ez dautso izten Kordele'ganu eltzen.

#### IV AGERLEKU".—Pantzetarre n Gudaltegia. Txozna bat.

KORDELE, OSAGILE bat eta GUDARIAK aurrera.

KORD.—Ai enetxo! bera da: ara, itsaso asarreu baño be zoroago egoan oraintsu baño oralntsuago: eztarriak emon-olean abesku; areka-bedar, Iapatx-bedar, otzerri-bedar. asun, kuku-parka-gara, lupedar, eta gure yaki dan garitzan azten diran bedarrezko burestuna aldean ebala, Euneo gudaritalderen bat bidali egizu; gizalanik gizalan arakatu garitza azia, ta gure begien aurrera ekarri. (Alde dctgi Mcrlla-gudarí balek). Ezer egin ete dai gizonaren yakituriak ak galduriko burua leneratuteko? Neure barruko ez dodan nire ondasun guztia artuko dau *arí* lagundu dagionak.

OSAG.—Ba da orretarako biderik. andera; atsedena yatsu gure berezkoaren iñude (aña) maitakorra, eta auxe da ak bear daue-na; a orretara bultzetako be ba-dago landara egikorrik, eta begi larria itxi egingo dau arein indarrak.

#### V AGERLEfnj..—Gloster'

ERREGANE ta OSUALDA aurrera.

ERREG.—Baña bidean ete dira nire koñatua-ren indarrak?

OSUAL.—Bai, andera.

ERREG.—Bera be an ete da?

OSUAL.—Muker be muker. andera. A baño askozaz be gudari obea da zure aiztea.

ERREG.—Edemunda yaunak ez ete eban itzik egin etxean ire yaunagaz?

OSUAL.—Ez. andera.

ERREG.—Zer ekarri ete eiketan nire aizteak egin autsan idazkiak?

OSUAL.—Ez dakit nik, andera.

AND.—Ai ene! yaun orren errukarri!

KENT.—Ez ete dozu ezer entzun Albani ta Kornuol'en indarrakzorrik?

AND.—Gerturik ei dagoz,

KENT.—Tira ba, yaun, neuk eroango zaudaz gure ugazaba Lear'gana, ta a yagoten zeu itxiko zaudaz; ni neu garrantzi andiko zertxo batek eukiko nau oindokoarren apur baten ezkutuan; nor nazan yakin dagizunean ez dozu izango nire adiskide izanaren tamalik. Neugaz zatoz, arren, (Alde dagie).

KORD.—Nire negar-malkoz erneko al zarie zuok ixil-muxileko zer onetsiok, zuok lurreko indar ezezagun guztiok! Lagun eta osakai izango al zarie gizon onaren lorreaní Aren billu zoazie, zoazie; aurrera eroateko zuzendari-bearreau aurkituten dan bere bizia esirik bagako bere asarre bizian manatu ez dagian.

#### GEZNARI bataurrera.

GEZN.—Barriak, andera; onantza datoz Biritandarren indarrak.

KORD.—Lendik genkian ori; afk etorriko ziralakotan eginak dira gure gertakuntzak-. Aita kutun ori, zure arazoa da ni narabilena; orregaitik izan da Pontze andía nire ileta ta negar andien erruki. Ez da geiagoren leia bizirik gure izkilloai eragiten dautsena. maitatasuna, maitutasun bizia ta gure aitaren eskubidea baño; laster entzungo al dot aren barriik eta bera ikusiko!

Gazteiuo txoki but.

ERREG.—Sinistu egidak, arazo astunen batek eroun yok a emendik. Zerak ezezagutze andia izan zoan Gloster'eri begiak atera ta a bizirik iztea: gure aurka iminten yozak ak biotz guztiak bera eltzen dan leku guztietan; Nire ustez, aren zori txarrez errukiturik, argirik bagako aren biziarri atzena emoten *Y<sup>o</sup>ria* dok Edemunda; ganera. are-riok ze indar dauen ikusten.

OSUAL.—Aren atzetik ara yoan bear dot nik, andera. nire idazki onegaz.

ERREG.—Biar yarriko dira bidean gure gudariak; gugaz gelditu adi; galbidez beterik yagozak bideak.

OSUAL.—Ezin naiteke, andera; agindu to-

rrotza emon daust nire anderealt araze onetaz.

ERREG.—Zer dala-ta idatzi bear eutsan ak Edemunda'ri? Itzez ezin ekarri ete einkezan aren asmoak? Ba-ledike zeozer..., nik ez dakidan zeren bat. Esker onik emongo dauskat idazki ori idigiten itxi ba'dagistak.

OSUAL.—Andera, gurago neunke...

IRREG.—Ba-yakiat nik ire andereak bere senarra maite ez dauena; orretaz ez yoat zantzarik; eta oraintsuengoz eraen izan zanean inondiko begirakune saraur eta begirada esankor-esankorrek egin yeutsazan Ederaunda zindoari. Ba-yakiat nik i aren kutun azana.

OSUAL.—Ni, andera?

ERREG.—Zuok alkar ondo aituten dozueia dok nik esan gura dodana; bai az, ba-yakiat; orrazkero oarturik izten aut, artuik oar au; il dok nire yauna; alkarrerri itz eginda gagozak Edemunda ta ni, eta a ire anderearentzako baño egokiago dok ni-Izako. Oindiño geiago. Agaz aurkitu ba'adi, au emon egiok, arren; eta ik esango dautsakana entzun dagianeen sentzun geiago izan dagiala esan egiok ire andereari arren. Orrazkero, agur. Saltzalla itsua-ren barririk entzun ba'dagik, yakik ari ldu na moztu dagiona izango dala nire biotzekoen.

OSUAL.—Agaz trikitx eginyo al neu, andera! or erakutsiko neunkizu ni noien alde nagon.

ERREG.—Agur. (Alde dagi).

## VI AGEHLEKU.-Dover'Uk urreko lur-orloa.

GLOSTER eta EDEGARTA, au baseiritar yantzita.

GLOST.—Noz elduko ete naz arako menditontorrera?

EDEG.—Ointxe zoaz aren egalak gora; begira, nekez nekez goaz.

GLOST.—Lau begitanduten yatak lur au.

EDEG.—Aldatz itzala da. Adi, ez dozu entzuten itsasoa ala?

GLOST.—Ez, egia.

EDEG.—Ba, orrazkero, zure begiak larri diralako zure beste sentzunak be osorik ez dagoz.

GLOST.—Izan be, ba-ledikek orixe izatea; ire itz-egikerea be uldatu egin dala uste yoat; len baño esakera ta itz-gei oberik dokala irudituten yatak.

EDEG.—Oker be oker zagoz: soñeko beste ezetan ez naz aldatu ni.

GLOST.—Obeto itz egiten dokalakotan nago.

EDEG.—Ia, yaun; au dozu arako lekua; -geldi egon.-Benetan bildurgarri ta zorabiagarri da onen goitik a beko sakona begiratzeta! Andik ona bide-erdi egazka dabil-tzan bela ta belatxingak ozta-ozta emoten dabe kakarraldoak baño andiagorik; emendik berako biderdian daragoio batek itsasor-re-aleak batzen... egitekoaren ikaragarri! Bere burua baño andiagorik ez dala irudituten yat; izpastarrean dabil-tzan arrantzaleak sagu dirudie; an aragoan pondo emonik dagon ontzi andia bere ontzi-txoaren neurrira txikaturik agiri da; aren

ontzitxoak, ostera, ozta-ozta ikusten dan urganeko argontzibila (boya) dirudi; zenbatu ezin-aleko izpasterr-arri nagiai azka daragoioen urutuen orroiak ezin entzun ledike onen goitik. Luzarago ez dot begiratu gura, nire burua zorabiauta ortik buruzbera yausi ez nadin.

GLOST.—Eu agon lekuan imini nagik.

EDEG.—Eskua ekadazu: ertz-ertzetik oin-baru zagoz orain; iretargipeko ezegaitik be ez neunke egingo gorantzako yauzirik.

GLOST.—Itxi egik nire eskua. Autso, adiskide, beste zisku bat; gizon txirok argarri dan pitxi bat yagok orren barruan; aztuak eta yainkoak eraokor egingo al yoek igan! Apur bat orrago oa i; agur egidak eta i ba-oala eutzunazo egidak.

EDEG.—Agur ba, yaun on. (Badoanarena egiten dau).

GLOST.—Nire biotz-biotzetik.

EDEG.—Ara, bere etsipena uskeritzat arturik ba'nabil, bera osatuteko nabil.

GLOST.—Yainko andiok! Agur egiten dautsat ludi oneri eta zuon begien aurrean nire naibagezko zorro astun au ortik zear yauriteteo erabagia artzen dot; luzarago eroan al ba'nei ta zuon gurari andi inok galazo-ezinen aurka marmarka ekitera yausi ezpa'nendi, erre ta kiskali egin bear-kolitzatekez nire soñeko lotsakizunak.--Ede-garta bizirik ba'da, a onetsi egizue, arren Lagun, agur orain.

EDEG.—Ba-noa, yaun. Agui.

(Yairzi egltsn ktku Glosler'ek, tci luze ycrusten dan lurrera).

Bizia bera lapurraren eskuetaraturen danazkero, e2 dakit nik zegaitik ibili bear dan bizi-altxorra kentaeko asmo-aleginetan; us-te eban lekuan egon ba'litz, onazkero yoanik zan oldozpena... Bizirik cfla ilik? Eee! yaun ori!.. Entzun, yaun!.. Itz egin! Izan be, olan il eitekean; zuzpertzua doa onaiño—Zelan zagoz, yaun?

GLOST.—Oa ortik, eta iltzen itxi egidak.

EDEG.—Amarau, egaki, eguratsaz beste edozer izan ba'zintzaz, orren goitik yausirik arrautzea legetxe ikaratu ta opilduko zintzakezan; baña zuk oindiño ba-dozu arnasarik aldean; ba-dozu mami astunik; ez zayoz odola dariola; itzik egiten dozu; amar ontzi-agak ez dabe egiten, urrengorik urrengora iminita, zu goitik bera artez yausi zarean luzerarik; arrigorri da zure bizia. Ostera be itz egin.

GLOST.—Baña yausi naz, ala ez?

EDEG.—Igeltzoko ertz ikaragarri onen erpinetik. Begiratu a goia; bere eztarriari eragiten dautsan larraxoria ezin ikusi dai-teke, ez entzun be onen urrinetik; eragi begiak ara gora.

GLOST.—Ai ene! begirik ez yoat nik. Bere lorrak eriotza-bidez amaituteko emoia be ukatu egin ete yako zori txarrekoari? Pozik arean ba-zoan oindiño zori txarrekoak fegerik bagako agintariren asarreari ziria sartu la aren gurari arroa utsean itxi al izatea.

EDEG.—Zure besoa ekadazu; eup! Gora! olantxe. Eta? Zure zangoak somatuten ete dozuz? Zutunik zagoz.

GLOST.—Ondoegi. ondoegi.

EDEG.—Iñondikoaren iñondiko baño andiagio yatsu au. Zek alde egin dem zugandik atx orren tontor-tontorean?

GLOST.—Eskeko errukarri zori txarrekok.

EDEG.—Ni emen bean nengoanean, iretargi bete bi irudituten yatazan aren begiak; iriilla sur ebazan ak, adar biurak eta itsaso asarrearen azalaren antzera gora-beradunak; txerrenen bat zan a; orrazkero, aita zorionsu orrek gizonen ezinetatik zer arri-garriak egiten dakien yainko argi-argiak yagon zauezala uste egizu.

GLOST.—Oraintxe datorkit gogora; aurrerantzean eroan egingo dot naibagea berak negar-arrantzaka "Asko da, asko da", esan arte, ta orduan il. Zuk agazko daragoiozun zera gizontzat artu neban nik; aarritan esa-

ten eban ak "Txerrena, txerrena"! ak erakutsi eustan onako bidea.

EDEG.—Nasai eta epez oldoztu. Baña nor dator emen?

(LEAR aurrera, iñondiko lorcz opaindurik).

Sentzunik zindoenak be iñoz be ez dau orniduko olan bere ugazabarik.

LEAR.—Ez. iñoz be ez daust eskurik ezarrfko dirurik irarri dodalako; errege bera naz ni.

EDEG.—Ene! Iztenak eragiteko ikuskizun zara zu!

LEAR.—Asmamaña baño geiago da onetan berezkoa. Or dozu zure irar-saria. Txuxoa legetxe darabil urli orrek arranbela; arranbel andiagoren bat ekadazue; begira, begira, sagu ori! Ixil, ixil; gasta© -zati onegaz egingo dogu orrena... Emen nire burdin-esku-zorroa; beronegaz ganeratuko naxolo gizatarrari. Txuxo baltzeran batzuk ekarri. Edertoso egaz egin dok, txori! Ituituan, itu-ituan: lurrera! Itz ezagugarria emon.

EDEG.—Astiñarra (20).

LEAR.—Aurrera.

GLOST.—Ezagun yat berbaro ori.

LEAR.—Ostera! Gonerile, bizar urdinagaz! Txakurren bat ba'nintz legetxe zurien zuritu ninduen, eta nire bizarrean ule zuriak nebazala esan euslen baltzik an izan baño len. Nik esaten neban edozeri aik "bai" ta "ez" erantzuten etsoen! "Bai" ta "ez" be yainko-yakintza onik ez ziran- Bein ni bustiteko euri ta niri itz eragiteko axe izan zanean .ostolsak nire aginduari yaramonik egiten ez etsoenean, an aurkitu nebazan, an artu neban nik arein usaria, Ut! ut! aik ez dira itzeko gizonak; ni oro nintzala esan eustien aik; guzurra. Ez naz ni beroenak yoten ez dauen gizonik!

GLOST.—Ezagun ezagun yat itz-egikera ori; ez ete da errege?

LEAR.—Bai, atzondo bakotxa errege: ori bai ikaratu nik begiratuten dodanean. Bizia Iz-

(20) "Sweet marjorara" do Shakeapeare'k dakarren itza, gaztelerako "mejorana"-sendiko bedarren brten izena. Eztot ezagun bedar au, edo obeto ean ,ez dakit ze bedar dcmik, eta ze bedar danik yakin ezik ezin yo bere euskal-izenera, euskal-izenik izcitekotan be. "Astiñarra" imini dot nik, ez landara biak bat dircdako, gure zererako ainbaten dalako baño.

ten dautsat gizon orrerl. Zer zoctn ire ouzla? Ezkontza-kutsaketea ala? Orregaitik oz ciz ilgo; ezkontza-kutsaketeagaitik il? Ez; txepetxak be egiten yok orrako ori, eta eulitxo urreztauak nire aurrean egiten yok lizunkeri ori. Ugaldu bedi aragizko egitea; nik izara bitartean legez sorturiko alabak niri baño txeratsuago yako Gloster'eri bere seme sasikumea-ta. Aurrera yo, lizunkeri, buru-belarri, gudariak bear yoadaz nlk-eta, Begira an aragoan bere irribarre erasoagaz aurreztik bere iztar artean edurra iragarten dauen emekumea; ekandu onekoarena egiten dau itez, buruari eragiten dautso atsegin-izena entzun-ala...; ez ogigaztairik, ez zaldi gizenik ez doa atara leia eutsin- ezinagoz. Garritik gorakoan emakume izanarren, zaldi-gizon dira garritik beragoan (21); garritik gorakoan bakarrik dira yainkoakandiko, andik berako oro txerrenagandiko da; su-leza da an dana, dana ilunbe, dana da an sulphur-ui, erre-tan. kiskalduten, kirats, suntsiketa; uf, uf,uf! atxi, atxi! Osakaidun, ontza bat katu-usai-ki ekadazu, usain gozatu dagidan nire irudimena; eutsi ordaina.

GLOST.—Arren, esku orri mun egiten itxi egidazu!

LEAR.—Berau ikuzten itxi egidak beinen; ilkor-andurra yok,

GLOST.—Berezoaren atal lorrindu ori! Mundu undi uu be olantxe ezerezutuko da, Ezagun ete nozu?

LEAR.—Gomuta-gomuton yoadaz ire begiak. Zearretara ta begiak itxi-idigika begiratu-ten nok ala? Ez, Lizunkeri-yainko itsu, ik egin dagikana egin, aurrerantzean ez aut maite izango. Eupada ua irakurri egik; beronek dauen idazkerea bakarrik begiratu egik.

GLOST.—Izki guztiak eguzkia añako ba-lira be, bat be ezin ikusi al izango neunke.

EDEG.—Esan ba'leustie esan au, ez neunkean sinistuko; egia da. ta ausi da nire biotza.

LEAR.—Irakurri.

GLOST.—Begen ontziagaz ala?

LEAR.—Ara! zu be nire kide zara ala? Zure buruan begirik ez eta zure zizkuan dirurik ez? Ontzi motelean dagoz zure begiak, zure zizkua, barriz, argitan: orraitño be zuk ba-dakutsu mundu au zelan doan (22).

GLOST.—Bai, ukuka dakust.

LEAR.—Zer? Burutik eginda zagoz ala? Begirik baga be gizonek ikusi daike mundu au zelan doan. Zure belarriekaz begiratu, ikusi an aragoko epaileak zelan daragoion txarto esaka an aragoko lapur uUaz, Zure II

belarritz entzun; tokiz aldatu; ela Igarri zein dan epaile, zein lapur. Ikusi ete dok iñoz baserritarraren txakurrik eskekori au-sika?

GLOST.—Bai, yaun.

LEAR.—Eta ak txakurragandik igesi egiten dauela? Ortze ikusi daikeek agintzearen iru-dí ederrik: bere egitekoan men egiten yakok tjsakurrari. Txapeloker zital, geldi ire esku odolti ori! Zegaitik erasten dautsak narua emagaldu orrerl? Eure bizkarra blillustu egik; bero be bero enbilen í orregaz aragizko zera egiten eta orain orrexegaitik narua berotuten dautsak? Lukurleruak eskegiago egiten dau ziria sartu dautsana. Akats txikiak be agertuten dira soñeko urratuetatik, soñeko luzeak eta narruato-rrak, ostera, guztiak estalduten dabez. Urrez estali egik obena bai, ta iri minik egiteka ausiko dok zuzentzearen aztamakil sendoa; sorkiz yantzi egik bai, eta epotxaren las-toak be zulatuko yok alderik alde. Ez da ezer zilegi ez danik, ezebez.-Ostera be badiñot, ezebez gero; neuk zintzotuko dodaz; nigandik artu, adiskide, salatzaleari ez-pctnak itxiazoteko eskubidea. Leiarrezko begiak Iortu egizak, eta erriketazale zistrina-ren antzera, ik ikusten ez dozakan zerak ikusten dozakanarena egik. Oraintxe, oraintxe; oraintxe, oraintxe," atera nire oskiak; indar, indar; olantxe.

EDEG.—Ostera! Bentasuna ta egoki-eza nas-

(21) Eladefarren mituliztiko mamu erdi-gizcn, erdi-zaldi ziranak yatsuz Zaldi-gfzonak: irudirnenaren asmakeriak. (Kentciuros elade raz).

(22) Airi atsegin yakoan izkirnirietauk bat dakasu Shakespeare'k leku onetan. Izkirnirirako "heavy" (astun) a\*a "light" (arm, argi) artzen dauz, eta itzoi polito lao eragiten dautse. Astun dau Gloster'ek begi-ontzia edo batzuloa, zizkua ostera arin, berña argia be begietan bearrez, zizkuan, idigirik etcr utsik dago-ta. Euskeraz ez dogu, nik dakidala, "arin" eta "argi" dikurren itzik- eta, euskeralbentck azkafuegi urten becr. Itz baien ordez bi erabili becr, etci ezta bardin.

Euskeraz ba-dciu "argi" itzak "cuin", "zirtzil", "zistrin" itzcikaz (jr-ernonik, baña osoan besterakoa, irri-esakercikoa. Opatu egiozu aalgaitzert etzandera burulsuri ce nnfz beste zer zar gai eztanen bat eta laster en.\*zungo dozu "Bai, oe argia orixe!". Etcí orrazkeror, ez dozu etzandera orrerl zetan ekin geigerorik, orrek musturra zelan okertu dauen Ikusirik.

te-borrasteturik! Buru-argltasuna ta zorakeria biak batera!

LEAR.—Nire zori txarrai negarrik egin gura ba'dautsek. autsoz nire begiak. Ezagun baño ezagunago aut nik; Gloster deretxak iri; eperik bear dok ik; negarrez etorri gintoazan ona; ba-dakik lenengoz eguratsundea artzen dogunean urruma ta negar egiten dogula, Eleiz-itzaldirik egin bear daukat; entzuik.

GLOST.—Ai ene! egunaren zori txarreko!

LEAR.—Negar egiten dogu yaio gareanean, zoro-antzoki andi onetara etorri garealako. Zubil ederra dok au! Marro bikain litzateke zaldi-talderi oñetan mantar lodiren bana erantsitea; neuk egingo dot, zelango dan ikusteko; eta ixil-muxilka nire suñakana eldu nadinean, orduan il, il. il. il, il, ill

ANDIKI bat aurrera, Otseñakaz.

AND.—Ara! emen dago bera; eskuak ego-tzi orreri. Yaun, zure alaba maite-maitea...

LEAR.—Nii'e buruaren yabe gelditzerik ez? Zer? Atxilotu? Zoriaren berezko ergel naz ni. Ondo erabili nagizue; aske-ordaina emongo dautsuet. Ebaketa-osagilek bear dodaz nik. Garaunetaraño ebagita nago ni.

AND.—Edozer izango dozu zuk.

LEAR.—Besterik iñor bez? Ni bakarrik? Ara! Gatz egingo leuke onako onek gizona, beratuteko ur-ontzi bere begiak, eta bai udagoieneko autsa bustiteko be.

AND.—Yaun on...

LEAR.—Adoretzu il gura dot, spnargei arro legetxe. Ba! txitxari izango naz; goazen, goazen; errege naz ni. Nire ugazabok, ekizue au,

AND.—Errege zara zu-ta, zure esana egingo dogu.

LEAR.—Olan ba'da, bizirik itxiko nozue. Nire bizia gura ba'dozue, ariñeketan goatu bearko dozue. 'la, za, za, za.

(Alde dagi ariñeketan; Otseñak atzetik ara)

AND.—Zori txarrekorik zistrineneztako be ikuskizun errukarria, erregegan errukarrik errukarriena! Alaba bat dozu zuk zure alaba bik ekarririko guztien gaiztespen eta aienetatik berezkoa yareiteko.

EDEG.—Gora, yaun zindo.

AND.—Yaun, arin esan esatekoa; zer gura dok?

EDEG.—Gudaketeazko ezetariko barririk entzun ete dozu?

AND.—Bai orixe. ta edonok daki ori; otsfik bereizi daiken orok dantzu ori.

EDEG.—Baña, arren-bai-arren, ur ete dago beste gudarostea?

AND.—Ur eta iraduz dator; ikusterik onena etentzaka zai egotea da.

EDEG.—Eskerrik asko, yaun; besterik ezer bez.

AND.—Erregeoa bera berarizko arazok emen eukiarren, aurrera egiten asia da aren gudarostea.

EDEG.—Eskerrik asko. yaun. (Andikiaic ulde).

GLOST.—Yaingo beti txeratsuok, nire atzenengo arnasea artu egizue; nire gogaldl txarrak ez al nau zizkauko ostera be zuoi gogoko yatsuen baño len ilteko!

EDEG.—Egoki da zure arrena, aita.

GLOST.—Yaun on, nor zauguz zu?

EDEG.—Zoriaren erasoak otzanduriko gizon txiro-txiro; atsekabe-lorrek ikusi ta min arturik erruki biozperaz ganezka dajona. Zure eskua ekadazu, ostondegireii baterako bidea erakusiko dautsut.

GLOST.—Eskerrak biotz-biotzez, baita zerutlko ondusun eta onespena be.

OSUALDA aurrera.

OSUAL.—Au da goakallu aldarrikatua! Au dok zori ona! Begirik bagako Lre buru ori nire zori ona geituteko aragi-erafu zoan. Saltzalla zori txarreko zar ori. arin gogoratu egizak ik eginakr zorrotik aterata yagok i mnatuko auen ezpatea.

GLOST.—Ire esku adiskideak indarrrik asko ezarriko al yeutsak orain. (Edegarla sar-lzen der bRcirtean).

OSUAL.—Baserritar azarri orrek zegaitik urten bear dok saltzalla aldarrikatuaren alde? Alde emendik, orren kutsuak ire zoriari be bardin eldu ez dugion. Itxi egik orren besoa.

EDEG.—Ez dot itxiko, yaun. besterik baga.

OSUAL.—Itxik, yopu, ostein eu be ilgo az!

EDEG.—Andiki on, aurrera zoaz, eta lagun txiroai aurrera egiten itxi. Arropuskerfek asko ba'litzosak niri bisie kentzeako, oin amabost egun galduko ñeunkean. Es, ea akio urratu agureari; alde eik, yagoik ire burue, ostein ikusik ire kaskarra ala ntea dan gogorrako; argi te garbi ein gure dustat berba.

OSUAL.—Alde egik, koroztegi orrek.

EDEG.—Aginek aterako dautzudaz, yaun; erdu; es dust ardure sure espateagaiti. (Burruka daragoioe, eta Edegarla'k zaitadaka lurreraten dau).

OSUAL.—II egin nok, yopu; zital orrek nire zizkua artu egik; iñoz onik eta ondo ibiltektan. nire gorpua obiratu egik, eta nik aldean dodan idazkia Gloster'ko Konde Edemunda'ri emon egio; Biritandarren aldekoen artean billatu egik a; ai ene, nire eriotzearen tertzio txarreko!

<U egiten da).

EDEG.—Ezagunik asko aut i; zital leperdi-garbitzalia; gaiztakeriak gurako leuken *aña*-ko ire ugazabanderearen esaneko.

GLOST.—Zer? II dok ala?

EDEG.—Yezarri zadiz, aita; atsedan artu. Sakelak dakusguzan; ba-ledike nire adiskide Izatea orrek aitaturiko arako idazkia. Bai, 'I da ori; tamal bat dot orraitioño, orrek eriotzorik bat baiio ezin al izatearena. Dakusgun: zure ederretsiz, ctrgizai begiragarri, eta, koipekeriok, ez ezarri errurik guri; gure arerioen asmoak yakitearren biotzak be urratuko geunskiez; legezkoago du ingiak (papelak) urratzea. (Ba-dirakur) "Guk alkarri eginiko zinak gogorutu daiguzan. Ereirik asko 'dozu zuk ari bizia kentzeko; orretarako gogorik ezpa'dozu bein-beinean, aldirik eta lekurik agertuko da orretarako. Gurendari ba' letor *a*. dana galdua litzake; aren atxilo nintzateke orduan, eta aren oea nire elburu; oe orretako epeltasun

inguingarrik yarei nagizu eta zure egikizunerako lekua gertatu egizu. Zure (emazte, olan esango neunke nik) otsein maitakor. Gonerile". Emakumeren gurari-ontzi zistrin ori! Bere senar zindoaren biziaren aurkako azpikeri; eta nire anaiea aren ordeko! Emen, areatza onetan, iltzalla lizunen bidaririk inguingarrien ori, emen zuloa egin eta obiratuko aut; eta erea datorrenean, il gu. ra izan daben dukearen begien aurrean yarri ingi inguingarri au; ondo etorriko yakori ari nik ari ire eriotza ta arazoaz itz egin al izatea.

(Alde dagi Edegorta'k, gorpua' tarraz dcroala)

GLOST.—Burutik eginda dago errege; gogor da orraitioño nire biotz zatarra nire naibage-lor itzalen barri yakin eta a ta guzi be tinko egoteko! Oba litxakit oartzeka egon; olan nire oldozpenak nire naibageetatik al-dendurik legokez; eta osteango burutapetan eragoazkero, euren buruaz aztu egiten dira zori txarrak.

OSTERA be EDEGARTA aurrera.

EDEG.—Zure eskua ekadazu. (Dcmbor-otsa urrinean). Urrinetik, nik alan uste, danbor-otsa dantzut; goazen, aita, adiskideren bat. ten ardurapean itxiko zaudaz. (Alde dcigie).

## VII AGERLEKU.--Pantzetarr< I Gudaltegiko Txozna bat.

LEAR oean lotan, eresi biguna yoten dautsoelarik; OSAG'LE, ANDIKI, ta beste begirale batzuk. KORDELE ta KENT aurrera.

KORD.—Kent on ori, zelan bizi ta lan egin bearko dot zure ontasuna bardindu al izateko? Laburregi izango da nire bizia ta neurri guztiak uts egingo dauste.

KENT.—Andera, ganezka ordainduten dozu zuk nik egina aintzakotzat artuaz. Egi apalaren arauz emonak izan dira nik emondako barriak, ez puztuak, ez gitxiagotuak, egiazkoak baño.

KORD.—Soñeko oberik yantzi egizu; aldi txarragoen gomutagarri baño ez dira sorki orreik; arren-bai-arren, erantzi egizuz.

KENT.—Parkatu, andera maite; nire asmoen aldia laburtu egingo leuke dagoneko ni ezagun izateak; nik egokitza uste izaneko aldirate zuk ni ez ezagutzea zan nire asmoa.

KORD.—Orrazkero, olan bedi, ene yaun on. Zelan dago errege? (Osagifleari).

OSAG.—Lotan dago oindiño, andera.

KORD.—Ene yainko maiteok, osatuko al dozue txarto erabiliriko berezkoaren brintza andi au! Doñuratu egizue umetu dan aita onen adimen doñutik urtena ta latza!

OSAG.—Errege orrek errege irartzetako zure ederretsia emongo al dauskuzu; aspaldi onetan lotan dago.

KORD.—Zure yakituriak berak erabiliko al zauz, eta zeure gurarien bendeke izango al zara. Yantzita ete dago?

AND.—Bai, andera; soñeko barriak yantzi dautsaguz lo-zorroan.

OSAG.—Aldamenean egon zu, andera on. guk *a* iratzari dagigunean; ez dot uste asarratuko danik.

KORD.—Ori ondo.

OSAG.—Arren-bai-arren, urreratu zakioz.--Gogorrago yo dagiela aik ereslariakl

KORD.—Ene aitaxo kutun! zuzpertzak bere osakia nire ezpanetan yarriko al dau! eta mun onek osatuko al dauz nire alztak zuri adeigarri orri eginiko kalte itzalak!

KENT.—Errega-alaba txeratsu-maile ori!  
 KORD.—Arein aita izan ezpa'zintzaz be zu, ule-molto zuriok eupada egin bear euskioen arein errukiari. Axeakaz burruka egitekorik ete zan arpegi au? Ostots ikaragarriai aurrea emetekorik? Oñaztarri bizi-zearkorren erasorik itzalen eta arinenean? Atzarrik, gaxoa! Buru-koskol me onegaz? Nire arerioaren txakurra, usigi izan ba'leust be, gau atan nire sutondoan izango litzakean, eta zu, aita errukarri, zuk etzendun izan beste biderik txarri ta lagun baztatu ta zistrinenakaz batera agolz ezadun estalperatutea baño? Olangorik, olangorik! Antlia da zelan zure bizi ta zure burua ez ziran biak batera ondatu. Atzarri da; itz egiozu.  
 OSAG.—Zeuk egin, andera; orixe da egokien.  
 KORD.—Zelan dago nire errege yauna? Zelan dago zure erregetzea?  
 LEAR.—Oker egin daustazue ni nire il-obititik atereagaz; zori oneko gogoen bat zara zu; nire negarrak berun urtuaren antzera berotuten dabean suzko txirrinkeari esturik nago ni.  
 KORD.—Yaun, ezagun ete nozu?  
 LEAR.—Gogo uts zara zu, ba-dakit ori: noz il zintzazan?  
 KORD.—Tjrrin be urrin dago ori oindiño!  
 OSAG.—Ozta-ozta dago atzarrik, lo-atzarrian dago,- geldi itxi apur baten.  
 LEAR.—Non izan naz? Non nago? Egun-argi zoragarri?... Iñondikoak egin daustez niri. Besterik onan ikusi ba'nei, erruki utsez il bear neunkake. Ez dakit zer esan. Ez do! zirik egingo eskuok nire diranik... dakusgun... Orratz onek min egiten daustala somatuten dot. Ni nor nazan al nenki!  
 KORD.—Begira nagizu, yaun, arren, eta eragi zure eskuak niri zure onespina emetoko. Ez, yaun, zuk ez dozu belaubikatu bear.  
 LEAR.—Arren-bai-arren jrririk ez egidazu egin: agure ergel-ergel maitakor nozu ni, Iarogei urte eginak dauzana, ez ordubete geiagorik, ez gitxiagorik! eta argi ta garbi esateko, burutik ondo ez nagola uste dot. Ezautu bear zindukedazala uste dot, eta bai gizon au be; orraitio be ba-dot zalan-

tzarik; au ze toki dan be ez dakidunazke ro; ta nire ekinaren ekinez be ezin gogoratu dodaz soñekook; igaroko gaua non egin dodan be ez dakit. Ez egin barrerik nire lepotik: ni gizon nazanez, andera au nire alaba Kordele dalakotzat nago-ta.  
 KORD.—Eta izan be ba-naz, ba-naz.  
 LEAR.—Ezoak dira nire negar-tantanak? Bai, benetan. Arren-bai-arren, negarrik ez egin; edenik ba'dozu nitzako, edango dot. Ba-dakit maite ez nozuna; nik gogoratuten dodanez, zure aitzak oker egin dauste-ta; zuk bai ba-dozu orretarako biderik; aik ez dabe.  
 KORD.—Ez dot orretarako biderik, ez do!  
 LEAR.—Pantze'n nago ala?  
 KENT.—Zeure bakalderrian, yaun,  
 LEAR.—Isekarik ez egidazue egin.  
 OSAG.—Nasaitu zadiz ,andera on; dakusazunez, il da orrek barruan eukan osarre bizi; eta orraitio be lengoak orri burura ekarte galbidetsu dala uste dot. Barruratu daitela eskatu egiozu; ez emon neksrik obeto yarri arte.  
 KENT.—Ibili gura ete dozu nagusi orrek?  
 LEAR.—Eperik bearko dozue nigaz; arren-bai-arren, aztu ta parkatu nagizu; zar ergel nozu ni,  
 (Alde dagie LEAR, KORDELE, OSAGILE /a Begiraleak).  
 AND.—Egia ete da, yaun, Kornuol'go Dukea il dabena?  
 KENT.—Egi-egia, yaun.  
 AND.—Nor da aren erriaren buru?  
 KENT.—Diñoenez, Gloster'en seme sasikumea.  
 AND.—Or diñoenez, aren seme Edegarta erbesteratua Alemani'n da Kent'eko Kondeagaz batera.  
 KENT.—Aldakor dira barriak. Zai eta zur egoteko aldia da au; Bakalderriko Indarrik bizkor datoz urreratuz.  
 AND.—Odoldariotsu izango iz erabakizuna, urrean. Agur, (Alde dagi).  
 KENT.—Zeatz eta atzeneraño cgingo dot nik nire egitekoa, onerako naiz txarrerako, egun onetako erasoak zelango atzena izango. (Alde dagi).

## V EKITALDI

## I AGERLEEU.-Biritandarren Gudaltegia, Dover'tik ur.

Danbor eta ikurrinekaz EDEMUNDA, ERREGANE, GUDAL-AGINTARI, GUDARI ta besfe batzuk aurruru.

EDEM.—Yakizue dukea lengo asmoetan dagon, *aia* arrazkero oituen batek yardunbidea aldatuazo duutsan: aldakor uts da a eta bere buruagaz asarre; a zetara yarri dan iragarri egidazue. (Atetara docm Gudal-agintariaxi).

ERREG.—Zalantzarik baga okerreko bidez dabil gure aiztearen gizona,

EDEM.—Bai ete, andera?

ERREG.—Ba-dakizu nik egin dautsudan ona, yaun maite; esuidazu. baña benetan, egia esaidazu, nire aizteu ez ete dozu inuite zuk?

EDEM.—Maitatasun garbiz.

ERREG.—Bein be ez ete zara ibili nire koñatua nondik dan yakiten leku galazora zu sartzeko?

EDEM.—Burutapen orrexek txarto zarabiltz zu.

ERREG.—Susmorik ba-dot nik zu nire aizteagaz batu ta agaz maitakerietan ibilia zareala, bere-bere zeretan sartu arte.

EDEM.—Ez, nire entzuie onaarren, ez andera.

ERREG.—Iñoz be nik ez dot yasango a; ene yaun kutun, ez izan adiskidetasunik agaz.

EDEM.—Ez izan orren bildurrik; bera ta bere senar dukea!

DANBOH eta ikurrinekaz aurrera ALBANI, GONERILE ta GUDARIAK.

GON.—(Beratza'ko). Gurago neunke gudaketea galdu, nire aizteak a ta ni alkarregandik banandu baño.

ALB.—Gure arrabaide (koñata) maite-maite, trikitx ondo egina. Yaun, zera entzun dot, bere alabeagana etorri dala errege, gure agintzako gogorkeriak negar egitera bultzau dauzan beste batzukaz batera. Zindo ezin izan nazan lekuan eguño ez naz izan adoretasu\* Pantze'k bere oña gure lurtean ímini dauenazkero, gure dan arazo onetan errege ez da adoretuten, ezta, nire ustez, zegaiti zuzen eta astun batzukaitik gure aurka dagozan batzuk be.

EDEM.—Yaun, andikiro itz egiten dozu zuk.

ERREG.—Zer dala-ta ibiñi bear dogu zegaitien billa?

GON.—Alkartu zadize arerioctren aurka yo daigun; emen erabagi bear diranak etxeko ta bakotxaren arazoak ez dira-ta.

ALB.—Orrazkero, zer egin bear dan erabagi dagigun gudu-ikurrinaren aurrean.

EDEM.—Bertatik elduko naz zure txoznara.

ERREG.—Aizta, lagun izango atxaku?

GON.—Ez.

ERREG.—Egoki be egoki don, ba; gugaz ator, arren.

GON.—(Beietzako). Ara! Ba-dakit igarkizuna, Ba-noa.

ÍÁik urleterta docizaia, Edegarta auriera, kokomarroturik)

EDEG.—Eguño yaun agurgarri orrek onenbestean txiro 'dan gizonaegaz itzik egin izan ba'dozu, itz bat entzun egidazu.

ALB.—Goatuko zauedaz nit. Itz egik.

(Alde dagie Edemunda, Erregane, Gonerile, Guda-agfntariak, Gudariak eta Begiraleak.)

EDEG.—Gudaketea asi-aurretik idigi idazki au. Gurendari ba'zadiz, adarrotsez aldarrikatu gurenda ekarri dauenaren izena: Zistrin-iduririk izanarren, txapeldun urteango naz ni, nor eta zer nazan yakin dagizuen. Okerreko bidea artu ba'dagizu, mundu onetako zure egitekoarenak egin dautta. zugazko azpikeriak ez dau izango egitekorki. Zori ona izango al yatsu laguni

ALB.—Nik idazkia irakurri arte etxon egik.

EDEG.—Galazota dot ori. Garaia datorrenean ots-egileak gedai egin dagiala ta osiera be agertuko naz ni.

ALB.—Orrazkero, agur: begiratuko yoat irs papela. (Alde dagi Edegarta'k).

EDEMUNDA aurrera ostera be.

EDEM.—Agiri da arerioa: euren lekuetan imini zure indarrak. Azterketa zeatzez yakin dodanez, amezan gitxi gora-bera arein sendotasuna ta indarrak; zu bizkor ibiltea da orain zuri eskatuten yatsuna.

ALB.—Datorkenean, "Gora" gedar egingo dautsagu eretiari. (Alde dagi).

EDEM.—Aizta bioi zin egin dautset moite dodazala; alkarganako bekatxez beterik da-



goz, uslgia suge-zitalagazko dagon lege-!xe. Bietatik zein artuko ste dot? Biak? Bata? Ala ez bata ez bestea? Biak be ezin emon atseginik, biak bizirik izatekotan; alarguna arteak asarratu ta burutik eginda izten dau bere aizta Gonerile; eta nire asmoak nekez bete neinkez aren senarra bizirik dala. Orrazkero, bein-beinean, aren (Albani'ren) izenez egingo dogu gudaketea;

## II AGERLEKU.-Gudalt

GUDARA-otsa barruan. DANBOR eta ikurrinekaz LEAR, KORDELE, ta euren indarvak sartu-urtena egiten dabe aurretik zear.

EDEGARTA ta GLOSTER aurrera.

EDEG.—Aita, zugatz onen itzala artu emen zure ostatari ontzat; arren egin. eskubideak irabazi dagian; bein geiagotan etorri ba'nakizu, poza ekarriko dautsut.

GLOS.—Eskerra boa zugaz, yaun, (Alde dagi Edegetrta'k).

## III AGERLEKU.-Biritandar:

DANBOR eta ikurrinekaz gurendari dator aurrera EDEMUNDA; LEAR eta KORDELE atxiloturik; Gudol-agintariak, eta abar.

EDEM.—Guda-agintarien batzuk eroan begiez orreik emendik; ondo yagon, orraik epaitu bear dabezenan goragolco asmoak zeintzuk diran yakin arte.

KORD.—Asmorik onenagaz zerik txarrena aurkitu dabenetatik lenengoak ez gara gu. Zugaitik, estu erabiliko errege, zugaitik nago ni larri; ostean nik aurrezaurre begiratu neunke zori txarraren betozko iluna. Ez ete doguz ikusiko alaba ta aiztak?

LEAR.—Ez, ez, ez! Tira, espetxera goazen; guk biok bakan'ik an txoriak txorigian legetxe abestu egingo dogu; zuk onespenik eskatu dagistazunean, nik belaubiko parkapena eskatuko dautsut: belantxe, bizi, arren egin, eta ipuin zarrak eralgiko doguz; txipileta urreztauai barre egin, eta guzurti gaxoai yauregiko barriak entzungo dautseguz; eta eurekaz itzik be egingo dogu; nor dan bean, nor goian, nor dan kutun, nor baztartu daben; geutzako eukiko doguz zeren zegaiti ixilpekoak, Yaun-goikoaren barrandari ba'gintzaz lez; eta gu-

eta bein gudoketea amaituazkero, a bitartetik ksntzea gurako lskuken noak tiaman dagizala ori len baño len egiteko bideak. I.eor eta Kordele'ri erruki izateko dauzan asmoakazko, bein gudciketea amaituazkero. aik ez dabe ikusiko aren parkapenik; ©ta izan be, yagon egin bear dot nik dodana, ez zalantzan itxi. (Alde dagi),

[i bien arteko lur-arloa.

GUDA-OTS eta ATZERAKETA barraan. OSTERA be EDEGARTA aurrera.

EDEG.—Alde emendik, agure... zure eskua ekadazu. Alde! galdu egin dau Lear Erregek; goatu dabez bera ta bere alabea; zure eskua ekadazu; goazen.

GLOST.—Aurrerago ez, yaun; ementxe be useldu dateke gizonik.

EDEG.—Zer? burutapen txarretan oster a be? Ona etortea legetxe, emendik alde egitea be yasan egin bear dabe gizonak. Gertu egotea da dana: goazen.

GLOST.—Bai, ori be egia da. !Alde dagie).

gudaltea Dover'uk ur.

re espetxeko orma-barruan iretargnak eraginda urbera-urgorak izaten dauzan itsaoo lez aldatu ta batzakuntza ta banakuntzak izaten dabezan andikien barri entzungo dogu.

EDEM.—Eroan egizuez emendik.

LEAR.—Onango oparien ganera, ene Kordele. yainkoak eurak be lurrin gozoa zabaltzen dabe. Eldu ete dautsut? Gu alkarregandik banandutekoak zerutik burdin goien bat ekarri bear ko dau eta emendik, azeriak lez, suz atera. Legortu zure begialc; biotz oneko urteak iruntsiko dabez orreik, aragi ta narru, guri negarrrik eragin baño len: eurak ikusiko doguz gu baño len gosez ilten. Goazen.

(LEAR eta KORDELE'K alde dagie, yagonda).

EDEM.—Erdi ona, gudalburu; entzun. Artu idazkitxo au (Papeltxo bat eskuratzen deaitso); oa eta lagun akie espetxerakoan; ma-Ua bat gorago imini aut; onek diñona egin ba'dagik, ire zori on andirako bidea egiten dok; au yakik: aldien erako dozak gizonak; biozpera izaterik ez yagokok ezpatari; ire egiteko andia ez dok atan aiko- maikoka ibiltekorik; baietz esan egik sdo,

ostean, aurrera egiteko beste biderik artu egik.

GUDAL.—Egingo dot, ene yaun.

EDEM.—Atara ba; eta bein egindakoan pozik idatzi egidak. Adi, bereala esan gura yoat nik; eta egitekoa nik idatzi dodanez egik.

GUDAL.—Burdlik tarraz eroaten ez dakit nik, ezta olo igarrik yaten be; gizonek egitskorik ba'da .gingo dot nik. (Alde dctgi).

ERESIA, ALBANI, GONERILE, ERREGANE,

Malla-gudariak, eta Begiraleak aurrera.

ALB.—Yaun, zure eraso oldartsua erakutsi dozu gaur eta zoriak bidea ondo erakutsi dautsu; loturik dozuz gaurko ekitaldian zure aurka egozanak; areixen eske natortsu, bai arein irnbaziari ta bai gure seguran-tzeari bakotxari berea emoteko.

EDEM.—Yaun, egokitaz etsi dot errege zar-erukarria yagola izentauekaz espetxera bidaltea; eta izan be, aren urteak, areago aren izenak lilurapenik ba-dabe erri zearen biotza bere alderatuteko ta guk gudaketa-ra nai ta nai ez ekarri doguzan gudariak arei aginduten dautsen geure begion aurrean bere alderatuteko. Agaz batera bidali dot erregeinoa be; zegaiti berberagaitik egin dot ori be; eta batzarra egingo dozun lekuan, biar naiz geroago, agertuteko gerturik dagoz. Izerdia ta odola dariola gagoz bein; adiskidek bere adiskidea galdu dau; eta berotan burrukarik onenak be gaiztetsi egiten dabez euren zorrotasuna somatu izan dabena, eta aienka gaiztetsi be; au baño leku egokiagorik eskatuten dau Kordele ta aren aitaren auziak.

ALB.—Yaun, epez artu egizu au, baña nik gudu onetan bendekotzat zaudaz, ez anaitzat.

ERREG.—Nik nire eskarrez zertzat eta nortzat dodan axe izango da ori. Nire ustez nire eretxia eskatu bear zeunkean zuk olan itz egin baño len. Berori izan da gure indarren buru; nire lekuko ta nire ordezeko izan da; urkotasun ori yagi dateke ta bere buruari zure anai deitu.

GON.—Ez berotu orrenbesteraño; zuk erantsiak baño geiagi goratuten dau ori berorren geitasunak.

ERREG.—Onena añako da nik ezani dautsadan eskubideetan.

GON.—Zuk senartzat artu ba'zendu litzateke ori andien.

ERREG.—Igarla izaten yatsuz sarritan irilariak.

GON.—Ostera, ostera! ori escm eut3un be-giak zearretara baño ez zinduzan begiratu.

ERREG.—Andera, ondo-ezik nago, ostean gogor erantzungo neunskizu. Gudalburu-buru, nire gudariak artu, atxilotuak eta nire ondasunak; eurekaz eta nigaz zeuk zer gura egin; zure dira ormak; mundua bedi lekuko ementxe nire yaun eta ugazaba egiten zaudazala.

GON.—Orregaz atsegin ortzea ete da zure asmoa?

ALB.—Ez da zure gogoko iñor geldi izteñk.

EDEM.—Ez zure gogoko be, yaun.

ALB.—Bai, sasikume.

ERREG.—Yo dagiala danborrak, eta nire ize-na ire dala erakutsi egik (Edemundari),

ALB.—Emen ago bein-beinean; entzun egik argibidea. Edemunda, azpiyalekeririk andienaren erruduntzat atxilotuten aut; eta i atxilotuaz bai suge urreztau au be (Gonerile erakutsi-ala). Zuk zuretzakotzat eskatuten dozunagazko, arrabaide (kofiata) lirain, eragotzi ta galazo egiten dot nik nire emaztearen eskubideakaitik; au dago yaun orre-ri ezkontza-itza emonda, ta nik, onen senar onek, aurka egiten dautset ezkontzadeioi. Ezkondu gura ba'dozu, neu artu nagingu zure maitetzat. Aurreztik dago itz emonda nire anderea.

GON.—Ara non dogun antzerki-bitartekoren bat.

ALB.—Iskilluok aldean dozak ik, Gloster; adarrak yo dagiala; ire azpiyalekeri gorrotagarri, agiri ta ugariak igan egiazko dirala erakustekorik agertu eza-dadi, or dok nire baia (Lurrera egozten dau bere esku-zorroa); ogirik nire agoratu baño len neuk erakutsiko dodala ire biotzean nik emen itzaldarrikatua baño bape gitxiagorik ez azala.

ERREG.—Larri naz, ai ene, larri naz ni!

GON.—(Beretzako). Ostean iñoz be eneunke izango uste onik osakaitan.

EDEM.—Or dozu nirea orren al'derako. <Lurrera egozten dou bere esku-zorroa); ludi onetan niri azpiyale deitu dagistana, dann dala, zistrin-guzurti utsa da; ots egin zure adarragaz; iñor azarri ba'dadi urreratuten, aren aurrean, zure aurrean, eta noren aurrera ez? gogor eutsingo dauUak nik nire egitari ta izen onari.

ALB.—Aldarrikari, eee!

EDEM.—Aldarrikari, eee! aldarrikari!

ALB.—Ire azkartasunean, ire adorean bakarrik yari egik ire ustea; nire izenez ikurrinpera deituriko ire gudariak nire izenez euren buruen yabe yarririk yagozak-eta.

ERREG.—Geroago lariiago naz.

ALB.—No ori ez dago onik; bere txoznara eroan egizue. (Erregane'k nlde dagi inok bidea ercskutsita).

ALDARRIKARI bat aurrera.

Alor ona ,aldarrikarl, yo egik adarra, ta cu irakurri egik.

MALLA-GUDARIK,—Yo adarra. (Ycten dccu adarrak).

ALDAR.—(Ba-dirakur). "Gudarosteko izer.degi-ko gizon zindo naiz mallakok egitez aendetsi gura ba'dai Edemunda, Gloster'ko Konde dalakoa, askotariko azpiyale dala, adcirrak irugarrenez yo dagianean ona agertu daitela; bere burua yagoteia osoan eiabagiril dago a bera".

EDEM.—Yo! (Lenerigo codcr-otsa),

ALDAR.—Barriro! (Bigarren adar-otsa).

ALDAR.—Beste bein! (Irugarren adar-otsa).

(Bcrrnutik cidar-otsak erantzuten dau)

EDEGARTA aurrera, iskillokaz, bere aurretik adai-yolea datorrela.

ALB.—Ze asmo dakarren eta zegaitik agertuten dan adar-ots onen deira itandu egioik

ALDAR.—Nor zara? Zure izena, zure zindotasuna? Eta zegaitic erantzuten dautsazu oraingo dei oni?

EDEG.—Nire izena galdu egin zala yalcin egizu; azpikeri-aginak aginka zuritu ta bizienak yanda; orraitioño be, azpiratzera nartorkon nire arerioa bestean zindo ba-naz.

ALB.—Nor dok orrako arerio ori?

EDEG.—Nor da Gloster'ko Konde Edemundaren alde itz 'dagiana?

EDEM.—A berbera: zer dirautsak ik?

EDEG.—Nire itzak biotz zindoren iraingarri ba'dozak, ateia egile ire ezpatea, iri zuzena emon dagiskan: aiko amen nirea. Begira, au dok nire zindotasun-agirien, nire zinaien eta nire yardunaren agiria: ire indar, gaztetasun, leku, goikotasun, ire ezpata garaile ta zori on lortu-barri, ire adore ta ire biotza gora-beia, i azpiyale ta etoi azala emen guztien aurrean autortuten yoat nik; arpegi-biko fcai yainkoentzako, bai ire anaiearentzako ta ire aitarentzako; eirege-sume onentzako, saltzallekide; eta ire buruaren erpin-erpinetik bera ire oinpeko autseraño, kunkun-zetadun azpiyale utsa. "Ezetz" esan egik bai, ta ezpata au, beso au. ta nire adorerik bizien eta gartsuena makurturik yagozak ik gu-

zurra diñokala nik itz egiten dautsadan ire biotzean erakusteko.

EDDM.—Zurtasunez, ire izena sskatu bear neunskik; baña ire azala Hraln eta giarratsu danazkero, ta ire itz-egikereari azikera onaren sundatxorik ba-darionazkero, zalduntzako arauen bidez ezetariko uts ets akatsik egiteka, onako au nik geroagoratu al Izanarren be, eskubide au baztartu ta ezetsi egiten yoat; ik esaniko azpiyalekeriok atzera eure buru-ganera yaurtiten yo adaz; sulezaa bestean gorrotagarri dan guzurpean ler egin-aginik yagok ire biotza, eta a ta guzti be iie guzunok nire alboazear laprastaka igaroanen unuturik be ozta-ozta egiten daustenok laster eta arin iminiko yozak nire ezpateak betiko an geldituko diran ire biotzerako bidean, Yo, adaryoleok!

(Gudu-otsak. Burruka daragoioe. Lurrerct doa Edemunda).

ALB.—Yarei egizue! yarei egizue!

GON.—Marro egin dautsue, Gloster: iskilloraraudiz zu ez zengozan bearturik aurkalarl ezezagunai erantzuteko; ez zaez benderatu zu, zu atzipetu ta zuri ziria sartu baño.

ALB.—Itxi zure agoa, emakume, ostein papelp onegaz itxiko dautsut-eta; geldi, jaun; edozein izen baño txarrago azan orrek iia-kuiri egik iie gaitzakeiia; negairik ez emen, andera; oartzten natxako ezagun dozula. (Arako idazkia damotso Edemundari).

GON.—Ezagun ba'dot, esan egizu nok salatu naiken orregaitik, legeak nire ez zure diranzksro.

ALB.—Olangorik! ez ete dozu ezagun papela?

GON.—Ez itandu niri zer dodan ezagun. (Alde dagi).

ALB.—Atzetik ara zoakoze; etsita dago; yagoik. (Urteten dan malla-gudariari).

EDEM.—Egin izan dot nik zuk nirl burura egotzia; baita geiagorik be, asko geiagorik be; gerora urtengo da argitara; yoan da ori, ta bai neu be. Baña nor augu i nigaz olango zori ona izan dokan ori? Odol-gaibi ba'az azkesten aut.

EDEG.—Goi-maitatasuna eiakutsi dagiogun alkarrerri. Odolez ez nok ni i baño gitxiagorik, Edemunda; aieago ba'nok, aieago iiaindu nok. Edegaita yatak izena, eta ire aitaien seme nok. Zuzen dozak yainkoak, eta guie akats atseginganiak egiten yoezak guie zigoi; begiak galdu yoazan i leku llun eta legez besterakoan sortu indunak.

EDEM.—Ondo itz ogln dok, egia dok; bira osoa egin yok txirrinkeak; emen nok ni,

ALB.—Ba-neban nik susnorik errege-zindotatsuna iragarren ebalia ire yokabideak; besartean estutu bear aut; naibageak brintzatuko al dau nire biotza nik eguño gorrororik izan ba'dautsuet iri naiz ire aitari!

EDEG.—Errege-seme aingarri, ba-dakit ori.

ALB.—Non ostondu intzan? Zelan yakin dokzak ire aitaren zori txarrak?

EDEM.—Euren ardurea artu-ala, ene yaun. Entzun itz-ariltxo bat; eta arildu dagidanean, ler egingo al dau nire biotzak! Orpo orpo yarrai etorkidan aldarriketa odol-tiari iges egiteko. Ara, gure bizien gozo! bein il baño gurago dogu eriotz-minez egunoro il-eta,.. biziari dautsagun maitatasun orrek irakatsi eustan nire soñekoer ordez zoro-sorki batzuk alderatzea; txakurrak eurak be aintzakotzat artzen ez dabean antza artzea; eta soñekookaz trikitz egin neban nire aitagaz, ak euretako arri ederrak galbarritan bere begien elastunak odola dariola ebazala; bide-erakusla egin nintxakon ari, neuk arteztu neban a, arentzako eskean ibili nintzan, etsipenetik yarei neban; eguño... nire utsarena! eguño ez neuntsan iragarri nire burua, oraintxe ordu-eridren bat dala arteño, ni iskillioakaz nintzanean; ondoren zori ontsu onen itxarotsu bai, baña seguru ez-eta, bere onespena eskatu dautsadanean, eta asieratik atzeneiaño eralgi dautsadaz nire yoan-etorriak; baña, ai! burrukan ekiteko aren biotz ausia makalegi izan bai, eta pozaren poz eta naibagearen naibageren erasoen bitartean irribarreka lerturik gelditu da.

EDEM.—Biotz biotzean ukutu yeustak ire itzaldi orrek, eta ba-ledike nire onerako izatea; baña ekiok; esateko zerbait geiagorik ba-dokala irudituten yatak.

ALB.—Geiagorik ba'dozu, negargarriagorik ba'dozu, bairuan eukizu; entzuna entzunaz ni larri-larri azkatu-aginik nago-ta.

EDEG.—Naibagezale ez diranak luze eretxi lzango dautsoe nik esanari; baña bestek, geiegi puztuteko, luzaroago ekingo leuke, ta goi-goiak yo. Nire billa bero-bero ebiltzanean gizon bat etorri yatan, eta, egokerarik txanenean ni ikusirik, nire lagungo gorrotagarririk alde egin eban; baña geroago alango eperik ebana nor zan yakin ebanean, bere beso sendoz nire iduna estutu ta zeruari be eztanda eragiteko añaoko arnasotsa egotzi eban; nire aitagana bidali neban nik; eta ak, Lear eta beragazko, egu-

ño belarrik entzun ea dauon lango ipuln errukarria eralgi euskun; ipuin ori eralgi-ala nire aitaren naibagea Hzalez aziaz yoian, ela biziaren ariak eteten asi yakozan; orretan, bigarrenez yo dau adarrak, etct nik an itxi dot ezaguerea galdurik.

ALB.—Baña nor zan arako a?

EDEG.—Kent, yaun, Kent aberritik egotzia, kokomarroturik bere areriko erregeri yarral, la yopurentzako be egoki ez diran otseintzak egin izan dautsazana.

ANDIKI bat aurrera iraduz, aitzo edoldua eskuan dauela.

AND.—Lagun, lagun, enee! lagun!

EDEG.—Ze laguntza?

ALB.—Itz egik, gizon.

AND.—Bero da, lurruna dario; aren biotz biotzetik ara dator... Olangorik! il da no a.

ALB.—Nongo no? Itz egik, gizon.

AND.—Zure anderea, yaun, zure anderea; eta bere aizea edendu dau ak; berak autortu dau ori.

EDEM.—Biai ezkontza-itza emona naz; irurok ezkontzen gara orain beingoa.

EDEG.—Emen dator Kent

ALB.—Bizirik, naiz ilik, aurrera ekarri areln soñak; ikarea sartzen dauskun zeru-epal onek ez dausku errukiz ukututen. (Andikiafe alde).

KENT aurrera.

Ostera! au ete da arako a? Aldi au ez da azikera onak eragiten dauskuzan labankeritan ibiltekorik.

KENT.—Nire errege ta ugazabari betiko gau on emotera nator. Emen ez ete dago a?

ALB.—Aztu egin yaku zer andi au! Itz egik-Edemunda, non dok errege? Eta non Kordele?

(GONERILE la ERREGANE'ren gorpuak ourrera).

Bajdakusazu ikusteko au, Kent?

KENT.—Onangorik! Zegaitik onan?

EDEM.—Orraitio maite eben Edemunda; nigaitik batac bestea edendu ta gero bere burua il dau.

ALB.—Egin-eginean olantxe... Estali orreirin arpegiak.

EDEM.—Bizitearren arnas-oska nago; nire bizikeiea orrotarakorik izan ezarren, on-iskiren bat egin gura dot. Arin bidali gaztelura, arin be arin; nik idatzia Lear eta Koi-

dele'ren biziagazko da-ta; bai, garaiz bidali.

ALB.—Arin egin, arin egin, enee! arin egin!  
EDEG.—Nogana, ene yavm? Nor da agindua dauena? Ekadak agindua ez beteteko ire atza.

EDEM.—Ondo oldoztua ori be; nire ezpatea artu egik, kapitaiari emon egio.

ALB.—Eure biziagaitik, zoli abil eta arin egik. (Alde dagi Edegarta'k).

EDEM.—Zure emaztearen eta nire agindua dau ak Kordele espetxean eskegiteko la ak berak eginaren errua Kordele'ri ezarteko, etsipenez bere burua eskegi izan ba'leu lez.

ALB.—Yainkoak yagongo al dabe! kendu egizue au emendik bein-beinean. (Atera egiten dabe Edeoiuinda).

LEAR aurrera barrien-barri, KORDELE'ren gorpua besartean dauela; EDEGARTA, MALLA-GUDARI, ta beste batzuk atzetik datozala.

LEAR.—Damu-gedar, damu-gedar, damu-gedar, damu-gedar! Onangorik! Arrizko gizonak zarie zuok; zuon miñak eta begiak ba'neuz, zeru-sapoia brintzatuteko erabiliko neunkez. Eetiko yoana da a! ba-dakit nik iñor noz bizirik dagon eta noz dagon illic; lurra bestean ilik dago au. Ispilluren bat ekadazue; onen arnaseak leiarra ezatu edo orbandu ba'dagi, bizirik dago.

KENT.—Arako iragarrita dagon munduaren amaia ete da au?

EDEG.—Edo-ta yazokune ikaragarri aren irudi?

ALB.—Betor, eta zer guztien atzena bedi!

LEAR.—Zirkirik egiten dau egaki onek: bizirik dago! Olan izatekotan, alan bearrezko zer onek nik eguño somaturiko naibage ta lor guztiak ordainduten dauz.

KENT.—Ene ugazaba on ori! (Belaunbiko yar-teo da).

LEAR.—Arren-bai-arren, ken akit ortik.

EDEG.—Zure adiskide Kent zindoa yatsu ori.

LEAR.—Zigorra zuoi, giza-iltzalleoi, guztiok zarie azpiyale-ta! Nik yarei negikean au; betiko yoana da orain! Kordele.Kordele! etxon bein. A! zer diñozu? Beti zan bigun, txeratsu ta apal onen abotsa... emakumetzako zer ederra. II egin dot nik zu eskegiten eragoion yopua.

MALLA-GUD.—Egia da ori, ene yaunak; orixe egin dau orrek.

LEAR.—Ez ete dot egin ori, lagun? Ikusi dot nik orrei nire ezpata zorrotzez yauzi era-

gin izango neunskien egunik, zar naz orain eta naibage ta lorrok eurok alperrik galdu nabe. Nor zauguz zu? Nire begiok ez dagoz iñozkorik ondoan; laster ebafziko yoat.

KENT.—Zoriak bitik bata maite ta besteari gcrroto izan dautsala arropuzka esan ba' dagi, bietatik bata emen dogu aurrsan.

LEAR.—Ikuskizun baltza da au. Kent ez ete az i?

KENT.—Axe berbera, zure otsein Kent. Non-áik da Kai zure otseña?

LEAR.—Lagun ona 'dok a, bai orixe; yoten ba-yakik ak eta arin yo be; ilik eta usteldurik dok a.

KENT.—Ez, ene yaun on; neu nozu a gizona berbera.

LEAR.—Bertatik ikusiko yoat ori.

KENT.—Zure lenengo aldakuntza ta aurbe-reazkero zure oñatz goibel-itunen yarrai ibili dana.

LEAR.—Ona ondo etorria az i.

KENT.—Ez ni, eta ez besterik iñor: emen dana da ilun, itun, eta eriotza-antzeko... zure alabarik zarrenak euren buruak manatu dabez, eta etsita il dira.

LEAR.—Bai, alan uste yoat nik.

ALB.—Ez daki orrek zer diñonik; eta alperrik da guk orreri gure buruak iragarrea.

EDEG.—Alper-alperriko.

#### MALLA9-GUDARI bat aurrera.

MALLA-G.—II da Edemunda, ene yaun.

ALB.—Uskeri utsa da ori emen. Zuok, yaun eta adiskide zindook, gure asmoa yakin egizue. Bsrak izan-ala pozbide emongo yako agure zar yausi andi oneri; gu geugazko, itxi egiten dogu gure agintzea; errege zar au bizi dan bitnrtean beretzako bedi gure agintza osoa: zuon eskubideetara zuok E(degarta ta Kent'eri); eta orrez ganera, zuok adeigarriko ondo be ondo iratazi dozuena eraskintzat. Adiskide guztiak txastatuko dabez euren ekandu onen ordainak, eta arerio guztiak euren irabazien edalontzinoa. Ostera! Begiratu, begiratu!

LEAR.—Eta nire kutuntxoa eskegi egin dabe! Ez, ez, ez dau bizirik! Zer dala-ta bizi bear ete dau txakurrek, zaldik, sagutzarrek, eta ik arnasarik ez? I ez az etorriko bein geiagotan, bein bez, bein bez, bein bez, bein bez, bein bez! Arren, azkatu botoi au; eskerrik asko, yaun. Ikusten dozue onako au? Begira no ori.r. begira orren ezpanak... begira ara, begira ara!

EDEG.—Larri da ori! Ene yaun, ene yaun. (II egiten da Lear).

KENT.—Ausi akit, biotz; arren, ausi akit!

EDEG.—Gora begiak, ene yaun.

KENT.—Ez kezkatu orren mamua! Enee, aurrrera yoaten itxi! gonoto dautsa orrek ludi latz onetako zildai-ganean luzeagotu gurako leukenari.

EDEG.—Benetan yoana da orl.

KENT.—Orrek orren luzaro yasan izana bai ba-dala aradi. Inñori osturiko bizla izan dau orrek.

ALB.—Eroan egizuez emendik. Guztion iletea da bein-beineko gure arazo ta arioa. Nire biotzeko adiskideok (Kant eta Edegar.la'ri),

zuok biok agindu bakalderri onetan, eta eutsin bakaldeni odoldu oni.

KENT.—Yaun .bidaldi luzerik egiteko nozu ni; deiez dot nire ugazaba, ela nik ezin emon ezetzik.

ALB.—Men eta amore agin bear dauksagu aldi goibel onen zameari; biotzean doguna esan, ez esan bear geunkenik. Zarrenak yasan dau geien; guk gazteok ez dogu inñoz ikusiko orrenbestetik, ezta orren luzaro gu biziko be.

(Alde dagie, il-ibilketa-eresiz)

AM YA

Salta'n 1968-VIII-21'gnean.

## ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

Zarrak dira itzotatik batzuk, barriak besteak; bat edo bat neuk asniaua. Irakurla, itz zarbarrien arerio ta erbastetikoen zale ta kutun ete zara? Olan izatekçtan zugazkoa eginda dago. Zuk zure bidea artu>. nik nirea ta, biok ixilik, zu ta ni, biok gara mundu onetan baketan bizi-bearreko-ta. Bege, ba.

ADEI.—Inogazko artu-emonetan begirapea eta lotsa.

ALATU.—Gogoko ez yakun zeren bategaitik asarrea erakutsi, "kexau",

AIZUN.—Guzurrezko.

ALATZ.—"Mirari" euskel-gaiztoz.

ALDARRI.—Ots, zarata.

ALDARRIKATU.—Oska, zarataka, gedarrez zerbait iragarri.

ALETZ.—Gitxitan entzun dot itz au; bein, urrean. "Auxe dok, ba, aletza" esan eban bein nire anai Yon zanak. Aletza zer san itandu neutsan nik. Eta ak: "Gauze txikie dok aletza" erantzun. Beraz, zer uts, zirtzileri esaten yako "aletz". Erderazko "friorera" "bagatela"ren esangura berberekoa.

ANKER.—Biotz-gogor, odoliti, odolzale, gordin.

ANTZERKI.—Norbait edo norbaitzuen bizitzako atalen bat, idazleak asmauta. Izan ledikena, egi-antzekoa beraz.

ANTZOKI, ANTZEZTEGI.—Antzerkia egitez erriari erakusten yakon lekua.

ARRAZPEL.—Arri-azpel. Gorbea'ko artzaien txabolak, txabola-ate-aurrean, itxita, txarri-rik eta beste abererik bertara sartu ez dadin ormaz inguraturik, arri zabalez estalirik lur-arlotxo bat eukiten dabe ta lur-arlo orreri "arrazpel" deretxoe. Erderazko "patio"rena egiten dau-ta, orren esangureagaz darabilt nire lanetan.

ARRI.—Arria zer dan nok ez daki? Baña itz onek ba-dau beste ikurrik be. Baserrietako sukalde edo suiteetan, sukalde-leioan, kare-arritzko naiz beste arrizko zer bat egoten zan eta oindiño be ba-dago, an ontziak garbitzeko-ta. Arri orren musturra bera yaus-ten dira lurrera ur Ioiak. Aor ba; nik arri-ko sorki edo arriko moltsoa idatzi dodan lekuan au gogoratu egizu. Gonerile'k Albani bere senarrari arriko moltsoa baño aintzakoagotzat ez dauela artu dirautso.

ARRATZ.—Danbor. OñaU'n erabilten ei dobe itz au.

ATXILO.—Goatua, oratua, atzemana, baña baiturik eukiteko.

ATXILOTU.—Baitu. Euskal-gaiztoz, "preso artu".

AUSI.—Zaunka, txakur edo zakur-gedar.

AZKE.—Loturik, esturik, atxiloturik ez dagona azke dago. "Libre" euskel-gaiztoz. Ortik dator "azkatu" aditza.

BAKALDUN.—Errege.

BAKALDERRI.—Errege-erri.

DOLLOR.—Adorebage, bildurU.

EDEN.—"Beren", "pozoi" euskel-gaiztoz, slkilikitu (Zeauri).

EDALONTZI.—Zerbait edateko ontzi.

EPOTX.—Itzalez neurritz berako gizaki. "nanu" euskel-gaiztoz.

ETOI.—Gizon-saltzale.

GARRANKADA.—Belearen ots edo zaratea.

GEZNARI.—Norbaiteri beren-beregi barrien bat ekarri naiz eroaten dautsana.

GÉZI.—"Mako" itza ikusi. Arranbel-kakoakulu.

GOTUTS.—Gogo uts; soinbako izaki adimendun.

GUDALOSTE,—Gudari-talde andi.

YASAN.—Gogoko eziana epez, naiz aienka eroan. "Sufridu" esaten da euskel-gaiztoz.

IDORO, EDIREN.—Zerbaiten billa ibilirik bere billa gabiltzana begiz yo.

INGI.—Eun-ki; "papel" euskel-gaiztoz.

IÑONDIKO.—Bakan. "Extraño" gazteleraz.

INTSIGI.—Erantsi edo erantsigiren guraso, erantzun'en guraso entzun dan lez. Azkue'n iztegiak "intzigi" ei dakar, baña "erantsi" idatzi bear ba'da, "intsigi" be onantxe idatzi bear da, ez "intzigi". Landarea, sustarren bidez, lurrari intsigiten yako, koipea yantziari, odoldia zugatzaren aldorri, e. a. Azkue'k Otzandio'n artu ei eban itz au, eta ak entzun ebanez idatzi eban, baña Otzandio'n eta Arratia'n "z" ta "s" biak bardin ebaten dira-ta, ortik Azkue'ren idazkera okerra.

IRANSUGE.—Euskel-gaiztoz "dragoi" edo "drago".

ITZARO,—Arratia'n "berbaro" ta "berbalots" erabilten dauz erriak itz egitert dabenen

- itzotsa iragarteko. "Berbaroa entzun dot", "berbalotsa entzun dot" eta beste orre-  
**ISPEL.**—Itsi edo itxi-bera. Itz au erriak ez, idazleak asmaua dala nik uste, baña itz polit eta esangura agiriko da-ta, pozik artzen dot nik.
- IZERDI.**—Gure soñari azalera urteten yakon ezatasunaz ganera, landaien azal-barruan gora-beraka, euren yanaritzat, dabilen ezatasunari be "izerdi" eresten yako.
- IZTEN.**—"Barreka istsnak egin genduzan" esaten da Arratia'n, gaztelerazko "nos desternillos de risa" adirazoteko. Beraz, "Izten" edo "isten", eta "eztanda" alkarregaz senitarteko dira. bai antzez, bai esan-guraz.
- KINATU.**—Zirikatu, zizkau. Eladerazko "kinein" aditza be esangura bereko da.
- LUDI.**—"Mundu", gizon, "mundu".
- LUPETZ.**—Lokatzari esaten yako "lupetz" Arratia'n.
- LUPETZA.**—lupetz-tza. Lupetzta gogorregi da esateko-ta, laburtuz "lupetza" esan daroagu.
- LUTIRUDI.**—Ludi edo Munduaren irudi, pape-len baten-edo eginda.
- MAIZTER.**—Etxea bakarrrik, naiz etxe ta baso-soloak eirentan darabiltzana.
- MAKO, UZTAL.**—Emen augu i antxiñako is-killu ori. Mako edo Uztaia etzan besterik adaska auskatxen bat makotu edo oksrtua baño, mustur batelik besteia idizila ten ebana. Mako edo uztaiganean, eta idizilari eutsala, "Gezi" izeneko makilatxo puntazorrotz bat iminten zan. Orrazkero, eutsin ezkerreko eskuz mako edo uztaigari ta eskoiaz noberaganantza indar eta ten egin idizilari; alango baten itxi idizila, ta an doa gezia nora bidali gura dan ara, auirean aurkitu dagiana zulatuteko.
- MUSKER.**—Nok eztau ikusi udako eguzki berotan arbel-ganean pizti bildurgarri au? Berak usigiazkero zazpi elextako yoaleak yo bear ei dira usigi dautsana ak izteko. Ara ba, izen ori bere margo edo koloretik datorko-ta, orrexegaitik musker itza-ren lenengo esangurea euskel-gaiztoz "berde" esaten yakon margo edo lookrea da,  
**SAGUTZAR.**—Sagu andi, "arratoi".  
**TIRUK, TIROK,**—"Ia, mutil"; "gayoazan, mutil" eta "tiruk" bardin-samarrak dira.  
**TXATAR.**—Txinpart. Suarria galtzaiduagaz yoazkero, tx'atairak urteten dira.  
**TXUXO.**—"Txorimalo" esaten dautsoe Oñati'n. Txoriak uxatuteko. soloetan iminten dan giza-irudi barregarria yatsu txuxoa. Arratia'n erriko endoreak endoretzan eskuan erabilten 'dauen endore-makileari be "txuxo" eresten dautsoe, baña au gaztelerazko "chuzo"-tik dator ziur baño ziurrago.
- UGUX.**—Gaztelerazko "catarata, cascada"; ur-yauzi, ur-saltu. Zeanuri'n gitxienez **UGUSPE** izendun leku bi dagoz, bata Ipiñaburu-aldean, Uguna'tik goia Otzandagoita inguiuan, eta bestea Uibe-aldean, Iditxin'etik goia, eta bietan dagoz ur-yauziak.
- URUNBI.**—Uruna ta ura, alkarregaz nastauta. Txarriai emoten yake urunbia.
- URUTU.**—Zeanuri, Arratia'ko errian beintzat euirez erabilten dogu "uin, ugin", "Olatu" esanguieagaz.
- USIGI, USEGI.**—Aginka egin, aginak sartu zeibaiteii.
- ZAMA.**—Euskel-gaiztoz "kaiga". "Niretatz astunegi da zama au" eta "Niretatz astunegi da kaiga au" esangura bereko dira.
- ZANAR.**—Oñetan, naiz eskuetan agertzen diran narru-gogor-uneak "zañarrak" yatsuz; geienetan mingor izaten dira. Euskel-gaiztoz "gallu" eresten dautse zañarrai.
- ZERUKA.**—Leka. Arratia'ko itz au laterazko "Siliqua"-tik ete datorren susmorik bafio zerbait geiago ba-dot.
- ZILDAL.**—Gazteleraz "potro" deretxona da. Giza-asmakune au be, egolatxaren antzera, gizonari min emoteko asmauriko da. Zildaian gizonaren soña luzatu-alean luzatu ta tenka iminten zan,



# OTEL, BINIXA'KO MAIRUA

[OTHELLO, THE MOOR OF VENICE)



# OTEL, BINIXA'KO MAIRUA

## (OTHELLO, THE MOOR OF VENICE)

### AURRERA AGERTUKO DIRAN LAGUNAK

BINIXA'KO DUKEA.  
BABBANTZI, Agure-batzarreko.  
AGURE-Batzorreko beste batzuk.  
GARTZEN, Barbantzi'ren anaia.  
LUDOBIKA, Barbantzi'ren senide.  
OTEL, Mairu yator, Binixa'ren otseintzan.  
KASI, aurrekoaren ordeko.  
YAGOBA, Otel'en Ikurrindun.  
ERRODEIKA, Bínixa'tar andiki.  
MONTAN, Otel'en aurreko Yaurle Kuiports iforoaa.  
YOSTARI, Otel'en otsein.  
ALDARRIKARI.  
DESTEMONE, Barbantzi'ren aloba ta Otel'en emazte.  
EMILE, Yagoba'ren emazte.  
BLANKE, Kasi'ren oekide.

Erri-otseinak, Andikiak, Geznari, Ereslariak, Aldarrikari, Itxas-gizonak, Begiralariak, eta abar.

AGERLEKU.-Lenengo Ekitaldian Binixa; besteetan, Kuiports'eko itxas-kai.

## I EKITALDI

### 1 AGERLEKU.-BINIXA. Etxartebide.

ERRODEIKA ta YAGOBA aurrera.

ERRODEIKA.—Bego, onetzaz itzik bez gei-ago; benetan ondo txarto artu yoat nik ik nire sakela aren ugalak eureak bailitzozan erabili, ta au ik yakinda...

YAGOBA.—Ba! ori entzun gurok ala? Nik olangoren amesik be eguño izan ba'yaat, enagik artu aintzakotzat.

ERRODEIKA.—Ik ari gorroto euntsala esan eustan.

YAGOBA.—Alantxe dok izan be ta enagik etsi aintzakotzak nik ari gorroto ezpa'yautsat. Uri onetako iru andiki, txapelak erantzita, apal-apal, eurak eldu izan yakozak ni ak bere urrengotzat autatzeko eske; eta gizonaren esaneri sinistu gura ba'dautsak, nik ba-yakiat, eta ondo yakin be, ni nor

eta nolango *nazan*. Ni enok ori baño toki ta ogibide txarragorakorik... Baña ak, bere arrokeria ta bere asmoak kutun izanik, ai erantzun garbirik etxautsek emon gura izan; marro egin izan yautsek; bala-bala ta arroputz-antzez itz egin eta gudu-bildurrak *axatu* aik ikaratzeko ta, orrazkero ta labur esateko, eztok yausi *a* nire bitartekoen eskarira; eta izan be, -berak diño-, "Nik dagoneko autu dot nire urrengoa". Eta bakik nor dan orrako ori? Benotan, zenbaki-arloan gizon andi dana, Mikel Kasi deretxon Firenze'tarra, emakume lirain bategaitik bere burua sulezara egotziko leukena; eguño gudaltalderik gudatokian yarri ez eta gudaketa-atontzerik neskazarrek baño geiago ez-takiana; idaztietatik ikasten dan apuxra ezik, eta orretan txabustun kontsulak be *a*

besleko ba-dozak onuak emoteko: aren gu-du-yakituria bala-bala utsa dok, bai orixe, *a* gudutan ezer ikasibako dok-eta. Orraitiño be, orrako ori iok ak autu dauena: ni, ostsra, ni nolango nazan Errodots, Kuiports (1), eta kistarren eta ainbakoen lurraldeetan aren begiak ikusi izan naberen ciu... ni, ar-emon idazti-arduradun au, batzuek eta besteak, zordunak eta artzekodunak limurtu, ibitu ta baretu-bearrean aurkitzen nok: ni edonok narabil "epe ar egik" esaka; urla *a* bere tsrtzioan aren ordeko izango dok, ni, ostera, uf! Mairuaren ikurrindun.

ERRODEIKA.—Ba! nik olangorik izan baño gurago izango naieunkek aren lagun-eskegitzalle izan be.

YAGOBA.—Ea, etxagok beste biderik; onako au ifloren bendeko izateari berez darrarikona dok. Gure aldi onetan autespina idatzizaletasunari ta begikotasunari yarrairik egiten dok, ez lenago lez urregorik urrengo; orduan urrengoa izaten zoan aurrekoaven oñordeko. Orain euk ebatzi yaun, ni zuzenez Mairua maite izatera bear-tuta nagonentz.

ERRODEIKA.—Orrazkero, ni enintzakiok yarraiko.

YAGOBA.—Ba! yaun, nasai ago: ni ba'narraio, neure asmoen yarrai narraio: guztioek ezin gozak izan ugazaba, eta edozein ugazabari be ezin yarrai biotzez eta zintzoro. Or ikusiko dozak zital baño esanekoago ta belaubun-bigunago dirian batzuk, euren bendekotasunari eder etsi ta intsigi-intsigita, euren aldia, ugazabaren astoak legetxe, yatekoaren alde bakar-bakarrik emotsn dabela; eta zartu daitezanean ortik zear bidaltzen dabezala. Utikan olango otsein zintzoak. Beste batzuk be ezagun izango dokak orraitino, euren egin-bearretan antzez eta begirakunez ezin zeatzago tx apainago diranak, bañoa biotzez euren elburuari otsein egiten dautsoenak; eta euren ugazaba yaunai otseintza-antza soilik egotzita, mamia eurentzako gordeten dabenak, eta bein euren burua ondo yantziazkero, euren buruen yabe diranak: oneik onako urlioak bai badirala zerbait: eta nik nire burua olangotzat yoat. Eta izan be, yaun, i Errodeika azan bastean seguru dirauskat ni Mairua ba'nintzok enintzatekela Yagoba; ari yarrairik ni neure buruari narraiko. Yaungoikoa bekik ebazle, ni enarraio Mairuari biotzez, maitasunez eta adeiz, olangoarsna eginda nire neure elburuaren baño. Eta izan be, nire agiriango eginak nire biotz

yatorra bera dan langoxea erakutsiko ba'leue, andik laster nire biotz au bela ta saisn yaki Iitzatekek: ara. ni enok ni.

ERRODEIKA.—Sekulako zori on oso-betea ezpan-lodiarena bereagaz urten ba'dagi!

YAGOBA.—Dei egiok neskatxiarsn aitari. Iratzarri egik: eraso egiok Mairuari, mingoztu egik aren poz-atsegina, aldarrikatu egik etxartebideak zear; sumindu egizak neskearen senideak, eta ak bedar gozoa yaten dagoion artean euligorriak ezarri egiozak; eta ezti-eztitan ba'yagok be, ezti ori zelambait garraztuko dautsan zerbait egotzi egiok.

ERRODEIKA.—Aiko amen neskearen aitarena: zarataka ta orroaka dei egingo yautsal

YAGOBA.—Bai. orixe egik; uri andia gabaz eta ardurarik ezaguitik suak artzen dauenean letxe zarata larri ta eskargak egin.

ERRODEIKA.—Eee! Barbgntzi! Bacbantzi yaun, ee!

YAGOBA.—Atzarri zaitez! eee! Barbantzi! lapurrak! lapurrak! lapurrak! Yagon zure etxea, zure alabea, ta zure txanpon-zorroak! lapurrak! lapurrak!

BARBANTZI goitegiko leiora agertzen da.

BARBANTZI.—Zer dala-ta dira dei itzal-ikogarriok? Zer yazoten da?

ERRODEIKA.—Yaun, zure sendi osoa barruan ete da?

YAGOBA.—Zure atepak giltzea emonda ete dagoz?

BARBANTZI.—Zer dala-ta orrako itaunok?

YAGOBA.—Arrano! yaun, zuri lapurretan egin dautzue; lotsarren, yantzi egizu zure gauatorrea; zure biotzet ler eginda dago, zuk zure bizitik erdia galdu dozu; oraintxe-oraintxe ari zar baltzek zure ardi zuria azpian arturik dauka. Yagi zaitez, yagi zaitez yoalez iratzarri egizuz lo-arrantzaka dagozan uritarrak, ostean txerrenak aitaizatu egingo zauz-ta: yagi, arin gero<sup>^</sup>

BARBANTZI.—Ba! Burutik eginda zagoze ala?

ERRODEIKA.—Yaun begiragarri, nire abotsa ezagun ete dozu?

(1) Kuiports eta Errodots izaroaiek Legorrateko Itxasceri eguzki-alderen dagoz; biak TUT-ki'tik ur. Kuiports'ek, ekinaren ekinez, oraintxe lortu dau azkatasuna, ez odolik ixurtzeka, Birticinderri nagusiaren kateak urro'u ta buztarria ausita.

BARBANTZI.—Ez nik; nor augu, ba?

ERRODEIKA.—Errodeika nozu.

BARBANTZI.—Egin-eginean be orrexegaitik ire bear gitxiago emen; eztaukak lendik be nik esanda nire etxeko atetara ez agertzeko ala? Nik argi ta garbi esan dauskat nire alabea ez tala itzako; eta orain burutik eginda, sakila ondo betsta ta txurrutadaka ok-eginda, asmo txarrez arropuzturik ator ona niri lo gozoa galazotan.

ERRODEIKA.—Yaun, yaun, yaun...

BARBANTZI.—Baña beste bein yakik, bai nire adoreak eta bai gizarteko nire malleak ba-dabelo eskurik eta al-izanik iri oraingo ire egin ori ondo ordainduazoteko lain.

ERRODEIKA.—Epe artu, yaun on.

BARBANTZI.—Zer dala-ta ator ona lapurre-taz eragoten? Binixa'n gagozak; nire etxea ez tok or basoko etxe bakarrik.

ERRODEIKA.—Barbanti adegarri ori, ni go-go zintzo ta izurbakoz natortzu.

YAGOPA.—Tximistearren, yaun, txsrrenaren esaneko ba'zadiz, zu etzara Yaungoikoaren etseinetariko. Eta izan be, gu zure ederraren eta zuri on egitearran gatortzuz, zuk, oster, gizatxartzat artzen gozuz; zuk zure alabeari Barbari'ko zadiak ganera egitea gura dozu; zuk zure illobak zuri zaldi-irrintze egitea gura dozu; zuk zaldiak izango dozuz zure illobatzat etu zalditxoak zure seniiztat.

BARBANTZI.—Ze 'dollar lotsagaldu augu i?

YAGOPA.—Yaun, zure alabeak eta Mairuak orain bizkar biko mamu egitsn daragoioela esaten natortzuna nozu ni.

BARBANTZI.—I zital uts az.

YAGOPA.—Zu... agure-batzarkide zara.

BARBANTZI.—Ik erantzun bearko dautsak lotsabakokeri oni; nik ezagun aut i, Errodeika.

ERRODEIKA.—Yaun. ni edozeri ta edonori erantzuteko gertu nozu. Baña, arren, esaidazu ia zure ederretsiz eta erabagiz, --eta nik dakustanez, olangoren bat dogu--, ia zurs ederretsiz eta erabagiz zure alaba liraina gau ilun onetan ontzi-buru zitalak eroan izan dauen, Mairu irristsuaren besarte zakar-traketsean egoteko. Zu orrako orren yakitun ba'zara, eta ak ori zure ederretsiz egin izan ba'dau, ori olan izatekotan, guk benetan irain gorria egin izan dautzugu; baña zuk olangorik ezpa'dakizu, zuk gu oker be oker artu ta erabili gozuz. Nire ezikera ona bedi lekuko ostein nik zure buru urdinari eneuntsala emon izango

onango lotsabakokeririk eta ezesprenik. Zure alabeak, --zuk ak egina ederretsiz ezpa'dozu-, eta barriro diñot, okerreri zantar egin izan dau, aitaganako bendekotasuna osoosoan ausi dau; bein emen, bein an dan atzerritar buru-arin aldakoraren eskuetan bere bendekotasuna, edertasuna, sentzuna ta etorkizuna yarrita. Egin oraintxe gogoko yatzuna; zure alabea bere etzategian, naiz beste nonbaiten zure etxean ba'dago, betor nire ganera lege-erriaren zuzentzea nik onan zuri irri ta iseka egin dautzudalako.

BANBANTZI.—Atera txatarrak su-arriari! Eka-zue argizagiren bat! Dei egin nireai! Yazokune au nire amesen kidekotsu, nire amesen erako da; ori egia izan leitekenarsn susmoak berak, dagoneko, estu ta larri nauka... Argiren bat gero, argiren bat! (Goitegitik alde dagi).

YAGOPA.—Gau on, eta agur; nik alde egin bear yoat-eta; eztoz uste nire tokiari ez egoki ez osasungarri yakonik ni Mairuaren aurka lekuko agertzetik, eta emen yarraitzekotan agertu egin bearko neunke; eta izan be, nik ondo dakit a erriak ortik zear ezin egotzi daikeana galtzori barik, onako yazokune onek ari, azterketa onen bidez, burukominen bat ekarriarren; oraindik oraintxe be Kuiports izaroaren aurkako guduak irauin dirae, eta zegaitik zaratatsun bat egaitik edo bestegaitik gudu orreitarako ekarri dautzue Mairua, eta orain aren neurriko gizonik eztabe arazo ori galtzori barik aurrera eroateko; au dala-ta, nik ari sulezako elorrio gorriai baño be gorroto andiago izanarren, bein-beinean nik benderatuen oial zuria eragi, burua makurtu ta maitasun-erakutsiak egin bearko dodaz, onakook zera bera barik, itzal eta atz uts izanarren. A ssguru-seguru idoro gura ba'dozue aren billa urtengo diranak Makoduna' nera zuzendu egizuez; ni an izango nonakin. Gau on eta agur, ba. (Alde dagi).

BARBANTZI aurrera fcean, eta OTSEINAK zuziakaz,

BARBANTZI.—Ezbear egiazkoegi zori txarrez: gure neskatoa yoana da; eta nire urte aintzakotzat artuezai etorteko yakena samin eta mingoztasun utsa da. Errodeika, non ikusi dok gure neskaxia? Neskatoaren zori txarreko! Mairuakin idiñok? Nok gurako aita izaterik? Nolan yakin dok gure neskatoa dana?... Ene! ak neurritz gora iruzur egin eta ziria sartu yau8tak.--Zer esan dausk gu-

re neskatoak?.. Ekazue zuzi geiago; iratzarri senitarte guzUa.... Dagoneko ezkondu ete dozak?

ERRODEIKA.—Bene-benetan, nik ezkonduzat dodaz.

BARBANTZI.—Ene Yaungoikoa!.. Baña nolan urten ete da a?... Nire odolekoak egin daustan etoikeriarena! Gurasook, gaurtik aitzina ez sinetsi zuon alaben esanai, eurak egiten dabenari baño. Ez ete yagok lilurapen eta sorginkeri gaiztorik gazteak eta neskak alperrik galtzeko? Ez ete dok ik irakurri olangorik, Errodeika?

ERRODEIKA.—Bai, yaun, olangorik irakunia nozu.

BARBANTZI.—Dei agin nire anaieari. Onan gorik! Euk izan al enduan gure alaba oril Zuok batzuk bide bat artu, besteak besteren bat... Ete dakik ik gure neskatoa ta Mairua non goatu geinkezan?

ERRODEIKA.—Zuri indar azitxo batzea ta nikin batera ara yoatea ondo ba'deretxatzu, nire ustez Mairua idoro daikegu.

BARBANTZI.—Aurrendari yarri adi ta bidea erakutsi egiskuk. Etxerik etxe dei egingo yoat: geienetan agintzeko añako nok. Iskillo geiago, mutillak, eefi Eta eragi ta batu beren-berigeko gau-zain batzuk. Aurrera, Errodeika on ori: ire nekeak ondo ordainduko dauskadaz. (Alde dagie).

## II AGEHLEKU.-Bin xa. Beste etxartebide.

OTEL, YAGoba, ta OTSEINAK zuziagaz aurrera.

YAGoba.—Guduetan nik ainbat gizon il izanarren, nire yakinkidetzak eztaust izten asmautako eriotzarik egiten: nik zitalkeri, gaiztakeri-bearra dok, aldiz eurak nire otseintzan erabilteko: bederatzi edo amar bider egona natxatzu ari saiespean zaxtada batez ezpatea ez sartuko bai sartuko.

OTEL.—Oba dok olango izatea.

YAGoba.—Bai, baña bala-bala eragoion, ba-bala ta txor-txor, eta zure entzute onaren aurka esaten ebazanak baltzetan be baltzak ziran-ta, dodan deuntasun urriagaz, benetan gaitz egin yatan aretzaz epe artzea. Baña esaidazu, arren, yaun orrek, zu ezkontzaz loturik ete zagoz? Yakizu au ondo, Magnifico'a (2) uri onetan edonok maite dauela; eta aren itza, bere zeretarako, Dukearena lango bi dala: ak zu zure emazteagandik banandu egin gurako zauz; eta, ori ezean, eta orretarako bere esku ta al guztia erabilita, zure ganera legearen gogortasun osoa, okerrak eta naibaga guztiak eratorriko dauz.

OTEL.—ItKÍ egiok ari azazkatzen: nik legeerriari eginiko on-eginak itoko yoezak aren gedarrak, bere irainak diriala-ta. Oraindik yakiteko dozak, eta arrokeririk erakusteko garaia datorkenean neuk esango yautset ni neu be bakaldun-odoletiko nazala; eta nire uts eta akatsak txapela erantzi bear yoeck nik lortu dodan zori onari itz egiteko; eta izan be, yakik, Yagoba, Destemone lirain-Ierdenari dautsadan maitasunagaitik ezpa'litzok, itxasoko altxor guztiakaitik be enaioan galdu izango nire neurribako azka-

tasuna ta neurri ta muga-barrutan sartuko. Baña, begiru! Ze argi dozak an oragoon agiri diranak?

YAGoba.—Aik aita asaldatau ta aren adiskideak yatzuz: oba litzakizu barrura sartu.

OTEL.—Ez ni; idoro nagie-la: nire zer onak, nire izenak, eta nire gogo akatsbakoak nazan au iragarriko nabe. Eurak ete dozak?

YAGoba.—Yan'arren (3) ,eztot uste.

KASI ta erri-otsein batzuk aurrera zuziakaz.

OTEL.—Dukearen otseinak eta nire ordekoa... Gau on, adiskideok! Ze barri dogu?

KASI.—Dukeak zori onak bidaltzen dautzuz, gualburu; eta zu bere aurrera lenbañolen, oraintxe bereon agertzeko agintzen dautzu.

OTEL.—Zetarako danik ete dakizu?

KASI.—Kuiports'etiko zerbaitegaitik, nire susmoz: arazo bero-samarren bat yatzu; gudu-ontziak gau onetantxe amabien bat geznari bidali dabez urregorik urregongo ta alkarren orpoz orpo; eta dagoneko, kontsul asko oelik yagila dukearenean baturik dira: zuri deiez dagoz estu ta larri; zurrera yoan eta an idoro etzabezanean, agure-batzarrak iru bat gizatalde bidali izan dauz, bana-zean, zure billa.

(2) Binixa'ko andikiai "magnifico" izengoitia ezartekin eutsen. Orretariko da Barbamtzi.

(3) Yan (lateraz IOITUH), beñolako Erroma' rren yainko, Erroma'ko ate-zain zan. Arpegel bi ebazan, batct aurrecm, bestea atzean. Alboetan beste bi etxokozan txarto etorriko.

OTEL.—Orrazkero, zori onez aurkilo nozue; itz bat egingo dot etxe onetan, eta gero zuokin batera yoan. (Alde dagi).

KASI.—Ikurrindun, zeri daragoio orrek emen?

YAGOPA.—Sinetsi egidazu, orrek gau onetantxe goatu dauen legorreko ontzitzarra, legez eskuratu ba'dau, bere dau betiko.

KASI.—Ezin dot ulertu zuk esana.

YAGOPA.—Ezkondu egin da.

KASI.^Nokin?

OTEL barrien barrí aurrera-

YAGOPA.—Ba! urlikin... Tira, gudalburu, ba-goaz ala?

OTEL.—Ni gertu naiagok.

KASI.—Emen dator beste gizatalde bat zure billa.

YAGOPA.—Ori Barbantzi du. Buruzagi, atzarrik eta zur zagoz; orrek asmo txarra dakar.

BARBANTZI, ERRODEIKA ta Erri-otseinak zuri ta iskillokaz.

OTEL.—Eee! Geldi or!

ERRODEIKA.—Yaun, ori yatzu Mairua.

BARBANTZI.—Orri, orri, lapurtzar orri! (Aldea bietakoak ezpatak ateraten dabez).

YAGOPA.—I emen, Errodeika? Ator ona gure ezpatak neurtu dagiguzan.

OTEL.—Zorrora zuon ezpata argiok, inõntzak ugartu eztagizan. Zu, yaun on, zutzako iski-loak baño egokiago dira urteen onuak.

BARBANTZI.—Lapur txarri ori, non ostondu dok nire alabea? Sulezarako ori, ik liluratu egin izan idok a; eta izan be, nik sentzunaren sundarik dauen edozeri ta edonori itanduko yautsat ia neskea liluraturik ez egotekotan, alango neska guri, lirain eta zori ontsurik, ez ezkontzearren uri onetako amai-ka gazte aberats eta ule-kizkurri marro egi-

nik, bere gordelekutik í langoren besarte kedartsura igesi al izango eban, í bildur emotekoa, ez atseginik emotekoa izanik. Ludia bekit ebazle, ia sentzunari sinisgogor egiten etxakon, ik ari eztautsakala ezarri lilurapen zantarren bat; aren gaztetasun guriaren aurka eztozakala erabili zirkinak moteldu ta gelditu eragiten dabezan osakei ta arrien batzuk: nik onako au aztertu eragingo yoat. Oldozten dakian edonorentzat ouako au zer egi-antzeko ta agiria dok. Beraz, nik i gelditu eragin eta estu egiten aut ik ludia txarto erabilitzat, eta arte txar-rrak eta galasoak erabilitzat... Eskuak ezarri orri: bere kitetik men ezpa'dagi, indarrez benderatu egizue, bere galdu-gordez.

OTEL.—Geldi eskuok, bai nire aldekoak, bai besteok: nire egitekoa burruka egitea ba' litz, nik eneunke bearko orretarako inõok irakatsi-bearrik. Ni nora yoatea gura dozu zuganako nire iraina dalakoari erantzuteko?

BARBANTZI.—Baitegira; legeak eta egitekoaren aldi egokiak ik erantzuleko Iri dei egin arte.

OTEL.—Eta ni zure esanera yarri ba'nadi. zer? Nolan egiteko olan dukearen guraria, aren geznariak emen nire aldamenean ezin geroratu daiteken arazotan ni agana eroateko begira dagozanazkero?

I ERRI-OTSEINAK.—Egia da, yaun oso adei-garri; dukea batzarrean da ta, ezpaiga, zu zeu be ara deitua zara.

BARBANTZI.—Ostera! dukea onulariekin batzarrean; gabeko tertzio onetan! Eroan egidazue ori ara: nire auzia ezta auntzaren gaberdiko eztulik; dukeak, naiz onulari-batzarreko edonok auzi au berea bailitzan artuko eztauenik eztoz uste; eta izan be, onango eginenai atea zabalik itxiakzker, yopuak eta kistar eztiranak izango dira gure erri-eratzalla. (Aldi dagie).

### III AGERLEKU.-Binixa. Batzartegia.

DUKEA ta AGURE-BATZARREKOAK mai-baranoan yezarrita; Erri-otseinak arein esan-ekotzat.

DUKEAK.—Barriok, eurei sinisteko, alkarrekin burrukaegi dagoz.

I AGURE-BATZARKIDEAK.—Izan be, alkarri deutesnak ez dira; nik artuko idazkiak eun eta zazpi gudu-ontzi dirala diño.

DUKEAK.—Eta nik artuak diñonez, eun eta berrogeí dira.

II AGURE-BATZARKIDEAK.—Eta nik artuak berreun dirala diño; baña zenbaki bakar eginera yo ezarren, onango zeretán gitxi gora-bera yotea oi izanarren; orraitíño be Turkarren ontzidien bat an dala diño, ta Kuiuports-bidean dala.

DUKEAK.—Bai, eta ori asko da guri erabagien bat arrazoteko; gitxiago-geiago izateak enau nasaitzen eta, zenbakien oksrra alde, arazo au bildurra sartzeko da.

ITXAS<sup>1</sup>GIZONAK.—(Barrutik) Eee! eee!  
I ERRI-OTSEINAK.—Ontziditiko geznoui,

ITXAS-GIZONA aurrera.

DUKEAK.—Ze arazo dogu?

ITXAS - GÍZONAK.—Turkarren gertakuntzak  
Errodots izaroari erasoteko dira; barri au  
erriari emoteko bidali nau Angeru yaunak.

DUKEAK.—Zer diñozue zuok aldakuntza one-  
tzaz?

I AGURE-BATZARKIDEAK.—Orrako ori ezina  
da arean oldoztu dagianarentzat; orrako  
ori erakusketa ta irudi utsa da guri ziria  
sartzeko; emen yokoarena egin, benetan an  
yoteko; au marro egitea yatzu. Turkarren-  
tzat Kuiports'ek zelango garrantzia dauen go-  
goiatu ba'dagigu, ta ak Enodots'ek baño  
gili-gili geiago egiten dautsela ulertu ba'  
dagigu ta, ganera, Turkanak Kuiporta Erro-  
dots baño errazago eskuratu leikiela, a Erro-  
dots'en aldean makal eta artu-erraz aurki-  
tzen dalako; guzti au oldoztu ta gogoratu  
ba'dagizu, eztogu uste izan bear Turkarrak  
orren buru gitxiko diranik, ondoen datorkis-  
na azkenengotzat itxita, lenen txarrago da-  
torkienari elduko dautsoenik; eztabela baz-  
tartuko irabazirik onena ta errazena, euren  
buruak alpeniko galdugordean yarteko.

DUKEAK.—Ez: seguru-segurutik Turkarrak ez-  
tatoz Errodots'en billa.

I ERRI-OTSEINAK.—Emen datorkuz barri geia-  
go.

GEZNARI aurrera.

GEZNARIAK.—Yaun agurgarri-maitagarriok,  
Turkarrai, Errodots'erantza itdoazala, bests  
gudontzi batzuk batu yakez.

I AGURE-BATZARREKOAK.—Bai. nik neuk be  
ori uste neban.—Zenbatsu dirala uste dozu?

GEZNARIAK.—Ogei ta amar; eta orain, itzu-  
lietaiako bidea arturik, agiri-agirian, Kui-  
ports-aldera doaz.--Zuon otsein zintzo ta ado-  
retsua Montan yaunak barri au bidaltzen  
dautzue, baita berari sinisteko eskatu be.

DUKEAK.—Orrazkero, seguru ida Kuiports-al-  
dera doazana.—Ez ete dago urian Marka Lu-  
txiko?

I AGURE-BATZARREKOAK.—A Firenze'n da-  
go orain.

DUKEAK.—Gure aldetik, ona etorteko idatzi  
egiozu; len-baño-Ien idatzi.

I AGURE-BATZARREKOAK.—Emen datoz Bar-  
bantzi la Mairu bulartsua.

BARBANTZI, OTEL, YAGOBA, ERRODEIKA ta  
ERRI-OTSEINAK aurrera.

DUKEAK.—Otel adoretzu, bertatik egotzi bear  
dautzugu guztion arerio Turkarraren aurka-  
ko arazo.—Nik oraindik ikusteko zinduda-  
zan; ondo etorria, yaun yator (BARBANTZI'  
ri). Arrats onetan zure onu ta laguntza-  
bearrean aurkitu izan gara.

BARBANTZI.—Ni neu be zure aldetik orrako-  
xe zeron bearrean aurkitu natxatu; yaun  
maitagarri orrek askelsi egHazu; ez naza-  
na nazanek, ezta nik entzuneke beste ara-  
zok be, ni enau eragi oetik; Erriagazko ar-  
durak be enau ukutu; eta izan be, neuri  
dagokidan naibagea naibage-uriola ta  
eroan-ezina da-ta, beraz beste naibage guz-  
tiak iruntsi dauz, eta oraindik be gose da.

DUKEAK.—Ostera! Zer yaso yatzu, ba?

BARBANTZI.—Nire alabea! Onangorik! Nire  
alabea!

DUKEAK eia AGURE-BATZARREKOAK.—D  
ala?

BARBANTZI.—Bai, nitzako bai; ari ziria sar-  
tu dautsoe, a ostu egin dauste, ta agin-ate-  
ratzalle lotsabako ta itz-ontziaz erosiko lilu-  
ra-osakaiz galdu dabe a; eta izan be, iza-  
menak, bera berera itxiazkero, ezin egín  
eikean olango okerrik, sorginkeri barik, len-  
dik sentzun gitxiko, sentzunez itsu. naiz  
meilri ez izatekotan.

DUKEAK.—Dana dala, olango bide zanta-  
rrez zure alabeari sentzuna ta zuri alabea  
kendu dautzuna, orrako gaiztakerietarako  
gure lege gordinak izentauta dauen zigorra  
zeuk ezarritu dautsazu olangorik egin daue-  
nari, ezarra datorren lege-agindua beteazota:  
bai, orixe egingo litzakio neure semeri be,  
olango zantarkeririk egintzat a bera sala-  
tuko ba'zendu.

BARBANTZI.—Apal-apalik eskerrak zuri, yaun.  
Amen aiako gizona, Mairu auxe, lege-erri-  
ko aiazoan baterako zure berarizko agin-  
duak ona ekarri dauela dirudian au.

DUKEAK eta AGURA-BATZARREKOAK.—Ta-  
mal andia dogu ori olan izanagaitik.

DUKEAK.—Zuk zure aldetik zer erantzuten do-  
zu orretzaz? (OTEL'i).

BARBANTZI.—Zer esango dau, ba, olantxe  
dala baño?

OTEL.—Yaun altau-altsu, yarri-yam ta dedu-  
garri-dedugarriok, nire ugazaba on yalor-  
yatorrok.—Nik gizon zar, agure onen alabea  
eroan dodana egi-egia da; egia ni akin  
ezkondu nazana be; nire iraina dalakoaren  
azur-mamiak ortxe dozuez; nik besterik ezei  
eztot egin, Enozue ni nire itzaldietan zuri-



keri ta labankerietan Ibiltekorik; Itz bare-leunetan eragoteko yaiorik be enozue; eta izan be, nik zazpi urte beteazkero, nirs besook atetako txoznetan izan dabe egitekorik amien eta gozoena, oiainsungo bederatzien bat ilebeteetan izan ezik; eta ludi andi onetzaz nik zer gitxi esan dagiket, guduketa odoltsu ta burruka gorrisi dagokiena ez izatekotan, eta orrazkero nik nire auziari on gitxi egingo dautsat nire buruaz itz eginaz. Orraitiño be, zuon epa txeragarriari eskerak, nire maitasunagazko yoan-etorriai buruz edesti borobil, soil eta apaingarrigea eralgiko dautzuet; ze lilurapenez, ze osakaiz, ze zinkidetzaz eta magokeriz, -eta izan be, olango zeren errudun egiten nabe-, nik irabazi izan dodan orren alabea.

**BARBANTZI.**—A neskatoa eguño ezta izan lotsabako: lotsorren lotsorrez, a berbere igi-kunek lotsatuten eben. Ara ba, bere izake-reaz, adinaz, erriaz, entzuta onaz, eta edozertaz bestera, begientzako be iguingarri dana maite izatera a yastea anditan be andi da! Sentzunez betekorik izaksrearen aurka orrenbesteraño bidekatu ta okertu leitekala iñok esan ba'dagi, olangoaren eretxia ondo motza litzateke benetan. Eta, orrazkero, yazo dan au azaltzeko nai-ta-nai-ez yo bear da sulezako asmakizun askarrien billa. Beraz, nik barrien-barri diñot ni seguru nagola odolari nastauriko anabaka indartsu, naiz zinkidetutako edari gogorren baten bidez atera dabela a beretik.

**DUKEAK.**—Zuk ori sinistu ta autortzea ezta argibiderik; zuk lekukotzat ateraten dozuzan ekanduak eta zure artegasunak egitza dakazan zerok baño argibide sendoagorik bear dogu gizon orren aurka.

**I AGURE-BATZARREKOAK.**—Baña, Otel, itz egizu: bide makurrez, naiz indarrez edendu ta zuganatu ete dozu neskearen biotza? A!a eskariz izan ete da, biotzek biotz irabozi oi dauenez?

**OTEL.**—Bidali egizue, anen, norbait Makoduna'nera nire anderearen billa, ta ak berak itz egin dagiala bere aitaren aurrean, eta ak esango 'dauenetik ni makur eta zantar aurkitu ba'nagizue, ni gertu nozue ez zuok ezarriko egikizuna aldera izteko bakarrik, baita niri zuok eriotza-epaia emoteko be.

**DUKEAK.**—Zoaze Destemone ona ekaiten.

**OTEL.**—Ikurrindun, zuk eroan egizuz aren billa doazanak; zu zara toki a iñok baño obeto dazauena. (YAGOB'A'k eta Otseinak alde dagie). Eta a etorri arte. Yaugoikoaren aurrean nire obenak autortzen dodan

zan letxe, zintzo ta artez esango dautzuet nik zelan iabazi izan dodan neskeaien maitasuna ta ak niiea.

**DUKEAK.**—Esan, Otel.

**OTEL.**—Aren aitak ni maite izan nau; sarritan dei egiten izan daust berera; ganera, nire bizitzako gora-bera ta zertzelada guztiak lirrengorik urrengo ta urterik urte esanazo izan daustaz... izan dodazan eraso-al-diak, uri-esiketak eta ganetik nire zori onak. Nik urrengorik urrengo edestu izan dautsudaz nire umearotik onakoak, berak edestuteko eskatu eustan uneranoakoak; orretan neragoiola, yazokune zori txar itzalezkoak, urez eta legorrez yazoak, eta biotzaii zirrada gogorak eragitekoak edestu neuntsazan: ulearen lodierea baño gitxiagogaitik igesi nebala bein galtzori ikaragarritik; bein arerio arroren bendeaen yausi ta yoputzat saldu izan ninduela; yoputzatik erospidez yarei ninduela, ta andik etxera-koan nik ikusiko zerak. Orduan nik artzulo nasai, bizibako basamortu, arrioi latz-trakets, armoltzar eta ortziraño yayiten diran menditzarrak aitatu nebazan. Bai, olan azaldu nebazan nik nire gora-bera ta atzera-aurreak; baita aitatu ta azaldu nebazan nik alkar yaten daben gizaki-yaleak eta buruak sorbaldak baño beragotik sortzen yakezan gizakiak be. Onako zerok entzuteko beti egoan adi-adi, itzuli baño itzuliago ta adurra eriola Destemone: baño a ta guzti be, sarritan etxeko zereginak ipui-naren aria etenazo ta bere lantegira eroaten eben; orraitiño a, zereginok len-baño-len burututa, atzera etorten zan eta nire edespena iñondiko gose-amorruz entzun eta iruntsi: eta gogo bizia erakusten eban nik nire ibiltaldien edespena luzatzeko, berak osorik eta zeatz barik, atalka bakarrik entzunda eukazan-ta; ni aren gurariaren alde yarri nintzan. Sarritan negar eragin neuntsan nire gaztearoko yazokune negargarri ta zori txarrekoen bat eralten neuntsanean. Nire edespena amaitu nebanean, ak nire nekeen alderako itxasbete arnas-ots emon eustan; ak zin egin eban, iñondiko ta iñondiko baño iñondikoago zan; errukarri ta errukarri baño errukarriago zan, -zin egin eban, gurago eukeala entzun izan ezpa'leu; eta oiraitiño be ak Yaugoikoari olangoxe gizon eskatzen eustan beretzat; eskerrik ugeri emon eustan; eta a maite eban gazterik nik ezagun izatekotan, nik orrako oni nire gora-berak edestuten irakastsko eskatu eustan, arentzako maitasun-eskatzerik

onena ori ízango zala-ta. Zearretarako dei eu zala-ta, nik itz egin neuntsan; ak ni nik yasango galdu-gorde ta istilluekaitik maite nindun, eta nik a nire erruki zalako maite izan neban. Au bakarrik da nik erabili izan doJan sorginkeria... Emen dator anderea bera; bera bedv nire esanen leku-ko.

DESTEMONE, YAGOBA ta OTSEINAK aurrera.

DUKEAK.—Ipuin-eleketa orrek nire alabea be irabaziko leukela uste dot. Barbantzi on, arazo nastu ta kirimildu au onez ar egizu. Burrugarako esku utsak baño obeak yatzuz iskilluak, mutxikinak ba'dira be.

BARBANTZI.—Entzun egizu, arren. neskatoak zer diñon; ak autortu ba'dagi maitekerien erdiak bereak izan dirala, ondamendia be-tor nire buru-ganera, nik gizon oni erru txarra ezarri dautsadalako! -Zatoz ona, neskato maitagarri ori: bai ete dakizu batzar yator onen aurrean, men egitea nori zor dautsazun geien eta beinen?

DESTEMONE.—Nire aita yator, nik emen nire bendekotasuna erdibiturik dakust: bendekotasuna zor idautzut zuri, bizia ta azi-ezikerak zuri zor dautzudazalako; nire biziak eta ezikereak biak irakasten dauste zuri lotsa izaten; zu men egiteko kmgo yaun zara..., ni orain arte zure alaba izan nozu: baña orain emen dago nire senarra be; eta nire ama zuri bere aitaii baño bendekotago izan yatzun legetxe, ni be nire yaun Mairuari zuri baño bendekoago natxakola autortzen dot.

BARBANTZI.—Ondo ta onik zabilzt! -Nireak egin dau. Ondo ba'deretxatzu, aurrera yo lege-erriko arazoez: gurago neunke inoren umerik nireztat artu, neurerik sortu baño. Endu ona, Mairu ori: emen damotzut biotz biotzez, zuk dagoneko ezpa'zendu, nik biotz biotzez zugandik aldendu izango neunkeana. Pitxi ori, zugazko, ni pozik nago zuez beste seme-alabarik eztodalako; eta izan be, zure igesi-egazkadeak gizon biotz-gogor izaten irakatsiko leuskit. eta nik nire seme-alabai oñetan lokarriak ezarriko neunskieiz. Nik amaitu dot nire arloa, yaun.

DUKEAK.—Nik neuk be zure antzera itz egin-go al dot, eta nik esango dodana maitaleok zure adiskide egiteko oinkada izango al da. Beste biderik eztagonean, eta besterik ustean txarrena etorri yakunean, gure itxaropenakin batera gure naibageak be yoanak dira. Yazo dan okenaii negar egi-

tea, gure ganera oker eta ezbear barriak ekarteko biderik laburrena yatzu. Zoriari esku-artetik ezin kendu dautsaguna epearentzako uskeri ta aletz utsa da. Ostu egin dautsoenak irribarre ba'dagi, lapurrari zer-bait ostu egiten dautso; atzenbako naibageri leku emoten dautsonak. ostera, bere buruari ostuten dautso.

BARBANTZI.—Orrazkero, Turkarrak Kuiports ostu beisku; irribarrerik egin geinken artean eztozu galtzen a; zure esana ondo datorko ta ondo artzen dau a entzunetik ezti utsa datorkonak. Baña naibagea ordaintzeko epe landerra zorrean artu-bear gorrian aurkitzen danak zure esanak eta naibagea .bitzuek yasan eta eroan bear dauz. Esakuneok, eztitu naiz asarretzekook, baterako naiz besterako dira-ta, esangura bikoak yatzuz; baña itzak itz baño ez dira: oindokoarren entzuteko nozu belarriak minduaz biotz suntzitirik osatu izan danik.-Nik apal-apalik eskatzen dautzut zure arlorra, lege-arri-arazoetara yoteko.

DUKEAK.—Turkarrak, gertaketa asarreak eginik, Kuiports'erako bidean diia. Otel, zuk dozu ondoen ezagun izaro a zenbaterano-ko erasori erantzuteko gei dan; eta guk an aintzakotzat eta gei-geitzat zure ordeazkoa eukiarren, erriaren eretxiz, eta eretxia ondoren andiak ekarri daroazan andera yatzu, -erriaren eretxiz, zu a baño geiago ta gaiago zara-ta; orrazkero, zuk zure zori on etorbarri ta apitzari ekite gogorr-adoretzu au erantsi bear dautsazu.

OTEL'ek.—Agure-batzarkide ben-benok, biozbako ekanduak guduoko suarri ta galtzaiduzko etzategia lumazko nire oe arol-apitz egin dau: zer latzetan zolitasun berezko ta azkarrara aurkitzen dodala dautort; Turkarren aurkako gaurko guduok nire ardurapean artzen dodaz. Beraz, zuon erriaren alde apal-apalik yarrita, nire emaztearen alde zuon biotz ona eskatzen dautzuet; bere malleari dagokiozan tokia ta bearrizantarakoak emon dagiozuezala, bere azikereari dagokionez bizi al daiten.

DUKEAK.—Gogoko ba'yatzu, bere aitarenean bego.

BARBANTZI.—Ez, nik eztot gura olangorik.

OTEL.—Ez neuk be.

DESTEMONE.—Ez nik be; an eneunke bizl gura ,ni aren aurrean eta begietan nazala a artega bizi eztaiten. Duke maitagarri, txeratsu entzun nik esango dautzudana; eta zure itzak nire izurbakotasunaren lagungarri izango al dira.

DUKEAK.—Zer esan gura dozu. Destemone?

DESTEMONE.—Nik nire begira egoan etorki-zunaren aurka yokatu izanak eta etorki-zun ori ezetsi izanak, adar-otsez iragarri daikie nik Mairua ta berakin bizitea maite dodazala; nik Otel'en biotza orren begirakuneetan ikusi dot; eta nire gogoan orren geitasun ederrai eta omenai opatu izan dautset. Eta, orrazkero, yaun maiteok. ni emen iztekotan, ni gentzaren sits au, eta a gu-duetara yoatekotan, niri a maite eragiten dausten zerak kendu egiten daustazue, eta nik, aren laguntza barik, naibagez igaroko dot bitarteko aldia. Itxi egidazue akin yoaten.

OTEL.—Eder etsi egizue orren guraria. Zera, nire aldeko zadize, ezto eskatzen olangorik nire initsaren ago-sapaia gozatzeko asmoz, gaztearoko lerok nigan ilik dira-ta, ezta nire gogoan asetzearren be, andera orrentzako esku-zabal eta aberats izatearren baño; eta Yaungoikoak ni adautzue itxi-ko uste izaten, nire emaztea nikin izanagaitik ni zuon arazo aztun-benean ardura-geago ibiliko nazanik: ez orixe, Kupida ego-arinaren yostalluak nire adimen eta sentzunak moteldu ba'dagiez, eta nire nasaikeriak nire egitekoa lorrindu ta usteldu, olangorik yazotekotan, etzanderak nire buru-kozkolagaz maskilu eper-baltz egin dagiela, ta ezbearrik lotsagarrienak datozala nire buru-ganera, nire izen ona muskildu ta ezerezteuteko.

DUKEAK.—Ori emen gelditu, ala zukin yoan, zeuk ebatzi zure kitetik: arazoa bizkortasun-este idago, eta zolitasunak erantzun bear dautso.

I AGURE-BATZARREKOAK.—Arrats onetantxe artu bear dozu bidea.

OTEL.—Biotz biotzez.

DUKEAK.—Goxeko bederatzietan batuko gara gu emen osteria be. Otel, emen zurean itxi egizu mulla-gudarien bat, eta ak eroango dautzu gure agindua, zuri dagokizuzan ganetik zer guztiakaz.

OTEL.—Ondo ba'derelxatzue, a gizon garbi ta yarri da-ta ,nire ikurrinduna itxiko dot, nire emaztea ak eroan dagian, eta zuok yaun maitagarriok, onez ganera, nitzako emon zeinskioen beste edozer bearreko.

DUKEAK.—Olanxe bedi. Gau on guztioi eta bakotxari... eta, yaun yator (BARBANTZ'I'ri), ori diñoenez, ekandu onak edertasun-bearrik ezpa'dabe, zure suña baltzago baño edanago yatzu.

I AGUR-BATZARKIDEAK.—Agur, Mairu adoretzu; ondo artu Destemone.

BARBANTZI.—Begiratu egik, Mairu, ikusteko begirik ba'dok; aitari ziria sartu dautsanak, iri beste ainbeste egin-ezinik etxok-eta. (Dukeak, Agure-batzarkideak, Erri-otseinak, e. a/ek alde dagie).

OTEL.—Orren zintzotasunaren alde nire bizia yokatuko neunke! Yagoba zindo, zure OT-durapean izten dot nire Destemone: zme emazteak artuko al dau orren ardurea, arren; eta nire atzetik ekarri argizuz biak, al danik egokien ela eroeoen. Erdu, Destemone; maitasun eta ludi onetako arazoetan zukin egoteko ordubeste baño ezto; tartzioaren esaneko izan bear dogu. (OTEL eta DESTEMONE'ek alde dagie).

ERRODEIKA.—Yagoba...

YAGOBA.—Zer diñok, biotz-yator orrek?

ERRODEIKA.—Zer egiteko nazala uste ete dok ik?

YAGOBA.—Ba! Oera yoan eta lo egiteko i.

ERRODEIKA.—Nire burua ito egin bear yoat bertatik.

YAGOBA.—Olangorik ba'dagik, aurrerantzean ez az nire adiskide izango. Osteria! i burutik eginda ago.

ERRODEIKA.—Bizitea elorrio yakunean bizitea dok zorakeri; zoTakeri dok naibagetan bizi ta, gero, osagille eriolzeak agintzen dauenean bere agindura iltea.

YAGOBA.—I az kirtena! ludi au lau bider zazpi urtetan begiratu izan yoat, eta iñori on egitea ta oker egitea alkarregandik beretzen ikasi nebanazkero, etxoat ezagun bere burua zelan maite izan dakian gizonik, Gini-ollo bategaitik nire burua itoko neunke-la esan baño lenago nire gizatasuna matxangotu egingo naieunkek nik.

ERRODEIKA.—Zer egingo ba? Nik autortzen yoat lotsagarri yatala ni onen maitabera izatea; baño nire lera oneri geiago egitea nire indarrez ganetik dok, nitzako ezina dok.

YAGOBA.—Indarra? Ustela! Geure erru dok gu onango naiz olango izatea. Baratzak dozak gure soñak, gu, osteria, baratzon baratz-zainak; eta, orrazkero, asunak landatu naiz uraza erein, patana sartu naiz ezkaia atera, onetaiko bedar-motea Iandatu naiz askotakoai eurak euretara azten itxi, berera itxita idor eta antzu euki naiz, satsituta, emokor egin, batera naiz bestera izan. ori geure eskuan yagok. Gure bizitzako astakinak (pixuak) gure sentzunen likiskeriari erantzun eta bata besteagaz bar-

dintzeko, azpil bata aiimenezkoa ezpa-leu, odolak eta gure izamenaren zakarksriak ondoren txar-negargarrifetara eroango gindukiezak; baña guk adimena yoagu gure zirkin bero-goriak, gure soñaren eztenkadak, gure likiskeri ezigeak otzitu ta eskuratzeko; orrazkero, ik maitasuna eresten dautsakan zer ori sustarretiko kimu dala usta yoat.

ERRODEIKA.—Olangorik ezin izan leitskek.

YAGOBA.—Orrako ori odolarsn gurikeria ta guramenak azten itxia dok. Tiruk, gizon adi: eure burua ito! olangorik! Katu ta txakurkume itsuak ito egizak. Ni ire adiskide agiri izan nok, eta ni iri ire onerako lokarri sendóz estuta nagola beti autortu izan yoat; eguño enok izan ni orain baño iri lotuagorik. Sartu egizak txanponak ire ziskuan; yarraí akit gduetara; ire lirain-guritasuna iñori akuran artuko bizarrez estali egik; ziskua txanponez ondo bete gero; Destemone'k ezin maite izango yok luzaro Mairua. Artuik ziskuak artu-ala txanpon; Destemone'ntzako eztok Mairua; asierea bezkooaz besterako izan dok, eta euk ikusiko dok guk zelan esitu ta estutuko dogun Destemone, guk gure luruak zuritzeko eraz eta bHez; artuik dirua ire ziskuan bai. Mairuolc euren asmo-gurarietan aldakor dozak; bete egik txanponez ire ziskua; orain gozo egiten yakon palma-igalia basosagarra baño garratz-mingotsago egingo yakok. Emazte ori beti eztok izango gazte; no ori to orren soñez asetu daitenean, orduan ikusiko yok to ori autetsiaz egin izan dauen okerra; no orí aldatuko dok, bai aldatu bear yok; bezaz, ire eskuak artu-ala txanpon artu egik... Dana dala, sulezara yoan gura ba'dok, ire burua itoaz barik, bide atsegingarriagoz oa. Egik egin-ala txanpon; Barbari'tar aldarrai ta Binixa'tar laban-labanaren arteko deuntasuna ta orreik Yaungoikoari eginiko agindu auskorrak nire zurtasun eta sulezako txerrentalde guztientzat gogorregi ez izatekotan, emakume ori ire gozagarri izango dok oindiño; orrazkero, diru egik; olangorik egin baño lenago ire gogoá asebeteta i eskegiteko bidean yarri adi, ire burua itoaz ainbarik yoan baño.

ERRODEIKA.—I nire itxaropenen alde gogor egongo ete az, ni orretara yarriazkero?

YAGOBA.—Ez egik izan nire bildurrik: oa ta diru egik; nik sarritan esan dauskat, eta bein barriro dirauskat, nik Mairuari gorroto dautsadala; nik nire erabagia biotz biotzean yoat, eta ik eztok orrelarako eskubide gitxiagorik. Gahiltzan gu biok batera aren asperkundera egiteko: ilc aren emaztea izortu ba'dagik, atsegin artuko dok, nik, osterá, orrako ori yolastzat artzen yoat. Etorkizunaren sabe'ean argitara etorri leitekezan zer asko yagozak. Lan eragiok ire buruari; oa; pilatu egizak txanponak. Onetzaz biar eragongo barriro bion artean. Agur.

ERRODEIKA.—Non yoko yoagu alkarregana iiar?

YAGOBA.—Nire ostatuan.

ERRODEIKA.—Tertzioz yoango nok igana.

YAGOBA.—Oa irs egitekora; agur. Entzuten dok, Errodeika?

ERRODEIKA.—Zer esan dok?

YAGOBA.—Ire burua itoterik ez gero, entzun dok?

ERRODEIKA.—Nire asmoa aldatua nok: etxara yoanda nire lur guztiak salduko yoazat (Alde dagi'!

YAGOBA.—Olan gizentzen dot nik nire ziskua iñoren lepotik; eta izan be, nik iritxi dodan yakituria alperrik galduko neunke, nik nira astia, nire yolas eta irabazigarritat olango txoriak ilten emongo ezpa'neu. Nik Mairuari gorroto dautsat; eta or sinisturik dagoz ak nire oeko izara artean nire egitekoea egin izan dauela: nik eztakit orrako ori egia danik, baña nik orrako orren susmo utsagaitik segurutasun-bideak artuko 'dodaz. Ak nitzaz uste ona dau, eta ori dalata, nik areri buruzko nire asmoak errazago eroango dodaz aurrera. Gizon da Kasi: dakusdan orain: aren lekua nik bete ta nire asmoa zitalkeri bikotkez estali. Zelan, zelan? Dakusgun... Gesu baten Otel'eri esango dautsat belarrira Kasi aren emaztearen adiskideegi dala: ...Kasi susmo-gei da, gizon eder-lerden eta txeratsu da-ta; emakumeai euren senarrai marro eragiteko ezin egokiago yatzu a. Mairua biotz-agiri, biotz-zabal, eta zindo dirudien gizonak zindotzat dauzana; eta, orrexegaitik, musturretik lotuta nainora erraz-erraz eroatekoa, astoak eroaten dirian lez. Asmau yoat; sortu yoat: sulezeak eta gabak ekarri bear dabe argitara mamu-yaiotza au.

## II EKITALDI

### I AGERLEKU.—KUIPORTS'eko KAI-uri. Ordoki

MONTAN eta gizon yator bi aurrera.

MONTAN.—Legor-mutur onelalik zer ikuslen idozue zuok itxasoan?

I GIZAYATORRAK.—Nik eztoz ezer ikusten: uin eskargaz besterik eztoz ikusten; ortzi-legorren bitartean ezin dot ikusi ontzirik bat bera be.

MONTAN.—Nire ustez, axeak putzaren putzez legorrean bereak eta erdi egin izan dauz; axe-bolada gogorragok eztauz eguño yo izan gure arresiak: itxasoan olango okerreririk egin izan ba'dau, aretxezko saietsak zelan yarraiko euren muturrak euren zuloetarik urtezka, orrenbesteko urmendirik ganera etorriazkero? Ze barri etorriko ete yaku onetzaz?

II GIZAYATORRAK.—Turkarren ontzidia sakabanatu egin dalakoarena: eta izan be, yarri zaitez izpaztarrean, eta itxaso asarreak odeiai arrika daragoiola irudituko yatzu; axeak azlinduko uin-buru-eskargak Artz goriari (4) ur-yaurtika ta ortzi-buru lingoaren yagolak (5) itzaliten daragoiela irudituko yatzu: eguño eztoz ikusi itxasorik orrenbesteraño asarretuta.

MONTAN.—Turkarren ontziak kaian ezkutuaz ez egotekotan, urperatuak dira; olango ekateri erantzutea ezina da.

Iragarren gizayator aurrera.

III GIZAYATORRAK.—Barriak, gizonak: gure guduenak egin dau. Ekaitz asarreak Turkarrak aztin-aztin egin dauz-ta, arein asmoak porrot egin dabe: Binixa'ko ontzi andi-ederak arein ontzidirik geiena negargarriz birrinduta ta larrialdi itzalean ikusi izan dau.

MONTAN.—Bai ete? Egia ete dok?

III GIZAYATORRAK.—Orrako ontzi ori emen kai-barruan da, Berona'koa da; Mikel Kasi, Otel Mairu oldartsuaren ordeazkoa, legorreratua da; Mairua bera itxasoan da, ta aginpide osoagaz dator Kuiports onetaran-tza.

MONTAN.—Barriok benetan poztuten naue; a agintari izangarri yatzu.

III GIZAYATORRAK.—Baña Kasi berberau,

Turkarren galtzeari buruz pozik egonarren, goibel eta oldozkor eta Mairua onik izan daiten otoika dago, a ta aren lagunak itxaso asarre bizian zala ontziratuak dira-ta.

MONTAN.—Yaungoikoak a onik izatea gurako al dau; eta izan be, ni aren bendeaz ibilia nozue, ta ak benetako guiarik lez agintzen dau. Goczen izpazterrera, goazen! bai kaira sarbarri dan ontzia, bai Otel oldartsuarena begira egoteko, ortzi urdina ta legorra alkarregandik berezi-ezinik gelditu arte.

III GIZAYATORRAK.—Goazen, orixe dagigun, une bakotxeko ontzi geiago eltzeko itxaropena dago-ta.

KASI aurrera.

KASI.—Eskerrik asko zuol, gudu-izaro onetako gizon adoretuoi, Mairua orrenbesteraño goratzen dozuenoi! Ene! Yaungoikoak ya-

(4) Artz gori. Irakurla, gau oskarbiz, goian izarrak txerertsu ta maltzur kiñuka dagotzuzt-necmi, bizi garean ludi onen iparraldea begira yarri zaitez; olcm zagozala, eragi zure begiaik ara gora, izarretara, baña buruari ez ezkerretara ez eskoatara eragtteka; orrazkero, zure uaurre-ourrean, cm goiko izar disdizgilleen artean, zazpi izar argi-argik osotzen daben izar-mordo ikusiko dozu; izar-mordo orri Artz Txiki eresten yako, *izen&n* bat ezarri-bearrez. Zazpi izarrotatik lmc burkama-ontza dabe, eta beste irurak burteguna; irurotarik burkamatik urrinen dogonari Ipar-izar deretxo, ortziaren iparburu-buruan aurkitzen dalako. Artz "gori" diño Shakespeare'k. Bai, ba, Artz ori izarrezko da, ta izarrak, dakigunez, sutan eta gori-gori dagoz. Beste izar-mordo 'bateri Artz Nagusi deretxo, baño Shakespeare'k emen lenengoari buruz daragoio.

(5) "Ortzi-buru tingoaren yagolak". Ortzi-burutik ur-ur aurkftzen don beste izcrr-mordori "Eiza-txakurrak" deretxo, ta txakurra geien baten etxea yagoteko eukiten da-ta, orrexegaitik deretxe Shakespeare'k izarroi "Ortzi-bu-ru tinkocn'eii yagolak.

gongo al dau lengaien asarretik, nik a itxaso galtzoritsuan galdu izan dot-eta!

MONTAN.—On ete da aren ontzia?

KASI.—Aren ontzia zur onez egina ta ondo yosia da izan, eta lemalaria onenetaikoa! beraz, nire itxaropenak bein-beinean ez dira galdu. Onik elduko al da. (Barruan) Ontzi! ontzi! ontzi! ontzi agirian!

Laugarren Gizayator aurrera.

KASI.—Ze zarata dogu ori?

IV GIZAYATORRAK.—Uria ustu da: itxas-er-tzean gizataldeak dagoz lerroka, ta "ontzi" gedar egiten dabe.

KASI.—Nire itxaiopenak uri-burutzat dabe *a*. (Sutunbadak barruan).

II GIZAYATORRAK.—Txera ta adei-sutunbadak egin izan dabez; giutienez be eldu-barririk gure adiskide dira.

KASI.—Arren-bai-arren, yaun, urten zadiz, ta egia ekarri egiskuzu nor dan eldu dana.

II GIZAYATORRAK.—Bai, ba-noa.

MONTAN.—Baña, ordeazko ori, zure gudalburua ezkondu da ala?

KASI.—Bai, zori onez: ak lortu izan dauen neskeak goitik egiten dautse gorapen oio-ri ia entzuterik goingoari; *a* idazkortzaz egiten dirian edergarrien ganetiko yatzu; ak bere egikera egillea nekatuta itxi izan dau.

Barrien-barri aurrera II Gizayatorra.

Ze barri? Nor da kairatu dana?

II GIZAYATORRAK.—Yagoba dalakoa, gudalburuaren ikurrinduna.

KASI.—Onik eta arin be arin eldu da; ontzi errugeak ausi ta urperatzen dakien eka-txak, itxaso asarreak, axe orroalariak, ure-tako atxak eta ondartzak, edertasunari txera argi ta men eginda, eurenzko izateari uko egin dautsoe, yaungoiko-antzeko Destemone'ri bidea egiteko.

MONTAN.—Nor da orrako emakume ori?

KASI.—Nik eragon dautsadana bera, gure nagusi andiaren nagusia; Yagoba azkar-rrak ekarteko itxia; eta arin etorrira, gure itxaropenai aurreratu egin yake: zazpi egun baño ez bidean! Yaungoiko andi, yagoizu Otel, eta aren ontziko axe-oialari zure arnasa indartsuz putz egiozu, aren ontzi andiak kai au apaindu ta onetsi dagian. Egi-za ta maite-arnasestuka Destemone'n besarteratu daitela, biztu egizu gure adore yausia, ía Kuiports osoari poz-baretasuna ekarri, Ene! begira!

DESTEMONE, EMILLE, YAGOBA, ERRODEI-KA, ta Begiraleak aurrera.

Legorreratu da! Ontziko altxorra Kuiports'eko gizonok, bekiunbikotu no orren auriean... Gora, andera! Yaungoikoaren eskerra lagun bekitsu aurretik, atzetik eta nainondik!

DESTEMONE.—Eskerrik asko, Kasi adoretzu. Nire yaunaren ze barri dozue?

KASI.—Oraindik ezta eldu; nik eztakit besterik onik dala ta laster emen dala baño.

DESTEMONE.—Ene! ni bildur naz. Zelan bakan-ku dala zara agandik?

KASI.—Ortzi-lurren asarre gorriak banandu ginduzan alkarregandik... baño, so! ontzi bat agiri da. (Barruan) Ontzi! ontzi! (Sutunba-otsak)

II GIZAYATORRAK.—Iskillo-gazteluari txera egiten dautsoe; ontzi au be adiskide da.

KASI.—Zoaz barri-billa. (Gizayatorrak alde dateri) Ikurrindun on, ondo etorria zu: ondo oterria, aniera, (EMILLE'ri)Eztadiz artegatu, Yagoba on, ni adeitsu-txeratsuegi ba'nozu; niri ezikeratik datorkit onen txeratsu izatea. (Mun egiten dautso EMILLE'ri).

YAGOBA.—Yaun, nitzako miña erabilten dakian bestean zuri bere ezpanak emon ba' dagituz, asko ta jar dozu.

DESTEMONE.—Ba! Emille'k eztau ikasi oindiño itz egiten.

YAGOBA.—Bai, geiegi be, egia esateko; ni lo-gura nazanean be orrek txor-txor dara-goio; ara, zu andera orren aurrean dautort orrek bere miña bere biotzean iminten dauela ta agirika oldoztuta egiten dauela.

EMILE.—Esan dozuna esateko eskubids gitxi dozu.

YAGOBA.—Tira, tira; zu ate-eder zara; txilin, etxelto aretoan; basakatu, sukaldean; deun, zure irainetan; txerren, irainik egiten yatzunean; yokalari, etxe-lanetan; eta etzandera, zure oean.

DESTEMONE.—Ene! uf! iraintzalle ori!

YAGOBA.—Bai, zera! nik esana egi utsa da, ostean ni Turkar nozu; -zu yolaserako yagiten zara, ta lanik danerako etzan.

EMILLE.—Zuk eztozu idatziko nire gorapenik, ez orixe.

YAGOBA.—Ez, ez al dot idatziko.

DESTEMONE.—Nire gorapenik egitekotan, zer idatziko zenduke?

YAGOBA.—Andera maitagarri, enagizu bul-tzau orretara, ni iñori eztenkadak emotekoa nozu-ta.

DESTEMONE.—Tira, ekin.., Iñor yoan ete da kaira?

YAGOBA.—Bai, andera.

DESTEMONE.—Ni enago gogargi; baña nik nazanari marro egiten dautsat, enazane-na egiraia. Tira, zelan goiatuko nindukezu?

YAGOBA.—Or nozu, baña, egia esan, nire buru onek nekez asmau al izaten dau, txoriak goatzeko eiaskia iriskia-zear nekez iqu-roten dan letxe..., ekinaren ekinez garau-nak be aterako ete dodazan nago. Baña azkenenn asmau dot, eta ara zer argitaratzen dan: emakumea eder eta zur ba'da, edertasuna ta zurtasunetik, bata norberak erabilteko da, besteak erabiltsn dau lenengoa.

DESTEMONE.—Gorapen bikain! eta emakumea baltz eta zur ba'ledi?

YAGOBA.—Baltz ba' ledi ta, ganera, zur 'v.'.an. idoroko leuke bere balztasanari ondo letorkion zuririk.

DESTEMONE.—Geroago ta txartoago goaz.

EMILLE.—Eta lirain eta buru-arin ba'litz?

YAGOBA.—Lirainik ezta izango iñoz buru-arin; bere buru-arintasuna be ondorengoak izateko lagun izango yako-ta.

DESTEMONE.—Orrako, usteaz besterako. esakune gordinok garardotegietar tentelai barre eragiteko esakune zantarrak yatzuz. Zelan goratuko zenduke itxusi-tentela?

YAGOBA.—Lirain eta zurrakin yolas eta okerreri zantorren batzuk ezin egin al izate-rañoko ta olangorik ez egiteiañoko itxusirik eta tentelik eztozu.

DESTEMONE.—Ezyakinaren ezyakina! Zuk txarrena goratzen dozu geien. Saña zelan goratuko zenduke zuk benetan goragarri litzatekan emakumea, bere zer onakaitik bekaizkeririk balztenari be agoa itxi eragingo leuskiona?

YAGOBA.—Beti lirain, eta iñoz arro ez; miña bere agindura euki, ta iñoz zaratarik egin ez; iñoz urre-bearrik izan ez, eta orraitño iñoz be arro yantzita ibili ez; beie guraririk egin ez, eta orraitño "Orain ba-dai-ke" esan; asarre izan eta aspertu al izan, eta a ta guzti be bere asarre ta artuko irainai geldi egonazo ta bere artegatasu-nari "oa ortik zear" esan; makaHao-buruaren ordez izokibuztanik artzeko lain buru gitxiko eztana; oldozten dakiana izan, eta orraitño bere gogorik iñorí ez iragarri; bere atzetik bere maitasun-billa darraion gizonerreskada ikusi, ta alan be ez begíratu atzea; olango emakumea yatzu benetako emakue, eguño olango emakumerik izan ba'da izan.

DESTEMONE.—Eta zetarako »dozu olango emakumerik?

YAGOBA.—Tentelak eradoskiteko ta garardotegietan garardoa ernoteko.

DESTEMONE.—Zure ondorena bai ba-dala aletz utsa! Emille, ez yarrai zure senarraren irakaspenai. Zer deretxatzu zuri, Kasi? Ez eta da ori onulari lotsabako-lotsabako ta nasaiegi?

KASI.—Orrek bere burua iragarten dau, andera; ori gudari-arloan, yakintza-arloan baño yakintsuago ta gozoago yatzu.

YAGOBA.—(Bere kitean) Eskutik eltzen dau-tso emakue oni; areago, orain belarrira txutxu-putxuka daragoio: amarauntxo one-gaz sareratuko dot nik Kasi eulitzarra. Areago, orain irribarre egiten dautso; eure adeikerietan goatuko aut. Egia diñok; olandtxe dok izan be; onango marrokeriak iri Ordeazkotzea kendu ba'dagisk, oba yakan iri ire iru atzai orren sarri munik ez egitea, i orainlxe orretarako gose izanarren (6). Ederto, ederto. Ostera be ire atzak ire ezpanetara? Estegorri-odiak al litzakizak ire atzok, ire este lodia ikuzteko ire onerako (Bairuan adar-ots). Mairua! ezagun dot aren adar-otsa.

KASI.—Bai izan be!

DESTEMONE.—Goazen agana, ari txerea egiten.

KASI.—Ara, non datoiren!

#### OTEL eta Lagungoak aurrera.

OTEL.—Amen nire gudari liraina!

DESTEMONE.—Otel, laztan ori!

OTEL.—Zu nire aurrean ikusiak andi eretxita ta pozez ganezka nauka. Niie biotzeko poz oii! Ekaitz baxotxaieen ondoan onango barealdirik etortekotan, axeak ilak iratzarerañoko putzak dagiezala! Eta itxas-ganean larri dabilzan ontziak Olinpu (7) mendia gañe gora, naiz gorago yagi, ta, urren, sulezea baño beiago yatsi ta murgildu daitezala! Oiain il beai ba'neu, oso zoi ontsu nintzateke; eta izan be, bildui naz oiain

(6) Italiarak craintxe be norbaiteri mun egileko gogoa iragarteko, lenengo iru atzak bat egim, eta otzoi mun egiten dautse, "pa" ots egkida.

(7) Olinpu Elade'ko mendi yatzu, eta mendi andi-andirik izan ezorren, Elade'tar idazlea'k mendi eskargatzat eben ela Elade'ko yainkoak, arein ustez, antxe raenditontorrean bizi ziran zori ontsu, nozik-bein euren arlean asanaldi botzuk eki alkaiTeganako bekaizkeritxoak be izanarren,

dodana lango zori on beterik eztodala izango inoz be.

DESTEMONE.—Yaungoikoak ez al dau gurako olangorik; gure egunak yoan-ala, gule pozak eta naierak *ba* azi ta geitu baño!

OTEL.—Olantxe bedi ori be, Yaungojko raaitagani! niie poz au nik ezin dot iragarri beai gañe; geldotuiik neuka; poz andiegi da; eta au, eta beste au izango al diia beti ta beti gure biotzen aiteko asane ta alkai aitu-ezinak (Mun egiten dautso).

YAGOBA.—(Bere kitean) Ba! Orain ereskide zarie zuok! baña gizon zindo nazanazkeio, eiesi ori soitzen daben zotzak neuk lokatu ta biirinduko dodaz.

OTEL.—Tiia, goazen gaztelura. Barriak doguz, adiskideok; gure guduenak egin dau, Turkarrak urperatuak dira. Zelan ete dagoz izaro onetako nire ezagun zarrak? Laztan ori, zuri Kuiuports'en txeia aigi egingo dautzue; nik Kuiuports'etarren arteau maitasun andi aurkitu izan dot. Nire laztan ori, enozu ni onan itz egin oi dauenik, eta ni nire poz-atseginetan eroturik nozu.—Yagoba on, zoaz zu, arren, kaira ta. atea egidazuz ontzitik nire kutzak: gazteluia ekarri egizu ontzi-burua; a gizon on da, ta adei ta txe-lagarri. Tira, Destemone, ostera be Kuiuports'era ondo etorria zu. (OTEL, DESTEMONE ta Lagungokoak alde dagie).

YAGOBA.—Ator bertatik kaira nigana. Ator ara. Gizon aioretsu ba'az, —or diñoenez, gizon zirtzilak, maitasunak yoazkero, eurenz dirian baño andiago egiten ei dira-, entzun egidak, Ordeazkoa arrats onetan gau-zainen artean atzanik egongo dok; lenen au esan bear dausknt: agiri-agirian Destemone Kasi'kin maiteminduta yagok.

ERRODEIKA.—Akin? Ba! ezin izan olangorik.

YAGOBA.—Onan (ezpanetan) imini egik ire atza eta entzuik. Gogora egik zelan Destemone'k len biotz-biotzez maite izan dauen Mairua, aren arropuzkeri ta ifondiko guzurakaitik; eta oraindik be itz utsekaitik maite izango dauela uste ete dok ik? Sentzunik ba'dok, ez egik uste izan olangorik. Edergose dok Destemone'n begia; eta ze poz izateko ak txarrena begiratuaz? Atsegin artuaren artuz odola sogortuten danean, odola barfien-barri berotu ta bizluteko ta atsegin-asea ostera be zirikatzeiko, soinedertasuna bear-bearreko dok; adin-kidetasuna, ekandu-oiturak, eta liraintasuna; eta Mairuak etxok orretaiorik: aiko, egokitasunon ezagaitik emakume orren samurtasun

guriak txarlo erabilita ikusiko yok bere burua; orren biotza ok-egiten asiko dok, Mairuaz okitzen eta ari gorroto izaten; izamena bera izango yakok orretan irakasle, ta besteren baten billa bultzauko yok. Orrazkero, yaun, eta esana ederretsi ba'dagik, nor yagok Kasi baño toki gorago ta egokiagoan olango zori onik izateko? A dollor aldakor dok; ganera, kezkarik ete yok ak gizon zindo ta begiratuaren antza artu ta, olan, bere irrits zantarrak estaltzeko? Bai, zera! tutik bez; bai, zera! zelangoa danik bez: dollor laban eta zorrotz-me dok a; ereti-billa ibiltan dakiana; ak begi ona yok zer onak iruditu ta margoztuteko, berez ezetarik zer onik izan ezanen: txerren bestean dollor dok! Orrez ganera, dollor ori lerdan, gazts dok, eta emakume buruarinak billatzen dabezan zer guztiak yozak aldean; idollor oso-bete ta izurria lango dok; eta emakume orrek dagoneko begiz yo yok.

ERRODEIKA.—Nik ezin yoat sinistu olangorik Deslemone'z, emakume ori izakeiarik zindoeneko dok-eta.

YAGOBA.—Zindoeneko! Bai, zera! ak edaten dauen ardaoa be matsagaz egina dok; zindo-zintzo izan ba'litzok, etxoan eguño maite izan izango Mairua. Zindo ta zintzo bal besierik. Eztok ikusi emakume ori ari eskuan zirri egiten ala? Eztautsak orrako zer orri so egin ala?

ERRODEIKA.—Bai, orrenbestekorik neuk be ikusi ta oartu yoat; baña ori txereari dagokona dok.

YAGOBA.—Ori likiskeri, zantarkeri dok, mutil; ori irriskeri ta oldozpen zantarren iragarpsn, eta orrako orren edestiaren sarre-ra edo aurre-solas dok. Orrean ezipanak alkarren ondoregi elduta, orrean arnasak alkarregaz bat egin yoek. Oldozpen zantarrak, Errodeika! Alkarganako zerok bidea onan urratzen dabenean, laster yatok ugazaba ta egite nausia, scñak alkarrekin bat egitea: ui! Baña, mutil, itxi egidak iri bidea erakusten: Binixa'tik ekarri aut nik ona. Ago atzarrik gau onetan, eta neuk esango dauskat zer egin: i ez au ezagun Kasi'k:... ni enok izango igandik urrin: Kasi'ri asarratu eraçiteko bideren bat billa egik, naiz ik zatatsueçi itz eginaz, naiz aren agindukerea ik txartzat emonaz, naiz euri ondoan lieretzakan beste bidez, eretiak eskura zer ekarriko.

ERRODEIKA.—Ondo yagok.

YAGOBA.—Yaun, a zakar eta bere asarraldietan itsumustuan ibiltekoa dok gero, ta



ba-leitekek ak i bere ezpateaz yotea be; zirikatu egik orretarako; aiko, olangorik yazotekotan, nik Kuiports onetan asalda sortuko yoat, eta asalda ori burutzeko eztok izango beste biderik Kasi'ri bere lekutik alde eragitea baño. Olan laburtuko dauskat nik ire gurariak ase-betetzeko bidea, ta olan kendu ta baztatu izango yoaguz gure bidetik gure itxaropenetarako ta gorako bidean aurkitzen doguzan oztopo ta era-gozpenak.

ERRODEIKA.—Orixe egin be egingo yoat, orretarako ezetarik erarik aurkitzekotan.

YAGOBA.—Ago seguru aurkituko dokala. Ato gero nire billa gaztelura: ni aren zeren billa niaoak kaira. Agur.

ERRODEIKA.—Agur. (Alde dagi).

YAGOBA.—Kasi'k emakume ori maite daula, nik osoan sinisten dot; emakumeak be Kasi maite izatea berezko ta sinisgarri da: Mairua, nik ikus-ezina izanarren, berez zintzo, maitakor eta yator da; eta nire eretziz, a Destemone'ntzako senar maitakor izango da. Ara, nik neuk be maite dot; Destemone; ez irrirts eta lera zantar utsez, bear ba'

da oben orren errudun be izanarren, apur bat nire aspergureari yaten emotearren baño, Mairu zantarrak nire oean bear ezтана egin izanaren susmo dodalako: susmo orrek barruan atximurka ta usika egiten daust, osakai edentsuren antzera: eta ezek be enau asebeteko nik nire burua akin bardindu arte: emazteren orde emazte; eta, ori ezinean, Mairuaren buruan buru-argitasuna kenduko daustoen susmo zantarrak sortu. Eta orretarako, Binixa'ko saborra zirtzil ori (Errodeika), nik zoli-zoli lan eraginda, usainari yarrai ba'dakio (8), laster eskurstu izango dot nik Kasi, laster egin izango dot nik Kasi'na; zantarkeriz yantzita erakutsiko daustat nik Mairuari; eta izan be, bildur naz Kasi bera be nire oean ibilia ete dan; Mairua niri eskerrak egitera, ni maite izatera ta ni saritzera yarri bear dot, eta egin-eginean be nik a astotzartzat artuagaitik eta ari gentza ta baretasuna galazota, burutik eginda itxiagaitik. Aor nire egitekoa, baño oraindik zeatz agiri ezтана, zitalkeria- ren arpegi osorik egin arte eguño ikusten eztalako (Alde dagi).

## II AGERLEI '.-Etxartebide,

ALDARRIKARI aldargaiagaz; Erria atzetik ara.

ALDARRIKARIAK.—Ona emen gure gualburu zindo ta adoretuaren gogoa ta guraria: Turkarren gudu-ontzidia galduazko barri elbarriak dirala-ta, bakotxak gurendeari dagokionez yokatu ta bere astia emon begi: yantzak eratu begiez batzuk, su-ziriak gertau begiez beste batzuk; beragoio bako-

txak berari gogokoen eta atseginen yakon yolas eta zorakeriari; eta izan be, gutzat pozkarri diran barrion ganera, bere ezte-guak be egiten dira: -onako au aldarrikatzea aren gogoko da. Erri-toki guztiak zabal-zabalik dira; eta bostetako ordu onetatik yoaleak amaikak yo arte bakotxak bere eskuko dau yai egitea. Yaungoikoak onetsiko a\ dauz Kuiports izaroa ta Otel gualburu zindoa! (Alde dagie).

## III AGEBLEKU.-i kizteluko bebarru.

OTEL, DESTEMONE, KASI ta Lagungokoak aurrera.

OTEL.—Mikel on ori, zuk artu gau onetan gau-zaintzearen ardura: iñor neurritik urten eztaiten, geuk emon dagigun neurrikotasun egokiaren eredu.

KASI.—Yagoba'ri esanik dot zer egin bear dan; baño orraitioñ neuk be begia zur erabiliko dot egikizunik egiteka gelditu eztaiten.

OTEL.—Gizon zindo ta zintzo yatzu Yagoba. Gau on, Mikel: Biar goxean al danik goxen zukin itz egiteko gogo dot.-Goazen, ene

laztan (Destemone'ri), bein zera errosiazke-ro, aren ondorengo ta igaliak bear dira; oindiño zure ta nire arteko ondorengo ta igaliok etorteko dira. Gau on, (OTEL, DESTEMONE ta Lagunak alde dagie).

YAGOBA aurrera.

KASI.—Ondo etorria, Yagoba; guk gau-zaintzara yoan bear dogu.

(8) Yagoba'k emen Errodeika, eiza-ixokur baillitza, eizeari ycnrai erabilteko gogoa iragarten dau.

YAGOBA.—Ez ordu onetan, Ordeazko, ondiño ez dira amarrak, Gure gudalburuak Destemone'ganako bere maitasunagaitik alde eragin dasku onen goiz; eta au eztozu txartzat artu bear, ak ondiño Destemone'kin eztau gaurik egin-ta; eta, benetan, Destemone gaua pozik igarozoteko etxatu txarra.

KASI.—A andera bikain-bikain yatzu.

YAGOBA.—Eta, sinistu egidazu, bai atsegin-zale be.

KASI.—Izan be, a izaki guri-samur yatzu.

YAGOBA.—Aren begiarena! nire ustez aren begirakunea barriketaldi besteko bada atseginerako.

KASI.—Deiez daragoion begia; eta orraitino nik lotsa-lotsaduntzat dot.

YAGOBA.—Eta bere itza ez ete da maitasunerako dei?

KASI.—Egia esan, a osotasuna bera yatzu.

YAGOBA.—Tira, ba, zori ontsu bediz euren izarrrak! Tira, gudalburu-ordeko, bonbilbete ardao dot emen; eta or atetan dagoz Kuitports'eko morrosko garratz bi Otel baltzaren osasunerako edonlzikada bana aiko maiko andi barik edango leukienak.

KASI.—Arratseon ez, Yagoba on; nire burua makal da edarirako; txera ona egiteko beste biderik asmauko al dozu.

YAGOBA.—Ba! orreik gure adiskide dira; edontzikada banatxo bakarrik; nik zure alde edango dot.

KASI.—Arratseon edontzikada bat bakarrik edana nozu; bera be, inok igarteka, ixilean ura eginda, eta orraitino ikusi baño eztaukazu zelan eragin daustan. Ni edalla makal nozu, ta nire makaltasunari eztautsat erantsi gura geiagorik.

YAGOBA.—Ostera! gizon! gau au poza iragarteko da, ez neurrian ibilteko: morrosko garratzok orren begira dozuz.

KASI.—Non dira eurak?

YAGOBA.—Or atetan; barrura sartu egizuz, arren.

KASI.—Orixe egin be egingo dot; orraitino, gogoaz bestera. (Alde dagi).

YAGOBA.—Gau onetan edan dauenari edontzikada bat bera erantsi al ba'dagiot erantsi, nire anderearen txakurra baño asarrekorrago ta minberago egingo dot: maitasunak larri-larri itzulietara imini dauen Errodeika zoro-eroak be Destemone'n osasunaren alde bear dana baño geiago edan dau, ta a be gau-zaintzan egoteko dogu: Kuitports'eko iru morrosko, arro-zaratatsu, ta euren izen onari inok zerik txikienean

ukutuazkero, goiak eta beak yota izaro *au* aidean yarriko leukienak, nik gau onetan txurrutaren txurruzez bizi-bizi yarri dodaz eta aik be gau-zaintzea egiteko dira. Orain, mozkor-mordo onen artean Kasi'ri, izarotarrok minduteko, zerbait eragiteko naz ni: or 'datoz eurak: geroak nire amesa ederretsi ba'legi, nire ontzia eroso Iioake aurrera, axea ta urutuak bere alde dirala,

Ostera be aurrera KASI, MONTAN eta, Gi-zayatorrak berakin dirala; atzetik Otseinak ardaoagaz.

KASI.—Yaungoikoarren! dagoneko edanazo dauste neurriz gora.

MONTAN.—Ba! zuk apurtxo bat edan dozu, ez kutxut batetik gora.

YAGOBA.—Ardao! ee!

"Dagiodan edontziari klin.klin (Abestuaz)

"Dagiodan edontziari klin.klin:

"Gizon dok, bai, gudari;

"Giza-bizitza, zubi;

"Beraz, orrazkero, beda gudarik".

Ardao geiago, mutillak.

KASI.—Bene-benetan, abesti bikain.

YAGOBA.—Abesti au Ingelanda'n ikasia nozu, an, izan, be, edalla itzalak dozuz-ta. Danemarka'rrak, Doisturrak eta Olandar sabel-andiak, edan, eup! -ezer be etxatzuz Ingelandarren aldean.

KASI.—Zure Ingelandarra orrenbesteko edalla ete yatzu, ba?

YAGOBA.—Ba! Ingelandarrek oraindik gogoz edaten dautzu Danemarkarra mozkor-mozkor eginda egonarren; txirikelan egozten dautsu lurrera Doistarra, eta Olandarrek egin dauenean, Ingelandarra ardao geiagoren eske dagotzu.

KASI.—Gure gudalburuaren osasunaren alde!

MONTAN.—Neuk be beste orrenbeste. gudalburu-ordeko. Enozu atzean itxiko.

YAGOBA.—Ingelanda ezti ori!

"Estepan bakalduna "peer" (9) zindo izan zan (Abestuaz)

"Parkak erosten "buruntza" (10) bat eban eralgi;

(9) "Peer" Ingelanda'n andfki botzuen izengotti yatbu, eta "kide", "bardin" edo olaogotsu esan gura dau.

(10) "Buruntza" emen Ingelanda'ko zidarrezko txanpon yatzu; buruntza bai bost "xilin" yatzu gei, xilina, barriz, amabi txakurrandi edo "penik" egitem dabe.

"Sei txakurandian be karuegitzal berak etsi;

"Eta "Saf ori!" gedar egin yostunari,

"A entzute andiko gizon yatzun, nabari,

"Zu, ostera, gizon zirtzil-dollor zara:

"Arrokeriak oi dau erria goitik bera eratsi;

"Orregaitik zuk zure yantzi zarra sorbalda-ra".

KASI.—Ostera! abesti ori bestea baño askozaz oba yatzu.

YAGOBA.—Barriri entzun gurozu ala?

KASI.—Ez; olangorik dagiana bere tokirako gei eztala uste dot-eta. Tira, Yaungoikoa guztien ganetik dago; eta gogo batzuk yareiteko dira, eta beste batzuk, ostera, ez yareiteko.

YAGOBA.—Ori be egia da, gualburu-ordeko on.

KASI.—Niketetz, -besterik eta gizon zindorik iraintzeka, -nik yareien arteko izateko itxaropena dot.

YAGOBA.—Orrenbesterik bai neuk be, gualburu-ordeko.

KASI.—Asketsi, baño ez ni baño lenago; gualburu-ordekoak ikurrindunak baño lenago yarei bear dau. *Baña* bego; ez geiagorik onetzaz: goazen gure egitekora.-Asketsi egiguzuz gure zorrak! Gizon yatorrok, begira dagigun gure arazo la arloa. Gizon yatorrok, ez uste izan ni mozkor eginda nagonik: Eta izan be, ikurrinduna da onako ar; nire esku eskoia da au, beste ctu ezker-rra: ni enago orain ordituta; zutunik alaso nago ta itz be alaso egiten dot.

GUZTIAK.—Alaso? Itzalez ederto.

KASI.—Ba, orrazkero. ederto baño edertoago: beraz, zuok eztoze uste izan bear ni zaragi eginda nagoanik. (Alde dagi).

MONTAN.—Mai-ganera, gizonak; yarri dagigun gau-zaintzea.

YAGOBA.—Ikusi doze or aurretik yoan dan urlia; orrako ori Kaiser'en aldamenan yarrita ari zer egin irakasteko lain yatzue: baño akats bat dau; akats ori orren ekan-du onenzako gau-egun-bardinaldia (II) langoxe yatzue: bata besteak añako da; tamalgarri benetan. Bildur naz Otel'ek orregan yarten dauen entzina dala-ta, orren makalaldien baten izaro au ikaratuko ez ete dan.

MONTAN.—Sarritan egoten da olan ala?

YAGOBA.—Beti dagotzu olan etzan-aurretik: edariak eragingo ezpa-leutso orren seaskari, orrek birritan ikusiko leuke erloiuaren ordu-atza bira osoa egiten,

MONTAN.—Ondo legoke gualburua orrako zer orren yakitun egitea. Ba-leiteke ak orrako zer orren barririk ez yalcitea; edo, bear ba'da, ak Kasi'n ekan-du onak ederre-rritsita, aren akatsai eztautse yaramoten: ez ete dogu onako au?

#### ERRODEIKA aurrera.

YAGOBA.—Gau on, Errodeika! (ERRODEIKA'ri bakarrik) Oa, arren, gualburu-ordekoaren yarra; oa. (EHRODEIKA'k alde).

MONTAN.—Eta temalgarri da Mairuak be-rearen urrengo tokia olango makalkeririk dauen gizonen eskuetan galdu-gorde gorrrian imini izana: zintzoarena litzateke ori Mairuari esatea.

YAGOBA.—Nik eneuskio esango izaro eder onegaitik be: orretarako nik Kasi maiteegi dot; eta edozer egingo neunke gaitz orretatik a osatzearren.-Baña, so! zer zarata dogu ori? (Barruan gedar) "Lagun, Jagun!".

KASI aurrera barrien-barri, ezpateaz ERRODEIKA'ri yarra.

KASI.—Zital ori! dollor kirten ori!

MONTAN.—Zer yazoten da, gualburu-ordeko?

KASI.—Zitalek irakatsi be niri nire egitekoa! Zital ori yota abar-sare-bonbila legetxe iminiko dot (12).

ERRODEIKA.—Zuk yo be ni!

KASI.—Txor-txorka augu, zital-ziztrin ori? (Yo egiten dau EHRODEIKA).

MONTAN.—Ez, olangorik ez, gualburu-ordeko on orrek; geldi esku ori, yaun, arren.

KASI.—Ez egidazu eragotzi, yaun, ostaan zeu yoko zaudaz orren buru-ganetik zear.

MONTAN.—Tira, tira, zu mozkor eginda za goz.

Cl) "Gau-egun-bardinaldia". Urtsxin birritan dira gaua ta eguna bardinak, amabina ordukoak, eta ludi onen garritik iparraldera bizi diranentzat, gau-egunok Epailarein eta Iraiktren 21'garrenak dira.

(12) "Abar-sare-bonbila legetxe iminiko aut". Bonbi! azi-samar bafzuk zume edo mimeneko sarek estaltzen dabez, itzultekotaEa nekezago ausi daftezan-edo. Ganera, olango bonbilok zumezko kirten bat naiz bi be izaten dabez, ctndik eltzeko. Zegaitik diño Kasi'k Errodeika olango bcnbila letxe iminiko daue-la? Ba, egin-eginean be bonbil-estalgí ori sare dalako. Errodeika'n nanua zuloz yosita, saretu egfngo ei dau.

KASI.—Mozkor eginda egon be ni! (Alkarren artean burruka).

YAGOBA.—Alde, gero! oa atetara ta asalda-yoalea yo egik! (ERRODEIKA'ri bakarrean eta ERRODEIKA'k alde dagi). Ez, gualburu-ordeko on... onangorik! gizon yatorrok... lagun, ee! Gualburu-ordeko..., yaun... Montan..., yaun: lagun, yaunok! Zaintza argia auxe benetan! (Yoalea yoten). Nor da yoalea yoten daragoioa? --Denganiñoen denganiñoa, ee! Erria yagi ta asaldatu egingo da: Yaungoikoarren, gualburu-ordeko, geldi zagoz, ostean betiko lotsaria zutzako.

OTEL eta YARRAGOIKOAK aurrera ostera be.

OTEL.—Zer dogu emen?

MONTAN.—Denganiñoen denganiño, ni oraindik odola daridala nago; zauri larri dot.

OTEL.—Geldi zuon biziakarren!

YAGOBA.—Geldi, ee! gualburu-ordeko yaun. Montan, zuon toki ta egikizunari dagokion sentzuna osoan galdu ete dozue? Geldi! Gualburua dagotzue itz egiten; geldi, lotsarren!

OTEL.—Onangorik! ee! Nondik sortu da au? Turkarrak ete gara, ba, eta Turkarrai eurai be galazota dagona gure artean egin? Kistarren arteko lotsarren, baztartu egizue iskanbilia ikaragarri-basati au: bere asareta asetzeko lenen zirkinik egin eta yo dagianak bere bizia ondo gitxizat etsiko dau; zirkinik egin-ala, il egingo da... Ixildu egizue yoale askarri a! Ak izaro oni eztagokion bildur-ikarea sartzen dautso. Zer yazoten *éa*. yaunak? Yagoba zindo, zu larrilarrilari naibagearen naibagez ilik agiri zara. Itz egin nor da au asi dauena? Nire zukanako ta zure niganako maitasunarren agintzen dautzut.

YAGOBA.—Bai, neuk ba'nenki; oraintxe-arte adiskide izan gara gure egitekoetan eta itzetan, oera yoateko soñekoak erasten daragoioen ezkonbarriak legetxe; eta andik ara, oraintxe-oraintxe, izarren batek sentzuna kendu izan ba'leutse lez, or ibili yatzuz gizonok ezpatak aterata, alkarri bularra zulatzen inondiko areria odoltsuz. Nik ezin esan nor izan dan aitu-ezin zirtzil-zital au sortu dauena; ekinaldi goragarritan galdu izango al nebazan nik, burruka onen zati bat ikusten ekarri izan naben zangook!

OTEL.—Zelan aitzu izan dozu zuk olan zure egitekoa, Mikel?

KASI.—Osketsi egidazu, arren; ezin dot itzik egin.

OTEL.—Montan goragarri, zu beti izan zara begirapen andiko ta ben; ludiak oarturik dauz zure gaztearoko bentasuna ta barelasuna, eta zure izena gizonik zurrentzakotzat izana da guztien agotan: zer yazo da zuk olan zure izen eia entzute ona gau bateko burrukarianagatik saldu ta galtzeko? Erantzuiozu oni.

MONTAN.—Otel goragarri, ni larri zaurituta nagotzu: ni enozu gauz itzik egiteko, min arlzen dot-eta; ganera, nik eztaikit arrats onetan ezer okerrik esan naiz egin dodanik, indarrez ifiok erasoten dauskunean norbere burua maite izan eta yagotea akats eta oben ez izatekotan.

OTEL.—Yaungoikoarren! odola nire zuzendari entzir.garriagoen yabe egiten asirik dot; eta biotza, nire adimen argia ilundurik, bide-erakusla izan-gurarik dabilkit. Nik bein zirkinik ba'dagit, naiz beso au eragi ba' dagit eragi, nire erantzunagaz zuonak egin dau. Yakin eragin egidazue burruka lotsagarri au nondik sortu dan, nok sortu dauen; eta oker au egin izan dauena agertu ba' dai, naiz ta yaiotzaz nire birki izan, orrako orrek nire adiskidetasuna galdu dau. Onangorik! oraindik lauorritan dagon guda-urrian, oraindik biotzak bildurrez ganezka dabezaten artean, gabaz, nagusienarenean eta gau-zaintzan bertan, alkarren arteko auziakaitik onango asarre ta iskanbillak sortu! Onako au itzal baño itzalago ta eguño entzun ezтана lango da. Yagoba, nok sortu dau or?

MONTAN.—Adiskidetasunek, naiz gudaritzako alkarren arteko lokarrik egia baño geiago naiz gitxiagorik esanazo ba'dagitzu, etzara gudari.

YAGOBA.—Ez ukutu niri aragi biziagian: gurago neunke inok niri miña ondo-ondotik ebagi, nik nire onegaz Mikel Kasi'ri okerrik egin baño. Orraitiño be, nik eztoz zalantzarik, egia esanak eztautsola ari okerrik ekarriko... Onan yazo da zera, gualburu: Montan'ek eta nik izketan daragoiogula, urli etorri da gedarrez laguntza-eske; eta Kasi agertu da aren yarrari, ari ezpatea sartzeko erabagi osoagaz, Yaun, gizon yator au urten yako bidera Kasiri ta geldi egoteko eskatu dautso: urli ari neu be yarrari yoan natxako, yazo be yazo dana, bere gedarrakaz uria lauorritan yarri eztagian; ak, ni baño zangarinago izan-ta, aurreak artu daustaz: eta, orrazkero, ni atzera etorri naz arin, emen espata-otsak eta Kasi'n birsoak entunda; nik a olangorik esaten arrats

onetararte entzun dodanik eztoz uste. Ni atzera etorri nazanean, -bitartea labur izan da--, alkarri yosita batera ta bestera zertada ta ezpatakadaka aurkitu dodaz; eginginean be, zeuk banandu dozuzanean egon diran legetxe. Onetzaz" nik ezin esan daiketzut besteirik; onaitiño, gizonak gizon yatzuz; onenak be batzuetan uts egiten dakie: Kasi'k arako urliari irain-iskien bat egin izananen, asane diranean gizonak maitteen dabena be yoten ba-dakie-ta, orraitino igesi dauen arako urliak berak be Kasi'ri egin dautso beie iraintxo, eta onek ezin eroan izan dau epez.

OTEL.—Dakustanez, Yagoba, arazo onetan beginine aradiz itz egin dozu, Kasi'n eriuu arintzeko.-Kasi, nik maite zaudaz, baña ez izan inoz geiago nire oideko.

(DESTEMONE cmrerra cster a be, lagumduta). Begiia, zukanako niie maitasuna geitu ezpa'dagizu, nik egingo dautzudana besteentzako ikaspide izango da.

DESTEMONE.—Zer yazoten da?

OTEL.—Oiaín dana dago ondo, laztan; goazen lotaia.-Yaun, zure zautien osagille neu izango natxatu: eroan egizue au emendik (Eroan daroen MONTAN'i).--Yagoba, begira zuk arduraz uria, ta ixilazo egizuz burruka zantar onek asaldatu dauzanak. Goazen, Destemone; gudari-bizitzearena da, loaldi gozoetatik eztabaida-burrukak norbera irartzarte,

YAGOBA ta KASI'z besteak alde dagie.

YAGOBA.—Zer? Zauriturik zagoz ala, guda-buru-ordeko?

KASI.—Bai, eta zauri osa-ezinez egon be!

YAGOBA.—Olangorik! ez al da izango olangorik!

KASI.—Enfzute ona, entzute ona, entzute ona! ene! nik entzuta ona galdu dot! nik nigan il-ezin dana galdu dot, eta abereena dan utsagaz geldilu naz. Nire entzute ona, Yagoba, nire izen ona!

YAGOBA.—Gizon zindori dagokonez, soñeko zaurien bat dozula uste izan dot nik; soña izen ona baño minberago yatzu. Izen ona inok ezarriko eraskin alperriko ta ustel yatzu; sarritan. orretarako bide barik iristen dozu, ta bide barik galdu be: zuk eztozu galdu zure izen onik, galdu dozula zeuk uste izan ezik. Eup, gizon! oraindik ba-dozu biderik guda-buruu zure alde iminteko: orain aren gogaldi txarrak bidali zautz orlik zear, eta zigor ori zukanako gogo txa-

rri bafio zorrago yako aren bein-beineko yokabiideari; ak egiña ta leoi itzalari bildurra sartzearen erru bako txakurri bizkaira berotzea ainbaten yatzuz; labankeriak egiozuz oster a be, zurutu egizu, ta a zure dozu.

KASI.—Gurago dot bazartuta ta bertan-bera itxita bizi, olango guda-buru oni onango bendeko zirtzil, mozkor eta zurtasunbakok marro egin baño. Mozkor? Eta loroaren antzera itz egin? Eta uskerigaitik asarratu? Eta ollartu? Zinka ta biraoka ekin? Eta norbere kerixeari arropuzkeiak esaten eragon?... Ardaoaren indar ikus ezin ori! i aitatzeko izenik ezpa'dok, iri txerren deitzen itxi egidak.

YAGOBA.—Nor izan da zu ezpatea alerata yarrari izan zatxakozana? Zer egin dautzu ak?

KASI.—Eztakit.

YAGOBA.—Izan ete leiteke olangorik?

KASI.—Ainbat zer oroiten dodaz, baña bat bez argi ta zeutz; burrukea, baña tutik bez zegailik izan dan. Ene Yaungoikoa! Andia da gizonak euren agoan arerioa sartzea, euren sentzuna ta garaunak ostu dagitzezan! Andia da, benetan, guk geure buruak pozik, atseginez, txaloka ta garagarak irabazten aberetuea!

YAGOBA.—Ba! zu orain onik asko zagoz; zelan leneratu zara orren arin?

KASI.—Bein mozkor txerrenari leku eginazkerro, berari be asarre txerrenari leku egitea dagokolako: akats batek besteren bat erakusten daust, nik nire burua zearo ezetsi dagidan.

YAGOBA.—Tira, zu zilligiztilari estuegi zara; garai au, toki au, ta erri onen egokerea diranak lango izanik, nik gurago neunke yazo idana yazo ezpa'litz; baña, yazoa yazo danazkerro, okerra zuzendu egizu zure onerako.

KASI.—Barrien-barri eskatuko dautsot lengo tokian imini nagiala. Ak mozkorti nazala esango daust! Hidera'k (13) lain ago ba'neuz be, olango erantzunak guztiak itxiko leuskidaz. Bein sentzundun gizon izan, eta

(13) Hídera (Hydra). Beñolako Elade'tarrein siniskeriz, Hidera pizti rnamu, iransuge yatzun, eta Lerne ibarreko osinean bizi zan; eunen bat buru ebazan eta bere arnasa andur-edentsuagaz aren arnaseak ukututen eutscn edozer, landara naiz abere, edozein zer bizi, galdu egiten eban. Erakel gizagurenak il ei eban pizti kaltegarri-bildugarri ori.

berlalik zoro-ero la abere! Inñondikoaren inñondiko! Neurritz gorako edontzi askarri yatzu, ta edontzikoa txerren.

YAGOBA.—Tira tira, ardao ona lagun on yatzu, ondo erabi'iazkero: ez egin gedarrik aren aurka. Eta, gudalburu-ordeko on, nire ustez, zuk nik maite zaudazala uste dozu.

KASI.—Nik ondo iragari dautzut ori, yaun, -nik mozkor onek!

YAGOBA.—Zu, naiz beste edonor, bizi dan artean, nozbaiten mozkortu daiteke. Neuk esango dautzut zer egin. Gure gudalburuaren emaztea dogu orain gure guialburu: nik ori esateko biderik ba-dodala uste dot. ak orain bere emaztearen beste zer onak eta edertasuna begiz yota, eurekaz bere gogoia asetzen daragoio-ta: argi, garbi ta zeatz autor zakioz Destemone'ri; ekin eta ekin egiozu ari eske ta eske zu lengo lekuan imini zagizan; a izatez esku-zabal, maitagarri, ta lera on-oneko yatzu-ta, bere ontasunaren akasztat esten dau eskatu yakona baño geiago ez emotea: a zu ta bere senarraren arteko azur-giltza ausi au zimitzakaz lotukoren begira dago; nik edonori egingo neunskio zure maitasunak izan dauen arrakal edo itzekarroa baietz gelditu len buño sendoago ta ertzak alkarri yosiago.

KASI.—Onu on emon daustazu.

YAGOBA.—Orretan nago, nik benetan maite zaudazalako ta zukanako gogo on-zindok eraginda.

KASI.—Neuk be orixe uste dot; eta biar goxean eskatuko dautsat Destemone onari nire bitarteko izan daitela: zer onetan zori ona lagun ezpa'dakit, nire itxaropenarenak egin dau.

YAGOBA.—Zuzen zagoz. Gau on, gudalburu-ordeko; gau-zaintzara yoan bear dot.

KASI.—Gau on, Yagoba zindo. (Alde dagi).

YAGOBA.—Eta, orrazkero, nor da nik dollorarena egiten dodala diñona? Ezta nire onua argi emona, zindoa, bere gogoaren alderakoa ta, benetan, orrek Mairua barriro irabazteko bakarria ala? Eta izan be, egiteko erreza da Destemone'n biotza inñori on egitera itzultea: berez da a esku-zabal, ondario, lengei emokorrak legetxe. Eta gero Mairuaren biotzaren yabe egitea, Mairuak oretarrako bere ukuzpenari ta oben suntziutaren ezaugarri ta atz guztiai uko egin bear ko ba' leutse be (14)... Aren biotza bere emazteaganako maitasunari intsigi-intsigita, lotu-lotuta dago-ta, emazteak berak zer-gura egin eta manatu daike, ak bere

senarraz, Yaungoikoa ba'litz lez, berak eer-nai egin-ezunik eztau-ta. Au dala-ta, ta nik Kasi'ri zori onerakoa langoxe dan egipidezko onua emonazkero, zelan izan naiteke ni dollor eta zital? Sulezako yainkook! txerrenak euren obenik baltzenak yazten (yantziten) dabezanean, lenengotan euren asmorik baltzenai ez ete dautse emoten zerutiko asmoen antza, nik orain lez? Eta izan be, ero zintzo onek orain bere zori onaren billa Destemone'gana yo, eta Destemone'k Mairuari, ekin eta ekin, onen alde eskatzen dautsan bitartean, nik aren belarrira izurri au ixuriko dot: Destemone'k eztauela maite Mairua, Kasi maite dauelako; eta Destemone'k Kasi'n alde aleginduago ta Mairuaren uste ona galduago egingo dau. Olan, nik Destemone'n ekandu onak uia ta ikatza baño baltzago iminiko dodaz; eta bere ontasunaz eio ta irungo dot nik biak goatu ta bere arietan kirimilduko dodazan sarea.

#### ERRODEIKA aurrera

Gau on, Errodeika!

ERRODEIKA.—Ni emen eizean naiabilk, ez eizean dabilen eiza-txakurra lez, ausi bakarrik egiten dauena lez baño. Nire txanponak murratu-aginik yagozak: arrats onetan bizkarra ondo berotu yaustiek, eta ortik zerbait ikasiko dodala nik uste: orrazkero, txanpon barik eta sentzun geitxoagogaz atzera Binixa'ra yoan bearko yoat.

YAGOBA.—Epebakoak bai bai dirala benetan lander! Nongo zauririk osatu izan dok eguño astiro-astiro ezik? Ik ba-dakik guk dagiguna zurtasunez egiten doguna, ez sorginkeriz; eta zurtasuna epe artzea dok. Zera etxoak ondo ala? Kasi'k berotu dauk iri bizkarra, ta ik, olango zauri utsaren alde, Kasi'na egin dok; eguzkipean landara asko aziarren, lenen loratzen diran igaliak altzen dozak lenen. Artuik epe apur bat. Meza-deia dok-eta, goxa dok; atseginak eta ekinak orduak laburtu egiten yoezak. Al-

(14) Emendik eta beste toki batzuetatik agiri danez, Otel Mairua kistar zan, eta kistar egiteko bide ta atea Ukuzpen ed., Ba.eoa da, Ukuzpenak, bein artuazkero, beti-betirako atza ta ezaugarria izten dauz, ez soñean, baña bai gogoan. Artzaiak ardiai belarriOE okafza naiz artazikadea egiten dautse ezau-gorritzat. Kisto'rein artaldeko aa-diak be, olan-txe, eureti ezaugarria dabe.

de egik emendik; oa ire etzategira: alde gero; geroago esango dauskai zerbait geiago: bai, oa. (ERRODEIKA'k alrfe dagi). Zer bi dira egiteko: nire emazteak eragin bear dautso Destemone'ri Kasi'n alde; neuk yarriko dot a orretarako bidean; bitartean, nik

Mairua banandu ta Kasi'n ganera yausi eragin, a Mairuaren emazteari kutunkerietan dabilkonean. Bai, ori *áa* nik artu bear dodan bidea; asmoari ez itxi usteltzen, otzik eta egitekoa gerorako izten ibilita. (Alde dagi).

### III EKITALDI

#### I AGERLEKU.--KUIFORTS. Gaztelu-aurre.

KASI ta Ereslariak aurrera.

KASI.—Emen yo, yaunak; zuon nekeak ondo ordainduko dautzuedaz; zer laburren bat yo; eta egun onak emon gualburuari. (Eresi).

YOSTARI aurrera.

YOSTARIAK.—E! yaunak, zuon ereskinak Napoli'n izan dira olan surretatik itz egiteko ala?

I ERESLARIAK.—Zer esan dozu, yaun, zer?

YOSTARIAK.—Arren-bai-arren, ereskinok putz-ereskinak yatzuez ala?

I ERESLARIAK.—Bai, ba; putz-ereskinak yatzuz, arranotan.

YO.STARIAK.—Orreitzaz ipuintxo bat dot nik zuoi esateko.

I ERESLARIAK.—Zereko orreitzaz esateko ipuina, yaun?

YOSTARIAK.—Nik ezagun dodazan putz-ereskin askori buruz, yaun. Baña, yaunok, eutsie dirua: ta gualburuari zuon eresia gogo-gogoko yako-ta, Yaungoikoarren olango eresizararik ez egiteko eske dagotzue.

I ERESLARIAK.—Tira, ba, yaun, eztogu egingo.

YOSTARIAK.—• Eresi entzun-ezinik ba'dozue izan, yo ostera be, mutilek: baña, or diñoenez, gualburuarentzako eresia ta astoarrantzea ainbaten dira.

I ERESLARIAK.—Yaun, guk eztogu olango eresirik.

YOSTARIAK.—Orrazkero, sartu zuon txilibituok zorroan, ni ba-noa-ta: alde; ondatu zaitze eguratsetan; alde emendik. (Ereslariak alde dagie).

KASI.—Entzuten dok nire adiskide zintzo orrek ala?

YOSTARIAK.—Ez, nik eztot entzuten zure adiskide zintzorik; nik zeu entzuten zaudaz.

KASI.—Arren-bai-arren, ereti oberako euki egik ire berezikeri ori. Autso urre-apur au: gualburuaren emaztearen lagun dan andera zindoa or yagita ba'yagok, esaiok Kasi'k berakin iru-lau itz egiteko gogo dauela: egingo ete dok orrenbeste?

YOSTARIAK.—Or dabil ibili, yaun; a ona etorri ba'dadi, or ikusiko dozu nik esan dautsodala.

KASI.—Egin orrenbesterik, ene adiskide on. (Yostariak alde).

YAGOBA aurrera.

Eraz zatorkuz, Yagoba.

YAGOBA.—Beraz, zu etzara etzan?

KASI.—Ez, ba; eguna zabaldua egon da guk alkarregandik alde egin dogunerako. Yagoba, ni zure emazteari dei egiten azartu naz; ak niri Destemone zindoaganako bidea egitea da areiitzako nire eskakizuna.

YAGOBA.—Bertatik bidaliko dautzut a; eta nik Mairua bidetik kentzeko zerbait asmau dot, zuok zuon arazoaz erosoago itz egin al dagizuen,

KASI.—Apalik eta biotzez eskerrik asko zuri. (YAGOBA'k alde dagi). Eguño eztoz ezagutu au baño gogokoago ta zintzoago dan Firenze'tarrik.

EMILLE aurrera.

EMILLE.—Egun on, gualburu-ordeko on: zuk artu dozun minaz tamal dot; baña laster arteztuko da dan ori. Gualburuak eta aren emazteak orretzaz daragoioe egin-eginean be; eta emazteak zure alde egin-alak egi-ten daragoio: baña Mairuaren erantzuna zera da, zuk min egin dautsazuna Kuiuport'en dedu ta entzute andiko ta senitarte altsuko dala-ta, zur yokatzeotan, zuri ezetza emon bearko dautzula; orrafiño be, zu maite zau-

zala autortzen dau ak; eta zukanako bere maitasunaz beste eskalerik eztauela bear. erea datorkenean zu suzen ela artez le-neratzeko.

KASI.—Orraitiño be, arren, -zuk egoki, naiz egikizun dala uste izatekotan, Destemone'

kin itz banaka batzuk eglteko erea .-ger-lau egidazu.

EMILLE.—Zatoz, arren, barrura: neuk gertau-ko dautzut zure biotzeko kezka non eta nasai iragarteko lain asti ta toki.

KASI.—Ni zorr-zorreen nagotzu. (Alde dagie),

II AGERLEKU-KUIPORTS. Gaztelu-etxoki.

OTEL, YAGOBA ta Gizayatorrak aurrera.

OTEL.—Yagoba, emoiok gutun au ontzi-lemagizonari; eta esaiok nire agurrik zintzoen eta biotzetikoenak emetoko agure-batzarrari: bi-tartean, ni or arresietako lanak ikusten ibili-ko nok ara-onaka: ara erdu nigana.

YAGOBA.—Ori ondo, ene yaun on; orixe egin be egingo dot.

OTEL.—Gizayatorrok, txakada baten ikustal-ditxo bat egingo ete dautsegu senda-or-moi?

GIZAYATORRAK.—Zeuri deretxatzuna, yaun. (Alde dagie).

m AGERLEKU-KUIPORTS. Gazteluko baratza.

DESTEMONE, KASI ta EMILLE aurrera.

DESTEMONE.—Seguru zagoz, Kasi on, nik al dodan guztia egingo dodala zure alde.

EMILE.—Orixe egin, andera on: sinistu egi-dazu, orren minak nire senarra min ori be-ia ba'ltiz lez minduten dau.

DESTEMONE.—Ene! a gizon zindo yatzu. Ez izan zalantzarik, Kasi, nik zu !a nire se-narra len uña adiskide egingo zauedazala.

KASI.—Andera esku-zabal, Mikel Kasi'ri ya-zoko yakona yazo, a beti izango yatzu zu-re otsein.

DESTEMONE.—Ori neuk be ba-dakit, eta es-kerrik asko. Zuk nire yauna maite dozu: zuk aspaldi dozu ezagun a; eta ondo segu-ro zagoz ak eztauela egingo zugandik urrin-duta dagoanarenik ori erakutsi bear dauen baño geiago ta luzaroago.

KASI.—Bai, baña, andera, ba-leiteke erakus-te orrek luzaro be luzaro irautea, oñarriba-ko akiakulaz eta au ta ori dala-ta luza-tzea, ta ni urrin eta nire lekutik alde era-ginda orren luzaroan nagola, nire gual-burua nitzaz eta nik ari eginiko otseintzaz aiztutea.

DESTEMONE.—Ez izan olangoren bildurrik; emen bion aurrean dogun Emille'n aurrean emoten dautzut zure tokiaren segurantza ta baia: seguru zagoz, nik bein nire adiskide-tasuna eskeñiazkeru, nik nire agindua zeatz-zeatz beteko dadala; unetxo bateko gentzarik be eztautsot emongo nire yaunari; a baietu ta otzantzeko erearen begira egon-go natxatu, ta ekin eta ekin egingo dau-tsat aren epea amaitu ta agortu arteño;

aren oea irakastegi-irudi egingo dot, irabaz-pide aren maia; ak zer egingo, nik Kasi'ntza-ko eskariz nastauko dot: orrazkeru, nasai zagoz, Kasi; eta izan be, zure aldeko es-kalea zugazkoa bertan-bera itsi baño len il egingo da.

EMILLE.—Andera. or dator nire yauna.

KASI.—Andera, ni ba-noa.

DESTEMONE.—Ostera! etxon eta entzun egi-dazu.

KASI.—Ez orain .andera: enago emen nasai; emen yarraitzerik etxat egoki nire asmoeta-rako.

DESTEMONE.—Ori ondo; zure zurtasunak ira. . garten dautzuna egizu. (KASI'k alde).

OTEL eta YAGOBA aurrera.

YAGOBA.—Ostera! orixe etxat bape gogoko.

OTEL.—Zer esan dozu?

YAGOBA.—Ezer bez, ene yaun: edo... ezta-kit zer be.

OTEL.—Nire emazteagandik alde egin daue-na ez ete da izan Kasi?

YAGOBA.—Izan be, Kasi ,ene yaun! baña... ez, a ezin izan eitekean, zu etorri zatozala ikusias, errudun ba'ltiz lez, ixilka igesteko.

OTEL.—Ni a izan dalakotan nagotzu, ba.

DESTEMONE.—Ara! ene yauna! nik emen es-kalekin izketan eragon dautsct, agancka zure gogo txarraz gogo-yausita dagon gizo-nakin.

OTEL.—Nortaz daragoiozu?

DESTEMONE.—Ba! zure ordeko Kasi'z. Ene yaun on ori, nik zuri eragiteko ezetariko ederrik ba'dot, oraintxe adiskidetu zakioz;



eta izan be, ak zu benetan maite ezpa'zauz, eta ak okerrik egin izatekotan, ezyakinez, eta ez gaiztakeriz, egin ezpa'dau, ni eno-zu gauz ifiori arpegian on idanentz igarteko: arren-bai-arren, atzera etorteko dei egiozu.

OTEL.—Orain *alie* egin dau ala?

DESTEMONE.—Bai, oraintxe-oraintxe; oso lur yota yoan da-ta, bere naibagearen ixatal bat emen itxi daust, akin ni be naibage izateko. Laztan onek dei egiozu, atzera da-torren.

OTEL.—Ez bein-beinean, Destemone ezti; beste bein.

DESTEMONE.—Baña laster izango ete da?

OTEL.—Alik eta lasterren, zugaitik, ezti.

DESTEMONE.—Arratseon aparitakoan ete?

OTEL.—Ez, arratseon ez.

DESTEMONE.—Biar bazkaiten, beraz?

OTEL.—Biar eztoz bazkalduko etxean; guda-lburuen batzaira egiteko naz iskillogazte-luan.

DESTEMONE.—Ba, orrazkero, biar gabaz; naiz asteazken goxean; asteazken eguerdian, naiz gabaz; eguazten goxean: arren, izen-tau egizu aldia; baña ez al da izango iru egunez gorako eperik: egia esan, *a* damu-tuta dago; eta orraitioñ aren utsa, gure aburuz, ozla-ozta da utsik be banazeango burrukea baño ez izanik. Bai, egia yatzu, or esan daroenez, gudaldietan onenakin be batzuetan eskua gogor erabili bear izaten da-la, besteak ikusi ta ikasi dagien. Bai, zuk onango zeren bat egiteko asmorik ez izatekotan, aren utsa ozta-ozta da aintzakotzat artzeko. Noz etorriko da? Esaidazu, Otel: zuk zeuk zer eskatu al izango ete zeuskait, eta nik zuri ukatu, naiz olan nastuta ta muker egon? Ene! Mikel Kasi amaika bider etorri yatzu zuri senargeia emaztegeiagana yoaten idan legetxe, eta nik aren aurrean zu gitxietsiarena egin izan dodanetan, *a* zure alde yagiten izan da, ta orain nik ari etorriazoteko onenbests neke artu bear! Sinetsi egidazu, nik asko egin neinke...

OTEL.—Arren-bai-arren, asko da; ber'ak noz-gura betor; nik eztautzut ezer ukatuko.

DESTEMONE.—Ba! cri ezta esku-erakutsirik; ori ta nik zuri esku-zorroak erabilteko, naiz yuki osangarriak yateko, naiz zure burua berotan eukiteko, naiz zeuri ondo da-tortzun beste zeren bat egiteko eskatzea bardin yatzu; bai, zure maitasuna norañoiko dan erakutsiazoteko eskakizunen bat izango dodanean, orduan ni zutunik egon-ezi-

nik, astun, loka, ta eskakizuna iritxiko ete dodan bildurrez el'duko natxatzu.

OTEL.—Nik eztautzut ezerixo be ukatuko; eta, orrazkero, arren, au emoidazu, zera, apurtxo baten bakarrik itxi nagizu.

DESTEMONE.—Nik ukatu zuri? Es olangorik: ondo ibili, ene yaun ori.

OTEL.—Agur, ene Desiemone: bertatik yoango natxatzu.

DESTEMONE.—Erdi, Emille. Zu zeure buruak emongo dautzuna izan; zu edozelango izan, ni esaneko nozu. (EMILE'k eta biak alde dagie).

OTEL.—Nirearen zori txar! Ondatu naitela, baña nik maite auna! eta nik maite izango ez audanean, Ondamendia betor ostera be nitzako.

YAGOBA.—Ene yaun yator...

OTEL.—Zer diñozu, Yagoba?

YAGOBA.—Zu nire andera Desiemone'n senargei zintzazanean, Mikel Kasi'k ete ekian zuon arteko maitasunaren barririk?

OTEL.—Bai, ba-ekian, burutik azkeneraño: zer dala-ta itanduten daustazu ori?

YAGOBA.—Nire susmoaren betegarritzat baño ez; ezta beste ezegaitik.

OTEL.—Zegaitik zure susmoaren betegarritzat, Yagoba?

YAGOBA.—Nik eneban uste ak zure emaztea lendik ezagun ebanik.

OTEL.—Bai, bai; eta sarritan izaten zan gure artean.

YAGOBA.—Ostera!

OTEL.—Ostera! bai, ostera!: orretan susmoen bat dozu a!a? Ez ete da a gizon zindo?

YAGOBA.—Zindo, ene yaun!

OTEL.—Zindo, bai, zindo.

YAGOBA.—Ene yaun, nik dakidan zertxoa ba' zenki zuk...

OTEL.—Ze uste dozu zuk?

YAGOBA.—Uste, ene yaun, uste!

OTEL.—Uste, ene yaun! Yaungoikoarren, orren abotsak orren buruan erakusteko askarriegj dan mamuen bat dagola iragarten daust. Zuk zerbait esan gura dozu: oraindik oraíntxe entzun dautzut esaten, arako a etxatzula gogoko izan, Kasi'k nire emazteagandik alde egin dauanean: zer da gogoko izan etxatzuna? Eta nik esan dautzudanean nik Destemone biotzeko nebanean a gure onulari izan zala, zuk "Ostera!" gedar egin dozu, ta bekokia ilundu, tximurtu ta izunez bete yatzu, une atan zure garau-netan irudipen ikarcgarrien bat ostonduz izan ba'zindu lez: ni maite ba'nozu iragarri egidazu zure ustea.

YAGOBA.—Ene yaun, zuk ondo dakizu nik maite zaudazana.

OTEL.—Maite nozulakotan nago, eta, -zu maitasunez eta zindotasunez betetzat zaudazalako, ta zure itzak esan-aurretik neur-tzen dakizuna zarealako, -erdi-esaneko zure itzok orrexegaitik geiago ikaratzen nabe: eta izan be, olango zerak gizon maltzur, guzurti ta ustelaren kitean egunean-eguneango marrokeriak yatzuz; baña gizon zuzenaren agotik datozanean, biotzaldiak ezin eskuratu dauzan biotzetik urten gura daben salakuntza ostenak dira.

YAGOBA.—Mikel Kasi'z nik zin egingo neunke a gizon zindo dala.

OTEL.—Neuk be orise uste dot.

YAGOBA.—Gizonak dirufiana izan bear leuke; eta dirudianik ez izatekotan, eleuke izan bear eztanaren irudirik!

OTEL.—Benstan, edonok diruadiana izan bear leuke.

YAGOBA.—Kasi gizon zindo dala uste dot nik.

OTEL.—Boi. baña or zerbait geiago dogu: arren-bai-arren, zure austeen erara itz egidazu, zure gogoan ausmerka darabiltzunen erara; eta itzik txarrenak bediz zure asmorik txarrentzak.

YAGOBA.—Ene yaun on, asketsi, arren: ni nire egitekoak egitera beartuta egonarren, ni enago beartuta gizon zirtzilak nascii egiten dabenik egiteko. Nire, susmoak iragarri? Ea, esaizu zirtzilak eta guzurrezkoak dirala; eta izan be, non dago yauretxerik noz-edo-noz zer zantarrik sartzen eztanik? Nok dau biotz ain garbirik ara zantarkeriren batzuk sartu, an epai-aldiak izan, eta oldozpen onakaz ebazten ez daragoionik?

OTEL.—Zu, Yagoba, zu zure adiskidearen aurka zinkidetu egin zara, ari irain egin dautsoeta zuk uste izan eta, a-ta-guzli-be, ari zure susmo ta oldozpenak iragarri ezik.

YAGOBA.—Arren-bai-arren, nik orainganik autortzen dautzudanez, ni neurez nozu gaiztakerien billa kirika ibiltekoa, ta, nire bekaizkeriz, utsik eztan lekuan utsak asmatze-koa; izurri au dot nik-eta, nire susmoai oker ba'deretxatue, zuk zure zurtasunez ez egin yaramonik onan erdizka zerak oldoztu ta ikusten dauzanari; eta ez kezkatu olango zalantzako ta nondik eldurik eztaben susmoak bide dirala: nik zuri nire susmoak iragartetik eletorkizu zuri nasaitasunik, ezta ezetariko onik be, ezta nire gizaiasunari, zindotasunari, naiz zuriasunari be.

OTEL.—Zer esan gura dozu?

YAGOBA.—Ene yaun on, gizontzako, rsaiz

emakumentzako, euren gogoen pitxirik ederrren eta beinena izen ona yatzu: ziskua ostu dagistanak zaborra utsa ostuten daust; ori aletza da, utsa da; bein neure zan, orain besteren, eta millakena yopu izan da; haña izen ona ostu dagistanak bera aberatsago egiten eztauea kentzen daust, eta ni benetan lander egiten nau.

OTEL.—Yaungoikoarren, zure oldozpenak yakin-gurarik erreten nagotzu.

YAGOBA.—Etzendukey yakingo nire biotza zure eskuetan ba'lego be; eta eztozuz yayingo be a nik yagoten dodan artean.

OTEL.—Ori be bai?

YAGOBA.—Et, et! ene yaun. alde. edo-ta zur bekaizkeriaz; bekaizkeria edo, ederragoztat ba'dozu, maite-bekaizkeria berak yan daroan aragiari irri egiten dautsan mamu begi-bellegia yatzu: emazteak salduta egon eta etorkizunaren yakitun izanik, emazte iraintzalle ori maite eztauea nasai etct zari ontsu bizi da; baña iraintzalle ori maite izan, eta orraitioñ zalantza ta susmoak zirrikatu ta atximurka erabili fca'dagie ta, a ta guzti be, maite-maite izan, olangoak amaikatxo ordu ta egun emoten dauz atzarririk eta larri!

OTEL.—Olangoaren zoriaren txarra!

YAGOBA.—Nasai eta pozik bizi dan lander edo ezeukia aberats da, aberatsik asko izan be; baña nozbait lander izangoaren bildur danarentzat atzenbako ondasunak be negua bestean lander dira: Yaungoiko on, nire leñuko gogo guztiak maite-bekaizkeritik aldenduko al nabe!

OTEL.—Zer dala-ta, zer dala-ta ori? Ala zuk ni maite-beskaizkeriz biziko nazala ta, iretargia lez, susmo barriakaz aldatuko nazala uste dozu? Ez orixe; bein zalantzan dagonak bein artu bear dau erabagia; nik nire buruan olango susterbako susmo ta esparik erabilita, zuk esana lango ori izan ba'nendi izan, aker naiz beste edozein aberretzat etsi nagizu. Nire kitean maite-bekaizkeririk sortzeko asmoz eztozu esango nire emaztea lirain dala, ondo yaten dakiala, lagun-artean egonzale dala, itz egiten lotzor ezuala, abestu, yolas eta yantzan edertor egiten dakiala; orrako zerok goragarriago baño etxatuz ekandu onak dauzanarentzako; eta nire akats txikiak dirala-ta be, nik eztoz izango ezetariko bildurrik, ezta zalantzarik be nire emaztea zintzo etxatnik; eta izan be, begiak zabalik ebazan ak ni aulu nindunean. Ez, Yagoba, ez; espa ta susmoai lekurik egin baño len begiak idigi ta ikusi egingo dot; eta susmorik iza-

tekotan, susmo-biderik dagonentz ikusi; eta susmageia egi agertzekotan, auxe bakarririk da nire egitekoa: maitasunari ta maite-bekaiqueriari beingoan agur egin!

YAGOBA.—Ori ondo; eta izan be, gaurtik ara zuri dautzudan maitasuna ta adeia nasaiago erakusteko biderik izango dot: orrazkero. ta nik zor dautzudanazkero, artu nik esango dautzudana: eztoz nik bein-beinean argibide osorik. Zaindu zure emaztea; adi zagokoz Kasi'kin dagonetan; zure begia olan erabili, ez maite -bekaitze, ezta nasai eta seguru egon be: zure ontasuna ta esku-zabaltasuna diralata, nik eneunke gurako inok zuri okerrik egiterik; zur eta atzarrik zagoz orretan; nik ondo dazagut gure erritarren yokabidea; Binixa'n euren senarrai erakusten azartzen eztiran okerrak Yaungoikoari erakusteko kezkarik eztautze; euren yakinkidetzearentzako beine-na ezta egiteka iztea, egina ostonduta eukitea baña.

OTEL.—Bai ete?

YAGOBA.—Ak, zukin ezkondu zanean, aitari marro egin eutsan, ziria sartu eutsan; eta zure begirakunek ikaratu ta bihurtu egiten ebelakoarena egiten ebanean, orduantxe yakozan atsegingarrien.

OTEL.—Olantxe izan zan izan be.

YAGOBA.—Ba. orrazkero, atara; ain gazte zanean olangoren irudirik egin al izan ba' eban, eta aitari sorginkeriak zirala sinistu eragin... Baña, ene! ni bear baño urrinago eldu naz, eta asketsi egidazu, apal-apalik eskatzen dautzudanez, zuzanako maitasun geiegiak orragiño eroan izan nau-ta,

OTEL.—Betirako zorra dautzu.

YAGOBA.—Dakustanez, nik esanak apurren bat eragin dautsoe zure biotzari.

OTEL.—Ezta. tutik bez.

YAGOBA.—Sinetsi egidazu, eragin dautsoela uste dot. Nik esana nik dautzudan maitasunak erasan daustala uste izango dozulakotan nagotzu; baña, dakustanez, zu eraginda zagoz: nire itzalditik susmoaz beste ondoren zakar eta urrinagorik ez aterateko zuri eskatu-bearrean nagotzu.

OTEL.—Eztoz aterako be.

YAGOBA.—Zuk aterako ba'zendu atera, ene yaun, nire itzaldia nik olango asmorik izan eztozan ondoren zilalera letorke. Kasi aintzakotzat dodan nire adiskide da: -ene yaun, zu eraginda zagozala dakust.

OTEL.—Ez, ez ainbestekorik: nik Destemone zintzotzat dot.

YAGOBA.—Luzaro izango al da olango! eta luzaro biziko al zara olan uste izateko!

OTEL.—Eta orraitño, izameno. amaika bider bere bidetik okertzen da-ta...

YAGOBA.—Bai, eta egin-eginean be ortxe dago untzea: esaterako, ta zuri argi ta garbi ilz egiteko, ak bazartu ta ezetsi egin ebazan izamenaz besterako ziran ezkontzak: bere erritar, bere mallako ta bere izakerazko ezkontzak, eta... ene! olango yokabideari nok ez artu usain txarra, eta orretan nok ez ikusi izamenaz besterako oldozkune ta neurrikidetasunik-eza? Baña asketsi egidazu. Esan dodan au eztoz esan gura izan aretzaz bete-beteaz; baña orraitño be bildur natxatzu, ak, obeto oldoztuta, zu bere erritarren aldean yari ta zukin ezkondu izana ordu onean damutuko ez ete yakon.

OTEL.—Agur, agur; geiagorik oartu ba'dagizu, geiagorik iragarri egidazu: kirika yari egizu zure emaztea: itxi nagizu, Yagoba.

YAGOBA.—Ene yaun, zure on-erretxiz ni bañoa. (Yoan doala).

OTEL.—Zetarako ezkondu naz ni? Gizon zindo onek iragarri dauen baño geiagio, askoz geiagio dakus eta daki, urrean.

YAGOBA.—(Atzera etorrita) Ene yaun, arren-bai-arren, onako arazo oni ez al dautsazu eragin eta ekingo geiagorik; geroaren eskuetan itxi egizu: Kasi bere egitekoa betetzen terbe dalako, ak lengo lekuan yarratzea egoki izanarren, bein-beinean eta apur baten bere lekutik at euki gura ba'doguzu, zuk a ta aren yokabidea oartu al izango dozuz: begiratu ta ikusi ia zure emaztea a bere lekuan eukiteko eske daturtuntentz; orretan zerbaiz baño geiagorik entzuteko erarik izango dozuz; bitartean, ni nire bildurretan murgilduta etsi nagizu, bildur izateko biderik asko doteta, eta zure emazteari bere bideetan ez ezarri ezetarik eragozpenik, eta au zure onerako eskatzen dautzuz.

OTEL.—Ez izan bildurrik; neuk yakingo dot arazo au zur erabilten.

YAGOBA.—Agur beste bein. (Alde dagi).

OTEL.—Urli au zindo baño zindoago yatzu, ta gizonen yokabide ta ibilteak zelangoak diran inñongorik ondoen daki. Nire emaztea uxu oartu ba'dagit, orain arte aren zangoetako ugalak nire biotzekoak izanarren, alde ezagiteko txistu egingo dautsat, eta eguratsetara doala, berak zer-gura goatzeko (15).

(15) Otel'ek, au diñoanecrn, aatore egazia dau gogotan. Lenago, aztorea, aurrezirik irakatsita, egaztiak eskuratzeako erabiltet ebene. Irakosleak oñak ugelaz lotu ta buructn tx-

Dana dalako, ni baltz nazalako ta yauregie-tan bizi diranak lez leun eta ezti itz egiten eztakidalako; naiz ni urteetan aurreratua ta bizitzaren arberban nagolako, -eta orraitio ori ezta asko--, nire emaztea nigandik yoana da; niri ziri ederra sartu doust; eta nire nasaitasuna *a* lotsatutea izan bear. Ezkontzearen izurri! Andia da orraitio gure buruak bai izaki samurron, eta ez euren leraen yabetzat estea! Gurago neunke kunkun izan eta morrollopeko arripean lurrun ezo-epeletan bizi, iñok erabilteko maitte dodanaren biotzeko okulutxoan bizi baño. Eta orraitio au yatzu andikien izurria: aik onetan gizon zirtzilak baño landerrago yatzuz: eriotzea legetxe, orrako ori zori bazartu-ezina yatzu; yaioztatik ara datorku ezten izurritsudun zori au. Destemone *iia*-tor; ori zinlzo ez izatekotan, ene! Yaungoikoak bere buruari irri egin dautso! Eztot sinitu gura olangorik!

DESTEMONE ta EMILE aurrera ostera be.

DESTEMONE.—Egun on, ene Otel maitte! Zure bazkaria ta zuk dei eginiko izarotar yatorrak zu noz elduko begira dagotzuz.

OTEL.—Lotsatuta nagotzu.

DESTEMONE.—Zegaiiñ itz egiten dozu orren makal eta yausi? Etzagoz onik ala?

OTEL.—Emen bekokian min dot.

DESTEMONE.—Ba! ori lorik-ezarena yatzu; yoango yatzu; gogor lotuten itzi egidazu eta ordubete-barru yoana da.

OTEL.—Zure surr-zapia orretarako txikiegi yatzu: (OTEL'ek sur-zapiari baztarrera eragiten dautso ta DESTEMONE'ri, oartzeka lurrera yausten yako) ibcizu, dagola. Goazen, zukin yoango naz.

DESTEMONE.—Naibage dot zu onik ez izateaz. (OTEL eta DESTEMONE'k alde dagie).

EMILE.—Surr-zapi au idoroaz pozik nago: au izan zan Destemone'k Mairuagandik eguño lenen artuko oroigarria: nire senar olde-tsua amaika bider eske egon izan yat au ostu dagidan; baña Mairuak beti aldean eukiteko zin eragin eutsalako, Destemone'k oroigarri au maite-maite dau-ta, beti aldean eroaten izan dau, oni mun eta itz egileko. Nik auxe lango beste bat eragingo dot eta Yagoba'ri emon: el agaz zer egingo dauen Yaungoikoak daki, ez nik; nik aren oldea bete baño eztot egingo.

YAGOPA aurrera, ostera be.

YAGOPA.—Ostera! Zeri 'daragoiozu emen bakarrik?

EMILLE.—Ez egidazu agirikarik; zutzako zerbait dot emen.

YAGOPA.—Nitzako zerbait! orrako ori alezzen bat yatzu.

EMILLE.—Bai ete?

YAGOPA.—Emazle onen tentelik euki-bearra-rena!

EMILLE.—Onangorik! ori baño ez? Zer emon-go zeunskit arako sur-zapiagaitik?

YAGOPA.—Nongo sur-zapiagaitik?

EMILLE.—Nongo sur-zapiagaitik! Ba, Mairuak Destemone'ri eguño lenen emonagaitik: zuk ainbeste bider ostuteko eskatu deustazuna-gaitik.

YAGOPA.—Ostu dautsazu ala?

EMILLE.—Ostu ez, ez orixe; Oartzeka, lurrera yausten itxi dautso, ta erea izan dodanazkero, eragi egin dot. Begira, emen dot.

YAGOPA.—Emakume on zauguz; ekazu.

EMILLE.—Zer egiteko zara onegaz, nik au ostuteko orren larri egon zara-ta?

YAGOPA.—Ba, zuri zer dautzu? (Otoz-otoan kentzen dautso).

EMILLE.—Erantzukizunen baterako izatekolan, ekazu atzera; andera gaxo! burutik egingo yako galdu dauela oartu idagianean.

YAGOPA.—Ez iragarri dakizunik; neuk dot au zelan erabili. Zoaz, bakarrik itxi nagizu (EMILLE'k alde). Kasi'nera egotziko dot sur-zapi au, ak an idoro dagian. Eguralsa baño astunago ez diran aletz eta uskeriak maite-bekaizkeriduntzal Idazti Deunak besteko argibide zindo yatzuz: onako onek zerbait iritxi daike. Mairua dagoneko dago nire edenak eraso ta eraginda: oldozpen eta irudipen larri-galbidetsuok eurenz dira *eien*. *eia* edanbarritan nekez izaten dira edakera txarreko, baña bein apur bat odolagaz nastauazkero, kirastautsak legetxe erre egiten dabe. Egin-eginean, nik esana. Ara, non datorren bera! Ez urdamuturrek, ez urrilok, ezta ludiko edari lo-eragille guztiak be ezautzue ekarri al izango bart izan dozuna lango lo gozorik.

OTEL aurrera, ostera be.

OTEL.—Ara! ara! nitzako zintzo ezlala!

YAGOPA.—Ara! emen dogu gudalburua! Arako zeraz itzik bez geiago.

OTEL.—Oa ememiik! Alde egik! Ik txarran-

pela ezarten eutson ikustea galazoteko. Eiztariak, bein goatu gura eban egaztia begiztauzkero, azforea aakatu, txapela evantzi ta txis tu egiten eutson eizeain yoateko.

Ixa-ganean imini nok: zin egiten yoat oba dala inondiko okerreriak egin dauslaza ikusi, apur bat yakin baño.

YAGOBA.—Zer diñozu, ene yaun?

OTEL.—Ze min egin eustan niri ak ixilean zantarkerietan igaroko aldiak? Nik eneban ikusi, eneban olangoren susmorik, eta, beraz, nik ez artu minik; nik bart lo ondo egin yoat; nasai, pozik eta biotz-argi egon nok; aren ezpanetan etxoal idoro Kasi'n munik: iñori zerbait ostu izan ba'dautsoe, eta orrako iñor orrek ostu dautsoenaren bearrik izan ez, eztagiala yakin ostu dautsoenik, eta ezer ostu ezpa'leutsoe legetxe biziko dok,

YAGOBA.—Orrako ori entzunak min emoten dausL

OTEL.—Ni pozik nengokean gudaroste osoak, gudaroste-bideginak, eta ganetiko guztiak aren soña txastatu ta zelango dan ikusi izan ba'lebe, nik neuk olangoren barririk ez yakitekotan. Onangorik! oraindik ara betiko yoanak dira loaldi nasaiak, gogo eroso! Agur, agur, nire pozok! agur, gudaltalde arrook eta geiagoren leiea eder egiten dozuen guduok! agur, zaldi irrintzelari ta turuta ozen-zoli, biotza bizkortzen dozuen arratz, belarriak zulatzen dozuan arrabele, errege-ilcurrin eder oro, arrokeri, arrandi, ta gudu otsandikoaren edergarri oro! eta zuok, zuon eztarri latzez Yoba (16) Ilezinaren astrapala ikaragarriena egiten dozuen tramankulu ilkorrok, zuoi be agur, zuok be betiko yoanak zarie! Otel'en egikizunak egin dau, yoana da!

YAGOBA.—Izan ete leiteke olangorik, ene yaun?

OTEL.—Zital ori, nire emaztea emagaldudala erakutsi bearko daustak (Idunetik eltzen dautso). Bai, bearko daustak; nire begio-kaz ikusteko argibideren bat erakutsi egidak; ostein, nire gogo ilezinarren, iri oba litzakikan txakur yaio izan, niie asarre bizigorriari erantzun baño!

YAGOBA.—Orrenbesteraño eldu gara ala?

OTEL.—Erakutsi egidak; naiz, gitxienez, erakutsi egidak argibideak susmorik bazeko irrikiturik izan ez arteño; ostein, ire biziarenak egin yok!

YAGOBA.—Ene yaun yator...

OTEL.—Ik a laidotu ba'dagik eta niri gorriak ikusiaz, ez egidak bein be ezer eskatu; ez izan damurik; zer ikaragarrien ganera zer ikaragarriagoak batu; zoriontegiari negar eragiteriñoko eginak egizak, eta ludi osoa agoa zabalik izterañokoak; ire burua galtze-

ko arako a baño andiagorik ezin Izango dok-eta,

YAGOBA.—Ene Yaungoiko on! ene! Yaungoikoak asketsiko al daust! Gizon ete zauguz, gero? Ele dozu zuk gogorik, naiz sen-Izunik? Yaungoikoa lagun bekizu; eutsiz nire ogibide ta lekua, Ni ero onen zoriaren txarra, nire zintzotsuna iñok gaiztakeritzat artzeko bizi naz-ta! Ludi onen mamu! oartu, oartu, Ludi, zintzo ta artez izatea ezta seguru... -Eskerrik asko zuri, au irakatsi daustazulako; eta oraindik ara ezto maite izango aliskiderik, maiiasunak onzoko okerririk ekarten dauenazkero,

OTEL.—Ez, geldi or! ik zindo izan bear eunke.

YAGOBA.—Nik zur izan bear neunke; eta izan be, zindotasuna zorakeri yatzu, bere bila dabilena galdu egitsn dau-ta.

OTEL.—Ludiarren, nik nire emaztea zintzo dala uste yoat, eta zintzo ezjala be bai; i gizon artez azala uste yoat, eta ez azala be bai: nik argibidea gura yoat: len Dine'n arpegia baxen argi-garbi zoan aren ize-na, ta orain nirea baxen baltz-loi dok. Lokarriak naiz aiztorik, edenik nalz surik, naiz itoteko urik izatekotan, nik etxoat yasangorik.-Egia al nenkus eta aserik gelditu!

YAGOBA.—Dakustanez, yaun, zu kezkeak iruntsita zaukaz: damu dot nik zu olan lmini izanaz. Egia yakin eta zure gogo ase gura dozula?

OTEL.—Bai .egin-eginean orixe gura yoat.

YAGOBA.—Eta ori lortu zengike: baño zelan? Zelan ase zure gogo, ene yaun? Zuk, begira yarrita, zantarkiro ikusi gurako ete zeunke iñor zure emaztenkin aragizkoa egiten?

OTEL.—Ut, ut! Eriotza ta suleza! ui!

YAGOBA.—Olangorik nekatsu ta gaitz litzakizu; ezetsi ta gaiztetsi egizuz, beraz, aragizkorik egiten iñok ikusi ba'dagiz. Zer egingo, orrazkero? Zelan asetuko nik zu? Orrako oii zeuk ikustea ezina da, aunts-akerak baxen guri, matxangoak baxsn bero, otso arroak baxen zantar, eta ezyakin moz-

(16) Yoba edo Yupiter Erroma'reti yainkorik nagusiena yatzu, Elade'tarrem artectn Tzeuzan legetxe. Oñeztua ta ostotsa edo odei-otsa Yoba'k sortzen ei dauz, gizonak ikaratzeko, Emen Otel, burutik eraginda dagon Otel'ek ostoiñak eta suodi edo kañoiñen otsa alkorran ondoon iminten dauz, izan be suodien otsa odeiaren astrapolearen ontzeko da-ta.

korra bestean ero zaltarrak ba'litzatskez be. Baña orraitño be, egiaren atetara artez-ariez eroatsn gabezan susmo ta susmoaren altie dagozan beste zertito indartsuen batzvik zure gogoa ta yakin-gurea asetu al ba'legie, nik orrenbestekorik ekarri neinkeizu.

OTEL.—A zintzo eztala erakusteko benetako argibideren bat emon egidak.

YAGOBA.—Sgiteko aivxe etxat bape gogoko, ez begiko: baña a ia guzti be, nire musturra onen aurreia ta barrura sartu dodanazkero, -zindotasun eroak eta maitasunak eraginda-, aurrera yoko dot. Oraindik ©rainbfe, Kasi'kin etzanda egon natxatu; eta aginetako min zorrotzak eztaust itxi begirik isten. Gizon batzuk gogo-nasai yatzuz eta lotan dagozala euren arazoez itz egiten dautzue; orreintriko yatzu Kasi: lotan dagola nik au entzun dautsot: "Destemone ezti, zur gabiltzan, ostondu dagigun alkarrri dautsagun maitasuna"; eta orrazkero, yaun, ak niri eskutik eldu ta gedar egin dau: "Zu ezti bera zaral", eta gero, nire eskuari mun egin, nire ezipanetako munak sustaretetik ateraten ba-ebilen lez orrazkero, bere zangoa nire iztarraren ganean iminita asperen eta mun egin dau; eta urren gedar au; "Zu Maimari emon zinduzan zoviarsn ask.irrii".

OTEL.—Olangorik! Ori askarri ta mamuarena dok! askarri ta mamuarena!

YAGOBA.—Bai, baña orrako ori ames uts yatzu.

OTEL.—Bai, baña orraitño be orrek zerbait iragarri dau. Ames baño izan ezarren, zallanta ta susmo zorrotz yatzu.

YAGOBA.—Eta orralco orrek sendotu egin legikez eurenez mengel eta ero diran argibideak.

OTEL.—Nik ze-ze egingo yoat Destemone.

YAGOBA.—3ai, baña zur zabiltz: oraindik eztogu ikusi eginik ezer: oraindikoarren a izan leiteke zintzo. Auxe bakarrík esaidazu; ez ete dozu iñoz ikusi zure emaztearen eskuetan an-or-emenka maliuki-irudidun surzapirik?

OTEL.—Neuk emon neuntson olango bat; axe izan Ean nik ari eguño lenengoz eginiko esku-erakutsia.

YAGOBA.—Nik enekian ori; baña zu-e emaztearena zala ondo dakián oiango surzapigaz bizarra igurtziten ikusi dot gaur Kasi.

OTEL.—Ori olan izatekotan...

YAGOBA.—R. bera, naiz zure emaztearen beste edozein izatekotan orrako ori, ori ga-

netiko argibideakaz bafera zure emaztearen aurka dator.

OTEL.—Olangorik! yopu orrek berrogei milla bizi al leuz; bat gitxiegi da. makalegi nire apenerako! Orain dakust argi egia. So egik ona, Yagoba; nire maitasun samur guztiari onantxe putz egiten yautsat nik ortzi-zerurantz: yoana dok.-Yagi, apen baltz, suleza arrotik! Emon, maitasun, zure buruntzea ta biotzeko aulkia gorroto odoltzaleari! Anditu, bular, zuk barruan dozunagaz, suge-iniñez beterik zagoz-ta!

YAGOBA.—Nasai zagoz bein-beinean.

OTEL.—Onangorik! Irakiten yaukat odola. Yagoba, irakiten odola.

YAGOBA.—Epe artu, epe artu; ba-leiteke zuk beste asmorik artzea,

OTEL.—Eguño bez, Yagoba, Itxaso Baltzeko ur otzak, beti aurrera yota izperarrik eguño izan ez, eta etentzaka Porponti ta Elesponti'rantza (17) bidea egiten daben lez, olantxe nire oldozpen eta asmo odoltsuak be, oinkada gogorrez, etxoek atzera sorik egingo; etxoek eguño maitasun apal-bigunerantz izperarrik izango, apen osobeteak iruntsi arteño. Orain an aragoko atxurdirarren, zin deunaganako lotsearren (Belaunbikotu egiten da) nire itza emen emoten yoat boitatz, zin egiten yoat.

YAGOBA....Ez yagi bein (Belaunbikotu egiten da). Goian etentzaka erreten daragoiozuen argiok, zuok izan lekuko; gu inguratzue gozuezan lengaiok be, lekuko izan. Yagoba'k be emen opatzen dauzala bere adimena, eskuak eta biotza Otel irainduaren otseintzarako! Agindu begi berak, eta nik men egingo dauts, agindurik odoltsuen eta gordinena ba'da be.

OTEL.—Eskerrik asko ire maitasunagaitik, ez itz utsez, ire oparia biotz biotzez aintzakotzat artuta baño, eta bertatik ezarriko dauts-kat ire agindu ori beteteko agikizuna: iru egunotan Kasi eztala bizi esateko bidean yarri gazigak.

(17) "Itxaso Baltza". Itxaso au Europa ta Asi, Turki ta Errusi-bitartean aurkitzein da. Itxaso onen iparraldean, Kirmea izaro-aginaren eguzki-aldera, itxaso txikiago bot aurkifzen da, Azof izenskoa, eta itxaso txiki oneri eresten eutsoen beñcla "Perponti". Itxaso Baltza'k sarkalde-egoaldetik Legorrateko itxasorako itxas-adar estu dau, eta itxas-adar onexi eretxoan antxiñakoak "Elespenti". Itxas-adaí orren asieran eta ertzean aurki'zen da oraingo Istaribul eta beñolako Kostanlinopcli.

YAGOBA.—ñfire adiskideaienak egin dau; zuk eskatula, arenak egin dau; baña Destemone bizi bedi.

OTEL.—Gaitzetsi ta ondatu egik ernakume zantar ori bei En<?! ondatu egik ori be! Tiruk, gaioazan biok bakarrik. Nik baka-

rrean egon gura yoat txerren lirain ori lileteko bide arinen bat emrkitzeko. Oraindik aunera i az nire oideko.

YAGOBA.—Ni zure nozu betiko. (Alde úa-gie).

iv AGERLEKU.-KU:

DESTEMONE, EMILLE la YOSTARIA aurrera.

DESTEMONE.—I, txolxo, bai ete dakik Kasi non etzaten idan?

YOSTARIAK.—Eneunke esango ñnon etzalen ba'da be.

DESTEMONE —Zegaitik, gizon?

YOSTARIAK.—A gudari yatzu; eta gudariaz ak guzurra esan dauela esatea ezpataka-daka iltea yatzu.

DESTEMONE.—Tiruk, nik aker-adar esan eta ik pago-adar aitu dok. Non dok Kasi oslatuz?

YOSTARIAK.—A ostatuz non dagon zuri esatea, nik guzurra non esaten dodan zuri esatea litzateke.

DESTEMONE.—Zer aterateko oriik? (18).

YOSTARIAK.—Nik eztakit a non dagon oslatuz: eta nik ostatuena bat asmauko ba'neue, ta nik a emen naiz an etzaten dala esan, ori nire eztarrian guzurra ezartea litzateke,

DESTEMONE.—Ilandu ete daikeek or, eta aren barri ekarri?

YOSTARIAK.—Bera dala-ta ludi osoari irakasten yarriko natxatzu, nik itandu ta aik erantzun dagien.

DESTEMONE.—Oa aren billa ta ona etorleko esaiok: esaiok nik nire yaunari eragin dautsadala bere alde, ta dana ondo urtengo dala ditxarodala.

YOSTARIAK.—Orrako ori egitea gizonaren buaruak dagikena yatzu; eta, orrazkero. ori egilen aleginduko natxatzu. (Alde dagi).

DESTEMONE.—Non galdu ete dot nik a arako sur-zapia. Emille?

EMILLE.—Eztakit, andera.

DESTEMONE.—Sinistu egidazu, a galdu bafio gurago neunkean nire ziskua urrez beterik galdu; eta nire Ballz zindoa, dan lez yator ezpañlitz, eta maite-bekaizkariak yotako zirtzil ba'litz, ori berori litzateke asko ari burura susmo txarrak ekarteko.

EMILLE.—Eza a maite-bekaizkeridun ala?

DESTEMONE.—Nor? A? Nire ustez, bera yaiozan lurraldeko eguzkiak gogaldi Ixar guztiak edoski utozozan ari.

EMILLE.—Ara, non datorren bera.

DKTS. Gazteluaurrea.

DESTEMONE.—Oralltxo eztol alde egingo berorregandik, Kasi'ri dei eragin srto.

OTEL aurrera.

Zelan zagoz, ene yaun?

OTEL.—Ni onik, ene andera on, (Bers kitean), Ene! eztanarena egitearen gaitz! -Zelan zagoz, Destemone?

DESTEMONE.—Onik efa ondo, ene yaun on.

OTEL.—Ekazu esku oii; ezo dago esku au, ene andeia.

DESTEMONE.—Oiaindik esku orrek eztaki ez urteak ez naibageak zer dirianik.

OTEL.—Onek emokortasuna ta biolz zabala iragarlen dauzi -bero, bero ta ezo: zure esku onek lokarria labur, baraua ta otoitza, norbere burua ezilea ta yaungoiko-zaletasun-egitekoak bear dauz, onako au gsienetan asaldata ta yagiten dan txerren gazte ta izerpera dogu-la. Esku au esku on, esku emokor yatzu.

DESTEMONE.—Orí esan be ondo esan daikezu, nire biotza eisku onek emon autzunazkeio.

OTEL.—Esku emokor; beñola biotzak emoten eban eskua; orain, osleia, eskua emoten da, ez biotzik.

DESTEMONE.—Ezlagigun esan ofangorik. Tia, zuie agindua,

OTEL.—Ze agindu, maite?

DESTEMONE.—Kasi'ii dei egin dautsot zukin itz egiten etoiri daiten.

OTEL.—Sui-eiio zatar-gazik yota nozu: eka-zu zure sur-zapia.

DESTEMONE.—Eutsi, ene yaun.

OTEL.—Ori ez, neuk emona baño.

DESTEMONE.—A eztakauk aldean.

OTEL.—Ez?

DESTEMONE.—Ez, benetan, ene yaun.

(18) Emen Destemone'k etci Yostarink dcirabilen alkarri aitu-ezinc, edo obeto esan, Desteraone'k Yostariari aitu-ezina "lie" itzetik dctor. Itz cnek Ingelanderaz esangura bi dauz: "guzurra escn" etci "etzan".





bideren bat artuko dot, zoriaren begi enez eta errukiz.

DESTEMONE.—Ene! Kasi yator-yator! Otel'ek eztau orain nire eskaririk entzuteko gogal-dirik; a ezta lengoa; a arpegiz gogaldiz bestean aldatu izan ba'litz, nik a ezautu be eneunke egingo. Ara, Kasi, nik zure alde itz egin eta Otel'en asarre gorriari auvrea emonda nik *al* dodan guztia egin dodan bestean lagun izango al yatzuz zeruko angeru guztiak! Zuk bein-beinean epe urtu bear-ko dozu; nik egingo dot al dodana; eta neurtzako egingo neunkena baño geiago be egingo dot: bein-beinean au bekizu asko.

YAGOBA.—Nire ugazaba asarre dogu ala?

EMILLE.—Oraintxe-oraintxe alie egin dau emendik, eta benetan iñondiko artegatasunaz.

YAGOBA.—Otel asarre? Bai, urrean, eta izan be. neuk ikusi dot a suodiari su emon eta aren barruko zerakaz gudari-talde osoak bertik zear eguratsetara yaurtiten eta, txerren ba'litz lez, bere aldamenean egoan bere anaiea be eguratsetara egozten; zelan ez izango a asarre olangorik egiteko? Otoz-otoan yazo yakon zeren bat dau, beraz; banoa beragana: asarre ba'da, benetan zer-bait yazonen yako.

DESTEMONE.—Binixa'tiko barrien batek, naiz enien berton, Kuiuports onetan, agertuko azpiyalekerien batek lausotu tu ilundu dau aren buru argi-barea, ta olango aldiatan gizonak uskerigaitik asarratzen dira, eurak zer andiak egitekoak izanarren. Eta olan-txe da izan be; bai ba, gure atzek min *ba'* dau, gure soñeko beste atal zindoak be minduta gelditzen dira; ez, eztogu uste izan bear gizenak Yaungoiko diranik, ezta aikandik itxaron be gizon ezkonbarriari dagokion yokabide arduratsurik.—Ni tentel utsa nozu, Emiile. Nik nire maitasuna bakarrik aintzakotzat artuta, uren gogaldia gaiztetsi egin dot; baña, orain argi dakustanez, bide barik txarretsi ta gaiztetsi dot.

EMILLE.—Yaungoikoz, erriari dagokon zeren bat izango al da, ta ez maite-bekaitzkeri ta zutzazko susmo zitalik.

DESTEMONE.—Ene! egun onen zori txarre-ko! nik eztausat emon eguño orretarako biderik.

EMILLE.—Baña maite-bekaitzkeriak yota dagozan biotzentsat ori ezta asko; alangoak eztabe maite-bekaitzik onegaitik nuiz orra-ko orregaitik, maite-bekaitza dabeiaiko baño: maite-bekaitzkeria berez sortu ta yaiotako mamu yatzu.

DESTEMONE.—Mamu ori Yaungoikoak Otel'en biotzetik urrin eukiko al dau!

EMILLE.—Olan-txe bedi. andera.

DESTEMONE.—Ni aren billa noatzu.—Kasi, zu emen ibili atzera-aurreka: orretarako gogaldi egokiaz aurkitu ba'dagit, zure eskaria aitatuko dautsat, eta iristeko aleginik andienak egingo dodaz.

KASI.—Zu undera orri nire eskerrik apalena. (DESTEMONE ta EMILLEk olde).

#### BIANKE aurrera.

BIANKE.—Egun on, Kasi!

KASI.—Zek alde eragin dautzu etxetik? Zelan zabilztz, Bianke eder-liruin ori? Benetan, ene maite ezti, zurera youteko nintzan.

BIANKE.—Eta ni zure etzategirako bidean izan naz, Kasi. Zek euki zauz astebetean nigandik alde? Zazpi gau ta egunetan? Zortzi ogeiko ta zortzi ordutan? Eta maitearentzako bere maiteagandik aldeko ordubate ez ete da zortzi bidar ogei ordu lain luze eresteko ta gogaikarri? Ainbatze orren gogaikarri!

KASI.—Asketsi, Bianke: bitarte orretan gogai astunak azpian zapal-zapal euki nabe; baña aldí egokiagoan ganaz beteko dot oraingo uts au. Bianke ezti. (DESTEMONE'n surzapia emoten dautso) au langoxe beste bat egidazu.

BIANKE.—Ene Kasi, nondiko dozu au? Au adiskide barriagoen bategandik dozu zuk, maite-agiritzat; orain ba-dakust zu zek euki zauzan nigandik urrin. nik luze eretxita: onetara eldu gara? Tira, tira.

KASI.—Tira, emakume! txerrenari aginetara egotzi egiozuz ausmo zirtzilok, zuk andik artu dozuz-ta. Orrako ori nire oekiden bategandikoa, aren oroiagarrien bat dalakotan, zu maite-bekaitzkeritan zauguz; ez, Bianke, ezta olangorik.

BIANKE.—Ba, orrazkero, norena da?

KASI.—Neuk ba-dakit ala? Nire etzangoan aurkitu dot. Ori langoxe eder bat egingo al daustazu, orren yabeak ori eskatu-aurretik: artu ta egizu; eta bein-beinean ernen bakarrik itxi nagizu.

BIANKE.—Zu itxi! Zegaitik?

KASI.—Gudalburua noz etorriko nago emen begira; eta eztot uste lagungarri izango litzakidanik, ezta nik gura be, ak ni emen emakumekin aurkitzea.

BIANKE.—Zegaitik? Esaidazu, arren.

KASI.—Ez maite etzaudazalako.

BIANKE.—Ez, zuk enozu maite, baña zagoz nikin apur baten, eta esaidazu arratseou lagun egingo daustazuentz.  
KASI.—Nik bidarlo txikian lagun egingo dau-

tzut, ni emen begira nago-ta: baña laster ikusiko zaudaz.

BIANKE.—Ori ondo baño obeto: begiratu ta zur izan bear dot. (Alde dagi).

## IV EfiITALDI

### I AGERLEKU.-KUIPORTS, Gazielu-aurrea.

OTEL eta YAGOBA aurrera.

YAGOBA.—Sinetsi egingo dozu ori ala?

OTEL.—Zegaitik sinetsi ez, Yagoba?

YAGOBA.—Zer, ixilean alkarri mun egin?

OTEL.—Mun ori eztok legezko, eztok-zillegi.  
YAGOBA.—Ala ordubete naiz luzaroago bere maiteakin oean narru gorritan egon, asmo txarrik izateka?

OTEL.—Yagoba, oean narru gorritan egon, eta asino tjarrik izan ez! olangorik esange leukena txerrena baño azalutsugo litzatekek: asmo txarrik izan ezarren olangorik egiten dabenak txerrenak zirikatzen yozak, eta Yaungoikoa bera zirikatzen yoek.

YAGOBA.—Beraz, utsa *aa* egiten dabena; guztira be open arin; baña nik nire emazteari sur-zapirik emon ba'dagiot...

OTEL.—Emon ba'dagiok, zer?

YAGOBA.—Ba, nik emon ba'dagiot, bere dau, ene yaun; eta bere dauenazkero, edozein gizoni emon leio, nire ustez.

OTEL.—Orrako emazte orrek bere izen ona be yagon bear yok; ori be emon ete legikek?

YAGOBA.—Emazte orren izen ona ezta ikusi daiteken zerik; sarri askotan eztabenak dabe izen ona: baña sur-zapiarena besterik yatzu...

OTEL.—Yaungoikoarren, gurago neunke arazo ori aitzuta ba'neunke. Ik esan dok, -ene! txitean-pitectn datorkit burura, okela-belea, baztarrai iragarten, gaitz intsigikorra dagon etxera legetxe, ik nire sur-zapia gizon ak dauela esan dok.

YAGOBA.—Bai, eta ortik zer?

OTEL.—Ori etxatak bape gogoko.

YAGOBA.—Zer, nik esan ba'neuntzu, zuri okerren bat egiten eragoiela? Naiz, nik entzun izan ba'neuntso esaten orrako ori egin dauela, or ainbat zital ibiltan diran lez esaten olangorik egin dabela emakuekin eskariaren eskariz, naiz emakumea bere gogoz atara yarrita?

OTEL.—Esan yok ak olangorik ala?

YAGOBA.—Bai, esan dau, ene yaun; baña, seguru zagoz, ez zinez ukaluko dauenaz besterik.

OTEL.—Zer esan yok?

YAGOBA.—Ba! egin dauela... nilt eztakit egin dauenik,

OTEL.—Zer? Zer?

YAGOBA.—Etzan...

OTEL.—Destsmone'kin ala?

YAGOBA.—Akin. aren ganean; zeuk zelan gura.

OTEL.—Akin! aren ganean etzctn!... Akin etzan! ori geiegi da, ori inguingarri, askarri da.-Sur-zapia!, -autorpenak, -sur-zapia! Autortu dagiala ta, gero, bere nekesn alderako eskegi; baña ez, lenen eskegi, gero autortu. Gogoratzeak berak ikaratu egiten nau. Izamenak berez ezin izan eikean olango ilunaldi baltzik norbaitek orretara bul-tzau eta eragin ezik. Ez dira itzak ni onan ikaritzen nabena: uí! surrak, belarriak eta ezpanak! Izan ete leiteke olangorik? Autortu... sur-zapia! Denganiñoen denganiño!... (Konortea galduta, lurrera zerraldo).

YAGOBA.—Lan egin, nire osakaiok, lan egin! Ero sinisperak onantxe goctzen dira; eta onantxe galtzen dabe euren izen ona amafkatxo emakume garbi, erruga ta aintzakogarrik, E! ene yaun! ene yaun! ©! Otel!

KASI aurrera.

Egun on, Kasi!

KASL.—Zer yazoten da?

YAGOBA.—Aldienak artu dau nire ugazaba: au bigarren aldikadea dau; atzo izan eban beste bat.

KASL.—Lokiak igurdi egiozuz.

YAGOBA.—Ez, epe artu; aldienari bere bi-deari yarraitzen itxi bear yako: ostein agotik bitsa dariola yarten da, ta nozik-bein aldikada basatiak izaten dauz. Begira, zirkin egin dau; alde egizu bein-beinean, lasler yarriko da onik; onek alde egindakoan

zukin garrantzi andiko arazoaz ilz egiteko gogo dot. (KASI'k alde).  
Zelan zagoz, gudalburu? Ez ete dozu minik artu?

OTEL.—Iseka ta irri egiten daustak ala?

YAGOBA.—Nik zuri iseka egin be! ez, Yaungoikoarren. Zure zoria gizonari dagokenez eroango al dozu!

OTEL.—Mamu *ia* abere dok emazteak saldu dauen gizona.

YAGOBA.—Ori olan izatekotan, uri onetan amaika mamu ta abere ba-dozu.

OTEL.—Ori be esan ete yok ak?

YAGOBA.—Yaun on, gizon zadiz: gogoratu egizu bularrean bizarrrik dauen edozein gizon, ezkondua ba'da, zure buztarkide izan daitekela: gogora egizu milla-millakak dirala gizonak, euren-eurenak dirala uste izan, eta oe iñok orbanduetan etzaten diranak, eta orraitioño zin egingo leuskitzue euren oerik iñok eztauela zapaldu ta loitu ta laiotu: zuri yazoa ezta orren zakar. Enel sulezeak berak irri egitea, ta sulezako txerren-buruak berak iseka egitea yatzu kutsuga dalako ocan zuk emagalduri, garbi dalakotan, mosu ta mun egitea! Ez, ez al yat yazoko olangorik; yakitun nadilla ni; eta nik nire burua ezagutuazkero, ba-dakit nire emaztea zelango izaugoz dan.

OTEL.—Ene! i gizon zur augu; olantxe dok izan be.

YAGOBA.—Alde egizu apur baten; bakarrik zagoz eta epez adi egon. Zu emen naibagearen naibageak benderatuta egon zarean bitartean, --zu lango gizoni ondo ezator-kon yasan-aldian egon zarean bitartean-, Kasi eldu da ona: nik emendik alde eragin dausat, eta zure aldikadea aiik ondoen zuritu; laster atzera etorteko esan dausat nikin itz egiteko; berak baietz erantzun daust; oartu zuk; adi egon buru-belarri. Sartu zu or zuloen baten eta oartu andik aren lotsabako barreak, irriak eta agiriko isekak, aren mosuak: nik ak egina barrien-barri erasango dausat-eta, -non, zelan, zenbat aldiz, noiztik ona eta noiz egin izan dauen, eta zure emazteagazko zantarkeria ostera be noz egiteko dan, -zuk so egin gero aren mosuai, eta beste soin-erakerai. Epe artu, ene gudalburu; ostein nik zu gogaldi-bera zareala esango dot, ez bape gizon.

OTEL.—Entzun, Yagoba. Ni nire epean maltzur agertuko natxak; baña -entzun gero--, bai gordin be.

YAGOBA.—Ori eztagotzu txarto; baña bein-beinean ez sartu aurreregi, etxon eretia

agertu arte. Gurozu alde egin? (OTEL'ek alde dagi) Orain nik Kasi'ri Bianke'ri buruzko itaunak egingo dautsadaz, bers lera-irritsak salduaz ogia ta yantziak erosten dauzan emagalduez; emakume orrek maite-maite dau Kasi izan be; beti yatzu ematxarren yokabide zantarra askori ziria sartu ta eurai marro batek egitsa; emakume ori aitatzen iñok eragonazkero, Kasi'k iñonfiko barre eutsin-ezinak egiten dauz: or datorku bera: Kasi'k irribarretxorik egin-orduko Otel burutik eginda yarriko da; eta aren maite-bekaizkeri artegeak Kasi'n irribarre, mosu ta gogaldi argia oker aituko dauz.

KASI aurrera, ostera be.

Zelan zagoz, gudalburu-ordeko?

KASI.—Zuk emon daustazun izengoitiaren *mamirik* eztdodanazkero, len baño txartoago.

YAGOBA.—Ekiozu Destemons'ri aBpertzskaa, ta iritxi izango dozu. Orain, arazo au Bianke'n eskuetan ba'lego (fcclago itz egitsn dau), orduan bai zuk arin iritxiko zendukela!

KASI.—Ba! zirtzil ak egin bs!

OTEL.—(Bere kitean) Ara, dagoneko asi da barreka!

YAGOBA.—Eguño eztoz ezagutu emakumerik ak bestean gizonik maite dauenik,

KASI.—Ba! zital aren errukarri! benetan maite nauela uste dot nik.

OTEL.—(Bere kitean) Orain ukatu egien dau makalkiro, ta irri egiten dautso.

YAGOBA.—Olan uste dozu, Kasi?

OTEL.—(Bere kitecsn) Orain barriue-barri esateko zirikatzen dau: aurrera; ondo esanda, ondo esanda.

YAGOBA.—A etsi'a dago zu etzareala ezkonduko berakin: ete dozu akin ezkontzeko asmorik?

KASI.—Ja, ja, ja!

OTEL.—(Bere kitean) Gurenda-yai dok ala, Erromar? Gurenda-yai?

KASI.—Akin ezkondu be ni! emagaldukin ezkondu! arren-bai-arrsn, ez egizu uste izan burua orren galdurik dodanik: ja, ja, ja!

OTEL.—(Bere kitean) Olan, olan, olan, olan egiten dabe barrs irabazleak.

YAGOBA.—Ba, or edonok diño zu akin ezkontzeko zareala.

KASI.—Ez egizu guzurrik esan, arren.

YAGOBA.—Esan ba'ciagit, ziztrin garbi nozu.

OTEL.—(Bare kitean) Irabazi ete daustak, ba? Tira.

KASI.—Orrako zurrumuru ori inatxango eme orrek berorrek zabaldu dau; a sinistuta dago

nik emaztetzat artuko dodala, berak raáite ta kutun nauelako, ez nik olangorik agindu dautsadalako.

OTEL.—(Bere kitean) Yagoba'k buruagaz kiñu egiten daust; oraintxe asten da orren ya-zoak eralтен.

KASI.—Orainlxe-oraintxe izan da a emen: ni nora, *a* ara dabiltzu: Lengo baten ni iz-pazterrean nengoan Einixa'tar batzukin. eta zirtzil ori etxaí, ba, ara etorri ta nire idu-nera yausi?...

OTEL.—(Bere kitean) "Kasi maite" gedorrez izan ba'litz lez; orren soin-zirkinak beintzat ori iragarten dabe.

KASI.—Eta onan, idunetik dingilizka loka ya-rrita, negar egiten eustan; onan ekarten nindun beraganantza: ja, ja, ja!

OTEL.—(Bere kitean) Orain nire emazteak ni-re etzangora zelan eroaten dauen eralтен daragoio. Onangorik! Orain ba-yakusat ire surra, ez baña nik orí egotziko dautsodan txakurra.

KASI.—Tira, nik emakume ori bertan-bera itxi bear dot.

KAGOBA.—Neure aurrean egin ori! ara non datorren bera.

KASI.—Inondiko pitox (ogigaztae) egindu da-tor! arrano! usain-usainduta dator.

#### BIANKE aurrera.

Nire yarraí ibilte orrek zer esan gura dau?

BIANKE.—Txerrena ta ematxarra bebiltz zure yarraí! Zer esan gura izan dozu lentxoago emon daustazun sur-zapiagaz? Enaz ero makal izan *a* artu dautzudanean. A lango-xe beste tat egin beur ete dot? Zuk zure etzategian idoro ta an nok itxi izan daue-nik eztakizunaren antzeko lana! Au zikin-kerien baten agiria yalzu, ta nik olango orratz-lanik egin bear ete dot? Eutsi, ia emoiozu zure maite orreri, emon dautzunak emon dautzula; ni enoa olango lanaren hir-lanik egiten.

KASI.—Zer diñozu, Bianke laztan, zer diñozu?

OTEL.—(Bere kitean) Yaungoikoarren, orrako ori neure sur-zapia da, urrean!

BIANKE.—Gaur aparitara etorri gura ba'do-zu, etorri baño eztozu; gaur gura ezpa'do-zu, gertu zagozansan zatoz. (Aldi dagi).

YAGOBA.—Zoakioz aizetik ara, zoakioz atze-tik aru.

KASI.—Bai, yoan bear dot; ostean etxarte-bideak zear marmarka yoango da.

YAGOBA.—Arenean apalduko dozu ala?

KASL.—Asmo ori dot izan.

YAGOBA.—Tira, ba, ba-leiteke ni be ara zu

ikusten yostea; zukin iíz egin-guraz errelen nagotzu.

KASI.—Zatoz, arren; etorriko ete zara, gero?

YAGOBA.—Zoaz; txitik bez geiagio. (KASI'k alde).

OTEL.—(Aurrera etorrita) Zelan ilgo yoat orl, Yagoba?

YAGOBA.—Ikusi dozu zelan barre egiten izan dautsan bere lera gaiztoari?

OTEL.—Bai, Yagoba!

YAGOBA.—Eta ikusi dozu sur-zapia?

OTEL.—Nirea izan dok ala?

YAGOBA.—Zurea; esku au yokatuko neunke: etct ikusi zertzakotzat dauen zure emazte emekume eroa! Ak Kasi'ri emon eutsan, eta Kasi'k bere oekide emat::arrari.

OTEL.—Nik a bederatzí urtean euki gura neunke ilten. Emakume lirain! emakume lerdlen! emakume gozo!

YAGOBA.—Tira, zuk aiztu egin bear dozu Destemone ori.

OTEL.—Bai, ustelduko al dok, ilgo al dok eta gau onetantxe suezara yoango al dok; eta izan be, u eztok bizirik gelditzeko: ez ori-xe, nire biotza arria baño gogorrago egin dok; yoten dodanean, nire eskuak min artzen yok. Onangorik! Ludi onetan etxagok *a* baño izaki etziagorik: a edozein bakaidu-nen aldamenean etzateko ta ari zer egin bear dauen esateko gei dok.

YAGOBA.—Bai, baña baztatu egizuz goga-penok.

OTEL.—Eskegi, eskegi a. Nik *a* zer dan baño etxoat esan; orratz-lanetan bikain baño bi-kainago dok! eresi-arloan, itzala! Olango-rik! ak bere abestiz artz asarrea otzanduko laieukek! aren burua ta iruáimena ugari ta beteak dozuk!

YAGOBA.—Egin-eginean be orrexegaitik oke-rrago yatzu a,

OTEL.—Ene! bai millaka-millaka bider: eia, ganera, izakera yator-yatorreko ta maita-garri-maitagarriko dok.

YAGOBA.—Bai, maitagarriegi.

OTEL.—Bai, ori egia yak: baña orraitíño be tamal izateko dok, Yagoba! -Yagoba, Ya-goba, orrako orren tamala, Yagoba!

YAGOBA.—Aren gaiztakeriari orrenbesteko erruki ba'dautsazu, zuri irain egiteko esku-bidea emoiozu; eta izan be, zuri urdua ez izatekotan, besé iñori eztautso ardura.

OTEL.—Nik a zeatu ta txiki-txiki egingo yoat. Niri neure emazteak ziririk aartu!

YAGOBA.—Bai, ba! orrako ori zakar da izan be zure emazteak egiteko.

OTEL.—Eta egin be neure bendekokin!

YAGOBA.—Ori are okerrago yatzu.

OTEL.—Edenen bat zuzendu egidak, Yagoba; gau onetantxe... Nik etxautsat iragarriko adiskidetasunik, aren soñak eta edertasunak nire burua ostera be irabazi eztagisten: gau onetantxe. Yagoba.

YAGOBA.—Orretarako edenik ez egizu erabili; iduna tiurtu ta irato egizu oean, berak laidotuko oe berean.

OTEL.—Ori ondo, oii ondo: zuzentza-bide ori eder yatak: itzalezkorik ederren.

YAGOBA.—Eta Kasi'gazkoa... nire egikizun bedi ori eta nire ai'durapeko arlo: gaberdirantza entzungo dozu geiagorik.

OTEL.—Ederto baño edertoago. Ze turut-ots idogu oriako oii? (Turut-ots barruan).

YAGOBA.—Binixa'tiko zerbaít ,urreean. Ludobika eldu da dukeak bidalita: eta, begira, zure emaztea akin dago.

LUDOBICA, DESTEMONE |a Yarraigokoak  
aurrera.

LUDOBICA.—Egun on, gudaiburu aintzako-garri!

OTEL.—Bíotz biotzetik eskerrik asko zuri, yaun.

LUDOBICA.—Binixa'ko dukeak eta agure-batzariskoak agur egiten dautzue (Pcrdel bat emoten dautso eskuetara),

OTEL.—Mun egiten dautsot euren aginduen agiri oni. (Pardela ldiigi ta irrakurten difiaidu).

DESTEMONE.—Eta ze bairi dogu, lengusu on Ludobika?

YAGOBA.—Yaun, pozik nozu zu ikusiaz: ondo etorria Kuiporls'era.

LUDOBICA.—Eskerrik asko. Zelan dago Kasi' gudaiburu-ordekoa?

YAGOBA.—Bizirik da, yaun.

DESTEMONE.—Lengusu, aren eta nire yaunaren bitcítean leza ania egin da: baña zuk arazoa ondo atonduko dozu.

OTEL.—Ssguru ete zagoz orretan?

DESTEMONE.—Zer diñozu, ene yaun?

OTEL.—(Irakurri dirakur) "Utsik egiteka, zeuk gura dozun lez egin au...

LUDOBICA.—Orrek eztautzu deirik egin; ori buru-belarri dagotzu tere ingian. Zei, ba? Nire ycsuna ta Kasi alkarregandik urrinduta dagoz ala?

DESTEMONE.—Bai, eta zori txairez: nik asko egingo neunke orreik biok alkarrekin onezkoak egiteko, Kasi'ri dautsadan maitasunarrren.

OTEL.—Su ta kirastaz!

DESTEMONE.—Zer esan dozu ,ene yaun?

OTEL.—Zur. ala eio zaia?

DESTEMONE.—Osteia! asane da ala?

LUDOBICA.—Ba-leiteke idazkiak eiaginda egoitea: eta izan be, niie ustez, idazkiak etxeia yoateko, ta agintzea Kasi'ri izteko agindua dakartso.

DESTEMONE.—Sinistu egidazu, pozkarri yat. barri ori.

OTEL.—Ostera!

DESTEMONE.—Zer esan gura dozu, ene yaun?

OTEL.—Ni be pozik nago zu burutik eginik ikusita.

EDSTEMONE.—Zegaitik, Otsl ezti?

OTEL.—Denganiño! (Yo egiten dau DESTEMONE).

DESTEMONE.—Nik eztautzu emon oiretaia-ko biderik.

LUDOBICA.—Ene yaun, onangorik eleukie sinetsiko Binixa'n, neuk ikusi dodala zin egingo ba'neu be: ori andiegi da, gero; zuritu egizu zure burua; neganez dago zuie emaztea.

OTEL.—Tserren ori, txereen ori! Ludi osoak emakume onen negarrez ganaz egíngo ba' leu be, oneri leiioken tantan bakotxak au azaluts dala iragarriko leuke.--Alie nire aurretik!

DESTEMONE.—Ni enaz geldituko emen zuri minik emoteko. (Alde dagi).

LUDOBICA.—Benetan, esaneko andera orixes arren-bai-anen, atzera etorteko dei egiozu.

OTEL.—Andera!

DESTEMONE.—Ene yaun?

OTEL.—Zer egiteko zara Destemone'kin, yaun?

LUDOBICA.—Noi? Ni ala, ene yaun?

OTEL.—Bai; zuk eskatu dautzazu oiri atzeia etorteko dei egin dagiódala: yaun, ori etorri ta etorri ibili leiteke, ta orraíño yoa eta yoa, eta ostera be etorri; eta orrek badaki negar egiten, yaun, negar egiten; eta, zuk diñozunez, esaneko be ba-da..., esaneko... bai esan-esaneko. Ekin zuk neganez. Au dala-ta, yaun... Ene! edeito egiten dau min artuaiena! Au dala-ta, niie etxeia yoateko egindua emoten dauste. *Riie* zuk emendik! laster dei egingo dautzut, Yaun, aginduai nik men egiten dautsat; eta Binixa'ia yoango naz atzeia. Alde, geio! (DESTEMONE'k alde) Kasi geldituko da niie oideazkotzat. Eta, yaun, gaur gabeiako del egiten dautzut, bateia apaldu dagigun. Ondó etoiria zu, yaun ori, Kuiporls'eia. Akenak eta matxangoak! (Alde dagi).

LUDOBICA.—Au ete dogu guie agueibatzar osoak gizon egoki ta erakotzat dauen Maiuru yatorra? Au ete dogu iñoongo yasanek eta lerak ziikinik ezin eiagin dautaan gi-

zona? Au ete da, ez alan bearren zarladak, ez zoriaren akulukadak, ez zukitu, ezta ukutu be ezin daben arako gizona?

YAGOBA.—Orrek aldakuntza andi izan dau,

LUDOBICA.—Burua zindo ete dau? Ez ete yakoko lokatu ta arindu garaunak?

YAGOBA.—Ori dana langoxe da: ni enaz ezartzen orri errurik ezarten. Ori izan leitekunik ezpa'da, Yaungoikoarren guzur al litz ori izan leitekena!

LUDOBICA.—Onangorik! Bere emazteari narrua berotu!

## II AGERLEKU.—KUIPI

OTEL eta EMILLE aurrera.

OTEL.—Beraz, zuk eztozu ezer ikusi?

EMILLE.—Ezta eguño enlzun be; ezta eguño susmorik izan be.

OTEL.—Bai, zuk ikusi izan dozuz a ta Kasi batera.

EMILLE.—Baña ikusi dodazanetan eztoz ikusi ezetarik okerrik, eta orraitiño nik aik alkarri egindako itzen tscatalik txikiena be entzun izan dot.

OTEL.—Ba! Ez ete dautse iñoz alkarri ixil-muxilka itzik egin?

EMILLE.—Eguño bez, ene yaun.

OTEL.—Ez eutzuen iñoz alde eragin be?

EMILLE.—Bein bez.

OTEL.—Bere aize-egille, bere eskuzorro, bere marroaren billa bez?

EMILLE.—Eguño bez, eguño bez, ene yaun,

OTEL.—Iñondiko da auxe.

EMILLE.—Ni zin egiteko gertu nozu a zintzo dala, ta aren alde neure burua be yokatuko neunke; zuk besterik uste ba'dozu, u:catu egizuz zure susmook; orreik zure buruan kaltegarri yatzuz. Zitalen batek sariu ba' dautzu buruan olangorik, sugearen biraoa betorko ganera! Eta izan be, Destemone zintzo, garbi, ta zindo ez izatekotan, eztozu gizon zori ontsurik; euren emazterik garbien eta zintzoena laidoa bestean itxusi da.

OTEL.—Ona etorteko esan egiozu. Zoaz. (EMILLEk alde).

Emakume ori ezta itz egiten txarra; esan, edonor asetzeko lain esan dau; baña kutunkerietan dabiltzanen bitarteko ta kide da-ta, olangorik eztau autortuko. Emakume au emagaldtu maltzur eta azeri uts da-ta, ixilkizun zantarrak giltzapean ederto yagoten ba-daki: eta, orraitiño, belaunbiko yarri ta otoi egingo dautzu; orrenbestekorik egiten ikusia dot.

YAGOBA.—Benetan, ori ezta ondo-ondo egon; orraitiño ori ez al da izango okerrik andiena!

LUDOBICA.—Orietara oituta dago ala? Ala, idazkiak ekarrenak odolak galduta, akats ori sorbarri ete yako?

YAGOBA.—Ai ene! ai ene! Ezta nire zintzotasunari dagokiona nik ikusi ta entzun dodana zuri esatea. Zeu egon zakioz adi; eta bere yokabideak iragarriko dautzunazkero. nik itz egin-bearrik eztozu: zoakioz atzetik ara, ta oartu egizu zelan darraian. (Alde dajie).

## IS. Gazteluko etxoki.

EMILLE ta DESTEMONE aurrera, ostera be.

DESTEMONE.—Zer gura dozu, ene yaun?

OTEL.—Maite ori, erdu ona, arren.

DESTEMONE.—Zer gurozu?

OTEL.—Dakustazan zure begiak,- begira nira arpegia.

DESTEMONE.—Ze gogaldi askarri yatzu au?

OTEL.—Zure ogibideari dagokona, andera; (EMILLE'n) bakarrik itxi maitaleak, eta itxi atea; iñor urreratzekotan, eztl naiz gsdar egin; ixilpeko zure egikizuna, ixilpeko zure egikizuna; bai, zoaz. (EMILLEk alde).

DESTEMONE.—Nire belauon ganean eskatzen dautzut zer esan gura dozun zure itzokaz. Nik zure itzetan asarre gorria ba-dakust, baña zure itzak zer esan gura dabunik ez.

OTEL.—Ostera! Nor zauguz zu?

DESTEMONE.—Zure emaztea, ene yaun; zure emazte zintzo-zindoa.

OTEL.—Tira, zin egizu orrako ori zareala ta zoaz sulezara! ostein, zerutarren antzeko izanagaitik, txerrenak eurak zuri eltzeko bildur izan eztaitez: beraz, bigarren aldiz zure burua gaiztetsi egizu. Eintzo zareala zin egin.

DESTEMONE.—Yaungoikoak berak ondo daki ni zintzo nazana.

OTEL.—Yaungoikoak ondo dakiana zu sulezea baño be ustelago zareala da.

DESTEMONE.—Nori ustel ni, ene yaun? No-kin? Zegaitik naz ni ustel?

OTEL.—Ai Destemone! Alde! alde! alde, gero!

DESTEMONE.—Egun onen zori txarreko!... Zegaitik egiten dozu negar? Ni ete naz negarron erruiun, ene yaun? Zuk uste ba'dozu nire aitak eskurik izan dauela etxera ditzeko arazoan, ez ezarri niri orren errurik;

zuk aren bialzo galdu ba'dozu, nik be gsl-dot-eta.

OTEL.—Ni zelango nazan ikusteko, Yaungci-koak elorriok bidali izan ba'leustaz; nire buru gorriaren ganera guztituriko min et<lotsariak euri-tantanak besiean sarri egotzi izan ba'leustaz; landertasunean okotz eta ezpanetaraño murgildu izan ba'nindu; ni ta nire itxaropen guztiak inoren yopu egin izan ba'leuz; nire biotzean nonbaiter. aurkitu izango neban epe-tantantxoan bat: baña, onangoriki edonok, atzari geldiro eraginda, ni edonok, txuxo ba'nintz lez, niri irri ta iseka egiteraño erasts!... orraitio, nik orixe be eroango neunke; tira, tira, ba; Saña, ara, nire biotza yarri dodan toki bere-tik; antxe edo bizi edo il bear dodan leku-tik; nire biziaren iturria dodan leku-leku-tik; nire biziaren erioa datorren eta agortzeketan ilgo nazan iturritik niri alde eragifea! edo ta bertan gelditzekotan, kunkun iguingarriak aikarrekin batu ta umeak sortzen dabezan lezan legetxe, osin ustel atan euki nire biotzai

DESTEMONE.—Nire yaun yatorrak ni zintoztat nauela uste dot nik.

OTEL.—Ene! Ez, izan ez! Odan arategian bertatik ugaritzen diran euliak legetxe zintoztu, Orren lirain eta larden izan, eta sentzunai min emoteraño orren gozo zarean bedar txar ori, ez al zintzazan eguño yaiof

DESTEMONE.—Ai ene! neuk eztakidala, ze oben egin ete dot nik?

OTEL.—Ingi lirain ori, yaungoiko-yaungoikozko idazti ori or ematxar itza idazteko egin ete da? Zer egin dozu, zer egin, inoren mutxikin orrekr Nik nire masallak laba goritu egin bearko neunkez, eta nire neurri-kolasuna erre ta geitzotuz, zuk eginak azaldu bearko ba'neuz. Zuk egin dczuna! Yaungoikoak berak sur-zuioak itxi egiten dauz, zuk eginaren andurrik eldu ta sartu ezta-kion, eta ilargiak begiak itxi egiten dauz; bidean yoan ala aurkitzen dauen edozeri mun eginen dautsan axe zantarra bera be lur arroaren sabelean ostondu da ixilik zuk eginik ez entzutearren. Zuk zer egin dozun! letsagalduko ematxar orrek!

DESTEMONE.—Yaungoikoarren, zuk irain egi-ten daustazu.

OTEL.—Etzara emafxar ala?

DESTEMONE.—Ez, eta Kistar-itx dozu nire "ez" au; nire ontzi au beste inok zantarkiro ukutzeka nire yaunarentzat garbi !a kutsuga eukitea ematxar izatea ez izatekotan, ni enozu emabiár,

O'TEL.—2er? Etzareala emagaldu?

DESTEMONE.—Éz, Yaungoikoaren aurrean dirautzul.

OTEL.—Izan ete leiteke olangorik?

DESTEMONE.—Ene! Yaungoikoak asketsi begisku!

OTEL.—Olan izatekotan, askespen-eske nagotzu; nik Otel'ekin ezkonduko Binixa'tar emagaldutzctt artu izan zauiaz-éfa. Zuk, an-cera, zuk Kepa Deunaren egitekoaren itzulie-tarakoa dozu, sulezako atezaintzea!

EMILLE aurrera ostera be.

Zuk ,zuk, bai, zuli! zuk amaitu dozu zure egitekoa; autsiz zure nekeen alderako txanponak; giltze itxi, arren, atea, ta yagon gure ixilkizuna. (Aide dagi).

EMILLE.—Onangorik! ze asmo ete dau gizon yator orrek? Zelan zagoz, anderu? Zelan zagoz ene andera on ori?

DESTEMONE.—Egia esateko, erdi-lotan.

EMILLE.—Andera on, zer yazoten yako nire yaunari?

DESTEMONE.—Nokin?

EMILLE.—Ba, nire yaunakin, andera,

DESTEMONE.—Nor da zure yauna?

EMILLE.—Zurea bera, andera ezti.

DESTEMONE.—Nik eztot yaunik: ez egín ifzik niri, Emille; ezin dol negarrik egin; zer erantzunik be eztot, uretan yoango litzatekenaz besterik. Arren-bai-arren, arratseon nire ocan nire ezteguetako izarak zabaldu egizuz, -ez aztu, gero; eta esan zure senarrari datorrela ona.

EMILLE.—Aldakuntza andi yatzu ori! (Alde dagi).

DESTEMONE.—Egoki-egoki da ni olan inok erabiltea. Zer egin izan dot nik ni oker ibiliaren susmorik txikienik niri ezarteko?

EMILLE aurrera ostera be, YAGOBA'kín

YAGOBA.—Zer gura dozu, andera? Zelan zagoz?

DESTEMONE.—Ezin dot esan. Umetxoai iraksten ibiltzen diranak, egiteko ori bide bigunez eta zeregin arin-errazak ezarriaz egiten dabe: niri be ak olango asarre egin eikidan; eta izan be, ni akar-arloan ume nozu.

YAGOBA.—Zer yazoten yatzu .andera?

EMILLE.—Ai ene, Yagoba, nire yaunak au biotz zintzok ezin eroan bestean ematsar gedarka ta beste olango itz eta esakera zantarez burutik bera bete dau.

DESTEMONE.—Olango izenik ete dagokii, Yagoba?

YAGOBA.—Ze izen ,andera lirain?

DESTEMONE.—Zure emazteak esanez, nire yaunak ni nazala esan dauena.

EMILLE.—Ak ematxar deitu dau: eskeko mozkorrek be ezin aiera eikean olango itzik bere eztaarritik,

YAGOBA.—Zegaitik esan dau olangorik?

DESTEMONE.—Zer dakit nik? Olangorik enazala ni da nik dakidana.

YAGOBA.—Ez egin negarrik, ez egin negarrik; onangorik egunaren zori txarreko!

EMILLE.—Iñok arpegira "ernatxar" izena egozteko agur egin ete dautse onek aibeste azkontza yator, bere aita, bere aberri ta bere adiskideai? Ez ete da ori biderik asko negar egiteko?

DESTEMONE.—Ori nire zori txarrarena da.

YAGOBA.—Izurriak eroango al dau orregaitik! zelan otu yako marrokeri ori?

DESTEMONE.—Ba! Yaungoikoak daki.

EMILLE.—Eskegi naguela alzenbako zital bizi ta ziraun-antzeko ziri-sartzalleren batek asmau ezpa'dau guzur askarri au ogibidieren bat iristearren; olan ezpa'da, eskegi nagielu.

YAGOBA.—VI) eztozu iñon olango gizonik; ezina yatzu ori.

DESTEMONE.—Olangorik ba'lego, egon. Yaun. goikoak asketsi dagiola!

EMILLE.—Asketsi! idunetik lokarriz eskegi *olangoa*; eta sulezeak aginka auls egin dagiozala azurrak! Zegaiiik deitu bear izan dautso ak oni "ematxar"? Nor ibili da onekin? Non? Noz? Zelan? Ze egi-antz dago orrako orrenik? Mairua zital utsen batek, gizon zakar-zantar-lotsabakoen batek atzipetu egin dau. ari ziri ederra sartu dautso. Ene Yaungoikoa! Zuk olango gizonak argitara atera bear zeunkez, eta gizon zindoai txibita bana emon eskuetara, ludia zear eguzki-aldetik sarkalderaño dagozan gizon dollor-zitalak billustuta, narrua ondo-ondo berotu ta erasteko!

YAGOBA.—Ixiltxoago itz egizu, ez zarataka.

EMILLE.—Olangorik! Ul gizon ori! Olangoen bat izan zan zu itzulietara yarri ta zuri ni Mairuakin nenbilelako susmoa bururatu euztuna be.

YAGOBA.—Zu burutik eginda zagoz; tira.

DESTEMONE.—Ai ene! Yagoba, zer egingo nik nire yauna ostera be irabazteko? Adiskide on, zoaz agana; eta izan be, ortzetiko urgi aarren zin dagitzut, nik eztakidala aren biotzeko maitasuna zelan galdu

dotan. Emen nozu belaunbiko! Eguño nik aren maitasunari okerrik egin izan ba'dautsat, asmoz naiz egitez; naiz nire begi, belarri, naiz beste sentzunek arenarenaz besteren antzetan pozik artu izan ba'dabe; naiz, ak niri beragandik alde eragin eta ortik zear bidalita, ni eskeko eginik itxi ba'nagi be, nik a orain eta len maife izan ezpa'dot, eta aurrerantzean be maite izango ezpa'dot. pozak alde begi nigandik. Zakarkeriak asko dagike; eta aren zakarkeriak nire biziarena egin dagie, baña nire maitasun'k eztau orbanduko. Nik ezin dot esan "ematxar" itza... itz orrek ikara ta iguin emoten dautaz; ludiko arrokeri ta arrokozun guztiak be leuskide eragingo izen ori irabaziazoteko egipen zantarrik.

YAGOBA.—Nasai zagoz, arren; izen gogaldi baño etxatzu orrako ori; erri-arazoak dabe a minduta, ia zukin asazkatzen da.

DESTEMONE.—Ori ba'litz. eta ez besterik...

YAGOBA.—Orixe baño ezta, sinistu egidazu. (Turut-ots barruan). Adi, so, turutok apaiterako deiez dagozuz! Binixa'tiko geznariak apariaren begira dagoz: sartu zadiz ta ez egin negarrik; dana atonduko da. (DESTEMONE ta EMILLE'k alde).

#### ERRODEIKA aurrera,

Emen augu, Errodeika!

ERRODEIKA.—Nik dakustanez, ik eztaustak zintzo la zuzen yokulzen.

YAGOBA.—Zsr egin daukat itzulietara ta oker?

ERRODEIKA.—Egunoro baztartzen nok ik, onsgaitik edo aguitik, Yagoba; eta, diruditanez, dana bestera eginda, itxaropen-bide guztietatik aldentzen nok. Aiko, bu. nik etxoat olangorik luzarougo yasateko gogaldirik; etu enaiaogok ixilik eukiteko, erok lez, orain arte buru barik yasan dodana.

YAGOBA.—Entzun gura daustak, Errodeika?

ERRODEIKA.—Egia esateko, geiegi be entzun daukai; ire iizak eta ire eginak alkarrekin ukabilka yabiltzak-eta.

YAGOBA.—Ik eztaustak errua zuzenez ezarten.

ERRODEIKA.—Zuzen-zuzenez. Nik nire ondatsun guztiak alper-alperrik galdu yoazai. Nik iri Destemone'ntzako emoniko pitxien erdiak be bigundu, ausi ta erosi izango yoen Yaungoikoari zin-bidez lotuko emakumea be: nire pitxiak ak artzen izan dauzala esaten izan daustak ik, nik eta ak Iaster alkar ikusteko itxaropena emoten izan daustak, elu



egun pozkarri ori eztok agiri inondik, eta agiriko bez. urrean.

YAGOBA.—Ondo yagok; aurrera, mutil; ondo yagok.

ERRODEIKA.—Ondo! aurrera! ni enaiagok aurrerago egiteko, gizon; eta zera etxagok ez ederto, ez ondo be; dana bestera, aiazoa gexorik dagola uste yoat eta ni gatzak yota.

YAGOBA.—Oso ederto.

ERRODEIKA.—Nik eztagola ederto dirauskat. Neu yoango nok Destemone'gana: ak nire pitxiak atzera emon gura ba'yaustazak, nik aren eskuari agur egingo yautsat, eta legezko eztan nire eskariak garbaitu; ostean, iri ordeazkoa emon eragingo dauskat.

YAGOBA.—Amaitu dok ala?

ERRODEIKA.—Bai. eta nik egiteko asmo dodanaz besterik ez yoat esan.

YAGOBA.—Ostera! Oraintxe yakusat i gizon azana; eta oraindik aitzina itzaz eguño baño eretxi ohea izango yoat. Ekak bosteko ori, Errodeika; izan be, nire aurkako ire susmoa zuzen dok; baña, orraitio, eta neuk dirauskat, nik zuzen yokatu yoat ire arazoan.

ERRODEIKA.—Eztok agiri, ba.

YAGOBA.—Egia dok, eztok agiri, izan be; eta ire susmoa eztok burubakona. Baña, Exrodeika, ik ba'dok aldean nik orain eguño baño orretarako bide obez uste dodana, zera, erabagia, adorea, oldarra, kementa, erakutsik arrats onetan; i biar gabeen Destemone'kin ezitian ez egotekotan, beste ludikoen artea bidali nagik azpiyale ta usteltzat, eta niri bizia kentzeko bideak gertau egizak.

ERRODEIKA.—Ondo, !a zer dok orrako ori? Eidezko ete dok?

YAGOBA.—Yaun, beren-beregiko agindua etorri dok Binixa'tik Oiel'en ordeaz aren lekuan Kasi iminleko.

ERRODEIKA.—Benetan? Egia ete dok? Ba, orrazkero, Otel eta Destemone atzera yoango dozak Binixa'ra.

YAGOBA.—Bai, zera! A Baltzerlra yoak eta Destemone berakin eroatekotzat dok, otzotoko zeren batek emen geldituazo ezik; eta orretarako eztok bide oberik Kasi aurretik kentzea baño.

ERRODEIKA.—Aurretik zelan kendu leitekela uste dok ik?

YAGOBA.—Ba! Otel'en lekua betetzeko gel-eginda... yota garaunak aterata.

ERRODEIKA.—Eta ik orrako ori nik egitea gurako dok, eztok?

YAGOBA.—Bai, ba, ik irabazi ta zuzena iritxi gura izatekotan. A arratseon emagaldukin apaltzeko dok, eta ni be agana ara yoateko nok; oraindik ak etxakik zelango zori ona datorkon ganera, I ak andik noz alde egingoaren begira ta zai egon ba'adi, -eta nik orrako orl amabietatik ordubatetarantza yazoko dala uste yoat, -ik agaz euk zer-gura egin einke; ni neu be an ur izango nok iri lagun egiteko, eta gure artean yausiko iok a. Tiruk, ez adi gelditu agoa zabalik liluratuta, ator nikin, neuk erakutsiko dauskat a iltea bearreko dala, ta ik ire eglkizun bearrekotzat arluco dok a aurretik kentzea. Dagoneko apaitoidu dok eta gauda auirera yoak: ire arlora.

ERRODEIKA.—Onetaz argibide geiagorik entzuteko gogo yoat.

YAGOBA.—Emon be emongo yakaz. (Alde dagie).

### III AGERLEKU.--KUIPORTS. Gazteluko beste etxoki.

OTEL, LUDOBİKA, DESTEMONE, EMİLLE ta Yarraigokoak aurrera.

LUDOBİKA.—Yaun, ez artu neke geiagorik, arren.

OTEL.—Ene! asketsi egidazu; apurtxo baten ibilia on egingo daust.

LUDOBİKA.—Gau on, andera; nire esker apalak zuri andera orreri.

DESTEMONE.—Zu gizon dedugarri oii ondo etoriia zara.

OTEL.—İbili gurozu ala, yaun? -Ara! -Destemone...

DESTEMONE.—Ene yaun?

OTEL.—Zoaz zu bertatik oera; bereala nozu

ni be an; andik alde eragiozu zure lagunari; ez aitzu orretzaz, gero.

DESTEMONE.—Olantxe egingo dot, ene yaun. OTEL, İUDOBİKA ta Yarraigokoak alde).

EMİLLE.—Zelan zagoz orain? Ak len baño txeratsua go dirudi.

DESTEMONE.—Bertatik etorriko dala esan dau: etzateko ta zu etzategitik aterateko agindu daust.

EMİLLE.—Niri alde eragiteko!

DESTEMONE.—Bai ,orixe agindu daust; beraz, Emille on, ekazuz gau-yantziak, eta gau on: oiain eztautsagu emon bear naitzabagorik.

EMILLE.—Ez al zendun *a* eguño ikus!  
 DESTEMONE.—Nik, ostera, eneunke gurako olangorik; nire maitasunak ari eclsr eslen dautso-ta; aren rnuksrraldi. setaldi, aren ixoak eta betozkoak eurak be, eder egitan yataz-ta, yakfizu, ari erantsi eçften nautsoe, Aakatu egidazuz orratz eta lokaniok.  
 EMILLE.—Arako zuk aginduko izarak Labaldu dodaz zure oean.  
 DESTEMONE.—Ori ondo .Eae Yaungoikca! gu. re buruen zoro! Ni zure aurretik il ba'nadi, arren, izarra orreatatik batean batu egizu nire gorpua.  
 EMILLE.—Tiva, tira, zuk dozun ixilik egon-ezina.  
 DESTEMONE.—Tjire amak Barbare izeneko otssin ebon; otsein au alango baten maile-mindu egin zan; eta bere rnaitasuna zoro ta ustel urten yakon, eta senarrak bertan-bera itxi eban; ak "saratz" -abestia eutzun; abesti ori izan zar zan, baña ari yazoa bete-betean eta egin-eginean ekarrelako, a abestu-ala il zan: arako abestiak eztaust burutik alde egingo arrats onetan; nik egiteko asko dot, ez buruari alde batera eragin eta Barbare gaxoaren antzera arako abestia abestutea bakarrik. Beraz, gau on.  
 EMILLE.—Zvue gau-atorrea ekarriko dautzut ala?  
 DESTEMONE.—Ez, askatu egidazuz orralz eta lokarriok. Ludobika ori benetako gizon yatzu.  
 EMILLE.—Gizon atssgingcirri, iñor izaiekotan.  
 DESTEMONE.—ítz egiten dakiana yatzu.  
 EMILLE.—Ezagun dot nik Binixa'n aren beko ezpanaren ukutuategaitik Palestina'raSo ortosik yoan izango zana,  
 DESTEMONE.—"Gaxoa sasi-pikondopean yazarrita asperenka egoan (Abestuaz).  
 "fffaestu guztiok sarats rnsker-muskerrari;  
 "Eskua bularrean, burua belaun-ganean.  
 "Abestu saratsari, saraisari, saratsari;  
 "Lats ozkirri erion aldamera zear, aren kozknk birresanka;  
 "Abestu saratsari, saratsari, saratsari.  
 "Begietatik eriokozan negar gaziak bigundu airiak";  
 Imini or yantziok, Einille;  
 "Abest.u saratsari, saratsari, saratsari;  
 (Abesfuaz)  
 Bizkor zabiltz, arren, *a* bertatik datorke-ta.  
 "Abestu guztiok sarats muskerrari, nire lili-sorta izango baita. (Abestuaz)  
 "Eztagiola iñok errurik ezarri; aren betozkoari nik eder etsi",

Ez, au ezta urren datorrena. So! nok yo dau atea?

EMILLE.—Ax-sa izan da.

DESTEMONE.—

"Nik nirs maitecin ustel deitu dautsat: baña zer esan ak? (Abestuaz)

"ifbestu saratsari, saratsari, saratsari;

"Mi emakume-billa ibiliezik, zuk ez izango oerako gizonik".

Onazkero, zoaz; gau on, Begietan azkura dot; azkura onek negarra iragarten ete dau?

EMILLE.—Ez sinistu sorginkeririk.

DESTEMONE.—Olan dala entzun izan dot, -Ene! gizonena, gizonena! Esaíduzu, Emille, zu yakinkide ete zara ba-dagola orren zakar euren senarrai irain egiten dautsen emakuraerik?

EMILLE.—Egia esateko, egon ba-dagotzu olangorik.

DESTEMONE.—Zuk egingo ele zeunko olangorik ludi osoagaitik be?

EMILLE.—Ba! zuk zeuk be etzeunke egingo ala?

DESTEMONE.—Ez, zin egiten dautzut izarren argi oriarren!

EMILLE.—Neuk bez fsarren argi orregaitik. Olango zera ilunetan be egm-ezinik eztot.

DESTEMONE.—Olangorik ludi osoagaitik egingo zeunke ala?

EMILLE.—Zer andi yatzu ludia: ori sari andi yatzu lera t:;ar txikirentzako»

DESTEMONE.—Egia esateko, nik eztot uste zuk egingo zeunkeanik.

EMILLE.—Egia esatsko, nik egingo neunkekt uste dot; eta bein egindakoan manatu, Arrano! nik eneunke egingo olangorik ezkon-erastungaitik, lurr-arlogaitik, atorragaitik, gonagaitik, buru-txapelgaitik, naiz beste uskerigaitik; baña ludf osoagaitik... ba! nok eleuskio ziri ederrik sartuko bere senarrari a ludi osoko bakaldun egitearren? Orrenbestegaitik nik nire buraa garbitegi-bidean iminiko neunks.

DESTEMONE.—Sulezea nitzako ni olango oke. rreririk egiten azartu ba nendi, ludi osoagaitik izanda be.

EMILLE.—Ba! Okerra ludiko oker bafto etxatzu! eta zure nekean alde ludia eukiazkerro, oker ori zeurs ludiko litzateke, eta zuk laster arteztu zengike.

DESTEMONE.—Nik eztot usts olango emakumerik dagonik.

EMILLE.—Eci, bai amaika be; eta bai beronegaitik atsegin artu eben ludi au betetzeko beste be. Baña, nire ustez, emazterik

okenerl orretara yausten ha'da, euren ss-narrak dira errudun: esaterako, euren egin-bearretan nagí ta urri dira-ta, orrsgeituk, guk gure altxorrek iñoren altxoetara ixuri ta ustuten doguz; edo-ta, maite-bekaizkari zirtzilgaitik gu laburregi estutsn gabezalako; naiz, esaterako, yoka garabiltzelako, naiz bekaitzez len genduana gitxitzen dauskuelako; ba! guk geuk be baialcígu asarratzen; eta arpegiz txeratsu agertuarren, geuk be ba-dakigu okerrari okerrez erantzuten. Bekie senarrak euren emazteak be eurak lez sentzunak aldean dabezala; eurak lez euren emazteak be ba-dabe begirik ikusteko ta surrik usain artzeko, eta bai ago-sapairik be zer dan gozo ta zer mingots igarteko. Zer egiten dautzue aik gure ordez

beste batzuk artzen dabezanean? Euren irritsak asazkatu ta yolas egin ala? Ni orretars nagotzu: eta euren yokabide ori maitasunean asten ete da ta maitasunalc orri yaten emon eta iraunazoten ete dauise? Nik olan uste dol; makaleria ete da olan okertzen dana? Ori be olantxe yatzu, Eta guk geuk be ez ete doguz gurs lera ta irritsak, eta nozik-bein garagarrak irabaztsko gogorik, eta gure makaleriak, gizonak legetxe? Orrazkero, gure senarrak gu ondo artu bañõ eztaukie: ostean yakin dagiela euren okerrak irakasten dauscuela oksr ibiltan,  
 DESTEMONONE.—Gau on, gau on! Yaungoikoak ez al daust itxiko okerrari okerrez erantzuten, okerrari zuzenez erantzuten bañõ! (Alde iagie),

## V EKITALDI

### I AGERLEKU.—KUIPOHTS. Etxartebide.

YAGOBA ta ERRODEIKA aurrera.

YAGOBA.—Ementxe, emen egon msta onen atzean; laster dok a emen; irs ezpatea aterata gertu eukik eta barru-barrura sartu; bizkor-bizkor; ez izan ezeren bildurrik; ni ire aldamenean egongo nok; oingoxean edo gizon egiten gozak, edo gureak egin yok; ori gogoratu egik, eta sendotu ire erabagia.

ERRODEIKA.—Nire ondoan ur ago; ba-leitekek riri zera txarto urtetea.

YAGOBA.—Ementxe, ire besoa betean egongo nok; oldartsu-adorstsu adi, ta ire lekuan yarri adi (Aputxo bat alde egiten dau).

ERRODEIKA.—Egiteko au etxatak begikoeagi; eta orraitño orrek eralgi daustazan argiideak asetzen nabe. Dana be ludi onetan gizon bat gitxiago izatea da. Urten, nire ezpata; ak il bear dau. (Bere lekura doa).

YAGOBA.—Gazte kaskaiin au ia min aitzerañõ igurdi dot, eta asarre da. Orain, naiz onek Kasi il, naiz Kasi'k au, naiz orreik alkar il, dana dala nik irabazi bañõ ezto egiten: Errodeika bizitekotan, ak niri ondasun andiak emonazoko daustaz atzera urrs-tan eta p'txitan, ak niri Destemone'ntzako esku-agiritzaz emoneko urre ta pitxitan; ezto gu becir olangorik: Kasi bizirik gelditzekotan, ak bizitza argia dau aurrean eta aren argiak nire itxusitasuna iragarten dau; eta, orrez ganera, ba-leiteke Mairuak ni aren aurrean billustutea; ortik be galtzori andia

nitzako; olangorik ez, ak il egin bear dau. Baña. dana dala, aren oin-otsak dantzudaz.

KASI aurrera.

ERRODEIKA.—Ezagun dot ibilkera ori, bera da. Zital ori, ireak egin yok! (Ostonlektuk itsumustuka urten eta Kasi'ri zartadea damotso).

ICASI.—Ire zastada ori nire arerio izan dok benetan, baña nire bular-yantzia ik uste bañõ obea dok: orain irea zelango dan ikusiko yoat. (Ezpatea aterata, Errodeika zauritzen dau).

ERRODEIKA.—Ai ene! Il nau! (YAGOBA'k arin urten, Kasi'ri zangoaren atzealdean ebagia egin eta igesi dagi).

KASI.—Nire bizirako »r.c:ki r-jin n-u. Lagun, ee! Erate. erate! (Lurrera yausten da).

OTEL aurrera aragotik.

OTEL.—Kasi'n gedarra: bete dau agindua Yagoba'k.

ERRODEIKA.—Ene! ni bai ba-nazala zirtzil! OTEL.—Euk esan dok.

KASI.—Ai ene! Lagun, ee! Betor osagille!

OTEL.—Bai, bera da: Yagoba azarri, zindo ta artez, ik bai ire biotz zindoan oartzen dokala ire adiski'ieari egindako okerreria! I nire irakasle az... emagaldtu, ire adiskide kutuna ilik datza, ta ire zori txarra arin ya-

torna. Ematxar, ba-noatzu! Urten nire bioztetik arako lilurapenok, lausotu ta ilunduta dagoz zure begiak: zure oea, zantarkeriz orbanduko oea, zantarraren odolez txipiriz-tinduko da. (Alde dagi),

LUDOBİKA ta GARTZEN aurrera, andik aragotik.

KASI.—Zer da au? Ee! gau-zainik ez? İñor bez igaro emendik zear? İlten nabe, ilten nabe!

GARTZEN.—Okerren bat yazo da or; gedar larri da.

KASL.—Ai ene! lagun zakidaze!

LUDOBİKA.—So!

ERRODEİKA.—Zital-zital ori!

LUDOBİKA.—Bi edo iru dagoz or urrumeka: gau ilun da; orrako orreik marroak izan leitekenez; ezkaitezan azartu urrumok diran tokirantz, geiagoko laguntza barik.

ERRODEİKA.—Ess ete dator iñor? Orrazkaro, odolustu egingo naz.

LUDOBİKA.—Or dator norbait atorra-utsik, argi ta iskilluokaz,

YAGOBİA aurrera ostera be argigaz.

YAGOBİA.—Nor dago or? Norena da il egin dabela diñonaren abotsa?

LUDOBİKA.—Guk eztakigu.

YAGOBİA.—Eztozue entzun gedarrrik ala?

KASI.—Ona, ona! Yaungoikoarren, lagun zakijaze!

YAGOBİA.—Zer yazoten da?

GARTZEN.—Oker ezpa'nago ,ori Otel'en ikurrunduna yatzu.

LUDOBİKA.—Axe da izan be; gizon adoretzu.

YAGOBİA.—Nor zauguz orren larri geaar dagizun ori?

KASI.—Yagoba zauguz ala? Ai ene! ni lorrinduta, zitalek lorrin- lorrinduta nago! lagun zakidaz.

YAGOBİA.—Ai ene! gudalburu-ordeko! nongo zitalak egin dabe egiteko au?

KASI.—Nira ustez, euretariko bat emen onen baten da, ta ezin dau alde egin.

YAGOBİA.—Zital etoiok! Nortzuk zarie zuok or zagozenok! Erdi ona ta lagun zakiguez. (LUDOBİKA ta GARTZEN'i),

ERRODEİKA.—Ai ene! erdu ona ta lagun zakidaze.

KASI.—Ori da aitariko bat.

YAGOBİA.—Yopu odoltzale ori! zital ori! (İl egiten dau sastaika),

ERRODEİKA.—Yagoba denganiño, askarri ori! ticakur amurratu ori!

YAGOBİA.—Abil ostera be gizonak ilunetan ilten! Non ete dira lapur gordinok? Uri onen isil! ee! erate, erats! Nortzuk zarie? Onerako ala txarrerako ete zarie?

LUDOBİKA.—İkusi bein nolangoak garean, eta gero zeuk ebatzi,

YAGOBİA.—Ludobika yauna ala?

LUDOBİKA.—Berbera/yaun.

YAGOBİA.—Erruki-eske nagotzu, Amen Kasi, zitalak min arrazota,

GARTZEN.—Kasi!

YAGOBİA.—Nolan zagoz, anai?

KASI.—Erdibituta dago nire zangoa.

YAGOBİA.—Yaungoikoarren, ez al da olan-gorik izctngo! Argi egin, gizon yatorrok: neure atorreagaz batuko dautzut.

BIANKE aurrera

BIANKE.—Zer yazoten da? Ene! nor egon da gedarrez?

YAGOBİA.—Nor egon dan geiaarrez!

BIANKE.—Ene Kasi maite! ene Kasi ezti! Kasi, Kasi, Kasi!

YAGOBİA.—Emagalduen emagaldu ori! -Kasi, ez ete dozu ezetariko susmorik nortzuk izan leitekezan zu olan eio zaeuzanak?

KASI.—Ez.

GARTZEN.—^Tamalgarri yat zu olan aurkitzea: ni zure billa ibilia nozu.

YAGOBİA.—Akuratu egidazue galartzen bat: Olan. Ene! yarleku bat. arren, au emendik eroso eroateko!

BIANKE.—Ai enetxo! ori larri da! Kasi, Kasl, Kasi!

YAGOBİA.—Gizon yatorrok, nik susmo dot emakune saskil-zirtzil au be oneri egindako okerren kide izan dala. Epe artu apur baten, Kasi on. Tira, tira; akuratu egidazue argien bat. Ezagun dogu arpegi au, ala ez?

Ai ene! nire adiskide ta aberkide Errodeika ala? Ezta: bai orraitino, berbera da; ene Yaungoikoa! Errodeika da izan be,

GARTZEN.—Zer? Binitxa'ko ala?

YAGOBİA.—Bai, Binixa'ko, yaun: ezagun zendun ala?

GARTZEN.—Ezagun dodan! Oba ez!

YAGOBİA.—Gartzen yauna zauguz ala? Az. kets-esks nagotzu; yazokune gordinok dirala-ta, ezikera-egikizunak be aitzu egin yataz, eta zuri yaramon ez.

GARTZEN.—Pozik naz zu ikusiaz.

YAGOBİA.—Nolan zagoz, Kasi? Ene! yarlekuen bat, yarlekuen bat!

GA RTZEN.—Errodeika!

YAGOBA.—Bai, bai, bera da. Tlra, eldu da nozbaiten; yezarleku! (Yezarleku dakarre) gizon biotz onekoan batek eroan dagiala au emendik arduraz eta polito-polito; neu yoango naz gudaiburuen osagille-billa. Zuk, emagaldtu (BIANKE'ri), zuk ez artu nekerik.-Emen ilik datzana, Kasi, nire adiskide maite zan: ze gorroto zeuntsen alkarri?

KASI.—Ezetarikorik bez; nik gizon ori ezagun be ezto.

YAGOBA.—(Bere kitean) Ostera! Zegaitik zagoz zurbil? -Ene! kallokallo eroan egizue, (KASI tct EHRODEIKA eroan daroez) Emen gelditu zuok, gizon yatorrok, Zegaitik zagoz zurbil, emagaldtu? -ikusten dozue orren begien larria? -Bai, begiratu ba'dagizu, geiagorik yakingo dogu laster. Adi zakioez; be-şiratu egizue ori, arren; ikusten dozue, gizon yatorrok? Bai, erruak ituz egingo dau, miñik erabili ezarren.

BMILLE aurrera,

EMILLE.—Ai ene! Zer yazoten do? Zer yazoten da, ene senar?

YAGOBA.—Emen ilunetan Errodeika ta igesi

daben urliek Kasi'ri generatu yakoz. A er di-Iik dago, tci Errodeika ilik-EMILLE.—Onangorik! Gizon yalor on! Ai ene. txoa! Kasi on!

YAGOBA.—Au yatzu emagalduekin Ibilisk dakarrena, Arren, zoaz eta yakizu arctls onetan non izan dan Kasi aparitan. Zer? Ikaratu sgiten zara ala?

BIANKE.—Nirean izan da apariicin; bañik orregaitik enaz ikaratzten nl.

YAGOBA.—Ostera! sutean izan dala? Neak agintzen dauzutu, zatoz nikin.

EMILLE.—~~XH~~ uf! ematzar ori!

BIANKE.—Ni onozu ernatxar. ni kddoizan nozun ori beistean biziera garbi ta zindoko baño.

EMILLE.—Bai, nl aña izan be zu petral-mutxikin ori! aj! zoaz ortik zear.

YAGOBA.—Gizon yator atsegingarriok, goazen Kasi errukarria zelan zaintzen daben ikusten, Erdi, emagaldtu, zuk zer barriak esan bear deuskuzuz, Emille, zoaz zu iski-Uo-gaztelura, ta esan nire yaun-andereai zer yazo dan. Goazen aurrera, ondo ba" deretxatzue. (Eere kitean) Au *aa* arako edo ni gizon egin, edo nire ondamentia tragarriko dauen gaba, (Alde dagie).

II AGERLEKU.--KUIPORTS, Gasteluko etzategi: DESTEMONE oean lo; argi bat erreten.

OTEL aurrera.

OTEL.—Au dok erruduna, ene biotz! Izar garbiok, nik ez al dautzuet aitatuko! Au dok erruduna. Orraitiño be nik eztoz ixuri gura orren odolik; ezta edurra baño zuriago ta oroitarriko kelegarra bestean leun dan narri ori urratu be (Ezpateari baztarrera eragiten dautso). Eta orraitiño be il bear dau, osteafl gizon geiagori be marro egingo leuskio-ta. Argi bata itzali, ta, gero, bestea; nik itzali ba'agit i, garretan acjon otsein ori, nik ostera be ixitu aiket, nik damu izatekotan: baña, Zer yakintsuaren eredurik bikainena augun beste argi ori, i bein itzaliakero. nik eztaikit non dan iri barriro argi eragiteko arako Pormeteu'n (20) beroa. Bein ire larrosea larrosodotik urratuazkero, nik ezin biztu ta azi eragin ostera be; nai-tanai-ez zimeldu egin bear; larrosondoan dagoño usain artuko dautsat (Mun egiten dautso DESTEMONE'ri). Arnasearen gozo! larrilari Zuzentzeari ezpateta ausiazto egiten dautsc! Beste bein, beste bein. Olangoxe zadiz ildakoan, eta nik il ecjingo zaudaz, eta gero maite izan, Beste bein. eta au da

azkenengoa; onen ondoren txarreko onen zer gozorik ezta izan eguño. Negar egingo dot, baña nire negarrok gogor-gordinak dira. Naibaga au zerutiko da, maitea yoten dau-ta, Atzarri da.

DESTEMONE.—Nor dogu emen? Otel ala?

OTEL.—Bai, Destemone.

DESTEMONE.—Eztazoz oera ala, ene yaun?

OTEL.—Egin dozu ototirik arrats onetan, Destemone?

DESTEMONE.—Bai, ene yaun.

OTEL.—Yaungoikoak oraindik azketslbako

(20) "Pormeteu" (Prometheus) Elade'tarren miti-iztiz ienein su-yaanko 'zan zan, geroago Titanetariko. Pormeteu gizonen adiskide izan, Tzeu cstera, arerio. Pormeteu'k Tzeu-netik sua ostu la gizonet ekarri eutsen. Pormeteu'ri lotsabako lapurretta orren zigorra ezarteko. Tzeu'k kale sendez estuita Eskiti'ko mendieta-  
ra eroan eta *an* aitz eskargari lotu eutsan. Egunez arranok yaten eutsan gibela Pormeteu errukarriari, baña aren elorrio gorriak atzenik ez izateko, gabaz gibela barriztau eta len añaiko egiten yakon.

- obenik gogoraizen ba'yatzu, len baño len azkets-eske yarri zakioz.
- DESTEMONE.—Ai ene! ene yaun, zer esan gurozu orregaz?
- OTEL.—Ba, egizu bai, ta arin egin be: bitartean ni emen ibiliko naz ara ta onaka; etzindukedaz il gura zure gogo gertau-aurretik; ez, -Yaungoikoarren, ez al dot egingo olangorik!— Nilt eneunke il gura zuis gogorik.
- DESTEMONE.—II esan dozu?
- OTEL.—Bai, oiixe esan dot.
- DESTEMONE.—Oirazkero ,Yaungoikoa erruki bekit!
- OTEL.—Olantxe, eta biotz biotzetik alan be!
- DESTEMONE.—Ori olan izatekotan, enozula ilgo ditxarot.
- OTEL.—Um!
- DESTEMONE.—Eta orraitioño nik bildur dauztut; zure begiak olan biiaka dabilztanetan zu bi' duigairi izaten zara-ta: nik eztaikit zegaitik fcilduirik izan bear dautzudan, errurik dodanik eztaikit-eta; baño orraitioño be bildur nazala asmatzen dot.
- OTEL.—Gogoratu zure okerreri ta obenak.
- DESTEMONE.—Orrakook zukanako maitasuna dira.
- OTEL.—Bai, eta egin-eginean be orrexegaitik ilgo zara.
- RESTEMONE.—Maite izanagaitik ilten dauen eriotzea izateaz besterako da.--Ai ene! Zegaitik ezarten dautsazuz aginak beko zpanari? Zure soña iñondiko biotzaldien batek ikarutzen dau: orrako orreik zerbait iragarten dabe; baño, orraitioño be nigaz zerikusirik eztabela uste dot, bai, alan uste dot.
- OTEL.—Ixilik, íxilik eta geldi egon!
- DESTEMONE.—Olantxe bedi. Zer yazoten da?
- OTEL.—Nik maite-maite izanarren, zuk Kasi'ri emon zeuntson nik zuri emoniko sur-zapia.
- DESTEMONE.—Ez, eta nire bizia ta nire gogoia yokatuko dautzudaz! Deitu ta itandu egiozu gizon orri.
- OTEL.—Emazte ezti ori, arduraz zabiltz, arduraz zatiltz zin-ausle ez izateko; zure eriotza-oean zatzaz.
- DESTEMONE.—Bai, baño ez bein-beinean ilteko.
- OTEL.—Bai, bertatik; orrazkero, autortu argi ta garbi zure obena; zuk banan-banan ukatuak eztau ez baztartuko, ezta itoko be niri intziri eragiten daustan susmo sendoa. Iiteko zara zu.
- DESTEMONE.—Orrazkero, nire eiruki bedi Yaungoikoa.
- OTEL.—Onako orri nik "olantxe" erantzuten dautsat.
- DESTEMONE.—Eta zu zeu be erruki zakidaz! Nik nire bizian eztautzut eguño okerrik egin; Kasi be eztoz eguño maite izan Yaungoikoak agintzen dauenez izan ezik: nik eztautzot emon eguño maitasun-agiririk.
- OTEL.—Yaungoikoarren. neuk ikusi dot arako sur-zapia aren eskuetan. Emakume zin-ausle ori! zuk arri egiten daustazu biotza ta nik Yaungoikoari egindako opatzat nebarnari erate-izena ezarriazoten daustazu: neuk ikusia dot sur-zapia.
- DESTEMONE.—Orrazkero, ak idoro egin >dau nonbaiten; nik eztautzot emon eguño: onot etorteko esaiozu; autoi dadjiala egia,
- OTEL.—Autor dau.
- DESTEMONE.—Zer, ene yaun?
- OTEL.—Zukin ibilia dala.
- DESTEMONE.—Zetan? Zantarkeritcn ala?
- OTEL.—Bai.
- DESTEMONE.—Eztau esango olangorik.
- OTEL.—Ez, aren agoa itxita dago; Yagobo zindoari agindu dautsat ori egiteko,
- DESTEMONE.—Ene! olangorik! nire bildurrak iragarri dau! Zer? II da ala?
- OTEL.—Buruan uletan aña bizi izan ba'leuz be, neuk eneunkean izango iguinik ni@ apen andiz guztiak kentzeko be.
- DESTEMONE.—Ai ene! a saldu egin dabe ta ni ondatu!
- OTEL.—Alde, emagaldu orrek! Neure auirean negar egitsn dautsazu?
- DESTEMONE.—Ene! erbesteratu nagizu, ene yaun, baño enagizu il.
- OTEL.—Bera, emagaldu ori!
- DESTEMONE.—Biar il nagizu; itxi egidazu biziten gau onetakoagaitik!
- OTEL.—Ez zirkinik ba'dagizu egin...
- DESTEMONE.—Ordu-erdi bakarrik!
- OTEL.—Bein eginazkero, eztago eperik,
- DESTEMONE.—Otoitxo bat egiteko lain baño ez!
- OTEL.—Beluegi da. (II egiten dau).
- EMILLE.—(Barrutik) Ene yaun on, ene yaun on! Ostera! ee! ene yaun, ene yaun!
- OTEL.—Ze zarata dogu ori? Eztago ilik ala? Ez ete dago osoan ilik? Gordin izananen, orainfik errukior naz; nik eneunke gura au neke-oñazetan egoterik. Eutsi au, eutsi au be. (Ezpatakada bi emoten dautsoz.~Barrutik). Ostera! ee! ene yaun, ene yaun!
- OTEL.—Nor 'ia or?
- EMILLE.—(Barrutik) Ene! ene yaun on, itz bat egin gura neunke zukin.
- OTEL.—Bai: Emille da; bai, bera da. Ori Kasi'n eriotzeaz itz egiteko dator, urrean; zara-tea gairatz izan da, A! ziikinik bez geia-

go? Obla lain ixilik eta geldi. Barrura sartzzen itxiko ete dautsat? Egoki izango ete da? Nire ustez, ori oraindik igi egiten da: ez. Zer izango ete da oba? Ori sartu ba'dadi. orrek nire emazteari itz egingo dautso. urrean: nire emaztea! nire emaztea! nongo nire emazte? Nik eztot emazerik. Ene! yasan-ezina da au! une onen larri! Nive ustez, orain eguzkia ta ilargia ilundu egin bear litzatekez, eta zer borobil ikaratu au, aldakuntza ori dala-ta, agoa zabalik imini.

EMILLE.—(Bairutik) Zukin itz egiteko eske natorizu, ene yaun on!

OTEL.—Zutzaz oiztuta nengoa: ene! sariu, F.mille. Astiro. Etxon apur baten, kurtxoi-nok zabaldu egin bear dodaz. Non zagoz? (Atea idigi egiten dau).

EMILLE autrera.

Zer yazoten yatzu tertzio onetan?

EMILLE.—Ene! ene yaun on. an aragoan erio-tza nazkagarri bat egin dabe!

OTEL.—Noz? Orain?

EMILLE.—Oraintsu baño oraintsuago, ene yaun.

OTEL.—Orrako orren enudun iretargia yatzu; oi dauen baño urrago eldu yako ludi oni, ta gizonai burutik eragin dautse.

EMILLE.—Kasi'k, ene yaun, Binixa'tar gazte, Errodeika izenekoa il dau.

OTEL.—Errodeika ilik! eta Kasi be ilik!

EMILLE.—Ez. Kasi eztago ilik.

OTEL.—Kasi ilik ez! Orrazkero eriotzeak okerreko bidea artu dau, eta apen gozoa zailnekor egingo yaku.

DESTEMONE.—Ene! ni guzurragaitik, guzurragaitik il nau!

EMILLE.—Ai ene! ze gedar dogu ori?

OTEL.—Ori! ori zer?

EMILLE.—Azkenetan, ai ene! orrako ori nire anderearen abotsa izan da. Lagun! lagun! ee! lagun! Andera ori, itz egizu ostera be! Destemone ezti ori! Andera laztan, itz egin.

DESTEMONE.—Erruga ilten naz ni.

EMILLE.—Ene bada! nok egin dau egiteko au?

DESTEMONE.—Inok bez: neuk. Agur! (II egiten da).

OTEL.—Eta izan be, zegaitik il bear eban inok ori?

EMILLE.—Ai ene! nok daki?

OTEL.—Zeuk enlzun daulsozu esaten berak il dauela bere burua, ez nik il dodanik.

EMILLE.—Bai, esan olan esan dau: nik egia esan bearko.

OTEL.—Orrek, guzurtiak lez, sulezako sute-

ra yoan bearko dau; neu izan nas ori ii dauena.

EMILLE.—Ene! ori olan izatekotan. ori angoruago ta zu txerren baltzagof

OTEL.—Zorakerietara itzuli zan, eta emagaldutan izan da.

EMILLE.—Zuk guzurra dirautsazu, ta txerren zara zu,

OTEL.—Ori ura baño ustelago izan da.

EMILLE.—Zu, ostera, sua lez, trakets eta bal-dar zara ori ustel zala esateko: ene! ori angeru lain zintzo izan da!

OTEL.—Kasi'k aragizkoa izan eban orrekin: itandu, ezpabe, zure senarrari, Enef Eldu nazan gogorkeriaren gogorkerira bide zuzen barik eldu izan ba'nintz, sulezarik sakonena be gitxi litzateks nitzako. Zure senarrak zeatz ekian dan-dana,

EMILLE.—Nire senarrak!

OTEL.—Bai, zure senarrak,

EMILLE.—Destemone bere senarrari ustel izan yakola?

OTEL.—Bai, Kasi'kin. Ez, a zintzo izan ba'li-Ixat, Yaungoikoak urre-arri zindo utsezko beste ludi bat egin izan ba'leust be, nik eneunkean salduko Destemone aren ordez,

EMILLE.—Nire senarrak!

OTEL.—Bai, a izan zan lenen esan eustana: a gizon zindo yatzu ta iguin dautso egite txarrai intsigiten yaken loiari.

EMILLE.—Nire senarrak!

OTEL.—Zer esan gura dau bein eta barriro zer bera esate orrek, emakume? Bai, zure senarrak diñot.

EMILLE.—^Andera ori! Zitalkeririk zitalenak maitasunari irri la iseka egin izan dautso! Nire senarrak esan Destemone ustel zala!

OTEL.—Bai, axek, emakume! Zure senarrak. diñot. Aitu ete daustazu? Nire adiskide, zure senar, Yagoba zindo-zindoak.

EMILLE.—Ak esan ba'dau ori ,aren gogo kaltegarria egunoro usteldu daitela, apurta-apurka! Guzurtl utsa da; Destemone'k lar maite izan dau Baltz zikina,

OTEL.—Gero!

EMILLE.—Egin zeinkenik btarrena egizu; zuk egin dozuna ezta zerugarriago, zu aren senargeiago izan zarean baño.

OTEL.—Ixilik, orixe datortzu zuri ondoen.

BMILLE.—Zuk niri min egitako baño adore geiago dot nik mina yasateko. Ero ori!, Kirten ori! Asto baño astoago ori! Zuk egin dozunarena! Eztot zure ezpatearen ardurarik; ogei bizi galduko ba'dodaz be, zuk zer egin dozun iragarriko dot. Lagun! lagun! ee! lagun! Mairuak nire anderea il daul eiate! erate!

MONTAN, GARTZEN eta YAGOBA aurrera.

MONTAN.—Zer dogu emen?—Gou on, guda-luru!

EMILLE.—Ene! emen zauguz, Yagoba? Ederra egin dozu, gizonak euren eriotzen errua zuri ezarten dautsue-ta.

GARTZEN.—Zer yazcien da, *hal*

EMILLE.—Zital au guzurtau egisu, gizon ba'zcira. Ustel yakolc emaztea zuk esan zeuntsola diño onek: rik ba-dakit zuk olajigcrik etzeuntsola esan: zu etzara orrenbesteraifoko zitalik; itz egizu, nik biotza ganezka dot-eta.

YAGOBA.—Nik oni nik uste nebana esom neuntson; eta nik eneunison esan besterik berorrek atakotzat eta egitzal eukana baño.

EMILLE.—Bcsña eguño esan ete dautsazu Destemor.e ustel yakolarik?

YAGOBA.—Bai, esan neuntson,

EMILLE.—Zuk guzurra esan zeuntson; guzur iguingarri, guzur askarri; neure gogoarren, guzurra; guzur utsa; Kasi'kin ustel izan yakola! Kasi'kin izan yakola esan zeuntson ala?

YAGOBA.—Bai, Kasi'kin, andera. Ixilik zagoz, lotu egizu miñ ori.

EMILLE.—Ez, ezot lotuko; itz egin-bearra dot: omen datza bere ocan nire anderea iñok ilda...

GLIZTIAK.—Yaungoikoarren, ez al da olangorik izango!

EMILLE.—Eta zure esanalc eragin 'dabe eriotza ori.

OTEL.—Ez, ez yarri agoak zabalik eta begiak yosirik, yaunok: benetan, egia da.

GARTZEN.—Iñondiko egia orixe!

MONTAN.—Eta egitearen mamuengarri!

EMILLE.—Zitalkeri, zitalkeri, zitalkeri! -Nik ba-dot susmca, bai, ba-dot susmnoa, artu dot usaina; -Zitalkenarena! --Lendik be ba-neban nik olangoren susmorik-; naibagearen naibagez neure burua ilgo dot; zitalkeri ori, zitalkeri ori!

YAGOBA.—Ostera! burutik egin yatzu a!a? Neuk agintzen dautzut, zoaz etxera.

EMILLE.—Gizon yaror onok, itxi egidazue itz egiten; niri orri men egitea dagokit, baña ez orain. -Ba-leiteke, Yagoba, ni eguño etxera ez yoatea be.

OTEL.—Ene! ene! ene! (Bere emaztea besartean estututen dau).

EMILLE.—Ez, ori ez; etzan zadiz lurrean eta orroaka ekiozu; eguño zerurantza begirik

eragi izan dauen errugarik eztieta il dozu-ta.

OTEL.—Ene! au zantar izan zan!... (Yagi egiten >ia) Ozta-ozta ezagun zaudaz, osaba: or datza zure illobea, beneian orainisu arnasea ebagi dautsadana: badakit ikuskizun au itzal eta ilun dana.

GARTZEN.—Destemone errukarri! Eskerrak zure aita ilik dala: zure ezkontzea aren eriotzea izan zan, eia naibagearen naibageak efen egin eban aren biziaren ari zarra; orain bizi izan ba'litz bizi, ikuskizun onek etsiaren erabagi Iarrien bat arrozoko leuskion, bai, angeru ona biraoka bere aldamenetik uxatu eta bera betiko galdu.

OTEL.—Negargarri da benetan; baña orraitino Yagoba'k daki orrek Kasi'kin egite lo>tsagarria miLa aldiz egin izan dauena; Kasi'k berak autortu izan dau ori: eta Destemone'k Kasi'n kutunkerien saritzai nik oni lenen niro maitasun-agiri ta baitzat emoneko zer bera emon aulson Kasi'ri: orrako ori neuk ikusia dot Kasi'n eskuetan: sur-zapi yatzun, befiola nire aitak nire amari emoneko esku-erakutsi zarra,

EMILLE.—Ene Yaungoikoa! ene Yaungoiko altsu!

YAGOBA.—Tira, ixilik zagoz.

EMILLE.—Argituko da, argituko da; -ni ixilik! Ez, ipar-axeak lez, nik lokarri barik itz egingo dot; Yaungoikoak, gizonak eta txerrenak, guztiak, guztiak, guzti-guztiak lotsatuta itxiko ba'nabe be, nik itz egingo dot.

YAGOBA.—Zur zadiz, eta zoaz etxera.

EMILLE.—Ez, enaz yoango (YAGOBA'k bere emaztea ilgoarena egiten dau ezpateaz),

GARTZEN.—Uf! ire ezpateaz emakumeri eraso?

EMILLE.—Mairu baltz ori! zuk aitatu dozun sur-zapi ori neuk idoro neban alan bearez, eta nire senarri emon neuntson; olango aletzeri egokion baño iñondiko yoran eta leia andigogaz nik ostuteko sarri-sarritan eskatu eustalako.

YAGOBA.—Emagaldu zistrin-zital ori!

EMILLE.—Destemone'k emon be Kasi'ri! ez, ez, neuk idoro neban, eta neuk emon neuntson nire senarri.

YAGOBA.—Txarri ori, zuk guzurra diñozu!

EMILLE.—Yaungoikoarren, nik eztiñot guzurrik, gizon yatorrok. Eraie ero, zer zara zu zure emazte onaren aliean? (YAGOBA'k EMILLE eran eta igesi egiten dau).

OTEL.—Ez ete dago ortzian oñaztarriaz beste arririk? -Bestelango zital ori!

GARTZEN.—Lurrera yausi da emakumea;



orrek bere emaztea eran egin dau, urrean.  
EMILLE.—Bai, bai; ene! nire anderearen aldamenean ezarri nagizue.

GARTZEN.—A yoan da, baña aren emaztea eranik dago.

MONTAN.—Zital uts yatzu a. Eutsi Mairuari kendu dautsodan iskillu au: tira, yagon atea, ate-aldeetik; eztagiala igaro, olangorik egin baño len il baño. Neu yoango naz zital aren billa, a yopu askarri da-ta.

(GARTZEN'ek eta MONTAN'ek alde dagie),

OTEL.—Ni be enozu adoretsu, baña txutxuputxu mingor oro eltzen yako nire ezpateari: -baña deduak zegaitik eta zetarako bizi bear dau, bein zindotasuna ilazkero? Biak batera doazala.

EMILLE.—Zer iragarten eban arako zure abes-tiak, andera? So! entzun ete daikedazu? Nik zisnearena egingo dot, eta abestu-ala il: "Sarats, sarats, sarats" (Abesten dara-goio). Mairu, Destemone kutsuga, garbi zan; ak maite zinduzan, Maitu gordin; egia diñodan lez, artez-arlez yoango al da nire gogoaz zori onera; nire biotzetikoa esanez il egiten naz, il egiten naz. (Il egiten da).

OTEL.—Nik beste iskillu bat dot emen etzan-goan; España'tiko ezpata da, ur otzetan be-ratua; ara! emen dago. Osaba, nik urten egin bear dot.

GARTZEN — (Barrutik) Olangorik egiten azar-tu ba'adi, ondo ordaindu bearko dok; ik ez-tok iskillorik, eta nai-ta-nai-ez epe artu bearko dok.

OTEL.—Nire begira egon beín, eta gero itz egi-dazu, ostein. iskillu barik egonarren, eraso egingo dautzut-eta,

GARTZEN aurrera ostera be.

GARTZEN.—Zer yazoten da?

OTEL.—Begira, nik ba-dot iskillorik; au baño oberik ezta egon eguño dtingilizka gudari-ren iztarretik: ikusia dot nik eguna beso txi-ki onegaz eta ezpata bikain onegaz, zure eragozpena baño ogei bider eragozpen eta oztopo andiagoak zear bideci urratu izan dodana: baña arrokeri onen utsa! Nor da norbere zori edo etorkizunaren yabe? Orain besterik da. Iskilloagaz nakusazunarren, ez izan bildurrik; emen da nire bidaldiaren azkena; emen nire azkenengo itxas-aldiaren legorrargia. Atzeraka egiten dozu larri? Al-perriko bildur dozu ori; bat il, ez besterik, urreratu egiozu Otel'eri bularrera, bai, eta ak atzera egingo dau: -nora yoateko Otel? Zelango antza dozu zuk ordin? Zori txar-reko emakume erukarri ori! Zurbil eta zu-

ri zure yantzia legetxe! Gure buruak zuri-tzen alkarrekin batu gaitezanean, zure anta onek nire gogoaz egotzi ta yaurtin egingo dau 'donokitik, eta txerrenak elduko dau-tsoe. Otzik, otzik zagoz, ene neskato! Egin-eginean be zure garbitasuna legetxe. Yopu askarri, yopu askarri ori! -Narrua berotu ta eratsi egidazue, txerrenok, eta uxatu nl ikuskizun zerutar onen aurretik! Iztenak era-gin eta laño-odefetaño bidali nagizue! erre ta kiskali nagizue kirastautsetan! on-dobako sulezetan su urtuian ikuzi nagizue! Destemone laztan ori! ilik, Destemone! ilile! ai ene!

LUDOBICA, MONTAN, KASI, au yezarlekuan dakarrela, eta Erri-otseinak, eta YAGOBA atxilotuta, aurrera.

LUDOBICA.—Íion da gizon zctkar eta zeri txar-txarreko ori?

OTEL.—Orrako ori Oiel zana da; emen no-zu.

LUDOBICA.—Non da arako a sugegorria? Ekarri ona aurrera a zitala.

OTEL.—Ni orrako orren oñak begira nago, -baña guzurra da, ipuin utsa-. Txerren ba'az, ezin il izango aui (YAGOBA zauritu egi-ten dau).

LUDOBICA.—Ken egiozue ezpatea,

YAGOBA.—Odola ba-darit; baña enaz il,

OTEL.—Etxoat orren tamalik be: nik i bizi-tea gura yoat nire eretxiz, iltea zori on dok-eta,

LUDOBICA.—Otel, Otel, beñola orren on izan eta yopu gaiztetsi-askarri orren sareetara yausi ori, zer esateko nik zuri?

OTEL.—Ba! edozer: gura ba'dozu, erale zindo nazala esan egizu; eta izan be, nik ezto egin ezer gorrotoz, dana zindo baño,

LUDOBICA.—Zori txarreko onek bere zitaikeriaren zali bal autorlu dau; zu ta ori Kasi'n eriotzan kide izan ete zarie?

OTEL.—Bai.

KASI.—Gudalburu maite, nik eztautzut emon eguño orretarako biderik.

OTEL.—Sinisten dot ori, ta orresegaitik az-kets-eske nagotzu. Erdi-txerren orri agindu-lo ete dautsozu, arren, zegaitik goatu dou-zan bere sareetan nire soña ta gogoaz biak batera?

YAGOBA.—Ez agindu niri ezer; dakizuna ba-dakizu: oraindik aitzina nik ezto itzik geia-go egingo.

LUDOBICA.—Ostera! otoi egiteko bez?

GARTZEN.—Elorrio gorriak idigiko yoezak ire ezpanak,

- OTEL.—Tiruk, ik ondoen egfien dok.
- LUDOBİKA.—Yaun, aituko dok zev eta zelan yazo dan, dirudianez ik eztatik-eta. Aiko amen Errodeika zanaren sakelean idoroko idazkia; eta emen beste bat: bata Errodeika'k beregan artuko Kasi'n eriotzeazkoa dok.
- OTEL.—Zital ori!
- KASI.—Egikizun zakarr-askarri ta kistarri eztagokona!
- LUDOBİKA.—Beste idazkia zinkurin-idazkia da, au be aren sakelean idoroa; eta, dirudianez, Errodeika'k au zital-askam oni bidaltzeko asmoa eban; baña bitartean Yagoba Errodeika'gana etorri ta bere burua zurituarena egin eban, urrean.
- OTEL.—Yopu amurratu ori! Kasi, zelan eldu zan zure eskuefara nik nire emazteari emoneko arako sur-zapia?
- KASI.—Nik nire etzategian idoro neban; eta orrek berorrek autortu dau oraintxe-oraintxe berorrek egotzi ebula ara, bere ondereña izan dauen orren asmerako,
- OTEL.—Nivearen ero! nirearen ero! nirearen ero!
- KAS<sup>T</sup>.—Ganera, Errodeika'n idazkian aurkitzen denez, ak Yagoba'ri akar egiten dautso Yagoba'k burua berotu eutsola arako gau-zaintzean gengozeanean ak niri eupada egiteko; eta arako aren ondoreña izan zan niri agintzea kentzea; eia oraindik orainxe-oruintxe be ak itz egin dau, aspal-di iltzaí egonarren, -Yagoba'k zirikatu eban, Yagoba'k bultzau eban.
- LUDOBİKA.—Zuk, emendik alde eginda, gukin batera yoan bear dozu; zure eskubide ta aginpidea kendu yatzuz, eta Kasi da Kuiporste'eko agintari nagusi. Yopu orregazko, -orri elerrio gorriak ikusiazotsko, ta luzaro ikusiazoteko, asmau leitekezan gordinkeri guztiak orrentzako izango dira. Zu giltzapean atxilo egongo zara, Binixa'ko lege-erriak zure okerra zelango dan yakin arte. Ia ,atera emendik.
- OTEL.—Astiro, astiro; iru-lau itz zuok alde egin baño len. Nik lege-erriari otseintza onik egin izan dautsot, eta au aik eurak be badakie; onetzaz itzik bez geiago. Nik au eskatzen dautzuet, zera, zuon idazkian, yazokune zori txarrekoak azaldu ta eralgi dagizuezeanean, ni nazan langoxe iragarri nagizueta; ez arinagotu, ez gitxiagotu ezer, ezta gogo txarrez okerrik azi ta puztu be; urli onek geiegi, baña buru gitxiegi, mai-

te izan ebala esan; etzala izan maite bekaizkerira erraz itzultzeko, baña, iñok orretara eragin eta bultzauia, azkenean burua galdu ebala; urli onen eskuak, arako Yudar zistrinak legetxe, bere leñu osoa baño ederrago zan pitxia ortik zeax yaurtin ebala; urli onen begiak, samurgalxak izanarren, bein samurtuazkero, Arabi'ko zugatzak euren negar intsikor-osakorra ixurizen daben bestean arin eta atentzaka negarrez eragoioela. Idatzi onako au be: eta esan orrez ganera, nik bein Alepo'n (21), Binixa'tar bat yoten eta Binixa'ko lege-erriaz txarto esaka eragoiön Turkar gaizto-burusorkidunari, nik txakur erdaindu (22) arí idu netik eldu ta il egin nebala, -onantxe, (Bere buruari ezpatea sartzen dautso).

LUDOBİKA.—Aldion odoltsu ta gordin!

GARTZEN.—Guk erabagi guztia lerrindu yaku.

OTEL.—Eran-urretik nik mun egin neuntzun; -eztago beste biderik (DESTEMONE'n ganera yausten da), neurre burua ilda, zure ganean zuri mosuka il baño. (II egiten da).

GARTZEN.—Onako onen bildur ba-nintzan ni, baña nik enebun uste orrek iskillorik ebanik; eta izan be, ori biotz andiko gizon yatzun.

LUDOBİKA.—(YAGOB'A'ri) Esparte'tar ixakur txatxar-zantar. larria, gosea naiz itxasoa baño bildurgarriago ori! so egiok oe orrek gunean dauen zamu odoltsu orri; ire lana dok ori; ori ikusiak begiak gexotu egiten yozak; estali egizue, arren. Gartzen, zuk yagon etxe au, Mairuaren ondasunen yabetu zuitez, zure ondare dira-ía. Zuri, yaurle yaun orri, zuri dagotzu sulezako zital-ziztrin oni bere zigorra ezarteu,- zeuk ikusi noz, non, eta zetariko zigorkeraz, Ene! ezarri egiozu, ía ondo ezarri be! ni neu bertatik noa ontzira; eta lege-erriari biotz samínez beteaz iragarriko dautsot yazokune negargarri-itzal au. Alde dagie).

(21) Alepo, Uri au Siri'koa yatzu ta Turki'ren mugatik ur aurkitz&n da Siri'n iparraldean.

(22) Turkar'ari "Ixakur erdaindu" ©reisten dau'so emen Otel'ek. Eztakit zegaitik. Erdafinketa Yudarren ekoiidu da. Ukuzpena kistarrena dau legetxe. Zer batzuetan Shakespeare'k edestiari lotsa gitxi izaten dautso. Emen dogu aie bat ori erakusteko.

## AMAIA

## I Z T E G I

ANABAKA.—Zer askoren naste.

APEN.—Egin dauen okerraren alderako norbaiteri emoten yakon zigorra. Ori ezta, ez, masalla batean yo gauzanari bestea be opatzea, al ba'dogu, berari masalla bata naiz biak ondo berotzea baño.

ARERIA.—Bekaizkeri, areriotasun. Itz au neure bizian bein bakarrik entzun dot, eta be-rean Oñati'n. Zañartu'n Mugartza etxeko etxandera zar Mugartza'tar Emeteri'n emazte Mercedes'egaz nengoan berbetan, eta alango baten esakune au eralgi eustan Mercedes zanak:" Arerian esango ba'litxako be". Gorrotoz esango ba'litxako be esan gura eban Mugartza'ko etzandera ak.

ASPERTU.—Zerbaitez asetu, iguindu; baita apen artu be. Ikur biok alkarren senide dira. Izan be, geuk gura añako apenik artu al izanazkero, asazkatuaren asazkatuz asetuta, iguinJurik gelditzen gara.

ASPERKUNDE.—Apen-aldi.

BEDA.—Edan begi.

ENTZIN.—Norbaitegan uuste osoa izan zintzo izango yakula, emon dauskun itza beteko daskula; ezkauzala salduko.

ERAN.—Norbait, naiz zerbait il eragin. Itz zar au oraingo euzkeldunen agotik eztozu entzungo, baña bai entzungo zenduan beñolakoenetik. Oraingoak "eran" ordez il esaten dautzue.

ERATE.—Norbait il eragite.

ETOI.—Saltzalla, azpiyale. Yosu-Kísto'ren amabi ikasleetarik bat, Iskariote'tar Yuda, etoi izan zan, Yosu-Kisto saldu egin eban-ta.

ETOIKERI.—Etoiaren egina.

KALLO-KALLO.—Itz au umetxoai itz egiteko erabiten da geien baten. Umsa "kallo-kallo" eroatea lepoan eroatea da.

ÍZPERA, IZKORA.—Itxasoko urak geldi eztira egoten, ibili dabiltz atentzaka, bein izparrerrantza, bein itxas-barrurantz. Izparrerrantza ba'doaz, "izkora" dala esaten dogu; itxas-barrurantz ba'doaz, "izpera" dala.

IKURRINDUN.—Gudaritzan gudaiburu nagusienetik gudari soileraño malla asko aurkitzen dira, mallotatik bateri Ikurrindun deretxo, olango mallakoak beñola ikurriña, gudaikurriña eroaten ebalako. Españarrak orain

olango mallakoari "alferez" esaten dautsoe. Olango mallako zan Yagoba Otel'en gudarostean.

LANDER.—Txiro, bearreko, ondasunbako.

LENGAI.—Lenengo gai. Lenagokoak zer guztiak eguratsez (aidez), suz eta urez osotuak zirala uste eban, eta orregaitik, eguratsari, suari ta urari "Iengai" eresten eutssn.

MARGO.—Kolare, euskel-gaiztoz.

MARGOZTAU.—Margo edo kolore ezarri.

ORDOKI.—Goiko zelai, andi naiz txiki. Niro ustez, Araba ta ordoki biak dira ikur berekoak. Gorbaie'ko "Arraba" arri-aba, aitzondoko zelai da. Gorbaie'n bertan Arimagorta = Aramagorta = Arabagorta = Ordokiko ikuspegi. Araba = (G) ara-aba = Araba. Orrazkero, "Aralar" be Gara-lar litzateke, "goiko lar", goiko larre.

TXATAR.—Txinpart, txindar, pindar, iñar.

URUTU.—Uin, itxasoan ibili dabilen urak egiten dauzan bizkarrai deritxe urutu edo uin.

YAKINKIDETZA—Euzkel gaiztoz "kontzentzi". Zerbait neuk eta bestek ba' dakigu, ni yakinkide naz; bestek ba'daki, baña nik ez, ni enaz yakinkide. Urlik gaur yai-egun dana ba-daki, nik ez, ni gaur larunbata dala-kotan nago; urli meza entzuten yoan da, ni ez; urlik yakin dau ni enazala yoan mezatara ta or dabil auzokoakin marmarka ni mezatara yoan enazalako, niri narrua erasten, ni ikatza baño baltzago yarten, ez olangorik esaterik Yaungoikoak aginduta dagoalako. Yaungoikoak daki ni enazana aelditu meza entzuteka ez gaiztakeriz, ezta zabarkeriz be, gaur igande danik eztakidalako baño. Nire yakinkidetzea oker dago, ni enaz gaur yakinkide ez Yaungoikoa'kin, ez nire auzoko urlikin. Aik zer bat uste dabe, nik beste bat; aik ba-dakie gaur igande dana, nik ez; ni enaz yakinkide. Oben egin ete Jot gaur mezarik entzun ezagaitik? Bai zera! Zuk yakinkidetza okerra zeure erruz ezpa'dozu, zuk zure yakinkidetzeari yarraiz eztozu obenik egiten. Zuk egiten ozuna ba-leiteke berez oben izatea, zillegi ez izatea, ta, olan izatekotan, Yaungoikoak (Ak edozer daki-ta) ori oben dala yakitea, baña zuk zeuk, egia yakiteko egin-

alak egin izanarren, ezpa'dakizu. zu yakinkide ezpa'zara, zuk egina zutzako ezta oben, eta Yaungoiko zuzenak etzauz zigortuko orregaitik, Zegaitik ez? Zu yakinkide izan etzarealako.

ZILLEGIZTILARI.—Zer dan eta zer eztan zillegi arakatu ta aztertzen daragoioenai deretxegu zillegiztilari. Gizonak zer batzuk egiteko aginduta dauz, beste batzuk ez egiteko, esaterako, "Zure gurasoai lotsa izan", eta "Ez inor il", Egin daikeguna zillegi yaku, zerbait egitea galazota ba'dogu, olan gorik egitea etxaku zillegi. Zillegiztilari batzuk estu-zorrotzak izaten dira, zeruko ateaq diran baño estuago egin gura dabez, zerura inor estu-estuka ta bultzaka izan ezik sartu eztaiten; beste batzuk, ostera, ateaq nasaitu egin gura dabez, ara yentea eroso, nasai-nasai eta moltsoka sartu daiten. Zeruko ateaq geldizteza ez ete onen?

ZINKIDETU.—Yaungoiko, naiz izakien izenez norbaiteri, naiz zerbaiteri zerbait agintzea,

Zinkidetu ordez "araotu" be esaten dabe batzuk. Zure soloan mamarro, zorri, naiz beste kutsu kaltegarri bat agertu yatzu; zure abereak gaxotu egin dira, Estu ta larriri erriko abadeagana zoaz. Or dator abadea txaka-txaka zure aldamenen zure solora naiz kortara; eldu zarie batera naiz bestera; abadea, esku batean otoi-idaztia ta bestean ur onetsia dauela ta inguruetara begirakune zorrotz egotzita, asten da idaztitik zerbait irakurten, eta bitartean anzagoz zu aren aldamenen txapela eskue-tan dozua; abadeak, marmarka daragoiola, nozik-bein begirakune zorrotzak egotzen dauz aurrera ta alboetara, ta alango baten kutsu ta pizti kaltegarroi Yaungoiko aitaren, Ssmearen eta Goteunaren izenez andik alde egiteko aginduta, aurreko solo, naiz abereok ur onetsiz txipiriztinduten dauz. Egitekoa egin da, Abadeak solo naiz ubereok kutsutu tu galdu-aginik ciuzan gatxa "zinkidetu" dau.

# ATENAI'KO TIMON

(TIMON OF ATHENS)



# ATENAI'KO TIMON

(TIMON OF ATHENS)

## ANTZERRI ONETAN ANTZEZTURIKO LAGUNAK

TIMON, Alenai'tar aitonssme.

LUKUL 1

LUKI < Andiki Timon'en zuritzalleak.

SENPORNÍ (

BENTIDS, TIMON'en adiskide usteletaiko *baU*

ALKIBIADETS, Atenai'tar Gudalburu,

APEMANTA, Yakintzazale zakar.

PALBI, TIMON'en ondasunzai.

PALMINÍ I

LUKILI } TSMON'en Otseinak.

SERBILI )

KAPI

PILOTA

TITA TIMON'en artuendunen Otseinak.

LUKI

ORTENSI

BARRON'en Otsein bi.

IXIDOR'en Otsein.

TIMON'en artuendunetailio bi.

KUPIDA ta Marrodunak,

Iru arrotz edo erbestetar.

Olerkari.

Margolari,

Pitxidun.

Salerosle.

Atenai'tar Agure baí.

Eskumutil bat,

Ergel bat.

TIMANDERE

PIRNE Biak Alkib'adets'en oe-lagunak.

Besie Andiki, Agure-batzorreko, Agintzo-gudarL Guduri, Lapur, eta Laguntzakook.

AGERLEKU.-ATENAI ia inguru-marlko basoak.

## I EKITALDI

I AGERLEKU.-ATENAI. TIMON'eneko areto bat.

OLERKARIA, MARGOLARIA, PITXIDUNA, SALEROSLEA, ta beste batzuk aurrera, ainbat atetatik.

OLERK.—Egun on, yaun,

MARG.—Poztuten nok i onik eta ondo ikusiaz,

OLERK.—Ez aut ikusi aspaldi onetan; zelan yoak mundua?

MARG.—Aziago ta zarrago, yaun.

OLERK.—Baí, ba-yakiat ori; baña ez ete yoagu ezetariko zer bakanik? Olongorik eguño

- entzun eztan inondikorik? Ara, ara! esluza-baltasun orren lilurapena; biotz guztiok liluraiu yozak ire otseintzarako ire alak, ire indarrak. Ba-dazaut saleroslea.
- MARG.—Biak dazaudaz nik; pitxíduna da bestea.
- SALER.—Ene! aintzako da andiki ori!
- PITX.—Bai, edonok yakik ori.
- SALER.—Gizonik bardinbakoena dok ori; neketzaka ta etentzaka daragoiola ontasunari esan ledike. Or yoak bera.
- PITX.—Pitxi bat dakat einen.
- SALER.—Ene! itxi egidazu ikusten, arren: Timon yaunarentzako dok, ala?
- PITX.—Berau gei dan beste opatu ba'dagi bai: baña pitxi pitxi ori...
- OLER.—(Bere kitean). "Orbandu egiten dogu zer onari egoki datorkozan itzen ederra sarria-arren zer zakar-zirtzilik goratzen dogu-nean".
- SALER.—(Pítxla begíra-begíra). Eder dirudi.
- PITX.—Eder eta pitxi: ura dozu emen, begira.
- MARG.—(Olerkariari). Lanen batek beregan-durik zauz zu, yaun, yaun andi orri opaturiko lanen batek beregandurik.
- OLERK.—Uskeri bat urten yat berez. Zugatzen barruko negarra langotsu yatsu gure olerkia, yaten emoten yakon lekutik dario-na: suarriko surik ezta agertzen suarria yo ezik; bere kitetik sortu ta yagiten da gure gar atsegingarria, eta yoan doa ur biziaren antzera; asarre ta orroaka aurrera egiten dau bidean aurkitzen dauzan ostopo ta mugen ganetik. Zer dozu or?
- MARG.—Margoki bat, "pinture" bat, yaun.--Eta noz urteteko, noz agertzeko da zure Idaztia?
- OLERK.—Bera nik aii erakutsita ara, yaun. Dakusagun zure lana,
- MARG.—Lan on yatsu au.
- OLERK.—Ba-da izan be: benetan, Ian on eta gallen da ori.
- MARG.—Alosoko da.
- OLERK.—Arrigarri da: yasa onek dauen esan-gurearena! Begioi darioen gogo-indarrarena! Ezpanok erdi-idigiten dauzan irudimenaren andi! Orren yaseak itzik egiteka igarri ledike zer esan gura dauen.
- MARG.—Polito darakus bizia. Emen dozu ukutu bat; ondo ete dago?
- OLERK.—Berezkoa bera baño be obeto dago; ederrago da. Bizia bera baño be biziago agiri da emen asmau eta iruditua.
- Sartu-ala yoan doaz agure-batzorkide batzuk,
- MARG.—Yaun onek yarrailetan dauenarena!
- OLERK.—Atenai'ko agure-batzarkfde yatsuz orreik: gizon orren zori ontsu!
- MARG.—Ara. oraindak geiago!
- OLERK.—Ba-dakusazu etorri bearra lango etorri bear au, ikusu-urloi au. Eguzkipeko mundu onek txerarik argiena egin eta besoak zabalik besartean maitakiro estututen dauen gizona iruditu dot nire lan zakarrean; nasai eta bere gogara daragoio nire lanak, argizagizko itsaso zabalean ba'lebil legetxe, gizon orren onako naiz orreko zeri beren-beregi erago bagarrik, besteak baño zeatzago ukutu ta azaldu bagarik: eztago begi txarrezko ezetar'ko ukuturik, ezta olan-goren bilderrik be nire eragoan; dana doa goitik, arranoaren egazkadearen antzera: aurrera ta aurrera kementsu ta ausarditsu, atzean lorratzik ezetarikorik itxi bagarik.
- HARG.—Zelan ulertu ta aituko nik zuk diñozun ori?
- OLERK.—Neuk azaldu ta argituko dautsut, Zeuk dakusazu guztitariko gizonak, biotz guztiak, bai aldakorren eta labanetak, bai yarri ta benenak, guztiak dirala Timon yaunaren otsein; on eta txerakor izatetik datorkola ari bere ondasuntza andia, etu ondasuntza orregaz beraganako maitasun eta otseintzara guztitariko biotzak benderatu ta beartzen dauzala; bai, zuritzalle arpegi-gogoretik usita, bere buruari iguin izatea baño maiteago zer gitxi dauzan Apemanta' ganañokoeuak: ak berak be makurtzen dau belauña Timon'en aurrean, eta bere burua aberastzat dauela ta baketan gelditzen da axe be Timon'ek txerarik egiten dautsanean.
- MARG.—Biak dodaz ikusirik alkarregaz berbetan,
- OLERK.—Yaun, mendi goi eta atsegingarrian bakaulkion yezarrita iruditu dot nik Zori Ona: mundu borobil onen ganean dagozan baño gorago igoteko aleginak alegin egiten daragoioen guztitariko gizonak agiri dira arako mendiaren oñetan: guztiotatik bateri emon dautsat Timon yaunaren antza; gorengo Andera agan yosita dauz ak bere begiak, eta arako Zori Onak beraganako kiñu egiten dautso bere boli-eskuz; eta esku-erakutsi orren bidez bertatik Timon'en yopu ta otsein egiten dauz aren ieiakideak.
- MARG.—Ondo asmauta orrako ori. Gure trebetasunez legokez ondo azaldu ta iragarri-ta bakaulki ori, Zori On ori, eta mendi ori, mendiaren oñetan dagozan beste gizon guztien artetik zori onureii billa mendi burru-



tzaren egala-gora buru-makur igoteko kiñu egiten yakon gizon bakarra ta guzti, nire ustez.

OLERK.—Bai, yaun, baña entzuidazu. Ointsu be ointsu aren lagun izan diranak, -ba. tzuk bera baño be aintzakoago izan diranak, -bere yarraí dauz orain, bere beba. rruak artuala dagoz, ak noz dei egingo begira, belarriia txutxuputzuka itz egiten dautsoe, aren zaldi-mallak eurak be guren-tzat dabez, ela aren ederrelsiatz artzen da-be arnasea be.

MARG.—Bai, bai orixe, eta ortik zer?

OLERK.—Zoriak, bere gogo ta gogaldia aldatuaz, len kutun izan yakona bera goitik bera aztalka ta ostikoka egozten dauenean, aren atzetik mendi-egalak gora belauganean eta katu-katuka be igon ziranak, andik bera yausten izten dautsoe, bat bera be aien lagun izateka. aren oñak andik bera zirrist eta laban egiten dabenean.

MARG.—Geienetan edo beti yazoten da oii: Zoriaren olango zartadak egiten dabena itzak baño obeto erakusten daben amaika irudi egin-ezinik eztoz nik. Orraitiño be endo egingo dozu Timon'eri esan ba'dagio-zu begi apalak ikusi jzan dabezala oñak burua baño gorago eroezan gizonak,

Turut-ots. TIMON aurcera, laguntzakoakaz.

BENTIDI'ren otseina agaz izketan.

TIM.—Baitegian dagola esan dok, ala?

BENT-OTS.—Bai, ene yaun ort: iru talent dira aren zorra; labur eta motz da aren eskuarte, zorrotz-zorrotzak aren artuendunak: baitegian sartu dabenezkako zure idazkiaren eske ta begira dago a; eta orrek uts egin ba'dagio, agur aren itxaroena.

TIM.—Bentidi zindo ori! Tira: enozu ni beaieren nauenean nire adiskiderik ortik zear bialtzeke arikorik. Laguntza-bearrean dagon aitonsemerik nik ezautzekotan, izango dau nire laguntzea: aren zorra neuk ordaindu ta yareiko dot a.

BENT-OTS.—Zuganako betiko zorieran itxiko dozu a.

TIM.—Emoiozak nire gorantziak; bialduko yausat a yareitekoa, eta bein yareitakoan nigana dalorrela esaiok: ezta asko makal eta mengelen lagun izatea, yagi dadizan; eutsin be egin bear yake, bein yagiakzeio. Onik eta ondo abil.

BENT-OTS.—Zori ona lagun izango al yatsu yaun dedutsu orri,

ATENAI'lar agure bat aurrera.

AT-AGUH.—Entzun nagizu, Timon yaun.

TIM.—Ncrsn itz egizu, aitr on.

AT-AGUn. -Lukili deiebecon olseinik !a-do« zuk.

TIM.—Bai, ba-dot izan be. Zer dakazu atzaz?

AT-AGUR,—Tbnon zindo be zindo. ona zure auirera dei egiozu gizon orri.

TIM.—Emen dagozanetariko da. a/a ez? Lukilil

LUKILI aurrera Laguntzakoan artetik,

LUK.—Emen nozu zu yaun orren otseintzarako,

AT-AGUR, -Urli au, zurs otsein au, Timon yaun, gabaz etorten da nirera. Irabaziaren aldeko gizon nozu ni yalo nintzanakeroi eta maian okelea ebaten baño eztakian gizona baño goragokorik dagoko nirs egoksrari yarusle edo ondorengotzat.

TIM.—Tira ba; zer geiago?

AT-AGUR.—Alaba bakarratz beste seniderik eztoz nik, nire ondasunen yabe egiteko; lirain da neskatoa, gazterik asko senargeirik izateko, eta diruak diru erclski izan dodas: ari trebetasunik onenak irakasten, Zure gizon au dabilko ari kutunkerietan: arren, yaun zindo, lagun zakidaz oni aia yoatea galazoten; alpeniko izan diia nire esanak.

TIM.—Eztan akatsik gizon orrek.

AT-AGUR.—Zuk diñozunazkero, eztau izango, Timon: akatsik eztauenazkero ondasunik asko beionek dau-ta, eztau artu bear nire alabarik.

TIM.—Maite ete dau ori neskatoa?

AT-AGUR.—Gazte ta maitabera da neskatoa: geure oar-ikasiak, geure lerak erakusten daukue gazteen arinkeria noiañoiko dan.

TIM.—(LUKILI'ri). Maite dok ik neskatoa, ala?

LUK.—Bai, ene yaun on: eta neskatoak ederre-  
rresten dau orrako ori.

AT-AGUR.—Nire edenetsiik izan ezpa'dagi ezkontza orrek, yainkoak bediz lekuko ta autorla, nire yarusle edo ondorengotzat munduko eskekoak aitu ta neskatoa deusik bagaik itxiko dodala.

TIM.—Ze ezkontsari emongo dautsazu bere mallakori, neskatoa bere bardinagaz ezkondu ba'dadi?

AT-AGUR.—Iu talent oiaingoz; dana gerora.

TIM.—Luzaro izan da nira otsein aitonseme au: indar apur bat, alegintxo bat egingo dot gizon onen ondasunak obaturteko, gizonen biotzak alkairi loturik dagoz-eta. Emoiozu zure alabea: zuk ari zenbat emon,

- neuk ezarrilco dautsat neuretik onenarl, tire-na bardiaduteko lain,
- AT-AGUR.—Yaun zindo zindo ori, gizon zindoren itza emoidazu zure agindu orren baitzat, bai, eta bere dau gizon orrek nire alabea.
- TIM.—Eutsi nire eskua; nire dedua baitzen dot nire aginduaren alde.
- AT-AGUR.—Apal apalik nire eskerrak zuri, yaun orri, ez al yat etorriko zoririk eta egoterik nire ezeze zure be izango eztanik! ÍLUKILI'k eta Atenai'tar agureo.k alde).
- QLERK.—Onizat artuko csl dozu nire lana, eta luzaro biziko al zara, yaun ori!
- TIM.—Eskerrik asko: laster nozu atzera ?u-gaz; ez alde egin.-Zer dozu or, adiskide?
- MARG.—Margo-lan bat. eta arren dagitsut artu dagizula yaun orrek.
- TIM.—Beti da ondo elorria margo-lann, Larri-larri gizon yator yatsu margo-lan ori; eta, izan be, laidoak gizona sal-eroska darabilenazkero, gizonaren gogoia sal-eroska darabilenazkero, azal utsa gelditzen yako gizonari: margozturiko irudiak, ostera, eurak diran langoxe agiri dira. Begiko yat zure lana; eta zeuk ikusiko dozu gogoko yatala: etxoizu ni barriro etorri arte.
- MARG.—Yainkoalc yagon eta gordeko al za-bez!
- TIM.—Onik eta ondo ibili, aitonseme ori: ekadazu bosteko ori: batera bazkaldu bear dogo. Yaun, goratuaren goratuz nekaturik dago zure pitxia, gorapenok eroan-ezinik.
- PITX.—Ba! ene yaun. ezetsi, arbuaiatu egin dabe, ala?
- TIM.—Gorapen utsak, ganazko gorapenak izan dauz-eta, gorapenon neurriz ordaindu bear ba'neu bera, murraturik geldituko nintzake.
- PITX.—Ene yaun, onango zerak saltzen dabezanak etsiko leukiena beste baño eztago etsita au. Baña zuk ondo dakizunez gitxi gei diran zerak, gitxi balio dabenak, yabegandik yabegana eskuz aldaturik, yabeak eurak esten dabena dira gei, ainbeste balio dabe: sinistu egidazu, yaun maitete, zuk erabiliak emoten dautso pitxiari berak eztauen.
- TIM.—Ba-dakizu orraitíño adarra yoten.
- SALER.—Ez, ene yaun on; izur bagarik, lau lau eta xalo itz egiten dautsu orrek, beste edonori lez.
- TIM.—Begira, nor datorkun emen: agirika egin dagitsuela gura ete dozue?
- APEMAMTA aurrera.
- PITX.—Yasango dogu, eroango dogu zoparra-dea zu yaun orregaz balera,
- SALER.—Eztau inor gelái itxiko.
- TIM.—Egun on, Apemania •'jerakor!
- AP.—Ez egik emon egunonik ni txerakor izan arte; i, Timon'en txakur, eta oneik zitalok zindotu arte eztautsuet emongo nik egunonik.
- riM.—Zegaitik deituten dozak zital? Eziozak ezagun ik.
- AP.—Eztira Atenai'tar, ala?
- TIM.—Bori.
- AP.—Ba, orrazkero, enago damaturik.
- PITX.—Ezagun nozu, ala, Apemanta?
- AP.—Euk dakik ezagun audana; eurs Izenaz deitu aut,
- TIM.—Arro az i, Apemanta.
- AP.—Ezegaitik bez arroago Timon lcmgorik enazalako baño.
- TIM.—Norako bidea daroak?
- AP.—•Atenai'tar zindo bateri garaunak yo ta aterateko bidea.
- TIM.—Ilazo egingo aue, olangorík egin bo\*dagik.
- AP.—Bai, izan be, deusik ez egiteari legeok erioztea ezarri ba'dagio.
- TIM.—Zelangotzat dok irudi au, Apemanta?
- A.P.—Onentzat, erru bagako dalako.
- TIM.—Ez ete yok lan ona egin au margoztu dauenak?
- A.P.—Lan oberik egin eban margolaria bera egin ebanak; eta orraitíño a ezta lur zantar baño.
- MARG.—Txakur az i.
- AP.—Nitariko dok ire amas zer dok a, ni txakur ba'nok?
- TIM.—TJigaz bazkaldu gura dok, Apemanta?
- AP.—Ez; enozu ni yaunkirik yatskorik.
- TIM.—Emazteak asarre litxakizuz, yaunik yan ba'zengi.
- AP.—Ui! eurak yaten dabez aik euren yaunak; orregaitik azten yakez sabelak.
- TIM.—Zakar eta zantar dok ire irudimen orl. ire bulko ori,
- AP.—Olangotzat iruditzen yatsu zuri: oñ be-kizu zure nekeen sari.
- TIM.—Zelangotzat dok pitxi au, Apemanta?
- AP.—Ez gizoní xemaikorik, txakurtxikirik be kostauko etxakon zintzotasuna bestekotzat.
- TIM.—Zenbat gei dala, zenbat balio dauelo uste dok?
- AP.—Nire oldoztea beste, buruan erabiltea beste be ezta gei. Kaxo, olerkari!
- OLERK.—Kaxo, yakintzazale!
- AP.—Guzurra esan dok,

OLERK.—Etzara yaklntzazaleelariko, ala?

AP.—Bai.

OLERK.—Orrazkero eztoz esan guzurrik,

AP.—Ez az olerkari, ala?

OLERK.—Bai.

AP.—Orrazkero guzurra esan dok; ire azkenengo lana begiratu baño eztoz, ik ori an aintzako gizontzat iruditu dok-eta.

OLERK.—Eztoz a iruditurik, asmaurik... alan-goxe dok au.

AP.—Bai, itzako dok *a* zindo ta ire lana ordaintzeko: zuritzalle besteko baño eztoz zuritzalleen adiskide dana. Zeruok! andiki al nintz!

TIM.—Zer egiteko ik, olangorik ba'intz, Apemanta?

AP.—Apemanta'k oralntxe dagiana berbera, gorroto izan andikiari biotz biotzez.

TIM.—Zer, eure buruari gorroto izango eunskio, ala?

AP.—Bai.

TIM.—Zegaitik?

AP.—Andiki izanagaitik asarre enintzakelako. Ez ete augu i salerosle?

SALER.—Bai, Apemanta.

AP.—Nastu ta ondatuko al au salerosteak, yainkoak nastu ta ondatu ezpa'agie!

SALER.—Salerosteak egitekotan olangorik, yainkoak egiten yoek.

AP.—Salerosteak dok ire yainko-ta, ire yainkoak nastu ta ondatuko al ou!

Turut-ots. OTSEIN bat aurrera.

TIM.—Zearako ta zegaitik dok turut-ots ori?

OTS.—Alkibiadets eta ogei bat zaláizko eldu dira, guztiak alkarren lagun.

TIM.—Arrera egiek, arren; onako bidea erakutsi egiezue (Otsein batzuk alde). Nigaz bazkaldu bear dozue: ez alde egin emendik nik zuoi eskerrak emon arte: bazkal-ostean erakutsi egidak ire lan ori. Pozik asko dot zuok ikusiaz.

ALKIBIADETS eta bere lagunak aurrera.

Ondo be ondo etorria, yaun! (Alkarri agur egiten dautsoe).

AP.—Olan, olan, ori, ori!... minen minez karkotu ta gosearen gosez iristuko al dira zuon azur-giltza mardulok! Andia da zital txerakorron eta era-mera guztion artean ain maitasun gitxi izatea! Aleginen aleginez matxangotu egiten dira gizonak.

ALK.—Yaun, aurreratu egin daustazu luze eretsita egotea, eta goseak ila lez bazkatuten nau zu ikusteak.

TIM.—Ondo be ondo etortia zauguz, yaun! Alkarregandik banandu baño len erruki bagarik emongo dogu astia ainbatariko atseginetan. Goazen barrura, arren. (APEIMANTA'Z beste guztiak olde),

ANDIKI bi aurrera.

I AND.—Ze ordu dogu, Apemanta?

AP.—Zindo izateko ordua.

I AND.—Beti dok orretarako ordua.

AP.—Ain gaiztetsiago i, oraindik zindo Izaieko azalako.

II AND.—Timon yaunaren yaira oa, eztoz?

AP.—Bai; zitalak okelaz eta ergelak ardaoz bete ta berotuten dirala ikusteko,

II AND.—Onik eta ondo abil, onik eta ondo abil.

AP.—Tentel az i, onik eta ondo ibili nadila birritan esaten daustakalako.

II AND.—Zegaitik, Apemanta?

AP.—Eutzako euki bear eunkean bata, nik iri bata be emoteko asmorik eztodalako.

I AND.—Oa ortik zear.

AP.—Ez, nik etxoat ezertxo be egingo ire aginduz; ire adiskideri egiozak ire agindu ta eskariak.

II AND.—Al'de egik emendik, txakur asarrek orrek, ostantxean ostikoka aterako auL AP.—Igesi egingo yoat, txikurrak lez, astoaren ostikadetatik (Alde dagi).

I AND.—Gizatasunaren arerio dogu orrako ori. Tira, barrura sartuko ete gara Timon'en eskuzabaltasuna zelango dan ikusteko? Txerakortasunaren mamia bera baño be txerakorrigo da *a*.

II AND.—Ganaz egiten dautso ari txerakortasunak, dariola dago; aren ondasunzai baño etxatsu Pulta urre-yainkoa: eztago irabazirik ak alango zazpi crdsiniuko eztaunik; eztago ari egindako esku-erakutsirik, egilleari kitutuaz generakorik eta asko emongo eztautsanik.

I AND.—Eguño gizonek izan dauen biotzik onena dau ak.

II AND.—Luzaro izango al dau zori ona! Barrura sartuko ete gara?

I AND.—Lagun izango natxatsu. (Alde dagie).

## II AGERLEKU.--ATENAI, TIMON'eneko arrsrelegia.

Zaamiolak zglł yoién. Oluruntza andia darrakre malra; Palbi ta beste batzuk otseintzan; gero TIMON, AIKIBIADETS, LUKI, LUKIJ, SEN-PORNI, eta Agure-batzarreko beste Atenai\* tar baizu aurrera datoz BENTIDI ta laguntza-koakaz, APEMANTA dator atzenen, eta muker,

BENT.—Timon dedutsu dedutsu ori, nire aitaren adinaz oroitu ta ari luzaroko bakera deitutea eder etsi yake yainkoai. Pozik yoan da a, ta aberats itxi nau: orrazkero ba, zure biotz zabalari esker onez bearturib nagonazkero. atzera dakartsudoz arako talentak, eskerrez eta otseintzaz beste ainbesteturik, *here* lagunizeari eskerrak ni yarei nindunari.

TIM.—Ui! ezetara bez olangorik, Bentidi zinduz; oker aitu dozu zuk nire maftasuna: utsean emon neuntsun nik arako a: eta atzera artu dagianak ezin esan lei ezer emoten dauenik; gu baño goragokoak olangorik egin ba'dagie, guk eztogu izan bear euren antzekorik; eder dira beti be eskuzabalegitasunetiko utsak.

BENT.—Biotz orren zindoaren zindo!

(Guztiak oru-meratsu begiak TIMON'sgan dabezctla).

TIM.—Ez, ene yaunok; egite kaskarrai dizdiza ta argia emoteko asmau ziran eguño lenengoz era-merok, ondo-etorri uts, arro, mctmi bagakook, ontasunik ezaren agiriok, ontasunik erakutsi baño be lenago damuturik; baña benetako adiskidetasunik dagon lekuan ezta bear ezetariko era-merarik. Yezarri, arren; ondo etorriago zarie uok nire ondasunetara, nire ondasunak nigana baño, (Yezarri egitera dira).

I AND.—Beti autortu dogu orrako ori. ene yaun.

AP.—Ba, ba! autortu dabela! eskegi bai egin dozue zuok; ez, ala?

TIM.—Ui! Apemanta ori!... ondo etorria augu.

AP.—Ez; enozu etsiko ondo etorritzat. Etxetik atera nagizun etorri naz ni.

TIM.—Ken akit, gizon latz; basati augu i; eztok gizoneri dagokionik ik dokan gogaldi ori; akargarri be akargarri dok ori... Or esan daroenez, ene yaunok, "Beingo zoroaldi da asarrea"; baño ori gizon ori, beti da ori asarre. Tira, beretzako bakarrik imini egizue mai bat; izan be, eztau gura orrek

laguntzarik, etct ezta egoki be lagun arte-rako.

AP. -Zure mai apainean egoten itxi egldazu, Timon; ikusten etorria nozu; yakizu au.

TIM.—Eztauskat egingo yaramonik,- ondo etorria augu, Atenai'tar azanazkero: emen agintzekorik eneunke izan gura; nire bazkariak, ixilduko al au arren,

AP.—Fzetsi, zapuztu egiten dot zure bazkaria; irato egíngo ninduke, befn *be* eneunskizu zurikeririk egingo-ta.-Yainkook, yainkook, gizonen gizonak daragoioe Timon yaten, *e'a* on.<sup>^</sup>k eztakusaz! Min egui eta ok eragitOi daust onenbeste gizonen euren okelea Timon'on odoletan bustien ikusteak; eta beronek be orreik goratzea da erokeririk andiena. Gizonen gizonakan uste onik izatea da ni andi eretxita ta arriturik naue-na; nire ustez, deitutekotan aiotz bagarik etorteko deitu bear leukiez; obct litzake orrako ori euren okelearentzako, eta segu-ruago euien bizientzako. Ba-dago yazoriko eredurik onetzaz; orain orren urren yezarrita dagon urlia, ogikide yakona, orregaz batera edaria erdibanaka artzen dauena, orixe da oii lenen erailgo leukena: yazo da olangorik. Andikirib ba'nintz, bildur nintzake yataldietan edaten, edaten daragoiodan biarteant, ixilduazoteko nire eztatricko lekurik onena zein dan ikusi eztagisten: idu-nean idun-koskola dabela edan bear leukie andikiak.

TIM.—Biotz biotzez, ene yaun; eta biraka doala osasuna.

II AND.—Onantza datorrela ostera be. ene yaun on,

AP.—Onantza datorrela! Ori bai urla adoretstu! Ondo yagoten dauz orrek izkorak. Timon, gexotu egingo zaez osasunetok, bai zeu, bai zure ondasunak be. Emen dozu obentirik izateko makalegi dana, ur zindoa, eguño gizonik kakazturik itxi eztatena; bardinak dira au ta nire yanaria; eztago alderik batetik bestera: arroegi dira yaiak eta oturuntzak yainkoai eskerrik emoteko.

## APEMANTA'ren mai-onespena.

Yainko il-ezinok, eztat nik ondasun-leiarik; Neuz besteren alde eztatitsuet nik arrenik; Zuan eskarrez ez al naz iñoz izango gizonen Zin, naiz itzi uste onik izateko orren itzulirik,

Nal emagai'áuen negarreri,  
Naiz lotan dagola dirudin txakurri,  
Naiz nire buru-yabetezaren eukitzalleri,  
Naiz nire adiskideai, euren bearrik izate-  
kotan.

"Amen". Olantxe bedi.

Oben dagie aberatsak, sustarez bizi naz  
ni.

(Yrten eta edaten daragoio).

On be on egingo al yautsak ire biotz onari.  
Apemanta!

TIM.—Alkibiadets gudalburu. gudategian ya-  
gok orain ire biotza.

ALK.—Zure otseintzan dago beti nire biotza,  
ene yaun.

TIM.—Gurago eunkake ik arerioakaz gosald-  
du, adiskideakaz bazkaldu baño.

ALK.—Aik odola ixuri-barri egotekotan, ezta-  
go aik lango yakirik, ene yaun; alango otu-  
runtzetan gura neunke nik nire adiskiderik  
onena.

AP.—Olan izatekotan, zure arerio al lira zure  
zuritzalle guztiak, orduan zuk orreik erail  
al izateko, ta eurok yaten niri deituteko.

I AND.—Betiko osotzat geunkakez gure bu-  
ruak, ene yaun, bein zuk gure biotzak era-  
biltzeko zori ona ba'geu, olan guk zugana-  
ko aperturiaren zati bat erakutsi al iza-  
teko.

TIM.—Ene! eztago ezetariko ezpairik, ene  
adiskide onok, yainkoeu euren ardurea izan  
dala, zuokandik nik laguntza andi izango  
dodala: ostantxean zelan izateko zuok ni-  
re adiskide? Millakaen artetik zegaitik do-  
zue zuok adiskide ízengoiti ori, beraríz ez-  
pa-zintzakiez zuok nire biotzeko? Zuok  
zeuon apaltasunez zeuen alde esan zengi-  
keen baño geiago esan dot nik zuon alde  
nire kitean; eta orrenbesteraño autortzen  
zauedaz nire adiskidetzat. Yainkook, nire  
ustea da au, zetarako doguz adiskideak,  
ínoz euren bearrik ez izatekotan? Egindako  
izakietalik gitxien litzakez bearreko, guk  
ínoz euren bearrik ez izatekotan; eta eu-  
xen ontzietan esksgita legokezan ereskinen  
antzeko, euren ots gozoak eurentzako ba-  
karrrik leukiezanen antzantzeko litzakez. Ba!  
Sarritan izan gura izan dot nazan baño  
beartsuago, zuokandik urrago bizite-arren.  
Íñori on egiteko yαιο gara gu: eta zer etsi  
daiegu guk oberik eta urragokorik gure  
adiskidezko ondasunak baño? Ene! au bai  
ba-dala nasaitasun lango nasaitasuna,  
anaien antzera, alkarren ondasunen yabe  
diran onenbeste izatea! Pozarena! yαιο ba-  
ño be len íñori emonarena! Nire begiak ezin

egon dirala legorrik uste dot nik: zuon osa-  
sunaren alde edaten dot, begion samurtasu-  
na aztu dakidan.

AP.—Orrei eradateko dagizu zuk negar, Ti-  
mon.

II AND.—Poza sortu da olan gure begietan,  
eta umea legetxe yagi da une orretan.

AP.—Ba, ba! barreka nago ume ori sasiku-  
me dala gogoratua.

III AND.—Asko eragin daustazula dautortsut,  
ene yaun.

AP.—Asko eragin be iri! (Turut-ots).

TIM.—Zer diragar tutu-ots orrek?

OTSEIN bat aurrera.

Kaxo!

OTS.—Eder izango al yatsu, ene yaun, ande-  
ra batzuk dagoz or zurera sartu-gurarik.

TIM.—Anderak! zer gura yoe?k?

OTS.—Aurrendori bat be ba-dakarre, euren  
gurariak bere egikizenez iragarteko.

TIM.—Barrura sartu egizak, arren.

KUPIDA aurrera.

KUP.—Gora zu, aintzako Timon; baita zure  
eskuzabaltasuna zelango dan ikusten da-  
ragoioen guztiak be!.., euren zaintzat eta  
yagolatzat autortzen zaeuz sentzurik one-  
nak, bostak; eta euren kitetik datortsuz zu-  
re biotz zabalari euren atsegina iragarteko:  
entzumena, dastamena, ukumena, usaime-  
na pozik eta atseginez yagiten dira zure  
maitik; zure begiai yai egiteko bakarrik  
datoz orain aik.

TIM.—Ondo etorriak dira guztiak; txeratsu  
artu dagiguzan. Ereslariok, ondo etorria  
egiezue! (KUPIDA'k alde).

I AND.—Ba-dakusazu, ene yaun, maite be  
maite zabezala.

Eresia yoten. Barrero aurrera KUPIDA, Ama-  
zon-antzeko Andera marrodunakaz batera,  
eskuetan kitarra bana dabela, yantzan egin-  
ala kitanak yoaz.

AP.—Ostera! emen datorren uskeriaren us-  
keri! Yantzan daragoioe! Burutik eginda,  
zoratura dagoz emakumeok. Zorakeria lan-  
goxe da bizitza onetako ainiza, orio ta sus-  
tar apur batzuen aldean arrokeri au dan le-  
getxe. Tutulu ta ero egiten gara geure  
buruak nastuteko, eta agortu egiten doguz  
gure zorakeriak olgetako, atsegin artzeko,  
eta gizonen osasunaren alde edaten dogu  
zurikeriaren zurikeriz, gero, arein zartza-  
roan, ezespén zitalez eta ikusi-ezinez, orain

edan doguna arein ganera atzera okadaka ustuteko. Bizirik diranetatik nor ezta edo gezto. edo geztotzalle? Nor doa ilobira bere adiskideak emondako ostikadaen bat beragaz eztaroenik? Bildur izan bear nintzake orain nire aurrean yantzan daragoioenak egunen baten ostikopean erabiliko ete naben: lenago be yazo izan da orrenbesterik: itxi egiten dabez gizonak etxeko atepak eguzkia sartzen danean.

Yagi egiten dira maitik Andikiak, TIMON'entzako buru-makurtzerik askogaz; eta euren maitasuna erakusteko, Amazon bana arizen dabe, eta guztiak daragoioe yantzan, gizon eta emakume, zaamiolen yo-alii zoli bat edo biren bitartean, eta gelditua egiten dira.

TIM.—Apaindu egin dozuez gure atseginak, andera lirainok; gaurkotasun liraina ezarri dautsazue gure bazkariari, berez orren eder eta txerakorren erdirik be etzan-eta; goragotu ta dizdiztsuagotu egin dozue zuok, eta nire asmoaren arauz astia emonazo daustazue; esker ona erakutsi-bearrean nagotsue.

I AND.—Ene yaun, eretxirik onena dozu zuk gutzaz.

AP.—Bai orixe, zuok dozuunik txarrena zikin eta ezin ukutuko Iedikena da-ta.

TIM.—Anderok, zuon begira dago oturuntza-iskitzo bat; eder izango al yatsue.

ANDERA GUZTIAK.—Eskerrik asko be asko, ene yaun. (KUPIDA'k eta Anderak alde).

TIM.—Palbi...

PAL.—Ene yaun?

TIM.—Ekarrrik ona kutxatxoa.

PAL.—Bai, ene yaun. (Bere kiteon). Oraindik be pitxi geiago!... Nok ekiteko orri beste-rantza orren gogaldian? Ostantxean esango neuskio... tira, orraitino be esan bear neuskio. Dana dala be, dana eralgi dadin-nean asarre izango da, al ba'dau. Tamala da eskuzabaltasunak atzean begirik ez izatea, biotz oneko gizon au inoz be zori txarreko izan ez dadin. (Alde dagi ta barriro sartzen da arako kutxeogoz).

I ANDIK.—Nondik dira gure gizonak?

OTS.—Emen, gerturik, ene yaun.

II ANDIK.—Gure zaldiak!

TIM.—Ui! ene adiskideok, itz bat dot zuri esateko. Begira, ene yaun on, arren; omen egidazu, pitxi au zeutzako arturik; ontzat artu ta erabili egizu, ene yaun maitagarri orTsk.

I AND.—Lendik nago zugandik esku-erakutsirik asko arturik-eta...

GUZTIAK.—Bai geu be.

OTSEINA aurrera.

OTS.—Ene yaun, or dira agure-batzarreko al-tonseme batzuk zaldi-ganetik yatsi-barri, eta zu ikusten datoz.

TIM.—Ondo etorriak dira.

PAL. Itz bat entzuidazu, arren; urretik ukututen dautsun zera da.

TIM.—Urretik; ba, orrazkero, beste bein entzungo dauskat: gertau zadize orrei txera egiteko.

PAL.—(Bere kitecm). Nekez dakit zer eta zelan gertau.

Beste olsein bat aurrera.

II OTS.—Eder elsiko al dozu zuk adeigarri orrek, lau zaldi esnea baxen zuri ta urrezuriz yantziriko eskeintzen dautsuz, zuri dautsun maitasunaren maitasunez. Luki yaunak.

TIM.—Biotz onez artuko dodaz; ondo artu ta ondo yagoizue esku-erakutsiok.

Irugarren otseina aurrera.

Kaxo! ze barri dakak?

III OTS.—Eder etsiko al dozu, ene yaun, aitonseme zindo ak, Lukul yaunak, laguntzat gura zauz biar, beragaz eizean egiteko, eta eiza-txakur biko bi bidali dautsuz.

TIM.—Egingo yoat eizean agaz; eta artu egizue z txakurrok, baña ez sari egoki bagarik.

PAL.—(Bere kitean) Noraño eldu bear ete dogu? Esku-agiri andiak zuzendu ta emon dagiguzala aginduten dauku, eta guztfak kutxa usmetik; eztau ikusi ta arakatu gura bere sakelik; ezta niri emon be, orren biotza zelango eskeko dan orri erakusteko, orrek berorren gurariak beteteko alik eztauenazkero; orren egokera ta eskuartearen aldean ain andi dira orren aginduak-eta, irabaziak ordaintzen dauz orregaitik; bestein idaztietan dagoz orren lurrak. Tira ba, orretara inok beartu baño lenago galduko al neu nire ogibihea! Zori ontsuago da yaten emoteko adiskiderik eztauean arerioak baño be txarrago diran adiskiderik euki baño. Odola dariola dago nire biotza nire ugazabagaitik. (Alde dagi).

TIM.—Okerrik geiegi egiten dautsazu zuk zeure buruari; gitxi-egitatz esten dozuz zure irabaziak; autsi uskeri au gure maitasunaren aHerako, ene yaun.

II AND.—Oi dan baño eskerrik askorik geiagogaz artzen dautsut.

III AND.—Ui! eskuzabaltasunaren mamia berra yatsu ori!

TIM.—Eta orain datorkit burura, ene yaun, itz ederrik asko esan zendula zuk lengo egunean ni bere ganean neroan zaldi gorribaltzeranaz; zeure da a, gogoko yatsulako.

III AND.—Ui! parkatu nagizu orretan, arren, ene yaun.

TIM.—Aintzakotzat artu bear dozu nire itza, ene yaun; ba-dakit iñok eztauela goratzen maite dauena baño; neuretik neurtuten dot nire adiskideen maitasuna; egia dirautsut. Zuonera yoango natxatsue.

ANDIKI GUZTIAK.—Ui! iñor bez zu baño ondo etorriagorik.

TIM.—Biotzean be blotzean artuten dodaz zuon guztion eta baktxaren nigana etorteak-eta, ezto zuoi zer emonik asko: bakalderriak bananduko neuskiezala nire adiskideai uste dot, eta emoten enintzakela aspertuko bein be. Alkibiadets, gudari augu i, eta orrexe gaiti gitxitan aberats; ukarrez emotea dok iri esku-erakutsirik emotea; ilak dozak, ba, ire irabazi guztiak, eta gudategia dok ire lur guztia.

ALK.—Bai, lur orbandua, ene yaun.

I AND.—Biotzez be biotzez loturik gagotsuz-eta, ene yaun..,

TIM.—Olantxe nagotzue neu be.

IL AND.—Neurri bagarik be neurri bagarik, eta intsigi intsirik-eta...

TIM.—Dana zuontzako... Argiak, argi geiago ekarri.

I AND.—Zori onik onena, dedua ta ondasunak beti izango al dozuz, Timon yaun.

TIM.—Nire adiskideentzako gerturik, (Alde

ALKIBIADETS'ek, Andiki ta aborrek).

AP.—Emengo otsaren ots eta zaratearena! Emengo mosu egin-bearrak eta mokorrak luzatu-bearra! Eztakit euren zangoak eurekaitik emona añako diranentz. Ondar loiz beteriko adiskidetasuna dogu au: biotz us-telek eleuke izan bear zango arinik, nire ustez; onan eralten dabez tentel zindoak euren ondasunak, txera ta era-meretan.

TIM.—Apemanta, on nintzakik, uxo ta muker ezpa'intz,

AP.—Ez, nik eztoz ezer gura: eta, izan be, ni be esku-erakutsiz erosiko ba'ninduzu, elegoke iñor zuri agirika egiteko; eta olan, errazago oben egingo zeunke. Ainbeste ta ain luzaro emoten daragoiozu zuk, Timon-eta, bildur naz atzenean, eta lastet alan be, zeure burua be papelean emongo dozula: oturuntzon, arrokerion, gangarke-rión eta uskerion ze bearrik dozu?

TIM.—Bai, bein be lagun-arteaz txarto esaka ka asi ba'adi, zin eginik naiagok iri ez-etariko esku-erakutsirik ez emoteko. Onik eta ondo abil; eta eresi oberik ekarri egik ona. (Alde dogi).

AP.—Tira ba, orain entzun gura eztaustazu-nazkero, gero eztaustazu entzungo; itxi egingo dautsudaz zeruko atea. Ene, ene! gizonen belarriak onuarentzako gor izan bearrarena. baño ez zurikeriarentzako! (Alde dogi).

## II EKITALDI

### I AGEBLEKU.-ATENAI. Agure-batzarkide baten Etxea.

AGURE-barzarreko bat aurrera. papelak eskuan dauzala.

AGURE-B.—Eta bost milla oraintsu; -bederatz milla ZOT dautsez Barron eta Ixidori; nik lendik aurreratuz ganera, guztiz ogei ta bost milla dirala. Oraindik be eralgibear gorrian daragoio? Ezin irauñ lei orrek; ez-tau irauñgo. Nik urrerik bear izatekotan asko yat orretarako eskekoen bateri txakurra ostu ta Timon'i utsean emotea; baietz ekarri txakurrik urrerik niri, bai orixe; urregin egingo da txakurra: nire zaldia saldu ta beste ogei a baño obeak erosi gura ba' neuz, ba! damoiodan Timon'i nire zaldia,

ez eskatu ezer aren alderako. utsean emon ari zaldia, umeak egingo dautz bertatik zaldi orrek, eta zaldi ederrak, gero: eztago beste atezainik aren atetan irribarre egin eta andik zear doazan guztiai barrara dei egiten dautsena baño. Ezin irauñ lei orra-ko orrek; eztago argibiderik aren ondasunak seguru irauñgo dabela erakustekorik. Kapi, ee? Kapi, geroo!

KAPI aurrera.

KAPI.—Emen nozu, yaun; zer gura dozu?

AGURE-B.—Ire kapea yantzi ta oa arin Timon yaunagana; eska ta eska egiozak nire

diruak; ez egik geldi itxi ak ezetza eman-arren; ez akio i:ildu ak "Nire gorantziak emoiozak ire ugazabari" esan dagiskanean be, eta ak bere txapela eskuetan onan daraiilenean be; andi be andi dala nire bearra ta nire diru-fcear gorrian nagola esaiok; yoanik dozalt aren egunak eta aldiak, porrot egin yosk ordaintzeko ak izentauriko epe ta egunak, eta ortik oker anaia izan yoek nire usteak eta entzute onak: maite yoat nik a, eta ba-yautsat dedurik; baña nio etxoat ausi bear nire bizkar-azurra aren atzik osatuteko; gorri fce gorri dok nire bearra, eta nire nasaitasuna ezin yoat lortu aren itz ederrez, ak bertatik bidali bear

daustan diruz baño. Oa; eskale-eskale mo-sua erakutsi egiok, beingoan etsiko ezta-naren mosua; izan be, bildur nok orain pointiz bera baño be arroago ta dizdiztsua-go dagon egazti orren luma edo egakieta-tik baktotza bere yafcearen egoetaratu da-dinean egazti ori txori billuts, luma bagako eginik geldituko ez ete dan. Oa.

KAPI.—Ba-*noa*, yaun.

AGURE-B.—Artu ta eroan egizak aren zor-agiriak, eta gogotan euki egizak ordain-giriak, ordain-epeak.

KAPI.—Egingo dot orrako ori, yaun.

AGURE-B.—Oa. (Alde dagie).

#### U AGEHLEKU.-ATENAI. TIMON'eneko Bebarra.

PALBI aurrera, eskuetan ainbat zor-agiri dauzala.

PAL.—Ezta ezetariko ardurarik, bein te ezta geldituko! Orren buru bagako da bere 'diru-eraketetan-eta, eztaiki ez zelan yarrai orretan aurrera, ezta eskuzabaltasunaren uriol orí an agortu ta geldituazo be; ezta oartzen zelan doakoan ondasunak; ezta zer yazoko yakon be; eguño ezta izan orrena lango biotz onik, orrena baño zurta-sun bagakoagorik. Zer egitako? Eztaun entzun gura, min artu arteño: argi ta garfci itz egin bear daustat eizaketatik datorre-nean. Ut, ut, ut!

KAPI aunera; baita IXIDOR eta GARRON'en otseinak be.

KAPI.—Arrasti on, Barrón; ba, i be diru-billa ator, ezto?

BARRON.—Ots. Eu be ez ator arazo orrexe-gaz, ala?

KAPI.—Bai, oirexegaz. Iie aiazoa be ezto orixe, ala?

IXID.—Ots. Bai, orixe dok.

KAPI.—Guztioi ordainduko al yauskuk!

MARRON-OTS.—Emen yatok andikia.

Aurrera TIMON, ALKIBIADSTS, eta Ondikiak, e. a.

TIM.—Bein bazktilduazkero, baniro uilengo gozak, ene Alkificiadets... Nikin? Zer gura dok?

KAPI.—Ene yaun, emen dozu zure zor batzen agiria.

TIM.—Zorrena! Nondiko augu?

KAPI.—Emen Atenai'ko, ene yaun.

TIM.—Oa nire ondasunzainagana.

KAPI.—Eder izango al yatsu, il onetan egunetik egunerako epeak imini izan daustaz ak; bere diruak eskuratu bearrean aurkituten da nire ugazaba, bear gorri ta bertatikoak onetaia bultzauta, ta apalik eskaluten dau-tsu aren eskariai erantzutea erantsi dagie-zula zure geitasun on eta zindoi.

TIM.—Biar goxerarte etxoidak, arren, ene adiskide zindo.

KAPI.—Baña, ene yaun on...

TIM.—Ez egiok ekin orri, adiskide on.

BARRON-OTS.—Barron dalakoaren otsein nozu, ene yaun on.

IXI^OR-OTS.—'xidor'gandiko nozu ni; apalik eskatuten daustu len baño len ordaindu dagiozula.

KAPI.—Ezagun ba'litxatsu nire ugazabaren bearra, ene yaun...

BARRON-OTS.—Epea austekotan izunpean ordaintzeko zorra zan agazkoa, ene yaun, eta orraitño *er>ea* igaro da-ta...

IXI^OR-OTS.—Ortik zear bidali nau zure ondasunzainak, ere yaun; eta ni beren beregi zeugana bidali nabe.

TIM.—Rrrease artzen itxi egidazu... etxoi-zue, arre^, *ene* yaun onok; bsrtatik nozue zuokaz. (ALKIB.'ek eta Andikiak a'de) (PAL-BI'ri). Ator ona, arren; zelan yoak mundua nigana geianez onenbeste yente etorleko eT>etik gorako zor-agirikaz, eta nire deduaren kalterako epea aspaldi igarotako zorrakaz?

PAL.—Ba, aitonsemeok, aldi au ezta bape egoki arazo onetarako; ez egiozue ekin arazo oni bazkalondorarte; zuri, yaun orri, ya-



kinazo bear dautsut zegaitik eztodan ordaindu izan.

TIM.—Bai, etxoizue, ene adiskideok.—Ondo ta xeratsu artu egizak. (Alde dagi).

PAL.—Goazen barrura, arren. (Alde dagi).

#### APEMANTA ta Ergela aurrera.

KAPI.—Etxon, etxon, emen dator ergela Apemanta'gaz: olgau dagigun eurokaz.

BARRON-OTS.—Doala ortik zear, adarra yoko dausku-ta.

IXIDO-OTS.—Izurriak eroango al dau txakur ori!

BARRON-OTS.—Zelan abil, ergel?

AP.—Eure kerixegaz, eure itzalagaz dara-goiok berbetan, ala?

BARRON-OTS.—Iri eztauskat itzik egin.

AP.—Ez ba, eure buruari. (Ergelari) Gaioazan emendik.

IXIDOR-OTS.—(B.'en Otseinari). Dagoneko yagok ergela ire bizkarrean.

AP.—Ez, eure zangoen ganean akust oraindik; beraz, ez ago oraindik orren ganean.

KAPI.—Olan izatekotan, zein da ergela?

AP.—Azkenen itandu dauena. Zital eta lukurleruen otseinon errukarri! Urre ta bearren bitartekoena!

OTSEIN GUZTIAK.—Zer gara gu, Apemanta?

AP.—Astoak.

OTSEIN GUZTIAK.—Zegaitik?

AP.—Zeuon bururik ezagun eztozelako, ta niri itanduten daustazelako. Itz egik, ergel.

ERG.—Zelan zagoze, yaunok?

OTSEIN GUZT.—Eskerrik asko, ergel on; zelan yagok ire etzanderea?

ERG.—Ura berolzen yaragoiok ak, zuck lan-go ollaskoak errazago ulduteko. Korinthos'len ikusiko al zindueguz.

AP.—Ori ondo: eskerrik asko.

ERG.—Ara! emen dator nire etzanderearen esku-mutila.

#### ESKU-MUTILA aurrera.

ESKUM.—(Ergelari) Ba! ze barri, gudaiburu? Zer dagik ik gizon yakitunon artean? Zelan zagoz, Apemanta?

AP.—Adakiñ bat al neu nire agoan, iri ire onerako litzaken erantzuna emoteko.

ESKU-M.—Arren, Apemanta, irakurri egidazuz idazkion azaleko zuzenbideak; eztakit zein norentzako danik.

AP.—Eztakik irakurten, ala?

ESKU-M.—Ez.

AP.—Orrazkero, yakituri gitxi ilgo dok i es-

kegi agienean. Timon yaunarentzako dok au; Alkiiadets'entzako beste au. Oa; sasi-kume yaio intzan i, eta lizunkeri-bitarteko ilgo az.

ESKU-M.—Txakur yaio zintzazan zu, eta txakurra lez gosez ilgo zara zu. Ez erantzun, yoanik nozu-ta. (Alde dagi).

AP.—Bai, txakurrak legetxe igesi dagik ik onbidetik. I, ergel, Timon'enera yoango nok igaz.

ERG.—Ni an izteko, ala?

AP.—Timon et;ean gelditutekotan bai.—Zuok irurok iru lukurleruen otsein zarie, ala?

OTSEIN GUZTIAK.—Bai, eurak al lira gure otsein!

AP.—Neuk be orixe gurako neunke... ori ta eskegiteko diranak eskegitzallea euren otsein egitea marro bardinak litzatskez.

ERG.—Irurok zarie mozkintzale edo lukurleruen otsein, ala?

OTSEIN GUZTIAK.—Bai, ergel.

ERG.—Etxoat uste mozkintzalek ergelaz beste otseinik dauenik; mozkintzale dok nire etzanderea, eta ni nok aren erge!. Zuon ugazabakana dirua zorrean artzen doozanak gotilun eltzen dozak eta gogargi alde egiten yoek; baña nire etzanderearenera datoza-nak gogargi eltzen dozak, eta gotilun alde: zegaitik onako au?

BARRON-OTS—2ztot zegaitik bat emon-ez-inik.

AP.—Emoiok, ba, emagaldu-zaletzat eta zitaltat etsi agigun; ori gora-bera be olangotzat etsiko augun-arren.

BARRON-OTS.—Zer dok emagaldu-zale, erge'?

ERG.—Apain yantzitako ergela dok orrako ori, eta arean ire antzeko. Gogo dok, espi-riuu dok: andikí antzeko dok batzuetan; le-gelari-antzeko beste batzuetan; yakintzazale-antzeko beste batzuetan, berak asmauaz ganera beste arri bigaz (1). Zaldun-antza artzen yok sarri-sarritan; eta, geien baten, gogo au amairu urtetik larogeira-hitar-

(1) "Berak asmcmaz gcinera beste arri bigaz". Ergel lotsabakoaren agotik datoz itz zantar-lotsabakock, eta bai bear be. Alkiri-nizaleak nortzuk ziran eta zeren billa ebiltzan alde batera itxita, bakarrik esango dogu emen, beste zer batzuen artean yakintzazale-arria'ren billa ebil'zala, arri orren bitartez metal zirtziletatik urre gorri ta zuria egiteko. Orrako arri ori darabil emen buruan ergel lotsabaikoak, baña ergela ezta orregaitik lotsabakorik, beste biak aitatuten dauzalako baño.

teko guztitariko gizonen artean an izaten dok.  
 BARRON-OTS.—Ez augu i ergel uts utsik.  
 ERG.—Ez i be yakitun uts-utsik: nik ergel-keritan dodan *aña* dok iz yakituririk ezetan.  
 AP.—Apemanta'rentzako be elegokek txar-to erantzun ori.  
 BARRON-OTS.—Baztarrera, baztarrera, gizonak; emen dator Timon Andikia.

TIMON eta PALBI aurrera barriro.

AP.—Arraikit ,ergel, arraikit.  
 ERG.—Beti enarraikio ni kutuneri, anaí zarragori, naiz emakumeri; batzuetan yakin-tzazalari. (APEMANTA'k eta Ergelak alde).  
 PAL.—Or urrean zabilte apur baten, arren; laster itz egingo dautsuet. (Otseinak alde).  
 TIM.—Arriturik naukak; zegaitik eztaustak iragarri lenago ta argi ta garbi nire egokerea, nire eraketak nire eskuartearen neurriz egin negizan?  
 PAL.—Olangorik egin gura izan dodan guztietan enozu entzun gura izun.  
 TIM.—Ken akit: ni gogaldi txarragaz nengoanetan egin dozak ik olango aleginak, urrean, eta orrako zera artu dok ik ire buruaren zurigarritzat.  
 PAL.—Ene) ene yaun on, sarritan ekarri izan dautsudaz sartu-urtenen garbitasunak eta bai zure aurrean imini be; ortik zear egozten zenduzan zuk, eta nire zintzotasunean uste onik asko zendula esuten zeunstan. Uskerien baten alderako ainbeste emoteko aginduten izan zeunstanetan, buruari eraginik negar egiten izan dot; bai, era-merak baztarturik, arren egiten izan dautsut esku-itxiago izan zadizan: bein baño geiagotan egin dautslazu asarre, eta asarre be tsararre, gero, zure ondasunak izperan, eta zure zorrak izkora lango izkoran egozala iragarri izan dautsudanean. Ene yaun maitte, zuk orain entzun-arren... beluegi! orain zure ondasunak guztiak be zure oraingo zorren erdia ordaindu al izateraño baño ez-tira eltzen.

TIM.—Saldu dadizala nire lur guztiak.  
 PAL.—Guztiak dagoz baiturik, batzuk izune-tan yoanik; eta gelditzen diranak nekez ixilduko dabez oraingo epeen gedarrak: arin dator etorkizuna: zelan arpegi emoteko bien bitarteko bearrai? Eta, atzenean, zelan erantzuteko gure zorrai?  
 TIM.—Lakedemoni'raño eltzen zoazan nire lur-rak.

PAL.—Ene! ene yaun, itz bat baño ezta munda: osoa ba'litz zure, arnasa baten emoteko, arin be arin lioake!

TIM.—Egia diñok.

PAL.—Nigazko, nire etxeketearen, naiz ustelkeriren sushmorik ba'dozu, azterlerik zorrotzen aurrera deitu nagizu ta garbitasunak emonazo egidazuz. Yainkoak onetsiko al nabe! Gure ehteko leku ta okolu guztiak maikide zaratatsuz bete-beterik egozanetan; moskorretan edan eta ixurtzen zan ardaoagatik gure sapaipak negar egiten ebe-nean; etxeko areto guztiak argiaren argiz didiz egin eta abesti durundutan egoten zirunean, bein baño geiagotan egon izan naz ni nire esku-bularrak upelen bateri deusela negarrez.

TIM.—Asko dok, bego, arren.

PAL.—"Zeruok", esaten neban nik, "yaun onen eskuzabaltasunarena! Onen eskuza-balkeriz arratseon yopu ta baserritarrak iruntsi izan dabezan okela-zatiena! Nor ezta limon'neko? Nok eztauz iminten Timon'en alde ta aren eskuetan bere biotzik, bururik, ezpatarik, indarrik eta eskuarterik? limon andi, zindo, aintzako, Timon erregetar! Ui! olango gorapenen eragingarri diran ondasunak amaitu dadizanean, agortu ta amaituko da putz utsezko gorapenon putza be: barauak daroa yan-edanetan irabazten dana. Neguko odeiak dakarren euriak" ondatuko dauz euliok.

TIM.—Tiruk, elexa-itzaldirik asko yoagu. Nire eskuzabaltasunik eztok izan oraindik niri biotzean damurik emotekorik; zurtasun bagarik emon yoat, ez lotsagarriro. Zegaitik ago negarrez? Eztok itxarorik nik adiskiderik eztodala uste izateko, ala? Nasaitu egik ire biotz ori; zelatuko ba'neuz nire maitasun-upelak zelango ardao daukien ikusteko, eta biotzetako geia aztertu, dirua zorrean eskatuaz, eurrez eta eskubeteka erabili al izango neunkez gizon eta emakumeen ondasunak, itz egiteko iri agindu neiskekan bestean erraz.

PAL.—Segurantzta orrek onetsiko al dauz zure uste onak.

TIM.—Eta, zelan edo alan, nire gurarien bu-restun dozak oraingo nire bear-izanok, etu onespentzat yoadaz; eta izan be, onein bidez aztertuko yoadaz nire adiskideak: or ikusiko dok oker agola i nire zoriaz; aber-rasok nok ni adiskidetan. Erdu ortik barrutik! Palmini! Serbil!

PALMINI, Serbili ta beste otsein batzuk aurrera.

SERB.—Ene yaun? Ene yaun?

TIM.—Banan banan biiali bear zauedaz:...

Luki Andikiagana i; -Lukul yaunagana i; dedugarri agaz ibili nok gaur eizean. Senpornigana i; gorantziak adiskide ai, eta esaiezue, arro ta ilarraindurik nagola erarik agertu yatalako gaur aikana diru-eske yoateko; berrogei ta amar talentena izan dadila nire eskakizuna.

PALM.—Zeuk esan dozunez egingo dot, yaun.

PAL.—(Bere kitean). Luki ta Lukul Andikiakana? Jum!

TIM.—(Beste otsein bateri). Agure-batzarrekoakana oa i. yaun; ondo irabazirik dot aikandik zer onetan aik yaramon eta entzun dagisten, bai lege-erriaren onerako be, milla talent bertatik bidali dagistezala eskatu egiek.

PAL.—Neu azartu izan naz orrenbesteraño, banenkian ba, orixe zala biderik laburrena; azartu izan naz zure izenez eia zure izenpekoz eskatuten, baña buruari eragin dau-tsoe aik eta enaz etorri len baño aberatsa-go.

TIM.—Egia ete dok ori? Izan ete ledikek olan-gorik?

PAL.—Aik guztiak ago batez erantzun daus-te bein-beinean estu-estu dagozala, diru ba-garik dagozala, eta eurak gura leukienik ezin dabela; tamal andia dabela; ba-dakie-la zindo, zintzo ta dedugarri zareala; gu-rako ei lebe; eurak be eztakie zer, baña zerbait txarto urten yakiela; biotz zindori be etorri lekikeola okerrik...; edozer ondo yazo-

ko al da; negargarri dala...; eta olan, arazo benagorik ba-dabela-ta, niri begirakune otzik egin, itzez erdi-esanok esan, agur egi-teko txapelak erdi-erantzi, buruari gogoaz bestera berantz eragintxo bat egin..., arria baño otzago it:i ta ixildu egin nabe.

TIM.—Yaínkook, eurak irabazia emon egiezu! Arren, yaun, argitu adi, yatorriz yatorkek adiskide zarroi esker txarreko izatea; gogor-turik, otziturik yoeck oJola, nekez eta meatz yabilkek; biotzean maitasun-berotasunik ez-tabelako, eztozak orreik txerakor; eta izaki egina, lurrera urreratu-ala, gertau egiten dok orretarako, motel eta astun egiten dok. (Ofseín bateri). Oa Bentidi'nera; (PALBFrí) Ez adi egon motel eta gotilun, arren; yator eta zindo az i; argi ta garbi itz egiten dauskat; ik eztok errurik. (SERBILFrí) Oraintsu obiratu yok Bentidi'k bere aita, eta eizaguntza asarrea eskuratu yok ak bere aitaren eriotza-ostean; a beartsu zanean, baiturik eta adis-kide-urri zanean, bost talentegaz yarei nai-oan nik a; agur egiok nire aldetik: eskatu egiok sinistu dagiala bear-izan gorrien fca-ten auikituten dala orain bere adiskidea, arako bost talentak ari gogoratuazoteko (PALBFrí) Bein orrako ori iritxiakzker, emoi-zak bost talentok epea beterik daben ar-tuendunai. Ez egik iñoz esan, ezta olango-rik iri otu be, Timon'en ondasunak bere ajiskideetan ondoa yo dabenik.

PAL.—Olangorik uste ez izaterik al neu: eskuzabaltasunaren arerio da orrako goga-pena; bera eskuzabal dalako, besteak be olangoxe dirala uste dau eskuzabalak. (Alde dagie).

### III EKITALDI

#### I AGERLEKU.-ATENAI. LUKUL'eneko leku.

PALMINI begira. Otsein bat datorko.

OTS.—Itz egin dautsat zutzaz nire ugazaba-ri: or datortsu goitegitik.

PALM.—Eskerrik asko, yaun.

LUKUL aurrera.

OTS.—Emen dozu nire ugazaba.

LUK.—(Bere kitean). Timon Andikiagandiko ete dogu gizon au? Baietz ekarri onek esku-agirien bat, bai orixe Ba, erara dator au: urrezurizko esku-ontzi ta pitxarraz ames-

egin dot arratseon. Palmi, Palmi zindo ori, ondo-etorriker txeratsusn eta dedutsue-na zuri, yaun. Ekadazue ardaorik arean. (Otseinak alde).Eta zelan dabil gizon dedutsu, guztiz biotz-zabal, Atena'tar a. zure yaun eta ugazaba on eskuzabal lango eskuzabala?

PALM.—Osasunex onik dago a.

LUK.—Pozik be pozik nago a onik dala ya-kiteagaz, yaun; zer dozu or txartespean, Palmiñ on orrek?

PALM.—Egia esateko, kutxa uts batez beste-

rik ezertxo bez, yaun; eta nire ugazabaren aldetik eta aren izenean zuk dedugarri orrek bete dagizula eske natortsu; berrogei ta amar talent erabilteko bear andi ta berpetakoa agertu yako ari-ta, zu yaun orregana bidali nau ak orrako diruon eske, orretan zuk onmiduko dozula ak ezetariko ezpairik eta zalantzarik eztauela.

LUK.—Ba, ba, ba, ba!... eztauela ezetariko ezpairik eta kezkarik diño ak? Ai ene! Yaun aren on! aitonseme zindo da a, bai orixe, etxean gangarkeri geiegi ezpa'leu. Sarritan yan izan dot arenean eta sarritan bururatu izan dautsat orrako ori; eta gero bertatik apaltzen be yoaten izan natxako, orrenbesterik eralgi dagiala galazoteko; eta orraitioño be eztau entzun gura izan onurik, yaramonik be ez egin nire onuai, ni orretarakoxe arenera yoan izan-arren. Edonok dau akatsen bat, eta zintzotasuna da arena; beti esan izan dautsak nik orrako ori, baña eguño ezin atera izan dot beretik.

OTSEINA aurrera ostera be, ardaogaz.

OTS.—Ederetsi ba'dagizu. emen dozu ardaoa, yaun.

LUK.—Palmini, beti izan aut gizon zurtzat. Auto au.

PALM.—Txerakor zara zu, ene yaun.

LUK.—Beti izan aut gizon bizkor eta bizitzat... zor yakana emoten dauskat... eta zuzenari berea emoten dakientzat, eta ik ba-dakik etietari bere onurea ateraten. ire aldeko eretirik agertzekotan: geitasun onik ba-dok

ik. (Otseinari, eta onek alde dagi). Oa emendik, yauntxo. Ator onago, Palmini on ori. Aitonseme eskuzabal dok ire ugazaba, baña zur augu i; eta nigana etorri-arren ondo dakik ik au ezala dirurik aurreratuteko aldia; alan be adiskidetasun utsez, segurantz bagarik. Autoz iru "soldi" eutza-ko (2); mutil on, begiaz kiñu egin eta ni enokala ikusiarena egik, eta ni enokala ikusi esaiok. Onik eta ondo ibili.

PALM.—Izan ete ledike munduan onango al-dakuntzarik? Lengoak eurak ez ete gara, ba? Oa ortik zear, egaz egik, zirtzilkeri gaiztetsi orrek, oa i gurtzen auenekana. (Diruak aizera yaurtin-ala).

LUK.—Ja! orain yakusat tentel eta ire ugazabarentzako egoki azala. (Alde dagi).

PALM.—I erreko aben diruai erantsiko al yakezak oneik be! Txintxin urtuzkoa izango al dok ire gatxespeneko elorrioa, adiskide bagarik adiskidetasunaren gatxa baño ez azan orrena! Orren makalik, orren esnezko biotzik ete yok adiskidetasunak gau bi baño lenago galtzeko? Ui! zuok yainkook, iruditzen yat nire ugazabak izango dauen asarrea! Aren deduaren yopu izan dan gizon onen aragiak nire ugazabarenak dira; zegaitik onik egin bear ete dautsoe oni, au berau zital uts izanik? Ene! gatxak baka-rik indarrik artuko al dabe orregan! eta ilteko gexotu dadinean, nire ugazabak ordaindu dauen orren soñeko atal eta alderdiak ez al dau izango indarrik eta alik gatxa uxatuteko, luzatuteko baño! (Aldi dagi),

## II AGERLEKU.-ATENAI. Gutzitarikoentzako leku.

LUKI ta iru Arrotz aurrera.

LUKI.—Nor? Timon Andikia, ala? Nire adiskide adiskide on da a. eta dedu andiko gizon.

I ARROTZA.—Geuk be eztogu gitxiagotzat, arentzako gu arrotz izan-arren. Baña zerbait esan neitsu nik, ene yaun, eta orko zurrumurruetatik dakidana bera... Yoanik ei dira Timon yaunaren egun onak, eta aren ondasunak ondo estutu be estutuak ei dira.

LUKI.—Ut, ut! ez. olangorik ez; ez egizu sinistu olangorik; ba-ledike dirurik ezean, diru-bearrean a aurkitutea.

II ARROTZA.—Baña onako au sinistu egidazu, ene yaun, zera, oraindik antxina ezala, aren otseinatariko bat izan zala Lukul yaunarenean, onenbesteko bat talent ari zorrean eskatuteko; bai, eske ta eske ibili ei ya-

kon, eta bear lango bearra ebalá esan-arren, ukatu egin ei eutsazan arako talentak.

LUK.—Bai ete?

II ARROTZ.—Bai, ene yaun, ukatu be ukatu.

LUKI.—Andia da orraitioño! Sinistu egidazu, yainkoen aurrean lotsaturik nago orregaz. Ukatu alango gizon zindori! gizatasun gitci be gitxi erakutsi da egite orretan. Nigazko, autortu-bearrean nago ni esku-erakutsitxoentzako agandik ariua nazala, esaterako, dirutan, urrezuritan, pitxitan, eta orretaiko beste uskeri batzuetan, baña are-

(2) "Soldi" dalako au (Shakespette'k "soldi-ares" diño) baliorik txikieneko txintxima zan, txakurtxiki edo olangotsuen bat.

nen aldean utsa; orraitño be, agana bagarik nigana etorri izan ba'it ezke, olango estu-aldian enuskiozan ukatuko orrenbeste talent.

SERBILI aurrera.

SERB.—Ara! zori onez or dago nire jaun ona; izerdiak izerdi bota dodaz gizon dedutsu ori ikusteko. (LUKIri) Ene jaun begiragarri ori...

LUKI.—Serbilij trikitx ondo be ondo egina, jaun; onik eta ondo abil; nire gorentziak ire ugazaba begiragarri-onindartsuari, nire adiskide mami mamiari.

SERB.—Eder izango al yatsu, nire ugazabak bidali nautsu...

LUKI.—Ostera! zer bidali yaustak? Ain bear-turik nau ak lendik be; beti dabil a bidali ta bidali. Zelan iragarriko dautsadala esker ona uste dok ik? Eta zer bidali yaustak oraingoan?

SERB.—Oraingo bere bear-izana bidali dautsu oraingoan, ene jaun; zuri, jaun orri, eske dagotsu a bere oraingo beaira omiduteko onenbeste talent emon dagiozuzala.

LUKI.—Ba-yakiat nik ire yauna txantxetan, niri adarra yoten dabilela; a ezin izan le-dikek berrogei ta bost euneko talent-bearean.

SERB.—Baña bein-beinean gitxiagoren bearean dago a. ene jaun. Ain gorri ezpa' litz aren diru-bearra, enunkean beteko nik nire egikizuna zolitasun onen erdiagaz be, ezta onan zuri sakaka ibiliko be.

LUKI.—Benetan daragoiok, ala, Serbili?

SERB.—Neure bizia-arren, jaun, bene-benetan.

LUKI.—Ni izan nazan astakoa nire dedurako izan edikean aldi berean nire diruak eralgi izan dodazalako! bai aldi ez egokian egin nebazala atzo entzute gitxi ekarriko dausten erosketak, entzute andia iristeko ereti au alan galdurik! Yainko guztien aurrean zin dagitsut, Serbili, ezin dodala egin ak eskatuten daustana; asto be astoago ni orrexegaitik, bai orixe. Neu nintzan Timon jaunari eskakizuna egiteko, eta jaunok dira orrako orren autorla ta lekuko; baña orain enunke gurako olangorik egin izanik

Atenai'ko ondasun guztiakaitik be. Kolkokadaka emoiolak gorantziak jaun on ari; eta ba-yoat itzarorik nigazko usteik onena izango dauela ak, otseintza ori nik ezin egin izan-arren; eta esaik nire aldetik eguñoko tamala dodala alango gizon begiragarriaren ederrik ezin eginagaitik. Serbili on, nire neure itzak ebalterañoko adiskide izango ete atxat?

SERB.—Bai, jaun, izango natxatsu.

LUKI.—Esker oneko izango natxak orregaitik, Serbili. (SERBILItk ctde). Egia da; zuok esan dozuenez estu dabil ibili be Timon; eta nekez yagiten da bein yausia. (Alde dagi).

I ARROTZA.—Ba-dakusak onako au, Ostili?

II ARROTZA.—Bai, ondoegi be.

I ARROTZA.—Bai, au dak munduaren biotza; eta egin-eginean olangoxe dok edozein zuri-zallaren biotza, ta bai gogoa be. Nok deituteko adiskide ontzi beretik yaten daueneri? Eta izan be, jaun onen aita izan dok Timon, nik dakidala, eta ak bere ziskuagaz eutsin yaustak onen entzute onari; ak eutsin yaustak onen etzaldeari; areago, Timon'en diruak ordaindu yozak gizon onen otseinen alogerak; Timon'en urrezuriak sakatuten yozak onen ezpanak onek edaten dauen bakotxean; eta orraitño... Ui! ikusi gizonaren zakarraren zakarra, esker txar irudiz agertuten danean!... orrek dauzan ondasunen ondasuna izan-eta, ukatu egiten yaustak ari gizon biotz-samur errukiorrak eskekoai be emoten dautsena.

III ARROTZA.—Negarrez eta intzirika dago yainko-otseinzean olango eragoaz.

I ARROTZA.—Nigazko, eguño nire bizian ez-tot ikusi Timon zelango danik, eta ezer etxat eldu aren eskuzabaltasunetik, aren adiskidetzat niri akatzik egiteko; orraitño be, autor dautort aren biotz zindo be zindoa, aren onindar argia ta aren eragoketa dedutsua. Eta bere bear-izanean nigana yo izan ba'leu, arentzakotzat etsiko neukezan nire ondasunak, eta euretatik erdirik onena utsean emongo neuskion, aren biotza onenbestean mait3 dot-eta: baña orain dakust gizonak eztautsala yaramonik egin bear errukiari, erriketea da yakinkidetzea baño beinego-ta (Alde dagi).

## III AGERLEKU.--ATENAI. SENPORN'neko leku.

SENPORNI ia TIMON'en olsein ba! aurrera.

SENP.—Besteak or itxita ni kezkatu bear ete nau ak? Jum! Luki ta Lukul yaunena ikusi bear eukean ak nigana yo baño len; aberatsik asko *da* orain ak baitegitik yareitako Bentidi be; oneik biok zor dautsoez ari euron etzaguntzak, euren egokerak.

OTS.—Ene yaun, biak aztertu ta metal ustel, zakar agertu dira, bizkarra emon dautsoe biok-eta.

SENP.—Ostera! bizkarra erakutsi dautsoela? Bizkarra erakutsi yautsoek Bentidi'k eta Lukul'ek? Eta nigana yoten yok ak? Irugana? lum! Buru ta zurtasun gitxi iragarten yok ak onetan: nik izan bear ete yoat aren atzenengo lagun eta yareibide? Bertan-bera izten yoek a bere adiskideak, osagilleak egin darioenez. bein onurea ateraazkero, eta nik osatu bear ete yoat a? Irain andia egin yaustak ak orretan; asarre natxakok nire lekuari begirapenik izan eztautsalako: ezta kusat orretan ezetarik sentzunik; nigana yo bear eukean ak beste inogana baño len, nire yakinkidetzeak diraustanez neu izan nintzan eguño lenen agandik esku-erakutsirik artu eban gizona-la; eta orren zakartzat, orren zirtziltzat eta deuseztzat ete nau ak ari erantzuten ni atzenengo izateko? Ez; besteentako irri-bide izan ledike ori, eta tenteltzat nindukie andikien artean, Lenen

yo izan ba'leu nigana, ak eskaluriko diru-moltsoa lango iru be emongo neuskiozan, nire gogoaren alderako; ain andia zan ari on egiteko nire gogo. Baña orain, oa atzera, eta nire erantzuna erantsi egiek bestsen erantzun bildurtiei; etxok ikusiko nire txintxirtik nire omena lurreratuten dauenek. (Alde dagi).

SERB.—Bapo! zital lango zital zara zu, yaun ori. Ez ekian txerrenak zetan eragoion gizona erriketazale, era-meratsu egin ebanean... inondiko burukominak sortu ebazan beretzako, eta uste be uste dot atzenean agirian iminiko dabela txerrena gizonaren zitalkeriak. Gizon onen aleginen aleginena geztu izanez ontzat agertuteko! Onindartsuarena egiten dau geztu ta askarri izateko, onaren alderako aperturirik andienaren irudipean lege-erri osoak erre ta kiskalduko leukiezanak lez; olangotsu da orren erri-ketea, orren era-mera zaletasuna. Au zan nire ugazabaren itzarorik onena; yainkoez beste guztiak igesi dabe orain: ilik dira orain aren adiskideak, euren ugazaba seguru eukiteko erabili bear dira orain ainbeste urte eskuzabaletan ateainik ezagutu eztaben atek. Eta au da eskuzabal izateak atzenean dakarrena; bere etxea yagon bear ondasunak yagoten eztakianak. (Alde dagi).

## IV AGERLEKU.-ATENAI. TIMON'neko Bebarru.

BARRON'en otseinetariko bi ta LUKI'rena aurrera, TITA, ORTENSI, ta TIMON'en artuendunen beste otsein batzukaz trikitx dagiela, TIMON noz agertuko begira.

BARRON'en I OTS.—Trikitx ondo egina; egun on, Tita ta Ortensi.

TITA.—Beste ainbeste iri, Barron txerakor.

ORT.—Luki! ara! batera yoten yoagu?

LUKI.-OTS.—Bai, eta nire ustez arazo batek berak batuten gaiozak guztiok, diruagazko dok nirea-ta.

TITA.—Orixe dck orreina ta gurea.

PILOTA aurrera.

LUKI.-OTS.—Eta Pilota yauna be bai!

PIL.—Egun on guztioi batera.

LUKI.—OTS.—Ondo etorria, anai on. Ze ordu dala uste dok?

PIL.—Bederatzietarantza yoak.

LUKI.-OTS.—Orren belu?

PIL.—Eztok agertu oraindik nire ugazaba, ala?

LUKI.-OTS.—Oraindik ez.

PIL.—Andia dok; zazpíretan argi egiten oituta yagok a.

LUKI.-OTS.—Bai, baña laburtuten asirik dozak aren egunak: gogoan euki bear dok eguzkiarena langoxe dala ondatzallearen bidea; baña ez eguzkiarena lez barriztau ledikienik. Timon'en zizkuan negurik gorriena ete dan bildur nok; eskua ondoraño sartuarren an gitxi idoroten dala esan gura yoat.

PIL.—Ire bildurra bera yoat nik be.

TITA.—Neuk erakutsiko dautsuet zelan ikusi inondiko yazokune bat. Diru-billa bidaltzen au orain i ire ugazabak.

ORT.—Egi egia oii, orretarakoxe bidali naiok.

TITA.—Eta Timon'ek esku-erakutsitzat emon-

dako pitxiak yarabilzak orain ak, eta orra-ko orregaitik diruaren begira naiagok ni. ORT.—Nire gogoz bestera naiagok ni emen. LUKI-OTS.—Oartu adi iñondiko be iñondiko dirudila onako onek, zor dauena baño gei-ago ordaindu bear dauela Timon'ek: onako au, eta ire ugazabak zerbait artu ta artuagaitik dirua artzea, biak dozak bat. ORT.—Iguin be iguin yautsat nire egikizun oneri; yainkoak diñodanaren auorla: ba-yakia nik Timon'en odasunak eralgi dauzala nire ugazabak, eta lapurretea baño be txarraço dok oraingo esker txarra. BARRO^ ' OTS.—Bai, nireak iru milla bu-restun eralgi yozak; zenbat ireak? LUKI-OTS.—Bost milla nireak. BARRON-I OTS — Asko be asko dok ori; eta diru-mordotik agiri danez, ire ugazabagana-ko uste ona nireaganakoa baño andiago zoon, ostantxean, seguru be seguru, biai bardin emongo leuskioen,

## PALMINI aurrera.

TITA.—Timon andiaren gizonetaiko bat. LUKI-OTS.—Palmini! itz bat, yaun: urteteko gerturik ete yagok nire yauna, arren? PAL.—Ez, elxagok, egia esateko. MARRON-OTS. BIAK,—Ire ugazabaren begira gagozak; iragarri egiok, arren. PALM.—Ori ari nik iragarri-bearrik etxagok; berak yakik ak zuok zoliegi zariena. (Alde dagi). PALBI aurrera, txartasagaz, eta marroturik. LUKI-OTS.—Ba! ez ete da aren ondasunzai-na olan marropean doana? Lañapean doa ori; dei egiozue, dei egiozue. TITA.—Eztozu entzuten, ala, yaun? BARRON-OTS BIAK.—Zure ederretsiagaz, youn... PAL.—Zeren eske zatorkidaze, ene adiski-deok? TITA.—Diru batzuen begira gagoz emen, yaun. PAL.—Bai, zuok begira egotea bestean seguru ba-litz dirua, segurantzarik asko litzake, Zegaitik etzenduezan gurago zuon diru-mordoak eta zorr-agiriak zuon ugazaba ustelak nire ugazabaren okelea yaten ebe-nean? Orduan aik irribarre egin eta zuri-keriak esaten ebezan eta euren matralla-azurren biartean sartu diruaren irabazia. Zoon buruai oker baño eztautsazue egiten ni zirikatua; bare ta nasai igaroten itxi egidazue; sinistu egidazue, atzenera eldu gara ni ta nire ugazaba: eztot nik zer zenbatu-rik, ez ak zer eralgirik.

LUKI-OTS.—Ba-Iedike ori olan izatea, baño ortik eztaorku ezer onik. PAL.—Erantzun orretatik onik ezpa-datortsue be, zuok bestean zakar ezta, zitalen otsein zarie zuok-eta. (Alde dagi). BARRON-I OTS,—Ostera! zeri dagoko marmarka urlri ori? BARRON-II OTS.— Itxok ardura zeri dago-ko; beartsu dok ori, eta ori berori dok azaskatzerik asko. Nor dok nasaiago ta argiago itz egitekorik bere burua sartzeko etxerik eztauen baño? Olangoak ba-yok eskubiderik etxe andiez marmarka erago-teko.

## SERBILI aurrera.

TITA.—Ui! amen Serbili; orain bai, orain izan-go dogu erantzunik. SERB.—Yaunok, arren, esker oneko nintxakizue beste egunen baten etorriko ba'zintzakiez; eta izan be, sinistu egidazue, asarrekor dago nire ugazaba; alde egin dau-tso, galdu egin dau bere gogaldi nasai-a; osasun Ixar-txarra dau, eta bere lo-gelan dago. LUKI-OTS.—Eztira gexorik egoten lo-gelan egoten diran ainbat; eta orren gexorik ba' dago, ainbat arinago ordaindu bear leu-kez bere zorrak, yainkoakanako bidea erra-zagotuteko. SERB.—Yainko onok! TITA.—Ori ezin artu giñei erantzuntzat, yaun, PALM.—(Barrutik). Lagun akit, Serbili!... ene yaun! ene yaun!

TIMON aurrera, asarre gorrian; PALMINI atze-tik ara darraikola.

TIM.—Onangorik! neure atea galazo bear ete dauste urteten? Ni beti yarei bizi, ta orain nire etxeak izan bear ete dau ni loturik eu-kiko nauen areriko, nire baitegi? Nire yaiak egin dodazan lekuak, gizon guztiak lez, bur-dinezko biotza erakutsi bear ete daust? LUKI-OTS.—Orain eskatu, Tita. TITA.—Amen nire artuen-agiria, yaun. LUKI-OTS.—Amsn nirea. ORS-OTS.—Eta nirea, ene yaun. BARRON-OTS. BIAK,—Eta gureta, ene yaun. PIL.—Gu guztion artuen-agiriak. TIM.—Yo ta lurreratu nagizue eurekaz: kirte-neraño sartu egidazue (3).

(3) Ezpatatzat dauz Timon'ek artuen-agi-riak, eta orregaitik dirautse otseinoi kirtene-raño sartu egidazue.

LUKI-OTS.—Ai ene! ene yaun...  
 TIM.—Zorretan *añct* zati egidazue biotza.  
 TITA.—Berrogei ta amar talenteko da nirea.  
 TIM.—Zenbatu egizak nire odol-tantanak.  
 LUKI-OTS.—Bosteun burestuneko nirea, ene yaun.  
 TIM.—Bosteun tantanez yagok ori ordaindu-rik. Zenbateko dok irea? Eta bea?  
 BARRON-I OTS.—Ene yaun...  
 BARRON-IIOTS.—Ene yaun...  
 TIM.—Zatitu nagizue, banandu nagizue, eta yainkoak ganeratuko al yatsuez! (Alde dagi).  
 ORT.—Bai orixe; dakustanez, gure ugazabak euren diruari agur egin baño etxoek; galdutzat, etsitzat eukiteko dozak zorrok, zor dauzana burutik eginda yagok-eta.

TIMON ea PALBI aurrera barriro be.

TIM.—Arnasarik be bagarik itxi naioek, yo-

puok. Artuendunak!... txerrenak.

PAL.—Ene, yaun maita...

TİM.—Eta egin ba' negi, zer?

PALM.—Ene yaun...

TIM.—Asmau yoat, orixe egingo yoat. Ena ondasunzai!

PAL.—Emen nozu, ene yaun.

TIM.—Orren zoli? Oa, dei egiek ostera be nire adiskide guztiai, Luki, Lukul, Senporni... guztiai: beste bein yai egingo yautset zitanoi.

PAL.—Ui! ene yaun, burutik eginda-edo zagoz zu; osta-osta gelditzen da bada-ezpadako mairako lain.

TIM.—Ez egik izan kezkarik orrelzaz: oa, neuk aginduten dauskat, dei egiek guztiai; itxi egiek beste bein zitalon uriolari barrura sar-tzen; nire otseinak eta neuk orniduko yogu maia. (Alde dagie).

## V AGERLEKU.-ATENAI. Agure batzartegia.

Agure-batzarra baturik eta yezarrita.

I AGURE-B.—Ene yaunok, or dozu orrelnra-ko autarkia; eriozgarri da uts ori; il egin bear dau: ezek be eztau adoretuten obena erukiak bestean.

II AGURE-B.—Egi utsa yatsu ori; legeak yo egin bear dau ori.

ALKIBADETS aurrera, lagundurik.

ALK.—Dedua, osasuna ta errukia opa dautse-daz agure-batzarrari!

I AGURE-B.—Zer yazoten da, gualburu?

ALK.—Zuon onindarren eskale apal nator-tsue ni; eta izan be, errukia da legearen onindarra, eta agintari odolzaleak bakarrik ezarten dabe legea erruki bagarik. Bai eretiari, bai alanbearrari ejer izan yake nire adiskideetaiko bat oinpean zapaltzea, odolaren bero-aldian legea zapaldu izan dauen nire adiskideetako bat, kezka bagarik zapaltzen dabeneztako ondo bagako itsasoan murgilduten diranentzako langoxe dan legea. Bere zoria alde batera, gizon onindartsu da a; eta aren utsa arindu ta edertu be egiten dauena, egin dauena eztau iritxi ak dollorkeriz, bere entzute ona ilik ikusirik, asarre goragarriz eta adora bikainez bers arerioari gogor egin eta arpegi emonaz baño; bestetik, asarrea beti eskuraturik, Ioturik, erabili izan dau, berak norano gura erabilteko eta nasai eta bare erago eutsan

erakuskizunen bat erakutsi izan dauenaien antzera.

I AGURE-B.—Usteaz besterako zera lango zera artu dozu zugan, egite itsusia edertuteko alegalinetan daragoiozu-ta: nekerik asko artu dabe zure itzak giza-erailtea zuritu-gurarik, eta burrukeari adore-antza emoteko; sasi-adore da olango adorea; ela mundu onetan alderdikeriak yaiobarri ziranean sortu ta yaioba yatsu orretariko adorea; gizonari yazo lekikeonik txarrena zurtasunez yasan al dauena yatsu benetan adoretstu, eta berari egin yakoan oker eta kalteak azaleko zertzat, bere soñekotzat edo olangotzat arturik, aintzakotzat artzeka yasan eta eroan al dauzana; irainai biotzaren yabe egiterik izten eztautsena, biotzari kalerik etorri eztaukion. Okerrak, irainak zer Ixar ba'dira, eta inor erailtera beartu ba'gabiez, ez ete da zorakeri be zorakeri egin yaltun irainagaitik gure bizia gal-gordean imfitea?

ALK.—Ene yaun...

I AGURE-B.—Zer ezina yatsu oben argi ta garfikirik zuritutea: ezta adorerik asperteia, yasatea da adore.

ALK.—Orrazkero, ene yaunok, zuon ederretsiz, azketsi, parkau nagizue, gualbururi dagokionez, itzik egin ba'dagit: zegaitik yake gizonai gogoko gudu egitea, euren buruak gal-gordean iminirik? Zegaitik ez yasan zema guztia? Zegaitik ez? Lo egin



semaiak gora-bera, eta erantzun bagarik, otzan otzan arerioai guri burua moztuten itxi? Baña yasatean olango aJorerik ba'da-go, zetarako goaz gudategira? Ba, olan izatekotan, yasatea izatekotan adoretsu izatea, emakumek dira adoresuen, et:ean geldituen diralako; eta gudaIburuago litzake astoa, leoia baño; ebazlea baño zurrago ta yakin-tsuago da katepean zamaturik dagon gizona, yasatean ba'dagoz zurtasuna ta yakiuria. Ui? ene yaunok, altsu ta andi zarienez, errukior eta on izan zadize; nok eztau gaitzetsiko odol otzez egindako oldarkeria, otzean egindako indarkeririk? Obenaren eztandarik andiena da iñor iltea; ba-dautort ori neuk be; baña nobere burua yagote-arren, nobere buruari erruki izate-arren erailtea zuzen be zuzen da. Zakar da asarrea, baña non da asarratzen eztan gizonik? Onako au eukizue gogotan obenaz ebatzi bear dozuenean, bata bestearen alderaturik.

II AGURE-B.—Alperrik daragoiok berbetan.

ALK.—Alperrik! ak Laksdemoni'n eta Bitzanti'n eginiko otseintzak asko izan bear leukie bizia irabazteko.

I AGURE-B.—Zeintzuk dozak orrako otseintzok?

ALK.—Ba, yaunok, egin dau ak otseintza onik, eta zuon ainbat areria erail dauz; ak bai adoretsu be adoresu erago eutsan atzenengo eztabaidan, eta artzeko lango zauriak artu ebazan!

II AGURE-B.—Geiegi artu izan yozak, bai; zin egindako burrukari dok a: sarritan itsutuen dauen akatsa yok ak, eta akats orrek atxiloturik, baiturik yaukak aren adorea; areriorik ezpa'lego, aren akats ori litzakek asko a benderatuteko; yakina dok, ezagun dok, abereen asarre gorri orretan ak oker andiak egin dauzala ta alderdiak sortuten erago dauzala; or iragarri dauskuenez, yan-edan kaltegarrietan ibili izan dok a.

I AGURE-B.—II bear yok ak.

ALK.—Zoriaren txar! gudian il eitekean. Ene yaunok, aren zer onakaitik ezpa'dadi be, aren beso eskoiak bere Lizia erosi al izan-arren, iñorentzako be zorrean gelditu bagarik... orraitioño be zuoi geiago eragiteko, neure irabaziak artu egizuez arentzakotzat, eta bionak batu egizuez; eta zuon adin begiragarriak segurantzazale dirala ba-dakidanzkero, nire garaiteak iminiko dausuedaz baitzat, nire omen guztiak aren aurrerantzako yokabide onaren alde. Ak bere okerri onegaitik bere bizia zor ba'dautso le- I

geari, ba, guduak artu ta eroan dagiala aren bizia odol adoretsutan: izan be, gogor ta'da Iegea, guduaz ezta bape bigunago.

AGURE-B.—Legearen alde gagoz gu... il egin e:ar dau ak; ez ekin luzaroago gure asarre asarrearen zemaipean: adiskide, naiz anai izan, bere odola zor dau besterenik ixuri dagianak.

ALK.—Olan izan bear ete dau? Eztau izan bear. Ene yaunok, nor nazan eta zer nazan, gogoratu egizue arren.

II AGURE-B.—Ostera!

ALK.—Bai, gogoratu egizue.

III AGURE-B.—Onangorik!

ALK.—Ezin dot besterik uste zuon adina nigaz aztu dala baño; ostantxean ezin yazo edikean nire burua errez iristen dan eskakizuna egiteraño eratsi, eta edonok iristen dauen eskerrik ez lortuterik: min 'dot nire zaurietan zuoi eskatuaren eskatuz.

[ AGURE-B.—Gure asarrepera yausten azartuten az, ala? Itz gitxi dozak asko orretarako, baña gitxiok egitez asko ta zabal dok; betiko erbesteratuten augu.

AiLK.—Erbesteratu, atzerriratu ni! Zuo umeriak erbesteratu egizuez; lukurlukeria erbesteratu egizue, agure-batzarra loitu ta itsustuten dauen lukurlukeria.

I AGURE-B.—Egun bik argi egin baño luzaroago aurkitu ba'adi Atenai'ko arresi-barruan, gure epai astunagoren begira agoke. Eta gu asarreagotu baño len bete ta burutuko al dok epai au. (Agure-batzarrekoak alde).

ALK.—Zarrik asko egingo al zauez yainkoak; azur utseraturik geldituko al zarie, iñok begiratu etzagiezan! Burutik eginda baño be okerrago nago: gogor egin izan dauset nik orre in arerioai eta aurrera egiten eztautset itxi, orreik euren diruak zenbatu ta zenbatu ta euren txintxinak irabazi itzaletan iminten erago izan dauksen bitartean; ni neu, barriz, zauri itzalez bakarrik aberats; onetarako yasan dot orrenbeste? Au ete da agure-batzar irabazgoitzaleak uire gudaIburu-zaurietara ixuriten daustan usaburkia? Ja! erbesteratua! Eztatort txarto; eztautsat gorrotorik erbesteratuteari; ondo dator-ko nire gogaldi ta asarre biziari nik Atenai yoteko zegaiti au. Poztu egingo dodaz nire gudari mukerrak, eta neuganatu euren biotzak; zori on yatsu arerioak leku askotan izatea; yainkoak legetxe gudariak be nekez yasaten dabez irainak. (Alde dagi).

## VI AGERLEKU.-ATENAI. TMON'eneko leku txairo-txairoa.

Eresl. Maiak imlnita: Otseinak begira. Ainbat Andiki sartuten dira ainbat atetik.

I AND.—Egun on, yaun.

II AND.—Beste ainbeste zeuri be. Nire ustez, gu zirikatuten baño etzan ibili lengo egu-netin andiki begiragarri au.

I AND.—Uste orixe ibili yat buruan neuri be batera yo dogunean: bere adiskideak zelangoz ziran aztertuten eta zirikatuten ibili zanean irudituaena egin eban bestean lur yota eztagola ditxarot.

II AND.—Eleuke egon bear, yai onek diragarrenez.

I AND.—Orixo uste bear neunke neuk be: benetako dei egin daust, eta zeregin asko izan dodaz dei orri ezetza emoteko eske ta eske; baña arein guztien ganetik liluratu nau orrek-eta, nai ta nai ez etorri bear izan dot.

II AND.—Neu be olantxe beraganako bearturik euki izan nau nire arazoak, ekin eta kfn, baña orrek eztautso yaramonik egin gura izan nire buru-zuriketeari. Tamalik asko dot eta ez gitxi be, ori diru-eske etorri yata-nean nik eskuetan zer-emonik euki ez iza-nagaitik.

I AND.—Neu be gexorik nozu arako tamalez, orain oartuten naz ba, zerak zelan doazan.

II AND.—Beste orrenbeste yazoten yake emen diran gizon guztiai, Zenbat diru eskatu eutsun zuri zorrean?

I AND.—Milla txintxin.

II AND.—Milla txintxin!

I AND.—Zenbat zuri?

III AND.—Etxera bidali eustan, yaun... Emen dator bera.

TIMON aurrera, Laguntzakoakaz.

TIM.—Nire biotz osoagaz. yaun biok. Eta zelan abil i?

I AND.—Alik eta ondoen beti, zu yaun orren barri onak entzunik.

II AND.—Elaiia be eztarraikio gogozago udeari, gu zuri yaun orri baño.

TIM.—(Bere kitecm). Eztau gogozago izten negua be; olango uda-egazti dira gizonak. Aitonsemeok, eztau ordainduko gure bazkariak luzaro begira egote au; eresiaz yai egiozue zuon belarriai apur baten, turutots latza gogoko ba'yake; laster gara bazkarira.

I AND.—Ba-dot itxarorik eztozula txarto artuko zuk yaun orrek zure gezneria nik esku utsik bidali izana.

TIM.—Ui! yaun, ez bekizu orl kezakklzun.

II AND.—Ene yaun zindo\_

TIM.—Ba! ene adiskide on ori! zelan zagoz?

II AND.—Ene yaun begiragarri begiragarri ori, lotsearen lotsaz gexorik be ba-nago zuk yaun orrek lengo egunean diru-eske bldall zendunean zori txarrez eskeko baño eskekoago aurkitu nintzalako.

TIM.—Gogoratu be ez egizu orrako ori, yaun, II AND.—Ordu bi lenago eskatu izan ba'zendu...

TIM.—Zer atsegingarriagorik gogoratu egizu. Tira, erdue barrua guztiok. (Aurrera da karre oturumtzea).

II AND.—Estalirik ontzi guztiak!

I AND.—Errege-eraz, bai orixe.

III AND.—Ez izan ezpairik, zalantzarik onetan, diruak eta gagozan urte-aroak emotekorik izatekotan.

I AND.—Zelan zagoz? Ze barri dogu?

III AND.—Erbesteratu egin dabe Alkibiadets; eztozu entzun orrako ori, ala?

I ta II AND.—Erbesteraturik Alkibiadets!

III AND.—Olantxe da, bai; seguru zagoz orretan.

I AND.—Ostera! Ostera!

II AND.—Arren, zer dala-ta?

TIM.—Aintzako ene adiskideok, malra urreratuko ete zarie?

III AND.—Laster esango dautsut geiagorik. Bazkari lango bazkaria dogu emen begira.

II AND.—Lengoa dogu oraindik gizon au.

III AND.—Iraungo ete dau? Iraungo ete dau?

II AND.—Bai, ba-dirau: baña ikusteko da geroa, eta ba-ledike...

III AND.—Aituten dautsut.

TIM.—Boa gizon bakotxa bere aulkira, bere maitearen ezpanetara yoango litzaken zolitasun eta bizkortasunez: yaki bardina izan-gu dabe yaten deituriko guztiak. Eztagiegun itsi okelai otzituten, lenengo lekuan nor yezarrillo dan ebatzi-ezinik, uriko oturuntza txairo- arroetan yazoten danez: yezarri, yezarri. Gure esker onaren begira dagoz yainkoak... Zuok, ongile andiok, eskenonekotasuna zabaldu egizue gizonen artean. Esker ona iragarriaz egizue zuon esku-erakutsiez; baña ez egin esku-erakutsirik bein-beinean, zuon yainkotasuna ezetsi ta zapuztu eztagien. Bear aña emon egiozue gizon bakotxari, iñok iñori emon-bearrik izan eztagian; izan be, zuon yainkotasun gizonai zonean zerbait eskatu-beanean aur-

kitu ba'lediz, bertanbera itxiko zinduklez gizonak. Maiteago bedi yakia, yakia emoten dauen gizona baño. Ez al da izango ogei gizonen batzarrik amarreko bi zital bagakorik. Amabiko bat emakume yezarri ba'dadiz maian, euretariik amar eta bi izango a\ dira... diran langoxe. Zuon beste arerioez, yainkook! Atenai'ko agure-batzarrari, Atsnai uriko zaborreari, ta guztiai batera, emon egiezue eurai zor yakena, zuok yainkook, ondamentirako gertau egizue. Ona etorri diran gizonoz, nitzako uis ezteus dira-ta, ez egizue onetsi ezetan be, ezetan eta ezetara be ezтира ondo-etorriak-eta. Kendu ontzien estalgiak, txakurrok, eta miñez edan egizue. (Bein estalgiak kenduazkero, ur epelaz besterik ezta agiri ontzie'an).

BERBETAN BATZUK.—Zer esan gura ete dau yaun orrek?

BESTE BATZUK.—Etxakiat nik.

TIM.—Bein be ez al dozue ikusiko yai oberik, aginetatik ezpanetarañoko adiskidemor-do orrek; iñoren lepotikook, ondatzalle eramerasuok, otso labanak, artz otzanok, zoriaren ergelok, burruntzi-adiskideok, udaldiko euligorriok, buru-belaunak makurtuten baño eztakizuen yopuok, lurrunok, eta erloiubesook! Gizon eta abereen gatx guztiak oso-osorik estaliko al dabez zuon narruak! ...Yoan zoaze, ala? Geldi or, artu lenago zuon osakaia... ik be bai... bai ik be... etxon, emon egingo dauskat iri dirua zorrean, deu-

sik bez artu. (Ontzлак euren ganora ycurtunik, atera egiten dauz etxetik). Oстера! guztiak igesi? Oraindik ara ezadila izan yairik, zitaiek ara ondo etorririk izan eztagianik. Erre, kiskali akit, nire etxe ori! Ondatu adi, Atenai! Orainganik ara gorroto izango al dauskai Timon'ek, gizonek eta gizadi osoak! <Alde dagi),

Aurrera barrien-barri Andikiak.

I AND.—Kaxo. yaunok!

II AND.—Ete dakik zetariko dan Timon Andikiaren asarre gorria?

III AND.—Ken akit! Ikusi ete dok nire txape-la?

IV AND.—Ganeko atorrea galdu yoat nik.

I AND.—Burutik egindako aniiki baño eztko a, eta gogaldiak baño eztarabil a. Pitxi bat emon yeustan lengo egunean, eta orain nire txapeletik, ganbelatik galduazo yaustak,.. iñok ikusi ete dozue nire pitxia?

III AND.—Ikusi ete dozue nire txapela?

II AND.—Aiko amen.

IV AND.—Aiko amen lurrean ganeko nire atorrea.

I AND.—Ezkadizan gelditu.

II AND.—Burutik eginda yagok Timon andlikia.

III AND.—Neure azurretan digart.

IV AND.—Ikatzarriak emoten dauskuz bein, arriak urrengo egunean. (Alde dagie).

## IV EKITALDI

t AGERLEKU.-ATE] Al'ko arresiz atealdea.

TIMON aurrera.

TIM.—Beste bein i begiratuten itxi egidak, barruan otsook artuten dozakan arresi orrek; lurperatu adi ta ez egik yagon Atenai! Emagaldutuko al zarie, anderok! Umerik ez al da izango esangin! yopuak eta ergslak erauziko, aterako al dabez agure-batzarki-deak arein yezarlekuetatik eta eurak artu arein lekuak! Emagaldutegietaratuko al da neskatasun garbia, eta bertatik alan be ta euren gurasoen begien aurrean! Porrot egin dozuonok, eutsin, eutsin zuonari, eta zor dozuena atzera emon baño lenago urten zuonetik aitzo bana eskuetan dozueta ta moztu dirua aurreratuta eutsuenen idunak! ostu egizue, bendeko otseinok! Lapur besa-luze

dira zuon ugazaba benak, eta aik "legez" ostuten dabe! Neskato otsein, oa ire ugazabaren oera..., emagalífutščian dcn ire ugazabanderea! Amasei urteko seme, kendu egiok ire aita zar meikiari besapeko apitz-dun makulua, eta garaunak atera egiozak beragaz yota! Errukia ta bildurra, yaures-tea, bakea zuzentasuna, zintzotasuna, etxe-ko iotsea, gabetako atsedena, auzokidetasuna, ikasketa, ekanduak, ixilkizunak eta ogibideak, goi-beak, oiturak eta legeak, nastu ta zuon okerretarako zeretara aldatu zadize, eta gora naste-borraztea! Gizonen ganera etorten zarien izurriok, zuon sukar indartsu ta kutsakorrok, intsikorrok, zartadea artezko umaturik dagon Atenai'ren ganera pilatu egizue! Epermorretako gaitz ori, el-

barritu ta meikitu egizuz gure agure-batzarrekoak, arein azpegiak euren ekcinduak le\* get::e msikika ibiñi dadizan! lizunkeria ta nasaikeria sortuko al dira zuon gazteriarren buru ta gunetan, onindarrez bestera erago ta nasaikeritan ito dadizan! Azkurok, ozpelok, sartu zadize Atenai'tar guztien bularretara; eta guztien legenarra izango al da orrako orren uztea ta ondorena! Arna-seak arnasea kutsatuko al dau, euren adiskidetasuna legetxe euren lagunartea alkarri eden edo zital izan dakion; bai, kutsu ta zital uts izan dakion! Narru gorriaz beste-rik eztoz eroango zugandik, uri askarri ori!

#### H AGERLEKU.--ATENAI. TIMON'eneko leku.

PALBI aurrera, bi, naiz ira Otseinegaz.

I OTS.—Ondasunzai yaun, nondik da zure ugazaba? Egin dau gureak, ala? Bertanbera itxiak gara, ala? Ezta ezertxo be gelditu, ala?

PAL.—Ai ene! ene lagunok, zer esango nik zuoi? Gogoratuko al naiok yainko zuzenak! zeuko bestean beartsu nok ni.

I OTS.—Porrot eginik onango etzaguntzea! Yausirik alango ugazaba zindoa! Dana yoanik, dana ondaturik! Eta adiskiderik zelangoa danik bez, ari bere zori txarrean besolik eldu ta agaz yoalekorik!

II OTS.—Ilobira egotzi dan gure laguneri gure bizkarra emoten dautsagunez, aren adiskide etxetiarrak be buru-makur alde egin dabe aren ondasun obiratuetatik be; agaz itxi dabez euren zin ustelak be, ostutako ziskuak bein ustuzkero izten diran leget::e; eta a bera beartsu, legorrik bagako eskeko, guztiak alde egiten dautsoen bearrezko gaxa aldean dauela, or dabil ara-onaka, ezetsia legetxe. Ba-dator gure lagunik geiago be.

Beste Otsein batzuk aurrera.

PAL.—Bai, iur yotako etzeko tramankulu ausi guztiak.

III OTS.—Ondiño be Timon'eneko yantziak doguz gure biotzetan; gure mosuetan dakust orrako ori; alkarren lagun gara oraindik be, naibagean alkarren kide gareala: zulatu ta ura sartzen yakola dago gure ontzia; eta gu, itsastar errukarriok, urperatua-ginik dagon ontzi-ganean gagoz, uginen, urutuen zemaik entzuten: guztiok alde egin bearko dogu eguratzeko itsasora.

PAL.—Lagun on guztiok, zuon artean banan-

Kendu egidazu narru gorri au be, legetik ateko nazala aldarrikatuaren aldarrikatuz! Basoetara yoko dau Timon'ek, eta ak an idoro dagian abererik okerrera be gizadia baño txerakorrigo izango yako. Yainkoak nastuko al dabez, -entzun nagizue zuok yainko on guztiok-, yainkoak nastuko al dabez arresi-barruan eta arresiz onantza diran Atenai'tarrak! Eta Timon azi-ala, giza-enda osoaganako, goiko ta bekoganako, aren gorrotoa be azi dadila emon egidazue, yainkook! Olantxe, bai, olantxe. (Alde dct-gi).

duko dot nire ondasun-ondakina. Edonon guk alkarregana yoko, alkarren lagun izan gadian aurrerantzean be, Timon-arren; gure buruak eraginda, gure ugazabaren ondasunai yoten yakezan yoaleak ba'lira legetxe, esan daigun "Egun oberik ikusiak gara". Arean artu dagiala bakotzak. (Dirua emotsn dautse). Tira, aurreratu eskuok. Itz bat bez geiago: onan, beartsu alde egin-arren, naibagetan aberats alde dagigu. Oitsekiak, alkar besa'teak estuturik, bide bana artzen dabe). Aintzan, anditasunak dakaskun zori txarraren zori txar! Nok eztau gurako aberastanunik ez izatea, aberastanunik bearrerako ta ezespererako bidean ba'dagoz beti be? Nok gurako ete leuke aintzatik, goi-goitik, irri onetara elduterik? Naiz, adiskidetasun-amesetan biziterik? Nok bizi gurako ete leuke ospe ta arranditan, eta anditasun-amesetan biziterik? Nok bizi gurako ete leuke ospe ta arranditan, eta anditasunari darraikiozan zeren artean, ez baña benetakoetan, iruditutakoetan baño, aren adiskideak iruditutako utsak izan diran legetxe? Yaun zindo aren errukarri, bere biotzak lur yoazoarena, bere ontasanuk ondatuarena! Inondiko odola, odol bakana, aren obenik andiena onik geiegi egitea izan danarena! Ori yazorik, nor azartuko aurrerantzean aren erdirik be on eta txerakor izalen yainkotzat dauen eskuzabaltasanuk oraindik gizonik ondatuten dauenazkero? Biotz biotzeko ene yaun... zure onspentzat biraoen biraok eta ondasun bakartzat zori txarreko izatea dozun ori..., zure naibagerik andien egin dira zure ondasun andiak. Ai ene! Yaun on ori! Asarre gorrian alde egin dau ak adiskize zakar-itsusi esker t::arrekoak bizi diran uri onetatik; eta

eztau zegaz bizirik, ezta zegaz bizirik irabazteko alik be. Yarraí yoango natxako ta itaunka billatuko dot: biotzik onenaz egin-

go dauats gaurtik ara nire otseinketea; aren ondasunzai izango naz aurreantzean be urrerik dodan artean. (Alde dagi).

### III AGERLEKU.-Basoak. TIMON'en artzulo-aurrea.

TIMON aurrera.

TIM.—Eguzki ama onetsi ori, ezotasun ustela atera egizu lurretik; kutsatu egizu zure aizta borobilaren azpiko eguratsa! sabel beretiko anai birkel bi, artu egizuz sortzez, egolekuz, eta yaiotzaz ia ia alkarregandik banandu bagako diranak, eta zori ezbardinak emon egieuz; zarragoak ezetsi ta iguin izángo dauatsa gazteagoari: gizonaren biotzak, izurri guztiak aldean dauzan gizonaren biotzak ezin yasan dau ondasuntza andirik bera egin dauenena ezetsi bagarik. Eragi egidazu eskeko ou eta eratsi yaun ori; ezetsia izango da agure-batzarrekoa bere yatorria-arren; eskekoarentzako izango dira yaiotzeari zor yakozan dedu ta omenak. Mai onak gizenduten dauz bigarrenaren saiets-arteak, bearrak iristuten dau bestea. Nor azartuko da, gizon uts danez. zutundu ta "Zuritzaille da gizon au esaten? Bat izatekotan, guztiak dira olangoxe; eta izan be, malladiko malla baktxa ia bardindurik dau beragoko urrenak; yakintsuak burua makurtzen dau ergel aberatsaren aurrean, dana dabil oker; zelairik ezer be eztago gure izate gaiztetsietan, zitalkeri artezaz besterik. Orrazkero, ba, gorrotauak bediz yai, lagunarte, ta giza-mordo guztiak! Bai, bere antzekoa ezesten dau Timon'ek, bere burua ezesten dau. Ondamendiak iruntsiko al dau gizadia!... Lur, susterrak ekaduz (Atxurren daragoio). Obarik, guriagorik eskatu dagiskanari, eden edo zitalik egikorrenez gozatu egioak agosapaia!... Zer dogu emen? Urregorria, ala? Urregorri laru, didizkor, aberats, ala? Ez, yainkook, enozue ni egoki eztan arrenik egiten dauenik. Susterrak emoidazuez, zeru argio! Zuria baltz egingo dau onetariko onenbestetxok, eder itsusia; okerra, artez; zirtzila, zindo; zarra, gazte; adoretzu, kiki-la. Ene yainkook! zegaitik onan? Zer dogu au, ene yainkook? Ba, tatarrez eroango dau-tsuez onek zuon yaupari ta otseinak zuon aldamenetik! Erauzi, kendu egingo dautsez onek gizon-mordoi euren burupekoak burupetik: yopu bellegi onek yosi ta manatu egingo dauz yaurespideak; onetsi, gaiztetsiak; gurtuazo legenar zuria; leku emon

lapurrai, andiki-izengoitiak, belaun-makurteak eta gorapenak emon; au da naibage-tan ondaturik dagon andera alarguna barrero ezkontuten dauena; au da eri-etxeak eta zauri mingorrek eurak be ganera okada egingo euskioen emakumea Yorraileko eguna legetxe lurrunduta ta usain gozotan imini daroana. Tira, lur gaiztetsia, gizon guztien emagalduta ori, errien artean alkar ikusi-ezinak eta asarreak ereiten dozuzan ori. zure buru yatorrarena egitera beartuko zaudaz nik... (Ibilketa-eresi urtimean). Ja! danbor-ots ete da? Bizí zara oraindik, baña lurperatuko zaudaz: yoan egingo az, lapur mardul ori, i aukien azur-giltzetako ezoeridunak zutunik egoteko gauz ez tiranean be: Ez, etxoik zelango azan ikusteko iretik arean artu arteño. (Urregorritik arean gordeaz).

ALKIBIADETS aurrera danbor eta turutagaz. gudurako antzean; PIRNE ta TIMANDERE be aurrera.

ALK.—Nor zauguz or zagozan ori? Itz egizu. TIM.—Abera nok ni, eu legetxe. Bizienak yango al 'dauk biotza. gizonen begiak barrero erakutsi daukazalako!

ALK.—Zer yak izena? Eu be gizon izanik, orren gorrotagarri yak gizona, ala?

TIM.—"Gizagorrotatzalle" nok ni, eta gorroto yausat giza-ariari. I eugazko, txakur al intz i, nik i zelanbait maite al izateko.

ALK.—Ezagan aut, eta ezagan be ezagan; baña ire zoriaz ez-yakin eta iñondiko nok.

TIM.—Neuk be ba-azaut; eta azaudan baño zeatzago ezaututerik etxoat bear. Arraikio ire danborrari; giza-odolez margoztatu egik lurra, gorritu egik.gorritu egik: yaureskera-suodiok, gogor be gogor dira urikideen legeak; zer da, orrazkero, gudua? Bere kerube-begiak gora-bera, ire emagalduta ustel onek ondamendi andiagorik ba-yakak ire ezpateak baño.

PIRNE.—Ustelduko al yatsuz ezpanak!

TIM.—Eztautsut egingo mosurik; orrazkero. zeure ezpanetara doa atzera usteltze ori.

ALK.—Zelan etorri da Timon zindoa aldakuntza orretaragiño?

TIM.—Iretargiari yazoten yakonez, emoteko argirik eztauelako; baña iretargia barriz-tau-arren, ni ezin nok barriztau; nik etxoat izan eguzkirik, ari zorrean argirik artzeko.

ALK.—Timon zindo, zer onik egin neinketsu, ze adiskidetasunik erakutsi neinketsu?

TIM.—Ezer bez, eta ezetarikorik bez, nigazko ire usteari eutsin baño.

ALK.—Zer da orrako ori, Timon?

TIM.—Adiskidetasuna opatu egidak, baña ez akit izan adiskide: opatu gura ezpa'dagik, izurri guztiak ekarriko al yoezak yainkoak ire ganera, gizon az-eta! Adiskide izan ba' akit, nastuko al aue, gizon az-eta!

ALK.—Zerbait entzun yoat ire bear-izanaz, eta zori txarraz.

TIM.—Ikusi enduzan ik orrakook ni zori ontsu nintzanean.

ALK.—Orain dakusadaz nik; bestelango zan orduko aldia.

TIM.—Orain irea bestelango dan legetxe, emagaldu bik bitartean aukielu.

TIMAND.—Au ete da Atenaitarrak ago batez eta begirapenez euren kutuntzat autortuten ebena?

TIM.—Timandere zauguz, ala?

TIMAND.—Bai.

TIM.—Ekin, yarra, emagaldutzeari! Etzabez maite zu zarabiltzanak; gatxak erantsi egie-zuri euren mardultasuna izten dautsuenai. Ondo eratili egizu zure lizunker-aldia: gertau egizuz zure yopuok upel eta ikuzi-aldiz; eta gazte mosu-gorriak, gazte larrosa-mosudunak upela bera baño igerrago ta iristuago itxi egizuz.

TIMAND.—Ken zakidaz aurretik, zakarto ori!

ALK.—Azketsi, parkatu egizu, Timandere kutun, bere zori txarretan bere burua galdu ta itorik dau orrek-eta... Aldi onetan urrerik oitxi baño eztoz, Timon adoretzu, eta urrerik ezak asaldatuterik asko sorttuten daust nire gudarí-talde beartsuan: tamalik eta naibagerik asko izan dot Atenai birao-garriak, zure aintzakotasunari yaramonik egiteka, zure egite andiak azturik, zure ez-pata ta ondasunakaitik izan ezpalitz auzoko erriak zapaláuko eukienak egin dautsuna entzun dodanean.

TIM.—Arren, yoazo egik ire danborra, eta oa ortik zear.

ALK.—re adiskide nok ni, eta ermki dauskat. Timon maite.

TIM.—Zelan dautsak errukirik gogaitu ta keskatuten dokanari? Gurago yoat bakarrik egon.

ALK.—Ba, onik eta ondo ibili: autso urrerik aiean eutzako.

TIM.—Euk euki egik, nik ezin yoat yan ori.

ALK.—Atenai arroko arriakaz armendi egin dagidanean...

TIM.—Atenai'ri egiten dautsak gudu, ala?

ALK.—Bai, Timon, eta ba-dot izan be orretarako biderik eta zegaitirik.

TIM.—Yainkoak nastuko al yoezak guztiak ire garaitean; eta eu urren, ik bein Atenai benderatutakoa!

ALK.—Zegaitik ori, Timon?

TIM.—Zitalak erailaz, nire aberria benderatuteko yaio intzalako. Artu egik ire urregorria: oa aurrera..., autso urregorria..., oa aurrera; Yupiter'ek ekandu txar-tzarreko urrien baten ganeko eguratsetan edena iminten dauenean legetxe, izarbeletatiko izuni izan adi: batek be ez al yok zirrist egingo ire ezpatatik; ez egiko izan errukirik adin begiragarriari, bizarrak zuriturik dauzalako, irabazgoitizale, lukurleru dok-eta: yo ta zeartau egidak irudiz bakarrik andi dan etzanderea: soñekoa bakarrik yok zindorik, emagaldu dok bera: ez al yok bigunduko ire ezpata zorrotza neskearen mosuk, mosu esne-zuri aik ba, leio-sare bitarteak zear gizonen begien billa dabiltnanak, etxagozak idatzita erukiaren orriko izendegian, bestera saltzalle itzalak dirala iragarri yoek; ez parkatu seintxori be. bere begi-zulotxoetatiko irribarreak ergelai bakarrik errukia ateraten yautsek-eta; sasikumetzat etsi egik goitiko iragarpen ilunak iri iduna ebateko-tzat iragarri dauena, eta erruki bagarik zeatu egik; zin egik errukior izatera itzuli agikan edozeren aurka; burdin-koskolez esta'i egizak ire belarriak eta begiak, estalgi ori ezetara be zulatu eztagien ez amen negarrantzak, neskatoenak, naiz umeenak, naiz yantzi gurenez yantzita odoletan dagozan yauparienak. Autso urregorria ire gudariei ordainduteko; naste lango nastea sortu egik; eta ire asarre gorria agortu dadinean, eu be nastu ta ondatuko al az! Ez egidak itzik egin, oa.

ALK.—Oraindik be ba<sup>3</sup>ok urregorrlrik, ala? Artuko yoat ik opatuten daustakan urregorria, baña ez ezetara be ire onua.

TIM.—Ik artu, naiz artu ez, zeruaren biraoa igan izan egik!

PIRNE ta TIMAND.—Geuri be ekaguzu urregorrlrik arean, Timon orrek: ete dozu gsiagorik?

TIM.—Urregorrlrik asko oraindik, emagalduri bere ogibidea itxiatzoteko, eta emagalduek

emagaldubiltarteko egiteko. Eragi ta zabaldu zuon amentalak, saskilok: etzarie zuok zinik egitekorik... Orraitiño be, ba-dakit zirik egiten dozuela zuok, eta itzalez egin be, zuon zinak entzuten dabezan yainko ilezinnk dardaraka ta zerutar ikara baten imini arteño... Ez egizue egin zinik, zin bagarik be sinisten dot ori dala zuon ogibidea: yarra zuon emagaldutzean; eta zerutar itzez zuok bide oneraturen letorkizuenaz emagaldubano emagaldubago izan zadize, liluratu egizue, zuokanako sutan erre egizue; zuon urreko suak benderatu dagiala aren kea, eta ez alde egin zuon ogibidetik eta zuon lekutik; eta gero, urteko sei ilebetean, zuon egikizuna orrako orrez guztiz besterakoa izango al da, zuon nekeen alderako eta zuon buru ulduak ilen ondakinez estali al dagizuezan, eskegi egin dabezala olangoetariko batzuk? Eztau ardura: eroan, erabili ondakinok, iruzur egin eurokaz; oraindik be emagaldub izan; apaindu margoz zuon mosuak, apainkiotan zaldia bera be lupezturik gelditu al izateraño. Izurriak eroango al dauz izur guztiak!

PIRNE ta TIMAND.—Tira ba, urre geiago betor... zer urren! Sinistu egizu, edozer egingo dogu guk urregorriagaitik.

TIM.—Bularreko gatxa erein egizue gizonaren azur arroetan; yo ta geldituazo egizue gizonen zangazur meak, eta eztagiela izan aztalak sartzeko indarririk. Zakartu, anakaldu, latzitu egizue legelariaren abotsa, aurrerantzean bein be berezte mezorrotzen alde abots zolorik erabili eztagian; legenarra ezarri egiozue aragikerien aurka gogor eta asarre egiten dauen abadeari, olangorik berak be eztau sinisten-eta (4): moztu surra, sustar sustarretik erauzi bere onerako bakarrik artzeko, guztien ondasunetan usmaka dabilenari; ez itjri olangori surr-azurraren lortziz, ondakinik be; uldu egizuez gaizto ule-kizkurren buruak; eta euren soñean inon ezetariko zauriatzik eztaben gudari gangarr-arropuzkeritsuak minen bat artu dagiela zuokandik: guztiak izurritu egizuez, eragite guztien sorburu edo iturria zuon egiteak benderatu ta agortu dagian. Ausie urregorri geiago: gaitzetsi egizuz zuok besteak, eta oneik gaitzetsi zagiezala zeuok, eta arekak izango al yatsuez zuoi guztioi ilobi!

PIRNE ta TIMAND.—Onu geiago urregorri geiagogaz, Timon eskuzabal.

TIM.—Emagaldubago, gaiztoago lenen; egjueaneren baitzat, segurantzatzat emon daustuet nik.

ALK.—Yo, danborlari, Atenai'rako bidea artzeko! Onik eta ondo ibili, Timon: ondo ba' doakit, barrero etorriko naz zu ikusten.

TIM.—Nire itxaroak bete ba'dokidaz, inoz ba etzaudaz ikusiko.

ALK.—Eztausut eguño gatzik egin.

TIM.—Bai, ondo itz egin dok ik nitzaz.

ALK.—Eta okertzat dozu orrako ori, ala?

TIM.—Orretarikotzat yoeke gizonak egun oro. Oa, ta eugaz eroan egizak txakurremeok.

ALK.—Asarratu baño eztozu egiten ori... Yo (Dandorrek yoten. Alde ALK., PIR., ta TIMAND.'k).

TIM.—Andia da orraitino; gizonaren biotz onik ezaz iguindurik egon izadia, eta oraindik be gizon geiago sortzeko goserik izatea!... Guztion ama orrek, (Atxurren dcmr-goio), neurri bagako zure sabelez eta atzen bagako zure bularrez zer guztiak sortu ta zer guztiak bazkatuten dozuan orrek, zure seme gizon arroa egin izan dozun ora beretik eta beragaz kunkun baltza ta sugerri urdina, urregorri-margoko sugalindarea ta suge itsu edenduna, baita Iperfon'en (5) su bizkorrak argi egiten dauen ortze igikorpean yaioten diran zer askarri-itsusi guztiak be sortzen dozuan orrek sustartxo zirtzil bat emoiouzu zure sabel aberatsetik gizakume guztiak gorroto dautsoen oni! Zimeldu, legortu, igartu, antzutu egizu zure sabel emakor-sorkorra, oraindik ara gizon esker txarrekorik sortu eztagian! Sabel beteka, sabelak artu-ala sortu egizuz katamotzak, iransugeak, otsoak eta artzak; gora begira dagon zure arpegiak eguño goiko arzurizko etxeari erakutsi eztautsan lango izaki zakarrez ganezka imini egiozu zure arpegi ori!... Ene! Amen sustar bat... eskerrik beroenak damotsudaz! Legortu, igartu egizuz zure gunak, maastiak, eta zure zelai landuak, esker txarreko gizonak ortik ateraten dauz, ba, edari gogorak, drangadaz eta agokada koipatsuz bere adimen garbia loitu ta ebazpidea kentzen dautsoen zerak.

(4) Zoroaren agorako egokiogo da esakune cu izcm be. Kiscrttasuna boño aurreragoko abadeakazko dira itz gordinok izcm, baña aldi atako abadeak be etzfran izango guztiak zer bot escm sta bestera yokotuko eukienak

(5) Iperion dalako au Eguzkia yatsu, irakurla. "Goian dabilena" esan gura dau Eladeraz (Hyper ion).

AP2MANTA aurreva.

Gizoni'i geiago? Izurriak eroango al au, fzu-  
rriak eroango al ciu!

AP.—Ona bidali nabe: gizonak or áiñoenez,  
nire yardukerak iruditu ta erabilten ei do-  
zuz.

TIM.—Olan ba'dok, nik iruditutelho ik txaku-  
rrik eztaukalako dok. Bularreko gatxak yo-  
ko a! au!

AP.—Iruditua baño eztok igan izakera ori;  
ire zoriarsn aldakuntzatik sortu yakana eta  
gizoni eztagokion gotiluntasuna. Zetarako  
dok at:ur au? Zetarako leku au? Zetarako  
yopu-antzeko scñeko ori? Zetarako kezka-  
begirakuneok? Oraindik be sedazko soñe-  
koak yoezak aldean ire zuritzalleak, ar-  
daoa edaten yoeak, eta oe apitzean etzaten  
dozak; besartean estututen yoezak euren  
kutun sunda ka'tegarridunak, eta Timon'ik  
egüño izan danik be aztu yakek. Ez egizak  
lotsatu basook maltzurkeriz negarti-alakari-  
rena iruditurik. Zuritzalletu *añi* orain, eta eu  
ondatu auenetik koipea, onuiea atea egik;  
makurieratu egik ire belauna, eta zuritu  
gura dokanaren arnaseak lurreratuko al  
dausk buruko txapela; aren lera ta griña-  
rik txarrena goratu egik eta itzalez eder  
eta bikain dala esaiok: olan itz egiten eus-  
kaen aik iri; entzunbera egiten intxaken i,  
ardandegi-otseinak zitalai eta ara datozen  
guztai ondo-etorria emoten dautsenez: zu-  
zen be zuzen dok i zitaldulea; barriro on-  
dasunik ba'eunke ik, zitalentzako litzakezak.  
Ez egik egin nirearenik.

TIM.—Ire antzekorik ba'nintzok, ortik zear  
egotziko naieuke nire burua.

AP.—Yaurtin eta egotzi dok ik eure burua,  
eu langoxe izanik; ain luzaro burutik egi-  
na, erge!, tentel orain. Ea! Axe otzak, ire  
lagun zaratatsu-arroak fcerotuko dauela ire  
atorrea uste dok, ala? Zugatz orolditsuok,  
arranoa baño luzaroago bizi izan diranok,  
ire orpoen yarra ibiliko yakazala ta ik ki-  
ñurik egindakoan ortik zear yoango dirala  
uste dok, ala? Leiaien leiz gozoki gogona-  
ren antza dauen errekatsu otz onek gabeko  
ire beiskadea osatzeko goxean salda go-  
zorik emongo dauskala uste dok, ala? Ira-  
zakiei dei egiek... or bizi dozak orreik na-  
rru gorrian eguraldien gogortadak gora-be-  
ra; gurre aldorrak narru gorrian egon-arren,  
eurenez erantzuten yautsek alkarregaz asa-  
rre diran lengaien ekite ta yazarketai, arein  
bendea ezetarik legoi bagaiik egon-anen;  
zuritu agiela eskatu egiek; ene! zera ido-  
roko dok...

TIM.—Bai, tentel azala i; ken akit aurretik.

AP.—Eguno baño maiteago aut.

TIM.—Eta nik egüño baño gorrotoago aut.

AP.—Zegaitik?

TIM.—Zori txarrari zurikerietan daragoioka-  
lako.

AP.—Snafcil ni zurikerietan; zori txarreko aza-  
la iri esaten baño.

TIM.—Zegaitik ator nire billa?

AP.—Iri adarra yoteko, i kezkatuteko.

TIM.—Beti abil i edo zitalaren, edo tentela-  
ren egikizunetan. Gogoko ta atsegingarri  
yak orrako ori, ala?

AP.—Bai.

TIM.—Ostera! zantar be ba-az, ala?

AP.—On litxakik, ik bizikera latz eta otz ori  
ire arrokeria zigortuteko artu izan ba'eu;  
baña indarrez, nai ta nai ez, bearez artu  
izan dolc; oraintxe be yauregitar intzake i.  
eskeko ezpa'intz. Gogoz, nobere kitetik ar-  
tutako ondiko edo zori txarra otsandi loka-  
aldakorra baño seguruago dok, seguruago  
ta oba; bata beti yagok betetan, geiago  
artzen, bein be etxagok bete-aselurik; bes-  
tea, ostera, gura-ala dauela yagok; egoke-  
rari gorengoa be, beragaz pozik ez egote-  
kotan, egokerarik beartsuena baño be  
beartsuago ta zori txarrekoago dok, beart-  
tsua bere bearrean pozik ba'yagok. Zori  
txarreko azanazkeru il gura bear eunke.

TIM.—Ez ni baño errukarriagok esanagaitik.  
Zoriaren beso samurrak egüño euren be-  
sartean estutu izan eztaben yopu az i; txak-  
ur yaio intzan i. Seintzaro-asieratik ara  
gu lez azi izan ba'intz i, munduko bizitza  
labur onek emon leikezan atseginetara  
itzuli ta eurentan oso-osoan murgilduko in-  
tzakean; oerik oe lizunkeritan urtuko eun-  
kean ik ire gaztetasuna; eta egüño ez eun-  
keazan ikasiko ik lotsearen agindu otzak,  
ire fcegien aurreko eiza gozoaren yarra  
ibili baño. Baña nik, mundua neuk egi-  
na ba'itxok lez neure bendea euki izan do-  
dan onek; gizonen agoak, miñak, begiak,  
eta biotzak nik zetan erabili asmau-ala ba-  
ffo otseintzanago euki izan dodazan onek;  
orrakook, zenbatu ezin-ala, niri intsigi  
intsigirik egon izan dozak, orriak aretxari lege-  
txe, eta orraitño be, neguaren inarreak lu-  
rrera egotzi yozak euren aJarretatik, eta  
narru gorrian itxi naiok, billusik, edozein  
ekatxek yoteko... onangorik bagarik zer obe-  
rik baño ezautu izan eztodan onentzako, ni-  
tzako, arean astun eta nekatsu dok onako  
au yasatea: i lendik, yaioztalik aia ago  
yasatera eginik eta oiturik, aldien igaroen  
igaroak gogortu cu i. narrua gogortu ta



sendotu dausk. Ze biderik, ze zegaitirik dok ik gizonai gorroririk izateko? Eguño ez-tauskae aik iri zurikeririk egin, ez esan: zer emon izan dautsak ik iñori? Biraotu gura ba'dok iñor, eure aita biraotu egik, sorki errukarri a, ari ekiok, gogaldi txarren baten ak bere-bere zana sartu yeutsan emakume eskekoen bateri, eta i sortu induan bere ondorengotzat, i txotxo zirtzil ori. Ken akit! Alde egik emendik! Ospa! Gizonik txarren sortu ezpa'intz, zital eta zuritzalle intzake i.

AP.—Arro az oiaindik be, ala?

TIM.—Bai, i enokalako izan be.

AP.—Eta ni, ondasun-ondatzalle izan enokalako.

TIM.—Eta ni, oraindik be ba-nokalako: nik dodazan ondasun guztiak igan ba'legoz, or eunkake nire eierra eure burua eskegitoko. Oa ortik zear... Onako onetan al lego Atenai'ren bizi csoa! Onantze yango neuke. (Su'starra yaten daragoio).

AP.—Autso; obatu egin gura yoat ire bazkaria. (Zerbait eskein'.zen dautso).

TIM.—Ire laguntzea obatu egik lenen, alde egik.

AP.—Olan, i laguntzat izan ezagaz, obatuko yoat nire laguntzea.

TIM.—Obaturik eztok geldituten olan; sorkiz adabaturik baño eztok geldituten; dana dala, ori gura yoat nik.

AP.—Zer gurako eunskio Atenai'ri?

TIM.—Axe-boladaen batek, axe-zurrunbilloen batek i ara eroatea. Gura ba'dok, esaiek angoi ba-dodala urregoririk; ba-yoat izan be, ba; aiko.

AP.—Emen eztok urregorria zetan erabilirik.

TIM.—Zetan erabilirik onena ta yatorrena: izan be, lotan yagok emen, eta ezta kartso iñori okerrik, ez kalterik.

AP.—Non etzaten az gabaz Timon?

TIM.—Goian dodanaren azpian: non yaten dok egunez, Apemanta?

AP.—Nire urdalleak yakirik idoroten dauen lekuan; edo, zeatzago esateko, yakia yaten dodan lekuan.

TIM.—Esaneko al litzok, eta nire gogoaren yakitun al litzok edena!

AP.—Nora bidaliko eunkake?

TIM.—Ire yakidun ontr.iak gozatuten.

AP.—Eguño be eztok ezautu izan ik gizaditik erdirik, aren asiera-azkenen azken biak baño: i zer urreztau ta usain gozoen artean engoanean, irri egiten euskaen iri iñondiko zeretarako ire zaletasun geiegiagaitik; orain ire sorkietan eztok ezaututen ik

olango geiegiakeririk, baña orain be irri egiten dauskne lengoaz besterako azalako. Autso mizpira bat, yan egik.

TIM.—Etxoat yan gura gorroto ta iguin dau-tsadan zerik.

AP.—Iguin eta gorroto dautsak mizpireari, ala?

TIM.—Bai, iie antzeko diralako.

AP.—Lenago izan ba'euntse iguin eta goi-roto mizpiiari, maiteago izango eunkean oiain ire burua: ezautu izan dok ik eguño be bein bere ondasunak galduazkeio maite izan daben gizonik, ala?

TIM.—Noz ezautu dok ik euk ik aitatu dozakan esku-arteko bagarik maite izan dabeni?

AP.—Neu.

TIM.—Aituten dauskat; ba-euan ik tjcakurren bateri yaten emoteko lain eskuarterik.

AP.—Mundu onetan zeien antza aitzen dautsek ik ire zuiitzalleai?

TIM.—Emakumeena geien; baña gizonak... zurikeiia beia dozak gizonak. Zer egingo eunskio munduari, Apemanta, ire eskuko ba'litzok?

AP.—Abere ta piztiari emon, gizonena egiteko, gizonik ez izateko.

TIM.—Naste-borraste orretan eu be kide ta banuko izango ete intzak^, eu be abeieen aitean abere izateko?

AP.—Bai, Timon.

TIM.—Aber-guraietaiiko dok ori-ta, yainkoak emongo al dauskae gurari ori betetaa! Leoirik ba'intz, ziririk sartuko leuskik azeriak: asuiiik, bildotdk ba'intz, azeriak yango induke: akeririk ba'intz, susmorik izango leuskik leoiak, astoak i salatuterik yazo ba'ledi: astorik ba'intz, ire elorrio litzakik ire moteltasuna; eta orraitio be otsoaren gosari izateko baño ez intzake biziko: otso-lik ba'intz, iie salokeriak, irs yangarrak kezkatuko induke, eta sanitan iminiko eunke gal-gordean ire bizia ire bazkaria-arren: adarbakardunik ba'intz, arrokeriak eta asarreak nastuko indukie, eta eue buiua galduko eunke ire asarreaz; artzik ba'intz, zal-diak erailgo induke; zaldirik ba'intz, leoinabarrak goatuko induke; leoinabarrak ba'irtz, leoiainen lengusu intzake, eta iie aii-ko oibanak galgoidean iminiko leukie iie bizia: oifcanok igandik k^ntzea, aienatutea litxakik yareibie bakarra; alde egitea litxakik ire fcuia yagotea. Ze afceie, ze pizti izan endike, piztien fcendekoik ez izateko? Eta dagoneko, ze pizti ete augu i, iie galtzerik, ire ondamendirik ez ikusteko?

AP.—Ire itzik inoz nire gogoko izalekolan, oraintxe izan ledikezak: pizti-basotu egin dok ik Atenai'ko lege-erria.

TIM.—Zelan arraio ausi yok astoak arresia, i emen uritik at izateko?

AP.—An aragotik yatozak olerkari bat eta margolari bat: laguntza-izurria yausiko al yak ganera! Izurria intsigi dakidan bildur nok-eta, emen izten aut: beste egitekorik ez-todanean etorriko nok barrero i ikusten.

TIM.—Eu ez besterik bizirik eztanean txera argia egingo dauskat. Gurago naieukek eskekoren txakur izan be, Apemanta'rik izan baño.

AP.—Bizirik diran tentel guztien buru az i.

TIM.—Aratzik asko al intz, iri txu egiteko!

AP.—Izurriak eroango al au, iri biraorik egiteko i gaiztoegi az-eta.

TIM.—Zital guztiak dozak garbi ire aldean, ire aldamenean.

AP.—Ik esaten dokanaz beste legenarrik etxagok.

TIM.—Iri nik izenik ezartekotan... Yo egin bear induket, baño etxoat kutsatu gura nire eskurik.

AP.—Nire miñak usteldu al leuz ire eskuak, eta Tistelaren ustelz lurrera yausiazo!

TIM.—Ken cdcit, txakur legentsu-kume ori! Asarrearen asarez il egin bear yoat i bizirik ikusirik; larritu egiten nok i ikusiaz.

AP.—Lztenak egingo al euz!

TIM.—Alde egik, zital aspergarri orrek! Tamalik asko yoat iri yaurtite-arren arririk galdu-bearrez. (Arrika egiten dautsa).

AP.—Abera ori, alango ori!

TIM.—Yopu ori, alango ori!

AP.—Kunkun ori, alango ori!

TIM.—Zital, zital, zital ori, alango ori! (Atze raka dagi APEMANTA'k, yoon doanarena eginik). Gexorik naiagok mundu ustelaz; eta mundukorik, bear-bearrekoaz besterik etxoat maite gura. Bertatik gertau egik, ba, Timon, ire ilobia: itsasoko bits arinak ire ilobi-arria egunean yook dauen lekuan etzan adi; egik ire ilobi-ganekoa, ire oriotzeak besteen biziari irri ta barre egingo dautsena. (Urregoria begira begira). Errege-erale gozo ori, aita-semeen bitarteko alkar banatzalle maite ori! Ezkonduen oerik garbienaren zikintzalle argi ori! Marte adoretzu ori! Maitale beti gazte, beti bari, beti maite ta samur, ire mosuko gorriak Dine'ren altzoko edur gurena urtuten dauen ori! Zer alkarregaz batu-ezinak alkarregaz estu-estu batu ta alkarri mosu emonazoten dautsekan yainko agiri ori! Guzti-

tariko asmoetarako izkuntza guztietan itz egiten dokan ori! Biotzen azterr-ari ori! Gogoratu egik, asaldata egiten dala gizona, ire yopua; eta, iri eskerrak, ire indarrez, gizonen artean alkar ondatu, nastuko daberen auzi-mauziak eta asarreak sortu egizak, abere ta piztiak izan dadizan mundu onetako agintari ta nagusi!

AP.—Olantxe al litzok! Baña ez ni bizi nizan artean. Urregoria dokala ik esango yoat; samaldaka datozala yenteak igana ikusiko dok laster.

TIM.—Samaldaka?

AP.—Bai.

TIM.—Atzea emoidak, arren.

AP.—Bizi adi, ta ire errukarritasunera zale-tu adi.

TIM.—Luzaro bizi ta olantxe ilgo al az! (APEMANTA'k alde). Baketan nago. Gizon-antzekorik geiago, ala?... Yaik, Timon, eta gorroto izan egiek.

#### LAPURRAK aunera.

AP.—Nondik izan ete yok orrek urregorri ori? Eere ondakiren apurren bat dok ori; urregorri-ek gorriak eta bere adiskideak alde egiteak ekarri yoek ori gotiluntasun orretara.

II LAP.—Orrek altxor-mordoa dauelakoaren zurrumurrua dok or.

III LAP.—Oldartu gakiozan: ardura ezpa-yautsak, erraz emongo yauskuk; zalekeriz ostondu ba'dagisku, zelan iritxiko yoagu?

II LAP.—Olantxe dok izan be; aldean etxaroak-eta, ostonduta yaukak nonbaiten.

I LAP.—Au ez ete dok, ba, arako a?

LAPURRAK.—Non dok?

II LAP.—Aren antzeko dok izan.

III LAP.—Bera da; ba-dazaut.

LAPURRAK — Lagun bekizuz yainkoak, Timon!

TIM.—Ostera! lapurrak, ala?

LAPURRAK.—Gudariak, lapurrik ez.

TIM.—Bitzuek be bai; eta emakumeen semeak.

LAPURRAK.—Lapurrak ez kara gu, bear-izan andian aurkituten gareanak baño.

TIM.—Zera da zuon bear-izan andia, yakien bear-izan andia dozuela. Zegaitik zagoze bear-izanean? Begira, aiko, ba-da sustarrik lurrean; luze-zabaletara milla baten barruan eundaka iturri yagozak; emoten yoek uzkurrik aretxak eta arteak, bai sasiak masta gorriak be! Irazadiak, etzandera eskuzabal orrek, yakiz beterik iminten yauskak bere ontzia zugazno baktotxean gure

auirean. Onangorik! Zegaitik aurkitu, ba, bearrean?

I LAP.—Ezin bizi geintek bezar, masusta, aubi ta olangoak yanda ta ura edanda, abereak, txoriak eta arrainak bizi diranez.

TIM.—Ezta abereak, egaztiak eta arrainak eurak yanda be: gizonak yan bear dozuez zuok. Orraitiño be zuoi eskerrak emon-bearrean nozue lapurretea dalako zuon ogibidea, era obetan, zuon lana ostonduago egiten eztozuelako; ba, izan be, amaika lapurreta egiten dok euren bez latsagarri ez tiran ogibideetan. Lapur zitalok, autsie urregorria. Zoaze, matsaren odol mea edoski egizue, mozkorraren sukarrak, irakinaren irakinez, zuon odola bits uts egin arte ta, olan, eskegiak izatetik igesi arte; ez izan osagilleagazko uste onik; eden dozak aren osakaiak, eta zuok ostuten dozuen baño geiago ilazoten yozak ak; biziak be kendu ondasunekaz batera; zitalkeriak egin, zuon ogibide autortua ori danazkero, langilleak euren lana egin daren bez. Neuk emongo dautsuedaz lapur-eredu batzuk: lapur dok eguzkia, ta bere tenka andiz itsaso itzalari ostuten yautsak; lapur lango lapurtzarra dok iretargia, bere argi motela eguzkiari ostuten yautsak-eta; lapur dok itsasoa, iretargiari eragiten dautsazan negar gaziak bere moltso zirinean nastu ta iruntsi egiten yozak-eta; lapur dok lurra be, guztien korotz, sats eta ondakinek osturik egitsn dauen nastetik berak yan eta besteak azten yozak-eta. Edozer dok lapur: zuon eragozpen, lokarri ta txibita diran legeak, euren al geiegi be geiegiagaitik, eurak be neurri bagako lapurreta dozak. Ez egizue alkar maite izan; alde emendik eta alkarre-ri ostu; autsie urregorriak geiago; moztu idunak; lapur dozak zuok eurskaz trikitz egingo dozuen guztiak. Atenai'ra zoaze, lurreratu atek eta sartu salgeitegiatar; zuok ostuko dozuena lapurrak galduko dabena baño ez tok izango guztiz be; nik emoten dautsuedanagaitik ez egizue gitxiagorik ostu; eta orraitiño be urreak nastu ta ondatuko al zauetz! Olantxe. (Bere artzulora doa TIMON).

III LAP.—Larri larri liluratu egin nau orrek, nire ogibidetik alde egin dagidala nire buruan sartuaz.

I LAP.—Gizadiaganako gogo txarrak eraginda emoten yauskuk orrek onu au, ez gu gure ogibidean aberatsagotu gadizan, eta gure saiets artea beteagotu dagigun.

II LAP.—Areriori sinisten yakonez sinistu egingo yautsat, eta bertanbera itxiko yoat nire ogibidea.

I LAP.—Lenen eta bein-beinean Atenai'n ba-kea noz egingo begira gagozan; aldirik txarrean be yator izan ledikek gizona. (Alde lapurrak).

PALBI aurrera.

PAL.—Ui! zuok yainkook! An agiri dan gizon zirtzil, sorkitsua da nire ugazaba, ala? Orren galdu ta ondatua? Okerrekori egindako on-eginen oroiragi ta arrigarri ori! Zelan aldatu izan dauen bear-izan gorriak gizonaren dedua! Eztago zer zirtzilagorik mundu onetan gizonik zindoenari atzenik zakarrena dakatsoen adiskideak baño! Bai gitxitan be gitxitan batera yoten dabela aldiotan yazoten danak eta gizonak alkar maite bear leukielak! Maiteago ta biotze-koago izango al yataz niri oksrren bat egin gura eustenak, egitez egin daustenak baño!... Ikusi nau; iragarriko dautsat nire nairbage zintzoa; eta, nire ugazaba danazkero otsein izango natxako bere bizi osoan. Ene ugazaba maite maite ori!

TIMON aurrera bere artzulotik.

TIM.—Alde emendik! Nor augu?

PAL.—Aztu nozu ,ala, yaun?

TIM.—Zegaitik egiten daustak itaun ori? Gizon guztiak aztu yoadaz nik; gizon azala autortu ba'dagistak ba, aztu aut.

PAL.—Zure otsein zintzo errukarri nczu ni.

TIM.—Olan ba'dok, ez aut ezagun: eguño etxoat izan nik gizon zintzorik nire inguruan; dollor zoazan nik izan dodazan guztiak, zitalai yaten emotekoak.

PAL.—Yainkoak dira autorla ondasunzainek eztautsala izan eguño bere ugazaba luryoari erruki zintzoagorik, nire begiak izan dautsuena baño.

TIM.—Ostera! Negarrez ago? Ator onago... maite aut ba, emakume az-eta, eta giza-ari suarrizkoari agur egiten daustak-eta; gizonen begiai eztarie negarrik, lizunkeriz eta barrearen barrez izan ezik. Loak arturik yagok errukia areikan; inondiko dozak aldiok, barrez negar dagienak, ez negarrez!

PAL.—Ene ugazaba on, ezautu nagizula, nire nairbagea ontzat artu ta, ondasun apur onek dirauten artean, oraindik be zure ondasunzaitzat euki nagizula eske nagotsu.

TIM.—Orain orren nasai eta naiaratsu egoteko ondasunzai orren zintzorik, orren artezik

izan yoat nik, ala? Orrako orrek larri larri nire izakera kaltegarria otzandu egiten yaustak. Itxi egidak ire arpegia begiratu-ten. Seguru be seguru emakumearen seme da gizon au... Parkatu. azketsi egidazue, guzti-guztientzako bat-bateko nire zakarkeria, zuok beti neurriko zarien yainkook! Autor dautort ba-dala gizon zintzo-zindo bat..., ondo aitu, gero..., bat baño ez..., geiagorik ez, arren..., eta ondasunzai da bera..., nik bai gogoz eta biotzez gorroto izango neuskiola giza-ari osoari! Eta ik yarei dok ire burua; baña i ez beste guztiak biraoz yo ta lurreratuten yoadaz. Nire ustez, i zurrago baño zindoago az orain; eta izan be, errazago ta lenago iritxiko eunkean beste ugazabaren baten otseintzea ni zapaldu ta saldu ba'ninduk, ba, asko dozak olan bigarren ugazabagana lenengoaren iduna ostikopean zapalduta alde egiten dabena. Baña egia esaidak..., izan be, orain baño seguruago eguño egon ez izanarren, orraitño be ezpairik izan bear yoat-ela..., ez ete dok ire maitasuna me, geiagokeritsu, ez ete dok maitasun irabazgoititsurik eta, gizon aberatsak esku-erakutsiak egiten yoezak-eta, baten alderako ogeiren begira dagozanenatarikorik?

PAL.—Ez, ene ugazaba aintzako be aintzako ori; ela, ai ene! beluegi eldu yatsuz ezpai eta susmook; lenago izan bear zeunkean zuk aldi ustelen bildurrik, yaiak egiten zenduzanean, ez orain: ondasunak beeren dagozanean dator beti susmoa. Ondo dakie yainkoak maitasun utsa dala nik erakusten dodana; maitasun utsetikoak nire bendeko-

tasuna, eta bardin bagako zure biotzagana-ko nire aperturia, zure yaki ta ondasunen ardurea; eta sinistu egidazu, ene ugazaba zindo zindo orrek, ezetariko irabazirik, ezetariko onurarik ba'legokit begira, itxarotan naiz oraintxe, dana emongo neunke gurari onen alderako..., zeren alderako, zeu aberastuaz niri ordainduteko alik eta eskuar-terik izan dagizun.

TIM.—Aiko, olantxe dok!... Gizon guztien artean zindorik bakarra augun ori, auto, artu egik: altxor au bidali dauskae yainkoak nire bear-bearretik. Oa, eta aberats eta zori ontsu bizi adi; baña baldintza onegaz: gizonakandik urrin egingo dok ire etxea; gorroto izan egiek guztiak, guztiak biraotu egizak; ez egiok erakutsi goi-maitasunik inortxori be; ik eskegori laguntzarik emon baño Lenago goseak ilik aragiak azurretatik bera zirrist egin dagiola baño,- txakurrai emoiek gizonai ukatuten dautsekana; baitegiak iruntsi dagiezala, zorrak zimeldu ta utseratu dagiezala; axe-putzaldiak ausi ta lurreratutako basoak langoxe izango al dozak gizonak, eta gatxak zeatz miazkauko al yautsezak euren odol ustelak! Eta, orrazke-ro, onik eta ondo bizi ta obatu adi.

PAL.—Ene! Emen geldituten eta zuri, ene ugazaba orri, naiarak egiten itxi egidazu.

TIM.—Biraoui bildurrik ba'dautsek, ez adi gelditu emen; onetsia ta eure buruaren yabe izango azan tokira igesi baño; ez egik inoz gizonik ikusi; eta nik be ez al aut oraindik ara bein be ikusiko. (Banan banon alde dagie),

## V EKITALDI

### I AGEHLEKU.-Baseo. TIMON'en artzulo-aurrea.

OLERKARIA ta MARGOLARIA aurrera; TIMON aik begira begira artzulotik.

MARG.—Lekuaren garbitasunak nik artu izan dodazanez, ezin izan ledike leku au a bi zi danetik urrin.

OLER.—Zer uste izateko a beratraz? Segurutzat ete yok zurrumuruak a urregorritz orren beterik dagola?

MARG.—Bai orixe, seguru be segurutzat: Alkibiadets'ek emon yok barri ori; urregorritz artu izan yoen agandik Pirne'k eta Timandere'k; mordoka emonda aberastu yoazan

ak aldarrai ebiltzan gudari errukarriak be; bere ondasunzaiari be mordo makala ez ertsala emon yinoek or.

OLERK.—Ori olan izatekotan ,aren porrot egitea bere adiskideak zelango diran ikusteko izan dok.

MARG.—Orixe, besterik ez; palma eginik, loraturik ikusiko dok ik a barriro be Atenai'n, eta lora lorarik gorengoan artean. Au dala-ta, etxakuk txarto etorriko bere zori txarra dalako onetan ari gure adiskidetasuna iragartea; egoki izango yaiuk; zurrumuruak diñonik ba'yok ak, euren elburura

eioango yozak ak gure asmoak, ona gaka-  
zen gure asrnoak, urrean baño urreanago.

OLERK.—Zer dok ik orain ari aurkeztuteko-  
rik?

MARG.—A ikusten etortez besterik deusik  
bez orain: bakarrik, margo-lan itzalez eder  
bat aginduko yautsat.

OLERK.—Nik be ori berori egingo yautsat...  
beragazko zer bat darabildala buruan esan-  
go yautsat.

MARG.—Onena bestean ona. Agindutea dok  
orain oituten dana: zabal zabal iminten yau-  
tzazak begiak begira dagonari: beti dok  
motelago agindua betetea, agindutea be-  
ra baño; eta yente ze ta yatorren artean  
izan ezik orain eztoz oituten agindua bete-  
terik; eztoz gaurko, barri, txairo ta yaure-  
gitarrenik; ilburuko edo olangotzat yagok  
agindurik egitea, eta burua gexorik be ge-  
xoiik dauela iragarten yok olangorik dagia-  
nak.

TIM.—Ori bai ba-dogu langille lango langi-  
llea! Dan bestean gezto ezin dok iruditu  
ik gizona.

OLERK.—Arentzako zer dodan gertaurik. ari  
zelan esango oldoztuten daragoiort nik:  
aren irudi-irudiak izan bear yok: arri-Iana,  
zori onaren biguntasunaren aurkakoa, eta  
gazte ta aberatsen artean izaten diran be-  
rein zurikerien erakusketea.

TIM.—Zital agertu gura ete dok, ba, ire la-  
nean? Eure utsak, eure akatsak zigortau  
gura dozak beste gizonetan, ala? Egik ona-  
ko ori, itzako urrerik ba-yoat-eta.

OLERK.—Bai, goazen aren billa: geuxe ego-  
kerearen aurka oben egiten dogu gure oba-  
kuntzara eldu al izan eta beluegi eldu ba'  
gadiz.

MARG.—Egia da; egunez al izanazkero, gau  
iluna eldu baño len idoroten dok ik gura  
dokana, egunak esku zabalez eskeinduten  
dauen argitan. Tiruk.

TIM.—(Bere artzuloitik «urrera egin-ala). Or  
bide-musturtean trikitx egingo dautsuet. Yain-  
ko argi dok urregoma, ari gur egiten dau-  
tsoenen yauretzea txarri-askea baño be  
zirtzilago dok-eta! Ik euk orniduten dok itsas-  
ontzia bear dauenagaz, eta ik euk ebaten  
dozak ugin bistsuak; begirapen arritua sor-  
tzen dok ik yopugan: gurtuko al aue! Eta  
ire esana baño egiten eztaben ire gurenak,  
ire "santuak", betiko burestuntzat izurriak  
izango al yozak'.

OLERK.—Gora, Timon aintzako ori!

MARG.—Beñolako gure ugazaba zindo ori!

TIM.—Bein gizon zindo bi ikusteko bizi izan  
ete nok?

OLERK.—Yaun, zure eskuzabaltasun agiria  
sarritan txastatu, zelango dan sarritan iku-  
si izan dodan onek, zu ezketaurik eta baz-  
tarturik zintzazala, zure adiskideak bertan-  
bera itxi zinduezala entzunik, esker txarre-  
ko zure adiskideak... biotzon askarri!... ze-  
ruak bidali leikezan zigor guztiak be eztra  
asko areintzako: onangorik! zutzako esker  
txarreko, izarrak bestean argi dan zure zin-  
dotasunak ai bizia ta eurak diran zer guz-  
tia emon zeuntsen orrentzako esker txarre-  
ko! Yantziak batuten nau ni, baña ezin  
dot ezetariko neurriko itzez be batu ta es-  
tali esker txarrezko mordotzar au ezetara  
be.

TIM.—Estali bagarik narru gorrian dabilela,  
gizonak obeto ikusi dagien: zuok zindo za-  
rienazkero, zarienak zariela, obeto agertu  
ta erakusten dozuez.

MARG.—Onek eta nik, guk biok, zure esku-  
erakutsizko zaparradapean artu izan do-  
guz guie nekean nekeak, eta gozo izan  
yaku zaparrada ori.

TIM.—Bai, gizon zindoak zarie zuok.

MARG.—Gure oitseintzea zuri eskiniten eto-  
rri gatxatsuz ona.

TIM.—Gizonon zindoaren zindo! zelan ordci-  
duko, ba, nik zuoi? Ete dakizue sustarrik  
yaten eta urik edaten? Ez.

BIAK.—Egingo dogu al doguna zure oitsein  
izate-arren.

TIM.—Gizon zindoak zarie zuok! Unerik ba-  
dodala entzun dozue zuok: seguru nago  
entzun dozuela; egia esaidazue; gizon zin-  
doak zarie zuok.

MARG.—Ori diñoer or, esan, ene yaun begi-  
ragarri; baña orregaitik ezkara etorri, ez  
nire adiskide au, ez ni neu.

TIM.—Gizon zindo onok!... Atenai'n danik  
eta irudiginik onena augu i; bai, on az i;  
zer biziak dirudie ire irudiak.

MARG.—Bada-ezpadako, alosoko, ene yaun.

TIM.—Bada-ezpadako ta alosoko ez, nik di-  
ñodan lango baño. (Olerkariari). Eta ik as-  
mauagazko, ba, ire olerkiaren geia ta era-  
gina ain apitz eta eder dozak-eta, i eu be  
yatoi eta berezko az ire ganoran, ire tre-  
betasunean, ganorea bera.- Baña oirako  
guztia goia-bera, ari zindoko niie adiski-  
deok, akatsik aiean ba-dozuela esan-bea-  
rrean nagotsue; aiko, egia esateko, eztoz  
orren zakai zuokan; eta neke geiegirik be  
eztozue artu bear orrako uts ori arteztuten.

BIAK.—Iragani egiskuzu, anen, yaun dedu-  
gaxii onek.

TIM.—Txartzat artuko daustazue.  
 BIAK.—Esker onez be esker onez, ene yaun.  
 TIM.—Bai ete?  
 BIAK.—Ez izan ezpairik, zalantzarik orretzaz, ene yaun.  
 TIM.—Aor ba, zuotarik bata be ezta burutik bera ziri lango ziria sartuten dautsan zitalagan uste onik eztauenik.  
 BIAK.—Ba-dogu olangorik, ala, ene yaun?  
 TIM.—Bai, eta entzun egiten dautsazuez zuok ari bere maltzurkeriak, ikusi dakusazue ez-tanarena egiten, ba-dakizue aren adabau-bearraren adabau-bearra, maite dozue a, yaten emoten dautsazue, biotzean dozue: orraitño be seguru zagoze besterik dirudian zital dala a.  
 MARG.—Eztazaut olangorik, ene yaun.  
 OLERK.—Ez nik be.  
 TIM.—Aiko, biotzeko zaudaz, gogo on dautsuet; urrea emongo dautsuet, baña urrindu egizuez zitalok zuon artetik; eskegi egizuez zelanbait, ondatu egizuez eta zatoze nigana, urrerik asko emongo dautsuet-eta.  
 BIAK.—Izentau egiskuzuz orrakook, ene yaun; ezautuko al doguz.  
 TIM.—Bide onetatik i, beste onetatik i..., baña beti zagoze alkarregaz bi; gizon guztiak banazezan, guztiak banan-banan eta bakarrik, eta orraitño be zitalik zitalena dau laguntzat. (Margolarictri) I agon lekuan zital bi alkarregaz ez egotekotan, ez akio urreratu ari. (Olerkariari) I agon lekuan zital bat baño gefagorik ez egotea gura ba'dok, bertanbera itxi egik ori. Alde! Ken! autsie urrea..., urre-billa etorri zarie zuok, yopuok, alangook! Nigaitik lan egin dozue, autsie ordaina: alde emendik! alkimi-zale az i-ta, ortik egik urrea (6): alde, txakur zitalok! (Alde dctgie, andik yoka ateraten dcuza-la).  
 PALBI ta AGURE-BATZARREKO bi aurrera.  
 PAL.—Alperrik yatsus Timon'i itzik egitea, a bere kitean bakarrik ain sarturik dago-ta, bere buruaz beste gizon-antzik daue-nik etxako adiskide, etxako gogoko.  
 I AGUR.—Eroan gagizak aren artzu'ora: Timon'egaz itz egitea dok gure egikizuna ta guk Atenai'tarrai cgindua.  
 II AGUR.—Beti eta une oro eztozak bardin izaten gizonak: aldiak eta naibageak egin yoai a alango: gizon a lengoratu ledike, aldiak esku txerakorragez ari beñolako egunetako ondasunak opatuazkttro. Agana eroan gagizak, yazoko dana yazoko.  
 PAL.—Amen aren artzuloa,, Bakea ta poza

izango al dira emen! Timon yaun! Timon! urten zadiz, itz egiezu adiskideai; txera ta agur egiten dautsue Atenai'tarrak euren agure-batzar begiragarritiko biren bitaitez: itz egiezu, Timon zindo.

TIMON aurrera, bere artzulotik.

TIM.—Poza ta nasaitasuna ekarten dozakan eguzki ori, su egik!.. Itz egik, bai eta eskegi agiela: egiazko itz baktotzeko ikorzi-rin bana, baba-zorro bana sortuko al yatsue! eta guzurrezko itz baktotxek sustar sustarreraño erreko al dautsue miña, itz egin-ala manatu ta ondaturik!

I AGUR.—Timon aintzako ori...

TIM.—Ezeren be enaz gitxiago aintzako, zuon baño.

I AGUR.—Agur egiten dautsue, euren txera argia bidaliten dautsue Atenai'ko agure-batzarrekoak, Timon.

II AGUR.—Eskerrik asko nire aldetik; eta izurria bidaliko neunskie atzera, areintzako goatu al ba'nei.

I AGUR.—Ui! aztu egizu geuk tamalik asko dautsaguna. Zuganako biotz onez eta eretxi batez zu atzera Atenai'ratu zadizala eske ta eske dagotsuz; goiko leku berezi- bereziak asmau dabez eta utsik dagoz zuk noz beteko begira, lekuok bete ta eurai dago-kiena egiteko zu langorik eztagola-ta.

II AGUR.—Ba-dautorre aik geiegi ta zakarre-gi aztu zabezala: eta bere oker eta utsetatik atzerantza nekez egiten dauen erria, Timon'en laguntzearen ezaz oarturik, oartuten da Timon lagun ez izatekotan izango dauen galgordeaz. Euren damu-agiria, ta arein iraña baño astunago dan irainaren alderakoa zuri ekarteko bidali gabez Atenai'ko urikideak; euren maitasunezko ta ondasunezko onango altxorra bidaliten dautsue-ta, zuganako euren erruak ezereztu ta izki betikorrez zugan euren zuganako maitausuna irarriko dabelako ustetan dagoz aik, zuk beti zuretzakotzat irakurri dagizuzan.

TIM.—Liluratu, sorginkeriperatu egin nozue orrako orregaz; negar egin-agineraño arritu nozue; ekadazuez tentelen baten biotza ta emakumeren begiak, eta negar egingo dot naiera orreikaitik, agure-batzarkide aintzakook.

I AGUR.—Eder izango al yatsu, ba, gugaz batera atzera yoan, eta zure ta gure Ate-

(W T.«nonao oarrectn iminia bera emen tx»

nai'ko gudaiburuizea artutea. Eskerrak emongo yatsuz ara eldu zadizanean, al osoa emongo yatsu, eta aginpide anditan biziko da zure izen ona: olan. atzera arin eragingo dautesegu Alkibiadets'en oldarketa, bul-tzada basatiari, ak basaurde basatiegi ta asarreegiak lez, sustaretik atera ta erauzten dau aberriaren bakea-ta.

II AGUR.—Eta ak bere ezpata zemaikorra Atenai'ko bere arerioen aurka dardaxaz az-tinduten daragoio-ta...

I AGUR.—Orrazkero, ba, Timon...

TIM.—Tira, ba, yaun, yoango naz; yoango naz orrazkero, yaun: onan ba... nire aber-kiderik erail ba-dagi Alkibiadets'ek, au ya-kin dagiala Timon'en aldetik: eztautsala ar-dura Timon'i. Baña ak Atenai'n lapurre-tan egin ba'dagi, gure agure onai bizarretatik eldu ba'dagioe, eta gure neskato guren begiragarriak gudu iraintzalle, basati ta bu-rutik eginaren loikeri-zikinkorren bende-an imini ba'dagiz... yakin dagiala ak... eta ona-ko au Timon'ek diñola esan egiozue, gure agure ta gazteen errukiz... ezin dolala bes-terik egin, eztaustala ardura ari esan ba-ño, eta nire aldetik ba-dauela baimenik eta nire ederretsirik al dauzan zerik okerrenak egiteko be; ez izan zuok be aren aizto ta ez-paten bildurrik, ai erantzuteko idunik do-zuen bitartean; nigazko, aren gudategi le-gebakoa eztago aitzotxorik be nitzako Ate-nai'ko idunik begiragarriena baño maitaga-riago etxatanik. Olan, ba, yainko ongill-teen yagolatzapean izten zaudaz nik, lapur-rak yagoleen bende-an izten diranez.

PAL.—Ez ekin luzarago, alperrik daragolo-zue.

TIM.—Ba!, nire ilobi-ganekoa idazten nera-goian nik: bier agertuko da: indarrak ar-tzen asi da orain nire osasunaren eta on-dasunen gaitz luzea, eta utsetik dana da-torkit. -zoaze, bizi zadize oraindik; Alkibi-adets izango al yatsue zuon izurriak, eta zuok arena .eta olan luzaro biziko al za-rie! (6 bis).

I AGUR.—Alperriko dira gure itzak.

TIM.—Eta orraitioño be maite dot nik nire abe-rria; eta or zabal zabal dabilen zurrum-ruak besterik esan-arren, enaz ni guztien ondamendiak poztuten dauenik.

I AGUR.—Ederto itz egin dozu oraingoxean.

TIM.—Nire gorantziak nire aberkide maita-korrai.

I AGUR.—Apaingarri yakez zure ezpanai orreitatik darioen itzok.

II AGUR.—Eta garaile ospatsuen antzera sar-

zen yakuz belarrietara, sarreran txaloen txaloak artuta.

TIM.—Nire gorantziak emon egie-zue. eta mai-tasunik arean erakutsiko dautesdala esan egizue... Alkibiadets basatiaren asarreari au-rreak artzen irakutsiko dautesdala, euren naibageak, arerioen zartadai dautsen bildur-rra, euren minak, galtzeak, maiteminak, eta gure izate mengel-auskor onen ontziak bizi-tza onetako bidaldi aldakor-Ioka onetan la-guntzat izaten dauzan larritasunak arindu-teko (7).

I AGUR.—Gogoko yat, gogoko be gogoko orain esan dauen ori; biotz samurragorik ba-daragus.

TIM.—Ba-dot zugatz bat nire barrutian, ebagi dagidala nire bear-izanak eskatuten daus-tana, eta laster ebagi ta zeartau bear dot; esan egie-zue nire adiskideai, esan Atenai'ri, len-urrenka, goikoetatik bekoetara, inok geldituazo gura ba'dautso lorrari, artu da-giala begitendun bere lokarria ta datorre-la ona nire azkoreak nire zugatza lurreratu baño len, eta bere burua eskegi dagiala... Arren, ez aztu nire gorantziak eta nire agur-rra emoterik.

PAL.—Ez emon nekerik geiago. Eztozue ate-rako beretik.

TIM.—Ez etorri nigana beste bein, Atenai'ri esan baño Timon'ek bere betirako bizile-kua ur gazien ertz-ertzean egin dauela; di-rakian itsaso asarreak bere gane bistsuz egunean bein estaliko dauen bizilekua; ara erdue, eta nire ilobi-arria goi-itx izango al yatsue... Ezpanok, itz mingotsik asko da-ta, ixilduko al da nire miña; izurriak eta kutsuak zuzenduko al dabe txarto eginda dagona! Illobiak bakarrik egingo al dobez gizonak, eta eriotzea izango al da euren

(6 bis) "Indarrak artzen asi da orain ni-re osasunaren eta ondasunen gcuiz luzea...". Enago seguru itzokaz idazlearen gogoa zeatz aldatu dodanantz. Itzez itz eta Ingelanderaz-ko "mend" aditzaren esangureari yarra i *ynan* euskeraztu bear neunkean: "Obaran-tza egiten asi dira orain nire gexoaldi lu-zea ta nire ondasunak".

(7) Euren buruak eskegiteta da Alkibi-adets'en zartadai eta beste ondikoai alde egiteko Atenai'tarrai Timon'ek erakutsiko dau-tsen bidea, laster Timon'ek berak esango dauenez; ba-dau Timon'ek orretarako zuga-tzik; erik eurak orretarako ekari bearko da ben zer bakarra begitendum lokarri bcma da

irabazia! Eguzki ori, ostondu egizak ire izpiak! Amaitu yok Timon'ek bere agintzaldia. (Artzulora sartzen da).

I AGUR.—Kendu-ezinak dira orren naiba-geak, bere izateagaz bat eginak.

II AGUR.—Egin dau guk orregan gendun

itxaroarenak; goazen atzera ,eta aleginak alegin egin dagiguzan gure galgorde gonian gelditutsn yakuzan beste bideen bila, diranak dirala.

I AGUR.—Eztogu galdu bear astirik orretan. (Alde dagie).

## II AGEELEKU.-ATENAI'ko arresiak.

Agure-batzarreko bi ta Geznari bat aurrera.

I AGUR.—Nekez ikasi izan dok ik; or diñoen bestean bete ta sarriak ete dozak aren guda-lerroak?

GEZN.—Gitxiena da nik esana: orrez ganera, laster da a emen, aren zolitasun eta aper-  
turitik agiri danez.

II AGUR.—Galgorde gorrian gara, Timon  
ezpa'dakarre aik.

GEZN.—Trikix egin dot bidean bidari bate-  
gaz, beñolako nire adiskide bera; eta geien  
baten gu alkarregaz aitu ez-arren, gure  
adiskidetasun zarrak oraindik be indarrik  
bai izan-eta, adiskideai dagokienez itz era-  
gin dausku: orrako bidari ori Alkibiadets'en  
aldetik Timon'en artzulorako bidean izan da  
zaldiz, aren eske idazkia eroiala, idazki

orretan Alkiiiadets'ek Timon'eri onen la-  
guntzea eskatuten eutsala, zuon uriaren  
aurkako gudurako, gudu onen zegaitia Ti-  
mon ezpa'zan be, zati bat beintzat ba-za-  
la-ta.

I AGUR.—Emen datoz gure anaiak.

TIMON'gandiko Agure-batzarkideak aurrera.

III AGUR.—Ez itandu Timon'az, ez izan agan-  
diko ezetariko itxarorik. Entzuten da are-  
rioen danbor-otsa, eta aurrean daben guz-  
tia garbitu-bearraren garbitu-bearre auts  
uts da eguratsa: barruratu ta gertau zadi-  
ze: bildur naz yausi bear dogula orain-  
goan; gure arerioak dira gure begiten.  
(Alde dagie).

## III AGEHLEKU.-Basoa. TIMON'en artzuloa ta ilobi zakar bat agirian.

Gudari bat aurrera, TIMON'en billa.

GUD.—Emon daustezan zeaztasunetatik agiri  
danez, onek izan bear dau arako lekuak.  
Nor dago emen? Itz egin, ee!.. Erantzunik  
ez? Zer dogu au? Bere biziaren neurria  
beteta, ilik da Timon; abereen batek eragi  
dau au; emen ezta bizi gizonik. Ilik, bai ori-

xe; eta au da aren ilobia.. ezin dot iraku-  
rri ilobi onen ganeko idazkunea; argizai-  
tan artuko dodaz marraok: trebe da gure gu-  
dalburua edozein idazkeratan, edozein atze-  
tan, igarlie zar, urtez gazte izan-arren:  
Atenai arroaren aurrean da a onazkero.  
Aren yaustea bere leiearen elburua, gero.  
(Alde dagie).

## IV AGERLEKU.-ATENAI'ko arresien aurrea.

Turuten ots. ALKIBIADETS eta bere Indarrak  
aurrera.

ALK.—Ots egin uri kilil eta lizunkeritsu oni  
gure urreratze ikaragarria iragarteko. (Al-  
de bietakoak alkarregaz itz egileko otsa  
entzuten da).

Agure-batzarrekoak aurrera arresi-ganean.

Orain arte bizi izan zarie, eta legez besterako  
egitez bete dozuez zuon egunak, zuzena-

ren orde z zuon naia eginik; orain arte, ni  
neu eta zuon agintzearen itzalpean betiko  
loak artu izan dauzanak, aldarrai ibili izan  
gara besoak aume eginik, eta alperriko  
izan dira gure nekeak eta gure epea. Ga-  
naz egin dau orain aldiak; len makurtu-  
rik egon-arren euren z mardorik egin di-  
ran gure gunak, eldu da orain gedar au  
egiteko aldia: "Asko da, bego!". Arnasarik  
artu-ezinik egon izan dan iraindua, zuok az-  
piratua zuon yezarleku nasai-apitzean yeza-



rriko da orain, eta bularrak artu-ala artuko dau arnasea; eta bildurrez eta igesiarren igesiz arnasea etengo yako gangarke ri amasestuaii.

- I AGUR.—Zindo ta gazte ori, zure lenengo naibageak orainaiik sortu-barri baño etziranean, zuk oraindik indarrik eta guk bildurbiderik ezkendunean, zugana yo izan gendun, zure asaneari usabuikia ezartsko, zure asarrea arindu ta gozatuteko, zuganako gure esker txarraren aldean andi dan gure maitasunaz gure esker txarra ezerezteko.
- I AGUR.—Olan, dei egin izan dauzagu Timon antzaldatuari be gure uriaz erukitu dadin, gezna apalez, eta ondasunak eta deduak ari aginduaz; guztiok ezkara izan zakar, guztiok eztoгу irabazi guduaren guztiontzako zaitadaiik.
- I AGUR.—Uri onetako arresiak ez tira zu iraindu zinJuezanen eskuz eragiak; eta «uri irain egin izan dauzuen gizonak be ez tira eurakaitik torre andiok, garaite-agiriok, eta irakastegiok yausigarriiik, euiak bakarririk egin izan dabezan utsakaitik.
- II AGUR.—Bizi be ez tira zuri lenengoz emendik alde egiteko bide edo zegaitia emon eutsuenak; zurtasunik izan ezaren lotsearen lotseak ausi ta unatu eutsezan biotzak. Yaun zindo ori, guda-lerroka sartu zadiz gure urira, zure ikurrinak zabalik dozuzala: alanbearrezko amarrena artu egizu, amarretik bat erailez, zure azaskatze-goseak gure biotzak iguin dauzsan olango yakirik yan gura ba'dagi; eta alanbearrez marra-tua il dadila.
- I AGUR.—Guztiak etzauez iraindu; ezta zuzen izan ziranakaitik diranetan azaskatutetik: lunak bai aitzen diia unengoiik unengo, ondorengo-eskubidez, ez irainik eta edozelango egite txarrik. Olan ba, aberkide maite ori, sartu egizuz urira zure gudaleroak, baña ez egizu erakutsi zure asarre gorririk; ez egizu manatu Atenai'ko zure seaskea eta zure asarre gorriaren erasoan zu iraindu zauenakaz batera yausiko litzakezan zure seniderik: artzaiak egin daroenez, urreratu zakioz artaldeari, eta kutsatuari artaldetik urteteko dei egiozu, baña guztiak ez erail.
- II AGUR.—Irribarrez errezago ta lenago iritxiko dozu zuk gura dozuna, zure ezpataz aterako dozun baño.
- I AGUR.—Zure ostikoaz yo baño ez egizuz lagundun gure atepak, bai, eta idigiko yatsuz; olan, zure biotz zindoa bidaliko dozu

zure aurretik, adiskide-zurrlan, adiskide lez sartuko zareala iragarteko.

II AGUR.—Zure eskuzorroa, naiz zure deduaren beste agirien bat egotzi egizu orrako orren bidez erakusteko, gudurik egiten ba' dozu zeuri zor yatsuna artzeko dala, ez gu ondatutsko, gure urian geldituko dirala zure indar guztiak guk zure gurari guztiak ontzat artu ta eurai gure ikurratza ezarri arte.

ALK.—Autsie, ba, niie eskuzorroa; yalsi Oititik eta idigi zuon atepak guk yo ta Iurreratu baño len; zuok zeuok izentau ta bereziko dozuezan Timon'en eta nire arerioak bakarririk euren zigorra artu ta yausi dadizala, ez besterik inoitoxo be; eta niie asmoez dozuezan bildui guztiak zuon biotzetatik uxatu ta aienatuteko, zindoio damotsuet niie seguiantzea, gizonik ez tala urtego bere gudalgetitik, eta zuzentzearen oitutako bide ta neurritik be eztauela inok alde egingo zuon uri-barruan bersa artzeka, ta zuon legerik gogorrenai erantzuteka.

BIAK.—Zindo be zindo itz egin dozu.

ALK.—Yatsi ta eutsin zuon itzari. (Agure-ba-Izarrekak yertsu ta idigi egiten dabez uriko atepak).

#### GUDARI bat aurrera.

GUD.—Ene gudalburu zindo, ilik da Timon; itsasoaren ertz-ertzean dago obiraturik; eta aien ilobi-ganeko airiko idazkune mi, argizagitan artuta emen dakatsut, nik nire ez-yakinez aitu ezin dodana irarkune bigun onetan zuk igarriko dozula-ta.

ALK.—(Ea-dirakur) "Emen datza gorpu errukarri bat gogo errukarria galdurik: ez ibili nire izenaren billa; izurriak eroan eta ondatuko al zaeuz gelditu zarien zirtzilzital guzti guztiok! Emen ratzd ni, Ti:non; bizirik nintzanean gizon bizi guztiai gorroto neuntsena: igaro adi nire aldamenetik eta birao egik egin-alean; baña igaro *aii*. eta ez akit gelditu emen". Ondo azalduten yoezak itzok azkenengo ire gogaldiak eta biotzaldiak. Gure gizatar naibageak iragarteari ik goiroto izan-arren, gure garaunen erioa ezetsi ta gure izate urribereari yausuten yakozan negar-tantantxoai ik yaramonik egin ez-arren be, orraitio ire irudimen yori-aberatsak irakatsi dauk ire ilobi apalaren ganean Netun eskaigeaii azketsiko Ntsakaitik beti negar eaiten. Ilik da Timon indoa, eta geroago eragoko dauzaou lu-

zaroago aren oroipenaz. Eroan nagizue zuon urira, eta oli-abarra be erabiliko dot fire ezpateagaz batera: bakez sartuazoko dcutset gudariai; gudurik egitea galazoko

dautsat bakeari; alkarren osagile izan dadizala gudua ta bakea, batak besteari agindu dagiola. Yo dagiela gure arrantzak, gure danborrak. (Alde dagie).

Salta'n 19S3'gko. Urri b'lgarrenaren 16'garre nean.

## ITZ BARRI TA ZARR GITXI EZAGUN BATZUK

ALTXOR.—Metal baliotsuak; aberastasun andi.

AIZTO.—Euskal-gaiztoz "kutxilo".

ARBUIATU.—Ezetsi, aintzakotzat artu ez.

AZPEGI.—Atz-begi, atzak eta begiak, eta ba/beste edozein soin-atal ba.

BAKALDERRI.—Agintaritza terregeren bci dauen erria.

BAKAULKI.—Errege edo bakaldunen baten yezarleku edo aulkia.

BAZKATU.—Yaten emon. Orlik datoz BAZKALDU ta abar.

BOLI.—Elepantearen txarri-agina.

BURESTUN.—Buruko estuna, atz edo eriko estuna erestun, naiz elastun danez.

EDEN.—Euskalgaiztoz "bereno", naiz "pozoi", sikilikitu (Zeanuri).

ETXEKETA.—Ekonomi dalakoa; etxeko ondasunak zur erabiltea.

ERESI.—Ots atsegingarrien errezkada; euskalgaiztoz "musika".

ERESKIN.—Eresia egiteko edozein lanabasa, esaterako, albokak, txistua.

ERRIKETA.—Etxeari dagokozan zeretan etxeketa dana berbera da erriketa, erriari dagokozanetan. "Politika" esaten dabe ederaz.

GUREN.—Ni ume nintzanean nire errian "Aste Guren" ereisten geuntsan orain "Aste Santu" deretxoenari. Aor ba, esangura bereko dira "Guren" eta "Santu", baña bata euskerazkoa, bestea erderatikoa. "Guren" itzak ba-dau beste esangurarik be.

GURTU.—Yaungoikoari, naiz Yaungoikotzat dogun beste norbaiteri gure bendekotasuna iragarri, geienetan gure belauna makurtuaz.

IKURRATZ.—"Silluak" papelean, naiz beste zerbaiten izten dauen atz edo marka.

IKUZI.—Uragaz garbitu. Zeanuri'n "ikuzi" be-

ra eztarabllgu, baña bai orlik sorturiko "Iru-kutzi".

IZARBEL.—Izarren baten inguruan biraka dabilen izar iluna, esaterako, iretargia ta bertan bizi garean Ludi edo Mundu au.

IZUN.—Euskalgaiztoz "multa, petxu".

IZKI.—Itzaren txatalik txikiena; euskalgaiztoz "letra".

IZKORA.—Itsasoa bein yagi, bein yatsi egiten da, iretargiak eraginda; yagi egiten da iretargiak beraganantza ten egiten dautsanean, eta ori da "izkora"; tenik egiten eztautsanean yatsi egiten da, eta ori da "izpera".

IZPERA.—Ikusi "Izkora".

MOZKINTZALE.—Lukurleru; diruari irabazl geiegi ateraten dautsana.

OTURUNTZA.—"Ogi" itzetik dator itz au, baña yaki ugaridun yataldi esan gura dau.

TALENT.—Ezta euskerazkorik itz au, itzari dagokona be ezta-ta. Txintxin-izena yatsu izan. Eladatarren talentak berreun eta berrogei libera esterlin, edo olangoen bat balioban. Txintxin anditxo, ba.

UKAR.—"Ukondo" lez, "Esku" itzetik dator au, eta norbaiteri erruki-arren eskuz emoten yakon laguntza, naiz laguntzatxoa esan gura dau; geien baten eskekoai emoten yakena. Euskalgaiztoz, "limosna, erremuxina".

USABURKI.—Zugatz edo "arbola" batzuk izerdiz emoten daben erio usain gozoko ta osakorra.

YAKINKIDETZA.—"Kontzentzia" euskalgaiztoz.

YAREI.—"Azkatu" esan gura dau Oñati'n eurrez darabilen itz polit onek.

ZEMAI.—Gatz edo okerren bat egiteko go-goaren iragarpena. Zemaitu egiten gauz txakurrak aginak erakusten dauskuzanean, eta zemaia bete, aginak sartzen dauskuzanean.



# MACBETH



# MACBETH

## AGERTUKO DIRAN LAGUNAK

DUNCAN. Eskolanda'ko Enege.

MALCOLM  
DONALBAIN      Aurrekoaren semeak.

MACBETH  
BANKUO      Blok errege-gударoslearen Buruzagiak.

MACDUFF  
LENNOX

ROSS      Seirok Eskolanda'ko andiak.

MENTEITH. ANGUS

CAITHNESS

FLEANCE, Bankuo'ren seme.

SIWARD, Northumberland'ko kondea, Ingelandar gudarien Buruzagla.

SIWARD Gaztea, aurrekoaren seme.

SEYTON, Macbeth'en erreko otseñik nagusienetarikoa.

MUTIKOA. Macduff'en semea.

Ingelandar Osagile,  
Eskolandar Osagile.

Gudarl.

Atezal.

Agure.

MACBETH ANDEREA.

MACDUFF ANDEREA.

Emakume Andiki, Macbeth Anderearen laguna.

Hekate ta iru Sorgin.

Lordak, Aitonsemeak, Malla-gudariak, Gudariak, Eraleak, Otseñak eta Geznariak.

Bankuo'ren Mamu edo Itzala, eta agerturiko beste batzuk.

## LENENGO EKITALDI

I AGERLEKU.-Leku zabal. Osolsak eta yustariak dira. Iru Sorgin <datoz aurrera.

I SORG.—Noz egingo Irurok urrengo batzarrara ostotsetan. yusturitan, naiz euritan?

II SORG.—Iskanbillea amaitu daitenean, gudadaketea galdu ta irabazi daitenean.

III SORG.—Non egiteko?

II SORG.—Inaiadian.

III SORG.—Macbeth'egaz batzeko an.

I SORG.—Ba-noa, Kalu.

IRURAK.—Deiez dago kunkuna: beitatlk.

Itxusi da ederra ta eder itxusia;

Egaz laño ta aide zikin-loiak zear.

(Ondatu egiten dirr Sorginak).

## II AGEHLEKU.--Fczes'tik urreko ZelaJ.

Guda-otsak barruan. DUNCAN ERREGI, MALCOLM, DONALBAIN eta LENNOX datoz aurrera euren laguntzakoak, odola darion gudaritari batera bidera urtenda,

DUNC.—Nor ete da gizon odoldu ori? Orrekek emon leiskiguz barrien batzuk; orren ganorea bera dago esaten berorrek eraldi leiskiguzala matxinadako barririk barriena.

MALC.—Sarkento yatsu ori; egin-eginean be, gudari sendo ta bulartsuri dagokonez, zintzo yokatu eban bein orrek, ni menpean yausi enendin. Gora, adfiskide kementsu! esan Erregeri matxinadeaz dakikana; zelan gelditu dan ik andik alde egin dokanean.

GUD.—Ez-baían gelditu da; euren antzea alperrik dala, ugerlari nekatu bik alkarri elduta, alkar itoten daben antzean. Iskillu arin eta astundun gudari-taldeak ekarri dauz sarkaldeko izaroetatik yaiotzatik inondiko lera ta giriña makurrez yosia ta matxino izateko yaoia dan Macdonwald orrek. Zoriak berak be orren kutuntzat erakusten dau bere burua, orren matxinada denganiñoari txera ona eginda. Baña, dana da makalegi; eta izan be, "kementsu" izen-goitia ondo irabazita daukon Macbeth adoretuak, zer yazokoren bildurga, bere kementaren esaneko-antzo odol-lurruna erion ezpateari eraginda, yopu orren aurrez aurre yari arte, zirti-zarta urratu eban bidea; eta ez eutson eskurik estutu, ezta agurrik egin be, burutik matrallazurretaraño azkatu ta aren burua arresien ganean eskegi arteño.

DUNC.—Nire lengusuaren adoretu! gizonaren zintzo!

GUD.—Eguzkia bere bidaldia egiten asten dan alderdi beretik ekatx ontzi-ondatzalleak eta ostots ikaragarriak sortuten diran era berean kezka Iarriak urten dira poza ta nasaitasuna emoteko zala irudian iturri atatik. Ara, Eskolanda'ko Errege, ara: zuzentzeak, iskilluz, ai iskillu añdun yauzkarial igesi-eragin-ordukoxe, Norge'ko lord ak, ekitea gure aldera itzulirik ikusita, burrukea barriztau egin eban iskillu diztiatsuta ta giza-talde barriakaz.

DUNC.—Eta oii ikusirik, ez ete ziran kikildu Macbeth eta Bankuo guie guda-buruak?

GUD.—Bai; artatxoriak arranoak bildurtu daroezan legetxe, edo-ta erbiak leoia bildurtu daroan lez, aik be arerioari zartadatan

len lango bi emoten eutsoezan. Ezin esan nik aik, ala euren buruak zauri lurruntsuetan ikuzteko asmoa, ala bein Golgotan yazoza barriztutekoa eben. Baña, ba-doakit burua; laguntza-eske dodaz nire zauriok.

DUNC.—Eder dozak ire itzak ire agoan, ire zauriak ire soñean legetxe; bitsuoi darie zintzotasun-sundea. Oa, osalariekana eroan egik ori. Alde dagi Gudariak, lagunduta). Nor dator emen?

MALC.—Hoss'ko Thane zintzoa.

LEN.—Begietatik orrl darion artegatasunarena! barri bakanak dakazanak ekarri bear leukela olango begirik dirudi.

ROSS dator aurrera.

ROSS.—Yaungoikoak yagongo al zauz, Errege!

DUNC.—Nondik etorria augu, thane zintzo?

ROSS.—Fifetik, Errege goragarri; Norge'ko ikurrinak aidean arro zabaldu ta euren axeak gureak otzituten dauzan lekutik. Cawdor'ko Thane saltzalle zintzotasunik areanbakoak lagunduta, Norge'ko erregeak berak, gudari-talde itzalagaz, burruka itzala asi eban eta ari ekin eutsan, arik eta Belona'ren (I) ezkongei ak, yantzi zulagatxez yantzita, iskillu bardinez ari bularra emon arte: mokoia matxinoaren mokoari, besoa besoari, ta, olan, besteak eurrez erabilen adoreari eutsin; eta, amaituteko, gurenien gure aldera itzuli arte.

DUNC.—Zori onaren andi!

ROSS.—Eta itunbena egin gura dauela orain Sueno'k, Norge'ko erregeak, guk, ostera, bere gudariak eortziteko gure ederretsirik be ezkeuntsala emon gura izan, Kolunba Gurenaren izaroan gure erriarentzako ak amar milla dolar bere sakeletik atera ta emon arte.

DUNC.—Bein geiagotan eztausku ziririk sartuko Cawdor'ko Thane denganiño orrek. Oa, adarra yo, ak bertatik il bear dauela iragarri egik, eta aren izenez del egiok Macbeth'eri.

ROSS.—Neure kontura ori.

DUNC.—Macbeth zintzoak irabazi dau ak galdua. (Alde dagie).

(ii) BELONA. guda-yainkono da, Erromaren mitu-iztiz, Marte'ren arraba ta emazte.



## III AGERLEKU.-Inarradia.

Ostotsak dira. Iru sorginak datoz aurrera.

I SORG.—Nondik izan az, aizta?

II SORG.—Txarria ilten.

III SORG.—I non, aizta?

I Sorg.—Gaztañak ebazan allzoan itsas-gizon baten emazteak, eta yan ta yan erogoion; "Ekadazan", dirautsat nik, eta emakume alperrontzi epertoak gedar, "Alde, sorgin orrek". "Tiger" ontziaren yabe da aren semea ta Alepo'ra yoana, baña, ontzizat bae bat artuta, buztanbako arratoia legetxe, ara yoan eta yoan eta yoan egingo naz ni.

II SORG.—Axe bat emongo dausnat.

I SORG.—Biotz oneko az.

III SORG.—Beste bat emongo dausnat nik.

I SORG.—Neuk daukadaz besteak eta, putz eta putz, itsas-ateak eurak be aurrean eroaten dabez, itsas-mapatik ezagun-ezagun dabezan baztar guztiak. Bedar igarra baño igarrago egingo dot arako gizon a; loa ezta kokatuko ontziko aren txabolatxoaren ganean ez gabaz, ez egunez; beragana inor eltzerik galazota dauen gizona legetxe biziko da; zazpi gau gogaikarri bederatz bi der bederatzitan makaldu, argaldu ta iristu egingo da; ekatxen yostallu izango da aren ontzia, gal-ezina izan-arren. Begira zer dodan.

II SORG.—Erakutsi egidan, erakutsi egidan.

I SORG.—Pilotaren atz orkoloa yaukanat emen, etxerantza etorrela ontzia urperatuko itsas-pilotarena. (Tuntuna barruan).

III SORG.—Tuntuna! tuntuna! Macbeth dator.

IRURAK.—Sorgin aitzak, legor-itsas-bidariak,

Eskuak alkarri, alkarri emonda,

Onantxe yuten dira batetik bestera.

Iru bider irera. irutan nirera,

Ta beste irutan, bederatz osatzeko.

Ixil! amaitu da lilurapena, bego.

MACBETH eta BANKUO datoz aurrera.

MACB.—Eguño eztoz ezautu onango egun itxusi ta ederrik.

BANK.—Zenbat bide dago Forres'era? Zertzuk ete dira orreik, orren zimel eta ganorabako yantzidunok, muniutarren anzik izan ez, eta orraitño be emen dagozanok? Zer bi-ziak ete zarie. ala ez ete zarie gizonen itaunik egitekorik? Ulertuten daustazuenarena egiten dozue. batera bakotxak bere atz tximurtsu narru utsezkoa ezpanetara eroanda. Emakume izan bear zendukie zuok,

izan, zuon bizarrak galazoko ezpaleuste olangorik sinistutea.

MACB.—Itz egin, al ba'dozue: zer zarie?

I SORG.—Gora, Macbeth! Gora, i Glamis'ko Ihane ori!

II SORG.—Gora, Macbeth! Gora, i, Cawdor'ko thane ori!

III SORG.—Gora, Macbeth! oraindik ara errege izango azan ori!

BANK.—Zer dala-ta ikaratuten zara, yaun yator? Eta zegaitik zara bildur belarrien gozagarri diran zerak entzunda? Egia-arren, irudi utsa zarie, ala izan zarie azalez iragarten dozuena? Oingoxe emoiagazko txerea egin dautsazue nire lagun yatorrari, ta orrez ganera, gerorako aurretik iragarri dautsazue thanetza ta erregetza-itxarora, eta onako guzti onegaz sorturik eta zurturik gelditu dala dirudi. Ezsrixo be eztaustazue esaten niri. Etorkizun-aziaren mamia ikusteko alik ba'dozue, eta zein azi aziko dan, eta zein ez, esan al ba'dozue, niri be itz egin, enago, ba, ni ez zuon emoien eske, ez zuon gorrotoaren biHurrez.

I SORG.—Gora!

II SORG.—Gora!

III SORG.—Gora!

I SORG.—Macbeth baño txikiago ta andiago.

II SORG.—Ez ori aña zori ontsu, orraitño be askozaz zori ontsuago.

III SORG.—Errege izango dozak ik semeak, eu izan ez-arren. Ori dala-ta, gora Macbeth eta Bankuo!

I SORG.—Gora, Bankuo ta Macbeth!

MACB.—Geldi or ,zerak erdizka esaten dozuezanok, geiagorik esan niri; Sinel'en eriotzea dala-ta, ba-dakit Glamis'ko Thane nazana, baña zelan Cawdor'ko? Bizirik dago Cawdor'ko Thanea, eta aitonseme aberats da. Gatx da ni errege izango nazala sinistutea, Cawdor'ko izango nazala legetxe. Esan, nondik dozue barri bakan ori? Edo zegaitik geldituazo dauskuzue axe-boladak yoten daben inarradi onetan, etorkizun diran zerez beteriko agurrakaz? Esan, neuk aginduten dautsuet. (Sorginik ezta agiri).

BANK.—Kaskabilloak, iztilak dauz lurak be, urak izaten dauzanez, eta orretarikoxeak yatsuz orreik be. Nora ondatu ete dira?

MACB.—Eguratsetara, aidera, eta urtu egin da soñezko frudiana, arnasea aidean legetxe. Gelditu al litzaz!

BANK.—Baña, izan ete da emen, gero, **guk**

orain euretzaz itz egiten dogun lango iza-kirik? Ala, buruko argitasuna kentzen dauen zustar edentsuren bat yan ete dogu?

MACB.—Errege izango dira zure semeak.

BANK.—Errege izango zara zu.

MACB.—Eta Cawdor'ko Thane be bai; onan ez ete dau esan?

BANK.—Itzez itz.

ROSS eta ANGUS aurrera.

ROSS.—Macbeth, pozik be pozik artu dauz Erregek zure garaiteagazko barriak, eta matxinoak benderatutetik zuri etorri lekikezun etorkizuna susmaurik, an dabil ebatzi-ezini- zelangoz izan lediken zurea, eta ze- lango berea; au alde batera, eta egun be- rean yazoriko enparaua begiraturik, Nor- getarren lerrokada sendoetan aurkituten zauz ak zu, zuk ai eginaren bildurrik ba- garik: ifondiko eriotza-irudiak datorkoz burura. Txirgorea baxen sarri erdu da bi- daria bidarienagaz, eta bai batek eta bai bestek zuk erregerriaren alde eginiko ol- dargune andiaren gorapenak ekarrezan eto Erregeren aurrean eralgi.

ANG.—Zuri eskarrak gure ugazaba Erregeren aldetik emoteko bidaliak gara gu: zuri bere aurrera dei egiteko bakarrik, ez zuri ordain- duteko.

ROSS.—Eta zuri bere aldetik Cawdor'ko Tha- ne izenez deituteko agindu dausku, gora- pen andioren baitzat. Izentatze barri au dala-ta, gora, thane goragarri ori! thane tza ori zeure da-ta.

BANK.—Zer? Txerrena be egi-esaka ete da- torku?

MACB.—Bizirik dago oraindik Cawdor'ko Thanea. Zer dala-ta yantzi gura nozue iño- ren soñekoz?

ANG.—Ba-da bizi thane zana, baña epai la- rripean daroa bera galtzea irabazita dau- kan bizia. Nik neuk eztakit Norgetarrakaz a itundu zan, ala ez; ezkutuko laguntza ta irabaziz matxinoakaz lerrotu zan, ala bi- tsuokaitik erri au ondatuten alegindu znn, baña autortu ta erakutsiriko salkeririk bal- tzenak itzuli dabe.

MACB.—(Bere kiteam). Glamis eta Cawdor'ko Thane, gero andiena. Eskarrik asko zuon nekeakaitik. Ez ete dozu zure semeak erre- ge izango diralaren itxarorik, niri Cawdor' ko thanetza emon daustenak gitxiagorik eztautsue agindu-ta?

BANK.—Aintzakotzat artuazkero arein esana, burestunagaz be argitu zendikez oraindik, Corwdor'ko thanetzez ganera. Baña, zer ba- kana yatsu auxe, ta egiak esaten dauskuez sarritan ilunbearen bitartekoak, gu geure okerrerrako bidean yarteko; uskeriekaz ira- bazten gabez, ondorengo larrietan uts-emon eta bertanbera izteko. Lengusuok, itz bat, airen.

MACB.—(Bere kitean). Egi bi dira esanak erregetzarako itxaroaren sendagarritzat. Es- karrik asko, yaunak. (Bere kitean). Goitiko dei au ezin izan dateke txarra; onik be ezin izan dateke. Txarra ba'da, zegaitik emon daust ondo yazoaren baia, egitik asi- ta? Cawdor'ko Thane naz. Ona ba'da, ze- gaitik amore-egiten dautsat bere irudi ika- ragarri utsak buruko uleak zutundu ta, be- rezkoaz bestera, nire biotz bareari saietsak yozotzen dautsazan zirikatzeari? Dodazan irudipen ikaragarriak baño txikiago dira oraingo bildurrok. Bein-beinean nire goga- ketaen burutapen utsa baño ezta ilazotea ta, orraitioño, egin-bearra itoteraño aztindu- ten dau susmo utsak ni gizon onen izate bakarria; eta ezta ezer, ezer-eza baño.

BANK.—Begira, zelan dagon gure laguna, U- luraturik.

MACB.—(Bere kitecm). Berezkoak egin ba'na- gi errege, berezkoak ezarri daist burestuna buruan, nik neuk zirkinik egiteka.

BANK.—Omen barriak etoni yakoz ganera; guk yazten doguzan iñoren yantzien antze- ra, etxakoz egiten soñari erabiliaien era- biliz ezik.

MACB.—(Bere kitean). Datorrena datorrela, egunik latzena zear be aurrera egiten dabe aldiak eta orduak.

BANK.—Macbeth yaun, zure aginduaren be- gira gagoz.

MACB.—Zuon laguntzea indazue; azturiko zeretan ibili da nire buru motela. Yaun mai- teok, egunoro irakurteko nik bira eragiten dautsadan zereko orrian dagoz yarrita zuon nekeak. Erregegana goazen. Auamertu ya- zo dana, eta arartean orretzaz sakon oldoz- tuta, eragozpen bagarik eta astitsua go eral- gi dagioguzan gure biotzetako kezkek al- karri.

BANK.—Bai, eta ondo pozik alan be.

MACB.—Asko da ararte. Goazen, adiskideak. (Alde dagie).

## IV AGERLEKU.—FORRES. Bakaldegioko leku.

Yoten Ereslariak. DUNCAN, MALCOLM, DONALBAIN.LENNOX eta Laguntzakoak aurrera.

DUNC.—Ilazo ete dabe Cawdor? Ez ete dira etorri oraindik orretarako yoaanak?

MALC.—Errege yaun, eztira etorri oindiño ba. ña a ilten ikusiriko bategaz itz-egina nozu; ak esan daustanez, argi ta garbi autortu dauz ak bere salkeriak; zu nagusi orren parkamena eskatu ta damu itzala iragarri el dau; ak bere bizian egin dauen zerik onena bere bizia iztea izan ei da; eriotzaldian iragarri dau ak zer zan; usksri utsa ba' litzan lez bidali dau ak ortik zear bere ondasunik yoriena.

DUNC.—Gizonaren gogoia zelango dan arpegitik igarteko biderik eztago. Uste osoa neban nik gizon agan.

MACBETH, BANKUO, ROSS eta ANGUS aurrera.

Lengusu aintzako baño aintzakoago ori! Lendik be astunik asko izan dok iganako nire eskartzarrekokeriaren obena, baño orain ni-rj aurreak arturik ain urrin eldu az-eta, sariaren egorik bizkorrena be geldo utsa dok i goatuteko. Gitxiago irabazi al endun, nire eekarrak eta ordaña ire irabazien *ai-dean* andi agertu edizan! Auxe bakarrik yoat esateko, nik ordaindu-ala ta geiago baño geiago dala zor yakana.

MACB.—Zor dautsudazan bendekotasuna ta zintzotasuna eurak dira euren ordain nik eurak betetean. Gure egin-bearrak artzea da zure garaitasunarena, eta seme ta otsein yakez zure errege-aulkiari ta erriari gure egin-bearrak; eta seme-otseñok, ezer onik egiten dabenean, egin-bearrekoaz besterik eztabe egiten, zure maitasun eta txera onaren begira.

DUNC.—Ondo etorria augu ona; oraintxe asi nok ni i lurrean sartzen, eta aleginak ale-

gin egingo yoadaz i landara oso-bete mardul azteko. Bankuo zindo, ik eztok irabazi bape gitxiagorik eta, olan dala, autortu bear yoagu-ta, i biribildu ta nire biotzean sartzen itxi egidak.

BANK.—Or azi ba'nadi, zeure izango da uztea.

DUNC.—Nire poz ugariak euren betetasunean aldakorrek izan dira-ta, euren buruak naitage-tantakadetan ostondu-gurarik dabiltz. Seme, senide, thane la nigandik urren zagozenok yakin egizue Malcolm nire seme-rik zarrenaren ardurapean yari gura dotala nire erria, eta aurrerantzean seme orre-ri Cumberlani'eko Erregegei eretxiko yakola, baño omena berak bakarrik eztauela eroan bear; ez orixe, irabazi dagiezan guztiai be andiki-agiriak dizdiz egingo dautse, izarrak egin darenenez... Inverness'era emendik, eta geitu zuokanako nire zorra.

MACB.—Neke da zugaitik egiten ezтана; neu izango naz zure gezinari (iragartzalla) eta nire emaztearen belarriak poztuko dodaz zuri aurreak artuaz; au dala-ta, agur apalalik.

DUNC.—Cawdor goragarri!

MACB.—(Bere kitena). Cumberland'eko Erregegei! ostopo da ori, eta ostopo orretan edo yausi egin bear dot, edo bere ganetik yauzi egin, nire bide-bidean dago-ta. Izarrak, itzali zuon argiak! Ez al dauz argik ikusiko nire asmo baltz-bildurgarriak. Begiak kiñu dagio eskuari! orraitioño be bedi, bein egin-dakoan, bera ikusteko begia bildur izango dana. (Alde dagi).

DUNC.—Egia, Bankuo goragarri, kementsu-kementsu da a gizona, eta yanari yataz arentzako gorapenak... oturutza egiten yataz. Goazen bere yarrai, guri txera egiteko yoañ da gure aurretik aren ardurea-ta. Bera langorik bagako senide yakuk a. (Ereslariak yoten. Alde dagie).

## V AGERLEKU.—INVERNESS. MACBETH'en Gazteluko gela bat.

Macbeth Anderea aurrera, idazki-irakurten.

MACB. A.—"Garaitte-egunean urten yatazan bidera, eta biderik onenetik yakin dot ilkorrak baño geiago dakiela aik. Itauñ geiago egiteko erretan nengoalarik, ardetu, aidentan ezereztu egin yatazan aik. Yazoaz arri-ta i lluraturik nengoala Erregeren mezu-

dunak eldu yatazan eta guztiak Cawdor'ko Thane izenez gora-aitatuten ninduen; lenagotik emon eustien izen ori arako sorgin aitzak, eta gerorako agur au, Gora, errege izateko ori! Au iri nire anditasunkide maitemaite orre-ri iragartea on dala uste izan yonat, iri aginduriko anditasunaren barri-

rik ezagaitik pozaren egin-bearrak baztatu eztaginazan. Biotzean sakon sartu ori ta agur".

Glamis az i ta bai Cawdor be, eta agindu yakana izango az, baña ire izakerearen bildur nok; gizon zintzoarenik geiegi yok ire izakera orrek biderik laburrena artzeko; andi izaterik gura bai gura enduke ik; andikeririk be ba-dok ik izan, baña bide geztorik artzeka. Bide onez iritxi gura enduke ik ire gurari bizia; ez enduke gura txakurkeririk, baña orraitño be eztoz kezkarik txarto irabazia artzeko; gurako enduke ik, Glamis andi, gedar onek dirauskana, "Onan egin bear dok, lortu gura ba'dok: eta a, bera ez egiteko guraritan baño egiteko bildurretan geiago dokana". Arin ator ona, ire belarrietara nire adorea eralgi dagidan, eta nire miñaren adorez txibita-otsean uxatu dagidan urrezko zer biribilerako bidea iri eragozten dauskan oro, dirudinez, alan-bearrak eta beste mundukoen laguntasunak zer biribil ori ire bururatu yoek-eta.

#### LAGUNTZAKO bat aurrera.

Ze barri dakak?

LAG.—Errege dator ona arratseon.

MACB. AN.—Zoratu egin yak iri, olangorik esateko. Agaz eztoz ire ugazaba, ala? Eta egia ba'ledi ori, ak berak iragarriko euski-dan, gertakuntzak egiteko.

LAG.—Eder izango al yatsu, egia da-ta; bidean da gure thanea; nire lagun bat etorri da a bestean arin, bai, eta arnas-estua-aren arnas-estuz ito-bearrean, ozta-ozta izan dau arnasarik asko gezna au niri emote-ko.

MACB. A.—Lagun akio, barri andiak yakazak-eta. (Alde Laguntzakoak). Nire torreko arresi-barrura Duncan'en sarrerea garran-kadaka diragarren belea bera be latza da. Zarienak zariela, erdu ona ilkorren gogaketaen yaube zarien beste mundukook, ementxe ta oraintxe kendu egistazue emetasuna, eta biotz-gogortasunik itzalenez bete-

bete nagizue buruko ertzetik beatzetaraño! loditu nire odola, itxi damurako bide ta ateak, berezko errukiren izpirik be eldu ta ikaratu eztagian nire asmo dongea, ta egi-teetara eltzeka gelditu eztaadin asmoa! Erdu nire emakume-bularretara, kendu esnea ta esne-ordez beartzuna sartu; erdu zuok, gizeraille-lagunok, zuon izate ikus-ezinakaz berezko okerrerietan edonon laguntzalle zarienok! Erdu, gau itsu, efa su-lezako kerik baltzenezko yantzia yantzi egik, nire aitzo zorrotzak berak eginiko zauririk ikusi eztagian. eta zeruak be, ilunbezko estalgiazear kirika eginda, "Geldi! geldi!" gedar egin eztagian.

#### MACBETH aurrera.

Glamis andi! Cawdor goragarri! orrek baño andiago, arako "Oraindik ara errege izango azan ori" gaitik! Oraingo aldi ez-yakina baño arago eroan naiok ire idazkiak, eta oraintxe argi dakust etorkizuna.

MACB.—Nire maiterik maitteena. Duncan yatorkun ona arrats onetan.

MACB. AN.—Eta noz yoateko emendik?

MACB.—Biar, bere asmoa danez.

MACB. AN.—Bai zera! iñoz be eztau ikusiko eguzkiak "biar" ori! Gizonak or zer bakanak irakurri leikiezan liburu yatsu zure arpegia, ene thane: aldiko ziria sartu, aldiko barrukoa erakutsi; txera argi egin zure begi, esku ta miñez; lora errugaren antza azalean, baña suge zitala barruan. Arrera ona egin bear yako datorrenari, eta nire arduraean itxi zuk arrats onetako egikizun nagusia. Nagusitasuna ta yabetasuna bakarrik emongo dauskuz egikizun orrek etorteko diran arrdts eta egunetarako.

MACB.—Geroago ta luzaroago itz dagikegu orretzaz.

MACB. AN.—Argi erabili ik arpegia. Beti bildurra iragarten yok on-egitean aldaka dabilen arpegiak. Nire kontura itxi ganetiko oro. (Alde dagie).

#### VI AGEHLEKU.-Len<sup>o</sup>oxea. Gaztelu-aurrea.

Zaamiolak yoten. MACBETH'en Otseñak begi-  
ra. DUNCAN, MALCOLM, DONALBAIN, BAN-  
KUO, LENNOX, MACDUFF, ROSS, ANGUS,  
eta Laguntzakoak aurrera.

DUNC.—Leku zoragarrian dago gaztelu au.  
Gure zentzuetara firi-firi ta gozo datorren

aideak berak be eztau bera goratuteko iño-  
ren bearrik.

BANK.—Toki oneri zerutiko arnasa gozo-usa-  
ña dariola erakusten dau elexa-zale ta uda-  
igarla dan elaiak be, bere etzaleku maite-  
ztat gaztelu au artu dau-ta. Eztago emen  
abe urtenik, orma baldarrilik ez orma-euska-

rririk, txori onek bere abia an dingilizka egin eta umeseaskatatzat artu eztauenik, eta ikusita daukat leuna dala txoriak umeak azi ta yokerarik geien daben tokiko aidea.

MACBETH ANDERA aurrera.

DUNC.—Aor, aor, gure ostatari adeigarria! gure kezka-bide izaten da ifioz gure yarra dabilen maitasuna, baña, *a* ta guzti be, maitasunari dagokiozan eskarrak egiten dautsaguz. eta auxe da nik onegaz emoten dautsudan ikaskizuna, zera, guk zure nekeai amore-egitea, eta zuk zure kezkaiketik guri eskarrak egitea eskatuko dautsazula Yaungoioari.

MACB. AN.—Txiro ta bakar litzatekez gure otsein-agiriak etxe oneri zuk eginiko omen andl ta yoren aldean, zeatz, birritan, eta beste ainbestetan eginak ba'litzaz be. Bai

#### VII AGEHLEKU.-Gazteluko atari bot.

Zaamiolak yoten eta zuziak. Aurrera datoz, eta ba-doaiz, Mai-begiralaria ta otsein batzuk, ontzi ta ganetiko maiko zerakaz. MACBETH dator gero.

MACB.—Egingo danean egingo dala egitekoa, arin egitea litzake on. Emengoxe ta orain-goxe ostopoen ganetik, errege ilaz, nire elburuo lortu ba' nengi, eta errege iltetik etorri ledikezan ondorenak galazo al ba'nengiz, egina geunkake beste mundura aitekoa... emen on guztiak ekartekoa ta emengo eragozpen guztiak kentzekoa al litz zartada au. Baña, onetariko egiteak emen bertan be izaten dabe euren zigorra: odol-ixurbideak irakasten doguz, eta irakaspenok irakaslearen buru-ganera etorten dira izuri-antzera. Geure ezpanetara ekarri daroa zuzentza esku-bardinak guk zitaldu dogun ontziko edaria bera. Bitariko uste onak daukie errege emen gurean; ni aren senide ta bendeko izatetik datorko bata, ta zer biok bata baño bestea sendoago dira asmotan dodanik nik ez egiteko; bestea, ostatari natxako ni, ta ori natxakonazkero, ateak itxi bear neuskioz *a* ilten letorkenari, ez neuk aiztorik erabili. Ganera, ain biotz oneko, ain bere egikizun-betetzalla da Duncan au. Au dala-ta, angeruak lez, adarrots itzalez gedar egingo dabe onen egintza onen eriotzearen aurka. Eta errukiak, ume yaioparriaren antzera, axe-bolada-egoetan yarra, edo-ta zeruko keruben zaldi ikus-ezinen ganean, edozeñen begl-aurre-aurrera

aspaldi, bai ointsu-ointsu emon dauskuzuzan omenakaitik zorrean geldituen gatxatsuz.

DUNC.—Non dogu Cawdor'ko Thanea? Orpoz-orpo yarrai gatxakoz eta berari txera egiteko asmoa izan dogu, baña, bakizu, zaldiz ibilten on yatsu a; eta gu baño lenago ekarri dau a berera aren maitasun andi ta aztala baxen biziak. Ostatari eder-zintzo, zure ostatuko gara arrats onetan.

MACB. AN.—Guk, zure otseñok, pilaturik dogu gurea, gu geu, ta gure dan oro, zure ederraren begira; eta guzti ori einonda be zeurea zuri alzera emonaz besterik ezto-gu egiten.

DUNC.—Ekadazu esku ori; nire ostatariagana eroan nagizu; asko maite dogu guk a, ta oraindik ezta agortu arentzako gure emoiturria. Zure ederretsiz, ostatari-andera. (Aldi dagie).

egotziko leuke egite ikaragarri au, eta axea bera be ito egingo leukie negar-malkoak. Ezto aztalik r.ire asmo-zaldiari saietsetan kiñetuteko, ganera yauzi egiteko leia ta irritsa baño, eta irritsa au besteren baten ganera yaustekoa da, zaldiaren bizkarrak arago yauzi eginda.

MACBETH ANDEREA aurrera.

Zek zakaz ona? Ze barri dogu?

MACB. AN.—Amaitu-aginik dago aparta: zer dala-ta alde egin dok yatokitik?

MACB.—Nire eske egon don, ala?

MACB. AN.—Eztatik egon dana, ala?

MACB.—Aurrerago ezkoaz zeregin onetan: omen andiak ezani daustaz oiainsu ak, eta izen eta entzuteik onenak dodaz lagunabar-artean, eta oraintxe egin bear leukie didiz izen eta entzute ezin-obeok, ez orren arin baztartu.

MACB. AN.—Mozkorturik ete yegoan, ba, i txairotuten induan itxarora? Lotan egon.ete dok arrazkero? Eta len berekikitik egina orain zurbil eta ikaraz begiratuteko atzarri ete dok? Ire maitasuna be olangotzat etsiko yoat oraindik atxina. Bildur ete az guariaz azana bera egitez eta adorez izateko? Bizitza-edergarritzat dokana lortu gura ta gero dollorrena egingo ete dok, beñolako katuari yazo yakon legetxe, "gura neunke"ri "enaz atometan" erantzunda?

MACB.—Ixilik ,arren. Etxonat gizoni dagoko-

nik egin-ezirik. Etxagon ni baño adoretsua-  
gorik.

MACB. AN.—Ze piztik alde eragin dausk, ba, asmo atatik? Egiteko gertu engoanean, orduan, orduan intzan i gizon, eta orain orduan baño be gertuago ba'engo. gizonago be ba-intzake. Orduan ez egozan ire alde ez aldia, ez eta tokia, eta orraitño be biak ire alde iminteko gertu engoan: biak dozak orain ire alde, eta eu ez ago eurer; alde. Ugatza emona nok eta ba-yakiat zer samur be samurra dala señari ugatza emotea, eta a ta guzti be, egite au egiteko ik egin dokanez nik zinik egin izan ba'neu, arpegira irribarre gozoa egiten eustan señari kenduko neuskion titi-burua aginbako oietatik eta garaunak aterako neuskiozan zartadaka.

MACB.—Eta porrot egingo ba'gendu?

MACB. AN.—Ze porrot eta porrot-bako! aizto-mokoa sartzan dan lekuari lotu ire adorea, eta porrotik etxoagu egingo. Loak artu dagianean Duncan (eta gaurko bidaldi nekor-rak laster lo-arrazoko yauntsak<sup>1</sup>, mozkor-mozkor egingo dodaz aren gelazai biak ai-

dao ta txitxiparraz, eta deusezturik gelditu-ko yakiek ai buruaren atezai gomutea, adimena, barriz, irasita; zer ez egiteko guk bion artean yagola bagako Duncan'eri aik txarri-lotan, eta ardan-zopaturik, il-antzean dartzan bitartean? Zer ez egiteko guk gure egite itzalaren errua ezarriko dautsegun aren gelazai edabez zaragituai?

MACB.—Mutil utsak sein-egin; ar utsen ama izan bear liizateken ire izakera bildurgea. Baña, sinistuko ete dabe lagunabarrak orreik izan dirala, ez gu geu, Errege ilazo dabenak, orreik loti biok guk odol-orbanez loitu ta euren sastakaiz guk Errege ilazoazkero?

MACB. AN.—Nok sinetsiko besterik aren erio-tzeagaitik guk egingo doguzan gedar eta naibage-erakusketak dirala-ta?

MACB.—Ebatzita ta gertu naiagon, eta gorputzko indar guztiak egikizun ikaragarri ori egitera itzu'irik • dodaz. Aurrera! eta iruzur egin, ziria sarlu txerarik argienez; guzur-arpegiz estali guzur-biotzak dakiana. (Alde dagie).

## II EKITALDI

### I AGERLEKU.-INVERNESS. Gaztelu-barruko larrina.

BANKUO aurrera, zuziagaz bere aurretik  
FLEANCE dauela.

BANK.—Zelan yoak gaba, seme?

FLEAN.—Yatzi da ilargia; eztoz entzun erloiurik.

BANK.—Amabietan sartzan dok ilargia.

FLEAN.—Beranduago da, nire ustez, yaun.

BANK.—Eldu, artu nire ezpatea. Zerik alpe-  
rrik galtzera etxagok ortzea; angu argiak danak yagozak itzalita; orregaz be kontu-ratu adi. Lo-gura beruna bestean astuna yotat baña etxoat lorik egin gura. Aldun erru-  
rriak, alde eragidazue berezkoak lotan yareiten dauzan gogaketa dongaetatik! Ekadak nire ezpatea. Nor dogu or?

MACBETH aurrera, eta Otsein bat, zuziagaz.

MACB.—Adiskide bat.

BANK.—Ba! yaun, oraindik be atzarrik? Oean datza Errege; oituaz-ganetiko pozaldia izan dau eta emoi andiak bidali dauz zure otsein nagusientzako; zure emaztearentzako bi-dalten dau ontzi ederrean sarturik dagon

ikatzarri bikain au, ta bere ostarari-andera maitagarriarentzako zuzenbidea dakar.

MACB.—Gerturik ez gengozanazkero gure biotz ona izan da gure utsen betagarri ta ordeazko; baña, otopokorik izan ezpa'litz agerraldia, gurariak bere kontura lan egin izango eukean.

BANK.—Ondo 'dago .Arako iru sorginakaz ames egin dot bart; egi-izpiren bat eraku-tsi eutsuen aik zuri.

MACB.—Yaramonik eztautset egiten nik; orraitño, astirik ba'dogu ta zu orretarako gertu ba'zengoz, berbalditxoen bat egin gengike orretzaz.

BANK.—Zeuk gura aña luzaro ta atsegin-atseginenez.

MACB.—Danean dala, zure omenerako izan-go da, nire gurarien alde yari ba'zadiz.

BANK.—Olan dala, bape eztoz galtzen omen ori egiteuten nabilen bitartean; baña bein-beinean azke dot biotza, eta zinio ta garbi zintzotasuna. Onurik artuko dot.

MACB.—Bitartean ondo lo egin.

BANK.—Eskarrik asko, yaun; bardin zeuk be, (Alde BANKUO'k eta FLEANCE'k).

MACB.—Oa ta ire etzandereari esaiok txilina 70 dagiala nire edabea gertau dagianean. Oera oa i. (Alde otsenak).

Sastakaia ete da emen nire aurrean dakustana, kirtena niganantza dauela? Aurrera, mutil! eldu bear dauskat. Ez aut oraindik, eta orraitño, ikusi oinganik akust. Ikuskai ilzal ori, beste sentzuentzako ez-eta, ikusmenak bakarrik oartutekoa ete az? Ala, irudimen utsak sorturiko sastakaia ete az, guzur utsa, garaunen beroaren beroak asmaua? Oraindik ba-akust ikusi ta oraintxe zorrotik ateraten dodan au langoxe ukagai az antzez. Neuk neroan bidea erakusten daustak eta olangoxe iskillua erabilteko nintzoan. Edo beste zentzunen yostallu, edo beste guztiak batera añako dira nire begiok; oraindik be ba-akust, bai eu, bai ire ago ta kirteneko odol-tantakadak be, baña len ez oneik. Eztok olangorik. Nire egikizun odoltsua da ori nire begiai iragarten dautsena. Ilik dirudie orain munduaren erdikineko izakiak, eta ames zitalak iñondiko barrabaskeriak egiten dautsoez errezel-ostean dagon loari. Orain daragoioe sorginak Hekate'ri (2) opariak egiten; eta begiralaritzat otaoa, erloiutzal otsoaren ausia dauzan giza-erale zimela, otso-ausiaren deira, lapur-oinkadaka, Tarkin'en (3) oinkada lizunekaz, ba-doa bere asmoetarantza mamuen bat, itzalen bat ba'ledi legetxe. Ik, lur sendo ta ikarabako orrek, ik ez egik entzun nire oinkadarik, nondik eta nora doazan, nire atzera-aurreen barririk emonazkero bera beteteko sekulako erea dodan nire egikizun ikaragarri au arriak eurak be eskuartetik kendu eztatisten. Bizi da ori ni ez yoko bai yoko nabilkon bitartean; arnasa otzegia emoten dabe itzak egiteak berotuteko. (Txilintsa da).

Ba-noa ta eginik dogu; deiez dot txilina. Ez al dok entzungo, Duncan, itzako zerurako edo su-lezarako il-kanpaia dok- eta. (Alde dagi).

MACBETH ANDERA aurrera.

MACB. AN.—Biztu egin nau ni orreik mozkortu dauzanak berak; ixitu egin nau ni orreik itzali dauzanak. Entzun! ixilik! mozolloaren oioa izan da, gau-onik latzena emoten dauen yoale-zai zori txarrekoarena. Ba-daragoio ak; idigi dira ateak, eta otsein mozkorrak irri dagioe euren egin-bearrari; zitala, edena sartu dautsat nik euren edabeari, ta

bizia ta eriotzea or dabiltz alkarri ekiten bietatik zeñek irabaziko.

MACB.—(Barruon). Nor dago or? Ba!

MACB. AN.—Ai ene! atzarri diranaren bildur naz, eta oraindik egikizun da egitekoa; egitekoaren bildur gara, eginak bildurtubearrez. Entzun! gerturik itxi dodaz arein sastakaiak, ezin yazo edikean ak aik ez aurkituterik. Neuk egingo neunkean, lotan egoala nire aitaren antzik artu ezpa-neuntsa. Nire senarra!

Barrio aurrera MACBETH.

MACB.—Egin dot egitekoa. Eztozu entzun zarratarik?

MACB. AN.—Mozolloa oioka ta txirritxirriak tsdrtxirka entzun dodaz. Ez ete dozu itzik egin?

MACB.—Noz?

MACB. AN.—Oraintxe.

MACB.—Berantza nentorrela, ala?

MACB. AN.—Bai.

MACB.—Entzun! nor datza bigarren lo-gelan.

MACB. AN.—Donalbain.

MACB.—Ikuskizun baltza da au (B&re eskuak begira).

MACB. AN.—Tentelkeri andia ikuskizun baltza dala esalea.

MACB.—Barre egin dau batek lotan egoala, eta "Erailtea!" gedar egin dau beste batek. Alkar iratzarri dabe olan; zutundu egin naz eurai entzuteko, baña, euren arrenak eginda, loak artu dauz barriro.

MACB. AN.—Bi dagoz lo-gela batsn.

MACB.—Batak "Yaungoikoa lagun bekigu!" gedar egin dau, eta besteak, "Olantxe"; gizon-eskegitzalleren eskuokaz ikusi nabeanean. Arein bildurrari adi, aik "Yaungoikoa lagun bekigu" esan dabenean, ni enaz gauz izan "Olantxe" erantzuteko be.

(2) Hekate, su-lezetan agintza andiko andera. Birgili'k "caelque Ereboque potentem" (Enearena VI, 247), bai ortzeain, bai sulezean altsu ereisten dautso.

(3) TARKIN, Erroma'ko lenengo erregeetik zazpigarrena ta zitzengeroa yatsu emen. Onen seme Sestak, lizenkeri-lera eutsi-eginak bultzau'ta, Lukertze emakume on-maratz eta sendi urtenekca ta ezkondua, indarrez *e'a* gabaz, laidotu ei eban. Yazokune baltz-iguingarri onek asarre bizfion yarri ebazan Erromarrak, eta iguinaren iguinez erregect ta erregeak bein betiko ortik zear bidali ebezan eta errege-agintza-ordez Erkal-agintzea sortu-ozo.

MACB. AN.—Olan ez egizak artu zerak.  
 MACB.—Baña, zegaitik enaz gauz izan "Olan-txe" erantzuteko? Neu izan naz Yaungoikoaren laguntza-bearrik andienean, eta ez-tarrian lotu yat "Amen".

BACB. AN.—Onan etxakie erago bear onango egitadai, ostantxean zoratu egingo yaku.  
 MACB.—Norbaitek gedar au egin dauela iruditu yat: "Lorik ez geiago!", "II egin dau Glamia'ek loa, eta au dala-ta, Cawdor'ek eztau lorik geiago egingo".

MACB. AN.—Nor izan da olango gedarra egin dauena? Thane adeigarri, erkindu egiten dok ire sendotasun begiragarria, zerak olan biotz-makal-antzera artuta. Ur-billa oa, autor zikin ori ire eskuetatik kentzeko. Zegaitik ekarri dozak sastakaiok euren lekutik? An egon bear yaek orreik; artu, atzera eroan, eta odoldu egizak otsein lotiak.

MACB.—Enoa ni ara barriro; egin dodana gogoratuten be bildur non; enon atometan egin dodanagan nire begiok barrien-barri yarten.

MACB. AN.—Biotz-makal, kikir ori! ekadazak sastakaiok; irudiez besterik ez dozak lontan dagoana ta !a. Ume-begiak dira txerren-irudiaren bildur. Odola dariola ba' dago, odol agaz odolduko dodaz otseñen arpegiak, errudun eurak agertu dadizan. (Alde dagi. Barruan ate-yoka).

MACB.—Nondiko ete da zartada ori? Zelan ete nago ni, edozein zartadak bildurtuteko? Ze esku dira oneik? Ene! begiak ateraten daustiez eskuok! Netun (4) andiaren itsaso nagusiko ur guztiak be asko izango ete dira nire eskuko odola zeatz kentzeko? Ez, urak eskua garbitu-bearrean, itsasoak eta itsasoak gorrituko dauz eskuak, urdina gorriturik.

MACBETH ANDEREA aurrera, barrien-barri.

MACB. AN.—Ireen margoko, koloreko, dozak nire eskuok be, baña lotsa nintzatekek irea lango biotz zuririk ba'neunke. (Ate-yoka barruan).

Egoe-aldeko ate-yotea dantzut: gure lo-gelara goazen. Ur apur batek ikuziko dau gure egitea. Olan izatekotan bai, ba-litzake zer erreza! Ate-yoka ta yoka daragoiozu, baña inok yaramonik ez. (Ate-yoka ostera be barruan).

Entzun! ostera be ate-yoka; ire lo-atorrea yantzi egik, gu yagita aurkituazkero susmo bcarren bat inok artu ez dagian; ez adi olan tenteldu ire gogaketetan.

MACB.—Nik egina yakiteagazko ,neuk ez ya-

kitea litzake onena. (Ate-yoka barriro bs barruan). Buncan iratzarriko al dok ire ate-yote errezag! olangorik al endu! (Alde dete-gie).

Ate-zaia aurrera. Ate-yoka barruan.

ATEZ.—Bai, benetan daragoio norbaitek ate-yoka! su-lezako atezai ba'ledi norbait, tre-be ledike giltzeari batera ta bestera eragiten. (Ate-yoka barriro). Vo, yo, yo. Nor da go or, Beltzebu'ren izenean? Ugaritasunaren begira egoneko lugin bat dozu emen, bere burua urkaturik; tertzioz erdu; mosuzapirik asko ekarri aldean, orregaitik emen izerdi onik bota bearko dok-eta. (Ate-yoka) Yo, yo! Nor da or, beste txerrenaren izenean? Arranoa! Egiaren eta guzurraren alde, bien alde zin-egiteko gertu egoten zan bat dozu emen, Yaungoikoaren izena-arren amaikatxu azpikeri egindako maltzur bat, baña Yaungoikoari ezin sartu izan eutsan ziririk. Ui! barrura ator, azeri ori. (Ate-yoka) Yo, yo, yo! Nor da? Arrano, arranoa! Ingelandar yostunen bat datorku ona, Pantzetiko galtzerdiak ostu ebazalako. Sartu adi i be, yostun, ire koipeak emen urtuteko. (Ate-yoka) Yo, yo! Bein bez atsedenic! Zer eta nor zara zu? Baña leku au otzegi da su-leza izateko. Enoa emendik ara txerren-atezai izaten; lorazko bideak-zear betitiko sutegira doazan gutzitariko ogibideetariko balzui sartzen izteko gogoa neban nik izan. (Ate-yoka) oraintxe! oraintxe! Arren, bai, arren, erruki izan atezaiaz. (Ba-didigi atea).

MACDUFF eta LENNOX aurrera.

MACD.—Lagun, beranduen baten yoan intzan oera orren berandurarte lo egoteko, ala?

ATEZ.—Egia esan, yaun, edan eta edan erago geuntsan ollarrak bigarrenez yoarte, eta edabea, yaun, iru zeretarako da el-bide.

MACD.—Zertzuk dira edabeak berariz dei-egiten dauksen iru zerok?

ATEZ.—Ara, oneixek, yaun: surra gorritutea, lo gurea ta txiz-estua. Lizunkeria da eda. beak dei-egiten dauksana ta ez dauksana; ba-dakar lizunkeri-galerik, baña bai bete-ezina be; au dala-ta, asko edanak lizunkeriari ziri ederra sartzen dauksala esan ledike; sortu bai egiten dau, baña bai eze-

(4) NETUN, itsas-errega, Erromarrem mitu-iztlz.



reztu be: biztu egiten dau, ta il bertatik; "Aurrera" dirautso, ta "Atzera", bertatik: erabagia arrazoten dautso, ta itxiazo, bertatik; au dala-ta, ziri ederra sartzen dautso lotan, eta agoa bete aginegaz izten dau an,

MACD.—Sinisten yoat; bart agoa bete aginegaz geHitu intzala.

ATEZ.—Ori egin eustan, yaun, baña neuk be ordain lango ordaina emon neutsan eta, nire ustez, arentzako ni indartsuegi izanda, batzuetan ak niri zangoetatik goatu-arren, arteziz yaurtin neban nik.

MACD.—Zirkinlk egin ete yok ire ugazabak? Guie ate-otsak iratzarri yoe! or yatok be-ra.

MACBETH aurrera.

LEN.—Egun on, yaun zindo!

MACB.—Egun on bioi!

MACD.—Zirkinik egin ete dau Eiregek, Thane argi?

MACB.—Oindiño ez.

MACD.—Berari goxetik dei-egiteko agindua emon eustan; larri-larri aurrera yoaten itxi dautsat tertzioarl.

MACB.—Beragana eroango zaudaz.

MACD.—Neke atsegingarri yatsu au, baña orraitño be neke.

MACB.—Atsegin ez egiten dan lanak, berak osatuten dau laneko nekea. Au da atea.

MACD.—Dei-egiten atomauko naz, tertzioan egin-bearrekoa dot zeregin au-ta. (Alde MACDUFF'ek).

LEN.—Gauf ete doa Errege emendik?

MACB.—Bai, gaur; gaurko eguna izentau eban.

LEN.—Artegea izan da igaroko gaua; lurrera egotzi dauz axeak gu gentzazan etxe-ko kebidak eta, or diñoenez, aidean be negar-intziriak entzuten izan 'dira, eriotzearen garrazi bakanak; eta etorkizun negargarri-rako sortuten dagozan sute itzala ta gizonen arteko naste-borrasteak iragarri el dabez itz ikaragarritz; gau-txoriak be ixiltzeka oioka erago dautso atzenbako gau orretan; ba-dira lurra beroenak artu ta ikaratu egin dala diñoenak be.

MACB.—Gabaro latz izan da, benetan.

LEN.—Nire gomuta gazteak eztau ori lango beste gabaro latzen barririk.

MACDUFF aurrera barrien-barri.

MACD.—Onangorik! Onangorik! Onangorik!

Ez miñek, ez biotzek ezin asmau leikie Izenik iretzako!

MACB.eta LEN.—Zer yazoten da?

MACD.—Bere egitekorik andiena egin dau naste-borrasteak! Yaunaren yauretxe gantzutua zartadaka zulatu ta aren bizia ostu egin dabe giza-eralerik zantarrenak.

MACB.—Zer diñozu? Bizia ostu?

LEN.—Erregeaz ete diñozu?

MACD.—Lo-gelara zoaze ta zuon ikusmena ondatu egizue Gorgon (5) barri orregaz; ez eragin itzik niri, zeuok ikusi ta itz-egin. (Alde MACBETH efa LENNOX'ek). Atzarri! atzarri! yo galtzori-yoalea; eraitlea ta azpikeria! Bankuo ta Donalbaln! Malcolm! atzarri zadize! astindu eriotza-antzeko !o ori, eriotzea bera begiratuteko; Gora, gora, ta ebaztegun andiaren irudia ikusi! Malcolm! Bankuo! zuon ilobietatik ba'ledi lez yagi ta erdu itzal-antzera, ikuskizun ikaragarri au ikusteko! (Galtzori-yoale-otsa da).

MACBETH ANDEREA aurrera barriro.

MACB. AND.—Zer yazoten da adar gorrotagarri orren otsez etxe onetan lotan dagozanak batzarrera deituteko? Esan, esan!

MACD.—Andera zindo ori, zutzakorik ezta nik esan dagikedana entzutea; entzun-ala eriotzea lekarkio barrien-barri emakume-belarrira esateak.

BANKUO aurrera barriro.

Ene Bankuo! ene Bankuo! il egin dabe gure ugazaba Errege!

MACB. AN.—Ai enetxoa! ai enetxoa! Zer? Gurean?

BANK.—Gogorregi edonorako be. Duff maite, iruntsi egizak itzok, arren, eta olangorik ez dala yazo esan egik.

MACBETH eta LENNOX aurrera barrisn-barri.

MACB.—Zori oneko bizitzea izango neunkean, au ikusi baño ordubete lenago il ba'nintz,

(5) GORGON. Iru ciiztak eroien izen cru. Euskeldunen arfean, neguko gau luzeetan, nok ez dau entzun, esaterako, giz-otsoaren ipuña? Gízfosoa ez da gizon osorik, ezfa ofso osorik be: gizon zer batzuetan, ofso besfeefon. Olango zer bakanak ziran Gorgonak be: ez emakume oso, ez suge oso; emakumerenak ziran euren soñak, baña buruan suge kirimilduak ebezon, ule-ordez, "ebezan" esan dot, bcrña "ei ebezc"esan bear neunkean.

une onetatik aia nñie biziak ederrik ez dau-  
ta; yostallu uts baño ez da dana; entzute  
ona ta adeia, biak il 'dira; bizitza-aidande-  
gi onetan, ardaoa ateiata, ondai-loi utsak  
gelditu diia aidaodunaien anokizuntzat.

MALCOLM eta DONALBAIN aunea.

DONAL.—Ze okei yazo da?

MACB.—Zeu izan, eta ez dakizu? Agoitu da  
zuie ituiri, buru ta zure odolaren iturburua:  
iruiou ituibuiua agortu da.

MACD.—II egin dabe zuie aita Errege.

MALC.—Ai ene! nok?

LEN.—Dirudienez, bere lo-gelakoak il dabe;  
odolduiik agiii dira euren esku ta arpegiak,  
baita euien buiuekoean ganean gaibitzeka  
auikitu doguzan sastakaiak be; adi-adi be-  
giatu gabez, baña eztabe ezer iragani. Gi-  
zonen bizirik ezin itxi edikean aiein ardura-  
pean.

MACB.—Tz! nire asane gonian euiak ilaien  
damu dot.

MACD.—Zegaitik egin dozu olangorik?

MACB.—Noi izateko une beiean zur eta ika-  
ratu, bare ta asarre, zintzo ta ez-aldeko?  
Ez gizonik. Tenen bururatu yakona egin  
'dau nire maitasunaren maitasunak, burubi-  
de baieagori aurreak arturik. An egon da  
Duncan luze etzanik, beie zidai- nanua an-  
oir-emenka odolezko oibanez beteiik, eta  
ago-zabalik agiii izan diia beie sastakai-  
zuloak, euiak zeai barruia ondamendia sai-  
(zeko izateaien atakea ba' litzazan lez; bes-  
tetik, antxe eialeak, euien ogibide-kolorez  
bete-beteiik, euien sastakaiak ganoia ba-  
gaiik odol gogoituz estalita ebezalaiik; nok  
etsuin eskuaii, maite izateko biotzik, eta  
maitasun oii eiakesteko kemenik izanazke-  
ro?

MACB. AN.—Lagun zakidaze emendik alde  
egiten. Ai enetxoa, bada!

MACD.—Yagon anderea,

MALC.—Zer dala-ta dagoz geldi gure miñak,  
aiazo au geien geurea danazkero?

DONAL.—Zer esaieko guk emen? Geu beteko  
zuloan legetxe gagoz, gitxien uste danean  
bertatiko baten goatu gengikiez eta gureak  
egingo leuke-ta? Alde dadigun emendik;  
oiñño sortuteko dira gure negartanta-  
nak.

MALC.—Gure naibaga gorria be eragiteko  
da oiñño.

BANK.—Yagoizue anderea. (Atera daros  
MACBETH ANDEREA). eta otzaren otzaz  
min artzen daben gure soin makaleko bi-  
llus-uneak estali daiguzanean, batu gadl-  
zan, eta zeatzago eztertu dagigun egite  
odoltsu au. obeto ezagututeko. Bildurrak eta  
kezkak aztinduten gabez; Yaungoikoaren  
esku indartsuetan nago-ta, ori dala-ta, ger-  
tu nago ixilean dagon azpikeri maltzurra-  
ren aurka gogor yokatufeko.

MACD.—Bai neu be.

GUZTIAK.—Guztiok be bai.

MACB.—Astirik galtzeka gertau ta batera ba-  
tu gadizan arretoan.

GUZTIAK.—Ondo ebatzita. (Alde MALCOLM  
eta DONALBAIN'ez bestek).

MALC.—Zer egiteko asmo dok ik? Ez goaz  
orrein batzarrera: naibagearena egilea zer  
erreza dok gizon guzui-daiioentzako. Inge-  
landa'ia noa ni neu.

DONAL.—Eiie'ra ni; banazeko zoriak obeto  
yagongo gauz; sastakaiak yagozak gizonen  
irribarreetan gagozan leku onetan; odolez  
urrago dan ta beragaz odoltiago izateko  
bidean.

MALC.—Oindokoarren eztok eldu lurrera  
eriotza bat egin dauen aztamakila ori, eta  
aren itutik alde egitea dok gutzako biderik  
egokiena ta galbiderik gitxienekoa. Zaldi-  
ganera, ba, ta agur-egite-koipekerietan ibil-  
teka zirrist-egin emendik, zurrarena dok  
errukirik eztagon lekutik lapuriek lez ixilka  
alde egitea. (Alde dagie).

## II AGEHLEKU.-Lengoxea. Gaztelutik *al*

ROSS eta Agure bat aunea.

AGUR.—Ondo gomutetan dodaz irurogeta  
amai uiteotako zeiak; ordu bilduganiak  
eta ze i bakanak ikusia nozu aldi onetan,  
baña bartkoean aldean utsa dira aik.

ROSS.—Ai! aita on, ba-dakuszu bizileku one-  
ri zemaika dabilela zerua, gizonaien egi-  
teak asarraturik; dagoneko egon beai leu-  
ke egunak aigitutik, eta orraitño argi bi-  
deztia itoten daragoio gau ilunak, idunetik

goatuta; gaua geiagu dalako, ala eguna  
lotsa dalako estalten ete daufso llunbeak  
arpegia ludiari, argi biziak mosu-emon bear  
leuskion tertzioan?

AGUR.—Berezkorik ezta au, egiteak be ez  
diranez. Igeroko Asteartean aztore bat ebl-  
len arro egaz goi-goian eta, ara! goatu ta  
il egin eban mozollo sagu-yale batek.

ROSS.—Eta Duncan'en zaldiak (zer bakan eta  
segurua aux), eder eta bizkorak» euien

endearen kutunak, basatl ta uxo egin dira euren izakeran, euren aska-abeak ausi ta igesi egin dabe; yagi ta asaldata egin dira bendekotasunaren aurka. gizadiari guda-egitsko-edo.

AGUR.—Alkar yan dabela diño.

ROSS.—Egin be orixe egin dabe, arriturik begiratuten eben neure begion aurrean. Emen dalor Macdoii ona.

MACDUFF aurrera.

Zelan doaku mundua, yaun?

MACD.—Zer, ba, ez dakutsu zeuk, ala?

ROSS.—Ezagun ete da odoltsu baño odoltsuago dan egite au nok egin dauen?

MACD.—Macbeth'ek il dauzanak.

ROSS.—Ai ene! ai ene! zer onik itxaro eikien aik ortik?

MACD.—Erosita egozan aik; ixilean igesiak dira Malcolm eta Donalbain, erregeren se-

me biak, eta euren ganean dago egitearen susmoa.

ROSS.—Ori be ez da berezkorik; irabazirik ez datorkon andikeria, bizibideak kenduko dautsezana! Olan izatekotan. Macbeth izango da errege, ezpaibaga.

MACD.—Dagoneko dago izentaurik, eta Scone'ra yoango da, erregetzea an artzeko.

ROSS.—Non dago Duncan'en gorpua?

MACD.—Colme-Hill'era eroana da; an dago bere aurrekoen azurtegi gurena ta azurrok yagoten dauzan lekua-ta.

ROSS.—Scone'ra zoaz zeu be, ala?

MACD.—Ez, lengusu, Fife'ra noa ni.

ROSS.—Ondo dago, ara noa ni.

MACD.—Ori ondo, ondo eginda ikusiko al dozak zerak. Agur. Yantzi zarrak ez ete yakuz etorriko baniak baño obeto?

ROSS.—Agui, aita.

AGUR.—Yaungoikoaien onespena zutzako, ta bai txairetik ona ta aieioetatik adiskideak egin gurako leukiezan guztientzako be!

### III EKITALDI

#### I AGERLEKU.-Forres. Bakaldegiko leku.

BANKUO aurrera.

BANK.—Or dok orain: errege, Cawdor, Glamis, dana, arako emakume sorginak agindu ebenez, eta bildur nok orretan eskuak ez dokazala garbi; baña ire ondorengentzako ez zala izango be esan yoen aik; neu izango nintzala errege askoren iturburu ta aita. Ara, Macbeth, egi izan ba'dadi aik esana, itzako lez nitzako be; benetakoak be'dozak arein itzak, aiko, itzako egi urtenazkero, zegaitik ez izan nitzako be etorkizunaren iragarki ta nire itxaroaren puzkarri? Baña... ircilik, tutik bez geiago.

Adar-otsa. MACBETH BAKALDUN, MACBETH ANDERA BAKALDUNO, LENNOX, ROSS, Lordak, Anderak, eta Laguntzakoak aurrera.

MACB.—Amen gure ostatukorik nagusiena.

MACB. AN.—Orreri dei-egitsa aztu ba'litxaku, utsune andia legokean gure yai andi onetan, eta ez litzakean bape egoki.

MACB.—Yaun, apari anfi bat egiteko gara gaur arratsean eta zu ara erdutea gura neunke.

BANK.—Agindu begist zure nagusitasunak,

niie bendekotasuna lokaniik askatu-ezlinez oiieti betiko lotuik dago-ta.

MACB.—Zaldiz ibilteko ete zaia anasti onetan?

BANK.—Bai, ene yaun on.

MACB.—Ostantxean aituko neunke zuie onurik, gauiko batzanean zuk emona sentzunezkoa ta niie onerakoa izan da-ta; baña, bier emongo daustazu. Zaldiz urrin yoateko ets zara?

BANK.—Ene yaun, oraindik eta apari-bitartean yoan ledikenik eta uninen; dabilen baño bizkoiagi ibili-ezik niie zaldia, gabari eskatu beaiko daustadaz oidu ilun bat edo bi.

MACB.—Ez egin utsik guie yaia.

BANK.—Ez dot egingo, ene yaun.

MACB.—Entzun dodanez, guie lengusu odolduak artu dabez Ingelanda'n eta Eire'n; alan be, ez dabe autortu euren aitaren eriotza biozbagea, eta iñondiko asmakizunez bete dabez entzulaen belarriak; baña, biar itz-egingo dogu orrezaz, orrezaz batera itz-egiteko batu gadizanean. Zoaz arin zaldi-ganera. Agur, arratsez etorriarte. Fleance be zeugaz ete doa?

BANK.—Bai, ene yaun on; guri deiez dogu gure aldia.

MACB.—Bizkor eta apatx-gogorrek izango al diia zuon zaldia; au dala-ta, euren bizkarretara. Agur. (Alde BANKUO'k).

Bere astiaren yabe bedi gizon baktxa arratzeko zazpirak arte! lagun-artean egotea-ri txera argiagoa egiteko, bakarrik egongo naz "" aparatikorarte; bitartean Yaungoikoa lagun bekizue! (Alde MACBETH Anderak, Lordak, Anderak, e. a.).

I, txotxo, itz bat iri: zer esango-begira ete yagozak aik gizonak?

OTSEÑAK.—Ene yaun, orretarakoxe dagoz, bai.

MACB.—Gure aurrera, ona ekazak. (Alde Otsenak). Utsa da onan izatea; onan bildur-ga bizitea bai ba-ledike eder; bildur andi da Bankuo'ri dautsagun bildurra; ba-dago bildurto eragiteko zeozertxo aren berezko erregetasunean; kementsu-kementsu da a, eta bere-bere dau aren bildurbako gogoak aren kamenari ostopobaga lan egiteko bideak erakusten dautsapan zurtasuna. Ez dot arenez besteren bildurrik; atzera egin bear dot nik nre asmoetan aren bendea, diñoenez Marka Andoni'k Kaisar'en bendea legetxe. Agiraka egin eutsen ak arako aiz-(al be niri eguño lenengoz errege-izena emon eustenean, eta berari be itz-egiteko agindu eutsen; eta gero, igarla-antzo. errege-lerrokadearen aitatatz agur-egin eutsoen; ondorengorik bagako burestuna imini eusten niri buruan, e(a urre-zigor antzua nire eskuetan, nire semek bagarik, beste senideren batek areitatik niri kentzeko. Olan izatekotan, Bankuo'ren ondorengoan alde orbandu dot nire gogoa; aren onerako il dot Duncan maitagarria; eurekaitik eta eurekaitik bakarrik bete dot nik gorrotoz nire bake-ontzia; aik errege egiteko emon dautsat nik gizon guztien arerioari nik dodan pitxirik yorien eta ederrena, Bankuo'ren azia errege egileko! Olangorik yazo baño len, erdu, zoria, guda-lekura eta guda-eupadea imini nire agoan! Nor dago or?

Otseña aurrera barrien-barri, Erale bigaz.

Atetara oa orain, eta an ago guk dei-egin arte. (Alde dagi Otseñak).

Atzo ez ete gendun alkarregaz itz-egin?

I ERAL.—Bai, atzo, eta eder izango al yako zure nagusitasunari,

MACB.—Ori ondo, eta orain ondo aztertu ta ausmertu ete dozuez nire esanak? Yakizue,

ba, ni izan nazala zuok oker uste izanarren, eta zuok olangogarririk izan ezarren, a izan dala igaroko urteetan zuok bear izan gorrian euki zauezana; au da, zuon ederretsiz, gure oraintsuengo batzarrean argi imini neuntsuena, zera, ak, etentzaka, begia zuon ganean eukiten izan dauela, edozetan bideak itxi egiten izan dautsuezala, iñoren eskuko zintzazela, orretarako ak zetariko bideak erabili ebazan, eta olango amaika ta amaika, biotzik eta bururik otzernari be "Au egiten eban Bariduo'k" esanazoko leuskionak.

I ERAL.—Bai, iragarri zeunskun ori.

MACB.—Bai, orixe egin neban eta aurrerago be yo neban, eta au izango da gure bigarren batzar onen geia. Orren andi ete da zuon epea zer oneri aurrera yarraituten izteko? Orren barrura sarturik ete dozuez Kisto'ren iralcatsiak, bere esku astunagaz zuok zeuok ilobiraño makurtu, ta zuonak betiko eskeketu dauzanaren eta aren ondorengoan alde zuok arren egiteko?

I ERAL.—Gizon gara, yaun.

MACB.—Bai, gizontzat agiri zarie izendegian, eiza-txakur, erbi-txakur, naste-txakur, txakur ule-leun-luze, (xakur usikari, altzo-txakur, eta txakurotsoak guztia txakurrizena daroénez; izendegi arduratsu ta zeatzak ba-dirautsu zein dan bizkor, zein astiro ibilteko, zein zur, zein etxe-txakur; berezko esku-zabalak emoniko emoiaren bidez berez-ten da baktxa; baktxari bere zertxoa eraasten yako guztitarikoentzat dan izenaz ganera. Olantxe da gizonakazkoa be. Zeuok esan orain gizonen izendegi zeatzean gorengo malletan, ala berengoetan zagozen, eta zuon arerioarenak egin dau, zuon biotzetan iminiko dodan egikizuna zuok beatezker; gure biotza ta maitasuna irabaz-ten dozuez orregaz, guk geuk be, a bizi daño osasun txarra daroagunok, a ilazkero sekulakoa geunkake-ta.

II ERAL.—Yaun, munduagandik artu dodazan zartada ta ukabilkadak asarre gorria emon dauste-ta, emen nozu egin dagidanek ardurarik emoten ez daustan au, bein munduari berea ta erdiak emonazkero.

I ERAL.—Neu nozu beste bat; aspertuta nago zori txararren zori txarrez; tatarrez erabili nau zoriak-eta, gerturik nagotsu bizitza onetan zirli-zarta yokatuteko. bizitza aii obatu, edo beroni atzena emoteko.

MACB.—Biok dakizue Bankuo izan dala zuon arerioa.

ERALE BIAK.—Egi utsa, ene yaun.

MACB.—Nire be ba-da, ta luzaro be luzaro izan be, nire bizitzako une oro nik biziaren urren dodanaren aurka ekin eta ekin daragoia-ta. Arpegi emonda kenduko neunke nik a begien aurretik, eta nire guramenari agindu be bai ori ederretsi dagiala, baña olangorik ez dot egin bear arenak eta nireak, bionak diran adiskide batzukaitik. Ez dot galdu bear nik arein maitasuna ta bai negar egin neuk ilten dodanagaitik; au dalata nabil zuon laguntzearen billa; lagunabarren begietatik estali ta ostondu egiten dot arazo au ainbat zegaiti astungaitik.

II ERAL.—Yaun, beteko dogu zure agindua.

I ERAL.—Baita gure biziak zertuta be...

MACB.—Argi dagi zuon adoreak zuok-zear. Geienez be ordubete-barru iragarriko dautsuet non yarri; iragarriko dautsuet egin-

eginean zein tertzlotan egin zuon egitekoa; arratg onetan egin bear da egiteko ori, ez bakaldegian bertan, irrintxoago baño; beti uste izan dot eragozpenik ez dodala bear nire bidean; a (Bankuo) baztartuta, ez itxi ezetariko ostoporik, ez eta adabakirik be nire lanean; bere seme Fleance dau ak bere lagun, eta semea baztartutea aita baztartutea añako da nitzat-eta, aitarren zoria izan bear dau semeak ordu baltz orretan. Zuok zeutara ebatzi; laster noake zuokana.

ERALE BIAK.—Erabagia artuik gagoz, ene yaun.

MACB.—Laster noakizue; barruan egon. (Alde Eraleak).

Eginda dago: Bankuo, zerurako ba'dok ira arimearen egazkadea, arrats onetan izango dok. (Alde dagi),

## II AGERIEKU.-Lengoxea. Jakaldegiko beste gela bat.

MACBETH ANDEREA ta OTSEIN bat.

MACB. AN.—Alde egin ete dau Bankuo'k bakal-urilik?

OTS.—Bai, andera, baña arratseon dator atzera.

MACB. AN.—Erregeri itandu egiok itz gitxi batzuk entzuteko lain asti dauentz.

OTS.—Itanduko dautsat, andera. (Alde dagi).

MACB. AN.—Ez dago ezer, dana da galdurik, gure guraria poz bagarik lortu ba'dagigu: oba da guk banatuten doguna bera izan, banatuta bada-ezpadako pozik izan baño.

MACBETH aurrera.

Zer da ori, ene yaun? Zegaitik zagoz baka-riak, zure laguntzat irudipenik baltzenak dozuzala, ta euren geiagaz batera il bear leu- kien oldozketa orrei eragin eta eraginka? Ez litxakie yaramonik egin bear zuzendu ezin ledikezan zerai: eginik dago egina, aor.

MACB.—Zauritu bai, zauritu dogu sugea, baña il ez; osatuko yakoz zauriok, eta lengoxea izango da; bitartean, aren lengo aginak usigiteko zorian geldituten da gure gaiztakeri beartsua. Baña, lokatu bediz yoskune-giltzak, min-artu begie mundu biak, guri gure yataldiak bildurrez eragin eta gabero ikarutuden gabezan ames bildurgarriak euren urduritasunez guri lorik gala-zo baño Ien; dogun leku au betetearren betiko atsedenera bidali doguzan ilen ar-

tean izatea be oba da, gogo-elorrio bizitan, atsedetik бага, liluraturik, gau osoetan etzanik egotea baño. Bere ilobian dago Duncan; lo ederra dau ak bizitzako artegatasun aldakorren ostean; bere egitekorik dollorrena egin dau azpikeriak; ez galtzoiduk, ez zitalek, ez etxeko gaiztakerik, ez erbesteko gudarostek, ezek be ez dau ukutuko geiagotan.

MACB. AN.—Tira, leundu egizuz begirakune latzok, ene yaun leun orrek; gogargi ta pozdario agertu arratseon gure maikideen artean.

MACB.—Olantxe agertuko naz, kutun, eta zeu be olantxe agertuko al zara; Bankuo gogoratu egizu; bera dala lenengoa iragarr egiozu, bai zure itzez, bai zure begiz; ez gagoz bildurga biziteko, gure omenok yagoteko onan labankeri-darioka ta gure biotzak zelango diran inok ikusi ez dagian gure aipegiz estali-bearrez bizi garean bitartean.

MACB. AN.—Geldi itxi egizu ori.

MACB.—Ai! emazte maite, sikilikituz beterik dot burua! Ba-dakizu Bankuo ta Fleance bizirik dirana.

MACB. AN.—Bai, baña betiko ezta eurekan dagon berezkoaren eredua.

MACB.—Pozbiderik ba-dogu oraindik; zear-tau-ezinak ez dira aik; pozik izan, ba; es-talpeko saguzarrak egaz egin baño Ien; ka-karraldo narru-baltzak bere burrundada lo-arrazotekoz Hekate ilunari dei-egiteko ga-beko durundu arrausi-eragilea atera baño

len eginik izango da egite zaratatsu ta itzala.

MACB. AN.—Zer da egitsko zareana?

MAC3.—Ez al dozu yakingo maits orrek, egin-dakoan txaloago yotera arte. Ator gau begi-isle, itxi egik egun errukiberearen begi samurra, ta ire esku odoltsu-ikusezinez eten, birrindu ta ortik zear biiali egistak zurbil nendun lokarri astuna! Gizenduaz

doa argia, eta bela-basora doa egaz belea; burua makurtuten eta loak artzen asiak dira eguneko zer onak, gabeko egile baltzak euren goatze ta narrukadak egiteko yagiten diran bitartean. Arriturik zaukiez zu nire itzak; baña, ixilik zagoz, egon; txarrak berak sendotu daroaz t:arto asiriko zerak; au da!a-ta, neugaz zatoz, arren. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Lengoxea. Zugazti, naiz land'aren bat, Bakaldegirako ate bat dauela. Ira Erale durrera.

I ERAL.—Nok agindu dauk iri gugana etorteko?

III ERAL.—Macbeth'ek.

II ERAL.—Ez dogu zetan izan orren susmo txarrik, gure egitekoa ta gure bearlekua zeintzuk diran ba-dakianazkero.

I ERAL.—Gure artean ago, ba. Egunaren argi-izpi batzuk ba-fatoz oindiño eguzki-sarreratik; bidazti berantiarrak orain, aztalak sartuta, arin eragiten dautso zaldiari, ostatura tertzioz eltzeke; eta urreratuaz dator kukuka gagokozan urlia.

III ERAL.—Entzun! zaldi-apatK otsa dantzut.

BANK.—(Barrutik). Eup! argia ekaguzue.

II ERAL.—Bera da orrazkero; errege-yauregian dira onazkero aparitara deituriko enpaduak.

I ERAL.—Orrein zaldiak or dagoz deslai.

III ERAL.—la legoa bateko bidean; baña bes-teetan be olantxe egiten dau orrek, baita

beste edozeñek be; oñez egiten dabe emendik bakaldegirako bidea.

II ERAL.—Argia! argia!

III ERAL.—3era da.

I ERAL.—Beragana, mutilak.

BANKUO ta FLEANCE aurrera, zuziagaz.

BANK.—Euria izango da arrats onetan.

I ERAL.—B3tor. (BANKUO'n ganera doa).

BANK.—Azpikeria! azpikeria! Igesi egik. Fleance on, igesi! igesi! igesi! Ik emon engike orde. Yopu ori! (II egiten da, FLEANCE'k igesi).

III ERAL.—Nok itzali dau argia?

I ERAL.—Ori etzan egin bear zana, ala?

III ERAL.—Bat baño eztago Iurrean; igesi egin dau semeak.

II ERAL.—Gure egikizunaren erdikinik onena galdu dogu.

I ERAL.—Ondo dago goazen emendik, zer egin dogun esatera. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-Lengoxsa.

Gerturik oturuntzea. MACBETH, MACBETH ANDEREA, ROSS, LENNOX, ANDIKIAK eta Laguntzakoak aurrera.

MACB.—Ezagun dozuez zuon omen-mallak, yezarri; eta biotz-biotzetiko ondo-etorria atzenen.

ANOIKIAK.—Hskarrik asko zure nagusiagotzeari.

MACB.—Eerengoen artean yarriko naz ni, ostatari apalarena egitsko. Nire ostatari-anderea varriko da maipuruan; baña ondo-etorria eskatuko dautsagu tertzioan.

MACB. AN.—Yaun, zeuk emon egiezu nire aldetik gure adiskide guztiai, ondo etorriak dirala diño rtre biotzak eta.

MÍC3.—Ara, euren biotzetatiko eskarrik askok urstzen dautsu bidera. AHe biak dira bardinak; ementxe yarriko naz, erdi-er-

Bakalderri-arazo-gela bat.

dian. (Lenengo Eralea dator atetara). Neurririba izan poza; bertatik artuko dogu zurrutada bana mai-inguruan. Odola dok arpegian.

ERALEAK.—Bankuo'rena da orrazkero.

MACB.—Otea az i atetan a barruan baño. Garbitu dozue a, ala?

ERAL.—Ena yaun, moztuta dago aren semea; neuk moztu dautsat.

MACB.—Sama-moztzallerik onena augu; baña i bestean ona dok Fleance'ri beste orrenbeste egin dautsna; ori be ik euk egin ba'dok, i bestekorik etxagok.

ERAL.—Errege yaun, igesi egin dautsku Fleance'k.

MACB.—Orrazkero, barriro datorkit nire larrialdia; ostantxean ase-betea nintzatekan; arri zuria baxen osoa, atxa gañe oñari

sendokoa; bere ontzian artzen gauzan aidea bestean zabalta ta guztiena; baña, orain gelatxoan, zulotxoan, leku estuan, neu betekoan sarturik nago, ez-bai ta bildur zantarren barruan loturik nago. Baña, seguru garbitu ete dozue Eankuo?

ERAL.—Bai, ene yaun on, arekan dctgo seguru be seguru, buruan ogei scslakai-zulo 'dauzala; gitxienez eriotzea dakartso orrek zer biziri.

MACB.—Eskarrik asko orregaitik; an datza sugetzarra; igesi dauen mamarroak aziko dau zitalik gerora, baña bein-beinean ez dau aginik. Oa; bier eiagoko orretaz barrien-barri. (Alde Eraleak).

MACB. AN.—Ene errege yaun, eztazu egiten zuk poz-gedarrik; oturuntzeak diraeño, biotz onez emoten dozula sarritan erakutsi ez ba'dagizu, saldua yatsu olango oturuntzea; yan norberenean egiten da ondoen; egiten daustuezan arrera ta txerak yatzuz yanari gatza ta piperra ezarten daustoezananak; batzar otza ta uisa litzake olangorik bagako batzarra.

MACB.—Gogoratzalie kutun! osasuna orain gu bion aldetik, eta yan-auste on bana izango *al* dozue yan-galearen lagungarritzat!

LEN.—Yaun, zegaitik ez zara yarten, arren?

(BANKUO'ren Itzala yagi ta MACBETH'en yezarlekuan yarten da).

MACB.—Bankuo atsegingarria emen ba'gendu, gure erriaren omena ta edergarria geunkake aterpe onen barruan, baña aren ez-bearrari errukirik izateko baño bide geiagodo nitzako begirapenik-eza ari arpegira botateko!

ROSS.—Yaun, aren aginduaren lotsagarri da aren onatu-eza. Zure goikotasunak zure erre-gelaguntzeagaz ederragotu gagiz, arren!

MACB.—Beterik dago maia.

LEN.—Amen yarleku bat utsik, yaun.

MACB.—Non?

LEN.—Ementxe, ene yaun. Zek ikaratuten dau zure goikotasuna?

MACB.—Zuotatik zeñek egin dau au?

ANDIKIAK.—Zer, ene yaun on?

MACB.—Ezin esan engike ik nik egin dodala ori; ez egistazak aztindu ule-moltso odolduok.

ROSS.—Yagi, zaldunak; ondo-eziz dago onen goikotasuna.

MACB. AN.—Yarri, adiskide zindook; sarritan izaten dauz nire yaunak olango aldie-

nak eta yaiotzatikoak yakoz; yezatrita yarra, arren; ez da luzarokorik aldien ori; bertatik yarriko da ondo barrien-barri; min egingo daustazue *la* aldiena luzatu, yaramon andirik egin ba'dagiozue; yan eta ez egin yaramonik orri. Gizon ete zara?

MACB.—Bai, eta ez bape bildurtirik, alan be txerrena bera be ikaratuko leuken ori begiratuteko.

MACB. AN.—Arrokeri orren uts baño utsa-go! zure bildurraren irudia berbera yatsu ori; zeuk esanez, Duncan'ganako bidea erakutsi eutsun arako aidezko sastakaia yatsu ori. Ara, emakumeren batek sutondoan esan eta aren amamak baiezturiko ipukeri letorlcioz ederto egiazko bildurraren antz utsa diran ikara ta aldikaáok. Lotsagarri utsa! zegaitik egiten dozuz mosu-eragiketa orreik? Orsik amaiturikoan, aulkia begiratu baño ez dozu egiten.

MACB.—Aren, bai, arren! Ikusi an! begira! adi! ara! zer diñozue? Burua makurtu al ba'dok, itz be egik. Saien urdallak izango dira gure gomutagallu, il-etxetxoalt eta gure ilobiak atzerct bidali bear ba'dabez guk ilobiratuak. (Alde itzalak).

MACB. AN.—Zer? Ostera be zoroen zoroen kildurik?

MACB.—Emen ba'nago ni, ikusi dot nik.

MACB. AN.—Zoaz ortik, lotsea-arren!

MACB.—Lenago be ixuri izan da odolik, beñolako aldiatan, giza-legeak ekanduak beratu ta bigundu baño len; bai, ta arrazkero be egin izan da belarriak entzuteko itzalegi dan ilazoterik asko; igaroko aldiatan, bein garaunak aterazkero, il egiten zan gizona, eta a zan gizonaren atzena; baña orain, edonor ilteko be asko diran ogei zartada izan-arren euren knskarretan, yagl egiten dira barrien-barri ta gure aulkietatik bultzaka ateraten gabez; eta au olango gizon-iltea baño be bakanago yatsu.

MACB. AN.—Zure begira dagoz zure lagun zintzoak, ene yaun zindo.

MACB.—Aiztuta nengoan; ez yosi zuan begirik nigan, ene adiskide zintzo-zintzook. Gatx bakana dot izan, baña uskeri utsa da ezagun nabenentzat. Tira, maitasuna ta osasuna guztio; yezartera noatsue; ardaoa ekadazue... bete ontzia. Maiko guztien pazerako edaten dot, baita uts egin dauskun gure adiskide maite Bankuo'ren alde be. Emen al lego bera! guztien eta aren alde naz egarri, eta guztioak alkarren.

ANDIKIAK.—Zuganako gure bete-bearren eta zintzotasunaren agiritzat. (Barrío agertuten da Itzala).

MACB.—Oa ortik! ken akit bogien aurreik!  
lurrak iruntsiko al au! etxoek munik ire  
azurrak, otzik yagok ire odola; ez dok ikus-  
menik nigan yosten dokazan begi orreitan!

MACB. AN.—Egunoroko zertzat artu egizue  
au, yaunak; ez da besterik; aroari dago-  
kon poza galazoaz besterik ez dautso egi-  
ten orrako orrek.

MACB.—Gizonek daienik egin-ezinik ez dot;  
Eirusi'ko aitz ule-luzeaien, sui- adaiduna-  
ren, naiz likani'ko katamotzaian antzagaz  
uneiatu akit; oii ez, beste edozein antz  
artu egik, eta nire kirio ta zamil sendoak  
ez dozak iñoz ikaiatuko; naiz baiiii biz-  
tu akit, ezpatea eskuan dokala basamoitu-  
ra eioan nagik; ikaiaz ikusi ba'nagik an,  
neskatoien baten andeiakilla nazala au-  
tortu ta aldarrikatu egik orduan. Alde emen-  
dik, itzal ikaragarri, ini uts onek! ñlde,  
gero! (Ezereztu egiten dtt Itzala). Bai, olan-  
txe; ik alde eginazkeio, osteia be gizon  
nok ni. Yezani oiaindik, airen!

MACB. AN.—Uxatu egin dozu poza, bana-  
tu batzar gozoa, nasterik arrigarrienagaz.

MACB.—Izan ete ledike olango zerik eta gu  
benderatu udako ostotsak legetxe, guri  
berarizko ikararik sartu bagarik? Airiturik  
nozue; ni nazana izanda, nie matiallak  
zuri-zuri geldituik, zuok olango ikuskizu-  
nak ikusi ta zuonetako beiezko gonitasuna  
ez dozuela galtzen ni oiain kontuiatuik.

ROSS.—Ze ikuskizun, ene yaun?

MACB. AN.—Ez egin itzik, Yaungoikoa-anen;  
geroago txarrago doa; asarratu egiten da-  
be itaunak; bertatik, gau on; ez egon yoa-  
teko aginduren begira, len baño len yoan  
baño.

LEN.—Gau on, ola osaBun oberik izango a/  
dau Erregek!

MACB. AN.—Gau onik txeratsuen a guztioi.  
(Aldo Andikiak etct Loguntzakoak).

MACB.—Odol-eske dago orrako ori; odolak  
odola dakarrela da esakunea; iñoz iku-  
si diia airiak ziikin egiten, eta zugatzak  
itz egiten; odol-gizonik ezkutukoena be  
aigitaiatu izan dabe aztu ta zeien alka-  
nen aiteko kirimilak, bela, mika, ta bela-  
txingen bidez. Zer da gaua?

MACB. AN.—Zeindanka, goxagaz eztabaidan  
dabilen zera, larri-larri.

MACB.—Zer <dala-ta idiñozu Macduffek el  
dauela erdu gura izan, gure agindu andia  
ak izanda?

MACB. AN.—Deitu dautsazu ala, yaun?

MACB.—Alanbearrez, ba-dantzut orixe be;  
baña dei egingo dautsat; euretatik bat be  
ez dago eurenean otseñen bat erosita ez  
dodanik. Biar yoango naz, eta goxetik yoan  
be, arako aizta sorginakana; geiagorik  
esango dauste, txanena bideiik txanenez  
yakin-beanean nago orain-eta; eragozpe-  
nak baztatu-bearrean nago, neure onera-  
ko; odoletan samaraño sarturik nagonazke-  
ro ta aurrera egin-ezinik aurkitu, aurrera  
egitea bestean nekor litzake atzeia egitea;  
zer bakan-bakanak dodaz buruan eta bu-  
rutik eskura yoango dira, ta azertu baño  
len egin beai diia.

MACB. AN.—Zeï bizi guztiak onduten dau-  
zana beai dozu zuk, loa.

MASB.—Goazen, goazen lotoia. Zeien asie-  
rako bilduna da ni galtzen nauena; ekina  
beai dot nik, ekin gogona; egiten oindiño  
aspairi gara. (Alde dagie).

## V AGERLEKU.-Inarradia.

Ostotsak. Iiu soiginak auneia, ta Hekate'gaz  
batzen diia.

I SORG.—Zer yazoten yatsu, Hekate? Asa-  
rre-arpegia dozu.

HEK.—Ez ete dot asarrerako biderik, atso-  
zar lotsabako azarriegiok? Zelan atomau  
zarie Macbeth ezetz-igarrietan eta eriotza-  
ailoetan olan atzeia-auneka ebalten? Neu  
nozue zuon liluiapenen iiakasla, neu kalte  
guztien asmatzalle-ta, zegaitik enozue dei-  
tu bein be, neuk be neuiea egiteko, naiz  
gure antzeaien andia eiakusteko? Eta, oke-  
nago dana, seme gezto, gorrotatsu ta asa-  
rretsua baten alde izan da zuok eginiko guz-  
tia; eta a, beste asko legetxe, bere ona-

ren billa dabil, ez zuonaren billa. Zuzen-  
>du orain egin dozuen okerra: zoaze, ta go-  
xean zatoze nigana, Akeion'go (6) lezara;  
ara etorriko da a be, bere etorkizuna ya-  
kin-minez. Gertau zuon ontzi ta lilurak, eta  
ganetiko guztia. Aidera noa ni; zeregin goi-  
bel eta itzalean emoteko naz arrats au.  
Eguerdi-aurrean arlo andia egin-bearrean  
nago; iretargi-adarretik eskegita dago lu-  
rrun-tantan lodi bat; axe goatu bear dot lu-

(6) Antxinakoen su-lezako ibaia da "Ake-  
ron". Orregaitik zer bat bera dira Akeron'go  
leza ta su-leza. (Ikusi Enearena VI, 295).



rrera baño Ien; aztu-antzez lurrunurtu ba' dagit lurrunurtu a, buru-naste itzalera eroango dabe Macbeth ak eragiko dauzan itzalak, euren lilura-indarrez. Yaramonik egiteka, ortik zear bidaliko dau ak zoria, irri egingo dautso eiioztaii, eta zurtasun, eder eta bildurraren ganetikoak izango dira bere itxaroak; eta ba-dakizue segurukeria

dala gizonaren areriorik andiena. (Eresi ta abestia barruan: Erdi ona, erdu ona, e. a.). Entzun! deiez dodaz; begiia, Iañio balzaren ganean yezarrita dago nire maitagarria, eta nire ordeazkotzat dago. (Alde dagi).

I SORG.—Goazen, arin goazen; laster da a atzera be. (Alde dagie).

#### VI AGEHLEKU.-FORRES. Bakaldegiko gela bat

LENNOX eta beste ANDIKI bat aurrera.

LEN.—Orainateko niie eiasietan ukutu baño eztautset egin zure gogaketai, baña zuk burutan zer darabiltzun aitu-ezinik ezto; auxe baño ez dirautsut nik, zera, bakanak izan dirala yazo diran zerak. Erruki izan dautso Macbeth'ek Duncan maitagarriari; bai, ba, ilik egoan-\*da; eta Bankuo oldartsu-oldartsuari bidean beranduegi egin yakon-da, zuk besterik uste izan ezik, Fleance'k il ebala a esan geinke, Fleance'k igesi egin eban-da. Gizoni etxako bidean berandu egin bear. Nok uste izan ez baltzetan be baltza izan zala Malcolm eta Donalbain'ek euren aita maitagarria iltea? Egite gorrotagarria! Macbeth'ek artu eban naibagearen andi! Bere asarrs errukiorrez ez ete ebanaz zatitu bereala edanaren yopu ia loaren bendeko ziran gaizkile biak? Ez ete eban egin ori ondo baño obeto? Bai, eta bai zurtasunez be, arein ezetza entzuteak ilik ez dagon edozeñen biotza asarre bizitan yarriko eukean-eta. Au dala-ta, zerak ondo egin dauzala ak diñot nik. Besterik ebatzi dau Yaungoikoak, baña giltzapean euki ba'leuz ak Duncan'en semeak, uste osoa dot aita iltea zer dan ondo erakutsiko euskiela; baita Fleance'ri be. Baña, ixilik nagon! agiriagi itz egite-arren eta erregeren aparira uts egite-arren, aren asarrepean bizi da Macduff, entzun dodanez. Yaun, esan ete zeinke a non dagon egotez?

ANDIK.—Ingelanda'ko errege-yauregian dago Duncan'en semea, errege anker gordin

onek ari yaiotzatiko eskubideak kendu ta beronek beretzat artu dautsozana, ta Edorta yaungoikozale-yaungoikozaleak txera argiz artu dau an eta zori txarraren gogo txarrak ez dautso aii ezei kendu Edoita'ren begitan. Ara yoana da Macduff bera be, errege gurenari eskatuteko lagun dakiola Northumberland eta Siward guduzaleak iratzarten, onako onein bion laguntzeagaz eta Edorta'ren ederretsiz, barrio be gu gure maietan okelarik eta gure gabetan lorik izateko gei-izan gadizan; gure yai eta oturuntzetan aitzo odoltsurik ez izateko; guk gure bendekotasun zintzoa emon eta artzen doguzan omenak utsean artzeko, orain zer guztion leia bizia dogu-ta; eta barri onek emon dautsan asarrearen asarrez eta gudua etorrikoren bildurrez, gertakizunak egiten asia dogu errege.

LEN.—Inor bidali ete dau Macauff'gana?

ANDIK.—Bai, bidali dau, bafia Macduff'ek "Ez noa ni, ni ez" argi ta garbi erantzunik, geznariak motz eta purruztadaka atzea emon ela alde egin eban, "Damutuko yak ire erantzun orregaz nire bidean ostopo ori imini izana" esan ba'leu legetxe.

LEN.—Kontuz ibilteko onua emon leio arrako orrek, eta zurtasunak eskatuten dauen baxen urrin egoteko. Angeru gurenen batek egaz egingo al dau Ingelandara, eta barriok ari iragarri a etori baño Ien. Onespen bizkorra eiduko al da esku zantarpean oñaze-elorriotan dagon erri onetara!

ANDIK.—Nire arrenak bidaliko dodaz agaz! (Alde dagie).

## IV EKITALDI

I AGERLEKU.--Artzulo (koba) ilun. Maskilu bat irakiten, erdian.

Ostotsak .Iru sorginak aurrera.

ABESTIA.

I SORG.—Iru al'diz egin dau miau katu nabarrak.

II SORG.—Iru bidar; eta kirikiñolatzak bein egin dau irrintze.

III SORG.—"Tertzioa da, teitzioa da", gedar dagi bcerrenak.

I SORG.—Bira dagigun maskiluaren inguruan; barruzki edenduak egotzi barrura. Arripe otzean ogsi ta amaika gau ta egunez loeginda, izerdi-zitala sortu dokan kunkun orrek irakin egik lenen ontzi liluratuu!

IRURAK.—Beste ainbestetu, beste ainbestetu lana ia nekea; su-egin, erre; eta ik, maskilu, kaskabilloak atera.

II SORG.—Zinçira-sugearen ede bat irakin-eragin eta egosi maskiluan; suge-linieraren begia ta ugaraxoren beatza, saguzarren ule ta txakur-miña, sugegorriren izpia eta ziraun-agina, muskerren zangoa ta mozollo-egoa, su-lezako *salda-antzer*a irakin-eragin eta kaskabilloak atera, lilura indartsu ta kaitegcirria iritxi dagigun.

IRURAK.—Beste ainbestetu, beste ainbestetu lana ta nekea; su-egin eta erre; eta ik, maskilu, kaskabilloak atera.

III SORG.—Iransuge-ekatak, otso-agina, sorginen soin igarra, itsaso asarre-gaziko *marr*azoren biusturia, gabaz aterako otzerri-bedar-zustarra, Yudar biraotiren gibela, auntzen beaztuna, iretargi-ilunaldian aterako agin-azal-edeak, Turkarren surra ta Tartaritarren ezpanak, bide-ertzeko arekan urdaskak erdiratu ta erdiratu-ala itoriko sein-atza. Salda lodi \a intsikorra dagigun zer guztiokaz; katamotzaren fcarruzkiak ezarri orreri maskilukoen geigarrizat.

IRURAK.—Beste ainbestetu, beste ainbestetu lana ta nekea; su-egin, erre, eta ik, maskilu, kaskabilloak (puxekak) atera.

II SORG.—Otzitu orain matxango-odolagaz, ta, orrazkero, sendo ta on da lilurageia.

HEKATE aurrera.

HEKATE.—Ederto baño edertoago egina! Aleginak-aleçin egingo al dozuez, sari bana izango dozue-ta. Eta abestu orain maskiluaren inguruan, maitagarri ta mamuen antzera, estuna eginik, barruan artzsn dozuen oro liluratuteko.

Espiritu baltz eta zuri,  
Espiritu urdin eta gorri,  
Nagtu, bai, nastu, eta nastu,  
Nastuterik ez, gero, aztu.

(Alde dagi Hekate'k).

II SORG.—Atzorkoroak minberatu egin yataz-eta, ba-dator onantza zer zantarren bat; yo dagianak yo dagiala atea, idigi, erskaio (sarrallok)!

MACBETH aurrera.

MACB.—Zelan zagoze, gaberdi-sorgin ezkutu-baltzok? Zeri daragoiozue?

IRURAK.—Izenik eztauena egiten daragoio-g<sup>g</sup>.

MACB.—Zuon ogibidearen izenez eske nago-tsu; dakizuenez dakizuela, erantzun egis-tazue; axeak azkatu ta eurak elexak lurre-ratuko ba' dabez be; naiz-ta ugin bitsez beteak itsas-ontziak nastu ta iruntsiko b'da-bez be; naiz-ta oindiño bedar dan garia lurrera eratsi ta zugatzak luneratu; naiz-ta gazteluai ikara-eragin eta euren yagoleen ganera yausiazoz; naiz-ta yauregiak eta arri-meta zorrotzak makurtu ta euren oñarriai mun eragin; naiz-ta izadiko zer guz-tien aziak eurak be yalgi ta ezereztu; on-damendia bera asetu ta okadaka asiarteraño ba'da be, erantzun egiozue nire eska-riari.

I SORG.—Itz egik.

II SORG.—Eskatu egik.

III SORG. Erantzungo dauskagu.

I SORG.—Esan egik gure agoetatik, ala gure ugazabaenetatik entzun gura dokan.

MACB.—Dei-egiezue, ikusi dagidazan.

I SORG.—Bere bederatzu umeak yan dauzan txarri makerearen odola egotzi barrura; abetik eskegiriko eralearen koipe-antzeko izerdia egotzi garretara.

IRURAK.—Erdu, erdu, erdu, zu, goietako, naiz beeko,

Erakus ire buru ta ogibidea ixilto!

(Ostotsak dira. Buru-koskoldun Buru bat ager-tuten da).

MACB.—Esan egistazu, al ez-egagun orrek...

I SORG.—Itz-egin-bearrik ez dok; ire barrua

irakurten yok orrek; entzun bai orren itzak, baña euk ez esan ezer.

ITZALA.—Macbeth! Macbeth! Macbeth! Kontuz Macduff'egaz; kontu Fife'ko thaneagaz. Itxi egistak alde egiten. (Yatsi egiten da).

MAC3.—Zareana zareala, eskarrrik asko zure onu onagaitik; egin-eginean be nire bildurraren erara yo dozu, baña itz bat geiago.

I SORG.—Iñok aginduterik etxako orri gogoko; or yatok beste bat, lengoa baño altsua-goa.

(Ostotsak. Ume odoluren Agiri bat yagiten da).

AGIR.—Macbelh! Macbeth! Macbc'.h!

MACB.—Iru belarri ba'neuz, irurakaz entzungo neunskizu.

AGIR.—Odolzale-odolti izan adi, adoretzu ta erabagiko; barre egik, çiza-alari irri-egitako, emakumegandik yaioek ez dautso gaitxi egingo Macheth'eri-ta. (Yatsi egiten da).

MACB.—Dlan ba'dok, bizi *aii*. Macduff; zer dala-ta izan bear ire hildurrik? Baña, au ta guzti be, bests ainbestetu egingo dot segurutasuna, eta lokarri bat kendu zoriari; ez, ez az biziko; bildur biotz-zurbilari "guzurra 'diñok" esanda, ostotsak gora-bera lo-egin dagikedan. Zer doçu au

Ostotsak dira. Burestundum Umeren  
Itzala yagiten da, eskuan zugatz  
bat daularik.

errege-seme langoxe yagi ta buru-tontorrean erregetza-iragarkin hirihila dakarren au?

IRURAK.—Entzun egiok, baña itzik ez egin.

ITZAL.—Leoi izan adi izakeraz, arro, baña ez bekik ardura izan nok minberatuten, nok asarratuten auen, edo-ta iri azpi-yana egiten nor dabilen yakiterik; Macbeth ez-tau iñoz iñok benderatuko arik eta Birnam'go baso andia Dunsinane'ko menditzarre-aren aurka etorri arte. (Yatsi egiten da Itzala).

MAC3.—Iñoz be ezta yazoko olangorik. Nok eroateko basoa? Nok beartuteko zugatzirik; nok aginduteko zugatzai lurrari deuten zustarrak atera dagiezala? Iragate gozoak oneixek! Ondo yagok, bapo! Matxinadaburu, ez adi yagi Birnam'go basoa yagiarte, ta biziko da gure Macbeth goian yarrria berezkoari deretxon bitartean, eta arnasea atertu gero, gizon ilkorrari berez dagokion tertzioa eHu dakionean. Baña, ksz-

ka bat dot oindiño biotzean; zure antzeak esan al ba'daist, esan egistazu: Bankuo'ren ondorengorik iñoz izango ete da errege bakalderri onetan?

IRURAK.—Geiago yakin-guraka ez ibili.

MACB.—Nasai gelditu gura dot, eta au ukatu ba'dagistazue, hetiko añena betorkizue ganera! Iragarri egistazue. Zegaitik irunsten dau lurrak maskilu ori? Eta ze zarata da au? (Zaamiolen otsa).

I SORG.—Agertu!

II SORG.—Agertu!

III SORG.—Agertu!

IRARUK.—Agertu orren begien aurrera, eta naibagez bete orren biotza; erdu itzal-an tez ete alde egin!

Zortzi errege agertu ta alde dagie  
urrengorik urrengo, azkenengoak  
eskuan ispillua dauela; BANKUO  
dator euren yarrai.

MAC3.—Bankuo'ren itzalaren antzekoegi az i; beera! Begi-bolak erra egiten yaustazak ire burestun orrek; eta ik, bekokia urrez inguraturik dokan beste orrek, lenengoak langoxe ulea dok; aurrekoa lango da irugarrena, Sorgin ixarriok! Zegaitik erakusten dautazue au? Laugarrena be? Ikaratu, ene begiok! Zer da au? Munduaren atzenañoak ete da erreskada au? Beste bat oindiño? Zazpigarrena? Geiago ez dot ikusi gura; eta oindiño zortzigarrena agiri da, eta asko geiago dakustaz onek daroan ispilluan; eta batzuk bola bikotxak eta errege-makila irukotxak daroszala dakust. Iku::kizunaren ikaragarri! Egia dala dakust orain, eta izan be, irribarre dagist Bankuo odolez txipirriztinduak eta bere semetzat erakusten daustaz. Onangorik! onan ete da au?

I SORG.—Bai, yaun, dan mi onantxe da; baña zegaitik ete dogu Macbeth orren arriturik? Erdu, aitzak, poza ekarri onen gogoari, eta pozkarriztat doguzan hiderik onenak erakutsi; aidea liluratu egingo dot nik nire aldetik, ots egin dagian, eta bitartean zuok zuon ingurutxo-dantza barregarria egin, gure omenak bere ondo-etorria biotz onez ordaindu dabela esan dagian errege andi onak.

(Eresia. Yantzan daragoioe sorginak, eta gero ondatu egiten dira).

MACB.—Nondik dira aik? Yoanak ete? Beticetikiko dongetsiztat bego egutegian zori txarreko ordu au! Sartu adi i, atetan agon ori.

LENNOX aurrera.

LEN.—Zer da adeigarri orrek gura dozuna?

MACB.—Ikusi ete dozak sorgin aitzak?

LEN.—Ez, ene yaun.

MACB.—Ire aldamera- zear eztozak yoan, ala?

LEN.—Ez, egia, ene yaun.

MACB.—Ustelduko al da aik ganean daroazan aidea, eta zori txarreko izango al da aikan uste onik izan dagiana! Zaldi-apatxotsa entzun dot. Nor izan da emendik-zear igaro dana?

LEN.—Macduff Ingelanda'ra igesia dala zuri esaten etorriko bi edo iru yatsuz, yaun,

MACB.—Ingelanda'ra igesia!

LEN.—Bai, ene yaun on.

MACB.—Aldi, aurreak artzen dautsezak ik nire egite andi-itzala!; cismo aldakor-geldigorrira ezin goatu asmau-ala, asmauaz batera egiteetaratu ezik; oraindik ara nire biotzean lenen sortuten dana bera izango da nire eskuetan be lenen sortuko dana. Eta oraintxe be, bein oldoztua bereala egina bedi, nire oldozkunak egiteakaz osotuteko; otozetoan elduko naz Macduff'en gaztelura; Fife'ren yabe egingo naz; ezpata-sorbatzarl emon aren emazte, seme-alaba ta senitarte osoa; eztozu bear zoro-arrokeririk; nire asma otzitu baño len beteko dot egiteko au. Ikuskizunik asko dogu! Non dira aitonso-meok? Gaiozan, eurak dagozan lekura eroan nagik. (Alde dagie).

## II AGERLEKU.--FIFE. MACDUFF'en gazteluko leku.

MOCDUFF ANDEREA, bere semea ta ROSS aurrera.

MACD. AN.—Zer egin ete dau ak, bere lurraldetik igesi eragiteko?

ROSS.—Epe artu bear dozu, andera.

MACD. AN.—Ak eztau izan ezetarikorik; zorakeri utsa izan da aren igestea; gure egiteak ezik, gure b<sup>s</sup>durrak egiten gauz saltzalla.

ROSS.—Zuk ez dakizu bildurra, ala zurtasuna izan dan ari eragin dautsana.

MACD. AN.—Ze zurtasun eta zurtasunbako! Zurtasuna ete da bere emazte, umetxo, etsaldea ta yauntzak berak igesiko lekuan iztea? Ez gauz maite ak; berezko biotz-samurtasunik eztau ak; egaztirik txikiena dan txepetx makalak berak be, abian ba' dauz umeak, burraka egingo dau mozolloagaz. Dana da bildurra, ezer bez maitasuna; zurtasunik gitxi dago olan bide baga iges egiten dan lekuan.

ROSS.—Lengusin maite-maite, zeure buruari emon onuak, arren; zindo, zur, eta sentzun andiko da zure senarra, eta berak daki ondoen al'diari zer dagokion ondo. Ez naz atometan asko geiagorik esaten; biotz-gorrrak yatsuz aldiok; etoi, saltzalla, azpiyale gara, geuk ez dakigularik; bildurra dakasku zurrumurruak ,eta ez dakigu zeren bildur garean; itsaso asarre indartsuaren ganean gabiltz, ara-onaka. Ba-noa zure ederretsia gaz; luzaro bagarik emen nozu barrien-barri; txarrenera eldu diran zerak edo ortxe gelditu, edo gorantza, obarantza egingo dabe, leneratu arte Yaungoikoa lagun izango al yatsu, ene lengusin lirain!

MACD. AN.—Aitarik ba-dau, eta orraitioño be, ez dau aitarik.

ROSS.—Zoro nintzake, emen luzaroago ba' nengoke; zure ondamentia ta nire arगतasuna ledikez; agur dagitsuet bereala. (Alde dagi).

MACD. AN.—Txotxo, ilik dok ire aita; eta orain zer egiteko ik? Zelan biziko az?

SEM.—Txoriak legetxe, amatxo.

MACD. AN.—Zer? Arrak eta euliak yanda, ala?

SEM.—Lortu dagidanagaz, esan gura dot eurak be beste onenbest egin daroe-ta.

MACD. AN.—I txori orren errukarri! Ik ez dok iñoz izan sareren, zer eiaskorren, ezta beste goakalluren bildurrik.

SEM.—Eta zegaitik izan bear neunke, amatxo? Txori makalak be ez dabe bildurrik. Ez da il nire aita, zuk diñozuna gora-bera.

MACD. AN.—Bai, ilik yagok a; zelan egingo dok ik aitatzakoa?

SEM.—Eta zuk zeuk zelan egingo dozu se-nartzakoa?

MACD. AN.—Edozein merkatutan ogei senar erosi nengikez nik.

SEM.—Olan izatekotan, barriro saltzeko erosi-ko dozuz.

MACD. AN.—Sentzun andiz itz-egiten dok eta, benetan, itzako sentzun geiegiz.

SEM.—Azpiyale, etoi ete da nire aita, amatxo?

MACD. AN.—Bai, azpiyale, etoi dok.

SEM.—Zer da azpiyalea, etoia?

MACD. AN.—Zin-egin eta guzurra esaten dauena dok azpiyale, etoi.

SEM.—Eta ori egiten daben guztiak ete dira azpiyale edo etoi?

MACD. AN.—Ori egiten dauen oro dok etoi,  
eta eskegi egin bear ledikak.

SEM.—Eta zin-egin eta guzurra esaten da-  
ben guztiak eskegi bear ete dira?

MACD. AN.—Guzti-guztiak.

SEM.—Nok eskegi bear dauz?

MACD. AN.—Nok, gizon zintzok ez bestek?

SEM.—Ori olan ba'da# zoro dira guzurtiak eta  
zin-egileak, eta izan be, guzurti ta zingile-  
rik asko dago zintzok benderatu ta eske-  
giteko.

MACD. AN.—Yaungoikoa lagun izango al  
yak orain, matxangotxo orri! Baña, zelan  
yokatuko dok aitarik-ezean?

SEM.—Ilik ba'lego a. negar egingo zeuns-  
kio; egingo ez ba'zeuntso, ortxe ledike eza-  
gunen laster neunkakela aita barrien bat.

MACD. AN.—Barritsu errukarri ori! Sekulako  
berbaldun augu!

GEZNARI bat aurrera.

GEZN.—Yaungoikoa lagun izango al yatsu,  
andera eder! Ez natxatsu ezagun, nik neuk  
zure zindotasuna ezagun-ezagun izan-arren.  
Galbideren bat ur-ur dozulakoaren susmoa  
dot; gizon lauren ondo-esanik aintzakotzat  
artu gura ba'dozu, emen ez al dozu ya-  
rraiko; alde emendik zure txikiakaz; basa-  
tegi nazala uste dot zuoi onango bildurrika-

ni AGEHLEKU-INGELANDA. Bakaldegiaren aurrean.

MALCOLM eta MACDUFF aurrera.

MALC.—Bakarreko itzalperen baten billa goa-  
zen, gure biotzak azaskatu arte an negat  
egiteko.

MACD.—Ori baño oba ledikigu gure ezpata  
eraikorrari eskuan gogor eutsin eta, gi-  
zon adoretuak dagokienez, lur-yota dagon  
gure aberria eragi ta bere ganean iztartola-  
laka yarri; egunabar bakotxek kallaziak  
eragiten dautsez emakume alargun barriai;  
umezurtz barriai negar eragiten dautsez;  
naibage barriak yoten dabe mosu-mosuan  
zerua, eta erantzun egiten dau zeruak, Es-  
kolanda'ren min-naibageak bereak ba'le-  
dlz legetxe, eta berak be kallazika dara-  
goi, naibageari naibagez erantzuteko.

MALC.—Sinistu dagidanari egingo dautsat  
negar-arrantza; dakidana sinistuko dot; eta  
ereti onik agertu dakidanari, atonduko dot  
atondu al dodana. Ba-ledike egia izatea zuk  
eoana. Bere izenak berak be miñean baba-  
zorroak ateraten 'dauskuzan errege gordin  
au zindo zala uste zan berin; maite-maite  
izan dozu zuk; oindokoarren etzauz ukutu

rea sartzen nabielelako; gordinkeri baltz le-  
dike ur-ur dagotsuen au baño txarragorik  
zuoi egitea. Yaungoikoak gordeko al zauzez!  
Ez naz atometan emen luzarago egoten.  
(Alde dagi).

MACD. AN.—Nora igesiko? Okerrik ez dau-  
tsat egin iñori, baña oraintxe gogoratuten  
yat mundu onetan bizi nazala; emen sar-  
rritan oker egin izana yatsu goragarri; on-  
egin izana, ostera, aldiz, zorakeri kaltegarri-  
tzat artu oi da; au dala-ta, "Nik ez dot ga-  
txik egin"-ezko emakume-esi au eragiten  
dot nik nire burua yagoteko?... Nortzuen ar-  
pegiak \*\_ja orreik?

ERALEAK aurrera.

I ERAL.—Nondik da zure senarra?

MACD. AN.—Ez al da aurkituko zu lengok  
idoro leiken leku dongean.

I ERAL.—Saltzalla, etoi da a.

SEM.—Guzurra diñok, gizatxar ule-kirimil  
orrek.

I ERAL.—Zer diñok, kakanarru orrek? (Sasta-  
kaikadak emon-ala) Etoikume orrek?

SEM.—Eran nau, il nau amatxo! (II egiten da)  
Igesi, igesi, amatxo! (Alde dagi MACDUFF  
ANDEREAk, "Erailtea!" gedarrez, eta era-  
leak atetik ara doakoazala).

zu. Gazte nozu ni, eta nire bitartez aren  
ederra ta agandiko saririk irabazi-ezinik ez-  
tozu; eta zurtasuna yatsu yainko asarreen  
bategaz onezkoak egin gura ba'dozuz, ari  
bildots makal, errukarri ta ermgaren bat  
opatutea.

MACD.—Ez nalxatsu ni saltzallerik.

MALC.—Baña, Macbeth ba-da. Gizona, on  
eta onindartsu izan-arren, urten ledike bi-  
de on eta artezetik, errege-agindua betete-  
arren; baña, parkatu egistazu, arren; za-  
reana zara zu, nire gogaketa ta susmoak go-  
ra-bera; angeru onik ba-dago oindiño, one-  
nak yausi izan-arren; ederra beti izango da  
eder, zer zantar guztiak azal ederrez yan-  
tzi-arren.

MACD.—Galdu dodaz nik nire itxaroak.

MALC.—Bai, urrean, nik nebazan lekuko sua-  
moak be. Zer dala-ta itxi dozuz, eurai agu-  
rrik be egiteka, alango leku gorrian, zure  
emaztea ta semea, aik biotz-eragile yoriak,  
maitasunaren lokarri sendo aik? Erantzun  
egistazu, arren-bai-arren, nire espa ta sus-  
moak zure entzuta onaren gitxigarri baga-

- rik nire buruaren yagongarri izan dadizan; zintzo izan zatekez zu, nik besterik uste izan-arren.
- MACD.—Erion odola! erion odola, erri gaxo-errukarri! Gordinkeri andi, sendotu egik ire oñarria, ontasuna ez dok atometan "Geldi or!" iri esaten-eta. Aurrera ire okerreria-kaz, segurua dok ire yauntzabidea-ta. Ondo ibili, ene yaun; gizon gordin-odolitiaren bendean dagon lur osoagaitik be, eta Eguzki-alde aberatsa neutzako ba' ledi be nilt ez neunke izan gurako zuk uste nozun giza-txarra.
- MALC.—Ez zakidaz mindu; ez dau sut esan gura bildur osorik dautsudunik. Nire ustez, geroago berago doa gure erria buztarpean; negarrez eta odola dariola >dago; egunetik egunera ago bat. ataka bat geiago dabe bere zauriak; au dala-ta, nire ustez, esku asko eragiko ledike an nire eskubideen alde; eta emen, ainbat milla gudari opatu daustaz Ingelanda txeratsu onek; baña, au ta guzti be, len baño akats gsiago izango dauz nire erri errukarriak, nik gizon gordin aren burua nire ostikopean zapaldu, nraiz neure ezpata-mokoa sarturik a eroan dagidanean; min andiagorik ela eguñoko askotarikoagorik emongo dautso aren lekua beteko dauenak.
- MACD.—Nor izan ledike olangorik?
- MALC.—JSTeure buruaz daragoiot; guztitariko akatsak dozuz nigan mentaturik, eta euren pipilak idigi daitezanean, edurra bestean zuri irudituko yatsu Macbeth baltza; eta neurribako nire okarren aldean asuritzat eukiko dau a erri zori txarrekoak.
- MACD.—Su-leza fkaragarriko txerren-taldeetan be ezin agertu ledike Macbeth'en okerreriai ganetik egitekorik.
- MALC.—Ba-dautort gizon ofolzale, odoliti, aragikoi, arpegibako, maltzur, bapetekoegi, azeri, lupu, ta izenik dauen guztitariko obenkiratsa dariona dala a, baña nire aragikeriaren sakonak ez dau atzeririk: zuon emazte, zuon alaba, zuon emakume etxezai, eta zuon emakumezko otseñak ezin bete izango leukie nire lizunkeri-lezea; eta lereari eusteko eragiriko orma ta esi guztiak uurrera eratsiko leukuz nire irrisak; Macbeth bera be oba da errege izateko, onangorik baño.
- MACD.—Norbere burua yopu eragitekoa yatsu izan girriñen geiegikeri neurribakoa; egin-eginean be orixe izan da sarritan errege-aulki zori ontsua aldiz aurretik ustu ta ainbeste errege lurrera itzuli dauzana. Baña, ori ta guzti be ez izan bildurrik zeura dozunik artzeko; gonburuz ase-bete zengikez zure atseginak, eta ainbakorena egin, zure barririk iñok ez dakian bitartean. Emakumerik asko dogu orretarako euren kitetik gertu egongo diranetatik be; aragikerira orren itzulia izan-arren, nagusitasunari euren burua euren kitetik opatuko dautsoen ainbeite ta ainbeste iruntsi al izateko aña-ko sairik ezin izan zendikez.
- MALC.—Onez ganera, nire girriña saskeletan zikozkeri neurribagea be azten da, ta mizke azi be; izan be, errege ba'nendi ni, buruak moztuko neuskiez andikiak, euren lurren yabe neu egite-arren; euren bitxiak eta besie onako onen etxea gurako neunkez; eta nik ien baño geiago izateak geiago ta geiago izateko gosea biziuko leuskit; bidebako auziak asmauko neunkez orretarako on eta zintzoen aurka, ta ondatu egingo neunkez aberastasuagatik.
- MACD.—Geroago ta sakou.ago emoten dauz zustarrak zikozkeriak; uda-antzeko aragikeriaren aldean erro kaltegarriak emoten dauz, eta auxe izan da gure errege eranak eran dauzan ezpatea; baña, ez izan bildurrik; ba-dau Eskolanda'k zure guraria bete ta ganaz eragiteko lain ondasun be, zeure zeureak dircinatan; edergarriñ onfoan yarriazkero, eroatekoak yatsuz akatsok.
- MALC.—Baña, nik ez dot szetariko edergarririk, erregeri dagokiozan edergarrietatik, esaterako zuzentasunik, egizale izaterik, neurriko izaterik, tinkotasunik, eskuzabaltasunik, ekiterik, errukirik, apaltasunik, aperturirik, eperik, adorerik, sendotasunik, ez dot onako onein sundarik be; baña aldean dodaz gaiztakerien edozetariko erak eta merok. Bai, agintzarik ba'neu nik, su-lezara egotziko neunke gogakidetasun-esne gozoa, orroa egingo neunke alkarren arteko bakearen aurka, ta lurreko batasuna nastu ta kirimildu.
- MACH.—Eekolanda'ren errukarri! Eskolanda'ren errukarri.
- MALC.—Esan, onango gizona aginduteko gauza dan, ala ez; esan dodan langoxe naz ni.
- MACD.—Aginduteko gauz? Ez, ezta biziteko be!., Erri orren errukarri! Eskubiderik bagako ta agintza-makilea odoldurik daukan agintaria dozu; noz ikusiko ete dozu barriro egun osasuntsurik, zure errege-aulkirako eskubiderik yatorrenak dauzana tere auttorrez gauz izan ez, eta tere zanetako odolaren lotsagarri ba'da? Errege guren-guren izan zan zure aila erregea; bere bizian egunoro ilten zan zu bere belauen ganean,

bere altzoan, bere oñen ganean baño sarri-roago eroan zenduzan bakuldunoa. Onik eta ondo ibili! Barrien-barri zuk zeure buruari ezarriko gatxok izan dira egin-eginen an Eskolanda'tik erbesteratut nabenak, Ene biotz ori! ementxe ta oraintxe amaituten dok ire itxaroa!

MALC.—Macdufi, nire kezka baltzak uxatu yozak nire gogotik ire biotzaldi zintzo orrek, zindotasunaren seme dan Hotzaldi orrek, eta ire bene-benetako zindotasun eta omenaren adiskide egin yozak nire gogaketak eta usteak. Txerrenaren Macbeth'ek aleginik asko egin izan yok i legetxe etorriko askoren bitartez ni beiganatuteko; eta zurtasun-apurtxoak beti atzera eragin yaustak iraduz siniste errezetik; baña, Goiko Yau-na gure artean izango al dok! Ointxeganik yarten nok ire esanera, eta ez esantzat atzera irunsten yoadaz nik nire kaltez esaniko zer guztiak; emen berton zin-bidez ukatuten yoadaz neure burunri ezarriko orban eta lotsakizunak, nigaz zer-ikusirik ez yoeke-eta. Emakumerik ez yoa ukutu oindokoarren; eguño ez yoa zinik ausi; ozta-ozta izan yoa neure ondasunetarako in-tsigitasunik; eguño ez yoa yan nik emoniko itzik; txerrena bera be ez neunskio salaruko bere lagunerik; egia ez yoa maite bizia baño gutxiago; neure buruaz esanekoa dok nik eguño lenengoz esaneko guzurre; ire ta nire aberri zori txarrekoarena dok ni nazana, zuok aginduteko; izan be, í ona orduko, gure errirantza egiteko zoan Siward zarra, orain nonbaiten aurkituten diran amar milla gizon adoretsegaz; guztiok yoaingo gozak orain, eta gure alde izango al dok ekitaldiaren atzena, auzía bera gure aldeko danez! Zer dala-ta ago xilik?

MACD.—Zer gatxa da olango zer ondo etorriak eta txarto etorriak alkarregaz adiskidetea.

OSAGILE bat aurrera.

MALC.—Ondo dago; laster ekingo barriro. Zu, urteteko ete da errege?

OSAG.—Bai, yaun: errukarri-mordoa dago *ák* noz osatuko begira; eursn gatxen osapidea ezintzat emon dau yakintzearen alegin guztiak, baña Yaungoikoak arsn eskuari emoniko gurentasuna andi be andi da-ta, bertatik osatuten dira ak ukutu-ala.

MALC.—Eskarrik asko, osagile. (Alde osagileak.)

MACD.—Ze gatxez erago dautso orrek?

MALC.—Gexoa yatsu orrako gatx ori; egite arrigarri-arrigarriak egiten yozak bakaldun on onek; emen Ingelanda'n izan nokan bi-tartean sarritan ikusi yoa neuk olango zer arrigarriak egiten. Berak yakik ondoen zelan eskatufen dcutisan Yaungoikoari, baña orrek osatu egiten yozak gatxik bakanenak dabezan gizakiak be: zorroa bestcan puztu ta andituak, aragi bizia erakusterañoko zauriak, ikusiak berak erruki emotekoak eta osagileak guztiz etsita itxiak; arren-eginda, urrezko guren- irudien bat iminten yautsek idunetik dingilizka; eta, diñoenez, osatutelo ala itxiko ei yautsek orren urren etorriko diran erregeai, onespentzat. Al bakan orregaz batera etorkizun diran zerak aurrezdi ikusteko ala be ei yok Yaungoikoandik. Onespen andiak deutsoe orren errege-aulkari-ta, "eskarrez bete" deretxoe orri.

MACD.—Begira, nor datorku emen?

MALC.—Neure erritar da izan, baña oindiño ez dot ezagun.

ROSS aurrera.

MACD.—Ene lengusu yator-yator, ona ondo etorria augu.

MALC.—Ba-dazaut orain; Yaungoiko on, ga-raiz urrindu gugandik alkarrentzako gu ez-zagun egiten gauzana!

ROSS.—Olantxe bedi, yaun.

MACD.—Lenean ete yagok Eskolanda?

ROSS.—Eri errukarri-errukarriarena! larri-larri bere burua ezagututen be bildur da! gure ama ezin esan areri, gure ilobi baño; ezer ez dakianak ez beste iñoak, eztau egiten an irribarretxo bat be; asperenak, in-tzirriak, kallaziak, eta alan be biotz-erdira-garriak egin egiten dira an, ez egin-gurea iragarri bakarrik; adi-adi-aldi barria dirudi ango naibage gorriak; il-kanparik entzuten danean, nekez itanduten *da* an norenak diran; lorak euren pipil-orritxoetan baño lenago amaituten dira an gizon onen bizitzak, ge:otu baño be lenago ilda.

MACD.—Irudiaren eder, eta zori txarrez egi-egia!

MALC.—Zein da ointsuengo atsekabea?

ROSS.—Orain dala ordubetekoa eralten darragoionari, "ix!" dirautso beste batek, ininuto baktzak dakar barriren bat-eta.

MACD.—Zelan dago nire emaztea?

ROSS.—Onik zure emaztea.

MACD.—Eta nire umeak?

ROSS.—Onik aik be.

MACD.—Baketan itxi ete daux gizon gordin ak?

ROSS.—Bai, bake-bakez ziran nik agur-egin neuntsenean.

MACD.—Ez akit izan orren itz-urri. Zelan yoazak ango zerak?

ROSS.—Gizon andiki asko argitara urtenak ziralakoren zurrumurrua ebilen ekarri dodazan barri astunok ekarteko bidea artu nebanean, ela gizon gordinaren indarrak batzen neuk ikusi nebazan, zurrumurru orren sendagarritzat; ointxe da ango gutarrak lagunduteko tertzioa; zu Eskolanda'n ikusteak berak gudariak sortuko leukez, gure emakumei eurai be burruka eragingo leuskie, euren lor ikaragarriak euren ganetik kentzeko.

MALC.—Ba-goazala ara yakitea bedi euren biotzen nasaigarri; Siward tfooretsua ta amar milla gizon emon daukuz Ingelanda biotz onekoak guri lagunduteko; Kistarren artean ez dozu Siward baño gudari zarrago ta adoretsuagorik.

ROSS.—Biotz-nasaigarri oneri beste onangoren bategaz erantzun al neio! baño, egurats utsean eta gedar-egin-alean esateko obeak dira esateko dodazan itzak, belarrik entzuteko baño.

MACD.—Zegazko dira? Gu guztiontzako, ala norbaiten biotzari aloger-antzo zor yakon naibageren bat yatsu?

ROSS.—Biotz zindorik ezin gelditu ledike zori txar orretan kide ta tarteko izateka zatirik andiena zutzako izan-arren.

MACD.—Nitzako ba'da, ekadazu ta len baño len ekadazu.

ROSS.—Eguño entzun daben otsik gogorrena entzungo daben zure belaniak, betiko gorrorrik ez al dautsoe artuko nire miñari.

MACD.—Ba! sundea artu dot.

ROSS.—Otoz-otoan sartu dira zure gaztelura; basatikeri ilzalez il dafcez zure emaztea ta umeak; arein eriotzeari zeurea erastea ledike oreinok zelan il ebezan zuri esatea.

MALC.—Yaungoikoarren! zer dok ori, gizon? Ez yantzi iñoz ire buruan txapelik; azaa-

katze-itzak ixuri; txutxu-putxu egiten yautsak naibageak biolz beleegiari, ta eztanda eragin.

MACD.—Nire umeak be bai?

ROSS.—Emazte ume, otsein... aurkitu al izan eben guztia.

MACD.—Ela andik urrin egon-bear nik! Nire emaztea be ilik?

ROSS.—Esana.

MALC.—Nasai biotz ori! gure asperkuntza andia bedi osakai, naibage itzal au osanv teko.

MACD.—Orrek ez dau seme-alabarik. Nire txikitxo guztiak, ala? Guztiak esan dok? Ai! sulezako mirutzarra! Guzti-guztiak ete? Zer? Nire txitatxo maite guztiak eta euren amea bera-egazkada bakarrean?

MALC.—Gizon-antzera ekiok arazo orreri.

MACD.—Olantxe egingo dot; baño min be gizon-antzera artu bear dot; zelan gogoratu ez nik areixek izan zirala nire ondasunik ederrenak? Ikusi ete eban Yaungoikoak ikuskizun ori, ta euren alde yari ez? Macdufl oben-ontzi, igaitik artu yoen zartadea aik guztiak! Nirearen ezereza! Euren erruz bagarik, nire erruz sakailldu ebezan aik: betiko atsedena emongo al dautse orain Yaungoikoak!

MALC.—Auxe bedi zure ezpatearen zorrotz-tarri; asarre-gorritu bedi naibagea; ez amustu biotza, asarez bete baño.

MACD.—Ai! emakumerena egin lei nire bebiak eta arroputzarena nire miñak! baño, Yaungoiko on, laburtu egizu bitarteko aldia; aurrez-aurre imini gagizuz Eskolania'ko txerren a ta ni; nire ezpatea beteko bidean imini egidazu a; igesi ba'dagi igesi, aren erruki be bedi Yaungoikoa.

MALC.—Gizon-esakera dok esakera ori. Ator, erregegana gaioazan; gerturik yagok gure indarra; agur-egitea dok gure egiteko fcakarra; gaii eldua dok Macbeth, yo ta ikaraz lurrera yalgiteko, ta goiko alak gerturik yaukiezak igitai zorrotzak, gari ori ebateko. Nasaitu adi, al ba'dok; egunik ez datorkon gaua luze egiten dok-ela.



## V EKITALDI

## I AGERLEKU.--DUNSINANE. Gazteluko gela bat.

OSAGILE bat eta LAGUNTZAKO AITONALABA bat aurrera.

OSAG.—Gau bi egin dodaz yagoten zugaz bateia, baña ez dot aikituten egi-antzik zuie esanetan. Noz ibili zan no ori ointsuengoz?

AITONAL.—Enege kanpoiazkeio, neuk ikusi dot oii oetik yagiten, beie gau-yantzi iuzea yazten, beie gelatxoa idigiten, andik ingia (papela) aitu, aloztu, an idatzi, idatzia irakurri, geio ikunatza ezani ta atzeaia oeia yoaten; baña lozonoan egiten eban guzti oii.

OSAG.—Beiezkoaien naste anii yatsu oii: lo osangania egin eta, eiabateia, atzaririk dagonaien egitekoak egitea! Lo-zonoko aitegatasun onetan, ibilte ta ganetiko beste zereginak egiteaz ganeaia, zeibait esaten iñoz entzun ete dozu?

AITONAL.—Bai, eta nik baniro ezegaitik be esango ez neunkena entzun be.

OSAG.—Niii esan zeinskit eta obeto, esango ba' zeunst.

AITONAL.—Ez zuii, ez beste iñori, niie esana sendesteko iñoi izan ezik. Aia, emen datoi bera!

MACBETH ANDEREA auneaia, aigizai xitua-gaz.

Egin-eginean olantxe ibilten yatsu ori; eta, aiñetsi egistazu, lo gogonean. ñdi zakioz; urreratu zakioz.

OSAG.—Zelan eldu da argi orretara?

AITONAL.—Zelan? Bere aldamenean egoan; etentzaka eukiten dau argia aldamenean; bere agindua da ori.

OSAG.—Ba-dakutsu; zabalik dagoz orren be-giak.

AITONAL.—Bai, baña itxirik dago euren as-mamena.

OSAG.—Zeri daragoio orain? Begira, zelan igurzten dauzan eskuak.

AITONAL.—Ekandu yako orri eskuak ikuzia-reña olan egitea; zeregin orretan ordu-lau-renean daragoiola ikusirik dot.

MACB. AN.—Oindiño be emen dago orban bat.

OSAG.—Entzun! berbetan daragoio; ldatzi

egin bear dot zer diñon, zeatzago ta sendoago yarri dagidan nire gomutean.

MACB. AN.—Alde, orban danganfio ori! Alde, gero!... Bat, bi; egitekoa egitordu da orrazkero; ilun da su-lezea! Uf!, ene yaun, uf! guda-gizon zu, ta bildur? Zer dala-ta r.ok-yakingoren bildurrik, gure alari erantzutekorik iñor ez-eta? Eta, orraitioño, nok uste eikean agure orrek orrenbeste odol izan eikeanik?

OSAG.—Entzun ete dozu ori?

MACB. AN.—Emazterik ba-eban Fiie'ko thaneak; non orain emazte ori? Zer, iñoz be ez eto diia gaibituko eskuok? Itzik bez geiago orretzaz, ene yaun, txitik bez onetzaz; alperrik galtzen dozu zuk dana zure ikarutute onegaz.

OSAG.—Ba! ba! yakin beai ez zeunkena dakizu.

AITONAL.—Onek bai esan dau esan beai ez leukena; bai oiixe; Yaungoikoak daki onek zei dokian.

MACB. AN.—Odol-sundea dago emen oindiño; Aiabi'ko usain gozo guztiak ez dira asko eskutxo oneri usain onik emoteko. Ui, ui, ui!

OSAG.—Ze aspera dogu ori? Astun dago orren biotza.

AITONAL.—Niie soin osoaren ederra-arren, ez neunke izan gura olango biotzik nire bularrean.

OSAG.—Ondo dago, ondo dago, ondo dago,

AITONAL.—Yaungoikoari eskatu, olan izan dadin, yaun.

OSAG.—Nik osatu daikedanik ez da gatx au; orraitioño be, ezautu dodaz nik, lotan batera ta bestera ibiliak izan-arren, euren oean babez il izan diranak.

MACB. AN.—Ikuzi zure eskuak, yantzi zure gau-atorrea; ez izan orren zurbil; barriro dirautsut lurrean datzala Bankuo; ezin urten dai ak ilobitik.

OSAG.—Ori be ba-dogu?

MACB. AN.—Oera, oera; ate-ots da; goazen, goazen, goazen, ekadazu esku ori; eginik dago bein egina; ez dago ori banatuterik; oera, oera. (Alde dagi).

OSAG.—Oera yoango ete da orain?

AITONAL.—Artez.

OSAG.—Txutxu putxu zantarrak dabiñtz or zabal; berezkoaz besterako egiteak berezkoaien erako ez diran kezkat sortu daroetz; euren burupekoaren czal gorrai esaten dautsez ixil-muxilak gogo gexoak. Osagilerik baño bearrago dau orrek Yaungoikoaren laguntzea. Yaungoikoa, parkatu ta erruki zakiguz gustioi! Yagoizu; aldendu

ta aienatu orregandik artegalasunik ekarri leion edozer; eta zure begiak ez alden du orregandik; onenbestegaz, gau on; nire susmoak egiztau ta nire begiak ikaratu egin dauz orvek; ba-dot nik nire eretxia, baño iñori esateko adorerik ez.

AITONAL.—Gabon, osagile on.

## II AGEM.ÉFCU.-Dunsinane-alboko lurraldea.

MENTEITH, CAITHNESS, ANGUS, LENNOX, eta gudariak aurrera, arratz eta ikurrinakaz.

MENT.—Ur da Ingelanda' tiko indarra, zuzendarizat Malcolm, aren osaba Siward, eta Macduff dauzala. Asper-gurariz erretan dalo, gizon raindua odola ixurlera ta gudaketa latzerako zirikatutekoak dira izan be euren zegaiti bidezko-maitagarriak-eta.

ANG.—Bat-egingo dogu eurakaz Birnam basoaren ertzean; bide ori dakarre.

CAITH.—Bai ete daki iñok Donalbain be bere anaieagaz dagon, ala ez?

LENN.—Yaun, seguru dakit ez dagola; neuk dot gizon nagusi-nagisu guztien izendegia; or dagoz Siward'en semea ta fczarbako beste gazte asko gizatasonera eldu dirala eguño lenengoz ointxe erakutsiko dabena.

MENT.—Zetan daragoio gizon odoltiak?

CAITH.—Dunsinane andia sendo-sendotuten daragoio; zoratu egin yakola diño batzuk; amorru-adorea dauela dasae gorroto gitxiago dautsoenak; baño, dana dala, ezetara be ezin eskuratu izango dauz zerak, artu dabena bidetik.

ANG.—Orain asmau ta so-egiten dau ak zelan eskuak erretsn dautscezan arako ixilean egindako eriotzak; txitean-piteango mahiñadak agiraka egiten dautsoe orain ak ainbestetan yaneko berba ta zitalkeriai. Aginduaren aginduz bakarrik egiten dabe zirkinik aren agintzapean dagozanak; zirkinik bez maitasunez; orain dakus ak argi nasaiegi daukala bere aginpidea, lapur-motxoak gizatoren yantzia legetxe.

MENT.—Orrazkero, nok ezarteko errurik aren sentzunai, atzeraka egin eta ikaratu ba'daitez, aren barruko eiozek an egoteagaitik txakurrenak esaten ba'daragoio?

CAITH.—Ondo dago, aurrera goazen, bende-kotasuna zuzenez zor dautsagunaren esana egiteko; bidera urten gakiozan zori on gexoaren osakaiari, eta gure aberri au garbituteko, azkenengo tantakadaraño ixuri daigun gure odola.

LENN.—Edo bear dan *aña*. lorarik nagusienafi ura egin, eta bedar txarrak itoteko. Birnam-aldera goazen. (Ba-doaz, alde eginez).

## III AGERLEKU.-DUNSINANE. Gazteluko gela.

MACBETH, OSAGILEA, ta Laguntzakoak aurrera.

MACB.—Barririk geiogo ez ekarri niri; egaz doazala guztiak; tildur zurbilak ez dau nigaz zer-ikusirik, Birnam basoa Dunsinane' ratu arte. Zer yat Malcolm mutila? Emakumegandik yaioa ez ete da? Gizonen gorabera ta atzera-aurreak ezagun-ezagun dabezan beste munáukoak auxe esan dauste, "Ez izan bildurrík, Macbeth; emakumegandik yaiokok ez au iñoz azpiratuko". Orrazkero, ba, igei, thane azpi-yaleok, eta Ingelandar mizkeri-zaleakaz bat egin; aginduteko dodan gogoeta bularrean daroadan biotza ez dira, ez makurtuko ezpaiz, ez eta ikaratuko bildurrez.

OTSEIN bat aurrera.

Txerrenak baltzituko al au, mosu-zurbil denganiño ori! Nondik dakak aata-mosu ori?

OTS.—Amar milla dira.

MACB.—Aata ala, zital?

OTS.—Gudariak, ene yaun.

MACB.—Oa, igurdi egik arpegi ori, ta azal gorria imini egiok ire bildurrari, zitori-glbeldun orrek. Ze gudari, adabakl ori! Denganiñoen denganiño! Bildurraren onulari dozak izerazko ire matrallak. Ze gudari, gazur-mosu?

OTS.—Ingelandarren indarra, eder ba'dakizu.

MACB.—Alde begi mosu orrek emendik. (Alde otseñak). Seyton!... Olangorik ikusteak

berak larritu eglten daust biotza.. Seyton, gero!... Matxinada cnek edo betiko tinko yarriko nau, edo nire yarlekutik oraintxe kendu. Luzarorik asko bízi izan naz; igartuteraño yatsi da nire bizitzea, orri-bellegitu da; eta zartzaroen lagungarri izan bear leukien zerak, esaterako, omena, maitasuna, esaneko izatea, adiskide-mordoak... olangoren begira egoterik ez dot nik; bai, ostera, euren ordez, añen eta biraokak, ez zaratataka, baña bai biotz-biotzetik; itz utsezko omena, arnasa utsa, ta orixe be biotz errukarriak ukatu gurako leuke, baña atomau ez. Seyton!..

## SEYTON aurrera.

SEYT.—Zer yako eder eskartsu orri?

MACB.—Barririk geiago bai ete dok?

SEYT.—Egiztau egin dira len ekarriko barri guztiak, ene yaun.

MACB.—Burruka egingo yoat nire azurretatik aragi guztia urTatu ta kendu arte. Nire gudakoskola ekadak.

SEYT.—Bein-beinean ez dozu aren bearrik.

MACB.—Yantzi egin bear yoat nire burua. Zaldizko geiago bidali ortik zear, eni osoa arakatu alderik alae; urkatu, eskegi egin bildurrik aitatu dagienak. Ekadak gudakoskola. Zelan dago zure gexoa, osagile?

OSAG.—Txarto-txarto bez, ene yaun, baña kezkaz bete ta loa galazoten dautsoe sarri-sarri datorkozan burutapenak.

MACB.—Osatu egiozu gatx ori; gogoia izanazkeroko gexorik dagona, ez ete dozu olangoentzako osakairik? Atera aren gomutatik zuztar sakonak emoniko naibagsa; igurtzika atera garaunetan idatzita dauzan kezak; eña aitzu eragiteko, ez ete dozu itzuliatarako osakairen bat aren biotza azpian arturik daukan zer astun eta kaltegarria andik aterateko?

OSAG.—Norberak artu bear dau olango gatxaren osakaia, ez inok emon.

MACB.—Txakurrei egotzi egisk osagiletzea, nik neuk etxoat bear ezetarako. Ale, gudakoskola yantzi egistazue; nire makilea ekadak: Seyton, bidali... Osagile, nigandik igesi doaz thaneak... A'e, yaun, bidali egizak... Nire erriaren txixa aztertu al ba' zendu, osagile, ze gatx demen aurkitu, garbitu ta lengo osasuneratu, erantzunak barriro yoko leukezan txaloak yoko neunskizuz... Tenka atera egik, gero!... Ze usturik, pitusgarrik, barrua garbituteko ze osakaik atera ete legiz Ingelandarrok emendik igurtziren igurtziz? Bai ete dozu euren entzuterik?

OSAG.—Bai, ene yaun on; zure erregetakuntzak entzun eragiten dauskue zerbait.

MACB.—Nire atzetik ekarrik ori... Ez dot Izango ez eriotzearen, ez zitalaren bildurrik, Birnam basoa Dunsinane'ra eldu arte. (Alde osaqileaz besteak).

OSAG.—Dunsinane'tik urrin ba'nengo, irabazik nekez nenkarke ona barrien-barri. (Alde dagi).

## IV AGERLEKU.-Dunsinane-aldeko lur-arlo; baso bat agirian.

Arratz eta Ikurrinakaz aurrera, MALCOLM, SIWARD zarra ta onen semea, MACDUFF, MENTEITH, CAITHNESS, ANGUS, LENNOX, ROSS, eta gudariak yoan doazala.

MALC.—Lengusuok, lo-geletan bildurbaga lo-egin al izateko egunak ur dirala ditxarot.

MENT.—Orren ezpairik ez dogu.

SIWAR.—Ze baso 'da aurreko ori?

MENT.—Birnam-baso.

MALC.—Zugatz-adar bana ausi ta gudariak adar banagaz aurrera begie; olan ostondu egingo dogu gure indarra ta okerreko barriak eroango dabez igarri-gurarrik dabil-tzanak.

GUDARIAK.—Olantxe egingo dogu.

SIWAR.—Guk geuk ez dakigu besterik, gizon gordin ustetsu ori oindiño Dunsinane'n da-

la ta aren aurrean guri erantzuteko dala baño.

MALC.—Orixe da arsn itxarorik andiena; eta izan be, ezetariko erarrik, ezetariko abagunerik emonazlcero, gitxi nciz rskc, matxinadea sortuten dautsoe; eta inor ez da geldituten aren bendeen bear utsez izan ezik, eta orreixen biotzak be ez dagoz aren alde.

MACD.—Agazko gure esa-mesa zuzenak gorra-bera, begira dagigun gure eginbearra, ta gudari zur-arduratsuen erara yokatu dagigun.

SIWAR.—Ur da zer galdu ta zer irabazi dogun erakutsi ta esango dauskun aldia; itxarorik ez da izaten ekite-aurreko burutapenetan; zartadaz ebatzi bear da ondoren segurua, eta orixe da guduaren elburua. (Alde dagie, gudu-lerroka).

## V AGERLEKU.--DUNSINANE. Gaztelu-barrua.

MACBETH, SRYTON, eta gudariak aurrera. arralf! eta ikurrinakaz.

MACB.—Ormen ate-aldetik eskegi gure ikurrinak: au da bein-beineko guda-oiua, zera, "Badatoz"; irri-egingo dautso gure gazteluaren indarrak orreik berau inguratuieari; darraielia emen, goseak eta beroenaren aldikadak orreik iruntsi dagiezan arte. Guga ez egon bear leukienak orreikaz egotea izan ez ba'litz, euren billa giñoakeazan adoretzu ta arpegizarpegi ta, guk geiago egin-da, eurenerantza bultzau. (Emakume-negarra barrucm). Ze zarata da ori?

SEYT.—Emakume-negarra yatsu, ene yaun on. (Alde dagi).

MACB.—Bildurra zelango dan be aztuta nago, larri-larri; izan da aldirik gau-gedarrik entzunazkero sentzunak otziturik geldituten yatazana; eta iñori zer itzalik entzunazkero, buru-narrua yagi ta ikaratu egiten yatan, bizia an ba'legoan lez; zer ikaragarritz narruak artu-alean anditurik nago orain; eriotza-gogaiak egunean-eguneango dodaz-eta, zerik itzalenak be ikara bat bera be ezin emon dauste.

## Barrero aurrera SEYTON.

Zegaitik izan dok arako kallazia?

SEYT.—Bakaldunoa il da, ene yaun.

MACB.—Geroago il bear eukean, biar, o!an itz onentzako be izango litzakean aldirik-eta... Bicr, eta biar eta biar or dator oinkadaxoka ta erdi-tatarrez, egunik-egun, itzaren atzenengo txataltxoia be esateko bagarik esana izan arte; eta gure atzo guztiak zoroai argi egin dautse eriotza austsurako bidean. Itzali, itzali, argizagitzo labur ori! Ibili dabilen itzala baño ezta bizitzea; antzezlarri errukarri yatsu; antzetzegian dagon

bitartean bein arropuztu, bein asarratu egiten yatsu ta, gero, ez dozu aren barririk geiago; ergelaren ipuin dirudi; zarata ta bizitasunez bete, baño marairik bagakoa.

## GEZNARI bat aurrera.

Miñari eragiteko ator i, eztok? Arin esan esatekoa.

GEZN.—Ene yaun eskartsu, diñodana neuk ikusia dala esan beax neunke nik, *baña* ez dakit zelan esan.

MACB.—Tiruk, ba, esan egik, txotxo.

GEZN.—Mendi-tontorrean zai nengoalark, Birnam-aldea begiratu dot eta, begiratuaz bat, basoa igika asi dala, zirkin egin daue-la iruditu yat.

MACB.—Yopu guzurti ori! (Yo egiten dau).

GEZN.—Onan ez ba'da, betor zure asarrea nigana. Emendik iru legoa-brdean ikusi zengike ba-datorrela; ibili dabilen basoa diñot.

MACB.—Guzurra ba'dok ik diñokana, bizirik eskegiko aut, gosearen gosez irrintze egin arte; egia ba'dok, ostera, ik esana, ez yaus-tak ardura euk beste orrenbeste egingo ba' daustak be. Gerturik nago oraintxe zirti-zar-ta egiteko; eta ointxe asten naz konturatu-ten ziri ederra sartu eustala egi-antzez esan deroan txerrenak, "Ez izan bildurrik Birnam-basoa Dunsinane'ratu arte"; eta basoa ba-dator orain Dunsinane'ra.-Iskilluak artu, iskilluak artu eta landara goazen! Egia ba'da orrek autortuten dauena, ez da-go ez emendik alde-egiterik, ezta emen geldu yarraiterik be. Eguzkia ikustez be as-perturik nago eta mundua ankaz-gora yausi-ko ba'litz gurago neunke. Iskilluetarako yoa-lea yo! Putz-egin, axe orrek! Ator, *omia*-mendi! Gitxienez be guda-koskola aldean dogula ilgo gara. (Alde dagie).

## VI AGEHLEKU.-Iengoxea, Gaztelu-aurreko zelaia,

MALCOLM, SIWARD zarra, MACDUFF, e. a. eta euren gudarostea aurrera, arratz eta ikurrinakaz, zugaiz-adar banagaz.

MALC.—Urrik asko gagoz; lurrera egotzi zuon orrollo-estalgaiak, eta zuok zer zarien erakutsi. Zu, osaba adoretzu, zu izan gure lenengo ekitaldiko buru, nire lengusu ta zure seme zindo-zindo danagaz batera; Macduff kementsuak eta nik artuko dogu ga-

netiko arloaren ardurea, nik ebatziaren arauz.

SIWAR.—Ondo ibili. Arrasti onetan gizon gordinaren indarragaz trikitx-egin ba' dagigu, benderatu gagizala ak, yoten ez ba'dakigu.

MACD.—Gure adar guztiak itz-begie; egin-alean putz egiezue odol eta eriotzearen geznarri zaratatsuoi. (Alde dagie).

## VII AGERLEKU.-Lengoxe; [. Zekriko beste arlo bcit.

Guda-otsak. MACBETH aurrera.

MACB.—Talcetari Ictu nautsoe; ezin dait igesi, baña, artzalc legetxe, burruka egin bear dot nagon leku onetan. Nor eta zer da emakumegandik yaio ez zana? Orrako orren bildur izan bear dot, ez beste iñoren.

SIWARD gaztea aurrera.

SIWAR.—Gazt.-Zer yak izena?

MACB.—Zntzunak terak tildurtuko auena.

SIWAR. GAZ.—Sz; ezta ire izena su-lezako izenik bsroena baño beroago ba'dok be. MAC3.—Macbeth yatak izena.

SIWAR GAZ.—Txerrenak berak be ez leuskio aitatuko nire telarciari ori baño gorrotagarriago yakon izenik.

MAC3.—z, biidurgarriagorilc ez.

SIWAR. GAZ.—Guzurra diñok, gorfin denganiño orrek; nire ezpateagaz erakutsiko dauskat guzurti utsa azaia, (Burruka dcragoice ta ercnik geldituten da SIWARD gcziea).

MACB.—2takumegandik yaio intzan i, eta nik irri ta barre egiten yausat emakumegandik yaioriko gizonek erag;ten dauen ezpateari. (Alde dagi).

Guda-otsak. MAC3UFF aurrera.

MACD.—Alderdi aretatilc dator duruniua. Gi-

zon gordin, ire arpegia erakutsi egik! Nire ezpaiearen zarladeaz testerensk il ba' açi i, nire emazte ta seme-alaben itzalak ez naioek itxiko baketan. Zegaitilc emoteko nik zartadarik Eire'tar gu'ari errukarriai, euren izkilluak artu ta eratilteko aloge-rean artuak baño izan ez-eta? Itzako dok nire zartadea, Macbeth, eta cri ezean, bere sorbatza amustutaga, nire ezpatea atzera bere Iekan sartuko yoat, egikizuna egiteka. Or ago, urrean, arraiori; ireaz bester-er.ik ezin izan ledikek ots eta durundu zoli-ozen ori. Zori ori, idoroko al dot a gizor.a! Auxeaz besterik ez daustut eskatuten. (Al-de dagi. Gudara-otsak).

MALCOLM eta SIWARD zarra aurrera.

SIWAR.—3mendik-zear, ene jaun; onez gure benderatu dira gaztelukoak; gizon gordinaren aldekoak alde tietan daragoioe erasoten; thane lcementsuak adoretsu daragoioe elcin-aldian; dagoneko da eguna zure, larri-larri, eta egitekorik gitxi baño ez dogu.

MALC.—Geugaz batera gure aldamenean ekiteko arerioak aurkitu doguz.

SIWAR.—Gazte'ura sartu, jaun. (Alde dagie. Gudara-otsak).

## VIII AGERLEKU.-Lengoxea. Zelaiko beste arlo bat.

MACBETH aurrera,

MACB.—Zer dala-ta egin nik aralco Erromar zoroarena ta nire burua neure ezpataz eran? Iñor tizirik dakustan bitartsan, ederrago emongo date orrei nik eginikD zauriak.

MACDUFF aurrera.

MACD.—3ira-egik, su-lezako txakur orrek, bira-egik!

MAC3.—Gizon guztietatik iganiik alde egin bear yoat, baña, atzeratu akit; lendik yagol nire gogoa ire odolcz beteeqi.

MACD.—!Nigandiko itzen begira ez egon; ezpatea dok nire itza; itzez esan lediken baño odolotiago az i, zital ori! (Burruken darcoioe).

MAC3.—Alperrik abil; niri odolick ateratea ez dok errezago ire ezpata zorrotzez eguratsean

akatsik egitea baño; zaurikorren buru-ganera egotzi egilc ire ezpata-sorbatza. Luluratu ta emakumegandik yafoii amore ez egitekoa dolc r.ire bizia.

MACD.—Hz egiock uste onik izan ire lilurapenari; eta orain arte i aren otsein izaniko t;3rrenak esan begisk, "Garaiz-aurretik aiera eben Macduif bere amarn erraietatik".

MAC3.—Denganiñcen miña ori diraustana, nire gizaiasunak dauen zerik onena bildurrikaratu dauEt-eta! Eta iñolc ez al dautse sinistuko esançura tiko itzez ziria sartzen daunkuen txsrrenoi: çure belarriari agindu bai, agindu egiten dautsoe, baña agindua ausi ta iruntsi gure itxaroi! Ez yoat egin gura burrukarik igaz.

MACD.—Orrazkero, benderatu akit, dollor ori, eta aldiaren ikuskizun eta begirakizun izateko bizi adi; gure kokomarrorik, gure

tx xorik bakanenak legetxe, abean iminiko yoagu iro irudia ta bere azpian auxo idatzi, "Emen ikusi ziñeie agintari odolli izana".

MACB.—Ez naioak nire burua iñoren ben-dean yarten, Malcolm gaztearen oñetan lur-rari mun-egin eta erri zeak niri iñondiko añenak egozteko. Birnam-basoa Dunsinane' ratu ta i emakumegandik yaio-eza izan-arren, atzeneraño yoko yoat nigaz ekin da-giana. Nire guda-ikurdia iminten yoat nire soñaren aurrean. Erdu ganera, Macduii; eta denganiñoak eroango al yok lenen "Gel-di, bego, asko da!" esan dagiana! (Alde dagie burrukan).

Ekinetik alde-egitea. Eresi argi. MALCOLM, SIWARD zarra, ROSS, LENNOX, ANGUS, CAITHNESS, MENTEITH, eta gudariak aurre-rra, danbor eta ikurrinakaz.

MALC.—Onik eta ondo etorriko al 'dira emen ez diran gure adiskideak.

SIWAR.—Baten batzuk yoan-bearra da; eta, orraitioño, galduak galdu, merke erosi dogu-la au lango egun andia uste dot.

MALC.—Macduii eta zuie seme zoindoa ez di-ra agiri.

ROSS.—Gudari onaren zorra ordaindu dau zure semeak, ene yaun; gizon izaterarte bakanik bizi izan da; ela bere kemenak orixe erakutsi-ordukoxe, gizonki il da, egon dan lekuan, atzerantza zirkinik egiteka era-sota.

SIWAR. II da ala?

ROSS.—Bai, eta gudatsgitik atera dogu; zure naibagea ez al da izango aren laintasuna-ren neurri, olan izatekotan atzenik ez leu-ke-ta.

SIWAR.—Aurrekaldetik ete dauz zauriak?

ROSS.—Bai, aurretik- arakoak diia.

SIWAR.—Tira, ba; olan ba'da, Yaungoikoa-ren gudari beJi! Buruan uletan beste se-

me ba'neuz, ez neuskie gurako erlotza ede-rragorik; eta olan, yota dagoz aren yoa-leak.

MALC.—Ori baño naibage geiago zor yako-ta, neure kontura ori.

SIWAR.—Besterik ez yako zor; ondo yoan dala diñoie ta ordaindu dau bere kontua; eta olan, Yaungoikoa lagun dakiola! Biotz-nasaigarri barria datorku emen.

MACDUFF baniro aurrera, MACBETH'en bu-ruagaz.

MACD.—Gora, errege! orlxe zara-ta; begira, non dozun erregetzea zuri ostu eutsun den-ganiñaren burua; azke, geure burusn yabe gara orain; zure bakalderriko pitxiz ingu-raturik zakustaz, eta orreik eurok be nik zuri egindako aguna bera dabe euren go-goetan; eta orreik be nigaz batera zarata-ka ta oioka esango al dabe,. "Gora, Esko-landa'ko Errege!".

GUZTIAK.—Gora. Eskolanda'ko Errege! (Ere-si argi).

MALC.—AHi-arlo andirik ez yat igaroko zuon maitasuna banan-banan aintzakotzat artu ta nire burua zuokaz bardindu baño len. Enethane ta senideok, kondeak izan-go zarie oraindik ara, Eskolanda'n eguño izan diran orretariko lenengoak. Onez ga-nera egiteko dana, bere aldian egingo da, esaterako, agintza gordin eta maltzur orren sareetan ezyauste-anen erbestera igesiriko gure adiskideai dei-egin; argitara atera arakin il onen eta, uste danez, bere burua bere eskuz ildako bakalduno denganiñoa-ren aginduak bete ebezan biotzik baga-koak; au ta guk egingoren begira dagon bearreko beste edozer. neurriz, garaiz eta bere lekuan egingo dogu, Yaungoikoa la-gun. Orrazkero, eskarrak bereala guztioi, guztioi eta baktoxari, eta oinganik or do-zue gure bureskunde-yaia Scone'n ikuste-ko deia. (Eresi argi. Alde dagie).

## AMAIA

Salta'n 1966'gn. urteko Garagarriaren 5'-knean.

Auxe da Shakespeare'n antzerkietatik nik lenen euskeraztua. "Eusko-Gogoa" aldizka-rian argitaratu be egin zan 1957'gn. urtean, baño orain barrero orraztu dot

## I Z T E G I

ARRATZ.—Danbor.

ASPERA.—Arnasa sakona.

BURESTUN-BURU-ESTUN.—Ereatun eri-estun danez, "koroe" euskel-gaiztoz.

EDEN.—Zital, "bereno" euskel-gaiztoz.

ERAN.—Erail, ilazo.

ERALE.—Gizonarl berez ilten itxl bagarik, Indarrez ilazoten dauena.

GEZNA.—Norbaiteri beren-beregi eroaten yakon barri, naiz agindu.

GEZNARI.—Geznaren bat daroana.

GUDAROSTE.—Gudari-talde andi.

IKURDI.—Beñolako guduetan gudariak, ezkerreko besoari eutsala, soñaren aurrean, eta soñaren goi-aldea yagoteko ebalten eben zurezko, naiz beste geieizko soin-yagongarri txirrintola-antzekoa.

IKURRATZ.—"Sillu" euskel-gaiztoz.

LEKA.—Ezpata-zorro, ezpata-onlzi.

SASTAKAI.—aizto edo "kutxilo"-antzeko izkilla labur ago-zorrotz.

YOPU.—Bere buru-yabe bagarik, iñoren dan gizakia.

YORI.—Ederr-aberats.

ZITORI.—Txilin-antzeko lora zuri, sendo, ezpan-zabal, bost-orrikoa emoten dauen urte-landarea yatsu "Azucena" gazteleraz.

BAKALDUN.—Errege.

BAKALDUNO.—Erregin.

THANE.—Eskolandar itza da ta beste izkuntzetan bere ordezkorik ez dauelako, aldatzeka erabili dot. Andiki ta bere buru-yabe uts danaren bitarteko esan gura dau, Eskolanda'ko gizarte-banaketan.

LURRUNURTU.—Ura, naiz beste lobelen bat lenen lurrundu ta, gero, lurruna atzera urtu; orixe egiten da, esaterako, ardaoagaz, ardaoari espiritua kentzeko.





# HAMLET, DANEMARKA'KO ERREGESIME

(HAMLET, PRINCE OF DENMARK)



# HAMLET, DANEMARKA'KO ERREGESEMFC

(HAMLET, PRINCE OF DENMAK)

## IRUDITURIKO LAGUNAK

KAULDI (Claudius), Danemarka'ko Errege.

HAMLET, aurreragoko erregeren Seme ta oingoaren Illoba.

POLONI, Andiki eirege-ondasunzai.

ORATI (Horatio), Hamlet'en adiskide.

LERTETZ (Laertes), Poloni'ren Seme.

BOLTIMAN, (Voltimand)

KORNELI (Cornelius)

ERROSENKARANTZ (Rosencrantz) ) Errege-yauregikoak.

GILDENESTEREN (Guildenstern)

OSIRIK (Osric)

Aitonseme bat.

Abade bat.

MARKEL (Marcellus)

Erri-otseinak.

BERNARTA (Bemardo)

PANTZESKA (Francisco), Guiari.

ERRINALDA (Reynaldo). Poloni'ren Otsein.

Antzezleriak.

Kirten bi, Ilobiginak.

PORTINBARATZ (Fortinbras), Norge'ko Erregeseme.

Gudalburu but.

Ingelanda'tiko Geznarink.

HAMLET'en aitaren Mamu edo Agertua.

GERTURDE, Danemarka'ko Erregeno, Hamlet'en ama.

OPELE (Ophelia), Poloni'ien alaba.

Andiki, Andera, Erri-otsein, Gudari, Itsastar, Geznarl, ta luguntza-ko beste batzuk.

AGEBLEKU.--ELSINORE

## I EKITALDI

I AGERLEKU.-ELSINORE. Gaztelu-aurreko Goitegl.

PANTZESKA bere lekuan. BERNARTA sartzen da agana.

BER.—Nor da or?

PAN.—Nor da or eta ze perretxiko! Euk erantzun egidak: geldi or, eta esoidak nor azan.

BER.—Gora errege!

PAN.—Bernarta augu, ala?

BER.—Berbera.

PAN.—Tertzioz etorteko ardurea artu dok orraitioño be.

BER.—Yo-barri dozak amabiak; oa oera, Pantzeska.

PAN.—Eskerrik asko laguntza onegaitik; otz te otz dok, eta biotz-yausirik naiagok.

BER.—Yagolatza nasaia izan ete dok?

PAN.—Saguk be etxok egin emen zirkinik.

BER.—Tira ba, gau on. Orati ta Markel'ega2 trikitx egin ba'dagik, ai nire yagolatza lagunei arin datozala esaiek.

PAN.—Dagoneko entzuten dodazala uste yoat. Geldi or,ee! Nor da or?

## ORATI ta MARKEL aurrera.

- OR.—Lurralde onen adiskideak.  
 MAR.—Eia Danemarka'ko erregeren fçende-koak.  
 PAN.—Gau on bioi.  
 MAR.—Agur, agur, gufari zindo: nok artu yok ire lekua?  
 PAN.—Bernarta'k artu yok nire lekua. Gau on zuoi bioi. (Alde dagi).  
 MAR.—Xaxo" Bemarta!  
 BER.—Ara! osteraf Orati dogu or, ala?  
 OR.—Aren zati bat.  
 BER.—Ondo etorria, Orati: -ondo etorria i be, Markel on ori.  
 MAR.—Eta? Arratseon ke agertu dok arako zera, ala?  
 BER.—Stxcat ezer ikusi.  
 MAR.—Gure irudimenarena baño ezta'a yinok Orati'k, eta etxolt gura guk tirritan ikusi izan dogun itzalagazko sinisterik in-tsigi dakionik: au da'a-ta, gau oso onetan gugaz batera atzarrik egoteko etorri daiila eskatu yausat, gau cnetan arako zera barriro agertutekotan, gure begiak ikusia ontzat artu ta dalako zer crii itz egin dagion.  
 OR.—3a! ba! eztlct agertuko.  
 BER.—Yezarri adi apur taten, guk becte bein ire belarriai erasoteko, guk gau titan ikusi izan dcgunazko ipuinari gogor egiteko sendoturik dagozan ire belarriai guk erasotsko.  
 OR.—Tira ba, yezarri gadizar, eta entzun dagigun Bernarta arazo onetzaz itz egiten.  
 BER.—Bart, an iparturuaren etzanaldean *da*-kusazuen izarra bera ortzeko alderdi ar argi egiten ycan zanean, yoaleak ordu bat-ak yoten eragoinear, Markel eta ni...  
 MAR.—Ixiik, geldi ac'i; ara non datorren ostera be!  
 MAMUA aurrera, iskillioak aldean dcuzala.  
 BER.—Errege izana bera langoxe da,  
 MAR.—Yakinlzu az Ma, itz egiok, Orati.  
 BER.—Eztok errege langoxe, ala? Oar akio, Orati.  
 OR.—A langc;;e bcño a langcxeago dok; tildurraren tildurrez eta arrituaren arritzu ondatu tear naick,  
 BER.—Itz egin bear litxakick.  
 MAR.—Itano'u egiok, Orati.  
 OR.—Nor zauguz gabeko garai cneian i'okiratua dan Danemarka'ko errege zanaren nagusiagotzeak teño.'a erakiltan eban yasa txairro ta guitarisnagaz zagozan cri? Zeruarren aginduten dautsuz, itz egizu!  
 MAR.—Min arturik dago, asarre da.

- BER.—Beçira, alde egifen doa;  
 OR.—Geldi or! itz egizu, itz egizu! Agindu egilen dautsut, itz egizu! (Alde Mamuak).  
 BER.—Onangorik, Orati! ikaraz eta zurbil ago i: ez ete dck irudimer.a baño geiagorik onako au- Zer uste dok orrako orretzaz?  
 OR.—Yaungoikoa-arren, neure begiak ikusi fa autorfu ezik, eneunkean sinisluko onako au.  
 MAR.—Eztok errege langoxe, ala?  
 OR.—I eu langoxe azan testean: Norge'ko errege geiagckeriteuari gudu egin eutsanean aldean e':an guui-yantzia tera izan yok aldean; olangcxe betozkoa e':an ak bein, Poloni'ko erregeagaz gudu-osteko itumbenaz berbetan eragoiola, yo ta narretik lei-ganera egotzi e'^anean. Infondiko tiok orrako ori.  
 MAR.—Lenago be fcirritan, eta egin-eginean gabeko ordu ixil-cjeldi onetantxe igaro izan t'ick a gure yagolaiza-leku onetatik zear gudari yasa orrexegaz.  
 OR.—Zgin-eginean ze uste izan bear dodanik et:akiat; baña, dana dala, eta zer zeatzik ezetara yo bagarik, orrako orrek inondiko zaldarrsn bat gure lege-erriak ba-daue-la iragarten uste yale nilt.  
 MAR.—Ori ondo; yezarri gadizan, efa dakianak esan dagistala zar dan lurralde onetako tendekoai or.an, gau oro, yagolatza estu *la*. eten tagako au eragiten dautsena; zegaitik urtu ta eraiuten ciran egun oro bcrcr.tzezko onenbeste su-odi, eta zagaitik ekarten diran erbestetik onenbeste guui-langallu; zegaitik, igandeak be astegundurik, ekin eta ekin daragoioen, itsasontziginak indarrez fcavti-tear gorrian; zetarako izan lediksn iradu ne'tst.u izerpera au, bear-girai gau ta egun lan eragileko iratú au: nok esan ete leisket onako au?  
 OR.—iMeuk es:tn tfaiketsut; zurrumruak diñona beintzat onako au dok. Zeuok bs badakizuenaz, tiak iietarako turrucarako eupada egin eutsan Norç'ko Portinbaratz'ek bere irudia agertu-barri yakun oraintsuen-go gure eriegeari, gurearen leiakide a orretara bere arrckeriak ku'tzaurik. Mun'u ezacun OEoaren alderdi onetan aintzakotzat ezagun dan gure Hamlet adoretu zanak erail egin etan Portinbaratz dalako ori arako biak kietarako iurrukan; *eia* Portinbaratz crrelt, lsgcz eta olango burruka-ekandua ikurrastvi ta ederretsiñako egiunez, fcere fciziagaz batera terak çaturiko lur gu^tiak te galdu ebazan tere benderatzallearen a'de; gvire erregea bere aldetik, burrukea gaitzectan, bere lurretatik Portin-

baratz'eri beste ainbeste emoteko beartu zan; eta egiunearen arauz, eta egiunean errako orretzaz daragoion atalez. Hamlst'sn eskuetara etorri ziran arako lurrak. Orain, yaun, Portinfcaratz gazteak, bere aitaren izakera bero ta ondubakoz beterik, lurbako ta, edozetarako gertu dagozanezko zaborrea batu izan dau biie okerrez eta orr-emer.ka Norge'ko egaletan, yanaren alde, egikizun- nen baterako, ela gure agintariak ondo aitu izan dafcenez, egikizun ori ezta besterik, indarrez eta zemaiz arako bere aitagalduriko lurrak atzera beragandutea baiño; eta, rire ustez, au da guie gertakuntzen zegaitirik nagusiena; ortik cator gure yagolatza au; ortik datoz estutasun larri au eta istilluok.

B3R.—Orixe dala, ta ez besterik, uste dot r.euk be: orrako orrek emoten dauku bide onik yakitsko zegaitik datcrkun gure yagolatza-aldian iskilluokaz orrako iru^i ori, errege zanaren orren antzeks, berori izan zan, ba, guduon bide.

OH.—Gogoaren begia artegatuten dauen bilder bat áck ori; Erroma iñozkorik goren eta garatuen egoanean, Yu'i agintaririk andiena yausi baño lentxcagc, ustu egin ziran ilobiak, eta Erroma'ko et::art3biicak zear gedarrez eta irrirtzeka iili ziran ilak izaretan baturik; ortzean be zer arrigarriak agertu ziran, esaterako, suzko buztandun izarrak, odoiezko euri-garoa, okerrak eguzkian; eta izarfel ezoa, Netun'en agintzea bere eskuan daua, iundurik, azken-epaia eldu izan ba'itz legetxe egoan (1: eta yazokune ikaragarrien iragarieok beti agertuten dira alanbear baltzen aurrelik, aldarrikai ta eziear yazo-aginena atetakotzat, eta crtzeak eta lurrak biak batera iragarri daukuez gure lurralde ta lurraldekoai... Baña, ixilik, ara! Begira, acr non datorren ostera be!

Mamua aurrera barriro.

Bidera urtengo natxako, auts eginik ortik 2ear yaurtin ba'nagi be... Ge'di or, li'urapen ori! Oisik, naiz itzik egin al ba'dok, itz egidak: ire nasaigarri izan ledik^nik, naiz niri Yaungoikoar3n esksrrik ekarri leiskedanik ezer egin al ba'dadi, itf egiak: gure a erriaren etorkizunaren yakitun ba'az, eta etorkizun ori yakiteagaz aréntzako okerrik eragotzi al ba'daci, ui! itz eçik! Naiz, bizi intzala tide txarrez yaberuriko ondasunik lurpean cstondu fca'euan, cstondu, or esaten dabenez ba, olangorik egin izan

dabenen gogoak eriotza-osisan batetik bestera aldarrai i^iiten ei dozak eta, esaik olangorik yazo yakaner.tz: geldi or, eta itz egik .... Geratuazo egiok, Markel. (Kukurruku dagi Ollarrak).

MAR.—Yoko ete yoat nire ezpateagaz?

OR.—Yo egik, geratu gura ezpa'yok.

BZR.—Aiko amen!

OR.—Aiko amen! (Mamuak alde).

MAR.—Ycan dok! Irain egiten yautsaguk gogor artuaz, ori orren nagusiagorik izanik; izan be, eguratsa béstean zauri-ezin dok ori, eta irri gezto baño eztozak alperriko gure zartadak.

BER.—Itz egin-aginik egon dok ollarrak kukurruku egin dauenean.

OR.—*Ita* ikaratu egin dok orduan, dei bildurgarririk egiten yakon erruduna lez. Entzurik yoat nik, ollarrak, gc::aren turuta dan ollarrak egunaren yainkoa iratzarten dauela bere eztarria gora eragi ta irrirtze latza eginaz; eta ak iragarririk, itsasoan, naiz sutan, lurpean naiz eguratsetan, bidea galdurik aldarrai dabi'en gogo edo espiritua egin-alean arin yoaten dala bere ostondegira; eta orrako cri egia dala yakiteko, or yoagu orrako agertu ori argigarritzat.

MAR.—•Ollarrak kukurraku eginagaz bat ondatu dok. Batzuk diñoenez, gure Yareilearen yaiotza-aroa datorrnean gau osoan yo ta yo eragoten ei yautsak egazti egun-iragar'a orrek; eta au be or ba-diñoenez, gau atan ezin ibili ei dol: gogo edo espiriturik bere lekutik at; csasuntsu ta kalterik bagako dozak orrako gauak; orduan etxoek okarrik egiten izafcelak, eztok agertuten maitagarririk, eta sorginak be etxoek alik iñor liluratutsko; orren guren eta eskertsu dok urtearo ori.

OR.—Neuk be entzunik yoat orrako ori, eta sinktu be egiten yoat arean. Baña, ara, or yatok goxa, bere soñeko gorrizkeagaz, an aragoko sorkaldeko mendi-ganeko iñontza tere ottikogean zapalduaz.; amaitu dagi-gun gure yagon-aldia; eta, nire onuz, Ham-

(1) Iretargia yatsu emen "Izarfel ezoa", Netun, ostera ,itscs-ya.nkca. Ba-dakigu iretargiareii fçendeko dirala itscsçen gora-bekak, izkora-izperak. Erriaren ustez fçeintzat, euriteak te iretargiaren bendeko dira-ta, orregaitik-eio da iretargia izarbel ezoz.

iet gazteari iragarri dagiogun arratseon ikusi izan doguna; izan be, nire bizia-arren, gogo edo espiritu orrek, gutzako izka, itz bagako izan-arren ,ari egingo yautsak itzik; ontzat emoten ete dozue guk a yakitun egi-

tea, beraganako gure maitasunari ta gure bendekotasunari dagokionez?

MAR.—Orixo dagigun, arren; ba-yakiat, ba, nik seguru be seguru a non idoroko dogun. (Alde dagie).

## II AGERLEKU.--ELSINORE. Erregetza-leku Gazteluan.

ERREGE, ERREGENO, HAMLET, POLONI, LERTETZ, BOLTIMAN, KORNELI, Andiki ta Laguntzakoak aurrera.

ERR.—Gure anai maite Hamlet zanaren eriozteagazko gomuteak oraindik gordin irauarrren; eta gure biotzak naibageturik euki-tea gutzako egoki izan, eta lege-erri osoak be atsekabearen atsekabez betozko okertu bat izan bear leuken-arren; alan eta guzti be, gudan berezko lerea ta berezpena alkarri eraaoka ibili dira-ta, naihaga zurrugo ta sentsuntsuagorik dogu guk, agazko gomuteagaz batera gure buruagazkoa be izanik, Orregaitik, beñola gure arraba zana ta orain gure erregeno dana gure emazteztat artu dogunean, poz eskuratuz, poz-erdiz artu dogula esan ledike, begi bata argi, beslea motel dogula, arraitasunez eta iletaz, gure ezteguak iletta-abesti negartiz nastaurik, poza ta atsekabea alkarregaz neurri bardinez nastaurik; eztoгу izan araze onetan zuoi indarrik egin-bearrik, zuok zeuon kitetik eta zurtasunik andienagaz ederretsi dozue-ta: eskerrik asko zuoi guztioi. Uren, ba-dakizue zuok, Portinbaratz gaztea, gu gitxitat eta mengeltzat etsirik, naiz gure lege-erria loka ta azur-giltzetatik urtenik dagola uste dauelako, eta ortik bers alde onurarik be aterako dauelaren ustea be ari lagun yakola, or dabilku gez-naren geznaz gu izurritu bear gorrian, bere aita zanak gure anai adoretu baño adoretuagoaren alde lege-biderik legs-bideenez galdu ebazan lurak atzera emon dagioguzala eske ta eske. Asko da au agazko. Orain gugazko, eta batzar-aldi onegazko: onan dago arazoa: bere illoba Portinbaratz gaztearen asmoen barririk osta-osta yakin eta elbarriturik oean dalzan Norge'ko erregeari idatzi izan dautsagu idazki onetan, galazo dagiola bere illobeari aurrera yoten, bere illoba orrek be bendekoen artean gudari-batzeak, gudari-erreskadak eta guztitariko gertakuntzak egiten daragoiolarra: eta idazki onegaz i, Korneli maite, ta i, Boltiman, zuok bidalduten zaueguz Norge'ko errege zarrari gure txerak eta gorantziak emoteko; eta erregegazko arazo one-

tan eztautsuegu emoten beste eskubiderlk idazki onen atal eta txataletan izentaurik dagozanak baño. Onik eta ondo ibili; eta zuon bizkortasun eta zolitasuna izango al dira zuon adiguriaren aldeko ta goratzalla.

KOR. ta BOL.—Orretan eta beste edozetan be erakutsiko dogu gure adiguria ta bendekotasunarena.

ERR.—Eztogu orretan ezetariko ezpairik, zaiantzarik; biotz biotzetik dirautsuet, onik eta ondo ibili. (Alde KOR. eta BOL.'ek) Eta orain, Lertetz, ze barri dok ik? Eskakizun bat euala esan eunstan ik; zetariko dok, Lertetz? Bidezkorik izatekotan ire eskakizuna, ezin galditu eindeke bera iritxi bagarik: zer eskatuko ete eunke ik, Lertetz, ik eskatu baño be lenago nik emongo euneuskikanik? Etxakok burua biolzari urrago ta sendeago, ezta eskurik agoari esanekoago ta lanabasago, Danemarka'ko bakaulkia ire aitari yakon baño, Zer gurako ete eunke, Lertetz?

LER.—Zure ederretsia ta eskerra ni atzera Pantzera yoateko, ena yaun bildurgarri ori; neure kitetik eta gogoz etorri nintzan, ba, andik, ona Danemarka'ra zuri burestura ezarterakoan nire adiguria ta bendekotasuna iragarteko; orraitioño be, autortubearrean nago, bein nire bendekotasunarena beteazkeru, atzera Pantze'ra yoatearen aldeko dirala nire gogapen eta gurariak, eta gogapen eta gurariok zure ederretsi ta zure azkspenoren begira buru-makur dagozala,

ERR.—Ba-dok ire aitaren ederretsirik, ala? Zer diño Poloni'k?

POL.—Ba-dau, ene yaun, luzaro eEke ekina- ren ekinaz lorturiko nire ederretsia; berandu izan ba'da be, atzanean nire ederretsia ezarri dautset ikurratzat orren gurariai yoateko zure ederretsia, zure baietza emon egiozu, arren.

ERR.—Euk noz-gura alde egik, Lertetz; artu egik abagune au; eure dok aldia, eta ire geitasun onak euren gogara emongo al yoai!... Baña orain, nire illoba ta nire se> me Hamlet...

HAM.—(Bere kitean) Senide baño arean geio-  
go, eta txerakor baño arean gitxiago.

ERR.—Zer dala-ta ago oraindik be odeipean?

HAM.—Enago olan, ene yaun; eguzkitanegi  
nago ni.

ERREGENO.—Hamlet maite, egotzi egik ortik  
zear gau-antz ori, eta adiskidek lango be-  
girakunerik egingo al yautsak ire begiak  
Danemcirka'ko erregeri. Ez adi ibili beti ire  
betazal yausiokaz auts-artean ire aita zin-  
doaren billa: ba-dakik guztiona dala orrako  
ori..., zer bizi guztiak il bear yoeck, izate  
onetatik betikotasunera alde eginok.

HAM.—Bai, andera, guztiena da.

ERREGENO.—Olan ba'dok, zegaiUK dagik ire  
bakarrik litzakenarenik?

HAM.—Litzakenarenik, andera! ezta au ba'  
litzakerik, dana baño; eztaikit nik iruditur-  
rik egiten, ama maite; ni benetan eta egiz  
Iragarteko ezta asko nire soñeko baltzik,  
ezta oituten dan soñeko baltz benik be, ezta  
bearturiko intziri zatataturik be, ez, ezta  
begietaUko ur-erio yori-ugaririk be, ezta ar-  
pegi yausi-motelik be, atsekabea erakus-  
ten daben era ta gogaldi guztiakaz be:  
onakook izaten dira, ba, dirudienak, gizo-  
nek eztau olangorik egin-ezinik-eta: baño  
iruditurik baño geiago da nik barruan do-  
dana; naibagearen apaingarri ta soñeko  
baño ez tiran zerok baño geiagorik.

ERR.—Goragarri yak, Hamlet, ileta-egikizu-  
nok ire aitari opatutea: baño, yakin bear  
dok, ire aitag be galdu ebalá bere aita;  
aita galduak be galdu ebalá beiea; eta bi-  
airik geldituten danak uldikada buten or-  
daindu bear dautsala bere aitari seme da-  
nez zor dautsan naibaga-oparia: baño bu-  
rugogorkeriz naibagatan irautea, Yaungoi-  
koaren aurkako setatsukeri-bidea dok, gizo-  
ni egoki etxakon naibagea: gogo oker be  
okerra erakusten dautso orrako orrek ze-  
ruari; biotz makala, ta epebako gogo; adi-  
men bakun eta ikusterik bagakoa: eta izan  
be, zegaitik artu bear dogu ain benetan,  
gure besteraketa muker-alakariz, yazo-bea-  
rreko dala dakigunik, eta zerik egunoro-  
koena bestean guztiena dala dakigunik?  
Ut, ut! zeruagazko utsa da ori, ilekazko  
utsa, geure izakereazko utsa, zuzenez bes-  
terakoena gurs adimenarentzak; egunean  
eguneango gei ta autu-gei yako, ba, gure  
adimenari gurasoen eriotzea, eta lenen il  
zanetik gaur il danagiño etentzaka gedar  
egiten dau: "Onan yazo-bearreko da". Au  
dala-ta, arren, ortik zear bidali egik alpe-  
rriko naibaga ori, eta aitatat artu gagizak;  
izan be, eta mundua airtuko al yakok ona-

ko oni. i eu az gure bakaultitik urren ago-  
na; eta aitarik maitakorrenak bere semeari  
izan leiona baño bapa gitxiagorik ezto-  
nik dauskadan maitasun zintzo-zindoa.  
Ikasten atzera Wittenberg'era yoteako ire  
asmoagazko, gure gogoaz besterako be  
besterako dok asmo ori; eta arren be arren  
eskatuten dauskagu emen geldituterá itzu-  
li adila, gure begien poz eta nasaitasune-  
rako, gure yauregitarrik beinentzat, illobat-  
ztat, eta semetzat.

ERREGENOA.—Ire amak etozak ikusiko al-  
perrik galdurik bere eskariak, Hamlet;  
arren, gugaz gelditu adi, ez adi yoan Wit-  
tenberg'era.

HAM.—Aleginik andienak egingo dodaz zi-  
re esaneko izateko, andera.

ERR.—Tira ba, erantzun txerakor eta egokla  
da ori: geu langoxe izan adi Danemarka'n.  
Goazen, andera; biotzean irribarreka dago-  
kit Hamlet'en bere kitetik erantzun txera-  
kor ori: etu au dala-ta ezta izango gaur Du-  
nemarka'n osasun-opaketarik, edan-ala, suo-  
di indartsuk odeia iragarri bagakorik, eta  
erregek bere edalontzia gora eragi dagia-  
nean zeruak lurreko ostotsai atzera eran-  
tzun bagakorik. Goazen! (HAMLET'ez beste  
guztiak alde).

HAM.—Urtuko, lurmenduko, iñontzuko al litz  
aragi gogorregi au! Naiz, Betidiraueanak ez  
al leu ezarri bere legerik norbere burua ez  
erailtekorik! Yaungoiko ori, Yaungoiko ori!  
Bai iguingarri, ustel, uts eta ezetarako ez,  
iruditu ta egiten yatazala iudi onetako zer  
guztiak! Ken. ken! Ut, ut! Bedar txarrak  
erauzibako, aterabako baratz da au, azita-  
rako bakarrik da, eursnez datozen zer us-  
tel eta zakarrik baño eztau. Onetara eldu-  
bearraren baliza! Ile bi baño ez a il za-  
la!... bai zera, orrenbestarik be ez, ez ile  
birik: A lango errege bikaina; basayau-  
nen baten aldean Iperion dana zan a onen  
aldean: ain maite eban ak nire ama-ta,  
eguratseko axeai eleuskioen itxiko ak ni-  
re amaren mosua gogorregi yoten. Zeru ta  
lur! Gogoratu bear dot, ala? Ba, agandik  
eskegita egoten zan nire ama, yaten eba-  
nak bere yangarra geitu izaten ba'leutso  
legetxe: eta onaitiño, ilefcete-barru... ez al  
dot bururatu be egingo olangoxik... Makal-  
keri ori, emakume dok ire izena! ilebetetxo  
bat; naiz, nire aita errukarriaren gorpua-  
ren yarrai. Niobe legetxe negar baten, aren  
ilobira eroan e'bazan oskiak (oñetakoak) zar-  
tu baño be lenago; ba a, a bera... Ene  
Yaungoikoa! adimenik eztauen abeiek be  
ileta luzarokoagorik egingo eukean ak ba-

ño... ezkondu zan nire osabeagaz, nire aitaren anaieagaz; baña ez ni Erkul lango nazan baño nire aitaren antzekoagogaz: ilebete-barru; tere negar ustelak bere begi beren-beregi minduetatik yalgiten gelditu baño be lenago ezkondu zan: iraduaren zakar-geztu, senikeriz loituriko izara-artera orren arin yoateko! Eztakar orrek ezer onik, ezin ekarri lei ezer onik; iztenak egidazak, ene biotz, nire miñari utsin egin bear yautsat-eta!

ORATI, MARKEL eta BERNARTA aurrera.

OR.—Osasuna zuri, yaun orri!

HAM.—Poztuten nau zuok onik ikusteak; Orati augu i,,, ostantxean neure burua be aztu yatak.

OR.—Bera, ene yaun, bera ta beti be zure otseintxo.

HAM.—Yaun augu i, ene adiskide on; neurea emongo dauskat arako ire *a* izenaren alderako; zek ekarri au Witterterg'etik, Orati?... Markel augu i, ala?

MAR.—Ene yaun on...

HAM.—Pozik be pozik akust. Arrasti on, yaun, baña, benetan, zek ekarri au Wittenberg'etik?

OR.—Kalba egiteko gogaldiak, ene yaun on.

HAM.—Eneunskio er-tzun gurako ire arerioari olangorik esaten; eta ez al dok beartuko nire belarririk ik eure buruaren aurka esandakorik eukitera: ba-yakiat nik i ez azala kalbaginik. Baña ze arazok ekarri au Elsinore'ra? Ardaoa edaten irakatsiko dauskagu ik emendik alde egin baño len.

OR.—Zure aitaren iletak, zure aitaren gorpullorra ikusten etorri nintzan, ene yaun.

HAM.—Sz egidak irririk egin, ikaskide, arren; nire amaren ezteguak ikusten etorri intzala uste yoat nik.

OR.—Izan be, ene yaun, yazokune bata bestearen yarraiyarraiy izan zan, bata besteatik arako.

HAM.—Ezer alperrik galdu gura ez, ezer alperrik galdu gura ez, Orati! gorpu-lorrerako gertauriko yakiak eurak etorri zoazan eztegu-maietara. A eguna ikusi baño gurago neunksan nire areriorik andisnagaz zerruan trikitx egin be, Orati... Nire aita... ikusi dakusadala uste yoat nire aita.

OR.—Non, ene yaun?

HAM.—Nire gogoaren begietan, Orati.

OR.—Nsuk be ikusi dot bein. Errege on eta andi zan *a*.

HAM.—Gizon zoan *a*, gizon be gizon, bein be etxoat ikusiko *a* langorik.

OR.—Ene yaun, bart ikusi dodalakotan nago.

HAM.—Nor ikusi dokalakotan?

OR.—Srrege zure aita, ene yaun.

HAM.—Errege nire aita!

OR.—Adi entzun, eta geroxeagoratu egizu zure arrituarena, autorla ta lekukotzat aitonsemeok dodazala, zer arrigarri au zuri eralgi-arte.

HAM.—Yaungoikoa-arren, eralgi egidak.

OR.—Gau ixil-ixil eta gaberdi-gaberdi, Markel'ek eta Bernarta'k, aitonseme biok, euren yagola-aldia egiten eragoioenean, gau titan, frikifx lango trikitx au izan eben. Zure aitarena langoxe irudi bat, burutik oñetaraño egin-eginean zure aita legetxe iskiloz yantzia agertzen yake aurrera, eta yasarik gurenenagaz euren aurretik zear yoan doa astiro ta ben-ben: iru bidar ikusi izan dabe euren begi yosi ta bildurrez ikaratuen aurretik zear yoaten, agandik euretara aren ezpatea beteko bidea baño geiagorik ez egoala; bildurraren bildurrez eurak mamia baño zirinago eginik, izkiturik, eta itzik egiteko adore bagarik gelditu ziran bitartean. Ixilkitzun biourgarritzat iragarri eusten aik onako au; eta ni, aikaz batera, yagolatan egon nintzan neu be irugarren gabaz; eta an agertuten da arako agertua, aik esana legetxe, bai aroz, bai erregeren antzez, arein itz bakotxa egiazko ta benetako yazorik: ezautu neban zure aita; eskuok ezaira alkarren antzekoago.

HAM.—Non yazo zan orrako ori?

MAR.—Yagolaztea egiten gengoan goitegi zelaian, ene yaun.

HAM.—Itzik egin ete zeuntsoen?

OR.—Ífeuk egin neuntsan, ene yaun; baña ez eustan erantzun deusik be; orraitioño be bein, itz egiteko balitzan legetxe, burua eragi eban, eta itz egitera doanak legetxe zirkin eragin eutsan: baña egin-eginean orduantxe kukurruko lango kukurrukua egin eban goiz-ollarrak eta, ollarraren otsak yola igesiaz, geroago txikiagotu ta gure begien aurretik ondatu yakun.

HAM.—Iñondiko be iñondiko da ori.

OR.—Bizi nazala bestean egiazko da ori, ene yaun omengarri; eta gure bendekotasunari agindutzat etsi ta artu geban guk orrako orren barri zuri emotsa.

HAM.—Bai izan be, bai iizan be, yaunak, baña kezkatan eta artega iminten nau orrako orrek. Arratseon be yagolaztea egiteko zarie, ala?

MAR.'ek eta BER.—Eaf, ene yaun.

HAM.—Iskiloz yantzita agertu zala diñozue?



MAR. eta BER.—Iskilloz yantzita, ene yaun.  
 HAM.—Burutik beatzatarano?  
 MAR. eta BER.—Burutik onetaraño, ene yaun.  
 HAM.—Orrazkero, arpegirik etzeuntsoen ikusi, eztok?  
 OR.—Ui! bai, ene yaun; gora eragita eukan bere mosu-koskola.  
 HAM.—Ostera! betozkorik egin ete yoan?  
 OR.—Asarratuarena baño naibagatuarenago zan aren arpegikerea.  
 HAM.—Zurbi!, ala gorri?  
 OR.—Gorri ez, zurbil be zurfil baño.  
 HAM.—Eta aren begiak zuokan yosirik, ala?  
 OR.—Yosi-yosirik.  
 HAM.—An izan al nintzoan neu.  
 OR.—Arritu be airituko zindukezan ak.  
 HAM.—Bai urrean, bai urrean. Luzaro egon ete zoan?  
 OR.—Ariñeketan bagarik eun zenfcatuteko bestean luzaro.  
 MAR. eta BER.—Luzarago, luzarago.  
 OR.—2z nik ikusi nebanean.  
 HAM.—Eizarra urdindurik yoan, eztok?  
 OR.—Bai, urdindurik, bizi zala ikusi neuntanean langoxea, urdin-urrezurizko.

HAM.—Neuk be egingo dot arratseon yagolatzea; ba-ledike a barrio agertutea.

OR.—Agertuko da, bai orri::3.

HAM.—Nire aita zanaren antzik izatekotan ak, itz egingo dausat, su-lezeak berak agoa zabaldu ta ixidu nadila agindu ba' dagist be. Arren dagitsuet guztioi, onako ikuskizun au orain-arte ixilik euki ba'dozue, oraindik ara be ixifik euki dagizuela; eta arratseon besterik edozer yazotekotan be, gogotan euki egizue, baño esan tutik be ez esan: yakingo dot zuon fciotz onari zelan erantzun. Olan fca, onik eta ondo ibili: amaiketatik amabietara goitegi zelaian batuko natxatsue.

GUZTIAK.—Gure bendekotasuna zure omenarentzat.

HAM.—Zuon adiskidetasuna, zuontzako nire legetxs: onik eta ondo ibili, (Alde MAR., OR., ta BER.k) Nire aitaren gogoa (espiritua) guda-koskolean! dana eztago ondo; yoko loien bat ba-dogu emen, urrean: eldurik al litz gaba! Celdi ta ixilik ago ordurarte, ene biotz: euren burua erakutsiko dautse egite getzoak gizonen begiai, ludi osoak azpian artuta ba'dagoz be. (Alde dagi).

### III AGEHLEKU.-POLONTneko leku.

LERTETZ eta OPELE aurrera.

LER.—Ontziraturik tíira r.ire zerak: onik eta ondo ibili: eta, arraba, zure aldeko a;:ek putzik egin ba'dagi, eta nok eroanik fca' dago, ez egizu lorik egin, zure barríak niri bidali baño.

OP.—"ztodala egingo biHur zara, ala?

LER.—Hamlet, eta bere esku-erakutsi zirtzilekazko, arsn gogaldi ta gaztetasun odolberoaren yostallutzat etsi egizuz: gaztetasun el-barriaren bioletatzat, goxetiko, baño ez iraunkor, gozo bai, baño bai igarakor be, unetxo bateko sunda gozo ta betagarri; besterik ez.

OP.—Ori baño besterik ez?

LER.—z egizuz etsi geiagotzat: izan be, scña azi-ala, giarraz eta mukuruz bakarrík ezta azten, bere yauretxe au azi-ala ta onegaz batera, barruan gogo ta adimenaren otseintzalekua be nasaitu baño. Ba-ledike ak orain zu maite izatea; eta orain aren gurari garbian ezetariko loirik eta asmo txarrik ez izatea: baño arsn anditasuna gogotan euki ta astaturik, fcildur izan bear dozu, arsn guraria ezjala bere-

rik; izan be, bere yaiotzearen bendeko ta otsein da a; yente apalago ta zirtzilagoak bai egin eta ebagi legikie eurak zelan-gura, baño ak ez, lege-erri osoaren segurutasuna ta osasuna biak dagoz dingilizka aren autaketatik-eta; eta orregaitik, bera buru yakon soñaren eretxi, autarki ta ederreteláren barruan egon bear dausna da aren autaketea. Olan ba, maite zauzala esan ba'dagiUu, zure zurtasunari dagokiona da, ak fceza dagon lekuan bere esana nora-giño bete leikan, aragiñoxe bakarrík zuk sinistea; zera, Danemarka'ko nagusienen ederretsia eldu letikien lekurafllo bakarrík. Orrez ganera, gogoratu ta astatu egizu zelango galtze ta kaltea izango leuken zure ertzute onak, belarri siniskorregiz aren abestirik entzun fca'Jagizu, zure biotza ari emon eta galdurik, naiz aran eskuratu bagako eskarien eskariai zure garbitasun-altxorra idigi ba'dagiezu. Bildur izan zadiz, Opele, bíldud izan zadiz, ene arraba maite; eta zure biotza baño atzerago euki egizu zure burua, biozkaden tiro ta galgordeetatik urrin. Neskarik arduratsuen a be

eskuzabalik asko da, bere edeitasuna iretgiari erakutsi ba'dagio: onindairak berak be ezin alde egin dau guzurraren zar-tadetatik: sarriroegi yoten dauz bizenak udabarriaren umeak pipila iaigi baño be lenago; eta gaztetasunaren goxalde ta iñontz zirinean dago galgorderik andiena axe-bolada intsigikorrak kutsatu dagien. Zur zagozo, ba; bildurra yatsu segurutasunik onena: gaztetasuna bera da asaldakorrik asko, besterik urrean izan ez-arren be.

OP.—Yagola ba'nintz legetxe biotz biotzean eukiko dot zure ikaskizun on au. Baña, ene neba on, bape txerakor eztiran eleiz-lari batzuk egin daroenez, ez egidazu erakutsi zerurako bide aldatz eta arantzatsu au, iitar-tean eurak ardurabako anoputz nasaiak legetxe atseginezko lora-bidea zapaliurik, eta eurak esan dabinari yaia-monik egiteka.

LER.—Ui! ez izan niie bilduirik. Luzaroegi egon naz: baña emen dator niie aita.

#### POLONI aurreia.

Eskei bikoitz dn onepen bikotxa; zori on be zoi on dn binitan agui egin al izatea.

POL.—Oiaindik be emen, Leitetz! eibesteia, erbestera, bizkanean yoka yaia bilk axeak ire ontzi-oiala, eta iie begiia yagozak-eta. Ailco... 01 dok niie onespena! (Bere eskua Lertetz'en buru-ganean imini-ala) eta iie gomutean iiani egizak agindu gitxiok. Ez egik zabaldu iis asmoiiik, eta ez egik egin egoki ez-tanik be. Etxetiar izan adi. Baña ez zakai. Azteitu egizak izango dozakan adis-kideak, eta bein azteituazketo, galtzaiduzko estun eta lokaniz estu egiozak iie biotzaii; baña ez egik loitu iie eskuuik lagun yaipani, lumatu bagakogaz. Alde egik asarreetan sartzetik, baña bein sartuazke-ro, ire aieioak igandik alde egiteko bes-tean auneia egik. Edonoii entzun egiok, baña euieii gitxiak baño eztagiela entzun; edonoien espena, eietxia aitu egik, baña aure eretxia eutzako euki egik. Iie saks-lak eiantzun-alean kaiu izan dadizala iie soñekoak, baña ez eia-kutsi onetan ano-keiik; onak bai, baña ez gangaikeriik eia-kustekoak; izan be, soñekoak iia-gaiten yci sarritan gizona; eta Pantze'n yaio-tzez eta lekuz gorengo diranak dozak on-tan araztasun eta pitxitasun eredu. Ez adi izan ez yesalerik, ez zorrean emollarik be, zonean emonaz ba, emona ta adiskidea biak galtzen dozak sanitan; eta yesateak amustu egiten yok ondasun-banaketa zo-

notzaien epaia, Eta batez be aglndu au: eutzako zintzo Izan adi bai, eta egunaii gs-ba danaikionez, iñontzako be, ezin bes-tez, zintzo izango az. Onik eta ondo ibilii niie onepenak emakoituko al yok onako au igan!

LER.—Apal baño apalago agui egiten dau-tsut, ene yaun.

POL.—Deiez dagokik tertzioa; oa, iie begiia yagozak iie otseinak.

LER.—Onik eta ondo ibili, Opels; eta gogo gogotan euki esan dautsudana,

Op.—Niie gomutean giltzapean yagok, eta ik euk euki beie giltzea.

LER.—Agur. (Alde dagi),

POL.—Zer esan dautsu, Opele?

OP.—Eier izango al yatsu; Hamlet'egazko zer bait.

POL.—Arranotan, ondo fcaño obeto otua: or esan daustenez, oraintsu sarri sarritan egon izan da a zugaz bakarrean; eta zu zeu be nasai be nasai ta eskuzabalegi izan zara a zurean artzen: ori olan ba'da, -eta olan dalakotzat etsi bear dot, ardurea artzeko-, ori olan ba'da, esan-beanean nagotsu, nire alabeari ta zeure omenar! da-gokien bestean argi eztozula ikusten zuk zeure burua. Zer dogu zuon artean? Egia esaidazu,

OP.—Bere maitasunaren eskeintzaiik asko egin izan daust oraintsu ak.

POL.—Maitasunaren! Ba, ba! neskato ume gordinek legetxe, onango aldl galgoide-tsuetan eialgiz uiuna ta zaia alkanegan-dik bananduten ez-takienak legetxe itz egi-ten dozu. Sinistu egiten dozuz agindutatz dozuan aien eskeintzak, ala?

OP.—Eztakit, ene yaun, zsitatz etsi.

POL.—Ba! neuk irakatsiko dautsut: ume za-reala etsi egizu; urretzat artu dozuzala zo-rrik ordaintzeko urre zindozko eztiran txin-txin edo diruok, aien opakotok. Aloi ei oba-rik eskatu egizu zuie buiuagaitik; eskaki-zun andiagooik egizu ztne buiuagaiti; os-tantxean, -or-rako esakune ori olango iia-nez. mekotuiik sz izieko-. eigtatzat etsiko nozu.

OP.—Ene yaun, bide onez ekin eta ekin daust maite nauela.

POL.—Bai, bide onez deietxatsu or-rako oii; tira, tira.

OP.—Zintzo antzik be emon dautse bere itzai, ene yaun, zerua-anen egindako ia guztita-riko zinez.

POL.—Bai, ollagonak goatzeko segada edo begitenak. Ba-dakit nik, odola irakiten da-

gonean eskuzabal dala biotza miñari zinak emoten: ez egizuz artu sutatz berorik baño argirik geiago emoten daben argialdiok, egiterakoan ezeze, aginduterakoan be itzalita dagozanok. Oraindik aia meatzago eiakutsi egizu zuie neska-buiua; itz egiteko eskakizuna baño kauaogo imini egizuz etxean artezak. Hamlet yaunagazko, gazts dala a bakai bakanik sinistu egizu, eta zuii leiketsun baño luzetxoago Ixl leikeo aii lokarria, igitu ta ibilteko: labur esateko, Opele, ez egizuz sinistu aien

zinak; eta izan be, bitarteko baño eztira aren zinak, eztira azalak erakusten daue-na langorik, egite zantarren eskakizun baño, obeto iruzur egitsko guien eta yainkozaleiena dagian zantaiksii-bitaitekoienak baño. Oraindik ara ta betiko, ta argi ta garbi esateko, ez egizu astirik galdu Hamlet yaunagaz berbetan eta txutxuputxutan. Begira, gero, neuk aginduten dautsut-eta; zoaz zure egikizunetara.

OP.—Egingo dot zure esana/ ene yaun. (Alde dagie).

rv AGEBLEK '-Goltegi zelaia.

HAMLET, ORATI, ta MARKEL aurrera.

HAM.—Min egiten dau eguiatsak usika; otz be otz da.

OR.—Me ta zonotz da eguiats au,

HAM.—Ze oidu ete da?

OR.—Amabiak baño asko gitxiagorik ezta niie ustez.

MAR.—Ez, yota yagozak amablak.

OR.—Bai ete? Etxoazat entzun nik: olan izatekotan, lastei dok mamua ageituten izan dan tertzioa. (Turut-a'sa ta suodi-otsa barruan). Zei esan guia dau onako orrek, ene yaun?

HAM.—Atzarrrik yagok errege arratseon, an yabilk osasun-opaka edaten, an yok eskuetan edalontzia, yan-edana lango yan-edana yoeik-eta; ibllkera arroa erabili-gurarik, bizkarmakur eta zabuka dabil; eta ak Errin-ardao drangoák edan-ala, lapi-kodanborrak eta turutak onan aiantza egiten yoeik aien osasun-opaen garaitea.

OR.—Ekandu da orrako ori, ala?

HAM.—Bai, arrano, ekandu dok: baña ni emendar eta emengo ekanduetara oiturik izan-arren, nire ustez, ekandu ori yagotea baño austeia oba litzakek, Yan-edankeri zakanok dirala-ta, gutzaz okerrsko usterik asko dabe ta euren agotan garabilez sorkaldetik sarkalderako erriak; mozkortizat gabez, eta esakera txarriz loituten dabe gure entzute ona,- eta izan be, gure egiteak andi izan-arren be, euren ederra ta lorea galdurik izten dauz orrako orrek. Olantxe yazoten yake sarritan yaiotzearen okerreko bidetiko orañenen bat daben gizon bakana be, naiz dala orañen edo uts ori berezko, yaiotzatiko, eta orretan eurak etxoek errurik, dirana izatea ezta ba eurak auturik, yaiotzeak berak emona baño; naiz dala berezko leraen bat, eta onako onek be

sartitan adimenaren esi ta oimarik sendoenak be lurreratu egiten dauz; naiz dala eurak daben ekanduen bat, euren egikera goragarriai legar geiegitxo ezarten dautsen ekanduen bat ba'dabe, esan dodanez, uts edo akatsen baten lorratzik ba'daroe, naiz dala yaiotzatiko, naiz alanbearretik etorrikorik, bestetik onindartsu izan, Yaungoikoaren eskerra bestean garbi izan euren onindarrok, eta gizonek izan leikezan bestean andi ta asko izan-arren be, uts edo akats axegaitik lausotu ta ilundurik geldituko dira beste gizonen eretxi ta us-tetan. Loi-bildar bat da asko mamirik zindoena ustelduteko, ezta ta ba-daka utsean izteko.

OR.—So! ene yaun, ba-dator!

Marua aurrera.

HAM.—Yagon gagizuez, angeru ta eskerraren bitartekook!... Gogo on, naiz geztu izan i, zerutiko firi-firiak, naiz su-lezako axeboladak ekarri ik, ire asmoak geztu naiz txerakor izan, ainbesteko yakin-gurea emoten dok-eta, itz egingo dauskat: Hamlet, errege, aita, Danemarka'ko errege deituko aut; Tji! erantzun egidak! Iztenik ez al dot egingo ez yakiteagaitik; ori bagarik, esaidak zegaitik ire azur onetsiak, ilik obratuak, urratu dabezan gorpu-yantziak; zegaitik an bere barruan bare-bare ontziturik ikusi indugun ilobiak atxurdinezko bere matrallazui astunak idigi ta ona ego-tzi izan auen baniro! Esaidak zer esan gura dauen, zegaitik dan, zegaitik atorren i, gorpu il ori, onan, ostera be guda-koskol osoaren barruan, iretargiaren dizdizak barriro ikusten, gaba ingugarri egiten, eta gu, yaiotzearen yostalluok, gure gogaketak ezin eldu díran besteraño bildur-ikarearen

- itzalperatuten. Esan, zegaitik dok au? Zer dala-ta? Zer egin bear yoagu? (Kiñu egiten dautso Mamuak Hamlet'eri).
- OR.—Kiñuka dagotsu, teragaz yoan zadizan, zuri bakarrean zerbait iragarri gura ba'leutsu lez.
- MAR.—Begira, zelango era-mera txairoz kiñu egiten dautsun beragaz leku urrinagokoen batera yoan zadizan; baña etzakioz yarraí.
- OR.—Ez, ezetara tez.
- HAM.—"ztau itzik egin gura; olan ta, yarraí egingo natxako,
- OR.—itzakioz yarraí, ene yaun.
- HAM.—Ba! zeren tilcurrik izan bear dot? Orratz batekonik te eztot rdk nire tizia; eta nire gogoagazko, zer egin leio ak nire gogoari, a bera legetxe ilezin danazkero? Aurrera yoateko kiñuka dagokit ostera te; yarraí egingo natxako.
- OR.—Zer egiteko zuk, uretarako biderik artu dagizun zirikatu ba'zagiz ak, ene yaun, naiz, bere burua itsas ganera itzu'ten yakon mendi-tontor ikaragarrien batsra zu alc eroan, ela an zure buruko argitasuna kendu ta burutik eragin ba'leitsu, ak inñondiko antz bildurgarriak arturik? Orrako ori be iruditu egizu: andik goitik beko itsasota legoksn bidarlotzarra ikud ta an bean
- itsasoa orroaka lekusanaren garaunai lekuak terak etsiazako leuskioe, besterik tagarik.
- HAM.—Orainik te kiñuka dagokit. Au-rea yo, or noa zure yarraí.
- MAR.—"Zlza yoango, ene yaun.
- HAM.—Yarei nagik; alde eragioek ire be-sooi.
- OR.—Iñoren esana egizu; etzara yoango.
- HAM.—Deiez dagokit nire alanbearra, eta Neoiea'ko leoiaren zamilak testean gogortuten daust nire soñeko zant::o baktotxa. (Mamu kiñuka) Oraindik be deiez dagokit; yarei nagizue .aitonsemeok; alde eskuok, (Infiarka yareiten dau bere burua). Zerua-arren, mamu egingo cõt ni gelcituazo nagiana bera. Alde, gero! -Oa aurrera, ba-naioak ire yarraí. (Mamuak eta HAM-LET'ek a!de).
- OR.—Irudimenaren irudimenez etsiaz-etsiaz doa ori.
- MAR.—Garraikiozan: eztok egoki orren esanik egitea.
- OR.—Gaiozan atzatic ara... Noragiño eldu *hsai* et3 yck onako onek?
- MAR.—Usteldurik yagok zerbait Dar.emarka'ko erri oretan.
- OR.—Yaungoikoak arzetuko al yok.
- MAR.—Bai, garraikiozan. (Alde dagie).

#### V AGEBLEKU.--Goitegi zelaieko urrinagcko leku.

MAMUA ta HAMLET aurrera.

- HAM.—Nora eroan bear nok? Itz egik, aurrerago etxoat yoan gura-ta.
- MAM.—Oar nak'k; ondo begiratu nagik.
- HAM.—"gingo dot orrako ori.
- MAM.—la eldu yatak gar andurtsu ta elorriotsuetara yoan bear dodan ordua.
- HAM.—Si ene! mamu orren errukarri!
- MAM.—^z egidak izan erukirik, nik eralgiko dauskadana arduraz entzun baño.
- HAM.—"tz egik, entzun-min eta irrikiturik naiagok eta.
- MAM.—Olan::? egongo az azaskatuteko te, entzun dagikanean.
- HAM.—Zer entzur?
- MAM.—Ire aitaren mamua nck ni; aldikada baten gabaz iti'teko epaia artua, eta egunez loturik, astia sutan emotsko, bizirik nengoanean egindako okerreri zakar batzuk erre ta garbitu-arte. Nire baitegiko ixilkizunik esatea galazorik epza'reu, nik esango neunskikan zerik txikienak be ire tiotz areatu ta sarrantxatuko leuke; leitu egin-
- go leurkik ire odol gaztsa; izarrai legetxe, euren betzulo boroMletatik urtenazo egir.go leuskie ire begiai; ire motots lotu ta kirimilduko u'cai alkarregancik bananduazo, tanar-banan zutunduazo eçingo leuskie, kirikiñolatzenak legetxe yarri-arte: taña betikotasur.eko ixikizunok eztozak aragi ta odoláunen be'arrietarakorik, Ertzun, entzun, Ui, entzun'... Eguño maite izan ba'ioek ire aita maitagarria...
- HAM.—"n3 Yaungoik:a!
- MAM.—Asperu aci yaiotzeaz besterakorik besterakoen arsn giza-erailteaz.
- HAM.—Giza-erai)teaz!
- MAM.—Giza-eiaiHerik zakarren eta zantarr-naz, giza-erai'tea onenean be o!ang::e tadanez; baña onako au zartarrik zantarren, inñondikoen, eta yaiotzaz besterakoendok.
- HAM.—Srin iragarri egidcrk, len baño len, iruáirr.enarenak baño ego tizkorragoz, naiz maita-gogaketak baño te arinagoz, asper-tzera egaz egin dagidan.

MAM.—Ba-yakusat gerturik agola orretarako; izan be, Lete ibai-ertzean kezka bagarrik ustelduten dan bedar txarra baño be motelago, geldoago ta ilago izan bearko eunke, onako onek eragingo ezpa-leuskik. Aiko, Hamlet, or zabaldu yoek, nire baratzean lotan nengola, sugek bere izpia sartu eustala; olan, Danmarka osoaren belatriai nire eriotzeazko guzur zakar asmaua sinistuazo yautsek: baña yakik ik, gazte zindo orrek, bere izpiaz niri bizia kendu eustan sugeak berak daroala orain ire aitaren burestuna.

HAM.—Ui, nire buruaren igarla! nire osa-bearena!

MAM.—Bai, abere siniskeritsu ak, abere ezkontza-ausla ak, bere zurtasunak asmautako sorginkeriz, azpikerizko esku-erakutsiz, iruzur egiteko indarra daben zurtasun eta azpikeriez gezto! -beie lizunkeri lotsagarri-rako irabazi yoan ak nire enegeno irudianez onindartsurik onindartsuenaren guraria, biotza: Hamlet, Hamlet, Hamlet, alde egite lango alde egitea izan zoan arena! nigandikoa, ezkontzerakoan egin izan neuntsan zinagaz arrazkero beti eskutik goaturik ibili izan zan maitasun zintzo-zindoz maite izan nebanarena; eta zetarako? Nireen aldean aren gettasunak utsa zirangana yoteko! Baña lizunkariak zerutarren antzez txera egin-arren be, onindarrak zirkirik egingo eztauenez, olantxe, lizunkeria, angerurik argitsuenagan izan-arren be. iguindu ta aspeitu egingo dok zerutar oean etzatez, eta zabonak yaten yoango dok. Baña, etxon! goiz-aidea datorrsila dirudit; labur itz egin bearko dot... Arratsalde oro egin neroanez. nire baratzean lotan, biao egiten nengoala, ixilik eldu yatan seguru nindun ordu atan, bonbiltxo baten agin edentsuaren ura ekarrela, eta nire belarrietako ataketan ixuri eusten ur legentsu a; eta aren ondorena, aren indarra ain arerio yako gizonaren odolarita, urrebiziak bestean arin egiten yok bidea barrura gizonaren soñeko berezko bide ta atakak zear; eta tantan garratzak esnea gogortuten dabenez, ak be beingo indarrez gogortu egiten yok odol me-osasungarria; eta orixe egin yeutsan nireari be; eta unetxo bat izan zoan asko nire soin osoa zugaritzen azala zerez estalduteko, legerdunik legenardunena lez azal latz zirtzil eta lotsagarritz inguraturik ni izteko, Loak arturik nengoala, nire anaiearen eskuz, onan it:i ninduen ni bizi bagarik, burestun bagarik, erregenorik bagarik, dana

batera ta dana bertatik: nire obenak loratan egozala ni ebagirik, elexakorik artu bagarik, azken-igortzirik artzeka; nire obenak zenbatu ta ikuzi bagarik, nire burua zurituteko ta epaia artzeko nire akats guztiak aldean nebazala bidalirik. Ene! itzala izan zoan a! Ui! itzal be itzal! Itzal baño he itzalago! Biotzik ba'dok aldean, ez egik yasan orrako ori. Ez al dok izango Danemarka'ko errege-oea lizunkeriaren eta senikeri gaiztetsiaren etzategirik. Baña artu dagikan bidea artu, onako oni berea emoteko, ez al dok orbanduko nire gomutarik, ezta ire amaren aurka ezertxo be okerrik asmauko: zeruari itxiok aren ardurea, zeruari ta ak bere biotzean daroazan arantzai, aik min egin eta aik sartu dakiozala. Agur bein betiko! Goiz-arrenaldia ur dala diragar epertargiak, eta motelduten asirik dok aren berobako sua: agur, agur! Hamlet, gogotan euki nagik. (Alde dagi).

HAM.—Ui, ui! zeruko talde guztiok! Ui! ludi ori! zer besterik? Sulezea be erantsiko ete dautset?... Ui! ut, ut!... Geldi ago, ene biotz ori; eta zuok, nire zamilok, etzakidaze beingoan zartu, ni zutun zutunik euki ta erabili baño. Gogotan euki i! Bai, mamu errukarri ori, bai, mundu azkor onetan gomuteak lekurik dauen-arrean. Gogotan euki i! Bai, nire gomutako, nire oroimeneko oletik kendu ta erauziko dodaz gaztearoak eta oar-ikusiak an idatzi izan dauzan oroi-garri kutun zirtzilak, idaztietatiko esakune guztiak, irudi guztiak, igaro-aldiak an itxiriko lorratz guztiak; eta gei zirtzilagogaz nastau bagarik, ire agindua bakar bakarrik biziko dok nire garaunetako idatzi biribilean: bai, zerua-arren. Emakumearen galgarri be galgarri! Zital be zital ori, zital irribarregile gaiztetsi ori! Eetoz nire oltxoak (2), egoki be egoki da nik idatzi dagidala, gizonak irribarre ta irribarre egin daikela, baña orraillio zizlrin ela zital izan daitekela; Danemarka'n beintzat olangorik izan datskela seguru nago ni: (Ba-daragoio idazten) Aor, ba, osaba, or ago i, Nire goiburura orain; au izango da nire goiburua". Agur, agur! Gogotan euki nagik": zin egin dot au izango dala.

OR.—(Barrutik). Ene yaun, ene yaun...

MAR.—(Barrutik). Hamlet yaun...

(2) Lenagokoai, guk lez papelean bagarik, oltxo meetan ida'ten eben papela agertu-aurretik.

OR.—•(Barrutik). Yaungoikoak yagongo al dau!

MAR.—(Barrutik). Olantxe!

OR.—(Barmtik). Eup, e, e, ene yaun!

MAR.—(Barrutik). Eup, e, e, mutll! ator txori ori, ator.

ORATI ta MARKEL aurrera.

MAR.—Ze barri dogu ,ene yaun zindo?

OR.—Ze barri, ene yaun?

HAM.—Ui! barri ikaragarriak!

OR.—Esaiguzuz, ene yaun on.

HAM.—Ez; zabaldu egingo dozuez zuok.

OR.—Ez nik, ene yaun, zerua-arren.

MAR.—Ez nik be, ene yaun.

HAM.—Zer dala uste dozue, ba? Eguño gizoni otu ete yakok onangorik?.. Baña ixilik eukiko ete dozue, gero?

OR. &ta MAR.—Bai, zerua-arren, ene yaun.

HAM.—Eguño Danemarka osoan zitalik bizi izan ba'dok, zital agiria izan dok a.

OR.—Ori olan dala yakiteko, olangorik esateko ilobitiko mamurik etorri-bearrik ezto-gu, ene yaun.

HAM.—Ez ba, egia dok; zuzen zagoze; olan ba, geiagoko zertzelada bagarik egokitatzat dot alkarri eskua emon eta banandutea: zeuon zereginak eta gogoak emoten dau-suen lekura zuok... izan te, gizon bakotxak bere egikizunak eta bere gogoaz izaten yozak, diranak dirala; eta nigazko, yakizue, arren egiten yoango nok ni.

OR.—Uxo ta esangura bagako baño ez tira itzok, ene yaun.

HAM.—Tamalik esko dot nire itzez zuoi minik eginaz; bai, biotz biotzetiko tamala dot.

OR.—Eztauskuzu ezetariko minik egin, ene yaun.

HAM.—Bai, Patirki gurena-arren, egin dau-suet minik, Orati, eta min andi egin be. Emen izan dan ikuskizunagazko..., marnu zindo izan dok orrako ori, eta ederretsiko al daustazue onenbeste esatea: gure artean yazo dana zuok yakingureaz, al dozuenez benderatu ta eskuratu egizue yakingura ori. Eta orain, adiskide maiteok. yakintsu ta gudari zarienezko eskertxo bat emon egidazue.

OR.—Zer da orrako ori, ene yaun? Emongo dautsugu.

HAM.—Eztagiozuela iñoz be iñori iragarri arratseon ikusi dozuena.

OR. eta MAR.—Eztautsugu iragarriko, ene yaun.

HAM.—Bai, baña zin egln bear daustazue.

OR.—Nire sinitea-arren, nik eztautsat iragarriko iñori, ene yaun.

MAR.—Nik bez, ene yaun, nire sinitea-arren.

HAM.—Nire ezpata-ganean zin egin.

MAR.—Dagoneko gagoz zin eginda, ene yaun.

HAM.—Egitez, nire ezpata-ganean, egitez.

MAM.—(Barrutik) Zin egizue.

HAM.—Ja, ja, txolxo! Ori diñok ik? Oi ago, ala, zindo ori? Tira., entzuten dozue urli ori or beko gelan. Eder etsi zin egitea.

OR.—Zetara zin egin bear dogun esan, ene yaun.

HAM.—Nire ezpatsa-arren zin egizue iñoz be eztozuela txitik egingo emen ikusi dozuenez.

MAM.—(Beetik). Zin egin.

HAM.—"Hic et ubique?". Orrazkero, batak bestearen iekua artuko dogu (3). Erdu ona, aitonsemeok, eta barriro imini zuon eskuak nire ezpatearen ganean: nire szpatea-arren zin egin iñoz be eztozuela itzik egingo emen ikusi izan dozuenez.

MAM.—(Azpitik). Zin egizue.

HAM.—Ondo esanda, sator zar ori! Orren arin egin ete dok bidea lurpean? Bidegin lango bidegina augu i!... Goazen beste bein, adiskideok.

OR.—Ui! gau ta egun.beti! Iñondiko da orraitño onako au!

HAM.—Orrexegaitik, iñondiko daiako, txera ona egiozue. Orati, zuan yakintzeak amesetan ikusi daiken baño zer geiagorik bayagok bai zeruan, bai lurpean. Baña, tira; erdue ta zin egizue, ien egin dozuenez, eta zerua iagun izango al yatsue, bear bada nik iñondiko bakankerien batzuk egin fca-dagidaz aurrerantzean, burutik eginda-edo nagoia otu ba'dakizue be, zin egizue eztozuela ezertxo be ezetara iragarriko, esaterako, fcesoak onan gora eragiaz, buruarri onan eraginik, naiz esakera iragarkor eta arriturik esanaz, esaterako, "Tira, tira, ba-dakigu guk"; naiz, "Esango geunke, al ba'geu"; naiz, "Itzik egiteko gogorik ba'geu"; naiz, "Esan geinke guk, gura izanazkero"; naiz beste olango esakera iragarkorrez eztozueia iragarriko nitzaz ezer dakizuenik, zin egizue, eta Yaungoikoaren eskerra ta errukia lagun izango ai yatsuez! Zin egizue!

(3) "Emen eta edoncn" esan gura dau Laterozko "Hic et ubique" esokuneak.

MAM.—(Azpitk). Zin egizue!

HAM.—Atsedean artu egik, atsedean artu egik, gogo kezkatu orrek! Onan ba, aitonsemeok, biotzik maitakorrenaz zuokan dodan uste onean iminten yoat nire burua: eta Yaungoikoa lagun, Hamlet lango gizon errukarri bere adiskidetasuna zuoi erakus-

teko egin leiketsuenaren ezik eztozue izango. Guztiok batera alde dagigun; eta beti euki, arren, zuon atzak zuon ezpanetan, mundua bera ate-txoritik urtenda yagok-eta; rire zoriaren txarra, mundu au arteztuteko neu imini nabe-ta!.., Tira, erdue, batera goazen. (Alde dagie).

## II EK [TALDI

### I AGERLEKU.-] OLONI'neko leku.

POLONI ta ERRINALDA aurrera.

POL.—Diru au eta idazkiok emoiozak, Errinalda.

ER.—Bai, emongo dautsadaz, ene jaun.

POL.—Zur be zur egingo dok orrako ori, Errinalda, a ikusi baño len aren yarduke-rearen barri yakin ba'dagik..

ER.—Asmo orixe neban neult be, ene jaun.

POL.—Bapo, ondo esanda; ondo baño o'eto esanda. Lenen ikasi egik, jaun, nortzuk diran Paris'en dagozan Danemarka'tarrak, eta zetariko diran; zelan eta non bizi diran, ze eskuarte daben, zelangoakaz daben arr-emonia; zetan eta zenbat diru eralten daben; eta olan, zearka-mearka ta kako-makoka, bein aik nire semea ezagun dabela eltzerakoan, artez eta bete-betean itanduaz baño ezagutza zeatzagora elduko az, eta bein orragiño elduazkero, aurrerago yo einke, esanaz, esaterako, "Ezagun dot aren aita, ezagun dodaz aren adiskide batzuk be, eta bai beraz be arean". Aitu ete dok onako au, Errinalda?

ER.—Bai, eta ondo aitu te, ene jaun.

POL.—"Eta aren berenik be bai arean; baña" i -yarrari einkio-- "baña, nik uste dodana ba'da, axe-bolada da a; onetara ta orretara itzulia"; eta bein orraazkero, euk asmauriko zer batzuk be erantsi egiozak; baña ez ari bere entzute ona orbandu leionik, gero; arduratsu abil orretan; gazteen, eta yarei dabiltzan gazteen artean egurroroko, agiri, ta ezagun ezagunak izaten diran akats eta utsak eta labanak baka-rrik aitatu egizak.

ER.—Yokoan egitea, esaterako, ene jaun.

POL.—Bai, naiz edatea, ezpata-burrukea egitea, zin egitea, burruka egitea, emagalduekaz ibiltea; orragiño eldu endike.

ER.—Laidogarri litxakio orrako ori, ene jaun.

POL.—Ez olangorik; ire salakuntzoi euren gatzat ezarri ba'dagiek. Lizunkerira itzulia

dalakoren laidorik eztautsak ezarri bear, ez orixe; ori eztok izan nik esan gura izan dodana; yareikeriaren ukututxotzat agertzeko eraz esan bear dozak aren akatsak; gogo sutsuaren argi-aldiaren umetzat; odol eskuratu bagakoaren basatikeritzat, edonorí yazoten yakontzat.

ER.—Baña, ene jaun on...

POL.—Zegaitik egin bear dokan orrako ori, ala?

ER.—Bai, ene jaun, orixe da nik yakin gura neunkena.

POL.—Ba, jaun, aiko amen nora doan nire kako-mako au; eta, nire ustez, billaketa lango dok billaketa au; eta lauso, orban eta loitxook nire semeari ezarriaz, bearran ibili izan dan zera loitu oi dan legetxe, oar akit, ik bere barrua arakatu gura dautsakan ire berba-laguna etsita ba' yagok ik ukututen dokan gazteak len aita-turiko akatsik ba-dauela, igaz bat egingo yok esanez: "Ene jaun", naiz beste olangorik; naiz, "adiskide", naiz, "Aitonseme"... gizonaren, naiz bere erriko ekanduz.

ER.—Ori ondo, ene jaun.

POL.—Eta orduan ak zera egiten yok... zer esateko nintzoan?.. Mezea-arren, burutik yoan yatak zer esateko nintzan be, zerbait esateko nintzoan-eta: non gelditu nok?

ER.—"Igaz bat egingo yok" ean, "adiskiJe, naiz beste olangotsu", eta "aitonseme" an,

POL.—"Igaz bat egingo yok, igaz batera yoko yok" ean... bai, izan be; igaz batera yoko yok onako onetan: "Ba-dazaut aitonsemea; atzo, edo beste egunen baten ikusi neban a, eztaikit noz be, baña ikusirik dot a; urli edo berendigaz; eta an eragoion ak yokoan; otoz-otoan eldu nintxakon, ak edariak edari edaten eragoiola; an zoan a "tenis"ean burruka": naiz, bearbada, "aragi bizia salizen dan eteera sartzen ikusi naioan a", zera, emagaldutegira, eta

abar. Ba-dakusak orain; guzurrezko ire beitagaz, amukoagaz, egiazko arraina goatu dck: olan guk be, zurtasunik eta urrin eldu-alik dogunok, zearka-mearka ta kako-makoka, bide okerrez biae zuzenera yoten yoagu; olan ba, nire esan eta onuen fci-dez, yakingo dozak ik be nire semearen ifcilerak. Aitu daustak, ezto?

ER.—Aitu dautsut, bai, ene yaun.

POL.—Lagun izango al yak Yaungoikoa; onik eta ondo ifcili.

ER.—Nire yaunaren on!

POL.—Eu oartu akie aren zaletasun eta za-lekeriai.

ER.—Egingo dot orrako ori ,ene yaun.

POL.—Eta bere gogara ustu dagiala fcere barrua.

ER.—Ori ondo, ene yaun.

POL.—Agur. Onik eta ondo ifcili! (Alde ERRI-NALDA'k).

#### OPZLE aurrera,

Kaso, Opele! zer yazoten da?

OP.—Ai ene, ene yaun, nik artu dodan bildur lango fcildurra!

POL.—Zsk emonda, Yaungoikoa-arren?

OP.—Ene yaun, nire gelan yosten neragoi-ola, Ham'et yauna... gorantxea azkatu azkaturik, kuruan txapel bagarik, eta oin-zorroak loiturik, estu bagarik, eta orkatilletaraño zango-estuna lez yatsirik, tera bere atorrea bestean zurfcil, bere belaanak dardaraz *alkai* yoka, eta zer ikaragarriak eateko su'ezatik yarei izan dabenaaren arpegi ta begirakunez... nire aurrera agertu yat.

POL.—Zuganako maitasunez burutik eginda, ezta?

OP.—"Eztaikit nik, ere yaun; baña, benetan, orrako orren bildur naz, izan.

POL.—Zer esan dausna?

OP.—Esku-muturretik eldu daust, eta gogor

etsin daust; gero bere besoa betean urrin-du da; eta beste besoa bekokian onan ebalu, nire arpegia ain begira be begira yarri data, irunsi egin gura efcala esan ledikean (eitekean<sup>1</sup>). Luzaro egon da olan; atzerean... nire besoari apur bat eragin, eta iru bider bere buruari onan gora-beraka eraginik... alango asperen errukarri ta sakona egin izan dau-ta, aren soin osoak amaika txataletan eztanda egingo eukeala irudian, arena eginik; ori egindakoan, ilxi nau ni.eta bere burua sorbaldaganeraturik, begiz bagarik bere fcidea oñez fcil-latzen efcala irudian; izan fce, atetaraño eldu da bere begien laguntza bagarik, atzen etzeneraño bere begiak nigan yosirik egon dira-ta.

POL.—Goazen, zarraikidaz; errsgeren billa yoango naz, Maitasunaren amesa bera yatsu orrako ori; eguzkipean gure biotza kezkatuten dabien biotzaldietatik beste edozeñek bestean sarritan bere burua ondatu ta etsiaren egitekoak egitera eroaten dau guraria maitasunaren indarrak. Zer ba? Itz gogorren batzuk esan dautsazuz oraintsu, ala?

OP.—Ez, ene yaun maite; baña ,zeuk agindu zeunestanez, ezto artu gura izan aren idazkirik, eta nigana eltzen fcs eztautsat itKf.

POL.—Orrek eragin dautso burutik. Ba-dot tamalik, eta ez gitxi be, ari bear baño yaramon gitxiago eginaz, eta arena sentsun gitxiagigaz ebatzi izaraz; zu galtzeko marrokerien batzuk erabiltzala ak uste neban rik; baña, nire tukukerien zori txarreko! Gazteak berezpsnik eza bestean guk zarrok gure eretxiak eta susmoak urrinegi eroateko lerea dogula dirudi. Erdu, goazen erregegana; iragarri bear yako onako au; izan be, maitasun orrek naifcaga geia-gorik ekarri lei, xil'ik eukiazkero, iragarri-ta gorrotorik ekarri leiken fcaño. (Alde da-gie).

#### II AGERLEKU.--Gazteluko leku.

Aurrera ERREGi, ERREGENO, ERROSEN-KARANTZ, GILDENSTEREN, eta Laguntza-koak.

ER.—Ondo etorriak, Erresenkarantz eta Gildenesteren maiteok! Zui luze be luzs eretxita egonaz ganera, guk izan dogun zuon otseintzearen bearrak bu'tzau ta beartu gauz zui orren arin dei egitera. Zer:ait entzun dozue zuok Hamlet' en aldakun-

tzeaz; aldakuntzea diñot, ba ez aren azalean agiri dan gizonak, ez aren barruan agiri danak, eztau len izanaren antzik. Amesetan be ezin otu yat, fcere aitaren erio-tzeaz besterik zer izan lediken ari bere burua ondatu dautsana; aren adin gaztekotsu ta agaz batera aziak, gitxi gora-bera aren urteetako ta aren gogaldietako zarienezkero, aldikada baten emen errege-yauregian



egon zadizela eskatuten dautsuet, olan, zuok lagun zatxakoezala, zuok a atseginetara eroan dagizuen eta, erea agertu-ala ia zer lediken a naibagetuten dauena susmatituen dozuen bein igarri '13 argilaratuazkero, osatu dagigun, guk osatute-korik izatekolan.

ERREGENOA.—Ailonseme onok, sarritan aita-tu izan zabez ak; eta seguru nago ni ezta-gozala beste gizon bi bizien artean a zuoi bestean intsigita dagonik. Zuon txerakor-tasunez eta biotz onez, apur baten geldituko ba'zintzakeze emen gure artean, gure itxaroaren lagun eta euskarri izateko, erregeren esker eta biotz onari dagokiona lango saria izango leuke zuon otseintzeak.

ERROS.—Guri eskeka iibili bagarrik, gure ya-herik yabeen zarienezkero, zuon fcion na-gusiagotzeak agindutera bultzau legiksz zuon ederreysi bildurgarriak.

GIL.—Guk biok men egiten dautsuegu, eta zuon oñetan iminten doguz geure kitetik gure buruak, zuok agindu dagiskuzuen.

ER.—Eskerrik asko, Errosenkarantz eta Gil-denesteren txerakorrok.

ERREGENOA.—Eskerrik asko, Errosenkarantz eta Gildenesteren txerakorrok; eta bertatik ikusi egizue, arren, nire seme aldatue-gia. (Laguntzakoai). Zoazie zuotatik bat-zuk bs, 'eta eroan egizuez aitonsemeok Hamlet dagon lekura.

GIL.—Arentzako atsegingarri ta lagungarri egingo al dabez zeruak gure emen egotea ta gure aleginak!

ERREGENOA.—Bai, olantxe! (Alcle ERROS., GILD., eta Laguntzako batzuk).

#### POLONI aurrerci.

POL.—Pozarren etorri dira atzera Norge'tiko Geznariak, ene yaun maite.

ER.—Beti izan az i barri onen aita.

POL.—Bai, ete, ene yaun? Seguru zagoz, ene nagusien on, nire otseintzsa, ta bai nire gogoa be, Yaungoikoari ta zuri, ene erre-ge maite ori, bioi eskeindurik dodazala; eta uste be uste dot, ostantxean nire buru onek eztakiala beñola lez ondo erriketa-bideak usmatuten eta sundeari yarraiten..., uste be uste dot ikasi dodala nondik dato-rren Hamlet'en zoroaldia.

ER.—Ui! orretzaz itz egik; ori entzutako lu-ze erel:ila naiagak.

POL.—Geznariak entzun egizuz lenen; iga-liena egingo dahe nire barriak oturuntza andi orretan.

ER.—Euk egiezak omenak eta ona barrura

ekarri egizak (POLONI'k alde). Orrek diraus-tanez, ene erregeno maite, idoro dau orrek zure semearen ondo-azaren iturria ta itur-burua.

ERREGENOA.—Nire ustez ezta besterik, itu-rri ta iturbururik nagusiena baño, zera, bere aitaren eriotzea la gure ezkontza ari-negi egina.

ER.—Tira ba, sakatuko dautsagu.

Barrero aurrera POLOMI, BOLTIMAN eta KORNELI'gaz.

Ondo etorriak, ene acJiskide maiteok! Esaik, Bo'timan, ze barri dakazue gure anai Nor-ge'ko erregegandik?

BOL.—Txerarik txerakorrenez atzera bidal-tzen dautsuz ak zure agur, gorantzi ta gu-rari onak. Gu ara elduaz bat, geldituazo egin eban bere illobeak eskuartean erabi-len gudari-batzea; arako gudari-batzea Poloni'tarrai erasoteko zalakotan egoan a; baña arazoa zeatzago azterturik, benstan eta egiz zure nagusitasunaren aurkako za-la idoro eban; eta orrako orregaz naibaga-turik, -bere gexo-aliia, here adina, ta bere ezer ezin egina olan egite geztotarako ta guzur-darioka eraii'i izan dauzalako, Por-tinbaratz'eri eskuak ezarteko agindua emon izan dau; onako onek bertatik men egin eta burua makurtu dau; asarre egin dau-tso Norge'ko errege'k; eta, azkenez, Por-tinbaratz'ek bere osabearen aurrean zin egin dau bein be eztauela artuko iskillori-k zure nagusiagotzearen aurka, eta one-tan, Norge'ko errege zarrak, pozez ganez-ka, iru milla burestuneko urtekaria izentau ta agindu dautso bere illobeari, len batu-riko gudariak Poloni'tarrai aurka erabil-teko eskuide osoa emonik: bide batez, emen (Ingi bat eskuratuten dautso) agiri dan esketkizuna zuri egin il; zera, asmo orretarako zuk ari emendik zear yoatea itxi dagiozula, zure segurantz alderako bear diran eta or agiri diran baiakaz.

ER.—Ondo deretxogu orrako orri; eta aldi egokiago ta astitsuagoan irakurri, ausmer egin eta erantzungo dogu arazo onetzaz. Bitartean, eskerrik asko zuoi, zuok ondo buruturiko lanagaitik; atsedena artzen zoa-ze; batera apalduko dogu arratseon; ondo etorriak zuon aberriara! (Alde BOL., eta KOR.'k).

POL.—Ondo amaitu da arazo au... Ene yaun, eta andera... nagusiagotzeak zelango izan bear leuden, bendekotasuna zer dan, ze-gaitik dan eguna egun, gaba gau, eta al-

dia aldi, aztertu ta arakatutea, elitzake bestetarako, gaua, eguna ta aldia alperrik galtzeko baño. Orrazkero ba, laburtasuna danazkero zurtasunaren mamia ta guna, luzetasuna, ostera azpegi ta ganeko yantziak baño besterik eztanazkero, labur esango dot esatskoa: burutik eginda dago zuon seme zindoa; zorakeritzat dot nik beintzat arena; eta izan be, zorakeria beztekokan, zer dala esango dogu, zoro izateaz besterik ezer eztala baño? Baña be-go ori.

ERREGEN.—Mami geiago ta zearka- gitxia-gura dogu.

POL.—Andera, zin dagit enabilela ni ezetari-ko zearka-mearkatan. Egia da a burutik eginda dagola; egia ta bai errukarri be; eta tamalgarri da orrako ori egi izatea; ume-esakera yatsu au; baño doala ortik zear, zearka-mearkarik ezto erabili gurata. Autcrtu dagigun ba, burutik eginda dagoJa a; eta orain egiteko geláituten yakuna, gaitz ori nondik eta zetatik datorkon idorotea da; edo obeto esateko, uts orren zegaitia, zegaitiren batetik dator uts au-eta; olan ba, ondakina geldituten da aztsrtu ta gogotan erabilteko. Alaba bat dot...-nire dan artean dot, -eta ak, -oar zakioze onako oni, alaba bat dot, eta bere bendekotasun eta esanekotasunean onako au emon daust: adi egon eta gogotan erabili orain. (Ba-dirakur) "Zerutarrik zerutarren eta nire biotzaren kutun-kutun, Opele edertu be edertuari...". Esakera txar, esakera zakar da ori... esaksra zirtzil da "edertua"; baño entzun egin bear doze. Onantxe diño: (Ba-dirakur) "Bere altzo zuri-zurian, zerok, eta abar".

ERREGEN.—Hamlet'ek neskato orri bidalia da ori, ala?

POL.—Etxon apur baten .andera on; zintzo irakurriko dot. (Ba-dirakur).

"Ezpairik izan egizu izarrak su diranaz; Izan ezpairik eguzkia ibili dabilanaz; Izan ezpairik egia guzurti danaz be; Baña bein ba ez izan ezpairik maite zaudazanaz.

Ui! Opele maite ori, ezin dodaz ondu itz neurtuok; ezto trebetasunik, ez ganorarik nire intziriak zenbatuteko; baño sinistu egidazu al dodanik ondoen maite zaudazala. Agur. Zure oraindik ara, anderaño maite maite, langallu au nire dan artean. HAMLET". Neure aginduz erakutsi daust onako au nire alabeak; eta onako onez ganera, erregesemeak egin izan dautsazan maite-es-

kariak be bai, noz, non, eta zelan izan dlan be azalduaz.

ER.—Baña ze arrera egin yautsok neskatoak aren maitasunari?

POL.—Nortzat eta zertzat nozu ni?

ER.—Gizon zintzo ta zindotzat.

POL.—Ori nazala erakutsi gura neunke.

Esan-bearrean nago nire alabeaganako aren maitasun beroari oartu nintxakola ak egazerako egoak aztinduten eragoionean, nire alabeak berak orregazkorik ezer niri iragarri baño len, eta zer esango ete zeunkean zuk, naiz, zer esango ete eukean nire nagusiagotza maiteak, emen dagon errege-noak, aurrean neban maiarena, naiz maiganeko idaztiarena egin izan ba'neue; naiz, tiotzez ederretsizko kiñu eginik, gor eta izka gelditu izan ba'nintz; naiz, maitasun orri yaramonik egin izan ezpa-neuntso; zer uste izango ete zeunkien olangorik yazo izan ba'litz? Ez, eneban egin nik olangorik, bertalik eldu neuntsan egitekcari, eta onan itz egin neuntsan nire neskato gazteari: "Iretarikorik ezton Hamlet erregesemea, ezina don orrako ori": eta orduan aginduak agindu emon neuntsazan, giltzapean egon edila ak ez ikusteko, ez egiala artu arren geznaririk, ezta arren esku-erakut3Írik he; nik ori egindakoan, bete ebazan neskatoak nire aginiuak; eta bestea, labur esateko, bere burua atzera eraginik ikusirik, moteltasunera yausi zan; moteltasunetik baraura; barautik lorik ez egitera; lorik ez egitetik makaikerira; makaikeritik buru-arinkerira; eta yausien yausioz, a orain daukan eta gu guztion negargarri dan zorakerira.

ER.—Olan dala uste dok, ala?

ERREGEN.—Ba-ledike, urrean baño urreanago.

POL.—Yazo ete da eguño, ori yakin gura neunke nik, yazo ete da eguño nik "onan da" esanik, besfera yazo izan danik?

ER.—Nik dakidala ez.

POL.—Ortik atera egizu, onako au bestsra izan datekenet: (Bere atzaz bere burua ta sorbaldea erakutsiaz) inguruko zerak nire lagun izanazkero, idoroko dot nik egia ostonduta dagon lekuan, eidi-erdian ostonduta ba'dago bs.

ER.—Eta zelan aztertuteko guk sakonago?

POL.—Ba-dakizuenez, ordu osoak egiten dauz batzuetan ak emen areto luze onetan.

ERREGEN.—Olantxe ibi'i be ibilten da.

POL.—Nire alabea bidaiiko daustat olan dabilkenean: orduan zuok eta ni ostondu gaidan errezen baten ostean; oar zakioez arein alkarregaz trikitx egiteari: neskatoa

maite ezpa'dau ak, eta burutik eglnda orregaitik ezpa'dago, enadilla izan ni oraindik ara lege-erri onularirik, baserria ta baserriko ipuztarriak yagoten yoan baño.

ER.—Bide ori artuko dogu.

ERREGEN.—Baña, ara non datorren errukarri gaxo ori gotilun eta irakurten.

POL.—Alde egizue, arren, alde egizue biok: neu elduko natxako bertatfik: Ui! azketsi nagizue (Alda ER..ERREGEN., ta Lagur.tza-koak).

HAMLET aurrera, irakurten.

Zelan dago Hamlet nire yaun ona?

HAM.—Ondo, Yaungoikoari eskerrak.

POL.—Ezagun ete nozu, ene yaun?

HAM.—Ondo baño obeto, ondo baño obeto; arraindun zauguz zu.

POL.—Ez ni, ene yaun.

HAM.—Arraindunik ez izatekotan, arrainduna bestean gizon zindo a\ zintzaz.

POL.—Zindo, ene yaun!

HAM.—Bai, yaun; mundu au dagonetan, zindo izatea, amar milla gizonen artetik bat artzea legetxe da.

POL.—E'gitan be egi da ori, ene yaun.

HAM.—Eta izan be, eltxarrak Eortzen ba' dauz eguzkiak txakur ilaren soñean, yciin-kok mun dagitson gorpu izan-arren. Alabarik ete dozu?

POL.—Bai, ba-dot, ene yaun.

HAM.—Ez al da ibiliko eguzkitan; onespen da sortzea; baña ez zure alabeak sortuko leukenez: aáiskide, zur ibili, gero.

POL.—(Bere kitem) Zer esan gura ete dok orrako orregaz? Nire alabeari daragoiola oraindik be: orraitioño be lenengotan enau ezautu; arraindun nazala esan daust: burutik egina baño burutik eginago dago; eta orraitioño be nire gaztearoan maitasunagaitik gorriak ikusia naz; neu be olantxe yarri-aginik egon nintzan. Barriro itz egingo dautsat. Zer irakurten daragoiozu, ene yaun?

HAM.—Itzak, itzak, itz utsak.

POL.—Zertzaz, ene yaun?

HAM.—Nortzun artekoak, ala?

POL.—Nik esan gura dodana zera da, zetariko goiaz Irakurten daragoiozun, ene yaun.

HAM.—Iranak, izen ona baltzitudeak irakurten daragoiot: eta izan be, yopu irigin onek emen diñonez, urdin ei dabez zarrak bizarrak, izurrez beterik arpegiak, anbar-zirín eta okaran-zirín lodia ei darioe begietatik, buru-argitasun ezik asko ei dabe, eta eper-mamiak be loka ta makal: eta orrako guzti

ori nik egitzat baño egitzatago etsiarren, eztot zindotzat olangorik idaztea, ba, zu zeu be, yaun, ni bestean zar zintzakez, karramarroa lez atzeraka ibili al ba'zintzaz.

POL.—(Bere kitean) Onako au zorakeri uts izan-arren, orraitioño be ba-daki zerak urren-gorik urrengora eroaten. Eguratsetara urten gura ete dozu, yaun?

HAM.—Nire ilobira, ala?

POL.—Bai. izan be, eguratsetatik urteeta da ara yoatea. (Bere kitean) Urteerak lango dira batzuetan beronen urteerak! Zorakeriak nozik-bein izaten dauzan urteera txai-ro ta apainak, eta bururik zindoen eta argienak be nekez izaten dauzanak langoak. Emen itxiko dot, eta bertatik egin bear dodaz bideak nire alabeagaz batu dadin. Ene yaun omengarri, alde egingo dot apal-apalik zure ederretsiz.

HAM.—Ezin eskatu zeinskut ezertxo be ori baño pozago emongo neunskizunik... nire bi-ziaz besterik, nire biziaz besterik, nire bi-ziaz besterik.

POL.—Onik eta ondo ibili, ene yaun.

HAM.—Aureon gogaikarri!

ERROSENKARANTZ eta GILDENESTEREN aurrera.

POL.—Haralet yaunaren billa zatoze zuok; or dozue a.

ERROS.—(POLONI'n) Yaungoikoa lagun izango al yatsu, yaun! (POLONI'k alde).

GIL.—Ene yaun oraengarri ori!

ERROS.—Ene yaun maite maite oril

HAM.—Ene adiskide maite bikain bikainok!

Zelan ago i, Gildenesteren? Ba! Errosenkarantz! Zelan zagoze, mutil on biok?

ERROS.—Gitxi gora-bera mundu onetan edonor legetxe.

GIL.—Pozik, pozegi ezkarealako; ezkara gu zori onaren txapeleko txoririk.

HAM.—Ezta oskiaren azpirik be, eztok?

ERROS.—Ez, olangorik bez ,yaun.

HAM.—Olan izatekotan, aren garri-inguruan bizi zarie zuok, naiz aren eskuzabaltasunaren erdian, eztok?

GIL.—Bai orixe, arsn kutun gara gu.

HAM.—Zori onaren alderik ixilgarrianean bizi zariela esan gura dok, ala? Ui! egia, izan be, emagaldu dok a izan be-ta. Ze barri dok?

ERROS.—Ezatarikorik bez, ene yaun, munda zindotu egin dala baño.

HAM.—Ori ba'dogu, ur dogu azken-epai eguna; baña zuon barri ori eztok egirik. Zer zeatzagorik itanduten itxi egidazue: zer egin

dautsazue zuok zoriari ak zuok ona baitegi onetara bidalduteko, adiskide maiteok?

GIL.—Baitegia, ene yaun!

HAM.—Baitegi dok Danemarka.

ERROS.—Olan izatekotan, baitegi da mundu osoa be.

HAM.—Bai, eta baitegi lango baitegia; eta gela, gela-yagola, ta gela ilun asko yagozak, Danemarka euretatik txarrentariko bat dala.

ERROS.—Ezkara gu eretxi orretakorik, ene yaun.

HAM.—Ba, orrazkero, ezta zuontzako; izan be, ezex be ezta onik naiz txarrik, noberak alangotzat etsi ezik: baitegi dók nitzako.

ERROS.—Ba, orrazkero, zure geiagokeriak egiten dautsu olango; estuegi da zure gogoarentzako.

HAM.—Ene Yaungoikoa! Intxaur-mokolean sartu ta an lotuko ba'nindue be, lurr-arlo nasaietako erregetzat neunkaka nire burua, ames txarrik ezpa'néu.

GIL.—Eta amesok eztira besterik, geiagokeria baño; amesaren itzalaz besterik ezta geiagokexiaren mamia izan be-ta.

HAM.—Amesa bera be eztok itzalaz besterik.

ERROS.—Bai, izan *be*, eta nire ustez geiagokeria zer ain arin eta me da-ta, itzalaren itzal baño ezta.

HAM.—Olan izatekotan, soin eta mami dok gure eskekoak, eta eskekoen itzal guie bakaldunak eta guxe gizaguren puztuak. Eriegera-yauregira yoango ete gozak? Eta izan be, nire burua etxagok argibiderik erabilteko eiaz.

ERROS. eta GIL.—Zure agindura gagotsuz.

HAM.—Ez, ori ez; etzauedaz nik nire beste otseinetakotzat; ba, gizon zindori dagokienez zuoi itz egitsko, zakarkiro egiten yaustek aik euren otseintzea. Baña, adiskideai dagokienez itz egiteko, zek zakarrez Elsinore'ra?

ERROS.—Zeu ikuste-arren etorri gara, ene yaun; ez beste ezegaitik.

HAM.—Ain eskeko be eskeko naz-eta, eskerak emoten be eskeko natxatsue; orraitino be eskerrik asko; eta seguru be seguru, nire eskerrak eztira gei txakurtxiki bat bera be. Ez ets dautsue dei egin? Zeuon kitetik, zeuon leraz etorri ete zarie? Zeuon kitetiko ete da ikustaldi au? Tira, artsz yokatu egidazue; tira, tira; itz egizue, bai.

GIL.—Zer esateko guk, ene yaun?

HAM.—Ba! edozer... baña arira datorrena. Dei egin dautsue zuoi; eta zuon mosuak

eurak auiortuten dabe orrako ori, zuon lotsortasunak ezta ganorarik asko orrako ori zuritu ta estaltzeko-ta; ba-dakit nik errege ta erregero onak dei egin dautsuela zuoi.

ERROS.—Zetarako, ene yaun?

HAM.—Zuok nire irakasla izateko. Baña adiskidetasunaren eskubideen aldetik, gurs gaztetasunaren kidegoaren aldetik, gure eten bagako maitasunaren aldetik, eta eskalek asmau eta erakutsi legiken beste edozer maiteago ta oberen aldetik, arao egiten itxi egidazue, zuzen eta artez izan zakidazela ta esan dagistazuela dei egin izan dautsuenentz.

ERROS.—(GILDENESTEREN'i) Zer diñok ik?

HAM.—(Bere kitean) Bai, ba, igarri dautsuet.

Maite ba'nozue, ez egidazue ezer ostundu.

GIL.—Dei egin dauskue, ene yaun.

HAM.—Neuk esango dautsuet zegaitik dei egin dautsuen; eta, onan, aurreak artuko dautsada zuon autopenari eta, olan, eztozue ezetan fce ausiko zuok errege ta erregeroari agindu izan dautsuzuen ixilkizunik. Zegaitik dan eztakidala, nire poz eta biotz argitasun guztia galdu dot oraintsu, baztartu egin dodaz nire egikizun guztiak; eta izan be, gogaldi ain motela darabilt-eta, ilsas-baztaireko Iur-arlo elkor irudituten yat eraketa eder au, munáu au; ganestalgí bikain au, egurats au, aiko, goian dingilizka dagon ortze ezin-ederrago au, urrezko argiz yositako nagusiagotzatar etxegane au... ba, ori guzti ori niri etxat irudituten besterik lurrutegi zakar eta andurlu baño. Gizona bai ba-dok eginiko zeren artean Egileak a egiten ganora lango ganorea erakutsi izan dauen zera! Aren adimen-argibideen zindo ta gursn! Aren gsitatsun eta alen neurribako! Aren irudi ta zirkinen esan-gura ta arrigarri! Aren angeru-langotzea bere egiteetan! Aren yainko-antzeko, bere aitutean! Munduko arrigarri! Abereen eredu! Eta, orraitino be, zer yat niri, autsaren auts baño? Gizonek eztaust emoten atseginik; ez; ezta emakumek be, zuon irribarreak besterik diragarrela iriditu-arren.

ERROS.—Ene yaun, etzan olangorik gure us-teetan.

HAM.—Zegaitik egin dozue, ba, barre "Gizonek eztaust emoten atseginik" esan do-danean?

ERROS.—Gizonegan atseginik artzen ezpa' dozu, antzezlariai garizuma-arrerea egingo dautsezuki gogoratuteak eragin dausku bane, ene yaun; bidean itundu gara eurekaz,

eta ona etorteko gelditu dirci, euren egikizuna zuri opatuteko.

HAM.—Ondo artuko dogu erregearena egin dagiana; izango dau nire otseintzarik aren nagusiagotzeak; izango dau zaldun aldarriak bere ezpatea ta ikurdia non erabilerik; alperriko intziririk eztau egingo maitaleak; bakez amaituko dau bere egitekoa gizon gogalditsuak; eta barre eragingo dau tse ergelak euren biriak giiigiliaren giiigiliz ganaz dabezana; eta eragozpen baga-  
\* rik esango dausku andereak gogoko yakona, ostantxean, orrexegaitik, meikika ibilikoa da oskidetasunik bagako itz neurtua. Zetariko dozak antzezlariok?

ERROS.—Atseingarri izaten izan yatsuzanak eurak... uriko odol-antzezlariak.

HAM.—Zer dala-ta dabilzt aldarri? Bai euren entzuterako, ta bai euren irabaziralto be, leku baten egotea oba litxakie,

ERROS.—Oraintsuko arau barrielatik okrsran bat datorkela uste dot.

HAM.—Ete dabe ni urian nintzanean bestsko ederretsirik? Ete dabe orduan bssieko eskatimarik?

ERROS.—Ez, eztabe ainbestekorik, ez orixe,

HAM.—Zer dala-ta? Ugertu egin dira, ala?

ERROS.—Ez, lengoxe fcidea daroe ta lengoxe oinkadak emoten dabez; baña mutiko-mordoa agertu da or, mutiko arrautzatic urten-barriak, bai, ta zarataka ta eztarriak emon-ala oio ta santzoka asten dira egikizuna onenean dagonecm; au da orain oituten dana; eta ain gitiizatz dabez eurak guztientzako deituten dauksen antzokiak eta, ezpatea aldean daroenak eurak be bildur dautse esleen antzar-lumai-eta, nekez azartuten dira ona etorten.

HAM.—Ba! ume dozak, ala? Nok bazkatuten yozak? Ze aloger emoten yautsek? Abots ona daben artean bakarrik irauten ete yoeck euren ogibidean? Eta gerora, dirudinez, guztitarikoentzako antzezlari egin ba'dadiz, eskuarte oberik ezpa'dabe, alan yazoko danee, ez ete dabe esango oker egin dautsola iJazleak, euren etorkizunaz bestera antzeztuazorik?

ERROS.—Egia esan, egit'ltto ta asarrerik asko izan da alde baietik eta bestetik; eta erriak eztau obentzat bitsuek alkarri aiazotea: aldikada baten etzan ateraten dirurilt, egilea ta antzezlariak euren artean ukabilka ikusi ezik,

HAM.—Izan ete ledike olangorik?

GIL.—Ui! ainbat urtsn dira burua ausita,

HAM.—Eta mutikoak dozak nagusi, ala?

ERROS.—Bai, mutikoak, ene yaun; bai, Erkul

be benderatu ta eroan daroe aflt, bere maikiitzar eta guzti.

HAM.—Ezta ori ifiondikorik etfi arritutekorilt; eta izan be, nire osabea dck Danemarka' ko errege, eta nire aita fcizi zanean irri egingo leuskioenak ogeina, berrogsina, berrogei ta amarna, eun bana duket emoten yoezak orain aren irudi txiki banagcú-tik. Yaungoikoaren odola-arren! Azterka asi ba'ledi emen, asi, yakintzea, idoroko leuke zindo ta yator eztan zerik. (Poz-turuten otsa barruon).

GIL.—Antzezlariak yatsuz orreik,

HAM.—Aitonsemeok, ondo etorriak zarie Elsinore'ra. Betoz zuon eskualt; t:era onaren lagun doEak gaurkotasuna ta era-mera onak; zuokazkoa onetara egiteu itxi egidazue, gero egingo dcut'suedazan txera-agiariak andiegitzat artu eztagizuezan. Ondo etorriak zauguez; baña oker yagozak nirs osaba-aita ta nire izeko-ama,

GIL.—Zetan, ene yaun maite?

HAM.—Burutik eginda ba'nago ni, ipar-ipar-etxunalietilik bakarrik nago; axeak egoaldetik putz egiten dauenean, ba-dakit nik sapilaia aztoreagandik berezten.

POLONI aurrera,

POL.—Yaungoikoa lagun izango al yatsue, aitonsemeok!

HAM.—Entzun, Gildenesteren; eta bai iic be; -entzula bana izango al dau belarri banak; ume-mantarretan dago oraindik or dakusazuen seintzar ori,

ERROS.—Zori onez, bigarrenez batu dafce ume-mantarreian, agurea bigarrenez dala ume or esaien dabe-ta.

HAM.—Baietz igarri rik antzezlarien barri emoten datorkidala ori; oar zakioez; -Egia da, yaun; astelen goxean izan zan; bai, astelen goxean,

POL.—Ene yaun, ba-dot nik barririk zutzako,

HAM.—Ene yaun, ba-iot nik tarririk zatzako, Erroma'ko cntzezlari Hoscius zanean...

POL.—Emen dozuz antzezlariak, ene yaun,

HAM.—~3a! ba!

POL.—Nire oimena-arren...

HAM.—Asto banaren ganean etorri ziran orduan anizezlariak...

POL.—Munáuan diran antzezlariarik onenak éira, odol-antzerkitan, naiz barrs-antzerkitan, edesti-antzerkitan, artzai-antzerkitan, artzai-barre-antzerkitan, odol-edesti-antzerkitan, odol-barre-e iesti-artzai-antzerkitan; agerleku banandu-ezinean, naiz azkenbako olerkitan; etxakie sakonegi orrei Seneka, ezta

Paulla be arinegi. Ezlozue orreik langorik idalzia ganoraz eta arauz esaleko, naiz euren kitetik asmaurik esateko.

HAM.—Ui! Yepeta, Ixerrael'go ebazle ori, ik bai ba-euan altxor lango altxorra! (4).

POL.—Ze altxor eban ak, ene yaun?

HAM.—Ba,

Alaba lirain bat, ez besterik, berak

Maite baño maiteago ba-ebana..

POL.—!Bere kitean) Oraindik be nire alabea-ri daragoiola.

HAM.—Enago zuzen, ala, Yepeta zar?

POL.—Yepeta deituten ba'nozu, ene yaun, ba-dot r.ik maile baño maiteago dodan a/a ba bat.

HAM.—Ez, ori eztator arira.

POL.—Zer dator, ba, arira, ene yaun?

HAM.—Ba,

Yaungoikoak yakin zinez,

Alanbearrik ba'litz lez,

eta urren, ba-dakizu,

Yazoteko zana yazo zan...

geiagorik be irakatsiko dautsu arako afcesti yainkozalearen lenengo lerroak; eta izan be, ara non datorren nire laburpena.

(Lau, naiz bost antzezleri aurrera).

Ondo etorriak, adiskideok; or.do etorriak, guztiok: pozik nago zuok onik ikusiaz: ondo etorriak, adiskide onok. Ui! ene adiskide zar ori! Motosa azi dok ik arpegian, i azker.engoz ikusi indudanazkero; Danemarka'n berton niri eupada ogiten ator, ala? Ba, nire anderaño ta adiskide! Andera Miren-arren, oinbete zerurantzago yagiten da zure anderatasuna oraintsuen ikusi zindudazanean baño. Yaungoikoa-arren, ez al da zakartuko ta arrakalduko zure abotsa, erdiraño arrakalduta dagolako eztabilen urrezko txintxina legetxe. Yaunok, guztiok zario ondo etorriak. Asi ta ekin bertatilik; Pantze'ko atzoreen antzera, lenen ikusten danagana egaz egin, dana dala; betor bertatik itzaldiren bat; tira, emoiguzue zelango zarienaren agirien bat; tira, betor itzaldi biotzukukor-eragikorren bat.

I ANTZ.—Zetariko itzaldirik, ene yaun?

HAM.—Bein entzun incudan niri itzaldia egin ten... baño a etzoan bein be antzeztatu; eta, antzeztatu ba'zoan be, ez bein baño geiagotan; eta izan be, geienai stxakoen izan gogoko a antzerkia; Kabiar zoan a geienentzako; baño nire ustez, eta onango gaietan nik baño ebazpide oberik dabenen ustez, antzerki bikain zoan a, agerlekuz on-

do banandua, ta arropuzkeri bagarik burutsu ta zur idatzia. Gogotan yoat, norbaitek esan ebala gaia onduteko beste gatzik etzala itz neurtuetan, eta esakerea be etzala borobilegirik, idazlea arro-puztuzat es-telcorik; baño bide zindoz idatzita egoala ragoioan ak, sendo, mardul eta gozo zala, eta askozak be ederrago, polit baño. Itzaldi bat izan yatan an gogokoen: Enea'k Dido-ri eralgiriko ipuina izan zoan; eta ipuin atan batez be ak Pirama'ren erailteaz di-rautsana: gomutetan ba'dok, lerro onetan asi adi; dakusadan, dakusadan:

"Pir zakarrak, Irkani'ko piztiak legetxe"... Eztok olan: asi Pir itzez asten dok:

"Pir zakarrak... adu txarreko zaldí-barruan kuika egoanean bere iskillo ilun eta bero asmoak bestean baltz ziranakaitik gabaren antza ebanak... margo ilunagoz loitu dau orain bere yasa bildurgarri-baltza; gorri uts da orctin burutik beatzeteraño; itzalez antzaldaturik guraso, ama, alaba ta semeen odolez, etxarte gorietatik datorren beroak erre ta gogortuten dauen odolez, etxarte gorietatiko argiak euren erailketa zakarrai argi gorrotagarri ta gaiztetsia egiten dautse-!a; cisarrez eta suz erreta, eta odol gogortuz dan baño andiagoturik, bsre txingar-begiz, ailaíta *zai* Pirama'rei' biila dábil sulezatar Pir". Euk ekin orain.

POL.—Yaungoikoa-arren, ene yaun, ondo esanda, ots onsz, eta banaketa obaz.

I ANTZ.—Bertatik didoro ak Pirama, au Eladatarrak yoten meko eginik dagola; an datza aren ezpata zarra, yausi dan lekuan bertan, bere yaubearen besoaren esanik egin gura eztauela: ezbardinen arteko da burruka au! ateraten dau Pir'ek bere ezpatea, Pirama'ri erasoteko; urrinegitik yoten dau, asarre gorriz, baño bere ezpata gogor-raren otsak berak erasten dau lurrera siratsik bagako aita. len sor eta gor zan Ilion' ek orain Pirama'ren yauskerearen as-trapalea somatuten dauela cirudi, goiak garretan dauzala bere oñetarako makurtu-

(4) Ixerrael'go Ebazleatariko izcin zan Yepeta ou. (Ikusi EBAZLEAK, XI). Bere erriaren arerioai erasoterako baten zin egin eban, gudua irabaztekotan, atzera bere etxerakoan etxeko atetatik lenen agertuko yakona opa-lerrefizat Yaube'ri, YaungoikoaTÍ opatuko eu-Isala. Alaba bat, eta maite maitea bera, ebcm eta, ara! bere alaba ori izan zan bera etxetik lenan agertu yakona ta, bere zina zala-ta, bera opatu-bsar gorrian aurkitu zan.

ten da-ta; eta Pir'en belarrien yabe egiten da bere astrapalea: eta izan be, ara! Pirama begiragarriaren buru zuriaren ganera yausteko zan bere ezpatea eguratsetan yosirik gelditu da!a dirudi; Olan ba, gizon anker-odoltiren irudia legetxe geliitu da Pir; eta, bere gurariaren eta egitekoaren bitartean geldituak lez, e.-tau ezer egin Pir'ek. Baña, sarritan dakusgunsz, ekatxaren aurretik eguratsa ixildu, tarratadak ixildu, axe asarrea baretu ta ibitu, eta beko mundu au eriotzea legetxe iirik eta iixirik gelditu-arren, otoz-otoan eta beingoan odei-astrapala ikaragarriak lurralde osoa urrututen dauen legetxe, olantxe, etxon-aldi-ostean, ostera be bere egitekoari deusala iminten dau Pir azaskatze iratzarriak; eta eguño ezta yausi izan errukirik gitxiagogaz Marte'n guda-koEkol iñoz mallatu-ezinarsn ganera Kiko'peren mallurik, Pir'en ezpata odoldua Pirama'ren ganera orain yausten dan baño... Ut, ut! Zori, emagaldu ori! Batzarreratu zadize, yainko guztiok, eta ksn-du egiozue Zoriari bere aia; ausi egizuez aren txirinkako adar, saiets eta mako guztiak, eta ortzeko mendia-bera bilinbolaka egotzi egizue sulezako txerreiitegiraño txirinka zitala, alangoa!

POL.—Luzeegi da orrako ori.

HAM.—Bizartegira yoango da zeure bizarrakaz batera. Aurvera, arren... Izkirimirien bat, naiz emagaldutegiko ipuien bat da oni gogoko yakona, cstant::ean loak artzen dau ori: ekin; Ekube'gana yo orain.

I ANTZ.—Baña, ene! ikustekoa zan erregeno a erdi-estalirik...

HAM.—"Eiregenoa erdi-estalirik?".

POL.—Dndo dago or; ondo dago "erregenoa erdi-estalirik".

I ANTZ.—Ortosik, batera ta besiera ariñeketan, negar itsuaz garrak itzali gurarik; len pitxizko burestuaa eroaten eian bere buruen sorki bat dauela, eta umaldiren umaldiz lokaturiko bere garri-bularren estalgitzat, bildurrak eraginda, arrapaladan arturiko mantarren bat ganera egotzirik; onako au ikusi eban edonok esango eukean, miña edenetan buzi-buzirik, azpikeri utsa dala Zoria; baña yainkoak ikusi izan ba'lebe a oriuau, Pir zakarrak aren senarraren soin-atalak zeatu ta txiki-txiki egiten eragoionean; entzun izan ba'lebez aren bat-baterako negar-arrantzak... eurai lur one-tako zerak zirkinik eragitekorik izatekotan, orrako orrek yainkoai be biotzak ausiko leuskioezan, eta ortzeko begi gorai bo negar eragingo leuskien.

POL.—Ara! aldctu yako arpegiko margoa, eta begietatik negarra dariola dago. Bego, arren, geiagorik ez.

HAM.—Ondo yagok; laster esanazoko daukat ganetikoa (POLON'ri) Ene adiskide on, zure ardurapean izten dot antzezlariok ondo artzea. Entzuten dozu, ondo artu oneik, oneik dira, ba, aldien laburpena ta yazokunen mamia: obiburuko zakarren bat oba izango yatsu il zadizanerako, bizi zareaneko onein zipladak baño.

POL.—Ene yaun, zergarri diran, alangotzat artuko d'odaz.

HAM.—Yaungoikoaren soña-arren, gizon, askoz be obeto: gizona zergarri dan, alangotzat artzekotan, nok eleuke bere bizkarra bero bero eginik? Zeure omena ta zeure aintzakotasuna zergarri diran, alangoxetzat artu ta erabili egizu: oneik zure gitxiago diran, ainbat goragarriago zure eskuabaltasuna. Barrura eroan egizuz.

POL.—Erdue, yaunak.

HAM.—Zarraikioez, adiskideok: biar entzungo dogu antzerkien bat. (Alda POLON'k eta lenenaodz beste cntzezlari guztiak). Entzut3n ete daustak, adiskide zar orrek? Egin al ete dozue Gonzago-ren erailteagazko antzerkia?

I ANTZ.—Bai, ene yaun.

HAM.—Biar arratsean antzeztuko dogu orrako ori; olangoren bearrik izatekotan, ikasiko zeunke nik idatzi ta antzerki orri erantsiko neunskion amabi-amasei bat lerroko itzaldia, ezta? Ez ete?

I ANTZ.—3ai orixe, ene yaun.

HAM.—Ori ondo. Arraikio yaun orri; eta irri-rik ez egin, gero, orri. (Alde lenengo cntzezlariak). (ERROS., eta GIL'eri) Ene adiskide maiteok, agur egingo dautsuet datoren arratserarte: ondo etorriak zarie Elnore'ra.

ERROS.—2ne yaun maite! (Alda ERROS., eta GIL'ak).

HAM.—Bai, eta Yaurgoikoa lagun izango al yatsue!... Bakarrik nago orain. Ene, ene; ni bai ba-naz zital ta yopu zakar lango zakarra! Ez ete da itzal be itzala antzezlari orrek, asmak3ta utsez, amesetako biotzaldian, bere buruan asmautakoaren alde bere biotzari orrenbesteraño eragin al izatea, biotzalciaren indarrez bere arpegia kolgora izteraño; negarrak ekarri begietara, galduen arpegia emon, abotsa ausi ta eten, eta igikune guztiari irudituari dagokozan ar.tzak arrazoteraño? Eta utsagaitik dana be! Ekube'gaitik, ala? Zer yako a Ekube'ri, zer Ekube ari, ak Ekube'gaitik ne-

gcmrik egiieko? Zsr eleuke egingo ak, biotzaldirako nire zegaitiak eta bideak ba' leuz? Ito egingo leuke antzeztetgia negararren negarrez, eta arrakaldu egingo leukez guztien belarriak itz gogor-latzez; burutik eragingo leuskio errudunari, eta ikaraturik itxi errugea; nasfurik it:dko leuke ez-yakina, eta agoa zabalik ikusmena ta entzumena eurak be. Eta orraiiño be ni, motel eta biozbako zital au, astia alpsrrik galtzen nago, Yon arduraiako lez, nire zegaitiak ardurarik emoten eztaustela, eta nik eztakit zer esan'be; ez, eztakit zer esan be atzenik zakarren eta askarriena emon izan yakon erregerik erregeen eta izan dan bizitarik maitagarriena izan ebanaren alde. Kikil ete naz, ba? Ez ete nau iñok deizital, tuko ez ete daust iñok alderik alde ausiko burua, niri bizarrak atera ta puzka arpegira egotziko, surretik ten egingo, eta ez ete nau guzurtauko eztarririk birietaraño? Ez ete dago niri olangorik egin legischedanik? Ba! Yaungoikoaren zauriak-arren, yasan egin bearko dot: eta izan be, usagibelak dodaz nik, urrean, eta eztot azpian egotea mingotzuko leuskidan beaztunik, ostantxean, cnangorik yasan baño len emen inguruko miru ta sai guztiak gizenduko neunkezan yopu zital orren aragiz: zital odolzale lizun ori! kezkabako, azpiyale, lizun, eta biozbako zital ori, alango ori! Ene! betor aspertzea! baña ni bai ba-naz

astotzarra! Nondik da nire adorea, nik aita maite erailaren seme onek, zeruak eta sulezeak biak batera nire burua aspertutera itzuli onek, emagalduren bat ba'nintz legetxe, nire biotzeko naibaga ta asarrea itz utsez iragarri ta emagaldurik emagaldue-na legetxe, neskato ontzi-garbitzalleak legetxe biraoka ekiteko! Uf! ken, ken! Eldu ta ekin egitekoari, ene garaunok! Entzunik dot errudun gizakumeak, antzerkien bat ikusten eta entzuten dagozala, ikuskizun asmoitsuak eraginik, dakusena biotz biotzean ukaturik, euren egite zantarrak gedarrez autortuteraño eldu izan dirala; eta izan be, itzik egingo dau erailteak, minbako izanarren, eta itz-gallurik arrigarrienaz itz egin be, Nire aitaren erailtea lango zeren bat antzsztuazoko dautset antzezlarioi nire osabearen arrean: aren mosuai oartuko naxake; aragi bizian ukutuko dautsat: kiñu baño besterik egin ezpa'dagi be, ba-dakit ze bide artu. Ba-ledike txerrena bera izatea nik ikusi dodan mamua: eta ba-daki txerrenak antz atsegingarriak artzen be; bai, eta ba-ledike, nire makal-aldia ta nire gotiluntasuna dirala-ta, ak niri iruzur egitea, ni galtzeka, a mutila da olango gogaldietatik bere alde egiten-eta: ori baño bide ta cñarri obarik, urragokorik izan gura dot: antzerkiz goatuko dot nik erregeren yakinkidetzea. (Alde dagi).

### III EKITALDI

#### 1 AGERLEKU.—Gazteluko Gela.

ERREGE, ERREGENO, POLONI, OPELE, ERROSENKARANT, eta GILDENESTEREN aurrera.

ER.—Ezin atera izan ete dautsazue, inguruka ta zearka-mearka, zegaitik bere burua olan nastu, ta tare izan bear leukien bere egunak zorakeri zurruntillotsu ta galgordetsuz kirrisk-karraskaka darahi'tzan?

ERROS.—3erak autortuten dau ak noraezean eta leloturik ibiiten dala; baña ezetara be eztau esan gura orrako ori nondik daiorkonik.

GIL.—Eztogu aurkituten a iñok aztertu dagian gogaldi egokitan be; bestera, zirrist egiten dasku, zorakeri marrotsuz, bere benetako egokereaz autorpenik atsra gura izaten dautsagunean.

ERREGEN.—Arrera txeratsua egin ete dautsue?

ERROS.—Aitonsemek egin legikenik eta txeratsuen.

GIL.—Baña bere gogaldiaz besterako indar andi eginik.

ERROS.—Itaunetara muker; baña orraitño be zabal zabal erantzun dautse gure eskariai.

ERREGEN.—Ezetariko olgetarako deirik egin ete dautsazue?

ERROS.—Andera, alanbearrez, antzezlari bazuk aurkitu doguz bidean, euretaz itz egin dautsagu, eta poz lango zera iragarri daue-la iruditu yaku; emen yaurregian dira nonbaiten antzezlariok, eta nire ustez agindurik dagoz arratseon aren aurrean antzerkieren bat antzeztuteko.



POL.—Bai, izan be; eta eske be eske egon yat zuon nagusiagotzai dei egin dagitsuedala antzerkia ikusteko.

ER.—Pozik baño pozago yoango naz; eta poz-ezitan nago ak gogo ori dnuela yakiteagaz... Aitonseme maiteok, zirikatu egizue a ostera be, eta atseginetara bultzau egizue.

ERROS.—Sgingo dogu orrako ori, ens yaun, (Alde ERROS., eta GIL'ek).

ER.—Gerturde kutun, goazen geu be; izan be, dei egin dautsagu Hamlet'eri eman Opele gaz bakarrik aurkitu dacin, alanbearez izan ba'litz lez; Opele'n aita eta nik egingo dogu legezko kuikalariena, eurak gu ikusteka geuk eurak ikusirik, ebatzi al dagigun, ak Opele'gazkoa zelan egin, kere gogaldia maitasunetik datorkonentz.

ERREGEN.—Zure esanera nagotsu ni: eta zugazko, Opele, zu al zara, zure edertasuna al da, zori onez, Hamlet'en uxotasunaren errudun; eta zure onindarrak izango al dira a barriro fcere leneratuko dabenak, zule ta bere omenerako.

OP.—Olan izango al da, andera. (Alde ERREGENOA'k).

POL.—Ope'le, batera ta besteraka itili zu emen. (EEREGE'n) Ementxe ostonfuko gara, eder ba'yako zure nagusiagotzeari. (OPHE'ni) Idazti au irakurten eragoiozu; orrek zurituko dau zu bakarrik egotea. (ERREGE'n) Sarritan izaten gara errudun onako onetan, eta agiri baño agiriago da, txerrena bera be gozoz estalduten dogula santu-mosuz eta egite yaungoikozalez.

ER.—(Bere kiteon) Ui! egi fcaño egiago da ori! Zartada lango zartadea emon dautsoe itzok nire yakinkidetzeari! Apaindu-aurretik emagalduren mosu apaindua ezta itsusiago niie itz ederpean nire eгина baño: nire zamearen astun!

POL.—Ba-dantzut ba-datorrela a: baztartu gadizan, ene yaun. (Alde ER'k eta POL.'k).

#### HAMLET aurrera.

HAM.—Izan, ala ez izan... au da yakin bear dana: zein ete da zindoago, zori okerraren arrikada ta geziak yasan, ala itsaso bete ezbear eta kez karen aurrean iskilluok artu ta eraso ta erasoz ezbear eta kezok amaitu? II... loak artzea da ori, fcestsrik ezer bez; eta loak arturik gure biotz-minak eta aragiari ondorengo yakozan terein fcerezko astinaldi amaituten doguzala esatea... gogoz be gogoz gura izateko atzena da. II-tea... loak artzea; loak artzea! ba-leiike

ames egitea: bai, ortxe dago, ba, koskea, eta izan be, geldituazo eragin bear dausku eskuana bizitza zurruncillotsu onen ostean zelango amesak etorri ledikeguzanaren bildurrak: orren lotseak eta bildurrak yasanazotsn dauskuz orren luzaro bizitza onetako ezbearrak; ostantxean nok yasateko bizitza onetako zartada ta ezepenak, azpian gaukazanaren okerrak, gizon arroaren irainak, erantzunik izan eztauen gure maitasunaren estukurak, zuzentzea geroratzek, agintariaren lotsabakokeriak, gure irabazi epetsuak gizon geztokandik artzen dauzan ostikadak, noberak fcere biziarena albandorratzen bategaz egin al izanazkerro? Nok eroateko bizkarrean zamatzarrik, nok egiteko alaketarik eta urrumerik, eta izerdirik ixuriko bizitza gogaikarriaren azpian, eriotza-osteko zerbaiten fcildurrik ez izatekotan... antiik inor be eztaon'en lurralde ezezagunaren bildurrak gure tiotza konkortuta itxi ta, ezezagun yakuzan neke-oñazeen billa yoan bagarik, doguzanak yasanazoko ez-oa-leuEkuz! Onan, guztiok egiten gauz kikil eta koldar gure yakinkidetzek; onan, zurbildurik izten dauz gure gogaketeak gure erabagiaren mosuko berezko kolore gorriak; eta erabagi ta asmorik gorengo ta andienak, orrako orren fcagirapenez eta bildurrez, fceste fciderik artu ta egifearen izena bera be galdu egiten dabe... Ixi'k nagon orain! Aor Opele liraira. Ur-neska, nire oben guztiak gogocituko al dozan ire arrenetan.

OP.—Sne yaun on, zelan ibili da zure dedua onenteste egunotan?

HAM.—Eskerrik arko zuri, apal apalik; onik eta ondo, onik eta ondo, onik eta ondo.

OP.—i!ne yaun, ba-dot nik zure esku-erakutsirik, eta aspaldidanik luze eretxita irago atzera zuri noz emongo; arren, oraintxe artu egidazuz.

HAM.—Y,z, nik ez; nik eztrutsvit ezer emon eguño.

OP.—Ere yaun dedutsu ta dedugarri ori, ondo daldzu zuk emon daustazula; eta esku-erakutsiez ganera eurak ederrago egin dabezan itz eder-gozorik asko be bai: euren sunda gozoa galdu dabenazkero, barriri artu egizuz, gogo zindoarentzako zirzildu egiten dira, ba, eurenze eder diran esku-erakutsiak, euren emoleak txerakor izateari agur egin dautsanean. Outsiz, ene yaun.

HAM.—Ja, ia! zindo ete zara?

OP.—Zer diñozu, ene yaun?

HAM.—Eder ete zara?

OP.—Zer esan gura dozu, yaun orrek?

HAM.—Zindo ta eder izatekotan, zure zindotasunak eleuskiola itzik egin bear zure edertasunari.

OP.—Edertasunak izan ete lei, ene yaun, zindotasunaz bestegaz ar'ii-emon oberik?

HAM.—Bai orixe; eta izan be, lenago aldaturko dau edertasunaren indarrak zindotasuna orain danetik emagaldutza, zindotasunaren indarrak edertasuna bera lango egin baño; ustez besterakotzat esten zan au beñola, baña orain egia dala erakutsi dau aliaak, Len maite zindudazan nik.

OP.—3zan be, orixe sinistua zeunstan.

HAM.—Etzeunksan sinistu bear olangorik, onindarrak ezin aldatu legike, ba, gure aldor zarra gure lenaren sundarik itxi bagarik: etzindudazan maite.

OP.—Olan izatekotan, ainbat eta iruzur eginago ni.

HAM.—Zoaz lekaimetegiren batera; zer dala-ta izan bear dozu obentiren sortzallerik? Ni neu zindo-samar nozu, baña orraitño be salatu negike r.ire burua zer batzuetan, eta oba litxakidan nire amak sortu ezpa-nindu: arro nozu, asperbera, geiagokeritsu; oben geiago dot bizkarrean, eurak oroituteko bururik baño, eurai antzik emoteko irudimenik baño, naiz, eurak burututeko astirik dodan baño. Zer egiteko ni langok zeniaren eta lurraren bitartean tatarrez ibiliaz? Guztiok gara zital uts, argi ta garbi esateko; ez sinistu gutatik inñori be. Lekaimetegira zoaz. Nonáik da zure aita?

OP.—Etxean, ene yaun.

HAM.—ñiteak giltzaz itxita egongo al da be-rean, bere etxeaz beste lekutan tentelarenik egin eztagian. Onik eta ondo iii'i.

OP.—Ene, ene! lagun zakioez, yainko maitteok!

HAM.—Ezkcndu ba'zadiz, izurri au emongo dautsut ezkonsaritzat... leia bestean garbi ta aratz izan zadiz, edurra bestean orban-ga, baña guzurrezko laidotik eztozu alde egingo. Lekaimetegien batera zoaz, zoaz, bai: onik eta ondo ibili. Ostantxean, nai ta nai ez kondu-bear gorririk ba'dozu, tentelen bategaz ezkondu zafiz, gizon zurrak ondo dakie, ba, zelango gizazakartzar-rak egiten dozuzan eurekaz. Lekaimetegi-ren batera zoaz, eta arin yoan be. Onik eta ondo ibili.

OP.—Zeruko alok, osatu egizue, arren!

HAM.—Bein baño geiagotan entzun dot mosua apainduten dozuela be; mosu bana emon dautsue Yaungoikoak, eta zuok zeuok

egiten dozue beste bana; ikutika ibiltan zarie, eperdi mokorrai eraginaz, bis-biska itz egiten dozue, eta izengoiak ezarten dautsazuez Yaungoikoak eginai, eta ezya-kintzat esten dozue zuon lotsabakokeria. Tira, eztot yarra gura bide orrstatik; burulik eragin daust orrako orrek. Nik diñodana da, eztdala gura aurrerantzean inñor ezkondu dadinik: ezkondu diranetatik, bizirik iraungo dabe batek ez besteak. Lekaimetegiren batera zoakez, bai, zoakez, (Alde dagi).

OP.—Ui! gogo zindo baño zindagoa itzuli ta lurreratu yaku emen! yauregitarraren, gudariaren, yakitunaren begia, miña, ezpatea: lege-erri ederraren itxaroa ta lorea, gaurkotasunarsn ispillua ta eratasunaren eredu, begiratzalla guztien begirakizuna... Itzulita, guztiz eta zeatz itzulita! Eta nik, anderazko guztietatik yausien eta zori txarrekoen onek, orren zinen, orren aginduen ezti gozoa edoski izan dodan onek, yoale ezti ausien otsa legetxe zakarturik, oskidetasunetik urtenda orren ebazpide zindo be zindoa ta ezin goragokoa latz eginda dakust; orren bardin bagako antza ta pipiletik urten-barri dan orren gaztetasuna beretik urtenaz zimelduta: ene, ene! nirearena, nik ikusia ikusi, ta orain au ikusi-beana!

ERREGI ta POLONI aurrera ostera be.

ER.—Maitasuna da!a! ez, eztaroa bide oriaren gogaldiak; eta ak esan dausna te, guztiz egcki esanik izan ez-arren, ezta izan burutik eginaren antzekorik; ba-dago aren biotzean zerbait aren gogaldi motela ganean dagokunik, eta arrautzotatik umeak yao dadizanean ba-dot nik arturiko erabagirik; Ingelanda'ra bidaliko dogu len baño len, zor dauskuen zergea aikandik ekarri dagiskun: zori orez, itsasoak eta bestetariko lurraldeak, bestetariko ikuski-zunez, uxatuko dabe orren biotzetik or yosiegi dauen zer ori, garaunak biotza yota, orren beretik al iminten dabe-ta. Zer deretxatsu orrako orretzaz?

POL.—On egingo dautso: baña orraitño be, nire ustez, orren naibagearen iturburua ta asiera yaramonik egin bagako maitasuna izan da. Kaxo, Opele! Eztozu Hamlet yaunak esan dautsunik esan-bearrik: dan dana entzun dogu. Ene yaun, zeuri deretxatsuna egizu, baña egokitatzat ba'dozu, antzerki-ostean bere oma erregenoak, biak bietara dagozala, beie naibagsa iragarri

dagiola eskatu dagiola ari; argi ta garbi itz egin dagiola amak; eta eder ba' daki-tsu, neuk entzungo dot arein arteko autu osoa. Bere amak ezin ba'dautso atcra aren ixilkizuna. Ingelanda'ra bidali egizu;

naiz, barruratu egizu Zure zuitasunari ondoen deretxon lekuan.

ER.—Olanxe egingo dogu; ezta yagoteka ortik zsar ibiltekorik andikien zorakeria. (Alde dagie).

#### I AGERLEKU.-Gazteluko bebarru bal.

HAMLET eta Arizezlari batzuk aurrera.

HAM.—Arren, nik ire aurrean egin dodcmez egik ire itzaldia, bigun eta gora-berak eginaz, baña zuotariko antzezlari askok egin daroenez egin ba'dagik, oba litxakidan nik idatziriko lerroak uriko aldarriak esatea. Ez akit ibili ire eskuz eguratsa geiegi ebaten be, onan; neurriz eta leun abil edozetan; izan be, esaterako, biotzaldia indartsu, zurrinbillotsu ta ekatxaren antzeko izan-arren, leun eta neurriz esatoko ekandua artu bear dok. Ene! biotzeraño minduten naiok buruan guzurrezko adastzarrara daroan antzezlari mardu'a biotzaldia zeatu, birrindu ta auts egiten ikusteak, antzekizun ixilen bat ikusteko ta zaratak entzuteko baño gauz eztirar.en belarriak austeke; narrua berotuko neunskio nik Termagante'na olan Termagante'k berak baño zakarrago egin gura dauenari; Eroda baño Eroda'go izan gura dauenari: arren, ez egik ik egin olangorik.

I ANTZ.—Seguru zagoz eztodala egingo olangorik.

HAM.—Ez adi izan epelegi be, eure sentzurenaren arauz yokatu baño; itzai dagokiezanak izan dadizala egiteak, eta egiteai dagokiezanak, itzak; auxe yagon beti be, berezko neurri ta lotsortasuna baño arago ez yoan bein be; izan be, neurriaz arago yo ba'dagik, alde egiten dok antzerkiaren elburutik, antzerkiaren elburua, fca, len, orain, eta gero be, berezko zer yatorra langoxe izatea dok; cnindarrari bere ezaugarriak emotea, dan langoxe erakustea; gaxindarrari bere irudia emotea, eta adin eta gizaldiai euren antz eta sakatutxo emotea. Ortik datorrena dok, egitekoa biziagi, naiz motelegi egin ba'dagik, orrako orrek ezyakinari ta orretan trebe eztanari barre eragin-arren, zurrentzako tamalgarri baño ezin izan ledikela; eta geiagotzat etsi bear dok onetariko gitxiren eretxia, antzeztegi bete osteangorena baño. Ene! Ikusita nago ni antzszlaririk antzeztutsn, eta eurak goratuen entzunda be ba-nago, ta ez gitxi be goratuten, eta, orraitño, euretz za-

karregi itzik ez egiteko, ez eben ez kistaren esakerarik, ez ibilkerarik, ez kistar ez-tiranenik fce, ezta gizonenik be, eta ain ollarkiro, ain zarataka egiten eben euren egitekoa-ta, susmotan yarri nintzan yatorrizkoa antzeztutsn asitako beargin trake-tsen batek egin e^azala ta aren eskueta-tik urten zirala alango, gizatasuna ain zarkar antzeztuten eben-eta.

I ANTZ.—Akats ori gure aitean polito zuzendu dala uste dot, yaun.

HAM.—Ui! poliko barik, guztiz eta zeatz zuzendu egizue. Eta zuotariko tentelak eztagiela esan eurak esatsko idatzita dagonaz besterik: ba-dagoz, ba, euren artean, lenen eurak barre egiten dabenak, banua utsik daben ikusla batzui barre eragiteko, naiz-ta, aldi atan berean ausmer eragiteko zeren bat an izan: zakarkeri dok orrako ori, eta geiagokari errukaria erakusten yok olango bidea artzen dauenagan. Oa, ta gertau zadize. (Antzezlariak alde).

POLONI, ERROSENKARANT, eta GILDENESTEREN aurrera.

Kaxo, ene yaun! Erregek ikusiko ete dau antzerki au?

POL.—Bai erregeroak be, eta bertatik alan be.

HAM.—Bizkortu dadizala agindu egiezu antzezlariai. (POLONI'k alde) Zuo fciok be lagun izango ete zatxakoez aik bizkortuten?

ERROS. eta Gil.—Bai, ene yaun. (Alde ERROS. eta GtL'ek).

HAM.—Ba! ee! Orati!

ORATI aurrera.

OR.—Emen nozu, yaun kutun, zure otseintzarako.

HAM.—Orati, eguño nire bizian ezautu dodan gizonik gizona augu i.

OR.—Ui! ene yaun...

HAM.—Ez egik egin arrituarenik, etxoat uste zurikeritan naiilenik; eta izan be, zeren begira egoteko ni igandik, yateko ta yazteko eure buru argiaz beste eskuarterik ez-

tokan ori'egandik? Zer dala-ta ibili bear yoagu zurikerietan ezeukiakaz? Ez, miñ eztsitsua, miñ labana dabilela fceideiako gangarkeriak miatzkatuten: ela belau-ixoko makurberak makurtu dadizala, ivabazirik zurikeriz atera gura dabenean, Entzuten ete daustak? Wite biotz maiea bere autaketearen yabe izan, eia gisonak alkaxregandik berezteko gauz zanean, fceretzat autu induan ak eta niretzat aut arrazkero; izan be, zori ontsu, naiz zori txarreko izan, arpegi-bardin artu dozak ik zoriaren irainak eta txerak: zori ontsu be zori ontsu dozak euren odoñak eia sentzuna egokiz nasturik eukita, Zoriak bere eskuz ze ots yo, alan yantzan egiten eztabenak. Ekadak biotzaldiaren yopu eztan gizona, eta biotz biotzean orango yoal gizon ori, bai, nire biotzaren biotzean, i eu aroadanez... Baña, bego. Antzerki bat antzeztuteko dozak arratseon erregeren aurrean; agerraldi bat etxabilt urrin nik esan neuskanez nire aitaren eriotzeak izan ebazan inguruko zeretatik: arren, ontzerkia une atara eldu dadinean, oar akio nire osabeari, ire gogoia atan oso-osorik iminita: antzerki orretako une orreian aren ei'fu ostonduak bere burua agertu ezpa-3agi, gogo gezlo gaiztetsietariko dok guk ikusi izan doguna; eta Buñkan'en errementaldegia bestean baltz dozak nire susmoak. Arduraz oar akio: nik neuk nire begiak aren arpegian yosi-yosirik eukiko yoazat eta gero, agazko gu bion eretxiak alkarganatuکو yoguzak,

OR.—Ori ondo, ene yaun: dirauen artean antzerkiak ezar cstú ba'dagi, nik ilcusi eztagidan, neuk ordainduko dol lapurretea,

HAM.—Ba-yatozak anizerkira; zoroarena egin bear yoat nik: artu egik yarlekuren bat.

Lanemarka'ko ibilketa-otsa. Turut-otsa, Aurre-ra ERREGE, ERREGENOA, POLONI, OPELE, ERRÖSENKARANT, GILDENESTEREN, eta beste batzuk.

ER.—Zelan dago gure illoba Hamlet?

HAM.—Itzalez ondo, bai orixe; eguratsetik bizi naz, eribeña lez; eguratsa yaten dot, agintzaz ganaz eginda nago-ta: onan etze-unkez gizenduko zure ollar irenduak.

ER.—Etxoat nik zer-ikussirik eranizun orregaz, Hamlet; eztozak ninerik itzok.

HAM.—Sz, ez ninerik be orain. (POLONI'ri) Egia ete da zuk bein, zuk yaun orrek diñozuez, irakastet:e nagusian antzezlartzea egin zebala?

POL.—Bai, egin neban, ene yaun, eta eratezlarri ontzat etsi ninduen.

HAM.—Sla norena egin zeban?

POL.—Yuli Kaisar'ena egin neban; Kapitoli'n erail niniuen; Eurtak erail nindun.

HAM.—Aberekeri lango aberekeria egin eban ak olango txaltzarra en erailcrs, Ger-turik ets dagoz antzszlariak?

ERROS.—Bai, ene yaun; zure aginduen begira dagoz.

ERREGEN.—Ator oca, ene Hamlet maite. nire aldamean yezarri adi,

HAM.—Ez, ama maite, (OPELE erakutsiaz) emen dago indartsuago nakarren burdinbia.

POL.—Ui! ba! (ERREGE'ri) oartuten zatxakoz orrako orri?

HAM.—Anderaño, zure altzoeñ yezarriko ete naz? (OPELE'n oñetan yezorten da).

OP.—Ez, ena yaun.

HAM.—Esan gura dodana zera da, ia nire burua zure altzoan iminiko dodan,

OP.—Ori bai, ene yaun.

HAM.—Zer zakarren bat esan gura nebala uste dozu, ala?

OP.—Szer be eztoz uste nik, ene yaun.

HAM.—Gogapen lirain da neskaen zango-bi-tartean etzatea.

OP.—Zer diñozu, ene yaun?

HAM.—Ezebez.

OP.—Gognlífi argi dozu, ene yaun,

HAM.—Nok? Nik, ala?

OP.—Bai, ene yaun,

HAM.—Ui! zutzako bakarrik naz tentel. Zer egiteko gizonek gogaldi argi izan baño? Eta izan be, ara nire amaren pozaren poza, eta ordu bi baño eztira nire aita il zala.

OP.—Sz, ile bi ta beste ainbeste dira zure aita il zala, ene yaun.

HAM.—Orrenbeste, ala? Ba, orrazkero, txerrena yantzi dadila soñeko baltzez, martatzko soñekorik ba-dot nik-eta. Zeruoak, zszruok! ile bi a il zala-ta, oraindik be aztu ez? Orrazkero, ba-da itzarorik, gizon andiren gomutea bere bizia baño urte-erdi luzarago fcizi ledikela; baña, gure Anderea-arren, yauretxeen batzuk eragi bearko dauz orretarako, ostantxean -ñor ezta oroituko agaz, zurezko zalJii::oaren obi-ganeko idazkuneak diñoenez: "Ai ene, ba, ai ene, ba, il zan zurezko zalditxoa, eta ñor be ezta oroituten beragaz".

Zaamiolen otsa. Errege ta Erregeno bat aurrera, alkarregaz maitemindurik dagozala dirudienak; besartean alkar estututen dabela, Belaunbikatu egiten da Erregenoa,

eta maite dauelarena dagitso Erregeri. Erre-  
genoa eragi ta aren idunari deusala imin-  
ten dau bere burua Erregek: loradum mu-  
ne-ganean etzaten da Errege: Bein loak ar-  
tu dauenean, an izten dau. Bertatik dator  
urli bat, burestuna ltentzen dausto, mun  
dagitso burestunari, eta Erregeri belarri-zu-  
loetara eiena ixuri ta alde dagi. Atzera da-  
tor Erregenoa; ilik didoro Erregea, eta nai-  
bagetuarenak egiten dauz. Bi, naiz iru bat  
izka arturik, atzera dator Edentzallea, Ere-  
genoagaz batera ak berak be naibagetu-  
arenak eginaz. Atera egiten dabe andik ila.  
Maitasun-agiriak dagitsoz Edentzalleak  
Erregenoari: lotsatuarena ta gogoaz beste-  
rakoarena dagi no ak apur baten, baña  
gerora ontzat artzen dau Edentzallearen  
maitasuna. (Alde dagie).

OP.—Zer esan gura dau orrako orrek, ene  
yaun?

HAM.—Ba; utsa; argi ta garbi itz egiten da-  
nean okerreri, gaiztakeri esaten yakona.

OP.—Ba-ledíke orrako ori antzerki onen ma-  
mia izatea.

{Aurre-itzak esango dauzana aurrera}.

HAM.—Urli orren bitartez yakingo dogu: ezin  
gorde ixilkizunik antzezlariak; dana esan-  
go dabe orreik.

OP.—Esango ete dauku zer esan gura izan  
dauen erakusketa orrek?

HAM.—Bai, beste edozer erakutsi ba'dagio-  
zu be; zeu lotsatu ezpa-zadiz orri erakus-  
ten, ori ezta lotsatuko zer esan gura dauen  
zuri esateko.

OP.—Okerra zara orraitíño, bai, okerra za-  
ra: adi egongo natxako antzerkiari.

AURRE-ITZA.—Bai geutzako, bai gure odol-  
antzerkiarentzako

Epez entzun gagizuezala eske ta eske ga-  
gotzuez.

Zuon biozperatasunaren aurrean makurtu-  
rik. (Alde dagi).

HAM.—Aurre-itz, ala erastuneko idazkune-  
ren bat dogu au?

OP.—Labur be laur izan da, ene yaun.

HAM.—Emakumearen maitasuna langoxe.

ERREGE ta ERREGENO bat aurrera.

ERREGE ANTZ.—Ogei ta amar aldi betez bi-  
ra egin dautse Poiba'ren burdiak

Netun'en gezalari ta Tellus'en Lur borobi-  
lari,

Eta ogei ta amar amabiko iretargik, argi  
yesanez,

Amabi ogei ta amarreko bider ludia batu  
izan dau,

Maitasunak gure biotzak, eta imen'alc gu-  
re eskuak

Galartzurik gureneuz alkarregaz batu eba-  
zanetik (5).

ERREGENO ANTZ.—Ostera be beste orren-  
beste bidaldi zenbatuazoko

Al daukuez eguzki-itargiak maitasuna  
itzal-aurretik!

Baña nirearena! orren gexorik zagoz zu  
oraints,

Orren urrin pozetik eta lenagoko zure ego-  
tetik-eta,

Eztot uste onik zugan. Baña nik uste onik  
izan ez-arren,

Etzauz ezek kezkatu bear, ene yaun, ezer-  
txok be ez:

Izan be, oin-bardin doaz emakumeen tu-  
kuak eta maitasuna;

Edo biak uts, edo biak geiegiak.

Or dozu erakutsirik orain noragiñoiko dan  
nire maitasuna,

Eta nire maitasuna besteko dira nire tu-  
kuak:

Maitasuna andi danean, ezpairik txikienak  
be bildur:

Bildur txikiak azten diranean, maitasuna be  
azi egiten.

ERREGE ANTZ.—Bai izan be; itxi egin bear  
zauzaz, eta laster itxi be;

Ibci egiten dabe nire alak euren egikizuna;  
Eta bizirik geldituko zatxataz mundu eder  
onetan nire.

Ostean, dedutsu ta maitaturik; eta zori onez,  
ni bestean

Txerakor dan senarrik izango dozvi zu...

ERREGENO ANTZ.—Ut, ut!

Azpikeri izan bear yako olango maitasuna  
zure biotzari:

Biraotua izango al naz beste senarrik izan  
ba'dagit!

Bigarrenegaz ezta ezkondu lenengoa erail  
eztauenik,

HAM.—(Bere kiteain) Bixigo-bedana, bixigo-  
bedarra,

ERREGENO ANTZ.—Irabazi zakarrarenak di-  
ra, ez maitasunarenak,

Bigarren ezkontzarako eragiten daben ze-  
gaitiak;

Bigarrenez erailten dot nire senarra zana  
Bigarrenari ocan mun egiten dautsaianean,

(5) Eguzkia yatsu, irakurla, "Poiba" da-  
laiko au emen; Lur au, ostera, "Tellus" dala-  
koa.

ERREGA ANTZ.—Sinlsten dot ainisten dozula orain diñozuna;  
 Baña sarritan austen dogu guk gure erabagia,  
 Gomutearen ondasun eta bendeko da erabagia:  
 Mardul yaiotzan, baña merro uts gerora:  
 Igal e'tzakea lez, orain zugatzari deutzola dago,  
 Baña astindu barik yalten da bein umaluzkero.  
 Bear-bearreko yaku geure buruari zor dau-tsaguna  
 Ordaindutea azlutea:  
 Eiotzaldian geutzako erabagiten doguna,  
 Bein biotzaldia yoanazkero, bertanbera itxi daroagu.  
 Eurak manatuten dabez euren umeak, euren eginak,  
 Poz, naiz naibaga andiegiak;  
 Pozik asarreena danean egin daroaz negarrik andienak naibageak;  
 Aldakuntzarik t:ikiena da asko naibagea pozteko, poza naibagetzeko.  
 Ezta betikorik ludi au; eta ezta bape arri-tzekorik eta iñondikorik  
 Gure maitasuna be geuri yazoten yakunagaz aldatutea;  
 Eta izan be, oraindik ebazteko dago ala Maitasuna dan zori onaren aurreko, ala zori ona maitasunaren aurreko.  
 Bein gizon andia yausiazkero, ba-doa, eta arin, bere kutuna;  
 Gora igoten da beartsua, eta adiskide dauz lengo arerioak.  
 Eta maitasuna zoriaren ain bendeko da-ta, bear eztauenak be izango dau adiskiderik, Eta bearrean dagonak adiskidetzat dauena be arerio idoroko dau.  
 Baña asirik dodana ondo amaituteko...  
 Gure gurariak eta gure zoriak ain aurrsz-aurreko bidez bide  
 Doaz-eta, gure dira gure asmoak, baña euren atzenak ez dira gurerik:  
 Olan uste dozu zuk etzareala ezkonduko beste senarregaz,  
 Baña il egingo da zure uste ori zure lenengo yauna il dadinean.  
 ERREGENO ANTZ.—Lurrak ez al daust emongo yakirik, ezta zeruak be argirik!  
 Ez al dot izctngo ez pozik, ez bakerik, ez gabaz, ez egunez!  
 Etsiko al dira nire sinistea ta nire itxaroa!  
 Padar baituaren poza izango al da nire elburua!  
 Pozaren mosua zurbiltzen daben ezbear guztiak

Setoz nire guraririk kutunenen aurka, eurrak manatzeko!

Sai ludi onetan, bai bestean, ezbearrik andienak yarraiko al yataz,  
 Bein alargunduazkero, barrio iñoren emazte izan ba'nadi!

HAM.—(OPELE'ri). Eta oraintxe ausi ba'legl orrek zin ori?

ERREGA ANTZ.—Zin sakon da orrako ori. Kutun, itxi nagizu emen apur baten; motel dot burua, eta ziria sartu gura dauzat egualdiaren gogaikarritasunari. (Loak <n-rzen dau).

ERREGENO ANTZ.—Loak eragingo ed dautszure garaunai.

Eta ezbearrik ez al yaku etorribo guri bio!  
 (Alde dagi).

HAM. Andera, gogoko ete yatsu antzerki au?

ERREGENO.—Agir'tza geiegi egiten dau andera orrek, nire ustez.

HAM.—Ui! beteko dau orraitioño bere itza.  
 ER.—Entzun ete dok nora yoten dauen antzerki onek? Ez ete yok ezetariko irainik?

HAM.—Ez, ez, txantxetan baño eztagaragioe, txantxetako edena; eztagg or ezetariko irainik.

ER.—Ze izen yok antzerkiak?

HAM —Sagu-goakallua, Sagu-marioa. Zelan esan dot? Olangotsu da irudikiz. Eiena'n egindako erailketaren antzerl'tia yatsu au: Gontzago yako izena dukeari; Batiste, aren emazteari: berta'uk dakuskezu; iñondiko txerrenkeri yatsu antzerki au; baña zer dautso ardura? Eztau ukututen ez zure nagusiagotzea, ez gu, errubako biotzak doguzanok: ostikadak emon baño eztau zaldízar zaurituak; zindo dogu guk gure bizkarrara.

LUKEN aurrera.

Luken dalaksa da au, erregeren llobea.

OP.—Bikain dagizu zuk abeslari-taldeaiena (6V ene yaun.

HAM.—Zure ta zure maitearen bitartekoarena egin-ezinik eztoz nik, antzetegian maiteminduena egitsn ikusiko ba'zindukiedaz.

OP.—Zorrotz zara zu, ene yaun, zorrotz zara zu.

(6) Elade'ko antzerkietan abeslari-taldeak (chorcs) iragarfen eban oiitzerkian urren zer etorren.

HAM.—Urrume bat litxaktsu asko nra agoa amustuteko.

OP.—Txarretik txarragora beti!

HAM.—Ori egíten dozue zuok senarrak artzen dozuezanean. (LUKENi) Tiruk, asi adi, eraile ori! Izurriak eroango al au, itxi egizak mosu askarriok eta asi adi. Tiruk: "Aspertzee-eske dago bela garrankaria..."

I.LUK.—Baltzak gogaketak, itzulirik eskuak, gerturik osakeiak, eta aldia be eriskide; Lagun abagunea, besterik iñor ez ikusten; Naste iguingarri ori, gaberóUz baturiko bedarretatiko ori,

Ekate'n biraoz irutan gaiztetsl, irutan kutsalu orrek.

Sartu bertalik ire eurezko lilura ta eureta-sun itzala,

Bizitza osasungarrilaren lekua euxetzako artuta. (Lotaai datzanari belarri-zuloetara ixur-tzen dausto).

HAM.—Kendu egiten dau baratzean, agintaritzea kentzeko. Gontzago yako izena: or dabil ipuin ori, ta italerarik txairoenez dago idatzita: bertatik ikusiko dozu Gontzago'ren emnztearen maitasuna yadisten dauela eraileak.

OP.—Yagiten doa errege.

HAM.—Ostera! irudituriko auak ikaturik! ERREGENO,—(ERREGEn) Zelan zagoz, ene yaun?

POL.—(Antzezlariari) Eten egizue antzerkia.

ER.—Argi egidazue: goazen!

GUZTIAK.—Argiak, argiak argiak! (Alde ORATI ta HAMLET'ez beste guztiak).

HAM.—Ba! doazala negarrez orein zaurituak,

Orein gazte zindoak olgetan beragoio;

Atzarrik egon bear, ba, batzuk, beste batzuk lo egin bear-ta:

Olan doa mundu denganiñoa-ta,

Ez ete dok uste, yaun, onako onegaz. lumazko basogaz eta nire oski ebagietan Porbentza'tiko larrosa bana dodazala oraindik ara zoria muker eta arerio egingo ba'litxakidak, antzezlari-taldeak euren kidetzat artuko nindukiela?

OR.—Aloger-erdikinagaz.

HAM.—Bai zera! aloger osoagaz!

Euk dakikanez, ba, Damon maite.

Yupiter berana zoan erregerri lur-yo au;

Eta indi-ollarra bera dok orain emengo errege.

OR.—Itz neurtuz esan einkean orrako ori.

HAM.—Orati maite ori, milla libera yokatuko naieunkezak arako mamuaren itzen alde. Oartu ete atxako?

OR.—Ondo be ondo, ene yaun.

HAM.—Edenduteaz itz egin dauenean, ala? OR.—Ondo be ondo oartu natxako.

HAM.—Bai, e? Tira, betor eresí apuj bat! Betoz txistulariak!

Eta izan be, errogeri gogoko ezpa'yako antzerkia,

Etxako, urrean, eta, zer egingo dautsagu, ba, arranoa.

Tira, betor eresirik arean!

ERROSENKARANTZ eta GILDENESTEREN aurrera barrien-barri.

GIL.—Ene yaun maite, zuri itz bat egiten itxiko al daustazu.

HAM.—Ipuin osorik be esaik, gura ba'dok. yaun.

GIL.—Errege, yaun...

HAM.—Bai, yaun, zer yazoten yakok?

GIL.—Gorputzaldi txarragaz dago bere gelan. *bai txar be* txarragaz.

HAM.—Edanaren edanez, ala?

GIL.—Ez, ene yaun, asarrez baño.

HAM.—Zurrago intzakean, orrako ori aren osagileari iragarri ba'eunto; nik ari barru-garbikinen bat agindutekotan, *a asarreago* yarriko litzakek, urrean, eta.

GIL.—Ene yaun maite, esanguraen bat emoiozu zure itzaldiari, eta ez egizu ari-tik orren zakarkiro zirrist egin.

HAM.—Bare ta otzan naiagok ni. yaun; esaik esatekoa.

GIL.—Erregenoa, zure ama, naibagatu baffo naibagatuago dago, ta zure billa bidali nau.

HAM.—Ondo etorria augu.

GIL.—Ez, ori ez, ene yaun maite; txera ori ezta yatorrik. Sentzunezko erantzunik emotea eder ba'dakitsu, beteko dot zure amaren agindua; ezpa-dakitsu, azketsi. parkatu nagizu ta or amaituko da nire arrazoa.

HAM.—Ba, ezin yoat, yaun.

GIL.—Zer ezin dozu, ene yaun?

HAM.—Sentzunezko erantzunik iri emon; ge-xorik yagok nire burua: baño emon al dagidana nik emon, ik, naiz, ik diñokanez, nire amak, zeuok zer-gura egizue beragaz; orrazkero, ba, geiagoko barik, arira: ik diñokanez, nire amak...

ERROS.—Olan, ba, au diño ak: agoa zabalik eta ikaturik itxi dauela bera zure-eragoak, zure yokabideak.

HAM.—Seme onen itzal eta andi, bere *ama* ikaratuteko be gauz da-ta!... Baña ez ete dator ezer ama onen ikaratzearen ostetik?

ERROS.—Zu oeratu-aurretik zuk beragaz itz egin d gizula gura dau ak,

HAM.—Egingo dogu aren esana, *a* ctmar bider ba'litz be gure ama. Ez eta dozue beste arazorik n'itzako?

ERROS.—Ene yaun, beñola maífe ninduzun zuk.

HAM.—Oraindik be maite aut, eta zin eginen yoat esku obentioak-arren.

ERROS.—Ene yaun maite, zer dala-ta dozu gogaldi txar ori? Seguru be seguru, zure naibageak zure adiskideai ustu- ezagaz, itxi egiten dozuz zure nasaitasunerako atea eta bideak.

HAM.—Etxoat nik aurrera egiteko biderik.

ERROS.—Zelan ez aurrera egiteko biderik, erregeak berak aginduta euki zeu izango zareala Danemarka'n bere ondorengo-ta?

HAM.—Bai, baña "Bedarra azten dan arren..." zarraren zarrez urdinduta be ba-yagok esakune zar ori.

(Antzezleriak aurrera barriro, txistuekz).

Ui! txistuak... ekadazue bat... (GILD.'ri) Bakarrean iri itz egiteko..., zer dala-ta abil niri inguruka ta zirika, goakalluen baten goatu gura ba'nindukek legetxe?

GIL.—Ui! ene yaun, azamegi ba'da nire egitekoea bete- gurea, andiegi da nire maitasuna.

HAM.—Etxoat ondo cituten orrako ori. Yo gura ete dok txistu au?

GIL.—Eziakit yoten, ene yaun.

HAM.—Yoik arren.

GIL.—Siristu egidazu, eztakit yoten.

HAM.—Yo egik, arren.

GIL.—Eztakit zelan erabili be, ene yaun.

HAM.—Guzurra esatea bestean erraza dok au yotea; ibd ta idigi egizak axe-zulook ire atzorkolo ta atzagaz, putz egick agoaz, eta eresi lango eresia emongo yok. ñiko, oneik dozak atatak.

GIL.—Baña ezin dodaz erabili atakok ereskidetzarik emonazoteko lez; eztot orretarako trebetasunik, ez ganorarik.

HAM.—Aiko, ba, ikusik orain zelango zer gauz ezereza egin gura dokan nigaz! Ni yo gura nok ik; ezagun dozak ik nire ataktik, urrean; nire ixilkizuten ixilkizuna atera gura daustak ik; aztertu egin gura nok ik, nire otsik gorengotik berengorañoakoak nire oskinari aterata: eta oskin onetan ain-

beste eresi ta abots ain bikaina aurkituarrren, ezin dautsazuo zuok itzik eragin. Yaungoikoaren odola-arren, txistua baño errezagao yotekotzat nozue ni, ala? Zeuok gura dozuen oskallutzat artu ba'nagizue be, eta aleginak alegin egin ba'dagizue be, enozue yoko ni, eztaustazue aterako otsik.

POLONI aurrera.

Yaungoikoak onetsiko al zauz, yaun!

POL.—Ene yaun, zugaz itz egin gura dau erregenoak, eta bertatik egin be.

HAM.—Ete dakusazu an aragoan *a* kameluantzeko odeia?

POL.—Mezea-arren, kamelu-langoxe da izan be.

HAM.—Ogigaztaiaren antzeko dala uste dot nik.

POL.—Ogigaztaarsn bizkarra dau izan be.

HAM.—Ez ete da balearen antzeko?

POL.—Balearen antzeko baño antzekoago.

HAM.—Tira ba, bertaiak yoango naz nire amagana. (Bere kitean) Burutik eragin bear dauste oneik, efa zearo eragin be. Bertatik nocike.

POL.—Orix e saanga dautsat.

HAM.—Ain esaien dana da "bertatik" (POLONIc alde) Bakarrik íti nagizue, adiskideok. (Alde dagie ERROS., GIL., ORATI, ta Antzezleriak). Sorginak ibiltzen diran gaurtertzioa da au, ilobiak agoa idigi, eta sulezeak berak bere arnasan ludi oni kutsua bidaltzen danisan aldia; odol beroa be edango neunke nik orain, eta egunak ikusiko ba'nindu, dariaraka geldituko litzaiken egikizun itzalik be egingo neunke nik. Geldi! Nirs amagana ycan bear dot orain... Ene biotz ori, ez egik gaidu ire izakerea; ez al da bein be sariuko bular sendo onetan Neron'en biotzik! Gogor eta anker izango al naz, baña ez yaiotzeaz besterakorik; ezpatak urtengo dira nire agotik, baña eztoi erabiliko bitt bera be; nire miña ta nire gogoia bicsk izango al dira oneian azaluts, eta nire itzak a zsatu ta txiki-txikitu ba'dagie be, ene biotz, ez al naz eyitecia-raño eiduko! (Alde dagi).



## III AGERLEKU,-Gazteluko Gela.

ERREGÉ, ERROSENKARANTZ eta GILDENESTEREN aurrera.

E.—Etxat a bape gogoko; gu geu be ezka-goz bape seguru aren zorakeria or aldarrai dabilen artean. Gertau zadize, ba; bertatik gertauko dot zuon egitekoa, ta Inge-landa'ra yoango da a zuokaz; ezin egon ledike luzarago gure lege-erria ordutik or-dura aren zorakerietatik datorkozan galbi-deen bendeen.

GIL.—Geuk egingo doguz gure gertakizunak; bildur guren be guren eta yainkozko da zugandik bizi ta yaten daben ainbeste ta ainbesteren bizirik seguru eukitekoa.

ERROS.—Edonor ba'dago bearturik bere biza bere buiu-biotzak emon leiskoen indar eta kemen osoz yagoteko, cislozaz be beartuago dago bera onik eta ondo egotetik askoren atsedena, nasaitósuna ta biziak dingilizka dauzana. Bera bakarrik ezta il-ten nagusiagotzea ilten danean; itxas-kol-koak egin daroanez, urrean dagozan zer guztiak iruntsi baño: mendizarraren tontor-rean dagon txirrinka astuna langotsu da, bere izpizarrai deusela amar milla zer txikiago dauzctna langotsu; txirrinkea andik bera datorrean, bere astrapala eskarga ta ondamendiagaz batera, an doaz ari deutoen zer IXikiago guztiak be. Egu-ño eztat erregek intziririk egin bukarrean, beragaz batera erri osoak urruma ta int-ziri egiteka.

ER.—Gertau zadize, arren, axeango bidaldi onetarako; eta izan be, lokarriz lotu ta es-tu gura dogu oñak yareiegi darabiltzan bil-dur au.

ERROS. eta GIL.—Eizkor eta zoli ibiliko gara gu. (Alde ERROS. eta GIL.'ek).

## POLONI aurrera.

POL.—Ene yaun, ba-doa a bere amaren ge-lara: errezelaren ostein ostonduko naz, euren arteko autuaren zeaztasunak entzute-ko; aragi bizian ukutuko dau ak, bai ori-xe; eta zuk esan dozunez, eta zur esan be, egoki baño egokiago da galgorde ba-garik, amak ezeze, beste norbaitek be euren arteko autua entzutea, yaiotzati-koak aik alkarren aldeko egiten dauz-eta. Onik eta ondo ibili, ene nagusi: zu oeratu-au-rretik elduko natxatsu, eta dakikedanaren barri emongo dautsut.

ER.—Eskerrik asko, ene yaun maite. (Alde POLONIT'k).

Ui! ustel be ustel da nire obena-ta, zeruragi-ño be eltzen da bere andurra; biraorik za-rrena ta lenena dau beragan, anai-erailke-tearena! Ezin dot arrenik egin, orretara-ko guraririk biziena izan-arren: nire lera indartsua baño sendoago da nire errua; eta egikizun bi dauzan gizonaren antzera, nenclik asi ezta kidala, katari be eltze-ko nago. Esku gaiztetsi askarri au anaiearen odolagaz berez dan baño lodiago egin izan ba'litz... ez ete lebe zeru eztiak euri-rik asko edurra bestean zuri iminteko? Ze-tarako ete da errukia, erruari ez ikusiare-na egiteko baño? Eta zer dau arrenak on-ko zer bioz besterilz... zera, zurtu yausi-aurretik, eta bain yausiazkero azketsi, par-katu baño? Olan ba, gora eragiko dodaz begiak; egina da nire obena. Baña, ene! zetariko arrenik, zetariko otoitzik gauz izan-go ete yat ereti onetan? "Azketsi egidazu oben zakar au"... Ez, ezin izan ledike, al-dean dodaz oraindik erailtera baltzau nin-duen ondorenak- eta, nire burestuna, nire geiagokeria, eta nire erregeoa. Azketsi ete legike ostu dauena euki daukan artean? Ludi cnefako uriol usteletan, bultz eginda, obenaren esku uneztauak baztatu legike zuzentzea; eta sarritan ikusten dana da bi-de geztos eskuratu danak berak erosten dauela zuzentzea: baña an goian ezta ya-zoten olangorik; an eztago nastauaz iru-zur egiterik..., bere izakera yatorrez agiri da egina an; eta an gu geu be bearturik aurkituten gara gure utsak argi ta garbi autortutera. Zer ba? Zer egiteko? Damutu-tera aleginda. Zer ez ez egiteko damuak? Nire egokerearen zori txarreko! Ene biotz ori, eriotzea bestean baltz ago i! Lupetzan sartu baño sartuago i, ene gogo ori, ya-reiteko indarka barrurago sartu baño ez-tok egiten-eta! Lagun zakidaze, angeruok! alegindu zadize: makurtu zadize, belauan gogorrok; eta i, biotz ori, galtzaiduzko ari-dun ori, bigundu, beratu akit ume yai-o-parriaren zamilak legetxe! Dana zuzendu-ko al da. (Alde egin eta belaubiko yar-ten da).

## HAMLET aurrera.

HAM.—Oraintxe yo neike nik, oraintxe, arren egiten daragoiola; eta oraintxe egin bs egingo dot; eta zerura lioake olan; eta azazkatu-rik geldituko nintzake olan: aus-mer egin bear dot: zital batek erailtten dau

nire uitu étu, erregaitik nik, úreii seme bukkarak, zerura bidalduten dot zital ori berori. Ene! alogerekoa artu ta alogera ordaindutea da au, ez azazkatzerik. Zakarkiro eraii eban orrek nire aita, o ogiz okiturik, aseturik egoala; bere oben guztiak loratan ebazala, Orrila bestean guri egozanean; eta Yaungoikoaz bestek nok daki aren sartu-urtenak zelan egozan? Orrailiño be, gure ustez eta agiri danez, egoke-ra larrian aurkituten da a; eta au onan izanik, azazkatzerik geldituko ete naz ni, go-go garbiturik dauela, beste mundurako gerturik eta urnaturik dagola orri bizia kenduaz? Ez, Ire lelcara atzera, ezpata; ereti ikaragarriagoen baten begira ago; noz

egongo orí mozkerlurik, lotan, nalz asatre bizian; naiz, bere oeko senikeri-alsegine-tan; yokoan, zinka ta añaenka; naiz, zeru-sainik eztauen zeren bateri daragoiola; orduan itzuli egik buruz bera ta ostiko-z gora, zeruari ostikoka egin dagion; eta ori ara doan sulezea bestean gaiztetsi ta baltz izan dadin orren gogoa. Nire begira dago nire ama: (EEREGE'ri) ire ordu larriak luzatu baño elxok egingo osakai onek, (Alde dagi).

ER.—(Yagi ta aurrera dator). Nire itzak doaz gora, bean geldituten dira nire gogaketak; bein be ezтира yoaten gora gogaketa bagako itzak. (Alde dagi),

#### IV fitGEHLEKU.-Gazteluko beste Gela bat.

ERREGENOA ta POLG aurrera.

POL.—Bertatik etorriko da a. Aragi bizian ukutu egizu, gero; aren zorakeriak azarriegi izan dirala iñok yasan al izateko, ta zeu izan zareala aren eta aganako asarrearen bitarteko esaiozu. Emen ostonduko naz ni. Arren, argi ta garbi itz egio-zu.

HAM.—(Bcurutik). Ama, ama, ama!

ERREGEN.—Seguru agon: ez izan nire bildurrik; alde egizu, ba-dantzut ba-datorrelata, (POLONI'k cilde errezelaren ostera).

HAMLET aurrera.

HAM.—Xaxo, ama, zer yazoten da?

ERREGEN.—Hamle, min be min egin dau-tsak ik ire aitari.

HAM.—Ama, zuk zeuk bai min lango mina egin dauzsazu nire aitari.

ERREGEN.—Tira, tira, sentzun bagarik erantzuten dok ik.

HAM.—Tira, tira, zuk, ostera, miñ geztosz itanduten dozu.

ERREGEN.—Ostrra! ori be bai, Hamlet!

HAM.—Zer yazoten da, ba?

ERREGEN.—Azuta naukak, ala?

HAM.—Ez, kurutza gurena- arren, ez olan-gorik; erregenoa zara zu, zure senarraren anaiearen emaztea; eta..., ez al zintzaz olangorik! nire ama zara zu.

ERREGEN.—Ori olan ba'dok, bidaliko dauskazat iri itz egin al izango dauskaenak.

HAM.—Tira, tira, yezarri zadiz; eztozu emendik zirrist egingo; etzara yoango emendik, zure barrukorik barrukoena an ikusi al izango dozun ispillua nik zuri aurrean imini arte.

ERREGEN.—Zer egiteko az? Erail egin bear ete nok, ba?,, Lagun zakidaze, lagun zakidaze. ee!

POL.—(Atzetik). Zer yazoten da? Eee! lagun, lagun, lagun!

HAM.—Ostera! Sagutzarren bat, ala? (Ezpar-tea ateraten dau). Ilik! duket bat egingo neunke ilik dala! (Ezpatctkadea yaurtiter<sup>1</sup> dau errezela zear).

POL.—(Osetik). Ai ene! eraii nabeí (Ymisi ía il egiten da).

ERREGEN.—Ai ene! zer egin dok?

HAM.—Zer dakit nik? Errege da, ala? (Aurrera dakar tatarrez POLONI).

ERREGEN.—Ene! bat-bateko egite onen odoltsu!

HAM.—Egite odoltsu!.. larri-larri erregeren bat erail eta aren anaieagaz ezlontzea bestean egite geztosa, ama maite.

ERREGEN.—Erregeren bat erailtea bestean!

HAM.—Bai, andera, ori esan dot. (POLONI'ri) Onik eta ondo abil i, zori txarreko azarriegi, bear eztan lekuan sartzeko zoro ori! I baño andiagotzat artu aut: ire zoriari arraiki; galgorderen baten sartuegi aurkitu dok ire burua... (EEREGENOA'ri) Itxi egizu zure atzak kirimiltze ori: baretu zadiz; yezarri zadiz, eta zure biotari eragiten itxi egidazu, orixe egin be egingo dot, zulatu lediken zerezkorik ba'da zure biotz ori; ekandu geztosa koskol zula-ezinik eta minik artu-ezinik ezarri ezpa'dautso.

ERREGEN.—Zer egin yoat nik, ik ire miñari nire aurka orrenbeste zarata zakarrez eragiteko?

HAM.—Lotsearen ederra ta koloro gorriak ezerestuten dauzana lango egitea; azalus-

keia onidar defütuen dcutuena; maite errugaren mosu ederretik lorea kendu ta an ikorzirina iminten dauena; ezkontzako zinak yokalariarenak bestean ustel egiten dauzana. Ene! ezkontza-ogiunearen soñari gogoia kendu ta yaurespide ezitia irri utsezko itzetara aldatuten dauena langoxea; lotsaz gorriturik dagoz zeruak, bai, eta ludi gogor onen mami yosia bera be mosua moteldurik dago, azken-epai-eguna balitz legetxe moteldurik eta egite onen iguinez getoturik ba'lego legetxe.

ERREGEN.—Ai ene! ze egite ete da, bere iragarteak berak onenbesteko orroa zoliak eta ostotsak ateraten dauzana?

HAM.—Begiratu irudi au, eta beste au be; anai biren irudiak, antzak aurkituten dira emen. Ikusi mosu onen ederra; Ipsrion'en ulle-kizkurrak; Yupiter'en arpegia bera; Marte'nak langoxe begiak, zemaitu ta aginduteko; ortzeari mun dagitson mendi-tontorrera yatsibarrri dan Merkuri geznariarena langoxe yasea; izan be, aren bilbakerea ta aren antza begiratuaz, yainko bakotzak agan bere ikurratza ezarri ebala, esan edikean mundua seguru egon edin gizon yatorrik ba-ebala agan: au eta onango zan zure senarra... Begiratu orain beste au; emen dozu zure senarra, bere anaia, cjolbufu zindoa, galburu galbakotu, ilintxatu gura dauena (7). Ete dozu begirik? Yazo ete edikean mendi eder onetan bszkatu zendikezan ori, larra eder ori itxi ta basamortu onetako bedar-izpitxoak salo yaten zu etortetik? Ba! ete dozu begirik, gero? Orrako orri ezin daitu zineio maitasunik; eta izan ba, odola eztago suturik zure urteetan, apal, otzan eta sentzunaren esaneko baño; eta nondik da sentzuna, onein bion artean batagandik besteagana alde egiteko? Oarmenik ba-dozu, seguru be, ostantxean etzeunke zirkinik egingo-ta; baña seguru be seguru, elbarriturik dago oarmen ori zugan, zorakeririk izan ba'litz eleukean bere biderik galduko-ta; eta sentzuna be ezta eguño orrenbestean liluraturik, olango aldean autespide apurren bategaz be ez geldituterano. Nongo txerrenek iruzur egin dautsu onan itsu-itsuturik izteko? Oarmen bagako begik, ikusmenik bagako oarmenek, esku naiz begibako belarrik, besterik ezer bagako usaimenek, naiz benetako sentsuren txataltxo gexo batek be ezin zengikezan olan eta orrenbestean sogortu. Lotsagarriaren lotsagarri! ez ete yatsu gorrituko arpegia? Suleza asaldari ori, anderaren azurretan aaldatau al ba'az, argizaia langoxe

Izango al dok garbltasuna gaztetasun be-roagaz, eta bere sutan urtuko al dok; ez egiok deirik egin lotseari berotasun eragikorrek erasoten dauanean, leia bera be ain bero agertuten danazkero, eta buru-argitasuna aragikeriagaz artu-emonetan dabilenazkero.

ERREGEN.—Hamlet ori, bego, ez egin itzik geiago; neure gogoa begira iminten daustazak ik nire begiak; eta euren orbana galduko eztaben baltzune ta pikor-uneak dakusadaz an.

HAM.—Bai, baña oe kutsatu izerditsuan, ustelaren ustelez atsituan, tsarritegi andurtsuan kulunka ta mosuka ibileko baño ez,...

ERREGEN.—Ene! bego, asko dok; ezpatak legetxe sartzen yatazak itzok belarrietatik; asko dok, Hamlet maite.

HAM.—Eraile ta zital; lengo zure senarraren amarrenetik ogeirenik be gauz eztan yopu; erregeen irri-errege: lege-erri ta agintzako lapur ixil, arasa-baldatik pitxi ederra ostu ta bere sakelean ostondu dauena!

ERREGEN.—Bego.

HAM.—Sorki ta adabakizko enege...

#### MAMUA aurrera.

Yareiko al nozue, ta nire buru-ganean egaz ibiliko al zarie, zerutar yagolok! (Mamuari) Zer gura dozu, irudi begiragarri orrek?

ERREGEN.—Ai ene! burutik eginda dago!

HAM.—Zure seme geldoari asarre egiten ete zatoz, abagune ta biotzeko bero-aldiari yoaten itxita, zuk gogor agindua beti gerorako izten dodalako? Ene! esaidazu, arren!

MAM.—Ez aztu: ire asino ia amustua zorrotuteko baño eztok ikustaldi au. Baña, begira zelan dagon ire ama ikaturik: Ene! orren eta burruka daragoion orren gogoaren bitartean sartu adi... soñik makalen»-tan artzen yok indarrik geien irudimenak-eta,... itz egiok, Hamlet.

HAM.—Zelan zagoz, andera?

ERREGEN.—Ai ene! zelan ago eu, ire begiak utserantza begira dokazala, soñik eztauen

(7) Emeodit eta beste leku askotortik agiri danez, aitua zcn Shakespeare baserriko zere-ta'n. Goritzetan, gitxi-asko, agertzen dira galburu baltz batzuk, galburuan gal-garau orde auts baltza dabenak. Olango buru asko agertuazkero garitzan, "Galbakoa dco gariak" escten dabe Arrcañan; Oñati'n, barriz, "Ilintxa" esaten dautsoe gariaren gcriz orri.

eguratsagaz berbetan daragoiok-eta? Uxo ta basati, begietara urteten yakaz ire indarrak; eta, lotan egon eta gudara-otsa entzun izan dabean gudarienen antzez, ire ule etzanak, soñetik zer biziak legetxe, yagi ta zutundu egin dozak. Seme txerakor ori, epe ozkirrizko euria zabaHu egik ire ondo- ezaren bero ta garren ganera. Nora begira ago?

HAM.—A begira, a begira! Begira, ak bai emoten dauela argi motela! Aren yasea ta aren zegaitia alkarregaz batuazkero, ta arriai itz egin, bigundu egingo leukiez arriak. (Mamuari) Ez begiratu ni... nire asmo itzalak aldatu eztagizan begirakune errukarri orrek: olangorik yazotekotan, bere benetako yasea galauta, ba-ledike odoletan geldituko bear leukena, negarretan gelditzea-ta.

ERREGEN.—Nori dirautsak orrako ori?

HAM.—Sztazu an ezer ikusten, ala?

ERREGEN.—Deutsik bez; eta orraitino be dagon guztia dakust.

HAM.—Entzun be eztozu ezer entzun, ala?

ERREGEN.—Ez, ezer bsz geu izan ezik.

HAM.—Ba, begiratu egizu ara! Begira, zelan ixilka alde dagian! Nire aita, bizi zanean legetxe yantzita! Begira, nondik nora doan oraintxe be; eldu da atetara! (Mamuak alde).

ERREGEN.—Ire garaunak asmaua dok orrako ori; trebe dok olango zerak asraetan soñetik al egotea.

HAM.—Soñetik al egotea! Zureak bestean astiroko dira nire biotz-taupadak, eta zureena bestean ziudo da euron eresia: ezta zorakeririk nik esana: aztertu nagizu, bai, eta itzez itz esango dautsu nik barriro, zorakeriak zatika baño esango eleukena. Ama, Yaungoikoaren eskerra-arren, ez al dozu zurituko zure burua ezta la zure errua itz egiten dauela uste izanaz, nire zorakeria baño: olango ueleak, ba, zauri ustelari azala ta mintza ezarri baño eleuskio egingo, barruan zorna ustelak, oartzeka, dana kutsatu ta galduko leuken bitartean. Autor-tu egiozu zeruari; daraut, garbaitu zadiz igarokoaz; alde egizu etorkizunetik; eta ez satsitu bedar txarrak, guriago azi ezadiz. Azketsi nagizu onindar au erakutsi dautsudalako, aldi zakarrotan, ba, onindarra bera ibili bear yako txarrindarrari azkespen-eske; bai, burua makurturik eske ta eske ibili bear yako berari, onik egiteko ederretsi-eske.

ERREGEN.—Ui! Hamlet, erdibitu egin daustak ik biotza.

HAM.—Ui! ortik zear egotzi egizu zati biatarik txarrena, eta biatarik onena itxi egizu. Gau on; baño etzadiz yoan nire osabearen oera; onindarrarena egizu, onindarririk ezpa'dozu. Sentzun guztia yan eta ekandu-izena dauen mamu ori, oiturretan txerren izan-arren, angeru be ba-da onetan, zera, egite onetarako be egin-eginean datorkun soñeko edo yantzi apain-txairorik emoten dauskulako. Benderatu egizu zure burua arratseon; eta erreztasuna lango zera emongo dautsu orrek urrengo gabaz be zure aragiksria benderatuteko; areago urrengorako; izan be, aldatu daike ekanduak yaiotzatiko lerea, eta edo txerrenari bizkarrazurra makurtuazo, edo indar itzalez ortik zear yaurtin. Gau on beste bein: eta onespen-min zareanean, zeuri eskatuko dautsu onespena. (Atzaz POLONI erakufsi-ala) Damuturik nago yaun onegazko: eder izan yako Zeruari orregaz ni, ta nigaz ori zigortutea, neu egin nau, ba, bere asarrearen betetzalla. Ostundu egingo dot au, eta ondo erantzungo dot onen eriotzeagaitik. Olan, ba, gau on barriro be... Anker eta biotz-gogor izan bear ba'dot, txerakor izateko bakarrik izango naz: txar ba'da asierea, txarrago izango da datorrena... Itz bat gei-ago, andera maite.

ERREGEN.—Zer egin bear yoat?

HAM.—Ezetara bez nik esan dautsudanik, ez orixe: zirikatu zagizala errege gizenak barriro be bere oerako; atximurket egin dagitsula lotsabakoak zure mosuan; bere kuttun deitu zagizala; mosu zantar bigaitik, naiz bere atz gaitetsiz zure idunean zirri batzuk eginagaitik atera dagitsula zer guzti au, ni enagola benetan burutik eginik, olangorena maltzurkeriz egiten baño. Iragarri bear zeuskio orrako ori, ba, errege-no lirain, zur eta yakintsuz bestek eukiko ete leuke olango kirten, saguzar eta zibeari iragarri bagarik orren garrantzi andiko litxakion arazorik? Nok eleuskio iragarriko? Ez, sentzunari ta ixilkizunari yaramonik egiteka, etxe-ganeko gallurrean idigi egizu otzarea, egaz egin dagiela txoriak, eta, beñolako matxangoak egin ebanez, zeu sartu zadiz otzaran, zer yazoko dan ikustsko, eta doala otzarea andik bera zeure idun-azurra austeko.

ERREGEN.—Seguru ago, arnasazkorik ba'dozak itzak eta zer bizirik ba'dok arnasea, nik etxoat ez arnasarik, ez bizirik, ik niri esana iñori esateko.

HAM.—Ingelanda'ra yoan bear dot; ete dakizu ori?

ERREGEN.—Ai ene! aztuta neban: ebatzita yagok ori.

HAM.—Ikurraturik dagoz papelak, eta sugegorrien aginai beste uste on izango dautse-dan nire ikaskide bi dira aginduak daioezanak; aik dira bidea garbitu bear daustenak, zitalkerira ta nire ondamendira eroan bear nabenak- Daragoioela bearrean; eta izan be, olgeta lango olgetea da azpia zulu ta norberari iztenak eragiteko asमतan dabilztan azpi-zulagin ti'beak eurak ortik zear euren lerkinagaz beragaz odeietara egoztea; eta txarto ibili bearko dot, arein zuloak baño kana bat beragotik zu-

latu ezpa'dagit, eta daunbada bategaz aik iretargiraño hidal ezpa'dagidaz: Ene! atsegingarri be atsegingarri da marro edo maltzurkeri bik mosuz-aurre alkarregaz trikitx egitea. (Bere atzez POLONI'ren gorpua era-kutsiaz) Gizon onek beartuko nau nire zera-kin arin batutera; aldameneko gelara erango dodaz onen ondakinak. Gau on, ama. Izan be, onulari au geldi ta ondo ixilik dago, eta ondo benik, bizi zala ain itzontzi ta txoriburu izan zan au Tira, yaun, igazkoa egin bear yoat. Gau on, ama. (Alde dagie banazean; HAMLET'ek POLONI tatarrez da-roala).

## IV E K I T A L D I

### I AGEHLEKU.-Gazteluko Gela bat,

ERREGE, ERREGENOA, ERROSENKA-RANTZ eta GILDENESTEREN aurrera.

ER.—Ba-dabe zegaitirik infziriok, bularra gora-goraka yagiteok: azaldu bear dozu. Egoki da orreik zegaitik diran guk yakitea. Nondik da zure semea?

ERREGEN.—(ERROS. eta GIL.'en. Alde dagie oneik) Bakarrik itxi gagizusz emen apur baten. Etie! ene yaun on, gau onetan nik ikusí dodanarsna!

ER.—Zer, Gerturde? Zelan dago Hamlet?

ERREGEN.—Zein geiagoka alkarregaz burruka daragoioeanean itsasoa ta axsa bestean burutik eginik: eskuratu-ezineko bere aldikadan, errezelaren ostean zerbaitek zirkin egin dauela entzunik, ezpatea atera ta gedar egin dau: "Sagutzarrsn bat, sagutzarren bat", eta, ikusteka, bere garaunetako irudípen-aldian erail egin dau agure ona.

ER.—Ui! egite orren astun! besle ainbeste egingo leuskigun ak, gu an izan ba'gintzaz: guztientzako zsmaia da a yarei egoztea; zutzako, gutzgko. ta edonorentzako. Ai ene! Zelan zurituteko egite odoltsu ori, zelan erantzuteko? Guri ezarriko daukue errua, labur loturik, esturik, eta ortik zear ibilteko ereti barik euki bear eukean, ba, gure aurre-ikusiak gizon gazte zoro ori: baña ain maite be maite geban-eta, ezin aitu izan dogu orrako ori egoki be egoki zanik; bestera, gait2 txarren bal izan eta iñorl ez iragarte-arren bizia galduazoteraño Indarrak artzen gatxari izten dautsanak le-

getxe egin izan dogu. Nora yoan da a?

ERREGEN.—Berak erail dauenaren gorpua baztarreratuten geldítu da: mea zakarraren artean ederra legetxe, aratz eta garbi agiri da arein benetako zorakeria be, egin dauenagaitik negarrez dago-ta.

ER.—Gerturde ori, goazen emendik! Eguzkiak mendi-tontorrek ukutu baño len bidaliko dogu emendik ontziz: eta zuritu egin bear dogu egite zakar ori, gure nagusiagotzaz eta trebetasun osoz arpegi emonda. Eee! Gilde-nesteren!

ERROSENKARANT eta GILDENESTEREN aurrera barrero.

Adiskide biok, beste lagunen batzuk artu egizuez zuokaz batsra; Poloni erail dau Hamlet'ek bere zoro-aldian, eta bere amaren gelatik beste nonbaitera eroan dau tatarrez: zoaze aren billa; Ixeratsu itz egiozue, ta yaurettxora ekarri egizue gorpua. Arin ibili egiteko orretan, arren (ERROS., eta GIL'ek alde).

Erdu, Gerturde, gure adiskiderik zurrenai dei egin bear dautsegu; eta yakin dagiela bai gure asmoa, bai zori txarrez yazo dana: olan, zori onez, munduaren aldetik aldera suediarren tiroa bestsan arin bere zurrumurrua eltzen dan irainak, bere edendun tiroa eroaten dauen irainak egurats zauriezina yo dagian, gu geu ukutzeka. Ui! goazen emendik! Nastu nasturik eta larriturik dago nire burua. (Alde dagie).

## U AGEHLEKU.--Gazteluko beste Gela bat

HAMLET aurrera.

HAM. Leku seguruan dago.

ERROS., eta GIL.—(Bcirrutik) Hamlet! Hamlet yaun!

HAM.—Ze zarata da ori? Nor dago Hctmlet' eri deiez? Ui! or datoz.

ERROSENKAHANT eta GILDENESTEREN aurrera.

ERROS.—Zer egin dozu, yaun, llaren gorpuaz?

HAM.—Autsagaz nastu yoat, autsaren senide dck-eta.

ERROS.—Esaiguzu *non* dagon .emendik kendu ta yaurelxetxora eroan dagiguu.

HAM.—Ez egizue sinistu olangorik.

ERROS.—Zer sinistu ez?

HAM.—Zuon esanik, ez ninerik, egingo dodanik. Ganera, oragunen eskariz egin be egiteke nik orrako ori... Ze e'iuntzun emon bear dau erregeren semeak?

ERROS.—Oraguntzat artzen tiozu, etkt, ene yaun?

HAM.—Bai, yaun; erregeren arpegia, aren sariak, aren aginduak irusten dauzan oraguntzat. Baña atzanean egiten yautsoek erregeri otseintzarik onena olango otseinak: an eukiten yozak ak, matxangoak intxaurrak lez, matrallazurraren alboan; agoratu lenen, iruntsi gero; eta zuok batu dozuea bear dauenean, eztau ak zuok esiuu baño, eta oraguna lez, ostera be legor gel-dituko zarie.

ERROS.—Eztautsut aituten, ene yaun.

HAM.—Ainbat oba: argibide sentzuntsuak etxoek egiten biderik belarri sentzunbakoe-tara,

ERROS.—Ene yaun, esan bear dauskuzu non dagoz gorpua, eta erregegana yoan gugaz batera.

HAM.—Erregegaz dago gorpua, baño erregs eztago gorpugaz. Zer bat da errege...

GIL.—Zer bat, ene yaun!

HAM.—Ezelarok gauz eztan zera; eroan nagizue beragana. "Ostundu adi, azeri, eta guztiak atzean" (Alde dagie).

## III AGEBLEKU."Gcsaeluko beste Gela bat.

ERREGE' aurrera, lagundurik.

ER.—Aren eta gorpuaren billa bidali dodaz. Bai galgordetsu be galgordetsu gizon ori yarei ibiltea! Orraitiño be. gogor eztautsagu ezarri bear legea: maite dau ardurabako erriak, ebatzeko begiez besterik erabilerik gogoko etxakonak; eta olangorik yazoten danean, uts egin dauenari ezarten yakon zigorra bai aintzakotzat artzen da, ez ak egin dauen utsik. Beren-beregizko gero-ratze-antzik izan bear dau a bat-balean bidaltze onek, dana leun eta bigun agertu dadin; osakai etsiz osatuten dira gaitz etsiak, osatutekotan.

ERROSENKARANTZ aurrera.

Kaxo! zer yazo dok?

ERROS.—Ezin dauzagu atera ari non ostondu dauen gorpua, ene yaun.

ER.—Baña non dok a bera?

ERROS.—Or atetan, ene yaun; yagonda, zuri zer yatsun gogoko noz yakingo begira.

ER.—Ekani egizue gure aurrera.

ERROS.—Eee! Gildenesteren! Ekarrrik onone yauna.

HAMLET eta GILDENESTEREIJ aurrera.

ER.—Non dok Poloni, Hamlet?

HAM.—Apaltzen.

ER.—Apaltzen! Non?

HAM.—Ez berak yaten dauen lekutan, bera yaten dabenean baño; batzarra egin dabe erriketa-eltzar batzuk agan be. Zure eltxarra da yataldiko zure bakaldun bakarra: beste izaki guztiak gizenduten doguz guk, geu gizenduteko, ta eltxarrentzako gizendulen gara gu; bitariko yaki baño ez tira errege gizena ta eskeko argala... ontzikada bi, baño mai baterakoak; or dozu guz-tion atzena.

ER.—Ai ene! Ai ene!

HAM.—Ba-lediks erregetik yan izan dauen e'txarrez gizonak arrainak goatzea, eta eltxar a yan dauen arraina yalea.

ER.—Zer esan gura dok orregaz?

HAM.—Ezebez, zuri erakutsi baño zelan bi-dea egin daiken erregek eskekoren esteak zear.

ER.—Non yagok Poloni?

HAM.—Zeruan; bidali egizuz norbaitzuk ara a ikusten; zure geznariak a an idoro eza-pa'dagi, zeuk billatu egizu besto lekunn.

Baña, bal orixe, Ile enetan láero ezpa-dagizu, zure surrak idoroko dabe, zuk, zurubia gora, solairura igon-ala.

ER.—(Laguntzako batzui) Zoaze ara, aren bila.

HAM.—An egongo da *a* zuon begira. (Laguntzako batzuk alde).

ER.—Hamlet, tximistearena lango bizkortasunez bidali bear au emendik egite onek, eure segurutasunerako; eta ik eginak nai-bagatu be naibagetuten gauzan besteko ardurea emoten yauskuk ire segurutasunak: gertau adi, ba; gerturik yagok ontzia, *axea* be gertu, lagun izateko; begira yagozak ire bide-lagunak, eta dana yagok Ingelanda'rako itzulirik.

HAM.—Ingelanda'rakoi

ER.—Bai, Hamlet,

HAM.—Ori ondo.

ER.—Ori esango eunke, nire asmoen barri ba' enki.

HAM.—Ba-dakusat asmoon barri dakian Kerube bat... Baña, Vira, Ingelanda'ra!... Agur, ama maite.

ER.—Ire aita maitabera, Httmlel.

HAM.—Nire ama; senar-emazte dira aita ta

ama; aragi bat bctño ezтира senarra tt emaztea; eta, orrazkero, nire ama. Tira, Ingelanda'rako! (Alde dagi).

ER.—Orpoz orpo zarraikioez; arin ontziratuteko estutu egizue; ez geroagoratu; arrats onetan urtenazoko dausat emendik; alde! Ikurraturik dagoz ingi edo papel guztiak, ba, eta eginik arazo oni dagokon beste edozer: arin ibili, arren. (Alde ERROS., et i GIL'ek). Eta i, Ingelanda'ko errege, utsa baño geiagotzat ba'dok ik nirs adiskidetasuna...; eta nire al andiak aintzakotzat etsiazoko dausk adiskidetasun ori, Dctnemarkatar ezpateak iri egindako zaurien lorttztck oraindik gordin eta gorri yagozak-eta, eta ik eure kitetik eta bildurrez eskeintzen dauskukan bendekotasuna dala-ta be..., ez al dok muker eta otzik artuko gure erabagi nagusia; eta erabagi au, orrstarako idazkian aginduten dauskadanez, eztok besterik Hamlet bertatik erailtea baño. Egik ori, Ingelanda'ko errege orrek; izan be, bularretikoaen sukarrak legetxs erretsn yaus-tak odola, eta ik osatu bear nok: orrako ori eginik dala yakin-arts, nire zori on guztiak gora-bera, etsoat nik ezetariko pozik izango. (Alde dagi),

#### IV AGERLEKU.-DA IEMA EKA'ke Zelai bai.

PORTINBARATZ eta Indarrak aurrera. bidez bide yoan doazala,

POR.—Oa, gudalburu, eta nire aldetiko txerea egioek Danemarka'ko erregeri; berak agindurik daueuez, bere errege-erria zeor bidea egiteko baimen-eske nagola esaiok. Ba-dakik agaz non batu. Nigazkorik ezer gura izatekotan aren nagusiagotzeak, neu yoango natxukok, nire txerea ari egiten, Ori esaiok.

GUDALB.—Egingo dot orrako ori, ene yaun.

PORT.—Aurrera astiro! (Alde PORT. eta Indarrak).

HAMLET, ERROSENKARANTZ, GILDENESTEREN eta beste batzuk aurrera.

HAM.—Yaun on, norenak dira indarrok?

GUD.—Norge'koak dira, yaun.

HAM.—Zetarako datoz, yaun, arren?

GUDAL.—Poloni'ko zati baten aurka doaz.

HAM.—Nor da euren buru, yaun?

GUDAL.—Norge'ko errege zarraren llobea, Portinbaratz.

HAM.—Poloni'ko erri osoaren aurka doa, ala raugako atalen baten billa, yaun?

GUDAL.—Egia argi ia garbi esateko, ízenaz beste onurarik ezta karren iur-arlotox bat irabazten goaz. Bost duket nik ordaintzekotan, bost duket, gero, eunke landuko lur a, eta ez Norge'ri, ez Poloni'ko erregeri, eleusio emongo irabazi gizsnagorik errentan emotekotan.

HAM.—Ba, olan izatekotan, Polonitarrak eztabe gogorrik egincjo lur ori yagote-arren. GUDAL.—Bai, dagoneko dago indarrez yagonik.

HAM.—Bi milla gizonen biziak eta ogei milla duketek eztabe ebatziko uskeri utsa dan eztabaida ori; aberastasun eta baka geiegiak dakarren zaldarra yatsu ori, barruan ler egin eta zabaldu, eta gizona zegaitik ilten dan lorratzik azalean izten ezta uena. Eskerrik asko ta apalik, yaun.

GUDAL.—Yaungoikoa lagun izango al yatsu, yaun. (Alde dagi).

ERROS.—Yoan gurozu, ene yaun?

HAM.—Laster goatuko zauedaz. Zoaze apur bat aurrerago. (Alde HAMLET'ez beste guztiak) Ara, abagune edo ereti guztiak dodaz nire salatzalla, ta guztiak zirikatzen nabe nire azazkatze geldoa aurrera eroateko! Zer da

gizona, bere ondasunik andiena ta astia lo egiteko ta yateko baño ezpa'dira? Abers, beslerik ez. Seguru be seguru, gu egin ginduzanak, lena ta geroa ikusteko ainbesteko argia emon euskunak, ez euskuzan eraon al ori ta yainko-antzeko ebazpide ori erabilteka ugerrak yaten izteko. Eztakit nik zegaitik bizi nazan oraindik "Egin baar *áa* au" esateko, orrako ori egiteko zegaitirik, eta guraririk, eta indarririk, eta biáerik dodanazkero... Eztakit ala aberetar aztuteak, ala egikizuna buruan geiegi erabi'teak emoten dauen kezka bildurtia dan egikizun ori egiteka naukana, gogotan erabilte ori laurenduazkero, laurenostatik bat bakarrik da, ba, zurtasuna, beste irurak beti kivilkeri ta adorerik eza. Eredurik asko be asko dot ni orretara bultzautekorik: gudarosts au, esaterako, orren autorla; ain andi berau, ta egiltizun ain undirako, eta burutzat errege-seme ain samur eta biguna daroana: *mo*-suak eta irri egiten dautsaz zer yazoko ikus-ezinari orren biotzak, orren adoreak, arrau-

tza-azal bat baño geiago gauz eztan zera-gaitik be ilkor eta seguru ezтана alanbe-arrak, eriolzeak, ela galgordeak ekarri le-giskeonaren eskuetan iminirik. Benetan eta zuzenez andi izatea eztaor zegaitik andi ba-garik zirkin egin eta ibiltelik, omena gal-gordean dagonean uskeri bategaitik be bu-rrukara-bidea andiro idorotetik baño, Ze-gaiiik nago, ba, ni geldi, niri eragiteko ai-ta erailik, ama muskildurik euki, zer biok nire burua ta nire odola zirikatzeke izan, eta ni loak arturik egoleko? Bitarlean, nire lotsagarritzat, ogei milla gizon il-aginik da-gozala dakusadanean, ogei milla gizon bu-rukeri bategaitik eta entzute onak liluraturik, oera yoatea ba'litz legetxe doazala euren ilobira; ainbesiek non burruka egiteko be lekurik ezlaue lurr-arlotxoagaitik, ilak os-tonduteko ilobirik asko egieieko lain be eztan lurr-arlotxoagaitik? Ui! Ui! Edo odoltzale, eio ezstarako gauz ez tiranak beziz orain-dik ara nire gogaketak! (Alde dagi).

#### V AGERLEKU.-ELSINC ÍE.-Gazteluko Gsla bat.

ERREGENOA ta ORATI aurrera.

ERREGEN.—Eztaulat egingo itzik neskato orri.

OR.—Ekin eta ekin daragoio; egia esateko, burua beste zerbaiten dauela dago; errukarri da aren gogaldia.

ERREGEN.—Zer gura dau?

OR.—Ere aitari daragoiola dabil; maltzurkeriak dabiltzala munduan entzuten dauela diño; eta intziri egiten dau, eta bere biotza yoten dau; eta utsagaitik asarratzen da; askotariko esangurazko itzak esan daroaz, esangura argiren erdirik baño eztabenak; sustarbakokeriak esaten dauz, ori bai, baña ori ta guzti be, entzuten dautsoenak au ta bestea susmetzen asten dira; aren itzak dira arein susmoen oñarri, ta areitatik atoniu ta eratuten dabez euren gogaketak, baktotxak bere opilari su eginda; eta aren esanak, aren kiñu, buru-eragite ta aieru esankorraz batera, ez-baiezko ba'da be, zerbait ba-dagola sinistuazoko leukie, eta zer txarrik sinistuazoko be, zori txarrez. Egoki litzake zuk agaz itz egitea, susmo txarrik sortu legike, ba, ak biotz txarrekoen buruetan,

ERREGEN.—Datorrela esaiozu (Alde ORATI'k). Obenari berezko ta yator yakonez, edo-

zein yostallu oker andiren baten asiera ta bide dala irudituten yako nire gogo ge-xoari; ganorabako bñldurrez orren beterik dago errua-ta, bere burua galtzen dau bes-tek galdukoren bildurrez.

Ostera be aurrera ORATI, OPELE'gaz.

OP.—Nondik da Danemarka'ko nagusiagotza liraina?

ERREGEN.—Kaxo, Opele!

OP.—(Abestu dabes)

Zelan ezagutuko zindukedaz, maite?

Zure maskor-ganbelutik, makilatik,

Eta ede-oskietatik.

ERREGEN.—Ai ene! anderaño maite, zer esan gura diiu besti orrsk?

OP.—Zer diñozu? Ez, etxon apur baten, arren, (Abes-tuaz)

Ilik eta yoanik da a, andera,

Bedar musker zoia dau burupean;

Ilik eta yoanik da, bai, a,

Arri bat dau bere oñen azpian.

ERREGEN.—Bai, baña, Opele...

OP.—Entzun, arren...

(Abestuaz)

Edurra baxen zuri da

Aren gorpu-estalgia...



ERREGE auneia.

ERREGEN.—Ai ene! ikusi orrako ori, ene yaun.

OP.—(Abestuaz)

Lora gozoz lurrundurik;  
Lorok negarricikaz yoan obira,  
Maitasun zindozko zapairadaz.

ER.—Zelan zagoz, anderaño lirain?

OP.—Ondo, Yaungoikoak ordoinduko al dau-  
tsu! Okinarene alaba zala mozolloa, diño  
or. Yaun, ba-dakigu guk zei garean, baña  
eztakigu zer izan gaikezanik. Yaungoikoak  
onetsiko al dau zurs maia!

ER.—Burutik eginda bere ai'agaitik.

OP.—Arren, eztagigin itzik egin orrelzaz;  
baña zer esan gura dauen itandu ba'dagi-  
tsue. au ssan egizu;

(Abestuaz)

Balendin Gurenaren eguna da biar;  
Goiztar ibili guztiak, atzarri,  
Ni neska au zure leioan yarri,  
Zure Balendine izan nadin ni.  
Yagi da a gero, yantzi dauz soñekoak,  
Eta idigi dau beie gela-atea;  
Barrura artu dau neskatoa,  
Andik neska urtengo ezтана.

ER.—Opele liiain!

OP.—Aor, zinik egiteka, amaitu egingo dot:  
(Abestuaz)

Yosu ta Goimaitasun Gurena-arren,  
Ai ene! eta au lotsearena!  
Gazte guztiak egin daroe berbera  
Abagunerik izaten dabenean:  
-Zera-arren, eztago ondo ori.  
Diño nok, "Ni eratzan-aurretik,  
Ezkontzea agindu bai zeunstan".  
-Orixe egingo neunkean, euzkia-arren,  
Níie oera etorri ezpa-zintzazan.

ER.—Noztik dago au onan?

OP.—Dana urtengo dala ondo uste dot. Epe-  
tsu izan bear dogu: baña ezin dot negarrik  
ez egin, a lur otzean eratzan ebe'a gogo-  
raturik. Nire nebeari iragarriko dautsat; eta,  
olan, eskerrik asko zure onu onagaitik. Tira,  
betor nire zalpurdia! -Gau on, anderok; gau  
on, andera kutunok; gau on, gcu on. (Al-  
de dagi).

ER.—Urretik arraiki; ondo yagoik, arren. (Al-  
de ORATI'k). Ui! naibaga sakonaren eden  
yatsu orrako ori; bere aitaren eriotzea da  
zer guzti orren iturria. Gerlurde, Gerturde  
ori, ezbearrak dafozanean, ezтира etorten  
kuikari banaka, taldeka baño! Lenen, orren  
aita erailik, gero, zure semea yoanik; eta  
bera, bere egite zakar-geztos, bere buiua-  
ren erbestertzalla; nastuiik eta zer egin

eztakiala enia, gogaketa anitz eta zakanak  
dauzala, eta marmarka daragoio Poloni on-  
aren eriotzea dalata; eta guk, itsu-mustuan,  
a i:ñilik obiratutea agindu izan dogu: Ope-  
le errukarria bere buruagandik eta adime-  
nagandik banandurik, eta ba-dakizu, irudi ta  
abere uts baño ezkareala adimen bagarik;  
azkenez, eta aurreragoko zer guztiak bate-  
ra besteko dana, ixiiika etorri da Pantze'  
tik neskato orren netea; eztau beste yaki-  
rik bere arritua baño, odei-arteaz lez oston-  
duta dago, eta bere aitaren eriotzeagazko  
zurrumuru ta erago zakarrez iñok bere be-  
larriak kutsatubeanik eztau ak; eta orrako  
orrein itz egin-bear gorrian, beste esateko-  
rik ezean, ezkabez parkatuko gu, belarri-  
tik belarrira txutxuputxuka dabiltzanean.  
Ene Gsrturde maite, suodiko tiroak leku  
askotan yota legetxe onako onek yota erio-  
tza bat bagarik asko emoten daustaz. (Otsa  
barruan).

ERREGEN.—Ai ene! ze zarata da orrako ori?

ER.—Nondik dira niie Suistarrak? Yagon da-  
giela atea (8).

Aitonseme bat aurrera,

Zer yazoten da?

AIT.—Yagoizu zure burua, ene yaun; itsa-  
soak, bere mugen ganetik igarota, eztauz le-  
nago ta indartsuago irusten lur zelaiak,  
Lertetz gazteak, erri asalduaren buru da-  
la, zure otseinak azpiratuten dauzan bafio.  
Bere yaun deitzen dau erri-sastamarrak;  
eta mundua orain asteko ba'litz legetxe,  
igaroa aztúrik, ekandurik ez ezagun, itzak  
eta esku^ideak aintzakotzat artu ez, eta  
euroi deuten igarota ta ekandua aintzako-  
tzat artzeka, or daragoioe gedarrez "Geuk  
aututen dogu; Lertetz izaugo da errege!".  
Txapelak, eskuak, eta miñak txaloka ta go-  
ra-goraka diño "Leitetz izango da errege.  
Lertetz erregs!".

ERREGEN.—Orreik bai pozik gedar egin oke-  
rrelco bidea arturik! Ui! oker zabiltze, Da-  
nemarkar txakur ustelok!

ER.—(Zarate-a barruan) Lunciatu dabez atea.

(8) Suiztar gudariak dira Erroma'ko Eleiz-  
buru, edo Aita Gurena yagoten dabena.  
Suiztarrak ete ziran ba aldi atako Europa'ko  
beste bakaldunen yagolak be? Eztot uste; ba-  
ña bakaldun-yagoloi izenen kat emon-bear-  
eta, izen ori iminten dau'se Shakespear'k.

LERTETZ aurrera, iskillioakaz; Panemarkar-  
rrak bere yanai.

LER.—Íföndik áa errege? -Txo, or ateian gel-  
ditu zuok,

DANEMARKARRAK.—Ez, goazen hcirrura.

LER.—Bakarrili itxi nagizue, arren.

DAN.—Itxiko zauguz, itxiko zauguz, (Atetara  
alde dctgie).

LER.—^skerrik asko; --yagon atea-, Errege  
zirizjl ori, ekadak nire aita!

ERREGEN.—Bare la epetsu, Lertetz on.

LER.—Sasikumetzat aldarrikatuko ninduke  
bare ta epetsu litzaken nire odol-lantanak;  
adardun aldarrikatuko leuke gedarrez ni-  
re aita, eta ementxe ta oraintxe emagald-  
citza ezarriko leuskio bekokian nire amet  
garbi yator eta orban bagakoari.

ER.—Zer dala-ta agiri dok ire asaldatzea  
orren andi be andi, Lertetz? Itji nagizu,  
Gerlurde; ez izan nigazko bildurrik: yuin-  
ko lango yainkok artzen dau erregea esi-  
barruan-eta, azpikeriak ezin dau, egingo  
leukena begiratu ta *ati* kirika egin baño;  
egin, giixi baño eztau egiten gura dauens-  
tik.—Esaidak. Lertetz, zegaitik agon orren  
asarre, GsIJi itxisu, Gerlurde; -itz egik, gi.  
zon,

LER.—Nondik da nire aita?

ER.—Ilik.

ERREGEN.—Baña ez onek ilik.

ER.—Berak zenbat gura itandu dagiala,

LER.—Zelan il zan? Txantxetan ez ibili ni-  
gaz; sulezara bendekotasun zintzoa! Zinok,  
zoaze txerrenik baltzenagana! Yakinkide-  
tzea ta eskerra, lezarik sakonenera suok!  
Eupada dagitsot gatxepenari berari: -one-  
tan nago ni... mundu biai be eztautset yara-  
moten, yazoko dana yazoko, ta etorriko da-  
na etorriko; bakar bakarrik oso osoan azaz-  
katuko naz nire aitaren eriotzeaz.

ER.—Eta nok galazoteko?

LER.—Mundu guzliak bez, neure gurariak  
bakarrik; eta nire eskuarteagazko, nik ain  
zur erabiliko dodaz-e!a. gitxi izan-arren  
urrin elduko dira.

ER.—Lertetz on. ire aita maitearen eriotzea  
zelan izan zan seguru yakin gura izateko-  
tan, ire azazkatzean idatzita ete yagok,  
galtzalki ta irabazleak, bitsuek imini dabe-  
na artuta lez, arsrío ta adiskide, irabaz-  
la ta galtzalla, bitsuek artuta yoan bear  
dokala, ala?

LER.—Arierioez besterik iñor bez.

ER.—Orrazkero, ezautu gura dozak, ala?

LER.—Onan, zabal zabal zabalduko dautse-  
daz nik nire besoak nire aitaren adiskideai;

eta, bitizta bárria emotsn dauen pelikan  
txerakonak geltxe, neure odola emongo  
dautset yakitaz.

ER.—Ba, orain itz egiten dok ik ume on eta  
aitonseme yatorrek lez. Ire aitaren erio-  
tzearen errurik eztodala nik, eta aren erio-  
tzeaz naibaga be naibaga dodala, ire be-  
gietara egunaren argia sartzen dan bestean  
argi agertuko yakok ire ebazpenari.

DAN.—(Barrutik) Itxi egiguzu barrura sartzen,  
LER.—Ostera! ze zarata dogu or?

(OPELE aurrera barriro, iñondiko lora-z eta  
bedarrez cрпиandurik).

Sukar ori, legortu egidazak garaunak! Ns-  
gar berein bider gaziok, erre egidazue be-  
gietako ala la ikusmena!... Zerua-arren, or-  
dainduko yonai ire zorakeria, ordainoren  
astunak astakinaren besoa bere aldera itzu-  
li arteraño, Orrileko lora ori! neskato mal-  
te, arraba txerukor, Opele kutun ori!...  
-Zeruok! yazo ete ledike neskato gazteren  
sentzuna aguraren bizia bestean ilkor iza-  
terik? Txerakor da yaiotzea maitasun-ar-  
loan, eta txerakor danean ba-daki bere  
agiri ederrik bidaltzen maite dauenaren  
atzean.

OP.—(Abestuaz).

Mosua agirian ebala eroan eben serral-  
doan;

Lorarik ez, lorarik ez, lorarik ez;

Eta berein negar ixuri zan aren obiga-  
nean...

Onik eta ondo ibili, ene kutun!

LER.—Sentzunik ba'eu, eta azazkatzerik ni-  
ri eska-eskatu, enindukenan bultzauko  
onenbestean,

OP.—Abestu egin bear dok,

Bean, bean, abestu, dei egin,

Be-bean dago a-ta, atinik.

Ui! doñu au bai egoki itzontzat! Ondasun-  
zai ustela izan zan bere ugazabaren ala-  
bea ostu ebana,

LER.—Itz askok baño geiago diño uskeri  
orrek,

OP.—Or dozu erromerua, gomutagarritzat da;  
gomutau, maite, arren: eta or dozuz goga-  
ketak gogoratuteko diranak.

LER.—Zorakeriaren irakaspenak: gomutak eta  
gogaketak, guztiak egoki.

OP.—(Erregeri) Miru-bedarra dakartsut zuri,  
baita usa-bedarra be. (Erregenoari) Bosko-  
txa zutzako; ba-dago nitzako be arean;  
-igandeetako esker-bedar deitu daikegu guk,  
Ui! beste erataro eroan bear dozu zuk zu-  
re boskotza. Or dozu margarita bat be.  
(ORATIri) Bioleta batzuk emon gura neuns-

kitsuz, baña guztiak zlmeldu ziran nire aita il zaietan: ondo il zala diñoe or...

(Abestuczr)

Errobin kutuna da,

Ba, nire poz bakarra...

LER.—OBozpena ta naibagea, biotzaldia ta sulezea bera be lirain eta eder sgitsn daus orrek.

OP.—(Abestuaz)

Ez ete da barriro otorriko a?

Ez ete da barriro otorriko a?

Ez, ez, ilik dago, a, ilik,

Zoaz zure il-obira, ixil,

Iñoz be ezta otorriko, ba, a.

Edurra baxen zuri zan aren bízerra,

Kirru utsa aren burua;

Yoana da, yoana da a.

Eict gu negar-darioka:

Urtzi! erruki aren gogoaz!

Baita Kistar guztien gogoen erruki be! Ori eskatuten dausat Yaungoikoari. Yaungolkoa lagun izango al yatsue, (Alde drcgi).

LER.—Yaungoiko ori! ba-dakusazu au?

ER.—Lertetz, lagun izan bear nrixak ire naibagean, ostantxean ukatu egiten daus-

tak orretarako dodan eskubidea. Goazers bakarrik itz egiteko lekura, autu egizak adiskiderik zurrenen artean eure gogokoe. nak, eta aik entzun dagiela, entzun eia ebartzi ire ta nire arteko auzia: artez, naitzearretara, egite orretan gu tarteko idoro ba' gaguez aik, ogur egingo yautsat nik nire erregeizeari, nire burestunari, nire bi-ziari, ta nire dan beste edozeri, ordainlat ire alde; baña nik zer-ikusirik ezpa'yoat egite orretan, ire epea guri emonaz naitotu csdi, eta gu bion artean alegindu qadizan, i azazkaurik geldituteko.

LER.—Olan izan dadila: a zelan il zan, zegaitik a ixilik eta ilunetan obriratu zan,... goroutagarri bagarik, ezpata bagarik..., bere obi-ganean apaingarri bagarik, era-marct aranditsu bagarik, goratazarr ospatsu bagarik... nok entzun-eske gedarrez dagoz orrako zer guztiak, luitetik zerura ba'litz legetxe; orrako ori zeatz aztertu bear dodala eske.

ER.—Yaditxiko dozu orrako ori; non dagon iraip.a, ara yausi dadilla azkorea. Arreti, zataz nigaz. (Alde dagie).

## VI AGEELEKU.-Ga.iteluko beste Gela bat.

ORATI ta Otsein bat ciurrern.

OR.—Nortzuk dozak nigaz itz egin gura dabena?

OTS.—Itsastarrak, yaun; zutzako idazkiak dabezala diñoe.

OR.—Sariu dadizala. (Otseinak a/áe) Ezíakit munduan nondik izan neiken nik idazkirik, Hamlet yaunagandik izan ezik.

Itsastarrak aurrera.

I ITS.—Yaungoikoak onetsiko al zauz, yaun.

OR.—Berak onetsiko al au eu be.

I ITS.—Onetsiko nau Ak, eder ba'dakio. Idazki bat dot zutzako, yaun; Ingelanda'ia gezncri yoianagandiko da; esan daustenez, Orati ba'yatsu izena.

OR.—(Ba-dirakur) "Orati, bein au irakurriazkero, gertau egiek urlioi erregegana eltzeoko bidea; arentzako idazkia yabek. Itsasoctn egun bj egin baño len, ondo ornidutako itsas-lapurra yarraí yakun. Geldoegi izan gure ontzia-ta, adoretzu izatera beartu gin-

duzan ezbear orrek; eta ekinean besteen ontziratuteraño eldu gintzazan; baña bss-teen ontzira ni sartu-ala, yarei egin zan guis ontzia-ta, ní bakarrik gelditu nintzan itsas-lapurren atxilo. Lapur errukitsuak legetxe artu ta erabili izan nabe: baña ba. ekien zer egiten eben; eta ondo ordaindu bearlco dautset euren otseintzea. Artuko al yok erregek nik bidali dautsadan idazkia; eta eriotzeari igesiko eunokion bestean arin erdu akit ona. Gortu egingo yoezak ire belarriak nik iri esateko dodazan itzak; eta CTraitiño be arinegi dozok eurpn mamia- ren aldean. Urli onok ekarriko aue ni nagon lekura. Ingelanda'iaiko bidean dozak Eno-senkarantz eta Gíldenesteren: iri esatskorik asko yoat eurak dirala-ta. Onik eta ondo ibili. Ire dala dakikem HAMLET'ek". Erdue, neuk Iminiko zauedaz bidean, idazki ori dagokonari emon dagiotsuen; eta a'ik eta arinen egizue egiteko ori, idazki ori nogandik dakazuen, aganako bidea era- kutsi dagistazuen. (Alde dagie).

## VII AGEBIEKU.~( izteluko beste leku.

ERREGE ta LERTETZ aurreia.

ER.—Ikunaztu egin beai dau oiain zute yakinkidetzak gure arteko adiskidetasuna, eta zure biotzean imini bear nozu zure adiskidetzai, entzun dozunazkero, eta belarii sentzuntsuz enlzun be, zure aita zindoa eiaiz ebana berbeia neuri be bizia zelan kenduko billa ibili zala.

LER.—Agiri agirian dago orrako ori; baña, esaidazu, zegaitik etzinean asi ta bidean yarri egitetzar ain errudun ta eurenz ain eriozkarrir ziranon aurka, zure segurantzak, zute zurtasunak, eta beste zer guzliak zu orretara bultzau bear zindukiezanazkero?

ER.—Ui! berarizko zegaiti bigaitik; merro, erkin eta kikel iruditu lediketsuz zegaitiok, fcear ba'da, baña sendo ta mardul irudituten yataz niri. Erregenoa, aren *ama, ia ia* aren begirakuncetatik bakarrik bizi da; eta nigazko..., nire onindarrez, naiz nire izurri, bata naiz bestea dala..., erregenoa ain bat egin da nire bizi ta nire gogoazeta, izarrak bere leku borobilean bakarrik bira egiten dauenez, ni neu be ezin igi, ezin egin zirkinik aren inguruan baño. Orretara eragin eustan beste zera, a erriaren aurrean epaituterik itxiko eleuskidana, erriak ari dautsan maitasun andia da; izan be, iturriak zura ari egin daroanez, erriak be, aren uts guztiak bere maitasimean busti fceusti eginik, kutundu egingo eukezan aren lokarriak; olan ba, nire geziak, ainbesteko axetarako zurezko gezi-kiiten arinegia euki-ta, euren elburura eldu-bearrean, neure arranbelera etorriko Iitxakidazan atzera.

LER.—Eta ori dala-ta, aita zindoa galdu dot nik; eta arraba bat etsipenera eldurik..., eta zelango arrabea, gero! Izana goratuterik ba'dago, bere osotsunakaitik gizaldi oso oneri mendi-gallurretik eupada egingo eus-kiona; baña etorriko da nozbaiten nire azas-katzea.

ER.—Ez egik lorik galdu orregaitik; eztok uste izan bear gu orren gei bigun eta motel-ekorik gareanik, eta orretan galgorderik izanazkero, iñori gure bizarrai zirrika iztekorik gareanik, orrako ori asti-emongarri dala uste izanik. Laster entzungo dok geia-gorik; maite naioan nik ire aita, eta geure burua be maite yoagu; eta ba-ditxarot orrek irakatsiko dauskala irudituten...

GEZNARI bat aurrera.

Ostera! ze barri dok?

GEZN.—Hamlet'gandiko idazkiak, ene yaun; zure nagusiagoarentzako au; erregenoarentzako beste au.

ER.—Hamlet'gandikoak! Nok ekarri yozak?

GEZN.—Itsastarrak dira, ene yaun, esan daustenez; neuk eztodaz ikusi; Kauldi'k emon daustaz..., eta ekarri dauzanagandik artu dauz ak.

ER.—Lertetz, entzun bear dozak ik. Alde egik (Gez.nariak alde). (Ba-dirakur). "Goiko ta Altsu ori... Yakin bear dozu narru gorrian itxi nabela zure bakalderrian. Biar eskatuko dot ederretsia zure errege-begiak ikusteko: eta orduan, aurreztik orretarako zure azkaspene eskaturik, azaldu ta eralgiko dautsut zegaitik eta zelan izan dan nire bapateko ta iñondiko haño iñondikoago atzera etortea. Hamlet'ek". Zer esan gura ete dau onako onek? Beste guztiak be atzera etorri ete dira? Ala irrien bat ete da, ta ez olangorik?

LER.—Ezagututen ete dozu noren eskuz idatzia dan?

ER.—Hamlet'ena da idazkerea; "Narru gorrian"..., eta idatzi-osteko onetan au diño, "BakaiTik". Ez ete dok ik argirik?

LER.—Nasturik eta galdurik nago, ene yaun. Baña datorrela; berotu ta nasaitu egiten yat nire biotz makala biziko nazala gogoraturik, eta ari bere mosura esan al izango dautsadala "Onan egin euan ik".

ER.—Olan izatekotan, Lertetz..., zer deretxak onan egitaari? Zer, beste onetara egiteari? Eder ete deretxak onakootan nire esanera ibilteari?

LER.—Bai, ene yaun, bakez bizitera bultzau gura ezpa'nozu.

ER.—Eure baksrako. Atzera etorririk ba'dago a orain, bidean eragozpenen bat izanik, eta barriro yoan gura ezpa'dagi..., ekin eta ekin egingo yaustat nire buruan oraindixe asmaurik eta umaturik dodan egite andirako, eta eginda yagok orretan arena; eta aren eriotzeagazko, errurik txikienaren axek be etxok putzik egingo; aren amak berak be etxauskuk ezarriko maltzurkeri-errurik, eta alanbear utsez izan dala esango yok.

LER.—Ene yaun, zure esanera ta agindura ibiliko naz, neu izatekotan orretan langa-Uu.

ER.—Untze untzean yo dok, Ire ibiltaldiazkero igazko esan-bearrlik asko izan dok emen, eta Hamlet'en belarrietan izan be, aik diñoenez igan argi egiten dauen trebetasun hategaitik; ire beste geitasun guztiak batera baño leia ta ikusi-ezin andiagoa sortu yoan Hamlet'egan arako ire trebetasun bakarrak; eta orrako ori, nire ustez, gizonari gitxiaren eragingarri dok izan.

LER.—Ze geitasun da orrako ori, ene yaun?

ER.—Gaztetasunaren txapeleko galartzua baño ez, baña bai bearrekorik be; izan be, berak erabilten dauzan soñeko arin eta ardurabakoak ba-dagokioz gaztetasunarl, osasunerako ta bentasunerako on diran nurrak yantzi baltzak adin yarriari bestean... Orain ile bi dirala, Normandi'ko aitonseme bat izan zoan emen... Pantze'tarrik ikusia ta arein aurka gudu egina be ba-nok ni, eta ba-yakiat zaldiz ibilten euren biziko dirala aik; baña arako gazteak sorginkerien bat eban zaldiarentzako; igon zoan zaldigenera, eta ainsbesteraño eskuratu yoan ak zaldia-ta, bera ta zaldia bat zirala ta abere adoretuaren soñetik erdia gaztearenea edo beretik erdia zaldiarena zala irudian: nire usteak baño ain urrinago ta gorago eldu zoan a-ta, nik asmauriko zer guztiak txiki ta uts gelditu zoazan ak eginaren aldean.

LER.—Normanditarra zala esan dçzu?

ER.—Normanditarra.

LER.—Nire bizia-arren, baietz izan Lamond.

ER.—Berbera.

LER.—Ezagun ezagun yat: izan be, aberri osoko lora ta pitxi da a.

ER.—Zugazko autortzea egin eban. ak; eta zure burua yagotean zuk dozun trebetasun eta eragoketeaz, eta batez be zure ezpateaz ain irakaslerena lango irargarpena egin eban ak-eta, gedarrez esan eban ak ikuskizun ikusgarri be ikusgarri litzatekela zugaz norgeiagoka egitekorik ba'lego: zuk ari eupada egitekotan, zin egin eban ak bere aberkideak ez ebela ezpata-burrukan ez zure bizkortasunik, nobere burua yagoterik, ezta begirik be zuri erantzuteko. Yaun, iragarte orrek ain artaga ta ikusi-ezinez beretik itxi eban Hamlet-eta, zu arin etorteaz besterik ez eban gura ta ez eban eskatuten, zuk beragaz yukatuteko. Orain, olango abagunerik izanazkero...

LER.—Ze abagune, yaun?

ER.—Lertetz, maite ete zeban zure aita? Ala, naibagea bera barik, naibagearen irudi, biozbako arpegi zara?

LER.—Zegaitik egiten daustazu itaun ori?

ER.—Ez ire aita ez euala maite uste dodalako; maitasuna nozbaiten asten dala yakinarren nik, aldiagaz bere bizitasuna tn beroa otzitu egiten dirala eruduz eta yazoz yakin dakidalako baño. Muki edo aria lango zeren bat ba-yagok maitasunaren barruan, aren garra erkindu ta itzalten dauena; eta ezebe etxagok ontasun berean geldi; izan be, ontasuna, al dauen besteraño azirik, geiegiak, bere geiegiak galtzen yok: gura dogun zerboit, gura dogunean berean egin bear geunke; izan be, miñetan, esku-tan, eta yazokunetan beste aldakuntza, gitxiagotze ta geroagoritze izaten yozak "gura neunke" onek; eta orrez ganera, aarllago ta kaltegarriago dan txoten sarria langoxe yatsu "gura neunke" au. Baña zauriaren aragi bizira goazen; atzera yatok Hamlet: zer egiteko az i ire aitaren sems azala itzez baño geiago egitez erakusteko?

LER.—Eztarria moztu yaurstxean,

ER. Leku gurenek eleuke egon bear erailtearentzako; mugarik eleuke bear azakatzekak. Baña, Lertetz maite, onako au egin gura ba'dok, eure gelan sartuta ago. Bein a atzera etorri dadinean, yakingo yok Hamlet'ek i etxera etorri azala; iminiko yoguzak or ire bikaintasuna goratuko dabena, eta orako Pantzetarrak ire izen onari ezarri eutsan azal-apaingarriari beste ainsbeste geuk ezarriko yautsaguk; atzenean, alkarregaz batuko zauguz eta zuon alde yokatuko dogu; ardurabako, biotzandi be biotzandi, ta ezetariko marrorik bagako danazkero, ak eztauz aztertuko bere ezpata amutsak; olan ba, erraz, eta geienez be esku-trebetasun apurtxo bategaz, ezpata zorrotza autu zengike zuk, eta oituten dan eraso bategaz egin agazkoa, zure aitaren alderako.

LER.—Orixe egin be egingo dot; eta, orretarako, gantsutu, kutsatu egingo dot nire ezpatea. Agin-ateratzalle bateri eroserik dot gantsukia, ta ain indartsu ta egikor da orrako ori-ta, agaz busti baño ezpa'dagizu aiztoen bat, eta aiztoak odolik atera, iretargipean baturiko bedar bakun guztien indarrek be eztauz ezetariko osakairik arako aiztoak egindako urratutik beretik be Itetik osatu legikenik: kutsu orregaz ukutuko dot nire ezpatearen moko, apurtxo bat zauritu ba'dagit, a il dadin.

ER.—Luzarago ekin dagiogun orrako orri; gogotan erabili dagigun, zer letorkigun gure asmoen alde abagunearen eta doguzan eskuarteen aldetik; orrako orrek uts egin ba'legisku, ta gure trakestasuna ta trebe-

tasunik eza dclta-ta, argitaratu ba'Iedi gure asmo au, oba litzatekean olangorik asmau ez izatea; bearreko da, ba, asmo onez ganera besteren bat be eukitea, onek uts eta porrot egitekotan bestera yoteko. Etxon! dakusadan: bataren eta bestearen trebetasunaren alde baiezka ekingo dautsagu, dema egingo dogu... asmetakoa asmau yot, emen yoat: zuon ekitearen ekitez beroturik eta egarriturik aurkitu zadizenean... eta orretarako oi dan baño gogorraok izan bear yoez zuon erasoak..., edaririk eskatu ba' legi ak, ordurako gerturik eukiko yoat arentzako edalontzia, eta edendun ire ezpatearen zauritik ak zirrist egitekotan, andik egingo zurrutadatxo bat asko izango dok gure elburura eltzeko.

#### ERREGENOA aurrera.

Kaxo.erregeno kutun ori!

ERREGEN.—Ondiko barria dator ondikoren orpoz orpo, orren arin datoz: ito egin dok ire arrabea, Lertetz.

LER.—Ito! Ene! non?

ERREGEN.—Aren ur bizi gardenetan bere orri zurizkak erakusten dauzan sarats makur bat yagok errekatxu-ertzean; ara yoan dok a iñondiko irri-bedarrezko, asunezko, margaritazko ta, artzai lotsabakoagoak izen zakarragorik emon-arren, gure neskato otzagoak gizon ilen atz deretxoen lora amuskozko lora-txortaz apindurik. An, sarats ma-

kur aren adarrak gora, bere lora-sortak eskegitoko igoten eragoiola, ausi egin yagok gogo txarreko adar bat; eta orduan bera ta bere bedar-edergalluak yausi egin dozak ibai negartira. Zabal zabal egin yagokak soñekoak; eta ur-neska ba'litzan legetxe, apur batez ur-ganean eroan izan yoez bere soñekoak; eta bitarte orretan, beñolako doñuen atalak abestuten izan yozak; bere zori txarraz oartzeko gauz eztanak lez, naiz uretarako yaio ta egina danak legetxe; baña luzaro ezin iraua egiksan olan, bakar bakarrik urez asetu ta astunduriko bere soñekoak zori txarreko errukarria bere abesti ereskidetsuetatik lupetz tsrteko eriotzaratu arteño.

LER.—Ai ene! itorik da, ba, ezta?

ERREGEN.—Itorik, itorik.

LER.—Lendik don ik urik geiegi, Opele errukarri orrek-eta, enaioan ni negarrik egiten; orraitio be, gure ekandu da au; bere ekanuari darraikio, bere oitureari deutso yaio danak, berak zer-gura esan lotseak; negarrok amaitu dadizanean, eztoz izango nik emakumerenik ezer... Agur. ene yaun: negar zorook itzaliko ezpa'lebez, garretan yarriko litzakezan itz beroak, itz goriak dodaz barruan. (Alde dagi).

ER.—Garraikiozan, Gerturde; nik egin bear izan dodazan aleginen aleginak ori barretuteko! Onako onek barriztauko ete dauen bildur naz; garraikiozan, ba. (Alde dagie).

## V EKITALDI

### I AGERLEKU.-Obitegl.

Kirtenko bl euien atxurraz, eta beste batzuk aurrera.

I KIR.—Kistar obiratzetik egin bear ete yakok bere yareikundearen aurka ibili izan danari? (9).

II KIR.—Baietz dirauskat; eta, ori dala-ta, bertatik egin bear yakok zuloa; neskato orregazko erabagia artu yok endoreak (alkateak) bere ebazpenean, eta kistar-obiratzeta dagokola yinok.

I KIR.—Zelan izan ledikek olan, neskato orrek bere burua yagote-arren irato ezpa'yok bere burua?

II KIR.—Ba, olan izan dala idoro izan yok.

I KIR.—"Se ofiendendo" (10) izan izango zozan; ezin izan ledikek bestera. Izan be,

emen yagok koskea: neure kitetik Irato ba' dagit nire burua, egite dok orrako ori;

(9) "Salvaticra" itzarerl e3cmgurea yakin ez-etct, kirtenko edo astakillo onek dirlona auxe da itzik itz: "Kistar-obiratzetik egin bear ete yakok gogoz bere yareikundearen billa dabilen no'ri?". Au dala-ta, bere lekuan eztoz imini izon astakillo onek esan dauena, escn gura izan dauena baño.

(10) Emen be laterakaden escngurea okerretara arfzen dcru obigin kirten onek "Se defendendo", bere burua yagote-arren, esan gura izcm dau, baña ori esan-bearrean, "Se ofiendendo", bere buruori oker, irain egite-arren, diño, esan.

eta edozein egltek iru atal, iru adar yozak: egitea erabצigitea, egiterako bideratzea, eta egitea burututea: "argal", neskatoak bere kietik irato yok bere burua.

II KIR.—Bai, baña entzuidak, zulagin on orrek... (11).

I KIR.—Itxi egidak. Emen yagok ura; ori ondo; emen yagok gizona; ori ondo; ur one- iara etorri ba'dadi gizona, ta ito ba'dadi, ik gura, naiz gura ez, bera yatok a uretara..., oar akio orrako orri; baña ura etorri ba' dakio ari, eta irato, orduan ak etxok iratoten bere burua: "argal", bere eriotzearen errudun eztanak etxok laburtuten bere bi- zia.

II KIR.—Ori yñok legeak, ala?

I KIR.—Bai, kontxo, ori yñok; lege dok endoreak azterketa-ostean ebatzia.

II KIR.—Onako onegazko egia yakin gurok, ala? Aiton-alabarik izan ezpa'litzok neska- to ori, eleukean izango kistar-obiratzetik.

I KIR.—Ba! ointxe bai esan dok ik egia; ainbat tamalgarriago dok andikiak mundu onetan euren buruak irato, naiz eskegiteko, kistar zeak baño eskubide geiago izatea... Tira, nire atxurra. Etxagok baratzaínak, atxurlariak, eta obi-zulaginak baño aiton- seme zarragorik: Adan'en ogibideko do- zak orreik.

II KIR.—Aitonseme izan zoan a be, ala?

I KIR.—A izan zoan eguño lenen iskillorik erabili ebana.

II KIR.—Ba! etxoan izan ak iskillorik.

I KIR.—Ostera! Jentilen bat, sinistebakoen bat *az i. ala?* Zelan aituten dok ik Idaz- teuna? Idazteunak yñok, atxurren egiten ebala Adan'ek: zelan egiteko ak atxurre- nik iskillu bagarik, beso bagarik? Beste ezetz-igarri bat, beste itaun bat egingo daus- kat: arira erantzun ezpa'dagik, autortu egik zera azala...

II KIR.—Ekin.

I KIR.—Nor dok arginak baño, itsasontzigi- nak baño, naiz zur-arotzak baño sendoa- go bere zera egiten dauena?

II KIR.—Eskegigallu edo urkamendia eragi- ten dauena, ak dagianak aren milla maiz- terrek baño luzarago irauten yok-eta.

I KIR.—Begiko be begiko yatak ire buru- bizkortasuna, bai orixe; arira be arira ya- tok eskegigalluarena; baña zegaitik yatok arira be arira ta ondo be ondo? Txarto egi- ten dabenaí yatorkek ondo eskegigallua; baña txarto egin dok ik eskegigallua yaure- txea baño sendoago eginda dagola esatea- gaz: "argal", itzako dok eskegigallua. Ekiok, tiruk-

II KIR.—Nok egiten dauen bere zera argi- nak, itsasontziginak, naiz zur-arotzak baño sendoago, ala?

I KIR.—Bai, orixe esaidak, ela yarei geldi- tuko az.

II KIR.—Kontxo, oraintxe esango dauskaL

I KIR.—Ekiok, atara, mutil.

II KIR.—Mezea-arren, ezin yoat.

Andik aragotik aurrera datoz HAMLET ela ORATI.

I KIR.—Ez egiek sakatu geiago ire garaunei, ire asto motel-geldoak etxok aldatuko be- re oinkadarik ik yo-arren-eta: eta itaun au urrengoz egin dakikanean, ilobigina dala esan egik, ak eragiten dauzan etxeak az- ken-epai-egunerarte irauten yoek-eta. Oa. Vaughan'enera eldu adi; txopin bat txitxi- parra ekarri egidak. (Alde II Kirtenak).

(Atxurtu-akr abestu egiten dau)

Gaztetan, maitamin nintzanean

Gozo-ezti zala nik uste

Ezkontzea. Baña aldiana!

Gero dana idoro ustel.

HAM.—Ez ete dok oartuten urli au zeri da- ragoion, ilobigintzan olan abestuteko?

OR.—Ekanduak ekarri dautso orretan dauen nasaitasan ori.

HAM.—Olanxte dok izan be: lan gitxi egi- ten dauenaren eskua dok minberen.

I KIR.—(Abestuaz)

Baña adinak, bere oinkada ixilez,

Lurpean bean sartu izan nau,

Eldurik bere esku gogorrez.

Lurrezkoa naz, ba, nazan au.

(Gora-goraka egozten dau kaskazur bcr)

HAM.—Miñik be izan yok len bere barruan kaskazur orrek, eta abestu eikean: eguño lenengo giza-erailketea egin eban Kain'en matrallazurra ba'litzok lez egozten yok lu- rrrera zital orrek kaskazur ori! Erriketalarien baten buru-azurra izan ledikek ori, asto orrek eskuartean darabilen ori; Yaungoikoa- ri berari ziria sartu gura eutsanen bateno. Ezin izan ete ledikek olangorik?

OR.—Ba-ledike orrenbeste be, ene yaun.

HAM.—Naiz, yauregitarren batena; "Egun on, yaun ezti! Zelan zagoz, yaun on?" esan eikeanen batena. Urli yaunarena Izan le-

(11) "Argal" au be latera gaiztoturik da- rabil gogaldi argiko sasi-yakitun ilobigin onek. Laterazko "Ergo" itzaren ordez dara- bil, eta itz onek lateraz gure "Beraz.. ba" esan gura dau.

dikek, berendi yaunaren zaldia goratuten ebanarena, zaldi *a* yesan gura ebanean..., ezin izan ete ledikek?

OR.—Bai, ba-ledike, ene yaun.

HAM.—Ba-ledikek, bai; eta Eltxar Yaunarena dok orain; beko matrallazur barik, mosuan ilobiginaren atxurrak zaplatekoak emonda; aldakuntza lango aldakuntzea yoagu emen, zurtasunik asko ba'geu ikusteko. Orren zer eza izan ete zoan azurrok egitea, eurokaz orain apo-apoka yokatuteko? Ori gogoratzeak berak mindu egiten yaustazak nire azurrak.

I KIR.—(Abestucz)

Ortz-biko bat eta atxur bat,

Orreik eta soin-estalgia:

Ene! egin buztin-zulo bat ba,

Olango arrotzi egoki.

(Beste buru-azur bat yaurtiten dou).

HAM.—Aiko or beste bat; zegaitik ez izan ete ledikek ori legelariaren baten buru-azurra? Non dozak orain aien zertasunak, aren berezteen berezteak, aren yazopenak, aren eukibideak, eta aren marroak? Zegaitik yatsaten ete yok orain ezyakin zakar orrek bere para zikinagaz buruan yoterik, yotesalakuntzarik egiteka? lum! Lurr-erosla andirren bat izan edikean bere aláian urli au bere legeakaz, bere baituteakaz, maiztertzako bere ordain-geitzeakaz, bere agiri bikotxakaz, bere diru-arteakaz: au ete dok aren zer guztion atzena, eta aren, eta aren artuenean atzena, bere buru apaina auts zez beterik eukiteko? Bere erosketa-agiriak bere erosteetatik, eta agiri bikotxak be ez ete yautsoek emongo segurantzarik, agiri biren luzera ta zabalerako lurrerako baño beste ezetarakorik? Bere lur-yabetasunaren agiriak eurak be nekez artuko leukez kuxa onek; eta euren yabeak be ez ete yok izan bear geiagorik?

OR.—Izperrik bez geiago, ene yaun.

HAM.—Ez ete dok ardi-narruz egina idaz-narrua?

OR.—Bai, ene yaun, eta bai Utal-narruzko be.

HAM.—Ba, ardi ta txalak dozak euren segurutasuna olango zeretan billatzen dobenak. Itz egin bear yaustat urli orri. Norena dok ilobi ori, yaun?

I KIR.—Neurea, yaun...

(Abestuaz)

Ene! egin buztin-zulo bat, ba,

Olango arrotzi egoki.

HAM.—Ire dala uste yoat, bai, eu atza or-eta.

I KIR.—Zu etzatzaz onen barruan-eta, orroskero ezta zurerik: nigazko, ni enatza emen. eta orraitño be nire da.

HAM.—Guzurra diñok or barruan agola ta ire dala diñokanean: ilarentzako dok, ez bizirentzako; guzurra diñok, ba.

I KIR.—Guzur bizi da, yaun; zeugana yoango da atzera nigandik.

HAM.—Zein gizonentzako daragoiok ilobiginen?

I KIR.—Iñongo gizonentzako bez, yaun.

HAM.—Zein emakumentzako, ba?

I KIR.—Ezta iñongo emakumentzako be, yaun.

HAM.—Nor dok ot obratzeok?

I KIR.—Emakume zan bat, yaun; baño atsedenean al dago, ilik da-ta.

HAM.—Ezyakin orren bein-betikoarena! egin-eginean itz egin bearko yoagu, ostantxean on datuko gaiozak zimardikeak. Yaungoioa-arren, Orati, oartu natxakok iru urteotan; ain aurreratua dok gizaldi au-ta, basementarraren beatza ainbestean urreratuten yakok yauregitarraren orpoari-ta, min egiten yaustok bere ozpelean. Noztik ona az ilobigin?

I KIR.—Urteko egun guztietarik oraintsuengo gure errege Hamlet'ek Portinbaratz benderatu eban egun berean eldu neuntsan ogibide oni.

HAM.—Antzina izan ete zoan orrako ori?

I KIR.—Eztakizu, ala? Tentelik be eztozu ori ezin esan legikenik: Hamlet gaztea yaio zan eguna bera zan... burutik eginda dagona ta Ingelanda'ra bidali dabena.

HAM.—Bai, izan be; zegaitik bidali yoek Ingelanda'ra?

I KIR.—Ba! burutik eginda egoalako; an zurtuko da ostera be; noiz ezpa'dadi, eztautse asko ardura angoi.

HAM.—Zegaitik ez?

I KIR.—An ezlira oartuko agaz, ango gizonak euiak diia a bestean burutik eginak-eta.

HAM.—Zelan egin yakon burutik?

I KIR.—Iñondiko be iñondiko eraz, or diñonez.

HAM.—Zelan iñondiko eraz?

I KIR.—Ba! buruko argitasuna galdurik.

HAM.—Zer zala-ta, zer zala bide?

I KIR.—Bide! Ba! emen Danemark'a'n; gizaro ta mutikotan, ogei ta amar urtetan nozu ta izan nozu emen ilobigin.

HAM.—Luzaro egongo ete da gizona lurrean, usteltzeka?

I KIR.—Ba! il-aurretik ustelduik ez egotekotan, -ba orain zorna-erdidun gorpu asko doguz, eortzeko be ia eldu elegikeenak, -zor-



tzi-bereratzen bat urte iraungo dautsu: be-deratzi urte iraungo dautsuz narru-ontza-leak.

HAM.—Zegailik besteak baño luzaroago?

I KIR.—Ba, yaun, aren narrua ain ondurik dago bere ogibideagaz-eta, luzaro iraungo dau urik artzeka; eta ura yatsu zure gorpu emagaldukumearen usteltzalla lango usteltzallea. Amen buru-azur au; ogei ta iru urte egin dauz kaskazur onek lurpear..

HAM.—Norena izan zoan?

I KIR.—Izurriak eroango al dau! tentel baño tentelago zalako! Errin'go ardao bonbil bat egotzi eustan bein burutik bera. Aor ba, Yorick'ena, erregeren tentelarena izan zan emen dakusazun kaskazur au.

HAM.—Au?

I KIR.—Bai, orixe.

HAM.—Dakusadan. (Eskuetcm artzen dau).  
Ai ene! Yorick errukarria!... Ezagutu naioan, Orati; arriai be barre eragitekoa zoan a, irudimen utsa; amaikatxo bider eroan nindun ak bizkarrean; eta orain, onek emoten daustan iguinarena! okadaka asteko naia-gok. Emen yegoazan zenbat bider mun egin neuntsen eztakidan aren ezpanak. Non dozak orain ire irriak? Non ire buruzkan-kak? Non ire abestiak? Non mai osoa ba-re-zarata baten iminten eben ire gogargi-boladak? Bat be ez orain, ire eure aieruai irri egiteko? Guztiz buruyausirik? Oa orain nire anderearen apain-gelara, ta esaiok atzondo beteko apaingarria ezarri dagiola bere buruari, irudi au artzera etorri bearko dauela-ta; orri egin dagiola barre. Arren, Orati, zer bat esaidak.

OR.—Zer da nik esateko ori, ene yaun?

HAM.—Alesander'ek onango antza, onango yasa izango leukeala lurpean uste ete dok ik?

OR.—Bai, olangoxea.

HAM.—Eta onango andurrik izango leukeala? Uf! (Lurrera egotzen dau kaskazurra).

OR.—Olangoxea, ene yaun.

HAM.—Erabilkizun zatar be zatarrerako biur-tuten gozak, Orati! Ezin ete ledie yoan irudimena Alesander'en autsai yarrai, upe-len baten zuloa isten idoro arteño?

OR.—Zeatzegi aztertutea litzake olangorik egi-tea.

HAM.—Ez, ez orixe, ezta orren izperrik be; asko litzakek orragiño lotsortasunez eta egi-antzeko bidez yarraitzea; onan, esaterako: il zan Alesander, obiratu zan, eortzi zan Ale-aander, austu egin zan Alesander; lur da autsa; luiragaz egiten dogu buztin-orea;

eta buztin-oratuten garean buztin-ora agaz zegaitik ez itxi garardo-upelik?

Agintari Kaisar ospatsu, 11 eta buztinduak, Axerik sartu eztakion, itxi legioz zuloak: Ene! mundua ikara baten euki ebanak be-rak

Negu-arrakalak isteko, ormak adabau-bea-rra!..

Baña ixilik! Ixilik, gero! baztarreratu... Emen dator errege.

Aurrera Abadeak eta abar lerroz lerro; OPELE'n gorpuak, LERTZ eta lletariak atzo-Uk datozala; ERREGE, ERREGENOA, euien Yarraigokoak, eta abar,

Erregenoa, yauregitarrak: nor ete da darrai-kioena? Eta eleizkari orren urriz? Etsitako-ren eskuz bere burua manatu izan dauena-ren antza dau darraikiozan gorpuak: goi-ko mallakoren bat izan da. Makurtu gadi-zan apur baten eta oar gakiozan. (Baztaxtu egiten da Orati'gaz).

LER.—Ze eleizkaririk geiago?

HAM.—Lertetz dok ori, gazte zindo be zin-do: oar akio.

LER.—Ze eleizkaririk geiago?

I ABADEA.—Guk esan dogun besteraño el-du dira ileta-egikizunak: bada-ezpadako izan da neskato orren eriotzea; eta arau guzUen ganeUko dan agindu andi agaitik izan ezpa'litz, onetsi bagako lurrean sar-turik egon bearko eukean azkenengo tur-rut-otserarte; izan be, goi-maitasunezko arren-oidetz ontzi-txatalak, suarriak, arri txoko-rrak egotzi bear litxakiozan ganera; eta orraiUño, neska-iletak egin yakoz, neska-lora-sortak eroaten itxi yako, eta atzeneko bere etxera yoale-otzez eta ileta-ekanduz eroatea.

LER.—Ez ete dago egitekorik geiago?

I ABAD.—Eztago egitekorik geiago; zakar-tu egingo geunke ilen ileta-araua, "Re-quiem"ik abestuko ba'geu, eta bakez yoan diranen atsedeen-iletarik egingo ba'geun-sio neskato orri.

LER.—Lurperatu egizue; eta bioletak sortu-ko al dira orren aragi eder eta orbanako-Uk! Eta zuri, biozbako abade zakar orri dirautsut, bitarteko angeru izango dala ni-re arrabea zeruan, zu an bean negar-arran-tzaka ta aieneka etzanik zagozan bitartean.

HAM.—Ostera! Opele Iiraina dok!

ERREGEN.—Lorak lorearentzako: agur. (Lo-raz estalduten dau) Ba-neban nik itxarorik nire Hamlet'en ematze izango intzanala;

- iro emaztegel-oea loraz estaliko nebala us-te ta itxaro neban nik, ez ire ilobia.
- LER.—Ui, zoritxar irukotxa amar bider irukoizturik yausiko al da zure sentzun andi be andia bere egite gaiztoz kendu eutsunaren ganera! (Ilobigina) Ez egotzi oraindik lurrik ganera, beste bein nire arrabea nire besartean estutu dagidan arte: (Yauzi egiten dau ilbira) Pilatu orain lurra bizia- ren eta ilaren ganera, lur zelai onegaz mendien bat egin arte, Pelion *zaria* (12), naiz bers buruagaz ortzea ukututen dauen Olinpu urdina baño gorago yagiko dan mendien bat egin arte.
- HAM.—(Aurreratu-ala) Nor ete da bere nabi- bagea orren biziro diragarrena? Noren atse- kabe-itzak daragoioe biraoka izar aldarrai- lariai, eta geldituazo egiten dautse, arritua- ren arrituz zauriturik lec kezan entzuleai legetxe? Emen dago Ham\_ , Hamlet dane- markarra. (Yauzi egiten dau ilobira),
- LER.—Txerrenak eroango a! yok ire gogoal (Besteari eldu ta indarka).
- HAM.—Eztoz on, ez egoki ire arrena. Arren, kendu egizak ire atzak nire eztauritik; izan be, piririk eta zakarrik izan ez-arren ni, ba-yoat nik nigan kaltegarri dan zerbait, ire zurtasunak bildur izan bear leuskionik: alde eragiok ire esku orri.
- ER.—Banandu egizuez.
- ERREGEN.—Hamlet! Hamlet!
- GUZTIAK.—Aitonsemeok...
- OR.—Beretu zadiz.ene yaun maite. (Banandu egiten dabez Yarraigoko baizuk, eta flobitik urteten dira).
- HAM.—Ba, nire betazalak geiago igituteko gauz eziran arteño burruka egingo dau- tsat arazo onegaitik.
- ERREGEN.—Ze arazogaitik, ene seme maite?
- HAM.—Maite neban nik Opele; nirea lango maitasunik eleukien osotuko berrogei milla nebaren maitasunak bateraturik be. (LER- TETZ'eri) Zer egingo eunke ik ire arrabea- ren alde?
- ER.—Ui! burutik eginda yagok orl, Lertetz.
- ERREGEN.—Yaungoikoarrén, epe artu egiz- zue, yasan egizue ori.
- HAM.—Yaungoikoaren zauiak-arren, iragarri egidak zer egingo eunkaken; negar egingo eunkake? Burruka egin? Barau egin? Eure faurua urratu ta zeatu? Ozpina edango eun- kake? Ibai-muskertzarren bat yango eunke? Neuk be egingo yoat orrenbeste. Negar- irrirtzeka egoteko etorri az ona, ala? Niri eupada egiteko, neskatoaren ilobira yauzi eginik, ala? Bizirik ilogiratu akio, bai, eta neu be flobiratuko natxakok; eta, mendiez ba'daragoiok, euretatiko gizulanak inilloi- ka datozala gure ganera, olan sortuko dan mendiak bere burua eguzkitan kiskalita, be- re aldecn Osa mendia gari lango itxiriki Itz arro ta puztuak esan gura ba'dozak. ik bestean arro ta orroaka itz egin-ezinik etxoat.
- ERREGEN.—Zorakeri utsa dci au: eta onan ekingo dautso aldikadeak apur baten; urre- antzeko bere usakumek yaiio yakozan uso emea legetxe bare ta nasai, laster ikusiko dozue ori ixilik eta buru-makur.
- HAM.—Entzuik, yaun; zegaitik narabilk onan? Beti maite izan aut: baña etxok ardura; berak zer-gura egin-arren Erkul'ek, miau egingo yok katuak, eta txakuirak ausika berea egingo yok. (A)Jde dagie).
- ER.—Arren, Orati on, yagoik ori (alde ORA- TI'k). (LERTETZ'eri) Adoretu egik ire epea bart izan geban gure autuagaz; azkenen- go ukutua egingo yauntsaguk gure arazoari, Gerturde maite, yagolaen batzuk imini egio- zuz zure semeari. Gomutagarri bizien bat izango dau ilobi onek: laster elduko gara barealdira; epez yokatu dagigun arate. (Alde dagie).
- (12) Elade'ko mendiak dira Pelion, Olinpu ta Osa; iruretatik bat bera be ezta mendi andi andirik, baña Elade'ko a>ndienak eurak dira-ta, andi ita eskargatzal be ba-ebezun an- go olerkariak.

## II AGERLEKU.—Gazteluko areto.

HAMLET eta ORATI aurrera.

HAM.—Geiagorik ez arazo onetzaz, yaun; bestea dakusadan orain; gomutetan ete dozak arako ingurukoak?

OR.—Oba ez, ene yaun!

HAM.—Burrukea lango zer bat izan naioan orduan nik biotzean, eta lorik egiten be etxaustan itxi; asaldatuak bilboetan (13) baño be artegago ta neketsuago nengim la uste naioan, Adore-aldian, eta orrexegaitik onetsia bedi adore-aldia, batzuetan ba, gure asmo ta burubide umatagoak porrot egiten dauskuenean, laguntza onik egiten yauskuk gure itsumustukeriak, eta onako onek erakusten yauskuk ba-dala yainkoben bat gure asmcak berak erabili ta eraturen dauzana, guk geuk zakar burutu izan-arren.

OR.—Seguru be seguru da orrako ori.

HAM.—Urten nintzoan nire ontzi-gelatxotik, itsas-atorreagaz nire soña baturik, eta ilunetan aztaka ibili nintzoan euren billa: yaditxi naioan nik gura nebana; azka ibili nintzoan euren lotukian; eta, atzenean, atzera etorri nintzoan nire gelatxora; nire adore-aldian, eta nire bildurrak era-merak aztuazota, ausi naioan arein egikizunaren ikuratz; aurkitzekoa aurkitu naioan an, Orati; erregeren zitalkeriarena! Agindu egin-egina, argi ta garbia..., onako ta orrako labankeriz labandua, Danemarka'ko ta bai Ingelanda'ko Erregearen osasunagazko be, eta Ui! nire biziak, tximitzak baño be nazkagarriago ta txerrenak eurak baño geztoago ta okerrago nintzala esanaz, agindua irakurri-ala, ezetariko astirik galtzeka, ezta azkorea zorrozituteko lain be, burua moztu bear yatala.

OR.—Izan ete ledike olangorik?

HAM.—Aiko amen agindua: astitsuago irakurri egik. Baña entzun gura ete dok nik zer egin neban?

OR.—Esaidazu, arren.

HAM.—Nire burua azpikeri ta zitalkeriz olan esituta ikusirik..., nik ezetariko gertakuntzarik egiteka, lanean asi zoazan nire garaunak..., yezarri nintzoan; agindu barririk asnrau naioan; izki lirainez idatzi naioan; eta, orraitio, lanik asko egin nintzoan orrako trebetasun ori aztuteko; baña, adiskide, laguntza lango laguntzea egin yeustan une atan. Yakin gura ete dok idatzi nebaren ondorena?

OR.—Bai, ene yaun maite.

HAM.—Eskakizun zorrotza erregeandik... Ingelanda'ko erregea aren zergalari zala-ta; euren arteko adiskidetasunak palmondoak legetxe loratu bear leukela-ta; bakeak oraindik be galburu-sortea eroan eta euren adiskidetasunaren bitartean zutiko legetxe yagi bear leukela-ta; eta garrantzi andiko olango beste "dala" ta "leukela" ezarritakoan..., idazkiak dauena Ingelanda'ko erregeak ikusi ta yakin-ala, ezta-baida ta aiko maiko geiagorik бага, autortzeko be astirik emoteka, bertatik erail bear ebuzala idazkiaren eroaleak.

OR.—Zelan ikurrazu zeban?

HAM.—Ba, orren ardurea be artu izan eban zeruak. Sakelean neban nire aitaren ikurratz txikia, Danemarka'ko ikurratzaren erduzkoa; bestea legetxe azpildu edo tolestu naioan nik idatzia; izenpetu ta ikurratza ezarri naieuntsan; eta an, lengo lekuan, imini naioan, aldakuntzeaz iñor iñoz oartzeka. Urrengo egunean yazo zoan gure itsas-burrukea; eta leudik dakik arrazkerokoa.

OR.—Olan ba, eurenera yoazak Errosenkarantz eta Gildenesteren, eztko?

HAM.—Ba, gizon, eurak euren kitetik artu yoen egiteko ori, eta gogoz artu be; orrek etxaustak kezkatuten nire yakinkidetzea; euren ugazabazalekeriari zor yakok euren ondamendia; beti dok galgordetsu ariero indartsu biren ezpaten bitartean yarte.

OR.—Ba! errege onen izatekoa!

HAM.—Ak nire aita enegea erail eta nire ama emagaldutu; a nire itxaroen eta erriaren autapenaren bitartean sartu, eta ak nire biziari berari alango ziztrinkeriz amua egotzi izan dautsanazkero, ez ete dok ueste niri dagokidana dala beso onegaz, yakinkidetzearen aldetik ezetariko kezka bagarik, arena egitea? Eta ez ete dok gaitzetsigarri ta askarri bizien onek gure soñari kalterik geiagi egiten iztea?

(13) Oki-bidurrak dira emen Shakespeare'k dakazan "bilboes"; gizcnai oñak estu edo lotuteko burdiñezko langalluak. Bilbo'n, Bizkai'ko meetako burdiñegaz eginak zirala-koedo. Beste lekuren baten be ba-darabil gure idazle terbeak Bilbo itza, baña leku orretan ezpata itzaren ordez. Ezla arritzekorik gure idozleok Bilbo birritan aitatutea.

- OR.—Laster yakingo yok ak Ingelanda'tik, bere arazoak ze ondoren izan dauen.
- HAM.—Bai, laster yakingo yok; nire dok bi-tartea; baña tamal andi yoat, Orati maite, Lertetz'eri gogorregi egin neuntsolako; eta izan be, neuri yazoa dok arenaren irudia emoten daustana: aren biotz onaren, aren adiskidetasunaren billa ibiliko nok: baña, bai orixe, biotzaldi eskura-ezinean imini naienduan aren naibagearen puzkeriak.
- OR.—Ixilik; nor dator emen?

## OSERIK aurrera.

- OS.—Zori onez Danemarka'ra otzeru etorria dogu zure yauntasuna.
- HAM.—Nire eskerrik apalenak zuri, jaun. (ORATI'ri) Ezagun ete yak albandorraz ori? (14).
- OR.—Ez, ene jaun maite.
- HAM.—Yaungoikoaren adiskideago az orre-xegaitik, oben dok ori ezagututea-ta. Lurr-ctrlro andi ta mardulak yozak orrek; abere izan dadila abereen yabea, bai, eta izango yok askarik erregeren maian: bela zanga-gorri dok ori; baña, esanik dodanez, sats-ondasunez aberats be aberats.
- OS.—Jaun maitagarri ori, zure yauntasunak astirik izatekotan, zertxo baten yabe egin-go zindukedaz erregeren aldetik.
- HAM.—Biotzeko zolitasunik andienagaz artuko dautsut Bere egikizunean imini egizu zure txapela; bururako da ori.
- OS.—Eskerrik asko zure yauntasunari, baña bero be bero da.
- HAM.—Bai, zera; sinistu egidazu, otz be otz da; ipar-axea dabil.
- OS.—Bai izan be; alosoko otza da.
- HAM.—Orraitioño be, ni nazana nazalako eza-pa'da, sargori be sargori, ta bero be bero dala uste dot nik.
- OS.—Neurriz gora, geiegi, ene jaun; sargori be sargori da, zera bestean sargori..., ez-takit zelan esan be... Baña, ene jaun, zuri iragarri dagitsudala agindu daust erregek, asko yokatu dauela zure alde. Jaun, au da mamia...
- HAM.—Arren, gogoratu egizu... (Txapela yan-tziazoteo dautsa).
- OS.—Ez, ez orixe; neure nasaitasuna-arren, bai oi'i:e. Jaun, or dozu Lertetz, yauregi-urira etorbarri; sinis egidazu, aitonseme osoa, berezganirik bikainenakaz, lagun-ai-tean eramerarik bigunenduna, eta yasarik txaiioenduna izan be, aretzaz biotzetik itz egitekotan, txairotasunean egun-eguneko ya-tsu a, eta aitonsemek izan legikezan zer

goragarri guztiak agán batera dagozala ikusiko dozu.

- HAM.—Yaun.eztan ezer galdu zugan aren zeintzeak: nik dakidanez, burutik eragingo leuskio gomutearen zenbakiztiari a atalka azaltzeak, eta baztarreratu baño elitzake egingo, ontzi bizkorrari leku egiteko. Baña gorapenetan egitik alde egiteka, etsita na-go ni, benetan andi dala aren gogoa, eta aren berezko geitasunak ain iñondiko dirata, aretzaz egia esateko, eztago alangorik bere arpegiko ispilluz beste ezetan, eta aren antzeko izan gura dauena, aren itzal izango da, ez besterik.
- OS.—Uts-ezinarena baño be uts-ezinago da zuk aretzaz diñozuna.
- HAM.—Baña zetarako da orrako guzti ori, jaun? Zegaitik batzen dogu aitonseme a ari dagokion baño gure arnasa zakarrago-tan?
- OS.—Jaun?
- OR.—Ez ete dogu alkar aitu al izango beste izkuntzaren baten? Zure aldetik, baietz uste dot.
- HAM.—Z dala-ta aitatuten dozu aitonseme ori?
- OS.—Lertetz, ala?
- OR.—Dagoneko dago utsik orren sakela; agortu dira orren urrezko ítz guztiak,
- HAM.—Bai, axe.
- OS.—Ba-dakit etzareala zu eztakianik...
- HAM.—Zeuk azalduko al dozu, jaun; orrai-liño be, egia esateko, zuk azaldu ba'dagizu, etxat gogokoegi izango zure azalbena. Tira, ba, jaun...
- OS.—Etzara zu eztakianik zelango bikain-tasunaren yabe dan Lertetz...
- HAM.—Orrenbesterik autortuten enaz ezar-tuten, neure bikaintasuna arenagaz alde-ratutearen bildurrez; eta besterik ondo eza-gututeko, nobere burua ezautu bear dau aurreztik gizonak.
- OS.—Aren iskillloaz daregpiol nik, jaun; ba-ña, or diñoenez, eta or ari ezarten dau-tsoenez, ak eztau bere geitasunean nok ya-rrairik.
- HAM.—Zetariko da aren iskillloa?
- (14) Bizkaia'n, Arratia'n beintzat, esangu-  
 ct bi dauz "Albandorraz" itzak: 1) Zer lo-  
 diok ari lodiz yosteko erabilten dcra orrcetz  
 luze begi-andia. 2) Udan csinen gaxsean egaz  
 fbilten dan eulitzar musker, soin-luze, ego-an-  
 dí, begi-andia. España'ko erderaz "libelula"  
 ta "Caballito del diablo" be ereisten dautsoe  
 eulitzar oni.

OS.—Ezpatea ta ezpatamotza.

HAM.—Iskillo bi dira orreik: baña, tira.

OS.—Erregek, yaun, Barbari'ko sei zaldigaz-ko dema egin dau agaz: eta ak, bere aldetik, nik dakidanez, Pantze'tiko sei ezpata ta ezpatamotz beartu dauz, euren zerakaz, esaterako, garriko, txintxilin, eta ganetik zerakaz: burdietatik iru, bai orixe, ezin-ederrago ta pinpirinago dira, kirtinakaz yoko ezin-bateragoa egiten dabena; burdi zoragarri be zoragarriak, irudimenik bizkorenari be utuko eixtakoazan langouk.

HAM.—Zeri deituten dautsazu "burdiak"?

OR.—Ba-nenkian nik aldameneko oarrak irakurri-bearrean arukituko zintzazala egitekoa egin-aurretik.

OS.—Ezpatak eskegiteko ugalk dira burdiak.

HAM.—Egokiago ta kidekoago litzake izen ori, gure aldamenean suodien bat eroango ba'geu: baña olangorik yazo arte, nigazko, obe litzake dingil-ugal edo olangotsuren bat erabili, zerok deituteko. Baña, ekiozu: sei Barbari-zaldi alde batetik, eta sei Pantze-ezpata beste aldetik, euren zerakaz eta burdiakaz; Pantzetarrak Danemarkarren aurka dema egiten dabela esan gura dau orrek: zegaitik "beartuten" da a, zuk esan dozu-nez?

OS.—Erregek egin daulso, yaun, zuon arteko amabi ezpatakadatik, ak azetz yo zu iru biderrez gora; eta «k egin dau baietz yo amabitik bederatz bi; eta bertatik ikusiko litzake orrako ori, zure yauntasunari eder izatekotan erantzutéa,

HAM.—Eta nik ezetz erantzun ba'nei, zer?

OS.—Zera da nik esan gura dodana, zein zarien geiago ikusteko zu agertuko ba' zintzaz.

HAM.—Yaun, ibiitaidi bat egin gura dot emen bebarrean; aren nagusiagotzeari eder izatekotan, arnasea artzeko aldia yat au: dakazala ezpatak, aitonsemeak gura ba'dau; eta, erregek bere demeari ba'deutso, emen nago ni aren alde irabazleko; bestera izatekotan, nire lotsari ta ezpata-mokokadaz besterik ezto irabaziko.

OS.—Ori iragarriko ete dautsaz?

HAM.—Ori da esan bear dautsazunaren mamia, yaun; zure izakereari dagokozan apain-garriz txairoturik.

OS.—Nire begirapenak zuri, ene yaun.

HAM.—Zure beti, zure beti. (Alde OSINIK'ek). Ondo egiten yok orrek bere buruari gorantziak emoteagaz, bere orde z nok emonik etxok-eta.

OR.—Or doa amilotxa ori bere abitik, arrautza-azala oraindik buru-ganean daroala.

HAM.—Tititari (ugatzari) be orrek buru-makurketak egin yauntsazak edoski-aurretik. Orrek eta nik ezagun dodazan orren abiko beste askok aldi zakar onetan kutunduten diran orretariko askok aldiak zer eskatu a egiten eta alkarregazko txerak egien bayakiek; arako bits-moltso antzeko dozak olangoak; kaskarin dozak; eretxirik axatuen eta artzatuena norantza putz egin, arantza yoazak olangoak; baña zelango diran ikusteko putz egiek, bai, eta yoanik dozak iztilok.

ANDIKI bat aurrera.

AND.—Ene yaun, bere gorantziak bidali dautsuz Erregeren nagusiagotzeak Oserik gaztearen bitartez, eta zu bebarrean aren begira zagozala esan dautso onako onek; eta ak bidali nau yakiteko begiko yatsunentz Lertetz'egaz orain yokatutea, ala asti geiagor artu gura dozun.

HAM.—Nire erabagiai zintzo natxakela nago ni; eta erregeren ederraren yarrai doaz nire erabagiak; gertu ba'dago Lertetz, gertu nago ni be; orain, naiz edonoz, ni orainbestean gei aurkitutekotan.

AND.—Berako bidean dira errege, errege-noa ta guztiak.

HAM.—Aldi onean.

AND.—Yoka-aurretik zuk Lertetz'eri txeraen batzuk egitea gura dau erregeoa.

HAM.—Ondo datoz aren onuak. (Alde Andikiak).

OR.—Galdu egingo dozu zuk dema au, ene yaun.

HAM.—Enok eretxi orretakorik; ekin eta ekin erago yauntsat nik ikasten a Pantze'ra yoanazkero; eta emoten dausten aldeagaz, irabaziko dodala uste yoat. Baña ik eztafik, urrean, emen nire biotzean zer yazoten yatan; baña, etxok ardura,

OR.—Ez, ene yaun maite...

HAM.—Uskeri baño ezto; baña zer yazokoa-aren susmotxo bat dok, emakumerik seguru be artegatuko leukena.

OR.—Zure biotzari gogoko ezpa'yako zerbaft bere esanera zagokoz; neuk galazoko dautset ona etorten, eta etzagozala gerturik esango dautset.

HAM.—Ez olangoren izperrik be; irri dagitset nik aurre-bildur eta susmoai; artatxoririk be ezto; yausten Yaungoikoaren be-rarizko aurre-ikuste bagarik, Orain yazoazkero, ezto; gero yazoko; etorri bear ezpa'

yok, eztok orain etorriko; orain ezpa'yatok, orraitño be etorri etorriko dok; gertu ego-tea dok dana; gizonik ezpa'dok izten dauenaren yabe, zer ardura yautsak orain, naiz geroago itxi?

Aurrera ERREGE, ERREGENOA, LERTETZ, Andikiak, OSERIK, eta Laguntzakoak, ezpa-ta ganetiko zerakaz.

ER.—ÍHAMLET'en eskuan iminten dau LER-TETZ(ena) Erdi, Hamlet, erdu, eta artuik esku au nik emonda.

HAM.—Azketsi, parkatu nagik, yaun: okerrik egin izan dauskat, baña azketsi egidak, aitonseme az-eta. Ba-yakiek *emen* dagozananak, eta ik euk be entzun bear izau dok, gexorik eta bere zigorpean naukala zorakeriak. Gedarrez, zoli, ta ozen autortuten yoat emen nire zorakeriari zor yakola ire biotza, ire dedua ta ire yakinkidetzea gogo eta zakarkiro iratzarri ta artegatu egi-keazan nire egina. Hamlet izan zoan Lertetz iraindu ebana, Lertetz'eri oker egin eutsana, ala? Ez Hamlet, eguño bez Hamlet. Beragandik alde eginda ba'dago Hamlet, eta bere buruaren yabe ezteanean Hamlet'ek Lertetz'eri okerrik egin ba'dagio, orduan ezta Hamlet okerrik egin dauena, ukatu egi-ten dau Hamlet'ek, ezetz diño Hamlet'ek. Nor da, ba, dagiana? Aren zorakeria; olan izatekotan, Hamlet bera be oker egin yakonaren aldeko da; Hamlet errukarriaren arerio da bere zorakeria. Yaun, emen dagozanan aurrean, beren-beregiko okerristik nire burua zuritute onek yareiko al nau, etxegana zear nire gezia yaurtinda, gezi orregaz neure anaiea zauritu dodala zure biotz zabal zabaleko, gogaketetan zuk usts izateraño.

LER.—Naikoturik, asko etsirik yagok nire biotza, bere zirkin eta bultzadak yaiotzatikoaren aldetik orain azakatutera bultzau bear nindukien nire biotza: baña, nire dedua-gazko, begira naiagok; eta ez aut adiskidetzat etsiko arik eta gizon zar eta entzute onekoen batzuk onezkoak egitera bultzau-arte, nire izena ezetariko orban bagarik gelditu dadin. Baña bien bitartean, adiskidetasantzat artuko yoat ik opaturiko adiskidetasuna, eta etxautsat utsik egingo.

HAM.—Biotz zabalez aintzakotzat artzen yoat ire eskeintza ori; eta zindo be zindo yokatuko yoat anaien arteko zeingeiagoketa onetan... Ekaguzuez ezpatak; tira.

LER.—Tira, ekadazue bal niri.

HAM.—Lertetz, neu izango nok ire yo-buru nire trakeskeriz; izan be, nire ezyakitearen aldean su ta gar egingo yok ire ganoreak, gaurik ilunenean izarrak egin daroenez.

LER.—Niri irrika daragoiok ik, yaun.

HAM.—Ez, esku au-arren.

ER.—Emoiezak ezpatak, Oserik gazte. Hamlet illoba, ete dakik demeas?

HAM.—Bai, eta ondo yakin be, ene yaun; alderik makalenaren alds yokatu dozu zuk.

ER.—Etxoat orren bildurrik; biok zaukiedaz ikusirik; eta len baño ikasiago izan-arren ori, orrexegaitik dok ik dokan alde.

LER.—Astunegi da au, dakusadan besteien bat.

HAM.—Gogoko yat auxe. Luzera bateko dira ezpatok, ala? (Yokatuteko gertatuten dira).

OS.—Bai, ene yaun on.

ER.—Ardao-pitsar batzuk imini egizuez mai orretan... Hamlet'ek yok ba'dagi lenengo naiz bigarren eraso-aldian, naiz irugarrenean ordea emon ba'dagio, arresi-ganeko suodi guztiak su egin dagiela; edan egingo dau erregek, Hamlet adoretuteko; eta ezkontza-erestun bat egotziko dau edalontzira, Danemarka'ko lau erregek urregorik urregio euren buretunean eroan izan daben pitxirik ederrera baño ederragoa. Ekadazue edalontziak; eta danborrak def egin dagiola turutari, turutak suodilariari, suodiak ortzeari, ortzeak lurrari: "Hamlet'en osasunaren alde edaten daragoio orain erregek"... Tira, asi... eta zuok ebazleok, *zur eta adi* egon.

HAM.—Tira, yaun.

LER.—Erdi, ene yaun. (Ba-daragoioe yokoon).

HAM.—Bat.

LER.—Ez.

HAM.—Ebatzi dagiela.

OS.—Yo dau, agiri agirian yo dau.

LER.—Ori ondo; -barrio.

ER.—Etxon, ekadazue edaria. Hamlet, ire dok pitxi au; ire osasunaren alde! (Turut-ots; suodien otsa barruan). Emon egiozue edalontzia.

HAM.—Eraso-aldi au amaitu gura dot lena-go; or itxi apur baten. Erdi... Beste ukutu bat; zer diñok?

LER.—Ukutu bat, ukutu bat; autoituten yoat. (Ba-daragoioe yokoon).

ER.—Gure semeak irabaziko dau.

ERREGEN.—Gizen dago ta arnas-estuka. Auto, Hamlet, nire mosu-zapia, igurtzi egik ire arpegia; ire zori onaren alde edaten yok erregenoak, fiamlet.

HAM.—Anderearen en!

ER.—Ez egizu edan Gerturde.

ERREGEN.—Bai, edango dot, ene yaun; azketsi nagizu, arren.

ER.—(Bere kitean) Edendun edalontzia; beluegi da.

HAM.—Oraindik enaz azartuten edaten, andera; gesu baten edango dot,

ERREGEN,—Erdu, legortu egingo dauskat inoaia.

LER.—Ene yaun, orain yoko dot,

ER.—Etxeat uate.

LER.—(Bere ki:ean) Eta orraitioño be nire yakinkidetzaz besterako da ia ia.

HAM.—Eriu, Lertetz, irugarrena artzeko: olgetan abil i; arren, egin-alean ekiok: bildur nok umetzat artzen nokala.

LER.—Ori diñok? Erdu, ba. (Ba-daragoioe yokoan).

OS.—Utsa. Ez batarena, ez bestarena.

LER.—Autso, ba, orain! (Zauritu egiten dau LERTETZ'ek HAMLET; burrukako bero-al dian eskuz aldatu egiten dabez ezpatak, eta Hamlet'ek zauritu egiten dau Lertetz).

ER.—Banandu egizuez; asarrez suturik dagoz.

HAM.—Ez, erdu barriro. (Yausi egilen da Erregenqa),

OS.—Lagun zakioez enegenoaari, ee!

OR.—Biak dagoz odola dariola, Zelan zagoz, ene yaun?

OS.—Zelan zagoz, Lertetz?

LER.—Ba! neure marroan goaturiko ollagorra legetxe, Oserik! Zuzenez erail nabe neure azpikeriz,

HAM.—Zelan dago erregenoa?

ER.—Larritu egin yok zuok odola dariola ikusiak,

ERREGEN,—Ez, ez, edariak, edariak» Ui! Hamlet ene seme kutun..., edariak, edariak. Edendu egin nabe (II egilen da).

HAM.—Zitalkeriarena!... Eee! itxi atepak: azpikeria dogu emen! billatu dagigun. (Yausi egiten da LERTETZ).

LER.—Emen yagok, Hamlet; erailik ago i, Hamlet: munduko osakaik eztausk onik egingo; eztok ordu-erdiko bizirik; ire eskuetan yagok langallu azpikeritsua, amustubakoa ta edendua: neure aurka biurtu dok marro okerra; ara, emen natzak ni, oraindik ara bein be ez yagiteko: edendurik yagok ire ama: ezin yoat geiagorik... erregek, erregek yok errua.

HAM,—Ezpata-mokoa be edendurik!... Olan

izatekotan, lagun akit, eden oxi. (Erail egiten dau Errege, ezpateagaz).

OS. eta ANDIKIAK.--Azpikeria! Etoikeria!  
ER.—Ene! Lagun zakidaze, adiskideok, oraindik zauriturik baño enago-ta.

HAM.—Autso, Danemarkar ezkontzausle, eraille, askarri ta gaiztetsi ori, edaik edari au. Elxagok or ire pitxia, ire eskontza-erestuna. ala? Arraikio nire amari. (II egiten da).

LER.—Zuzenez emon yako bere irabazia; berak gertauroko edena da. Alkar azketsi dagigun, Hamlet zindo: eztok ik nire ta nire aitaren eriotzaen erurik eta erantzuterik, ezta nik be irearen erurik eta erantzukizunik! (II egiten da).

HAM.—Zeruak yareiko al au orretatik! Or narraikik. Ilik nok, Orati. Agur, zori barreko erregeon! Yazokune onelan zurbil etii ikaraz izka ta ikusla baño etzarienok, astirik ba'neu, astirik..., baño artzain errukibako ta muker da eriotzea..., astirik ba'neu, nik esan al izango neunskitsuena..., baño zer egingo? Orati, egin yok nireak; bizirik ago i; azaldu egiek nire arazoa ta nire yokabidea eztakiezana.

OR.—Ez egik izan olangoren usterik; beñolako Erromarrago nok ni Danemarkar baño, badok emen oraindik edaririk arean.

HAM.—Gizon azan aldetik, neuri ekadak edalontzi ori; yareik; zerua-arren, neuk edan bear yoat. Orati maite ori, zerak onan ezzagun gelditzezotan, nik bai itxiko dodala kakaztutako izena nire atzean! Eguño ire "biotzean lekurik izan ba'yoat, urrindu adi apur baten zori onetik, eta nekez amasea artu egik munda latz onetan, niri yazoa eraltekoo... (Gudari-ibilketa urrinean, ta iski-Jlo-otsa barruan). Ze gudu-ots dok orrako ori?

OS.—Portinbaratz gaztea dator Poloni'tik, gudu irabazita, eta Ingelanda'tiko geznariak egiten dautse gudu-txera au.

HAM.—Ui! Ilten nok ni, Orati: guztiz benderatu yok nire bizia eden indartsuak; ezin nok bizi Ingelanda'tiko barriak entzuteko; baño igarten yoat Portinbaratz'en ganera yausiko dala autspena: aren aldeko dok eriotzaldiko nire autaketa; ori esaiok arl, yazokune andiango ta txikiagoakaz batera, ni orretara bultzau izan nabenaakaz, Ixilik gldituko dok gantikoa. (II gitin da).

OR.—Oraintxe dagi tarrat biotz zindo batek, Gau on, erregeseme maite, eta angerutaldea eroango al aue ire atsedentegira! Zegaitik ete datoz ona danborrok? (Gudari ibilketea barruan).

PORTINBARATZ, INGELANDA'tiko Geznariak,  
eta bests batzuk aurrera.

POR.—Non da orrako ikuskizun ori?

OR.—Zer da zuk ikusi gura zeunkena? Ondikorik, naiz ikaragarririk ikusi gura ba' dozu, itxi egizu billa ibiltea.

POR.—Triskantzea izan dala emen diño gorpu-mordo onek. Eriotza arro ori, ze oturuntza egiteko az ire betiko gelan, onenbeste erregeseme zartada bategaz onen odoltsu lurreratuteko?

I GEZ.—Ikaragarri ta ilun da ikuskizun au, eta beluegi dator Ingelanda'tik gure egikizuna; eztabe oarmenik guri entzuteko ziran belarriak, aren agindua beterik dala ari esateko, ilik dirala Errosenkarantz eta Gildenesteren; nok emoteko guri eskerrak?

OR.—Ez aren agoak, zuoi eskerrik emoteko bizi ba'litz be: ak ez eban emon eguño agindurik aik erailteko. Baña arazo odoltsu onetara yo dozuenazkero, zuok Foloni'ko guduetatik, eta zuok Ingelanda'tik zatozenok, gorpuok goitegien baten ikusgaritzat imini dagiezala agindu egizue; *eia* itz egiten itxi egidazue nirl, zerok zelan yazo diran oraindik eztakian munduari azaldu ta eralgi dagiodan: olan, abagunerik izango dozue egite aragizko. odoltsu ta yaiotzeaz besterakook entzuteko; okerreko usteak, alanbearezko erailketak; marroz eta indorrez egin-

dako eriotzak; eta, azkenez, zerak okenertara urtenda, asmatzalleen ganera yausi diran asmoak: guzti au azaldu ta eralgi daiket nik zeatz eta egiz.

POR.—Len baño len dantzugun, eta zindorik zindoenak deitu entzuten erdu dadizan. Nigazko, naibagez artzen dot nik nire zori ona: lenagotiko eskubideak dodaz nik errege-erri onetarako, eta nire alde dot orain eretia eskubideok yabetzara aldatuteko.

OR.—Orretzaz be ba-dot esatekorik, eta indar geiago izango dauenaren agotik eukl be; baña unerik galtzeka, oraintxe dagi-gun egitekoa, oraindik erriaren biotzak uxo egon-arren, okerreko ustez, naiz marroz ezbear geiagorik yazo baño len.

POR.—Antzetzegira eroan dagiela Hamlet lau gudalburuk; izan be, ba, erregerik erregeen izango litzakean ori, erregetzara eldu izan ba'litz, seguru be seguru; eta orren eriotzeagazko, ozen eta zaratatsu itz egin dagiela gudarien eresiak eta guduko egikizunak. Eragi gorpuak.-Gudategiari bai ba-dagokoz onango ikuskizunak, baña leku au ezta orretaikoentzakorik. Zoaze, esaiezue gudariai sutu dagiezala suodiak.

(Iletct-erresi. Urten egiten dira, ilen gorpuak daroetzala; eta gero suodien oísa enízuten da, yoale-ots ba'litz lez),

#### AMAIA

Salta'n 1963'gneko Lotazilaien 22'garrean,



## ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

ALTXOR.—Pitxl eder, naiz dirutza andi.

ESARRE.—Itz onek, Arratia'n 'beintzat, esan. gura bi dauz, erderazko "enojado ta enor rae'ri erantzuten dautsenak. Bigarren esan gurean itzal itzaren senide be senide da. Esaterako, "Lurr-arlo asarreak dabez ba tzuk emen Argentina'n! Aquí en la Argentina algunos poseen enormes extensiones de tierras".

ASTAKIN.—Zerbait aztatu edo "pixetuteko" lanabasa edo tramankulua.

ASTATU.—Zerbait astun, ala aiin dan ikusi ta neurtutea.

ATXILO.—Goatua, alan be gudian goatua ba'da.

ARRANBEL.—Besoia beteko, edo olangotsu dan eta oben egin daiken makileari mokotik mokora, edo puntatik puntara idizila, naiz beste olangotsu zeren bat ezarri ba' dagiozu, or dozu eginda arranbela, beragaz geziak yaurtin eta, olan, zerbait eraiiteko, naiz zaurituteko. Lenago gudariak be guduatan asko erabilten eben lanabasa edo iskillu au.

BAZKATU.—Yan, naiz yaten emon.

BILBATU.—Eundu, yosi; zatiak, alkarri deutsela, euren lekuetan imini.

BILBAKERA.—Yoskera,- atalak alkarregaz yoskera.

BURESTUN.—Erestun, edo elastuna atza estutekoa danez, burestuna be burua estuteko edergallu da; euskel-gaiztoz, koroe.

EDEN.—Edena dabe suge batzuk, eta eurak usigi ba' dagitsue egin dau zureak.

EDENDU.—Edena artu, besteak, naiz nobe-rak emonda.

EGURATS.—Arnasaz artzen dogun, eta ikusi ez-arren gure inguruan dogun zera; eta

bizkor dabilenean *axea* ereisten dautsaguna.

ERESKIDETZA.—Otsak alkarren kide diranean sortzen da ereskidetzea; atsegingarri egiten yaku olango otsen entzutea.

Ibai-MUSKERTZAR.—Besté izkuntzarik geiennetan "kiokodil" esaten dautsoen ibaietako musker-antzeko aberea.

IKURRATZ.—Euskel-goiztoz, "sillu".

IKURRAZTU.—Ikurratza ezarri.

IRADU.—Arin egitea yatsu íraduz egitea.

IZARBEL.—Izarren baten biran edo inguruan dabilen ortzeko edozein soin; Lur edo Ludi au, esaterako, Eguzkiaren izarbel yatsu; Marte ta beste batzuk be.

KALBA.—"Kalba" egin dauela esaten dogu Arratia'n irakastegira uts egin dauen mutikoak. "Sasi-eskola" esan daroe Oñati'n.

MOKO.—Aitabitxik eta amabitzik Paskoetan euren besoetakoai emoten dautsen adardun ogiari "mokotz" ereisten dautsagu. Zegaitik? Ba, egin-eginean adarrokaitik, azken zonotzokaitik. Zerbaiten azken zorrotza da, ba, mokoa.

MUKI.—Argi-taketak eta argizaiak, argi egiteko ba'dira, barruan, erdian izaten daben ari-sortea da muki dalako au.

SAGUTZAR.—Euskel-gaiztoz, "anatoe", naiz "arratoi".

SIRATS.—Zan, baña ez odol-biderik, soñari kemena emoten dautsana baño.

SUODI.—Gudu-sua egiteko erabilten diran bo-rontzeko odi-antzeko iskilloa, "kañoia".

YAURETXE.—Yaungoikoaren, naiz yainkoen baten etxea.

YAKINKIDETZA.—"Kontzentzle", euskel-gaiztoz.



# TORIL ETA KERSIDE

(TROILUS AND CRESSIDA)



# TORIL ETA KERSIDE (TROILUS AND CRESSIDA)

## ANTZEZTUTAKO LAGUNAK

PIRAMA (Priamus), Toroi'ko Errege.  
ETOR (Hector) j  
TORIL (Troilus) f  
PARI (Paris) } Aurrekoaren semeak,  
DEIPOBA (Deiphobus)  
ELEN (Helenus)  
MARGARELON, PIRAMA'ren sasikurne.  
ENEAS (AENEAS) í \_ , . . .  
ANTENOR ( Toroitarrak gudalburuelanko.  
KALKAS (Calchas), Eladatarrak dagon Toroitarrak Yaupari.  
PANDAR (Pandarus). KERSIDE'ren osaba.  
AGAMEMNON (Agamemnon), Eladatarren buruzagirik nagusiena.  
MENELA (Menelaus), aurrekoaren anai.  
AKILEUS (Achilles)  
AIAX (Aias)  
ULYSSES (Ulysses) ( \_ , . . . )  
\*\_ / Eladatarren gudalburusk.  
DUMEDAS (Diomedes)  
PATROKLOS (Patrocles)  
THESSALOS (Thersites), Eladatar konkor marmarlari.  
ALEXANDER, KERSIDE'ren Otsein.  
TORIL'en Otsein.  
PARIS'en Otsein.  
DUMEDAS'en Otsein,  
HELEN (Helen), MENELA'ren Emazlea.  
ANDROMACHE (Andromache), ETOR'en Emaztea.  
CASSANDRA (Cassandra), PIRAMA'ren alaba, igarla.  
CRESSIDA (Cressida), KALKAS'ien alaba.

Toroitar eta Eladatar Gudariak, eta Otseinak.

AGERLEKU.-TOROI, eta aren aurreko Eladatarren Gudaltega.

## SARRERA

Toroi'n dago gure agerlekua. Atenai'ko itsas-atera bidall dabez Elade'ko Izaioetatik euren ontziak, gudu gordinaren eragilez eta lanabasaz bete beterik, izaro areitako nagusi arro ta euren odol zindoa asarre-beroturik dabenak: errege burestuntxodun irurogeta bederatzik artu izan dabe Pirgi'rako bidea, Atenai'ko itsas- atetik urfenda:egin dabe Toroi'n lapurretan egiteko zina, Toroi'ko arresi sendoen barruan Paris lizunaren oe-lagun da Menela'ren erregeno, Elene ostua-ta; eta onako au da asarrebidet. Tenedos'era datoz, eta an us-tuten dabe ontzi sakonak euren barruko gudu-zamea; Dardani'ko zelaietan eragiten dabez orain euren txozna arroak Eladatar etorbarri ta oraindik zauririk bagakoak: Pirama'ren sei atedun uriak barruan yagoten dauz Toroi'ko semeak; atok Dardan, Tyinbira, Helias, Txetas, Toroitar eta Antenorides izenak dabez, eta, isteko, atok tranga-zulo ta tranga-zuloak artu-cdeko abetzarrak dabez trangatzat

Alde batekoak eta besteak, Toroitarrak eta Eladatarrak, alabearren eskuetan izten

dabez gili-gili egiten dautsen euren gogo gilberaen iucaroak: eta sarrera gudarl au emen natortzue, iskilloz ornidurilc, ez baña idazleaien, naiz antzezlarien alde erasoteko, geiarl dagokionez agertze-arren baño... zui ikusleoi esateko, anokeri-eupadak eta guiu onetako lenengo erak alde batera itxita, gure antzerkia gudu onen erdi-aldian asiko dala, andik ara, gudu-yazolcuneak antzerkiak artu-ala eralteko. Zui gogolco izcin, naiz ez, zeuk gura dozuona egin: on, naiz txar szan datorrena, guduko clcnbear da.

## I EKITALDI

### I AGEHLEKU.-TOROI. PIHAMA'ren yauregl-aurrea.

TORIL isMloakaz, eta PANDAR aurrera.

TOR.—Dei egiozu nire otseinari, datorrela ona; erantzi egin bear *áoiaz* iskillook; zegailik egin bear dot nik gudurik Toroi'ko arresiz atean, emen barruan onango gudu gorria dodan onek? Euren biotzen yaun eta yabe diran Toroitarrak doazala gudategira; ai ene! eztau biotzik Toril'ek.

PAN.—Ez ete da atonduko zer au bein be?

TOR.—Indartsu dira Eladatarrak, eta ganoraz darabile euren indarra, adoretu dira euren ganoran, eta kementsu eursn adorean; ni, ostera, emalcumeren negarra baño samurrago naz, loa baño be bigunago, ezyakinke-ria baño ziria sartu-errazago, neskagarbia gabaz baño bildurtiagi, eta oitu bagako umezaroa baño be ganorabakoago.

PAN.—Tira ba, asko dautsut nik esanik onako onetaz; nigazko, ni enatxatsue sartuko zuon bitartean, ezta egin dodana baño geiagorik nik egingo be. Gariagaz opilik egin gure dauenak begira egon bear dau garia eio arte.

TOR.—Enaz egon begira, ala?

PAN.—Bai, noz eio koren begira; baña noz eralgiko be begira egon bear dozu.

TOR.—Enaz egon begira, ala?

PAN.—Bai, noz eralgikoren begira; baña, noz yagilco be begira egon bear dozu.

TOR.—Orrako orren begira be egonik nozu.

PAN.—Bai, azkarria ezarri ta orea yagi arteño; baña emen dozuz orrako orren urrengoak orea igurtzea, opila egitea, labea berotzea, eta opila erretea; areago, opila noz otzituko be begira egon bear dozu, ostantxean opilak ezpanak erreko dautsuz eta.

TOR.—Epeak berak be, dana lango yainkono dala, eztau izan neke-lorrrak yasan eta eroatelco nik izan dodan baño epe geiagorik. Pirama'ren errege-maian yezarrita nagonean, eta Kerside gogora datorkida-

nean..., ni bal ba-naz ustel eta saltzalkt!... No a burua datorkidanean!... noz eztago, ba, a an?

PAN.—Tira ba, eguño izan dan baño ederrago iruditu yatan no a bart, naiz beste edozein emakume bGfio ederrago.

TOR.—Zuri esan-aginik nintzan... intzirizko ziria erdian sarturik, nire biotza erdi bitan zatitzelco egoanean, yazoten yatanari Etor eia nire aita oaituko yakozanaren bildurrez, arako intziria irribarreren izur artean ostonduten izan dot, laño bitartetik eguzkiak argi egiten dauenean legetxe: baña irudituriko poztasunean ostonduta dagon gotiluntasuna bertatik gotiluntasunera aldatzen dan pozaldia langoxe da.

PAN.—Elene'rena baño zarbait baltzeranago eza'paltz no aren adatsa..., ba, ba..., elegoke ezetariko alderik emakume bien artean,,, baña nigazko, nire senide da ata, or esaten denez, nik eneunke goratu bear a..., baña, orraitño be, norbaitek entzun al leu aren atzoko izketa edo solasa, nik entzun nebo:nez. Eztot ezetsi ta gitxitu gura zure arreba Kasandere'n buru-zorroztasuna, ezetara be; baña.

TOR.—Pandar ori! bai, Paniar ori!... nire itxarok no agan itota dagozala dirautsudanean, ez egidazu erantzun noragiño urperaturik dagozan itanduaz. Neuk dirautsut, burutik eginda nauka Kerside'ganako maitasunak: eta a eder dala erantzuten daustazu zuk; aren begiak, aren adatsa, aren mosua, aren ibilkerea ixurtzen daustazuk zuk zabal zabalik dagon nire biotzeko zaurira; eskuetan darabiltzu aren itzegikere, ene! aren esclua, aren aldean zuritasun guztiak aren eskuak baztuteko idazkur baño eztriranak; aren eldukera bigun-apitzaren aldean zisnearen lumak latz-diranak, eta ukumenaren mamia bera aren eskuaren aldean luginaren eskua bestean gogor di-

rana! nik *a* maite dodala bestean egi da zuk diraustazun ori; baña zuk, orrako ori diraustazunean, maitasunak egin daustan zcuri bakotxenn orioa ta usaburki edo usain gozoren orde zauriok egin daustazan aiztoa bera iminten daustazu.

PAN.—Egiaz besterik eztautsut esan,

TOR.—Egi osorik be eztozu esan.

PAN.—Nire sinistea-arren, ezto sartu gura arazo oneñan. Dana langoxe bedi no *a*: eder ba'da *a*, ainbat oba beretzat; eder ezpa-da, bere eskuetan dau ak orrako ori zelan zuzendu.

TOR.—Pandar on... kaxo, Pandar!

PAN.—Nekez besterik ezto izan nire lanaren sarizat; susmo txarrak no aren aldetik, susmo txarrak zure aldetik: or ibili naz bataren eta bestearen bitarteko, baña esker onik gitxi baño ez nire nekeen alderako.

TOR.—Ostera! asarre zauguz, ala, Pandar? Nigaz, ala?

PAN.—Nire senide dalako *a*, *a* ezta Elens bestean eder: nire senide ezpa'litz, Elene igandez bestean eder litzake *a* Barikuz, Baña zer ardura daust niri? Eleuskit ardura *a* mairu bestsan baltz ba' litz be; bardin yat niri bata, naiz bestea.

TOR.—*A* eder eztanik esan dot nik, ala?

PAN.—Eztaust ardura zuk olangorik esan dozunentz. Ero ta ergel da *a* bere aitaren atzean gelditu izan dalako; doala *a* Eladatarren artera; eta orixe esan be esango dautsat urrengoz ikusi dagidanean: nigazko, ni enaz sartuko zuon bitartean, ez arazo onetan geiagorik egingo be.

TOR.—Pandar...

PAN.—Ez nik.

TOR.—Pandar ezti ori...

PAN.—Bego, arren; lenean itxlko dot dana, eta aor dana esanda. (Alde dagi. Gudurako ots).

TOR.—Ixilik, ots gogaikarriok! ixilik, ots zakar-latzok! zoro alde bietakoak! Nai ta nai ez izan bear dau eder Elene'k, onan zuon

odolez egunoro margoztuten dozuena. Ezin egin daiket nik burrukarik zegaiti onegaitik; mengelegi da zegaiti au nire ezpatearentzako. Baña, Pandar., Ene yainkook, zuok bai bidaltzen daustazuela izurri lango izurria! Pandar'ez beste biderik eztoz nik Kerside'ganako; eta no *a* maitasun-eskakizun guztietarako garbitasun-isíti dan bestean, muker eta setati da Pandar maitasun-billakelan nire lagun izateko. Dapene'ganako zure maitasuna-arren esaidazu, Apolon, zer dan Kerside. zer Pandar, eta zer garean gu geu. Indi da no aren oea; an datza *a*, pitxi *a*; itsaso asarre ta artega deitu dagigun gure Ilión'en eta no *a* dagon lekuaren arleko bitartea; salerosle gara gu geu, eta ontzidun Pandar gure itxaro loka, gurs eroan-ekarle ta gure ontzi da.

Gudurako dai. Enea aurrera.

En.—Kaxo, Toril errege-seme! zegaitik ez ago gudategian?

TOR.—An enagolakoxe: emakume-erantzun au dator egoki ta arira, emakumena dok an ez aurkitzea-ta. Ze barri dogu gaur gudategitik, Enea?

EN.—Etxera etorri dala Pari, eta zauriturik etorri be.

TOR.—Nok zauriturik, Enea?

EN.—Menela'k zauriturik, Toril,

TOR.—Odolustu baño eztau Pari'k: irainaren alderako zauri-atz baño eztoz orrako ori; Menela'ren adarrez odolurik yagok Pari, (Gudurako ots).

EN.—So, olgeta lango olgetea dogu gaur uritik atean!

TOR.—Olgeta oba legoke etxean, al ba'neu. al dot ba'litzok..., baña goazen ateko olgetara; arako bidean augu, ala?

EN.—Bai, eta al dodanik arinen yoateko.

TOR.—Tira ba, goazen, orrazkero. (Alde dague).

## II AGEHiEKU.-TOROI. Etxartebede.

KERSIDE ta ALESANDER aurrera.

KER.—Nortzuk izan dozak ortik zear yoan diranak?

AL.—Ekube erregenoa ta Elene,

KER.—Eta nora yoazak?

AL.—Bere goitegitik ibar osoa bere begipean artzen dauen eguzki urteera aldeko torre-  
ra, guda-ekitea andik ikusteko. Artegatu

da gaur Etor, aren epea on-indarra bestecfn tinko izan-arren: agirika egin dautso Andormake'ri, eta yo egin dau bere iskillogina; eta gudua solo-lantzeren bat ba'litz legetxe, iskillu arinak aldean dauzala egon da eguzkia yagi baño len, eta gudategira yoan da; eta gudategiko lorak oro, eurentarik bakotxa igarla ba'litz lez, negar egin

dabe, Etor'en asarreak zer diragarren aurreztik ikusirik.

KER.—Zer dala-ta izan dok asarre?

AL.—Auxe yatsu asarrearen zegaitia, orko zurrumuruak diñonez: Toroitaz odoldun antziiki bat dago Eladatararen artean, Etor'en illoba bera; Aiatz deretxo orrako orri.

KER.—Ori ondo; eta zer egin yok gizon orrelc?

AL.—Gizon berezi yatsu orrako ori, or diñoenez, eta bakarrik, berez dago zutunik.

KER.—Edozein gizon egoten dok zutunik, mozkorturik, naiz gexorik, naiz zango bagarik ez egotekotan.

AL.—Gizon orrek, andera, ainbat abereri ostu izan dautse euren eurenetik zerbait; leoia bestean adoretu da, artza bestean trakets eta muker, elepantea bestean geldo: gizon orregan izateak ainbesleraño pilatu dauz bere soñeko urak-etn, ergelkerira yo dau orren adoreak, andiaren andiz izten egrináa, baña bere ergelkerian berezterik asko dau; on-indarrak dauen gizonaren ukutuxorik be ba-dau arean; orretarako bide bagarik egoten da gotilun eta motz, eta iñoz gogargi ta alai ba'dago, erara bagarik besterantza da: edozeren giltzak dauz izan, baña orregan edozer giltzatic ain urtenik dago-ta, ezoeridun Briareu (1) da ori, esku asko izan eta bat be ezin eratri dauena; naiz Arga (2) itsu, begi uts izan eta ezin ikusi dauena. Akatsik ba'dau gizonek, orrek be ba-dau arenik arean.

KER.—Baña zer dala-ta asarratu bear yok Etor barre eragiten daustan gizon orrek?

AL.—Or diñoenez, atzo garaitu egin eban burrukan gizon orrek Etor, eta yota lurrera egotzi eban; eta lotsea-arren eta nastuaren nastua-arren, arrazkero baraurik ela begirik itxi bagarik egon da.

KER.—Nor dator emen?

AL.—Zure osaba Pandar, andera.

#### PANDAR aurrera.

KER.—Gizon adoretu da Etor.

AL.—ludian idoro Iedikenik bestean, andera, PAN.—Ostera! ostera!

KER.—Egun on, Pandar osaba,

PAN.—Egun on, Kerside illoba: zertaz dara-goiozue? Egun on, Alescmáer. Nolan zagoz, illoba? Noz izan zarie Ilion'en?

KER.—Gaur goxean, osaba.

PAN.—Zertaz zeragoiozuen ni eldu nazanean? Iskilloak yantzirik eta yoanik ete zan Etor, zuok Ilion'eratu baño len? Elene ez egoan yagita, ezta?

KER.—Yoanik zan Etor, baña Elene oraindik yagiteko.

PAN.—Olantxe da. bai; goiz ibili da Etor batetik bestera.

KER.—Orretaz erago dautsagu guk, eta bai aren asarreaz be.

PAN.—Asarre izan da, ala?

KER.—Alan diño onek.

PAN.—Egia, izan be izan da-ta; ba-dakit nik zegaitik izan dan be; erakutsíko dau gaur ak bere asarrea, bai orixe; eta Toril'ek be eztaugelditu gura a baño atzerago; ardu-raz ibiliko al dira Toril'az be, bai orixe be.

KER.—Ostera! a be asarre da, ala?

PAN.—Nor? Toril, ala? Toril da bietarik gizonen.

KER.—Yupiter ori! eztago aik alkarrekin bardintzerik, eztabe alkarren antzik.

PAN.—Zer? Ez Etor eta Toril'en arlean? Ezta-kizu dakusazun gizonik ezagutzen, ala?

KER.—Bai, lenago ikusirik, barrero ikusi ba'dagit.

PAN.—Tira ba, nik diñodana da Toroil dala Toril.

KER.—Orrazkero, nik diñodana bera difiozu zuk be; a ezjala Etor seguru nago-ta.

PAN.—Ez, eta Etor be ezta Toril zer batzuetan.

KER.—Bataz, naiz besteaz da ori egi; bero áo: Toril.

PAN.—Bera! ñi ene! Toril'en errukarri! bera al litz a...

KER.—Bera da izan be.

PAN.—A bera izate-orren, ortosik yoango nintzake ni Indi'ra.

KER.—Ezta Etor'ik a.

PAN.—Bera! ez, ezta a bera..., al litz bera! Tira ba, yainkoak dagoz goian; egun oberrik etorriko, edo dana amaituko da; tira ba, Toril, tira... Kerside'k al leu nire bio-

(1) Briareu dcdctko au Eladatarren mitu-iztiko gizatzarretoriko yatsu, irakurla. Birgili'k bere "Enearena" olerki ospatsuan diñonez, eun beso ebozan Briareu onek, eta besook ezperta ta ikurdi bana ebsn,

(2) Eladaiarren mitu-iztiki diñonez, eun begi ebazan Arga dalako onek, eta loak artzeti ebcmean, eun begiotatik 'bia'z gora bein be etxokon isten; beti atzarrik eta begira gitxienez bere begietatik larogei ta amar. Tzeu'k Io neskatoo bigantxatu ebanean, aren ematzte tukutsu Ere'k Arga imini eban Io bigantxci'ua yagoteko, Tzeu Io'ganatu ez edfn, eta aganatzekotain be Ere'k yakiteka eldu ez edin.



tza!... Ez, Etor ezía Toril baño gizon oberrik.

KER.—Parkatu, azketsi nagizu.

PAN.—Zarrago da Etor.

KER.—Azketsi, parkatu nagizu.

PAN.—Besteak eztau oraindik Etor'en adinik; beste ipuinik eralgiko daustazu bestsa Etor'en adinera eldu dadinean. Egunak eta urteak yoango dira Etor'ek Toril'en fcuru-argitasunik izan baño len...

KER.—Eztau izango olangoren bearrik be, bererik ba'dau.

PAN.—Ezta bestearen nolangotasunik be...

KER.—Eztau ardura.

PAN.—Ezta aren edertasunik be.

KER.—Elitxako egoki be, fcrea da obea-ta.

PAN.—Eztozu ebazpiderik, eztozu sentzunik, illoba: Elene'k berak zin egin eban lengo egunean, baltzeran dala Toril., eta olango-xe da izan be, autortu-bearrean nago... baña orraitño be ezta baltzeran be...

KER.—Ez, baña orraitño be baltzeran da.

PAN.—Nire sinistea-arren, egia esateko, baltzeran eta ez baltzeran.

KER.—Egia esateko, egi ta ez egl.

PAN.—Pari'na baño goratuago egin eban Elene'k Toril'en mosu-margoa.

KER.—Ba! kolore edo margorik asko dau Pari'k.

PAN.—Bai, izan be.

KER.—Orrazkero. Toril'ek geiegi euki bear-ko dau: no ak a goratu ba'dau, bestearsna baño goragoko da aren kolorea; batak kolore edo margorik asko izan, eta besteak geiago ba'dau, gorapen gartsuegi da orra-ko ori, kolore onik izateko. Ain gogoko litzakidan, Elene'ren urrezko miñak Toril onen kuper-kolorezko surragaitik gorantzi izan ba'leu be.

PAN.—Zin dagitsut Elene'k a maiteago dauela Pari baño.

KER.—Olan izatekotan, benetan da a Eladatar gogargi.

PAN.—Bai, seguru nago ak maiteago dauela Toril. No a lengo egunean etorri yakon ari ertz biribildun Ieiora..., eta zuk ba-dakizu eztauela ak okotzean iru-lau bizarrez besterik...

KER.—Izan be, aren bizar guztiak laster zenbatu-ezinik eztau ardandegiko zenbakiztiak be.

PAN.—Bai ba, gazte gazte da-ta: eta, orraitño, iru bat libera gitxi gora-bera, bere anai Etor'ek añako zamea eragi-ezinik eztau ak.

KER.—Gizeoz orren gazte ta eragitea orren zar da, ala?

PAN.—Elene'k a maite dauela zuri erakusteko... etorri zan Elene, ela okotzeko areka edo izurrean imini eutsan bere esku zuria Toril'i.

KER.—Erruki bekigu Yune! (3) zelan eten yakoko zotza?

PAN.—Ba! ba-dakizu sakostatxoa dauela ak okotzean: nire ustez, ederrago emoten dau-tso ari irribarreak, Pirgi'ko beste edozein gizoni baña.

KER.—Ene! bai, adofetsu egiten dau ak irribarre.

PAN.—Ez, ala?

KER.—Bai orixe, udagoieneko odeiak legetxe.

PAN.—Tira ba!... baña Elene'k Toril maito dauela zuri erakustako...

KER.—Begi onez artuko dau Toril'ek zure erakuste ori, erakutsi ba'dagizu.

PAN.—Toril'ek! Ba! ak eztau Elene aintza-koagotzat, nik arrautza ustela dodan baño.

KER.—Buru arroa maite dozun bestean maite ba'dozu arrautza ustelik, arrautzatan yan bear zeunkez ollaskoak.

PAN.—Ezin dausat barreari eutsin no ak ari okotzean nolan gili-gili ta zirri egin eutsan gogoratuaz; izan be, itzalez da zuri aren esku, eta autortu-bearrean nago...

KER.—Ez, eztozu zuk orretarako elorriorik ezarri-bearrik.

PAN.—Eta Toril'en okotzean bizar zuriren bat idorotea izan zan Elene'ren ardurea.

KER.—Ene bada! okotz aren erruki! ba-dago okotz a baño gari oberik be.

PAN.—Baña ango barreen barreak! negar-darioka egoan Ekube erregeñoa barreen barrez.

KER.—Bai, errotarri-darioka.

PAN.—Kasandere be barre baten egoan...

KER.—Baña orraitño be aren begietako lapikoaren azpiko sua etzan ain berorik. A be negarldarioka egoan, ala?

PAN.—Etor be barrek a egoan.

KER.—Eta zegaitik izan zan orrenbeste barre? Zer zala-ta?

PAN.—Ba! Elene'k Toril'en okotzean idoro eban bizar zuriagaitik.

KER.—Neuk be barre egingo neunkean, bizar musker edo berderik idoro izan ba'leu.

(3) Erromarren Yune ta Eladatarren Ere biak dira emakume edo, obeto esateko, yainkno berbera izen bigaz: bata Yupiter'en emoztea (Yune), ta bestea (Ere) Tzeu'rena, baña Yupiter eta Tzeu yainko bat bera izan bigaz, dainazkero, yainkono orreik be bietk dira bat, izen bigaz.

PAN.—Bizarragaitik baño barre geiago egin eben aik Toril'en erantzun politagaitik.

KER.—Zer erantzun *eban*, ba?

PAN.—Onako au esan eban Elene'k: "Berrogei ta amaika bizar baño eztozuz okotzean, eta euretarik bat baño ezta zuririk".

KER.—Elene'rena da erantzun ori,

PAN.—Bai, izan be; olan da ori. "Berrogei ta amaika bizar" diño to ak, "eta bat baño ez zuririk; nire aita da bizar zuri ori, eta aren semeak dira ganetiko guztiak". Yupiter!", diño no ak, "bizarrotatik zein da nire senar Pari?" "Kakotua", diño to ak; "atera ta emoiuzu ari". Baña ango barreen barreak! eta Elene lotsa-arren arpegia gorri gorri eginik eta Pari asarre asarraturik gelditu ziran; eta beste guztiak neurri gorri eginik eta Pari asarre asarraturik gelditu ziran; eta beste guztiak ncuiriz gorako barreak egin ebezan.

KER.—Bego ori orain; luzarorik asko iraun dau orrek-eta.

PAN.—Tira ba, zerbait esan neuntsun nik atzo; gogoratu egizu arako a.

KER.—Gogotan dot orrako ori,

PAN.—Zin egingo dot olantxe dala; Yorrailez yaioa ba'lilz legetxe negar egingo dau ak zugaitik.

KER.—Eta loratu egingo naz ni aren negarrik ezaturik, Orril-aurretiko asun ba'nintz legetxe. (Gudcttegitik alde-egite cfs).

PAN.—Adi! So! ba-datoz aik gudategitik: ementxe zutunik geldituko ete gaia, lllion' erantza datozala aik ikusteko? Orixe dagine, illoba on, Kerside ezti.

KER.—Zeuri eder yatsuna,

PAN.—Emen, emen, emen dago orretarako leku lango lekua; emendik ikusi daikeguz aik edertosko baño edertoskoago; euren izenez aitatuko dautsudaz aik igaro-ala; baña Toril'i oartu zakioz guztien ganetik.

KER.—Orren zoli ta garratz ez egizu itz egin.

#### ENEA digaro.

PAN.—Enea da ori: ez ete da adoretzu glzon ori? Toroi'ko loraetariko da ori, bai orixe. Baña Toril'i oar zakioz; laster ikusiko dozu.

#### ANTENOR digαιο,

KER.—Noi da oii?

PAN.—Antenoi da oii: buiu-zonoztasun zoznotz dau onek, bai orixe; eta onik asko da gizon ori: iñor izatekotan, ebazpiderik zindoenetaiikodun da oii, eta soñez be ede-

rrik asko. Noz etorriko ete da Toril? Lasfer erakutsiko dautsu Toril: ikusi ba-nagi, ikusildo dozu zelan burua makurtzen daustan,

KER.—Burua makurtuko dautsu, ala?

PAN.—Zeuk ikusiko dozu.

KER.—Ak burua makurtu ba'dagitsu, lendik dozun baño geiago izango dozu.

#### ETOR digaro,

PAN.—Etor da ori, ori, begiratu egizu, ori: or dozu gizona! Zoaz zure bidez bide, Etor. Or dozu gizon adoretzu bat, illoba. Etor, adoretzu ori!... Begira zelang antza dauen! Or dozu yasa lango yasea! ezta adoretzu gizon ori, ala?

KER.—Ene! bai, gizon adoretzu da, bai!

PAN.—Ezta, ala? Poztu egiten da biotza olan. go gizonik ikusiaz... Begira orren burukoakoleko mallatuak! Arago begiralu egizu; bai ete dakusazu? Begira ara; an eztago txantxetarik; an datzae, bai; kendu dagizal mallatuok, gura dauenak, or esan daroe. nez; bai, an dagoz mallatuak!

KER.—Ezpataz eginak ete dira?

PAN.—Ezpataz! Edozegaz, eztautso ardura orri zegazko diranik; bardin yako orri. txerrena bera ba'datorko be: Yaungoikoaren betazalak-arren, biotz-pozkarri da ori ikus-tea, Andik aragotik dator Paii, aiagotik datoí Paii:

#### PARI digαιο.

arago begitu, illoba; ezta adotetsu gizon ori be, ala? Ezta, ala?.. Ba! Bapo!... Nok esan dau zaurituik etorri dala ori gaur etxera? Eztago zauriturik; bai, pozik be pozik geldituko da orain Elene'ren biotza, bai orixe!... Ikusiko al neu orain Totil!... Laster ikusiko dozu Toril,

#### ELEN digoro»

KER.^Nor da ori?

PAN.—Elen da oil: Nondik ete da Toril? Elen da ori, Eztat uste a gudategira gaur yoan danik: Elen da ori.

KER.—Ba-daki Elen'ek burrukarik egiten, ala, osaba?

PAN.—Elen'ek! ez; bai, bada-ezpadako gudarri yatsu. Andia da Toril ez agertzea. So! eztantzuzu erria "Toril" gedarrez, ala? Abade edo yaupari yatsu Elen.

KER.—Nor da or atzean galdurik datorren ori?

TORIL digare.

PAN.—Nondik? Andik aragotik, ala? Deipoba áa a; Toril da! or dozu gizona, illoba! Aja!... Toril kemen-suai zaldunen zalduna!

KER.—Ixilik, lotsea-arren, inilik.

PAN.—Oar zakioz: zeindu egizu: Toril adoretu ori!... Ondo begiratu egizu, illoba; begiratu egizu aren ezpata odoleztaua, eta aren buru-koskola, Etor'ena bafto be mallaluagoa: eta aren yaseu ta ibilkerea!... Gazte orren arrigarri! ogei ts iru urtera eltze ko da oraindik... Zoaz zure bidez bide, Toril, zoaz zure bidez bide!... Arreba eder zoragarririk ba'neu, naiz yainkono lango alabarrik, aren autagai litzatekez. Gizon orren arrigarri! Pari, ala? Satsa det orren aldean Pari; eta segurutzat etsi egizu, Pari itxi ta Toril artez-arren, Pari'z ganera Elene'k bere begi bata be emongo leukela.

KER.—Geiagorik be ba-dator emen,

Indarrak digaroe.

PAN.—Astoak, ergelak, kirten utsak! galborea ta zaia, galbolea ta zaia! lapikokoa okela errearen ostein! Bizi ta il be egingo nintzake Toril ikuste-arren... Uf! ez egizuz begiratu be; yoanik dira arranoak; bela ta belatxingak dira orriak, bela ta belatxingak!... Gurago neunke nik Toril lango gizon izan, Agamenon eta Eladatar guztiak lango izan baño.

KER.—Akileu dago Eladatarren artean... eta Toril baño adoretuago da a.

PAN.—Akileu! Ba! burdidun da a, igarola, astako lango astakoa,

KER.—Tira ba, tira ba.

PAN.—Tira ba, tira ba! Ba! ba-dozu ezetarik bereztarik, ala? Eztozu begirik. ala? Eztakizu nor dan eta nor eztni gizon, ala? Ez ete dira yaiotzea, soin-yasea, edertasuna, itz-egikerea, gizatasauna, yakituria, zindotasuna, on-indarra, gazetasauna, eskuza-baltasuna, eta olango beste zerak gizonaren gatz eta edergarri?

KER.—Bai, zer askoz nasturiko gizon da orra-ko ori: naste-pastel ori gero datilik baga erreteko, olango gizona ez zar ez gazte data.

PAN.—Iñondiko emakume zauguz zu! Batek ba'daki ze aldetara yoten dauen zure axeorratzak.

KER.—Nire bizkar-ganean etzatsn naz ni, nire sabela yagoteko; nire buru-bizkortasunaren

ganean, nire iruzurleriak yagoteko; nire ixilkizunaren ganean, nire zindotasuna yagoteko; nire mosu-marroaren ganean, nire edertasuna yagotako; zure ganean, zer guztiolc yagoteko; eta yagolategi guztiotan etzaten naz ni, amaikatxo ardura arturik.

PAN.—Esaidazu zure arduretatik bat.

KER.—Ez, zeuri ardura izango dautsut; eta orrako ori da nire ardurarik beinena be: zer ukutu bear eztoricn ardurarik izan ezpa' dagit, zure begira egon nendike zuk noz esango zelan artu dodan takatekoa; olangorik yazoazkero, takatekoa ostondu-ezinerario anditu ezik, ostonduten ibiltea alperriko litzake-ta.

PAN.—Iñondiko zauguz zeu.

TORIL'en Mutikoa aurrera.

MUT.—Yaun, nire ugazabak bertatik ítz egin gura dau zukin.

PAN.—Non?

MUT.—Zeurean; an daragoio ak bere ískilloak erazten.

PAN.—Mutiko on, ba-noala esaiok. (Mutikoa alde!). A zauriturik ete dagon nago. Onik eta ondo ibili, illoba on.

KER.—Agur, osctba.

PAN.—Laster naz zukin ostera be, illoba.

KER.—Ni eroateko, ala, osaba?

PAN.—Ez, Toril'ganiiko esku-erakutsia zurl ekarteko.

KER.—Esku-erakutsi orregaitik, maitale-bitarteko zara zu. (PANDAR'ek alde) Itzak, zinak, esku-erakutsiak, negarrak, eta maitasunaren opakizun guztía eskeintzen dauz orrek besteren arazo edo egitekoan; baño Pandar'en gorapenezko ispilluan ageríu leitekena lango milla dakust nik neuk Toril beragan; eta orraitíño ezot artzen. Angeru dira emakumek maitasun-billaketan: eginik dagoz iritxiriko zerak, egitean bertan datza pozaren mamia; au ezpa-daki maite daben emakumeak, eztaki deusik be..., dan baño geiagotzcit dabe gizonak irabazi eztaben zera: yaioteko dago oraindik irabazitako maitasunean aren billaketan beste gozo ta ezti idoro izan dauen emakumea. Maitaketearen oarr-ikasitík ateraten dot esakera au: "Yaun da iritxi dauena, iritxi eztauenta, ostera, eskale \a yopu"; eta orregaitik, a maite izanaz nire biotza pozik egon-arren, nire begiz eztoz iragarriko olangorik. (Alde dagi).

## III AGERLEKU.-Eladatarren Gudaltea. AGAMENON'en txozna-aurrea.

Turut-ots. Aurrera AGAMENON, NESTOR, ULITZ, MENELA, ta beste batzuk.

AGAM.—Aundikioki, ze atsekabek imini dau-tsue laruena mosuetan? Beko lur onetan asitako asmo guztietan itxaroak egiten dau-suzkan eskeintzetan, uts egiten dau itxaro orrek aginduriko eskuzabaltasunak: gelditu-bearrak eta zori txarrak sortzen dira uste-surik ustetsuen asitako gure egiteen zane-tan, lerraren lakatzetara izerdiak batera yo ta an alkarrekin trikitx eginik, ler zindoa kutsatu ta izurriturik, eurenzko bide artezetik aren ariak okertu ta makurtzen dabezan legetxe. Erregeok, ezta gutzako zer barririk be, gu gure ustetik ain ur-in gelditzea, andik ain urrin gu aurkitzecz, zazpi urtez gu aren inguruan egon izan-jrren, Toroi'ko arresiak oraindik zutunik egotea; izan be, oroimenean doguzan orainarteko egiteetan be ezta izan bat bera be egitez, asmautako bidetik egiterakoan okertu ta makurtu ezta-nik, eta aurrezтик gure irudimenak emonda-ko antz eta irudiz egiteetan agertu danik. Orrazkero ba, erregeok, zegaitik dakusazuez gure egiteak arpegi yausirik, eta zegaitik eresten dozuez lotsagarri, izan Yupiter aundiaren zirikaldir besterik ez tiranazkero, gu-re gizon iraupena noragiñoko dan ikusteko? Alanbearraren esku-erakutsiak ez tira biderik onena metal au zindo danentz ikusteko ta az-tertzeko; eta izan be, bardintsu ta alkarren senide dirudie ausarditsuak eta koldarrak, zurrak eta ergelak, ikasiak eta ezyakinak, gogorrek eta bigunak, alanbearra gure alde dogunean: alanbearraren axe ta ekatxetan agiri da batzuetatik besteetara dagon aldea, axetallu zabal eta indartsuz guztiai putz egi-ten dautsenean, zer arinak ortik zear uxa-tzen dauzanean, eta bere ederra ta on-in-darra besteekin nastu bagarik, mamiduna bera bakarrik an gelditzen danean.

NEST.—Agamenon andi, Yaungoikoarena lan-go dan zure yarlekuari dagokon begirape-nez, euren bidean iminiko dauz Nestor'ek zu-re azkenengo itzak, orrei eragingo dautse. Alanbearraren mukerraldian datza ta agiri da nor nor eta zer dan: amaikatxo ontzi azal ausartzen dira itsasoaren bular apetsu-ganean ibiltzen itsasoa bare dagonean, ba-tera ta beslera ontzi aundi soin-aundiakin batera bidea eginik! Baña bein Ipar-axe zakarrak asarratu ba'dagi Tetzit txerakorra, or ikusiko dozu bertatik ontzi saiets-sendoa

mendi zirinak zear bere bidea urratzen, men-di zirinetik mendi zirinerako bitartea zear yauzi eginik, arako Perseu'ren (4) zaldiak legetxe: ontzitxo mengela, ostera, aren abe bagako egalak oraindik oraintxe anditasu-nari eupada egiten eutsona, sdo lcaira ige-sirik dozu, edo Netun'en osasunaren aldeko-tzat urperaturik. Egin-eginean, olantxe be-rezten da adorea zer dan eta zenbateraño-ko dan, alanbearraren ekatxetan: eta izan be, alanbearraren disdiz eta argitasunean ne-ke ta egiteko geiago izaten dabe abelgo-riak euligorrien aldetik, katamotzaren al-detik baño: baña axe erauzle ta arrakaltza-lleak aretx lakaztsuai belauinak makurtua-zoten dautsezanean, eta euliak keizpetara doazenean..., ba, orduan adore deretxon zera, asarrez atzarririk legetxe, asarrearen adiskide egiten da, begiko egiten yako asa-rra, eta alanbearrak yoten dauen doñuarl asarreak doñu berberagaz erantzuten dau-tso.

ULITZ.—Agamenon... gudaiburu aundi, ta Ela-de'ren zan, kirio ta azur zarean ori, gure gudarien biotz ori, guztien gogaldi ta go-goak zugan baturik eta bat eginik egon bear leukien ori..., entzuizu Ulitz'ek diñoña. Zuon bion itzaldiak txalotu ta ederretsiaz ganera. (AGAMENON'i) bai zurea, batez be zure le-kuari ta agintzeari dagokionez, eta (NES-TOR'i) zurea be, zure bizitza luzeari dago-kion begirapenez; eta itzaldiok ain bikain izan dira-ta, bata Agamenon bera langoxea ta Elade'ren eskuz borontzean irari bear lí-

(4) Tzeu Ꞥ Darnae'ren aeme izam zoin Per-seu doilako au, Eladatarren mitu-ia'fak diño-nez. Ama-semeak itsasora egotzi ebazan Danae'ren aitak, baña arrcintzale batek biak bizirik legorreratu ebazan. Gizandu-ala, eta Merkuri logun yakola, Meduse cnndera bil-durgarriari burua moztu eutsan, eta Meduse iloren buruko uleok sugetu egin ziran. Per-seu'k Amtormede'ren irudia ikusi eboin Me-duse'rem arpegi liluratuan, Andormede itsas-izakitzar zatar batek goatu-aginik ebanean, Perseu egoan lekuitik Andormede urrin egon-arren, beingoon egin eban Perseu'k batetik besterako bidea bere egodun zaldi Pegas'en ganean izartolaka yarrita, eta olco yarei egin yakon Andormede'ri, arako itsas-izakitzar iuguigarriak gootu fa iruntsi baño len.

tzakena; eto bestea be Nestor begiogarria bera langoxe izan da-ta, urre zurian irarri bear litzateke, andik, ludia inguruen biraka dabilkon ortze-ardatza bestean sendo litzateken lokarri sendoz lotu bear leuskioz bere min oarr-ikasiari Eladatar guztien berriari; oraitiño be ederetsiko al dozue zuk altsu orrek, eta zuk yakitun orrek, Ulitz'en itzaldia entzutea be.

AGAM.—Itz egik, Itake'ko enege-seme orrek; eta ire itzaldia Tersitetz zakarrak bere eiza-txakur agoa idigiten dauenean ditzaroguna baño be garrantzi bagakoago, mami bagakoago izango ba'dok be, alkarregandik banandu egizak ire ezpanak. Eresia, burubiz-kortasuna, ta goi-itza lez entzungo augu.

ULITZ.—Lurreraturik legokean bere oñarrien ganean dagon Toroi, onako zerokaitik izan ezpa'litz, eta Etor aundiaien ezpatea ugazaba bagarik legokean, onako zerokaitik izan ezpa'litz. Etxako egin yaramonik Agintaritzeak dauen bere zer berziari, eta begiratu, zelai onetan Eladatarren txozna uts dagozan beste alderdi uls dagoz euren artean, Erla bearginak ara doazan erlategia langorik ezpa'da gudalburua, nok izateko ez-tiren itzarorik? Goikoak eta bekoak alkarregandik berezi ezik, bitsuek marropean estaliakero, goikoen añaiko dirudi bekoenak marropean. Ortzean bertan, izarbeletan, eta ludiaren erdi onetan, guztiotan yagoten da lenengotzea, eta lekua, yezarleku *bliea*, neurria, giroa. antza, ogibidea, ta ekandua edozetan: eta orrexegaitik Eguzkia, izarbel argitsua; goitegi zindoa dago bere errege-yezarlekuraturik, bere soin borotila besteen bitartean dauela; eto aren begi osasungarriak arintzen dauz izarbel kaltegarrien zer txarrak, eta guztiak, onak eta txarrak, aiko-maiko bagarik men egiten dautsoe, erregeren aginduri legetxe; baña izarbelak, nuste zakarrean, alkarrekin nasturik aldarrai ba' dabiltz, orko izurri ta zer yazokoren bildur-rak! ango naste-borraste ta asaldatzearena! itsasoaren asarrearena! luurraren ikarearena! itsa orko axeen alkar yo-bear gorriarena! Bildurrak, aldakuntzak, ikara-lauorriak, banandu, zatitu egiten dabe lege-errien batasuna ta alkarganako baretasuna; eztanda eragiten dautse lege-errioi, euron yatorrizko egokerea itzuli ta nasturik! Asmo andi guztietara eltzeko zurubi dan mallea lokatu ta tarrat egin ba'dagi, ene! egikizunarenak, asmoarenak egin dau! Zelan irauteko, zelan iraungo euren leku yatorrean erriak, irakastegietako gorago-beragokoen mallak, urietako alkargo ta aroak, alkarregandik

bananduriko iisas-ertzetakoen alkorren etreko sal-erosteak, etxaguntzak eta yaiotzatiko eskubideak, adinari dagokon lotseak, burrestunak edo erregetzak, agintzamakillak, ereñontzak, len-uruntasunik, mallarik yagon ezik? Kendu egizu len-uruntasuna, ereskidetasunetik atera egizu ari ori, bai, eta aor, or dozu sekulako, iñondiko ereskidetasunik eza! zer guztiak datortzuz alkar yoka: itsasertzak baño gorago eragi gura dabez euren bularrak mugadun urak eta zukutu, ziriudu egin gura dabe zer borobil gogor guzti au: makaltasunaren yaun eta yabs izan gura leuke indarkeriak, eta seme zakarrak yo ta erail egingo leuke bere aita: indarra litzateke eskubide; naiz, obeto esateko, euren etenbako eztabaiden bitartean zuzentzea daben zuzenak eta okerrak, galdu egin bearko leukiez euien izenak, eta zuzentzeak berak be galdu egin bearko leuke be-rea. Al izatea litzake orduan oro, gura izatera yoko leuke alak, Ieiara gura izateak. eta leieak, mundu osoko otso orrék, ala ta guraria bere lagun bitzat dauzala, nai ta nai ez, mundu guztia izan bear dau bere goalci ta yakitzat, eta azkenean bere burua iruntsi. Agamenon andi ori, Isn-uruntasuna itorik danean, naste utsa datoit ondorentzat. Lenen-urregotze oneri yaramonik ez egitetik dator zurubian gorago igon gura danean oinkada bat berago egitea. Zapuztu egiten dau, eztau aintzakotzat artzen gudalburua malla bat berago dagonak: bera baño goragokoa urregokak; orien urregoa beragokak; olan, malla bakotxeokak, bere aurrekoaren irakaste txarragaitik, sukar gaiztoz kutsaturik gelditzen da, leiakidetza zurbil-odolbakoz kutsaturik; eta sukar au dala-ta dago zutunik Toroi, ez bere kemenagaitik. Erago luze au amaitzeko, gure makaltasunagaitik dago zutunik Toroi, ez bere sendotasunagaitik.

NEST.—Zur be zur idoro dau Ulitz'ek gure ala gexorik dauen sukarra.

AGAM.—Idoro dau, bai, Ulitz'ek zetarik dan gure gatxa, baña zein da orrako orren osa. pidea?

UL.—Or diñoenez, gure gudarien kemen eta esku esko dan Akileu andia, bere belarriak eguratsetan dabilen bere entzutez betetarik dauzana, bere geitasunaz ilarraindu ta arroturik, bere txoznan datza gure asmoai irri ta barreka. Aren aldamenen Patorkel'ek, oe nagian etzanik, egun osoan daragoio izkirimiri barregarriak esaten eta guri adarra yoten; eta irainizalla guzurli ak, berak iruiditze deretxen egite barregarri ta zaka-

rrez, gurectrena egiten dau, Batzuetan, Agamenon andi, zure andi andiagourena egiten dau ak, eta gizonaren gizatasuna belauun-osteko zamiletan eta ostikoaz yota antzokiko olai ateraten yaken ots eta duruniua entzutean dagola uste dauen antzezlari ibilkera arrodunarena eginda, egokerarik zakarren eta negargarriean iminten dau ak zure anditasuna: yoale ausi dirudi ak, itz egiten dauenean; itz ez egokiz Itz egiten dau, itz arroz, Tipon (5) orroalariaren miñetiko ba'ltizaz be geiegikeritzat artuko litzakezanakaz. Zaborra ustel onen aurrean, Akileu gizatzarrak, bere oe zapalduan etzanik, bere bular sakonak emon-ala barre egin eta txaloen txaloak yota, gedarrez diño: "Itzalez ederto! Agamenon dok ori egin-eginean. Nestor'ena egik orain; eztul egik, eta bizarrari igutzi egik, itzaldieu bat egitoko danean ak egiten dauen legetxe", Badagi besfeak orrako ori; bai, alkarregancik bide bardln diran marraen azkenak alkarregandik len baño urrago diran bestean; Bulkan (6) bere emaztsaren antzeko dan bestean; eta orraitño be Akileu yainkoak gedarrez diño: "ondo baño obeto, itzalez ederto! Nestor dok ori egin-eginean, Gabaz gudurako ots egiten daneko aren ir>killo-yazkerearena egin orain, Fato'kel". Eta orduan, bai orixe, adinaren uts geldoak izan bear barre eragingarri; eztul egin-bearra ta txua egotzi-bearra, eta idunekoa esku dardartiz bere iekuan irmi-inezina, eta kako arrimeak alkarrieri lotu-inezina; eta olgeta onetan barrearen barrez iztenak egin-bear gorrian dago Adore yauna, ta geiar dagi: "Ene, ene! asko dok, Patorkel; galtzaiduzko saietsak ekadazak! iztenak egingo yoadaz nire gogaldiko pozaren pozez-eta!". Eta onan, gure geitasun guztiak, izadiak guri emondako emaiizak, gure izakerak, gure irudiak, sortzetik ara bakolKak eta guztiok egin-eginean doguzanak, gure egite andiak, gure asmoak, gure aginduak, zurtasunak arrazo dauskuzan bideak, gudategirako gure deiak, naiz gudu geldituazoteko gure itzaldiak, irabazte, naiz galtzeak, dana ta ezta-na, edozer yake gei gizon bioi gugaitik geiegikeriak esateko ta iruditze.

NEST.—Ulitz'ek diñonez, asko dira entzuteak gorengo burestuna ezartsn dautsen gizon bion irakastez kutsuturik dagozanak. Berari deretxona egitsra eginik dago Aiatz; burua goian dauela dabil a bere be, eta ezta Akileu bere baño bape gitxiago arro; a be bere txoznan dago bestea Iez; alderdikerizke yan-edanak egiten dauz bere txoz-

nan; ak be marmarka daragoio gure guduaz eta gudakereaz, zerutiko otsa bestean ausarti, eta Tersitet'eri eragiten dautso, Tersitetz yopu orri, dirugintzako eredu ba' litz legetxe dirua lez irainak egiten dauzan Tersitetz'eri, gu lupetza baño be berago ta Ioiago imini gagizan, bere irain zakarrak egotzi dagiskuzan, beeratu apaldu gagizan, gure entzute ona kendu dagiskun, gu galbidetan buruko ertzerano sarturik egon-arren.

UL.—Okertzat dabe gure yokabidea, gure eragobidea, eta koldarkeri, kikkikeri daitzen dabe: eztabe zurtasuna guduaren egitekorik dauentzat; eztabe aintzakotzat aurretik yakerik, besoaren indarrak beste ezeri eztautoe yaramonik egiten: ixileko ta gogoko egitekoak, esaterako, zenbat gudari bearko diran gudu-ekiterako, egokitasunak ori eskatzen dauenez; eta orretarako bideak arturik, arerioaren indarrak zenbateranoiko diran aurrezfik yakitea... ba, orrako guzti ori uskeritzat dabe aik: papelzalekeri deretxoe orrako orri, oe-lan, etxe-bairuko gudu; olan, beinagotzat dabe aik arresiak yota lurrera erasten dauzan gudu-aaria, bere atzera-aurreka andi ta emoten dauen zartada zakargogorraigaitik, tresna ori egin izan ebcm eskua baño, naiz euren buru-argitasunez egillearen eskua asmoz zuzendu izan dabena.

(5) Ekxlarren mituliztiak diñonez, aizatzar iisusi, arnasaz zcm egozten ebana ta eun buru ebaziana zcm. Ge'ren seine, ta Kerber txakurraren aia; baita beste izaki zakar batzuen aita be. Indartsu za'la-ta, Tzeu'ren aurka .asaldatu ta yagi zalako, 'izeu'k oñaztarritz erail etcr Etna meindiaren azpiain lurreratu eban. Aii dola-ta, Emcr mendia sua dariola ta orroaika yarien danean, Tipcn ei da omcTka ta sua dariola dobilena.

(6) Bulkan edo Epaista au, bere irudi bat Otxandino'ko uri-zelaian danjena, Tzeu eta Ere'n senae da, Elada.arren mitu-iztiak diñonez. Yaiotzaz be itusirik asko Ízan edo-ta, bere amaren begiko etzalako, onek ortzetik lurrer-a egotzi eban Epaista errukarria, eta, il ez-aren ain goitik yausita, zangazur bota ausito betiko meiki gelditu zan: lendik itusirik asko, orain areago. Epaista bera itusiri izan-areari lirain be lirain zan aren emaztea. Senarr-emazteon artean alkarren ezetariko antzik etzan lez, ezta Agamerin eta Nestor'en eta Patorkel'ek egin ebanaren artean be. Alkarregandik beti bide-bardin diran mcaTafc be eztabe bein be alkarregcjna yoten,

NEST.—Ori olan izatekotan, Tetis'en (B bis) semea añako litzake Akileu'ren zaldia (Turut-ots).

AGAM.—Zetarako ete da turut-ots ori? Oa ta ikusi egik, Menela.

MEN.—Toroit'iko da.

ENEa aurrera.

AGAM.—Zer gura dozu gure txozna-aurrean?

EN.—Arren, au ete da Agamenon andiaren txoznea?

AGAM.—Bai, auxe da.

EN.—Ontzat artuko ete dozu bidali ta errege-seme dcmek dakartsun geznea zure errege-belariz entzutea?

AGAM.—Akileu'ren besoa indartsu ta seguru dan besteko segurutasun seguruz itz egin daikeozu Eladatarren buruzagien aurrean, ago batez euren buru ta gudalburu deitzen daben Agamenon'i,

EN.—Ederetsi eder eta segurutasun andi orixe. Baña Zelan berezteko atzerritarrek errege-begiok beste ilkorren begietatik?

AGAM.—Zelan!

EN.—Bai; zeragailik itanduten dot, lotsea iratzarri dagidan eta gorritu dadíla mosuari agindu dagiodan, Poiba gaztea begi ozkirriz begiratzen dauenean goiz lotsorra lotsatzen danean legetxe: zein da emen bere egikizunean yaínko dana, gizonen bide erakusla dana? Zeín da emen Agamsnon goiko ta altsua?

AGAM.—Irrika dabilku Toroitar au; ostan-txean yauregitar era-nwratsu dira Toroit'iko gizonak.

EN.—Agur dagien angeruak bestean yauregitar zabal eta txerakor yatsuz Toroitarrak, iskillu bagarik dagozanean; olango entzutea dabe bake-aldian; baña beaztuna ta sumina darie, beso kementsuak, azur-giltza sendoak, ezpata yatorrak dabez, gudariarena egin gura dabenean; eztozu inon idoroko areina lango biotzik, Yupiter lagun ba'yake. Baña ixilik ago, Enea, ixilik ago, Toroitar ori: ire atza imini egik ire ezpanetan! lausotu egilen dok aintzakotasuna goiatzekoak berak goratu ba'íagi bere burua; baña arerio muker- asarreak goratzen dauena, a bai bada entzuteak goratuazoten dauena: orrako gorapen ori dok garbi, aratz eta gorengo,

AGAM.—Yaun Toroitar ori, Enea yatsu izena ala?

EN.—Bai, Eladatar, ori da nire izena.

AGAM.—Ze arazok zakaz ona, arren?

EN.—Parkatu, azketsi nagizu, yaun; Agame.

non'en • belarrietarako bakarrik da orrako ori.

AGAM.—Bakarrean eztautso entzuten ak Toroit'ik datorreneri.

EN.—Neu be enator Toroit'ik ari ezer agopean eta ixilka esateko; emen dakat turut bat aren belarriak iratzarteko; aren belarriak entzuteko adi imini, ta orduan ari itz egiteko.

AGAM.—Axeak bestean nasai, zabal eta argi ta garbi itz egizu; ezta au Agamenon'ek lo egiteko ordurik eta tertziarik; a atzarrik dagola yaín dagizun, Toroitar orrek, ak berak dirautsu onako au.

EN.—Zoli ta durunduz putz egik, turut orrek, zabaldu egik borontzezko irs otsa txozncs nagiok zear; eta kemenik, adorerik dauen Eladatarrek yaín dagiala, zuzenez esan gura dauena zoli ta oioka esango dauela Toroitarrek (Turut-ots). Agamenon andi, Etor deretxon errege-semea dogu guk emen Toroit'n, -Pirama yako izena aren aitari-, ugerak yaten dago a gudu-bitarte motel eta luze onetan-eta, turut bat artu ta zuoi oneta ra itz egiteko agindu dauste. Erregeok, errege-semeok, andikiok! zuon Eladatar lerdenen artean inor ba'dago bere omena bere bakea baño beinagotzat dauenik; bere galgordeari bildur dauetsan baño bere entzute ona maiteago dauenik; bere adorea ezagun dauenik, eta biliurra zer dan eztakianik; bere neska maitea ez itzez bakarrik, ez maitearen ezpanetaraño bakarrik zintzo diran zin ustelez, aren edertasuna ta aintzakotasuna aren besartean bagarik besterenetan autortzen ausartzen danik ba'dago, ari dagoit nik eupada. Toroitar eta Eladatarren aurrean erakutaiko dau Etor'ek, edo erakusteko aleginik onenak egingo dauz, eguño Eladatarrek bere besartean estutu izan dauena baño zurrago, ederrago la zintzoago dala aren emaztea, eta biar turut-otsez dei egingo dau, zuon txoznetatik eta Toroit'ko arresietatik bide bardin dan lekutik, benetako muituaunik dauen Eladatarra iratzarteko: inor erdu ba'dakio, erantzungo dautso Etor'ek; inor ezpa'dator, atzera bere urira dadinean, Eladatar emakumek eguzkiak erreak, eta atzamakillaren zezpal bat añako be eztirala esango dau ak. Esan dot esatekoa.

AGAM.—Esango dautsegu orrako ori gure maltaleai. Enea andiki; euretariako batek be

(6 bis) Akileu bera da Tetis'en semeo, Tetis Akileu'ren ama da-ta.

ezpa'dau orretarako adererik, erretariko guztiak etxean itxi doguzala agiri izango da: orraitño be ba-gara gu gudari; eta koHar, kihil uts izango al da maitatzeko asmorik eztauen gudaria, naiz maite izan eztaue-na, naiz maite eztaue-na! baña bat bera be ba'dago maiterik dauenik, izan dausnik, naiz izateko asmorik dauenik, axek erantzungo dautso Etor'eri; besterik sz agertze-kotan, neuk erantzungo dautsat.

NEST.—Nestor'az itz egiozu ari, Etor'en aitai-ta oraindik titian egoanean gizon egina zan Nestor'az; agure zar da orain a; baña gure Eladatar gudarien artean suaren txatarrrik be dauen gizon yatorrik ezpa'dago bere maiteagaiiik erantzuteko, nire aldetik esan egiozu urregorizlco mosu-koskolaren eskotzean ostonduko dotala urrezuri antzeko nire bizarra, eta beso-koskolez estaliko dotala giarra zimel au; eta akin trikitx egin-dakoan, nire anderea aren amama baño ederrago, eta ludian izan leiteken garbirik garbiena bestean garbi izan zala esango dautsadala: guri izan-arren aren gaztetasuna, nire iru odol-tantanokaz erakutsiko dautsat egi dala nik diñodana.

EN.—Zeruak-arren, ez al da izango orrenbesterañoko gazte-odol ezik!

ULITZ.—Olantxe.

AGAM.—Enea andiki lerdan ori, eskuñik elduten itxi egidazu, gure txoznara eroango zaudaz, eta Akileu'ri iragarriko dautsagu asmo au; eta bai Elade'ko andiki guztiaf be, txoznarik txozna: gukin yango dozu zuk, alde egin *kaño* len, eta arerioaren ondo-etorria artuko dozu, arerio zindoren ondo-etorria. (ULITZ eta NESTOR'ez besteak alde).

UL.—Nestor...

NEST.—Zer diño UHTz'ek?

UL.—Ba-dot nik bulko barririk nfre garaue-tan; astirik emoidazu, eratu dagidan.

NEST.—Zer yoagu orrako ori?

UL.—Auxe da; arrakaldu egiten dabez ziri amutsak lakatz gogorrak: onenbesteraño azi ta eldu da Akileu mukeragan erein-dako arrokeri-azia-ta, edo ebagi egin bear da orain, edo ereinda gaitz-umaldi lango umaldia izan bear dau-ta, azpian erturik zapal zapal eta opil egingo gauz gu guz-tio.

NEST.—Ori ondo, baña zelan?

UL.—Etor adorstuak bidaltzen dauskun eupada au, guztiontzako bidalia izanarren, asmoz etá gogoz Akileu'ri bidalia da.

NEST.—Zenkaki txikiak artzen daben metatzarra bestean agiri da asmoa-ta, eupadea

argitaratu ta aldarrikatu dadinean, seguru be seguru, aren garaunak Libi'ko itsasbaz-tarra bestean elkor eta antzu ba'litzaz be, --eta ba-daki Apolon'ek aren garaunak legorrik asko dirala--, bere ebazpidez Akileu arin be arin oartuko da ta idoroko dau atzez bera erakusten dagola Etor'en eupadea.

UL.—Eta ari erantzuteraño iratzarriko dauela uste ete dozu?

NEST.—Bai, orrako ori egitea egoki be egoki dok-eta; izan be, Akileu'z nok bestek usto dok ik kendu leiola Etor'eri bere omena? Orrako burruka ori yolas-burruka izan-arren, ez ete dok uste entzute andia datzala orrako zein geiagokata orretan, ala? Toroitarrak euren ago-sapairik oarkorrenaz or darragoioe gure omena, gure entzute ona norragiñoko dan ikusten; orretarako asmau yoeik biak bietarako burruka au; eta sinistu egidak, Ulitz, zartada gogorra artuko yok, lur yota geldituko dok gure entzute ona, bik bietarako ekite onetan; izan be, ekite orren ondorenak, bien arteko izanarren, guztiok, on naiz txar, nolongo gareanaren agiria emongo yauskuk; eta neurri agiriok, geroago izango daben neurritzarren ume baño izan ez-arren, an agiriko dok, orain ume-soña baño eztabenak gero artuko daben sointzarra. Orreik uste dabena dok, Etor'ekin burruka egingo dauena guk aututariko izango dala, eta autaketea gure biotz guztien alkarren arteko egikizuna danazkero, olango zerean autagarritasunak berak egiten dauela aut'tketeu uste izaten dok; eta gutariko guztiak egosten eta irakiten iminila ba'litzok legetxe, gure on-indar guztiak irasita legetxe, on-indarrok osoturiko gizona autatzen dogula uste izango yoeik. Eta guk olan aututako gizona azpiraturik gelditu ba'ledi, orduan bai geldituko litzakezala gure biotzak kildurik eta lur yota, geure buruak nagusitzat geunkezanon biotzak! Bein entzutea iritxiatzkero, aren tresna baño eztozak gure besoak, ezpatak eta arranbelak besoak erabilia diranez.

UL.—Itxi egidazu itz egiten, eta azketsi, parkatu egizu esango dodana: orrazkero, ezta egoki Etor'en eupadeari erantzungo dautsana Akileu izatea. Sal-erosleak egin daroenez, salgeirik txarrenak erakusi dagiguzan lenen, erosiko dauskuezalaren ustetan; olangorik ez erostekotan, oberen didizak argiagu egingo dau lenen txarragorik erakutsiazkero. Etdazize bein be atara yarri, eztógiela Akileu'k eta Etor'ek alkarrekin burrukarik egin; orreik biok alkarrekin burruka egitekotan, *ha*, gure entzute onck eta



lolsarlak euren orpoetan yarraila setatsu ta iñondiko bi leukiez.

NEST.—Eztakusadaz zuk diñozuzan ondoren txarrok nire begi zarrokaz: zeintzuk dozak?

UL.—Arro ezpa'litz Akileu, ak Etor'gandik leikean aintzak, gure be izan bear leuke. ez aren bakarrik; baña lendik da a ezeseleegi, zapuzleegi; baña a Etor'gandik garaila ta txapeldun urten ba'ledi, oba litxakigu Apirka'ko eguzki goritan erreta gelditu, aren begietatiko arrokeri ta ezepen-gatzstan baño: a benderaturik eta azpiraturik gelditu kj<sup>6</sup>-di, ostera, guk geuk galdu ta birrinduko geunke gure entzuterik onona, gure gizonik gizonena orbandurik geldituta. Ez, zotz egin, eta zotzak atera-aldian iruzur eginik, Aiatz gizato zakarrak atera dagiala Etor'ekin burruka egiteko zotza: gizonik adoresuentzat eta onentzat agertu dadila gure artean; eta ori izango da osakairik asko

txalo artean arropuzturik dabilen Mirmidon andiari liitz uidinak baño be anoago ta gorago darabilen gangarra makurtuazoteko. Aiatz motel-garaunbakoa onik eta ondo urten ba'dadi Etor'en eskuetatik, txaloka ta goia goiaka eiabiliko dogu: baña uts egin ba'dagi, osteia, oraindik ba-dogu gure buiak non goideiik, oiaindik gizon kemen-tsuagoiik ba-dogula-ta, Guia asmoa ondo, naiz txarto urten, asmo orrek onetara yoko dau, zera, guk Aiatz eiabiliakzeio, luma-tuiik geldituko da Akileu, ondo apal.

NEST.—Ulitz, oiain dakust, oiain oartzen natxako iie asmoai; eta beieala iagani gura yautsat Agamenon'i: gaioazan agana beingoan. Olan, alkar eziko yoek txakui bik: arrokeria-anen bakarrik, azur orregal-tik bakarrik egingo yoek bariuka Ixakunok. (Alde dagie).

## II EK TALDI

### I AGERLEKU..Eladatarren Gudaltegiko beste oalo.

AIATZ eta TERSITETZ aurrera.

AIATZ.—Tersitetz...

TER.—Agamenon..., zaldarrez yosi yosirik al lego a.

AI.—Tersitetz...

TER.—Eta zornea dariola ba'legoz zaldarrok? Dagigun olan dagozala..., ez ete legoko zornea dariola gudalburua? Ez ete leuke iragarriko barraan dauena, bere barru uste-a?

AI.—Txakur ori...

TER.—Orduan urtengo litzake zerbait agandik, orain ezer uiteten danilc eztaicusteta.

AI.—Otsoemearn seme orrek, ezin daustak entzun, ala? Orrazkero, min attu egik (Yo egiten dau).

TER.—Elade'ko izurria etorriko «I yatsu ganeia, bei-buru-argitasuna dozun txakur oni!

AI.—Itz egik, ba, azkarririk garratzen onek, ití egik: ire soin ori edertu arte yoko aut.

TER.—Lenago argituko dautsut burua ta onduko biotza itz zakarrez: baña nire ustez, lenago ikasiko dau buruz itzaldirik zure zaldiak, zuk otoitzik idazti barik baño. Yoten bai ba-dakizu zuk, ezta? Elgorriak yoko al dauz zaldizarraren zure adarra yoteak!

AI.—I, sapabuiu, esaidak zegazko dan aldarrikatze ori.

TER.—Nire ustez, zu eigel ela tutulumendtz zaieala aldanikatzen daiagoioe.

AI.—Ixilik ago, kirikiñolatz ori, ixilik ago; gili gili yoat atzetan.

TER.—Burutic onetaraño al zendu gili gili ta azkura, ta neuk atz egingo al neunlsu; Elade'ko zaragatsurik, ezkabitsurik iguingarrien eginik ity.iko zindukedaz. Beste edonok aña geldo yoten dozu zuk aerioen artera urten-aldirik egiten dozunean.

AI.—Esaidak zer aldarrikatzen daragoioen. gero...

TER.—Beti daragoiozu zuk marmarka ta txarto esaka Akileu'ren aurka; eta Kerber'ek Poserpine'ren (7) edertasum ícknsan bes-tean begi txarrez dakusazu zuk aren anditasuna; bai, ari ausika daragoiozu zuk.

(7) Eladaftorren ipu.iiari yarrai, noren semetzrt eben len esan dogun Kerber au beste munduko ateaq yagoten ebazan íru burudun txakurra da. Beti be itsusi ta iguingarri íru burudun txakurra gutzako, olcrgc zer zakarrík ikustera eginik ezkagoz-eta. Poserpine edo Persepone, ostera, Apolon yainkoaren arrebá zan, eta beste munduko yainkono; lur-ganean Dine ta Poibe deretxo -ía eder be eder ei zan.

AI.—Andera Tersltetz.  
 TER.—A 70 bear zeunke zuk,  
 AI.—Ikatz-mokil ori, flintxa ori!  
 TER.—Birin eta auts egingo zindukez ak bere ukabilaz, itsastarrak ogi-kuzkurra birrin-du ta auts egiten dauenez,  
 AI.—Autso, sasikume txakur orrl, (Yo egien dau).  
 TER.—Yo, yo.  
 AI.—Sorgin-aulki ori!  
 TER.—Bai, yo, yo, andikl mozkor-buru orrek! nik ukondoan dodan baño garaun geiagohik eztozo zuk; astazaina be egoki litzake zuri irakasteko: astar legentsu adoretuori! Toroitarrak egurka austeko baño etzara zu; eta bururik dabenak sal-erosika zarabilez, basati yopu legetxe, Yoka erabili ba'nagizu, zure atzetik ibilita, zu zer zaraan zeatz esango dot, errai bagako ori, alango ori!  
 AI.—Txakur ori!  
 TER.—Andiki legentsu ori!  
 AI.—Txakur zakar, zizlrin ori! (Yo egiten dau).  
 TER.—Marte'ren ergel ori! yo, zakar orrek; yo, ganbelu orrek; yo, yo,

AKILEU eta PATORKEL aurrera,

AK.—Ostera! kaxo, Aiatz! zegaitik daragoiok onan? -Kaxo, Tersitetz! zer yazoten dok, gizon?  
 TER.—Ba-dakusazue ori; ez, ala?  
 AK.—Bai; zer yazolen dok?  
 TER.—Bai, begiratu egizue ori.  
 AK.—Begira nagoko, ba; zer yazoten dok?  
 TER.—Bai, baño ondo ta zeatz begiratu ori, gero,  
 AK.—Ori ondo! orretantxe nago, ba.  
 TER.—Oraindik begiratuago egin bear dozu; beste norbait dalakotzat ba'zagoz be, oraindik Aiotz berbera baño ezta-ta,  
 AK.—Ba-yakiat ori, ergel  
 TER.—Bai, baño ergel orrek eztazau bere bu-rua.  
 AI.—Orrexegaitik yoten aut,  
 TER.—Ara, ora, ara, ara, orrek bai bildeika iuxtzen d«u bere buru-argitasuna! onenbesteko belarritzarrak dabez orren urteerak, Nire azurrak orrek yo dauzan baño yoago egin doiaz orren garaunak, eta anditu lango andituak atera dauzadaz garaunetan; bederatzit artatxori erosiko neunkez txakurrandi bategaz, eta orrek eztau artatxori baten bederatzirena beste gei dan "pia mater"ik be (8). Akileu, neuk esango dauzot zer dan buru-argitasuna bere sabelean eta sabela buruan daroan Aiatz au.  
 AK.—Zer dok, ba?

TER.—Zera dala diñot Alatz ou. (TERSITETZ yotekoarena dagi AIATZ'ek, AKILEU sartzen da euren bitartecm).  
 AK.—Ez, Alatz on.  
 TER.—Onenbests buru-argitasunik be eztau...  
 AK.—Ez, eutsin egin bear dauskat.  
 TER.—Elene'gaitik burrukan egiteko etorria da au, baño aren orratzaren begia isteko lain buru-argitasunik be eztau onek.  
 AK.—Ixilik ago, zoro ori!  
 TER.—Ixilik eta geldi egon gura neunke nik, baño ergel onek eztaust izten; onek, bai, onek; begira egizu au.  
 AI.—Txakur txatxar gaizto-gaiztetsl ori! zero egingo dauskat...  
 AK.—Ergelarenagaz burruka, zein geiagoka imini gura dok ire buru-argitasuna, ola?  
 TER.—Ez, ez orixe; ergelarenak lotsaturik itxi-ko leuke orrena-ta.  
 PAT.—Itz oberik, Tersitetz,  
 AK.—Zer dala-ta zarie asarre?  
 AI.—Aldarrikatzea zertzaz dan ikasi dagiala agíndu dauzat-eta, txarto eaaka asi yat or.  
 TER.—Enok ni ire otseinik.  
 AI.—Ori ondo, oa, oa, ta yakik.  
 TER.—Neuk gura dodanean noz ni emen otsein.  
 AK.—Azkenengo íre otseintzea eztoz izan ire gurarizkorik, ire neke ta lor baño... Iñor be etxoek yoten bere gogara: Aiatz izan dok emen bere gogarako, i. ostera, gogoaz besterako.  
 TER.—Bai, ba, olantxe Izan da; zure zeure buru-argitasunaren zati on bat be zure zamiletan datza, ostantxean ba<sup>da</sup> guzurtirik. Entzute andia izango dau Etor'ek bat orren, naiz beste orren garaunak yo ta burutik atera ba'dagitsuez; ori egitea ta in-fxaur erorik austea bardin litxakio ari.  
 AK.—Ostera! nigaz be sartu beok, ala, Tersitetz?  
 TER.—Or dagoz Ulitz eta Nestor agurea..., bai, Nestor agurea, zucn bion aitaitai euren beatzetan beatzazkalak sortu baño lenago bere buru-argitasuna urdindurik ebana..., eta aik zuoi gudu eragiten dauzue, zuok biok alkarrekin idien antzera buztarturik.  
 AK.—Zer esan dok, zer esan dok?

(8) Zer biziak txatalka ciziertu ta iikas<sup>1</sup>en dabezan yakintsuak zerari esaten dautse. "Pia mater", garaunen azaleko iru mintzeñatik barruengoari, baño emen Tersiteiz'ek "Pia mater" izenez garaunak eson gura dauz, zer osoaren ordez zer osoaren atakx artuta.

TER.—Bal, esan dodana, axe; aida, Akileu!  
aida, Aiax! aida!

AI.—Miña moztuko dauskat.

TER.—Eztau ardura; min barik be ik beste  
itz egingo yoat.

PAT.—Ez egik itzik geiago, Tersitetz: ixilik!

TER.—Akileu'ren txakurrak agintzen dausta-  
nean ixildu bear dot ala?

AK.—Eldu egioek orri, Patorkel.

TER.—Mokor eroen antzera eskegita lenago  
ikusiko al zauedaz, bein geiago zuon txoz-  
-narik nik zapaláu baño: ergelen alderdi-  
tik alde eginda, buru-argitasunik bizi dan  
lekuan egongo naz. (Alde dctgi).

PAT.—Oa, bai.

AK.—Kontxo, kontxo, 01 dok guie gudaroste

osoa zear aldarrikatu, iragarri dana: zera,  
biar goxean, eguzkiaren boskarren ordura-  
ko, gure txozna ta Toroi bitartean, adarro-  
tsez, Etor'ek eupada egingo dautsela gure-  
taiko zalduneri burrukarako, orretarako ado-  
rerik ba'dau guretar zaldun orrek zeraren  
alde burruka egiteko, eztakit zeren alde be,  
baña bai uskeri utsa dana. Onik eta ondo  
ibili.

AI.—Onik eta ondo ibili zeu be. Nok eran-  
tzungo ete dautso?

AK.—Etxakiat, zotz egiteko dozak; ostantxean  
bere gizonakin topo egingo leuke.

AI.—Ba! orrako gizon ori eu, ezto?... Zer  
orretzaz geiogo yakiten naioak. (Alde do-  
gie).

#### U AGERLEKU.-TOROI. PIRAMA'ren yauregiko leku,

Aurrera PIRAMA, ETOR, TORIL, PARI, ta  
ELEN.

PIR.—Ainbeste ordu eier, ainbeste bizi, ta  
ainbeste itzaldi alperrik galduta, au diño  
beste bein Nestor'ek Eladetarren aldetik:  
"Emoiguzu Elene, bai, ta beste kalte guz-  
tiak, esaterako, deduarena, astirik galtzea-  
rena, nekeena, diru-eralketearena, zaurie-  
na, adiskideena, eta gudu sai saloaren ui-  
dail betegatzak iuntsi izan dauzan zei mai-  
tagairi guztiena, eztozu artuko aintzako-  
tzat": zer diñok ik, Etor, orrako onetzaz?

ET.—Eladatarrak nik baño bildur gitxiago dau-  
tsenik izan ez-arren, orraitioño be, niri neu-  
ri dagokidanez, Pirama bildurgarri, eztago  
Etor'ek baño errai samurragorik dauen ema-  
kumerik, ezta arroago ta apitzagorik be bil-  
duna edoskiteko, gertuagorik gedai egite-  
ko, "Nok daki zei datoiren urren?". Bildur-  
riek eza da bakearen gatxa, bildurrik-ez geie-  
gia: kezkatxoa .ostera, galbidea ui dala  
zunai iragarten dauksen mendi-tontoneko  
sua yatsu, zerik txanenaren ondoiaño eltzen  
dan azteibeiuena. Doala Elene: auzi onegai-  
tik eguño lenengoz ezpatea atea zanzakeio  
millaka ildiran amanenetatik amarren ba-  
kotxaren bizia, gurena esan guia dot, Ele-  
ne bestean maitagarri izan da; eta guzti  
ori, gure ezтана yagote-arren izan da, eta  
gure balitz be, guietaiko amarren baten gei  
eztanagaitik; eta au onan izanik, zer da-  
la-ta eztozu emon bear, zek eiagozten daus-  
ku Elene oii emotea?

TOR.—Ut, ut, ene anai! Gure aita bildurga-  
rria lango errege andiren dedu ta geitasu-  
llo astatzeko, pixatutzeko, zer firtzilak pixa-  
tzeko astakina darabilk, ala? Yoko-maidi-

ruz neurtu gura dok neurriek eztauen, ala?  
Bildurrak eta zegaitiak bestean Ixiki diran  
aria ta atzondoz batu <ura dok ondorik ez-  
tauen, ala? Ut, Yaungoikoa-arren eta lo-  
tsea-arren.

EL.—Eztoz arritzekorik i zegaitien aurka orren  
latz agertzea, ain zegaiti bagarik agon ori;  
zegaiti bagarik erabili bear ete yozak gu-  
re aitak bere arazoak? Ire itzaldioz zegoi-  
tirik eztauelako, ala?

TOR.—Ames eta lo-aldien aldeko az i, anai  
yaupari ori; zegaitizko azpikoa ezarten dau-  
tzek ilt ire esku-zorroai. Aikoamezan ire ze-  
gaitiak: ba-dakik ik arerioak okerren bat  
egin gura dauskala; ba-dakik ik gal-gorde-  
tsu dala ezpatea erabiltea; eta zegaitia beti  
yabi'k edozein kalte ta okerri igesi: nor  
arritzeko, ba, Elen'ek Eladatarrak eta aren  
ezpatarik ikusi ba'dagi, bere oñai zegai-  
tizko egoak ezarri, ta Yupiter'ek agirika egin  
dautsan Merkuri'k lez, naiz bere lekutik ur-  
teniako izarrak lez, igesi ba'dagi? Bai, ze-  
gaitirik aitatu bear ta'dogu, itxi c'-frjiçuzan  
uriko atek eta goazen lotara! erbi-biotzak  
bear leukiez gizatasunak eta deduak, euren  
gogaketak zegaitiz asebetetik egon bear ba'  
lebe: gibel larugin dira zegaitiak eta begl-  
lapenak, eta eikiudu egiten dabe mardul-  
tasuna.

ET.—Anai, Elene oii eztoz gei beioii eukitea-  
rsn aldeiaiko be.

TOR.—Eta zer dok beia esten dan baño geia-  
gorik?

ET.—Baña edozeren geitasuna ta ainlakota-  
suna etxagok urliarean, naiz berendiaien gu-  
rarian; zerbaite geitasuna ta aintzakota-  
suna, zerbaite ori bera berez gei eta aintza-

ko izalean eta alntzakotzat estean, bietan batera yagok; yainkoazun otselnketea dok, yainkoa bera baño otseinketa andiagorik ari egitea; eta gurari kutunkeritsu dok, zerbaiti kutunkeriz berak dauen baño eta uate dan geitasunaren itzalik be eztauenari geitasun .geiago ezartea.

TOR.—Gaur artzen yoat emaztetzat emakume bat, eta nire gurariak, nire irritsak egiten yok autaketea; nire begiak eta nire belarriak argitu yoek nire guraria, eta oneik dozak lemari trebe gurariaren eta adimenaren izpazter gal-zordetsuen bitartean: zslan bialtzeko nik ortik zear neuk autu izan dodan emaztea, nire adimenak onartu ezarren be? Etxagok nik bein autua ortik zear bialtzerik, nire deduari okerrik egiteka; etxagok, guk bein erabili ta loituazkero, gure sedazko yantziak eurak saldu dauskuzan sal-erosleari atzera emoterik; oturuntzan gelditu yakun ondakinik be etxoguk egozten sastsigira, gu asebeterik gagozalako. Egokitizat uste izan zean Pari Eladatarren lepotik azaskatzea: ire onartzearen putzak putzu yoazan aren ontzi-oialak; alkarrantzako arerio la burrukari zor izan-orren, itsasoak eta axeak, alkarrekin baketan zoazan, eta aren otsein egin zoazan; berak gurako itsas-ateetara yo yoan; eta Eladatarren erregenoetariko bat ekarri yoan, aik yopuztan eukien gure izeko zar baten orde, bai, eta aren gaztetasan eta guritasunaren aldean izurrez beteak dok Apolon'ena, eta egun-sentia bera be ustel dok aren aldean, Zegaitik yaukaguk a? Eladatarrak yaukiek gure izekoa: eukigarri ete dok a? Ba! pilxi dok a, eta pitxi aren gaitasunak, balioak, milla ontzitik gora itsasoratu yozak, eta sal-erosle egin yozak burestundun erregeak. Zurtzat ba'dok Pari ara yoan izana, -eta zurtzat etsi bear doze orralto ori, zuok guztiok "oa, oa" gedar egin zeutsoen-eta, -autortu ba'dagizue, ak etxera ordain bilxia ekarri ebala, -eta ori be autortu bear doze, zuok guztiok txaloka gedar egin zenduen "Eikain baño bikainago!"-ta. Zer dalata txartzat estsn doze orain zuon zurtasunaren ondorena, eta zegaitik egiten doze aberastasunak eguño egin eztauen, uskeritzat etsi len itsasoa ta legorra biak batera baño obetatz zeunkiene ta esten zenduena? Lapurretearen zirtzil, ostu doguna eukiteko bildur ba'gara! Lapurron zirtzil eta aintzakorik eza, Eladatarrai irain a euren lurrean eginik, ostua geurean eukiteko bildur ba'gara!

KAS.—(Barcutik) Negar egizue, Toroitarrak, negar egizue!

PIR.—Ze zarata *áa oril* Ze gedar da ori?

TOR.—Gure arreba burutik eginarena da, abotsetik dot ezagun,

KAS.—(Barrutik) Negai eglzue, Toioitarrok!

ET.—Kasandere da.

KASANDERE aurrera, bere zoro-aldian.

KAS.—Negar egin, Toroitarrak, negar egin! amar milla begi ekadazue, eta igarla-negarrez beteko dodaz.

ET.—Ixilik, arreba, ixilik.

KAS.—Neska ta mutilok elduok eta zar zimelok, negar egiten baño eztakizun seintzaro samur ori zuan negarrak! erantsi nireal tertziok, garaiz ordaindu dagigun etorteko diran negar-mordoen erdia. Negar egin, Toroitarrak, negar egin; oitu egizuez zuon begiak negar egitera! Ezta izango Toroirik, IHon ederra be ezta geldituko zutunik; gu guztiok erretan daragoio gure neba Pari zuziak. Negar egin, Toroitarrak, negar egin! Elene bat, eta bera zori txarra: negar egin, negar egin! Erreko da Toroi, edo, ostantxean, doala Elene. (Alde dagi).

ET.—Toril gazte, ez ete yoek sortuko igan damu-ukututsoen bat baintzat gure arrebearen igarketa-estualdiok? Ala orxen bero ete dok ire odola, ez adimenaren egipidek, ez ondoren txarraren bildurrek deusik be ez eragiteraño?

TOR.—Ba, Etor anai, egite bat, naiz besterik zuzen danentz ebazteko etxocgu egon bear egite orrek gerora zer lekarran beglra; eta gure biotzetako adoreak be etxok gelditu bear lur yofa. Kasandere burutik eginda dagolako: axen garaun-gatxaren aldikadak be ezin egin leie nazkagarri ta inguingarri bera atseingarri ta eder egiteko gu guztion eta baktoxaren dedua erabili izan dogun eztabaida onek. Nigazko, ni enaiagok biotzean ukutuago, Pirama'ren beste semeak baño; eta Yupiter'ek ez al yauskuk itxiko gibelik kikilenari be txarto lerizkion zerik egiten, gurearen alde gogor egin eta guieari eustin bear dautsagunean!

PARI.—Ostantxean buru-arinkeritzat leukake munduak nik egina ta zuok orretarako emoniko onua: baño autor dautort yainkoen aurrean zuon onepenak emon eutsazala egoak nire irritsari, eta ak ebagi ebazan nire bildur guztiak, aurrera eroan neban asmo itzala burutzeko. Eta, izan be, ze indar dago gizon baten adorean, auzi onek zirikatuko ebazanen bultzada ta areriotasunari gogor

eglnaz erantzuteko? Orraitiño be autor dautort, neuk bakarrik eroeteko ba'litzaz estualdiak, eta neuk gura neunksan a&a a\ ba' neu, Pari'k eleiie iñoz atzera egingo egin dauenetik, ezta mekorik egingo be berearen alde.

PIR.—Pari, atseginetan abereru ta zakartutakoak legetxe itz egiten dok ik: ik badok ondiño eztiri, baña oneik beaztun utsa yoek; i lez adoretu izatea ezto bape goragarri.

PARI.—Yaun, olango edertasunik datozan atseginen billa bakarrik enabil ni; ori ostuteaz egin zan zakarkeria be garbitu gura neunke edertasun ori omenez eukiaz, Ez ete litzake salkeri lango salkeria osturiko erregenoarentzat, laidorik zure aintzakotasun andiarentzat, eta lotsarink nitzako, orain nire ondasun ori, nik dodan ondasun ori orain, iñok zakarkiro beartuta, atzera emotea? Izan ets ledike, yazo ets ledilce onango indarkeri endekatuk bein be zuon biotz zabeletan onik ezarterik? Eztago gure artean ain gogo kaskarrik eta bildurtirik, Elene'ren alde gogor egiteko biotzik izango eztauenik, eta orretarako ezpatea aterako eleukenik; ezta orren zindo ta aitonsemerik be, bere burua, bere bizia Elena'ren alde emotea txarto emontzat eta erlotza lotsagarritzat etsiko leukenik: orrazkero, eta neuk diñot au, orrazkero ondo egin daikegu burruka mundu osoan bardinik eztauen andera agaitik.

ET.—Pari ta Toril, biok egin dozue ederto itz; eta azalbenik egin dozue esku artean dogun auzi ta geiaz, baña orraitino be azalean gelditu zarie; etzarie urrin ibili ekandu-yakin-zarako Aristotel'ek ez-egokitzat ebazan gizon gazteakandik; zuok aitatuta ta auirera ekarri dozuezan zegaitiak odol nastutik datorren irris berorako obeak dozak, zuzen eta okerraren artean berezte onik eta otzik egiteko baño; eta izan be, atseginak eta aspertzak sugedorriak baño belarri gorragoak dabez erabagi onik eta yatorrik artzeko. Bakotxari bere dana emotea gura yok berezko legeak: eta zer dok gizadi osoan zorretik

urrago senarrarentzako bere emaztea baño? Berszko lege an usteldu ba'dadi irrisngaitik, eta andikiak, euren biotz sogortuen aldera itzulte-arren, gogor egin ba'dagie lege orri, zerak euren lekuetan dauzan edozein errian ba-yagok legerik burua makurtuazoteko ez-esanginen eta mukerren diran irris asarreoi. Orrazkero, ba, edonok dakianez, Esparta'ko erregearen emaztea ba'dok Elene, ekanduekazko berezko ta errien legeok gedarrez, oioka ta zoli diño ez atzera emon-bearreko dala Elene ori: onan okerra egiten yarraitzeak okerra arindu bagarik, astunagotu baño etxok egiten. Au dok Etor'en eretxia auzi onetan: orraitino be, ene anai biotz, zuon aldeko nok ondiño Elene eukiteko erabagian; eta, izan be, arazo onek etxok zer-ikusi txikia be gu guztion eta bakotxaren dedu aldetik.

TOR.—fUko ba, ointxe bai ukutu dok ik bets betean eta aragi bizian gure asmoa; gure aspertzak gorria burutzea baño eragingarriago izan ezpa'litzok gutzako gure aintza ta entzute oua, eneunkean gurako nik Elena'ren alde Toroitarren odol-tantan bat be geiago ixurtzerik. Baña, Etor aintzako ori omen, dedu ta entzute on gei dok Elene; aztal eta akulu yakuk a egite adoretu ta galletarako; oraingo gure kemenak benderatu ta lurreratu daikez gure arerioak, eta il-ezin egingo gaiotzak ortik gerora sortuko yakun entzuteak: eta izan be, nik uste dodanez, Etor adoretuak eleuke galdu gurako munáu zabal osoagaitik be aginduta ta begira dagokon ospe bikain ori, egite onen arpegian irribarre egiten dauen ospe andi ori.

ET.—Zuona nozue, Pirama andiaren seme adoretuok. Oraintxe orointxe bidali dautset eupada lango eupadea Eladatar aitonseme motel eta alderdikeritsuei, eta ariturik itxiko dauz euren gogo loak artuak. Iragarri daustenez, loak arturik egoan arein gudalburu andia bere gudarostean ieiakidekeria zabalduaz yoian birtartean; iratzarriko dau a onako onek, nire ustez. (Alde dagie),

### III AGERLEKU.-Eladatarren Gudaltea. AKILEU'ren txozna-aurrea.

#### TERSITETZ aurrera.

TER.—Onangorik, Tersitetz! Ba! i murgildurik, galdurik ago ire asarre gorriaren sakon sakonean! Onan yarraitu bear ete yok Aiatz elepanteak? Yoka narabil ak, eta nik txarto esaka darabil a: aspertzearen nasaigarri!

baña okerretara izatea eder al lekio Yaungoikoari; nik yo a, eta ak txarto esaka erabili ni. Yaungoikoaren oña-arren! txerrenak araotu ta eragiten ikasiko dot, baña, dana dala, ikusi bear dot nire aien zapuzkorren ondorenik. Or dogu gero Akileu... gudu-mal-

tzurkeri asmatzalla bakan eta ifiondiko ori. Oneik biok aren azpiak ian arieraño iñok artu ezpa'dagi Tcroi, zutunik iraungo dafce anga arresriak eurenz yausi arte, orreik gora-bera, OUnpu'ko ostoslari ori, aztu egizu Yupiter yainkoben errege zareala; eta zuk, Merkuri, zuk be galdu egizu zure esclu-makileko suge-maltzurksria, arei zeatz kendu ta erauzi ezpa'dagiezu aik daben buru-argitasun apur apurra baño be urriagoa! Besa-labur dan ezyakiteak berak be ba-daki arein buru-argitasuna ain txikia dala-ta, eztauela trebetasunez azkatuko amaraunean lotu dan eulirik be, euren ezpatatzarrak atera ta amarauna ebagi ezik. Aspertzea betor onen ondoren gudaltsgi guztiaren ganera, naiz, obeto esateko, azurretako mina! Eta izan be, nire ustez, auxe da ahenik egokier.a gonadungaitik gudu egiten dabenenztat. Egin dodaz nik nire arrenak, nire otoi-tzak, eta "Olantxe" esan dagiala ikusiezin txerrenak... Ostera! Ba! nire yaun Akileu!

PATORKEL aurrera.

PAT.—Nor dogu or? Tersitetz! Tersitetz on ori, ator barrura ta ekiok txarto esaka.

TER.—Urregori ustelezko txintxinen bat izan ba'neu burutan, i eu be nire ahenen barruko intzakean: baño etxok ardua; eu az i barru ta azal! Gizonik geienen gatxa, zorakeria ta ez-yakinkeria, moltsoka ta eurrez izango al dok ire ganean! Ez al dauska emongo onularirik Yaungoikoak, eta yakintzarik ez al yak urreratu be egingo! Ire odolak erakutsiko al dausk bidea eriotza arteraño! Ire gorpua eder dala esan ba'yagik orduan i lurperatu agian anderazkoak, zin eta zin egingo yoat legenardunez besterik eztauela ak eguño lurperatu izan. "Olantxe". Nonfik dok Akileu?

PAT.—Ostera! yainkozalatu ta:aku, ala? Arrenari, oitizari erago dautsak, ala?

TER.—Bai, eta ortzeak, zeruak entzungo al yaustak!

AKILEU aurrera.

AK.—Nor dogu or?

PAT.—Tersitetz, ene yaun.

AK.—Non, ron? Etorri az, ala? Ostera! Nire gaztae, nire yan-auste ori, zegaitik ez az etorri nire maira ainbeste yatordu-ostean? Tiruk, zer dok Agamenon?

TER.—Ire agintari, Akileu: orrazkero, esaidak k, Patorkel, zer dok Akileu?

PAT.—Ire yaun, Tersitetz; orrazkero, esaidak, arren, zer az eu?

TER.—I ezagun auena, Patorkei: orrazkero, esaidak, Patorkel, zer augu f?

PAT.—Euk esan einks, euk ezagun ba'nok.

AK.—Ori, ori, esaiak, esaiak.

TER.—Guztia esango dot urrengorik urrengo. Agamenon'ek agintzen dautso Akileu'ri; Akileu da nire yaun: ezagun dot nik Patorkel; eta ergel, tutulu da Patorkel.

PAT.—Eta zital augu i!

TER.—Ixi'.ik ago, ergel ori! ondiño etxoat amaitu.

AK.—Bere legea, lege berezia yok gizon orrek. Aurrera yo, Tersitetz.

TER.—Ergel da Agamenon; ergel da Akileu; ergel da Tersitetz; eta, len esan doianez, ergel da Patorkel.

AK.—Aurrera, ekiok, tiruk.

TER.—Ergel da Agamenon, Akileu'ri agindukoarena egiten dauelako; ergel da Akileu, Agamenon'i agintzen izten dautsalako; ergel da Tersitetz, olango ergelen otsein dala; eta ergel uts da Patorkel.

PAT.—Zegaitik nok ni ergsi?

TER.—Ire egileari ekiok itaun ori; asko yatak niri i ergel izatea. Begira, nor yatok or?

AK.—Patorkel, etxoat iñokin itzik egiteko gogorik, Ator barrura nikin, Tersitetz. (Alde dagi).

TER.—Emengo adabatzearena, emengo marroena, emengo zitalkeriarena! eta gudabide guztia adardun bat eta emagaldun bat tiralala; eztabaida argia auxe, alderdi leiakilerik sortuazoteko ta beronegaitik odolustu arteraño odola ixurtzeko. Legena etorriko al da olango gudabidearen ganera! eta guztiak ondatuko al dauz guduak eta lizunke-riak! (Alde dagi).

AGAMENON, ULITZ, NESTOR, DUMEDA, ta AIATZ aurrera.

AGAM.—Nondik dok Akileu?

PAT.—Txozna-barruan; baño gogaldi txarroz, ere yaun.

AGAM.—Emen gareala iragarri egiok. Txarto artu ta erabili yozak gure geznariak; eta baztartu egiten yoguzak gure nagusi zerak a ikusten etorte-arren: iragarri egiok onako au; bear ba'da, gu ezkareala azartzen guri ze leku dagogikun ari esaten, naiz zer garean eztakigula ak uste eztatian.

PAT.—Orixe iragarriko dautsat. (Alde dagi).

UL.—3ere txoznako atakan ikusi yoagu a: gexorik eztago a.

AI.—Bai, gexorik dago, baño leoi-gatxagaz, arrokeriz gexorik; gizona zuritu gura ba'

doz.ue, motelkeri dala esan zineie; baña, ni-re burua-arren, arrokeria da inen gatxa: baña zegaitik, zegaitik? Berak iragarri dagiskula zegaitik dan... Itz bat, ene yaun (Baztarrera darca AGAMENON).

NEST.—Zek eragiten dautso Aiatz'eri, Akileu' ren aurka olan ausika eragoteko?

UL.—Ergela kendu dautso Akileu'k.

NEST.—Nor, Tersitetz, ala?

UL.—Bai, axe.

NEST.—Orrazkero. Aiatz'ek etxok izango geirik, bere geia galdu ba'yok.

UL.—^z; "«ia kendu dautsana da orain aren gel... Akileu.

NEbi'.—Ioa olan; gutzako oba dok orreik alkarregandik banantzea, alkarganatzeta baño; baña alkartzeta egin ta sendo ergelek banandu eikean alkartzeta.

UL.—Errez lanatu doike ergelkeriak zuitasunak lotzen eztauen adiskidetasuna. Or dator Patorkel.

NEST.—Akileu etxatok orrekin.

UL.—Ba-dau azur-yokorik eta giltzarik elepan-teak, baña ez txerarik egiteko: egin dautsoe-zclako dozak zango aren zangoak, ez makurtzeko.

#### Borriro aurrera PATORKEL.

PAT.—Akileu'k zuoi esanazoten daust atsekabe be atsekabe yakola zure nagusitasunari ta zure lagun aitonsemeai ona etorriazoten dautsuena zuon yolas eta atssgina baño zer andiagorik ba'da; ak uste dauenez, bazkal-osteko ibiltalditxoia egin gura izan dozue zuok, zuon osasunaren eta yanaustearen alde.

AGAM.—Entzun egik, Patorkel: olango erantzunetara eginegi gagozak gu: baña aren gubanako zapuzte buru-arin onegaz ak zirrirt egite onak ezin yozak uxatu gure bildurrak. Amaika geitasun andi ba-yok ak; eta bide onik ba-yoguk guk ari gaitasunok ezarteko edo autortzeko: eta orraititño be gure begietan euren dizdiza galtzen asirik dozak aren on-iniarrak, bere aldsluk on-in-darrai dagokienez ez eukiak; bai, txastatu baño lenago ustelduko dozak, urrean, on-tzi zikinean dagon igali ederraren antzera. Oakio ta esaiok akin berakin itz egiteko etorri gareala; eta ik eztok obenik egingo, ari esan ba'dagiok guk a arroegitzat dogula, eta zindotasun gitxiegiduntzat; esaiok besteak daben baño andiagotzat dauela bere burua; a bera dan baño gizon zindoa-goak oartzen yakezala emen aren basati putzai, eta euren nagusitasuna alde batera

itxita emen dagozala aren nagusikeri gogalditsuz oartzen; bai, arazo ta auzi osoaren gora-berea ta atzera-aurrea ak ze' egin-gotik ba'letor legetxe. Oakio, ta esaiok onako au; eta, orrez ganera, esaiok bere burua orrenbestekotzat ba'yok, guk eztozula gura ezetarako; dagola emen, iñora ezin eroan leiteken tresnea legete, eta onako au Hatzi or: "Ona ekarri onek egitekoa, au ezin yoan ledike gudategira-ta": gurago yoagu ibili dabilen epoa, lotan dagon gizatzarra baño: ori esaiok.

PAT.—Esango dautsat; eta bertatik ekarriko dautsut aren erantzuna. (Alde dagi),

AGAM.—Bitariekoren itzez ezkara askotu ta asstzen; berakin itz egiteko etorri gara gu. Ulitz, barrua sartu adi i. (ULITZ'ek alde).

AI.—Zevtan da ori besierik baño areago?

AGAM.—Berorrek uste dauen baño areagorik ez beintzat.

AI.—Orrenbestekorik ete da, ba? Ez ete dozue uste orrek bere burua ni baño andiagotzat obetatz dauela?

AGAM.—Etxagok ezpairik orretan.

AI.—^lzenpetuko ete zeunke aren etrexia, eta ba-dala esango?

AGAM.—Ez, Aiatz aitonseme ori; a bestean indartsu, adoretzu, zur az i, a bestean zindo ba-az i, a baño askozaz be txerakorrago, eta beti be aren aldean otzan eta eskurakor.

AI.—Zer dala-ta izan bear dau gizonek arro? Nondik dalor arrokeria? Nik eztakit arrokeria zer danik be.

AGAM.—Argiako dok ire burua, Aiatz, eta ederrago dozak ire onindarrak. Bere burua yaten yok arroak; arrokeria dok aren ispi-llua, aren turut edo adarra, aren egunkaria; eta egitez bere burua goratzen eztaue-nak, egina iruntsi egiten yok bere burua goratuaz.

AI.—Sapaburuei iguin dautsedan bestean iguin dautsat nik gizon arroiari.

NEST.—(Bere kitean) Orraititño be maite dau orrek bere burua: ez ete da bakan onako au?

#### ULITZ aurrera ostera be.

UL.—Akileu'k eztau yoan gura gudategira biar.

AGAM.—Ze zuribide atera yok?

UL.—Eztau erakutsi zuribiderik bat bera be; bere bideari yurrai-gurarik dago a, iñori lotzarik izateka, iñori yaramonik egiteka, bere buruari eder etsita dago a.

AGAM.—Guk itz txerakorrez eskatuta, zegai-

- tik ez ete yok urten gura ak bere Ixoznaiik, gukin batera egurasteko?
- UL.—Egin-eginean guk eskatzen dau sagulako, zer andi egiten dauz uskeri utsak; arrokeria da aren yaun eta yabe, arrokeritan murgilduta dago a; eta bere anditasunak ain yabeturik dciuko ta, bere itzekaz asarre izateraño arroturik dago a; berak iruditutako aintzakotasunak arrokeri ain arroa dau aren odol beroan-eta, erregetar Akileu ori ain erreta, ain suak artuta dago asariearen asarez-eta; bere burua ta bere soña alkarrekin burruka gogor eta gorrian dabilkoz-eta, bers burua yo ta lurreratu egiten dau Akileu'k; zer esateko nik? Arrokeri ain osa-ezina dau-ta, gedarrez diñoē agan agiri diran eriotza-atzak: "Etxagok osapiderik emen".
- AGAM.—Aiatz doakiola. Yaun maite, oakio ta agur egiok txoznan; or diñoenez, i ondo artzen au ak; eta beretik apurren bat alde egingo yok, ire eskariz.
- UL.—Agamenon ori, ez al dozu egingo olangorik! Besterantza, okerretara, onetsi egin becn dogus Aiatz'ek Akileu'gandik besterantza egiten dauzan oinkadak. Bere arrokeria bere gogara yosten dauen gizon arroa, berari dagokionaz beste zerik burutan eztabilena, a bera baño yainko-irudiagotzat dogunak gurtu bear dau, ala? Ez, gizon aintzako ta aintzako ta adoretsu be adoretsu onek eztau loitu bear zindoro irabazi dauen 'palma-adarrrik; ezta, nire gogoz beintzat, Akileu'rena besteko dan bere irabazirik benderatu be, Akileu'gana yoandg: dagoneko bg gizenik eta guririk asko dagon aren arrokeria gizenago ta guriagotzea litzake olangorik egitea, Iperion (9) andiari yai lango yai eta oturuntzea gertatzen daragoion Karramarroari (10) ikatz geiago emotea litzake ori. Yaun au yoan be agana; etortskoa etorri yatsu burura! Yupiter'ek ez al dauku itxiko olangorik egiten; eta ostotsez esan-go al dau Ak: "Akileu boako Aiatz'eri".
- NEST.—(Bere kitean.) Ori ondo, bai orixe; ulearen erara iguzten dauso.
- DUM.—(Bere kiteo,n) Eta orrako orren isUtasunak bai ba-daragoiola txalook irusten!
- AI.—Eldu ba'nakio eldu, ausi egingo dauzat mosua nire esku iskillodunaz.
- AGAM.—Ez, ez, ez akio eldu.
- AI.—Arro agertu ba'dakit, eziko dauzat arrokeria. Itxi egidazue sartzen.
- UL.—T.z gure auziak dauen aintzakotasunagaitik.
- AI.—Urli orren nagi ta lotsabako!
- NEST.—(Bere kitecai) Ederto Iruditzsn yok orrek berorren burua!
- AI.—Ezin egin ete da lagun artera?
- UL.—(Bere kitean) Beleak beleari eper-baltz.
- AI.—Odoldu egingo dauzadaz bere gogaldiak.
- AGAM.—(Bere kitean) Osagilearena egiten dabil gexoarena egin bear leukena.
- AI.—Nire asmoko ba'lira gizon guztiak~.
- UL.—(Bere kitean) Buru-argitasunak eleuke lekuri ludi onetan.
- AI.—Olangorik eleuke egingo orrek, lenago ikusiko leuks ezpatea zer dan; bereaz urten bear ete dau, ba, arrokeriak?
- NEST.—(Bere kiteon) Ire litzakek erdia, beieaz urtengo ba'litzok ori.
- UL.—(Bere kiteoi) Amararrenakaz urtengo intzake i.
- AI.—Orea lez igurdiko dot; bigun eta esaneko egingo dot.
- NEST.—(Bere kitecan) Guztiif ezta berotu ondiño: gorapenez bultzau egik; egotzi, egotzi, iruntsiako, iruntsiako: egarri ta legor dok orren geiagokeria.
- UL.—(AGAMENON'i) Ene yaun, gogotanegi artzen dozu zuk gogoaz besterako zertxo au.
- NEST.—Ez egizu olangorik, gure gudalburu zindo orrek.
- DUM.—Akileu bagarik gudu egiteko gertu egon bear dozu.
- UL.—Gizon orren izena aitatzeak berak egiten yautsak gatzik asko. Emen dogu gizon bat, baño aurrean dagonazkero, ixilik nagon.
- NEST.—Zegaitik ixildu bear dok? Ori eztok beretirik, Akileu lez.
- UL.—Mundu guztiak yakin begi, ba-da orrako ori Akileu bestean adoretsu.
- AI.—Txakurremeren semea, onan uskeritzat artzen gauzana! Toroitar al litz!
- NEST.—Ori okerra, Aiatz'entzako!
- UL.—Arro ba'litz...
- DUM.—Gorapenzala ba'litz...
- UL.—Bai, naiz muker eta uxo...
- DUM.—Naiz iñondiko, naiz bere buruzale!
- UL.—Yaungoikoari eskerrak, yaun, erakera otzan-eztizko az i; goratu egik i sortu indu-

(9) Eguzkia yatsu Iperion dalako cai (hyper ron., Eladatarreo izkuini'zaz); goitik zeor doana esan gura dau itz onek, eta egoki datorko ÍZSTI oñi eguzkiari.

(10) Korrainarro deretxo ortzeain eguzki-bidean aurkitzen diran izar-mordoetariak bateri, eta udako bero andtak diranean egoten da eguzkia Korrainarro izar-mordoaren aurrez ourre.



na, bere bularrak eradoski euskazana; entzute onik eta osperik izango al yok i yagon Indunak, eta entzute lango entzutea izango al yoek irs berezko ondasunak, buruk ikasi-aleko baño andiago dozak-eta: baña ire besoak gudurako oitu ebazanaz, erdibitu dagiala Marte'k betikotasuna, ta ari emon dagiola erdi bata; eta iie kemsnaz, ire adorecrz, ire indarraz, bere bizkarran zezena daroan Milon'ek bizkarrska belntzat Aiatz zamiltsuart emon dagiola. Enaloak nl ire yakituri ta zurtasunik goratzen, lats, muga, naiz izpazterrek Iegstxe ire soin-atal ssndoak batzen dabezan ire yakituri ta zurtasunik; aiko amen Nestor™, beñolako aldietan irakatsi ta ikasita, yakintsu, zur izan bear yok onek, yakintsu ta zur dok izan be, eta ezin dok izan bestarik; baña parkatu, aita Nestor, Aiatz bestean gazte ta gordin ha'zintzaz, eta zure gogoia orrena bestean ondo eratua ba'iitz

be, zu ezintzakez ori baño goragokorik, Aiata besteko baño etzindeltez.

AI.—Aita deituko eie zaudaz?

NEST.—Bai, ene seme on,

DUM.—Orren esanera *ah'ú*, Aiatz yaun.

UL.—Estcigo emen gorazerik, aldirik galtzerik; sasitzan ofsonduta dago Akileu oreina. Eder izango al yako gure gudaiburu andiari guda-agintari guztiak batzarreratzea; ei'rege barririk, bat baño geiagorik, eldurik ia Toroi'ra. Taksta legetxe tinko ta lurrari yosita egon bear dogu biar guk eta guro gudaroste osoak; eta emen dogu yaun bal... tira, betoz, gura ba'dabe, sorkaldetik sarkalderatiko zaldunak, autu dagiela eurentariko lorea, eta Aiatz'ek egingo dau eurentarik onenarena.

AGAM.—Goazen batzarrerara. Lo egin baño eztau Akileu'k: ontziazal andiagoak uretan barrurago sartu-arren, ontzi arinak egi ten dabe bidea arinen. (Alde dagie).

### III EK:iTALDI

#### 1 AGERLEKU.—TORGI. HifAMA'ren yauregiko leku,

PANDAR eta Otsein bat aurrera.

PAN.—I, adiskide, itz bat iri, arren: ez ete az I Pari gaztearen yarraileatarikorik?

OTS.—Bai, yaun, a aurretik doakidanean bai.

PAN.—Aren bendeko azan ala ez esan gura yoat.

OTS.—Bai, ugazaba aren bendeko naz.

PAN.—Gizon zindoren bendeko augu; nai ta nai ez, a goratu-bearrean nok ni.

OTS.—Goratuu bedi ugazaba!

PAN.—Ik enok ezagun, bai ala?

OTS.—Nire sinistea-arren, azalez bakarrik, yaun.

PAN.—Adiskide, ezagunago ízango al natxak; Pandar yauna nok.

OTS.—Ba-ditxarot ezagunago izango zaudazala.

PAN.—Orixe gura yoat nik,

OTS.—Yainko-eskardun zara. (Eresia, musikea barruan).

PAN.—Yainko-eskardun! ez orrenbestarik, adiskide; dedua ta yauntasuna dozak nire izengoitiak... Ze eresi dogu au?

OTS.—Orrenik zati bat baño eztoz ezagun: zatikako eresi da ori.

PAN.—Ezagun ete dozak ereslarictk?

OTS.—Gutziz, yaun.

PAN.—Nori yoten yautsoek eresi ori?

OTS.—Entzuleai, yaun.

PAN.—Noren gogarako, adiskide?

OTS.—Nirerako ta eresizale diianentzako, yaun.

PAN.—Noren aginduz esan gura yoat, adiskide.

OTS.—Nori aginduko dautsat, yaun?

PAN.—Etxautsaguk aituten alkarri, adiskide: erameratsuegi nok ni, i, ostera, maltzurregi. Noren eskariz yoten yoek ereslariok?

OTS.—Aitu dagigun alkar nozbaiten, yaun, Ba, yaun, bera or dagon Pari nire ugazabeoren eskariz; akin batera dago Benuts ilkorra, edertasunaren edertasuna, maitacunaren mami ikusezina...

PAN.—Nor? Nire illoba Kerside, ala?

OTS.—Ez, yaun, Elene baño: ezin igarri izan ete dozu emakume aren zer bereetatik?

PAN.—Dirudianez, Iagun. ik eztok ikusi, urrean, Kerside Anderatxoa. Toril errege-semearen aldetik Pari-gaz itz egiteko etorria nok ni: ari labankeri-oldarketaren bat egiteko ñatok, nire arazoa irakiten yagok-eta.

OTS.—Arazo irakin gorria! Esakera Iirain yatsu ori, bai orixs!

PARI ta ELENE aurrera, euren yarraigoakin.

PAN.—Egunik onenak opa dautsuedaz, yaun, bai zeuri, bai zure laguntza ederrari be! Gurari ederrak izango al yatsuez bide erakusla, neurri zuzen osoz, alan be zuri erregeno lirain orri! Gogaketa atsegingarriak izango al dira zure burupeko zoragarri!

EL.—Itz t:airoz beterik zauguz zu, yaun maite.

PAN.—Zure gogaldi atsegingarria da ori diñona, erregeno ezti. Errege-*seme* lerdén, amen ausita eresi ederra.

PARI.—Euk ausi dok, lengusu: eta nire biziarenren, euk osotuko dok ostera be; eure gogoko zatien bategaz osotuko dok. Elene, ereskidetasunez beterik dago ori.

PAN.—Ez, andera, bsnetan.

EL.—Ene! yaun...

PAN.—Zakar nozu, benetar.; bene-benetan, zakar be zakar eta latz.

PARI.—Ondo esanda, ene yaun! Ori.ori, orra-*ko* ori txotenka esaten daustazu-ta.

PAN.—Nire yaunagazko arazoa dot, erregeno maite. Ene yaun, entzungo ete daustazu itz bat?

EL.—Ez, orrako orrek ezkauz bananduko: abesten entzun gura zauguz zu, bai orixe.

PAN.—Ori ondo, erregeno ezti, txeratsu zaxatataz. Baña, arren, entzun egizu nire arazoa, ene yaun: ene yaun maite, ta aintzako be aintzako adiskide ori, zure anai Torri'ek...

EL.—Ene yaun Pandar; yaun ezti*a* *aña* gozo ori...

PAN.—Tira, erregeno ezti, tira: -bere gorantzirik biotzetikoenak bidaltzen dautsuz.

EL.—Ez eguzu zirrist egin zugandik ditzarogun eresi gozotik: zure erru izango da gure motelkeria, olangorik egin ba'dagizu!

PAN.—Erregeno ezti ori, erregeno ezti ori: erregeno ezti zara zu, bai orixe.

EL.—Eta irain zakar da erregenorik moteltzea.

PAN.—Ez, eztozu ezer aterako ortik; ez ortik, aor. Ez, eztoz olango itzsn ariurarik; ez, eta ez. Eta, ene yaun, ari aitak ots egin ba'dagio afaltzerakoan, aitaren aurrean a zuk zuritzea da ak gura dauena.

EL.—Ene yaun Pandar...

PAN.—Zer diño nire erregeno eztiak? Nire erregeno eztiak?

PARI.—Ze egiteko andi dau ak esku artean? Non apaltzeko da a arratseon?

EL.—Bego ori, baña, ene yaun...

PAN.—Zer diño r.ire erregeno eztiak? Asarratu egingo yatsu nire lengusua. Eztozu ya-*kin* bear *a* non apaltzeko danik.

PARL.—Neure bizia eginga neunke, nire yabe Kerside'kin apaltzeko dala a.

PAN.—Ez, ez, olangorik ez; oker zagoz, oker eta egitik urrin: tira, gexorik dago zure yabe dalakoa.

PARI.—Tira ba, zurituko dot.

PAN.—Bai. ene yaun on. Zegaitik aitatu bear izan dozu Kerside'rik? Ez, gexorik dago zu bere agindura zauzana.

PARI.—Igarten dot.

PAN.—Igarri egin be zuk! zer da igarten dozuna?... Tira, ekadazue ereskinen bat... Orain, erregeno ezti; or doa, erregeno ezti.

EL.—Aor, txerakor zauguz oingoxean.

PAN.—Itzalez maítamundurik dago nire illo-bea zuk dozun zer bategaz, erregeno ezti.

EL.—Bere izango dau ak orrako ori, ene yaun, nire yaun Pari ez izatekotan orrako ori.

PAN.—Bai, zera! ez, ak eztau gura Pari'rik; bi dira, bi batera dira no ta to aik.

EL.—Orraitiño be, banazean egon izan-arren, alkarganatu ba'lediz, zer biren ordez iru agertu ledikez.

PAN.—Tira, tira, asko dogu onetzaz; abestiren bat abestuko dautsuet orain.

EL.—Bai, bai, abestu, arren. Egia esateko, yaun ezti, arpegi lirain dozu zuk.

PAN.—Bai, ekiozu, ekiozu.

EL.—Maitasunaz izango al da zure abestia, maitasun onek ondutuko gauz guztiok. Kupida, Kupida, Kupida ori!

PAN.—Maitasunaz! bai, maitasunaz abestuko dot, bai orixe.

PARI.—Bai, betor maitasuna, maitasuna, maitasunaz besterik deusik bez.

PAN.—Bene-benstan. onan asten da;

Maitasuna, maítasuna, maitasunez besterik ez, areago!

Izan be, ene! maitasunaren geziak

Orein arr-emeak, biak, yoten dauz:

Geziak benderatzen dauz,

Zauritzen dauzalako ez,

Gili-gili minberaz baño.

Gedar dagie maitaleok., ene, ene! il egiten dira!

Eta orraitiño be zauriz ilgo dala dirudina

Or dozu negarretik karkaxara aldatua.

Olan, aor berbizturik il-aginiko maitasuna: Ai ene! Ai ene! len; ja, ja, ja! arik bein-

goan;

Aor arin ja, ja, jaka, ai eneka len egoana!

Ia,ja!

EL.—Aor maitasuna, bai orixe, surraren moko mokoragiño ta gorago.

PARI.—Maiteño, usakiz besterik eztau yaten

orrek; eta odol berea sortzen dau usakiak, gogaketa beroak odol beroak, egite beroak gogaketa beroak, eta egite beroak yatsu maitasuna.

PAN.—Oneik ete dira, ba, maitasunaren seme-alabak? Odol bero, gogaketa bero, ia egite beroak? Ba, orrako orreik sugedorriak yatsuz: sugedorriak sortzea da maitasuna, ala? Yaun ezti, nor da gaur gudategf.111?

PARI.—Etor, Deipoba, Elen, Antenor, eta Torroi'ko adore guztia: pozik artuko neunkezan gaur nik iskilliak, baña Elenstxu'k eztaust itxi olangorik egiten. Ze alanbearrez ezta yoan ara nire anai Toril?

EL.—Ezpanak zerbaitei deutzazala dago a: ba-dakizu zuk zeri, Pandar.

PAN.—Ez nik, erregeno ezti ezti... Luze eretxita nago ni, gaur ai zelán yoan yaken yakiteko. Et::atsu aztuko zure anaiea zuritzetik, ezta?

PARI.—Zeatz zeatz gogoratuko dot,

PAN.—Onik eta ondo ibili, erregeno ezti.

## II AGERLEKU.—TOROI.

PANDAR eta TORIL'en esku-mutila, alkarrekin trikitx egiten dabela.

PAN.—Kaxo! nondik, dok ire ugazaba? Nire illoba Kerside'nean, ala?

ESKU-M.—Ez, yaun; zure begira dago a, zuk ara noz eroango,

PAN.—Ba! or yatok.

## TORIL aurrera.

Kaxo, kaxo!

TOR.—Alde egik ik, yauntxo. (Alde mutikcak).

PAN.—Ikusi dok nire illoba Kerside, ala?

TOR.—Ez, Pandar: ara-onaka ibili naz areneko atetan, Estigi (11) ibai-ertzean inñondiko gogoen bat legetxe, andik beste ertze-ra nok eroango. Ene! zu izan zakidaz nire Kairon, zuk ara arin eroania, olangorik irabazi dagientzat diran ango lilitegietan itzulka ibili al nadin! Pandar txeratsu ori! erauzi, atera egiozuz Kupida'ri sorbaldetako egoak, eta egaz egizu nikin Kerside'gana!

PAN.—Abil emen baratzean, eta bertatik ekarriko dauskat a. (Alde dagi).

TOR.—Zorabiauta nago; bira biraka narabil begira egoteak. Ain gozo be gozo da iruditetik atsegina-ta, liluratu egiten daustaz soin-oarmenak, sentzuak; zer izango ete da maitasunaren ezti garbi garbia nirs ago sapaiaik egitez txastatu, zelango dan ikusi dagianeane? Eriotzea izango da, bildur naz

EL.—Nire gorantziak zure illobeari.

PAN.—Bai, emongo dautsadaz. (Alde dagi) (Azeraketa-c<'s).

PARI.—Etorri dira guiategitik: goazen Pirama'ren bebarrura, gudariai gure txerea egiteko. Elene ezti, gure Etor'i iskilliak erazten lagun zakioza'a eskatu bear daustuz: arsn lokarri mukerrak galtzaiduaren agoari, naiz Eladatarren giarren indarrari baño benderakorrago ta esanekoago egingo yakoz zure atz zur lilurakorren ukutuari: izaroetatiko erregeak baño geiago egingo dozu zuk... iskilliak kendu Etor'eri.

EL.—Arrotu egingo gauz aren otsein izateak, Pari; bai, bai, guk ari egingo dautsagun omenak dogun baño eskubide geiago emongo dausku edertasun-txapeldun izateko; geurez dogun irabazitik gorago iminten gauz ari onango omenik egiteak.

PARI.—Uste leitekns baño maiteago zaudaz, ezti ori. (Alde dagie).

## PANDAR'eneko Bciatz.

axe izango dala; erailgo nauen konorgatzeren bat; nire al eta indar zakarragosntzat pozik pozegien bat, infartsuegien bat, gozotasunean biziegien bat: bildur andi daustat; eta orrez ganera, nire pozak berezte be galdu egingo dodala bildur naz; igesi doan arerioari mordoka yarraitzen gatxakozanean gudu-ekiteak be bere ederra galtzen dauenez.

## PANDAR aurrera oster a be.

PAN.—Gertatzen gelditu dok no a, bertatik etorriko dok: orain erabili bear dok ire buru-argitasuna. Ariñeketan eginda meko egirik ba'llegok legetxe, mosuak gorri gorri

(11) Eladatarren mitu-iztiak diñonez, beste munduko ibaia da Estigi dalakca. Mundu cme tofik bestera yoiacz m gogoak, bein ildakcena, zoricntegira sau'u al izateko, Estigi ibaia-re-n emendiko cdetik bestera igaroteko inñk igaro-bearra eben. Kairon agure bizar-zuria zcn egikizun ori bere-gon ebana; Kairon'ek be.re ontziem aldie'n gogo bat eroaten ei eban ibaiaren ertz batetik bestera-ta, eroan-eske batera asko eltzen yakozan-eña, geroagrako gelditzem ziranak, negarrez eta intzirika gelditzen ziran emendiko ibai-ertzeaii. Ikusi Enearena, VI

eginda ta arnas-esluka yagok; bere billa yoango nok. Zitulik lirainena dok a; arnas-estuka yagok, artatxori goatu-barria legeixe. (Alde dagi).

TOR.—Nire bularra bera be olantxe eraginik dago; sukardunaren biotz taupadal: baño Barriago dira nire biotzarenak; eta nire al guztiak galtzen dabe euren egite-indarra, nagusiagotzearen begiaz otoz otoau aurkitzen dan bendekoari yazoten yakonez.

Aurrera barrero PANDAR eta KERSIDE.

PAN.—Tira, tira, z#r dala-ta gorritu bear dozu? Seintxo da lotsea... Emen dok oiain no au; oni egiozak orain ik niri egiduko zinak. Ostera! atzeraka orain? Yagon egin bear ete zauguz zu ezi arte? Eai ete? Aurrera, ourrera; atzerakadarik egin ba'dagizu, burtidunari ezarri bearko za saguz, Zegaitik eztautsak itzik egilen? lira, eragi mosu-estalgí ori, eta dakusagun zure irudia. Egunarena! letsa zara egun-argia ikusteko! lenago alkartuko zintzakeze ilun bet'ltz. Olan, olan; zirri ta mun egiok andereari, Onangorik! atzenbako muna! Emen eragi etxea, zurgin, gozo da emongo eguratsa-ta, Bai, ustuko dautsazuez zuok zuon biotzak alkarri, nik alde egin baño Isn. Aztore arra ta emea ibaiko aate guztiak besteko dirala egingo neunke: tira, tira.

TOR.—Itzik arean bagarik itsi nozu, andera.

PAN.—Itzez eztok ordaintzen zorrik, egiteak emoiotzak: baña egite bagarik be itxiko au orrek, iri eragin ba'dagisk. Ostera! Ostera be alkarri mokoka? (12) Dakusagun. "Onako onen agiritzat, egiueginak"... Erdue barrura, erdue barrura: sua eginge dautsuet. (Alde dagi).

KER.—Barrura sartuko zara, ala, ene yaun?

TOR.—Kerside ori, ainbeste aldiz gura izan dot onako au!

KER.—Gura, ene yaun! Emon be emongo al dautsue yainkoak, ene yaun ori!

TOR.—Zer emoteko aik? Zegaitik bertatiko banantzua au? Zetariko orban bakanegirik dakus nire andera eztiak gure maitasunaren iturburu onetan?

KER.—Urik baño orban eta loi geiago, begirik ba'dabe nire bildurrak.

TOR.—Txerrendu egiten dauz bildurrak kerubeak: bein be eztabe ondo ikustsn.

KER.—Oñaro seguruagorik idoroten dau ikusi dakusan buiubideak bidea erakusten dau Isan bilduirak, cstopoka dabilen buiubide itsu bildurbakoak baño; txarrenaren bildurizateak osatu egiten dau sarritan txarrena,

TOR.—Ene! ez al dau izango bildur-susmorik nire andereak: bein be ezta erakusten zer zakarrik Kupida'ren erakusketan.

KER.—Ezetariko zer zakarrik bez, ala?

TOR.—Ezetarikorik bez, gura asmoak baño; esaterako, itsasoak negar egingo doguzala, sutan biziko gareala, atxak yango doguzala, katamotzak eziko doguzala zin dagigunean; gure maiteak guri ezarri legiskeguzan egikizunak guk egitea ak guri agintzea baño errazago izango yakulakotan. Au da maitasunak dauen zer zakar-itzala, andsra, zera, atzen bagako dala gure guraria, baña mugadun gure egiteak; lokarri bagako guraria, mugearen otsein eta yopu, ostera, egitea.

KER.—Or esan daroenez, zin bidez maitals guzliak al daben baño geiago agintzen dabe, eta orraitño be beti izten ei dabe al bat egiteataratu bagarik; amar gizeu osotasuna baño geiago agintzen dabe, baña erakutsi eztabe egiten gizon baten amarrenik be, Ez ete dira zer zakarr-iguingarri, leoiak lez orroa egin, eta egilez erbi diranak?

TOR.—Ba-dago olangorik, ala? Gu ezkara beintzat olangorik: txastatu-ala, zelango garean ikusi-ala, goratu gagizuz; erakuslen doguna autortu egiskuzu; buru-utsik ibiliko gara, bururako burestunik irabazi arte: geroko osotasunek eztau izango orain gorapenik: eztoгу izentauko irabazirik, irabazi ori yaio arte; eta bein yaioazkero, izen apala eraango dau, Itz gitxi bear dauz zintzotasun yatorrak: ain zintzo izango da Kerside'ntzako Toril'en yokabidea-ta, ikusi-ezinak aretzaz esan leiken zerik txarrena, arentzako irria izango da, zintzo dalako: eta egiak esan leiken egirik egiena ta zintzoena ezta izango Toril bestean egi eta zinizo.

KER.—Barrura sartu gura ete dozu, ene yaun?

PANDAR aurrera beste bein.

PAN.—Osteia! oiaindik be mosu-goiri? Eztozue amaitu ondiño zuon txutxuputxua, ala?

KER.—Ba, osaba, nik ze zorakeri egingo, zure eriu izango da.

PAN.—Eskerrik asko orrako orregaiuk: nli emongo daustazu, zugandik semerik izan

(12) Alkar maMe daben uso arr-emeak, alkarri mcfkotik eldula eragoten dautsoe alkaTri zirrika aragizkoa egin-aurretik, eta CTU da Pendar zeniarak gogoan dauena.

ba'dagi. Zintzo izan zskioz nire yaunarf: akar eta asarre egidazu, orrek atzera egin ba'dagi.

TOR.—Ba-dakizu oraln seintzuk diran baiak: zure osabearen itza ta nire zinizotasun sendoa.

PAN.—Bai, eta no onen alde be emongo dot nire itza: bein ezkonduazkero zintzo izan dira gure senitarteko neskek, ezkontzerako nekez eta berandu irabaziak izan-arren: lapatxak langoxe dira, sinis egidazu: nora ta zeri egotzi, ari ta an intsigiko yakoz,

KER.—Azartzen naz orain, eta ba-dot orain adorerik biotzean: Toril errege- seme, amaika ile motel ba-dira, nik gau la egun maite izan zaudazala.

TOR.—Zegaitik izan da orrazkero orren irabaz-gatx nire Kerside?

KER.—Irabazitzaif esteko izan naz gaitz; baña ni irabazirik izan nozu. ene yaun, zure leuengo begirakuneazkero..., azketsi, parkatu nagizu, gizon biotz-gogorrarena egingo dozu zuk, yazoa osorik autoitu ba'dagitsut. Maite zaudaz orain; baña eskuratu ta ostondu al izan dot arain arte izan dautsudan maitasuna: egia esateko, guzorra esan dot; euren amaientzako eurekoi uts egin izan diran ume ago-ugal bagakosn antzeko izan dira nire gogaketak: begirai gurearen ergel! Zegaitik itz egin dot ganora bagarik? Nor izango yaku zintzo, gure ixilkizunak guk geuk zabaldu ba'dagiguz? Baña, nik zu maite maite izan-orren, eneuntsun iragarten olangorik; eta, oriatitño, bai orixs, gizon izan gura neban nik, gizon izan, edo lenen itz egiteko gizonen euren eskubiáea guk emakumeok izatea. Ezti orrek, nire miñari ez eragiteko agitudu egidazu; eta izan be, nire buruaian yabe enazan une onetan, gero damutuko yatanik esango dot seguru segurutik. Ikusi, ikusi, zure ixiltasunak, ixilean maltzurak, ixilkizunaren ixilkizuna bera ateraten daust nire makaltasunetik! Itxi egidazu ago au.

TOR.—Orixe egin be egin bearko dot, ortik eresi gozorik urten-arren.

PAN.—Lirain itz egiten dozu egin be.

KER.—Azketsi, parkatu nagizu, arren, ene yaun; etzan nire asmorik onan zuri mosurik eskatzea; lotsaturik nago; zeruok! zer egin dot? Eta izan be, tertzioa da nik gaurkoz zuri agur egiteko, ene yaun,

TOR.—Agur egiteko! biar goxa baflo len agurrik egin ba'dagistazu.,.

KER.—Itxi nagizu, arren.

TOR.—Zer dozu txartzat?

KER.—Neure buruaren lagun Izatea, yaun,

TOR.—Ezm zara banandu zeugandik,

KER.—Itxi egidazu alde egiten, bai, ta or ikusiko dozu al dodanentz; ba-dot nik zer txe-ratsu eztanik be, bestersn baten ergel izateko zugandik alde egin gura leukenik be. Yoan al nintz... nondile da nire buru-argitazuna? Eztaikit zer diñodan be.

TOR.—Orren zur itz egiten dabenak ondo áa-kie zer diñoen.

KER.—Ba-ledike, yaun, nik mañasunik baño maltzurkeririk geiago iragartea; eta zure gogaketak goatzeko izatea nik autortu d-3-dana: baña zur zara zu, edo, ostáit:ean enozu maite; eta izan be, zuriz an eia malte izatea, gizonaren alaz goragoko da; goian, yainkoetan dago ori.

TOR.—Ene! emekumek be olangorik al dauela sinistu, naiz uste al nei beintzat, eta olangorik izatekotan, zugan izango dala..., maitasun-argia etentzaka beti betiko bazkatu ta garretan eukiko dozula, eta beti bardin, beti zer baten eukiko doisula, beti asieran legetxe, beti gazte, azaleko edertasuna baño luzarago bizirik, soñean odola makalduago baño bizkorrago gogotan eta biotzean barriztaurik! Naiz, orretarako eraginak buruan sartuko a) leust, nire aldetiko zuganako osotasun eta zintzotasunari zure aldetik beste ainbesteko maitasun garbi eralgiak. bai astaz, bai bardintasunez, erantzungo dautsala; orduan bsi ba-nengoke ni goian eta arro! baña, ai ene! zintzotasunaren bakanatasuna bestean zintzo nozu ni, eta zintzotssunaren seintzaroa baño be bakunago,

KER.—Zein geiagoka egingo al dautsut nik orretan.

TOR.—Zeingeiagoketa orren onindartsu ta eder, zintzotasuna zintzotasunagaz zein geíago izaten dabilenean! Toril izango dabe euren maitasuna zintzo danentz ikusteko erdutzat mutil maitale zintzoak geroko munduan: autortzaz, zinez, alkarren alderatza eskargaz, eredurik ezagaz aurkitu daitezanean euren olerkiak, zer berberak barriro esatez eta entutez zintzotasuna nekaturik ela asperturik aurkiu dadinean, esaterako, galtzaidua bestaan zintzo, landaren barruko izerdia iretargiari bestean zintzo, eguzkia egunari bestean, urtzapala urtzapal emeari lain, burdiñea ikatzarriari aña, lurra edo iudia bere erdiari bestean, orraititño be, zintzotasunen alkarren alderatzearen ostein, zintzotasun yatordukun aitatze-kotan, "Toril bestean zintzo" esakunez amaituko da olerkia, ta olan gurenduko dira ítz neurtuak.

KER.—Igarla izango al zaral Ustel izan ba'

nadi ni, zintzotasunelik u'e baten lodiereaz be alboratu ba'nadi, aldia zarturik bere buruaz aztu dadinean, ur-lanlakadak tantakaden tantakadak Toroi'ko arriak ez-3-reztu dagiezanean, aztute itsuak uriak iruntsi dagizanean, eta lege-erri allsuak euren atzik, lorratzik ild bagarik auts egin daitezanean: orduantxe be nire ustelkeria asarrez aitatuko al dau neska ustelen artean ustelik ustelerako oroipenak! bein orduan esan dagienean eguratsa bestean ustel, ura fcestean, axe, naiz lur ondartsua fcestezin ustel, azeria asuriarentzako lain, otsoa fceintxearen txalarentzako aña, leoi nabarra oreinarentzako bestean, naiz ugazama bere samearentzako bestean ustel; bai, Kerside bestean ustel esan dagiel- la orduan, ustelkeriari biotzean zagtadea emoteko.

PAN.—Tira, eginik dago egiunea: ikurratza ezarri, ikurratza ezarri, ezarri siilua. Alds

in AGEHLEKU.-Eladatarren Gudaltegia.

Aurrera AGAMENON, ULITZ, DUMEDA, NES-  
TOR, AIATZ, MENELA, ta KALKA.

KAL.—Gedarrez bultzatzen nau eretiak saria eskatzera, errege-semeok, nire otseintzen saria eskatzera, Yupiter'gazko zeretan nik dodan yakituriagaitik fcektanbera itxi dodala Toroi gogoratu egizue, an itxi dodazala nire ondasunak, eta saltzalla izena irafcazu dodala; naiera yakin eta eskukoen orde, ez etorriko bai etorriko ondasunen eskuetan imini dolala nire burua; fcaí aldi, ta bai ekandu, oitura ta inguruko bests zer, nire izateari maitagarri ta etxeliar egiten yakozanetalik, alds eginda; eta emen, zuoi otseintzea egiteko, mundu barrira, inñondikora ta ezagun bagakora etorri izan nazala: arren, bai, arren, zelango dan ikustekotzat ekadazue orain ondasunen bat, sari apur- ren bat zuok aginduta dozuenetik, zuok diñozuenez geroagorako nire begira dagozanetatik.

AGAM.—Zer artu gurako ete zeunke gugandik, Toroitarr orrek? Egiguzu eskakizuna.

KAL.—Toroitar atxilo bat dozue zuok, izenez Antenor, atzo goatua: zer andi ta geitsu, edo knutzat dabe Toroitarrak orrako ori.. Sarritan gura izan dozue zuok, eta sarritan emon dautsuedaz eskerrak nik, sarritan ekarri gura izan dozus ona nire alaba Kerside zer andiren baten orde eta alderako, fcaña orainarts ezetza emon izan dautsue Toroi-

onetan dot zure eskua, eta beste alde onetan nire illobearena. Ainbests neka artu dot zuok alkarrekin balzeko-la, inñoz alkarri ustal izan ba'zakioez, nire izana, Pandar izena, eroango al dabe ludiaren atzeneraño no ta to'en bitarteko errukarri guzliak; Tori'ak izango al dira gizon zintzo guzliak, eta Kerside'k emakume ustel guztiak, eta Pandar'ak izango al dira ezkontza bitarteko guzliak! "Olantxe" esan zuok err.en. txe.

TOR.—Olantxe.

KER.—Olantxe.

PAN.—Olantxe. Eta orain lo-gela bat eta oe bat erakutsiko dautsuedaz; eta oe orrek eztau esango zuon arteko zerik txikienik beta, sakatu-ala sakatu egizue, il eragiteraño: ospa emendik! Eta emengo minpekodun neska guztiak oe, lo-gela ta Pandar bana emongo al dautse ondasuntzat Kupida'k! (Alde dagie).

tarrak erantzuntzat: baña nik ondo daki-danez, Antenor au kentzea ta galtzea ain gogoaz besterako yake Toroitarrak, euren arazoetan fcear bearreko yakelakota, onen ezagaz atzeraturik geldituko yake euren arazoak erabiltea; eta larri larri errege-semerik be., Pirama'ren semerik be emongo leuskigie onen alderako: fcidali egizue au, erregeseme andiok, eta onek erosiko dau bere buruaz nire alabea; eta a emen euki-teak ordainduko dauz nire otseintza guztiak eta nik neure gogoz artu izan dodazan neke guztiak.

AGAM.—Dumeda'k eroan dagiala ori ta Kerside ekarri dagiala: izango dau Kalka'k guganiik berak gura dauena. Dumeda on, egoki gertatu adi alkarr-aldakuntza onetarako; orrez ganera, itandu ta yakin egik, Etor'ek biar bere eupadearen erantzuna ontzat artu gura dauenentz: gerturik yagok Aiatz orretarako.

DUM.—Neuregan artuko dot egiteko ori; arro be arro nago zama ori eroateko. (DUMEDA'k etaKALKA'k alde),

AKILEU eta PATORKEL aurrera, euren txoznearen aurrean.

UL.—Bere txoznako atetan zutunik dago Aki-leu: eder izango al yako gure gudalburuari aren aurretik otzik eta ari yaramonik egiteka igarotea, a burutan be eztauelakotan;

eía zuok, erregeseme guztiok, aren ardura-rik eza iragarri egizue aren aurrean, eta ez egiozue yaramonik, ezla begirapenik iragarri be: atzenen yoango naz ni. Niri iragarriko daust, urrean, eta itanduko daust ia zegaitik egiten dautsoezan olango begirakune bape txeratsik ez tiranak; orrako ori egin ba'dagizue, aor non dodan irri-osakaia, zuon ezezaguntasunaren eta aren arroke-riaren bitartean erabilteko. eztoz uste osakaia ori gogoz iruntsika dauenik: ba-ledike orrako ori ongarri izatea; arroke-riak eztau bere burua ikusteko beste ispillurik, arroke-ria baño; izan be, bazkatu egiten -dabe arroke-ria belaun bigun malcurberak, eta gizon arroak eskatzen dauzan alogerak dira belaun bigun makurberok.

AGAM.—Burutuko yoagu ire asmoa, eta begirakune otz eta ezezagunenak egingo dautsaguz aren aurretik igaro-ala; beste orrenbeste egin dagiala yaun bakotxak; eta naiz ez egin ari ezetarik agurrik, naiz, egitekotan be, zaputz-agurra egin, onako onek ari ez begiratzeak baño be geiago eragíngo dautso. Neu yoango naz aurrendari.

AKIL.—Ostera! niri itz egiteko yatok guJalburua, ala? Ba-dakizus zuok nire asmoa, etxoat nik geiago burrukarik egingo Toroi' ren aurka.

AGAM.—Zer diño Akieuk? Zer bait gura ete dau gugaz?

NEST.—Ene yaun, gure gudalburuari zer bait esan gura dautsazu, ala?

AK.—Sz.

NEST.—Deusik bez, ene yaun.

AGAM.—Oba. (AGAMENON eta NESTOR'ek alde).

AK.—Sgun on, egun on.

MEN.—Nolan ago, nolan ago? (Aide).

AK.—Ostera! adardunak be zaputzu egiten nau, ala?

AI.—Ze barri, Patorkel?

AK.—Goxalde on, Aiatz.

AI.—Zer?

AK.—Goxalde on.

AI.—Bai, biaramon on be. (Alde dagi).

AK.—Zer esan gura ete dabe lagunok? Ez ete dabe ezagun Aki'eu?

PAT.—Inondiko eraz igaro be digaroe: burua makurtzen oiturik egozan len, eta euren irribarreak bidaltzen eutsoezan Akileu'ri euren aurretik, opamai gurenetara lau ofien ganean yoiazanean legetxe Akileu'gana apal apal etorteko.

AK.—Beartsu egin ete nok, ba, oraintsu? Egia, zori onaren adiskide eztan anditasuna, gizonen adiskide be eztoz izango. Bein yau-

sia zer dan, yausiak berak irakurriko yok besteen begirakuneetan, bere yauskereaz oartu dan beslean arin: izan be, gizonak, eskabien, txipeleten antzera, udeari baño eztautsez erakusten euren ego nabarrak; eta gizonak, gizon izate utsagaitik, eztau dedurik; baña deJurik emon ba'dagioe gizonetik at, gizonetik kanpora diran zera-kaitik emoten dautsoe, esaterako, leku, ondasun, besteen adiskidetasunagaitik, eta onako zerok sarritan irabaziak bestean alabearrez etorri yakozanak dira: eta onako zer guztiok zutunik dagozanean be labankorrik asko dira-ta, eurokana makurtzen zan maitasuna bera be labankor izan-eta, lenengo zera yausten danean, bigarrena be yausten da, alkar lurrera daroela, eta bitseuk ilten dira yauskera. Baña ezta olan nigazkoa: adiskide gara ni ta alabearra; ondiño rik oso osorik gozatzen dot izan dodan guztia, gizonon begirakunez bsste guztia; eta oneik, nire ustez, zer bait aurkitzen, idorotzen idabe nigan, ain sarritan niri ain aberats emon izan dausten begirapenaren aintzako eztan zeren bat. Emen dago Ulitz: eten egindo dautsat bere irakurtea. Kaxo, Ulitz!

UL.—Kaxo, Tetis'en seme andi ori!

AK.—Zer irakurten daragoiok?

UL.—Inondiko urlrik idazten yaustak emen, gizonak, naiz ta zer eder izan, ondasun andiak izan, bere barruan, naiz beragandik at, ezin arrotu leiteke'a dauenagaitik, eta ezin yakola dauenari oartu b°, begiak bera burua zuzendu arte; esaterako, aren onindarrak besteai argi eginda berotzen dabezanean, eta argitu ta berotuak lenen emon eutsiezani atzera biurtzen dautsoezanean.

AK.—Ori eztoz bape inondikorik, Ulitz. Norberak arpegian daroan edertasunik etxakok ezagun daroanari, besteen begientzako dok: begiak berak be, oarmenik meen eta zorrotzena izan-arren, etxok ezagun bere bururik, beragandik alde eginda ezik; orretarako, begiak beste begien batikuski bear yok: batak besteari alkarren antzagaz agur egiten yaustak: eta izan be, ikusmenak, bere burua ikusteko, ortik zear ibili bear yok aurrezti, eta ispillu-bearra yok bere burua ikusteko. Au eztoz bape inondikorik.

UL.—Etxoat zer-esanik ire esakera orren aurka... etsetiar dok ori, -esakera orren yabeak gure aliotik egin izan dauen zirristaáez baño; eta izan be, orrako orrek bere argibidez ederto erakutsi yok, inor be ez tala berak dauen ezereen yabe, naiz ta bere barruan eta atetan ondasunik asko izan, arik

eta bere ondasunak besteai be emon arís; eta bere diranik bo eztazaun, arik eta besteai zabaldua zerbaít badirala besteen lãt-loetatik ezautu arte; eta besteetatik, makotik legetxe, arein oisa atzera etorri arte: naiz, eguzkiaren aurrez aurre dagon gal-tzaiduzko atearen antzera, bere irudia ta beroa artu ta atzera bidali arte. Euru-belarri egon nok onetzaz oldozten; eía Aiatz'eri ezarril yausat orrako ori, a benetan ez-yct kin doketa. Zeruak, a dok gizona, izatekoa! zaldia berbera; berak ba esitakiana yok ak. Izadi ori, ba-yagok amaikatxo zer zakarrik begientzat, eta ori'aitiño be erabiitcko eder eta bikain diranik! Eta amaikatxo zer eder eta bikain esten dira, eta eurenz ezтира eze-tarako! Entzute onez beterik ikusiko dogu biar Aiatz, alanbear utsak bere ganem áa-katson egitea dala-ta. Zeruok, zer egiten daben gizon batzuk, beste batzuk egiteka iz-ten daben bitartean! Zenbat eta zenbat gizon sartzen diran alanbear gogalditsuaren etxera, beste batzuk aren aurrean ergelarena egiten doben bitartean! Amaikatxo bisi dozak inoren arrokeritik, burukeriz norbere arrokeria baraurik eta goseak ilik eukita! Begíratu ta ikusi Eladatar yaunok!... Ba! onazkero Aiatz kírtin-zakarrari sorbal-dan eskua2 zartadatxoak emoten daragtsioe, aren oña Etor adoretuaren bular-ganean ba'lego legetxe, eta Toroi andia bildurrak ilik eta kikiliurik.

AK.—Sinísten yoat orrako ori; zíkotzak eske-koen aurretik legetxe igaro dozak nire aurretik-eta,,,, etxaustek egin ez itzik, ez begirakune txeratsurik. Zer ba? Aztu egin ya-kezak nire egite andiak, ala?

UL.—Ene yaun, zorroa yaroak aldíak bere bizkarrean, eta ara sartzen yozak ak emoten yakozan ukarrak, aztu dakiozan; esker txarreko zer zakartzar dok a: ara sartzen diran zerrendak, beñola egindako egits onak dozak; eta egite onok egin-ala dozak irun-tsiak, egin-ala aztuak: ekiteak yaukak omena dizdizetan, ene yaun: "egin izana", gaur-kotasuna galdu dauen zera kakotik eskegita eukitea dok, ikusguraiientzt guda-koskol ugertuak erakusten diran legetxe. Etorri datorren bidea artu egik; eta izan be, omenak daroan bidea ain estu dok-eta, banaka yoan bear izaten dok andik: bein biderazkero, eutsin bideari, eta izan be, leiakidetzekak bayozak milla bat seme, eta oneik ire atzetik yoazak, banan banan, ire yarrai: meko egin ba'dagik, naiz bide zidorretik baztarreratu ba'adi, an dozak guztiak ire aurretik, i eta andian itxita, atakea idoro dauen

ugina legetxe, edo-ta, aurrendari yoan dan zaldi lerdén-adoretso yausiari yazoten yakon lez, zakar-zirtzilen azpigarriztat geldituko ez an, i ostikopean zapalduta aik ire ganetik aurrera egiteko: orrazkero, aik orain egiten dabena ik eginaren aidean txiki be txiki izan-arren, irearen ganetik, irea baño gorago agertuko dok; eta izan be, arrotzun edo ostarari era-meratsu, txeratsua-aren antzeko dok aldía, osta-osta estututen yaustak eskua beretil: alde dagian arrotzari, besoak zabalik, eta egaz egin bear dauelakotan, artzen yok, osterá, etorri datorron arrotz barria; beti emoten dok irribarreka ta txeratsu ondo-etoma, alde-agurra, osterá, beti egiten dok intzirika. Ene! izan danaren sari-billa ez bedi ibili on egina; eta izan be, edertasuna, buru-argitasuna, andiki-seme izatca, indartsu izatea, otseintzaz irabazia, maitasuna, adiskidetasuna, goimaitasuna... zer guztiok dozak begi onik eztauen aldi iraingilearen bendeko. Berezkotasunaren ukututxo bat dok asko mundu guztia etxeko ta senide egiteko, eta au dalt-ta, guztiak, eretxi batez, goratzen yoezak uskeri ta yostallu yaio-parriak, naiz ta zer zarrez eginak eta eratuak izan; eta urrez-taun ba'dok, geiágo gcratzen yoeak auts apurbat be, auts ez estalita dagon urrezko zerik baño. Oraingo zerak goratzen yoezak oraingo beglak: orrazkero, i gizon andi ta osorik izan-arren, ez adi arritu, Eladatar guztiak Aiatz gora-goraka ba'yarabilek eta a gurtzen ba'yoek; eta izan be, lenago yoten yoeq begia ibili dabiltan zerak, geldi dagozanak baño. Ire alde zoazan lenago erriaren gedar eta oioak, eta ba-leitekek oraindik be ire alde izaterik; eta orraitíño be ondiño yazo leitekek olangorik, ik eure burua eure kitetik ilobian bizirik ez sartzekotan, eta ire entzutea ire txoznan kutxá-barruraturik ez eukitekotan; oraindik antzina ez-tala, yainkoeu ikusi-ezina sortu enduan ik ire egite andiz, eta guda-lekura etorriázo euntsen, eta or etorri zoan Marto andia beste yainkoeu gogoaz bestera ta ai oldartzen.

ÁK.—Zegaiti andi ta indartaurik ba-yoat nik emen bakarrik eta besteakandik berezirik egoteko.

UL.—Eaña indartsuágo ta goragoko dozak iro bakartasunaz bestsrako zegaitiak: ezagun dok, Akileu, i Piramn'ren alabetarik bategaz maitamindurik agola.

AK.—Ja, ja! Ezagun!

UL.—Arritzekorik dok ori, ala? Beli zur eta buru-belarri dagon aurre-ikusteak ba-yakik



ia zeinbat urre-bilder dauen Pulta'k (13); sikonik sakonenaren ondoa be idoroten yok; gogapenaien bidekide dok-eta, ia ia, yafn-koak legetxe, euren seaslta minga-ixilelem erakusten yozak gogapenalt., Zer yakingcr-Ixen bat yagok lege-errien gogoan. eta inor eztok azartzen zer yakingaitz ori azaltzen, ezta beragaz sartzen be, orrako orren gora-beia ta atzeia-aurreak itzez naiz idazkortzez azaldu ledikezan baño yainkozkoago dozak-eta: ik Toroi'gaz izan dokan arr-emon guztia ire bestean dok gure be, ene yaun; eta egokíago Htxakiok Akileu'ri Etor IUÍÍ-Sratzea, Polixene lurreratzea baño: baño rein artu bearko yok orain Pir (14) gazteak be-rean, entzuteak gure izaroetaii bere turuta yo dagianean; eta Elai-atar neska guztiak yantzian egin-ala abestuko yoeck "Etor andiaren arrabeak irabazi dau Akileu; bañct gurs Aiatz adoretzuak adorez geiago egin dautso Etor'eii". Agui, ene yaun: maite a-j-danez itz egiten dauskat; ederto egiten yok ziirist eigelak ilt ausi-bearreko lei-gansan. (Alde dagi).

PAT.—Oirelaia bultzau aut nik, Akileu: emakume lotsabako ta inari-mutilik eztok gizon ematua baño iguingarriago, egiteko aldian, Onako gaiztakeri au ezarri ta egozten yai-s-tek niri; zera, gudarako nire gogo urria ta niganako ire maitasuna dirala i olan aultíenak or uste yoeck: ezti ori, yagi adi; eta azkatuko yozak Kupida mengel-lotsabakoak ire idunari deutsen bere beso maitakorrak, eta ortik zear eguratssetara bialduko dok Kupida, leoiak bere idun-ulectako iñontz-tantana lez.

AK.—Etor'ekin buiruka egiteko dok Aiatz, ala?

PAT.—Bai, eta ba-ledike ak ortik antzuie andi lortzerik be.

AK.—Ba-yakusat gal-gordean dagola nire izen ona; maltzurksriz ilik eta odoldurik yagok nieie entzute ona.

PAT.—Ba, oirazkeio, aiduraz ibili; gizonak euren buruari egiten dautsoezan zauriak dozak osagatxen; utsean izenpetzen yok galgordeiaiko agindua egikizuna egiteka iztsak; eta, gatxa legetxe, ixilka sartzen yakuk barrura gal-gordea, eguzkitan arkolo etzanda gagozanean be.

AK.—*Oa* ta dei egioi ona Tersitetz'eri, Patorkel ezti orrek: Aiatz'egana bidaliko yoat ergel ori, eta ari eskatu dagiola, burruka-ostean Toioi'ko andikiak onako dei egin daitzela, aik iskillo barik gu emen ikusi gagezan: emakume bestean luze eretxita naiagok, leiearen leias gexorik be ba-naiagok, Etor andia bake-aldiko soñekoz yantzirik

ikusteko; akin itz egiteko ta aren arpegia ní aspertuarleño ikusteko. Aiko csmen ns-ke bat aurreraturik!

#### TERSITETZ aurrereu

TER.—Ba-dogu arrlgairirik!

AK.—Zer?

TER.—Guda-lekura yoan-storríka dabil Alcts, bere buruaren billn.

AK.—Zer iala-ta?

TER.—Biak bietarako burruk^a egiteko da a biar Etor'ekin; eta bero leiakldeo: glzagu-renklo bendercstuko dauks igarla lez aln arro dago-ta, bere buruaz aztuta dago *szei* esaten eztauela.

AK.—Zelan izan ledikek olangorik?

TER.—Iniiollarra legetxe dabil *a* aia-onakcs, oinkada bat egin eta geldituka: ausmerks daragoio, artzekoa zenbat dan yakiteko bere garaunez beste zenbakiztirik eztakian emakume arrotzunak legetxe: eta usigi eqiten dauz ezpanak, begirapen zurrez, zer ou esateko ba'litz lez: "Balegoke argitauunik buru onetan. emendik urten al ba'litz"; eta ba-dago egon, baña otz otzik dago an, suarrian sua legez, yo ezik andik urten gura eztauela". Betiko egin dau gizon arenak: eta izan be, Eior'ek burrukan idun-azurra ausi er.pa'dagio, berak ausiko dau anoke-iiz. Enau ezagun alt: "Egun on, Aiatz" esan dautsat; etci ak, "Eskenik asko, ftgame-non" erantzun daust. Ze uste, ze eretxi dozu zuk gudalbuiutzat artu nauen gizon atzaz? Ibai-arraindu egin da a, izen bagakotu, zer zakar iguingarritu. Egin éau crrokeriak arena! orrako ori gizonak erara, naiz itzulietara, bietara eroan lei, narruzko txamarrea lez.

(13) Pulta (Plouton) edo Fadís, Elcnd ;Urrcn mitu-rztiz, Persepone'n senarra da: beste munduko su-lezako yaun gogor-errukibak eta, erabcrtera, bal ordasunen ycnm eta banatzalle aberats be.

(14) Pírama'ren alaba. Akileu'k maite dauelakoa *áa* or gora'gcon aita'u doguti Polixene. Pir CIU, bcrriz, beste itzuen Neotolema, Akileu'ren semea da. Pii an eroan-bear eizon Toroi-aurreko Eladatarren artera, Eladatarrak Toroi artzekotori, baña ez aita, ez semea otan tarteko izatekotan Eladarrak Toroi artuazkero, kuisoturik geldituko litzakean aita-semeon enlzué ona, emen Ulitz'ek ondo diñonez.

AK.—Nire geznari izan bear atxako ari nire aldetik, Tersiletz.

TER.—Nor? Ni, ala? Ba, ak eztautso erantzungo iñori; a ezta iñori erantzutekorik: eskekoena d« itz egitea; besoak dira aren miña. Arena egingo dot emen zuon aurrean: Patorkel'ek egin dagistazala itaunak, eta or ikusiko dozue Aiatz'en erakuskatea,

AK.—Asi, Patorkel: esaiok... "Apal apalik eske nago Aiatz adoretzuak dei egin dagiola Etor adoretzu adoretzuari nire txoznara iskillo bagarik etorteko; eta arentzako bide-segurantzea lortu dagiala Eladatarren guda buruen guda buru argi argi, seizazpi tider dedutsu Agamenon'gandik". Egik onako au.

PAT.—Yupiter'ek onetsiko al dau Aiatz andia! TER.—Juum!

PAT.—Akileu aintzakoagandik natortzu, TER.—Ja!

PAT.—Eta ak apal apalik eskatzen dautsu, Etorr'i dei egin 'iagiozula bers txoznara. TER.—Juum!

PAT.—Sta arentzako bide-segurantzea lortu dagizula Agamenon'gandik.

TER.—Agamenon'gandik!

PAT.—Bai, ens yaun.

TER.—Ja!

PAT.—Zer diñozu orrako orretzaz?

TER.—Yaungoikoa lagun izango al yak, orixe opa dauskat biotz biotzez.

PAT.—Zure erantzuna, yaun?

TER.—Egualdi ona ba'da biar, batera edo bestera ebartziko dok zera or amaikak inguruan: orraitio be, bereak artuko yozak ak nik nireak baño len.

PAT.—Zure erantzuna, yaun?

TER.—Onik eta ondo ibili, biotz biotzez opa dauskat.

AK.—Ba! etxagok a gogaldi edo doñu orretan, ete yagok?

TER.—Sz, doñuan barik, doñutik urtenda dago a. Eztaik nik ze eresi izango dauen ak Etor'ek yoka garaunak atera dagiozanean, baña seguru nago ni, ezetarikorik be eztauela izango, Apolon kitarra-yotzalleak aren zamilekaz Kitarra-ariak egin ezpa'dagiz.

AK.—Tiruk, bertatik eroan becir d-autsak ari idazki bat.

TER.—Aren zaldiarentzako ekadazu beste bat, ugazaba baño burutsuago da a-ta.

AK.—Nasturik yagok nire burua, eragin yakon iturria legetxe: eta neuk be ezin yoat ikusi aren ondoa. (Alde Akileu'k eia Patorkel'ek).

TER.—Garbi la garden al lego ire buruko iturria, astori nik oreroateko! Gurago neunke ardi-kaparra edo lakasta izan, olango ez-yakin adoretzurik izan baño (alde).

## IV EKITALDI

### I AGEELEKU.-TOROI. Etxarte bide.

Aurrera, alde batetik, ENEA ta aren Otseina zuziagaz; bestetik, PARI, DEIPOBA, ANTE-NOR, DUMEDA, ta besle batzuk, zuziakaz.

PARI.—~Begira, ara! Nor dok a an dagona?

DEI.—Snea yauna dok a.

EN.—Errege-S3mea fçera zauguz, ala? Zuk lango ereti onik izan ba'neu nik, etzanda luzaro egoteko, zerutar arazoz beste ezek eleuskifian ostu izango nire oe-laguna nire aldamentetik, errege- seme Pari.

DUM.—Orixe da nire gogoa be. Egun on, Enea yaun.

PARI.—Eladatar adoretzu dok onako au, Enea, emoiok ire eskua..., ire itzaldia dok orrako orren autorla, ire itzaldian esan euskuan, ba, aste osoan egunoro ibili izan da la guda-lekuan ire billa Dumeda au.

EN.—Osasuna zuri, yaun adoretzu orri, guda-bitarts txerakor oso onetan; baña iskilloa-

kaz zagozanean zukin trikitxik egin ba'dagit, biotzak asmau, naiz adoreak burutu dagikan besteko eupada baltz itzala egingo dautsut.

DUM.—3ata ta bestea artzen dauz ontzat Dumeda'k. Bare dagoz orain gure odolak; eta orrazkero, osasuna orain; baña burrukea barriro asi dadinean, eta erelirik agertu, Yupiter-arren, eizean ibiliko nok ire biziaren filla nire indar, ekite la marrokeri osoz.

EN.—Eta leoiaren eizean ibiUko az i, atzekoa begira igesiko dauen leoiaren eizean. Giza-txerakortasunez, ondo etorria i Toroi'ra! Orain, Ankisa'ren biziaren, ondo etorria augu izan be! Benuts'en eskua-arren zin egiten yoat bizirik dan gizonek eztauela maiteago erailteko dauen zerik, nik i maite audan baño.

DUM.—Gogakide gozak gu biok... Yupiter, bi-

zirik iraungo al dau Enea'k eguzkiak milla bira oso egin arteño, alanbearrez nire ezpatearen omengarri izateko ezpa'da! Baña, nire omen leiakdearen alde biar ilgo al da, zauriz yosi yosirik.

EN.—Ondo dazaugu guk alkar.

DUM.—Bai, ondo dazaugu; eta luze eretxita gagoz alkar gogo txarragoz ezagutzeko.

PARI.—Agur egite txerakorrik zakarrena dogu au, maitasun gorrotagarrienik zindoena, nik eguño entzumatik... Ze arazo dakazu, yaun, onen goiz?

EN.—Onen billa bidali nabe erregeren alde-tik, baña zertarako danik eztaikit.

PARI.—Ikin trikix egiten yok aren asmoak: Eladatar au Kalka'nera eroatea zozan erregeren asmoa; eta bein an, Kerside liraina onen eskuratzea, Antenor yareiaren orde; lagun izan akigu; naiz, gogoko ba'yak, oa arin ara gure aurretik: eten bagarik darabilt buruan, -edo, obeto esateko, nire gogapenaren ete yoka dabilkit neuk dakidan zer bat, -an dagola arrotzegiz nire anai Toril arratseon: iratzarri egik a, eta ur gareala gu iragarri egio, zegaiti ta zetarako goazan argi ta garbi azalduta: bildur nok arrera onik eztauskuela egingo.

EN.—Seguru gagoz orrako orretzaz gurago leuke Toril'ek Toroi Elade'ra eroan dagiela, Kerside Toroi'tik eroan dagie'a baño.

PARI.—Etzagok besterik egiterik; orixe ebatzi yok aldiaren erabagi garratzak. Aur-3-ra, yaun; ire yarra yoango gozak gu.

EN.—Egun on, guztioi. (Alde dagi Otseina-kim).

PARI.—Eta esaidazu, Dumeda zindo..., egia esaidazu, arren, eta adiskidetasunik zin-

tzoenez... zsin da, zure ustez, Elene lirainagarriago, neu ala Menela?

DUM.—Biok bardin; Elene orbandurilt, loiturik, kutsaturik agoteak kezkarik emon ez, eta aren billa dabilencrzkero, ondo Eleno\* garri da a; su-laza bete elorrioz, eta munda bete nekez dabil a Elene'n billa-ta; eta zu zeu be a bestean Elene eukigarri zara, aren alde zagoz-eta, Elene'ren kutsuak zuri be ago-sapaia bape mingoztu bagarik, eta agaitik ondasunetan eta adiskidetan ainbesteko galtzeak izan-arren: ak, adardun negnrtik lez, atzenengo ondar loietaraño edango leuke zer ezi zapal zapaldua; eta zuk, lizunkeritsuk lez, gogoz aziko zeunkez Elene'ren emagalu kuntzurrunetatiko zure ondorengoak: bion irabaziak alkarren ondoan iminiakzker, batarenak eztira bape astur.ago, bestearrenak baño; baña emagaldugaitik zuok biok astunago izan-arren, a estunago da berez.

PARI.—Mingotsegi zara zu zure aberkide yatsun emakumerentzako.

DUM.—A bera da mingots bere aberriarentzako. Entzun nagizu, Pari: ak bere emagaldu-zanetan dauen odol ustelaren tantan bakotxako, Eladatar baten bizia galdu da; aren gorpu ustel kutsatuaren asta. edo pixurik txikieneko, Torroitar bat da ilik: itz egin izan al dauenazkero, aren agotik eztira urten agaitik il diran Eladatar eta Torroitarretan beste itz ederrik.

PARI.—Dumeda lerdin, atez ate saltzen dabena egiten daragoiozu zuk, zapuztu zuk erosi gura dozun zera: baña guk ixilik eukiten dogu saldu gura eztoguna. Au da gure bidea. (Alde dagie).

## II AGERLEKU.-TOROI. PANDAR'eneko arrarpela.

TORIL eta KERSIDE aurrera.

TOR.—Etzadiz artegatu, kutun ori; goxalds otz da au.

KER.—Orrazkero, ene yaun ezti ori, nire osabeari dei egingo dausat beerako; ak idigiko dauz atek.

TOR.—Ez egizu artegatu a be; oera, oera; begi lirainok erail crteño lo egizu, eta ardua bagako seintxoak legetxe lotu egizuz zure oarmenak.

KER.—Egun on, ba.

TOR.—Zoaz oera, arren.

KER.—Nigaz asperturik gagoz, ala?

TOR.—Kerside ori! Larratxoriak iratzarri dauen

egun zeregintsuak iratzarri ezpa'leuz bela lizunak, eta gau ameslariak gure pozak luzarago estali ta ostondu gura izan ba'leuz, euneuk alde egingo zugandik.

KER.—Laburregi izan da gaua.

TOR.—Ut gau sorgin ori, alango ori! Lagun gaizto-okerrakaz su-lezea baño be artioago itiltlen dakiana da; baña alkar besarkaturik dagozan maitaleakandik gogapena baño ego bizkorragoz egaz egiten dau. Otzitu egingo zara, eta gsro ahenak egotziko dautazuz.

KER.—Etixon egizu, arren; zuok gizonok bein be eztozez etxongo... Kerside ergel onena! neuk etxon bear neukan ondiño, ela or-

ducum bai luk etxongo zeunkeon. AdU Yorigirik da norbait.  
 PAN.—(Barrutik). Oaterd Ate guztiak mba, lik dagoz emen, oki?  
 TOR.—Zure oscsbea áa,  
 KER.—Izurviak eroango al dcra! ífdctrra yoten Ibiliko yedcu a oraini biziiza lango bizi-  
 ztea izango dot orain nik!

## PANDAR aurrera.

PAN.—Ze barri, ze barri? Zelan doaz gareko neskatasunak?... Zatoz ona, neskrto! Nondik da nire illoba Kerside?  
 KER.—Zoaz ortik zear ela eskegi eglzu zeure burua, osaba adcsr yotzalle zakar orrek! Eragin egien daustazu ionen, eta gero eginagaitik adarra yo,  
 PAN.—Zer eragin? Zer eragin? Esan dagiala zer eragin dautsadan: zer egiteko ekarri aunai?  
 KER.—Tira, tira, gaiztetsia betíi zure biolza! Bein be etzara izango gizon onik, eta besleri be eztautsazu itsiko on izaten,  
 PAN.—Ja, ja! Ai ene! Orrsn errukcirri! Tutuhimendi orrena! Eztozo lorik egin arrataeon, ala? Gizon zitctlak eztaúsu itxi lorik egiten, ala? Kokomarroak eroange al dau orra-  
 ko ori!  
 KER.—Eztautsut esan, ala? Buruan yoko al lebe! (Ate yoka norbait) Nor dago atetan? Zoaz ikusten, osaba on ori. Zatoz zu ostera be nire lo-gelara, ene yaun: irribarrez zagoz zu, eta irri egiten daustazu, nik burutan okerrerien bat ba'nerabil lez.  
 TOR.—Ja, ja!  
 KER.—Tira, oker zagoz, eztoz nik olango aamori. {Ostera be ate yoka} Orreik bai benetan yoten dabela!... Eriu barrura, arren: Torol osoagaitik be eunuke gura nik zu emen iñok ikusi zagizanik. (Alde TORIJ, eta KERSIDE'k).  
 PAN.—(Aterantza: dcala) Nor da? Zer yazoten da? Lurreratu egin bear eze daustazue atea? Ze bcrrí? Zer yazoten da?

## ENE Aurrera.

EN.—Egun on, yaun, egun on.  
 PAN.—Nor da? Nire yaun Enea, ala? Egia esateko, etzaudctz ezautu; ze barri dakazu onen goxetik?  
 EN.—Ez ete dago emen Toril errege-semea?  
 PAN.—Emen! Zer egiteko alc emen?  
 EN.—Tira, emen dago a, ene yaun; ez egizu ukatu; asko doako ari nikin itz egiteaz,  
 PAN.—Emen dala diñozu? Nik baño geiago dakiau, eta zin egingo dautsut... Nigazko,

belu ©txeratu nintzan nl. Zer egiteko da a emen?  
 EN.—Ak? Ezebe; ez, ba; tira, tira, okerrik egingo dautsazu, zeuk eztakizula; ustel izango zatxakoz, ari, zintzo izanaren izanaz; omen dagonik ezlakizunarena egizu, baño zoaz aren billa; zoaz.

(PANDAR urten-ala, barriro sartzen da TORIL).

TOR.—Kaxo! Egun on! Zer yazoten dok?  
 EN.—Ene yaun, osta-osta yoat astirik iri agur egiteko, orren iraduzko dok nire arazoata. Or bertan dozak ire anai Pari, Deipoba, ta Dumeda Eladatarra, eta gure Antenor, guztao yareia; eta onantzengo onen ordezt bertatik, lenengo yaun-opea egin baño be lenago, ordu bete barruan, Dumeda'ren eskuetan imini bear yoagn Kerside anderañoa.  
 TOR.—Olan ebatzídozue, ala?  
 EN.—Pirama'k ela Toroi'ko Onulari-Batzor osoak erabagi yoek: nire orpoz orpo yatozak, erabagia beteteko gerturik.  
 TOR.—Nire irabaziak bai irri egiten daustela niri! Eurekin trikitx egiten noa, eurel bidera urteten: eta, ene yaun Enea, akmbear utsez egin dogu trikitx alkarrekin; emen enozu idoro ni.  
 EN.—Ori ondo, ori ondo, ene yaun; izadiak bere ixilkizunak eztauz yagoten nik nireak baño arduratsuago (Alde TORIL eta ENEA'k).  
 PAN.—Izan ete leáike onangorik? Iritxi baño lenago galdurik? Txerrenak eroango al dau Antenor! Burutik egingo yako errege-serne gazteari; izurriak eroango al dau Antenor! Idun-azurra ausiko al yako!

## KERSIDE aurrera barrlro.

KER.—Kaxo! Zer yazoten dn? Nor izan da emen?  
 PAN.—J-a, ia!  
 KER.—Zegaitik egiten dozu asperen sakon ori! Nono'ik da nirs yauna? Yoanik! Esaidazu, osaba ezti, zer yazoten da?  
 PAN.—Lurraren ganean ncon bestean lurrean barrura al nengo!  
 KER.—Yainkook! zer yazoten da?  
 PAN.—Barruratu zadiz, arren. Ez al zintzazan eguño yao! Ba-nenklan nik i aren erioztza izango intzana! Aiton-ssmearen errukarri!... Izurriak eroango ai dou Antenor!  
 KER.—03aba on, arren dagitsut, belauen ganean arren dagitsut, zer yazoten da?  
 PAN.—Alde egin bear don emendik, neskatu, alde egin bear dona; Antenor'en ordezkortzat yoan bear dona; Toril'gandik alde egin-

da, ire aitagana yoan bear dona; aren erio-tzea lzango don orrako ori; aren erbestar-tzea izango dona; ak ezin yon yasan slan-gorik.

KER.—Yaínko ilezinok! Enaz yoango ni.

PAN.—Yoan bear dona.

KER.—Enaz yoango, osaba: azturik dot nik nire aita; eztoz ezagun odolokarririk; Toril eztia bestean urrekorik eztoz nik ez senerik, ez maiterik, ez odolik, ez biotzik. Yaínkozko yaínkook! Ustelkeriren ustelkeri egizue Kerside'n izena, ak eguño bertanbera itxi ba'dagi Toril! Aldi, indar eta erio-

tza, zuok al dozuezan gogorkeri guztiak egiozuez soln oneri, baña lurraren erdi erdiaren antzeko da nire maitasunaren oñarri sendo ta etxea, zer guztiak beraganantza dakazana. Yoan eta negar egingo dot.

PAN.—Bai, orixe egin.

KER.—Erauzi, sustarretik aterako dot nire adats argia, eta atzazalka urratuko dodaz nire mosu lirain-goratuok; negar-intzirika ausiko dot nire abotsa, eta susi egingo dot nire biotza "Toril" gedarrez, Enaz yoango ni Toroi'tik. (Alde dagie).

## II! AGERLEKU.-PANDAR'. n etxe-aurreko etxarte-bide.

PARI, TORIL, ENEA, DEIPOBA, ANTENOR, eta DUMEDA aurrera.

PARI.—Aurreraturik dogu goxa; eta laster da neskatoa Eladatar adoretu oni emoteko ordua; Nire anai Toril on ori, esafok andereari zer egin bear dauen, eta bizkortu egik erabagia beteteko,

TOR.—Sartu zadize bere etxera; bertatik eka-

rriko yautsat a Eladatarrari; eta orren eskuetan imini dagidanean, opa-maian iminten dodala uste egizue; eta ire anai Toril dala yaupari, an bere biotza bera opatzen dauena. (Alde dagie).

PARI.—Ba-dakit maitatzea zer dan; eta erruki dautsadan bestean eragotzi al nel egitekoea! Sartu zadize, arren, barrura, ene yaunak, (Alde dagie).

## IV AGERLEKU.-I ANDAR eneko ieku.

PANDAR ©ta KERSIDE aunera.

PAN.—Neurriz eragoiozu, neurriz eragoiozu,

KER.—Zegaitik aitatzen daustazu neurririk? Zorrotz, bete ta oso da nik dodan mina, gogor artu daustaz min onek oarmen guztiak, min au dakastan zerak bestean; zelan arintzeko nik min au? Nire mcitasuna arindu al ba'nei, naiz makalago la otzagotu, beste orrenbeste egin al izango nire minagaz; eztau nire maitasunak kendu legikeon za borrarik; nire minak be ezin artu geiagorik, ezin minagotu ledike onango galtze andian,

PAN.—Emen dator. emen dator, emen dator.

TORIL aurrera barrien barri,

Emen doguz aate eztiok!

KER.—Toril ori! Toril kutun ori! (Besartean estututen dau).

PAN.—Au bikotearena! Neuk be besartean estutu gura zaudedaz. "Biotz ori", arako esakuneak polito diñonez...

Biotz ori, biotz motel-ilun ori.

Zegaitik dagik intziri, ta ausi ez?

Eta onetara darantzutso orrako orri:

Ezin dalako arindu nire mlno.

Ez ixilik egonez, ez itz eginez.

Eguño ezta izan itz neurtuok baño eglazkoagorik. Eztagigun galdu ezertxo euretatik, gure bizian itz neurtuon bearrean aurkitu geintekoz-eta: ikusi dakusagu, ikusi dakusagu... Kaxo, bildotsok!

TOR.—Kerside, maitasun aln garbiz maite zaudaz-eta, kendu egiten zauste yaínkoak. nire maitasunaz asarre diralako, eurai ezpan otzez zuzentzen dautsedazan arrenak baño biotz beroagoz maite zaudazalako.

KER.—Yaínkoak be ba-dabe ikusi-ezinik, ala?

PAN.—Bai, bai, bai; yazokune agiriegi da ori.

KER.—Eta egia ete da nik Toroi'tik alde egin bear dodala?

TOR.—Egi gorrotagarri,

KER.—Zer? Toril'gandik be bal ete?

TOR.—Toroi'tik eta Toril'gandik.

KER.—Aizan ete ladike olangorik?

TOR.—Eta bertatik; alkani agur egiten be eztausku izten alanbear biotz bagakoak; eztausku emoten eperik, zakarkiro banantzen dauskuz alkarganatzeko ziran gure ezpanak, galazo egiten dautse gure besoai atzenengoz besartean alkar estututea; gelditu

eragiten dautse gure agotik urten-aginik ziran zin samurmi. Alkarren yabe izatea ainbeste intziriz erosi izan dogunoi, osta-osta izten yaku beste intziri bat egiten. Estu estuka ta ariñekeian dabilen Iupurak lez, aldi gaiztoak ostutakoa arrapaladan batzen daragoio, egiteko ori zelan egin be ezta-kiala: banan banan, aldian bat egiteko, ta beste ainbeste mosugaz ikurraztuteko, izarrak beste izateko ziran gure alkctr-agurrak iraduzko agur bakartxoratu dauz; iztsn dauskun zer bakarra mosu goseti-urri bat det dana be, ta bera negar gaziz mingoztua.

EN.—(Barrutik). Ene yaun, gerturik ete dago Kerside?

TOR.—Adi! So! Deiez dagotsuz. Batsuk esaten dabenez, il-aginik dagonari olantxe, "Erdu", gedar egiten ei dautso beste mundukoak... (PANDAR'i) Epe apur bat artu dagiela esan egiezu; bertaik yoango da.

PAN.—Non dira nire negarrak? Urtu zakidaze, begiok, ekatx-axe au gelditu dadin, ostantxean sustarretik aterako daust biotza! (Alde dagi).

KER.—Orrazkero, Eladatarrakana yoan bear doi, ala?

TOR.—Eztago beste biderik.

KER.—Eladatar pozez beteen artean Kerside tamalez bete! Noz ikusiko dogu barriro alkar?

TOR.—Entzun egidazu, ene kutun orrek, Zintzo bakarrik izan zakidaz, bai, eta...

KER.—Ni zintzo! Onangorik! Ze uste oker dozu zuk?

TOR.—Alkarri zipladaka bagarik, txeratsu ibili bear dogu, alkarregandik banantzeko aldian gagoz-eta: zure bildurrik dodalako eztirausut "Zintzo izan zakidaz", eta izan be, eriotzeari berari be egingo neunskio eztagola orbanik zure biotzean: "Zintzo izan zakiiaz" ba'dirautsut, urren esango dautsudanari bidea egiteko dirautsut; zintzo izan kakidaz, eta ikusiko zaudaz,

KER.—Ene! gal-gorde andi ta asko bestean bertatikoak aurkituko dozuz zuk bidean, ene yaun! Baña zintzo izango natxatsu ni.

TOR.—Eta adiskide egingo natxako ni galgordeari. Autsi yantzi-beso au (15) zintzotasun-agiritzat eta baitzat.

KER.—Eta autsi eskuzorro au nirearen agiritzat. Noz ikusiko ete zaudaz?

TOR.—Erosi egingo dodaz Eladatarren yagolak, zu gauoro ikusteko. Baña orraitio be zintzo izan zakidaz.

KER.—Yaungoikoa-arren! "Zintzo izan zakida" ostera be!

TOR.—Entzun egidazu zegaitik diñodan orra-ko ori, kutun orrek: zer onez, gaitasun onez beterik dagoz Eladatar gazteak; maitabera dira, ondo eratu ta orniduak, berezko ondatsunez ganezka ta berezkoak ikasiaz eta eragitsz ederragoturik dagoz: barritasuna ta notin edo presonearen alde onak ain era-gikor be eragikor dira-ta, yainkozko tukurariko zerbait dot, ene! nire barruan, obentzat barik, oben ontzat etsiko al dozun zerbait, eta orrek emoten daust bildurra.

KER.—Zeruok! Enozu maite zuk,

TOR.—Olan izatekotan, gizonik zitalenaren eriotzea izango al dot! Zure zintzotasunaz baño neure geitasunaz, neure aintzakotaunaz dot kezka ta ezpai geiago; eztakit nik abesten, yantzan egiten, ezta itzaldi txairgozorik egiten ezta yoko burutsu-galxik egiten be, Eladatarrak orrako zer guztietara itzuliak eta eginak izanarren: baña, sinistu egidazu, emaitz lilurakor orrein azpian ostondurik kirika dago ixilka itz egiten dauen txerren zirikalari-rik naltzurrena, eta emaitz bakotxaren azpian egon be. Ez al zauze zirikatuko.

KER.—Ziikakutuko nabela uste dozu, ala? Eta yausiko nazala?

TOR.—Ez. Bcña yazo ledike guk gura ezto-gunik; eta batzuetan geu gara gure txerren, gure indarren mengeltasuna noragiño-ko dan ikusi gura izaten dogunean, euren indar aldctkorak diran baño geiago dira-Iakotan.

EN.—(Barrutik) Tira, ene yaun on,.

TOR.—Tira, mosu bat, eta alkarregandik bonandu gadizan.

PARL.—(Barrutik) Toril anai!

TOR.—Anai on, eu ator ona; eta eukln eka-zak Enea ta Eladatarra.

KER.—Ene yaun, zintzo izango ete zatxataz, gero?

TOR.—Nor? Ni, ala? Ai ene! Ori da nik dodan okerrik, utsik, akatsik andiena: bestea- trebetasunez entzuto onaren arrantzuan daragoien bitartean, nik zintzotasunez uskeri utsa baño eztot goatzen; beste batzuk trebetasunez kuperezko burestunak urreztatzen dabezan bitartean, nik nirea billusik daroat zintzotasunez eta izurbakotasunez. Ez

(15) Ekandu zarretariko da, alan be erdl-roan, maitaleak alkarri baitzat emondako zeren bat agiricm erabiltea, naiz dala soña-ko edo yontziaren besoa, naiz eskuzorroa, naiz beste zerbait.

izan nire zintzotasunaren bildurrik: "Izurba-ko ta zintzo" da nire goiburua; ortxe dago, ortxe datza ni uazan dana.

Aurrera ENEA, PARI, ANTENOR, DEIPOBA, ta DUMEDA.

Ondo etorria, Dumeda jaun! emen dozu Antenoren alderako emoten dautsudan neska-to gaztea: itsas-atean iminiko dautsut, jaun, zure eskuetan; eta ara yoan-ala esango dautsuzad zertzelada batzuk. Ondo artu ta erabili egizu; eta nire bizia-arren zin dagitsut, Eladatar lerdan, inoz nire ezpatearen bende aurkitu ba'zadiz, aurkitu, Kerside aitatu egidazu, bai, eta zure bizia Pirama Ilion'en bestean seguru egongo da.

DUM.—Kerside anderaño lirain ori, eder izango al yatsu, errege- seme au euren begira <agon eskerrak aurreratzea: zure begien argia ta zure arpegian agiri dan zerua eura- k dagoz zu ondo artu ta erabiltekoren es- ke-ta, zu izango zara Dumeda'ren etzandea, ta zure benáeko Dumeda edozetan.

TOR.—Eladatar, etzatkataz bape txeatsu ta begirapentsu, ori goraluaz, orren alde nik egin dautsudan biotz biotzetiko nire eskaria lotsaturik itxita; neuk dirautsut, Eladatar jaun: zure gorapenak baño ain gorago- go da ori-ta, zu etzara orren otsein ixan- garririk be. Ondo artu ta erabiliko al dozu, bestegaitik ezpa'da, neuk agintzen dautsu- dalako; eta izan be, Pulta ikaragarria-arren, nire eskari cu eglu ez'pa'dagizu, burua moz-

tuko dautsut, zure yagola Akileu gizatzarra izan ba'dakitsu be.

DUM.—Ba! etzakidaz artegatu, Toril errege- seme; neure gogara itz egiten itxiko al daus- tazu, nagon Iekuari ta dakadan gezneari dagokionez. Nasai eta neure gogara erant- zungo dautsut emendik alde egin dagida- nean; eta yakizu, jaun, eztdala ezertxo be egingo inoren aginduz: bera gei eta aintzako dantzat etsiko dcgu Kerside; baña zuk eEan ba'dagidazu "Onan eta onan artu ta erabili egizu", kemenez eta zintzo, "Ez" erantzungo dautsut.

TOR.—Tira, goazen itsas-atera. Entzun egi- dazu, Dumeda, gogotan izango dot zure arropuzkeri ori, eta bein baño geiagotan ostondo bearko dozu zure burua. Andera, ekadazu zure esku; eta bidean yoan-ala esan dagioguzan alkarri esatekoak, (Alde TOR., KER., ta DUM.k) (Adar-otsa baiTuan), PARI.—Aii! Etor'en adarr-otsa da.

EN.—Guk bai alperrik galdu dogu goxa! na- gi ta geldotzat etsiko gauz errege-semeak, gudategira bera baño lenago elduko ga- reala zin egin dautsagu-ta.

PARI.—Toril dok orren erudun. Tiruk, tiruk, gaiioazan akin gudategira.

DEI.—Bertaik gertau gadizan.

EN.—Bai, mutil ezkongeiaren azkartasunaz gaiioazan Etor'en orpoz orpo: egun onetan Teroi'ren omena ta aintza aren aintzakota- sun gallenetik eta bik bietarako burrukciko zaiduntasunetik dingiizka yagozak. (Alda dagie).

## V AGERLEKU.-Eladatarren Gudalte jia. Gerturik bik bietarako gudategia.

Aurrera AIATZ, iskilloz yantzita; AGAME- NON, AKILEU, PATORKEL, MENELA, UUTZ, NESTOR, eta beste batzuk.

AGAM.—Emen ago i aldiz aurretik, barri ta eder, eupadeari erantzunaz. Aiatz bildurga- rri ori, ots zoli-ozen bat bidali egiok Toroi' ri ire turutez, ire adore ikamgarriagaz, egu- rats ikaratuak, burrukari andiaren belarrie- tara sarturik, a ona ekari dagian.

AI.—Autso nire sakela, Turntari, iztenak era- giezak ire biriai eta itzskarrotu egik boron- tzezko ire eztarria. Putz egik, zital orrek, ire mosu borobilak Ipar-axearen sabela ba- ño be andituago egin arte: tiruk, nasaitu egik ire bularra, eta ire begiak odol-txiriz- tadak egotziko al yoezak; Etor'entzako putz egiten dok. (Turut-ots).

AK.—Goiz dok ondiño.

AGAM.—Ez ete <3a Dumeda an andik Kalka' ren alabeagaz datorrena?

UL.—Bera da, bai, ezagun yat aren ibilke- rea; beatz-mokoen ganean yagiten da; lu- rra baño gorago eragiten dau <s aron gogo- kemenak, kemenaren kemenez.

## DUMEDA ta KERSIDE aurrera.

AGAM.—Au dok Kerside anderafiota, ala?

DUM.—Bai, axs bera.

AGAM.—Eladatarren artera ondo-etorri- rik txe- ratsuena, neskato ezti.

NEST.—Mosu emonaz agur dagitsu gure gu- dalburuak.

UL.—Orraitiño be batena baño ezta orren txe- rea; oba litzake guztiok mosu emotea.

NEST.—Ondo txeatsu da onua bera be: neu asiko nok..., asko da Nestor'entzako.

AK.—Neuk kenduke dautsut negu orl zure ezpanetatik, anderaño lirain; au da Akileu' ren ondo-etorria,  
 MEN.—Bide onik ba-neban nik bein mosu emoteko.  
 PAT.—Baña orrako ori eztok biderik mosu emoteko; eta izan be, or agertu zoan Pari ausartia, ta alkarregandik banandu zinduezan ak i ta ire bidea.  
 UL.—Zaldar orren mingor! eta gure zoritxararren iturburu! Agaitik galtzen doguz guk gure buruak orren adarrak urreztatzeko.  
 PAT.—Menela'rena izan da lenengo mosua: neure da au; Patorkel dabiltsu mosu emoten.  
 MEN.—Ene! zoragarri dok au!  
 PAT.—Arrazkero, Pari'k eta nik mosu emoten dogu orren ordez.  
 MEN.—Nik neuk emongo yoat nire mosua, yaun... Anderaño, zure ede>. 3siaz.  
 KER.—Emon, ala artu egiten dozue, mosu emonaz?  
 PAT.—Biak, artu ta emon.  
 KER.—Egiunea egingo dot zuokin, nire bizi-bidea irabazteko; zuok emoten dozuena baño oba da zuok artzen dozuena mosua; eztago, ba, mosurik geiago.  
 MEN.—Aldea emongo dautsut, iru emongo dautsudaz batsn alderako.  
 KER.—Gizon balcoiti zara zu; edo batoi emoidazu, edo arean bez.  
 MEN.—Gizon bakoiti, neskato? Edozein gizon da bakoiti.  
 KER.—Ez, Pari ezta; eta izan be, zeuk daki-zunez, egia da zu bakoiti zareala, *s/a* zu ta a, biok batera, batoi zarie,  
 MEN.—Buru-buruan yo nozu.  
 KER.—Bai, zera!  
 UL.—Elegoke bardintasanunik, iskillotzat zuk zure atzazalak eta orrek bere adarrak erabiliakero. Itxiko ete daustazu, anderaño ezti, zuri mosu hat eskatzen?  
 KER.—Eskatu baño eztozu.  
 UL.—Gura dot.  
 KER.—Tira, ba, eskatu.  
 UL.—Ba, orrazkero, Benuts-arren, Elene barriro neska garbi ta Menela'ren izan dadi-nean mosu emoidazu.  
 KER.—Zorrea gelditzen natxatsu; bere aldi-an eskatu zure artuena.  
 UL.—Iñoz be ezta elduko egun ori-ta, emoidazu mosu bat.  
 DUM.—Itz bat, anderaño, Zure aitagana eroan bear zaudaz. (Bidea erakusten dautso DUMEDA'k KERSIDE'ri).  
 NEST.—Buru-bizkor da emakums ori.  
 UL.—Ui, uf, emakume ori! Orren begiak, orren

mosuak, orren ezpanak eurak diño ori zer dan, bai orren oñalc eurak be: azur-giltza guztietatik, azpegi guztietatik kirika ta *dar*riela dagoz orren lotsabalco irritsak, lizun-kerialc Ene! Olango emalcume min-labanak, zu eldu baño len otoz otoko ondo-etorria emoten dautsuenalc, euren gogapen-idaztia begirakune lizuen aurrean zabal zabal iminten dabenak, lenen agertu daáin eretia-  
 ren yakitzat etsi egizuz, ogibide zentarra-  
 ren alabatzat. (Turut otsa barruan).

GUZTIAK.—Toroitarren turut-ots.

AGAM.—An dator gudari-taldea.

Aurrera ETOR, iskilloz orniduta; ENEA, TORIL, eta beste Toroitar batzuk, Laguntzallealcin,

EN.—Osasuna, Elade'ko nagusi guztioi! Zer egingo yako irabazi dagianari? Ete do-zue Irabazlea aldarrikatzeko asmorik? Zaldunak alkarri atzeneraño erasotea gura dozue, ala alkarregandik banaudu egingo dira gudategitik egindako ots, naiz aginduz? Onako au itanduteko agindu daust Etor'ek.

AGAM.—Zelan gura dau Etor'ek?

EN.—Bardin yako ari; men egingo dautse ak baldintzai.

AK.—Ori da Etor'eri dagokona; bafia orraitño be arrotxoegi, ta bere aurreko zalduna aintzakoeigizat artzeka.

EN.—Akileu ezpa'zara zu, gero? Zer yatsu izena?

AK.—Akileu ezpa'naz, ezer enaz.

EN.—Akileu, ba. Baña, zareana zareala, yakizu ouako au: andiz andisn eta tsikiz txikien yatsuz Etor'en adorea ta arrokeria: bata, izadia beslean neurribako, bestea, utsa bestean uts. Ondo neurtu ta astatu egizu, eta agan arrokeri dirudiana ezta arrokeririk, era-mera ta txera baño. Etor'en adolezko da Aiatz'tik erdia: eta etxean gelditu da Etor'etik erdia, erdi orri ak dautsan maitasuna-arren: biotzetik erdia, eskuetik erdia, Etor'etik erdia dator Eladatarren arte-ra, zaldun odol-nastu, erdi Toroitar, eta erdi Eladatar onen billa.

AK.—Olan izatekotan, neskato-burruka izango dok, eztok?... Ba! ba-akusat.

DUMEDA aurrera ostera be.

AGAM.—Emen dogu Dumeda yauna. Oa, zaldun lerdan, eta aldamenen yarri akio Aiatz'eri; i ta Enea yauna alkarrekin nol-an itundu burrukako gora-beraez, alan bedi; naiz atzen atzenetaragiño, naiz, ostantxean,



burrulkaldi bat bakarrik: burrukarien arteko senitasunak ia zartadak asi baño len geldituzotzen yok euren burrukea. (Gudategi-Ta sartzen dirar AIATZ etó ETOR).

UL.—Alkarren aurrez aurre dagoz dagoneko. AGAM.—Nor da orren motel, orren motz agiri dan Toroitarr ori?

UL.—Pirama'ren semerik gazteena, zaldun ya. tor yatsu ori; eltzaka ondiño, baño orraitño be bere bardinik bagako; itz bein emoncsri sendo deutsana; egitez itz egiten dauena, eta miñez egite-arrokeririk eztauea; arin asarratzen eztaua, baño bein asarratuaz:::?, h'fir.-oan baretzen eztaua: bere biotza ta eskua biak zabalak eta esku-zabalak; eta izcsm be, emon egiten dau dauena, eta gogoan dauena «rakusten dau; eta orrai-Uño be eztaua emoten, enion bear dauela buruz etsi arte, eta miñez eztaua apaintzen gogapen zantarrrik: gizon da Etor legetxe, baño a baño kaltegarriago; eta izan be, asarreen danean be ba-dau Etor'ek samu-fraldirik; baño beste ori, suak artuta dagoanean, maitasun-tukurik baño be aspertzalleago da: Toril deitzen dabe ori beronen erritarrak; eta ori dabe euren bigarren itxarotzat, Etor bestean sendo dan itxarotzat. Ori diño Enea'k; eta atzenengo atzondoiaño dazau gazte ori Enea'k, eta Ilión andian gengoazala olangotzat azaldu eustan ak gazte oii, alkarren arteko gura adiskideleketan.

(GuduTako dei. Burruka doragoioe ETOR eta AIATZ'ek)

AGAM.—Ba-daragoioe alkarri erasoka,

NEST.—Or. Aiatz, ez egin atzerarik!

TOR.—Lo ago, i, Etor; atzarri adi!

AGAM.—Zartada onik emon dautso: orri, Aiatz!

DUM.—Asko da, bego. (Ixildu egiten dira turufak).

EN.—Errege-semeok, asko da, eder ba'dere-txatsue.

AI.—Enaz berotu ondiño, ekin dagiogun burrukan.

DUM.—Etor'ek nolan gura.

ET.—Ba, nik ezto ekin gura: Yaun andi ori, nire aitaren arrabearen seme az i, nire lengusu, Pirama andiaren aldetik; galazo egiten yauskuk gure odolari zor dautsagun lotseak odola ixurtzeraiño alkarrekin burruka egitea; ik onako au esan al izateko eraz nastauta ba'lllegozak igan Eladatar eta Toroitarr odolak, "Eladatar uts da esku au, eta Toroitarr da beste au, Eladatar uts dira zars-

go onetako zamilak, eta Toroitarr uts beste onetakoak, nire amaren odola dabilkit mosu onetan, eta nire aitarena bestean"; olan ba'litzok, Yupiter aloroduna-arren, ez eun-ks aterako nire eskuetaiik Eladatar azpigerik, soinalalik, euretan nire ezpateak gure areriotasun zarraren ezaugarririk itxiko eleu-kenik; baño yainko zuzenak galazo egiten yaustek ire ama nire izeko gurenagandik dokan odol-tantanik nire ezpata ilkorrez ixurtzea' I besartean estututen itxi egidak, Aiatz: ostoslaria dok autorla, beso mardulak dozakala ik; ire besoak bere ganean onan gura yozak Etor'ek: lengusu, omenaren omena iri!

AI.—Esksrrik asko, Etor; gizon txeratsuegi ta esku-zabalegi az i: i erailteko asmoz etorri nok ni, lengusu, eta ire eriotzatik omen eta entzute andia aterateko.

ET.—Ain arrigarri izan-ari'en, eta aren burukoskoleko kukutzetik Entzuteak, egoak zabalik, eta oio ozenez, "Ixilik, au da gizona" gedar egiten dautsan Neotolema'k berak be (16) elleukek itxarorik Etor'en lepotik bere deduari ezer erasteko.

EN.—Guztiak yagozak emen begira, alde batekoak eta bestekoak, urren zer egingo dokan.

ET.—Erantzungo yako orrako orfi: alkar besarkatzea da urren egingo doguna. Onik eta ondo ibili, Aiatz.

AI.—Gitxitan yazo izan yatana izan-arren, nile eskariak ondoren onik izatekotan, nirs lengusu ospatsuari gure Eladatar txoznetarako dei egitea litzake nire guraria.

DUM.—Orixe gura yok Agamenon'ek be; eta irrikiturik yagok Akileu andia, Etor adoretua iskillu bagarik ikusteko.

ET.—Enea, nigana datorrela esaiok nire anai Toril'i, eta gure aldeko gu begiia dagozan Toioitarrak alkaraganatze txerakor onen barri iragarri egiek; etxera doazala esaiiek. Ekadak ire eskua, lengusu; ikin yateko ta ire zaldunak ikusteko yoango nok.

AI.—Agamenon andia yatok, gukin einen trikitx egiteko.

ET.—Izenez aitatu egidazak euren artekorik aintzakoenak; baño Akileu'gazko, neure begiak idoroko yoek a, bere sointzarrari esker-rrak,

(16) Pir be bere izentzot dauen Neotolema au Akileu'rem semea da izon, baño emen Etor'ek semearen izenez aita esan gura dau, urrean.

- AGAM.—Iskilloz alntzako orli Olango aieio-arena egitea gurako neunkean bestean ondo etorria izan zadiz; baña au ezta ondo etorririk; argiago aituazoko dautsut; al danik eta ondoen estali dagigun yazoa ta y-zokizuna, guztia azturik; baña orain, Etor andi, ezetarik izurkeri bagarik, biotzik zabalenez eta biotzaren sakon sakonetik ondo etorria emoten dautsugu.
- ET.—Eskerrik asko zuri, Agamenon altsu ta guren.
- AGAM.—Beste ainbeste zuri, Toroi'ko yaun entzutetsu orri. (TORLI' i tzok).
- MEN.—Nire anaiearen txerea egiten itxi egidazu niri be; ondo etorriak ona zuok anai bikote gudariok.
- ET.—Nori eraritzun bear dautsagu?
- EN.—Menela zindoa dok ori.
- ET.—Menela zara, ene yaun? Eskerrik asko zuri, Marte'ren gudu eskuzorroa-arren. Ez egiozu andi eretxi esakera gitxi oitu au nik erabilteari; ondiño be zure "beñolako" emazteak zin egiten dauenean, Benuts'en esku-zorroa-arren egiten dau; onik eta ondo dago a, baña zuri bere gorantzirik ez emeteko agindu daust.
- MEN.—Ez egizu aitestu a oiain, yaun; asarrebide itzal yatsu a.
- ET.—Ene! bai, izan be; azketsi, parkatu nagizu; irain egin dautsut,
- NEST.—Sarritan ikusi izan zaudaz, Toroitarr adoratu ori, alanbearrarena nekez egiten, Eladatar gazteen guda-lerroak zear arein odolez bidea egiten; eta sarritan ikusi izan zaudaz Pirgi'tiko zure zaldiari Perseu beioak bestean bero aztalak sarturik, gurenda edo garaite errazai yaramoteka, zure ezpata bildurgarria eguratsetan goicn zenduala ta azpian zenduzanai yaramoteka, ukutzeka, aurrera egiten, eta orduan nirs aldamenekoai esaten neuntsen nik, "Ara, ara! an dabil Yupiter, nor bizi, nor il berak ebazten!". Baita ikusirik zaudaz nik gelditzen eta arnasea artzen, Elaiatarren estunak edo korroak eidian arturik euki zabezanean, Olinpo'ko buirukariren antzeia: ikusirik dot onako ou; baña zure arpegi ori, ondiño be galtzaidu-barruan dagon ori, eguño orain arte eztoz ikusi izan. Ezagun izan yatan zure aitaita, eta bein burruka egin neban berakin: gudari onetariko zan a; baña, gu guztion guda-buru dan Marte andia-arren, a etzoan i bestekorik. I besartean estututen itxi egiok agure oni; eta, gudari aintzako ori, ' .io etorria i gure txoznetaia.
- EN.—Ner: \_• zarra dok ori.
- ET.—Orren luzarro aldiakin alkar eskutik ai-tuta ibili izan zarean igaroko aldien lagun eta gogoratzalla ori, zu nire besartean estututen itxi egidazu: Nestor begiragari be-giagani ori, pozik nozu zu besartsan artu al izanagaitik.
- NEST.—Zureak añako al litzaz nira besoak burrukan, txeretan diran bestean,
- ET.—Bai, izan be, al litzaz.
- NEST.—Ja! bizar zuri au-arren, blar egingo naieunkek burruka ikin: tira, ondo etorria, ondo etorria! Ikusi yoat nik urea.
- UL.—Eztaikit nik zelan dagon zutunik a arago-ko uria, bere oñarria ta zutikoak emen izanik.
- ET.—Ondo zazaudaz, ezagun zaudaz, Ulitz yaun. Ene! amaika Eladatar eta Toroitarr il dira, ara zuon Eladatar gezneagaz yoanda, eguño lenengoz zu zeu eta Dumeda Ilion'en ikusi zinduedazanazkero.
- UL.—Yaun, aurreztik esan neuntsun oriuau zeiz an etorteko: biderdia baño eztauegin ondiño nire iragarpinak, euren buru arroz odeiai mosu egiten dautsenak, euren oñai mosu egin-bearrean aurkituko dira.
- ET.—Eztoz zuri zegaitik sinisturik; an dagoz aik ondiño zutunik; eta arrokeri bagarik uste dot, yausilra dan Pirgitar arri baktoteko, Eladatarren odol-tantan bat be yausiko dala: atzena da edozeren burestun; eta zer guztien ebazla zar ak, csldiak, ak amaituko dau egunen baten uri a.
- UL.—Olan, ba, aren eskuetan itxiko áogu zer ori. Ondo etorria, Etor txeratsu txeratsu eta adoretzu adoretzu ori: guda-buruaiaren urren neuk dei egiten dautsut nikin yateko, eta nire txoznan nikin egotelco.
- AK.—Aurreak artuko dauskadaz iri, Ulitz yaun! Etor, asetu dodaz orain nire begiak zugaz; zeatz irakurri zaudaz, Etor, eta buruz ikasi dot zure soña, atalik atal.
- ET.—Akileu dogu au, ala?
- AK.—Bai, Alcileu nozu.
- ET.—Txairo ta lerdan yarri zakidaz: itxi egidazu zu begiratsen.
- AK.—Bete bete arteño begiratu nagizu.
- ET.—Sztot orren bearrik, egin dot egitekoa.
- AK.—Arinegi zabiltz: beste bein begiratu gura zaudaz nik, eroskizun ba'zintxataz lez, azpegi azpegi, txatalik txatal.
- ET.—Ui! solas-idaztiren bat legetxe irakurri gura nozu burutik atzenaño; baña ba-da nigan zuk ulertzen dozun baño geiagorik. Zer dala-ta yosten daustaz ou! an zure begiak?
- AK.—Esaidazue zeruok, orren soñeko zein atal ondatuko, manatuko dot nilc? Or, emen, ala an, zauriaii beie lekuko izena emon al

daglodan, eta Etor'en gogo andia andik ur-lengo dan atcikea bera beste lekuetatik be-rezi dagidcn: eranizun egidazue, zsuok:

ET.—Gizon arro, elitzake yairikoentzaky ba-pe omengarri ta goragavri olango ituuneri erantzutea: zutun-zutun yarri zakidciz ba-rriro: nire bizia orren eroso ta erraz goatze-rik uste dozu, ala, non yota erailgo nozun susmo atsegingarriz aurreztik izentaizeko?

AK.—Baietz dirctutsut.

ET.—Olangorik niri esateko igarlaren bat ba' zintzaz be eneunskizu sinistuko. Ondo yagol-zu zure burua oraindik ara; eta, izan be, ,li- etru-<sup>a</sup>-z erailgo ez or, ez ernen, ez an,- Marte'ren buru-koskola an eglñ eban errementarlaren erremenialdegia-afen, soñe-ko toki ta une guztietan erailgo zaudaz nik, urrengorik urren, bai orixe, Zuok, Ela-datarrik zurrenok, azketsi, parkatu egida-zue arropuzlcori au, orren crrokericiren arro-keriak atera daust tentelkeri nu nire ezpa-netatik-eta; baña alegin onik egingo dot nik, nire egiteak nirs iizen neurriko izan dadizan, osfanfxean ez al dot inoz...

AI.—Ez ctdi asarrcitu, lengusu; -eta ik, Aki-leu, bastartu egizak zemaioak, alanbearrez, naiz asmoz, egiteetora eldu arte; egun oro izango dok Eter'enik asko, orretarako bio-tzik ba'dok; biidur nok, gudarosteko buru guztiak be nekez bultzauko auela orrekin ire indarrak eta trebetasuna neurtzera.

ET.—Arren, gudategian ilcusiko al zauguz: al-karri arrika erago dautsagu guk zuk Elada-tarren alde yokatzea bertanbera itxi zendu-nazkero.

AK.—Eupada egit@n daustazu, a/a, Etor? Blar

egingo dot zukñ trifkitx, eriotzea bera bea-tean itzalik; guztiok adiskide arratseon,

ET.—Betor zure eskua zurea bestekoagana,

AGAM.—Lenen, zuok Eladafcirrsn naçjusiok. zeiloze nire txoznarct; an apalduko dogu guztiok: gero, Etor'en astia ta zuon esku-zcibaltasuna alkarrekin batu dadizanean, orduan dei egin ari bakotxak berenera. Yo ozen eta zoli danborrak, putz dagiela tur-tak, gudari andi onek berau txeratsu artzen dogula yakin dagian. (TORIL eta ULITZez besie guztiak alde).

TOR.—Ene yaun Ulitz, esaidazu, arren, gu-daltegiko zein lekutan bizi da Kalkci?

UL.—Menela'ren txoznan. erregereser ne be erre-geseme Toril; an akin apalfzeko da arra-tseon Dumeda; eta ak eztau begiratzen ez lurrik, ez eta ortzerik be, bere begi jnaita-berak Kerside lirainagan yarririk eta yosi yosirik euki baño.

TOR.—Zuganako zorrean be zorrean ni gel-ditzeroño, bein Agamenon'en txoznakoa eginazkero, eroango ete nozu ara?

UL.—Niri agindu baño eztozu zuk, yaun, Bes-te ainbeste Ixeraz esango ete daustazu ze-lango entzutea isar. dauen Toroi'n Kerside orrek? Ez ete dau an orrek andik alde egi-nagaitik negarrez dagon maitalerik?

TOR.—Ui! yaun, irrigarri dira arrokeriz eu-ren zauri-atzak erakusten dabezanak. Yoan-go ete gara, yaun? Ba-zan a maile eba-nik, eta ak berak be maite eban: maitea da ta maite dau: baña, orraitioño be, alan-bearraren yanari da maitasun ezta, (Alde dagie).

## V EK [TALDI

### I AGERLEKU.—ELADATARREN GU 3ALTEGIA. AKILEU'ren txozna-aurrea.

AKILEU eta PATORKEL aurrera.

AK.—Elade'tiko ariaoaz berotuko yoat arra-tseon, biar nire ezpateaz otzituko dodana-ren odala. Patorkel, apari lango aparria emon dagiogun,

PAT.—Emen dator Tersitez. (TERSITZ cuv-re-ra).

AK.—Kaxo, ikusezinaren biotz ori! Ze barri dok, berezko ogi-kuskur?

TER.—Ba! zeuk dirudizunaren irudi ori, eta gurtzalla tentelen yainkoaizun ori, amen idazki bat zutzako.

AK.—Nondik, zatiko?

TER.—Ba! Toroi'tik, tentelkeriz bete belerlko ontzi ori.

PAT.—Nor yagok orain txoznan?

TER.—Osagillearen kutxea, naiz gexoaren zauria.

PAT.—Ondo esandako "Besterako" ori! Zeta-rako dozak izkirimiriok?

TER.—Ixilik ago, arren, mutiko; solasetik, ele-ke-tatik, berbetatik etxoat nik onik; Akileu'ren emagaldu artzat abe i.

PAT.—Emagaldu artzat, zital? Zer dok ori?

TER.—Ba, aren emagaldu ar, naiz ar galdu, naiago ba'dok. Egoo-aldeko gaitz ustel guz-

tiak, ezoeriak, azur-austeak, marrantak, kuntzurrunetaltto arriak, logureak, kokaldak, be-teriak, gibel-arriak, biri txistulariak, zaldarrak, eper-mokor-gatxak, karez erretako eskuak, azurmin osa-ezinak, eta ik narruan etentzaka dozakan pinporta legorrrak orrako ori iragarten yoek, eta ez besterik!

PAT.—Ba! bekaizkeri-ontzi gaiztetsi ori, zer esan gurok ik onan biraotzeko?

TER.—Biraorik egotzi dauskat, ala?

PAT.—Ez ba, upel ondakin zatar orrek; ik emagaldukume orrsk, zetariko txakur zakar azan ezin berezi leiteken orrek; ik ez.

TER.—Ezetz! ba, orrazkero, zegaitik suak artzen au i, i mami bagako seda-aril orí, begi gexoen aurreko tapetan muskerrezko estalgi ori, ondatzallaren sakeleko uzkur ori, i? Ui, ui! muni'uaeren betea olango eltxo zakar eta ze zez!

PAT.—Oa ortik zear, kuskubillo ori!

TER.—Txonta-arrautza ori!

AK.—Ene Patorkel ezti ori, biar burruka egiteko nire asmo andia bertanbera izteko bearturik naiagok ni. Aiko amen Ekube erre-genoagandiko idazkia; aren alaba, nire maitte lirainagandiko maitasun-agiri bat be bai; biak eskatu ta agintzen yaustek nik eginik dodan zina bete dagidala. Etxoat ausi gura nik arako gure zina; yausi baño eztozue, Eladatarrok; itzaldu adi, entzute on ori; oa ortik zear, dedu ori, naiz berton gelditu adi, euk zelan gura. Nire zinik andiena yagok emen, eta ari yeutsat.-Tiruk, tiruk, Tersitetz, lagun akit nire txoznea aratz iminten; oturuntzan igaro bear yoagu arrats oso au. Gaioazan, Patorkel! (AKIL'k eta PAT.'ek alde).

TER.—Yazo ledikek oneik biok odolik geiegi ta bururik gitxiegiagaitik burutik eginda gelditzea: baña bururik geiegi ta odolik gitxiegiagaitik zoratu ba'leiiz, zoroan osagilla izan gurako neunke. Emen dogu Agamenon: zindorik asko dogu gizon au. eta galeperzela yatsu; baña eztau bururik geiagio belarri-zuloko argizai edo loiak baño: eta or dogu orren anaiea be, zezena, zezendu zan Yupiter'en irudia... mami-irudi zar, adardunen irudi, zearretara begira dagona; bere anaiearen zangoko katetxotik dingilizka dagon oskiak sartzekoa langoxe yatsu ori; eta zeren antzik, bere ezik, emon ete leio orri asmo txarrez beteriko buru-argitasunak, naiz buru-argitasunez ganezka dagon asmo txarrek? Utsa litzake astoarena emotea; asto ta idi biak batera da ori; idi-antzik emotea be utsa litzake; idi ta asto, biak batera da a. Eleuskit bape ardura txakur, mando, ka-

tu, ogigaztae, kunkun, musker, mosollo, miru, naiz arrautza bagako sardinzar izan, baña Menela'rik izan baño len, eginalak eta erdi egingo neunkez alanbearraren aurka. Ez egidazue itandu zer izan gurako neunken, Tersitetz ez izatekotan; eta, izan be, eztaust ardura legenardunaren zorri izan be, Menela'rik ez izatekotan... Ba, ba! Arimak eta argitxakurrak datoikuz emen!

Aurrera ETOR, TORIL, AIATZ, AGAMENON, ULITZ, NESTOR, MENELA, ta DUMENA, zuziakaz.

AGAM.—Oker goaz, oker goaz.

AL.—Sz, an aiagcan dago; an, argiak agiri diran lekuan.

ET.—Nekagarri natxatsue.

AI.—Ez nekearen izperrik be.

UL.—Bera dator, emen zuri biiea erakusteko.

#### AKILEU aurrera.

AK.—Ondo etorria, Etor adoretzu; ondo etorriak .andiki guztiok.

AGAM.—Onan ba, orain, Toroi'ko erregeseme kementsu ori, gau onak emoten dautsuz. Aiatz izango da zure yagoleen buru.

ET.—Eskerrik asko, eta gau on Eladatarren buruzagiari.

MEN.—Gau on, ene yaun.

ET.—Gau on, Menela yaun ezti.

TER.—Burdi-idi ezti: ezti esan dau ak! sats-bide ezti, ur-loi-bide ezti bai.

AK.—Gau onak eta ondo etorria, biak batera, yoan doazanai eta gelditzen diranai.

AGAM.—Gau on. (Alde AGAM.'ek eta MEN'k).

AK.—Emen gelditzen da Nestor agurea; eta i be, Dumeda, lagun izan akio Etor'eri ordu baten, naiz bitan.

DUM.—Ezin yoat nik olangorik egin, yaun; arazo andia yoat nik, eta erretan yagok.

Gau on, Etor andi.

ET.—Ekadak ire eskua.

UL.—(TORIL'i banazeen) Orren zuziari yarrai akio; Kallta'nera yoak ori-ta, neu lagun izango natxak.

TOR.—Omen andi egiten daustazu, yaun ezti orrek.

ET.—Eta orrazltero. gau on. (DUMEDA'k rfd; atzatic ara yarrai doakoz ULITZ eta TORIL).

AK.—Tira, tira .sartu nire txoznara. (A!de da gie AKIL., ETOR, AIATZ, eta NEST.'ek).

TER.—Dumeda ori be zital biotz-ustel, zirtzil oker oker da; zearretara begirakune lizu-

nak egiten dauzanean, txistuka daragoion sugeari baño uste on geiagorik eztautsat izango: merke erabiliko dautsuz ak itzak eta aginduak, eiza txakurrak bere ausiak legetxe; baño agindurik egingo ba'dau ak, izorlariak esan bear dabe auneztik; etor-teko dan aldakuntza andiren bat diragar zer arrigarri onek: iretargiak emongo dau-

tsa bere ergia eguzkiari Dumeda'k beie itzik bete dagianean. Lenago itxiko dot Etor ikusteka, urli orri txakurra lez ni yarraitzea itxi baño: Toroitar emagaldu bat dauela or diñoē, eta Kalka saltzalleaien txor-non ei dau: atzetik ara yarraiko natxake... Lizunkeri utsa! Guztiok dira lizunkeriari in-tsigi intsigiak! (Alde dagi).

## H AGERLEKU.—ELADATARREN GUDALTEGIA. KALKA'ren bcozna-auirea.

### DUMEDA aurrera.

DUM.—Ostera! Yagita ondiño, e? Berbetan daragoioe.

KAL.—(Barrutik) Nor da?

DUM.—Dumeda.-Kalka da, nire ustez. Non-dik da zure alabea?

KAL.—(Barrutik) Or doatsu.

TORIL eta ULITZ aurrera, urrinean; euren atzetik TERSITETZ.

UL.—Zuziak ezin erakutsi al izango gauzan lekuan ostondu zadiz.

### KERSIDE aurrera.

TOR.—Kerside urteten yako ari bidera,

DUM.—Kaxo, nire ardurapeko ori!

KER.—Emen nozu, ene yagola ezti! Entzun, itz bat egin gura dautsut. (Txutxupulxuka daragoioe).

TOR.—Ene! orren etxetiar!

UL.—Lenengo ikustaldian abestuko dautso orrek edozein gizoneri.

TER.—Edonok igarri ta ezautu lei ori, orretarako orren bidea ezautuazkero; eresi-otsen atzetan dago no ori (17).

DUM.—Gogotan ete dozu?

KER.—Gogotan doiri? Bai.

DUM.—Ori ondo, baño orrazkero, egitez egizu itzez diñozuna.

TOR.—Zer gogoratu bear ete dau no orrek?

UL.—Entzun dagigun!

KER.—Eladatar ezti kutun ori, enagizu zirika-tu ergelkeri geiagorako.

TER.—Ori dok zitalkeriaren zitalkeri!

DUM.—Ba, orrazkero...

KER.—Neuk esango dautsut zera...

DUM.—Ba, ba! umekerien bat esango daustazu zuk: uko egin dautsazu zuk zure zinari.

KER.—Egia esateko, ezin dot nik egin olan-gorik; nik zer egitea gura dozu?

TER.—Kakomako utsak, ixilean idigi dagien.

DUM.—Zer emongo zeunstala agindu zeban zinbidez?

KER.—Arren, enagizu beartu nire zina betezera; aez beste edozer egiteko agindu egidazu, Eladatar ezt.

DUM.—Gau on.

TOR.—Lraun egidak, ene epe!

UL.—Zer yazoten yatsu, Toroitar?

KER.—Dumeda...

DUM.—Ez, ez, gau on: eztoz izan gura luzarogo zure yostallurik.

TOR.—Jzango al az.

KER.—Eitzun! itz bat zure belarrira.

TOR.—Ui! izurriarena ta burutik egin-bearra-rena!

UL.—Asarrez irakiten dozu zuk barrua, erregeseme; alde dagigun emendik, arren, zure asarreak itz asarreen batzuk esateraño eroan etzagizan: gal-gordetsu da leku au; are gal-gordetsuago aldi au; goazen, arren.

TOR.—Begira gagozan, arren!

UL.—Ez, ene yaun, alde dagigun: ganaz zagoz zu leia indartsuz; tira, ene yaun.

TOR.—Etxoizu, arren!

UL.—Eztozu zuk eperik; goazen.

TOR.—Etxoizu, arren; su-lezea-arren eta su-lezako elorrio guztiak-arren, eztoz itzik bat be egingo.

DUM.—Eta orrazkero, gau on,

KER.—Baña ezkadizan alkarregandik asarrez aldendu.

TOR.—Min egiten dautsu oriako orrek, ala? Ui! Zintzotasun onen zimel!

(17) "Eresiotsen atzetain dago no ori". Eresi-otsen cizak zerak yatsuz, irckurla, eresia yoteko tresna edo ereskinak izaten dauzan arizko, olezko, naiz beste zerbaitezko zeraik, zirri egiozu, esaterako, kitarrearen ariari, ta or dozu ari errek emcn dañken otsa; yoizu pianoak errezkadan dauzan zer zuri-luzongae-tarikoen bat, eta cr dozu berck emcn daiken otsa. Eresi-otzak yatzuz ariok eta zer zuri-luzangok. Tersitetz'ek diñenez, nok zirri egin, ari eranrango dautsa Kerside'k be, eta arin eraintzun be: neska irabaz-erraz da.

UL.—Zer yazoten yalsu, yaun?  
 TOR.—Yupiter-arren, epez egongo naz,  
 KER.—Ene yagola! ee! Eladatar!  
 DUM.—Ba, ba! agur; oker zagoz.  
 KER.—Egia esateko, enago: zatoz ona besls bein.  
 UL.—Ikaraz zagoz zu, ene yaun, zerbaitegaitik; alde egingo ete dogu? Iztenak egingo dozuz zuk.  
 TOR.—Zirrika daragoio to orrek no orril  
 UL.—Goazen, goazen.  
 TOR.—Ez; etxoizu: Yupiter-arren, eztoz itzik bat be egingo: *spsa* dot yagolatatz nire biotzaren eta nire irainen bitartean: etxeizu apur baten.  
 TER.—Lizunkeri txerrenak baí gli-gili egiten dautsela orrei bioi bere atz motz, lodi ta lusagar antzekoagaz! Urtu adi, lizunkeri, urtu adi.  
 DUM.—Egingo dozu, ala?  
 KER.—Egingo dot nire sinistea-arren, aor; ostantxean ez izan nigan inoz usts onik.  
 DUM.—Emoidazu agirien bat orrako ori egingo dozunaren alde.  
 KER.—Ba-noa olangoren billa. (Alde dagi).  
 UL.—Epetsu izango zareala zin egin daustazu.  
 TOR.—Ez izan nire bildurrik, yaun ezti; aztuko naz nire buruaz, eta eztoz iragarriko ni oartzen natxakonik: opea bera nozu ni, epe uts,

KERSIDE aurrera ostera be.

TER.—Or dakar bcsia; ointxe, ointxe, olntxei  
 KER.—Eutsi, Dumeda, euki yantzi-beso au.  
 TOR.—Ui edartcisun! nondik da zure zintzolasuna?  
 UL.—Ene yaun.,,  
 TOR.—Epe artuko det; azalez, ez bamicin.  
 KER.—Yantzi-beso ori begira zagoz zu; ondo begiratu egizu... Maite nindun ak... Neskato onen ustel!. Ekadazu atzera.  
 DUM.—Norena zan?  
 KER.—Atzera neuk dodanazkero, zuri eztautsu ardura norena zan yakiterik. Biar arratsean eztoz egingo trikitzik zukin: arren, Dumeda, oraindik ara enagizu ikustau.  
 TER.—Laztuten asi da orain neskato ori: ondo esanda, Zorroztar.vi da ori.  
 DUM.—Neuk eukiko dot,  
 KER.—Zer? Au, ala?  
 DUM.—Bai, ori.  
 KER.—Ui! zuok yainko guztiok!... Bai onen polit be polit! Oean datza orain ire yabsa, i ta ni gogotan gauzala; eta intzirika yagok a, eta nire eskuzorroa artuta, eta oroimenak

eraginda, ensuen mosuak damoizoz ari, nik orain iri lez... Ez, ez egiaizu erauzi, ez egidazu kendu eskuetatik; au artu dagianak onegas batera nire biotza be artzsn daust,  
 DUM.—Lendik dot zure biotza-ta, ari berrakio au.

TOR.—Epe artuko doiala zin egin dot.  
 KER.—Ori eztozu izango zuk, Dumeda; nire sinistea-arren, beste zerbait emongo dautsut orren ordez.  
 DUM.—Neuk eukiko dot au: norena -zan?  
 KER.—Zuri eztautsu ordura orrek.  
 DUM.—Tira, esaidazu norena zan.  
 KER.—Zuk maite izango nozun baño maiteago nindunarena zan, Baña orain zuk dozunaz. kero, euki egizu.  
 DUM.—Norena zan, bc?  
 KER.—Dine'ren ycrraigoko diran emakume guztiak-arren, eta Dine bera-arren, eztautsut esango norena zanik.  
 DUM.—Nire burukoskol-ganean erabiliko dot biar; eta min emongo dautsat onegaitik eupadirik egiten ausartu eztaadinari.  
 TOR.—Txerrena bera ba'intz, eta ori ire adarretan eroango ba'endu be eupada egingo neunskik.  
 KER.—Tira fca, tira ba, şcinik eta amaiturik dago; eta orraitino ez, eztoz beteko nire itza.  
 DUM.—Ba, orrazkero, onik eta ondo ibili; oraindik ara bein be eztautsazu egingo irrik Dumeda'ri.  
 KER.—Ez al zara yoango: nlk itzik egin orduko asalatzsn zara zu.  
 DUM.—Etxataz bape gogoko zomkeriok,  
 TER.—Ez niri be, Pulta-arren: baña iri gogoko etxakana yatak niri gogokoan.  
 DUM.—Tira, etorriko naz, ala? Es ordutan?  
 KER.—Erdi, bai: Yupiter ori! Erdi, bai, erdui izurriak artuko uau.  
 DUM.—Onik eta ondo ibili ordurarte, ba.  
 KER.—Gau on: erdu, arren. (DUMEDA'k alde) Onik eta ondo ibili, Toril! I begira yagolc oraindik begi batn; bañci beste beglak nire biotzak dakusau yakusak. Ene, eue! gure emetasunaren errukarri! uts au, akats au iioroten dot gugan, gure begi okerrak erakusten dautso bidea gure gogoavi: eta oker yaan eta ibiñi bear okerrak bidea erakusten dautsanak; enei orrazkero, au da ondorena: lizunkeriz beterik egin bear begiak agintzen deitson biotzak (Alde dagi).  
 TER.—Ezin emon eikean agiri-bide sendoagorik, "Emagaldutu egin yat biotza" ez esatekotan.  
 UL.—Orrsnak egin dau, ene yaun.  
 TOR.—Bai, egin be egin dau,

UL.—Zeren begira gagoz emen, orrazkero?

TOR.—Emen esan dan itz balco txaren atal baktxa gogoratzeko. Bañia orreik biok alkarrekin aragizkoa egin dabela osan ba' dagit ez ete dot guzurrik esango egia esan dodalaketan? Orraitiño be, orair.cik be badago nire biotzean sinisterik, itxaro orren sendo be sendorik eta eztautso sinistu gura begiak eta belarriak autortae dautsoenari, begi-belarriok iruzur egiteok eginak badira legetxe, egipideon egiteak guzurti ba'itzzaz lez. Emen izan ete da Kerside.gero?

UL.—Eztot nik birao-deirik ogiteko alik, Torroitar.

TOR.—A ezta izan, seguru bo seguru,.

UL.—Seguru be seguru da a izan dala.

TOR.—Ba, nire ezetzak eztau burutik eginaren sundarik.

UL.—Ez nire baietzak be, ene yaun; Kerside izan da emen, oraindik oraintxo baño eztsla.

TOR.—Ez al 'iktu inok s'mistuko olangorik emakumetasuna-arren! Gogoratu egizu, gure ainak izan doguz; Kerside eredu ta ikasbide dala-ia, ez egiezu emon euren aljerakorik esla lotsabako ta biozbakoi, emakume guztiez txarto esaka ibilteko, guztiak bardintzeko; bestera. Kerside'rik ez tala Izan emen uste dagigun.

UL.—Zer egin dau no orrek, erregeseme, gure amak orbandu ta laidotzekorik?

TOR.—Ezebez, ezebsz, no a emen ez izatekotan.

TER.—Bere begiaf egín bear eie dautse eupada orain?

TOR.—No a emen izan dana? Ez; Dumeda'ren Kerside izan da emen egon dana; gogorik fca'dau edertasunak, no a ezta emen izan dana; gogoa ba'da zinen aurenari, guren ba'dira zinak, gurentasuna atsegín ba'yake yaínkoai, araurilc eta legerik ba'dago batasunean berean, no au ezta a. Adibidearen zoro, izer bat beraren aldeko ta besteiaiko, bietarako argibideak ekarrten dauz-eta! Alderdi bien aldeko ebazla! Bere buruaren aurka asaldatzen izten dautso argibidean, eta aurrera egiten okerrari, argibidea asaldatzeka; ba-cia, eta ezta au Kerside! Onetariko inñondiko burruka dot nire gogoan, banandu bagarik dagon zera ortzea ta lurra aikarregandik banantzen diran baño bananduago ta zabalago dago-ta; eta orraitiño be, bcjijnkeia onen bitarte nasaiaik berian Ariadne'n ari etenaren ertza sartzeko iain zulorik be eztau. Segurantzearrena, ui! segurantzearrena! Pulta'ren ateak bestean seguru dan segurantzearrena! Nire da Kerside,

zeruko lokarriz nirl estua: segurantzeta ori, ui! segurantzeta ori! zerua bera testean sendo dan segurantzeta ori: zirrist egin dabe zeruko lokarriak, nasaitu ta azkatu egin dira; eta beste poronpil bategaz, bere bost atzez Ictuagaz, Dumeda'ri estuta dagoz no aren zintzotasunaren atalak, txatalak, bilderrak, eta aren zintzotasun yan-yanaren ondakin koipatualc.

UL.—Bere biotz-aldiak emen iragarri dauenaren erdirik be ete dau Toril aintzakoalc bere bamian?

TOR.—Bai, Eladatar; eta izki gorritz ondo iragarri ta zabalduko da orrako ori, Marte'k Benuts'ganako bere biotz ixiotua iragarri ta zabaldu eban bestean: eguño eztau maite izan gizon gaztek onango maitasun betizok eta etentzakaz. Entzun Eladatar: Kerside' ganako nire maitasuna astun dcm bestean astun da KersiJe'n Dumeda'ri siik dautsadan gorrotoa: nire da ak bere buru-koskolean eroango dauen yantzi-besoa: Bulkan'ek bere ganoraz biribildutako buru-koskola ba' litz be orrako ori, aginlca egingo leuskio nire ezpateak: itsasiarrak zurruncillo esaten dautsoen gora-zurrutada itzalak, eguzki indartsu-indartsuak moltsoturik atzera bera yausi dadizanean, eztauz gorragnetuko bere otsctgaz Netun'en balarriak, nire ezpata bilusak bere yauskaran Dumeda gortuko dauen baño.

TER.—Zirri ta gili-gili egingo yautsak orrek aren lizunkeriagaitik.

TOR.—Kerside ori! Kerside ori! Kerside ustel ori! Ustel, ustel, ustel ori! Ustel guztiak yarri dadizala zure izen orbanduaren aldamenteau, bai, eta eder idurituko dira guztiak zure aHean.

UL.—Ui! ez egizu egin ganazik; onantzeta dakaz belarri guztiak zure lera bizi-gorriak.

#### ENEA aurrera.

EN.—Ordu bete ba-dok ire billa nabilela, ene yaun: bere iskilloak yazten yabilk onazkero Etor Toroi'n; ire begira yagok ire yagola Aiatz, i eurrera eroateko.

TOR.—Or nok ni, erregeseme. Agur, ens yaun txerakor... Onik eta ondo abil, lirain asaldatu orif -eta i, Dumeda, tente ago, ia torreran bat erabili egik ire buruan!

UL.—Neuk eroango zaudaz atetaragiño.

TOR.—Hastutako gizonaren eskerrak artu egizuz. (Alde TOR., EN., ita UL.'ek).

TER.—Trildtx egingo al neu Dumeda zital akin! Peleak beste garrankada egingo neunskio; iragartekoak iragarriko neunakioz. Edo-

zer emongo dausí Palorkel'ek, emagaldurorrekín arr-emonelan bera iminte-arren: lorok eztau egingo geiago Napar-ur bategaitik, ak emagaldurraz betegaitik egingo

dauen baño. iizunkerí, lizunkerí; oraindik be guduak eta lizunkeria; besterik ezer ezta eder: sutan dagon txerrenen batek eroango al dauz guztiak! (Alde dagi).

### III AGERLEKU-TOROI. PIRAMA'ren Yaureregiaren aurrea.

ETOR eta ANDORMAKE aurrera.

TORIL aurrera.

AND.—Noz izan ete da ene yauna orren asarre ta txera bagako, onuri yaramonik ez egin eta belarriak isteko? Erantzi zure iskilluok, erantzi zure iskilluok eta ez egin gaur burrukaiik.

ET.—Zuri irain egiteko bidea erakusten dargoiizu; barrura zoaz; yoango naz, betiko yainko guztiak-arren!

AND.—Aiu txarreko izango -'atsuz nire amesak gaurko egunerako, bai v.ixe.

KASANDERE aurrera.

KAS.—Nondik da nire neba Etor?

AND.—Emen don, aizta; iskilloz yantzita, eta asmo odoltsuz beterik. iagun akit, eskarri zoli ta samurrez belaubiko yarraí gakiózan: eta izan be, burruka odoltsuaz ames egin yonat, eta gau osoan sarraski-irudi ta antzez besterik ezton izan nire irudimenean.

KAS.—Ui! egi utsa da ori.

ET.—Tira! Yo dagiala tutua nirs tutulariale!

KAS.—Ez yo urteterako otsik, neba ezti, zerauk-arren.

ET.—Alde gero, emendik: entzun dabe yainkoak nire zina.

KAS.—Gor egiten yakez yainkoak bat-bateango zin bero ta asarreai: opari loi-zikin díra olango zinak, oparietako gibel nabarrak baño be íguingarriago.

AND.—Ui, ui! buruan sartuko al yatsu! Ez egizu etsi gurentzat, zuzen izate-arren íno ri okerrik egitea: ori egitea ta goi-maitasunez asko emon al izateko lapurreta ta ostute zakarrez ondasunak batzsa, bardintsu litzakez.

KAS.—Asmoak emoten yautsak indarra zinari; baño eztozak betagarri edozein asmoz egíndako zinak; erantzi egizuz iskilluok, Etor ezti.

ET.—Ixilik zagoze, gero: nire omena nora, ara yoan bear dau nire alanbearrak: edonok maite *iau* bizia; baño gizon dan gizonek bizia baño askozaz be maitsago dau omena.

Kaxo, gizon gazte! gaur burruka egiteko asmorik ete dok ik?

AND.—Kasandere, dei egiozu nire aitari, orri zera buruan sartu dagion. (Alde KAS.'ek).

ET.—Ez, ez olangorik, Toril gazte; erantzi egik ire gudu-koskola, gazte; zaldun izateko gogaldia yoat gaur nik; azi dadizala ire zamilak euren korapilak sendotu arte, eta ez egik zirikatu ondiño guduetao zauririk. Erantzi egizak iskilluok, oa; eta ez egik izan ezpairik, mutil adoretzu, gaur zutunik egongo nazala ire, nire ta Toroi'ren alde.

TOR.—Anai, errukior izatezko akatsa dok ik izan, eta leoiari obeto yagokok olangorik, gizonari baño.

ET.—Ze akats dok orrako ori, Toril on? Ez egidak asarrerik orrako orregaitik.

TOR.—Ezin ígesi izan daben Eladatarrak ire ezpata txairoarsn axe ta burruniadeak berak be sarritan lurrera erastsn izan dauzanean, ik yagi ta biziteko agindu izan dau-tsek.

ET.—Ui! Yokatze bikain eta eder dok orrako ori.

TOR.—Zerua-arren, ergel-yoko, tutulu-yoko dok ori, Etor.

ET.—Tiruk! tiruk! Ba, ba!

TOR.—Yainko guztiak-arren, gure amentzaka itxi dagigun padarraren erruki ori; eta bein gure iskilluok gure soñari lotuazkero, zitaldun gure aspertzea gure ezpatetan; aztalak sartu dagiegezan erruki bagako bearrerako, ela errukitik atzera eragiteko.

ET.—Ken akit, basati ori, ken akit!

TOR.—Gudu dok guíua, Etor.

ET.—Toril, etxoat gura gaur ik burrukarik eglndagíkanik.

TOR.—Nok eusteko niri? Ez alanbearrek, ez bendekotasunek, ezta Marte'ren eskuak be ak bere suzko ezpateaz niri atzera egiteko kíñuz agindu ba'dagist be; ezta euren begiak negarrez andituta, Pirama'k eta Eku-be'k belaubiko eskatu ba'dagisle be; ezta euk be, anai, ni lenago ik ondatu ezik, ire ezpata yatorra aterata, ta nire aurrez aurre yarrita, galazo gura ba'daustak be.



Barrien barri aurrera KASANDERE, PIRAMA' kin.

KAS.—Eutsin egiozu orri, Pirama, gogor eutsin egiozu: zure makulu da ori; zuk deulsazuna yausi ba'dadi, deutzazunaren ganera zu, ta zure ganera Toroi yausiakzkeru, guztiok gagoz yausirik, guztiok batera.

PIR.—Tiruk, Etor, tiruk, atzera egik: ames egin yok ire emazteak; ikuskizunak ikusi yozak ire amak; igarri egiten yok Kasandere'k; eta ni neu be otoz otoko aldikadaz igarla egin nok, gaurko egun au adu txarreko dala iri esateko: atzera egik, ba.

ET.—Gudategian da Enea; eta ni Eladatar askori itz emonda nago, nire adorearen ize-nean be, goiz onetan euren aurrera agertzeko.

PIR.—Bai, baña eztoz yoan bear.

ET.—Eztot yan bear nik nire itzik. Ba-dakizu begirapentsu natxatsu'a ni; orrazksro ba, yaun maite, enagizu beartu nire begirapena orbandu ta lotsatutsra, Piramct errege, emen eta orain zuk galazoten daustazun bidea zure onetsiz eta itzez artzen niri ibii baño.

KAS.—Pirasna ori! Ez egiozu menik egin.

AND.—Ez egiozu itxi, ez, aita maite.

ET.—Andormake, asarre natxatsu: daustazun maitasuna-arren, barrura zoaz. (Alde AND.'k).

TOR.—Neskato tentel, amesgin, sinisksritsu onek egiten dauz igarte guztiok.

KAS.—Ui, ui! onik eta ondo ibiliko al az, Etor maite ori! Ikusi akustu zekm ilten azan! Ikusi yakusadaz ire begiak zurhiltzen! iku-8i yakusadaz ire zauriak ainbat zanetik odolustuten! entzun dantzut Toroi negar arrantzata baten! negarrez Ekube! minaren minez oioka Andormake errukarria! begien aurrean yoadaz ondamendia, zoramena, eta arritzea, burubako yostalluen antzera, alkorrekin trikix egin eta guztiak" Etor!" gedarrez eta oioka, "Ilik áa Etor! Etor ori!".

TOR.—Ken akigu, ken akigu ortik.

KAS.—Onik eta ondo ibili: orraitño, etxon! Ba-noa ni, Etor: ziria sartzen dautsak ik ure buruari ta Toroi osoari. (Aldi dagi).

ET.—Arriturik zagoz zu, ene nagusi, no orrsn esanakaz; barrura zoaz, eta adoretu egizu uria; urten eta burruka egingo dogu guk; egita gorapengarririk egingo dogu, eta arratseon eralgiko dautsuguz.

PIR.—Onik eta ondo ibili: lagun eta yagola izango al yatsuez yainkoak (Banazean alde dagie ETOR eta PIR.'k) (Gudara-deiak).

TOR.—Ba-daragoioe gudaketan, entzun! Dumeda arro, or noaik, edo nire besoa galdu, edo nire yantzi-besoa ífabaztsko.

TORIL alde bateuk urten-ala, PANDAR sartzen da bestetik.

PAN.—Entzuten ete nozu, ene yaun? Entzuten ete nozu?

TOR.—Ze barri dakazu?

PAN.—Emen dozu neskato errukorri agandiko idazki bat.

TOR.—Itxi egidazu berori írakurten.

PAN.—Bularreko emagalduren onek, bularreko amagalduren gaitz zítal onek, eta neskato orren yoan-etorri buru-arinak; bain zer bat dala, beste bein besteren bat... zerok onen txarto ta artega narabile-ta, egunotarik baten zuok emen itxi-bearrean aurkituko naz; orrez ganera, beteriorik be badot; azurretan be min lango mina dot-eta, gaiztetsita nagola ez esatekotan, eztaikit zer esan. Zer diño neskato ak?

TOR.—Itzak, itzak, itz utsak, biotzetikorik ezer bez. Beste biderik daroa egiteak. (Idazkia urratu ta zeatu-alc) Axe zarie-ta» axetara zoaze, or nastu ta nastu zadize. Nire maitasuna itzez eta utsez bazkatzen daragoio neskato ak; baña egitez, beste moitasunen bat eragiten daragoio. (Baniazean, biak alde).

#### IV AGERLEKU.—TOROI ta Elad itarren gudalgegi bitarteko zelaiak.

Gudura-deiak: urten-aldiak. TERSITETZ aurrera.

TER.—Bein beinean mifiez erasoten dautsoe alkarreri; ba-noa ikustsn. Besterik dirudian emagaldu ar askarri ak, Dumeda'k, bere buru-koskolean daroa Toroitaz gazte zirtzil, tutulu-samar, maitaberaegiaren yantzi-besoa: pozik ikusiko neunkez alkarrekin trikix egiten; poz posik nengoke Toroitaz gazte asto asto errekek, arako emagoldua maite dauen

orrek, Eladatar emagaldu ar zital ori, yantzi-besodun ori, atzera bidaliko ba'leu emagaldu cddakor lotsabako agana, yantzi-besoa galdu dauela ari iragarteko. Beste aldetik, masusta añako be ezta zital maltzur zingin uts diranon gudabidea... gaztae zar saguak yana baño eztan Nestor'ena, ta azeri ar dan Ulitz'ena; maltzurkeriz, alkarren aurka imini dabez orreik biok Aiatz txakur zakarra, ta bape obe eztan Akileu txakurtzarra: eta

omin Alatz txalurra Akileu txakurtzarra baño fae arxoago ta puztuago dago-ta, gaur eztau artu gura iskillorik; au dala-ta, basati egin dira Eladatarrak, eta entzute txarragesz gelditzen asi da erriketsa. Ixilik nagon! or datoz arako yantzi-besoduna ta bestaa.

DUMEDA aurrera, TORIL atzetik darraikola.

TOR.—Ez etjlk Igesi; Estigi lbaira sartu ba' ctkit be ugerka yarraiko nakik-eta.

DUM.—Oker aitu ta olter deitzen dok nire etxeratzea; enaionk ni igesi; leliu oberen billa, glzataldetik alde egiten baño; yagoik Ire burua!

TER.—Eulsiok ire emagalduari, Eladatar! Ire emagalduaren billa orain, Toroitarrak! yantzi-besoa orain, yantzi-besoa orain (TOR.'ek eta DUM.'k alde burrukan).

ETOR aurrera.

ET.—Nor eta zer augu i, Eladatar? Etor'ekin burruka egingarri ete az? Odol zindorik eta orrenik bai ete dok?

TER.—Ez, ez... zitaletariko nozu ni; edonorl itzez narruci erazten dakisn zitaletariko: dollor sikin-zikin nozu ni.

ET.—Sinisien yoat olangoetariko azana: bizi adf. (Alde dagi).

TER.—Eztok erruki txarrik ik niri sinistea; baño orraitioño be izurriak ausiko al dausk láun-azurra, ikaraiu nokalako!-. Zer yazo ete yake emagaldu-bi'a ebiltzan zitalai? Alkar iruntsi dabela aik usie dot: eleuskit barrs gitxi be eragingo olango alatzek. Orraltioño, beti be iruntsi egiten dau lizunkeriak bere burua. Billatu egin bear dodaz. (Alde dagi).

#### V AGERIEKU.--Zefaietako beste arlo bat,

DUMEDA la bero Otseonetariko bai.

DUM.—Oa, oa, ene otsein, eta eroan sgik Toril'en zaldia; ar.dera Kerside'ri opatu egioz zaldi CU nire e-sku-agiritzat: i, gizcn, goratu egik nire etseintzea eder aren aurrean; bereak eta erdi artu dauzakt Toroitarrak niaiiabereak esaioz, eta airs:zakogarri nazala erakutsita nazala orain aren zaldun.

CTS.—Ba-noa, ene yaun. (Alde dagi).

AGAMENON aurrera.

AGAM.—Barriztau, barriztau indarrak! Yo ta lurreratu dau Menon Polidama asarreak; atxilotu, bizirik goatu dau Doreu Margarelon sasikumeak, eta or dago bera tente tente azpian zapalduko arrege Epistorpa ta Kedi'ren gorpuen ganean, bere abeari eragiten; erailik da Polixsn; itzalez zauriturik, Anpimaka ta Toa; Patorkel edo bizirik goaturik, edo erailik; ekc zauritu zaurituiik eta mallaturik, Palameda; ikaratu egiten dauz gure gudariak Sagitari itzalak: gaioazan arin, Dumeda, indar barriak ezarten, ostantxaan guztlok gozak galduak-eta,

NESTOR aurrera.

NEST.—Oa, ta Akileu'ri eroan egiok Patorlcel'en gorpua, ta lotsea-arren iskillorik artu dagizala agindu egiok Aiatz gslodo, maraskulo ibilkeradunari... miñlaka yagozak Etorak gudategian; emen yabilk orain a bera bere Galata zaldi-ganean eta etxok ze-

ri eldurik; eta an dok arik laster oñez, eta gureak edo igesi edo il egiten dozak, surretatik lurruna darion balearen aurrean arrain ezkatatsuak legetxe; aragoan dok arik beingoan, eta an be laslozko Eladatarrak, aren ezpatearen agorako eldurik dagozanak, igitariaren aurrean galtsua lege-lx3 yausten dozak: emen, or eta an, edonon, erail edo bizirik goatzen yozak; aren leiearen ain esaneko dok aren trebetasunata, berak zer gura axe egiten yok; eta egiten dauena ainbesteko dok-eta, ezina be egiten duela dirudi.

ULITZ aurrera.

UL.—Adoretu, adoretu, erregesemeok! Iskillorik yazten, negarrez, fairaoka, ta aspertzekt daragoio Akileu'k: iratzarri >dabe aren odol loak artua Patorkel'en zauriak eta agana surrik bagarik, eskurik bagarik, ebagirik, azurrak ausirik, eta mandaiturik, Etor' en aurka gedar baten datozan Mirmidonak (18). Aiatz'ek be galdu dau bere adiskideotariko bat, eta or dago agotik bitsa dariola; iskillorik aldean dauzala dago ta orroaka darraikio Toril'i; ouako onek, barriz, gaur bere adorea zcrakeriraño ta gorago eroaten daragoio; bere buruaren ain ardura bagarik dabil-eta, or daragoio zirti-zarta, edo-

(18) Akileu'ren gudarial deretxe Mirmidonak (Myrmidnes, Eladeraz).

nondik edonora bidea egiten; trebetasunari ta zurtasunari yaramoteka, dana irabaztea agindu dautsala alanbearrak dirudi, ta ori esan ledike.

AIATZ aurrera.

AI.—Toril! Toril kihil ori! (Alde dagie).

DUM.—Bai, orri, orri.

NEST.—Olan, olan, alkarrekin bardinduaz goaz.

AKILEU aurrera.

AK.—Nondik *\*ia* Etor ori? Ator ona, ator ona, mutiko-eraila ori, erakutsi egik ire arpegia; ikasi egik zer dan Akileu asarreakin trikitx egitea: Etor! Nondik da Etor? Etor'ez besterik eztoz gura nik. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.-Zelaietako beste arlo bat.

AIATZ aurrera,

Aí.—Toril, Toril koldar ori, ©rakutsi egik ire burua!

DUMEDA aurrera.

DUM.—Toril, gerooo! Nondik da Toril?

AI.—Zer gurok?

DUM.—Zigortau egin gura yoat *a*.

AI.—Gudalburua ba'nintzok ni, lenago emonge nusukik nire lekua, zigortze ori besteren eskuetan itxi baño... Toril, geroo... eea! Toril!

TORIL aurrera.

TOR.—Dumeda saltzalla ori!.., bira eragiok ire arpegi ustel orri, saltzalla erre, eta ordaindu egidak nire zaldiairen alderako 2or daustakan ire bizia!

DUM.—Ja! cr ago, ala?

AI.—fleuk baktrrik egingo yautsat orl burruka; geldi ago i, Dumeda.

DUM.—Niro sari dok ori. Enok egongo ni begira.

## VII AGEHLEKU.-Zelaietako beste arlo b«t

AKILEU aurrera, bere Mirmidorakin.

AK.—Erdi ona nire ingurura, zuok ene Mirmidonok; buruan yarri nik diñodana... Nik nora yo. *ara* zarraikidaze.- ez emon zuok zartadarik ezetarikorik, arnasea nasai artu baño, eta Etor odolzalea idoro dagidansan, iaket-esi barruan legetxe zuon iskilloen barruan artu egizue *a*; errukirik gitxienez egin zuon egitekoa. Zarraikidaze, yaunok, eta be-

TOR.—Biok erdue, Eladatar ustelok; bioi eraso dautsuet. (Burrukul alde dagie).

ETOR aurrera,

ET.—Ori be bai, Toril? Ene! ondo be ondo erasoten dok, nire anaiarik gazteen orrekl

AKILEU aurrera.

AK.—Ba-akust orain, ja! yagoik ire burua. Etor!

ET.—Atseden aitu egik, gura ba'dok.

AK.—Elxautsat yaramonik egiten ire txerearl, Toroitarras zori ontsutzat etsi eçik ire burua, nire besoak burrukara oiturik eztagozalako: ire adiskide dozak orain nire atsedena ta ardurarik eza, baño laster izango dok nire barririk ostera be; bitartean, oa ire zoriaren billa. (Alde dagie).

ET.—Onik eta ondo ibili... gizon barriaririk egongo nintzakean, i etorriko intzanik yakin ian ba'neu. Kaxo, ene anai!

TORIL aurrera ostera be.

TOR.—Enea goatu yok Aiatz'ek: bertanbera itxiks ete yoguk a? Ez, ortze argian argi egiten dauen garra-arren, eztautsagu itxiko ari Enea eroaten: edo neu be goatu egingo naioek, edo a yareiko yoat... alanbear, entzun nik diñodana! Eztaust ardura bape be gaur nire bizia gal&u ba'dagit be. (Alde dagi).

Aurrera dator bat iskillu karu-arroz yantzita,

ET.—Geldi, geldi or, Eladatar ori; elburu on az i: ez, ala? Eztok gelditu gura, ala? Begiko be begiko yatazak ire iskillook; mallatu egingo dauskat guda-ltoskol ori, eta iztenak eragingo yautset orren untze zapalduai, baño neu orren yabetuko naz. Eztok gura, ala, basa-abere orrek? Tira ba, igezi egik, eta eizean egingo yoat nik ire narruaren billa. (Alde daijie).

giratu egizues nire egiteak: ebatzita dago 11 bear dauela Etor anáiak. (Alde dagie).

MENELA ta PARI aurrera, euren artean bu-

rrika; TERSITEZ urren,

TER.—Or daragoioe burrukan adcrdunak eta adardunginak, Irea dok, zezen! Iiea dok, tsakurl Gogor, Pari, gogor! Yo egik, em«

bidun ene arlaxori oriek! Zezenaren alde  
doa bunukea... adanak yozak oirek, gerooo!  
(PARI'k eta MEN.k alde).

MARGARELON aurrera.

MAR.—Arpegia emon eta burruka egik, yopu  
orrek.

TER.—Nor zauguz, ba?

MAR.—Krama'ren sasikume.

TER.—Sasikume nok neu be; begiko yatazak  
sasikumek; sasikume yaioa nok ni, sasikume

azia, sasikume biotzez, sasikume adorez,  
eta edozetan legeaz besterako. Artzek etxau-  
tsak egiten usikarik artzeri, eta zegaitik  
egin bear yauntsak sasikumek sasikumeri?  
Arduraz abili; adu txarreko dok gudu au gu-  
tzako; emagalduren semek emagaldugaitik  
burruka ba'dagi, bera epaitu dagien ziri-zi-  
rika daragoio: onik eta ondo ibili, sasiku-  
me. (Alde dccgi).

MAR.—Txerrenak eroango al au, sasikumel  
(Alde dagi).

### VIII AGEHLEKU.-Zelaietako beste ailo bat

ETOR aurrera.

ET.—Mami ustel ori, azalez orren eder iza-  
nik, bizia galduazo dausk ire gudakoskol  
pitxiak. Egin yoat gaurko r.ire lana: nasai  
otuko yoat otuin arnasea: atsedean ar egik,  
ezpata; odolez eta eriotzaz bete-beterik ago!  
(Bere buru-kcskola ercmtzi ta ikurdia bizka-  
rretik dingilizka iminten dau).

AKILEU ta MIRMIDONAK auireia.

AK.—Begiia, Etor, zelan asten dan eguzkia  
sartzen; begira, zelan datorren gau zakarra  
arnas-esfuka, aren orpoz orpo; Etor'en bizia-  
renak be egin yok, olantxe, eguzkia itzaldu  
ta ilunduaz bat, eguna izteko.

ET.—Iskillo bagarik naiagok; ez egik arlu ire  
alde onako zei au, Eladatar.

AK.—Yo, lagunok, yo; au da bere billa nebi-  
len gizona. (Yausi egiten da ETOR). Olan-

txe yausi adi urren, ilion! Ondoratu, urpe-  
ratu adi, Toroi! Emen datzae ire biotza, ire  
zamilak, eta ire azurrak. Aurrera, Mirmido-  
nok, eta guztiok batsra gedar eta oio egi-  
zue "Erail dau Akileu'k Etor andia". (Atze-  
raka egiteko ots) Entzun! gure Eladatarren  
aldetiko atzeraketa.

MIRM.—Toroitarren tutuak be beste ainbeste  
egin dau.

AK.—Gabaren iransuge-egoa zabaltzen da lu-  
rraren ganean, eta, alkarregandik banandu  
egiten dauz gudarosteak, zaldunketako  
ebazleak legetxe. Apari-erdikina baño egin  
eztauen nire ezpatea, geiagoren gose izan  
dana, agokada gozo enegaz pozturik, onan  
doa bere oera (Lekan sartzen dou ezpatea).  
Tira, nire zaldiaren alleari estu aren gor-  
pua; gudategia zear tatarrez eroango yoat  
Toroitarra. (Ide dagie).

### IX AGEKLEKU.--Ze uetako beste arlo bat.

AGAMENON, AIATZ, MENELA, NESTOR DU-  
MEDA, ta beste batzuk aurrera, igero digaroe-  
la Oioka barruan.

AGAM.—Entzun! entzun! ze zarata ta durun-  
du da orrako ori?

NEST.—Ixildu, danborrok! (Barruari) Akileu!  
Gora Akileu! Erail dau Etor Akileu'k!

DUM.—Etor erail dabela, ta Akileu'k erail  
dauelazko zaratea da.

AI.—Olan izatekotan, arrupuzkeririk ez al idau  
iragarriko: a bera besteko gizon zan Etor.

AGAM.—Epez goazen aurrera. Guretaikoren  
bat doala Akileu'ri eskatzen datorrela a  
gure txoznara... Aren eriotzan yainkoak gu  
aikarren adiskide egin ba'gabez, gure da  
Troi andia, eta amaiturik dira gure guda-  
keta latzak. (Lerroka alde dagie).

## X AGEELEKU.--Zekiéelako beste arlo bat.

ENEA tct Toroitarrak aurrera.

EN.—Geldi, ee! gudategiaren yabe gara ondiño; ez yoan etxera; ementxe igaro dagi-gun gaba, ezer artu bagarik.

TORIL aurrera.

TOR.—Ilik da Etor.

GUZTIAK.—Elor!... ez al dabe gurako olan-gorik yainkoak!

TOR.—Ilik da a; eta erailearen zaldiaren alleari loturik, zatarkiro, basatikiro, tatarrez erabilia, lotsaturik dagon gudategia zear... Motzitu, goibeldu zadize goiok; arin erakutsi egizue zuon asarrea! Yezarri, yainkook, yezarlekuetan, eta irribarre txerakorrik egin Toroi'ri! Errukiz, labur izango al dira zuon izurriak, eta astiro astiro ez al gozuez ondatuko!

EN.—Ene yaun, ez egik adoregatu, ez egik kikildu gudaroste osoa.

TOR.—Olangorik esaten dozunazkero, enozu aytuten: eztot aitatzen nik igesiterik, bildurrik, eriotzarik, yainkoak eta gizonak guri hidali-aginik diran gal-gordeai arpegi emotea baño. Yoanik da Etor: nok emoteko orren barririk Pirama'ri, naiz Ekube'ri? Adu txarreko mosollo deitu dagiela gura dauenik ba'dago, doala Toroi'ra, ta Etor il dala esan dagiala an: arritu egingo dau orrako barriak Pirama; osindu ta Niobe'tu (19) neskak eta emazteak; gazteak mami-irudi otz biurtu; eta, itz batez esateko, bildurraren bildurrez Toroi'ri burutik eragin. Baña goazen aurrera: ilik da Etor; eztago zer esan geiagorik. Etxon bein beinean, orraitino... Zuok txozna zital askarriok, gure Pirgi'ko zelaietan orren arro eragiok, berak gurala goiz yagi ba'dadi be Titan (20), zuok zear eta zuok zear ibiliko naz!... eta i, neurritzarreko bildurti-kikil ori, lurreko lekuk etxozak bananduko alkarregandik gure gorroto biak: ire eizean ibiliko nok oraindik ara yakinkidetza geztoarsn antzera, irudimen beroak gogapenak sortu ta eratzen dauzan bestean arin, bests munduko geztoak iruditu ta eratzen dauzan yakinkidetza geztoaren antzera... Toroi'rako ibilketa-eresia yo, ereskinak emon-ala!... nasai yoan: aspertze-itxaroak ostondu bear dau gure nai-baga itzala. (Alde ENEA'k eta Toroitarrak).

TORIL'ek alde agln-ala, PANDAR sarlzen da beste aldetik.

PAN.—Entzun baño, entzun!

TOR.—Alde emendik, bitarteko zirtzil orrek! Laidoa ta lotsaria izango al dozak ire bi-ziaren lagun, eta ire izenagaz beti biziko al az! (Alde dagi).

PAN.—Osakai argia orixe nire azur minduentzako!... Mundu ori, mundu ori, mundu ori! onan arbuatzen, onan zapuztu ta baztarretzen dok ik bitarteko errukarri au! Saltzallleok eta emagaldue-faitartekook, zuok bai iminlen zabezala irrikiz, aperturiz eta yoranez bearrean, gero onango saria emoteko! Zegaitik ete dabez orren maite gure aleginak, gure egiteai onenbesteko iguinik izateko? Ez ets dago itz neurturik onangoentzako? Ez ets dago eredurik onangoentzako? Dakusadan:

Alai alai abesten dau erlanagiak  
Galdue arte bere ezta ta eztena:  
Ta bein galduzkero alla-iskilloa,  
Ezti ta abesti gozoa, galdurik biak.

Aragitan sal-erosla onok, onako au idatzi egizue zuon oinpeko zapi margoztauetan, Emen Pandartar zarien guztiok, negar egizue Pandar'en yausteari, zuon begiak urtenagirik; naiz, negarrik ezin ba'dozue, intzirien batzuk egizuez, nigaitik ezpa'da, zeuon azur minduakaitik. Ateak itxi-idigiten neba-arreba zarienok, emendik ile bi barru emen egingo da nire ilburukoa: orain bildur ezpa'nintz, oraintxe egingo neunke... Win-

(19) Teboi'ko baV.-jIdun Anpion'en emazte izan zan Niobe au, Elodatarren mitu-iztiak diñonez. Anpion'gandik amabi seme-alaba izari ebazalako, arrokeriaren arrokeriz, zorpuztu ta zipladaka eragoicn seme-alaba bi baño ez ebazcm Leto yainkonocri-ta, onako yainkono Cnek, asarratu be asarraturik, bere seme-alaba Apolori eta Artemitz'eri Niobe'ren seme-alaba guztiak erail egiezala ctgindu ousen, eta bai aik euren amaren agkidua laster bete be, seme-alabok geziz erailik. Niobe bera arritu, arri biurtu eban. Au dala-ta, "Osindu ta Nicne'tu" negarren negarrak egin eta arritzearen orde z dago. Lanen 'negarrein negarrak egin, eta gero arri biurtu.

(20) Titan dalako au Eguzkia ycrtsu, notindurik, irakurla.

ehesler'ko antzar etsarreen bat txistuka asi ledikekidala da nik orain dodan bildurra: arartean Izerditan egoteko osakaien billa yoango naz; eta garaia eldu dakidanean nire galxak itsiko dautsuedaz nire ilburukozal (21) (Alda dagi).

(21) "Winchester'ko cintzar asarreen bort.,".

Shakepeare'n aldian emagaldutegletako okerreriak epailzea "jury" edo ebazle-batzaren e'skuetan egoan-eta, entzula edo ikusleen artean orko ebazle-batzekoen bat izatea yazo eitekeon-eta, Pandar bildur da geiegirik esaten. Izerdiak izerdi egoztea, barriz, aldi otan gaitz lotsagarri-ustelaren osakaitzaí eben, emen agirl danez beintzat. Lendik be crutorturik dauenez, Panda'r gaitz ori aldean ebala egoan.

Salla'n 1983-IV-20'gnea.

## IZTEGI-ERASKIN

IraduE eratua da íztegitxo au. Itzotadk Zea-nuri'n darabilguzanai (z) ezarriko dautset ezaugarritzat, baña orrek eztau esan gura an bakarrik erabilten diranik, an beintzat ba-darabilguzala baño, Azkue'ren iztegiko itzakaz be orixe yazoten dala ikusita dodanez.. Non erabiliak diran eztiñodan itzak edo Azkue'ren iztegián dagoz, edo barriak dira. Zer barriak izen barriak bear dabez eta geure auke-ran dogu eurái izen bana ezarteá, eta al da-la geuretik ezarri, iñora eskean buru-makurr yoan barik. Ori bai, sentzunez iblli bear dogu izen barririk asmatzerakoan. Orr dozu, esate-rako, "izenburu" itz barria, norbaitzuk erde-razko "título, rótulo, epígrafe" iragaitako. aien ordez "buru-izen" erabili-bearrean. Gure euskerea errotik, zústarr-zústaretik ezagun ba' çjendu, ez azaletik bakarrik, beste txakunek ausi egingo leuskigu! Guie arrobi sakonetik aniak atera \a atera ibili-bearrean, agoitu dalakotan, luirez estall ©gin dogula dirudi. Oraingoz bego!

### A

AATE.—"Pato" ©gaztia.  
 ADI(Z).—Zurr-egote; asmo.  
 ADIADI-ALDI.—Erderazko "éstasis",  
 AIAZO(Z).—Txakurra zirikatu norbaiteri nalz zerbaiteri eldu dagion.  
 AINBATZE.—Erderazko "kontu" (ordaintzeko, naiz artzeko).  
 AIZTO.—"Kutxilo".  
 AKIAKULA.--"Atxaki".  
 AKURATU.—Zorrean artu.  
 ALATZ.—"Mirari".  
 ALDERATUÍZ).—Alborantza okertu.  
 ALDARRIKATU.—Zarataka iragarri.  
 ALDARRIKARI.—Zarataka iragarla.  
 ALDIN.—"Balio".  
 ALDORR(Z).—Enborr, zubil.  
 ALETZ(Z).—Uskeri.  
 ALTXORR.—Balio andiko edozer.  
 ANABAKA(Z).—Erderazko "bazofia"; yalri-on-dakin-naste.  
 AMORE EGIN.—Men egin; erderazko "ceder". Oben egin.  
 AMAREUN.—Armiarma-sare, "arañe-tela".

ALOZ(Z).—Erderazko "alforza, dobladillo, plle-gue, frunce".  
 ANDURR(Z).—Usain txarr; ur andurr = Agua sulfurosa.  
 ANKERR.—Biotz-gogorr, odoltil, basall.  
 ANTZOKI.—Anteztegi.  
 ANTZERKI.—Anteztuteko idatzl dana, ssats-rako idazti au.  
 APEN.—Aspeitze, "bengantza".  
 APERTURI(Z).—Ardura andi, zolitasun gorri.  
 ARERIA (OÑATI).—Arieriotasun, gorroto.  
 ARATEGI.—Okelategi.  
 AREKA (OÑATI).—Bibe-ertzeko ur-bide.  
 ARGITXAKURR(Z).—Erderazko (fuego fatuo".  
 ARI(Z).—Erderazko "hilo" ta "fibra"z ganera, "clase" edo "especie" be bai: esaterako, "onetariko, orretariko, atariko, askotariko", de esta, de esa, de aquel!a clase, de mu-chas clases. Azkue'n iztegián ERI itza ikusi.  
 ARRA(Z).—Erierazko "palmo".  
 ARRASTI(Z).—Arratsalde (arrastiri, laburtu-rik).  
 ASARRE(Z).—Gizon asarre, gizon luze-nasal-sendo; andi.  
 ATE—"Kanpo".  
 ARRAZPEHZ).—Patio, erderas.  
 ATOMAU(Z).—Ausartu.  
 ATZIPETU.—Ziria sartu, raarro ©gln, "enge-ñau".  
 ARKOLO(Z).—Nagi.  
 AZAZKATU(Z).—Erderazko "desahogarse", baila "bengau" be.  
 AZARRI, AZARTU.—Ausartu, atomau.  
 ATZONDO(Z).—Erderazko "pulgada".  
 AZKETSÍ.—"Parkatu".  
 AZPEGI.—Atzak eta begiak; erderazko "mlem-bro".  
 AZTAL.—Orpo-akulu; erderazko "espuela".  
 AZTERBERUN.—Erderazko "sonda".

### B

BAKALDUN.—Errege.  
 BAKALDUNO.—Errege eme.  
 BAKALDEGI.—Eirege-etxe.  
 BANATU (OÑATI).—Ezereztu, erderazko "des-hacer".  
 BAKOITI.—Bikotx eztana; erderazko "Impar".

BARAKULLO.—Erderozke "caracol".  
**BARANO.**—Inguru.  
**BATOL.**—Bikotx.  
**BAZKATU.**—Yan, yaten emon.  
**BEGIRA EGON** (Zerbaiten, naiz norbaiten)(z).—  
**Etxon, itxaron.**  
**BELU(Z).**—Bstrandu.  
**BEBARRU** (OÑATI).—Ebee-sarrerako lenengo  
 leku; "hall" dalakoa.  
**BEOK(Z).**—Bearr dok.  
**BEREZA(Z).**—Erderazko "naturaleza".  
**BILDERR(Z).**—Zer txiki-txiki, uts.  
**BIRAO-DEL.**—Zinkidetza, erderazko "conjure".  
**BOLI.**—Elepantearen txarri-agin.  
**BULKO.**—Buruan dogun zerbaiten irudi, erde-  
 razko "idea",  
**BURESTUN.**—Xoioe.  
**BURUNTZ.**—Koroe.  
**BURRUTZ(Z).**—Aldatz, aldapa.

## D

**DESLAI(Z).**—Bertanbera itxia; galduta, bere  
 kiteitik dabilena.  
**DEMA.**—"Apostu".

## E

**EDEN.**—Sibilikitu(z), zital, "bereno", "pozoi".  
**EGAKL.**—Luma.  
**EGIN(Z).**—Eiderazko "exacto, cabal". "Ordu  
 batakin eginak dira", son exactamente la  
 una.  
**EGIN-EGINEAN(Z).**—Ain zuzen, erderazko  
 "exactamente".  
**EGURATS.**—Aide, arnasaz artzen dogun ze-  
 ra.  
**ELDEKORRI(Z).**—Gorriña, gariak-eta izaten da-  
 ben gatxa.  
**ELORRIO(Z).**—Min zonotz, "tormentu".  
**ERADAN(Z).**—Edanazo.  
**ENTZIN.**—"Koniiu".  
**ERADOSKI** (Zeanuri'n eragotzi).—Esnea eda-  
 nazo edo eradan.  
**ERA-N.**—Ilazo.  
**ERALA.**—Ilazotzalla.  
**ERA-MERA(Z).**—Erderazko "eumplido. ceremo-  
 nia".  
**ERAMERATSU(Z).**—Erderazko "ceremonioso".  
**ERANTSI(Z).**—Eratxiki. intsigiazko; baita erde-  
 razko "añadir" be. Baila "herrar" be.  
**ERASI.**—Berbetan erago.  
**EPO(Z).**—Nanu, gizon naiz emakume txiki-lxi-  
 ki.  
**ERATE.**—Ilazote.  
**ERAUZI.**—Indarka zuzarretik atera.  
**ERESL.**—Musika.  
**ERESKIDE.**—Armoniarr.

**ERESKIDETSU.**—Armonitsu.  
**ERESLARL.**—Soñulari.  
**ERESKIN.**—Soñugallu, esaterako, txistu, adarr,  
 danborr, e. a.  
**ERASLA(Z).**—"Perratzalls".  
**ERIO(Z).**—Iturrik, naiz lasek aldiko emoten  
 daben ura.  
**ERRIKETA.**—"Politica".  
**ETXEKETA.**—"Ekonomi".  
**ESPETXE.**—Baitegi(Z), "Kartzela".  
**ETOI.**—Azipiyale, saltzalla. zital.  
**TXOKI(Z).**—Toki txiki. "Txokino" be esaten do  
 Zeanuri'n.  
**ETZ ANGO.**—Eztategi(z).  
**ETSI(Z).**—Erderazko "estar convencido, conven-  
 cerse".  
**ERETSI.**—Convencer.

## G

**GALARTZU.**—"Zinta".  
**GALBAKO(Z).**—Oñati'n "ilintxa", ale bako gal-  
 buru baltz.  
**GALBOTA(Z).**—Artzan gelditzen dan gari-aka-  
 rro-lasto-ondakina.  
**GALEN.**—Erderazko "multa".  
**GAÑE(Z).**—Lain, aña.  
**GARBITU(Z).**—Beste esangurez gansra ilazo,  
 eran.  
**GELDO(Z).**—Zerbait astiro egilen dauena,  
**GEL.**—Balio; erderazko materia, materlal, can-  
 tidad; baita "capaz" be.  
**GEITSU.**—Balicstu.  
**GENTZA.**—Bake, pake.  
**GESU BATEN(Z).**—Lasteir.  
**GEZI.**—Arranbel edo makoz yaurtiten dan  
 akulu makurr.  
**GEZNA.**—Abixu".  
**GEZNARI.**—Abixuen bat daroana, nai daka-  
 rrena.  
**GEXOSAGARR(Z).**—Irasagarr.  
**GOAKI.**—Arrapakizun.  
**GOAKALLU.**—Goaki, arrapakizun.  
**GOATU(Z).**—Oratu, "arrapau".  
**GOGAKIDETASUN.**—Erderazko "concordia";  
 eretxi batekotasun.

## I

**IDAZKI.**—Kutun, eskutitz, "karta".  
**IGALL.**—Erderazko "iruta".  
**IDAZTL.**—Liburu.  
**IGAROLA(Z).**—"Karreteru", erderazko "trans-  
 portista".  
**IDORO.**—"Topau".  
**IKATZARRL.**—"Diamante".  
**IKURRATZ.**—"Sillu".  
**IKUZI.**—Urez garfaiu. Ilik itz au Zeanuri'n, ba-  
 ña bizirik beretiko "irukutzi".



INGI.—Papel.  
 INTSIGI.—Atxiki, itxiki, "pegau". Emendik datorr "erantsigi" edo "eransi"(z),  
 ILARRAINDU.—Arrolu.  
 IÑONDIKO(Z).—Erbesteko, erderazko "extraño, raro chocante".  
 IRADU.—Asiirik eza.  
 IRATO.—Itoazo..  
 IRAZAKI.—Izanazotako edozer; Yaungoikoaz beste edozer.  
 IRAZAN.—Izanazo; erderazko "crear",  
 ISPEL.—Erderazlto "ostra",  
 IRISTU(Z).—Argaldu.  
 ITXUNGI (ONATD,— "Amatcm",  
 IZARBEL.—Eguzkiaren inguruan dabiltzan ortzeko zetarikoen bat.  
 -IZKI(Z).—Zer txiki, arin. "Afctri-izki", afari arin.  
 IZTARTOLAKA(Z).—Erderazko "a horcaidas".  
 IZTEN(Z).—Lertu, "errementau"; "iztenak egin genduzan barreka", nos reveniamos de riñu.  
 IZUN.—Galen, "multa",

## K

KELEGARR.—Erderazko "alabastro",  
 KERIXA(Z).—Itzal; argi zuzenik eza,  
 KINATU(Z).—Zirikatu, akulua ezarri. Eladeraz "kinein" (Xenofhon).  
 KIRASTAUTS.—"Supre", erderazko "azufre".  
 KUNKUN (OÑATI).—Sapo.  
 KURTZOIN — Errezel(z); erderazko "cortina".  
 KUTXUT.—"Kuartillu" (edari-neurri).

## L

LAGUNGO.—Laguntza.  
 LANDERR.—Ezeuki, txiro; ezer gilxl edo ezer be eztaueiia.  
 LARRAPOTA.—Maixin-salto, safiltukari.  
 LEIARR.—Erderazko "cristal". Bizkai'ko lei ifzetik datorr.  
 LOBEL.—Ura ta ura lango edozer zirin.  
 LUPETZ(Z).—Lokatx.  
 LUPETZA(Z).~Lokatxtza.  
 LURRUNURTU.—Zeren bat lurrundu ta atzera urtu; erderaz "desñlar",

## M

MAKO(Z).—Erderazko "curva, arco, reeodo"; baita arranbel be.  
 MAKODI.—Erderazko "arcada".  
 MAMI-IRUDI.—Erderazko "estatua".  
 MANATU(Z).—Banatu, ezszreztu.  
 MANDAITU(Z).—Zartadaka mallatu, ltatez be igaliak.

IZTEGI-E ISKIN 357  
 MEIKI (ARBIZU).—"Koxo, erren".  
 MEN EGIN(Z).—Iñoren esanera naiz cgindura yarri.  
 MIZKE(Z).—Erderazko "regalón, lozano".  
 MOKIL(Z).—Lur gogorr-zati; erderazko "te-rrón".  
 MOKO.—Punta, piku.  
 MUKERR(Z).—ErJerazko "reacio, resentido, desganado",  
 MUSKERRAREN.—Erderazko "clorosis" dala. koa,

## N

NAIERA(Z).—Aukera; erderazko "gusto, capricho", Norbaiteri naierak egin..  
 NARRU-LAKATZ.—Zañarr, "gallu".  
 NEURRIKOTASUN.—Geiegikeririk eza; erderazko "modestia".

## O

OBEN(Z).—Okerr, okerr-une; "pekatu", Azkue be ikusi.  
 OBIBURUKO.—Obi-ganean idatzia.  
 ODI(Z).—Tutu; erderazko "tubo". 00000000..  
 DI, ori da izan be tutua.  
 OKOLU, OKULU(Z).—Baztarr, erderazko "rñ-cón",  
 OLDARTU.—Atomau, eraso.  
 ONINDARR.—Onerako indarr, erderazko "virtud".  
 ONU(Z).—Zerbait zelán egin bearr dan esatea; "kontseju".  
 ORAGUN.—Erderazko "esponja"; iruskorr da oraguna.  
 OREIN.—Basauntz,  
 ORO.—Guzliak. "Egun oro", egun guztietan,  
 ORROLLO(Z).—Orridun abarr; orrolloz uxatuten dira maiko euliak.  
 OSKI.—"Zapata"; narru gogorrezko oñetako.  
 OSKIGIN.—Zapatari.  
 ORTZE, ORTZL.—Begiz dakusgun "zeru",  
 OTSEIN(Z).—Morroi, mirabe, neskame.  
 OTSEINDU(Z).—"Serbiuu".  
 OTSEINTZA(Z).—Erderazko "servicio".  
 OTURUNTZA.—Yataldi.

## S

SABELZORRI(Z).~Yangarr, gose.  
 SAGUTZARR.—"Arratoi".  
 SASTAKAI.—Aldea bietatik sorbatza dauen ezpatatxo.  
 SIRATS.—Adu, alanbearr.  
 SOMEN.—"Sentimen". Biziak bai, ilak ez da-be somenik.  
 SOROSKI.—Ukarr, legungarri, "ei-remusina".  
 SUODI.—"Kañoë, kañoi", Gudu-tresna dogu cu.

## T

TERTZIO(Z).—Garai.  
 TERTZIOZ(Z).—Garaiz.  
 TXAIRO(Z).—Erderazko "elegante. apuesto".  
 TXARAKA(Z).—Zugatz merro, adartsu ta adarrok kirimilduta dauzana.  
 TXARRINDARR.—Erderazko "vicio": txarrera-ko indarr.  
 TXATARR(Z).—Txinpart.  
 TXIBIZ(Z).—Inartsitsu, bekaizti.  
 TXERA(Z).—Abegi, arrera.  
 TXIRO.—Ezeuki, landerr, "probe".  
 TXOKI(Z).—Leku txiki esitu. "Txarri-txoki", txarritegi.  
 TXOKINO(Z).—Toki itxi txiki.  
 TXOTEN(Z).—Zotin, erderazko "hipo".

## U

UGUX(Z).—Ur-yauzi; erderazko "catarata".  
 Niagara'ko uguxak.  
 UIN, UGIN.—Urtu(z). olatu.  
 UKARR.—Soroski, "erremusina",  
 UKUZPEN.—"Bateo", bateatze.  
 URUTU(Z).—Olatu, uin, ugin.  
 URTZI.—Yaungoiko.  
 USIGKZ), USEGI — Aginka egin.  
 USIKADA(Z).—Aginkada. "Usikada bat ekak",  
 dame un bocado.  
 USABURKI.—Erderazko "bólsamo".  
 UZTA.—"Kuxetza". "Gari-uzta ona izan dogu" = gari-kuxetza ona izan dogu.

## Y

YAGI(Z).—Artzi. "Ogiak yagl dira", ya han mentado los panes.  
 YAN-AUSI(Z).—Erderazko "digerir". "Aíarie ausi barik etzan zan urrean".  
 YAKINKIDETZA.—"Kontzentzi".

YAKINKIDE IZAN.—Erderaiko "tener conciencia".  
 YASA(Z).—Erderazko "Porte apostura". "Orrek yok yassa!", ¡qué porte gallardo tiene ese!  
 YASAN.—Eroan, "sufridu".  
 YASANKIDEGO.—Yasaten lagun izatea, "kompasiño".  
 YAURESKETA.—Erderazko "culto".  
 YAURESPIDE.—"Erlejiño".  
 YAURETSI.—Gurtu, "adorau".  
 YAURETXE.—Yaungoiko-etxe; gure artean bada, "elexa".  
 YAUZI.—Sailtu, sailtu egin,  
 YESAN.—Zorrean artu zerbait.  
 YOALE.—Kanpae, arran.  
 YOPU.—Edozetan inoren bendeko dana,  
 YORL.—Ugari, baliotsu.  
 YOSKILE(Z).—Yostun.  
 YUSTURI(Z).—Oñeztu.

## Z

ZADORR(Z).—Lurpeko bide, urak egina.  
 ZAMA.—Pixu, "karga".  
 ZALDI-MALLA.—Erderazko "estribo"; zaldi-ganera igoteko ta ganean ibilteko da.  
 ZAMIL(Z).—Erderazko "tendón". (Zan-biletik datorrela dirudi).  
 ZEARTAU(Z).—Lurreratu.  
 ZENBAKIZTI.—Erderazko "aritmética".  
 ZILEGI.—Legezko; galazorik eztagona.  
 ZILEGIZTI.—Zer dan zilegi ta zer ez diraka. san yakintzea.  
 ZILEGIZTILARL—Zilegiztia dirakasana.  
 ZITAL.—Sikilikitu, "pozoi".  
 ZUGAZNO.—Abe edo "arbola" txiki, abarr.  
 ZIO.—Zegaiti, "errasoi", argibide.  
 ZURRIAN.—Dalakotzat. Atzizk-arloko da, "Irakasla-zurrian datorr", irakasla dalakotzat dator.  
 ZURUBI.—"Eskellara"; nonbaitera ta nonbaitetik yatsi-igona egiteko tresna.